



EUSKO
LEGEBILTZARRARENTZAKO
TXOSTENA
2007

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

EUSKO LEGEBILTZARRARENTZAKO
TXOSTENA - 2007. URTEA
ARARTEKOA

© ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Paper ekologikoa.

ISBN: 978-84-89776-22-7

L.G.: VI-58/08.

Eusko
Legebiltzarrarentzako
Txostena
2007

ararteko

Herriaren Defendatzailea

Defensoría del Pueblo

AURKIBIDEA

| | |
|-------------------------------|--|
| AURKEZPENA | 17 |
| I. ATALA. | JARDUERARIK GARRANTZITSUENEN ANALISIA ALORREZ ALOR..... 19 |
| II. ATALA. | LEHENTASUNEZKO TALDEAK 209 |
| III. ATALA. | GOMENDIO OROKORRAK 487 |
| IV. ATALA. | TXOSTEN BEREZIAK..... 503 |
| V. ATALA. | GIZA ESKUBIDEAK ERRESPESTATZEKO ETA GI- ZARTE ZIBILAREKIN NAHIZ ESKUBIDEAK BERMA- TZEKO ERAKUNDEEKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN BESTE JARDUERA BATZUK..... 513 |
| VI. ATALA. | ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN..... 565 |
| VII. ATALA. | ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA 609 |
| VIII. ATALA. | ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ETA IRADOKI- ZUNAK ZENBATERAINO BETE DIREN 635 |
| IX. ATALA. | ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK 651 |
| ERANSKINA | GRAFIKOAK..... 677 |
| GAIEN AURKIBIDEA | 693 |

| | |
|---|-----|
| AURKEZPENA | 17 |
| I. ATALA. JARDUERARIK GARRANTZITSUENEN ANALISIA ALORREZ ALOR | 19 |
| 1. Gizarte Ekintza | 23 |
| 2. Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa..... | 56 |
| 3. Kultura eta Elebitasuna | 61 |
| 4. Hezkuntza..... | 65 |
| 5. Funtzio Publikoa | 79 |
| 6. Ogasuna | 90 |
| 7. Herrizaingoa | 102 |
| 8. Justizia..... | 130 |
| 9. Ingurumena..... | 146 |
| 10. Herri Lanak eta Zerbitzuak | 161 |
| 11. Animaliak Babestea | 174 |
| 12. Osasuna..... | 177 |
| 13. Lana eta Gizarte Segurantzza | 183 |
| 14. Hirigintza eta Lurralde Antolamendua..... | 186 |
| 15. Etxebizitza..... | 196 |
| 16. Zenbait Gestio | 208 |
| II. ATALA. LEHENTASUNEZKO TALDEAK | 209 |
| 1. Berariazko arreta emakumeen eta gizonen berdintasunari..... | 213 |
| 2. Berariazko arreta adinekoei | 247 |
| 3. Berariazko arreta adingabeei..... | 271 |
| 4. Berariazko arreta ezgaitasuna duten pertsoneri | 414 |
| 5. Berariazko arreta etorkinei..... | 430 |
| 6. Berariazko arreta ijito herriari | 440 |

| | |
|---|-----|
| 7. Berariazko arreta gizartean baztertuta edo pobrezian bizi diren pertsonen 451 | 451 |
| 8. Berariazko arreta terrorismoaren eta jazarpen indarkeriaren biktimei 467 | 467 |
| 9. Berariazko arreta lesbiana, gay, bisexual eta transgeneriko edo transexualei . 468 | 468 |
| 10. Berariazko arreta espetxeratuei 475 | 475 |
| 11. Berariazko arreta gaixo kronikoei 480 | 480 |
| III. ATALA. GOMENDIO OROKORRAK 487 | 487 |
| 1. Komenigarria da eskola mapa berriaren ildotik haur eskoletan onarpen irizpide komunak ezartzea 489 | 489 |
| 2. Ertzaintzak eta Udaltzaingoak poliziaren xedeetarako biltzen dituzten datu pertsonalak ofizioz balio gabetzea 493 | 493 |
| IV. ATALA. TXOSTEN BEREZIAK 503 | 503 |
| 1. 2007. URTEAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIA Txosten berezia: gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn 505 | 505 |
| 2. 2007. URTEAN EGITEN ARI DIREN TXOSTEN BEREZIAK..... 508 | 508 |
| 2.1. Hurrengo txosten berezia: terrorismoaren biktimen egoera eta beharrak EAEn eta jazarpen indarkeria delakoa 508 | 508 |
| 2.2. Hurrengo txosten berezia: EAeko arreta soziosanitarioaren egoera 509 | 509 |
| 2.3. 2007an prestatzen hasi garen beste txosten berezi batzuk..... 510 | 510 |
| V. ATALA. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN NAHIZ ESKUBIDEAK BERMATZEKO ERAKUNDEEKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN BESTE JARDUERA BATZUK 513 | 513 |
| 1. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK..... 515 | 515 |
| 1.1. Taldeekin, elkarteekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan jarduteko harremanak 515 | 515 |
| 1.2. Arartekoak ematen dituen ikerketa bekak eta Arartekoaren argitalpenak 525 | 525 |
| 1.3. Herritarren partaidetzarako III. Foroa: “Bizikidetzeta eta gatazkak ikaste-txeetan” 529 | 529 |
| 1.4. Hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko IV. Foroa: “Herritarren partaidetzeta: fikzioa ala errealitatea?” EHUren udako ikastaroetako jardunaldia: “Herritarrek ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan parte hartzea” 530 | 530 |
| 1.5. Giza eskubideen arloan sentsibilizatzeko jarduerak 540 | 540 |

| | |
|---|-----|
| 2. GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO ERAKUNDEEKIN BIDERATUTAKO JARDUERAK..... | 541 |
| 2.1. Herriaren Defendatzailen Koordinaziorako XXII. Jardunaldiak | 541 |
| 2.2. Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioaren (OIF) Urteko XII. Biltzarra | 555 |
| 3. ARARTEKO ERAKUNDEAREN BESTELAKO JARDUERAK..... | 559 |

VI. ATALA. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN .

| | |
|--|-----|
| 1. OHAR ETA DATU OROKORRAK..... | 567 |
| 2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR | 571 |
| 3. ESTADISTIKA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA | 576 |
| A) Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexak..... | 577 |
| B) Foru administrazioen aurka aurkeztutako kexak..... | 578 |
| C) Toki administrazioaren aurka aurkeztutako kexak | 580 |
| D) Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuen aurka aurkeztutako kexak | 585 |
| E) Justizia administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan dituen administrazio zerbitzuen aurka aurkeztutako kexak | 585 |
| 4. LURRALDE ESTADISTIKA (KEXEN BANAKETA LURRALDEEN ARABERA) | 586 |
| 5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA (KEXEN EGOERA) | 590 |
| 6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA (SEXUA, HIZKUNTZA, ERREKLAMATZEKO MODUA)..... | 600 |
| 7. ARRETA ZUZENEKO BULEGOEN JARDUERA (BISITAK ETA TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK)..... | 602 |
| 8. OFIZIOZKO JARDUERAK..... | 604 |
| 9. ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAREN BALORAZIOA (ERABILTZAILEEI EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK)..... | 605 |

VII. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA.....

| | |
|--|-----|
| 1. SARRERA ETA OHARRAK..... | 611 |
| 2. ARARTEKOAK 2007. URTEAN EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDEEI ETA AGINDEIEI ADMINISTRAZIOEK EMANDAKO ERANTZUNA | 615 |
| A) Eusko Jaurlaritza..... | 615 |
| B) Foru aldundiak..... | 616 |
| C) Udalak | 617 |
| D) Beste erakunde publiko batzuk | 621 |

| | |
|--|-----|
| 3. ARARTEKOA 2007. URTEAN INFORMAZIOA LORTZEKO EGIN DITUEN AGINDEIEN ZERRENDA | 622 |
| A) Eusko Jaurlaritza | 622 |
| B) Foru aldundiak | 625 |
| C) Udalak | 626 |
| D) Beste erakunde publiko batzuk | 631 |
| 4. ARARTEKOA 2007. URTEAN EGINDAKO OHARTARAZPENEN ZERRENDA | 632 |
| A) Foru aldundiak | 632 |
| B) Udalak | 632 |

VIII. ATALA. ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK ZENBATERAINO BETE DIREN

| | |
|---|-----|
| 1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK | 640 |
| A) Eusko Jaurlaritza | 640 |
| B) Foru administrazioa | 640 |
| C) Tokiko administrazioa | 640 |
| D) Eragindako beste erakunde batzuk | 642 |
| 2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK | 643 |
| A) Eusko Jaurlaritza | 643 |
| B) Foru administrazioa | 643 |
| C) Tokiko administrazioa | 644 |
| 3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK | 646 |
| A) Eusko Jaurlaritza | 646 |
| B) Foru administrazioa | 646 |
| C) Tokiko administrazioa | 647 |
| 4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK | 650 |
| Tokiko administrazioa | 650 |

IX. ATALA. ONDORIOAK. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK

| | |
|--|-----|
| 1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA | 654 |
| 2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK | 658 |
| 2.1. Bizitzeko eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea | 658 |
| 2.2. Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Atxilotuen eskubideak | 659 |
| 2.3. Intimitaterako eskubidea eta norberaren datuak babesteko eskubidea | 660 |
| 2.4. Funtzio publikoan sartzeko berdintasunaren printzipioa | 661 |
| 2.5. Babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Errugabetasun ustearen prin- tzipioa | 662 |
| 2.6. Askatasunik ez duten pertsonen eskubideak | 664 |
| 2.7. Hezkuntzarako eskubidea | 664 |

| | |
|--|-----|
| 3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK | 666 |
| 3.1. Zerga-sistema bidezkoa. Berdintasun, progresibotasun eta legezko tasun printzipioak | 666 |
| 3.2. Jabetza pribaturako eskubidea | 667 |
| 4. GIZARTE ESKUBIDEAK..... | 668 |
| 4.1. Familiaren babesa. Adingabeen eskubideen babesa..... | 668 |
| 4.2. Osasunerako eskubidea..... | 670 |
| 4.3. Ingurumen egokia izateko eskubidea | 671 |
| 4.4. Etxebizitza duina izateko eskubidea | 672 |
| 4.5. Ezgaitasun fisikoa, sentimenezkoa edo psikikoa dutenen eskubideak... | 674 |
| 4.6. Adinekoen eskubideak | 675 |
| 5. LABURBILKETA..... | 676 |

ERANSKINA GRAFIKOAK 677

| | | |
|---------------------|--|-----|
| - 1. Diagrama: | Arartekoak zenbatetan ikusi duen jarduera okerra administrazioaren jokaeran 2007an burututako kexetan..... | 679 |
| - 2. Diagrama: | Ararteko erakundearen esku-hartzea zenbateraino izan den eraginkorra..... | 679 |
| - 3. Diagrama: | Arartekoak jasotako kexa kopuruaren bilakaera (1989-2007)..... | 680 |
| - 4. Diagrama: | 2007an jasotako kexen egoera onarpen prozesuaren ondoren | 680 |
| - 5. Diagrama: | Zuzenean bideratutako kexen banaketa, jarduera alorren arabera..... | 681 |
| - 6. Diagrama: | Zuzenean bideratutako kexen banaketa, eragindako administrazioen arabera | 681 |
| - 7. Diagrama: | Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera | 682 |
| - 8. Diagrama: | Eusko Jaurlaritzaren aurka aurkeztutako kexen banaketa, sailen arabera | 682 |
| - 9. Diagrama: | Foru aldundien aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera..... | 683 |
| - 10. Diagrama: | Udalen aurka aurkeztutako kexen banaketa, alorren arabera | 683 |
| - 11. Diagrama: | Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera (1989-2007) | 684 |
| - 12. Diagrama: | Lurralde bakoitzetik jasotako kexen bilakaera 10.000 biztanleko (1989-2007) | 684 |
| - 13. Diagrama: | Jasotako kexen banaketa, kexagileen ezaugarrien arabera | 685 |
| - 14. Diagrama: | Jasotako kexen banaketa, erabilitako hizkuntzaren arabera.. | 685 |
| - 15. Diagrama: | Jasotako kexen banaketa, aurkezteko eraren arabera..... | 685 |
| - 16-17. Diagramak: | 2007an arreta zuzeneko bulegoetan jasotako bitak (kopurua eta ezaugarriak)..... | 686 |

| | | |
|-------------------------------|--|------------|
| - 18. Diagrama: | Banaketa adin taldeen arabera..... | 686 |
| - 19. Diagrama: | Kexa bilakatutako bisitak..... | 687 |
| - 20. Diagrama: | Ofiziozko jarduerak (2007). Banaketa alorrez alor | 688 |
| - 21. Diagrama: | Ofiziozko jarduerak (2007). Eragindako administrazioen arabera banaketa | 688 |
| - 22-27. Diagramak: | Kexagileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa (inkestaren emaitzak)..... | 689 |
| - 28-29. Diagramak: | Euren arazoa “ez da konpondu” edo “nahiko txarto konpondu da” dioten kexagileek Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa..... | 692 |
| GAIEN AURKIBIDEA | | 693 |

AURKEZPENA

Kalitatearen alde eta, hortaz, gure lanaren emaitzak Eusko Legebiltzarrari eta euskal herritarrei ezagutarazteko ditugun baliabideak hobetzearen alde etengabe egiten ari garen apustuan, urtero berrikuntzak egiten ditugu urteko txostenean. Ez da batere erraza ezinbestean mardula eta luzea izan behar duen txosten honen irakurketa atsegina, arina eta erakargarria izan dadin lortzea, izan ere, Ararteko erakundeak 2007. urtean burutu duen lan zabal eta askotarikoa bildu behar du.

Urteko txostenaren euskarri nagusia CD-ROMa da, eta batez ere horixe erabiliko dugu txosten hau ezagutarazteko, arrazoi praktiko eta funtzionalengatik, baina baita ingurumen- eta ekonomia-arrazoiengatik ere. Oraingo honetan, berrikuntza gisa, CD-ROM horretan sartu ditugu urtean zehar gomendioarekin edo iradokizunarekin batera eman ditugun ebazpenak. Kexa-espedienteak bideratu eta ebaztean egindako jarduerarik aipagarrienak kontatzean, ebazpen horien enuntziatuak agertzen dira arlo material ezberdinetan; horrela, lotura baten bidez, ebazpenaren testu osoa irakurtzeko aukera ematen da. Aukera teknikoa da, noski, paperezko euskarrian ezin gauzatzukoa. Edonola ere, komenigarria iruditu zaigu liburu kopuru txiki bat argitaratzea ordenagailurik ez duten pertsonentzat edo testua pantaila informatiko batean irakurtzea zail gertatzen zaienentzat.

Beste berrikuntza garrantzitsu bat ere bada: dezente hobetu da urteko txostenaren laburpena biltzen duen aldizkaria. Ahalik eta hedapenik handiena eman nahi diogu argitalpen horri, eta urteko txostena bere baitan daukan CD-ROMa erantsi diogu, uste baitugu herritarrek horrela errazago ezagut ditzaketela Arartekoa eta bere jarduerak.

Urteko txostenean, Arartekoan bideratu diren kexa-espedienteen berri eman ohi da, gaika multzokatuta, erakundearen lana egituratzeko dauden arloen arabera eta herritarrek euskal herri-administrazio baten jardueraz –edo jarduera faltaz– egindako kexen arabera. Kexaren prozeduran ezinbestekoa da, normala denez, eragindako administrazioari aditzea, bere jarrera oinarritu dezan. Aurten ere adierazi beharra daukagu, zoritxarrez, eragindako administrazioak askotan (estatistikari buruzko informazioan ikus daitekeenez) ez duela azkar erantzuten edo informazio eskasa bidaltzen duela, egindako eskaerari ez dagokiona. Horrek guztiak eragin kaltegarria izaten du ematen dugun zerbitzu publikoaren kalitatean.

Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak, honela definitzen du erakundea: Konstituzioaren I. idazpuruan bildutako eskubideak defendatzeko eta horiek legearen arabera bermatzeko asmoz Legebiltzarrak jarri duen goi-ordezkarria da. Beraz, gure eginkizun nagusia hori izan arren, ez dugu kexak bideratzen bakarrik jardun behar. Kexekin zerikusirik ez duten jardueren artean, lehenik

eta behin, txosten bereziak nabarmendu nahiko nituzke. Txosten berezietan, behar bezala diagnostikatu eta aztertu behar diren prestazio publiko, baliabide, dispositibo edo errealitateak aztertzen dira, horiek hobetzeko asmoz, Euskadin herritar guztiek beren eskubideak behar bezala eta baldintza beretan baliatu ahal ditzaten.

Txosten berezietan gain, lehen aipatu dudan helburu orokorrari helduz, Arartekoak era askotako jarduerak burutzen ditu, oinarriko eskubideak erabiltzerakoan urratze, urritasun, arrisku edo ahultasun egoeran dauden taldeei dagokienez. Bilerak egiten ditu gizarte erakundeekin eta herri-administrazioetako hainbat arduradunekin; zenbait biltzar, jardunaldi eta mintegitan parte hartzen du; ikerketa-bekak iragartzen ditu, eta abar. Baliabide horiek guztiak zerikusi zuzena dute aipaturiko egoeren informazio zehatza eta eguneratua izateko helburuarekin, gero administrazio eskudunei gomendioak egiteko.

Arartekoan gero eta biziago dihardugu honako hamaika talde hauen errealitatea aztertzen: emakumeak; adinekoak; adingabeak; ezgaitasunen bat edo dibertsitate funtzionala dutenak; atzeritarrok edo etorkinak; gutxiengo kulturalak; pobrezian bizi direnak; indarkeria terroristaren biktimak; gay, lesbiana, transexual eta bisexualak; espetxeratuak; gaixotasun kronikoa dutenak eta buruko gaitz edo nahasmendua dutenak. Ombudsman erakunde honek arlo horietan lan proaktiboa eta sustapenezkoa egiteak esan nahi du Arartekoa Adintsuaren, Emakumearen, Adingabearen eta abarren Defendatzailea dela, Eusko Legebiltzarraren goi ordezkaria denez. Ildo horretan, zeharkako ikuspegia oso garrantzitsua eta baliotsua dela nabarmendu nahi dut; ikuspegi horretatik heltzen diogu gure lanari bereizkeria, bazterketa, desberdintasuna eta osotasun fisiko eta moralaren kontra nahiz talde horien eskubideak errespetatzearen kontra egon daitezkeen arriskuak deuseztatzeke.

Giza eskubideak defendatzeko erakundea garen aldetik, aurten ere enfasi bereziaz nabarmendu behar dugu giza eskubideen aldeko kultura indartu behar dela, botere publikoek eta herritar guztiok lanean jardun dezagun giza eskubideak errespetatzeko printzipioa sustatzen eta sendotzen. Horren haritik, garrantzizkoa iruditzen zait adieraztea giza eskubideak babestu eta hobetuko badira, herritarrok konprometitu behar dugula, zorrotzak izan behar dugula eta eskubideak errespetatu eta defendatzeko balio demokratikoak tinko barneratuta izan behar ditugula. Aurrerantzean Euskadin norabide egokian urrats erabakigarriak egin ditzagun espero dut.

Iñigo Lamarca Iturbe
ARARTEKOA

I. ATALA

JARDUERARIK GARRANTZITSUENEN
ANALISIA ALORREZ ALOR

Arartekoak, legez bere esku utzitako funtzioen artean, herritarrek egiten dizkioten kekek ebatzi behar ditu, eta bai ofizioz esku hartu ere, itxuraz oinarritzko eskubideren bat urra lezakeen edo legeak betetzen ez dituen administrazio jardueraren bat antzematen duen bakoitzean.

Jasotako 1.558 kekek eta 2007. urtean hasi ditugun ofiziozko 62 jarduerak askotariko arazoek erakusgarri dira, eta horregatik atal honetan jarduerarik azpimarragarrienak bildu dira, Ararteko erakundearen jarduerak hartzen dituen alor desberdinetan sailkatuta.

Arartekoaren bulegoak aztertzen dituen gaien era askotariko kasuistikaren isla izan nahi du atal honek, euskal herritarren kezken berri ematen baitute.

Txostenaren atal honetan zenbait berritasun garrantzitsu egin dira. Ararteko erakundeak Eusko Legebiltzarrarentzat egin dituen aurreko txostenetan, atal honetan kexa-espeditante eta ofiziozko jarduera adierazgarrietako batzuk biltzen ziren, alorrez alor eta azpiarloetan multzokatuta.

Aukeratutako kexa-espeditante bakoitzaren laburpena hiru zatitan egituratuta dago: sortutako problematika islatzen zuen gertakarien kontakizuna; adierazitako arazoaren analisia; eta Ararteko erakundearen esku-hartzearen bukaerako emaitza. Gainera, arlo bakoitzean sarrera egiten zen eta, bertan, zegokion arloaren inguruko ikuspegi globala eskaintzen zen.

2007ko ekitaldi honetan, lehen aldiz, espeditanterik garrantzitsuena zerrenda ezabatu egingo da.

Horren ordez, arlo bakoitzean egindako sarrera indartuko da eta, horrela, ikuspegia orokorragoa eta sistematikoagoa izan dadin sustatuko da, nahiz eta kexetan adierazitako kasu zehatzak aipatuko diren.

Bestalde, teknologia berriak pixkanaka ezartzea lortu nahi da, herritarrekin harremanetan jartzeko ditugun tresnak etengabe hobetzen joan ahal izateko. Horrela, liburu gisa doan txostenari erantsitako CD-ROM ez da, soilik, txostena beste formatu batean emana; aitzitik, horri esker, kexa-espeditantei eta ofiziozko jarduerari amaiera ematen dieten ebazpenak osorik kontsultatu ahal izango dira, dagozkien loturen bidez. Bestalde, aipatu behar dugu erakundearen web orrian (www.ararteko.net) 2007ko txostena ere aurkitu ahal izango dela, baita urteko txosten honetan hainbatetan aipatzen diren Ararteko erakundearen gainerako ohizko eta ezohizko txostenak ere.

1. GIZARTE EKINTZA

1.1. SARRERA

2007an 115 kexa jaso dira arlo honetan, hau da, erregistratutako kexa guztien %7,38.

Eragindako administrazioak kontuan hartuta, banaketa hurrengoa da:

| | |
|---|----|
| - Foru administrazioa | 54 |
| - Toki administrazioa | 49 |
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 19 |

Administrazio horietako bakoitzak eskumen ezberdinak ditu adierazitako alorrean, beraz, hiru administrazioen artean gizarte alorreko eskumenak banatzen diren moduak neurri handi batean zehazten du administrazio bakoitzak jasotako kexa-kopurua. Banaketa konplexua da. Eskumen ezberdinen antolamendua Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legearen eta Gizarte Zerbitzuen Alorreko Egitekoak Zehazteko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren bidez egin da. Horiek zerbitzu eta prestazioak egokitzen dizkiete administrazio ezberdinei: Eusko Jaurlaritzari, aldundiei eta udalei.

Alor horretan proposaturiko gaien edukari arreta emanez gero, azpialorren hurrengo sailkapena ikusi ahal izango dugu:

| | |
|--|----|
| - Diruzko gizarte prestazioak | 42 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta prozedura administratiboa | 19 |
| - Adinekoei eskainitako laguntza | 12 |
| - Haur eta gazteei eskainitako laguntza | 11 |
| - Babes bereziko taldeei eskainitako laguntza | 10 |
| - Ezgaitasunen bat duten pertsonen eskainitako laguntza | 9 |
| - Familiari eskainitako laguntza | 6 |
| - Beste batzuk | 4 |
| - Emakumei eskainitako laguntza | 2 |

Atal honetan, 2007an gizarte alorrari buruzko arauetara ekarritako berritasunen analisia egingo da, baita arloko alderdi garrantzitsuenen analisia ere, dagozkion azpiarloetan banatuta.

1.2. ARAUETAKO BERRITASUNAK

2007. urtearen hasieran, **39/2006 Legea** sartu zen indarrean, abenduaren 14koa, mendetasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta laguntza sustatzekoa, "Mendetasunaren Legea" izenaz ezagunagoa eta, neurri handi batean, joan den urteko txostenean aztertu zena. Aurreikuspenen arabera, Legea pixkanaka joango da ezartzen, 2014ra arte.

2007an, Legearen eta, beraz, bertan jasotako prestazioen eraginkortasuna mendentasun egoera larrietara mugatu da; alegia, mendentasun handiari dagokion III. graduari (1. eta 2. mailatan) bildutako kasuetara, eta horien inguruko garapen eta aplikazio arau batzuk eman dira nola Estatuan hala Autonomia Erkidegoan.

Estatuko garapenari dagokionez, honakoak aipa daitezke: 504/2007 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, mendentasuna baloratzeko baremoa onartzekoa; 727/2007 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, zerbitzuen babes mailak eta diruzko prestazioen zenbatekoa zehazteko irizpideei buruzkoa; 614/2007 Errege Dekretua, maiatzaren 11koa, Estatuko Administrazio Orokorrak Autonomiarako eta Mendentasunaren Arretarako Sistemari bermatzen dion gutxieneko babes mailari buruzkoa; eta 615/2007 Errege Dekretua, maiatzaren 11koa, mendeko pertsonak zaintzen dituzten pertsonen gizarte segurantza arautzekoa. Kotizazio hori Estatuak hartzen du bere gain.

Finantzaketari dagokionez, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren 2007ko maiatzaren 23ko ebazpena aipatu dugu, Ministroen Kontseiluko akordioa onartzen duena. Akordio horretan, Mendentasunaren Legean aurreikusi den maila finantzatzeko administrazio arteko lankidetzaren esparrua eta Estatuko Administrazio Orokorraren kredituak banatzeko irizpideak finkatu dira. Akordio horrek autonomia-erkidego bakoitzean guztira dauden mendeko pertsonen zenbatespena egiten du eta, horrekin batera, III. graduari dagokionena, adin tartearen arabera banatuta. Horren ildotik, EAERI dagokionez eta bertan biztanle kopurua kontuan hartuta (2.133.684 biztanle), mendeko pertsonak gutxi gorabehera 54.544 dira eta, horietatik, 9.516 III. graduari daude. Datu horien arabera, Estatuak 8.853.321 euroko finantza-konpromisoa ezarri du EAERako.

Lege honek konstituzio kontraktasuneko bi errekurtsio eragin ditu, zenbait maturan aurkakoak, Nafarroako bi elkarteren aldetik, alegia, Gobernu eta Parlamentua. Nafarroako Gobernuak adierazi du errekurtsioa kenduko duela, Estatuko Administrazio Orokorrak eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Lankidetzaren Batzordean lortutako akordioari esker.

Legea Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzea, neurri handi batean, foru aldundiei dagokie, horiek izaki mendeko pertsonen arloan eskumena dutenak, gizarte zerbitzuen alorreko eginkizunak zehazteari buruzko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuarekin bat etorritik. Beharrezkoa zen, beraz, Aldundiek legea aplikatzeko modua hiru lurralde historikoetan arautzea. Garapena geldoa eta garestia izan da eta lurraldeetako bakoitzean erritmo ezberdina izan du, ez hainbeste Legean biltzen diren zerbitzuengatik (egoitzak, eguneko zentroak, etxer etxeko laguntza-zerbitzua, etab.), baizik eta biltzen dituen diruzko prestazioengatik. Hain zuzen ere, gure autonomia-erkidegoan, zerbitzu horien ezarpena jada nahikoa aurreratuta dago. Hala ere, Legeak, berritasun gisa, hiru motatako diruzko prestazioak eskaintzen ditu: lehenak, zerbitzuari lotuta dagoenak, arreta zerbitzu pribatu batean (egoitza, eguneko zentro, etab.) jasotzeko egindako gastua konpentsatzea du helburu, Administrazioak pertsona horri zerbitzua jasotzeko eskubidea onartu bai baina, plaza faltagatik, ezin eskain diezaiokeenean; bigarrena famili inguruneko zainketaerako eta zaintzaile ez-profesionalentzat dira; eta hirugarrenak, laguntza pertsonalekoak, mendentasun handiko pertsonen autonomia sustatzea du helburu, laguntzaile pertsonal bat kontratatu ahal izateko, onuradunak hezkuntzarako nahiz lanerako sarbidea izan dezan eta eguneroko bizitzako ohiko jardueretan autonomia handiagoa izan dezan. Halaber, aldundiek beren arauak aipatu legera egokitu behar zituzten, mendentasuna aintzatesteari eta zerbitzuak eta diruzko prestazioak eskuratzeko moduari zegokienez.

Mendetasun egoera aintzatesteko prozedura dela-eta, hiru aldundiek batera garatu dute: Araban 39/2007 Foru Dekretua onartu zen eta Bizkaian 74/2007 FD, biak apirilaren 24an; egun bat beranduago, apirilaren 25ean, 320/2007 Foru Agindua onartu zen Gipuzkoan.

Zerbitzuak eskuratzeari dagokionez (eguneko nahiz gaueko egoitzak, etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta telelaguntza), Araban 39/07 Foru Dekretuaren bidez araututa dago eta Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, lehengo araudia aplikatzen jarraitzen da, berariazko araudi berririk ezean.

Diruzko prestazioak eskuratzeari dagokionez (zerbitzuari lotutakoa; famili inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko dena; eta laguntza pertsonalekoa), egoera ez da homogeneoa.

Arabian, bi prestazio arautu dira: batetik, zerbitzuari lotutakoa, uztailaren 3ko 53/2007 FDren bidez; horretarako, adinekoak sare publikotik kanpoko egoitzetan sartzeko Aldundiak zuen antzeko beste laguntza baten araudia aldatu behar izan da. Bestetik, berriz, famili inguruneko zainketetarako dena, urriaren 23ko 70/2007 FDren bidez; honen arabera, laguntzak 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak eta II. gradua, 2. maila, aintzatsita dutenek ere bereganatu ahal izango dute (laguntza jasotzeko eskubidea 2008tik aurrera onartu da). Arabako Foru Aldundiak oraindik ez du laguntza pertsonalagatiko prestazioa arautu.

Bizkaian ere bi prestazio arautu dira: famili inguruneko zainketetarako dena, ekainaren 19ko 98/2007 FDren bidez (azaroaren 6ko 198/2007 FDk aldatua), eta laguntza pertsonalekoa, ekainaren 19ko 99/2007 FDren bidez (azaroaren 6ko 199/2007 FDk aldatua). Bi kasuetan, ondorio ekonomikoek laguntza jasotzen hasi zeneko hilabetera egingo dute atzera. Aldundi honek oraindik ez du zerbitzuari lotutako prestazioa arautu.

Gipuzkoan, hiru diruzko prestazioak arautu dira, azaroaren 20ko 133/2007 FDren bidez. Ondorio ekonomikoak mendetasunaren balorazioa egiteko eskatzen den egunetik edo, beranduagokoa bada, zerbitzua hartu izana egiaztatzen denetik onartuko dira. Zerbitzuari lotutako prestazioaren kasuan, eskatzaileak hiru hilabete baino gehiago eman behar ditu itxaron zerrendan.

Laburbilduz, EAEn Mendetasunaren Legea aplikatzearekin erlacionatutako alderdi desberdinei buruzko araudia pixkanaka eta lurralde bakoitzean erritmo ezberdinean garatu da. Gainera, 2007 amaituta, oraindik ez dira aurreikusitako prestazio guztiak arautu; laguntza pertsonalari dagokiona falta da Araban eta zerbitzuari lotutakoa Bizkaian.

Mendetasunaren Legeak ezartzen duen sistemak egoera horretan dauden pertsona guztientzako oinarrizko baliabide komunak bermatu nahi ditu. Hala ere, autonomia-erkidegoek babes maila osagarria ezar dezakete. Bada, Araban, apirilaren 24ko 39/2007 FDren lehen xedapen iragankorrenekin bat etorritik, 2007an, berariaz, zenbait zerbitzu eta prestazio onartu dira II eta I graduatarako. Horiek, hurrenez hurren, 2008an eta 2011n jarriko dira indarrean. Bizkaiko eta Gipuzkoako araudiek ez dute aukera hori berariaz jasotzen. Hala ere, praktikan egon daiteke, ondoren diogunari jarraiki.

Hiru foru aldundiek mendetasuna baloratzeko baremoa (BVD) aplikatzen dute, Mendetasunaren Legean ezarria eta 504/2007 EDren bidez onartua, aipatu legean ezarritako zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko. Hala ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, BVDz gain, beste baremo bat ere aplikatzen dute, RAI (edo RAI-RUG III) izenez ezaguna, zenbait foru zerbitzu eskuratzeko, kasuan kasuko lurraldean. Halaxe

dago jasota Bizkaiko Foru Aldundiaren 74/2007 FDn; honen arabera, mendetasuna baloratzeko ebazpena bi balorazio tresnen emaitza kontuan hartuta emango da eta RAIri dagokionak Bizkaian bakarrik izango du balioa (8, 16 eta 17. artikulua). Era berean, Gipuzkoako Gizarte Politikarako Departamenduaren 320/2007 FAK dio baremo hori mendeko adinekoentzako egoitza edo zentroa eskatzen denean aplikatuko dela eta horren emaitza ebazpenean adieraziko dela.

Arreta Soziosanitarioaren Euskal Kontseiluan aukeratu zen baremo hori –RAI–, 2006an Arreta Soziosanitarioa Garatzeko Euskal Plana onartzearekin batera; baremo hori hiru foru aldundiek mendetasuna baloratzeko tresnak batera zitzaten aukeratu zen, aldundietako bakoitzean tresna ezberdinak erabiltzen baitziren. Esan bezala, Gipuzkoan eta Bizkaian modu osagarrian aplikatzen da, baina Araban oraindik ez da aplikatu.

Horrek biztanleen artean nekez uler daitezkeen ondorioak izan ditzake zenbait administrazio erabakitan, esate baterako, pertsona batek Araban egoitza-plaza publiko bat eskuratu ezin ahal izatea (BVDren arabera, III graduko mendetasunera heltzen ez delako), baina bai Bizkaian edo Gipuzkoan (RAI baremo osagarria aplikatuta mendekoa dela ondorioztatu delako). Gaineratu behar da pertsona horrek Araban sare pribatuan sartu ahal izateko laguntza ekonomikoa eskuratu ahal izango lukeela.

Bestalde, **etxebizitza alokatzeagatiko laguntzei** dagokienez, 2008rako aurreikusi den aldaketa aipatu nahi dugu. Jakina den bezala, gizarte behar larrietarako laguntzetara (GLL) bideratutako aurrekontuen ehuneko handi bat etxebizitza alokatze-ko laguntzetan inbertitzen da. Hain handia da ehuneko hori, ezen Eusko Jaurlaritzak %80ra mugatu behar izan baitzuen GLLetan barneratutako beste kontzeptu batzuetarako nolabaiteko zenbatekoa egongo zela bermatzeko –gainerako %20–. Hala ere, aurreko Eusko Jaurlaritzak duela denbora asko eskatzen hasia zen aldaketa egin du eta, hala, etxebizitza-aloairua GLLetik bereizi du. Ildo horri jarraiki, Jaurlaritzak araudia aldatzeko proposamena aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean. Proposamen horren bidez, ekainaren 22ko 4/2007 Legea onartu zen, gizarte bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea aldatu zituen. 1.3 artikuluan oinarritzko errenta osatzeko diru-laguntza aurreikusi da, ohiko etxebizitzaren/bizilekuaren gastuei aurre egiteko. Hori arau bidez garatu behar du Jaurlaritzak. Horren haritik, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008rako Aurrekontu Orokorren Legeak honakoa adierazten du zortzigarren xedapen gehigarrian: *“...Jaurlaritzak (...) oinarritzko errentaren diru-laguntza osagarriaren gehieneko zenbatekoak zehaztuko ditu, ohiko etxebizitza edo bizilekua izan eta mantentzeko beharrezko gastuei aurre egin ahal izateko”*. Diru-laguntza osagarri hori eskubide subjektibokoa izatera igaro da, oinarritzko errenta bezala. Horrek esan nahi du aipatu diru-laguntza jasotzea ez dela kreditu nahikoa egotearen arabera egongo (GLLekin gertatzen den bezala), baizik eta hori jasotzeko eskubidea duten pertsona orori bermatuko zaiola.

Etxebizitza erosteko laguntzei dagokienez, **Estatuko Administrazio Orokorrak** ezarri dituen eta, zalantzarik gabe, gure autonomia-erkidegoan eragina izango duten diruzko bi prestazio aipatu behar ditugu. Bata gazteei zuzenduta dago eta bestea kotizazio gabeko pentsioaren onuradunei.

Lehena **“gazteen emantzipaziorako oinarritzko errenta”** da. Azaroaren 2ko 1472/2007 Errege Dekretuaren bidez araututa dago eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzekin bateragarria da (GLL edo, hala badagokio, oinarritzko errentaren diru-laguntza osagarria,

biak etxebizitza alokatzeko). Hilean 210 euroko prestazioa da. Euskal gazteek Estatuko gainerakoen baldintza beretan eskuratu ahal izango dute. Hori jasotzeko beharrezkoa da 22 eta 30 urte bitartean izatea, errentamendu kontratu baten titularra izatea, urtean 22.000 euro gordin baino gutxiagoko diru-sarrera erregularrak izatea eta legez Espainian bizitzea (Espainiako, EBko estatu kideren bateko edo Europako Esparru Ekonomikoko nazionalitatea izatea, edo, Europako Erkidegoaz kanpoko atzeritarren kasuan, legez eta modu iraunkorrean Espainian bizitzea). Laguntzaren helburua gazteen emantzipazioa ahalbidetzea denez, horren iraupena gehienez lau urtekoa da. Prestazio hau eraginkor egiteko, lankidetzeta-hitzarmena sinatu behar dute Etxebizitza Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak. Hitzarmena 2008. urtearen hasieran sinatuko dela aurreikusi da.

Bigarrenak **Gizarte Segurantzaren erretiro edo baliaezintasuneko pentsioaren titular diren eta alokatutako etxebizitzan bizi diren pertsonentzako osagarria da, kotizazio gabekoa**. Hori urriaren 29ko 1400/2007 Errege Dekretuak arautzen du. Horren zenbatekoa 350 eurokoa izango da guztira 2007rako. Zenbateko hori ez da kontuan hartzen pentsioa jasotzeko eskubideari eusteko diru-sarrerak zenbatzerakoan.

Aurten, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak **Gizarteratzeari buruzko 2007-2009 aldirako Erakunde arteko II. Plana** onartzea sustatu du. Agiri horrek gizarte bazterkeriaren aurkako borrokan etorkizunean garatzen den jarduera bideratuko duten printzipioak biltzen ditu; nagusiki, helburuak eta hauek egi bihurtzeko jarraibideak ezartzen ditu.

Egoeraren diagnostikoa egiten du, 2003-2005 aldirako I. Planaren emaitza ebaluatzen du eta bazterkeriaren aurkako borrokan euskal politika publikoek izan duten bilakaera aztertzen du.

II. Plan hau oinarritu, definitu eta egituratzen duten eta gizarte babesari eta gizarteratzeari buruzko euskal eredia osatzen duten printzipioak aipatzen ditu:

- Gizarte bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunaren Legea iradokitzen dituztenak;
- I. Planarekin hasitako lanaren jarraipena;
- Lana gizarteratzeko oinarritzko bitartekotzat hartzea;
- Eskubide bikoitza: babes ekonomikoa izatekoa eta gizarteratu eta laneratze-koa;
- Zerbitzu eta prestazioetako berdintasuna pertsona guztientzat eta EAEko lurralde osoarentzat;
- Unibertsaltasuna eta sektore ahulenei eskainitako berariazko arreta;
- Kalitatea;
- Genero ikuspegia barneratzea.

Gizarte babesari eta gizarteratzeari buruzko euskal sistemaren etorkizuneko helburua eta jarduteko ildoak markatzen ditu:

- Gaur egungo araudia egokitzea (gizarte bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzkoa berrikustea; garapen dekretu berriak prestatzea);
- Politiken diagnostiko eta jarraipen sistemak bateratzea (enplegu, berdintasun, familia, inmigrazio eta abarreko beste plan batzuk kontuan hartuta);

- Prestakuntza eta enplegu programak gehitzea eta hobetzea, baita lan merkatuan sartu eta geratzekoak ere;
- Diruzko prestazioetan ahalik eta kalitate mailarik handiena lortzea, premia-egoera guztietara hel daitezten. Atal honek azpimarragarriak iruditzen zaizkigun jarduerak barneratzen ditu. Alde batetik, bizikidetzako unitate ekonomiko independentearen (BUEI) egungo kontzeptua berriro definitu nahi du eta guraso bakarreko familiei eskainitako arreta areagotu. Alderdi horiek Arartekoak Eusko Legebiltzarrarentzako 2006ko txostenean emandako gomendio orokor batean bildu ziren; gomendio horri aurrerago ere egingo diogu aipamena. Bestetik, gizarteratzeko errentak eta babes errentak bereizi nahi ditu. Honen barruan, eta oinarrizko errentari lotuta, etxebizitzako prestazio osagarria ezartzen du, lehen aipatu dugun 4/2007 Legean jasoa.
- EAEko hiru lurralde historikoetan diruzko prestazioen sistema bateratzea. Arartekoak ere hainbatetan jarri du agerian behar hori. Ildo horretatik, eta oinarrizko errentari dagokionez, oso interesgarria iruditzen zaigu II. Plan honek proposatutako neurria. Honela dio: *“batzorde teknikoa ezarriko da, Autonomia Erkidegoan jardungo duena eta arauak interpretatzerakoan administrazioen artean sor litezkeen gorabeherak ebazteko, araudi hori garatzeko zirkularrak emateko eta aplikazio irizpideak bateratzeko ahalmena izango duena”*.

Gizarte babeseko sistema orokorren helburuak eta jarduerak markatzen ditu:

- Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren esku-hartzea hobetzea. Horretarako, Gizarte Zerbitzuen Lege berria onartzea proposatu du, baita hiru lurralde historikoetan zerbitzuen maila egokia bermatzen duen arau bidezko garapena ere. 2007an Gizarte Zerbitzuen Lege Aurreproiektuaren Erakunde arteko Akordioa sinatu da.
- Beste sistema batzuen esku-hartzea hobetzea, besteak beste, osasunekoak, hezkuntzakoak, etxebizitzakoak eta justizia administrazioak.

Azkenik, **laguntza-etikako batzordeak** aipatuko ditugu. Gipuzkoako Foru Aldundiak gizartean esku hartzeko etika-batzordeen sorrera arautu du ekainaren 12ko 46/2007 Foru Dekretuaren bidez. Kontsultako eta diziplina-arteko batzorde gisa itxuratzten ditu, eremu horretan diharduten pertsonen zerbitzura, honakoak egiteko: *“... esku hartzeko lanetan sor daitezkeen gatazka etikoak aztertzeke eta horiek konpontzeko aholku emateko, azken batean, esku-hartzearen kalitatea hobetzearren”*. Beren eginkizunen artean txostenak eta gomendioak egitea, jarduteko protokoloak proposatzea, erabakiak hartzeko alderdiak argitzea eta profesionalekin elkarlanean aritzea daude. Bai profesionalek bai erabiltzaileek batzorde horietara sartu ahal izango dutela aurreikusi da. Araudi hori Bizkaian ere bada. Horren berri 2006ko txostenean eman genuen.

Gure iritziz, gizartean esku hartzeko etika-batzorde horiek oso tresna baliozkoak dira gizarte arloan dihardutenentzat nahiz onuradunentzat.

1.3. ARLOKO GAIK GARRANTZITSUENEN ANALISIA

1.3.1. ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK

- Erroldan izena emateak eskubideez baliatzean eta gizarteratzeko prozesuetan duen eragina¹

Gizartean baztertuta dauden pertsoneri eta, bereziki, gutxiengo etnikoetako (ijito herriko) pertsoneri eta legez kontrako egoeran dauden atzerritarrei erroldatzea ukatzea oztopoa da beren integrazio prozesurako eta bizitza duina izateko beren eskubidea bermatzeko nahitaezkoak diren zerbitzu eta baliabide publikoak eskuratu ahal izatea eragozten die. Legez kanpoko egoeran dauden atzerritarren kasuan, erroldatzeko aurki dezaketen edozein zailtasunek baztertuta geratzeko arrisku handiagoa ekar dezake, bertakoak edo legezko egoeran dauden atzerritarrak izanda baino (4/2000 Lege Organikoak berak, urtarrilaren 11koak, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunak eta euren gizarteratzea arautzen duenak (AEEALO), eta horren aldaketek hainbat eskubide baliatu ahal izatea legez Espainian bizitzearekin lotzen dute).

Hainbat udal eta foru arauk nahiz arau autonomiko ugarik diote, zenbait prestazio publiko eskuratzeko, beharrezkoa dela udal erroldan izena emanda egotea edo erroldatuta denbora jakin bat egon izatea².

Gizarte izaerako zerbitzu publikoak ematea, besteak beste, hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak edo etxebizitza, ezinbestekoa da giza eskubideak benetan erabiltzen direla bermatzeko.

Halaxe onartu dute Nazio Batuek eskubideen bi kategoriak (batetik, eskubide zibil eta politikoak, eta, bestetik, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak) elkarri lotuta eta elkarren menpe daudela esatean. Honela dio: *“gizarte eskubiderik gabe, ez dago norbanakoen askatasunik eta ezin dira, ezta ere, eskubide zibil eta politikoak behar bezala erabili; halaber, demokraziarik eta askatasunen sistemarik gabe, ongizate materialak zentzua galtzen du neurri batean”*.

Horren ildotik, “Garapenerako eskubideari buruzko adierazpenak”, Nazio Batuen 1986ko abenduaren 4ko Batzar Orokorrean onartutakoak, zera aipatzen du: *“giza eskubide guztiak eta oinarrizko askatasunak banaezinak eta elkarren mendekoak dira; eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak aplikatu, sustatu eta babesteari maila berean eta premia eskaini behar zaie arreta”*; Nazio Batuen 1993ko ekainaren 25eko Giza Eskubideen Mundu Konferentzian onartu zen Vienako Adierazpen eta Ekintza Programarekin bat etorriz, *“eskubide guztiak unibertsalak, banaezinak eta elkarren mendekoak dira eta elkarren artean erlazionatuta daude”*.

¹ Atal honetan, erroldan izena ematearen pean dauden eskubideei buruzko alderdiak laburbiltzen dira. Horiek José Zarauzek egindako *“La incidencia del Padrón Municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras”* izeneko obran aztertu dira sakonago (“Padre Francisco de Vitoria” Giza Eskubideen Bilduma). Lan horrek Arartekoaren beka jaso du aurtan.

² Argi ez dagoena da ea zeri egiten zaion aipamena, alegia, auzotasun jakin bat duten pertsonen eskubide eskusiboari edo udalerrian bizitzearen frogari. Bigarren kasua bada, beste edozein frogabide ere onartu ahal izango da prestazio publiko zehatza eskuratzeko eta ez da beharrezkoa izango pertsona erroldatuta egotea. Lehenengo kasua bada, ordea, erroldatze ziurtagiria bakarrik izango da baliozkoa prestazioa eskuratzeko.

Eskubide bakoitzaren atzean administrazio bat edo hainbat daude eta horiek behartuta daude pertsonak eskubide hori benetan, modu eraginkorrean eta berdintasunez erabili ahal izan dezan ahaleginak egitera.

Erroldan sartzeko eskubidea (edo udal erroldan izena emanda egotearen eskubidea)

Espainiarren kasuan, eskubide hori EKren 19. artikuluan jasota dagoen bizileku askatasunerako eskubidean³ eta hauteskundeetan parte hartzeko eskubidean⁴ oinarrituta dago. Legez kanpoko atzerritarren kasuan⁵, AEEALOn bertan du oinarria. Horren 6.3 artikulua dio udalek udalerrian bizi diren atzerritarren gaineko informazioa jaso behar dutela erroldan eta informazio hori eguneratuta eduki behar dutela. Era berean, 12.1 artikuluari jarraiki, osasun laguntza espainiarren baldintza beretan onartzen zaie Espainian bizi diren eta dagokion herriko erroldan izena emanda dauden atzerritarrei (beren egoera dokumentala edozein dela ere). Bizileku iraunkorreko baimena duten atzerritarren kasuan, horrek bizileku libreki aukeratzeko eskubidean du oinarria (AEEALoren 5. artikulua), baita parte-hartze publikoari lotuta dauden eta botoa emateko eskubidearekin zerikusirik ez duten zenbait eskubidetan (AEEALoren 6. artikulua). Izena emateak bi urteko indarraldia du atzerritar guztientzat.

Administrazio auzotasuna eskuratzeko betekizuna

Administrazio auzotasuna bi faktorek batera dakarte: herri batean bizitzeak eta udal erroldan izena emanda egoteak.

Auzotasuna pertsona batek udalerrri jakin batekin duen lotura da; ohiko bizilekua bertan du eta udal erroldan izena emanda agertzen da. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) 18. artikulua auzotarrek dituzten eskubideak eta betebeharrak zerrendatzen ditu⁶ (informaziorako eta parte hartzeko eskubidea, tokiko

³ Horren haritik doa Auzitegi Gorenaren 1996-01-02ko epaia.

⁴ Auzitegi Gorenaren 2001-03-21.

⁵ Hauteskundeetan parte hartzeko eskubideari dagokionez, EKren 13. artikulua dio eskubide horren titularrak soilik espainiarrak direla, “*elkarrekikotasun irizpideei jarraiki, udal hauteskundeetan botoa modu aktiboan eta pasiboan emateko eskubiderako itun edo lege bidez ezartzen dena salbu*” (honako hauek dira: Europar Batasuneko herritarrak, Europako Erkidegoa Eratzeko Itunaren 19. artikulua oinarritzat hartuta, eta Europar Batasuneko kidea ez den estatu batekoak diren baina Espainian bizi diren bertakotuak, betiere, aipatu estatuan bizi diren espainiarrei ere bertan botoa emateko eskubidea onartzen bazaie. Egun, Argentinak, Txilek eta Uruguayk bakarrik egin dituzte honelako itunak). EKren 19. artikuluan aipatzen den bizilekua libreki aukeratzeko eskubideari dagokionez, ELOren 5. artikulua Espainian legezko egoeran dauden atzerritarrei bakarrik onartzen die.

⁶ TAOLren 18.1 artikulua: “*Hauek dira auzotarren eskubideak eta eginbeharrak:*

- a) *Hautesle eta hautagai izatea, hauteskunde legedian xedatutakoaren arabera.*
- b) *Udal-kudeaketan parte hartzea, legeetan xedatutakoaren arabera, eta, kasuan-kasuan, udaleko gobernuko eta administrazioeko organoek auzotarren borondatezko lankidetzak eskatzen dutenean.*
- c) *Udal-zerbitzu publikoak beren izaeraren arabera erabiltzea, eta herri-aprobetxamenduz baliatzea aplikatzekoak diren arauen arabera.*

akordioen kopiak eta egiaztagiriak lortzeko eskubidea, artxiboak eta erregistroak kontsultatzeko eskubidea, etab.). Udal zerbitzu publikoak erabiltzeko eskubidea ez da, berez, auzotarren eskubide pribatiboa.

Auzotasunak udalaz gaindiko entitateetara atxikitzea dakar, esaterako, udalerrria dagoen probintziara edo autonomia-erkidegora⁷. Partaidetza horrek egoera zehazten du, hau da, talde hori osatzen duten subjektuei berariaz dagozkien eskubide eta betebeharrak batzuek definitutako egoera juridiko orokorra.⁸ Ikuspegi horretatik, auzotasunak udalaz gaindiko nahiz autonomietako entitate horietan hainbat eskubidez baliatzeko aukera eta, beraz, autonomia-estatutuetan jasotako eskubideak erabiltzeko aukera ematen die euskaldun, katalan nahiz bestelakotzat hartzen diren pertsonari eta probintzietako aldundietan daudenei.

Gizarte politikak diseinatzeke ezinbesteko bitartekoa

Horri esker, lurralde jakin bateko benetako biztanleria jakiten da. Biztanleria hori da zerbitzu publikoen plangintza egiterakoan Administrazioak burutzen duen lanaren hartzailea. Horregatik, erroldako datuak ezinbestekotzat jotzen dira autonomia-erkidego eta udalerrri desberdinekin hurrengo agintaldietan burutuko dituzten politikak behar bezala planifikatzeko.

Eginkizun estatistiko honek eragin handia du inmigrazio planetan jasotako politika publikoak diseinatzean. Politika horietan, deskripzioari dagokion atalean, biztanleen udal erroldako kopuruak aipatu ohi dira⁹, lurraldean inmigrazioaren errealitateari buruzko diagnostikoak egiterakoan¹⁰.

Bestela esanda, izena emanda ez dauden pertsonak ikusezinak dira eta, beraz, ez dira kontuan hartzen politika publikoak diseinatzerakoan.

.../...

- d) *Legez aurreikusitako diruzko prestazioen eta prestazio pertsonalen bidez, udal-eskumenak gauzatzen laguntzea.*
- e) *Arrazoitutako eskaria aurrez eginik, informazioa jasotzea, eta udal-espediente eta udal-agiri guztien gainean udal-administrazioari eskaerak egitea, Konstituzioko 105. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.*
- f) *Legean aurreikusita dagoen bezala, herri galdeketa eskatzea.*
- g) *Zerbitzu publiko zehatzen bat udalaren nahitaezko eskumenekoa denean, zerbitzu hori betetzeko eskatzea, eta, hala badagokio, zerbitzua ezartzeko eskatzea.*
- h) *Herri-ekimena erabiltzea, 70 bis artikuluan aurreikusitako baldintzetan.*
- i) *Legeetan ezarritako gainerako eskubideak eta eginbeharrak”.*

⁷ Autonomia-estatutu guztiek euskaldun, katalan, galiziar, andaluziar nahiz bestelakotzat hartzen dituzte administrazio auzotasuna dagokion autonomia-erkidegoko lurraldean barneratutako udalerrietako edozeinetan dutenak.

⁸ Eskubide horiek TAOLek berak eta dagokion autonomia-estatutuak mugatuko dituzte.

⁹ Inmigrazio Planen eraginkortasuna. Herriaren Defendatzaileen XVII. Koordinazio Jardunaldiak, Nafarroa, 2002ko urria: “*Aldatu nahi den gizarte errealitatea zehatz-mehatz ezagutzea ere oinarritzko elementua da edozein politika publiko prestatzeko, baita etorkinei eskaini beharreko arretarako politikak ere. Inmigrazioaren benetako egoera zein den ezagutzea, beraz, ezinbesteko abiapuntua da eremu honetan edozein politika publiko zehazteko orduan*”.

¹⁰ Horren ildotik, berriki onartu den 2007-2010erako Biztanleriaren eta Gizarteratzearen Estatuko Plan Estrategikoak autonomietako planen ildoari jarraitzen dio eta, hala, Espainian inmigrazioaren azterketari eskainitako zatian, erroldako datuei buruzko hainbat aipamen egiten ditu.

Errolda sistema demokratikoaren bermatzaile gisa. Parte hartzeko eskubidea

Hauteskunde errolda udal erroldan dauden datuetan oinarrituta sortzen da. Erroldan izena emanda ez dagoen pertsonak hauteskunde erroldan izena emateko eska dezakeen arren, betiere, udalerrian bizi dela agiri bidez frogatzen badu, bi erregistroek oinarri komuna dute eta elkarrengan eragina dute. Horrela, udalak arduratzen dira beren udal mugartean erroldatuta dauden pertsonak hauteskunde erroldan izena emateko prozesua ofizioz izapidetzeaz. Hori eginda, Estatuan, autonomia-erkidegoan eta udalerrian jendeak parte hartzeko dauden sistema ezberdinetan parte hartu ahal izango dute.

Hezkuntzarako eskubidea

2392/2004 EDk, atzerritarrei buruzko araudia onartzen duenak, bizileku baime-nik ez duten baina erroldatuta dauden adingabe atzerritarrei unibertsitateaz kanpoko derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza eskuratzeko aukera bermatzen die (hamalagarren xedapen gehigarria).

Adingabe atzerritarren derrigorrezko hezkuntzari dagokionez, AEEALoren 9. artikulua horretarako eskubidea onartzen du eta adierazten du horrek oinarritzko irakaskuntza hartzen duela bere baitan, doakoa eta derrigorrezkoa; orobat, dagokion titulazio akademikoa lortzeko eta beka eta laguntzen sistema publikoaz baliatzeko eskubidea ere onartzen du. Ez dago inolako xedapenik eskubide hori erabiltzeko erroldan izena emanda egon behar dela dioenik. Hala ere, Euskal Herrian, beste autonomia-erkidego askotan bezala, ikastetxeetan plaza gutxi daudenez, lehentasunen sistema¹¹ diseinatu behar izan da; bertan, baremoetako bat bizilekuak izena eman nahi den ikastetxetik gertu egon behar duela da eta, hori egiaztatzeko, eskatzailearen gurasoen edo tutore legalen erroldatze ziurtagiria aurkeztu behar da. Horregatik, dagokion ikastetxean izena emateko eskaerarekin batera doazen agiriei buruzko informazio orrien artean gurasoen eta tutoreen erroldatze ziurtagiria egon ohi da. Hala ere, erroldatze ziurtagiri hori ez aurkeztu arren, ikastetxeak eskaera izapidetzeko betebeharra du, adingabea zer ikastetxetan onartu behar den ebatz dadin.

Oinarritzko hezkuntzarako eskubidea bertako biztanleek dituzten baldintza beretan izatea eragozten ez den arren, lege ordezkariak erroldatuta ez dituen adingabe atzerritar-
rak ezin izango du ikastetxea gainerako herritarren baldintza beretan aukeratu.

Erakunde honetan hainbat kexa erregistratu dira erroldatuta ez zeuden pertsonen seme-alabei ikastetxean izena eman ezin izan zaiela adierazteko. Arazoa adingabeari dagokion ikastetxean izena emateko eskaera izapidetzearen ingurukoa izan daiteke. Gerta daiteke agiri horietakoren bat falta delako ez onartzea eskabidea hau hartzeaz arduratzen den pertsonak. Jarduera hori ez dator bat zuzenbidearekin eta diziplinako erantzukizuna ekar lezake.

¹¹ Euskal Autonomia Erkidegoko 2001/36 Legeak eta itunpeko ikastetxe publiko eta pribatuetan ikasleak onartzeko prozesua arautzen duen urtarilaren 23ko 9/2001 Dekretuaren bidez onartu zen hura garatzeko araudiak baremoen irizpide bat ezartzen dute sarrera-eskaera guztiei erantzuteko plaza nahikoak ez dauden kasuetarako.

Beka eta laguntzen sistemari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2006-2007 ikasturtean, laguntza horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2006ko uztailaren 26ko Aginduak arautu ditu (horren bidez, unibertsitateaz kanpoko mailetako ikasleak eskolatzeako ikasketetarako laguntzen deialdia egin da 2006-2007 ikasturterako). Agindu horretan ere ez da aipatzen errolatuta egon behar denik laguntza horiek jasotzeko; nahikoa da 2006-2007 ikasturtean matrikulatuta daudela egiaztatzea. Hala ere, ikusi ahal izan dugunez, zenbait pertsonak adierazi dute ezin izan dituztela laguntza horiek jaso, erroldan izena emanda ez zeudelako. Arazoa, aurreko kasuan bezala, Administrazioak izapidetzeko prozesuan izandako hutsegiteen ondorioa izan daiteke.

Osasun laguntzarako eskubidea

AEEALoren 12.1 artikulua dio, legez kanpoko egoeran dauden atzerritarrek osasun laguntza espainiarren baldintza beretan jasotzeko eskubidea izango dutela, betiere, udal erroldan izena emanda baldin badaude. Betekizun horretatik salbuetsita egongo dira adingabeak, haurdunak eta larrialdiko egoeran daudenak.

Autonomia-erkidegoek beren sistema antolatzeako eta garatzeko eskumena dute, baita prestazioak mugatzeari dagokionez ere, beren gastu ahalaren eta lurralde autonomiaren ondorioz. Ezin ditzakete Estatuko araudiak osasun laguntzarako eskubidea aintzatesteko ezarrita dituen baldintzak murriztu, baina bai hobetu, besteak beste, Valentziako Autonomia Erkidegoak edo Nafarroako Foru Erkidegoak egin duten bezala.

Euskadin, gai hau aztertzeako oinarrizko araua otsailaren 16ko 26/1988 Dekretua da. Horren bidez, Osakidetzak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan eskaintzen duen osasun laguntzarako eskubidea aski baliabide ekonomiko izan ez eta Gizarte Segurantzaren babespean ez daudenei ere aitortzen zaie. Dekretu horren 1.2 artikuluari jarraiki, talde honetan, ondorengo baldintzak betetzen dituen oro barneratuko da: lanbidearteko gutxieneko lansaritik gorako diru-sarrerarik ez izatea, Gizarte Segurantzaren osasun laguntza jasotzeko eskubiderik ez izatea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean errolatuta egotea. Azken betekizun hau dela-eta dio pertsona hori babespeko herritar onartzeko baino ez dela eskatzen, hau da, betekizun hori delako pertsona Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dela egiaztatzeako baino ez da.

Oraingoz, praktikan, euskal udalerriren bateko erroldan izena emanda ez dauden pertsonak, nola atzerritarrak hala bertakoak izan, ezin dute osasun txartel indibiduala (OTI) eskuratu. Muga hori gainditzeko neurri bakarra behin-behineko osasun txartela da. Agiri horren bidez, premiazko tratamendu medikoa behar duten pertsonak, adingabeei eta haurdunei, nola haurdunaldian hala erditzerakoan eta erditu ondoren, eskainitako osasun laguntzaren jarraitutasuna bermatu nahi da. Txartel hori behin-behinekoa da, hiru hilabeteko iraupena baino ez baitu, nahiz eta, epe hori igarota, berriro daitekeen.

Oinarrizko gizarte prestazioetarako eskubidea

AEEALoren 14.3 artikuluan, oinarrizko gizarte zerbitzuak hondar zerbitzu gisa aurkezten dira eta osasun laguntza edo gizarte zerbitzuak Gizarte Segurantzako onuradun

gisa jaso ahal izateko betekizunak betetzen ez dituzten pertsonentzat gordetzen dira. Horixe da, hain zuzen ere, legez kanpoko egoeran dauden atzerritarren kasua. Horiek ezin dute Gizarte Segurantzaren izan, ez kotizaziopeko prestazioei dagokienez, Espainian lan egiteko baimenik ez dutelako, ez kotizazio gabeko prestazioei dagokienez, 14.1 artikulua berariaz jasotzen baitu bertan bizi diren atzerritarrek bakarrik dutela eskubidea Gizarte Segurantzaren prestazio eta zerbitzuez gozatzeko.

EAEn, oinarritzko errenta jasotzeko, beharrezkoa da urtebetez erroldatuta egotea; aldiz, gizarte behar larrietarako laguntza lortzeko, sei hilabetez egon behar da erroldatuta. Gizarteratze hitzarmenak sinatzeko ez da beharrezkoa erroldatuta egotea.

Eusko Jaurlaritzak gizarte bazterkeriaren aurkako Legea garatzen duen araudia finkatzen du eta oinarritzko errentaren eta gizarte behar larrietarako funtsezko diruzko prestazioak ordain daitezten baldintzak ezartzen ditu. Baina, praktikan, udalak dira auzotarrak bideratzen dituztenak eta diruzko prestazioak kudeatzen dituztenak; udalak, beraz, herritarren eskaerak biltzen diren sarbidea dira, eta, egun, sarbide horren giltza, zalantzarik gabe, erroldatzea da.

Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen dituen zerbitzuen artean gizarteratzeko laguntza bereziak daude (64/2000 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa), baztertuta geratzeko arriskuan dauden taldeei zuzenduak. Horietatik lehenak, hots, familiarentzako laguntzak, honako betekizun hau ezartzen du 4. artikuluan: udal erroldan izena emanda egotea, eskabidea aurkeztu baino sei hilabete lehenagotik gutxienez, edo, tarteka bada, urtebetean zehar, eskabidea aurkeztu aurreko bost urteen barruan. Salbuespenezko kasuren batean erroldak ez badu laguntzaren onuradunen benetako egoera islatzen, egoera horri dagokion kontrako frogak onartuko da. Bigarren, banakako laguntzarako, Dekretuak honako betekizun hau ezartzen du: Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan bizitzen sei hilabete eramatea, eta alderdi hori erroldako ziurtagiriaren bidez egiaztatzea. Hala ere, aurreko kasuan bezala, salbuespenezko kasuetan, kontrako frogak onartuko da (jantoki txartela, txosten medikoak, ikastaroen ziurtagiriak, nahiz oinarritzko gizarte zerbitzuaren edota gobernu kanpoko erakundearen idatzizko frogak, etab.). Erroldatzearen baldintza beste erakunde batzuen antzeko laguntzetan ere ezarri da, esate baterako Arabako Foru Aldundiak premia-egoerentarako ematen duen laguntza berezian edo hainbat udalek egoera berezientarako ematen dituzten laguntzetan.

Foru dekretuek bizilekua frogatzeko udal erroldakoa ez den beste bitarteko batzuk erabiltzeko aukera ematen duten arren, udaletako oinarritzko gizarte zerbitzuek, halako laguntzak Foru Aldundian izapidetzeaz arduratzen direnak izanik, pertsonak, eskatu bezala, erroldako antzintasuna egiaztatzen duen ziurtagiria aurkezten duenean baino ez dio hasiera ematen prozedurari.

Antzeko kasu bat gizarteratzeko egoitza-zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde pribatuek kudeatutako gizarteratze zentroena eta egoitzaz kanpoko gizarteratze zentroena dugu. Programa horietan sartu ahal izateko, Aldundiak ezartzen duen baldintza da hartzaileek Lurralde Historikoko udalerrietakoren batean erroldatuta egon behar dutela edo, gutxienez, erroldatzeko eskaera aurkeztuta izan behar dutela.

Doako laguntza juridikorako eskubidea

HELDU – EAEko etorkinentzako laguntza juridiko eta sozialeko sareak doako justiziarako eskubidea bermatzen du erregularizazioko prozedura administratiboetan¹². Zerbitzu hori oinarriko gizarte zerbitzuen bidez eskuratzen da, eta gizarteratzeko hitzarmena sinatuta; nahiz eta zerbitzu hori eskuratzeko ez den berariaz esaten interesdunak erroldatuta egon behar duenik, hitzarmena sinatu aurretik pertsonari udal erroldan izena ematen zaio.

Etxebizitzaren arloko laguntzak eskuratzeko eskubidea

AEEALOk bizileku baimena duten atzerritarrei bakarrik onartzen die etxebizitzaren arloko laguntza sistema publikoaz espainiarren baldintza beretan goatzeko eskubidea (eta, beraz, ez legez kanpoko egoeran daudenei).

Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak eta Inmigrazioko Euskal Planak legez kanpoko egoeran daudenei ere onartzen diete eskubide hori. Alabaina, berariaz eskatzen da erroldatze ziurtagiria Etxebide – Euskal Etxebizitza Zerbitzuaren zerrendetan sartzeko eta ez da kontuan hartzen Planeko gainerako neurrietan erabiltzen den herrian bizitzearen ondoriozko herritartasunaren irizpidea.

Horren haritik, 315/2002 Dekretuak, abenduaren 30ekoak, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoak, 15. artikuluan dio, babes publikoko etxebizitza baten esleipendun gertatzeko, beharrezkoa dela EAEko udalerriren batean erroldatuta egotea, etxebizitzak esleitzeko prozesua argitaratzen denetik gutxienez urtebetez.

Etxebizitzaren arloan eskumenak dituzte, halaber, udalek, udal etxebizitzaren bidez. Kasu hauetan ere, herritarrek aurrez erroldatuta egon behar dute dagokion udalerrian.

Erroldan izena ematearekin erlacionatutako beste eskubide batzuk

Adierazitakoez gain, beste hainbat eskubide eta zerbitzu izateko ere eskatzen da erroldan izena emanda egotea, bereziki, eskubide bat erabiltzearen bermea hainbat administrazio publikori dagokienean, beren lurralde eskumenaren arabera.

- Arartekoak erroldaren arloan 2007an burutu duen jarduera

Nahiz eta Legebiltzarrari aurkeztutako hainbat txostenetan behin baino gehiagotan hitz egin dugun gaiaz, oraindik ere hizpide dugu, kexa ugari jasotzen baitugu udalek zenbait pertsonari biztanleen udal erroldan izena emateko aukera ukatu dietelako, izan ere, pertsona horiek, benetan udalerrian bizi arren, ez dute etxebizitza hartzeko titulurik, etxebizitzan ez dira bizigarritasun baldintzetan bizi edo etxerik gabe daude.

¹² Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Inmigrazio Zuzendaritzak bultzatutako zerbitzua.

Gure erantzuna beti bera da: pertsona benetan udalerrian bizi bada, udalak hura erroldatzeko betebeharra du. Udalek ezin dute erregistro hori beste arazo juridiko edo sozial batzuk bide honetatik konpontzeko erabili. Biztanleen udal erroldako inskripzioa onartzeko edo ukatzeko funtsezkoena pertsona horiek udalerrian bizi direla jasota izatea da, egon daitezkeen eztabaidak gorabehera.

Gure tesiaren oinarria honako hauetan dago:

- a. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) 15, 16 eta 17. artikuluetan; uztailaren 11ko 1690/86 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Toki Erakundeetako Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudia aldarazi duen abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren 54 eta 55. artikuluetan; eta araudi horretako 59, 62.1, 68 eta 77. artikuluetan.
- b. Udal errolda eguneratzeko udalentzat argibide teknikoak ezartzen dituen 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenean, Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakoan.
- c. Auzitegi Gorenaren 2001eko martxoaren 21eko epaian.
- d. Udalei errolda eguneratzeko jarraibide teknikoak ematen dizkien 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenean.

(Ikusi, adibidez, Arartekoaren honako ebazpen hauek: uztailaren 18ko 12/2005, azaroaren 21eko 18/2005 eta martxoaren 23ko 9/2006)¹³.

Zenbait kasutan, udalek gure gogoetei heldu diete; beste kasu batzuetan, ordea, Gizarte Zerbitzuetan erroldatzeko irtenbidea hautatu dute.

Jarraian, gai honi buruz izapidetutako kexarik adierazgarrienen azalpen koadroa aurkeztu dugu.

| Kexa-esp. zk. | Udala | Erroldatzea ukatzeko udalak adierazitako arrazoia | Udal jardueraren inguruan Arartekoak egindako balorazioa | Gure jardueraren emaitza (2007ko abenduaren 31) | Espedientearen egoera |
|----------------------|-------------------------|--|---|--|------------------------------|
| 897/2006 | Pasaia (Gipuzkoa) | Ez du etxebizitza okupatzeko titulurik | Okerrekoa | Ebatzi gabe | Itxita |
| 459/2005 | Oiartzun | Herri onurako mendia | Okerrekoa | Ebatzita | Itxita |
| 841/2007 | Arrigorriaga (Gipuzkoa) | Ez du etxebizitza okupatzeko titulurik | Okerrekoa | Ebatzita | Itxita |

¹³ Arartekoaren 12/2005 ebazpena, uztailaren 18koa – 2005eko txostena, 354-360. orr. Arartekoaren 18/2005 ebazpena, azaroaren 21ekoa – 2005eko txostena, 400-404. orr. Arartekoaren 9/2006 ebazpena, martxoaren 23koa – 2006ko txostena, 676-679. orr.

| Kexa-esp. zk. | Udala | Erroldatzea ukatzeko udalak adierazitako arrazoa | Udal jardueraren inguruan Arartekoak egindako balorazioa | Gure jardueraren emaitza (2007ko abenduaren 31) | Espedientearen egoera |
|----------------------|-------------------------------|--|---|--|------------------------------|
| 1078/2007 | Errenteria (Gipuzkoa) | Ez du etxebizitza okupatzeko titulurik eta ez du bertan bizitzeko baimenik | Okerrekoa | Ebatzi gabe | Ebazpena prestatzen |
| 1482/2006 | Arrazua-Ubarrundia (Araba) | Ezin da bertan bizi. Biltegia. | Okerrekoa | Ebatzi gabe | Itxita |
| 1282/2007 | Arrazua-Ubarrundia (Araba) | Ezin da bertan bizi. Biltegia. | Okerrekoa | Ebatzita | Itxita |
| 625/2007 | Portugaleteko Udala (Bizkaia) | Ezin da bertan bizi. Trastelekua | Okerrekoa | Ebatzi gabe | Ebazpena prestatzen |
| 1272/2007 | Abantoko Udala (Bizkaia) | Ezin da bertan bizi. Ordenazioz kanpo dago. Karabana. | Okerrekoa | Ebatzi gabe | Ebazpena prestatzen |
| 9/2007/O 847/2007 | Bilboko Udala | Errumaniako nortasun txartela sinatu gabe dago | Okerrekoa | Ebatzita Indarreko nortasun agiria edo pasaportearen zenbakia erabiltzen da. | Itxita |

Arrazua-Ubarrundiako Udalaren kasuan, jarduteko modua aldatu dela ikusi da; hori egokia iruditu zaigu. Lehen aldian, ijito familia batek herritik alde egin behar izan zuen, Udalak uko egin ziolako haiek bizi ziren etxebizitzan erroldatzeari. Udalak, egin genizkion gogoetei jaramonik egin gabe, eta bost hilabete baino gehiago atzeratu zen erantzunean, nabarmendu zuen etxebizitza hark ez zuela bizitzeko baimenik eta horregatik ez zuela familia hura bertan erroldatuko. Hala ere, ondoren, beste ijito familia bat higiezin berean bizitzen hasi da eta horiek gizarte zerbitzuetan erroldatzea erabaki du, “fikziozko erroldatzea” izenekoaren bidez. Udalak benetako bizilekua duten herrian erroldatu behar zituzkeen arren, egia da, halaber, horrela eginda, behintzat, ez dela beren gizarteratzeko prozesua oztopatzen. Horretarako, ezinbestekoa da erroldan inskribatzea, bereziki, kontuan izanik, erroldan inskribatu ezean, gizarte eskubide batzuk, besteak beste, hezkuntzarako eskubidea, osasun laguntzarako eskubidea, oinarritzko gizarte prestazioak eskuratzekoa eta etxebizitzaren arloko laguntzak lortzekoa, larriki kaltetu daitezkeela dioenean.

1.3.2.EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK

Abenduaren 23ko 1971/1999 EDn aurreikusitako **elbarritasun maila azertu, adierazi eta kalifikatzeko** prozedurari dagokionez, Arartekoak [martxoaren 26ko ebazpena](#)¹⁴ eman du. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatzen zaio elbarritasun kalifikazioaren berrikuspen prozedurako iraingitze deklarazioa eraginik gabe utz dezala eta berariazko ebazpena eman dezala.

Ebazpen horretan nabarmendu da organo tekniko eskudunek interesduna azertu behar dutela eta komenigarria dela prozedura dagokion berariazko ebazpenaren bidez amai dadila, eta ez jardueren iraingitzea deklaraturata eta horiek artxibatuta. Ezinduen aukera-berdintasunari, bereizkeriarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legeak ezgaitasunen bat duten pertsonen dagokienez egindako berritasuna ere aipatu behar dugu. Hala, ezindutzat hartuko dira, orobat, ezintasun oso edo absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioa aitortuta duten Gizarte Segurantzako pentsiodunak, baita zerbitzurako ezintasun iraunkorra izateagatik erretiro pentsioa aitortuta duten klase pasiboetako pentsiodunak ere.

Gai beraren inguruan, eta 441/2007 zk.ko kexa izapidetzerakoan, azpimarratu genuen pertsona ezinduen aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 1.2 artikulua ere honela zioela: erabateko ezintasun iraunkor edo absolutua nahiz baliaezintasun handia duten Gizarte Segurantzako pentsiodunak gutxienez %33ko ezgaitasuna dutenen artean kokatzen direla. Hori gorabehera, Bizkaiko Foru Aldundiak halako kasuetan ez zuen kasuan kasuko pertsona automatikoki elbarritzat hartzen. Ondorioz, herritarrak kexa aurkeztu zuen. Prozedurari dagokionez, kexa 1414/2006 ED indarrean sartu ondoren konpondu da. Horren arabera, 51/2003 Legean ezarritakoaren ondorioetarako, inola ere ez da IMSERSOren edo dagokion autonomia-erkidegoko organo eskudunaren ebazpena edo ziurtagiria eskatuko erabateko ezintasun iraunkorra nahiz absolutua edota baliaezintasun handia duten pentsiodunek %33ko elbarritasun maila dutela egiaztatzeko; horretarako, baliozkoa izango da, egiaztagirri gisa, pentsioduna dela aintzatesten duen GSINen ebazpena.

La Olan (Sondika) kokatuta eta Bizkaiko Foru Aldundira atxikita dagoen ezgaitasunen bat duten pertsonentzako aldi baterako egonaldiko egoitzaren erabilzaile batek aurkeztutako kexa izapidetzerakoan (espediente zk.: 512/2007), egokia iruditu zaigu Aldundiari zenbait gogoeta helaraztea **iradokizunen eta kexen araubidearen** inguruan.

Kasu honetan, Aldundiarekin bat etorritik, ez zekiten data horietan zentroko erabilzaile batek kexa aurkeztu zuenik; interesdunak zioen, ordea, halaxe egin zuela.

Arazoa argitzea ezinezkoa zenez, beharrezkotzat jo genuen, halako egoera saiheste aldera, kexa aurkeztu duenari horren kopia bat ematea. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 38.5 artikuluaekin bat etorritik, *“Herritarrek (...) kopia bana erants dezakete, lege honen 35.c) artikuluan*

¹⁴ Arartekoaren ebazpena, 2007ko martxoaren 26koa; horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatzen zaio elbarritasun kalifikazioaren berrikuspen prozedurako iraingitze deklarazioa eraginik gabe utz dezala eta berariazko ebazpena eman dezala.

aitortzen zaizkien eskubideez benetan balia daitezzen"; halaber, 35.c) artikulua araber, *"Herritarrek herri-administrazioekiko harremanetan eskubide hauek dituzte: (...) c) Aurkeztutako agirien kopia zigitatua izan dezakete (...)".* Administrazioak ez du inolako legezko betebeharririk kexagileari kopia emateko. Hala ere, egia da orobat, apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharreri dagozkien gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzekoak, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 24ko 119/2005 Foru Dekretuak, erabiltzaileen arretarako unitatearen bidez Gizarte Ekintza Sailari buruz aurkeztzen diren iradokizunen eta kexen araubidea ezartzekoak, duten izaera bermatzailearekin bat etorritik, iradokizunak edo kexak egiteko Sailak erabiltzaileen eskura jarri behar dituen inprimakiek (5. artikulua) jatorrizkoari dagokion kopiaren orria edo erakusgarria izan behar luketela, interesdunak erraz ateratzeko modukoa.

Zentroko arduradunek jakinarazi zigutenez, inprimaki horiek ez zuten "bigarren orririk" eta oso egokia iruditu zitzaie hori barneratzeko proposamena, herritarren eskubideak hobeto babeste aldera.

Bestalde, eta arduradunek eurek kexa ahoz iritsi zitzaie la onartu ondoren, adierazi genien, aurrerantzean, bidezkoa litzatekeela, halako kasuetan, interesduna Gizarte Ekintza Saileko erabiltzaileen arretarako zerbitzura bidaltzea edo kexa zein iradokizuna bideratzeko prozesuan haren alde egitea.

Oso egokia iruditu zitzaigun zentroko arduradunek aurrez aurre interesdunari erantzuteko prest agertu izatea eta jantokiaren erabiltzaileekin kexaren xehetasunak kontsulta zitzakeela eskaini izatea.

Aukera ikusita, Aldundiari adierazi genion beharrezkoa zela zentroko berariazko araudia onartzea, zentroa Sailak onartu zuen Urteko Ikuskapen Planean barneratu ahal izateko eta, oro har, arau esparru argiagoa eta eskubide-bermatzaileagoa finkatzeko, erakunde honek Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako 2003ko txostenean La Ola hezkuntza eta terapia zentroari zegokionez adierazi zuen bezalaxe (I. atala, 1.1.9.4 azpiatala: "Buru-osasuna haur eta nerabeetan. La Ola hezkuntza eta terapia zentrori egindako bisitaldia").

Pertsona batek kexa aurkeztu digu berarekin bizi den eta **mendetasun handia duen 65 urtetik gorako pertsona bati arreta** eskaintzeko dagoen arazoaren inguruan (846/2007). Kasu horren ondorioz ikusi ahal izan dugu mendetasun mota batzuetarako ez dagoela zerbitzurik eta beharrezkoa dela era horretako arretaren hainbat alderdi hobetzea. Pertsona hori adin ertainekoa da eta bere mendetasuna, nagusiki, fisikoa da. Bizkaiko Foru Aldundiak egin zion Banakako Arretarako Planak, funtsean, egoitzako arreta barneratzen zuen, eta, etxean geratuz gero, baita beste zerbitzu batzuk ere, esaterako, egoitzan aldi baterako egonaldia egin ahal izatea, eguneko zentrori joan ahal izatea eta zainketa pertsonalak jasotzea. Hala ere, pertsona horrek duen zerbitzu bakarra eguneko zentroarena da.

Aldi baterako plaza bat eskatu zen egoitza batean, familiak atsedena har zezan, baina Aldundiak ez zion eman, aldi baterako egoitzako zerbitzua pertsona horrek zuen ezigaitasun motarako prestatuta ez zegoela esanez. Arreta pertsonala ere eskatu zuen. Alabaina, zenbait hilabete beranduago (urte bukaeran), halakorik jaso gabe jarraitzen zuen. Arreta hori foru administrazioak bideratzen du eta, legearen arabera, udalak eskaintzen duen etxez etxeko laguntza zerbitzuaren bidez gauzatzen da. Bilboko Udalak erantzun zion *"... beharrezkoa dela tartean diren entitateek hainbat alderdi adostea"*.

Urtea amaituta, oraindik ez zen gaiaren inguruko akordiorik egin eta pertsona horrek aipatu prestazioa jaso gabe jarraitzen zuen.

Gainera, pertsona horrek ez zuen inolako laguntzarik etxean bertan arreta eskaintzen eta/edo ahalbidetzen duten elementuak eskuratzeko. Laguntza teknikoez eta etxebizitza egokitzeko laguntzez ari gara, adibidez, garabia, ohe artikulatua, etab. Ukatzeko arrazoia izan zen famili unitateak gainditu egiten zuela foru entitateak ezarritako baliabide ekonomikoen gehieneko muga. Horrela, gastu horien zenbatekoaren zati bat eta hirugarren bat kontratatzearen ondoriozkoa pertsona horrek kobratzen duen baliabidearen handiagatik osagarriarekin ordaintzen dira –gastu horiek famili ingurunean eskaintako zainketengatik prestaziotik kendu ahal izango lirateke, halakorik balu–. Gainerakoa familiari dagokio, baita mendeko pertsonari eskaini beharreko arretaren zati handi bat ere, lanegunetan eguneko zentroan ematen dituen orduak kenduta.

Kasu horri esker, egoitzetan era guztietako mendetasunetarako plazak egon behar dutela ikusi dugu eta, horrez gain, beharrezkoa dela foru eta udal entitateen arteko akordioak arintzea etxeko laguntza zerbitzua albait azkarren eskaintzeko behar duten pertsonen.

1.3.3. HAURRAK ETA GAZTEAK BABESTEA

Joan den abenduaren 20an 219/2007 Dekretua argitaratu zen, abenduaren 4koa, **Haur eta Gazteen Behatokiari** buruzkoa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 100. artikuluan aurreikusia. Behatokiaren eginkizuna gai honen inguruko azterketa, ikerketa, dokumentazioa, aholkularitza eta ebaluazioa egitea da eta bere izaera, eginkizunak eta funtzionamendua aipatu dekretuak zehazten ditu.

Aurten ere zenbait kasu erregistratu ditugu **nazioarteko adopzioarako egokitasun ziurtagiria ukatu izanarekin** erlazionatuta; kasu horietan, **adopzio-hartzailearen eta adopziogaiaren artean 42 urte baino gehiagoko aldea** zegoelako ukatu zen. Arartekoak aurreko urteetan zuen irizpide bera du eta adierazi du egokia litzatekeela familiaren inguruabar guztien inguruko iritzi oso eta banakatua egitea, adopzio-hartzaileek haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 83.1.k) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ote dituzten egiaztatzeko; artikuluan horren arabera, “*adopziogaiaren garapen egokirako mugapena izan daitekeen adinik ez edukitzea adoptatzaileak edo adoptatzaileak*”. Horregatik, ez du uste egokia denik adopzio-hartzailearen eta adopziogaiaren artean gehienez 42 urteko aldea egon behar duela zehatz-mehatz finkatzen duen foru irizpide hori.

Ildo horretatik eman da [irailaren 14ko ebazpena](#)¹⁵ Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari zuzendua. Ebazpen horretan, gainera, prozedura

¹⁵ Arartekoaren ebazpena, 2007ko irailaren 14koa; horren bidez, Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari gomendatzen zaio bere jarduerara Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42 eta 89. artikuluetan ezarritako prozedurara molda dezala eta adopzio-hartzailearen eta adopziogaiaren artean dagoen 42 urte baino gehiagoko aldean oinarrituta adopzioarako egokitasunaren ziurtagiria ukatu izana berriro azter dezala.

administratiboarekin erlazionatutako zenbait kontu ere aipatu dira. Honakoa gomendatu zaio Foru Erakundeari:

- a) Berrikus dezala Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42. artikulua egiten duen interpretazioa (horren arabera, egokitasunari buruzko ebazpena jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da eskabidea hau izapidetzeko eskumena duen organoaren erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita) edo, bestela, araz epe luzeagoa ezar dezala, gehienez ere sei hilabetekoa.
- b) Egokitasunari buruzko bere ebazpenean berriaz aipa dezala zer organo administratibo edo judizialtan aurkeztu behar den aurka egiteko idazkia eta hori aurkezteko zer epe dagoen edo, hala badagokio, ez dagoela horretarako epe preklusiborik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 89.3 artikulua agintzen duen moduan.
- c) Honelako prozesuetan ere eskabidea jaso ondorengo hamar egunen barruan eman dezala Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42.4 artikulua aipatzen duen jakinarazpena eta bertan artikuluko aipamenak jaso daitezela, hau da, prozedurak ebazteko eta jakinarazteko araz ezarritako gehienezko epea, administrazioaren isiltasunak eragin ditzakeen ondorioak eta organo eskudunak eskabidea jaso duen data.
- d) Azter dezala zergatik luzatu den hainbeste ez onartzeko ebazpena ematea eta, hori gehiegizko lan zamaren ondorio izan bada, modu egonkorrean gehitu dezala zerbitzuko langile kopurua eta beharrezkoak eta nahikoak diren baliabideak lor ditzala eskabideei behar besteko prestasunez erantzun ahal izateko.
- e) Bidezko mekanismoak artikulua daitezela interesdunek beren kasu zehatzari dagozkion xehetasun eta inguruabar guztiei eta adopzioarako egon daitezkeen aukerei buruzko informazio osatua jaso dezaten.

2007ko abenduaren 29an hainbeste denboran espero izan den **nazioarteko adopzioari buruzko legea argitaratu da**, 54/2007 Legea, abenduaren 28koa. 10. artikulua adopzio-hartzaileen egokitasunari buruzkoa da:

“Artículo 10. Idoneidad de los adoptantes.

1. Se entiende por idoneidad la capacidad, aptitud y motivación adecuadas para ejercer la patria potestad, atendiendo a las necesidades de los niños adoptados, y para asumir las peculiaridades, consecuencias y responsabilidades que conlleva la adopción internacional.

2. A tal efecto, la declaración de idoneidad requerirá una valoración psicosocial sobre la situación personal, familiar y relacional de los adoptantes, y su capacidad para establecer vínculos estables y seguros, sus habilidades educativas y su aptitud para atender a un menor en función de sus singulares circunstancias, así como cualquier otro elemento útil relacionado con la singularidad de la

adopción internacional. Las Entidades Públicas competentes procurarán la necesaria coordinación con el fin de homogeneizar los criterios de valoración de la idoneidad.

3. La declaración de idoneidad y los informes psicosociales referentes a la misma tendrán una vigencia máxima de tres años desde la fecha de su emisión por el órgano competente español, siempre que no se produzcan modificaciones sustanciales en la situación personal y familiar de los solicitantes que dieron lugar a dicha declaración, sujeta no obstante, a las condiciones y a las limitaciones establecidas, en su caso, en la legislación autonómica aplicable en cada supuesto.

4. Corresponde a las Entidades Públicas competentes en materia de protección de menores la declaración de idoneidad de los adoptantes a través de los informes de idoneidad, que estarán sujetos a las condiciones, requisitos y limitaciones establecidos en la legislación correspondiente.

5. En el proceso de declaración de idoneidad, se prohíbe cualquier discriminación por razón de discapacidad o cualquier otra circunstancia.”

Adin tartearen alderdiari buruz aipatu dugun interpretazioa guztiz bat dator lege berri honetan jasotakoarekin.

748/2007 kexa-espeditatea izapidetzerakoan, formazko akatsa antzeman dugu Arabako Foru Aldundiko Adingabearen Kontseiluak emandako zenbait **erabakitan**. Horien bidez, **adingabea babesik gabeko egoeran zegoela adierazi da eta, legeak hala aginduta, haren tutoretza hartu da**. Kasu zehatz honetan, horrek interesduna defentsarik gabe utzi ahal izango zukeen. Erabakiak ez ditu zenbait alderdi aipatzen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 58. artikuluekin bat etorritz, halaxe jaso behar lituzkeen arren. Ildo horretatik, interesdunari ez zaio adierazi zein den jurisdikzio eskuduna, ezta zein organotan egin dezakeen ere erabaki horren aurka. Ez zaio esan, ezta ere, aurkaratzeko epe preklusiborik ba ote dagoen eta, hala bada, zein den. Administrazioari iradoki genion, akats horiek zuzentze aldera, bidezkoa litzatekeela beste jakinarazpen bat bidaltzea eta, bertan, aipatu alderdiak jasotzea. Adingabearen Kontseiluak jakinarazi digu, gure proposamena jaso ondoren, eta adierazitakoaren ildotik, zenbait aldaketa egin dituela eta horiek erabakien oinean jaso dituela.

1.3.4.EREMU SOZIOSANITARIOA

Eremu soziosanitarioaren garapenak premiazko arreta behar du eta, kasu batzuetan, ezinbestekoa da pertsona oso bizkor narriatu ez dadin, hala gertatuz gero, gizarte eta osasun baliabideak behar bailirateke une oro.

Behar hori gero eta larriagoa da adinekoen eta ezgaitasunen bat duten pertsonen kasuan. Bizkaian unitate soziosanitarioak zabaltzen ari dira. Horrela, 2007an, beste bi unitate zabaldu dira, premia bereziak dituzten mendeko adinekoei zuzenduta. Foru Aldundiak bi zentro pribatutan itundu du zerbitzu hau, bat Zornotzan eta bestea Portugaleten, eta bakoitzean 27 plaza jarri dira. Plaza horiek Leioan lehendik zeuden 36 plazei gehitu behar zaizkie eta, guztira, beraz, 90 plaza daude lurralde horretan.

Hiru zentro horietan arreta soziosanitarioa eskaintzeko, lankidetzeta-hitzarmena sinatu da Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Osakidetzaren artean. Hitzarmenaren helburua bi entitateak elkarlanean aritzea eta finantzaketa-eredua ezartzea da.

Badira urte batzuk Gipuzkoak arreta soziosanitarioko zentro bat duela, 80 plazakoa, Donostian, baina Arabak ez du horrelako unitaterik. Garrantzitsua iruditzen zaigu ildo horretatik aurrera egitea, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari baita.

Oraindik ere zailtasunak antzeman daitezke koordinazio soziosanitarioan; horren ondorioz, mendetasunen bat duten pertsonak egin behar izaten duten desintoxikazio prozesuak ez dira beti arrakastatsuak izaten.

Gizarte erantzunak beharizan soziosanitarioetara egokitu behar dute, arrisku larriagoei aurrea hartzeko eta inguruabar pertsonal guztiak baloratuta. Horregatik, pertsona bat **desintoxikazio programa** batean dagoenean, Gasteizko Aterpe bezalako ostatu baliabideak beharbada ez dira nahikoak izango.

Kasu zehatz batean (1256/2006 kexa-espeditentea), eta lanik gabe eta desintoxikazio tratamendu medikoaren pean zegoen herritar baten problematikari erantzuna eman zekion, Udalari omisioagatiko erroldatzerako aurreikusitako araudia aplikatzea proposatu zitzaion. Hori 1997ko apirilaren 9ko Ebazpenean erregulatu zen, Estatistikako Institutu Nazionalako presidentek eta Lurralde Lankidetzarako zuzendari nagusiak batera emandakoan (horren bidez, udalei udal errolda kudeatu eta berrikusteari buruzko jarraibide teknikoak eman zitzaizkien).

Figura hori bost urteko erroldatzeetarako pentsatuta zegoen arren, uneko gizarte errealtatearekin bat etorri egindako interpretazioak horrelakoen moduko kasuetarako erabiltzea ahalbidetzen zuen, betiere, behar bezala egiaztatzen bazen pertsona hori Gasteizen bizi zela. Gainera, diru-sarrerarik gabe egongo zen aldia mugatua zen eta, beraz, laguntza-premia ere aldi baterako baino ez zen izango; edonola ere, une horretan laguntza ukatzeak oso ondorio larriak izan zitzaizkeen. Gasteizko Udalak ez zuen proposatutakoa onartu eta gizarte arloko beste esku-hartze bat burutu zuen.

1.3.5. ADINEKOAK

Joan den urtean aipatu genuen garrantzitsua zela **adinekoentzako egoitza-zerbitzuak pertsonen ingurune naturalera hurbiltzea**. Horri zegokionez, Arabako Foru Aldundiarekin ofiziozko espeditentea izapidetu genuela aipatu genuen, egoitza batean, beste batera aldatu ahal izateko, eman behar den denborari buruzkoa (5/2006 OF). Espediente hau oraindik ez da amaitu. Erantzunik jaso ez genuenez, beste idazki bat bidali genion aldundi horretako Gizarte Gaietarako Sailari. Bertan aipatu genuen gai horren inguruko bi foru dekretu onartu zirela –39/2007 FD, apirilaren 24koa, eta 45/2007 FD, maiatzaren 8koa–.

Gure balorazioan azaldu genuen dekretu horiek zenbait hobekuntza egin zituztela aurreko egoerarekin alderatuta:

- Egoitzaz aldatzeko arrazoi gisa barneratu da familiarengandik gertuago egotearena;
- Lehenengo zentroan gutxienez eman beharreko denbora hiru hilabetekoa izango da, eta ez lehenengo araudian ezarritako sei hilabetekoa.

Hala ere, bi dekretu berri horiek ez dute egoitzaz aldatzeko inolako egoera berezirik aipatzen. Ez dute bereizten aldaketa herri batetik bestera joateagatik ala, herri berean, egoitza batetik bestera joateagatik gertatzen den. Ez dute kontuan hartzen, ezta ere, jatorrizko egoitza aukeratu egin zen edo, bizilekutik gertuagorik egon ez eta eskainitakoa onartu egin behar izan zen. Balorazio horiek ere helarazi genizkion arren, ez genuen erantzunik izan. Foru talde berriarekin gaiari heldu zaio berriz ere eta hark adierazi digu aurkeztutako gaia aztertuko dela. Hortaz, haren erantzunaren zain gaude.

2006an ere **Gizarte Ongizateko fondoko pentsioa** aipatu genuen, baita pentsio horren onuradun izateko atzerritarrek bete behar zituzten betekizunei zego-kienez hiru aldundietan aplikatzen ziren irizpideen arteko aldea ere. Gipuzkoan, oro har ez zitzaien ematen, Espainiako herritartasuna eskatzen zelako. Hala ere, Araban eta Bizkaian bizileku baimena izatea eskatzen zitzaien. Adierazi genuen bezala, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzari Sailari zuzendu gintzaizkion. Kontu honek aldeko ebazpena izan zuen; horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak beste bi aldundietan zegoen irizpidearekin bateragarri egin zuen. Alabaina, oraindik ez da zuzenketa egin Gipuzkoako Aldundiaren Web orrian; komenigarria litzateke hori egitea, herritarrak ez nahasteko.

Aurten, Arartekoak irizpena eman du Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak pertsona bati emandako laguntza ekonomikoa bertan behera uzteko hartutako erabakiaren inguruan. Pertsona horri adinekoentzako egoitza bateko plaza bat finantzatze aldera eman zitzaion laguntza, bere jabetzako higiezin bat dohaintzan ematearen ondorioz [-otsailaren 27ko ebazpena](#)¹⁶⁻.

Gure iritziz, Aldundiak etetea berrikusi behar izango zukeen eta, azkenean, ondoriorik gabe utzi, bertan jasotako kasua, alegia, higiezin baten dohaintza, ez zegoelako laguntza eteteko arrazoi gisa aurreikusita araudi aplikagarrian (63/2001 Foru Dekretua). Hautemate horrek ez du esan nahi, kasu batzuetan, norberaren ondasunak libreki erabiltzeko eskubidea mugatzen duten neurriak ezartzearen aurka gaudenik. Alderantziz, aipatu zen arrazoizkoa iruditzen zitzaigula egoitzetako gastuei aurre egiteko laguntza publikoak jasotzen dituztenek –kasu honetan bezala– eskubide hori mugatuta izatea. Hala ere, azaldu genuen mugapen horrek eta hori urratzeak izan ditzakeen ondorioek arauan jasota egon behar dutela, beharrezko lege babesa izateko. Gure iritziz, egoera hori ez dago 63/2001 Foru Dekretuan. Laguntza eteteak eragin negatibo handia zuenez interesdunarengan, erabakiak argi eta behar bezala mugatuta egon behar zukeen arauan; honek berariaz debekatutako jarduerarekin bat etorritik behar zukeen. Dohaintza zen eta arauak ez dio, kasu honetan, interesdunari diru-sarrera likido gisa zenbatu behar zaionik dohaintzan emandako ondasunari jarritako balioa. Gai horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri da.

Berriz ere aipatu behar dugu EAEn oraindik ere **ez daudela adinekoentzako egoitzak**.

Sarreran aipatu genuen **ondorio ezberdinak** izan ditzakeela aldundi bakoitzak egoera berari **mendetasuna baloratzeko baremo ezberdinak aplikatzearen**

¹⁶ Arartekoaren ebazpena, 2007ko otsailaren 27koa; horren bidez, amaitutzat ematen da Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak pertsona bati adinekoentzako egoitza batean duen plaza finantzatzeko eman zion diru-laguntza eteteko hartu duen erabakiaren inguruko jarduera.

ondorioz. Bizkaian hainbat urte eman ondoren, famili arrazoiak zirela medio, Arabara joan zen adineko baten kasua dugu (1158/2007 espediente zk.). Egoitza publikoko plaza bat eskatu zuen Araban. Mendetasunaren Legeko baremoa aplikatuta –mendetasuna baloratzeko baremoa (BVD)–, II graduako (1. mailako) mendetasuna aintzatetsi zitzaion. Arabako Foru Aldundiak egoitza publikoko plaza ukatu zion, gradu eta maila horiek 2009ra arte ondorioz izango ez zutelako.

Hala ere, Arabako Foru Aldundiak II eta I graduako mendetasuna duten pertsonen aldeko beste babes maila bat aintzatetsi du (39/2007 Foru Dekretuaren lehen xedapen iragankorra). II graduako pertsonen kasuan, zerbitzu bati lotutako diruzko prestazioa jasotzeko eskubidea onartu da, hau da, sare pribatuan egoitza-plaza bat ordaintzeko laguntza ekonomikoa. Alabaina, prestazio hori hartu ahal izateko, beharrezkoa da eskatzailea eskabidea aurkeztu aurreko hiru urteetan, gutxienez, Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egon izatea. Kexagileak ez zuen betekizun hori betetzen.

Pertsona hori Bizkaira itzul zitekeen, berriz ere bertan erroldatu eta lurralde horretan foru egoitza bateko plaza eskatu, bertan bai beteko bailuke Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotearen betekizuna. Egoitzetara sartzeko Bizkaiko araudiaren arabera, Lurralde Historikoko udalerrietakoren batean erroldatuta egon behar da “... eskabidea aurkeztean eta, gutxienez ere, data horretatik aurreko hamar urteetako hiru urtetan zehar”. (2006/2005 Foru Dekretuaren 9. artikulua). Paradoxikoa bada ere, jarduera hipotetiko horren emaitza ezberdina izango litzateke, Bizkaiko Foru Aldundiak mendetasunaren legeak ezartzen duen BVDren balorazioa RAI baremoarekin osatuko bailuke eta horrek, beharbada, Bizkaian foru sareko egoitzetako bateko plaza eskuratzea ekarriko bailuke.

Hortaz, erroldatzearen betekizuna alde batera utzita, adinekoentzako egoitza iraunkorreko plaza eskatzen denean, RAI baremo osagarria aplikatzeari esker –Bizkaian eta Gipuzkoan–, oraindik eraginkortasunik ez duen mendetasun maila duten pertsonen foru sare publikoan sar daitezke. Araban baremo osagarri hori aplikatzen ez denez, ezin da foru sare publikoan sartu, nahiz eta banakako laguntza ekonomikoa ematen den sare pribatuan sartzeko (zerbitzuari lotutako prestazioa).

Kasu honek agerian uzten ditu gizarte arretako sistemei dagokienez gure autonomia-erkidegoan **lurralde batetik bestera** oraindik ikus daitezkeen **aldeak**. **Adinekoentzako egoitzetara** mugatzen bagara, alde horiek bai **sarbidetari** bai lurralde bakoitzean indarrean dauden gehienezko **prezio publikoei** eragiten diete. Azken alderdi horri dagokionez, lurralde baten eta bestearen arteko aldea bikoitza baino handiagoa izan daiteke. Ona litzateke hiru foru entitateek alderdi hauen nahiz beste batzuen inguruko beren irizpideak bateratzea, ordainketa-bermeen sistemarekin egin duten moduan, Gizarte Zerbitzuei buruzko lege proiektuari buruz egindako akordioaren bidez.

Arabaren adinekoak arreta-zentroetara garraiatzeari dagokionez, 1557/06 kexa izapidetzerakoan aipatutako problematika nabarmendu behar dugu. Arabaren konfigurazio demografikoak, biztanle gutxiko gune barreiatuez osatuta dagoenak, ezaugarri bereziak ematen dizkio eta zailago egiten du gizarte arreta espezializatuko zentroak diseinatzea. Hainbat udalerritan baserrialdeetako arreta-zentroak daude, baina horiek autonomia-maila nahikoa duten pertsonentzat dira. Kexan adierazi zenez, Arabako Haranen eskualdean bizi ziren mendeko hainbat pertsona egunero Gasteizko eguneko zentro batera joaten ziren ibilgailu egokitan, baina bidaia luzeegia zen, ibilbidean 20 kilometro desbideratu behar baitzuen ibilgailuak.

Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak gure planteamenduei jaramon egin zien eta, errefortzu gisa, beste ibilgailu bat jarri zuen garraio zerbitzuan eta, hala, arazoa konponduta geratu zen.

Bestalde, **egoitzetan dauden adinekoek jasotzen duten osasun arretari** dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Osakidetzak beste lankidetzak-hitzarmen bat sinatu dute eta, horren bidez, zerbitzu horien prestazioa bermatu nahi da eta, orobat, foru erakundeari konpentsazioa eman, *“bere egoitzetan nahiz foru sareari dagozkion hitzarmenpeko nahiz itunpeko egoitzetan eskaintzen duen arreta medikoko eta erizaintzako arretako gastuarengatik...”*.

Adinekoentzako egoitzei eta **zentro pribatuetan plazak publikoki ituntzeko beharrari** dagokienez, esan behar dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak 38/2007 Foru Dekretua onartu duela, maiatzaren 22koa, mendeko adinekoentzako egoitza-zerbitzuak ituntzeko beharrezko baldintzak zehazten dituena. Azken hauek hainbat motatakoak dira: lege betekizunak betetzearen ingurukoak; egoitzak eskaini behar duen zerbitzu zorroari buruzkoak; zentroaren jarduteko eremu ezberdinetan antolakuntzaren kulturaz eta jardunbide egokiez dihardutenak; eta zuzeneko arretako langileen ratioak eta lanbide profilak betetzeari dagozkionak. Azken batean, hitzartutako plazetan jasotzen den egoitza-arretaren kalitatea foru zentroetako plazetan jasotako arretarenaren berdina izatea bermatzen da.

1.3.6.FAMILIARENTZAKO LAGUNTZAK

Familia ugaria izatearen aintzatespena

464/2007 kexa-espeditentea izapidetzean, jakin dugu ezkondata zegoen eta bi seme-alaba izan zituen bikote bat banandu eta bakoitzak bere bikotekide berriarekin beste seme-alaba bat izan zuela. Kasu honetan, familia ugariak babesten dituen 40/2003 Legeak dio guraso horiek ados jarri behar dutela horietatik familia ugari bakarraren titularra nor izango den zehazteko. Gainera, agindu berak gaineratzen du, adostasunik egon ezean, bizikidetzaren irizpidea gailenduko dela. Kasu honetan, seme-alabak ama-rekin bizi ziren. Kexagileak adierazi zuen ez zegoela ados agindu honen edukiarekin eta azaldu zuen bi gurasoak hartu behar liritekeela legez familia ugaritzat; bere ustez, bere seme-alabak ekonomikoki aurrera ateratzeko egiten duen ekarpenak eta ezarrita duen bisiten erregimenak berak ere titulu bera izatea justifikatzen dute, bizikidetzako betekizuna betetzeagatik amari eman zaion bezalaxe. Kexa hau Herriaren Defendatzailearengana bideratu da.

Beste kexa bat ere izapidetu du eta, bertan, honako kasu hau adierazi zaigu: guraso bakarreko famili unitatea da, bi seme-alaba ditu eta ama ez dago ez bananduta ez dibortziatuta eta ez da alarguna. Hiru baldintza horietako edozein betez gero, familia ugaritzat hartuko litzateke. Hala ere, baldintza horietako bat bera ere betetzen ez denez, 40/2003 Legearen 2. artikulua aplikatuta, familia lege horren babes eremutik kanpo geratzen da. Kexa hau Herriaren Defendatzailearengana bideratu da.

Jaiotza edo adopzioagatiko laguntzak

2007ko urtarrilaren 1ean 255/2006 Dekretua sartu zen indarrean, abenduaren 19koa, Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko 2006-2010 aldirako Erakunde arteko II. Planean jasotako laguntza ekonomikoak arautzen dituen.

Dekretu horrek, 176/2002 Dekretuaren ondorengoa denak, zenbait aldaketa tekniko interesgarri ditu. Horietako batzuek Jaurilaritzari 2002-2006 aldian eztabaidagarriak eta hobetzeko modukoak zirelako aipatu genizkion alderdietan izan dute eragina. Halaxe gertatzen da erditze edo adopzio kasu larriagatiko laguntzekin. Horien zenbatekoa, proportzionalki, oso txikia zen erditze edo adopzio anizkoitzagatik edo nazioarteko adopzioagatik, nola bakuna hala anizkoitza izan, ematen zirenekin alderatua. Azken horrek, dekretu berriari esker, laguntza independentea jasoko dute eta horrek ez du zerikusirik izango adopzio nazionalako edo erditze anizkoitzeko kasuetan ematen denarekin.

Lanbidea eta familiako bizitza bateratzea

- a. Erakunde hau eszedentziak eta lanaldi murrizketak egiten direnean emakumeei gizonetzoei baino laguntza txikiagoak ematea justifikaziorik gabeko bereizkeria izango litzatekeen aztertzen ari da (598/2007 espedientea, II. atalean barneratutako emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko azpiatalean xehetasunez aztertuta).

Bestalde, laguntza horien eskaerak ebatzi eta jakinarazteko epea 6 hilabetekoa da. Hainbat kexa aurkeztu dira (1187/2006 eta 342/2007 espedienteak). Kexagileen ustez, epe hori luzeegia da eta, beraz, laguntzaren beraren arrazoia hutsaltzen du. Laguntza horren helburua guraso baten eszedentziak/lanaldi murrizketak familian eragiten duen diru sarrerak lermatu izana konpentsatzea bada, epe laburragoan gauzatu behar litzateke.

- b. Hiru urte baino gutxiagoko haurrak dituzten familientzako laguntzak: [1/2007 iradokizuna](#)¹⁷ azpimarratu nahi dugu, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari zuzendua, hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten familien aldeko diru-laguntza erregulatzen dituen araudian familiaren diru-sarrerak zenbatzeko berariazko sistema barnera dezan, diru-sarrerak zenbatu zirenetik diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu den arte, heriotza, banantzea, dibortzioa, etab. bezalako salbuespenezko inguruabarrak dauden kasuetan aplikatu ahal izateko. Iradokizuna onartu egin zen eta zegokion aldaketa egin da. Ikusi ahal izan dugunez, guraso bakarreko zenbait familiak zailtasunak izan dituzte laguntza horiek eskuratzeko; familia horiek aitak onartu dituen baina berarengandik mantenua jasotzen ez duten seme-alabak dituzten emakume ezkongabeek osatuta daude (302/2007 espedientea). Administrazioak emakume horiei eskatu ohi die aurrez aitari mantenua emateko eskatu diotela egiaztatu behar dutela, baina hori oso zaila izan da. Gai hori II. atalean barneratutako emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko azpiatalean aztertu da xehetasun handiagoz.

¹⁷ Arartekoaren ebazpena, 2007ko otsailaren 1ekoa; horren bidez, Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari iradokitzen zaio hiru urtetik beherako haurrak dituzten familientzako diru-laguntzen araudian, familiaren diru-sarrerak zenbatzeko berariazko sistema bat txerta dezala, kasu jakin batzuetarako.

1.3.7.DIRUZKO GIZARTE PRESTAZIOAK

- **Bizikidetzako unitate ekonomiko independentetzat (BUEI) hartzea eta hori lurralde historikoetan aplikatzeko modua**

Kontu honen inguruan gomendio orokorra egin genuen iaz; gomendio hori Eusko Legebiltzarrarentzako 2006ko txostenean jaso zen. Hori gorabehera, eta, sarreran esan bezala, berriki onartu den Gizarteratzeari buruzko Erakunde arteko II. Planaren helburuetako bat dela dirudien arren, gaia berriz ere ahotara ekarri behar dugu, hainbat kexa jasotzen jarraitzen baitugu eta beharrezkoa baita horren inguruko araudia gizarte errealitate berrira egokitzea. Bizikidetzako unitate ekonomiko independenteaz ari gara (BUEI). Hau gizarte bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legearen 3. artikuluan dago jasota eta apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren 4. artikuluan garatu da.

BUEIren gaineko gure gogoetak egoera jakin batzuetan duten osaerari buruzkoak dira, etxebizitzari edo bizitoki independenteari dagokionez. Egun etxebizitza eskuratzea zaila denez, pertsona askok ezin dute etxebizitza edo ostatu independentea mantendu, arauak ezartzen duen moduan. Horren ondorioz, pertsona askok etxebizitza berean bizi behar izaten du, nahiz eta horrek ez dakarren diru sarrerak partekatzea eta, are gutxiago, elkarbizitza egoeta.

Gomendio horretan jaso diren eta, gure ustez, babestu egin behar diren egoerak honakoak dira, labur-labur:

- a) Logela bana alokatuta etxebizitza berean bizi diren pertsonak.
- b) Batera errentan hartuta etxebizitza berean bizi diren pertsonak.
- c) Seme-alabak dituen eta, etxebizitza beste pertsona batzuekin partekatu arren, BUEI osatzen duen familia. Seme-alabak nagusi egiten direnean sortzen den egoera.
- d) Pertsona bat banantzeagatik, utzarazpenagatik, etab. etxebizitza uztera behartuta dagoeneko egoerak.
- e) Lehengo bikotekidearekin seme-alabak izan dituen eta oinarrizko errenta jasotzen duen ama bat, beste pertsona batekin harremanetan hasi eta haren etxera bizitzera joaten denean.
- f) Espetxean, hirugarren graduan, dauden eta INEMen nahiz bestelakoen prestakuntza-ikastaroa egiteko egunero ateratzen diren baina, ordutegiagatik, espetxean bazkaldu ezin duten pertsonak.
- g) Zigorra bete eta espetxetik ateratzen diren pertsonak.

e), f) eta g) paragrafoetan aipatutako egoeretan, pertsona horiek gizarte zerbitzuetatik jasotzen duten aholkua da etxebizitza "eurentzat bakarrik" bila dezatela, oinarrizko errenta eta gizarte behar larrietarako laguntzak hartu ahal izateko. Gure ustez, hori ez da baliabide publikoak optimizatzeko modu egokia.

BUEIren interpretazioan, hiru lurralde historikoetako kudeaketa-organoek ezberdin aplikatzen dutela ikusi ahal izan dugu, 5/2006/O espedientearen adierazi genuen bezala. Erakunde honek hainbatetan erakarri nahi izan du arreta gizarte zerbitzuen arloan lurralde batetik bestera dauden desoreketara. Bazterkeriaren aurkako borrokan, benetan kezagarria iruditzen zaigu, araudi berean oinarrituta, premia-egoerei eskainitako erantzuna ezberdina izatea euskal lurraldeetako bakoitzean. Lehen ere esan

dugu Gizarteratzeari buruzko II. Euskal Planak arazo hori konpontzeko neurriak biltzen dituela. Era berean, espero dugu Gizarte Zerbitzuen Lege berriaren onarpenak horretan laguntzea (aurreikusitakoaren arabera, legearen aurreproiektua 2008. urtearen erdialdera bukatuta egongo da).

Gipuzkoan, adibidez, hainbat pertsonak logela bana alokairuan hartuta etxebizitza partekatzen dutenean (lehen adierazitako egoera), elkarrekin bizi diren pertsona guztiak diru-sarrera guztiak zenbatzen dira. Egoera horiei Aldundiak egindako zerrendan dauden egoitzak edo gizarteratze zentroak direnean bakarrik eskaintzen zaie arreta. Kasu horietan, gizarte erakundeek adierazi digute, maiz, zentroan bertan itunduta duen plaza-kopurua baino pertsona gehiago eskaini behar izaten dietela laguntza. Horren ondorioz, Aldundiak ezin die pertsona horien gizarte prestazioetarako eskaerei erantzun; nolahi ere, horietako batzuk gizarteratze ibilbideak egiten ari dira eta horiek emaitza onak izaten ari dira.

- Oinarrizko errentari eta gizarte behar larrietarako laguntzei dagokienez antzemandako arazo nagusiak

Zenbait betekizun ez betetzeagatik prestazioak ukatzea

Euskal udalerrri batzuetan pertsonak etxebizitzetan pilatzearen arazoa dago. Egoera horrek kalte bikoitza eragiten die arazoa jasaten dutenei, batetik, baldintza txarretan bizi direlako eta, bestetik, laguntzak ukatzen zaizkielako. Esaterako, Gasteizko Udalak, prestazioak izapidetzerakoan, etxebizitzek bizigarritasun baldintzak bete behar dituztela dio. Horiek, ordea, ez dira betetzen pertsona asko etxebizitza berean daudenean. Kontua da pertsona horiek ez dutela beste bizitokirik aurkitzen.

Beste batzuetan, ohartu gara gizarte zerbitzuen zerbitzuak eta prestazioak gehien behar litzuketen pertsonak kanpo geratzen direla, agiririk aurkeztu ezin dutelako, besteak beste, alokairu kontratua.

Etxebizitza erostea, batzuetan oinarrizko errenta eteteko arrazoa

Lurralde batzuetan, oinarrizko errenta eta gizarte behar larrietarako laguntzak jasotzen dituenak etxebizitza erosi duenez (hipoteka-kreditu, abal eta abarren bidez), Aldundiak oinarrizko errenta eten du, honako bi arrazoi hauengatik: batetik, errenta-jasotzaileak aitortu ez ziren baliabide ekonomikoak izan zitzaizkela, eta, bestetik, oinarrizko errenta beste xede baterako erabili zelako, eta ez arauan ezarritakoa betetzeko (mantenua). Foru entitatearen iritziz, etxebizitza erostea “famili errenta nabarmen haztearen” ondorioa izan da.

Gure ikuspegitik uste hutsek, berez, ez dute balio eskubideak mugatzeko, betiere, frogatuta ez badaude. Gainera, esan behar da, oinarrizko errentaren xedea familiaren mantenua bada ere, hori –eta, horrekin batera, etxebizitzaren alokairua ordaintzeko GLL– jasotzen duten familia gehienek oinarrizko errentaren zati bat alokairuaren prezioa ordaintzeko erabiltzen dutela. Hori GLLren zenbatekoa etxebizitzaren alokairuari dagokion guztizko prezioa ordaintzeko nahikoa ez delako gertatzen da. Egoera hori, alokairuen prezioek eragindako errealitate baten ondorioa izaki, guztiontzat ezaguna da eta

guztiok onartzen dugu. Hala ere, etxebizitza eskuratzea bititoki egonkorra izateko modu bakartzat hartzen denean, foru administrazioaren ustez hori laguntza kentzeko arrazoia da. Ondorioz, kasu askotan, bidegabe jasotako kopuruak itzultzeko eskatu ohi da.

Egoera honi buruz, oinarritzko errenta eta GLL jasotzen zituen familia baten kasu zehatza aurkeztu zaigu (1174/2006 espediente zk.). Horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak prestazio horiek jasotzeko eskubidea kendu zion eta kopuru handia eskatu zion bidegabe jasotako prestazio eta errekaratu gisa. Kopurua ordaindu ezean, etxebizitza bahituko zitzairen, etxebizitza izanik beren ondasun bakarra. Foru entitateak honela arrazoitu zuen erabakia ebazpenean: “...bere egoera ekonomikoa edo bizikidetzako unitateko kideren batena aldatu egin zelako” (Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren 3.3 artikulua). Ez zuen zehaztu zein izan zen, zehazki, aldaketa, ezta hala gertatu zela egiaztatzeko zer froga objektibo zituen ere. Hala ere, eskubidea galtzearen ondorioz, diru-kopuru handia eskatu zion, prestazioa bidegabe jaso zelako. Eragindako familiak, berriz ere, prestazioa eskatu zuen, baina ukatu egin zitzaion: “...jakinarazi ez dizkigun diru-iturriak dituela erakusten duten ebidentziak baitaude”. Neurri horren aurkako errekurtsioa jarri zen, baina, hala ere, foru entitateak hasierako erabakia berretsi zuen, arrazoi beretan oinarrituta.

Inoiz ez zen zehaztu zein ziren jakinarazi gabeko diru-iturri horiek (zenbatekoa, jatorria, familiako zein kidek jaso zituen, etab.), eta ez zen argitu prestazioa famili unitatea elikatzeaz bestelako helburu batzuetarako erabili zen ustea.

Familia honek zailtasunak zituen prestazioa gabe bizirauteko, ezin izan zion foru entitateari honek eskatutako zenbatekoa itzuli. Horren ondorioz, premiamendu bideari hasiera eman zitzaion eta haren etxebizitza bahitu zen. Egoera horretan, inolako baliabiderik gabe, zituen finantza-betebeharrak (maileguak) bete ezinik eta etxebizitzarik gabe gera zitekeela ikusita, hura saltzea erabaki zuen eta, bildutako diruarekin, Aldundiak eskatzen ziona ordaindu eta maileguak ezereztea. Ondoren, etxebizitza alokatu zuen GLLen bidez eta berriz ere oinarritzko errenta eskatu zuen mantentzeko. Gertakari horiek, zalantzarik gabe, garbi uzten zuten familia baliabiderik gabe zegoela.

Dirudienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki horiek hartu izatearen arrazoia izan zen familiak etxebizitza gisa erabiliko zuen lonja eskuratu zuela. Familia, ijito etniakoa, denbora luzez egon zen gizartean baztertuta, etxebizitza eskuratzeko zailtasunen ondorioz. Kanean ere bizi izan ziren. Gizarte zerbitzuek denboraldi luze batez esku hartzen aritu ondoren eta familiak aldeko jarrera zuela ikusita, Donostiako Udalak jarduteko plana bultzatu zuen eta, horren baitan, etxebizitza-lonja eskuratzea eta hura birgaitzea aurreikusi zen, familiak etxebizitza eskuratzetik ez zuelako. Horren egonkortasuna emango zion familiari, adingabea eskolatzea bermatuko zuen eta familiak gizarteratu eta laneratzeko bere ibilbidearekin jarraitu ahal izango zuen.

Familia horrek etxebizitza saldu behar izan du; hala egin izan ez balu, bahitu egingo zen eta, ondoren, enkantean atera. Bizitokirik gabe geratu zen eta halakorik aurkitzeko zailtasun handiekin. Paradoxikoa bada ere, jada baduenez bititokia, berriz ere oinarritzko errenta jasoko du eta GLL hartzen jarraituko du. Hau da, familiak lehengo laguntza berberak ditu, baina bere egoera askoz ere kaskarragoa da: atzerapen nabarmena izan du gizarteratze prozesuan, bere autonomia-plana bertan behera geratu dela ikusi du eta erakundeen mende dagoela are garbiago geratu da. Hori guztia behar beste arrazoituta ez zegoen eta frogatu gabeko usteetan oinarrituta zegoen administrazio ebazpen baten ondorioz.

Gure iritziz, eskubidea azkentzeko espediente batean, Administrazioak modu fede-emailean frogatu behar du bere erabakiaren arrazoia. Horri dagokionez –alegia, eskubide subjektiboak mugatzen dituzten administrazio egintzen arrazoitzeari dagokionez–, Auzitegi Gorenak honela dio: *“tal motivación, legalmente exigible, ha de ser en todo caso suficiente, es decir, que aun en el supuesto de ser sucinta o escuetamente breve, ha de contener en todo caso, la razón esencial de decidir, en lo dispuesto en el acto administrativo, de tal modo que el interesado pueda conocer con exactitud y precisión el cuándo, cómo y porqué de lo establecido por la Administración, con la amplitud necesaria para su adecuada posible defensa, permitiendo también a su vez a los órganos jurisdiccionales el conocimiento de los datos fácticos y normativos que les permitan resolver la impugnación judicial del acto, en el juicio de su facultad de revisión y control de la actividad administrativa, sancionada en el artículo 107 de nuestra Constitución”*. Zera eransten du: *“... la exigida motivación administrativa es clave para el logro de la seguridad jurídica que debe imperar tanto “a priori” como “a posteriori” en las relaciones entre la Administración y los administrados”*. Continúa señalando que *“Todo ello, determina la disconformidad a derecho del acto administrativo ausente de la motivación suficiente para los fines indicados”* (Auzitegi Gorenaren epaia, 1999-12-15; Ar: RJ 1999\8994). Alderdi horiek guztiek ebazpena baliogabetu dezakete, eta halaxe jakinarazi genion Gipuzkoako Foru Aldundiari ere, baina bere jarrerari eutsi zion.

Era berean, familia berriz ere kale gorrian eta etxebizitza aurkitzeko arriskuan egon zitekeela ikusita, adierazi genuen etxebizitza izatea oso garrantzitsua dela pertsona ororen bizitzan, bizimodu normalizatua izateko funtsezkoa eta, beraz, edozein gizarteratze prozesutarako oinarrizkoa. Horren haritik, Gizarte Eskubideen Gutunak oinarrizko gizarte eskubidetzat hartzen du etxebizitza. Etxebizitzaren garrantzia Gizarteratzeari buruzko Erakunde arteko I. nahiz II. Planean jaso da (azken hau aurten onartu da 2007-2009 aldirako). Bestalde, bazterkeriaren aurkako borroka alderdi guztietatik aztertu behar da, hori sortzen duten arrazoi ugarietara helduta. Horren ildotik, diruzko prestazioak gizarteratzearen helburua lortzeko beste bitarteko bat dira.

Hainbat azterlanetan, adibidez, erakunde honek egin zuen *Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna* izeneko ezohizko txostenean, garbi geratu da zeinen garrantzitsua den etxebizitza izatea bazterkeria larriko egoerei aurrea hartzeko. Horregatik, ez dirudi, kasu honetan, famili errenta gehitu denik, baizik eta premia biziko ondasun bat eskuratu nahi izan dela. Zenbait pertsonentzat, etxebizitza erostea izan daiteke etxebizitza eskuratzeko modu bakarra. Halaxe gertatzen da, adibidez, ijitoekin, etxebizitza-alokairuaren merkatuan bereizkeria-arazo larria jasaten baitute.

Gizarte alokairua eta gizarte behar larrietarako laguntzak ematea

Azaldu zaizkigun zenbait kasutan, gizarte alokairua eman ondoren, udaleko gizarte zerbitzuek onuradunari jakinarazi zioten jada ez zitzaiola beste inolako laguntzarik emango alokairua ordaintzeko (1560/2006 zk.ko kexa-espedientea, Bilboko Udala). Paradoxikoa bada ere, pertsona lehen baino egoera kaskarragoan geratzen zen. Arrazoa etxebizitza mantentzera (argia, ura, etab.) zuzendutako gizarte behar larrietarako laguntzen bidez konpondu da.

Gai honi dagokionez, 2006ko martxoaren 8ko Aginduak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarenak, gizarte zerbitzuen esku uzten du erabakitzea gizarte alokairuko zer egoeratan dagoen benetako gastua.

Etxebizitza-alokairua ordaintzera bideratutako gizarte behar larrietarako laguntzak ukatzea, etxebizitza senideren baten jabetzakoa denean

Gasteizko Udalak uko egiten die alokairua ordaintzera bideratutako GLL eskaerei, alokairuan hartutako etxebizitza errentariaren senideren baten jabetzakoa denean. Uko hori Diruzko Prestazioetan Iruzurri Aurre Egiteko Protokoloa aplikatzearekin bat dator (506/2007 zk.ko kexa-espedienteak). Horren helburua iruzurra eragin dezaketen egoerak kanpo uztea da. Arartekoak adierazi du gizarte behar larrietarako laguntzak erregulatzen duen araudiak ez duela aipatzen alokairu gastua senideren baten jabetzako etxebizitzari dagokionean laguntzak ukatu egingo direnik. Laguntzak arrazoi hori dela medio ukatzea ere ez zaigu iruditzen berdintasun printzipioarekin bat datorrenik. Errentamendu kontratuan iruzurren bat antzemanek gero, legezko arrazoia dago laguntzak ukatzeko, baina ez da iruzurra senideren baten etxebizitza alokairuan hartu eta hari ordaintzea, egun etxebizitza eskuratzeko dauden zailtasunak ikusita.

Gizarte behar larrietarako laguntzak arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuak onuradunek bete beharreko baldintzak, dagozkien betebeharrak (8. eta 10. artikulua) eta gizarte behar larrietarako laguntzen bidez ordain daitezkeen berariazko gastuak (3. artikulua) ezartzen ditu. Laguntzak eman aurretik, oinarritzko gizarte zerbitzuek benetako premia-egoera dagoela eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan xede horretarako kreditu nahikoa dagoela egiaztatzen dute (15. artikulua). Baldintza horiek gizarte zerbitzuek egiaztatuko dituzte. 23. artikulua araberak, laguntza ukatzeko ebazpenak arrazoituta behar du izan. Arrazoitza lege oinarria izan behar du. Errentan hartutako etxebizitzaren jabea senidea izatea ez da laguntza ukatzeko arrazoi gisa jaso eta, beraz, aurrez, ezin da ebazpena justifikatzeko erabili.

Udalak Diruzko Gizarte Prestazioetan Iruzurrezko Jarduerak Saihesteko Udal Protokoloa aldatu nahi duela adierazi digu eta, orobat, gure gogoetei jaramon egingo diela, baina ez du azaldutako kasu zehatza konpondu eta horrek kaltea eragin dio interesdunari.

Familiaren baliabide ekonomikoak gehitzearen ondorioz oinarritzko errentaren zenbatekoak berrikusi eta aldatzerakoan atzerapenak izatea

Prestazioaren zenbatekoa murriztea atzeratzen denean, bidegabe jasotzen diren eta, ondoren, itzuli egin behar izango diren kopuruak handiagoak izaten dira. Batzuetan, zenbateko horiek oso handiak izaten dira eta horiek itzultzea oso zaila izaten da, jada erabili direlako. Ezinbestekoa iruditzen zaigu prestazioaren zenbatekoa eguneratzen zuzendutako izapideak arintzea, oinarritzko errenta jasotzen duten pertsonentzat estualdi handiko egoerak saiheste aldera.

Oinarrizko errenta eta GLL eskatzen dituztenei berandu erantzutea

Atzerapenak izan dira pertsona horien prestazio eskaerei erantzuterakoan. Kasu batzuetan, eskatzaileen egoera oso larria da, ez baitute bitartekorik bizirauteko beharriaz aurre egiteko.

Oinarrizko errentaren prestazioa eteteko prozeduretako arazoak

Oso ohikoa da, oinarrizko errentaren prestazioaren onuradun izateko baldintza berak dauden egiaztatzeko gizarte langilearekin jarritako hitzordura ez agertzeagatik prestazioa etetea. Pertsonak kontuan laguntzarik sartu ez diotela ikusten duenean jakiten du prestazioa eten zaiola; horrek estualdian jartzen du eta oinarrizko gizarte zerbitzuekin istiluak sortzen ditu. Batzuetan ere ikusi ahal izan dugu ez dela jakinarazpenen lege araubidea betetzen eta pertsona hitzordura ez agertzearen arrazoia horren berri ematen zion gutuna jaso ez izana dela (382/2007 espediente, Gasteizko Udala). Gogora dezagun beharrezkoa dela jakinarazpen prozedura Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 59. artikulura egokitzea. Horregatik utzi behar dira espedienteen jasota lehen saiakeraren ziurtagiria, behin bakarrik egindako bigarren jakinarazpen saiakerarena eta hartzailearen postontzian bigarren saiakeraren abisua utzi izanarena, eguna eta ordua, jakinarazpena non dagoen eta posta-zerbitzuko zerrendetan noiz arte egongo den adierazita, Posta Zerbitzuen Araudia onesten duen abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren 42. artikuluan jasotako aurreikuspenekin bat etorriz, Posta Zerbitzu Orokorri eta Posta Zerbitzuen Liberalizazioari buruzko uztailaren 13ko 24/1998 Legean ezarritakoa garatze aldera.

Kautelazko etetearen arrazoiak eta eskubidea etetearen arrazoiak nahastu egiten direla ikusi dugu, baita batzuen eta besteen ondorioak ere; horiek, prestazioa berriro ordaintzen hasteko datari dagokionez esaterako, oso ezberdinak dira. Bestalde, eteteko arrazoiak eta arau-hausteak ere nahastu egiten dira, azken hauek eteteko arrazoitzat hartu ohi baitira.

Batzuetan, laguntza horiek eteteko nahiz amaitzeko administrazio prozedurak ez dira oso zehatzak eta horien ondoriozko ebazpenak ez daude behar bezala arrazoituta. Horrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea urratzen du, baita laguntza horien berariazko araudia bera ere. Gainera, gure ordenamenduak herritarrei aintzatesten dizkien berme eta eskubideekiko errespetu falta ere bada. Horregatik, jarduera horiek defentsarik gabe uzten dute interesduna.

Prozedura horietan ez da interesdunari entzuteko printzipioa errespetatzen ari; lehen esan bezala, oinarrizko errentaren prestazioa eten edo azkentzeko ebazpenak ez daude, oro har, behar bezala arrazoituta eta horrek defentsa eragozten du. Irregular-tasunak gizarte zerbitzuen jardueran nahiz kudeaketa-erakundeen jardueran antzeman dira.

Zalantzarik gabe, arauetan kautelazko etetearen, zuzenbidea etetearen, laguntza azkentzearen eta zigor prozeduraren arrazoiak eta ondorioak argituko balira, oso lagungarria izango litzateke arazoa konpontzeko, baina, hala ere, gure ustez, arauetan jasotzen ez den guztirako, administrazioek administrazio prozedura erkidea bideratzen duten printzipioetara egokitu behar lukete beren jarduera.

Bidegabeko prestazioak itzultzeko prozedura

Ikusi ahal izan dugunez, hainbatetan urratu da GLL arautzen dituen apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuaren 26 eta 27. artikuluetan bidegabe jasotako prestazioak itzultzeari buruz aurreikusi den prozedura. Horrela, 525/2007 zk.ko kexa-espeditentean, Ermuko Udalak honakoak egin behar zituzkeen: interesdunari jakinarazi bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko espedientea hasiko zela; eskatu zitzaion zenbatekoa kontzeptuen arabera banakatuta barneratu, espedientea hasteko arrazoiak jakinarazte aldera; eta ebazteko eta jakinarazteko epea adierazi, baita hilabeteko epean alegazioak egin zitezkeela ere.

Gure ustez, akats horiek nahastea eragin zuten, interesdunak aurkeztu zuen idazkia, aipatu araudiaren arabera alegazio idazkia zena, birjartzeko errekurtsio gisa hartu baitzuen Udalak. Horren eraginez, ondoren, Udalak erabaki zuen ez zuela izapidetuko gero aurkeztu zen benetako birjartzeko errekurtsioa eta, hala, defentsa-gabezia ekarri zuen.

Gizarteratze hitzarmenean adostutakoa urratzeagatik oinarrizko errentaren prestazioa etetea eta azkentzea

Gure iritziz, kasu hauetan desberdintasunez jokatzeko ari dira. Pertsona batzuek hitzarmenak sinatzen dituzte eta beste batzuek, berriz, ez. Gainera, horren edukia ezberdina da, pertsona bakoitzaren arabera; nolana ere, hori arrazoizkoa iruditzen zaigu. Hala ere, hitzarmena ez betetzea oinarrizko errentaren prestazioa etetea edo azkentzeko arrazoia izan badaiteke, alde horiek garrantzi handia dute. Zenbait kasutan, pertsonak konpromiso asko barneratzen dituzten hitzarmena egin dute. Horiek betetzen ez badira, prestazioa eteten zaie. Alabaina, beste kasu batzuetan, ez da gizarteratze hitzarmenik egin edo, egin bada, dakartzan konpromisoak oso gutxi eta erraz betetzeko modukoak dira eta, beraz, horiek bete ezean, ez litzateke prestazioa etengo.

Horregatik, egokia iruditu zaigu ondorengo alderdiak aipatzea aipatu problematikari dagokionez:

- a. Hitzarmena ez betetzea laguntza etetea edo azkentzeko arrazoitzat hartu ahal izateko, hitzarmena oinarrizko errenta jasotzen duten pertsona guztiekin egin behar litzateke.
- b. Gizarteratzeko hitzarmena ez betetzea eragin dezaketen "gutxieneko" konpromisoen edukia araututa egon behar du eta berdina izan behar du.
- c. Edonola ere interesdunari entzuteko printzipioa bermatu behar da, hau da, ezin daiteke gizarteratze hitzarmena bete ez delako prestazioa etengo dela erabaki interesdunari entzun gabe, honek alegazioak egin ditzan, prozedura ebatzi aurretik. 382/2007 zk.ko kexa-espeditentean, Gasteizko Udalak interesdunari entzuteko izapidea alde batera utzi zuen eta ez zuen behar beste arrazoitu laguntza etetea bere ebazpena (une honetan jarduera hori aztertzen ari gara, gomendio bidezko ebazpena emateko).

1.3.8.HIRIALDEAK SOZIALKI ETA HIRIGINTZAREN IKUSPEGITIK BIZIBERRITZEKO PROZESUEI BURUZKO JARDUERAK

Sestaoko auzo jakin batzuk sozialki eta hirigintzaren ikuspegitik biziberritzeko prozesua zela-eta bertako Alde Berri auzotarren elkarteko ordezkariak hala eskatuta hasi genuen 188/2006 kexa-espeditentari zegokionez, eta Arartekoaren 2006ko azaroaren 6ko Ebazpenean¹⁸ jasotako ondorioak aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hartu dituen erabakiak eta abiarazi dituen jarduerak ezagutarazi dizkigu. Adierazi digunez, jardueren sustatzaile guztiak akordioa egin dute hirigintzako prozesuetan aplikatu behar diren balorazio irizpide objektiboen inguruan, kasuan kasu garatzen den jarduera edozein dela ere, beren etxetik joanarazten diren pertsonen tratu berdintasuna bermatze aldera. Tartean diren administrazioek ere hitz eman dute berriro bizilekua emateko irizpide berak aplikatu dizkietela legez okupatutako etxetik joanarazten diren pertsona guztiei, edozein motatako bereizkeria saiheste aldera. Halaber adierazi digu Sestaoko Udalak eta VISESA Eusko Jaurlaritzako sozietate publikoak lanean dihardutela jarduera urbanizatzailea nola garatu hirigintzaren ikuspegitik bideratzeko.

Egun garatzen ari diren jarduerak zehatz-mehatz azaldu dira II. atalean ijito herriari buruz egin dugun azpiatalean.

1.3.9.AUZOKO GATAZKAK

Hainbatetan jotzen dute biztanleek Arartekoaren bulegoetara auzoan gatazkak daudela eta, beren iritziz, kasuan kasuko udalak horiei behar bezala erantzuten ez diela salatzeko. Oro har, komunitateko auzokideren baten jokabideak aztoratzen ditu.

Halako kasuetan, legeak hala aginduta partikularren arteko kontuetan esku hartu ezin dugula adierazten dugu, baina udalei gatazka horien aurrean nola jokatu duten adieraz diezagutela eskatzen diegu. Oro har, pertsona gatazkatuarekin burutzen den gizarteko esku-hartzearen berri ematen zaigu eta adierazi ohi zaigu ezinezkoa dela berehalako emaitzak izatea eta beharrezkoa dela denboraldi bat itxarotea gizarte lanaren lorpenak baloratzeko.

Kasu gehienetan, gure esku-hartzeari esker dagokion udalak bizikidetasuna aztoratzen ari zirenak ohartarazi ditu. Horrela, adibidez, Basauriko Udalak (900/2007/31 zk.ko espeditentea) istiluak sortzen zituenari eskatu dio, hemendik aurrera, ez dezala eragozpen eta zarata gehiagorik eragin eta ez dezala gizalegearen kontra jokatu auzokideekin (portaera eta garbitasun publikoa arautzen dituen ordenantzaren 3. artikuluan ezarritakoa betez) eta adierazi dio, hala egin ezean, dagokion zigor espeditentea izapidetu behar izango duela eta horrek 3.000 eurora arteko zigorra ekar lezakeela. Beste kasu batean, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eragozpenak sortzen ari zirenak ohartarazi ditu; halakorik gehiago ez egiteko agindu die eta, esandakoa bete ezean, Sailarekin duten errentamendu kontratua deuseztatu egingo dela jakinarazi die.

¹⁸ Arartekoaren ebazpena, azaroaren 6koa – 2006ko txostena, 825.-845. or.

2. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

2007an guztira 16 kexa aurkeztu dira nekazaritza, industria, merkataritza eta turismoaren arloan; alegia, ekitaldi honetan erakundeetan jasotako kexa guztien %1,03.

Kexek honako administrazio hauetan izan dute eragina:

| | |
|---|---|
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 9 |
| - Foru administrazioa | 4 |
| - Toki administrazioa | 4 |

Horien edukiari dagokionez, jasotako kexak honako azpiarlo hauetan banatzen dira:

| | |
|--|---|
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 6 |
| - Merkataritza | 5 |
| - Kontsumoa | 2 |
| - Eskubideak eta askatasunak | 1 |
| - Industria | 1 |
| - Turismoa | 1 |

Arlo honi buruzko kexei dagokienez nabarmendu behar dugun lehen gauza da, askotariko gaiak jorratzen dituzten arren, azpiarlo bakoitzeko aurkeztutakoak oso gutxi direla, aurreko paragrafoan jasotako datuek adierazten duten moduan.

Azalpen hau hasteko, **nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren** arloan izapidetutako kexak aipatuko ditugu. Horrela, aurreko ekitaldian hasitako kexa bat izapidetzen amaitu dugu, hain zuzen ere, Gipuzkoan 2006-2007 denboraldian basurdea ehizatze baimen eskaera izapidetzeko moduagatik aurkeztu zen kexa bat. Kexa, nagusiki, eskaera ehiza-denboraldia hasi eta zenbait egunera ebatzi zelako aurkeztu zen.

Bidali genion laguntza-eskaerari erantzunez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak onartu zuen eskaera denboraldia hasi zenetik jada 17 egun igaro zirenean ebatzi zela. Atzerapena justifikatzeko adierazi zuen eskaerak, hasiera batean, ez zituela ezarritako baldintzak betetzen.

Foru erakundearen ehizarako baimen eskaerak izapidetzen asko atzeratu izana aurrez ere aztertu zuen Ararteko erakundeak beste kexa-espeditu batean (627/2001/19). Horren baitan, gomendioa egin genion orduko Nekazaritza eta Ingurumen Sailari, eremu honetan beharrezko mekanismoak artikulatu zitzala eskatzeko arlo honetan hartutako erabakien aurka aurkeztu ziren eskaerak eta errekursoak berariaz ebatzi zitezkeen eta interesdunei jakinaraz zekizkien, kasuan kasuko ehiza-kanpaina hasi baino lehen (21/2002 Gomendioa, ekainaren 7koa). 2003ko ohizko txostenean kexa horren laburpena egin genuen.

Informazio ofizialak garbi uzten zuen kexagileak aurkeztu zigun kasuan erakunde horrek izandako jarduna ez zela bat etorri aipatu gomendioan jaso genuenarekin. Horrez

gain, espediente horretan adierazi genuen sail horrek ez zuela gomendioa bete, formalki onartu zuen arren. Hori zela-eta, berriro gogorarazi behar izan genion –bertan jaso genituen eta, gure ustez, erabat indarrean zeuden gogoetetan oinarrituta–, hurrengo denboraldietan kexa eragin eta gomendioa sortu zuenaren moduko atzerapenik berriro gerta ez zedin.

Bestalde, gure ustez, foru administrazioak eskaeraren hutsei buruz eman zizkigun azalpenek ez zuten justifikatzen hura ebazteko izan zen atzerapena. Gainera, azalpen horiek ikusita, orobat gogorarazi behar izan genion azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikulua egoki betetzeko eta bertan jasotako formalitateak errespetatzeko betebeharra zuela, etorkizunean burutzen zituen jarduerak aipatu manuetara egokitu zitzen (1164/2006).

Era berean, izapidetutako beste kexa bat Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden ehiza kontrolatuko eremuetan ehizatu ahal izateko 2007-2008ko denboraldirako eskatu zen baimena ukatu zelako aurkeztu zen. Kexagileak bertan adierazi zuen, urtero bezala, ehiza-denboraldia amaitzean, begiztatutako eta ehizatutako piezei buruzko datuak biltzen zituzten egiaztagiri guztiak entregatu zituela, behar bezala beteta, Sailaren bulegoetan. Hala ere, denboraldi honetarako lehenengo baimena eskatzerakoan, aurreko denboraldian aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu ez zela adierazi zioten.

Ondoren, bere erreklamazioari erantzunez, interesdunak Sailaren jakinarazpena jaso zuen eta bertan azaldu zioten, ehiza-denboraldia osoan, ezingo zuela baimenik eskuratu, Bizkaiko Lurralde Historikoan ehiza-denboraldiak ezartzen dituen uztailaren 12ko 3447/2006 Foru Aginduaren 9. artikuluekin bat etorritz.

Administrazioaren zigortzeko ahalmenaren printzipioak Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legeak arautzen ditu. Horrela, 127. artikulua dioenaren arabera, lege mailako arau batek beren beregi emandakoa denean balia daitezke administrazio publikoak Konstituzioan ezartzen den zehatzeko ahalaz, betiere, ahalaz baliatzeko **aurreikusitako prozedura aplikatuz**. Zehazki, honakoak dira aplikagarri: Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 34. artikulua eta hurrengoak eta abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan jasotzen den zigortzeko ahalaz baliatzeko Prozeduraren Araudia (hastea, bideratzea, interesdunari entzutea eta forman ebaztea).

Azkenik, interesdunak jaso zuen jakinarazpenean aipatutako Foru Aginduaren 9. artikuluari jarraiki, zale guztiek harrapaketa-partea behar bezala beteta entregatu behar zuten denboraldia amaitzen zenean. Alabaina, artikulua horrek ez du ezer esaten ustezko arau-haustearen izaerari eta, hala badagokio, ezarri behar litzatekeen zigorrari buruz. Sailari balorazio hori helarazi diogu eta haren erantzunaren zain gaude (1426/2007).

Turismoaren sektorean, autokarabanarekin Garaioko (Araba) parke probintzialera sartzeko debekua dela-eta aurkeztutako kexa aipa dezakegu. Kexagilearen ustez, jarduera hori diskriminatzailea zen, autokarabanak 3.500 kg baino gutxiagoko motordun ibilgailutzat hartzen baitira. Kexan azaldutako gaiak erabateko gaurkotasuna du, euskal geografia osoan ibilgailu mota horrek izan duen gehikuntza ikusita. Arlo honetan eskumenak dituzten administrazio publikoek era horretako jarduerak arautu behar dituzte, delako ibilgailuen zirkulazio libre ahalbidezko, ibilgailu diren heinean, baina, horrez gain, gaua autokarabanen emateko ohitura arautzeko erantzukizuna ere badute, berariaz

era horretako “kanpaldietarako” prestatuta ez dauden zona jakin batzuetako eremu ahulak nahiz bertako lasaitasuna eta/edo osasungarritasuna zaintze aldera.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak jakinarazi zigun autokarabanak, motor-dun ibilgailuak izateaz gain, “ibilgailu bereziak” ere badirela, M1 kategoriakoak horien BGM (baimendutako gehieneko masa) 3.500 kg-koa edo gutxiagokoa bada edo M2 kategoriakoak horien BGM gehiagokoa baldin bada, eta bizitzeko egokia den zona bat izateko moduan eginda daude (2001/116 EE Zuzentaraua, Batzordearena, 2001eko abenduaren 20koa). Bestela esanda, bereziak izatearen arrazoia da, motordun ibilgailuak izatea ez ezik, etxebizitza ere badirela. Ondorioz, Aldundiaren ustez, ezin dira gainerako automobilekin parekatu, biak bide publikoetatik ibiltzen direla eta pertsonak garraiatzeko baino ez direla izan ezik. Bereziak direnez, egoera jakin batzuetan, ibilgailu horiek bestela tratatu ohi dira, esate baterako Garaioako parke probintzialera sartzeari dagokionez. Horren helburua kanpinak antolatzeke araudia betearaztea da.

Nolanahi ere, adierazitako kontuen ondoren, beste dekretu bat onartu da eta, horren bidez, karabanak eta/edo autokarabanak zehazki horretarako den aparkalekuan utzi ahal izango dira, adierazitako ordutegiaren barruan, nahiz eta, oraindik ere, debekatuta egongo den parkean gaua ematea. Hortaz, araudi berri honi esker, jada konpondu da sortutako arazoa.

Merkataritzaren arloan, oraindik ere kexak jasotzen ditugu kalez kaleko salmentan aritzearekin edo udal azoketan postuak esleitzearekin edo feria berezietan parte hartzearekin erlazionatutako alderdien inguruan. Kexa horiek erabateko eragina dute Administrazioak ondasun publikoen arloan oinarrizko zenbait printzipio betetzean (besteak beste, publizitate printzipioa eta lehia askearen printzipioa). Batzuetan, administrazioek elkarteetan laguntza aktiboa jasotzen dute halako ekitaldiak edo zerbitzuak kudeatzeko eta antolatzeke, baina horrek ezin du tartean den administrazioa lege guztiak betetzetik edo horiek beteko direla bermatzetik salbuesten.

Printzipio horiek betetzeko, deialdia publiko egin behar da nahitaez, eskaerak aurkezteke epeak ezarri behar dira, horiek baloratu behar dira eta lanpostuak esleitu behar dira. Horretarako, aurrez, zehaztu eta ezagutarazi egin behar da zer irizpide eta eskakizun izango diren kontuan delako eskaerak baloratzeko; elkarte bateko kide izatea ezin da baldintza erabakigarria eta derrigorrezkoa izan azokako postu baten esleipendun izateko, hori berdintasun printzipioarekin kontraesanean egon baitaiteke.

Elkartzeke eskubidea oinarrizko eskubidetzat hartzen du Konstituzioaren 22. artikulua eta bere bi alderdiei dagokienez aldarrikatu eta bermatzen du; alegia, alderdi positiboari (elkartzeke askatasun indibidualari) eta alderdi negatiboari (ez elkartzeke askatasunari) dagokienez. Ez elkartzeke askatasun hori ere aipatu oinarrizko eskubidea bermatzeko adierazpenaren esparruan kokatzen da, botere publikoek ukitu ezin duten askatasun indibidual gisa, Konstituzio Auzitegiak 67/1985 Epaian adierazitakoaren arabera: “*la libertad de no asociarse es una garantía de frente al dominio por el Estado que dispusieran del monopolio de una determinada actividad social*” (zuzenbideko 3. oinarria). Hau da, Konstituzioak elkarte bateko kide izatera ez behartua izateke eskubidea ere onartu eta babesten du.

Legearen aurreko berdintasun printzipioak kasu berdinen aurrean tratatu berdina emateke betebeharra ezartzen die botere publikoei. Interpretazio hori hasieratik jaso du Konstituzio Auzitegiak, honakoa adierazi baitu 49/1982 Epaian: “*el artículo 14 de la Constitución, al establecer el principio general de que los españoles son iguales*

ante la ley, establece un derecho subjetivo a obtener un trato igual y, al mismo tiempo, limita el poder legislativo y los poderes de los órganos encargados de la aplicación de las normas jurídicas” (zuzenbideko 2. oinarria).

Hala ere, jurisprudentzia horrek dio ondorio desberdinak egon daitezkeela kasu beraren aurrean, honakoa aipatzen baitu: “La igualdad a que el artículo 14 se refiere, que es la igualdad jurídica o igualdad ante la ley, no comporta necesariamente una igualdad económica y efectiva. Significa que a los supuestos de hecho iguales han de serles aplicadas unas consecuencias jurídicas que sean iguales y que para introducir diferencias entre los supuestos de hecho tiene que existir una suficiente justificación de tal diferencia que aparezca, al mismo tiempo, como fundada y razonable de acuerdo con los criterios y juicios de valor generalmente aceptados”(zuzenbideko 2. oinarria).

Laburbilduz, arrazoibide honek argi eta garbi ezartzen du botere publikoen aldetik bereizkeriazko tratua ez jasotzeko eskubidearen garapena. Tratu desberdin hori ezin da bereizkeriatzat hartu desberdintasuna modu objektiboan eta arrazoizkoan justifikatuta baldin badago. Nolanahi ere, doktrinak behin eta berriro aipatu du tratu desberdina frogatzearen zama botere publikoei dagokiela.

Industriaren atalari dagokionez, erakunde honek hainbatetan galdetu du ea zergatik egin dion uko Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Zientzien Fakultatean lortutako elektronikako ingeniari titulu ofiziala onartzeari behe tentsiorako norbanakoaren trebakuntza-egiaztagiria eskuratzekoan, elektrizitateko ezagutza teoriko-praktikoei jaramon eginez (behe tentsioari buruzko araudi elektronikoko jarraibide tekniko osagarria).

Joan den urtean egindako azken gestioen ondoren (horien berri 2006ko urteko txostenean eman genuen), erakunde honek Herriaren Defendatzaileari kexaren berri ematea erabaki zuen, honela:

“Como resultado de estas últimas gestiones, hemos logrado recabar un pronunciamiento expreso del decano de la Facultad de Ciencia y Tecnología de la UPV/EHU en torno a la capacitación de los ingenieros electrónicos formados en esta facultad para la obtención del carné de instalador autorizado en baja tensión.

No obstante, hemos topado nuevamente con la actitud renuente del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, ya que, habiéndose instado la reconsideración de su anterior negativa a la vista de la información facilitada por el decanato de la Facultad de Ciencia y Tecnología de la UPV/EHU, los responsables de la Consejería insisten en señalar que los carnés otorgados tienen, de conformidad con lo establecido en el apartado 4.3 de la ITC-BT-03 del Reglamento Electrónico para Baja Tensión, ámbito estatal. Entienden por ello, como puede comprobar en la documentación que se adjunta, que: “las Comunidades Autónomas no pueden sino, como ha ocurrido en el presente supuesto, aplicar los criterios ya establecidos por la Administración del Estado en el Reglamento de Baja Tensión siendo dicha Administración la que debe, si lo considera oportuno, fijar criterios uniformes para todas las Comunidades Autónomas o, en su caso, resolver las dudas de interpretación que se planteen”.

En consecuencia y siguiendo el ofrecimiento que me mostraba en su última comunicación, de fecha de 23 de septiembre de 2005, he decidido solicitar la colaboración de esa Institución del Defensor del Pueblo para que lleve a cabo las gestiones que estime oportunas, ante instancias del Ministerio de Ciencia y Tecnología, de tal modo que podamos poner fin a la controversia interpretativa a la que ha dado lugar la presente queja.”

Elkarlan honen emaitza gisa, Herriaren Defendatzailearen jakinarazpena jaso genuen eta, horrekin batera, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren txostena

aurkeztu zen. Gure ikuspegitik, txosten horretan, honako balorazio hau azpimarratu behar dugu: “...de cuyo contenido parece deducirse que el título universitario oficial de Ingeniero en Electrónica, obtenido en la Facultad de Ciencia y Tecnología de la Universidad del País Vasco, posee el mismo carácter y nivel académico que los que se expiden por los estudios realizados en Escuelas Técnicas, todo lo cual permite considerar equivalentes ambas titulaciones a los efectos previstos en los requisitos de titulación exigidos en la Instrucción técnica complementaria ITC-BT-03, que acompaña al Reglamento electrotécnico para baja tensión (Real Decreto 842/2002, de 2 de agosto).”

Hori dela-eta, berriz ere laguntza eskatu diogu Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari, Estatuko instantzia horrek adierazitakoa ikusita sortutako interpretazio zalantzen inguruan duen behin betiko iritzia jakinaraz diezagun. Une honetan, iritzi hori jakin zain jarraitzen dugu.

Era berean, eta Herriaren Defendatzailearen laguntzari esker, antzeko beste jarduera bat burutu da, baina informatikako lizentziatu titulazioari dagokionez. Kasu honetan, eta informatikako lizentziatu titulua, ondorio guztietarako, informatikako ingeniari tituluarekin homologatuta dagoela egiaztatu den arren, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ez du onartu, bere ustez, lehenari dagozkion ikasketek ez baitute prestakuntza nahikoa eskaintzen eremu elektroteknikoan.

3. KULTURA ETA ELEBITASUNA

2007an guztira 24 kexa jaso dira arlo honetan. Honela banatuta egon dira:

| | |
|---|----|
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 12 |
| - Toki administrazioa | 9 |
| - Foru administrazioa | 3 |

Gaiaren arabera, honela sailka daitezke:

| | |
|--|----|
| - Elebitasuna | 10 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 8 |
| - Kirola | 3 |
| - Beste batzuk | 2 |
| - Eskubideak eta askatasunak | 1 |

Elebitasunaren arloan jaso ditugun kexen artean, esan dezakegu, nolabait, batzuk sailhestezinak izan daitezkeela, hainbatetan aipatu den progresibotasunaren printzipioan oinarrituta, administrazio publikoetan euskararen erabilera pixkanaka ezartzeak hori gehitzen joatea eskatzen baitu.

Hala ere, oraindik ere badira printzipio horren bidez nekez justifikatu daitezkeen egoerak. Erregistro zibiletan euskaraz izena ematearen inguruko hainbat arazok halaxe erakusten dute.

Gai honetan eragindako bi administrazio daude: Estatuko Administrazioa, erregistroen arloan dituen eskumenei jarraiki, eta Eusko Jaurlaritza, eremu honetan garatzen dituen eginkizun materialengatik, horien artean, sustapenekoak, 10/1982 Legean bildutakoaren arabera. Horrekin bat etorritik, Ararteko erakundeak informazioa eskatu dio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari eta kexak Herriaren Defendatzaileari helarazi dizkio, Estatuko Administrazioak bere eginkizunak betetzearen inguruan egin beharreko kontrolari dagokionez, esate baterako, Erregistro Zibilari buruzko 1957ko ekainaren 8ko Legearen 23. artikulua aldatu zuen ekainaren 22ko 12/2005 Legea garatzea.

Gure jarduteko eremuan, pertsona batek udal baten Internet orriaren edukia, zenbait ataletan, euskaraz zegoela adierazteko aurkeztu zuen kexa aipa dezakegu. Gure informazio eskaerari erantzunez bidali zitzaigun idazkian arazoak azaldu zitzaizkigun, baita edukia euskaraz izateko aurreikusi ziren urratsak ere.

Udalek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak ere kexaren bat eragin dute, begiraleek euskaraz ez zekitelako. Bidalitako informazioaren arabera, Udalak azaldu zigun bere asmoa jarduera horiek ikasleen hizkuntz ereduarekin bat etorritik gara zitezela zela.

Beste ikuspegi batetik, bi kexa izapidetu ditugu administrazioek soilik euskara erabiltzearen inguruan. Kexa horietako bakoitzaren edukia buruz egin genuen balorazioa [abenduaren 11ko ebazpenean](#)¹⁹ jasota dago.

¹⁹ Arartekoaren ebazpena, 2007ko abenduaren 11koa; horren bidez, Oñatiko Udalarari gomendatzen zaio bide-seinale jakin batzuk bi hizkuntzetan eman ditzala.

Horren bidez, ibilgailuei sarbidea mugatzeko seinale baten errotulazioa berrius zedila gomendatu zen. Udalari bidali genion hasierako informazio eskaeran seinale hura aipatu genuen arren, lehen erantzunean ez zuen aipatu, ondoren, gomendioari erantzunez bidali zigun bigarren idazkian jaso zuen datu bat, alegia, kexa aurkeztu aurretik ere, zonaldearen sarreran euskaraz bakarrik zegoen seinalea beste aldean gaztelaniaz zegoela. Erreklamazioa egin zuenak ere ez zuen halakorik aipatu. Esan dezakegu, datu hori zegokionean izan bagenu, ez zatekeela gomendia egingo, oinarritzat hartutako premisak ezberdinak izango baitziratekeen. Halaxe adierazi genien Oñatiko Udalari eta kexa aurkeztu zuenari.

Gipuzkoako beste udal bati buruzko kexa batek zioen deskribatu dugunaren moduko bide-seinale bat euskaraz bakarrik zegoela eta, beraz, hizkuntza ofizial hori ezagutzen ez zuenarentzat ezinezkoa zela aparkatzeko mugaren baldintzak ulertzea. Gure informazio eskaerari erantzunez bidalitako idazkia aztertu ondoren, gure balorazioa helarazi genion Hondarribiko Udalari, baina, txostena egiten amaitutakoan, oraindik ez dugu haren iritzia jaso.

Arlo honetako beste atal batean **-kultura-**, kexa bat jaso dugu, kexagilearen arabera, artelan jakin bat aurkitzeko ezer egin ez zela adierazteko.

Kexa honetan adierazi zenez, kexagileak hainbatetan jakin nahi izan zuen urte batzuk lehenago Udalak berak saritu zuen koadro bat non zegoen.

Udalari zuzendu gintzaizkion, burututako jardueren berri eman ziezagun. Helarazi zitzaigun informazioarekin bat etorri, gure ustez, nahi izandako emaitzak lortu ez izatearen kaltetan izan gabe, ez zen nagikeriarik izan, museoko zuzendaritzak egindako txostenak egiaztatzen duen bezalaxe. Udal jarduera amaitutzat eman gabe, arduradunekin elkarrizketa izan genuen jarduera berriak egiteko zer aukera zegoen ikertzen saiatzeko, kexa aurkeztu zuenak izan zitzakeen datu berriak ikusita. Ezinezkoa izan zen eta, beraz, gure esku-hartzea eten genuen.

Euskal arkitektura ondarearen defentsak 2007an garatu edo burutu diren erreklamazioetako batzuk eragin ditu.

Aurreko gure txostenean adierazi genuen moduan, Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteak (AVPIOP) zalantzan jarri zituen Donostiako Morlans aldean aurreikusitako hirigintzako jarduerak, baita Donostiako (Gipuzkoa) Fábrica Municipal de Gas enpresan zeuden gasometroa eta gasomotorra kultur ondasun gisa, monumentu kategorian, sailkatzen dituen abenduaren 10eko 290/2002 Dekretuak finkatutakoari jarraiki Fábrica Municipal de Gas enpresaren eraikinak lekualdatzeak izan zitzakeen eraginak ere.

Higiezinak lekualdatzeko aukera oso esku-hartze garrantzitsua da eta berriaz jasota egon behar du kultur ondasunak babesteko araubidean. Erakunde honen iritziz, babes erregimenean lekualdatzea berriaz debekaturik ez duten ondasun higiezin kasuan kokapen aldaketa posible dela interpretatzearen aukera kultur ondarearen defentsa arautzen duen esparru juridikoan nekez egokituko litzatekeen aukera da. Gauzak horrela, komenigarria da Granadako Hitzarmena aipatzea, Europako ondare arkitektonikoa gordetzeko dena. Espainiak berretsitakoa da (1989ko ekainaren 30eko BOEn argitaratutakoa) eta ezarpen mugatzailea ezartzen du monumentuen lekualdatzearen kasuan. 5. artikulua honakoa ezartzen du: *“Alde bakoitzak babesturiko monumentu bat, erabat edo neurri batean, lekuz aldatzea galarazteko konpromisoa hartzen du,*

monumentu hori materialki gordetzeko ezinbestekoa litzatekeen hipotesian salbu. Kasu horretan, agintaritza eskudunak beharrezkoak diren bermeak hartuko lituzke, desmuntatzeko, garraiatzeko eta toki egokian berriro kokatzeko". Zentzu berean, Ondare Historiko Nazionala arautzen duen ekainaren 25eko 16/1985 Legeak honako printzipio hau jasotzen du 18. artikuluan: "Kultur intereseko ondasuntzat deklaraturiko higiezin bat ezin da bere ingurutik banandu. Ezingo da ez lekuz aldatu, ez bertatik kendu, halabeharrez edo gizarte intereseko arrazoiengatik ezinbestekoa ez bada behinik behin, eta, edonola ere, 9.2 artikuluan ezarritako prozedura bete beharko da".

Gaia aztertu ondoren, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari gomendatu zion Morlans Behera aldearen Plan Berezian aurreikusitako hirigintzako antolamenduari buruzko txostena egin zezala eta, bertan, Donostiako gas fabrika zaharreko ondasun kalifikatuak 290/2002 Dekretuaren babes erregimenari buruzko III. eranskinean ezarritako babes irizpideei jarraiki zainduko zirela berma zezala, bereziki, gasomotorra eta hau gordetzen zuen eraikina lekuz aldatzea eragozten zuten debekatutako jardunei zegokienez (Arartekoaren ebazpena, 2006ko abenduaren 27koa).

Bestalde, Arartekoak Donostiako Udalari adierazi zion Morlans Beherako BEPB Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari helarazi behar ziola, hirigintzako antolamendu tresna hori izapidetzerakoan ez zegoen bidezko txostena egin zezan ([otsailaren 9ko ebazpena](#)²⁰). Bi administrazioek ez zituzten gomendioak onartu.

Donostian bertan herritar batzuek Aieteko jauregiaren inguruko lorategietan aurreikusita zeuden jarduerak azaldu zizkiguten ([ekainaren 1eko Ebazpena](#)²¹).

Eskolako adinean kirola egiteari buruzko kexaren bat ere izan da. Bertan, aita batek adierazi zuen ez zegoela ados bere semeari futbol taldeetakoa izaten jarraitzen utzi ez izanarekin. Zioenez, bi urtez funtzionamendua okerra izan zen eta, hirugarrenean, aukeraketa ez zen zuzena izan. Kexak nagusiki azken puntu hau aipatzen zuen.

Ados ez zegoela adierazteko, kexa aurkeztu zuen Foru Aldundian, baina, azaldu zigunez, ez zuen erantzunik jaso. Kasu horretan berez erantzun faltarik ez zegoen arren, foru erakunde horri zuzendu gintzaizkion eta honek, bere erantzunarekin batera, interesdunari bidali ziona helarazi zigun, burutzen zituzten jarduerak eta oker jokatu ez zutela pentsatzeko zituzten arrazoiak azalduta.

Eskolako kiroleko programaren barruan, hainbat kirol mota daude: lehia-jarduerak, kirol lehiaketan oinarritutako programak bezala; nola errendimendua lortzeko hala kirola egiten jarraitzeko hastapen jarduerak, esaterako, kirol modalitate bat irakasteko jarduerak; eta lehia-faktorarik ez duten aisiako jarduerak. Era berean, lehiaketen barruan, bi ildo daude, bata parte-hartzera bideratua, gazteei lehiari aritzen irakasteko eta aukeraketa-eskemetan sartu nahi ez dutenei aisialdiko aukera eskaintzeko helburuekin; eta, bestea, dagokion modalitatean ahalik eta errendimendurik handiena lortzera zuzendua.

²⁰ Arartekoaren ebazpena, 2007ko otsailaren 9koa; horren bidez, Donostiako Udalari gomendatzen zaio Morlans Beherako BEPB Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari helaraz diezaiola, hark dagokion txostena egin dezan.

²¹ Arartekoaren ebazpena, 2007ko ekainaren 1ekoa; horren bidez, erakunde honek Donostiako Aieteko jauregian eta lorategietan aurreikusitako hirigintzako esku-hartzeen gaineko bere jarduera amaitutzat jotzen du.

Bigarren ildo horretan barneratzen zen kexaren kasua; halakoetan, futbol federazioak kudeatutako klubek hartzen dute parte, federaziokoa eta eskolaz kanpokoa den ingurunean eta lehiazeko arau propioekin. Kasu horietan izangaiak aukeratu egin daitezke, azaldutako egoeran gertatzen zen bezala.

Aldundiaren informazioak, amaieran, gurasoei adierazi zien, beren semeak modalitate berean jarraitu nahi balu, hori ahalbidetzeko informazioa helaraziko zietela.

Kirolari buruz hau ere (baina, kasu honetan, federazioen funtzionamendua zela-eta), beste kexa bat jaso genuen, antza, federatuen jarduera babesten duen aseguruari buruzko informazio okerra eman zelako.

Bere iritiz, arriskuen estaldura eskasa zen eta, nolana ere, federazioak ez zuten informaziorik eman edo informazio gutxi eman zuen polizaren edukia gainean.

Kexak zerikusia zuen Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen aurreikuspenekin eta ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuarekin. Arau horiek lizentzien edukia eta kirol jardueren garapeneko arriskuen estaldura arautzen dituzte, bai eta federazioek dituzten betebeharrak ere, aseguratutako kirolariari estaldura-baldintzei buruzko behar adina informazio emateari dagokionez.

Planteatu zituen hiru alderdiei zegokienez, federazioak eginiko partearen kudeaketari buruzkoa, printzipioz, gure jarduketa esparrutik kanpo geratzen zen. Beste bi alderdiak, estalduraren edukia buruzkoa eta federatutako kirolariari aseguruari buruzko informazioari ematearekin zerikusia duena, berriz, Kultura Saileko Kirol Zuzendaritzak kirol arloan dituen eginkizunen artean jar daitezke eta, beraz, horren inguruko informazioa eskatu genion.

Bere erantzunean Kirolen Zuzendaritzak jakinarazi zigun zenbait jarduera garatzen ari zirela kexa eragin zuten kontuen inguruan, oro har federazio guztiei zuzenduta; horien artean, Federazioen Batasunaren bidez jarduerak sustatzea, informazioa eraginkorragoa izan zedin.

Udalekuen kanpainari buruzko arauak ere aztertu dira ezgaitasunen bat duen adingabe baten gurasoek aurkeztutako kexaren ondorioz. Horiei beren semea udalekuetara joan ahal izateko egin zuten eskaera ukatu zitzairen. Plazak esleitzeko araututako prozedura aztertu ondoren, ez genuen ikusi irregulartasunik zegoenik.

Arauak bi txanda aurreikusten zituen, bata, ezgaitasunen bat zuten adingabeentzat gordeta, eta, bestea, generikoa. Hortaz, ezgaitasunen bat duen pertsonak parte hartzeko bi bide ditu: berariazkoa, bere ezaugarriengatik, eta komuna, eskatzaile guztiei dago-kiena. Lehenengoan zuzeneko esleipena izaten zen eta bigarrean, berriz, zozketa. Bi kasuetan gehienez hiru pertsona barneratu zitezkeen eskaera bakoitzean.

Kasu honetan, txanda orokorraren bidez parte hartzeko aukerarekin geratu zen, ezgaitasunik ez zuten beste bi eskatzaileekin batera. Horrela, Aldundiaren iritiz, "parte-hartzaile arruntaren" eskaera gisa hartu behar zen eta, ondorioz, aurreikusitako kasuetan talde honetarako plazak esleitzeko zozketatik ateratzen zenari heldu behar zitzaion.

Ez zegokigun guri bestelako prozedura posiblerik ba ote zegoen aztertzea, baizik eta arauak aukeratutakoa zuzena ote zen ikustea. Hala zela egiaztatu ondoren, interresdunari horren berri eman genion eta ondorio hori ateratzeko gure arrazoiak azaldu genizkion.

4. HEZKUNTZA

2007. urtean guztira 108 kexa jaso dira hezkuntzaren arloan, hau da, erakundearen jardueran guztira izapidetutako kexen %6,93.

Kexek honako administrazio hauetan izan dute eragina:

| | |
|---|----|
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 88 |
| - Toki administrazioa | 8 |
| - UPV/EHU | 6 |

Beren edukiari erreparatuz gero, jasotako kexak honako gai edo azpiarilo hauei buruzkoak izan dira:

| | |
|---|----|
| - Bekak eta beste laguntza batzuk | 17 |
| - Eskubideak eta betebeharrak | 17 |
| - Ikasleak onartzea | 16 |
| - Eskola-garraioa | 13 |
| - Haur hezkuntza..... | 11 |
| - Hezkuntza-premia bereziak | 8 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura..... | 6 |
| - Unibertsitateko irakaskuntza..... | 5 |
| - Beste batzuk | 4 |
| - Hezkuntza-plangintza/programazioa..... | 4 |
| - Ikastetxeak – antolakuntza | 2 |
| - Jantokia | 2 |
| - Ikastetxeak – instalazioak | 1 |
| - Hizkuntzen irakaskuntza | 1 |
| - Irakaskuntza artistikoak..... | 1 |

Aurreko ekitaldietako datuekin alderatuta, esan behar dugu hezkuntzaren arloa arlo garrantzitsuenetako bat bihurtzen ari dela kexa-kopuruari dagokionez.

EAEko Administrazio Orokorriari (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari) buruzkoak dira, oraindik ere, kexa gehienak, nahiz eta gero eta ugariagoak diren, zuzenean nahiz zeharka, hezkuntza-zerbitzuen eskaintzan, bereziki, zero eta hiru urte arteko hasierako zikloan, Haurreskolak Partzuergoan sartuta parte hartzea erabaki duten toki administrazioei eragiten dietenak.

Ohikoa den bezala, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako mailen inguruko kexak askoz ere ugariagoak dira unibertsitateko mailen inguruan daudenak baino. Gainera, azken horiek, gehienetan, bekei eta ikasketetarako beste laguntza batzuei buruzko kontuekin erlazionatuta egon ohi dira.

Jarraian, kexatzeko ohiko arrazoen banaketa tradizionalari jarraiki, 2007an erakunde honek hezkuntzaren arloan burutu dituen jarduera nagusiak oro har zeintzuk izan diren azalduko dugu.

Ikastetxeetako bizikidetza eta gatazkak

2007an Arartekoak eskolako bizikidetzari buruzko hausnarketa-foroa antolatu du. Horren bidez, beste ekimen batzuei jarraipena eman nahi izan zaie, besteak beste, tratu txarrei eta eskolako jazarpenari buruzko jardunaldiei nahiz *Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan* izeneko txostenaren argitalpenari.

Era berean, ohikoa den bezala, erakunde honek egindako ezohizko txosten gehienetan, txosten horren (*Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan* delakoaren) jarraipena egitea erabaki dugu, dagokion ofiziozko espedientea hasita. Kasu honetan, kontuan hartuta denbora gutxi igaro dela (urtebete eskas) eta, orobat, zer jarduera eta ekimen burutu dituen arlo honetan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, informazioa eskatu da, informazio orokorra eta irekia, hau da, hobekuntza-proposamenetako bakoitzean zehaztu gabe, Sailak berak helaraz diezagun espedientearen xederako egokien iruditzen zaion informazioa.

Derrigor aipatu behar dugu aurten beste ezohizko txosten bat prestatzen ari garela. Honek, berariaz, balioen transmisioan jartzen du arreta eta bere helburua ikastetxeetako bizikidetza eta gatazkei buruz egin zenari jarraipena ematea da.

Kexen atalari dagokionez, ezin ezkuta dezakegu kezkatuta gaudela, pixkanaka hazten baitoaz horrelako kasuak. Gehienak ikasleen aurkako jazarpen egoerei buruzkoak izaten dira, nahiz eta kasuren batean tratu txarrak irakasleei eragindakoak izan diren.

Berdinen arteko eskolako jazarpenari dagokionez izapidetutako kasuen esperientzian oinarrituta esan dezakegu nekez lepora diezaiokegula hezkuntza-administrazioari tratu txarren egoeren aurrean saiheskor agertu denik edo ezer egin ez duenik. Jakina, hartutako neurrien egokitasuna edo eraginkortasuna handiagoa edo txikiagoa den zailtasun jarri eta eztabaidatu daiteke, baina hori beste kontu bat da. Horregatik adierazi du erakunde honek, behin baino gehiagotan eta etengabe, komenigarria dela egun daudden jarduteko protokoloak berrikustea eta esku hartzeko programen eraginkortasunari buruzko azterlanak egitea.

Kexa hauei heltzerakoan, azaldutako kasuei tratamendu integrala ematea ahalbidetu dezaketen estrategia partekatuak finkatzera bideratutako ekimenen aldeko apustua egitea komeni dela azpimarratu nahi izan dugu. Ekimen horien artean, zalantzarik gabe, familiaren eta eskolaren artean lankidetzaren estuagoa izan dadila lortzearena dago, sor daitezkeen aldeak gaindituta, gatazkaren baten edo tratu txarren biktimak diren gazteei babes hobea eskaintzeko asmoz.

Korapilatsua izan ohi den beste alderdi bat tratu txarrak izan direla antzeman ondoren erasotzaile gisa identifikatu diren ikasleei eman behar zaien tratamenduari buruzkoa da. Erakunde honek beti egin du esku-hartze azkar, sendo eta argigarriaren aldeko apustua, edozein erasoren aurrean zero tolerantzia erakusteko mezu garbia ematen duena. Alabaina, gatazka-egoera horiei erantzun hezigarria eskaini nahi izan diegu, soil-soilik zigorra ezartzea helburu duten beste neurri batzuen aurrean.

Espero dugu arestian aipatu dugun ezohizko txostenaren jarraipen lanak elementu berriak agerraraztea, gero eta egokiago heldu ahal izan diezaiogun sortzen diren kasu berriei.

Ikasleak onartzea

Onarpen prozesuen inguruko kexak aurkeztu direnez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari berriro iradoki behar izan diogu ikasleak onartzeko prozesu baten ondorioetarako familiek aitortzen duten helbidearen egiazkotasuna ziurtatzeko saiakera egin zezala. ([uztailaren 16ko ebazpena](#))²².

Era berean, kexa horiek funts publikoekin lagundutako ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozesuetan eroldako datuen tratamenduari dagokionez garatzen ari garen jardueren jarraipena egiteko aukera eman digute.

Egia da, orain arte, gure jarrera neurriak ezartzeko beharra gomendatu eta azpimarratzearena izan dela, familiek aitortutako bizilekuak eta errealitateak modu egokiagoan bat etor daitezten, baita salatutako familiek aitortutako bizilekuen errealitatea egiaztatzeko ahaleginak egin zitezela iradokitzearena ere, kexagileek erabili izan ditzaketen administrazio justiziako bidez baliatuta, betiere, administrazio horren esku utzita hori egiteko moduaren inguruko erabaki zehatza, askatasunez erabakitzeko bere marjina errespetatze aldera.

Esan dezakegu gure esku-hartzea bi esparrutan garatu dela: bata, orokorragoa, ikasleak onartzeko prozesuen kudeaketarako aplikatzen diren jarraibide edo irizpideei buruzkoa; eta, bestea, zehatzagoa, kexa eragin duten eta, datuak gehiegikeriaz erabiltzeagatik, lehendik ere salatu ziren kasu zehatzei buruzkoa.

Oraingoz, arreta 24/2006 Gomendioa ekarri zuen esku-hartze orokorragoan jartzen badugu, egia da erakunde honek, beste hezkuntza-administrazio batzuen esparruan onetsitako jarraibideekiko alderatze lanak egin ondoren, zuhurtasun handiz jokatu nahi izan zuela eroldako ziurtagirian jasotako osagarriak diren datuak eskatzearen birtualtasunari edo beste froga-bitarteko batzuen erabilerari buruz dituen zalantzak agertzerakoan.

Hala ere, hezkuntza-administrazioak, 2007-2008 ikasturterako garatutako onarpen prozesurako jarraibideei heldzerakoan, itxuraz, ez zuen zalantzarik izan egiaztapenaren izapidea ere proposatzea ekarri zuen dokumentazio osagarria eskatzearen alde egiteko. (*Udal errolda ziurtagirian agertzen den aita, ama edo legezko tutorearen bizilekua NANekoarekin bat ez datorrenean (NIE atzerritarren kasuan), ikastetxeak dagokion udaletxeari jakinaraziko dio, eskabide epea bukatu ostean, dagokion egiaztapena egiteko*).

2007-2008 ikasturteari dagokion prozesua izapidetzeko esperientzia ikusita, esan dezakegu eroldako datuak gehiegikeriaz erabili ahal izatea mugatzeko lehen saiakera honek (edonori hala egiteko asmoa kendu izan diezaiokeela alde batera utzita) ez dituela espero ziren emaitzak izan.

Une honetan, eta arreta jada hurrengo jarraibideetan jarrita, Hezkuntza Sailak aldaketa funtsezkoagoa aurkeztu du. Oraindik ere dokumentazio nagusitzat erroldatze ziurtagiria har daitekeen aztertzen ari da, NANaren kopiarekin batera; azken hau “kontrako froga gisa” erabiliko luke, aitortutako bizilekuak bat ez datozenean, eta horren

²² Arartekoaren ebazpena, 2007ko uztailaren 16koa; horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari iradokitzen zaio ikasleak onartzeko prozesu baten ondorioetarako familia batek aitortu duen helbidearen egiazkotasuna ziurtatzeko saiakera egin dezala.

menpe jarriko luke, berehalako ondorio modura, bizilekuaren hurbiltasunari buruzko baremoaren atal honetan puntuaziorik ez izatea. Orain proposatu den berritasun handiak aurkeztutako dokumentazioa bat ez etortzeak dakarren ondorioarekin du zerikusia. Horrela, lehentasunezko onarpen irizpide hau aplikatuko ez dela ziurtatu nahi da, agerian bizileku bakarria agertzen denean izan ezik.

Gure iritiz, proposamen berri honek neurritz kanpoko jardunak eragotzi eta geldiarazten lagun dezake. Hala ere, arestian aipatu dugun bezala, kautelazko neurri horietako batek berak ere ez du bermatzen hutsik egingo ez denik izapidetutako kexak eragin dituztenen moduko kasuak saihesteko.

Esku-hartze espeziifikoagoaren esparruan kokatuta, egia da erakunde honek oso jarrera irmoa izan duela Hezkuntza Administrazioari erreakzionatzeko eskatzerakoan; alegia, bere egiteko funts publikoko ikastetxeetako onarpen prozesuen kudeaketa egokia dela ziurtatzera bideratutako konpromiso berezia eta, hala, izandako gehiegikeriak ikasturtearen hasierarekin batera finka daitezela saihesteko. Bada, ildo hori nabarmendu nahi dugu eta, orobat, ohartarazi, iradokizun honen bidez, gure asmoa ez dela hezkuntza-administrazioak balizko salatutako en erroldatze ziurtagiria baliogabetu dezan lortzea, baizik eta *erroldak dakarren ustea hutsaltzea, beste frogabide batzuekin alderatu eta horrek errolda eta errealitatea bat ez datozela ikustaraztea eragin dezaketenean*, Auzitegi Gorenak hainbat erabakitan onartu duen moduan.

Bestalde, zenbait kexa jaso dira, orobat, zero eta hiru urte arteko haur hezkuntzako lehen zikloan erabiltzen diren onarpen irizpideen inguruan. Horien artean, azpimarratzekoa da interesdun batek bere semea Haurreskolak Partzuergoaren menpeko haur eskola batera eraman nahi zuela-eta aurkeztu zuena. Interesdunaren arabera, Partzuergoaren eremuan aurreikusitako irizpideetako bat automatikoki aplikatzeak (herrian gutxienez urtebetez egotea erroldatuta) inolako babesik gabe uzten ditu bere semearenaren moduko kasuak. Halakoetan, familia bizilekuz aldatuz gero, haurrei arreta emateko zerbitzuak eskuratzeko aukerak mugatzen dira, irizpide horren inguruan egiten den eta, praktikan, erabakigarria den balorazioagatik.

Honen moduko kexak eta eskola-maparen inguruan aurreratu zaigun informazioa ikusita, egokia iruditu zaigu ebazpena ematea haur eskoletan onarpen irizpide komunak ezartzeko komenigarritasunari buruz (ikusitxoaren honen III.1. atala).

Eskolatzea

SOS Racismo de Gipuzkoa-Gipuzkoako SOS Arrazakeria elkarteak kexa aurkeztu du. Horren bidez, zalantzan jarri ditu hezkuntza-administrazioak ijito familia bateko adingabeak eskolatzeari zegokionez hartu zituen erabakiak, elkartearen ustez, horiek ez baitzuten kontuan hartzen gurasoek beren seme-alabentzat ikastetxea libreki aukeratzeko duten eskubidea.

Egungo hezkuntza-antolamenduak ikasle guztiak onartuko direla bermatzen du, betiere, plaza nahikoak baldin badaude eta onarpenerako ezartzen diren adinarekin erlazionatutako betekizunak eta baldintza akademikoak betetzen badira. Horregatik, kasu honetan, arazoa ez da plaza nahikorik ez egotea. Hortaz, erakunde honen iritiz, hezkuntza-administrazioak uztartu egin behar ditu beharrezko konpentsaziozko

esku-hartzeak eta familiek ikastetxea libreki aukeratzeko duten eskubidea eta haiek ezingo dute inoiz, beren xedea laudagarria izan arren, ikastetxea aukeratzeko eskubide horretaz baliatzea oztopatu.

Ikuspegi horretatik, kasua aztertuta, gure ustez, ez zegoen funtsezko arrazoirik familiak egindako aukera eta Administrazioak ikuspegi pedagogikotik egindako ekarpena kontraesanean egoteko.

Hala ere, hezkuntza-administrazioak adierazi du 2007-2008 ikasturtea aurrera doala eta, horregatik, ez dela komeni adingabe horien egungo eskolatze baldintzak aldatzea. Halaber jakinarazi digu horien eskolatzea erabateko normaltasunez gauzatzen ari dela.

Atal honetan, beren seme-alaben zaintza duten zenbait guraso bananduk aurkeztutako keak aipatu nahi ditugu. Kexa horietan adierazi dute ez daudela ados hezkuntza-administrazio horren jarduteko moduarekin, honek beren seme-alabak ikastetxez aldatzeko hartu duen erabakia gurasoetako bakar baten nahia kontuan izanda baino ez baitu hartu. Kexa horiek ez dira berriak erakunde honetan. Hezkuntza-arduradunek Kode Zibilaren 156. artikuluan agindutakoa aplikatuta justifikatu dute beren jarduteko modua ("*serán válidos los actos que realice cada uno de ellos (de los progenitores) conforme al uso social y a las circunstancias... En caso de desacuerdo, cualquiera de los dos, podrá acudir al Juez*"). Hala ere, gure asmoa halako kasuei hobeto heltzeko moduaren azterketan sakontzea da.

Bestalde, eta nahiz eta funtzio publikoaren arloan ere hortaz hitz egin genuen (eta, beraz, horri heltzen diogu), Haurreskolak Partzuergoaren menpeko eskoletan Aste Santuan zerbitzuak ohi bezala eskaintzeko izan diren arazoak aipatu behar ditugu baita ere.

Amaitzeko, erakunde honetan berritasun garrantzitsua izan den gai bat aipatu behar dugu. Beren seme-alabak, ikastetxean eskolatu ordez, etxean hezteak erabaki duten familia batek hala eskatuta egindako esku-hartzea da.

Familiak hartu duen erabakiak, alegia, bere seme-alaben eskolatzeari uko egin eta, horren ordez, famili hezkuntzako ereduak (*homeschooling*) aukeratzeko, Hezkuntzako Ikuskatzailetzak hainbat jarduera garatzea eta, orobat, Fiskaltzak esku hartzea eragin du. Egoera horretan, gogoan izan behar dugu oso erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikuluan jasota dagoen ez esku hartzeko legezko betebeharra.

Hortaz, Gipuzkoako Probintzi Auzitegiko Fiskalak une honetan esku artean dituen ikerketa-eginbideetatik ateratzen dena erabat errespetatzen dugula adierazteaz gain, kontua da ezin izan dugula Fiskaltzaren eginbideen xede den gaia aztertzen hasi eta Hezkuntza Administrazioaren jarduteko moduaren gaineko balorazio irizpena eman. Hala ere, gure eskumenez baliatuta, egokia iruditu zaigu hausnarketa egin dadila eskatzea, etxean eskaintzen den hezkuntza-prestakuntza, *homeschooling* izenaz ezaguna dena, hezkuntzari buruzko legetara egokitzeko zer aukera dauden azter dadin, gurearen homologoak diren beste erakunde batzuek adierazi ahal izan duten moduan, gero eta zabalduago dauden hezteko moduei buruzko lege araudirik ez egoteak tartean diren adingabeei eta beren familiei baino ezin baitiezaieke kalte egin.

Erlijioaren irakaskuntza

Oraindik kontua izapidetze ari garen arren, uste dugu interesgarria familia batek hala eskatuta hasitako jarduera azpimarratzea, beren seme-alabei erlijio ebanjelikoa irakats diezaieten nahi baitute, beren uste sendoei jarraiki.

Familia horrek aurkeztutako kexa aztertu ondoren eta Hezkuntzako Ikuskatzailtzak adierazitakoarekin bat ez, adierazi dugu, berariazko eskaerak egin direnez, gure ustez, ez dela egokia beren seme-alabek heziketa erlijiosoa izatea nahi duten familiei urtero halaxe adierazi behar dutela eskatzea.

Nolanahi ere, eta, orobat, kudeaketa-arazoak sor daitezkeela ikusita, ikasturtea aurrera doanez, hezkuntza-administrazioari eskatu diogu iritzia eman dezala eta balorazioa egin dezala familia horren eskaerari erantzuteko modua dela-eta dauden aukeren inguruan.

Bestalde, atal honetan kexa jaso dugu, orobat, itunpeko ikastetxe pribatu bateko irakasle baten aldetik. Bertan adierazi zuen ez zegoela ados aurreko gabonetan eskolak ikastetxe barruan sinbolo erlijiosoak jartzeko hartu zuen erabakiarekin. Bere ustez, tradizio kristauaren sinboloekin batera beste sinesmen erlijioso batzuetakoak jarri ahal izatea, berak bezalaxe inolako sinesmen erlijiosorik ez duten pertsonak errespetatuko ez lituzkeen aukera litzateke.

Kasu honetan, ordea, ikastetxea pribatua izateak gure esku hartzeko aukerak mugatu ditu.

Hezkuntza-premia bereziak

Tamalez, aurten ere, gure kezka azaldu behar dugu, kexa gehiago aurkeztu baitira diabetesa duten eta gluzemia-kontrolak egunero, eskola-orduetan, egitera behartuta dauden ikasleen inguruan.

Aurten ezagutarazi zaigun eta oraindik ere izapidetzen ari garen kasuan, irakasleak arduratzen ziren eragindako adingabea artatzeaz (izan ere, hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Osasun Sailak, 2005eko azaroaren 29ko Gobernu Kontseiluaren akordioari jarraiki, eskola-orduetan eskaini beharreko osasun arreta bereziari buruz sinatu zuten zirkularrean aurreikusitako formuletakoa bat da).

Alabaina, lankidetzaz hori jada ezinezkoa da.

Egoera horietarako, aipatu zirkularrean, neurri operatibo egokia hartu behar dela adierazteaz haraindi, ez da berariaz aipatzen eragindako administrazioetakoren baten betebeharririk eta, beraz, ezin esan dezakegu horietakoren bat urratu denik administrazio bati edo besteari bete dezala eskatzeko. Hortaz, gure iritziz, berariazko premia horiei erantzuna aurkitu ahal izateko zirkular horretan bertan aurreikusitako lan taldeen barruan aztertu beharreko egoera baten aurrean gaude.

Bada, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari hala iradoki ondoren, oraindik ez dakigu zer ekimen bideratu izan daitekeen horren inguruan. Bien bitartean, ikasturtea aspaldi hasi den arren, eragindako adingabeari ez zaio erantzun egokirik eman, 2005eko azaroaren 29ko Gobernu Kontseiluaren akordioan parte hartu duten sailek adierazitako konpromisoak gorabehera.

Ezin izan dugu, ezta ere, adimen gaitasunak neurtzen dituen “WISC-R” izeneko proba egin behar duten adingabeei dagokienez hasi genuen jardueran aurrera egin (honen berri jada 2006ko txostenean eman genuen). Osasun administrazioak gure laguntza-eskaerari berandu erantzun dionez, ezin izan dugu inolako ondoriorik atera; edonola ere, gure ustez, ondorio horiek garbi utzi behar dute ezinbestekoa dela berariazko osasun premiak dituzten adingabe eskolatuez arduratzen diren administrazioek laguntza eskatzea.

Jarraian, logopediako laguntza behar duten ikasleen inguruan burututako jarduera aipatuko dugu. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean egindako gestioei esker ikusi ahal izan dugu, hezkuntza-sisteman, logopedia-arreta hezkuntza-curriculumera sartzen laguntzera bideratuta dagoela horretarako zailtasunak daudenean. Horrek esan nahi du hezkuntza-administrazioak ez dituela foniatria bezalako tratamendu medikoak eskaintzen eta logopedia, medikuntzaren ikuspegitik baino, hezkuntzarenetik lantzen duela, baina, soilik, ezgaitasunen bat duten edo komunikatzeko zailtasunak dituzten ikasleekin.

Kexa batean aurkeztutako kasu bat aztertuta ikusi ahal izan genuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren informazio hori ez zetorrela bat Osasun Sailaren Bizkaiko lurralde zuzendariaren ebazpenean adierazitakoarekin; azken honek logopedia arreta eskolatutako ikasle guztientzat zela pentsaraz ziezaiekeen herritarrei. Horregatik, Osasun Sailari laguntza eskatu behar izan genion, herritarrei helarazten zaien informazioa berrikus zedin, logopedia arretari dagokionez interpretazio okerrak saiheste aldera.

2006-2007 ikasturtean, erakunde honek zenbait kexa izapidetu zituen hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzaile beharrak berriro definitzeko onartu ziren irizpide berrien inguruan. Bere garaian egindako gestioetan, argi geratu zen hezkuntza-administrazio horrek txostena egiteko asmoa zuela hezkuntzan laguntzeko espezialisten (HLE) baliabidea esleitzearen inguruan, irizpide objektibo batzuekin bat etorritz; irizpide horien bidez, jarraipena egin ahal izango litzateke benetan aplikatzen direla egiaztatzeko.

Horregatik, eta hilabete hauetako esperientziari esker irizpide berri horien egokitasunari buruzko lehenengo balorazioa egin daitekeela ikusita, 2007an erakunde honek hezkuntzako arduradunen laguntza eskatzea pentsatu du, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta egokia emateko asmoa kontuan izanik Sailak horren inguruan atera izan ditzakeen ondorioak ezagutzeko. Azken informazioaren arabera, une honetan, sindikatuekin negoziatzeko dago irizpide horiek jasoko dituen txostena.

Aurrekoaren haritik, beharrezkoa iruditzen zaigu aipatzea Administrazioak berak onartzen duela zailtasunak dituela era horretako laguntzaileak ordezkatzeko langile beharrei erantzuteko. Are gehiago, azken hilabeteotan, gero eta gehiago dira zenbait familiak aurkeztutako kexak. Horien bidez, askotariko ezgaitasunak dituzten beren seme-alabentzat laguntza handiagoa eskatu dute, jantokia edo eskola-zerbitzua bezalako zerbitzu osagarriak normaltasun osoz erabili ahal izan ditzaten eta, orobat, irakastorduetatik kanpoko hainbat jardueratan parte hartzeko aukera izan dezaten. Jasotako kexa gehienak Bizkaiko Lurralde Historikoari dagozkio.

Era berean, interesgarria iruditzen zaigu curriculum egokitzeko eskaera baten inguruan izapidetutako kexa aipatzea. Hezkuntzako Ikuskatzailetzak argudiatutakoarekin bat etorritz, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzunaren egungo antolamenduak curriculum egokitzeko aukera aurreikusten du, baita horrek curriculumaren helburu, eduki eta ebaluazio irizpideetatik nabarmen

urruntzea baldin badakar ere. Alabaina, curriculuma nabarmen egokitzeko aukera hori, aparteko neurria izaki, ohiko neurri guztiak nahikoak ez direnean baino ezin aplika daiteke (ohiko neurrien artean, honakoak genituzke: curriculum egokitzea, arloa edo irakasgaia programatzea, hezkuntzako errefortzua eskaintzea, ikasturtean edo zikloan beste urtebete ematea, etab.). Horregatik erabaki dute hezkuntza-arduradunek, familiak nahi zuenaren kontra, maila berean eskolatzea beste urtebete luzatzea, laguntza-zerbitzuek (Berritzegune) adierazitako iritziarekin ere bat eginez.

Azkenik, aurrean ere, Legebiltzarrean 2001ean aurkeztu zen *La respuesta a las necesidades educativas especiales en la CAPV* izeneko ezohizko txostenean egin genituen gomendioen ohiko jarraipen lana aipatu behar dugu.

Oraingoan, argitasunaren mesedetan, unitate terapeutiko eta hezkuntzazkoei eta arkitektura-oztopoei buruzko informazio eskaera zehatzak espediente desberdinen bidez egitea erabaki genuen.

Jarraipen lan honen ondorioak adingabeen problematikari arreta berezia eskaintzen dion kapituluan bildu dira.

Ikastetxeak – instalazioak

Aipatu berri dugu arkitektura-oztopoen arloan jarraipena egite aldera bideratu dugun ofiziozko espedienteak. Jarduera honek gure autonomia-erkidegoko ikastetxeetan irisgarritasunaren benetako egoera aztertzen laguntzea espero dugu, batez ere kontuan izanik hurrengo eskola-mapa prestatzearekin bat datorrela.

Maiz, moldatze eta egokitze lanak egiteko premiak arazoak sortzen ditu, 2007an Bilboko Miguel de Unamuno BHIIn gertatu den bezala. Kexa bideratzekoaren burututako gestioei esker ikusi ahal izan dugunez, kasu honetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak DBHIko lehen mailako taldeak Zorroza BHIra aldatzeko hartu duen erabakia, eragin izan ditzakeen desadostasunak alde batera utzita, interesdunekin eurekin egiaztatu diren zio arrazoitu eta objektiboei erantzun dien neurria da. Horregatik, ez da antzeman arbitrariotasunez jokatu denik.

Arreta berariaz moldatze eta egokitze lanak direnetan jarrita, izapidetutako kexak aztertu ondoren –horixe da, behintzat, erakunde honek ikusten duena–, esan dezakegu eskola-instalazioen baldintzei buruzko arazoetako asko zero urtetik hiru urtera bitarteko hasierako etapan izan direla, Haurreskolak Partzuergoaren menpe dauden eta administrazio batek baino gehiago kudeatuta dauden haur eskoletan.

Nolanahi ere, askotariko errealtateekin egin dugu topo. Azpimarratzekoa da Bilboko Udalak eskaini digun laguntza handia, horri esker, konpromisoak hartu ahal izan baitira eta bideratutzat jo baitira San Inazio-Intxixu haurreskolaren instalazioetan egin beharreko erreformak. Alderantziz, beste udal batzuk, esaterako, Galdakaokoa, askoz ere uzkurrago izan dira, nahiz eta, txosten hau egiten amaitutakoan, neurriak hartu direla dirudien. Horiek, beharbada, kexa eragin duen egoera berriro bideratzen lagun dezakete, Usansolo eta Olabarrietako haur eskoletan zoladura jartzeko obrak kontratatuta.

Haur hezkuntzako maila honetan ere beste kexa bat izapidetu dugu, adingabeak eskolan zeudenean haur kotxeak bertan uzteko zeuden arazoengatik gurasoek eurekin eraman behar zituztelako. Ikastetxearen titularra den administrazioaren jarduna ez da

gaitzesteko modukoa; nolahi ere, gure laguntza-eskaerari erantzuterakoan, aurrekontuko partida bat eskolako patioaren inguruan haur kotxeak gordetzeko gun bat egokitze aldera bideratuko zuela adierazi zigun.

Bestalde, obra jakin batzuen jarraipena ere egin dugu, besteak beste, Amurrioko Etxaurren ikastolan gimnasioa egiteko obrena.

Zerbitzu osagarriak

Jada 2006an adierazi genuen bezala, **eskola-garraioa** kexen iturri garrantzitsu gisa finkatzen ari da.

Berriz ere, Arabako Lurralde Historikoan, hainbat familia kexu izan dira. Familia horiek Langraiz Okan, Antezanan eta Santa Cruz del Pierron bizi dira eta beren seme-alabak Gasteizko Ekialdea BHIIn, D ereduan, eskolatzea erabaki dute.

Hori dela-eta, bere garaian bi gomendio (1/2004 eta 11/2006) eragin zituen esku-hartzeari heldu behar izan diogu berriz ere eta, hala, aurten [uztailaren 2ko ebazpena](#)²³ eman da.

Familia horiek arbuia egin dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren jokabidea, izan ere, honek eragozpenik ez duen arren ikasle horiek eskola-garraioko zerbitzu osagarria jasotzeko eskubidea bazutela onartzeko (“*garraiatutako ikasleak*”), horiei ez zien aurretik antolatutako ibilbideak erabiltzen utzi nahi eta garraiorako banakako laguntzen edo esleipenen deialdiari lotzen zitzaion.

Gauzak horrela, berriz ere nabarmendu behar izan dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtero ematen dituen garraiorako banakako laguntzen edo esleipenen deialdiak administrazioak berak antolatutako ibilbideen ezaugarrietara egokitu ezin daitezkeen ikasleei beste aukera bat eskaini beharri erantzuten diola eta, horregatik, aukera hori zeharkako sustapen jarduntzat hartzen da administrazioak ezin duenean modu arrazoituan bere gain hartu ibilbide edo zerbitzu propioa ezartzea.

Hezkuntza-administrazioak, irtenbide gisa, konpromisoa hartu du eta jakinarazi du berriro aztertuko duela 2005-2006 ikasturtean hartutako erabakia. Horren bidez, Langraiz Okako Badaia BHIIn D eredua eskaintzen hasi zela ikusita, ikastetxe horretara bideratu ziren Rivabellosa aldeko herriak; horien hezkuntza-ibilbideak, D ereduan, Gasteizko Adurtza ikastola eta Ekialdea BHI hartzen zituen. Ildo horretatik, 2005-2006 ikasturtea hasi baino lehen Adurtza ikastolan eskolatuta zeuden J.M. Barandiarán LHIn zonako ikasleak Gasteizko Ekialdea BHIren eragin eremura igaroko zirela erabaki zen.

Erabaki horrek kexak eragin ditu irtenbide horren baitan sartu ez diren hainbat ikasleren aldetik. Kexa horiek oraindik izapidetze bidean dira.

Izapidetutako beste kexa batzuk, aurten, zonifikazioaren nahitazko betekizunari dagokionez TE-1/2006 Zirkularren bidez onartu diren jarraibideetan egin den berritasunaren ondorioa izan dira. (...*ibilbideren batean leku librerik izanez gero,*

²³ Arartekoaren ebazpena, 2007ko uztailaren 2koa; horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari iradokitzen zaio azter ditzala berariazko ibilbidea duen eskola-garraioko zerbitzu osagarria onartzeko aukerak.

zirkular honetan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten ikasleek ere erabili ahal izango dituzte lekuok, aldi baterako. Dena den, zonifikazioaren baldintza bete behar izango dute betiere, eta zirkular honetako 1. eta 2. puntutan adierazitako hezkuntza-mailetako ikasleak izan.

Hain zuzen ere, hainbat familiak proposatu dute dauden plazak erabil daitezkeela, aipatu betekizuna bete ez arren.

Erakunde honek ahaleginak egin ditu Sailak berriro azter zezan eskola-garraioko plaza libreak erabiltzeko baimena eman ahal izatea, behin eskola-garraioko zerbitzuaz baliatzeko eskubidea duten edo egoera hobean dauden ikasleez arduratu ondoren, plazak libreak geratzen direnean, zerbitzuaren erabilera optimizatzeko betiko helburua gauzatzeko aldera. Oraingoan, ordea, ez da inolako aldaketarik izan horren inguruan.

Erakunde honek ulertzen du kontuz ibili nahi izatea, besteak beste, behin ikasturtea hasita zerbitzua eska dezaketen ikasleentzat, nagusiki etorkinentzat, plaza libreak egongo direla bermatzeko, eta zerbitzu hori eskuratzeko beharrezko baldintzak betetzen ez dituzten eta egun dauden plaza libreak erabili nahi dituzten ikasleei bidegabeko tratuerik ez emateko.

Hala ere, beste batzuetan hezkuntza-administrazioak eskola-garraioko baldintzei buruzko akordio pribatiboak egiteko eragozpenik izan ez duen bezala, kasu honetan ere kontuan izan behar lirateke familien beharrezkoak, esate baterako: garraioari buruzko zirkularrean jasotako irizpideak salbuespenak egiteko aukerarekin bateragarri egitea. Salbuespen horiek ez lirateke inoren kalterako izango eta hezkuntza-plangintzako aldaketekin zerikusia duen justifikazio objektiboa izango lukete, izan ere, aldaketa horiek, familia bereko seme-alaben eskolatze baldintzak aldatzen dituztenez, familiarekiko erantzukizunak eta erantzukizun profesionalak bateratzeko aukerak ere baldintzatzen dituzte.

Horregatik azpimarratu izan dugu, ibilbideen errealitateak plaza hutsak izateko aukera eskaintzen duen bitartean, eta kontuan izanik, nola ez, etorkizunean eman daitezkeen behin-behineko baimenak baldintzapean daudela eta, beraz, ezeztagarriak direla, ez dugula inolako arrazoirik ikusten Administrazioak zergatik ezingo litzuzkeen onartu, zonifikazioaren baldintza bete ez arren, bai, ordea, beste helburu batzuk betetzen dituzten garraio eskaerak. Hala ere, Hezkuntza Sailak ez du inolako aldaketarik onartzen gai honen inguruan.

Aipatu beharrekoa da, orobat, Urkabustaizen (Araba) bizi den familia-talde batek egindako kexa. Horiek geralekuen konfigurazio berria nahi zuten, ibilbide seguruagoa eta zentzuzkoagoa ziurtatzeko. Kasu honetan, laguntza eskatu behar izan diogu Arabako Foru Aldundiari, familia horien eskaerari erantzuteko zer arazo egon daitezkeen argitzearren.

Jantokien atalari dagokionez, aurtan kexa gutxiago jaso dira. Edonola ere, guraso elkarte batek aurkeztutakoa aipatu behar dugu. Horren bidez, zalantzan jarri zuten Sailak eskola-jantokiei buruzko araudi berrian oinarrituta hartu duen erabakia, alegia, orain arte zeharkako kudeaketako jantokiei eman izan zaizkien laguntzak pixkanaka murrizten joatearena. Araudi berri hori 2000ko martxoaren 22ko Agindua da, derrigorrezko irakaskuntzako eta haur hezkuntzako mailei dagozkien unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jantokiak arautzen dituen, eta bere helburua zerbitzu hau ikastetxeek eurek zuzenean kudeatu ahal izatea da.

Hizkuntz ereduak

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak indarreko hizkuntz ereduak berrikusteko egin dituen planek are kexa gehiago aurkeztea eragin dute. Kexa horietan, funtsean, A irakastereduaren ustezko desagertzea salatu da.

Oraingoz, zuhurtziaz jokatu nahi izan dugu eta horregatik adierazi dugu hizkuntz ereduaren inguruan proiektatutako erreforma oraindik eztabaidatzen ari diren eta itxita ez dagoen proiektua dela. Hori dela-eta, ezin ditugu aurkeztutakoaren moduko kexak bideratu, nahiz eta onartzen dugun, nola ez, ulertzen dugun kezka baten adierazpena direla.

Kexa horren adibide gisa, uste dugu interesgarria izan daitekeela Bizkaiko itunpeko ikastetxe baten jarduteko moduari dagokionez izapidetu den kexa aipatzea.

Interesdunaren arabera, ikastetxe horrek, haren semea bertan eskolatuta egon den ikasturteetan, B hizkuntz ereduko hezkuntza-eskaintza izan du, baina hori, ondoren, ez da hala berretsi hezkuntza-administrazioari jakinarazitako matrikuletan. Horri dagokionez, interesdunak 2006-2007 ikasturtean hartu behar izan duen erabakiaren berri ere eman du; alegia, semea beste ikastetxe batera eraman behar izan duela, aurrekoan ez zegoelako berak aukeratutako hizkuntz ereduak –B ereduak–, nahiz eta, hasiera batean, erabateko konfiantza jarri publizitatean eta ikastetxeko arduradunek emandako jarraibideetan.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila zorrotz azaldu da itunpeko ikastetxe horrek B ereduak baztertu eta bere hezkuntza-eskaintza D ereduaren sistematizatzearen alde egin zuela esatean, eta halaxe islatu du itunen deialdiak ebazteko ondorengo xedapenetan ere. Horrela, ituneko aurreikuspenak eta ikastetxeko hezkuntza-eskaintza guztiz ba datoz.

Hori dela-eta, eta beste daturik ez dugunez, gure ustez, ikastetxe honetan B eredurik baldin badago, bertako hezkuntza-eskaintza D ereduaren sistematizatzeko erabakia oinarri hartuta, hura B ereduko aurreko ildoan hezkuntza-ibilbidea agortzeko beharrezko hondar eskaintza gisa hartu behar da, egun gertatzen den moduan.

Baina, kexan adierazitako bertsioa edo planteamendua onartuta ere, ikastetxeak hezkuntza-eskaintza *engainagarria* iragarri zuela pentsatuz gero, uste dugu horrek izan ditzakeen ondorioek ez dakartela Administrazioak berak jada bere gain hartu duen ez beste erantzukizunik.

Jakina, eztaba daezina da interesdunak berak aukeratutako hizkuntz ereduaren eskolatzeko eskaera berma zedila nahi zuela. Alabaina, kasuaren inguruabarrak berrikusita, badirudi hezkuntza-administrazioak beharrezko urratsak egin dituela semeak duen hezkuntzarako eskubidea berme osoz babesteko, hau da, familiak aukeratutako hizkuntz ereduak errespetatuta. Ildo horretatik, esan digute ikastetxeak ahaleginak egin dituela B ereduko talde nahikoa osatzeko, baina ez duela beste familien laguntzarik izan eta, ondorioz, beste eskolatzeko aukera batzuk bilatu direla eta hala, azkenean, talde hori beste ikastetxe batean matrikulatzea erabaki dela.

Hizkuntzen irakaskuntza

Bilboko Hizkuntz Eskola Ofizialak, onarpen eskaerak kudeatzerakoan, interesdunei beren sarbide aukerak agortzen uzten die. Hala, ordutegi ez baztertzailak eska ditzakete eta, ondoren, beren premiekin bateragarriagoa den ordutegira aldatzen saia daitezke.

Kexa baten ondorioz hasitako esku-hartzean, Eskolak ordutegi aldaketak egiteko aukera dagoela onartu du, baina adierazi du aukera hori bertara joan ahal izateko ordutegia ustekabeen aldatzen zaien ikasleentzat pentsatuta dagoela eta ohartarazi du halako eskaerak informatikoki kudeatzen direla.

Kasua aztertu ondoren, iruditu zaigu jarduteko modu hori beharbada gehiago kontrolatu ahal izango litzatekeela, ordutegi aldaketak izapidetzerakoan, horrelako aldaketak egin nahi izateko dauden inguruabar objektiboen gutxienezko egiaztapena egingo balitz. Hain zuzen ere, iradokizuna egin dugu horren haritik, hizkuntz eskola horretan sartzeko etorkizunean egiten diren prozesuetan ere aplikatu ote daitekeen azter dadin.

Era berean, jarduera egin dugu hizkuntzen irakaskuntzako goi mailako ikastaroen eskaintza azken orduan egin dadila eskatzeko interesdun batek aurkeztu zuen kexa baten ondorioz. Bertan adierazitakoaren arabera, laneko erantzukizuna eta hizkuntz gaikuntza handiagoa lortzeko gogoia bateragarri egin nahi litzuke. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakinarazi digu inkestak egin dizkietela ikasleei ordutegi eskaintza era horretako ikasketak egin nahi dituzten pertsonen benetako eskaerara egokitzeko, nahiz eta horrek, azkenean, ez duen ordutegi eskaintza aldatzea ekarri.

Irakaskuntza artistikoak

Musika irakaskuntzei dagokienez, Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioan moko txirulako oinarriko laugarren mailan dagoen pertsona batek aurkeztutako kexa bat aipatu behar dugu. Bertan, ikasle horrek salatu zuen, erdi mailan sartzeko proba egin ezin ez eta musika-espezialitate honetan prestakuntza-aukera bat lortzeko egindako hainbat eskaeraren aurrean, ez musika-eskolako zuzendaritzak ez Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez zutela ezer esan.

Hala ere, behin kexa izapidetzen hasita, Hezkuntza sailburuordeak ebazpena eman zuela jakinarazi zitzaigun; horren bidez, “moko txirulako” espezialitatean erdi mailako lehen zikloan sartzeko azterketa egitea onartu zen eta, hori gaindituz gero, kontserbatorioan matrikulatu ahal izango luke, espezialitate horretako erdi mailako lehen mailan.

Dantzari dagokionez, Atelier izeneko goi mailako dantza-ikastetxearen proiektuari buruz hasitako jarduerarekin jarraitzen dugu. Oraindik ere zabalik dago joan zen urtean azaldu genuen Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren inguruko kexak. Bi kasu horietan ez da aipatzeko moduko aurrerapen azpimarragaririk izan.

Bekak eta beste laguntza batzuk

Atal honetan, etengabe jasotzen ditugu betekizun ekonomikoak ez betetzeagatik eman diren ebazpen gaitzesleekiko ados ez daudela adierazten duten kexak. Halako kasuetan, kontuan izandako zifrak ere zalantzan jartzen ez direnean, gure lana soil-soilik egindako kalkuluak alderatzera mugatzen da. Era berean, emandako zenbatekoa zalantzan jartzen duten edo onartutako laguntza beranduago heldu dela adierazten duten kexa gehiago jaso ditugu. Kexa horiek kasuan kasuko irakaskuntza-maila edozein dela ere errepikatzen dira.

Beka eta laguntzen arlo honetan ere, kexa bat aipatu nahi dugu, gure autonomia-erkidegoan Eusko Jaurlaritzaz ez den beste administrazio batek diru-laguntza ematen duen kasu bakanenetako batean material didaktikoa erosteko diru-laguntza esleitzerakoan udal batek erabilitako irizpideen ingurukoa. Toki erakundeak laguntza ematea ikasketak egiten herriko ikastetxe batean jarraitzeari lotzeko irizpidea erabiltzen du; aldiz, kexagileak dio nahikoa izan behar lukeela herrian bizitzeak eta adingabeak eskolatzen diren lekuak ez lukeela mugatzailea izan behar. Ikuspegi horretatik, kasua behar bezala aztertu ondoren, gure ondorioa izan zen, etorkizunean egin zitezkeen aldaketak gorabehera, Udala gaitzetsi ezin zitekeen diskrezionalitatearen eremuan mugitzen ari zela eta, horrez gain, askatasun batez baliatzeak, hots, ikastetxea aukeratzearena, berez ez zekarrela eskubide oro eskuratzea.

Hezkuntzaren arloaz hitz egiten hastean esan dugun moduan, unibertsitate mailari buruzko kexa gehienak ikasketen aldeko beka eta laguntzen atal honen ingurukoak dira. Berehala helduko diegu, hurrengo epigrafean.

Unibertsitateko irakaskuntza

2007ko maiatzaren 23ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sail-buruarenak, Erasmus programaren esparruan unibertsitateko ikasleei 2007-2008 ikasturterako bekatarako deia egiten dienak (EHAA, ekainaren 13koa), aipatzen du, beka horiek lortu ahal izateko, beharrezkoa dela 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen administrazio egoitza Euskal Autonomia Erkidegoko herriren batean izatea.

Gure esku-hartzea eskatu zuen herritarraren iritziz, betekizun hori ezin onar zitekeen, baztertzat zelako. Hala ere, nabarmendu behar dugu gaitzespen horrek ez duela aintzakotzat hartzen diru-laguntzak emateko prozesua mugatua dela. Hain zuzen ere, mugatua denez, zenbait baldintza ezarri behar dira eta, horien bidez, funtsean, lortu nahi den xedea ahalik eta ongien betetzen dela ziurtatu nahi da; kasu honetan, goi mailako irakaskuntzaren Europako esparruan ikasleen mugikortasuna sustatzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren kudeaketa-eremu propioetik, eta, bereziki, administrazio egoitza EAEn duten unibertsitateko ikasleei begira.

Bestalde, ikertzaileen prestakuntzara bideratutako laguntzei buruzko kexen artean, ondoren laburtutakoa azpimarratu behar da. Beka-eskatzaileak ez zuen hori lortu, beharrezko betekizun akademikoak ez zituelako. Bere iritziz, horren arrazoia nahi izan zuen errendimendura heltzea eragotzi zion elbarritasuna izan zen. Gaia aztertu ondoren, deialdian ez genuen halako kasuetarako aurreikuspenik ikusi, hezkuntza-administrazioak egiten dituen beste deialdi batzuetan gertatzen ez den bezala. Espediente akademikoak haztatzeko aukeraz ari gara, esate baterako, unibertsitateko ikasleentzako laguntzak eskuratzeko oinarrietan jasotakoa. Horren berri administrazioari eman ondoren, kasu bereziaren inguruko erabakia ez aldatzearen kaltetan izan gabe –interesdunak adierazitako lotura egiaztatu ez zelako–, ondorengo ekitaldietan aipatutakoaren moduko klausula barneratuko zuela onartu zuen.

Aipatu beharrezkoa da, orobat, ikertzaileen prestakuntza eta hobekuntzarako programetarako 2007-2008 ikasturteari dagozkion laguntzen deialdiari buruz aurkeztutako kexa. Bertan, interesdunak adierazi zuen oinarrietan jasotako elkarrizketak ez lukeela

zertan presentziazkoa izan behar eta teknologia berriek eskaintzen dituzten beste bi-tarteko batzuen bidez (bideokonferentziak, etab.) egin ahal izango litzatekeela; horrela, ez litzateke joan-etorririk egin behar, batzuetan astunegiak baitira eta izangaiak ez agertzea eragiten baitute. Gure iritziz, hezkuntza-administrazioak aztertu egin behar du ea aukera berri horiek etorkizuneko deialdietan barneratu daitezkeen, baina, oraingoz, ez dakigu zein den horren inguruko bere behin betiko iritzia.

Beka eta laguntzei buruzko kexa horiez gain, unibertsitateko irakaskuntzaren atal honetan, interesgarria iruditzen zaigu bi administrazio erabaki aipatzea, izan ere, horiek oso irmoak izan dira, nahiz eta horrek ez duen esan nahi kexek oinarririk ez dutenik. Horieta bat deialdi guztiak agortu eta ikasten jarraitu ezin izan delako eman da; bestea, berriz, matrikularen prezioa ez ordaintzeak askotariko ondorioak izan ditzakeela azaltzeko, besteak beste, errendimendu akademikoa ez gauzatzea.

Amaitzeko, gauzatxo bat 2006ko txostenean, hezkuntzaren arlo honetako kexen artean, jaso genuen jarduerari dagokionez, hots, *psikopedagogiako lizentziaturako praktikak baliozkotzea (244/2006)*.

Beste izapide horien ondoren, gure esku-hartzea amaitzea erabaki genuen eta, hala, [martxoaren 27ko ebazpena](#)²⁴ eman genuen.

Ebazpen horren ondorioetan, agerian utzi genuen, erakunde honen iritziz, Unibertsitateak, kexagileak aurrez egin zuen baliozkotze eskaera izapidetzerakoan, ez zuela bere ukoa behar bezala arrazoitu eta ez zituela interesdunak erabil zitzakeen administrazio justiziako bideak (errekurtsoak) adierazi.

Hala ere, ebazpen hori eman ondoren, EHUko idazkari nagusiak duela gutxi errektoreak emandako ebazpenaren berri eman digu. Horretan oinarrituta, aurreko gure ondorioak jada konponduta daudela esan dezakegu, adierazitako oharrei jaramon egin baitzaie.

²⁴ Arartekoaren ebazpena, 2007ko martxoaren 27koa; horren bidez, erakunde honek amaiera ematen dio EHUk psikopedagogiako lizentziaturako praktikak baliozkotzeko eskaera bati emaniko tratamenduaren gaineko bere jarduerari.

5. FUNTZIO PUBLIKOA

2007an 105 kexa jaso dira funtzio publikoaren arloan. Hori arlo guztietan izapidetutako erreklamazioen %6,74 da.

Kexek honako administrazio hauetan izan dute eragina:

| | |
|---|----|
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 63 |
| - Toki administrazioa | 18 |
| - Foru administrazioa | 6 |

Horien edukiari dagokionez, jasotako kexak honako azpiarlo hauekin erlazionatuta egon dira:

| | |
|--|----|
| - Hautaketa | 29 |
| - Ordezkapenak | 16 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 12 |
| - Eskubideak eta askatasunak | 9 |
| - Ordainsariak | 9 |
| - Lizenziak eta baimenak | 5 |
| - Beste batzuk | 5 |
| - Lanpostu hornikuntza | 5 |
| - Hizkuntz normalizazioa | 3 |
| - Beste eskubide eta betebeharrak batzuk | 3 |
| - Lanpostuen zerrenda | 3 |
| - Irisgarritasuna | 2 |
| - Diziiplina-araubidea | 2 |
| - Prestakuntza | 1 |
| - Barne sustapena | 1 |

Sarbidea

2007an izapidetutako kexen artean, bereziki aipatu beharrekoak dira, beren berritasunagatik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) hainbat lan poltsa sortzeko, besteak beste, biologoen nahiz laborategiko goi mailako teknikarien kategoriei dagozkienak, iragarri zituen zenbait deialdiren inguruan aurkeztutako kexak.

Horietan, kexagileek zalantzan jarri dute epaimahaiak hautapen prozesurako lehen ariketa baloratzeko erabilitako bihurtze formula, izangaiak desberdin tratatzea zekarrela uste zutelako.

HAEEren iritziz, erabilitako formula ez da kaltegarria, ariketari zegokion zuzendutako puntuazio berriak ariketaren benetako puntuazioak izango zukeen eragin berbera baitzuen bukaerako puntuazioaren emaitzan.

Baina, emaitzak aztertuta ikus zitekeenez, eraldatutako puntuazioek eragina izan zezaketen hautapen prozesuaren bukaerako emaitzan (behin beste merezimendu batzuei legezkiokkeen puntuazioak gehituta), bukaerako emaitza horiek zuzeneko edo benetako puntuazioarekin bat etorri lortuko lirakekeenatik aldendu baitzitezkeen.

Hori zela-eta, erakunde honek bat egin zuen kexagileek kexan adierazi zuten beldurrarekin, izan ere, prozesuaren emaitzei jaramon eginez, litekeena zen puntuazioak eraldatzeko formula aplikatzeak lan poltsa horien bidez beteko ziren aldi baterako lanpostuak baldintza berdinetan eskuratzeko aukera urratu izatea.

Horregatik, laborategiko goi mailako teknikarien kategoriari zegokionez, [ekainaren 25eko ebazpena](#)²⁵ eman zen.

Biologoaren kategoriari zegokionez, ordea, administrazioarekiko auzi errekurtsioak aurkeztu zirenez, gure esku-hartzea eten behar izan genuen, erakunde hau sortzen duen legearen 13.1 artikuluan agindutakoa aplikatuta.

2006an, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean plazak betetzeko iragarri zituen hautapen prozesuen inguruan kexak aurkeztu zirela azpimarratu genuen. Kexa horien bidez, erakunde honetara jo zuten kexagileek ustez babesgabetasun egoera zena gainditu nahi zuten eta, horretarako, behin eta berriro eskatu zuten hautapen prozesuko lehen proba gisa egindako azterketa psikoteknikoan lortu ziren emaitzak azal zitzatela.

Kexa horien guztien izapidetze posiblea aztertzerakoan, erakunde honek jada ezaguna den doktrina izan du kontuan. Horren arabera, hautapen prozesuen deialdietako oinarriak dira kexak izapidetu eta ebazteko aintzat hartu behar den lege bakarra; hala, oinarri horiek, behin irmo bihurtuta eta onartuta, berdin lotzen dituzte Administrazioa, probak baloratzeaz arduratzen diren epaimahaiak eta prozesu horietan parte hartzen duten izangaiak. Hori dela-eta, gure asmoa inoiz ez da izan proba hori egin behar zen ala ez zalantzan jartzea.

Era berean, jabetu gara, orobat, kexa aurkezteko izan ziren arrazoiak epaimahaiak modu subjektiboan baloratzeko duen ahalmenaren emaitza izan zirela. Hala ere, gure ustez, hura ez zen oztopo haiek beste ikuspegi batetik kontrolatu ahal izateko, eskumeneko ahalmenak behar bezala baliatzen direla ziurtatzen laguntzen duten beste kontrol mekanismo batzuk erabilia, Konstituzioan jasotzen den arbitrariotasunaren interdikzioaren printzipioa aplikatuzetik sortzen den arrazoitzeko eskakizun formalarekin gertatzen den bezala.

Gizarte Gaietarako foru diputatuari hainbatetan hori adierazten saiatu garen arren, kontua da, azkenean, gure esku-hartzea amaitutzat eman behar izan dugula. Kalifikazio epaimahaiak neurri batean bakarrik egin diete jaramon arrazoitzeko eskakizunei. Kexagileei oraindik ez zaizkie jakinarazi, ordea, bakoitzari egindako balorazioaren inguruko xehetasunak. ([martxoaren 16ko ebazpena](#))²⁶.

²⁵ Arartekoaren ebazpena, 2007ko ekainaren 25ekoa; horren bidez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari gomendatzen zaio beharrezko neurriak har ditzala oposizio fasea puntuatu eta laborategiko goi mailako teknikarien lan poltsako hautagaien sailkapen ordena zehazte aldera kalifikazio epaimahaiak ezarritako arauak berrikusi ahal izateko, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen mesedetan.

²⁶ Arartekoaren ebazpena, 2007ko martxoaren 16koa; horren bidez, amaiera ematen zaio Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzura karrerako funtzionario gisa aritzeko iragarri zituen hautapen prozesuen inguruan garatutako jarduerari.

Arrazoitzeko eskaera formal horren haritik, interesgarria iruditu zaigu, halaber, beste kexa batzuk ere aipatzea; zehazki, 2004ko irailaren 15eko Ebazpenean egindako deialdiari jarraiki antolatu zen Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente kategorian sartzeko prestakuntza-ikastaroan ez gaitzat jo ziren eta, ondorioz, zegokion hautapen prozeduratik kanpo geratu ziren izangai batzuek aurkeztutakoak.

Erakunde honek, esku hartzeko bere aukerak aztertzerakoan, kontuan izan zuen berriki hartu ziren erabaki judizialetan adierazitakoa. Erabaki horietan, subjektibotasun maila handia eta, hortaz, motibazio bereziaren beharra azpimarratzen zuten antzeko alegatuen haritik, ez dira aintzat hartu kexagileen kexak, oso eta zabaltzat hartu den espedientea aztertu ondoren, inpugnatutako balorazioa modu arrazoituan justifikatu ahal izan baita, baloratu beharreko irizpide orokorrak, erabilitako teknikak eta hauek aplikatzearen ondoriozko emaitzak bertan jasota zeudelako. Horri esker, gure jarduera egindako balorazioaren justifikazioa lortzeko tresna gisa erabiltzea bidezkoa zela defendatu ahal izan genuen.

Kexak izapidetzen hasita, Ikastegiko zuzendariarekin eta agente kategorian sartzeko oinarrizko ikastaroko beste arduradun batzuekin bildu ginen eta, bertan, interesdunei prestakuntza-ikastaroa ebaluatzeko hainbat alderdiren inguruko informazio zehatzagoa emateko prest zeudela ikusi genuen. Are gehiago, Ikastegiko zuzendariak jarreraren balorazioko arlo guztietan lortutako puntuazioen laburpen xehatuari buruzko zenbait agiri osagarri bidali zituen erakunde honetara.

Izapideen emaitza ikusita, Ikastegiak kexak eragin zituen balorazioa modu arrazoituan justifikatu zuela iruditu zitzaigun eta, hala, beharbada interesdunak babesik gabe utzi zirela pentsaraz zezakeen edozein arrasto ezabatu zen.

Sarbidearen inguruko atal honi dagokionez, interesgarria iruditzen zaigu aipatzea, orobat, EHUren lan eskaintza publikoari buruz jasotako kexa. Bertan, prozesuaren konfigurazioa jarri da zalantzan, entitate horretako egungo langileak dagozkien postuetan finkatzera bideratuta zegoela pentsatu baitzen.

Iritzi hori babesteko, bi arrazoi eman dira. Horietatik lehenak dio oposizio fasea test modukoa izan dela eta bertako galdera-sorta aurrez jakinarazi zen galdera-multzo itxi batetik atera zela. Bigarrenean aipatu da ea badagoen aukerarik eskaintako zerbitzuak deialdi osoan lor daitekeen gehienezko puntuazioaren %45 osatzera hel daitezten.

Kontuan izan behar dugu EHUk iragarritako prozesu hori Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen laugarren xedapen iragankorra aplikatzearen ondorioa baino ez dela. Bertan aurreikusitako baldintzek legea indarrean sartu zenean EHUUn zerbitzuak ematen ari ziren aldi baterako langileei oposizio-lehiaketako deialdietan parte hartzeko erregimen berezia baimentzen dute; deialdi horietan, esperientzia gehienez prozesu osoaren %45 izango da. Horrela, legeak –betiere, jurisprudentziaren babesarekin– beste administrazio publiko batzuetan hartutakoaren antzeko bidetik jo du modu egonkorrean baina inolako lotura finko edo behin betikorik gabe Administrazioarentzat berarentzat zerbitzuak egiten diharduten langile ugari biltzen direneko aparteko egoerei aurre egiteko.

Bestalde, oposizioko ariketaren diseinua epaitzerakoan eta Unibertsitateak proposatutako ariketaren modalitatea eta baldintzak ezagutza eta gaikuntza jakin batzuk egiaztatzeko egokiak ez direla uste duten jarrerai bidezkotasunik kendu gabe, erakunde honetatik ohartarazi dugu galdera-multzo itxia erabiltzeak, berez, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratzea dakarrela. Administrazioak gai zerrenda,

kalifikazio irizpideak eta proben diseinua finkatzeko ahalmena du. Nolanahi ere, onartzen diren legeak baldintza beretan aplikagarri izan behar zaizkie aplikagarri parte-hartzaile guztiei eta egokiak izan behar dute lanpostuen ezaugarriak kontuan hartuta.

Azkenik, interesgarria iruditzen zaigu azpimarratzea Transportes Urbanos de Vitoria, S.A. (TUvisa) enpresak gidari-hartzaile lanpostu batzuk betetzeko eta zegozkien lan poltsak sortzeko iragarri zuen deialdia.

Deialdi horren inguruan jasotako kexak zioen litekeena zela ordenamenduak legezko bizilekua duten atzerritarrei lan kontratudun langile gisa, espainiarren baldintza beretan, administrazio publikoetan lan egin ahal izateko onartzen dien eskubidea urratu izatea.

Horregatik, ondorengo lege hauen indarreko edukia ekarri dugu gogora: 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubideak eta askatasunak eta horien gizarteratzea arautzen dituena; eta 7/2007 Legea, apirilaren 12koa, enplegatu publikoaren oinarriko estatutua onesten duena. Txosten hau egiten amaitutakoan, eragindako udalaren behin betiko asmoak zeintzuk diren ezagutu zain jarraitzen dugu.

Ordezkapenak

Irakaskuntzaren alorrean izan dira aldi baterako langile beharrei (ordezkapenak) erantzutearen inguruko atal honi buruzko kexa gehienak.

Horrela, adibidez, irakasle ordezkogaien egungo zerrendetan barneratutako hautagai batek, familiako bizitza eta lanbidea behar bezala bateratzea eragozten zion egoera pertsonala aipatu ondoren, iradokizun gisa adierazi zuen beharbada irakaskuntzaren alorrean ere aplika zitezkeela osasun sektorean daudenen moduko irizpideak; horien bidez, kasuan kasuko lurralde historikoarena baino eskualde edo zona txikiagora murriz daiteke dei posibleen eremua.

Erakunde honek hezkuntza-administrazioari proposamen horren berri eman dio. Oraingoan, Sailak zenbait kudeaketa-arazo aipatu ditu; Sailak adierazi bezala, arazo horiek interesdunaren asmoari erantzutea eragozten dute. Hala ere, eta hezkuntza-administrazio hori jabetzen denez beharrezkoa dela bere zerbitzura diharduten langileek beren lanbidea eta familiako bizitza neurri handiagoan bateratzea, ziur gaude hori kontuan izango dela etorkizunean hobekuntzak egin ahal izateko.

Eztabaidagarria izan da, halaber, zerrendak kudeatzeko indarrean dauden jarraibideek lehen irakaskuntzan erlijio irakasle gisa zerbitzuak eskaini dituztela egiaztatzen duten hautagaiei ematen dieten tratamenduak (zerbitzu horiek ez dira aintzat hartzen; bai, ordea, bigarren irakaskuntzan eskainitakoak direnean).

Horri dagokionez, hezkuntza-administrazioak ohartarazi digu beharrezkoa dela irakasle funtzionarioen kidegoetakoak ez diren eta haur, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoetan erlijio katolikoa ematen duten irakasleen lan eta ekonomi araubideari buruzko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartzea. Hitzarmen horrek eragindako langileek lan kontratuepean betetzen dute beren jarduera. Enplegu-emaitza dagokion hezkuntza-administrazioa da, nahiz eta, aldi batez, irakasle horiek dagokien administrazioa transferitzen ez diren bitartean, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa hartuko den enplegu-emaitzat.

Halaxe gertatzen da gure autonomia-erkidegoan; izan ere, lehen hezkuntzako erlijio irakasleak ez dira inoiz transferitu, baina bai bigarren hezkuntzan dihardutenak (Eusko Jauriaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera transferitu ziren 1990ean). Horiek horrela, lehen irakaskuntzako erlijio irakasleak Eliza Katolikoaren dagokion gotzaingoak proposatzen ditu eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak kontratatu; hortaz, Estatuko Administrazio Orokorreko organo horrekin sortzen da lan lotura. Horrek azaltzen du zergatik jasotzen duen tratamendu desberdina lehen hezkuntzako erlijio irakasleek.

2007an, beste gai bat ere aipatu behar dugu; izan ere, hori ez da oharkabean joan eta Legebiltzarrean ere jorratu da. Haurreskolak Partzuergoaren mendeko zentroek eskaintako zerbitzua murriztu egin zen Aste Santu inguruko zenbait lanegunetan eta, erabaki hori ez zenez behar beste denbora lehenago adierazi, familiek ezin izan zioten egoerari behar bezala aurre egin.

Hezkuntza-administrazioak, gertatutakoa erabat onartu ondoren, adierazi zuen arazoa zerbitzuaren estaldurari aurrez itundutako lan baldintzen arabera aurre egin ahal izateko langile nahikoak lortzea zaila zelako sortu zela. Arrazoibidearen balio argitzailea bazter utzi gabe, erakunde honek ohartarazi du beharrezkoa dela aztertzea ea neurririk har daitekeen kexan azaldutakoaren moduko egoerak berriro gerta ez daitezen edo, gutxienez, horien ondorio negatiboak arinagoak izan daitezen. Sail arduraduna horrekin bat etorri zen, bere erantzunetatik ondoriozta zitekeen moduan.

Gorabehera zehatzak ere izan dira, esaterako, Ermuko haurreskolarako langile berri bat kontratatzerakoan gertatutakoa. Kexagileek Haurreskolaren Sektoreko Hitzarmen Kolektiboko 12. artikuluan jasotako aurreikuspenak hartu zituzten oinarri egindako kontratazioa zalantzan jartzeko, horren baitan ez baitzen hitzarmenean adierazitako %50eko gutxieneko dedikazioa eskaintzen (12. art.: “*Kontratuan lanaldi osoko kontratua duen langile bati egunean, astean, hilean edo urte osoan dagozkion baino lan ordu gutxiago adosten badira, kontratu hori lanaldi partzialekotzat joko da. Horrelako kontratuak ezingo du lanaldi osoko kontratuaren %50etik beherakoa izan.*”).

Hala ere, Partzuergoko gerentziak egindako kontratazioa modu arrazoituan azaldu du; hala, esan du seme-alabak zaintzeko lanaldi murrizketa eskatu zuen beste langile bat ordezkatu behar zelako egin zela kontratazioa.

Osasunaren alorrari dagokionez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, behin 2002ko lan eskaintza publikoa amaituta, aldi baterako kontratazio zerrendak egiteko sistemaren inguruko araudia onartu zuen eta bidezko prozedurak hasi zituen zerbitzuak edozein kategoria eta izendapen ereduetan zituen langile beharrei erantzungo zieten poltsak sortzeko.

Oinarri arautzaileek muga ezarri zioten interesdunek aukeratu zezaketen destino kopuruari; arau hori, ordea, ez zen baldintzat hartzen eta, beraz, hori ez betetzeak ez zekarren hautagaia kanpoan uztea.

Hori gorabehera, erakunde honi esku hartzeko eskatu zion izangai baten kasuan, Administrazioak zerrendetatik kanpo utzi zuen, aukeratutako destino kopuruak adierazitako muga gainditzen zuela ikusita.

Erakunde honen iritziz, jarduera hori ez zetorren bat xede horretarako onartu ziren arauekin eurekin, behar baino destino gehiago aukeratzeak ez baitzuen eman nahi izan zitzaion izaera baliogabetzailea.

Ondorioz, gure esku-hartzeari amaiera eman genion, [maiatzaren 7ko ebazpenaren](#)²⁷ bidez.

Azkenik, Hernaniko Udalaren aurrean burututako jarduera aipatuko dugu, ordezkapenak egin eta aldi baterako premiei erantzuteko administrari laguntzaileen lan poltsaren kudeaketaren ingurukoa. Udal horrek izangaien arteko lehen tasun ordenari jaramonik egin gabe egin zituen deialdiak eta, ondorioz, erakunde honek [maiatzaren 23ko ebazpena](#)²⁸ eman zuen.

Baimenak eta lizentziak

Joan den urtean, atal honetan bertan, administrazio orokorraren eremuan abiartzitako zenbait ekimenek sortu zuten polemikaz hitz egin genuen, horien artean, Funtzio Publikoko sailburuordeak urtarrilaren 4an emandako 1/2006 ebazpenak (horren bidez, legezko zaintzan aritzeko, ikasketa ofizialak egiteko edo kargu politikoari dagozkion eginkizunak betetzeko borondatezko lanaldi murrizketen inguruko instrukzioa onartzen da). Horren eraginpeko batzuek ulertu zuten ebazpena gehiegikerietan jausten zela; beren ustez, murrizketa-baimenak dagozkion ordainsari egokitzapena baino ezin ekar dezake eta ezin dezake eraginik izan zerbitzuak lanaldi osoan eskaintzen dituzten langileei bezalaxe eurei ere onartu behar zaizkien beste eskubide batzuetan, esate baterako, oporretan. Erantzuna izan zuen baita ere egiteke zegoen ordainsari egokitzapena ekitaldi bakarrean gauzatzeko hartu zen erabakiak, azken bost urteotan murrizketa-baimenak kudeatu diren moduagatik.

Gai honen inguruan egindako jarraipenean ikusitakoaren arabera, ordainsariei dagozkien kontuekin erlazionatuta dauden ondorioetako batzuk zuzentzeak eta lanaldi motak murrizketa-denboren arabera zehazteak une honetan baimen horien kudeaketa baketsua izatea ahalbidetu du.

Langileek dituzten bateratze premiei lotutako baimen eta lizentzien atal honetan bertan, interesgarria iruditzen zaigu Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko ospitale bateko langile batek hala eskatuta izapidetutako kexa aipatzea. Pertsona horren ustez, bere zentroko zuzendaritza bereizkerian jausi zen, bere haurra jaio eta hamazazpigarren astean amatasun lizentziaz gozatzeko aukera ukatu baitzion.

Jakina denez, legeriak hamasei asteko baimena onartzen du. Ama da eskubide horren titularra eta, beraz, berak aukeratu ahal izango du, bi bikotekideek lan eginez gero, aitik gozatzea atsedendialdiaren zati jakin eta jarraitu bat; nolana ere, erditzearen ondoren sei aste amak bakarrik hartu ahal izango ditu.

²⁷ Arartekoaren ebazpena, 2007ko maiatzaren 7koa; horren bidez, Osakidetzari iradokitzen zaio etorkizunean egiten dituen aldi baterako kontratazioetako zerrendetatik kanpo ez uzteko baimendutakoak baino destino gehiago eskatzen dituzten pertsonak.

²⁸ Arartekoaren ebazpena, 2007ko maiatzaren 23koa; horren bidez, Hernaniko Udalarri gomendatzen zaio Kultura Arloan administrari laguntzailea kontratatzeke garatutako prozesua berrikus dezala, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren eskakizunetara egokitzeke, eta kexa aurkeztu duen pertsonari legozkiokeen eskubideak itzul diezazkiola.

Lege tratamendu honetatik abiatuta, interesdunak eskatu zuen hamazazpigarren astea negoziazio kolektiboaren arloan Osakidetzako langileen akordio erregulatzailari egindako hobekuntza bat zen. Arau hori ezin zitzaion interesdunaren emazteari aplikatu, ez baitzen entitate horretako langilea.

Erretiroak

Estatuaren 2007rako Aurrekontu Orokorra onartu zituen abenduaren 28ko 42/2006 Legearen berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarriak adierazi zuen Gizarte Segurantzaren kotizatutakotzat hartu ahal izango zirela euskarazko irakaskuntzan aritu ziren baina, jarduera isilpean garatzearen ondorioz, Gizarte Segurantzaren Sisteman barneratu ezin izan ziren pertsonak lanbide jarduera horretan emandako denboraldiak.

Xedapen gehigarri horrek bertan jasotakoa aplikatzeko beharrezkoak ziren arauak emateko ahalmena ematen zion Gobernu Zentralari. Ekainaren 15eko 788/2007 Errege Dekretuak, euskarazko irakaskuntzan emandako aldiak Gizarte Segurantzaren kotizatutakotzat jotzeari buruzkoak, ezarri du behar bezala egiaztatuta dauden lanbide jarduerako aldiak, interesdunak hala eskatuz gero, kotizatutakotzat hartuko direla, betiere, beste kotizazio aldi batzuekin gainjartzen ez badira, eta, eskaerarekin batera, irakasjardunean aritu izana eta horretan emandako aldiak egiaztatzen dituen agiria aurkeztu behar dela, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Erkidegoan hezkuntzaren arloan eskumenak dituen organoak emana.

Ziurtagiri hori dela-eta, EAEn, urriaren 9ko 172/2007 Dekretua eman da. Horren bidez, euskaraz eman izana eta zein epetan eman zen frogatzeko ziurtagiria arautu da, Gizarte Segurantzaren kotizatutako alditzat hartu ahal izan daitezten.

Gai honen inguruko lehenengo kexak jaso ditugu. Hala ere, berriak direnez, oraindik ebazteke jarraitzen dute.

Enplegatu publikoak kezkatzen dituen beste gai bat erretiro partzialari heltzeko aukera da.

Osasunaren arloan, erakundeak bere garaian egin zituen gestioei esker jakin ahal izan genuen GSINek berak Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzari adierazi ziola komenigarria izango zela estatutupeko langileek erretiro partzialaren inguruan zuten Gizarte Segurantzarekiko harremana modu bateratuan arautzea. Horregatik, eta ekimen honen jarraipena egitea erakunde honen esku hartzeko ahalmenetatik kanpo zegoenez, egokitzen jo zen kexa Herriaren Defendatzaileari helaraztea, erakunde hori ardura zedin, hala bazegokion, Estatu Administrazioaren kasuan kasuko organoen aurrean proposamen horren jarraipena egiteaz.

2007an, erretiro partzialari heltzeko aukera horrek udal funtzionario batek kexa aurkeztea eragin du. Jarduteko eskatzerakoan, interesdunak bere udaleko Langile Zerbitzuak eman zion informazioaren berri eman zigun. Honek zioen beharrezkoa zela Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 67.4 artikuluan jasotakoa lege bidez garatzea. Hain zuzen ere, artikulua horrek ezartzen duenez, erretiro partziala onartzeko eskakizunak eta baldintzak ezartzeko, Gizarte Segurantzako erregimenaren arau zehaztutara jo behar da.

Kexa hau aztertzerakoan, jakin ahal izan genuen, zenbait hedabidetan argitaratutako berrien bidez, Estatu Gobernuak neurri hori al bait arinen aktibatuzko izapideak

bizkortu nahi zituela, horretarako, Gizarte Segurantzaren arloko neurriei buruzko lege proiektua Parlamentuan izapidetuko zela aprobetxatuta.

Hala ere, Gizarte Segurantzaren arloko neurriei buruzko abenduaren 4ko 40/2007 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriak –berriki argitaratu denak– soil-soilik dio, urtebeteko epean, Gobernuak enplegatu publikoen erretiro aurreratua eta partziala (eta, beraz, baita osasun zerbitzuetako estatutupeko langileena ere) erregulatzen dituen araudiari buruzko azterlana aurkeztu behar zuela. Xedapenak berariaz aipatzen du azterlan horrek ondorengo alderdiak zehaztu behar dituela: erretiro modalitate horiek erregulatzen dituen araudiaren aplikazioa, hori aplikatzerakoan gizarte babeseko sistemei iraunkortasun arazorik ez sortzeko ezarri behar diren baldintzak, eta homogeneizazioa, erregimen desberdinetako egoera parekagarrietan.

Ordainsariak

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartzearen ondorioz, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko langile talde batek antzintasunari dagokion ordainsaria eskatu du.

Enplegatu horiek, erizaintzako laguntzaile kategoriako plaza banaren titular gisa, osasunaren arloko teknikari adituen goragoko kategoria batean aritu dira, aldi baterako barne sustapenaren babesean. Denboraldi horretan, hiru urtekoak, antzintasunaren ondorioetarako, langileen jatorrizko kategoriari dagokion titulazio taldea kontuan hartuta zenbatu dira.

Estatutu berriaren arabera, bitarteko langileek aurretik egindako zerbitzuei dagozkien hiru urtekoak jasoko dituzte. Hori ikusita, interesdunak diskriminatuta sentitu ziren, finkoak izan arren, antzintasunagatik lortu zituzten diru sarrerak zenbateko txikiagoaren arabera kalkulatzeko jarraituko baitziren, alegia, bere titulartasuneko kategoriari zegokionaren arabera.

Jakinik nahikoa ohikoa dela zenbait administrazio publikoren zerbitzura dauden langileen lan baldintzak arautzen dituzten akordioek legeak gai honen inguruan aurreikusitako erregimena hobetzen duten klausulak barneratzea, nagusiki, sortutako hiru urteko guztiak goragoko atxikipen taldeari dagozkion zenbatekoen arabera ordainduta, laguntza eskatu genion Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari, kexagileen interesei mesede egin ahal izango lieketen arauen inguruan zer iritzi zuen edo ezer aurreikusita ba ote zegoen ezagutze aldera.

Esku-hartze honi erantzunez emandako txostenak ordenamendu juridikotik datozen arauak bakarrik oinarri hartuta aztertu du planteamendua. Testuinguru horretan, txostenak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko artikulua aztertu ditu eta bertatik ondorioztatu du, bitarteko funtzionarioei hiru urtekoak aintzat hartzea berritasuna izateaz haraindi, ez dagoela inolako aurreikuspenik arlo honetan aplikagarri diren irizpideak aldatzeko. Bestalde, txostenak ez du onartu bereizkeriazko tratua egin denik, izan ere, bere ustez, egoera horiek ez dira berdinak eta, beraz, ez dute antzeko tratamendua ematea eskatzen. Arrazoituta koarekin bat etorritik, kategoria bateko titular diren langileak, barne mugikortasuneko prozeduren bidez, goragoko kategoriako lanpostu batean aritu daitezke aldi batez barne sustapenean; nolahi ere, jatorrizko postuaren titularrak izaten

jarraituko dute eta postu horren araberako antzinatasuna izango dute. Aldiz, bitarteko langileek aldi baterako kontratazio zerrenden sistemari jarraiki lortzen du postua eta erreferentzi gisa hartu beharreko atxikipen bakarra dagokion hautapen prozesuan behin betiko postua ematen zaion arte duen postuari lotzen diona da.

Hala, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak horren inguruko edozein aldaketa egitea bazterten du.

Beste eskubide batzuk

Sindikatuaren arloan, kexa bat izapidetu dugu Herrizaingo Sailean, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 101.1 d) artikuluan agindutakoa praktikan nola aplikatzen duen ikusteko. Artikulu horrek hilean berrogei orduko kreditua ematen die ordezkariei; ordu horiek metagarriak dira, zenbait baldintza direla medio. Hala, ikusi ahal izan dugu, izendapen askeko funtzionarioen kasuan, muga posible bakarra meta daitezkeen orduen kopuru osoari bakarrik dagokiola.

Laneko segurtasunari dagokionez, espediente bat izapidetzen ari gara, elkarteak (UTESE) hala eskatuta. Sindikatu horrek haurdun dauden Donostia Ospitaleko erradiologiako zerbitzuko langileen protokoloa ezar dadila eskatu du.

Prebentzio Zerbitzuko arduradunak orain arte emandako erantzunean aipatzen du, bere ustez ere, beharrezkoa dela protokolo hori. Dioenez, protokoloa jada eztabaida-fasean da, tartean diren agente ezberdinek, horien artean, elkarteak (UTESE), egin ditzaketan hobekuntza guztiak onartzeko asmoz.

Diziplina-araubidea

Bermeoko Udaltzaingoko agenteek erakunde honen esku-hartzea eskatu zuten, uniformeaz joateko betebeharrak bete ez zutela-eta Udalak diziplina espediente bana hasteko hartu zuen erabakiaren ondotik.

Urte batzuk lehenago, kontu hori bera Administrazioarekiko Auzien Bilboko 3. Epaitegiak emandako epaiaren bidez ebatzi zen. Epaiak zioen Bermeoko Udalak emandako ebazpena zuzenbidearen araberakoa zela. Horren bidez, interesdunei jakinarazi ziren uniformeak janzteko agindua betetzeko betebeharrak zutela eta ohartarazi ziren, hala egin ezean, zegoen diziplina espedienteak zabalduko zela.

Hala ere, gai honen haritik, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileak errekerimendu proposamena egin zuen segurtasunaren eta osasunaren arloan. Bertan, berriaz aipatu ziren higieen zerbitzuak (aldagelak, dutxak, konketak eta komunak, emakume eta gizonentzat bereiz) eta horiei buruz zioen languneetako gutxieneko segurtasun eta osasun neurriei buruzko apirilaren 14ko 486/1997 EDren V. eranskinetako xedapenak bete behar zituztela.

Hain zuzen ere, aipatu dugun epaiak berak ere ohartarazi zuen horiek ez betetzeak garrantzi handia zuela laneko arriskuen prebentzioan. Gure ikuspegitik, alderdi horrek eragin zuzena zuen toki administrazio horrek adierazi nahi izan zuenaren moduko diziplinazko erantzukizunaren eskakizuna aztertzeke orduan.

Zenbait izapide egin ondoren, azkenean, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak Tokiko Gobernu Batzarrak emandako ebazpena jakinarazi zion erakunde honi; horren bidez, indarrik gabe utzi ziren ezarritako zigorrak eta, hala, uniformeak janzteko agindua bete beharra horretarako beharrezko instalazioak egokitu arte atzeratu zen.

Hertsiki diziplina arloko jarduera ez den arren, uste dugu interesgarria dela atal honetan aipatzea unibertsitateko irakasle batek hala eskatuta izapidetu zen kexa.

Interesdunak onartu zuen Zerbitzu Ikuskatzailtzak, beste zenbait eginkizun edo helbururen artean, irakasleen betebeharrak egokitu zaien irakaslanaren arabera zenbateraino betetzen diren kontrola dezakeela. Ildo horretatik, Irakasleen Errektoreordetzaren 2001eko abenduaren 3ko Zirkularra aipatu zuen; bertan, ikuskaritza-zerbitzuko kideek irakasleak ikuskatzeko zerbitzuko jarduerak garatu bitartean bete beharreko arauak biltzen dira. Hala ere, ez zetorren bat zerbitzu honek irakasleen eginkizuna ez den beste alderdi batzuk ikuskatzearekin, hau da, irakasleen dedikazioa edo lana eman behar dituzten eskolak eta tutoretzak aintzat hartu gabe kontrolatzearekin.

Gure esku-hartzeari erantzunez, EHUKo idazkari nagusiak nabarmendu zuen komenigarria zela azpimarratzea ikastetxeetara egindako bisita horiek, interesdunak aurkeztutako kexaren oinarria zirenek, ez dutela zerikusirik ikuskapenekin. Ikuskapenak aurretik salaketa egiten denean burutzen dira, nahiz eta prozedura beraren bidez garatzen diren, prozedura kontraesankorra eta bermatzailea baita.

Horren inguruan adierazi zigun aipatu bisitak egiteko erabakia Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txosten baten ondorioa zela. Txosten horren arabera, *“la UPVEHU carece de un procedimiento de control horario de su profesorado que permita conocer las horas efectivas trabajadas por ese colectivo”*. Bisita horiek 2004-2005 ikasturtean hasi ziren, EHUK irakasleen lan jardueraren berri zehatz-mehatz eta zuzenean izatea ahalbidetuko zion informazioa izan zezan.

Informazio hori ikusita, ez genuen ikusi EHUKo Zerbitzu Ikuskatzailtzaren jarduera horren inguruan beste eginbide bati ekiteko arrazoirik zegoenik. Nolanahi ere, jarduera hori, antza, ondorioak izaten hasi da behin baino gehiagotan ez azaltzearekin erlazionatutako kasuetan.

Laneko jazarpena edo mobbing-a

2007an, laneko jazarpen egoerei buruzko salaketa gehiago jaso ditugu. Gure ustez, salaketa horiek agerian uzten dute, tamalez, ohiko kexa-iturri gisa finkatzen doan errealtate baten aurrean gaudela.

Gainera, Laneko Jazarpen Moralaren aurkako Elkartek (Hirigoyen) adierazi digu komenigarria litzatekeela laneko jazarpen moraleko kasuei aurrea hartu eta horietan jarduteko administrazio publikoek onartu dituzten protokoloen birtualtasuna baloratzeri bideratutako esku-hartzea abiaraztea.

Kexa horiei dagokienez, horiek izapidetzea oso konplexua dela azpimarratu nahi dugu. Horrela, erakundera jotzen duten enplegatuei babes zuzentzailea eskaini nahi izateak dakarren zailtasunaz gain, kasu askotan, Lan Ikuskatzailtza edo auzitegiak eurak bezalako beste instantzia batzuk ere tartean izateak edo horiek aurrez esku hartu izateak horiek tratatzeko aukerak mugatzen ditu eta, ondorioz, esku-hartzeak askoz ere zehatzagoa izan behar du.

Horren adibide gisa, berezia izan arren, Bilbao Arte Fundazioko enplegatu batek hala eskatuta hasitako espediente bat izapidetzeko prozesua aipatuko dugu. Espediente hori jazarpen moraleko egoera zegoela onartu zuen erabaki judzialen ondorioz bideratu zen.

Esku-hartzearekin hastean, erakunde honek argi eta garbi utzi zuen langileen duintasuna larriki gutxiesten duten era horretako egoerekiko oso sentsibilizatuta dagoela. Halaber, adierazi zuen, bere ustez, halako egoerak administrazio publikoen esparruan gertatzen direnean, horiek arduratu behar dutela, beste inork baino lehen, aipatu egoerak inor konturatu gabe eta merezi duten gaitzespena jaso gabe gera daitezzen saihesteaz. Hori zela-eta, Bilboko alkateari erabaki horien inguruko balorazioa egin zezala eskatu genion eta galde egin genion ea, jokabide horien erantzuleztat jotako pertsonen zegoenez, ekimen edo neurriren bat hartu zen eta ea erantzule gisa hartutako pertsona horiei berriro eskatuko zien edo agindu egingo zien jada Fundazioak zeharka ordainduta zuen kalte-ordaina emateko.

Kultura eta Euskara Saileko zinegotzi arduradunak hasiera batean prestatu zuen erantzunean, zoritxarrez laneko jazarpen egoera hori saihesteko nahikoak izan ez ziren prebentzio neurrien multzoa aipatu zen zehatz-mehatz. Hala ere, ez zen ezer aipatu erakunde honek egindako galderen inguruan, besteak beste, erabaki horiek izan ditzaketen ondorioei dagokienez, ezarritako kalte-ordaina modu solidarioan emateko betebeharra zorrotz betetzeaz haraindi.

Gure iritziz, eta era horretako egoerek duten garrantzia ikusita (izan ere, ez baitugu ahaztu behar, enplegatuen osotasun moral, fisiko eta psikikoa arriskuan jarri eta kaltetzen dutela), Patronatuak, Fundazioko zaintza eta kontrolaren erantzule gisa, modu arrazoituan aztertu behar zituela ondorio horiek. Horregatik, jarduera hori burutu behar zela azpimarratu genuen.

Azkenik, Bilboko Udalak gure iradokizunari jaramon egitea erabaki du eta hitz eman du Patronatu berriaren iritzipean jarriko duela erabaki horien aurrean sortutako erreakzioa.

Une honetan, txosten hau egiten amaitutakoan, azken izapide horren emaitza jakin zain jarraitzen dugu.

6. OGASUNA

Sarrera

2007an guztira 77 kexa erregistratu ditugu ogasunaren arloan; hau da, aldi horretan erakundeak aurkeztu diren erreklamazio guztien %4,94.

Eragindako administrazioen arabera banatuta, egoera honakoa da:

| | |
|---|----|
| - Toki administrazioa | 30 |
| - Foru administrazioa | 22 |
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 1 |

Foru zergak

- *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)*

Horren aplikazio eremua zabala denez, hauxe da, tradizioz, erakunde honetan jarduteko eskaera gehien sortzen duen foru zerga. Hala ere, Arabako 35/1998, Bizkaiko 8/1998 eta Gipuzkoako 19/1998 Foru Arauen indarraldian, hau da, 1999ko hasieratik 2006ko bukaerara, zerga honekin erlazionatutako kexa-kopurua pixkanaka murriztu egin dela ikusi da. Hori aipatu aldiko lehen urteetan antzeman ziren hutsetako batzuk pixkanaka gainditu egin direlako eta hartzaileek zerga hobeto ezagutzeko aukera izan dutelako gertatu da.

Esan dezakegu 2007 PFEZren bi legegintzaldiren artean geratu dela, batetik, zerga erregulatzen duten **foru arau berriak** sartu baitira indarrean hiru lurralde historikoetan (3/2007 Araban, 6/2006 Bizkaian eta 10/2006 Gipuzkoan) eta, era berean, aurreko arautegiarekin 2006ko aldiari zegokiona likidatu baita.

Zerga honetan egin den erreformaren eraginik bistakoena ez da 2008ko lehen hiruhilekoa igaro arte agerian jarriko; une horretan, 2007ko aldia formalki likidatuko da, bere formulazioarekin bat etorriz. Orduan egiaztatuko ditugu zerga berriaren indarguneak eta ahulguneak, baita herritarren onarpen maila ere.

Hala ere, kontrako lehen ondorioak jada 2007an antzeman ditugu, urtarrilaren 1az geroztik araudi berrian aurreikusita dagoen konturako ordainketen sistema aplikatu baita eta lehen zergarik ordaintzen ez zuten zenbait errenta zergak ordaintzen hasi baitira.

Halaxe gertatu da **lanerako ezintasuneko prestazioei dagokien salbuespenarekin** (Arabarako zenbait gauza aipatu behar ditugu). Bere aplikazio eremua txikitu egin da, onura hori 55 urtekoen erabateko ezintasun iraunkorra, baliaezintasun absolutua edo baliaezintasun handia dagoen kasuetarako baino ez baita ezarri. Aldaketa horren ondorioz, salbuespena galdu duten erabateko ezintasun iraunkorreko pentsioei atxikipena egin zaie urtarriletik aurrera. Jakina, horrek –hots, atxikipenak– jarri ditu erne eragindakoak zerga likidatzeko unea heldu baino lehen eta, ondorioz, batzuek erakunde honetara jo dute bat ez zetozela adierazteko eta gure esku-hartzea eskatzeko.

Kontu honen inguruko lehen keza **Arabian** bizi den 48 urteko biztanle batek aurkeztu zuen, urtarrileko pentsioan lehen atxikipenak egin eta berehala. Harrigarria bada ere, erreklamazio hori, azkenean, ez zen gauzatu, Arabako Batzar Nagusiek keza aurkeztu baino egun gutxi batzuk beranduago onartu zuten 3/2007 Foru Araua proiektuan aurreikusitako ildotik aldentu zelako, zuzenketa bat onartzeari esker. Horrela, arau horretako 9.2 artikulua aurreko arautegian bezala geratu da; bestela esanda, Gizarte Segurantzak onartzen dituen erabateko ezintasun iraunkorreko pentsioen gaineko salbuespenari eutsi zaio, hartzailearen adina edozein dela ere.

Hala ere, ez zen erabat aurreko araudira jo, klase pasiboen erregimenean jasota dagoen eta funtzionarioei aplikagarri zaien ezintasuneko pentsioen gaineko salbuespenak, 9. artikulua horretako hurrengo paragrafoan aipatuak, ez baitzuen zorte bera izan arestian azaldutakoarekin alderatuta. Aitzitik –eta, gure ustez, nahi gabe–, proiektuan zegoen moduan geratu zen, hau da, pentsioa jasotzea dakarren lesio edo gaixotasunak hartzailea lanbide edo ofizio orotarako inolako gaitasunik gabe utz dezaketen kasuetara mugatuta (Gizarte Segurantzaren baliaezintasun absolutuko eta baliaezintasun handiko kasuekin parekagarriak).

Arabako Foru Ogasunak jakinarazi digunaren arabera, desadostasun hori laster zuzenduko da. 2008ko Aurrekontuei buruzko Arauan xedapen gehigarria erantsiko da eta, horren bidez, 9. artikuluko 3. puntuaren idazkera aldatuko da, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, arauak klase pasiboen araubideko ezintasuneko pentsioei egun ematen dien kontrako tratua zuzentze aldera.

Hala ere, **Bizkaian** eta **Gipuzkoan**, beren batzar nagusiek foru arauak onartu zituztenean, hizpide dugun 9. artikulua inguruan ez zen inolako gorabeherarik izan. Horren ondorioz, aipatu manua bere garaian Zerga-Kideketarako Organoan adostu zen proiektuan bezalaxe idatzita geratu da azkenean: PFEZ ordaindu behar ez duten prestazio bakarrak Gizarte Segurantzak 55 urtekoen erabateko ezintasun iraunkor kualifikatuaren, baliaezintasun absolutuaren edo baliaezintasun handiaren ondorioz zergadunari aintzatesten zaizkionak dira. Klase pasiboen erregimenari dagokionez, bi lurralde horietan salbuetsita daude gaitasunik ezeko edo ezintasun iraunkorreko pentsioak, betiere, pentsioa jasotzea dakarren lesio edo gaixotasunak hartzailea lanbide edo ofizio orotarako inolako gaitasunik gabe utziko balu.

Erakunde honen iritiz, aipatu erreformak desberdintasun egoerak sortzen ditu kaltetuen artean. Eztabaida ezina da halako prestazioei zerga onurak ematearen arrazoia ezgaitasuneko egoerak babestu nahi izatea dela (Konstituzioaren agindua). Hala ere, erreformak ezintasun iraunkorreko prestazioari dagokionez zergak ordaintzearen eta salbuespena aplikatzearen artean ezarri duen banalerroa jada ez dago hartzailearen ezgaitasunaren arabera, baizik eta bere adinaren arabera, eta hori ezin da egokitzen jo.

Jakina den bezala, erabateko ezintasun iraunkorra aintzatestuta duenak ezin du bere ohiko lana edo jarduera izan dena egiten jarraitu, nahiz eta hartzaileak bestelako lan edo jarduera batzuetan aritu ahal izango duen. Bada, indarrean sartu berri den erreformari jarraiki, bai pentsioak bai, hala badagokio, lan edo jarduera horretan lortzen diren etekinek PFEZ ordainduko dute. Hala ere, zerga tratamendua erabat aldatzen da onuraduna 55 urtera heltzen denean. Une horretatik aurrera, “erabateko ezintasun iraunkor kualifikatua” eskatzeko eskubidea du; horren baitan, %20 gehituko zaio ordura arte jasotzen zuten pentsioari (alabaina, horren ordez, ezin izango du lanaren edo

jardueren bestelako sarrerarik jaso). Gainera, gehitutako pentsio hori PFEZ ordaintzetik erabat salbuetsita egongo da.

Ez dirudi arrazoizkoa denik pentsio bat zerga ordaintzera behartuta egotetik salbuetsita egotera igarotzea bere titularrak beste iturri batzuetatik etekinak lortzeko duen lege ahalmenaren arabera egotea. Nolabait, esan genezake araudi horrek zergaren berezko izaera hutsaltzen duela, ez baitu, soilik, lanetik lortutako errenta zergapetzen, baizik eta, haratago joanda, erabateko ezintasun iraunkorra duten 55 urtetik beherako pentsiodunen lanerako ahalmen teorikoa ere zigortzen baitu (baita Gizarte Segurantzako autonomoen erregimenean sartuta dauden 55 urtetik gorako batzuen ere).

Adierazitako arrazoiak direla medio, erakunde honek gai honen inguruko bere esku-hartzea al bait gehien areagotzea erabaki du, foru ogasunek arlo hau sakon berrikus dezaten eta lanerako ezintasuneko egoera ezberdinei aplikatu beharreko zergen eskema diseina dezaten, berdintasun eta ahalmen ekonomikoaren printzipioa behar bezala errespetatuta.

2007an PFEZri buruz erregistratu diren gainerako kexek, oro har, aurreko urteetakoek dutenaren moduko tipologia dute. Horietako batzuetan jasotako kontuetan, Administrazioak ez du oker jardun, baizik eta informazioa falta izan da, zergaren konplexutasunak berak askotan dakarren moduan. Adibide gisa, honakoak aipa ditzakegu:

- 18 urtetik gorako seme-alabekin baterako aitortpena aurkezteko debekua.
- Zerga likidatzeko betebeharra lanaren errentak ordaintzaile bakar batengandik baino gehiagorengandik jasotzen direnean, lortutako diru-sarreraren bolumena kontuan hartu gabe.
- Berandutzako interesak kobratzea, baita kendutako zenbatekoak ere, etxebizitzakontuaren indarraldia amaitzeaz egon eta etxebizitzarik erosi ez denean.
- Dohaintzek dohaintza-emaiarentzako ondare irabazi gisa ordaintzea zerga.

Bitxia bada ere, PFEZri buruzko zenbait kexak zerga administrazioaren jarduera legez kontrakoa izan dela utzi dute agerian, Zergei buruzko Foru Arau Orokorra bera oker interpretatu delako, zehazki, **preskripzio** epea behar ez bezala zenbatu delako. Gaia bi pertsonak aurkeztutako kexen ondoren sortu da. Kexetan adierazi zutenenez, ez zeuden ados Bizkaiko Foru Ogasunak emandako bi ebazpenekin, bertan, administrazio horrek zenbatutakoari jarraiki, **hiru** urteko preskripzioa ezarri baitzen, eta ez Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak halako kasuetarako ezartzen duen lau urtekoa (lehen xedapen iragankorra, 1. paragrafoa). Foru Ogasunak nahastu egin zela onartu zuen eta berehala zuzendu zuen bere irizpidea.

- Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (OEZ)

Babes ofizialeko etxebizitzak eskualdatzerakoan OEZren salbuespena aplikatzeari buruzko kexa-espedita izapidetu dugunean ikusi ahal izan dugunez, Gipuzkoako Foru Aldundiak erakunde honek onartu ezin dezakeen irizpidea erabiltzen

du, izan ere, bigarrenez eskualdatutako etxebizitza eskuratzen dutenak justifikaziorik gabe diskriminatzen ditu ematen zaien etxebizitza, aurretik, esleipendunak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari berari salmentan eskaintzen dionean.

Kontu horren abiapuntua Gipuzkoako Lurralde Historikoan OEZ arautzen duen 18/1987 Foru Arauren 41.1.B.13 artikulua da. Honek dio, hitzez hitz, ondorengoek salbuespena izango dutela: *“Euskal Elkarte Autonomoko Administrazioak bere eskumenetan aritzean egiten dituen Babes Ofizialeko etxebizitzaren eskualdaketek”*.

Adierazitakoaren moduko kasuetan salbuespena modu baketsuan aplikatu izan da prozesuko fase guztiak urratsez urrats egin direnean, hau da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, eskritura publikoa formalizatuta, hasierako esleipendunari etxebizitza erosi dionean eta, ondoren, gauza bera egin duenean administrazio horrek esleipendun berriaren alde egiten duen lekualdatzea dokumentatzeko.

Hala ere, 8/2005 Instrukzioak, Etxebizitza sailburuordearenak, “Sailari eskaini zaizkion edo bere esku utzi diren eta lehentasunez erosi diren etxebizitzak eskuratu eta esleitzeko prozedurei buruzkoak”, hizpide dugun kasuan bideratu beharreko prozesua sinplifikatu eta arindu du; hala, lehen urratsa ezabatu du, hau da, jada ez da eskrituretan jasotzen lehengo titularrak etxebizitzari uko egin eta, hala, haren titulartasuna, formalki, berriz ere Administrazioaren esku geratu dela.

Instrukzio hori aplikatuta, egun eskritura bakarra egiten da eta, bertan, saltzaile gisa pertsona partikular bat agertzen da (hau da, etxebizitzaren lehengo esleipenduna). Horregatik uste du orain Gipuzkoako Foru Ogasunak eskualdatze modalitate horretan ez duela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak esku hartzen. Hori dela-eta, bere iritziz, ez dira betetzen zergaren gaineko salbuespena aplikatzeko eskakizunak, nahiz eta ez den inolako aldaketarik izan ez egitatezko kasuan ez zergei buruzko araudian.

Gainera, administrazio horrek ere ez dio baliorik ematen eskrituran bertan azalpen gisa egiten den (eta Sailak berak ere inolako arazorik gabe berretsi ahal izango zukeen) adierazpenari. Honela dio, hitzez hitz:

“La parte compradora desea dejar constancia a todos los efectos y en particular a efectos de posibles futuras cuestiones y reclamaciones que pudieran plantearse (en ningún caso contra la parte vendedora), así como a efectos tributarios, que VISESA le ha impuesto todas las estipulaciones y condiciones de la transmisión de la vivienda en la condición de adjudicatario de la vivienda designada en virtud del preceptivo procedimiento administrativo, por lo que todas las relaciones que ha mantenido en el proceso de adquisición lo ha llevado a cabo con VISESA, a quien ellos consideran que es el efectivo transmitente, limitándose su relación con la persona que formalmente figura como vendedor, en cumplimiento de las condiciones impuestas por VISESA al otorgamiento de la presente escritura; todo ello sin perjuicio de la adquisición de diversos muebles y enseres, adquisición esta última que fue llevada a cabo de forma libre por ambas partes, si bien tal posibilidad fue ofertada inicialmente por VISESA.”

Gipuzkoako Foru Ogasunak salbuespena aplikatzearen aldeko gure planteamendua baztertu du ([azaroaren 22ko ebazpena](#))²⁹. Hori justifikatzeko esan du irtenbide hori Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 13. artikuluaen aurka egongo litzatekeela; horren arabera, zergen, salbuespenen eta gainerako onuren edo sustagarri fiskalen eremuari dagozkion termino zorrotzetatik urrunago hedatzeko ez da analogia erabiliko.

Gure ustez, arrazoibide hori ez da zuzena, erakunde honen asmoa ez baita salbuespena foru arauan jasota ez dagoen kasu bati aplikatu behar zaiola defendatzea. Ez dugu nahi araua modu analogikoan aplikatu dadin, baizik eta zentzuz interpreta dadin. Horren haritik, uste dugu kexagileak babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko prozedura guztiz bat datorrela 18/1987 Foru Arauaren 41.1.B.13 artikuluaekin, betiere, aplikatu beharreko araua soil-soilik hitzez hitz hartu nahi ez bada, hori ere berariaz debekatuta baitago gure ordenamenduan.

Ildo horretatik, zergaren gaineko salbuespen eta haborokinen interpretazio murriztailea egitea baztertzen duen jurisprudentziaren doktrina ekarri behar dugu berriz ere ahotara. Zergei buruzko arauak oro har eta, bereziki, salbuespenei dagozkienak, gainerako arau juridikoei aplikatzen zaizkien irizpide berdinekin bat etorriaz interpretatu behar dira.

Hala, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 11. artikuluko 1. atalak honakoa aipatzen du: *“Zerga arauak Kode Zibilak 3. artikuluaen 1 apartatuan xedatutakoari jarraiki interpretatuko dira”*. Kode Zibilak, berriz, honakoa dio: *“las normas se interpretarán según el sentido propio de sus palabras, en relación con el contexto, los antecedentes históricos y legislativos, y la realidad social del tiempo en que han de ser aplicadas, atendiendo fundamentalmente al espíritu y finalidad de aquellas”*.

- Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia (Matrikulazio Zerga)

Zorionez, eta aurreko urteetan ez bezala (horietan ugariak izan baitziren), 2007an dezente gutxiago izan dira ezgaitasunen bat duten pertsonen aplikagarri zaien salbuespena epe kanpo eskatu izatearekin edo familia ugarientzako murrizketarekin erlazionatutako kexak.

Matrikulazio zergari buruzko araudiak bi onura horiek antzera aurkezten ditu eta, bai salbuespena bai murrizketa erreguzko onura gisa sailkatzen dira; hau da, eraginkorrak izan daitezten, ezinbestekoa da subjektu pasiboak alde aurretik eskaera egitea eta Administrazioak onarpena ematea.

Alabaina, zerga kudeatzerakoan, zerga administrazioak, baldintza hori bete behar izateaz gain, beste baldintza osagarri bat ere erantsi du, gure ustez, legean aurreikusitakoen artean ez dagoena; alegia, bai eskaera bai onarpena ibilgailua matrikulatu aurretik egitea. Horrela, zergaren autolikidazioa egiterakoan, eta arrazoia edozein izanda

²⁹ Arartekoaren ebazpena, 2007ko azaroaren 22koa; horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari gomendatzen zaio Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsi dezala babes ofizialeko etxebizitza bat eta, ondorioz, zerga onura horren baitan oker jasotako zenbatekoak itzul ditzala.

ere, ez bada jasota geratzen erosleak ezgaitasunen bat duela edo familia ugaria duela, Administrazioak, ondoren, ez du inolako aukerarik ematen egindako akatsa zuzentzeko, interesdunak frogak izan arren zerga likidatzerakoan jada betetzen zituela salbuespena edo murrizketa aplikatzeko eskakizun guztiak.

- **Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa)**

Zerga honen inguruan arazo gutxi izan dira. 2007an, arazo horiek ezgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzeko ibilgailu egokituak erosteari BEZ murriztua aplikatzeko kasuekin erlazionatuta egon dira. Horietako batean bertan ere ez da beharrezkoa izan erakunde honek zerga administrazioaren aurrean esku hartzea.

Tokiko zergak

- **Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)**

Urtean zehar aztertu ditugun OHZrekin erlazionatutako kontuan artean, ondoren jasotakoa azpimarratuko dugu, interes berezia baitu **epez kanpo aurkeztutako erreklamazio katastralen tratamenduari** dagokionez.

Interesdunak adierazi zuen okerra zegoela bere lokalaren balio katastrala zehazte aldera egin zen lokalaren azaleraren neurketan. Hori zela-eta, eraginik jasan ahal izan zuten OHZren inguruko ordainagiri guztiak berrikus ziezazkiotela eskatu zuen. Alabaina, Udalak okerra onartu zuen arren, urte horretako likidazioa baino ez zuen erregularizatu eta aurreko urteetakoak berrikusteko edozein aukera ukatu zuen, likidazio horiek irmoak eta, hortaz, aurkaezinak zirela esanez.

Irizpide hori egokitzen jo ahal izango litzateke errekurritutako likidazioen akatsa zuzenbideko okerra balitz, eta ezegokitzen, berriz, egitezkoa balitz, kasu honetan gertatzen den bezala (egitezko okerra izango da egitate, gauza edo gertakari baten inguruan izandakoa, hau da, inolako iritzi, irizpide partikular edo kalifikazioarekin zerikusirik ez duen errealtateko zerbait eta, beraz, bistakoa eta eztabaidaezina dena; hortaz, ezin esan daiteke egitezko okerra nahiz oker materiala edo aritmetikoa dagoenik tartean balorazio iritzia baldin badago, kalifikazio juridikoa behar badu edo hori zuzentzeko ekintzaren zentzua funtsean aldatu behar bada).

Ondorio hori **zerga alorrean oker egindako diru sarrerak itzultzeko** prozedura araupetzen duen 73/1991 Foru Dekretuaren lehen xedapen gehigarritik dator. Xedapen horren arabera, ez dira itzuliko irmo bihurtu diren administrazio egintzei jarraiki egindako zerga arloko diru sarrerak; kasu horietan, berrikusteko prozedura zehatz batzuen bidez bakarrik eska daiteke itzulketa, prozedura horietako bat, hain zuzen ere, **egitezko okerra** egotea izanik.

Ildo horretatik eman du epaia Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak, 2006-07-21eko 26.784 zk.ko epaitzan, higiezin bat eraiki zen urtea oker jarrita zegoela-eta. Ebazpen horrek behin balorazio katastralari amaituta horren inguruan ezartzen ziren erreklamazioei zegoen Administrazioak ordura arte sistematikoki aplikatzen

zuen irizpide orokorrarekin hausten du. Irizpide horren arabera, erreklamazio horren ondotik egin litekeen erregularizazioak ez luke, inolaz ere, atzeraeraginik izango.

Udal horrekin orain arte egin diren gestioek ez dute oraino emaitza egokirik izan. Hala ere, espero dugu tartean den administrazioak, azkenean, bere egitea kasu honen inguruko irizpide aldaketa eta oker bera duten likidazio guztiak erregularizatzea, mugatzat preskripzioa bakarrik hartuta.

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ)

Zerga honetan oraindik ere gehien agertzen diren arazoak **ezgaitasunagatiko salbuespenari** lotutakoak dira.

Kontu hori luze eta zabal aztertu genuen, gomendio orokor baten bidez, 2004ko gure txostenean (ikusi VI. kapitulua). Gomendio horretan, kasuan kasuko udalei eskatu genien utz ziezaioleta salbuespena aplikatzeko orduan izan behar zen ezgaitasunaren ezaugarriekiko irizpide murriztaileak erabiltzeari.

Hala ere, zenbait urte beranduago, onartu behar dugu ez dugula ikusten gure autonomia-erkidegoko udalek aurrerapenik egin dutenik %33ko ezgaitasuna edo handiagoa duten pertsonen aplikagarri zaien salbuespenari dagokionez TMIZri buruzko foru arauak 2004az goerotik barneratu zuten aldaketa onartzearen inguruan. Are gehiago, esan genezake, zenbait kasutan, **atzerapausoa** ere antzeman dugula, salbuespena onartzeko, ibilgailuak egokituta egon behar duela ere adierazi baitute zenbait udalek beren ordenantzetan; horrela, ezgaitasunagatiko salbuespenaren aplikazio eremua Toki Ogasunen 2002ko erreforma baino lehenagoko mailara jaitsi da.

Hainbat udalek ezgaitasunagatiko salbuespena zergaren foru arauan erregulatuta dagoen bezala aplikatzeko dituzten errezeloez gain, aurtan beste gatazka-elementu berria agertu da, Zergen Zuzendaritza Orokorraren kontsulta bat zabaltzean sortua (2005-02-18ko kontsulta loteslea). Bertan esaten denez, legezkoa da salbuespena atzeraeraginez onartzea hori interesdunarentzat onuragarria denean (betiere, beharrezko egitatezko kasuak egintza eraginkorra izateko ezartzen den datarako baldin bazeuden).

Kontsulta horretan ezarritako jarraibideei jaramon eginez, eragindako zenbait pertsonak beren udaletara jo eta zegoen eskaera aurkeztu zuten, baina udaletako batzuek ez zuten Zergen Zuzendaritza Orokorraren irizpidea onartu eta, ondorioz, gai horren inguruko hainbat kexa aurkeztu ziren erakunde honetan.

Guri dagokigunez, azaldutako kasu guztietan, lehenik eta behin kasuan kasuko udalari zuzendu gintzaizkion, gaiaren inguruan zuen iritzia zer arrazoitan oinarritzen zuen behar besteko xehetasunez ezagutze aldera.

Azkenik, kontsulta bera eta udaletatik jasotako erantzunak aztertuta, ateratako ondorioa izan zen hark, administratuaren ikuspegitik erakargarria izan daitekeen arren (salbuespena eskatzeko epea maximora luzatzen du eta preskripzioarenarekin bat egitea lortzen du), ez duela arrazoibide juridiko solidorik, ez baititu kontuan hartzen aldizka kobratzen diren zergen likidazioak irmo egitearen ondorioak, ezta eskatu beharreko salbuespenen berezko ezaugarriak ere.

Egoera horretan, eta tokiko zerga sistemaren berezitasun propioak aintzat hartuta, erakundeak, azkenean, aipatu kontsultari men egitearen inguruan gure autonomia-erkidegoko udal bakoitzak hartzen duen erabakia errespetatzearen alde egin du.

Ezgaitasunagatik salbuespenarekin lotuta dagoen eta 2007 osoan interes berezia piztu duen beste kontu bat pertsona ezinduen aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasunari buruzko **51/2003 Legearen** bitartez heldu da.

51/2003 Legearen 1.2 artikulua egiten duen alderatzearen zenbaterainokoaren inguruan sortu zen eztabaida orokorra harreman juridikoen eta zerga harremanen eremura ere zabaldu da, zehazki, TMIZn gertatzen den bezala, eskatzaileak %33ko ezgaitasuna izanez gero baino aplikatzen ez diren salbuespenen eta gainerako zerga onuren eremura.

Horren baitan zehaztu egin behar da ea, 51/2003 Legea onartu zenez geroztik, erabateko ezintasun iragankorra, ezintasun absolutua edo baliaezintasun handia duten (eta klase pasiboen erregimenaren egoera baliokideetan dauden) Gizarte Segurantzako pentsiodunak, automatikoki eta ondorio guztietarako, elbarriak edo ezgaituak diren, horrek dakartzan era guztietako eskubide eta abantailekin.

Gatazka ugari sortu dira agindu hori aplikatzeko modua eta horrek dituen ondorioak zehazten saiatzerakoan. Alor eta sektore desberdinetan askotariko interpretazioak izan dira.

Justizia-auzitegi nagusiek erabaki ezberdinak eman dituztenez, hainbat kasazio errekurtsu aurkeztu dira doktrina bateratzeko. Errekurtsu horietatik lehena Auzitegi Goreneko Lan Arloko Salak ebatzi du 2007ko martxoaren 21eko epaian. Jarraian, epai horretako zuzenbideko hirugarren oinarria bildu dugu:

“De las consideraciones anteriores se infiere que la atribución de la condición o estatus de persona con discapacidad pertenece al grupo normativo de la Ley 13/1982 y no al de la Ley 51/2003. Así se indica de manera expresa en el art. 10 LISM, que atribuye a equipos multiprofesionales de valoración, entre otras competencias, la valoración y calificación de la presunta minusvalía, determinando el tipo y grado de disminución en relación con los beneficios, derechos económicos y servicios previstos en la legislación. La disposición reglamentaria que desarrolla esta competencia de valoración y calificación es el RD 1971/1999 que contiene en su Anexo I un baremo de los valores porcentuales que corresponden a diferentes dolencias o enfermedades con secuelas incapacitantes.

El precepto contenido en el art. 1. 2 de la Ley 51/2003 despliega, por tanto, plena eficacia en todo el ámbito de materias de dicha ley; es precisamente esto lo que quiere decir la expresión “en todo caso”. Pero no alcanza a la atribución con carácter general de la condición de minusválido o discapacitado. Como se cuida de decir también el propio art. 1. 2 de la Ley en su pasaje inicial, la atribución automática de tal carácter a los perceptores de pensiones de incapacidad permanente de la Seguridad Social ha de circunscribirse “a los efectos de esta ley”.

El argumento de interpretación sistemática que se acaba de exponer puede ser completado con un argumento de interpretación finalista, que atiende a los

distintos propósitos de protección que persiguen las normas de protección de la discapacidad y la acción protectora de la Seguridad Social en el ámbito de la incapacidad permanente. La definición de los grados de incapacidad permanente a efectos de la Seguridad Social atiende exclusivamente a consideraciones de empleo y trabajo; en cambio, la definición de la minusvalía incluye como se ha visto otras dimensiones de la vida social, como son la educación y la participación en las actividades sociales, económicas y culturales. La coincidencia de los respectivos campos de cobertura de una y otra legislación puede ser amplia; y el legislador puede establecer una asimilación o conjunción de los mismos, como sucede en el art. 1.2 Ley 51/2003. Pero, junto a estos espacios de coincidencia, hay otros que corresponden privativamente bien a la Seguridad Social bien a la protección de los discapacitados, cuyos beneficiarios han de ser determinados, en principio, mediante los procedimientos establecidos en uno y otro sector del ordenamiento social.”

Auzitegi Gorenak doktrina bateratzeko eman zuen erabaki hori gatazka luze honen amaiera da eta, zehazki TMIZri dagokionez, salbuespena aplikatzearen inguruko edozein zantzantza argitzen du (gogora dezagun salbuespen hori 51/2003 Legetik kanpo dagoela).

Ezgaitasunagatiko salbuespena alde batera utzi eta kudeaketa eta prozedurarekin erlazionatutako kontuei helduz, hainbat zerga ekitalditako likidazioen aurka bideratu den espedientearen inguruko aipamen berezia egingo dugu. Likidazio horiek zergapetutako ibilgailuaren titularrak ez zela egiaztatu zuen pertsona bati igorri zizkion Sestaoko Udalak. Likidazio horietako batzuk, gainera, ibilgailua desegin egingo zela-eta bajaran egon zen ekitaldiei zegozkien.

Espediente hau izapidetzeko prozesuari amaiera emanez [ekainaren 28ko ebazpena](#)³⁰ eman zen. Bertan, udal horri eskatu zitzaion erabat deusez deklaratu zitzala igorritako likidazioak, hauek edozein zergaren funtsezko elementuei, zehazki, subjektu pasiboari eta zerga oinarriari, zuzenean eragiten zieten oker balio gabetzaileak egin baitzituzten.

Hala ere, Udalak erabat baztertu zuen gure gomendioa eta aurreko txosten batean ere aipatu zuen arrazoibide berari heldu zion, nahiz eta, bere garaian, arrazoibide horren aurka irrotasunez egin genuen. Arrazoibide horri jarraiki, legez kanpokotzat jo zen espedientea izapidetzeko prozesuan egin ziren okerrak formalak baino ez ziren eta horiek ez zekarten interesduna babesik gabe uztea. Halaber, administrazio egintzen akats formalei buruz zegoen jurisprudentzia jakina aipatu zuen; honen arabera, bidezkoa eta legezkoa den administrazio egintza baten akats formalek soil-soilik interesduna babesik gabe uzten dutenean edo bete ez den izapidea berariaz ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko ezarri denean eta ebazpenaren baliozkotasunerako garrantzitsua denean eragingo dute deuseztasuna.

Gomendioan bertan ere halaxe jaso genuen: “Hizpide ditugun akatsak ez dira formalak, zergaren funtsezko elementuei eragiten baitiete; akats horiek dituzten admi-

³⁰ Arartekoaren ebazpena, 2007ko ekainaren 28koa; horren bidez, Sestaoko Udalarik gomendatzen zaio erabat deusez deklaratu zitzala zergaren subjektu pasiboak ez den pertsona bati TMIZgatik igorritako likidazioak eta oker ordaindutako kopuruak itzul diezazkiola.

nistrazio egintzak ere ezin dira bidezkotzat edo legezkotzat jo, ez dagoen kreditua sortu baitute Toki Ogasunaren alde. Ezin onar daiteke artifizialki pertsona baten aurkako zorra sortzea eta, gero, perklusio arrazoiak direla medio, haren aurkako erreklamazioa egiten ez uztea.”

Hala, esku hartzeko gure ahalmen guztiak agortu genituenez, aipatu espedientea amaitutzat eman genuen.

Nolabait aldi berean, erakunde honek aurretik azaldutakoarekin antzekotasunen bat zuen beste kexa-espediente bat izapidetu zuen udal berean. Horren arabera, pertsona batek bere ibilgailua berriro matrikulatu eta Zamoran helbideratu zuen; bi alderdi horiek behar bezala jasota geratu ziren bere zirkulazio baimenean. Hala ere, Udalak ibilgailuaren helbide aldaketa bazter utzi eta TMIZren likidazioak igortzen jarraitu zuen hurrengo bi urteetan. Interesdunak zerga kontzeptu beragatik bi administrazioari ordaintzen ari zela ikusi zuenean, Sestaoko Udalari eskatu zion bidegabe ordaindutako kuotak itzul ziezazkiola, baina, Udalak erantzun ez zionez, erakunde honetara jo zuen.

Udalari hainbat idazki bidali dizkiogun arren, txosten hau egiten amaitutakoan oraindik ez zaigu adierazi kexagilearen egoera erregularizatu duenik, nahiz eta, oraino, ez duen adierazi eskatutako erregularizazioa ez egitearen aldekoa denik.

Udal honek, inolako azalpenik gabe, eguneratuta ez dagoen eta, azken batean, Trafikoko Buruzagitzako Ibilgailuen Erregistroan jasotakoarekin zerikusirik ez duen informazioa erabili du behin baino gehiagotan. Kontua benetan kezagarria iruditzen zaigu eta, hori dela-eta, laster aztertuko dugu, partikularrei adierazitakoen moduko kalteak eragin diezazkieketen irregulartasun gehiago sortzea saihesteko.

Udal tasak

Tasak garrantzi handiko finantza-baliabidea dira toki erakundeentzat. Zergekin gertatzen ez den bezala (horietan, zerga oinarriak ez dakar Administrazioak zerbait egin behar izatea hura ordainarazteko), tasen egitatezko oinarriak bi aldaera posible izan ditzake:

- Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.
- Subjektu pasiboari bereziki eragiten dioten edo onura berezia dakarkioten toki eskumeneko zerbitzuak egitea edo jarduerak burutzea.

Zenbait tasak dirua biltzeko ahalmen handia dutela erakutsi dute, besteak beste, zona mugatuetan ibilgailuak aparkatzeagatik ordaindu beharrekoak, taxi lizentziak, lurzoruari eta hiri antolamenduari buruzko legeria betez eman beharreko hirigintzako lizentziak eta establezimenduen irekiera-lizentziak emateagatik ordaindu beharrekoak, eta hiri hondakin solidoak (zaborrak) bildu, tratatu eta ezabatzeagatik ordaindu beharrekoak.

Txosten hau aztertzen ari den aldian, zerga arloko errekurtsu mota honi dagokionez erregistratu ditugun kexa azpimarragarrienak honako gai hauei buruzkoak izan dira:

- Ur hornikuntza (kexagileak ez zeuden ados entitate hornitzaileak ezarritako gutxieneko kontsumoarekin).
- Zabor bilketako zerbitzua (jarduerarik gabeko lokalei neurritz kanpoko kuotak ezarri zitzaizkien).
- Ibilgailuen aparkaleku arautua.

Prezio publikoak

- *Euskal Autonomia Erkidegoak ordainarazten dituen prezio publikoak*

2007 amaitzear zegoela, erakunde honetan bi kexa aurkeztu ziren Administra-zioak ez zuelako Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2002 Legearen 39.1) artikuluan jasotako salbuespena aplikatu. Manu horrek dio, besteak beste, **ezinduren bat duten familietako kide diren ikasleak unibertsitateko prezio publikoak ordaintzetik salbuetsiko direla**.

Kexagileek diotenaren arabera, zegozkien matrikulak ordaindu ondoren, ordura arte ezezaguna zitzaien salbuespenari heltzeko beharrezko betekizunak betetzen zituztela jakin zuten. Antza, salbuespena ez zen Unibertsitateak kasuan kasuko formularioak formalizatzeko landutako dokumentazioan ere aipatu. Interesdunek, horretarako eskubidea zutela jakin zutenean, matrikulatzeko ordaindu zituzten zenbatekoak itzul ziezazkiela eskatu zioten Errektoretzari, baina Administrazioak haien eskaerari uko egin zion, hori epez kanpo aurkeztu zela esanez.

Gaia aztertu ondoren egiaztatu ahal izan genuen bezala, aipatu arauak ez du zalantzarik sortzen EHUko prezio publikoen gaineko salbuespena familia-unitatean %33ko ezgaitasuna edo handiagoa duen kideren bat duten ikasleei aplikagarri zaienik (2004-2005 ikasturtetik gaur arte). Halaber ikusi ahal izan genuen, gaur arte, ez direla moldatu egun indarrean den legeriari dagozkion administrazio agiriak. Hori dela-eta, salbuespenaren balizko onuradunek ezin izan diote une egokian horri heldu eta kalte ekonomiko larria jasan dute.

Aurrekari horietan oinarrituta, erakunde hau aipatu arloan ardurak dituen unibersitateko organoari zuzendu zaio eta adierazitako arazoa berrikusteko eskatu dio. Txosten hau egiten amaitutakoan, erantzuna jaso zain gaude.

- *Udalaren prezio publikoak*

Erakunde honek 2007an ogasunaren arloan burutu dituen jardueren erreposoarekin amaitzeko, berariaz aipatu behar ditugu toki ogasunek kobratzen dituzten prezio publikoak. Zergazkoak ez diren finantza-baliabide horiek garrantzi handikoak dira horientzat, norbere borondatez eskainitako hainbat zerbitzu publiko finantzatzeko erabiltzen baitira. Prezio publiko horien artean, kultura, kirol eta aisiarekin erlazionatutakoak azpimarratu behar ditugu, horien inguruan kexak helarazi baitzaizkigu.

Eredu gisa, eta beren eduki bitxiagatik, honakoak aipa ditzakegu: [ekainaren 1eko ebazpena](#)³¹ (horren bidez, erakunde honek Arabako udal bati gomendatzen dio udal zerbitzuen erabiltzaileei zorrak dirutan ordaintzeko aukera eman diezaiela); edo [urriaren 30eko ebazpena](#)³² (horren bidez, erakunde honek udalari gomendatzen dio baliogabetzat jo dezala azkenean egin ez zen dantza-ikastarora joan ahal izateko interesdunak ordaindu zuen prezioaren erdia bakarrik itzuliko zela ezarri zuen udal erabakia).

³¹ Arartekoaren ebazpena, 2007ko ekainaren 1ekoa; horren bidez, Zigoitiko Udalari gomendatzen zaio udal zerbitzuen erabiltzaileei zorrak dirutan, erabilera legaleko diruarekin, ordaintzeko aukera berma diezaiela.

³² Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 30ekoa; horren bidez, Ibarako Udalari gomendatzen zaio baliogabetzat jo dezala egin ez zen dantza-ikastaroari zegokion prezio publikoaren %50 itzultzeko emandako udal erabakia eta beste erabaki bat har dezala, interesdunei ordaindu zuten zenbatekoa osorik itzul dakien.

7. HERRIZAINGOA

Sarrera

2007. urtean Ararteko erakundeak 129 kexa jaso ditu Herrizaingo arloan, hau da, aldi horretan aurkeztutako kexa guztien %8,28. Honela banakutzen dira, eragindako administrazio publikoak aintzat hartuta:

| | |
|---|----|
| - Toki administrazioa | 76 |
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 50 |

Hizpide izandako gaiak kontuan hartuta, honela banatu dira:

| | |
|---|----|
| - Trafikoa | 91 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura..... | 19 |
| - Eskubideak eta askatasunak | 8 |
| - Herritarren segurtasuna | 6 |
| - Jokoak eta ikuskizunak | 2 |
| - Beste batzuk | 2 |
| - Babes zibila | 1 |

Gainera, 6 espediente izapidetu ditugu ofizioz, honako gai hauei buruzkoak:

| | |
|---|---|
| - Atxiloketa-zentroak | 4 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura..... | 2 |

Aldi honetan **trafikoari** buruz jaso dugun kexa-kopurua zertxobait handiagoa izan da aurreko urtekoarekin alderatuta. 2006an gertatu zen bezala, kexek, nagusiki, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren eta Bilboko Udalaren jarduerak izan dituzte hizpide. Neurri txikiagoan izan bada ere, Donostia, Gasteiz, Basauri, Durango, Getxo, Portugalete eta Zarauzko Udalei ere eragin diete. Beste udal administrazio batzuen aurka bideratutako batzuk ere izan dira, besteak beste, Zornotza, Arrigorriaga, Basauri, Erandio, Pasaia eta Sestaoko Udalen aurka.

Bereziki aipatu behar dugu Herrizaingo Sailak eta Bilboko Udalak jarrera harkorra izan dutela arlo material honetan helarazi dizkiegun gogoetekiko eta, orobat, bi administrazioek arlo horretan prestasunez bete dutela Ararteko erakundeari laguntzeko duten betebeharra.

Kexetan adierazitako kontuei dagokienez, ez da funtsezko aldaketarik izan. Aurreko urteetan bezala, 2007an izan diren arazoak nagusiki **zigor araubideari** buruzkoak izan dira.

Zigorren inguruko kexetako batzuek oraindik amaituta ez zeuden prozedurak izan dituzte hizpide. Hori dela-eta, egokia iruditu zaigu azpimarratzea ezin dugula kasu horietan esku hartu, zigortzeko prozedura amaitzen ez den arte eta zigortutako pertsonak

erabil ditzakeen administrazio baliabide guztiak agortzen ez dituen arte. Halaber, guk esku hartu ahal izateko, beharrezkoa da aurrez, prozeduran, helarazten zaizkigun kontuen inguruko alegazioa aurkeztu izatea, Administrazioak horiei buruzko iritzia eman ahal izan dezan.

Aurten ere, zigor araubideari buruzko kexak, nagusiki, zigorrak ezartzeko bideratutako **prozedurari** buruzkoak izan dira. Kexa horietan lehendik ere aurkeztu ziren kontuak aipatu ziren, besteak beste, jakinarazpen pertsonalak egiteko modua eta prozeduren izapidetze estandarizatua.

Horrela, ohikoa izaten jarraitzen du interesdunek betearazteko bidera arte zigortzeko prozeduraren berri izan ez dutela adieraztea. Ikusi ahal izan dugunez, hori, kasu askotan, jakinarazpena ediktu bidez egin delako gertatu da, bide horretara jo ahal izateko legez ezarritako betekizunak aurrez bete izan gabe.

Orobat, ikusi ahal izan dugu jakinarazpen pertsonala emateko bigarren saiakera ez dela beti ordu desberdinetan egiten, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikulua ezarritakoari jarraiki, eta, postaz egindako bigarren jakinarazpen saiakerak huts egiten duenean, administrazio espedienteak ez duela jasotzen hartzailearen postontzian bigarren saiakeraren abisua utzi denik, abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuak onartu zuen posta zerbitzuen prestazioari buruzko araudiaren 42. artikulua ezartzen duen bezala.

Hori dela-eta, “Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko zehapen prozeduran postaz egiten diren jakinarazpenak: jakinarazpenak behar bezala saiatuta egin direla ulertzeko baldintzak, jakinarazpena jaso behar duena ez dagoenean” izeneko gomendio orokorraren edukia ekarri behar dugu gogora berriz ere (2002ko ohizko txostena) eta arreta bereziz jokatzeko eskatu nahi diegu tartean diren administrazio guztiei aipatu eskakizunak bete ditzaten.

Beste behin ere gogorarazi behar dugu, Auzitegi Gorenak 2004ko urriaren 28ko epaian azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikuluari dagokionez ezarri zuen lege doktrinaren arabera, bigarren jakinarazpen saiakera lehenengoaren ordu desberdinean egin dela ulertzeko bien artean hirurogei minutuko aldea egon behar duela gutxienez, izan ere, zenbait jardunbidek oraindik ez dute doktrina hori betetzen.

Jarduteko modu oker hori antzeman dugu, esaterako, 2006. urtearen amaieran jaso genuen kexa bat aztertzerakoan. Kexa Gasteizko Udalak izapidetu zuen zigortzeko prozedura bati buruzkoa zen. Prozedura horretan, salaketa zuzenean jakinarazteko bi saiakerak 50 minutuko aldearekin egin ziren. Nahiz eta, hasiera batean, Udalak adierazi legezko manuei jarraiki jokatu zuela –administrazio espedientearen kontrako agertzen zen–, oker jokatu zuela onartu zuen gero eta zigorra ondorioz gabe utzi zuen.

Udal horrek berak ez du onartu, ordea, aipatu epaia baino lehen izapidetu zuen prozedura baten inguruan aurten egin behar izan diogun gomendio bat ([irailaren 24ko ebazpena](#))³³. Onartu ez zuen lehenagoko beste gomendio batean bezala (17/2006 Gomendia, ekainaren 26koa; horren berri 2006ko txostenean eman genuen), Udalaren iritziz, ezinezkoa zen aipatu epaia kasuari aplikagarri izatea, kexaren xede zen

³³ Arartekoaren ebazpena, 2007ko irailaren 24koa; horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio trafikoko zigortzeko prozedura bat bertan behera utz dezala eta, hala badagokio, bildu izan ditzakeen zenbatekoak itzul ditzala.

prozeduraren ondoren eman baitzen. Ez gentozen bat Udalaren planteamendurekin, bi gomendioetan adierazi genuen iritzia, 2002an, delako gomendio orokorrean bildu genituen arrazoibideetan oinarrituta baitzegoen funtsean. Arrazoibide horiek egiteko, orduan indarrean zegoen lege araudia hartu zen kontuan, baita aipatu manua une horretara arte interpretatu zuten jurisprudentzia eta doktrina ere.

Aurreko urteetan bezala, prozeduren izapidetze estandarizatua dela-eta 2007an aipatu diren kontuak, funtsean, alegazioak eta frogak aztertu ez izatearekin eta frogak besterik gabe ukatu izatearekin erlazionatuta egon dira.

Horri dagokionez, aztertzeo azaldu zaigun prozedura bat aipatu behar dugu. Bertan, ibilgailu baten titularrak adierazi zuen hainbatetan alegatu zuela, zegokion izapidean, ez zela bera gidatzen zihoana Ertzaintzak trafikoko arauak urratzeagatik salatu zuenean, eta gidaria izapide horretan bertan identifikatu zuela. Titularra kexu zen, Herrizaingo Sailak jaramonik egin ez zielako aurkeztutako identifikazioari eta egindako alegazioei, haren aurkako prozedura izapidetzen jarraitu zuelako eta salatutako arau-haustearen erantzule gisa zigortu zuelako.

Antzeko kontu bat helarazi zaigu sail horrek berak izapidetutako beste prozedura baten inguruan. Prozedura horretan, ustez urratzea egin zuen ibilgailuaren titularrak egotzi zitzaion arau-haustea egin baino lehen automobilari baja eman ziola alegatu eta frogatu zuen, baina administrazio horrek ez zituen aztertu ez egindako alegazioak ez bere alde aurkeztu zuen frogak.

Era berean, Bilboko Udalak enpresei ezarritako zigorren aurkako zenbait kexa aipatu behar ditugu. Zigorra enpresaren titulartasuneko ibilgailua TAO arautegia urratzeagatik salatu zenean nork zeraman identifikatu ez zutelako ezarri zen. Kasu guztietan, kexagileek adierazi zuten ez zutela identifikazioa egiteko aurretiazko errekerimendua jaso. Horiek zioten, gainera, Udalak baztertu egin zituela zigortzeko prozeduran alderdi horien inguruan egin zituzten alegazioak, baina, horretarako, alegazioak baloratu ere egiten ez zituen eta horiek bazter uzteko arrazoiak azaltzen ez zituen arrazoibide tipoa erabili zuela.

Kexa horietako askotan, eragindako administrazioek helarazi diegun balorazioa onartu dute eta, gure esku-hartzeari esker, ondoriorik gabe utzi dituzte kasuan kasuko zigorrak. Egokia iruditzen zaigu jarduteko modu hori, baina, beste batzuetan azaldu dugun bezala, gure ustez, arlo honetan eskumenak dituzten administrazioek egiten dituzten ahaleginen xedea prozedura horiek izapidetzerakoan aurrez zehazturiko ereduak erabiltzeak interesdunen berme eta eskubideak kalte ditzaten saihestea da, "Trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide segurtasuna: aurrez taxututako ereduaren erabilera zehapen prozedurak izapidetzean. Zenbait arazo defentsarako eskubidearen inguruan" (2003ko ohizko txostena) gomendio orokorrean adierazi genuenaren ildotik.

Hala ere, argitu behar dugu zigortzeko prozedura bat izapidetzerakoan egin daitezkeen huts guztiek ez dutela dagokien espediente baliogabe uztera eramaten. Hori hutsa larria denean baino ezin gerta daiteke. Hori dela-eta, kontua aztertzeo, beharrezkoa da prozedura oro har kontuan hartzea eta, bereziki, interesdunak leporatzen zaizkion egintzak, erabili ahal izan dituen defentsa-bitartekoak, espedientearen bukaerako ebazpenari dagokionez eman diren arrazoiaren garrantzia eta horiek leporatutako ekintzak hutsaltzeko duten ahalmena ezagutzen dituela.

Bestalde, jasotako zenbait kexetan, Administrazioak frogaren inguruan egin zuen balioztatzearekiko desadostasuna adierazi zen. Horietatik bi oso antzekoak ziren eta

Bilboko Udalarekin erlazionatuta zeuden gaiak aipatu ziren. Bi kasuetan, Udalak zigorra ezarri zien kexagileei, beren ibilgailuak behar ez bezala aparkatzeagatik bi udaltzainek haien aurka jarritako salaketen ondorioz. Kexagileen arabera, beste udaltzain batzuek eman zieten, berariaz, aldi batez bertan aparkatzeko baimena, ibilgailuek matxura mekanikoa izan zutelako eta arazoa konpondu bitartean haiek aparkatzeko beste lekurik ez zegoelako. Interesdunek aipatu baimenen kopia helarazi ziguten. Kexak, beraz, arrazoizkoak ziruditen. Esan zigutenarekin bat etorritz, gauza bera adierazi zuten prozeduran, baina, udal administrazioaren iritziz, baimenek ez zuten haiek errugabetzeko baliorik, ez zituztelako bete beharreko baldintzak betetzen. Gure ikuspegitik, baimena eman zuten agenteak baimenak ematerakoan errespetatu beharreko jarduteko parametroetara moldatu ez izateak ezin zituen, inolaz ere, kexagileak kaltetu; hauek, hasiera batean, eta kontrakoa frogatu ezean, ez zekiten agenteek nola jardun ohi duten. Administrazio espedientean ez zegoen halako frogarik eta, beraz, kexagileen jardunak justifikatuta zeudela iruditu zitzaigun. Udalak gure balorazioa onartu zuen eta zigorrak ondorioz gabe utzi zituen.

Froga balioztatzearekin erlazionatutako kontuak aipatu zituen beste kexa bat ezgaitasunen bat duten pertsonentzako txartelaren titularra zen batek aurkeztu zuen. Bertan adierazi zuenez, ez zegoen ados pertsona horientzat gordetako leku batean aparkatzeagatik Bilboko Udalak jarri zion zigorrarekin. Adierazi zigunez, prozedura udaltzain batek haren ibilgailuaren kontra jarritako salaketa baten ondorioz hasi zen kasu honetan ere. Udal agentearen iritziz, ibilgailuan jarritako txartelak ez zuen baliorik, bertan jasotako zenbait datu garbi ikusten ez zirelako. Agenteak ibilgailua bide publikotik kentzeko agindu zuen eta, ondoren, aparkatzeko txartela bera konfiskatu zuen. Espedientean ez zen aipatzen, udaltzainaren berrespen txostena eskatzeaz gain, beste inolako instrukzio egintzarik egin zenik gertakariak frogatze aldera, nahiz eta kexagileak adierazi bere ibilgailuan zuen ezgaituentzako aparkatzeko txartela jatorrizkoa zela eta udaltzainak antzeman zituen akatsak txartela denbora asko eguzkitan egoteagatik sortu zirela eta nahiz eta kexagileak bere ezintasuna frogatzeko agiriak ekarri. Espedientean ere ez zen jasotzen kendutako txartela edo horren kopia eta ez zen aipatzen prozedurako instruktoreak edo organo zigortzaileak agiri horren inguruan edota gaia zela-eta kexagileak egin zituen alegazioen inguruan baloraziorik egin zutenik. Gainera, Udalak adierazi zigunez, txartela galdu egin zen. Erakunde honen iritziz, kendu zen txartela arau-haustearen froga gisa erabili behar izango zatekeen eta, beraz, administrazio espedientean jasota geratu behar izango zukeen, egozketa-froga nagusi gisa, eta halaxe baloratu behar izango zatekeen. Halaber, uste dugu bideratzerakoan informazioa gutxienez zertxobait egiaztatu behar izango zatekeela txartela eman zuen udalarekin; horrela, aipatu agiria administrazio horrek kexagileari emandakoa ote zen ziurtatu ahal izango zatekeen, kexagileak zioen bezala, eta txartelaren egoera kaskarra azaltzeko egin zituen alegazioen sinesgarritasunari buruzko bere iritzia bildu ahal izango zatekeen (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137.4 artikulua). Administrazio espedientearen arabera, ez zen halakorik egin; alderantziz, instruktoreak eta organo zigortzaileak udaltzainaren balio judizioa bere baino ez zuten egin, trafikoa zaintzeko lanetan agintaritzako udaltzainek antzematen dituzten gertakarien egiazkotasun ustean babestuta, eta, uste horretan oinarrituta, interesdunaren alegazioak baztertu zituzten. Aipatu gogoetetan oinarrituta, adierazi genuen, gure iritziz, egindako instrukzioa ez zela nahikoa kexagilearen erantzukizuna frogatzeko eta Udalarari ohartarazi genion zigorra ondorioz gabe utzi behar zuela eta interesdunari ibilgailua

berreskuratzeko honek ordaindu zuen kopurua itzuli behar ziola. Udal administrazioak gure balorazioa onartu zuen.

Prozedurarekin zerikusirik ez duten arazoak hizpide dituzten zigor araubideko beste **gai** batzuei dagokienez, aurtan bi gai berri aipatu behar ditugu.

Horietako bat 2006. urtearen amaieran aurkeztu zitzaigun. Pertsona horri zigorra ezarri zion Herrizaingo Sailak, gehiegizko abiadurari lotutako arau-hauste larriagatik. Kexagileak adierazi zigun ez zetorrela bat ezarri zitzaion zigorrarekin, bere ustez, hori ezartzeko, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak bere esparruan aplikatu ohi dituenak baino graduazio irizpide zorrotzagoak hartu zirelako kontuan. Adierazi digunaren arabera, irizpide horiek aplikatu izan balira, 100 euroko isuna zegokiokkeen, eta ez jarri zitzaiona, hots, 150 eurokoa, eta ez zituzkeen kendu zitzaizkion 2 puntuak galduko. Aipatu sailak eman zigun informazioa aztertuta ikusi ahal izan genuen haren jardura ordenamendu juridikoarekin bat zetorrela eta, beraz, hori zela medio, ez genuela oinarri nahikorik kexan aipatutako zigorra legez kontraktotzat hartzeko eta, interesdunak nahi bezala, administrazio autonomikoari zigorra txikiagotu zezala eskatzeko. Gure ikuspegitik, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak beste irizpide onuragarriago batzuk aplikatzen aritzeak ezin zezakeen gaiaren inguruko gure balorazioa aldatu. Gainera, gure eskumenen esparruan sartzen ez den administrazioa izanik, ezin genezakeen bere jardueraren inguruko esku-hartzerik bideratu. Hala ere, gure iritziz, kexak agerian utzi zuen beharrezkoa zela, gehiegizko abiadurarekin erlazionatutako kasuetan, zigor administrazioek batera jardutea arau-hauste bera non gertatzen den kontuan hartuta ezberdin zigor ez dadin, izan ere, dugun informazioaren arabera, horrelako kasuetan, inguruabar larrigarriak egon ezean, zigorraren larritasun maila nolabaiteko automatismoz zehazten da, aurrez ezarritako baremo batzuk aplikatuta, eta aplikatu beharreko legeria bakarra da.

Beste kexak gidabaimeneko puntuak berreskuratu ahal izateko egin beharreko bideko sentsibilizazio eta berreziketa ikastaroetan hainbat disfuntzio izan direla erakutsi du. Kexagileak puntu guztiak galdu zituen hainbat zigorren ondorioz. Hala, gure esku-hartzea eskatu zuen, ez baitzuen aipatu ikastaroak eskaintzen zituen autoeskolarik topatzen. Azaldu zigunez, Herrizaingo Sailak bere web orrian kontu horri buruz ematen zuen informazioa ez zetorren bat errealitatearekin, egin nahi zituen ikastaro horiek ez baitziren inon eskaintzen, antza, autoeskolek gutxieneko taldeak osatzea eskatzen zutelako. Herrizaingo Sailarekin harremanetan jarri ginen eta honek adierazi zigun ikastaroak egiteko kontratua egin zuela eta, horri jarraiki, onartutako egutegia, bere web orrian jaso, derrigor bete behar zutela autoeskolek, betiere, ikastaroak egin nahi zituen inor baldin bazegoen. Halaber, jakinarazi zigun, kexaren ondotik zenbait ikerketa egin ondoren, halaxe egiaztatu ahal izan zuela, alegia, kontratua ez zela itundu zenaren arabera betetzen ari eta zenbait autoeskolatan, gainera, gutxieneko talde bat matrikulatuta bazegoen bakarrik eskaintzen zirela ikastaroak. Azkenik, esan zigun, behin arazoa ikusita, beharrezko neurriak hartu zituela ikastaroak kontratuan adierazi bezala eman zitezten eta kexagileak gidabaimena berreskuratzeko egin beharrekoa berehala egin ahal izan zezan.

Bestalde, atal honetan bertan, egokia iruditu zaigu aurtan antzeman dugun arazo bat aipatzea. Arazo hori Herrizaingo Sailak, behin betearazteko bidetik kobratuta, ondoriorik gabe uzten dituen diru zigorrak itzultzeari buruzkoa da. Kontu horren inguruko hainbat kexa izapidetzerakoan, betearazpen bidetik ordaindutako zenbatekoa itzultzeko epea gehiegi eta neurritz kanpo luzatzen ari zela ikusi genuen. Horregatik, Ogasun eta

Herri Administrazio Sailari zuzendu gintzaizkion, informazio eske, berari baitzegokion itzulketa egitea. Sail horrek esan digu zenbatekoak itzultzeko berariazko programa ezarri duela eta, horri esker, epeak laburtu egingo direla. Neurri horrek nahi den emaitza izatea eta antzeman ditugun gabeziak zuzentzeko balio izatea espero dugu.

Zigor araubidearekin zerikusirik ez duten trafikoaren arloko beste alderdi batzuei dagokienez, aipatu behar dugu zenbait kexa jaso ditugula hainbat udal administrazioek behar ez bezala aparkatutako ibilgailuen arazoaren aurrean atzera egin dutela salatzen. Kasu guztietan, eragindako administrazioek aipatu arazoak konpontzeko beharrezko neurriak hartuko zituztela hitzeman zuten.

Era berean, beste pertsona baten kexa ere aipatu behar dugu; horren bidez, Zornotzako Udaltzaingoari laguntza eskatu eta jaso zuen erantzunaren berri eman zuten. Zioenez, bere ibilgailuak karrozerian zenbait kalte jasan zituen bide publikoan aparkatuta zegoela eta, horiez jabetu zenean, Udaltzaingoari dei egitea erabaki zuten. Zirudienez, kalte horiek berearen ondoan utzita zegoen beste ibilgailu batek eragin zizkion. Aipatu zigunez, hasiera batean udaltzainek ez zuten bertaratu nahi izan eta, gero, agertu zirenean, ez ziren arazoan sartu. Udalarari zuzendu gintzaizkion informazioa eman ziezagun bai kexagileak aipatutako kontuei buruz bai kexa eragin zuenaren moduko laguntza-eskaera jasotzen denean Udaltzaingoak jarraitzen dituen jardunbideei buruz. Helarazi zigun informazioan, Udalak ezeztatu egin zuten Udaltzaingoak atzera egin zuenik eta gertakariak izan ziren lekura joateari uko egin zionik, baina, orobat, onartu egin zuten polizi jarduna ez zela bete beharrekotara jarraitu garatu. Azalpen ofizialak ikusita, adierazi genuen, gure ustez, Udalak bidezko neurriak hartu behar zituztela halako egoerarik berriro gertatzea saihesteko eta behar ez bezala jokatu zuten agenteei gogorarazteko, halako kasuetan, ezarritako parametroekin bat etorritik jardun behar dutela.

Aurten, Gasteizko Udaltzaingoaren, Ertzaintzaren eta SOS Deiak zerbitzuaren artean berriz ere koordinazio arazoak egon direla salatu duen kexa bat jaso dugu. Kasu honetan, kexagileak 112 telefonora dei egin zuten laguntza-eske, gidatzen zihola, kamioi batek haren ibilgailua aurretik eramanez eta ihes egin zuelako. Kexaren arabera, koordinazio akats batengatik ez zitzaion jaramonik egin eskaerari.

Jasotako zenbait kexatan, mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako aparkaleku plazen erabilera ezegokia aipatu da. Hori dela-eta, gogorazi behar dugu ezinbestekoa dela udalek pertsona horien eskubideak defendatzeko konpromiso sendoa eta irmoa hartzea eta arretaz betetzea gordetako plazak behar bezala erabiltzen direla zaintzeko ordenamendu juridikoak ematen dizkien eginkizunak.

Eta, azkenik, kexa eragin du, orobat, 2007an Arrigorriagako Udalak zegokion ordenantzaren bidez autokarabanak aparkatzeko ezarri zuten debekuak.

Aurten, Ibarako Udalarari buruzko kexa batean egin genuen **esku-hartzea amaitu dugu** (kexa horren berri 2005eko txostenean eman genuen). Alabaina, ez dugu lortu administrazio horrek kexa ekarri zuten arazoa konpontzeko, alegia, Idoiaga plazan oinezkoen erregimena ez betetzearen arazoa konpontzeko, Herrizaingo Sailak proposatu zizkion neurriak aztertzea, ezta egoerari irtenbidea aurkitzeko beste neurri egokirik hartzea ere. Helarazitako informazioaren arabera, Udalak zenbait neurri aurreikusituen; horiek, ordea, ez ziren nahikoak, Herrizaingo Sailak eta udal arkitektoak berak jada 2004an adierazi zuten moduan. Nolanahi ere, erreklamazioa aurkeztu duen jabe-

kideen komunitateak aurten behin baino gehiagotan esan digu bere kexaren oinarria zen arazoak hor jarraitzen zuela eta ezarritako neurriek ez zutela hari irtenbidea aurkitzeko balio izan. Udalari eskatu diogu egiazta dezala ea, auzotarrek adierazi bezala, benetan urratzerik izan den eta, egiaztapenak egin ondoren arazoak hor diruela ikusiz gero, horri irtenbidea aurkitzeko beharrezko neurriak har ditzala –nola Herrizaingo Sailak proposatu dizkionak hala egokia iruditzen zaion beste edozein–. Gogoeta horiek eginda, espedientea itxi dugu, izan ere, kexa izapidetzen hasi ginenetik denbora asko igaro dela eta denboraldi honetan udal administrazioa gure planteamenduarekiko oso harkor egon ez dela ikusita, jarduteko genituen aukera guztiak agortu ditugu.

Halaber, aipatu behar dugu **Herriaren Defendatzaileari** bere eskumeneko gaiak jorratzen zituzten zenbait kexa **helarazi** dizkiogula, besteak beste, gure autonomia-erkidegoaz kanpoko gidabaimenak trukatzeri edo Estatuan izapidetu beharreko zigortzeko prozedurekin erlazioatutako kontuei buruzkoak. Azken horietan, funtsean, jakinarazpenak, froga balioztatzearen inguruko kontuak eta Herrizaingo Sailak izapidetutako prozedura batean gidabaimena kentzeko erabakia izan dira hizpide.

Kexa bana bideratu dugu Andaluziako eta Nafarroako Defentsa Erakundeetara, baita Frantziako Médiateur erakundera ere. Kexa horiek beren kontrolpean dauden zigortzeko prozedurei buruzkoak izan dira.

Azkenik, esan behar dugu **ezin** izan ditugula jasotako zenbait kexa **onartu**, nagusiki, horien oinarrian zegoen administrazio jardueran irregulartasunik antzeman ez genuelako edo gure eskumen eremutik kanpo zeudelako.

Ohikoa den bezala, beste defentsa-erakunde batzuetara bidalitako kexak eta onartu ez ditugunak ez daude sarrera honen hasieran aipatu ditugun datu kuantitatiboetan barneratuta.

* * *

Herrizaingoaren arloaren barruko gainerako gaiei dagokienez, aurten aurkeztu dizkiguten kexetan, nagusiki, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila eta Bilbo, Donostia eta Getxoko Udalak aipatu dira.

2007an ere, polizi bulegoetatik kanpoko jarduketetan **poliziaren aldetik tratu desegokia jaso izana edo agenteek gehiegizko indarra erabili izana** salatu duten hainbat kexa jaso ditugu, nahiz eta 2006an baino gutxiago izan diren.

Kontu horien inguruko kexa gehienak Ertzaintzak adingabe eta gazteekin izandako esku-hartzei buruzkoak izan dira. Horietatik bat bakarrik da atzerritarrei buruzkoa; kasu horretan, gainera, atzerritar horiek bakarrik zeuden adingabeak ziren.

Azken kexa horretan, Ertzaintzak bakarrik zeuden zenbait adingabe atzerritarri Donostiako RENFEren geltokian eman zien tratua salatu zen. Kexagileak adierazi zigun poliziaren esku-hartzearen lekuko izan zela. Zioenez, esku-hartze hori erakunde horretako segurtasun guardiek gazteetako bi aipatu geltokian atxiki eta behin eta berriro kolpatu ondoren garatu zen. Halaber, agentei leporatu zien trabak jarri zizkiotela gertakariak ikusteko; are gehiago, identifikatu egin zuten eta atxilotu egingo zutela mehatxu egin zioten.

Herriaren Defendatzaileari eman genion RENFEko segurtasun guardien jarduna zela-eta kexan aipatu ziren kontuen berri, bere eskumeneko gaia zelako, hots, Estatuko

Administrazioko erakunde publiko bati eragiten ziona. Behin hori eginda, Ertzaintzaren jarduketa aztertzeraz bideratu genuen gure esku-hartzea. Txostena egiten bukatutakoan, oraindik ez zen amaitu gaiaren inguruko informazioa bidal diezagun Herrizaingo Sailari eman genion epea.

Kexagileak lekuko gisa gertakariak izan ziren tokian geratzeko izan zituenen moduko arazoak aipatu dira, halaber, Bilboko Udaltzaingoak zenbait adingaberi eman zien tratuarekin erlazionatutako kexa batean. Jarduketa horretan, adingabeetako bat zauritu egin zen, polizi agenteekin zeuden txakurretako batek haginka egin ziolako.

Aipatu kexak ikusita, berriz ere aipatu behar dugu beharrezkoa dela agenteek naturaltasunez hartzea lekukoen presentzia, betiere, hauek ez badute poliziaren lana oztopatzen [“Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako polizi jardueri” buruzko txosteneko 8. b) gomendio zehatza, 1998ko ohizko txostena].

Beste kexa aipagarri bat gazte talde batek aurkeztu diguna da. Horren bidez salatu zuten Ertzaintzak tratu desegokia eman ziela Gasteizko erdialdeko kale batetik zihoazela, goizaldean, laneko afari baten ostean. Kexagileen bertsioarekin bat etorritik, agenteak taldeari hurbildu zitzaizkion eta, hitzik esan gabe, gazteetako bat hartu zuten, borrarekin bizkarrean kolpatu zuten eta denda bateko erakusleihen baten aurka bota zuten. Kexagilearen arabera, gazteari, ondoren, ukabilkada eman zioten masailezurrean eta ostikoa belaunean; borrarekin ere kolpatu zuten buruan eta, ondorioz, zorabiatu egin zen eta ia-ia konortea galduta geratu zen. Azkenik, agenteek pertsona hori atxilotu zuten, ustez haiei eraso egin zielako. Hala ere, polizi bulegoetara eraman aurretik, agenteek ospitalera eraman behar izan zuten, zeuzkan lesioak begira ziezazkieten.

Gazteek adierazi zuten ahaleginak egin zituztela agenteek hala jarduteko zituzten arazoak azal diezazkieten, baina agenteek oldarka, mehatxu eginez eta bortizki erantzun ziotela taldearen gainerakoari. Erantzun horren ondorioz, beste kide bat ere zauritu egin zen.

Halaber, azaldu ziguten agenteek behin ere ez zieten identifikatzeko eskatu eta, nahiz eta onartu atxilotuari identifikazioa eskatu ziotela, argitu zuten hori gaztea kolpatu ondoren egin zutela, eta ez aurretik.

Kexaren arabera, polizi agenteetako batek kexagileekin hitz egitea onartu zuen azkenean. Delako agenteak eman zien azalpenei jarraiki, litekeena zen agenteek atxilotu zuten gaztea beste pertsona batekin nahastu izatea.

Kexagileak honakoez ere kexatu ziren: agenteek lanbide identifikazioko zenbakia eman nahi ez izateaz; Gasteizko ertzain-etxean polizi funtzionarioek eman zieten tratuaz, gertakariak salatzeraz joan zirenean; salaketa formalizatzeke eta dokumentu horren edukia adierazi nahi zutenarekin bat etor zedila lortzeko izan zituzten oztopoez; baita atxilotutako gazteak zekarren kalte fisikoaren jatorriari buruz agenteek ospitalean eman zuten informazioaz ere, borrokan aritu zelako hartu zuela min esan baitzuten.

Herrizaingo Sailari zuzendu gintzaizkion, kexagileek salatu zituzten gertakari larriak luze gabe iker zitzaizkion.

Halaber eskatu genion, agenteek indarra erabili zutela berretsiz gero, jakinaraz diezagula agenteek Agintaritza eta Kontrol Zentroari unean bertan eman ote zioten inguruabarraren berri eta agiri bidez zehatz-mehatz jaso ote zuten nola gertatu zen, baita beren buruak indarra erabiltzea egokitzen jo eta ontzat eman ote zuten ere (‘‘Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako polizi jardueri’’ buruzko txosteneko 7. eta 8. gomendio zehatzak).

“Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako polizi jarduerari” buruzko txostenean, berariaz aztertu genituen agenteei polizi jarduerari eta beren lanbide identifikazioko zenbakiei buruzko informazioa eskatu zitzaizenean agertu zuten jarrera zela-eta kexagileek aipatu zituzten kontuak.

Bertan adierazi genuenez, agenteek pertsona bati kalean heltzen dioten modua erabakigarria da egitateek ondoren hartzen duten bidean. Hori zela-eta, adierazi genuen, gure ustez, horrek beti zuzena eta errespetuzkoa izan behar zuela eta, premiazko edo berehalako arrisku inguruabar apartekorik gertatzen ez bada, agenteek azalpena, azalekoa bada ere, eman behar diotela eragindako pertsonari euren jardueraren arrazoi eta xedeei buruz. Halaber azpimarratu genuen, agenteak pertsona batekin harremanetan sartzen direnean eta honek haien identifikazio zenbakia eskatzen dienean, agenteek eman egin behar diotela [8. b) gomendio zehatza].

Bertan adierazi genuen, halaber, polizi funtzionarioek ez dutela errespetu falta edo desobedientzia gisa hartu behar eragindako pertsonak egindako informazio eskaera eta ohikotzat jo behar dutela euren jarduerari buruzko azalpenak ematea, delako pertsonak hala eskatzen dietenean [8. e) gomendio zehatza].

Gomendio horietatik abiatuta, kexa honetan nola bete ziren adieraz ziezagula eskatu genion Herrizaingo Sailari.

Bestalde, erakunde honek hainbatetan ohartarazi du, zenbait kexatan agerian geratu den bezala, agenteek aurrea hartu eta salaketa egin izan dutela beren esku-hartzeak eragiten dituen pertsonen aurka, hauek esku-hartzearen kontrako salaketa egin dezaketela ikusita.

Badakigu zaila dela jokabide gaitzesgarri horiei aurre egitea, halakoak izaten direnean, poliziaren eginkizunetan aritzearen legezotasunak estalita geratu ohi baitira. Baina, gure ustez, polizi arduradunek ohartu behar dute gerta daitekeela ordenamendu juridikoak atestatua egiteko agenteei ematen dien ahalmenaz abusatzea, eta, beraz, horren arabera jardun behar dute. Ikuspegi horretatik, aurreko kexa-espeditente batean [2001eko ohizko txostena, II. atala, A) 7], Herrizaingo Sailari jada eskatu genion beharrezko neurriak ezar zitzala nahi ez diren jarduketa horiek saihesteko.

Gure iritziz, kexak halako gaitzespen bat zuen azpian. Hori zela-eta, aukera egokia iruditu zitzaigun sail horri informazioa eskatzeko, zehazki, zer mekanismo ezarri zituen kontu horri zegokionez eta zer tresna bereganatu zituen agenteek atestatuan egiten dituzten adierazpenak gertatutakoaren errealitatearekin bat datozela egiaztatzeko.

Txostena egiten amaitutakoan, oraindik ez genuen aipatu informazioa jaso.

Kontu horietako batzuk aipatu zaizkigu, orobat, zerbitzu bereziko autobusean zihoan gazte talde batek –gehienak adingabeak– eta beren gurasoek Ertzaintzaren jarduketa baten aurka egin zuten kexan. Poliziaren esku-hartzea, antza, autobus gidariak hala eskatu zuelako garatu zen. Izan ere, ibilbidean gazteekin zenbait tirabira izan ondoren, hark autobusa Altubeko zerbitzugunean geratzea erabaki zuen eta gazteak jaistera behartu zituen. Esku-hartzearen ondorioz, gazteetako bi atxilotu zituzten, ustez agenteei eraso egiteagatik, eta beste batzuei agenteenganako errespetu falta leporatu zieten. Kexagileek kexan azaldutakoaren arabera, agenteek gazteak jo zituzten, hauek gertatu zena azaltzen ahalegindu zirenean; antza, uko egin zioten bertaratu ziren senideetako batzuekin hitz egiteari eta ez zieten eskatutako lanbide identifikazioko zenbakia eman nahi izan.

Hala ere, Herrizaingo Sailak bestelako bertsioa helarazi zigun eta azaldu zigun agenteek une oro eman zietela gertatzen ari zenaren berri bertan ziren pertsonari eta hauek ez zietela lanbide identifikazioko zenbakia eskatu.

Arreta berezia merezi du emakume batek aurkeztu zuen kexak. Bertan, kexagileak Donostiako Udaltzaingoak emandako tratua salatu zuen. Adierazi zigunez, bi agentek bere aurka eta beste pertsona batzuen aurka salaketa egin nahi izan zuten bide publikoan estupefazienteak kontsumitzeagatik; azkenean, atxilotu egin zuten. Kexa, nagusiki, interesdunaren arabera toki hartara geroago iritsi ziren agenteen aurka zihoan. Azaldu zigunez, hitzik ere esan gabe, agenteek iletik heldu, besotik eutsi, lurrera modu bortitzean bota eta, horrela zegoela, han geldiarazi zuten lepoa eta aurpegia zapalduz. Kexagileak esan zigunez, poliziaren esku-hartzeak aurpegian zauriak eta ahoan hemorragia eragin zizkion eta, horien ondorioz, mediku batek artatu behar izan zuen atxiloketan, nahiz eta, hasiera batean, agenteek ukatu egin zioten berak eskatzen zuen laguntza medikoa. Halaber zioen agenteek iraindu egin zutela, eta berari buruzko iruzkin umiliagarriak egin zituztela. Azkenik, aipatu zuen, atxilotuta egon zen bitartean, ez ziotela bere eskubideen berri eman eta ez zuela abokatuaren laguntzarik izan.

Donostiako Udalak 4 hilabete behar izan zituen bidali genion idazkiari erantzuteko. Horren bidez, gertakariak iker zitzala eskatu genion eta, orobat, informazioa bidal ziezagula bai ikerketaren inguruan bai gure ustez kasuari aplikagarri zitzaizkion gomen-dio orokorretako batzuk betetzearekin erlacionatutako beste alderdi batzuen inguruan. Denboraldi horren ondoren helarazi zigun erantzunak, ordea, ez zituen aipatzen gure idazkian jasotako kontu gehienak eta ez zigun ematen eskatu genion dokumentazioa, antza, kexa eragin zuen poliziaren esku-hartzearen ondorioz prozedura judiziala bideratzen ari zelako. Horregatik, berriz ere laguntza eskatu behar izan genion, aurrez eskatu genion informazioa bidal ziezagun.

Antzeko zerbait gertatu da Barakaldoko Udaltzaingoaren jarduketa bati buruzko kexa batean (horren berri, joan den urteko txostenean eman genuen). Herri horretako udalak ere 4 hilabete behar izan zituen gure lehen eskaerari erantzuteko. Bere idazkian, aipatu genizkion kontuetako asko aztertzen ez zituen arren, administrazio horrek adierazi zuen, bere ustez, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikulua esku hartzea eragozten zigula, gaia epaitegian aztertzen ari zelako. Kasu honetan ere gure hasierako eskaera errepikatu behar izan genuen.

Behin eta berrito izan ditugu arazoak polizi arduradunek agenteen jarduketei buruzko kexa iker zezaten eta jurisdikzio penala tartean zen kasuetan azaldu genizkien kontuen inguruko informazioa bidal ziezaguten. Aurretik ere esan izan dugun bezala, halako kexetan oso ohikoa izan da jurisdikzio penalak esku hartzea, batzuetan, kexa eragin zuen jarduketari berari buruzko polizi atestatua egin delako eta horrek bide judiziala aktibatu duelako, edota, beste batzuetan, eragindako pertsonak agenteak bide penaletik salatu dituztelako, edo bi arrazoi horiek tartean izan direlako.

Kasu horietan, nahikoa ohikoa izan da, aipatutako bi kexetan gertatu den bezala, administrazioek gehiegizko denbora hartu izatea erantzun formal bidaltzeko eta, hala ere, eskatu diegun informaziorik eman ez izatea. Erantzun formal horietan, ohikoa izan da, lehen esan bezala, gure esku-hartzea onartu ez izatea, gaia epaitegian zegoelako, edo, prozedura judiziala gauzatzen ari zenez, gertakariak ezin ikertu ahal izatea eta egin izan zezaketen ikerketa oro edo horien emaitza ezagutarazi ahal izatea.

Berriz adierazi behar dugu ikerketa berehala egitea erabakigarria dela mekanismo horrek gertatutakoa argitzeko duen xedea arrakasta izateko gutxienezko berme batzuekin bete ahal izan dezan. Ikuspegi horretatik, adierazitakoen moduko jardunak gaitzetsi nahi ditugu, gure ustez, ikerketa arrazoirik gabe luzatzen dutelako eta asmo ona arriskuan jartzen dutelako.

Erakunde honek badaki, kexa eragiten duen poliziaren jardunarekin erlazionatutako gertakariak prozedura judiziala izapidetzea badakarte, zenbait muga izango dituela bere esku-hartzean, esaterako, gure erakundeak sortzen duen Legearen 13.1 artikulua ezarzen dituenak; horren arabera, ez da *“sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritzarabakiaren zain egon daitezzen arrenkurak banaka aztertzen hasiko”*. Hala adierazi izan dugu hainbat alditan.

Baina, behin eta berriro adierazi izan dugun moduan, gure ustez, agindu horrek ez digu eragozten honelako kasuetan gure esku-hartzerako hautatu ohi dugun prebentzio esparruan jardutea. Horrela, polizi arduradunei eskatu ohi diegu udaltzainen baten jokabide zehatzari buruzko kexa jasotzen dutenean gure ustez errespetatu behar dituzten jarraibideekin bat etorri jardun dezatela, alegia, gure gomendio orokorrean jasotakoekin (*“Polizi kidegoek kontrol tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako”*. 2003ko ohizko txostena), eta aipatu gomendioa bete dela egiaztatu ohi dugu. Gure ustez, horrek debekatzen duena da auzitara eraman diren arazoak aztertzea eta horien inguruko iritzia ematea.

Gure ustez, artikulua hori ez da eragozpen ere polizi arduradunek garatu duten ikerketari buruzko informazioa eskatzeko, prozesu judizialera eraman ez diren beste alderdi batzuk aztertzeko, edo beste gomendio orokor batzuk bete diren egiaztatzeko.

Badakigu, orobat, kexa eragiten duten gertakarien gainean zigortzeko prozedura gauzatzen ari bada, horrek ere hainbat muga jartzen dizkiola polizi administrazioek kontu honetan egiten duten esku-hartzeari, horien artean prozesu horretan epaitzen ari diren jokabideak gaitzesteko debekua, epailearen ebazpena itxaron behar izatea zehapena eman ahal izateko, eta jurisdikzio maila horretako epai batek frogatutzat ematen dituen gertakariak frogatuta izatea.

Nolanahi ere, gure ikuspegitik, horrek ere ezin du oztopo izan administrazio horiek salatutako poliziaren jarduna azter dezaten, ezta jarduera hori zegozkion parametroetara egokitzen ote zen egiaztatu dezaten eta erakunde honi aipatu alderdien berri eman diezaioten ere.

Gure iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legeak berak adierazi genuen interpretazioa babesten zuen, 91.5 artikuluan honakoa adieraztean agenteen aurkako prozedura penalak egiten ziren kasuetarako: *“Euskal Herriko Poliziako kideen kontra zigor-legezko prozedura hasteak ez du galaraziko egintza berengatik alde aurreko informazioa edo dagokion diziplinazko espediente izapidetzerik, eta, hala badagokio, espedientepekoen aldi baterako geldialdia ezarriko zaie eta egoki diren bestelako bermezko neurriak ere hartuko dira. Hala ere, aipatutako prozedura horiek zigor-legez emandako epaiak sendetsia denean bakarrik erabaki ahal izango dira, aipatzen dituen ekintza frogatuen adierazpenak Administrazioa lotzen duela”*.

Gure iritziz, horrek ezingo luke, funtsean, eragozpen izan erakunde honi Administrazioak garatu dituen jardueren berri emateko.

Horiek ez dira, hala ere, eremu honetan aurkitu ohi ditugun arazo bakarrak. Batzuetan, ikerketa ez egiteko bestelako arazoak daude; horietako batzuk behin baino gehiagotan agertu izan dira eta jada aurreko ohizko txostenetan aipatu izan ditugu.

Horrela, oraindik ere, polizi arduradunek egiten duten ikerketa tartean izan ziren agenteek egindako atestaturak aztertzerik mugatu ohi da maiz eta, asko jota, gertatutakoaren inguruko haien bertsioa biltzen du.

Halaxe antzeman dugu berriz ere, adibidez, 2006. urtearen bukaeran jatorri senegal-darreko herritar batek Bilboko Udaltzaingoaren aurka egin zuen kexan. Honen arabera, kidego horretako bi agentek emandako tratua iraingarria, mingarria eta xenofoboa izan zen. Bilboko Udalak adierazitakoaren arabera, kexa ez zegoen ikertu behar zituenean artean, agenteek gertakarien inguruan egin zuten atestaturik irakurrita, ez zelako ikusi polizi funtzionarioek oker edo neurritz kanpo jardun zutenik.

Gauza bera gertatu da Arrasateko Udalaren aurka jarritako kexa batean ere (horren berri, 2005eko ohizko txostenean eman genuen). Kasu horretan, Udalak tartean izan ziren agenteen bertsioa bildu baino ez du egin eta ez die jaramonik egin gertakariak ikertzeko egin genizkion eskaerei. Hori dela-eta, eta jarduerari ekin genionetik denbora asko igaro denez eta Udalak ez duenez gure planteamendua onartu, gure jarduera amaitutzat eman behar izan dugu. Gure ustez, jarduteko modu horrek oztopatu egin ditu gertatutakoa argitzeko aukera guztiak eta ez du lortu kexagileak poliziaren esku-hartzea zuzentzearen inguruan kexan azaldu zizkigun zalantzak argitzea.

Arrazoi horiexek zirela medio, amaitutzat eman behar izan dugu 2004an zabalduko espediente bateko gure jarduna, gure iritziz, Herrizaingo Sailak kexaren alderdi bat ikertu ez duelako, zehazki, trafikoko gorabehera batean Ertzaintzak tratatu desegokia eman izatea.

Beste kasu batean, polizi arduradunek adierazi digute, interesdunak datuak ezeztatzeko eskubideaz baliatzearen ondorioz, polizi jarduerarekin erlazionatuta zeuden kexagilearen datu pertsonalak blokeatuta zeudela eta horregatik ezin zutela kexa ikertu. Horixe gertatu zen gazte batek, 2006. urtearen amaieran ere, aurkeztu zigun kexan. Honen arabera, Ertzaintzak atxilotu egin zuen, goizaldean etxerantz zihoala, ustez bera izan zelako inguruetan izandako lapurretaren egilea. Gazteak azaldu zuen agenteek hura atxilotzeko erabakia hartu zutela, baina hain erabaki larria hartzerakoan, ez zituztela kontuan hartu ez hura bere errugabetasunari buruz ematen ari zitzaizkien azalpenak, ez erabat errugabetzen zuten eta, bere ustez, erabakia inolako oinarririk gabe uzten zuten frogaz ezbaita daezinak. Antza, polizi atestaturik bideratu zuen agenteak berak agiri horretan jasota utzi zuen zalantzak zituela kexagileak lapurretan parte hartu ote zuen. Nolanahi ere, gaia atestatu horretan bertan oinarrituta artxibatu zen bide judizialekin.

Erakunde honen iritziz, ikerketa ezin zitekeen datuak blokeatuta zeudela zioen arrazoibide formalean oinarrituta bazter utzi. Batetik, gure ustez, blokeoa ez zen eragozpen materiala Herrizaingo Sailak kexa eragin zuen polizi jarduera zein izan zen zehaztu eta iker zezan, jarduera hori, hain berezia izanik, erraz identifikatzeko modukoa baitzen, kexagilearen datu pertsonalak izan gabe ere. Bestetik, ez genuen inolako arazorik ikusi, ezta ere, kexagilearen datuak babesteko eskubidearen ikuspegitik; eskubide hori, hain zuzen ere, norbere datuak erabili eta kontrolatzeko ahalmena baldin bada, kexagileak gertakariak iker zitezela erabaki izateak ere, hau datuak ezeztatzeko eskubideaz baliatu ondoren izan arren, datuak xede horretarako erabil zitezela nahi zuela adierazten zuen eta, beraz, nahi hori, hasieran adierazitakoaren ondoren adierazi zenez eta hori betetzea materialki posible zenez, kontuan hartu behar zatekeen. Nolanahi ere, gure ustez, polizi arduradunek izan ahal zuten edozein zalantza erraz argitu ahal izango zuteen kexagileak berak.

Adierazitako arazoen agerian uzten dute oraindik ere ez dela erabat betetzen "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arazua kanpo jarduten duten kasuetarako" gomendio orokorra.

Azpimarratu behar dugu hori bete egin behar dela eta kasuan kasuko administrazioek jarduteko protokoloak ezarri behar dituztela arlo honetan. Bertan, argi eta garbi zehaztu behar dute nola jardun behar den kexa jasotzen denean eta hori ikertzerakoan, delako gomendioan azaldu genuenarekin bat.

Halaber nahikoa maiz arazoak izan ohi ditugu polizi arduradunek kexa eragin duen jardueraren ondorioz bideratutako atestatuen kopia helaraz diezaguten. Kasu batzuetan, ukoa justifikatzeko, gaia bide judizialean aztertzen ari direla adierazi dute; halaxe gertatu zen, esate baterako, 2006ko txostenean aipatu genuen kexa batean, hain zuzen ere, Gasteizko Zaramaga auzoan 30 urte atzera izandako gertakarien biktimen oroimenez 2006ko martxoaren 3an egin zen manifestazioan Ertzaintzak izandako esku-hartzeari buruzkoan (aurrerago, Herrizaingo Sailak agiria ekarri zigun). Beste batzuetan, adingabe baten atxilotetaren inguruan aurrez aipatu dugun kexan bezala, interesduna datuak ezeztatzeko bere eskubideaz baliatu eta, ondorioz, atestatuko datu pertsonalak blokeatuta daudela aipatu dute.

Gure iritziz, arrazoi horietatik ez batek eta ez besteak ezin justifika dezakete, besterik gabe, Administrazioak delako agiriak helarazteari uko egitea. Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak dio erakunde honen kontrolpean dauden administrazioak behartuta daudela Arartekoari honek eskatzen dizkien agiri guztiak lehentasuna emanik eta albait lasterren helaraztera, polizi atestatuak salbuetsi gabe (23. art.). Eta, oro har, salbuespen hori ere ez da beste arau batzuetan ikusten eta, esan bezala, ez du datu pertsonalak babestearen inguruko eskubideak ezartzen.

Bestalde, berriro aipatu behar dugu indarraren erabilpenak azken bidea izan behar duela, egokitzapen eta neurri legezko printzipioak errespetatu behar dituela eta hierarkikoki buru direnek kasuan kasu kontrolatu eta berretsi behar duten zentzuzko iritzian oinarrituta egon behar duela. Halaber, gogorarazi behar dugu, kontrol hori gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa dela erabaki hori oinarritu duten arrazoiak eta esku-hartzea egin den modua zehazki idatziz jasotzea. Bai jaso ditugun kexen argitan bai polizi arduradunek gai honi buruz hitz egiterakoan helarazten dizkiguten erantzunen argitan, uste dugu kontu honen inguruan egin ditugun gomendioak ez direla erabat betetzen.

Aurrekoaz bestelako eremuetan, aurtan jaso ditugun kexak hainbat alderdiren ingurukoak ere badira.

Horrela, Martuteneko espetxeko preso batek adierazi zuen tratu desegokia jaso zuela larri zegoen senide bat bisitatzeko espetxetik ospitalera eraman zuten Ertzaintzako kideen aldetik, bere ustez, ez zituztelako errespetatu ez gizatasun eta duintasunaren irizpideak ez gaixoarekiko berarekiko eta senideekiko errespetuaren irizpidea (Espetxe Erregelamenduaren 36. art.). Azaldu zigunez, bera zaindu zuten agenteen artean uniformeaz nahiz kalez jantzitakoak egon, uniformeaz jantzitakoek lagundu zioten gela barruraino. Gainera, zioenez, agenteetako batek gaixoarekin zeuden gainerako senideei alde egiteko agindu zien eta ohartarazi zien, hala egin ezean, kexagilea espetxera eramango zutela berriz ere, une mingarri haietan familia zer egoera emozional eta animikoan zegoen kontuan hartu gabe.

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle batek ere kexa aurkeztu du, dioenez, protesta-egun batean zenbait piketek Leioako campuseko instalazioetara ibilgailuei sartzen utzi ez zitelako eta Ertzaintzak ez zuelako esku hartu unibertsitate barrutira sartu nahi zuten pertsonen eskubidea bermatzeko.

Nabarmendu beharrekoa da, orobat, presoan senideen elkarte batek helarazi digun kexa. Bertan adierazi digu kezkatuta daudela Ertzaintzak egiten dituen ADN analisien inguruko hainbat konturekin, zehazki, Audientzia Nazionalak analisi horiek delitu jakin batzuk leporatzeko froga gisa erabiltzen dituela eta Auzitegi Gorenak polizi kidego horren jarduera bermatzeko doktrina eman duela. Kexaren arabera, Auzitegi Gorenak gai honen inguruan hartu dituen erabakietako batzuen aurka babes eskeko errekurtoa aurkeztu zen Konstituzio Auzitegian.

Gure ustez, aipatutako arazoak soilik eremu judizialean kokatuta zeuden eta, hori zela-eta, esku hartzeko legez ditugun aukera guztietatik kanpo geratzen zen (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. art.).

Erreklamazioa aurkeztu zuen elkarteak esan zigun, halaber, beldur zela, Ertzaintzak uneren batean ez ote zuen ordenamendu juridikoak ematen dion ahala pertsona bat legez kontrako xedetarako atxilotzeko erabili, alegia, atxilotuaren lagin biologikoak jasotzeko, haren ADN auzitegian.

Era honetako kontuak aztertzea guri dagokigu, bai, baina, horretarako, beharrezkoa da ahal publikoak ustez bidegabe erabili diren polizi jarduera horren inguruko datu zehatzak ezagutzeko, baina elkarteak ez zigun halakorik ekarri; gainera, berriro aipatu behar dugu, halakoak aztertzean, inolaz ere ezin dela aintzat hartu, adierazitako arrazoiak direla medio, justizia-azitegiek bide horretatik lortutako frogak bati ematen dioten balioa.

Gai hori, hain zuzen ere, 2005eko kexa batean agertu zen (horren berri urte horretako txostenean eman genuen eta bera izapidetzeko prozesua aurtan amaitu da). Kexagileak adierazi zuen beldur zela Ertzaintzako zenbait agentek, kexagileak gidatzen ari zen ibilgailua geldiarazi eta haren aurka trafikoko arau-hausteagatik salaketa jarri ondoren, egin zituzten jardunak bere ADN profila lortzera bideratuta egon ez ote ziren. Gure esku-hartzeari amaiera emateko adierazi dugu Herrizaingo Sailak ez dituela azaldu kexagilearen susmoaren oinarri ziren zantzuak eta ez dituela argitu, ezta ere, zantzu horiei jarraiki, aipatu alderdi zehatzetan polizi jarduera zuzentzeari buruz kexan adierazi zituen zalantzak. Horren inguruko informazio gehiago [abenduaren 20ko ebazpenean](#)³⁴.

Aurtan ere hainbat kexa jaso dugu poliziak delituzko gertakari batengatik jarritako salaketa hartzeari uko egin diola esanez.

Horrela, pertsona batek adierazi zigun ezin izan zuela Ertzaintzan izapide hori egin, artatu zuen agenteak uko egin baitzion salaketari eta guardiako epaitegira bidali baitzuen; hori justifikatzeko, salatutako pertsona polizi kidego horretako beste kide baten emaztea zela adierazi zuen. Herrizaingo Sailak ekarri zigun informazioaren arabera, gertakariak argitzeko bideratu zen ikerketak ezin izan zituen horiek egiaztatu, frogarik ez zegoelako. Hala ere, salaketa jartzera Ertzaintzara doazenez uler ez dezaten polizi funtzionarioek beste aukera batzuei buruz eskaintzen dieten informazioak salaketa ez onartzea dakarrela, gure arabera, kexaren kasuan gertatu zen bezala, egokia iruditu zitzaigun sail horri eskatzea agenteei, bereziki kexan aipatutakoari, gogorarazi egin behar dizkiela polizi kidego horrek zein legezko betebeharrak dituen salaketak jasotzearen inguruan eta adierazi

³⁴ Arartekoaren ebazpena, 2007ko abenduaren 20koa; horren bidez, amaitutzat ematen da kexagilearen ustez beraren lagin biologikoak legez kontra hartu eta bere ADNaren informazioa lortzera bideratuta egon ziren Ertzaintzaren ekintza zehatzengatik aurkeztutako kexan garatu zuen jarduna.

behar diela kasu horietan interesdunei ematen dieten informazioak nahitaez jaso behar duela salaketa Ertzaintzan bertan ere aurkezteko aukera.

Gai honen inguruan jaso dugun beste kexa batek azaldu zigun emakume atzeritar batek eragozpen ugari izan zituela bere bikotekidea salatzeo –lehendabizi, Getxoko Udal-tzaingoan eta, gero, ertzain-etxe batean–, berari eta bere alaba adingabeari emandako tratu txarreatatik. Kexan bertan adierazi zenez, aipatu eragozpenak pertsona horrek gaztelania ondo ez zekielako sortu izan zitezkeen eta horrek hainbat zailtasun eragin izan zitzaizkeen bai komunikatzeko bai kexagilearen kontakizuna eta asmoak ulertzeko. Salaketa, azkenean, beste ertzain-etxe batean formalizatu zen.

Kexaren arabera, mota honetako arloez arduratzen diren polizi funtzionarioek prestakuntza berezia behar lukete atzerriko emakumeen kasuan beren lana nola garatu behar duten jakiteko; horrela, beren kultur eta hizkuntz desberdintasunen ondorioz pertsona horiek dituzten premiei aurre egin ahal izango zaie eta beren premiei erantzuten dien tratamendu egokia eman. Bere iritziz, horrela baino ez lirateke saihestuko esparru honetan batzuetan izan ohi diren komunikazio arazoak, polizi funtzionarioen mesfidantza eta nahi ez diren egoera horietatik emakumeentzat sor daitezkeen babesgabetasuna.

Aurten, bi kexa gehiago jaso ditugu emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan.

Kexagileetako batek adierazi zigun, bere ustez, Ertzaintza ez zela behar bezala kontrolatzen ari epaitegi batek bere senar ohiari ezarri zion urruntzeko neurria betetzen ari ote zen, eta horregatik, esku hartzeko eskatu zigun.

Beste kexan adierazi zen Herrizaingo Sailak ez zuela bideratu 112 telefonora egin zuen laguntza-deia; deia bera bizi den higiezinako auzokide bat ustez jasaten ari zen tratu txarrak zirela-eta Ertzaintzaren esku-hartzea eskatzeko egin zuen. Interesdunak azaldu zuenez, pertsona horrek SOS Deiak-i izena eta helbidea eman nahi izan ez zizkiolako ukatu zen laguntza. Aipatu sailak azaldu zigun, ordea, laguntza eskatu zuenak bere burua identifikatu ez arren eta bestelako daturik eman ez zuen arren gertakariak zer etxebizitzan izan ari ziren zehaztu ahal izateko, zegoen balia bidea abian jarri zuela eta higiezinera joan zela.

Halaber aipatu beharrekoa da ikertzaile batek aurkeztu duen kexa. Bertan zioenez, Herrizaingo Sailak ez zizkion Ertzaintzak egindako atxiloketei buruzko datu anonimorik eman nahi izan. Bere hitzetan, datu horiek poliziaren eta etorkinen arteko harremanen zenbait alderdiri buruzko azterlana egiteko behar zituen. Hasiera batean lortu nahi izan zituen datuak Polizia Nazionalek eta Guardia Zibilak (baina ez Ertzaintzak) erabiltzen duten inprimakian jasotakoak dira. Sailak ez zizkion aipatu datuak eman, Ertzaintzak inprimaki hori erabiltzen ez zuela esanda eta datuak babesteko legeriari eta modu generikoan aldarrikatzen zuen sekretu estatistikoari helduta. Informazio ofizialari jarraiki, erakunde honek ez du, ordea, aipatu lege eragozpenik antzeman. Gure ustez, datuak babesteko legeria ez litzaioke kasuari aplikagarri (datuak anonimizatu egin baitira), ezta sekretu estatistikoa ere (ez baikaude estatistikaren eremuan). Gure aburuz, ezin daiteke traba izan, ezta ere, Ertzaintzak inprimaki hori ez erabiltzea, dirudien bezala, kexagileak behar dituen datuak baldin baditu. Uste dugu, gainera, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikulua interesdunaren eskaera bermatuko lukeela, kasu honetan ez baita frogatu manu horretan ezarritako salbuespenak egin behar direnik.

Estupefazianteak edukitzeagatik Getxoko Udalak isunarekin zigortu zuen adingabe baten gurasoek kexa aurkeztu digute. Bertan, udal administrazioak prozeduran bazter utzi

zuen kontu interesgarria azaldu zigun, alegia, ez ote zegoen aukerarik, diru zigorraren orde, beste zigor hezigarriago bat jartzeko.

Aipatu beharrekoak dira, orobat, jokoaren eta herritarren segurtasunaren arloan zigortzeko prozedura banari buruzko bi kexa. Horietan, frogarekin erlazionatuta zeuden eta interesdunen babeserako eskubidean eragina izan ahal zezaketen kontuak aipatu ziren; zehatzago esanda, Ertzaintzako agenteen adierazpenei eman zitzaizkien balioarekin eta hain funtsezkoa den izapide hori egiteko erabili zen forma estandarizatuarekin erlazionatutako kontuak izan ziren.

Azkenik, hotel bateko arduradunak formalizatutako kexa ekarri behar dugu gogora. Bertan adierazitakoaren arabera, Ertzaintza hotelaren jabetzakoa zen aparkaleku pribatuan ari zen ibilgetzen hainbat ibilgailu astun. Kexagilearen arabera, ibilgailuak bertan uzten ziren, abandonatuta, eta hainbat lapurreta gertatu ziren jada. Horrek itxura txarra ematen zion establezimenduari eta nabarmen kaltetzen zuen negozioaren garapena. Gure esku-hartzearen ondoren, Herrizaingo Sailak adierazi zigun arazoa konpondu zela eta ibilgailuak kendu egin zituztela.

2007an **amaitutzat eman dugu** 2006ko martxoaren 3ko manifestazioan Ertzaintzak izandako esku-hartzearekin erlazionatuta joan den urtean hasi genituen eta arestian ere aipatu ditugun kexa-espeditetako gure **jarduera**. Horietan ondoriozta dugu Herrizaingo Sailak ez dituela argitu kexagileek poliziaren esku-hartzeari buruz beren kexetan azaldutako zalantzak eta ez duela egiaztatu, ezta ere, erakunde honek indarraren erabilera kontrolatu ahal izateko eginiko gomendioak bete ote diren. Halaber, iruditu zaigu informazio ofizialak ez zuela aipatu sailaren iritzia justifikatzen (horren arabera, kexak eragin dituen poliziaren jarduketak kongruentzia, egokitasun, proportzionaltasun, premia eta kalte txikiena egiteko printzipioak errespetatu zituen); gainera, informazio hori ez da inolaz ere nahikoa erakunde honek erabili zen indarra baloratu ahal izan zezan.

Horren inguruko informazio gehiago [martxoaren 26ko ebazpenean](#)³⁵ aurki daiteke.

Ebazpen horren ondoren, kexetako bat aurkeztu zuen martxoaren 3ko Biktimen elkarteak jakinarazi digu Ertzaintzak elkarteko bi kideri leporatzen zien terrorismoa goratzeagatiko ustezko delitua epaitzeaz arduratzen ari den instrukzioko epaitegi zentralak kausa behin-behinean artxibatzeko agindu duela.

2006ko beste kexa-espeditete bateko gure jarduerari ere eman diogu amaiera. Espediente horretan, Basurtuko Ospitaleko espetxe unitatean Ertzaintzaren zaintzapean zegoen pertsona batek bere buruaz beste egitearekin erlazionatutako hainbat kontu aipatu ziren. Espediente horren baitan, Herrizaingo Sailari gomendatu diogu halako egoera tragikoak saihesteko koordinazio tresnak ezar ditzala. Espediente honen inguruko xehetasun gehiago justiziaren arloari dagokion sarreran bildu dira.

Amaitutzat eman dugu, orobat, 2006an hasitako beste espeditete batzuetako gure jarduerari ere. Espediente horien bidez, poliziaren xedeetarako biltzen diren datuak

³⁵ Arartekoaren ebazpena, 2007ko martxoaren 26koa; horren bidez, erakunde honek amaiera ematen dio Ertzaintzak 2006ko martxoaren 3an Gasteizen egin zen manifestazioan izandako esku-hartzearen inguruko hainbat kexa-espeditetaren garatu duen jarduerari.

ofizioz balio gabetzeari buruz euskal administrazio publikoen menpeko polizi kidegoek erabiltzen dituzten jardunbideak ezagutu nahi izan genituen. Jardunbide horien berri urte horretako txostenean eman genuen. Tartean ziren administrazioetako batzuk gai honen inguruan Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezartzen dituen zehaztapenak aplikatzen ari ez zirela egiaztatu ondoren, gomendio orokorra egin dugu, "Ertzaintzak eta udaltzaingoen poliziaren xedebetarako biltzen dituzten datu pertsonalak ofizioz balio gabetzea", administrazio horiek lege aurreikuspenak bete eta arlo horretan jarduteko protokoloak ezar ditzaten. Gomendio horren testua III. atalean jaso da.

Azkenik, trafikoen arloan bezala, atal honetan ere bazter utzi behar izan ditugun kexetako batzuk aipatu nahi ditugu, baita Herriaren Defendatzaileari eta autonomiatako defentsa-erakundeek helarazi dizkiegunak ere, beren eskumeneko kontuak hizpide zituztelako. Lehen esan bezala, kexa hauek guztiak ez daude sarrera honen hasieran aipatu ditugun kopuruetan barneratuta.

Onartu ez ditugun kexen atalean, Gregorio Ordóñezek hilobian eragingandako kalteen ustezko erantzule gisa Ertzaintzak atxilotu zituen adingabeen gurasoek aurkeztu dituguna aipatu behar dugu; bertan adierazi ziguten ez zeudela ados ez atxilotetarekin ez jarduera horretan Ertzaintzak eskaintako tratuarekin. Gure iritziz, erakunde hau arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. artikulua kontuan esku hartzea galarazi zigun, batetik, Ertzaintzak egindako atxilotetaren eta adingabeek leporatutakoaren bidez kotasuna atxilotetaren ondorioz hasitako prozedura judizialaren bidez aztertzen ari zelako eta gertakariak alor horretan argitzen ari zirelako, eta, bestetik, kexagileek bide judizialean salatu zutelako agenteek atxiloteta egiterakoan izan zuten jokabidea eta bertan adierazitako kontuak kexetan azaldu zizkigutenean berdina zirelako.

Arrazoi horiexetatik ezin izan dugu, ezta ere, beste kexa batean esku hartu. Bertan, adingabe baten ama aipatu zuen semea atxilotu egin zutela eta Ertzaintzak tratu desegokia eman ziola jarduera horretan.

Ez dugu onartu, ezta ere, herritarren segurtasunarekin erlazionatutako kontu bat aipatzen zuen kexa bat, jakinarazpen anonimoa zelako. Hala ere, Herrizaingo Sailari horren berri eman diogu eta hark, bidezko ikerketa egin ondoren, ezin izan du kexa eragin zuen gertakaria egiaztatu.

Eta gauza bera gertatu da beste kexa batekin ere, gure eskumen eremutik kanpo baitzegoen; horren bidez, esparru publikoan datu pertsonalak bidegabe laga izanaren inguruko zenbait alderdi jaso ziren.

Beste zenbait kexa ez onartzeko arrazoiak kausa beragatik bi kexa aurkeztu direla eta irregulartasunik ez zegoela izan dira.

Herriaren Defendatzaileari bidali dizkiogun kexei dagokionez, aipatu beharrekoa da gazte talde batek aurkeztutakoa. 2001ean Polizia Nazionalak gazte horiek atxilotu zituen, antza, banda armatu bati lagundu ziotelako; gazteak aske geratu ziren kargurik gabe. Kexagileak kexu ziren, Puerto Ricoko agintariek ez zitelako herrialdean sartzen utzi. Beren iritziz, hori beharbada Estatu Batuetako polizi agintariek atxilotetari buruzko zenbait datu eman zizkietelako gertatu izan zitekeen.

Arlo honetan, aurkeztu dizkiguten kexek, gainera, beste kontu batzuen berri eman digute, esaterako, Polizia Nazionalak pertsona bati eman zion tratua, Nortasun Agiri Nazionala berritzeko prozedura edo arma-lizentzia ukatu izatea.

Kexa bat bidali dugu, orobat, Síndic de Greuges defentsa-erakundera. Kexa horrek Kataluniako polizia autonomikoaren funtzionamenduagatik hasitako ondare erantzukizuneko prozedura zuen hizpide.

* * *

Ezin dugu sarrera hau amaitu ordenamendu juridikoak Ararteko erakundeari ematen dion egitekoa gauzatzeko ditugun zailtasunak labur-labur aipatu gabe (aurrez azaldu ditugu zailtasun horietako batzuk).

Zailtasunak, batzuetan, gure laguntza-eskaerari erantzuterakoan guk eskatutako informazioa edo dokumentazioa ez ematearen ondorio izaten dira, polizi arduradunek agenteen jardueren aurkako kexak iker ditzaten lortzeko izan ditugun zailtasunez hitz egiterakoan arestian aipatu ditugun espedienteetan gertatu den bezala. Beste batzuetan, zailtasunak informazioa bidaltzeko gehiegizko atzerapenari edo gure gogoeten gaineko baloraziorik ez egiteari zor zaizkio.

Horrela, adibidez, Donostiako Udalak 6 hilabete behar izan ditu Loiolako auzotar batek 2005ean aurkeztu zigun kexaren berri eman ziezagun bidali genion lehen eskaerari erantzun formala emateko. Auzotar horrek zenbait bandalismo ekintza salatu zituen, antza, bertako eskailera batzuetan bildu ohi zen gazte talde batek eginak, eremu publiko hori gizalegez erabiltzen ez zutelako. Kexagileak adierazi zigun higiezinako merkataritzako lokalen eta garajeen jabeek hainbatetan eskatu ziotela Udalari eskaileretara heltzeko bidea itxi zezala, horrek arazoa konpontzea ahalbidetuko baitzuen. Lehenengo erantzunean, Udalak Udaltzaingoak inguruan egin zituen jardueren berri baino ez zigun eman, ez kexan aipatutako gai zehatzaren inguruan egindakoen berri, eta adierazi zuen, burututako jardueretatik ondoriozta zitekeenez, ez zirudiela, kexagileak salatu bezala, halako arazorik zegoenik. Bigarren erantzunean, azaldu zigun, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak adostutakoaren arabera, azken kidego honek jardungo zuela, esku-hartzeen bikoiztasuna saihesteko; Herrizaingo Sailak jada eman zigun horren berri. Alabaina, ez zigun ezer esan eskailera ixtearen inguruan. Horregatik, laguntza eskatu behar izan genion, hirugarrenez; horren erantzuna jasotzeko beste 2 hilabete itxaronarazi zigun.

Gauza bera gertatu da arestian aipatu dugun kexa batean, Udaltzaingoak emakume bati emandako tratuari buruzkoan. Udalak 4 hilabete behar izan zituen gure eskaerari formalki erantzuteko eta, hala ere, bere idazkiak ez zien erantzun materialik ematen azaldu genizkion kontu gehienei. Hala, berriz ere laguntza eskatu behar izan genion eta bigarren eskaera honek ez zuen erantzun formalki izan 2 hilabete beranduagora arte.

Udal horrek berak, 2006ko txostenean jasota utzi genuen eta Udaltzaingoak bi atzerritarri emandako tratua salatu zuen espediente batean, ia urtebete behar izan du bidali genion laguntza-eskaerari erantzunez.

Beste batzuetan, emandako erantzunak ez die guk azaldutako kontu guztiei erabat heltzen; halaxe gertatu ohi da tartean direnak administrazio bereko hainbat zerbitzu direnean.

Halaxe gertatu zen aurrez aipatu dugun eta Gasteizko Udaltzaingoaren, Ertzaintza-aren eta SOS Deiak zerbitzuaren arteko koordinazio arazoak salatu zituen kexa batean, izan ere, Herrizaingo Sailak hasieran helarazi zigun informazioak SOS Deiak zerbitzuaren jarduera baino ez zuen aipatzen eta, horregatik, berriz ere laguntza eskatu behar

izan genion Ertzaintzaren jarduerari zegokion informazioa bidal ziezagun koordinazio faltarekin erlazionatutako ezaugarriak zituen kontu hari buruz.

Horregatik, berriz ere laguntzeko printzipioa eskatu beharrean gara eta beste behin berretsi behar dugu adierazitako jarduerak oztopo handia direla gure eginkizunak behar bezala gauzatu ahal izateko, eta asko murrizten dituztela ordenamendu juridikoak beren interesak defendatzeko eskura jartzen dizkien tresnetako bat erabiliz erakunde honetara jotzen dutenen eskubideak.

Ertzaintzaren eta udaltzaingoen atxiloketa-zentroak

Ziegak. Udalaren eta Ertzaintzaren atxiloketa-zentroak izeneko ezohizko txostenean bildu genituen gomendioen betetze maila egiaztatze aldera garatzen ari garen jardunen esparruan, erakunde honetako zenbait ordezkari Laudioko Ertzain-txera eta Donostia eta Bermeoko udal atxiloguneetara joan ziren, nagusiki, horien egoerari buruzko datu eguneratuak izateko, horietara egindako azken bisitaldiak, hurrenez hurren, 2001, 2002 eta 1998an izan baitziren. Urte horietako gure esku-hartzeari buruzko xehetasunak aldi horiei dagozkien ohizko txostenetan jasota daude (I. atala).

Bisitaldi horien ondoren, gure balorazioa Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eta aipatu udalei helarazi genien, beren iritzia ezagutzearren eta bertan jasotako oharrek betetzeko prest ote zeuden jakite aldera. Hala ere, txosten hau egiten amaitutakoan, Bermeoko Udalak bakarrik erantzun zion gure laguntza-eskaerari.

Jarraian, aipatu balorazioaren alderdi nabarmenenak eta Bermeoko Udalak emandako erantzuna bildu ditugu.

1. Laudioko Ertzain-etxera egindako bisitaldia

- 1.1. Ezaugarri fisikoei dagokienez, ziegen zona, funtsean, ez da aldatu 2001ean egindako bisitaldian ikusitakoarekin alderatuta.

Horrela, ertzain-etxeko instalazioak, oro har, beren zeregina betetzeko egokiak izan arren, bertan oraindik ez dago adingabeen zaintzarako egokia den eta pertsona nagusientzako direnetatik bereizita dagoen eremurik, adingabeen erantzukizun penalari buruzko urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak eskatzen duen moduan (17.3 art.).

Kasu honetan ere, instalazioak garbitasun eta mantentze egoera onean zeuden.

- 1.2. Zentroak bidegrabaketako sistema du. Erakunde honetako kideekin egon ziren polizi arduradunek emandako informazioaren arabera, sistema horrek ziegen zonan atxilotutako pertsonen mugitzeko eremu guztiak kontrolatzen ditu –komunak eta ziegen barrualdea izan ezik–, baita polizi ibilgailutik zona horretara daraman sarrera eta aitopena hartzeko gela ere.

Solaskideek azaldutakoaren arabera, itxura denez sistema, funtsean, antzeko ezaugarriak dituzten Ertzaintzaren beste atxiloketa-zentro batzuetan Herrizaingo Sailak ezarri duen ereduarekin bat dator.

Erakunde honek delako sistemaren inguruan egindako balorazioa joan den urteko ohizko txostenean jasota dago (I. atala, 7.1) eta, beraz, horri dagokionez, bertan adierazitakora jotzen dugu.

- 1.3. Polizi arduradunek eman ziguten informazioarekin bat etorritz, ertzain-etxeak oraindik ez du adingabeen atxiloketen berariazko erregistro libururik, adingabeen erantzukizun penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onesten duen uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuaren 3.5 artikulua ezartzen duen moduan.
- 1.4. Solaskideek adierazi ziguten, oro har, gorputz miaketa egiterakoan, atxilotua arropa kentzera behartzen dutela, azpiko arropa izan ezik.

Halaber, esan ziguten, miaketa atxilotua biluzarazita egiten denean, erabaki hori eta horretarako arrazoiak agirietan jasota geratzen direla.

Egokitzat jo genuen atxiloketari buruzko agirietan jasota geratzea miaketa atxilotua biluzarazita egin dela eta horretarako zer arrazoi egon den.

Hala ere, beste batzuetan ere azaldu dugun bezala, iruditu zitzaigun agirietan beti adierazi behar litzatekeela nola gauzatu den eginbide hori eta horrela jarduteko zer arrazoi egon den, eta ez bakarrik miaketa atxilotua biluzarazita egiten den kasuetan; horrela, neurriaren ondorengo kontrola egin ahal izango da.

Gorputz miaketa egiterakoan atxilotuak barruko arropa ez beste arropa guztia kentzera behartzeko erabakiari dagokionez, uste dugu hori ezin dela oro har ezarri; aitzitik, miaketa atxilotua biluzarazita egiten denean bezala, neurriak justifikatuta egon behar du. Horretarako, beharrezkoa da, aurrez, dauden inguruabarren analisi banatua egitea eta proportzionaltasunezko iritzia ematea, "Miaketa pertsonalaren dilijentzia poliziaren bulegoetan" izeneko gomendio orokorrean adierazi genuen bezala (2001eko ohizko txostena).

2. Donostiako udal atxilogunera egindako bisitaldia

- 2.1. Ezaugarri fisikoei dagokienez, ziegen zona, funtsean, ez da aldatu 2002an egindako bisitaldian ikusitakoarekin alderatuta.

Horrela, atxilotuak zona horretara eramateko sarbide independenteak ez ditu polizi ibilgailutik zuzenean bertara eramaten, zenbait eskailera-atal igaro behar baitira; horiek, gainera, ez dira irisgarriak ezinduentzat. Espazio hori, ziegetarako atearen aurrean dagoena bezala, agente guztiek erabiltzeko da.

Gorputz miaketa egiten den gelara ziegen zonarako sarreraren aurrean dagoen espazio horretatik sartzen da, eta ez ziegen zonatik.

Ziegen zonan oraindik ez dago ez dutxarik ez berokuntzarik.

Instalazioen egoerari dagokionez, ziegetako hormek, oraingoan ere, 2002an egin genuen bisitaldian bezalaxe, itxura kaskarra dute, altxatu, marka eta pitza-dura ugari baitituzte. Marka horiek, antza, objektu zorrotzen batekin egindakoak, ugariak dira, orobat, ziegetako ateen barruko aldean. Halaber, ziegetako bateko zerria ere oso narriaturik dago.

Gure solaskideek adierazi ziguten laster ziegetako hormak pintatu egingo zirela.

Erakunde honen iritziz, zaharberritze lanak berehala egin beharra alde batera utzita, instalazioak eta atxilotuei ematen zaizkien zerriak eta tapakiak mantentzeko jarraibide orokorrak ezarri behar lirateke, adierazitakoen moduko narriatze egoerak saihesteko.

- 2.2. Ezinduei Udaltzaingoaren polizi etxera ate nagusitik sartzea eragozten dieten eskailera-mailak gainditzeko ezarri den sistema ere ez da aldatu aurreko bisitaldia egin genuenetik.

Horiek alboko sarrera erabili behar dute. Sarrera horrek kalezulo batera ematen du eta bertatik polizi ibilgailuak ibiltzen dira. Solaskideetako batek aitortu bezala, hori arriskutsua da nahitaez ate hori erabili behar duten pertsonen segurtasunerako.

Sarreraren eta bulegoetarako atearen artean ere zenbait eskailera-maila daude eta, horiek gainditzeko, aulki jasotzaile zeiharra dago. Hori erabiltzeko, ordea, bulegoko langileei laguntza eskatu behar zaie, bertan dagoen txirrina sakatuta.

Gure ustez, mekanismo hori berrikusi egin behar litzateke eta, horren ordez, sarrera hori erabili behar duten pertsonen autonomia eta segurtasuna behar bezala bermatzen duen beste bat jarri.

- 2.3. Zentro horretan oraindik ez dago adingabeen zaintzarako egokia den eta pertsona nagusientzako direnetatik berezita dagoen eremurik, adingabeen erantzukizun penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak eskatzen duen moduan (17.3 art.).

Hala ere, gurekin egon ziren polizi arduradunek eman ziguten informazioaren arabera, egun instalazioak berritzen ari dira, horiek Legean jasotako baldintzeta egokitzeko asmoz.

- 2.4. Bidegrabaketako sistema jarri da eta, horren bidez, zaintza-gela izan ezik, ziegen barrualdea eta ziegen zonako korridoreak ikus daitezke, baita atxilotuek

sartzen direnetik ziegen zonarako ateraino heltzen diren arte egiten duten bidea ere; hori oso berrikuntza garrantzitsua da aurreko gure bisitaldiarekin alderatuta.

Solaskideek eman zizkiguten azalpenetatik ulertzen dugunaren arabera, mekanismo berri horren oinarrizko ezaugarriak honako hauek dira:

- Sistemak etengabe irudi bat grabatzen du 5 segundoro, egunean 24 orduz, eta denbora errealean grabatzeko aukera ere ematen du.
- Ezin da grabaketa deskonektatu edo eten, ezta irudi batzuk bakarrik ezabatu ere.
- Antolaketari begira, grabaketen arduraduna segurtasunarekin eta bideetako trafikoarekin erlacionatutako delituetan atxiloteta eta zaintza egiten duten unitateekiko independentea da.
- Sistemaren ekipoa dagoen gelarako sarbidea mugatua da, baita grabaketak bistartzeko jarri den ordenagailurako eta ordenagailu hori dagoen bulegorako sarbidea ere.
- Grabatutako zuzeneko irudiak zaintza-agentek ikusten ditu, bere langunean jarritako pantaila baten bidez. Agente horrek denbora errealean grabatzeko aukera aktibatuta edo desaktibatuta bakarrik izan dezake eragina sisteman.
- Zuzenean bistaratze pantailan agertzen den irudia geratu egiten da mugimendurik ez dagoenean.
- Oro har, grabatutako materiala ez da gainbegiratzen eta, egiten denean, ez da ikusitakoaren inguruko txostenik egiten. Ez dago, ezta ere, grabaketei eta hauen gorabeherei buruzko berariazko erregistrorik.
- Informazioa 7 egunez gordetzen da, hots, sistemaren memoriak gehienez ahal duena. Memoria betetzen denean, sistema lehendik grabatutakoaren gainean grabatzen hasten da.

Erakunde honek egoki irizten dio aipatu sistema ezarri izanari. Behin eta berriz adierazi dugun bezala, gure ustez, neurri horrek aurrerapauso handia dakar atxilotuen osotasunaren eta duintasunaren aurkako jardunbideen prebentzioran, eta tresna egokia da eremu horretan izan daitezkeen jarduera irregularrak argitzeko eta polizi funtzionarioak jaso daitezkeen oinarririk gabeko kexa edo salaketen aurrean babesteko.

Hala ere, oker ez bageunden behintzat, sistemak ez lituzke beteko grabatutako materialaren berrikuspen sistematikoari, gordeta izateko epeari eta erregistroari dagokienez eraginkorra izateko gure ustez bete behar dituen baldintzak. Baldintza

horiek urriaren 6ko 81/1999 Gomendioan jasota daude (1999ko ohizko txostena) eta, orobat, Herrizaingo Sailak Ertzaintzaren atxiloketa-zentroetan ezarri zuten sistemari buruz joan den urtean egin genuen txostenean.

Bestalde, 2002an polizi etxera egin genuen bisitaldiaren ondotik izapidetu genuen espedientean, ziegen zaintzarako sistemak atxilotuaren intimitaterako eskubidea eta atxiloketaren segurtasuna bateragarri egin behar zituela eman genion aditzera udal administrazioari. Halaber, adierazi genion, ziegen zonaren tamaina eta konfigurazioa aintzat hartuta, ez genuela inolako arrazoirik ikusten sistemak, segurtasunaren mesedetan, eskubide horietako lehena erabat bazter zezan. Orobat, aipatu genion, eskubideak bermatzeko ikuspegitik, hobe litzatekeela ziegetan kamerarik ez egotea, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako polizi etxeetan gertatzen den bezala, eta, halakorik egonez gero, irudia iraunkorra ez izatea eta hori ez egotea zaintza-agentearen esku.

Aukeratu den zaintza-sistemak ziegen barruan etengabeko ikus-kontrola mantentzea ahalbidetzen du; polizi arduradunek esandakoaren arabera, horren berezitasuna da zaintza-agentek ikusten duen pantailan proiektatutako irudia gelditu egiten dela mugimendurik ez dagoenean.

Nahiz eta, adierazi bezala, erakunde honen iritziz, hobe izango zatekeen ziegak bideozaintzako sistematik kanpo gelditu izan balira, uste dugu mugimendurik ez dagoenean irudia finko mantentzearen formula egokia izan litekeela aurka jarritako bi ondasun juridikoen artean, hots, intimitaterako eskubidearen eta segurtasunaren artean, egon behar duen oreka bermatzeko.

- 2.5. 2002an egindako bisitaldiaren ondotik izapidetu genuen espedientean, Udaltzaingoak jakinarazi zigun instrukzioa eman zuela atxilotua biluzarazita egiten den gorputz miaketa gauzatzeko moduaren inguruan erakunde honek eman zituen gomendioetara egokitzeke.

Helarazi zitzaigun instrukzioaren testuak miaketa era horretara egitea zer kasutan den bidezkoa aipatzen zuen eta neurri hori hartu izana Atxilotuen Erregistro Liburuan jasota uztera behartzen zuen, gure gomendioen ildotik. Orduan, Udaltzaingoak adierazi zigun aipatu liburua aldatu egin zela, bertan alderdi hori agiri bidez jasota uztea ahalbidetuko zuen atal bat barneratzeko, eta delako liburuaren edukiaren kopia helarazi zigun. Ikusi ahal izan genuenez, gorputz miaketari buruzko atal bat zegoen; honen barruko eremuetan, atxilotua biluzarazita egin ote zen adierazi behar zen eta, hala egin zenetan, eguna, ordua, agentea eta horrela egiteko egon ziren arrazoiak jaso behar ziren.

2007ko gure bisitaldian solaskideek azaldu ziguten atxilotua biluzarazita egiten den gorputz miaketaz arduratzen den agentea behartuta dagoela aipatu liburuan erabaki hori arrazoitzera eta neurri hori hartzeko izan dituen arrazoiak jasota uztera.

Bisitaldian, delako liburua kontsultatu ahal izan genuen; ikusi ahal izan genuenez, orain elektronikoa da eta gorputz miaketari buruzko atal zehatzak ditu, eskuzko liburuak zituenen moduko eremu zabalekin.

Gorputz miaketa atxilotua biluzarazita egin zen kasu bat aukeratu genuen ausaz, jardun hori nola jaso zen egiaztatze aldera. Kontsultatutako kasuan, miaketa egiteko arrazoiaren artean “segurtasuna” arrazoi generikoa aipatu zen.

Gure solaskideen arabera, atxilotua biluzarazita egiten den gorputz miaketa egiteko erabakia justifikatzen duten arrazoiak jasotzeko agenteek erabiltzen duten formula beti generikoa da.

“Miaketa pertsonalaren dilijentzia poliziaren bulegoetan” izeneko gomendio orokorrean adierazi genuen bezala, gure ikuspegitik, atxilotua biluzarazita egiten den gorputz miaketa egin ahal izateko ezarritako baldintzak daudela modu generikoan eta abstraktuan dioen arrazoibide tipoa behin eta berriro aipatzeak ez du halako erabaki bat justifikatzeko balio.

Hori zela-eta, adierazi genuen, gure ustez, aldatu egin behar litzatekeela jardunbide hori eta bermatu egin behar litzatekeela Atxilotuen Erregistro Liburuan jasotako arrazoiak zehatzak eta nahikoak izatea, bere eginkizuna behar bezala bete dezan eta erabakiaren ondorengo kontrola egin ahal dadin.

Gure iritziz, desiragarria litzateke, orobat, delako liburuak, atxilotua biluzarazi ez den kasuetan ere, eginbide hori gauzatzeko modua eta horrela jarduteko arrazoiak zehatz-mehatz deskribatuko balitu.

Bestalde, Udaltzaingoak lehen aipatutako espedientean helarazi zigun instrukzioaren testuarekin bat etorritik, miaketa atxilotua biluzarazita egiten denean, atxilotuari mantala eman behar zaio biluzik egon ez dadin.

Bisitaldiaren egunean, gorputz miaketa egiten den gelan plastikozko bi poltsa handi zeuden, mantalaz beteta. Mantal horiek ez zeuden tolestuta eta poltsetan pilatuta zeuden; erabilia zeudela zirudien. Solaskideak, ordea, ez ziren gai izan erabilia zeuden ala ez zeuden esateko.

Beharrezkoa iruditzen zaigu alderdi hori argitzea. Gure ustez, erabilitako mantalak erabili eta berehala baztertu behar lirateke; erabili gabeak halako zalantzarik ez sortzeko moduan antolatu behar lirateke.

- 2.6. 2002ko bisitaldian, eskubideak informatzeko eginbidearen edukia osatugabea zela ikusi genuen, jada ez baitzuen jasotzen pertsonak atxilotetaren arrazoiaren berri izateko duen eskubidea, ezta atzerritarren eskubide zehatzak ere –atxilotetaren berri Kontsuletzeko bulegoari eman eta interprete baten laguntza izateko aukera– (Prozedura Kriminalaren Legearen 520. art.).

Udalari helarazi genion bisitaldi horri buruzko balorazioan adierazitakoari jarraiki, beste espediente baten izapidetze prozesuan konturatu ginen eginbide horren frantsesezko bertsioak atzerritarrek dituzten aipatu bi eskubide zehatzak biltzen zituela.

Hori zela-eta, beharrezkotzat jo genuen eskubideak informatzeko eginbidearen idazkuntza aldatzea, bertan Prozedura Kriminaleko Legearen 520. artikuluan aintzatetsitako eskubide guztiak jasotzeko, eta, eskubide horietako bakoitzaren ondoren, atal bat sortzea, atxilotuak emandako erantzuna aurkezteko.

Gure balorazioari emandako erantzunean, Udaltzaingoak adierazi zigun berriazko atal bat barneratu zela atxiloketaren arrazoiak jasota uzteko eta agiri horren zenbait hizkuntzako bertsioan ez zegoela akats hori. Halaber, azaldu zigun, zenbait bertsiotan, atzerritarren bi eskubide zehatzak barneratuta zeudela. Zeuden eredu guztiak berri zirela ere aipatu zigun.

2007ko bisitaldian egiaztatu ahal izan genuenez, eskubideak informatzeko aktak bada atxiloketaren arrazoiak biltzeko eremua. Hala ere, kontsultatu genituen bi aktetan, eremu horretan atxilotuari leporatutako delituaren berri eman zen eta ez atxiloketaren arrazoi berri.

Hori dela-eta, berriro azpimarratu behar dugu ezinbestekoa dela atal horretan jasota uztea atxilotuari argi eta garbi jakinarazi zaizkiola “*los hechos que se le imputan y las razones motivadoras de su privación de libertad*” (Prozedura Kriminalaren Legearen 520. art.).

Atzerritarren eskubide zehatzei dagokienez, kontsultatu ahal izan genituen aktaren bertsioetatik gaztelaniazkoak oraindik ez ditu jasotzen, baina bai frantsesezko eta ingelesezko bertsioek. Gure solaskideek ez ziren gai izan irizpide desberdinak erabiltzearen arrazoiak azaltzeko.

Bestalde, kontsultatu genituen aktek, eskubide horietako bakoitzaren ondoren, ez zuten leku nahikoa atxilotuak zegokion eskubidea ulertu ote zuen eta horretaz baliatu nahi ote zuen jasotzeko.

Alabaina, eskubideen zerrendaren ostean, horietako batzuei zegokienez atxilotuak egindako aukera aipatzen zuen.

Hori dela-eta, aurreko gure bisitaldiaren ondotik izapidetu genuen espedientean alderdi horiei buruz helarazi genizkion gogoetak errepikatu behar izan dizkiogu udal administrazioari.

Bestalde, eskubideen informazio aktaren ingelesezko bertsioa gaztelaniazkoarekin bat ez zetorrela ere ikusi ahal izan genuen eta, beraz, hori zuzendu egin behar litzatekeela.

3. Bermeoko udal atxilogunera egindako bisitaldia

- 3.1. Ezaugarri fisikoei dagokienez, polizi bulegoak ez dira aldatu 1998an egin genuen bisitaldian ikusitakoarekin alderatuta.

Horrela, leku horrek oso txikia izaten jarraitzen du; ziegek ere ez dituzte gomendagarritzat jotzen diren gutxieneko dimentsioak; ziegen zonak ere oraindik ez ditu osasun instalazio egokiak.

Atxilotuak zona horretara eramateko sarbide independenteak ez ditu polizi ibilgailutik zuzenean bertara eramaten. Gainera, bertara iristeko, jendearentzako arreta eskaintzen duten beste udal zerbitzu batzuekin partekatutako atartea zeharkatu behar da eta ezinduek ezin dute bertara iritsi.

Ziegetara ere ezin hel daitezke, eskailera-maila bat baitago.

Instalazioetarako sarrera nagusiak ere irisgarritasun arazoak ditu, hor ere eskailera-maila bat dagoelako eta, halaber, ateak zabalera nahikoa ez duelako.

Bestalde, zentro horretan ez dago adingabeen zaintzarako egokia den eta pertsona nagusientzako direnetatik bereizita dagoen eremurik, adingabeen erantzukizun penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak eskatzen duen moduan (17.3 art.).

Bisitaldiaren egunean, hainbat kutxa, artxibategi eta bestelako objektuak zeuden pasabideetan eta erabilera anitzeko aretoan (genero indarkeriako biktimei arreta eskaintzeko, isilpeko elkarrizketa egiteko, aitorpena hartzeko, adingabeak zaintzeko, etab.). Ondorioz, desordena zegoela ematen zuen eta, solaskideen arabera, instalazioetan lekurik ez zegoelako utzi ziren leku horietan.

Udaltzaingoko plantilla osatzen duten agenteentzat ez dago berariazko aldagelarik, hori ere, dirudienez, lekurik ez dagoelako (aldagelarik ez egotearen ondorioz, diziplinazko hainbat arazo sortu dira; horien aurrean ere esku hartu du aurrean erakunde honek eta horien berri atal honetako funtzio publikoaren arloan emango dugu).

Gurekin egon ziren polizi arduradunek egungo instalazioetan gabeziak, mugak eta urritasunak zeudela eta leku nahikoa ez zegoela onartu zuten. Adierazi zigutenaren arabera, uste dute arazoei irtenbidea aurkitzeko horiek osoki aztertu behar direla; beren ustez, horretarako, ezinbestekoa da bulegoek azalera handiagoa hartzea, nola eraikin berean, egun hartuta duena zabaldua, hala beste batean.

Esan zigutenez, Udala 2008ko aurrekontuetan irtenbide orokor horri berehala heltzea ahalbidetuko zuen partida bat barneratu ote zitekeen aztertzen ari zen.

Erakunde honek ere uste du, egungo arazoei aurre egiteko, beharrezkoa dela instalazioak osorik birmoldatzea eta egoki irizten dio birmoldaketa hori 2008an egin ahal izateari.

Hala ere, esan behar dugu, tamalez, Udalak gure balorazioari buruz eskaini duen erantzunak ez duela inolako informaziorik ematen kontu horren inguruko udal aurreikuspenen gainean.

- 3.2. Bulegoetan garbitasun egoera onargarria zen; nolana ere, hormetan zenbait hezetasun orban zeudela ikusi ahal izan genuen, baita ziegetako bateko koltxonetan hondatuta zegoela eta beste ziega batean ustez erabilita zegoen tapaki bat zegoela ere.
- 3.3. Bidegrabaketako sistema instalatu da. Dirudenez, horrek ziegen zonako pasabideak eta atxilotuen sarrera independentea hartzen ditu. Sistema hori berritasun garrantzitsua da aurreko gure bisitaldiarekin alderatuta.

Egokia iruditzen zaigu sistema hori ezarri izatea, arestian aipatutako arrazoiengatik. Hala ere, sistema berriari buruzko iritzia eman eta bisitaldian bildu genituen datuak osatu ahal izateko, Udalari eskatu genion horien oinarriko ezaugarriak zeintzuk ziren eta gomendioan ezarritako baldintzak betetzen ote zituen jakinaraz ziezagula.

Udal administrazioak, ordea, ez digu ezer aipatu sistemaren ezaugarrien inguruan, nahiz eta bertan eman dizkigun azalpenetatik, azpiegitura-arazoak daudela esanez, mekanismoak delako baldintzak betetzen ez dituela ondorioztatu ahal izan genuen.

- 3.4. Polizi arduradunek eman ziguten informazioarekin bat etorritz, oraindik ez dute adingabeen atxiloten berriazko erregistro libururik, adingabeen erantzukizun penalari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onesten duen uztailearen 30eko 1774/2004 Errege Dekretuaren 3.5 artikulua ezartzen duen moduan.

Nolana ere, gure balorazioari emandako erantzunean, Udalak liburua jartzeko konpromisoa hartu du.

- 3.5. Solaskideek adierazi zigutenaren arabera, bisitaldia egin zenean ez zuten, ezta ere, atxilotuari eskubideak informatzeko aktaren euskarazko bertsioa.

Alabaina, Udalak gure balorazioari erantzunez helarazi digun informazioari jarraiki, arazo hori jada konpondu da.

Bestalde, bisitaldian eman zitzaigun atestatua berrikusterakoan, ikusi ahal izan genuen eskubideak informatzeko aktan ez zegoela atalik atxilotuari "*los hechos*

que se le imputan y las razones motivadoras de su privación de libertad” (Prozedura Kriminalaren Legearen 520. art.) jakinarazi zaizkiola jasota uzteko.

Aktak, itxuraz aurretik ezarritako ereduarekin bat zetorrenak, ez zituen, ezta ere, atzerritarren berariazko bi eskubideak barneratzen –atxiloketaren berri Kontsuletzeko bulegoari jakinarazteko eta interprete baten laguntza jasotzeko aukera–, agindu horrek berak onartzen duen bezala. Agiri horrek ere ez zuen, azken batean, atalik eskubideetako bakoitzaren ondoren, atxilotuak gertakariaren inguruan emandako erantzuna jasota utzi ahal izateko.

Hori zela-eta, eredia berriro formulatu behar zela iruditu zitzaigun, aipatu alderdiak ere barnera zitezen.

Udalak gure balorazioari erantzunez bidali digun informazioaren arabera, egungo ereduek jada biltzen dituzte alderdi horiek.

- 3.6. Bisitaldian kontsultatu genuen atestatuak ez zuen jasotzen nola egin zen, kasu horretan, gorputz miaketa, ezta zer arrazoi egon ziren ere hala egiteko erabakia hartzeko.

Aipatu alderdiaren inguruko bere jarduteko modua “Gorputz miaketaren di-lijentzia poliziaren bulegoetan” izeneko gomendio orokorrera egokitu zezan eskatzeko Udalari bidali genion balorazioari erantzunez, administrazio horrek erregistroa egiteko eredu bat helarazi digu eta, bertan, atxilotua gainetik miatu eta begiz nahiz azaletik ikuskatzen denean miaketa nola egiten den deskribatzen da.

Gure ikuspegitik, eredu horren edukia ez da nahikoa aipatu gomendioa betetzeko, ez baitu barneratzen atxilotua gainetik miatzea edo azaletik ikuskatzea ez den bestelako miaketa-motarik eta ez baitu aukerarik ematen miaketa egin den moduan egiteko izan diren arrazoiak adierazteko.

8. JUSTIZIA

Herritarrek justizia administrazioarekiko eskubide edo interesak erabiltzen dituztenean, hainbat itxaropen biltzen dituzte halabeharrez. Horiek azkeneko ebazpenaren edukitik hasi, hura hartu edo eraginkortasunez betetzeko behar izango den denboratik igaro edo jasoko duen tratua edo bere hizkuntza propioan adierazteko izango dituen aukeretara iritsi bitartekoak dira. Arartekora eremu horretatik iristen diren kexak, orokorrean, itxaropen horietan izandako frustraziotik sortu ohi dira eta, horiek zuzenbidean oinarriturikoak diren heinean, gure esku-hartzearen xede izan daitezke. Hala eta guztiz ere, muga garrantzitsu bat izango du gure esku-hartze horrek: ikuskatzeko gure eskumenek ez dute eraginik epaile eta epaitegiek beren funtzioen erabileran hartutako erabakietan. Horixe dio legeak, une oro haien lana independentziaz mantentzeko xedez. Haien jarduna jurisdikzioaren eremuko goi organoek, diziplinaren alorrean nahiz errekurtsioaren bidean, egindakoa ez den beste edozein kontrolerik kanpo geratzen da.

Aitzitik, ebazpen judizialen edukia bera alde batera utzita, justizia administrazioa jotzen duenak jasotako zerbitzuaren beste alde batzuegatik jarritako kexen aurrean jarduteko aukera dugu. Arrazoi horrengatik 2007an zehar izapidetutako espedienteak 34 izan dira, eta eragindako gaiak hurrengoak:

| | |
|---|----|
| - Justizia administrazioaren funtzionamendua..... | 14 |
| - Espetxe gaietako jarduerak | 9 |
| - Abokatuen eta prokuradoreen elkargoak..... | 8 |
| - Doako laguntza juridikoa..... | 2 |
| - Beste batzuk..... | 1 |

Kasu hauez gain beste 31 egon dira, baina horiek ez dute espediente irekitzea ekarri bide judizialean egoteagatik edo partikularren arteko gatazkak planteatzeagatik, eta, ondorioz, gure eskumen eremutik kanpo geratzeagatik. Horietako askok, ordea, hainbat bizi esperientziaren berri eman digute; horietan, justizia sistema, egun ulertzen dugun moduan, mantsoegia eta formalegia da, edo, bestela, faktore ugari haztatzeko baliabide egokiak falta ditu, batzuetan kontraesankorrak diren eta beti konplexua izaten den errealitatea eratzen duten faktoreak hain zuzen. Kexa hauetako batzuek, bestalde, agerian uzten dute epaitegietara jotzea, egitura arazoiengatik inguruabar arazoiengatik baino, ez dela nahikoa izaten hainbatetan eta, zenbaitetan, disfuntzionala ere izaten dela, errealitate horrek pertsonen eskubideen gainean duen eraginari aurre egin nahi bazaio.

Horrengatik guztiagatik, errefusatu behar izan ditugun kasu horietan eta guzti kudeaketa informalak bideratzen saiatu gara. Helburua, gure aukeren neurrian, kexan agertzen diren gatazka edo arazoak epaitegietatik kanpoko komunitatearen baliabideen bitartez bideratu ahal izatea izan da, gizarte ongizateko baliabideetatik hasi eta osasunekoetaraino, bitartekotza edo sustapen ekonomikoko zerbitzuetatik igaroz. Halaber, herritarrei aholkatzeko lana garatu dugu, epaitegien jardun okerragatik edo abokatu-laguntza eskasagatik eragozpenak jasan izanda, hura ikuskatzeko ardura duten jurisdikzio bideek edo korporaziokoek erantzun egokia eman ez zieten kasuan.

Justizia administrazioaren funtzionamenduari dagokionez izapidetutako kexek herritarrei eragindako kalteari heltzen diote, zerbitzuak dituen baliabide material eta giza baliabideen zuzkidura eskasagatik, edo hari atxikitako langileen tratu desegokiagatik, administrazio autonomikoaren menpekoa den heinean.

Aurten ere prozeduren bidegabeko atzerapenak izan dira arrazoi horrengatik jasotako kexa gehienen arrazoia, eta desadostasuna bereziki sortzen duena **administrazioarekiko auzi prozeduraren** egoera izan da. Jurisdikzio horretako pertsona bakarreko epaitegiek gaiak denbora-tarte onargarrian ebazten dituzten bitartean, Auzitegi Nagusiaren Salan arazoak ebazteke dauden denbora bateraezina da oraindik justizia azkar eta kalitatezkoaren eskakizunarekin. Egoera bereziki larria bihurtzen da zenbait kasutan: administrazioak, lehen auzialdian, kontrako ebazpena jasotzen du, eta epaiari errekurtsua jartzen dio.

Horixe ikus daiteke irakaskuntza ertaineko katedradun baten kasuan. Gure erakundera jo zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Lehen Sekzioan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2005eko epai baten aurka jarritako apelazioko errekurtsua jasaten ari zen bidegabeko atzerapena erreklamatzeko. Epaia Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak onartutako interesdunaren aurkaratze baten ondotikoa da, 2004an izandako lekualdatze lehiaketa baten aurkaratzeari buruzkoa hain zuzen. Beste inguruabar bat ere bazen: kexaren adierazlea ibilbide profesionalaren amaieran zegoen jada. Ebazpenaren atzerapenak, ondorioz, izan zitekeen aldeko emaitzaren onurak neurri handi batean gutxitu zituen, eta birtualtasun gutzia galduko zukeen 2007-2008 ikasturtea amaitzean erretiroa hartu baino lehen ematen ez bazen.

EAEANek horri dagokionez adierazi zigun zain zegoen kasu pilaketak atzerapena ekarri zuela, eta apelazio errekurtsua bozketaren eta ebazpenaren zain zegoela 2006ko otsailetik. Salaren presidentearen txostenak zain zegoen apelazio zerrenda erantsi zuen. Horren arabera, 2007ko abuztuan 2005etik bozketa eta ebazpen zain zeuden errekurtsuak ebazten ari ziren oraindik, nahiz eta aipatu dugun kasuaren ebazpena ikasturte honetan zehar eman zitekeela uste izan.

Administrazioaren nahiaren eduki materialari dagokionez, ez zitzaigun posible izan errekurtsua jartzeko erabakia, gure kexagileak zioen moduan, oinarri argirik gabekoa zen edo ez baloratzea. Antza, sala horretako aurretiko adierazpenekin kontraesanean egongo litzateke: gaia epaitegien erabakiaren menpe zegoen, haiei baitzegokien ausarkeria egon zen edo ez baloratzea. Iritzia baiezkkoa bazen, zehapena kostuetan ezarriko litzateke. Kontua da, ordea, horrek ekartzen duen arriskuari hobeki egin diezaiokeela aurre administrazioak eragindako partikularrak baino. Azken horri, agian, ez zaio komeni izango auzitan jarraitzea, kasurik onenean ia lau urte igarota arrazoia eman diezaioten. Horrek herritarrei asmoa kentzeko balio du, justiziaren aurrean administrazio egintzak aurkaratzeko eskubidea erabiltzerakoan.

Zentzu horretan beste kexa bat jaso genuen, azkenean 2007ko martxoan ebatzi zen errekurtsu baten gainean. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko auzietako Salaren epaiak neurri bateko arrazoia eman zion haren sustatzaileari. Hori berri ona izango zatekeen, jatorriko erreklamazioa, Barakaldoko Udalaren aurka 1999an jarritakoa izan ez balitz zirkulazio istripu batengatik.

Bi kasuetan, erreklamazio horien ondotik irekitako kexa-espeditentak artxibatu egin zituzten jurisdikzio agintariek, eskura dauden baliabideak kontuan hartuta ezin zitekeelako adierazi salatutako atzerapenetan irregulartasunik zegoenik. Aitzitik,

diziplina-erantzukizunik ez egotetik haratago, horrelako kasuek ez dute bakarrik hitz egiten epaitegiek, Administrazioarekin partikularrek dituzten auziak ebazteko, izandako atzerapenak eragindako kalteei buruz. Aldi berean agerian geratzen da justizia administrazioaren atzerapenak arintzeko martxan jarritako planak oso urruti daudela horiek diseinatzeke izandako helburuak lortzetik.

Esan behar dugu aurten gutxitu egin direla **herritarrei epaitegietan tratu egokia ez emateagatik** izapideturiko kasuak. Azpimarratzea merezi duen kasu bat, Arartekoak aurretik ere sumatutako arazo bati buruzkoa izateagatik, kexa adierazi zuen emakume batena da. Abizen bera izateagatik, epaitegiko kideak eta polizia bertaratu ziren emakume honen etxera, benetan anaiari zegokion zorra bahitzeko asmoz. Gure kexagileak adierazi zuen horrek beharrezkoa ez zen tentsio egoera ekarri zuela auzo guztien bistan, akatsa ebatzi zen arte. 2005eko txostenean jada adierazi genuen beharrezkoa zela epaitegiek zordunak identifikatzeko informazio osoa ematea jabetzaren erregistroei, justifikaziorik gabeko bahiketak ekarriko dituzten identifikazio akatsak saiheste aldera. Kasu honetan, Epaitegiari erreklamazioaren xedea adierazi eta gero, gertaeren gaineko barne ikerketa irekitzea eskatu genion. Hortik jakin zen akatsa zordunak berak eragindakoa izan zela. Hark, mailegua lortu ahal izateko, faltsukeriaz aitortu zuen arrebaren titulartasunaren pean zegoen etxebizitzaren jabea zela. Hala eta guztiz ere, Epaitegiari adierazi genion, kasu honetan akatsaren erantzulea neurri batean bakarrik izan eta horren arabera jardun bazuen ere, bere jardunak eragozpena ekarri ziola kexaren adierazleari. Ondorioz, hark barkamena jasotzeko eskubidea zuela ulertu genuen, eta Epaitegia ados agertu zen hura eskatzeko.

Atal hau herritarrek **gure erkidegoko hizkuntz ofizialeatik** edozein erabiltzeko benetako aukerei aipamen eginez osatzen da, epaitegi eta auzitegiekiko harremanen eremuan. Gai honetan izan dugun esku-hartzea ez da bakarrik sortu partikular edo erakundeek helarazi dizkiguten esperientzietatik, "Euskara justizia administrazioan" izeneko Kongresuan izan genuen parte-hartzetik ere sortu delako. Urrian antolatu zuen Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, epaitegien erabiltzaileen artean epaitegietan euskara erabiltzeko eskubidea hedatzeko kanpainarekin bat eginez.

2006ko txosteneko kultura eta elebitasunari buruzko atalean, hainbat salaketaren berri eman genuen epaitegietan euskaraz aritzeko eskubideari buruz. Beharrezkoa zela azpimarratu genuen haren funtsa jarduteko gaitasunetik eta entzuna izateko eta interesak defendatzeko eskubidetik ezberdintzea, euskal hiztunen hizkuntz eskubidea, gure testuinguru soziolinguistikoan gaztelaniak ere baduena, ez urratzeko. Aitzitik, ikusi dugu lotura horrek hizkuntz profilak mugatzen dituela oraindik justizia administrazioan.

Horixe ulertzen da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren osoko bilkurak 2007ko ekainaren 6an Euskal Autonomia Erkidegoko justizia administrazioaren hizkuntz normalizazioko prozesua arautuko duen dekretu proiektuari aurkeztutako txostenean. Auzitegi Konstituzionalaren 270/2006 epaiak ezarritako konstituzio jurisprudentzian oinarrituz eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 521 eta 530. artikuluei jarraiki, hark uste izan zuen Autonomia Erkidegoa ez dela gai Estatuaren menpeko epaileen, magistratuen, epaitegiko idazkari eta fiskalen profila zehazteko. Horrekin batera, ez litzateke gai izango, ezta ere, bere lurraldeko justizia administrazioaren zerbitzura dauden gainerako funtzionario lanpostu guztietara iristeko euskaraz jakin behar dela eskatzeko, bakar batzuen kasuan izan ezik. Azkenik, hark adierazi zuen eskakizun hori balorazio

xede izan behar litzatekeela ahal den kasuan eta bete beharreko funtzioak gorabehera, eta ez, administrazio autonomikoak nahi bezala, epaitegia kokatzen den tokiko euskararen ezarpen indizearen arabera.

Aitzitik, irizpide horrek zailtasun nabaria agertzen badu justizia administrazioaren euskalduntzea egoera soziolinguistikoaren arabera izan dadin, agerikoa da ere Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikulua hitzez hitzeko zehaztapena. Jarduera judizial guztietan epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta epaitegi eta auzitegi gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dutela ezarri ondoren, aipatutako arau horrek dio kasuan kasuko autonomia-erkidegoko hizkuntz ofizial propioa ere *erabili ahal izango dutela*, betiere, aldeetako bat horren aurka agertzen ez bada babesgabetasuna alegatuz. Epaileen gobernu organoak ezarpen horri heltzen dio pertsonak eta elkar-teeek epaitegi euskaraz jotzeko aukera ez izateagatik adierazitako kexei erantzuteko. Aldeek bi hizkuntzetatik edozeinetan aritzeko eskubidea ez du zalantzan jartzen. Aitzitik, gogorazten du artikulua horrek adierazten duela aipatutako funtzionarioak ez daudela beharturik gaztelaniaz gain inolako hizkuntzarik ezagutzera, eta prozedura oinarritzeko hizkuntz aukeraketa ez dagoela aldean eskuetan, epaileenetan baizik. Hark egokien irizten duena erabaki ahal izango du, horrek justizia administrazio egokirako oztoporik ekartzen ez duen heinean.

Baldintza horietan badirudi zaila dela Estatuak, Erregioetako zein Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Ituna berrestean, hartutako konpromisoen betetze mailaren jarraipena egiteaz arduratzen den Aditu Batzordearen gomendioei jarraitzea. Hark, egoera aztertu ostean, zera adierazi zuen besteak beste:

511. Adituen Batzordeak ikusten du Espainiak hiru eremutan (prozedura kriminala, zibila eta administrazioa) hartutako lehenengo konpromisoarentzat beharrezkoa dela agintari judizialek hizkuntza erregionalean edo gutxiengoaren hizkuntzan garatzea kasuan kasuko prozedurak aldeetako batek horrelakorik eskatzen badu eta beste aldeak eskatutako hizkuntza ez ulertuta ere. Horretarako, itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuetara jo behar izango da, adibidez.

Honaino adierazitakotik ulertzen den araudia aldarazteko beharra osatu egiten da funtzionarioen mugikortasunak, xede honi dagokionez, duen eragin negatiboa saihesteko hartu beharko diren neurri praktikoa eta antolamendukoekin. Aipatutako Batzordearen hitzetan:

517. ... Arazoa are larriagoa da kontuan izanda epaileen txandakatzean oinarritutako ohiko sistemak erregioeko hizkuntza edo gutxiengoarena ikastea errefusatzera eramán ditzakeela epaileak. Izan ere, transferentziaren kasuan, hizkuntz berri horrek erabilgarria izateari utz diezaioke, eta hizkuntza ikasten inbertitutako baliabideak eta denbora alferrik galtzea dakar beharrezko hizkuntz gaitasuna duen epailea ezagutza horiek jada baliagarriak ez dituen autonomia-erkidego batera lekualdatzean. Ondorioz, funtsezkoa da egun ezarritako karreraren eta prestakuntzaren egitura aztertzea.

Testuinguru horretan agertzen dira eremu honetan gure erakundera iristen diren kexen hiru mota eragiten dituzten inguruabarrak: desobedientziagatiko isunak, itzultzaile

bidez deklaratzeko ezezkoarengatik aldean arteko berdintasun faltari helduz; behin eta berriro errepikatu behar diren jakinarazpenak gaztelaniaz bakarrik idatzita egoteagatik, interesduna epaitegira euskaraz zuzendu bazitzaion ere; beste kasu batzuetan fiskalak, itzultzaile zerbitzua erabili beharrean, ezkontza ziurtagiriak zuzenean errefusatu ditu euskaraz idatzita egon eta berak ez ulertzeagatik.

Muturreko kasu horietatik haratago, ordea, jasotzen ditugun erreklamazioek justizia administrazioari euskaraz zuzendu nahi zaizkionek aurre egin beharreko egitura-egoera desatseginarean berri ematen digute. Ohikoena izaten da prozeduraren uneren batean, eta kasurik onenean, interprete bidez egin behar izatea, horrek dakarren denbora eta hurbiltasun galerarekin. Kasurik txarrean, aldiz, energia osagarria inbertitu behar izango da funtzionario talde horretako kideen arteko maila guztietan oraindik agertzen den joera elebakarraren ondoriozko atzerapenei, akatsei eta etendurei aurre egiteko. Horietako batzuk badirudi epaitua izango denari laguntza gutxiko jarrera egozten diotela, jardun profesionala zalantzan jartzeko nahia egozten ez zaionean. Arrazoi epaitua izango denak, hizkuntz komuna erabiltzeko aukera izanda, haietako gehienei ezezaguna zaien hizkuntza erabiltzea eskatzea izaten da.

Horrek dakartzan arrisku eta deserosotasun guztiek euskaraz hitz egiten duen erabiltzailea etsiarazten dute. Harentzat, ez dugu ahaztu behar, gaztelania ez da hizkuntz ezezaguna izaten. Hain zuzen ere, eremu honetako berezko hizkuntz erregistro formal eta espezializatua kontuan izanda, eta prestakuntzagatik edo ohituragatik, ez da harritzekoa euskara baino gertuagokoa izatea gaztelania. Euskararen erabilera, kasu honetan, nortasuna sendotzeko dimentsioari egokituko litzaioke gehiago, komunikatzeko behar soilari edo eraginkortasun arrazoi sinpleei baino. Horri erantsi behar zaio kontrako aldea, gaztelaniaz aritzeko inguruabar soilagatik, eragozpen horietatik kanpo egongo dela. Ondorioz ulertuko dugu partikularrak, kasu askotan, berezko hizkuntzan aritzeko aukera hori atzeratzeko joera izatea eta hura epaitegien aurrean normalean ebatzi ohi direnak bezalako interes hain larriak jokoan ez daudenerako uztea. Horrek argitu egiten du borondatezko jurisdikziotik kanpo aldeetako batek euskaraz jarduten duen prozedurakopurua geldirik egotea, eta horietatik zati adierazgarri batek modu batera edo bestera hizkuntz eskubideei aipamen egitea.

Positiboak iruditzen zaizkigu, beraz, euskaraz hitz egiten duten erabiltzaileek justizia administrazioarekiko eskubideak ezagutzeko egiten diren kanpainak. Aitzitik, kontuan izan behar dugu helburu horiek lortzeko hemen adierazitako moduan horiek benetan gauzatzeak egun dakartzan kostuak nabarmenki gutxitu behar direla. Bestela, gai honetan oraindik izatearen eta izan behararen artean dagoen distantzia handiak, gehiago ikustean, ez du partikularren etsipena areagotu besterik egingo eta, ondorioz, kontrako emaitzak izaten amaitu.

Hori saihesteko beharrezkoa izango da euskal herritarrek auzitegietara zuzentzeko dituzten bi hizkuntz ofizialetatik edozein eraginkortasun profesionalerik erabiltzeko gai diren funtzionarioen portzentajea modu esanguratsuan areagotzea justizia administrazioaren maila guztietan. Aitzitik, amaitzeko ez dezagun ahaztu horrekin Justiziak euskara erabiltzeko aukera bakarrik eskainiko lukeela. Hura aprobetxatzeko, eta eskaera gero eta handiagoa izan eta, ondorioz, beharrezko bilakaera egon dadin, funtsezkoa da euskaraz hitz egiten duten pertsonen, eragile juridikoak nahiz haien bezeroak, epaitegien aurrean beren berezko hizkuntzan aritzeak –gaztelaniaz aritzeko joera ez denean– eragiten dien segurtasun eza gainditzea. Ziur egon gaitezke zera adieraztean: euskarak justizia

administrazioan izango duen etorkizuna, beste edozein eremutan izango duena bezalaxe, hiztunen partetik hura erabiltzeko borondatean dago azken batean.

Jurisdikzio zibilari dagokionez, eskubideak urratu zizkietela uste izan zuen hainbat pertsonak gugana jo du. Urradura horien aurrean, haien ustez, Justiziak ez zuen behar beste egin horiek saiheste aldera. Kexa horiek emandako ebazpenarekiko desadostasunei heltzen bazieten ere, esku hartzeari ezezkoa eman behar izan diogu lehen ere adierazi dugun bezala. Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan baieztatu ahal izan genuen egoera kezkarriak islatzen zituztela, eta, horrela izanda ere, horiei ez zitzailea konponbiderik ematen –noraino da hori posible zuzenbidearen bitartez–. Arrazoiak eginbideak egiterakoan, badaezpadako neurriak hartzerakoan edo Fiskaltzaren aldetiko eskaeran edo ofizioz izendatutako abokatuenean atzerapenak izatea izan zen.

Ezkontza prozedurengatik aurkeztutako erreklamazioez gain (xehetasun gehiagoz helduko diegu jarraian), epaileak agindutako ezintasuneko, tratamendu psikiatrikoa jasotzeko borondatearen aurkako barneratzeetarako eta ez ordaintzeagatiko kanporatzeetarako kasu zehatzei buruz ari gara. Horietan guztietan kudeaketa zuzena izan dugu eragile juridiko ezberdinen aurrean. Xedea izapideak arintzen saiatzea izan da, atzerapenagatiko erantzukizunak eskatzea posible den edo ez alde batera utzita eta justizia jaso behar duenarentzat kasuan kasuko egoerak zekartzan ondorioak ikusita.

Prozedura zibilen alorrean iristen zaizkigun kexa gehienek banantze eta dibortzio prozesuekin zerikusia dute. Herritarrek alor horretan agertzen duten poztasun ezak agerian uzten du neurri batean horrelako egoerek sorrarazten dituzten mota guztietako zailtasunen aurrean pertsonak hainbat itxaropen jartzen dituztela zuzenbidean eta hark ezin dituela horiek oso modu mugatuan besterik bete. Aldi berean, ordea, proportzioa galtzen da familiako epaitegien eskura jarritako baliabideen eta haiei planteatutako kasuen hazkundearen artean: 1995-2006 tartean %326ko hazkundea izanda, ezkontzen apurketak areagotu egin dira Espainian Europako beste edozein herrialdetan baino gehiago. Horrez gain, Europaren buruan dago ere, Belgikarekin batera, ospatutako ezkontza-kopuruaren proportzioaren eremuan. Horrek ekartzen duen baliabide eskasiak eragina du legean, hurrengo kasurako, aurreikusitako baliabideen eraginkortasunean: aldean arteko akordiorik ez egon eta horien arteko botere asimetriak eskubide urradura ekartzen duenean. Hori saihestea eta zuzentzea behar-beharrezkoa da justiziaren jardunaren bitartez.

Esparru horretan kokatzen dira, lehenik eta behin, hainbat emakumeren partetik jaso ditugun kexak. Horiek bizi duten egoeraren berri eman digute, konpentsazio- edo mantenu-pentsioak ordaintzera beharturik zeuden aldeek ordaintzeari utzi eta beren izenean ondasunik, errentarik edo soldatarik ez dutenean, bide zibiletiko bahiketa egiteko. Bide penaletik, berriz, adierazitako ordainketa eza hiru hilabetetik urtebetera bitarteko kartzela-zigorrekin zehatzen da eta sei hilabetetik 24ra bitarteko isunarekin pentsio horiek jarraikako bi hilabetez edo jarraitasunik gabeko lau hilabetez ordaintzeari uzten bazaio. Aitzitik, delitu hori nahi ez duelako ordaintzen ez duenak bakarrik egiten du. Ondorioz, zaila da epai zehatzailea lortzea akusatuak baliabide ekonomikorik ez izateagatik ordaintzen ez duela alegatzen badu eta bizitzeko dituen benetako baliabideak ezkutatzea lortzen badu. Bestalde, epai zehatzailea jasotzeko mehatxuak borondatez betetzen ez duena atzerarazi badezake ere, horrela gertatzen ez bada, kartzelaratzek ez dakar zor dituen kopuruak ordainduko dituenik edota une horretatik aurrera betebeharrei

erantzuteko egoera hobean egongo denik. Epai penalak ondasun edo soldaten bahiketa badarama ere zor den kopuruagatik, hura gauzatzeko garaian zailtasun berdinak egongo dira bide zibiletik eraginkor bihurtzeko.

Horregatik da hain beharrezkoa berme fondoa izatea, bai kasu hauetarako, bai pentsioaren ordainketa falta hari aurre egiteko benetako ezintasunaren ondotik etorritakoa den kasuetarako. Gai hau aspalditik araututa duten herrialdeetan, Belgikan, Irlandan edo Kanadan adibidez, estatuak diru hori aurreratzen du gerora zordunari erreklamatzeko. Gure artean, gobernu ezberdinek fondoaren eraketa iragarri izan dute 1987tik aurrera, nahiz eta gai konplexua dela erantsi ohi zuten eta Estatuak kostua gain hartuko duela ikusita ordainketa-ezak iruzurrez orokortzea saihestu behar zela ere esan. Hainbatetan adierazi izan genuen kautela horrek, beharrezko iragazki eta kontrolak hartzea justifikatuko balu ere, inola ere ez duela horrenbeste pertsona, emakumeak gehienetan, laguntzarik gabe uzteko arrazoi izan behar. Haiek ezegonkortasun egoeran ikusten dute beren burua arrazoi hau dela-eta.

Estatuko Gobernuak 2006ko azaroan iragarri zuen fondoa, 2005eko otsailetik Berdintasun Legearen 45.2 artikuluan aurreikusitakoa, 6 hilabeteren buruan eraturik egongo zela. Are gehiago esatearren, xede horretarako 10 milioiko partida jarri zen 2007ko aurrekontuetan. Aitzitik, kontua da abenduaren 7ra arte ez zela gauzatu. Une hartan 1618/2007 Dekretuak arautu zuen; horren arabera, 100 euroko kopurua aurreikusten da seme-alaba bakoitzeko adingabeak diren bitartean (edo adinez nagusiak %65eko elbarritasunarekin) eta, gehienez, 18 hilabetez. Araudi autonomikoak baldintza horiek hobetu ahal izango ditu, hainbat pertsona eta erakunderen partetik oso hertsazailatzat jotakoak direlako eta, horregatik, Arartekoari kexa adierazi diote. Gure erakundeak Emakunderi adierazi ohi dio beharrezkoa dela hori guztia ahalik eta lasterren arautzea. Halaber, interesa agertu dugu institutu horrek Gizonen eta Emakumeen Arteko Berdintasunerako Erakunde-arteko Batzordearen esparruan gain hartu zuen azterlanarengatik, bereziki bi alderi dagokienez: batetik, arrazoi horregatik gure autonomia-erkidegoan dauden beharren zenbatze ekonomikoa; bestetik, administrazio zentralaren, autonomikoaren eta, batez ere, foru aldundikoen arteko fondoaren kudeaketan eta zuzkiduran dagoen eskumen araudiaren eragina, azken horrek dituen baliabide garrantzitsuak kontuan izanez, bai ekonomikoki gastuari laguntzeko, bai ogasunen bitartez zordunen errenta eta ondasunen gaineko kontrolari dagokienez. Txosten hau egiten amaitutakoan, gaiaren inguruan eskatutako idatzizko informazioa jaso zain geunden, eta gobernu autonomikoak gaia arautzeko erabiltzen dituen irizpideen jarraipena egiten jarraituko dugu. Hain zuzen ere, Eusko Legebiltzarrak 2008ko otsailaren 1ean hori egitea eskatu zion urteko lehenengo seihilekoa amaitu aurretik.

Horrelako prozeduretan izandako atzerapenengatik kexek eragina dute adostutako probak egitean nahiz ebazpena emateko atzerapenean, eragin berezia izanez horiek kaltetzen dituzten pertsonak sortu ez dituzten arrazoiengatik etenduretan. Horiek izaten dira justiziaren jarduna presa handiagoz behar dutenak babesgabetasun egoera zuzentze aldera. Horixe adierazi zigun 2007ko urtarrilean dibortzio eskaera aurkeztu zuen kexagileetako batek. Haren senarrak alaben mantenurako kopuru zehatza ez sartzean, bere egoeraren larritasuna baliarazi nahi izan zuen martxoan badaezpadako neurri batzuk eskatuz. Apirilean epailearen aurrean deklaratu zuen, eta maiatzean hark eskatutako neurri horiek adostu zituen. Aitzitik, bertaratzean erabilitako grabazio sistemen akats baten ondorioz, epaitegiak autoa baliogabetu zuen interesdunari adieraziz

ikustaldi nagusia zehaztuko zela presaz. Azaroaren amaiera aldera gure erakundera jo zuen, eta oraindik ez zen horrelakorik gertatu. Harremanetan jarri ginen epaitegi horrekin, egoerak kexagileari eragiten zizkion eragozpen ekonomikoen berri emateko eta hari erabakia itxaroteko epe onargarriari buruzko informazioa emate aldera. Bista bi hilabete geroagorako zehaztu zen.

Adingabeen inguruan hartutako neurriengatik jasotzen ditugun kexak bereziki garrantzitsuak dira, zuzenean seme-alaben eskubideei eragiten baitiete. Horietako batzuk zerikusia dute neurriak hartzearen erabakiaren atzerapenarekin, bai administrazioarekiko auzien bidean, bai, zenbaitetan, aldean arteko akordioa egonda eta guzti. Esku artean izandako kasu batean 2006ko urrian egindako aldarazpen eskaera 2008ko urtarrilera bitarte ebatzi ez bazen ere, batez bestekoa sei hilabetekoa da gutxi gorabehera eta hori oraindik neurritz gaineko epea da.

Beste batzuk agerian uzten dute epaitegiek dituzten baliabideak zeintzuk diren haiei gehien komeni zaiena zehazteko. Azpimarratu behar dugu egun epaitegiei atxikitako talde psikosozialek ez dutela komeni izango lireratekeen baliabideak sakontasunez, osorik eta banan-banan baloratzeko ia beti konplexuak diren familia-egoeretan agertzen den inguruabar multzoa. Hasiera batean bi aldeei modu berean eragiten dien arazoa izango litzateke, eta Arartekoak eman zuen jada horren berri iaz Legebiltzarrean. Hori horrela izanda ere, arrazoi horregatik jasotako kexak geroz eta ugariagoak dira eta horietan azpimarratzen da aipatutako taldeen txostenak, praktikan epaitegiaren azken erabakiak neurri handi batean oinarritzat hartuko duena, guraso bakoitzarekin eta, egoki irizten bada, seme-alabekin ordubete eskaseko iraunaldia duen elkarriketa ez den beste alderaketa-elementurik gabe egiten direla. Horietan lan egiten duten profesionalen seriotasuna eta ardura egiaztatzeko aukera izan dugu. Aitzitik, haien eskura jarritako giza baliabideak eta baliabide materialak ez dira nahikoak nahi izango litzatekeen azterlan sakona egiteko ez bakarrik gaitasun psikologikoaren gainean, baizik eta baita eragina izango den pertsonen bizitzen inguruan agertzen diren gizarte, lan eta familia-inguruabarren pilaketa guztia sakon ikertzeko ere. Pertsona horien bizitzetan eragina izatez gain, azkenean egiten den ebazpenean ere eragin erabakigarria izango dute.

Gai honen alorrean auzi gatazkak areagotzea ondorio bereziki kezkarri batekin etorri da, hain zuzen ere adingabe batzuk zaintzaile ez den aita edo amarekin egoteari emandako ezezkoa. Azken urte honetan iritsi zaizkigun kasuek agerian uzten dute eragin horretarako alde zaintzailearen –ama gehienetan– aurka jartzen diren neurriak urratzeagatik salaketen eraginkortasun eskasa, zaintzaileak adingabea behartzen ez duenean epaileak adosturikoa betetzera. Zenbait kasutan mehatxu penalaren bitartez ezarritako komunikazio erregimena betearazten saiatzea beste erremediorik geratzen ez bada ere, gure esperientziak dio bide horrek ez duela eremu honetan harremanak zailtzen besterik laguntzen, azken batean adingabeen kaltetan.

Aldiz, ziurtatu ahal izan dugu bi baliabideren erabilerak arrazoi horrengatik sortutako tentsio egoerak birbideratzen laguntzen duela. Batetik, gure erkidegoan ditugun familien topaketarako zazpi biltegiak egongo lirateke. Horiei buruz zabalago hitz egingo dugu txosten honen bederatzigarren atalean, adingabeei zuzendurikoan hain zuzen. Bestetik, familia-bitartekotzako zerbitzuak egongo lirateke. Haien jardun onari esker, posiblea izan da elkarrekiko konfiantza sortzea negoziatutako konponbideen bitartez desadostasun egoerak eta epaitegietan elkarri jarritako salaketak desblokeatzeko. Horiek, hasiera batean, seme-alaben eskubideen aldarrikapen modura planteatu zitzaizkion

gure erakundeari. Gure esperientzia ikusita, bide hori hautatzea ez da, soilik, askoz ere praktikoagoa –egiteko modukoa denean–; aitzitik, erraztu ere egiten du adingabeak izatea, heltzean, horrelako konponbideak hartzen laguntzen dutenak.

Azkenik, Arartekoari kaltetutako partikular eta elkarteek horrelako egoerengatik helarazitako kasuei esker posible izan zaigu seme-alaben zaintza guraso bati edo besteari emateko erabilitako irizpideak ezagutzea. Horri dagokionez, eta erabaki judizialei zor diegun errespetuaren kaltetan izan gabe, uste dugu erakunde honen eginbeharrak ezarri egiten digula hausnarketa sustatzeko eginbeharra. Hura, genero ikuspegia erantsiz, lagungarri izan behar da joera sexistak gainditzeko.

Oraindik aurreranzko bidean asko badago ere egiteko, argi dago azken urteotan emakumeek eremu publikoan lehen senarren baimenarekin bakarrik eskura zitzaketen espazioak konkistatu dituztela. Aitzitik, ez bizi esperientziak, ez gizonen artean gehien agertzen diren erreferentzi sinbolikoez ez dute adierazten haiek, praktikan, modu berdinean okupatu dutenik tradizionalki emakumeari egokituriko etxeko eremua. Aldiz, pentsa daiteke emakumeek etxetik kanpo lan egin arren, familia askotan senideen zaintza eta mendeko pertsonena amaren funtsezko erantzukizun modura hartzen dela oraindik, aitagandik beste ezer baino lehen espero dena jana etxera ekartzea den bitartean.

Geroz eta indar gutxiago duen familia-eredu batek arrastaka ekarritako mentalitatea izan daiteke. Hala eta guztiz ere, jasotako kexek benetako eraginkortasunerako lehen mailako eragozpen noraino den adierazten digute. Batetik, gizon eta emakumeen aukera profesionalak generoaren arabera baldintzatzen jarraitzen dira, emakumeek intentsitate handiagoko erantzukizuna baitute laneko ardurak eta familiako bizitza bateratzeko. Horrek argitzen du, besteak beste, gizonen gaitasun eta prestakuntza berdina izan arren, zergatik duten emakumeek ordezkaritza eskasagoa ardurak eta erantzukizun gehieneko lanpostuetan. Horrek esan nahi du emakumeek soldata baxuagoa jasoko dutela eta, azken batean, botere gutxiago izango dutela. Aitzitik, kontuan hartzekoa da ere bikoteak haustean eragile juridikoez generoari lotutako rol eta itxaropenek zerikusia dutela oraindik, neurri handi batean, mentalitate horrekin: bertan etxeko lanen ardurak alde batera uzten duen gizona nahiz “etxean laguntzen” duena sar daitezkeen bezala baina etxeko erantzukizunak berdintasunez hartzen dituen kanpoan utzita, gauza bera gertatzen da bereizitako aitaren beste paper bat izatearen aukerarekin. Salbuespenak salbuespen, seme-alabekin noizean behin egoteko aukera eta, kasurik onenean, haien behar materialak estaltzeko ordainketak egitea onartzen zaie.

Eskema horren barruan, betebeharretatik libratu nahi duen aitak familia-irudi bat betetzen du, eremu zibileko nahiz penaleko arauetan ikus daitekeena –beste gauza bat da, jada adierazi dugun modura, horiek eraginkorrak izatea ez-betetzeak saihesteko–. Guraso erantzukizuna partekatu nahi duen aita, aldiz, ez da eskura dauden mailetan sartzen. Aldeen arteko akordioak ez badago behinik behin adingabeen zaintza partekatuzko, haien eskakizuna beren beharrak familiaren ongizatearen kontura betetzeko saiakera moduan hartzen dute epaile eta fiskalek, erantzukizun ekonomikoak saihesteko modu bezala hartzen ez dutenean. Logika hori jardun judizialean agertzen da amari lehentasunez eta bakar-bakarrik haurren zaintza ematerakoan eta txosten psikosozialek zaintza hori egiteko bi gurasoetatik edozein egoki dela adierazi arren. Logika horrek nahitaez baldintzatzen du amen eta aiten arteko berdintasuna akordioak lortzerakoan. Hori nekez har daiteke emakumeen eta gizonen iraganeko eta oraingo ezberdintasunak gainditzeko diskriminazio positibo moduan: azken batean pertsonen horiek sendotzen lagundu

zuten rol eta gizarte itxaropenak egozten zaizkie generoaren arabera eta, beraz, hori adingabeen interesen alde egiten den benetan galdetzeaz gain, bidezkoa da hausnartzea noraino kokatzen digun horrek benetako berdintasuna lortzeko bide egokian.

Eremu penalean aurten ere inkomunikazio erregimenean atxilotutako pertsoneri emaniko tratu txarrak eta torturak salatu dituzten kexek toki nabarmena hartu dute. Euskal Autonomia Erkidegoan egindako atxilotetei buruzkoak baziren ere, horiek guztiak Guardia Zibilak eginikoak izan ziren eta agintaritza judizialaren aurrean salatu zituzten. Horrek, ondorioz, bi muga jarri izan dizkio gure jardunari: batetik, Barne Ministerioaren menpe dagoen polizi kidegoa izanda, Herriaren Defendatzailea jarri behar izan dugu jakinaren gainean, hari baitagokio legez banakako eskubideak defendatzearen alde egitea estatuko administrazioko organo ezberdinek egin ahal izan dituzten egintza irregularren aurrean. Bestetik, erakunde horren jardunaren muga jarduera judizialak egotean dago. Kasu horretan horiek dira egin ahal izan diren ilegaltasunak ikertzeko eta kasuan kasuko erantzukizun penalak ezartzeko bide bakarra, epaitegiak ez diren beste instantziarik funtzio horretan sartzeko aukerarik izan gabe.

Arrazoi hori dela-eta, Arartekoaren jarduna ezin izan da salatutako kasu berezien ikerketa izan. Esku hartzeko bide bakarra prebentzio eta poliziaren jardunaren gaineko etengabeko ikuskapen lanetan egongo litzateke, bidegabeko jarduerak saihesteko edo, dauden kasuan, horiek antzeman eta zehatzeko mekanismoak ezartze aldera. Eta lan hori euskal poliziaren kidego ezberdinekin bakarrik gara daiteke, hau da, Ertzaintza eta udaltzaingoeekin. Haien komisariak bisitatu ditugu eta txosten honetan herrizaingoarenean eremuari zuzendutako atalean bildu dugu emaitza.

Hala eta guztiz ere, jasotako testigantzak Herriaren Defendatzaileari eta Europako Kontseiluko Torturaren prebentziorako Batzordeari helarazteaz gain, erakunde honek nabarmentzen jarraitu du, foro eta aukera ezberdinetan, kezka sakona duela torturak izan dezakeen iraupenagatik. Uste dugu hori giza eskubideen kultura hedatzeko eta hartan sakontzeko dugun eginbeharretik eratorritako betebeharra dela. Zentzu horretan, aurreko txostenetan atxilotetetan denbora eta toki opakoak deuseztatze beharra azpimarratu izan badugu ere agerian utziz inkomunikazio aldiak aplikatuzetik etorritako arazoak, oraingoan atentziora azken urte honetan zehar argitaratutako bi txostenek emaniko datuetara eramanarazi behar dugu. Horiek argi uzten dute gure sisteman kalte horren aurka borrokatzeko dauden lege mekanismoen eraginkortasuna mugatua dela.

Giza eskubideak bermatzen dituen erakunde moduan, ezin ditzakegu alde batera utzi bi azterlanetatik eratorritako ondorio kezkarriak. Izan ere, azterlan horiek ikerketa-lanean egindako urteetan zehar erakutsitako seriotasunagatik nahiz mundu osoko pertsonen giza eskubideen defentsaren diskurtsoan erakutsitako koherentziagatik ospe nabarmenekoak diren bi erakundek eginikoak izan dira. Horietatik lehenengoa Amnesty Internationalek egin zuen eta 2007ko azaroan aurkeztu izenburu honekin: *“España. Sal en la herida. La impunidad efectiva de los agentes de policía en casos de tortura y otros malos tratos”*. Bigarrenak 2007ko amaiera aldera amaitu zen lau urteko ikerketa lan zabala biltzen du. Hura Bartzelonako Unibertsitateko Sistema Penalaren eta Giza Eskubideen Behatokiak garatu zuen: *“Privación de libertad y Derechos Humanos. La tortura y otras formas de violencia institucional”*.

Espanian arrazoi horrengatik urtero aurkezten diren batez besteko 720 salaketak dokumentatzeaz gain, bi azterlanek –eta hori da haien ekarpen nagusia– jarraipen

xehatua egiten dute horiekiko epaile, fiskal, auzitegiko mediku eta salatutako polizi kidegoetako barne ikerketarako sailek duten paperaren gainean. Horretarako, ebazpenen eta irizpenen edukia Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak nahiz Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Batzordeak salaketa horien ikerketa inpartziala, azkarra, eraginkorra eta zehatza izateko landutako irizpide eta gomendioekin alderatzen dute. Maila horietan guztietan aurkeztutako datuek agertzen dituzten gabeziek ezin dituzte axolagabekeria utzi gure ustez horrelako jokabideak saihesteko gure sistema penalean ezarritako bermeen benetako eraginkortasun maila ezagutzeko interesa duten erakundeak.

Eraginkortasuna delituen ikerketaren opakotasunarekin uztartzen duen eta, azken batean, arrazoi tekniko-polizialengatik inkomunikazioaren aukera justifikatzen duen ikuspegia, polizia guztien artean hedaturikoa, kritikatzten dute. Hori jotzen da torturaren aurkako borroka-mekanismoek prebentzioari dagokionez duten eragin eskasaren arrazoi nagusietako bat bezala, edukiz hustean eragin horietarako funtsezkoak diren hiru bermeak: berehala abokatua izatea, ez “harrizko gonbidatu” modura aitopenaren egintza formalean, baizik eta hasieratik atxilotutako pertsonaren gorputzaren kalte eza bermatzeko agertzen den kanpoko elementu modura; konfiantzazko sendagile bat eduki ahal izatea epaitegiei atxikitako funtzionarioaz gain, bereziki zorrotzak agertuz eremu horretan Auzitegi Nazionaleko medikuek egindako parteekin; azkenik, senideei atxilotutako pertsona fisikoki non dagoen jakinaraztea. Hori, egun eta kasurik onenean, orokorrean eta estereotipaturik egiten da.

Errudunen errepresioa –zalantzarik gabe prebentzio asmoa duena bere horretan– eta biktimei eragindako kaltea ordaintzea torturaren aurkako borrokak eraginkortasuna agertu behar duen beste bi mailak izango lirateke, prebentzioarekin batera. Horietatik lehenengoari dagokionez, salatutako erasoen zuzeneko erantzuleak ez identifikatzeagatik instrukzio fasean artxibatutako ohiko kasuez gain, edo parte hartu duten agenteei aitopena hartzea ez den beste frogarik bilatu gabe artxibaturikoez gain, argiak dira tortura-delituengatik epai irmoarekin zehatutako funtzionarioen indultu, igoera, kondekorazio eta izendapen kopuruak. Biktimei eragindako kaltea ordaintzeari dagokionez, haiek, egon direnean, 600 eta 4.000 euro arteko kalte-ordainei mugatu zaizkie.

Horrek guztiak panorama zehatza deskribatzen du eta zuzenbideko estatu demokratikoak erantzun tinkoak, argiak eta eraginkorrak eman behar ditu tortura eta tratu txarrak erabat deuseztatzeko. Izan ere, horrek berean jarraitzen badu, gure ustez Luigi Ferrajoli irakasleak (berme juridikoen eremuan nazioartean ospe handieneko autoritatea eta funtsezko erreferentzia denak) argi eta garbi agertzen duen arazoa ekarriko du. Hark beren beregi babestu nahi izan du aipatzen aritu garen Bartzelonako Unibertsitateko lankideen lana:

“Esta práctica no es en absoluto una ruina del pasado, propia de los sistemas penales pre-modernos, como podrían hacerlo pensar la existencia de los numerosos pactos y convenciones internacionales sobre la prohibición de la tortura. Por el contrario, la tortura vuelve a ser, también en nuestros civilizados ordenamientos, un fenómeno difuso y de ninguna manera excepcional, a pesar de se estigmatizado por el Derecho como crimen contra la humanidad. Por tanto, la cuestión de la tortura no es un problema teórico, perteneciente a la tradición clásica, dieciochesca, iluminista, propia del garantismo penal.

Más bien es una cuestión dramáticamente abierta por los innumerables y siempre presentes casos de tortura y de violencia institucional, también en los países de democracia avanzada, en detrimento de las personas arrestadas o detenidas.”

Berezi egokiak iruditzen zaizkigu hitz horiek egungo unean, askatasunen erregimean bizitzeagatik edo ilustrazioko iluminismo penalarekin hasi zen “continuum” baten eta egungo gure testuinguru juridiko eta kulturalarekin amaituko litzatekeen ondorio modura (demokrazia aurreratuek berezkoak dituzten prebentzio sistemen eta sistema hertsatzaileei esker) tortura desagertu egiten dela pentsatzeko tentazioaren aurrean arreta jarrazten digulako. Jarrera horrek ekar dezakeen inozokeriaren aurrean, tortura desagertzea posible izatearen ideia deseroso eta aldi berean pizgarria jartzen digute. Aitzitik, hori zuzenbidearen borrokaren ondorio modura bakarrik izango da posible, inola ere ezin eman daitekeelako amaitutako lantzat.

Eremu penalean izandako esku-hartzeak ere balio izan du jurisdikzio honetan jarrirako zehapenek eraginik ez izaten saiatzeko pertsona ezberdinek berriro gizarteratzeari dagokionez garatzen ari ziren prozesuetan. Administrazio jardunarengatik eskubide uradura baino, kasu hauek planteatzen zutena zen beharrezkoa zela epaitegien aurrean kexagileek gizarteratze programetan edo droga-kontsumoaren ohitura galtzearenetan izandako bilakaera positiboak eragina izatea. Hori guztia, hainbat arrazoi direla bide, besteak beste ofiziozko defentsa eskasa, ezin izan zen epaian kontuan hartu aldaketa-inguruabar edo betetze alternatiboak aplikatzeari dagokionez. Gure lana errazagoa izan da epaile eta fiskalek agertutako aldeko jarreragatik araudi penalak horrelako kasuetan eskaintzen dituen bideak aztertzeari dagokionez. Horrez gain, lana posible izan da neurri handi batean Eusko Jaurilaritzako Justizia Saileko Zigorrak Beteazteko eta Gizarteratzeako Laguntza Zerbitzuaren laguntzari esker eta haien lana bereziki eskertu nahi genuke.

Gai penalean, halaber, erakundeek **emakumeen kontrako indarkeria sexistaren** alorrean emandako erantzunari buruzko erreklamazioak azpimarratu behar dira. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremu zehatzari zuzendutako txosten honen zatian adierazitako jardueraz gain, gure esku-hartzeak ebazpen judizialen gauzatzearen gainean jarraipena egiteari buruzkoak izan dira ere. Helburua horiek biktimen benetako babesa izaten laguntzea izan da, egun oraindik bestelako neurri zibil eta gizarte ongizatekoekin agertzen dituzten bateraezintasunak saihestuz.

Horren inguruan garatu dugun lana bi aldeetan egin da: bata babes agindua koordinatzeko prozedura burokratiko eta administratiboarekin du zerikusia; bigarrenak, laguntza izaera du gehiago, eta eragindako emakumeen behar osoei heltzen die. Horiek laguntzako zerbitzu judizial zorrotzetik hasi eta laguntza eta aholkularitzaraino doaz, eskura dituzten laguntza-baliabideei dagokienez.

Egokia iruditzen zaigu administrazio autonomikoak egindako esfortzua babes agindua koordinatzeko zentro baten sorrerarekin. Haren ardura nagusiak tratu txarren kasuei buruzko informazioa biltzea, babes aginduak koordinatzea eta datuak sortzea izango lirateke. Horiek, dudarik gabe, erabilgarriak izango lirateke eremu judizial eta polizialeko baliabideak ebaluatzeo eta, Emakundeek eskatuta, egun hori garatzen ari da.

Biktimari Laguntzako Zerbitzuak (BLZ), bestalde, biktimei laguntzeko eskumenak gain hartzen jarraitzen du. Lan hori, aurten ere ikusi ahal izan dugun bezala, ardura eta

profesionaltasunez betetzen du. Eremu horretan sumatutako arazoak gizarte zerbitzuekiko koordinaziokoak izan dira batez ere, eta horien jatorria da BLZra joatea borondatezkoa dela eta, ondorioz, biktima askok ez duela hori egiten. Hori dela-eta, zerbitzu honek ezin ditu gizarte zerbitzuetara babes aginduak bidali. Horrekin biktimen gaineko jarraipen prozesua apurtu egiten da eta, ondorioz, baita epaitegiari biktimak gizarte eta laguntza zerbitzuetatik jasotako tratamendu eta baliabideen gaineko informazioarena ere.

Batzuetan zerbitzu horien ordutegi malgutasun falta dela-eta esku hartu behar izan dugu. Horixe adierazi zuen jazarle baten biktima modura laguntza psikologikoa behar zuen eta ukatu zitzaion langile batek. Izan ere, bajaran ez zegoenez, laneko ordutegitik kanpo bakarrik eskura zezakeen hura, nahiz eta egokitu zitzaion terapeutak zerbitzurik ez izan adierazitako ordutegian. Bilboko Udalarekin harremanetan jarri ondoren, eragindako administrazioa izateagatik, arazoa behar bezala ebatzi zen. Hala eta guztiz ere, aipatzeko modukoa da honakoa islatzen duelako: bigarren mailako biktimizazioa saihesten laguntzeko, horrelako zerbitzuek hura eskuratzen duten emakumeen lan eta famili ordutegiekin bat egitea saihestu behar dute ahal duten heinean.

Arazo berdina sumatu da epaitegiko zitazioen kasuan. Kexagile batzuk keXu ziren jakinarazpen eta berrespen izapideetarako ematen zitzaizkien hitzorduen maiztasun eta ordutegiak ikusita bazirudielako, biktima modura aurre egin beharreko egoeraren testuinguruan, prozedura judiziala oztopoa jartzen ari zitzaie la onura ematen baino. Agian, eremu honetan erreklamazio esanguratsuen a %78ko ezintasuna zuen emakume batena izango litzateke. Hark, Kantabriatik (senar ohiaren eraso a jazo zenetik bizitokitat du) Bilboko Epaitegira joateko zituen zailtasun nabariez gain, jakinarazi zigun jasotako zitazio batzuen aldaketa-eskaerak gaitzetsi zizkiotela, laneko elkarriketekin bat egin arren. Elkarriketa horiek ezerezean geratu ziren arrazoi hori zela-eta. Pentsatzekoa da hori neurri batean saihestezina dela bermatzailea izan behar duen prozedura baten esparruan. Aitzitik, uste dugu biktimentzako nahi ez diren eraginak gutxitzeko aukera badagoela bulego judizialen partetik sentsibilitate handiagoa izanez emakumeen behar eta inguruabar pertsonalentzako.

Esaten ari garenagatik bereziki esanguratsua litzatekeen beste kexa bat, atzerriko emakumeen arazo zehatzei heltzeagatik, genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako zentro bateko langileek aurkeztutakoa izan zen. Bertan, jatorri brasildarreko emakume bat zegoen, Getxon bere bikotekidearekin zuen etxea utzi behar izan ondoren honek ematen zizkion tratu txarren ondorioz.

Biktima Bilboko guardiako epaitegira joan zen, aipatu zentroko lege aholkulariarekin, tratu txarreatatik bikotekidearen aurkako salaketa jartzeko. Erandioko ertzain-etxera bidali zuten, han salaketa jar zezan. Horixe egin zuen eta aipatutako ertzain-etxean Bilboko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Arloko 2. Epaitegirako zitazioa eman zioten biktimak Bilboko barruti judizialari dagokion eta zentro hura kokatzen den udalerrian erroldaturik zegoela adierazteagatik. Biktimaren helbidea eragin guztietarako Foru Aldundiaren Emakumea eta Familia Zerbitzuarena zen. Hala ere, Epaitegiak pentsatu zuen lurralde eskumena Getxoko epaitegiei zegokiela, ez baitzuen jasota erasotzailearekin partekatzen zuen bizitokia ez zen besterik, eta hori berarekin joan zen zentroko hezitzaileak Epaitegian adierazi zuen arren pertsona hori Bilbon erroldatuta zegoela. Ondorioz, babes aginduaren agerraldia Guardiako Epaitegiari helarazi zitzaion. Han salatutakoa ikusi zuen eta, beldurturik eta zer egin jakin gabe, Biktimari Laguntzeko Zerbitzura jo zuen babes bila. Azkenik, ez zen babes agindua onartu eta Epaitegia inhibitu egin zen

Getxoko Epaitegiaren alde, hori baita barruti judizial horretan emakumeen kontrako indarkeriaren arloan eskumena duena.

Kasua Justizia Sailari eta Epaitegi Dekanoari jakinarazita, bi mailetatik eskuratutako erantzuna onargarrizat har daiteke, interesdunari ordain morala erantsiz barkamen eske modura. Hala ere, eta kasu zehatzetik haratago, kezkatuta gaude aipatutako harrera-zentroko langileek esan zigutenarekin; alegia, gure epaitegietan biktima errespetu gutxiz tratatzea ohikoa izan ez arren, salatzailea atzerritarra denean gertatzen dela, beharbada, beldur garelako salaketa beren egonaldia erregularizatzea lortzeko iruzurrezko bidea ote den. Gertatutakoak agerian uzten du epaitegietan mota honetako arloez arduratzen diren funtzionarioek prestakuntza berezia behar luketela atzerriko emakumeen kasuan beren lana nola garatu behar duten jakiteko; horrela, beren kultur eta hizkuntz desberdintasunen ondorioz pertsona horiek dituzten premiei aurre egin ahal izango zaie eta, horrela, beren adierazpenak eta asmoak behar bezala ulertzeko batzuetan egon ohi diren zailtasunak gaingitu ahal izango dira.

Baiezatu dugu egoera horrek nolabaiteko babesgabetasun sentsazioa sortzen duela horrelako delituen biktima diren atzerritar batzuegan. Halaber, erasotzaileari aurre egiteko justizia administrazioarekiko eskubideek eskaintzen dizkieten aukeretan konfiantza-falta izatea eragiten zaie. Aukera horiek jardun ezekotzat hartuko lituzkete emakumeok, baldintza sozioekonomiko eta gizonezkoarekiko mendetasuneko kultur jarraibide batzuen bizi errealitatearen aurrean. Horiek dira, zenbaitetan, biztanleriaren %5 eratu arren indarkeria sexistaren biktimen %25 hartzen duen taldearen tratu txarren fenomenoaren testuingurua eratzen duten ezaugarriak.

Aipatutako erreklamazioak, halaber, lurralde eskumenei buruzko gaiak xede haue-tarako hartutako Protokoloen Jarraipenerako Batzordean planteatzea ekarri zuen, eta espero dugu eragin positiboak izatea bi mailatan:

- Lehenik eta behin, irizpideak bateratzea. Ildo horretatik, gogorarazi behar dugu salaketa jarri duen emakumearen interesa ez dela ohiko etxebizitzan edo harrera-zentroan bizitzea, baizik eta poliziak eta epaileek iritzi desberdinak izatearen ondorioz herri batetik bestera ibili beharrik ez izatea.
- Bigarrenik, harrera-zentroetako profesionalak, Emakumea eta Familien foru zerbitzuen bidez, tratu txarrak jaso dituzten emakumeak babesteko sisteman barneratzen diren gainerako eragileekin harremanetan egotea. Gure ustez, kasu honek garbi uzten du beharrezkoa dela haiek kontuan hartzea aipatu profesio-nalak sistemaren parte direla, bi zentzutan: alde batetik, biktimarekin zuzeneko harremana dutenez, datu garrantzitsuak eskaintzen dituzte bidezko erabakiak hartze aldera; bestalde, kasu honetan bezala, biktima babesteko deklaratzekoan erasotzaileak fisikoki urrun egon behar duela diotenean, edo epaitegian, salaketa jartzerakoan, arreta bizkorra eta adeitsua izatea eskatzen dutenean, ez dira alderdietako baten interesen alde eta beste alderdiaren interesen aurka egiten ari, baizik eta babes eraginkorra eskaintzeko gizarte interesaren alde. Horregatik, uste dugu beharrezkoa dela bideak ematea epaitegiaren eta harrera-zentroetan diharduten lege- eta hezkuntza-arloko langileen arteko lankidetzak hobetzeko.

Azkenik, eta inola ere ohikoa ez den arren, adingabeek jasandako kaltea ziurtatzeko aukera eman ziguten bi erreklamazio aipatu behar ditugu. Kalteak emakumeek bikote

ohien aurka etxeko indarkeriagatik iruzurrezko salaketak jartzearen ondoriozkoak izan ziren. Horixe ezarri zuen epaitegiak bi kasuetan. Horrek, ordea, ez zuen sufrimendu eta kaltez beteriko hilabeteak izatea galarazi salatuentzat. Lehenengoa semea pozoitzeagatik salatu zuten, eta bigarrena seme-alabei sexu abusuak egiteagatik. Haien errugabetasuna inolako zalantzarik gabe argitu eta hasiera batean bi amei emandako zaintza eta babespea kendu egin bazitzairen ere –lehenengoari buruko desorekagatik eta bigarrenari drogamendetasunagatik–, une horretarako lehenengoak atzerrira eramana zuen jada adingabea –ordudanik kudeaketak egiten gabiltza hura topatzen laguntzeko– eta bigarrenak, bikote berriarekin batera, tratu txarrak eman zizkien seme-alabei eta aitak, urruntzeko agindua izateagatik, ezin izan zituen haiengandik babestu.

Genero eta etxeko indarkeriaren biktima direnei eginiko aipamena haiei ematen zaien **abokatu-laguntzaren** alorrean garatu dugun esku-hartzearekin osatzen da. Hura ekarri duten arrazoiak bi motatakoak dira.

Lehenik eta behin, delitu hauei zuzendutako txandan abokatuaren partetik jasotzen duten arretan sumatu diren gabeziak egongo lirateke. Badakigu, haiek jarduten ikusi ahal izan ditugulako, profesional horietatik gehienek egoki garatzen dutela beren lana. Aitzitik, kexak sortzen dira abokatuaren batek biktimari laguntzeari ezikusia egiten dionean epaitegi edo poliziaren aurrean egin beharreko egintza formal zorrotzetatik haratago. Hori izango litzateke guri idatzi zigun emakume baten kasua, bere ohiko etxebizitza izandakotik bere gauzak berreskuratu ezin zituela esanez idatzi baitzigun. Etxe hartatik lau hilabete lehenago irten behar izan zuen tratu txarrak jasandako emakumeentzako aterpe batera bizitzera joateko. Haren ustez, ezintasun hori genero indarkeriaren txandan egokituriko abokatuaren jardun ezaren ondorioa zen, nahiz eta hark, Bizkaiko Abokatuaren Bazkunaren aurrean, hori lortzeko bere esku zegoen guztia egin zuela adierazi zuen. Adierazpen horiek nahikoa izan ziren elkargoarentzat salaketaren ondotik irekitako diziplinazko espedientea artxibatzeko. Jakina den moduan, ez dago gure eskumeneren artean elkargo profesional batek kideetako baten portaera bere jarduna arautzen duen etika-kodearekin bat datorren edo ez baloratzeko jarraitzen dituen irizpideak zalantzan jartzea. Hala eta guztiz ere, badirudi argi dagoela kexaren xede izandako laguntza ez zela behar bezain egokia izan. Izan ere, nahikoa izan zen erakunde honen partetik Fiskaltzaren eta Ertzaintzaren aurrean kudeaketa bat egitea biktimari bere gauzak itzul ziezazkioten. Lau hilabetetan posible izan ez zena, astebete baino gutxiagoan posible bilakatu zen.

Genero indarkeriari aurre egiteko babes osoko neurrien legea eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua eraginkorrak izan zitezela 2007ko urtarrilean sinatu zen koordinazio protokoloarekin bat etorriz, doako abokatu-laguntzak, funtsean, bi alderdi barneratzen ditu: batetik, kasuan kasuko salaketa jarri eta babes agindua eskatu baino lehen eta hori egitean abokatu bertan egotea aholkuak emanez; bestetik, babes agindua eta epaiketa azkarrean bertan egotea, horrelakorik dagoen kasuan agerraldia- ren egintzan bertan edo hurrengo egunetan. Biktimari emandako abokatu-laguntza une horretatik aurrera derrigorrezkoa ez denez, hark ez du horrelakorik jasoko gastuak bere kabuz ordaintzen ez baditu, eta hori ez da beti haien esku egoten. Aitzitik, azaldutako erreklamazioak azpimarratu zuen moduan, askotan, etxetik atera behar izatean bizi daitekeen babesgabetasun egoera dela-eta, biktimak zuzenbidean aditua den pertsona baten laguntza behar izaten du. Ez da bakarrik aholkularitza legala, aldi berean salatutako

aldearen abokatuaren eta Fiskaltzaren aurrean ordezkari gitea litzateke, beraz, BLZren lana gainditu egiten da. Hori dela-eta, uste dugu hasierako laguntza eraginkorra izateko beharrezkoa dela zuzenbidearen profesional batek garatzeko gaitasuna duen kudeaketa multzoa eranstea. Helburua biktimak, jasandako erasoaren ondotik edo ordura arte tratatu txarrak eman omen dizkionarekin partekatzen zuen etxebizitzatik irteteagatik, izan ditzakeen oinarrizko beharrei aurre gitea litzateke.

Bigarrenik, kexa batzuk zerikusia dute abokatu batzuk aipatutako protokoloan jasotako jardueretako batzuk egiteagatik kobratu nahi izatearekin eta horien doakotasuna, kasu guztietan, biktimaren gaitasun ekonomikoa alde batera utzita bermatzen bada ere. Arrazoi hori dela-eta garatu dugun lehenengo esku-hartzean, abokatuak laguntza horrengatik kobratu nahi izatea baino harrigarriagoa suertatu zitzaigun Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren hasierako erreakzioa. Biktimak kontsultatu zien ea minuta ordaindu behar zuen, eta haiek birritan esan zioten hori erantzuteko hirurogei euro ordaindu behar zituela ordainsariei buruzko irizpena lan zezaten. Korporazio horrekin harremanetan jarri ginen abokatuaren akatsa kexagilearentzat kosturik izan gabe argitu behar zutela jakinarazteko. Hori eta gero, jarrera berraztertzea erabaki zuten eta argibidea ematea adostu. Bigarrenean elkargo berdineran jo behar izan zen, abokatu bati eskainitako laguntzaren doakotasuna gogorarazteko. Hala eta guztiz ere, ez zen diziplinazko arau-haustetzat hartu abokatuak biktimari kobratu nahi izatea kontzeptu berdinegatik ofiziozko txandaren kontura ordaintzeko zati bat aurkeztu izan ondoren.

Abokatu eta prokuradore elkargoen jardunari buruzko atala ebazpen batean arrazoi falta izateagatik bideratutako esku-hartzearekin amaitzen da. Horren bidez pertsona bati jakinarazi zitzaion abokatu baten aurka jarritako salaketa artxibatu egin zutela. Adierazi dugun moduan, gure ikuskatzeko ahalmena ez da iristen elkargo profesionalak beren abokatuak arau deontologikoekin bat etorri edo ez jardun duten baloratzearaino. Alabaina, salatzaileak eskubidea du ez bakarrik Elkargoak salaketa dela-eta erabaki duenaren berri izateko, baizik eta baita erabaki horren inguruko arrazoiak jakiteko ere. Hori guztia, kexagilea, errekurtsuaren ondorioetarako, espedienteko interesduntzat hartzen den ala ez kontuan hartu gabe eta gaiaren mamiai dagokionez erabakitzen dena edozer dela ere. Horri dagokionez, gomendioa egin genuen ([abenduaren 11ko ebazpena](#))³⁶, eta Bizkaiko Abokatuen Bazkunak onartu egin zuen.

³⁶ Arartekoaren ebazpena, 2007ko abenduaren 11koa; horren bidez, Bizkaia Jaureriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuari gomendatzen zaio kexagileari berriro jakinaraz diezaiola honek aurkeztutako kexa artxibatze-ko erabakia, horretarako arrazoiak eta horren aurka errekurtsua jartzeko dauden aukerak adierazita, eta informazio hori diziplina arloko salaketa bat artxibatzea erabakitzen duen hemendik aurrerako ebazpen guztietan ere barnera dezala.

9. INGURUMENA

2007an ingurumenaren arloa dela-eta jaso diren salaketak 63 izan dira, hau da, erakundean jaso diren guztien %4,04.

Erreklamazio horiek hiri eta landa inguruneak gero eta maizago jasan behar dituen erasoez kezkatuta dauden talde edo elkarteek nahiz ingurumenaren gaineko kalteen eragina zuzenean jasotzen duten herritarrek aurkeztu dituzte.

Ingurumenarekiko erasoak Konstituzioaren I. tituluan jasotako eskubideen aurkako erasoak dira, herritar guztiek pertsonaren garapenerako ingurumen egokia eta hori zaintzeko duten eskubidea urratzen baita (EKren 45. art.). Konstituzioak babesten duen interes kolektibo horren defentsak horren zilegitasunaren interpretazio zabala egiteko eta era guztietako elkarte edo taldek aurkeztutako kekek onartzeko aukera ematen dio Arartekoari.

Eragindako administrazioen arabera, kekek honela multzokatu ditzakegu:

| | |
|--|----|
| - Toki administrazioa | 53 |
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritzaren) | 6 |
| - Foru administrazioa | 3 |

Beren edukiari dagokionez, honela sailka ditzakegu:

| | |
|--|----|
| - Sailkatutako jarduerak bizitegitarako lurzoruan | 40 |
| - Ingurumenaren gaineko beste eragin batzuk | 13 |
| - Sailkatutako jarduerak industri lurzoruan | 3 |
| - Sailkatutako jarduerak lurzoru urbanizaezinean | 3 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura | 2 |
| - Hondakinak eta isurketak | 2 |

Sailkatutako jarduerak bizitegitarako lurzoruan

Adierazitako zerrendan ikus daitekeen bezala, aurtan ere hiri jardueren azpiarloak biltzen ditu keka gehien. Jasotako ia keka guztiak gai berekoak dira, hau da, udal baimenen araubidearen pean dauden jarduera sailkatuen zarata, usain eta keen ondorioz herritarrek jasaten dituzten eragozpenen ingurukoak.

Lehenik eta behin, aipatu behar dugu arreta berezia eskaini behar izan diegula taberna, pub, jatetxe, txoko edo elkarte gastronomiko eta abarren moduko **ostalaritza establezimenduen** legez kontrako funtzionamenduak sortutako eragozpenen inguruko kekei, izan ere, instalazio horiek dira, hain zuzen ere, biztanleengan eragin zuzenena dutenak, bizitegitarako hiri lurzoruan kokatuta baitaude.

Gehien salatzen diren irregulartasunak honako hauek dira: lokalak behar ez bezala intsonorizatzea, potentzia handiko musika-ekipoak edonola erabiltzea, ate bikoitzik ez izatea, eta ixteko ordutegia ez betetzea.

Halaxe gertatu zen Azkoitiko auzotar batzuekin (881/2003). Horiek erakunde honetara jo zuten, beren etxe azpian kokatutako taberna bateko musikak astebururo sortzen zituen zarata-eragozpenak jasan behar izateaz nekatuta. Erakunde honetara jo aurretik, urteak zeramatzen Udalari irregularitasun egoera salatzen, baina honek, antza, ez zuen inolako neurririk hartu jasaten ari ziren kalte larriekin amaitzeko.

Zegokion kexa-espedientea izapidetzen hasita ikusi ahal izan genuenez, kexak jaso arren eta nahiz eta jarduerak bidezko irekiera-lizentziarik ez izan, Azkoitiko Udalak ez zuen ikuskapenik egin establezimenduan. Hala, udal agintaritzari eskatu behar izan genion, albait arinen eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 64. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, instalazioa indarreko legeekin bat ote zetorren ikusteko beharrezko egiaztapenak egin zitzala. Horren haritik, lokalaren isolamendu akustikoa, establezimenduak izan ditzakeen soinu iturrietako potentzia-mugatzailen instalazioa eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuan ezarri bezala, ate bikoitza ba ote zuen egiaztatzeko ere eskatu genuen.

Jarduera sailkatuen lizentziak funtzionamendu lizentziak dira, baimena ematen duen administrazioak behin-behinean itxi arte etengabe kontrolatu behar duen instalazioari baitagozkio, horren garapenak ingurumenean eragina izateko arriskua iraunkorra baita. Horrek esan nahi du Administrazioak edozein unetan ezar ditzakeela jarduera horien funtzionamenduak dakartzen eragozpenak konpontzeko neurri zuzentzaileak eta, horrez gain, neurri horiek berrikusi eta eguneratu ere egin ditzakeela jardueren funtzionamendu egokia bermatzeko eraginkorrak ez badira.

Hala ere, urtero esan ohi dugun moduan, gai honen inguruko kexa-espedienteak izapidetzerakoan ikus dezakegunez, kasu askotan toki administrazioak (bidezko jarduerak eta irekiera-lizentziak ematen dituen administrazioak) arduragabekeriaz jokatzeko edo jarrera pasiboegia du jarduera horien inguruan bizi diren auzotarrek jasaten dituzten eragozpenak arintzeko beharrezko neurriak hartzerakoan.

Batzuetan, udalek adierazi dute baliabide materialik eta giza baliabiderik ez dutelako ez dutela esku-hartze nahikorik edo esku-hartzerik batere burutzen ostalaritza establezimenduen funtzionamendu egokia kontrolatzeko (286/2006).

Horren ondorioz, zenbait kasutan, jarduera horien titularrek, udal agintaritzak bidezko neurriak hartzeko (baita zigortzeko neurriak direnean ere) motel jarduten duela jakinda, ez dituzte derrigorrezko lizentziak eskatzen edo ez dituzte agindu zaizkien neurri zuzentzaileak aplikatzen (52/2007).

Gai honen inguruan, ez ditugu ahaztu behar auzitegien azken erabakiak. Hauekin bat etorritik, etxebizitzetako inmisio akustiko gogaikarriek urratu egiten dituzte EKren 15, 18.1 eta 18.2 artikulua; hau da, bizitarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea (15. art.), norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubidea (18.1 art.) eta egoitzaren bortxaezintasunerako eskubidea (18.2 art.). Hori dela-eta, behin eta berriro aipatzen dute Administrazioa esku hartzera behartuta dagoela jarduerak dirauen bitartean era honetako instalazioen funtzionamendu egokia kontrolatzeko eta, hala, eskubide horiek urratzen ez direla bermatzeko.

Ekitaldi honetan garrantzitsuak izan dira, orobat, merkataritzako lokalak **biltzeko lokal** gisa erabiltzeagatik sortutako eragozpenen inguruan jaso ditugun kexak. Jabekideen zenbait komunitatek beren etxe azpian kokatutako lonjetan gazte taldeak

elkartzearen ondorioz jasaten dituzten zaratak salatu dituzte. Gazte talde horiek alokairuan hartzen dituzte aipatu lonjak, biltzeko lokal gisa erabiltzeko, eta, bertan, musika-ekipoak, telebistak, etab. instalatzen dituzte. Lonja horiek, ordea, ez daude erabilera horretarako behar bezala egokituta.

Erakunde honetan izapidetutako kexa-espedienteetan ikusi ahal izan dugu kontu horrekin zerikusia zuten udaletako batzuek, salatutako jarduerak nahitaezko jardueralizentziarik gabe garatzen zirela ikusi ondoren –ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren 65. artikulua aplikatuta–, itxi egin dituztela, lege horren 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedurarekin bat etorritik legezkatzen ez diren bitartean.

Hala ere, Ararteko erakundera jo duten zenbait kaltetuk adierazi dute beste toki erakunde batzuek jurisdikzio zibilera bideratu dutela arazoa, beren ustez biltzeko lokalak ez direlako kalifikazioaren menpe dauden jarduerak.

Uste hori ez dator bat gure legerian jasotzen diren aurreikuspenekin.

Abenduaren 30eko 2.414/1961 Dekretuak onartutako Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudian bertan ere ezarri zen zein jarduera izango ziren gogaikarriak, osasungaitzak, kaltegarriak eta arriskutsuak eta, arrazoi hori zela medio, zeintzuk pairatuko zuten administrazioaren esku-hartzea.

Arau horretan ezarritakoa oinarri hartuta, jarduera-mota horiek instalatzeari eta gauzatzeari araudi berezi bat aplikatzearen kausa jarduera horiek eragin kaltegarriak edo trabak eta deserosotasuna sor ditzakeen funtzionamendua izatea da. Hala, jardueraren gauzatzea neurri zorrotzagoetara atxikitzeak interes orokorra babestu nahi du, kasu honetan establezimendu horien inguruan bizi diren pertsonen kalitatezko ingurumenaz gozatzeko eskubidearekin identifikatzen dena.

Bestalde, bizilekuetarako hiri lurzoruan ezarri beharreko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatu beharreko arau tekniko orokorrak onetsi zituen ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak aitortzen duenez, arauaren aplikazio eremuaren barruan sartzen dira txokoak eta kultur elkarteak eta aisialdiko elkarteak, tabernen eta jatetxeen atalaren barruan, hain zuzen.

Azkenik, martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren bidez, Industria, Merkataritza eta Turismo, Osasun eta Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza eta Ingurumen Sailek (1999-03-26ko EHAA), ingurumenean duten eragin txikia zela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak ezartzen duen jarduera-lizentzia lortzetik salbuetsita dauden jarduerak zerrendatu zituzten. Zerrenda horretatik kanpo uzten dira etxebizitzaren edo eraikin salbuetsien beheko solairuetan kokatzen diren elkartzeko jarduerak, betiere, dantza, kantu edo musika jarduera bat egiten denean (III. eranskina, 3.7).

Lonja horietan egiten den jarduera zehazteko Udaltzaingoak egindako ikuskapenetan, telebistak eta musika-aparatuak erabili direla egiaztatu ahal izan da.

Horregatik, gure aburuz, argi gelditu behar du sailkatutako jardueren araubidera atxikita daudela instalazio horiek eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorraren 55. artikuluan eta hurrengoetan jasotako administrazio lizentziaren araubidera atxikita daudela.

Hala ere, erakunde honetan izapidetutako espedienteetatik ikusi ahal izan dugunez, gure autonomia-erkidegoko udalerrri gehienek ez diote komenigarria iritzi eta beste bide batzuetatik jo dute.

Horrela, adibide gisa, egokia iruditu zaigu honako kasu hauek aipatzea:

Lehenik eta behin, aipatu nahi dugu bai Gordexolako Udalak (4/2006) bai Ibarakoak (570/2007), gure gogoetei jaramon eginez, lonjak itxi zitezela eskatzea erabaki zutela, ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/98 Legearen 65. artikuluan aurreikusitakoa betez.

Durangoko Udalari dagokionez izapidetu dugun kasuan (1616/2006) ikus ahal izan dugu, aipatu araudiak ezartzen duenarekin bat etorritik, lonjaren titularrak hori legezatzeko eskatu zuela eta, horretarako, zegokion proiektu teknikoa aurkeztu zuela.

Bestalde, Portugaleteko Udalari dagokionez bideratu ditugun kasuak aipatu nahi ditugu. Udal horrek proiektua egin du, “*Gazteak eta lonjak*” izenekoa. Bertan, gida bat jaso da, lokal horien erabilerarekin zerikusia duten sektore guztiek, alegia, gazteek eurek, lokala dagoen higiezinako auzotarren komunitateak eta lokalaren jabeak, bete behar dituzten gomendio eta konpromisoekin. Egindako proposamenaren helburua gazteei protagonismo berezia ematea da eta, hori gauzatzeko, funtsezkoa da beharrezko informazio guztia haiei helaraztea, lonjak erabiltzean drogen kontsumoagatik nahiz beste ekingintza batzuegatik egon daitezkeen arriskuak minimizatze aldera.

Hala ere, nahitaezko jarduera- eta irekiera-lizentziak izapidetzeko betebeharretik salbuesten ditu erabiltzaileak, gutxienezko segurtasun eta osasungarritasun baldintzak betetzearen truke. Baldintza horiek lonjak erabili ahal izatea bermatzen dute, baina ez dute saihesten, aztertutako kasuetan ikusi ahal izan dugun moduan (55/2006 eta 862/2007), inguruetan bizi diren auzotarrak asaldatu ahal izatea.

Bi kasuetan, urtebete baino gehiago atzeratu da, udaletxeak aurreikusitako proiektuarekin bat etorritik, lokalak legezatu eta egokitze prozedura izango litzatekeenaren hasiera. Hala ere, denboraldi horretan guztian, instalazioak erabiltzen jarraitu da, inolako mugarik gabe, eta beren eragin eremuan bizi diren auzotarrek jasandako eragozpen larrien kausa izan dira.

Horregatik guztiagatik, uste dugu beharrezkoa dela udalek behar bezala esku hartzea, pertsonen eragiten zaizkien kalteak denboran luza ez daitezken. Horretarako, erakunde honek uste du, indarreko ordenamendu juridikoarekin bat etorritik, gure autonomia-erkidegoko udal guztiek eta, bereziki, Portugaletekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko araubidearen menpekotzat hartu behar dituztela instalazio horiek eta, beharrezkoa izanez gero, ezinbestekoak diren kautelazko neurriak ezarri behar dituztela, kasuan kasu finkatutako izapideak amaitu arte, haien funtzionamendua desegokia izan ez dadin.

Halaber, aurtan ere, hainbatetan jaso ditugu **elkarte gastronomikoen** legez kontrako funtzionamenduaren aurkako salaketak. Ez dago zalantzarik udal lizentziaren menpeko jarduerak direla, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuaren 1. kapituluaren berariaz jasota dauden instalazioak izanik. Gutxi izan arren, oraindik ere zenbait toki erakunde ez dute beharrezkotzat jotzen horiek legezatzeari, jendearentzat oro har zabalik ez dauden establezimenduak direlako.

Horien funtzionamendua bitxia den arren, erakunde honen iritziz, bi kontu desberdin dira herritarrek duten biltzeko eta elkartzeko eskubideaz baliatzea eta horretarako lekuak bete behar dituen baldintza teknikoak betetzea.

Era honetako instalazioek dakarten problematika espezifikoari buruz gomendio orokorra egin zen 2000ko urteko txostenean, honako izenburu honekin: “*Udal*

zerbitzuek txoko eta gastronomi elkarteetako funtzionamendua jagoteko eta kontrolatzeko bete beharreko zereginak.”

Ekitaldi honetan esan behar dugu, aztertutako kasu gehienetan, elkarte gastronomikoek bazituztela nahitaezko lizentziak, baina horiek ez zetozeela bat lokalean benetan garatzen zen jarduerarekin. Gainera, ez zen nahikoa, jasotako salaketen aurrean, udal administrazioak egiten zuen kontrol lana. Adibide gisa, [azaroaren 12ko ebazpena dugu](#)³⁷.

Ebazpena irakurrita ikus daitekeenez, hainbat gestio egin ondoren, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen ez zituen jarduera baten aurrean geundela esan ahal izan genuen, goiko etxebizitzarako onartutako zarata-mailaren gehieneko mugak sobera gainditzen baitzituen, nahitaezko udal lizentzian baimendutakoak baino gailu edo soinu iturri gehiago erabiltzearen ondorioz. Gainera, zegokien baimena lortu zuten gailuek –besteak beste, irratiak eta telebistak– ez zituzten beren funtzionamendua egokia izateko behar zituzten aingurak eta mugatzaileak.

Teknikoki antzeman zen arau-haustearen aurka Lekeitioko Udalak zigor espedientea hasi zuen arren, elkarte gastronomikoaren titularrei ez zien eskatu bidezko neurri zuzentzaileak hartzeko jarduera indarreko araudian ezarritako parametroekin bat etorritz gara zedin.

Horregatik, egokia iruditu zitzaigun udal horri gomendatzea beharrezko soinu neurketa egin zezala, batetik, txokoak zuen aireko zaratarekiko isolamendu akustikoa ikusteko eta, bestetik, jarduera erabateko errendimenduan zegoenean goiko etxebizitzan antzematen ziren inmisio mailak izateko. Era berean, eta lortutako emaitzetan oinarrituta, eskatu genion elkarte gastronomikoari agin zekiola araz ezarritako manu guztiak betetzeko eta lokalean zegoen edozein musika-aparatu, telebista, etab. berehala kentzeko.

Lekeitioko Udalak gomendioa onartu du eta, hala, establezimenduaren titularrei lokalaren isolamendu akustikoa indartzeari buruzko proiektu teknikoa aurkezteko eskatu die.

Oñatiko jabekideen komunitate bat (572/2007) erakunde honi zuzendu zitzaion beren etxeetan **elkarte gastronomiko** batetik zetozen zaratak, bibrazioak, talkak eta usainak jasanezinak zirela adierazteko.

Jasotako administrazio espedientean ikusitakoaren arabera, establezimenduan egin zen lehenengo neurketan 46,6 dB (A)-ko emaitza lortu zen, emaitza benetan eskasa bertan zer jarduera egiten ziren kontuan hartuta. Arrazoi hori zela medio, zegokion alkatetza-dekretuaren bidez, jardueraren titularrei lokalaren isolamendu akustikoa sendotzeko beharrezko obrak egin zitatzela agindu zitzaion eta ohartarazi zitzaion, egin beharreko obrak amaitu bitartean, erabat debekatuta zegoela lokaleko telebista 22:00etatik aurrera piztuta izatea.

Kaltetutako auzotarrek behin eta berriro arazo bera aipatzen zuten, beste neurketa bat egin zen eta, horren bidez, bai lokalaren isolamendu akustikoak bai goiko etxebizitzetan antzemandako bibrazio mailek indarreko legerian ezarritako parametroak betetzen

³⁷ Arartekoaren ebazpena, azaroaren 12koa; horren bidez, Lekeitioko Udalari gomendatzen zaio elkarte gastronomiko bati ostalaritza establezimenduak eta antzekoak arautzen dituen ordenantza betetzeko agin diezaiola.

zituztela ikusi zen. Hala ere, oraingoan, lokalaren goiko etxebizitzetan erregistratutako zarata-inmisioko mailek arauz ezarritako mugak sobera gainditzen zituztela ikusi zen, antza, lokaleko airea kanporatzeko sistema behar bezala ez zebilelako. Beharbada hori zen jarduerak sortutako usainen jatorria. Hala, beste alkatetza-dekretu baten bidez, lokaleko aireztapen sistema aldatzeko eskatu zen.

Oinarri gisa genuen informazioa hartuta, ondorioztatu ahal izan genuen, jarduerak, hasieran, hainbat huts izan arren, Oñatiko Udalak egoera bere onera ekartzeko beharrezko neurriak ezar zitezela eskatuta esku hartu zuela.

Nolanahi ere, esan behar dugu interesdunak berriz ere erakunde honekin harremanetan jarri direla eta adierazi digutela, alkatetza-dekretuan jasotako epea jada amaitu den arren, oraindik ez dela konpondu aireztapen sistema eta, beraz, egoerak lehengo bera izaten jarraitzen duela. Hortaz, esan behar dugu, ekitaldi hau bukatutakoan, beste informazio eskaera bat egin diogula Oñatiko Udalari bidezko egiaztapenak egin ote dituen ikusteko.

Era berean, bizitegitarako hiri lurzoruko jarduera sailkatuei buruzko atal honetan, beste mota batzuetako erabileren arauz kontrako funtzionamenduagatik jasotako kexak aipatu behar ditugu. Erabilera horien artean, ondokoak ditugu: okindegia (453/2007), ile-apaindegia (955/2007), izotz fabrika (395/2007), ibilgailuak gordetzeko lekua (1069/2007), gimnasioa (1166/2007) (1325/2007) eta hortz klinika (101/2007).

Jarraian, erakunde honetan bideratu diren aipatu espedienteak izapidetzerakoan egindako prozeduretako batzuk labur-labur deskribatuko ditugu.

Lehenik eta behin, Sestaoko jabeekideen komunitate batek aurkeztutako salaketa ekarri behar dugu ahotara. Horren arabera, Sestaoko Udalak jarrera permisiboa eta pasiboa zuen hainbat urtez aurkeztu zituzten etengabeko erreklamazioen aurrean. Erreklamazio horietan adierazi zuten bertako **okindegi** bateko labeek eta makinek zarata jasanezina egiten zutela eta, gainera, goizaldeko 4:00etan hasten zirela lanean.

Sestaoko Udalari bidalitako informazio eskaeraren ondoren, kaltetutako auzotarrak jakinarazi ziguten, Udalak hartutako neurriei esker, jada konpondu zirela jarduera horretako makinek eta motorrek sortzen zituzten zarata-eragozpenak. Halaber, jarduera hasteko ordutegia atzeratu zutela ziurtatu zuten. Hortaz, konpondu zen zuten arazoa.

Bestalde, Ondarroako zenbait auzotarrak jakinarazi ziguten, 70eko hamarkadaz geroztik, bizi ziren eraikinarekin muga egiten zuen **izotz fabrika** batek sortutako etengabeko eragozpenak jasaten zituztela. Zehazki, adierazi zuten, jarduera hori lanean hasi zenetik, zarata- eta dardara-eragozpenak, nola egunez hala gauez, oso larriak zirela; hain ziren larriak, non, lokaleko makinek sortutako dardaren ondorioz, pitzadurak sortu baitziren ondoko etxebizitzetan. Gainera, amoniako usain handia egoten zela aipatu zuten, instalazioan maiz erabiltzen zen produktua baita.

Erakunde honek egindako gestioen ondorioz, udal agintaritzak, azkenean, jarduerak zituen huts guztiak zuzentzeko eskatu zien instalazioaren titularrei, gero, jarduera legeztatu ahal izateko. Erakunde honek jarraipena egingo du salatutako arazoak behar bezala konponduta geratu direla ziurtatu arte.

Era berean, Irungo pertsona batek jakinarazi zigun zarata-eragozpen larriak jasaten zituela herriko auzotarren elkarte batek behar ez bezala, alegia, **gimnasio** gisa, erabiltzen zuelako kexagilea bizi zen eraikinaren etxabeetan kokatutako lokal bat. Lokal

horretan hainbat jarduera egiten ziren (aerobic, areto dantzak, etab.), baina lokalak ez zuen beharrezko baimena eta ez zituen erabilera horretarako baldintzak betetzen. Egun, Irungo Udalari eskatutako informazioa jaso zain gaude.

Amaitzeko, jardueren deskribapen honetan, Donostiako auzotar talde batek egin-dako kexa aipatu nahi dugu, beren etxe azpian zegoen **hortz klinikan** produkturen bat-edo erabiltzeak eragiten zizkien kalteen ingurukoa.

Helarazi zitzaigun udal espedientea ikusi ahal izan genuenez, aurkeztutako salaketak ikusita, bertako udalak zenbait neurri zuzentzaile hartzeko eskatu zion instalazioaren titularrari, horien artean, honakoak: (1) usaina lokaleko telekomunikazioen instalazioari dagozkion kabletarako bao bertikaletik sar ez zedin beharrezko jarraibideak ezartzea, (2) TERMINEX-10 izeneko produktu desinfektatzailea eta mikrodifusore elektroteknikoa edo kableatu sistema kentzea. Auzotarretako batzuek oraindik usainak zeudela aipatu zuten eta, hala, udal ikuskapenak egin ziren. Horietan, ordea, ez zen antzeman arazorik zegoenik.

Azkenik, aipatu nahi dugu hainbat kexa eta kontsulta jaso ditugula erakunde honetan Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalerritan telefonia mugikorrek deien banaguneen eta antenen instalazioek ustez eragiten dituzten kalteen inguruan.

Gai hau ondorengo gomendio honetan jorratu zuen erakunde honek: *“Euskal Autonomia Erkidegoen arautegi zehatza behar da telefonia mugikorrek guneak instalatzeko orduan, horretarako baimenak arautzeko”* (2001eko txostena).

Une hartan, halako azpiegiturak masiboki instalatzen ari zirenez eta ez zegoenez berriazko arautegirik halakoak baimentzeko erregimena arautzeko, udalerrietan eragin nabarmena antzeman zen, bai hirigintzaren ikuspegitik bai ingurumenaren aldetik.

Gaur egun, esan dezakegu aurrerapen handia izan dela gure autonomia-erkidegoan, udalerrri gehienek dagozkion udal ordenantzak onartu baitituzte gai horren inguruan. Horren eraginez, eta ondorio praktikoetarako, udalek gehiago kontrolatzen dituzte halako instalazioak, horien funtzionamendu egokia bermatzeko.

Ingurumenaren gaineko afekzioak

Azpiarlo honetan barneratu diren kexen artean, lehenik eta behin, Gasteizko auzotar batek aurkeztutako kexa-idazkia aipatu behar dugu. Horren bidez salatu zuen, tranbiaren trazadurari zegozkion lanak gauzatzeko, Honduras pasealekuan zeuden 15 katalpa bota zirela eta, laster, zona berean zegoen 40 bat urteko **sekuoia bat ere moztuko** zela. Zioenez, horrek guztiak ez zituen betetzen proiektuari zegokion ingurumenaren gaineko eraginaren azterlaneko aurreikuspenak, horietan aleak udalerriko beste leku batean birlandatuko zirela ezarri baitzen.

Egiatzatu ahal izan genuenez, 2004ko martxoaren 25eko EHAA n argitaratu zen Ingurumenarekiko Eraginaren Adierazpenean baziren hartu beharreko zenbait neurri lurzoruan, atmosferan edo kultur ondarean eraginik ez izateko, baina ez zen neurri zehatzik hartu landaredia babesteko eta ez zen aipatu beharrezkoa zenik zuhaitz jakin batzuk birlandatzea.

Hala ere, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanaren 3.10 atalean zenbait landaredi unitate deskribatzen ziren, baina soilik Floridako eta Arriagako parkeak, obren eragin eremutik gertuen zeuden zonak izaki, eta ez ziren aipatzen ez

Latinoamerika plaza ez Honduras kalea. Nolanahi ere, 4.2.8 atalean, landarediaren gaineko eraginei buruzkoan, honakoa aipatzen zen: “*Tranbiak hiriko lorategi zonei eragingo die zuzenean, baita Gasteizko kaleetako zuhaitzari ere*” (...) “*Birlandatu daitezkeen aleak, betiere, obra-zuzendaritzak eta ingurumeneko laguntzaileek egoki irizten badiote, hiriko beste kale eta zona batzuetara aldatuko dira. Horretarako, kostu ekonomikoa ingurumen onurarekin alderatuta aztertuko da.*”

Horren haritik, obra-zuzendaritzak, alegia, zuzenbide pribatuko entitate pribatua den Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareak, jakinarazi zigun, ordura arte, eta obrak aurrera egin ahala, bizirauteko aukerak zituzten zuhaitz guztiak birlandatzen ari zirela eta, horretarako, ingurumeneko laguntzaileekin eta Gasteizko Udaleko teknikariek elkarlanean ari zirela. (Honduras kalea eta Forondako Atea elkartzen dituen biribilgunean, birlandaturako aleetako batzuk ikus daitezke).

Azkenik, Honduras kaleko sekua zela-eta, irizpide berari jarraiki jardungo zela jakinarazi ziguten, birlandatzeko eta sustraitzeko zer aukera zeuden eta zer alternatiba tekniko bideragarri zeuden kontuan hartuta. Erakunde honek izan zuen sekua leku aldatu eta birlandatu izatearen berri.

Beste kasu bat Orozkoko pertsona batena izan zen. Horrek adierazi zigun zenbait obra egin zituela **ubide eremu** batean, bere ustez zanga zen eremuan. Alabaina, bertan erreka zegoen, antza, eta, horregatik, aipatu obrak legezartzeko agindu zioten.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren ikusi ahal izan genuenez, pertsona horren aurka zigor espediente bideratu zuen Iparraldeko Konfederazioak, Eusko Jaur-laritzako Garraio eta Herri Lan Saileko Uren Zuzendaritza Nagusiak proposatutakoari jarraiki. Espediente horri buruz ebazpena eman zen; horren bidez, isuna ezarri zitzaion eta eremua lehengo egoerara itzul zezala agindu, egindako obrak eta instalazioak bere kontura eraitsita.

Nahiz eta interesdunak hainbat alegazio aurkeztu zituen zer obra egin zituen azaltzeko eta horiek ubidearen zortasun zonan bideragarriak zirela erakusteko, inoiz ez zuen zalantza jarri ubidea zegoenik. Are gehiago, kexa-idazkian egindako adierazpenetatik ere uler zitezkeen ur ibilgua orain dela askoz gero zegoela bertan; hain zuzen ere, Orozkoko Udalak garbitu eta zabaldu egin zuen, gainezka egin ez zezan.

Nolanahi ere, interesdunari jakinarazi genion, deskribatutako aurrekariak gorabehera, hura ubide publikoa ez zela uste bazuen, hori hala egiaztatu behar zuela egoki irizten zituen bitartekoak erabilia. Ondorio horretarako, kontua erregulatzen zuten arauak laburki adierazi genizkion.

Horren haritik, Uren Legeak -1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, testu bategina onartzen duena- 4. artikuluan dio korrante iraunkorreko eta ez iraunkorreko erreka edo ubide naturala gehieneko ur goraldietan urek estaltzen duten lur eremua izango dela. Jabari publiko hidraulikoko Erregelamenduari jarraiki, gehieneko ur goraldiaren emaria elkarren hurreneko 10 urtetan, korrontearen portaera hidraulikoaren adierazgarri izango direnetan, zehar izandako gehieneko urteko emarien batez bestekoa izango da. Bestalde, jabari pribatutzat hartuko dira aldizka euri eurez beteta egoten diren ubideak, betiere, sorlekutik, jabari partikularreko finkak bakarrik zeharkatzen badituzte.

Hala ere, ubide horiek jabari pribatukoak direnez, horietan ezin da ez lanik ez obrarik egin, horiek uren bide naturala aldatzea edo horien kalitatea aldatzea badakarte,

interes publikoaren nahiz hirugarrenen interesen kaltetan, edota uholdeen indarragatik lan edo obra horiek hondatu eta, ondorioz, pertsoneri edo gauzei kalteak eragiten bazaizkie –Uren Legearen 5. artikulua–. Kasu honetan izan ezik, uste dugu kasu guztietan aplikagarri izango litzatekeela aipatutako araudia.

Azkenik, EAeko Ibai eta Erreka Bazterrak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean egindako aurreikuspenen berri eman behar genuen. Plan horrek ibai arro guztiak (besteak beste, Nerbioi eta Altube) eta zuzenean Bizkaiko kostaldean itsasoratzen diren itsasertzeko erreken gainerako arro txikiak arautzen ditu. Arroen garrantzia km²-ko jasotzen duten uraren arabera neurtzen da, hau da, hartutako zati horretatik ibaian gora ur ibilgu horrek drainatzen duen eremu topografiko osoa. Horrek kategoria bakarrean sailkatzea baina aplikazio arauak desberdinak ezartzea dakar.

Bestalde, Getxoko auzotar batek herrian erabiltzen zen **argi mota** salatu zuen, bereziki, bere kalean zegoena, etxean bizitza normala egin ahal izateko pertsiak itxi behar izaten baitzuen.

Era berean, uste zuen argi mota ez zela eraginkorra, fatxada lurra baino gehiago argizatzen baitzuen, foko sistema erabiltzearen ondorioz. Gainera, zioenez, argi horiek ez zuten uzten argiztapen sistema modu arrazionalen erabiltzen, Europako egungo gomendioek markatzen duten bezala.

Azken urteotan, etxe barrura kanpoko argia sartzen dela dioten keak jaso ditugu tarteka. Hala ere, salaketetan bertan kezagileek adierazi zuten kezkatuta zeudela **argi-kutsadurak** ingurunean izan zezakeen eraginaz.

Orain arte eragin mota hau oso ezaguna izan ez den arren, gaur egun gero eta garrantzi handiagoa du eta, hala, kanpoko argiak etxe barrura sartzea ingurumen eraso berri baten, hots, argi-kutsaduraren, adierazpenetako bat da.

Horren haritik, esan dezakegu argi-kutsadura honela definitzen dela: iturri artifizialeetatik datorren argia atmosferara isurtzea, zuzenean eta zeharka, espektro maila desberdinetan. Horien ondorioak argia zerurantz zabaltzea, kanpoko argiak etxe barrura sartzea, itsutzea eta elektrizitate gehiegi kontsumitzea dira. Argi instalazioak behar ez bezala erabiltzeak ondorio kaltegarriak ditu biodibertsitateko eta ingurumenerako.

Horregatik, beharrezkoa da neurri egokiak hartzea gaueko argiek biodibertsitatea eta ingurumena zaintzen eta hainbeste energia aurreztea bideragarri egiten lagun dezaten.

Horri dagokionez, gure autonomia-erkidegoan gai honen inguruko arautegirik ez dagoenez, hainbat gorabehera egon daitezke kanpoko argiek etxe barruan, zerua ikusteko moduan eta, oro har, ingurumenean duten eraginean.

Estatuan, lehen legea 1988an onartu zen, Kanarietako Parlamentuan, gaez zerua babesteko. Arau horren helburua Tenerifeko eta La Palmako irlatan kokatutako nazioarteko behatoki astronomikoetako zeruaren kalitatea babestea zen. (31/1988 Legea, urriaren 31koa, Kanarietako Astrofisikako Behatokitako kalitate astronomikoa babestekoa).

Bestalde, Kordoba, Figueres eta Tarrega bezalako udalerrriak aitzindariak izan ziren, babes eremu zabalago batetik begiratuta, argiak behar ez bezala erabiltzeak hiri ingurunean bertan eta biodibertsitatean sor zitezkeen eraginei aurrea hartzea eta, halaber, gau izartua ikusiko zela bermatzea helburu zuten udal ordenantzak onartzen.

Hala ere, Kataluniako Autonomia Erkidegoa izan zen argi-kutsadurak dakartzan ondorio kaltegarrirei aurre egitera bideratutako esku-hartze eta kontrolerako mekanismo berriak eta asmo handikoak ezarri zituen lege araua onartu zuen lehen erkidegoa.

Maiatzaren 31ko 6/2001 Legeak, Kataluniako gaueko ingurunea babesteko argiteriaren ingurugiro-antolamenduari buruzkoak, hainbat eremutan banatzen du lurraldea, bakoitzak onar dezakeen argitasun mailari dagozkion ezaugarri eta berezitasunen arabera; halaber, onargarri diren distira-intentsitateak, argiteriaren diseinua eta instalazioa, urtaroen araberrako erregimena eta erabilera-ordutegia arautzen ditu. Gainera, helburu horiek betetzeko administrazio publikoek dituzten eginkizunak ere zehazten ditu Legeak; bestalde, egungo argia irizpide berrietara egokitzeko behar liratekeen diru-laguntzak finkatzen ditu.

Ondoren, beste autonomia-erkidego batzuek gai honen inguruko arauak eman dituzte, besteak beste, Nafarroak, gaueko ingurunea babesteko argiteriaren ingurugiro-antolamenduari buruzko azaroaren 9ko 10/2005 Foru Legearen bidez, edo Kantabriak, Kantabrian argi-kutsadurari aurrea hartzeko ekainaren 9ko 6/2006 Legearen bidez.

Gure autonomia-erkidegoari dagokionez, esan dezakegu Eusko Legebiltzarrak aintzat hartu duela 2007ko apirilaren 20ko akordioaren bidez, Mixto-Aralar legebiltzar taldeak egindako lege proposamena. Proposamen hau 2007ko maiatzaren 4ko Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu da eta "*Gaueko ingurunea babesteko eta energia aurrezteko argiteriaren ingurugiro-antolamenduari buruzkoa*" da. Nahiz eta ez dugun hori onartzeko epeen aurreikuspenei buruzko informazio nahikorik, esan dezakegu, une honetan, proposamen hori izapidetzen ari dela Legebiltzarrean.

Nolanahi ere, orain arte egindako gogoetak eta oharrak ikusita, aipatu nahi dugu proposamen horri behar besteko garrantzia eman behar litzaiokeela Legebiltzarraren aurreikusitako egutegian premiaz azter dadin.

Adierazi dugun moduan, argi-kutsadura energia-iturri artifizialak atmosferara hedatu eta igortzearen ondorioa da. Gehiegizko argi-fluxuak eragin negatibo handia du bai biodibertsitatean, bai ingurumenean eta, nola ez, baita aldaketa klimatikoan ere. Energia modu eraginkorrean erabiltzea eta kontsumoa aurrezteko bultzatzen badugu, zalantzarik gabe, horrek garapen iraunkorra lortzen lagunduko digu.

Azkenik, atal honi dagokionez, ondorengoek eragindako zarata-eragozpenengatik jasotako kexak aipatu behar ditugu: jaietan jartzen diren **txosnak** (860/2006); ostalaritza establezimenduen kanpoaldean jartzen diren barrek (859/2006); **barraken** funtzionamenduak (755/2007); eta plaza eta parke publikoetan egiten diren **dantzaldi edo kontzertuek** (831/2006).

Horiei dagozkien kexa-espedituentz izapidetzerakoan ikusi ahal izan dugunez, oro har, toki erakundeek jarduteko plan zehatzak dituzte era horretako ekitaldiak behar bezala garatuko direla bermatzeko. Hala ere, ez dira bidezko egiaztapen lanak egiten jarduerak hasi aurretik; aitzitik, neurriak ondoren hartzen dira eta, askotan, arduradunei antzemandako hutsak zuzendu behar dituztela ohartarazi baino ez zaie egiten.

Hortaz, beharrezkoa iruditzen zaigu, jaietan hutsen bat antzemanaz gero, udalek, ezar litezkeen zigorren kaltetan izan gabe, kasuan kasu nahitaezkoak diren neurriak hartzea jaietako jarduera horien legez kontrako funtzionamendua eragiten ari litekeen kalteak al bait arinen saihesteko. Ez dugu ahaztu behar kasu horietan sortzen diren

zaratak zuzenean kaletik sortzen direla eta, beraz, horiek eragin ahal izango lituzketen zarata-eragozpenak bereziki larriak izan litezke.

Sailkatutako jarduerak industri lurzoruan

Herritarrek osasunerako eta ingurumenerako eskubidea eskatzeko jo ohi dute erakunde honetara, oso kutsatzaileak diren industriako jardueren eraginpean egotearen ondorioz jasaten dituzten eraso eta nahasteei aurre egin nahian.

Horren haritik, esan behar dugu EKren 45. artikulua, ingurumena berreskuratzeaz gain, administrazio publikoei ingurumenarekiko babes lana ere ezartzen diela, hau da, mantentze lanak eta babestekoak gauzatu behar dituztela. Horrek mota honetako instalazioetan esku hartzeko beharrezkoak diren baliabideak izatea dakar, behar izan daitezkeen prebentzio, prestazio eta zerbitzu lanen bidez. Horretarako, ezinbestekoa da EKren 53.3 artikulua jasotako ezarpena betetzea. Ezarpen horren arabera, botere publikoek gizarte eta ekonomi politikaren printzipio gidariak babesteko betebeharrak juridikoa dute, eta kasu honetan osasunaren babeserako eskubidearekin eta jardueraren kokapenetik gertu bizi diren pertsonen ingurumen egokiaz gozatzeko duten eskubidearekin bat dator.

Botere publikoak, ingurumenerako kaltegarriak diren jarduerak antzematean, ezin gera daitezke horiek pertsona edo ondasunen gaineko kalte bihurtu zain. Beharrezkoa da administrazioaren esku-hartzea gauzatzea arrisku egoerarekin amaitzeko, eta horretarako neurri zuzentzaile egokiak hartu beharko dira edo zuzenean erantzukizuna duten horiei adierazitako neurriak gauzatzeko eskatuko zaie. Ez dugu ahaztu behar ingurumenaren babesaren xedea ez dela amaitzen eragindako kalteen konponketarekin, elementu eratzailen mantentze lanak ere egin behar direlako.

Gainera, azpimarratu nahi dugu Konstituzio Auzitegiak gai honen inguruan eman duen doktrinarik berrienak ezartzen duela, administrazioak esku artean dugun jarduera bezalako kasuetan eragindako ingurumen kalteen aurrean tolerantzia eta adostasuna agertzen badu, nahiz eta pertsonen osasunerako arriskurik ez ekarri, osotasun fisiko eta moralerako oinarritzko eskubideak (EKren 15. art.), pertsonen eta familien intimitaterako eskubidea (EKren 18.1 art.) eta etxebizitzaren mugiezintasuna (EKren 18.2) urratzea dakarrela ondorio gisa.

Horren aurrean, Konstituzio Auzitegiak esku-hartze administratiboaren jarduna exijitzen du ingurumen lizentziaren teknikaren bidez. Jarduera horrek ingurumen politika guztiak izan behar duen prebentzio printzipioaren oinarrian egon behar du. Ondorenean, jardueraren bitzita osoan zehar, beharrezkoak diren kontrol neurriak hartu beharko dira une oro bermatu ahal izateko aipaturiko eskubideak ez direla urratzen.

Erakunde hau kezkatuta dago, aztertutako kasu gehienetan Administrazioak ez baitu ia-ia kontrolik egin instalazio horien funtzionamenduari dagokionez. Kontsultatutako udalen arabera, ez dago aurretiazko kontrolik eta, hala, jarduera askok ez dituzte bidezko baimenak; funtzionamenduaren kontrolik ere ez dago, ondorio horietarako egin beharreko egiaztapen teknikoak egiteko beharrezko baliabiderik ez dagoelako. Kalte-tutako auzotarren ingurunea eta eskubideak errespetatzen ez dituzten jokabideak eta jardunbideak erauzterakoan, hasitako legezkatze espedienteak bideratzeko lanek gainditu egiten dituzte eta ez dira gai aurreikusita dauden zigortzeko prozedurak abiarazteko.

Industria horiek erabakigarriak izan daitezkeen arren udalerraren ekonomiarako, ez da ahaztu behar horiek, halaber, atmosferara kutsatzaileak isurtzen dituen foku garrantzitsua ere badirela.

Egun, oso kutsatzaileak diren enpresa edo jarduera horietako gehienak Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen pean daudela (aurreratzean IPPC). 16/2002 Legearen helburua oro har ingurumenaren babes maila handia lortzea da, atmosfera, ur eta zoruaren kutsadura saihestu, murriztu eta kontrolatzera bideratutako hainbat prebentzio eta kontrol sistema integratuak ezarrita. 2002ko uztailaren 3az geroztik, hots, aipatu legea indarrean sartu zenetik, instalazio berriei zitzaien aplikagarri; horiek 2007ko urriaren 30 baino lehen egokitu behar zuten legera. Egungo instalazioetarako, legera egokitzeko data bera zen, baina funtzionamenduan jarraitu ahal izango zuten behin-behinean, ingurumen baimen integratua lortzeko eskaera 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen aurkezten bazen, betiere, sektoreko araudi aplikagarrian ezarritako ingurumen baldintzak betetzen baziren.

16/2002 Legearen aplikazio eremuan barneratutako enpresek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Ingurumen baimen integratua izatea.
- Ingurumen baimen integratuan jasotako eskakizun guztiak betetzea.
- Bai ingurumen baimen integratuan bai ikuskapenetan eta kontroletan ezarritakoen informazioa kontrolatu eta emateko eskakizunak betetzea.
- Instalazioetan egin nahi izan dezaketen edozein aldaketa jakinaraztea, hori funtsezkoa izan ala ez izan.
- Instalazioen titularrak aldatu egin direla edo horiek lekuz aldatu direla jakinaraztea.
- Zaintza, ikuskapen eta kontrol jardueretarako beharrezko laguntza eta lankidetzaren ematea.
- Gutxienez urtean behin, emisioei buruzko datuak jakinaraztea, Emisioen Estatuko Inbentarioa (EPER) egiteko.
- Ingurumen baimen integratua berritzeko eskaera hori iraungi baino gutxienez 10 hilabete lehenago egitea.
- Zigortzeko prozedura hasi denean organo eskudunak ezarritako behin-behineko neurriak errespetatzea.
- Instalazioetan gertatu izan daitekeen eta ingurumenean eragina izan dezakeen edozein gorabehera edo istripu organo eskudunari jakinaraztea.

Neurri horiek guztiak betetzeak pertsonen osasunerako eta ingurumenerako arrisku onartezinak ekarriko ez dituzten ingurumen kalitateko maila esanguratsuetara heltzen lagunduko du.

Ekitaldi honetan aipatu gaiaren inguruan izapidetutako kasu zehatzei dagokienez, esan dezakegu salatutako jarduera gehienak ingurumen baimen integratua lortu zain daudela (aurrerantzean, IBI). Halaxe gertatzen da PROFUSA enpresarekin. Horren aurkako salaketa jarri dute Barakaldoko Kastresana auzoan bizi den herritar talde batek (844/2007).

Guk bidalitako eskaerari erantzunez Udalbatzak emandako informazioaren arabera ikusi ahal izan dugunez, batetik, aipatu enpresak kokearen ekoizpenean dihardu, labe

multzo batean harrikatza distilatzeko prozesuaren bidez. Ekoizpen prozesuan, kokeaz gain, gasa ere sortzen da eta hori, araztu ondoren, gasometro batean biltegiratzen da, aurrerago erabiltzeko. Ekoizpen prozesuan mundruna ere lortzen da. Hori saldu egiten da.

Bestalde, esan behar dugu, azaldu digutenez, instalazio horretan hainbat ikuskapen egin direla azken 15 urteotan, indarreko arautegira egokitzeko zer neurri zuzentzaile ezarri behar dituen zehazteko. Hala ere, denbora asko igaro den arren, instalazio horrek oraindik ez du nahitaezko irekiera-lizentzia. Lehen esan dugun moduan, une honetan, IBI lortzear dago.

Ekitaldi hau amaitutakoan, behin betiko ebatzteke geratuko da esku artean dugun kasua, nahiz eta aurreratu dezakegun eskaera bana egingo diegula Barakaldoko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Sailari, kaltetutako biztanleei garatzen ari diren azken jardueren inguruko informazio nahikoa eman diezaietela eskatzeko; eta, bestetik, zehatz diezagutela ea nahitaezko ikuskapen teknikoak egiten ari diren pertsoneri eta ingurumenari kalte gehiago ez egiteko enpresari kautelazko neurriak berehala hartu behar dituela eskatu behar zaion ala ez zaion ebaluatzeko.

Era berean, Barakaldoko ikastetxe bateko arduradunek aurkeztutako kexa ere aipatu behar dugu. Arduradunak kezkatuta etorri ziren erakunde honetara, ikastetxe horretatik gertu dagoen Bilbaína de Alquitrane fabrikatik ustez sor zitekeen elementu kutsatzailearen baten eraginpean egoteak bertako ikasleen eta irakasleen osasunean izan zezakeen eraginagatik (608/2006). Halaber, azpimarratu zuten ez zegoela informaziorik ez inguruko airearen kalitateari buruz ez enpresa horrek atmosferara isurtzen zituen elementuen kontrola egiteaz arduratutako administrazioak burutzen ari ziren jardueri buruz.

Adierazitako arazoari buruzko ikuspegi orokorra izateko, egokia iruditu zitzaigun tartean ziren alderdi guztiekin bilera egitea. Bilera ikastetxean bertan egin zen eta honakoek parte hartu zuten: Barakaldoko Udaleko arduradunek, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailekoek, Eskola Kontseiluko ordezkariak eta erakunde honetako langileak.

Interesdunek adierazitako inguruabarrei erantzunez, administrazio eskudunek salatutako jardueran aplikatu ziren kontrol sistema desberdinen berri eman zuten. Horren haritik, honakoak aipatu ziren: instalazioak kalifikazio txostenean adierazitako neurri zuzentzaileak betetzen ote zituen zehazteko burututako jarduerak; eta eremuko airearen kalitatea ikusteko gauzatzen ari ziren kontrolak. Azken hauei zegokienez, adierazi zen neurgailua jarri zela ikastetxean eta inguruko beste leku batzuetan eta, lortutako emaitzei jarraiki, erregistratutako balioak lege ezarritako parametroen barruan zeudela.

Amaitzeko, esan behar dugu bai Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak bai Barakaldoko Udalak eremuko airearen kalitateari buruz lortzen zuten informazio guztiak Eskola Kontseiluari helaraziko ziotela hitzeman zuten. Gainera, Bilbaína de Alquitrane enpresak nahitaezko irekiera-lizentziarik ez zuenez, jarduera legeztatze beharrezkotzat jotzen ziren neurriak hartzeko asmoa adierazi zuten. Txosten hau egiten amaitutakoan, jakinarazi behar dugu enpresak derrigorrezko IBI izapidetzeko dokumentazio egokia aurkeztu zuela eta, une honetan, abian da prozedura administratiboa.

Bestalde, Galdakaoko Aranzelai auzoan dagoen industri jarduera baten aurka egindako kexa aipatu behar dugu. Hasiera batean, Udaleko Arlo Teknikoko zuzendariak

adierazi zigun enpresak derrigorrezko udal lizentzia izapidetu zuela. Aurrerago, ordea, instalazioa zabaldu egin zen antza; bertan, siliziozko materialak eta ferroaleazioak ehotzen ziren. Legeztatze espedientea izapidetzeko prozesua jada hasita zegoen, baina enpresak oraindik ez zuen derrigorrezko irekiera-lizentzia. Azkenik, inguruko auzotarrek egindako salaketak zirela-eta, adierazi ziguten udal zerbitzu teknikoak haren funtzionamenduak eragindako ondorioak zuzentzeko lanean ari zirela.

Emandako informazioa ikusita, bigarren eskaera bat egin behar izan genuen, kautelazko neurri gisa, pertsona eragiten ari zitzaizen kaltea gehiago ez luzatzeko, zer neurri hartuko ziren azal ziezaguten, legeztatze prozedura administratiboak luze joko zuela kontuan hartuta.

Eskaera horri erantzunez, adierazi ziguten, udal agintaritzak hainbat ikuskapen egin ondoren, jarduera behin betiko eten zela ikusi zutela, instalazioan zeuden makinak batzuk kendu zirela antzeman ondoren.

Azkenik, atal honi dagokionez, Gasteizko pertsona batek bidali digun salaketa aipatu nahi dugu. Bertan zioenez, Gardelegin, bere etxetik 200 bat metrora, hondakin inerteen zaborteia instalatu zen; 2007ko maiatzean hasi zen lanean, obra-hondakinak tratatzeko instalazio gisa. Kexagilearen arabera, instalazio horrek goizeko 6:00etatik gauerdia arte egiten du lan eta bere bizi kalitatea kaltetzen duten zarata- eta emisio-eragozpen larriak sortzen ditu. Ildo horretatik, interesdunak aipatu du ingurumenaren gaineko kalteak honako arrazoi hauengatik gertatzen direla: *“instalazio irekia da; bertan, obra-hondakinak botatzen dituzte eta xehatu egiten dituzte; harri-zulatzailak erabiltzen dituzte; zarata ugari entzuten dira: kamioien kartolenak, burdinezko edukiontzienak, hondeatzeko makinak, errotenak...”*

Une honetan, Udalak erakunde honek azaldutako kontuen berri noiz emango zain gaude. Zehazki, honakoen berri: ea hondakin inerteak tratatzeko jarduerak derrigorrezko udal baimena duen; gauez lan egiteko beharrezko baimena baduen; jasotako salaketen ondorioz egin izan daitezkeen ikuskapen teknikoek zer emaitza izan duten; eta salaketei jarraiki zer jarduera burutu izan daitezkeen.

Sailkatutako jarduerak lurzoru urbanizaezinean

Garrantzitsua izaten jarraitzen du abeltzaintzako jarduerak edo abereak ukuiluratzeko jarduerak sortzen dituzten arazoengatik aurkeztutako salaketa-kopuruak. Salaketa horiek eredu berari jarraitzen diote, hau da, landa-eremuko herrietako biztanleek aipatu jarduerak sortzen dituzten usain txarrak salatzen dituzte, baita epidemiak izateko nahiz gaixotasun kutsakorrek zabaltzeko dakartzaten arriskuak ere, elementu zuzentzaileak aplikatzen ez direlako edo oker aplikatzen direlako.

Interesdunek, eskuarki udal administrazioaren jarrera permisiboa eta pasiboa agerikoa den kasuetan, salatutako arazoei irtenbidea aurkitzeko neurri zehatzik hartu ez delako jo dute erakunde honetara.

Honi dagokionez, nahikoa da gogoraraztea, lizentzia duten abeltzaintzako ustiategiak direnean, salatutako eraginak konpontzeko, udalak bidezko errekerimendua egin behar diola ustiategiaren titularrari, udalak emandako instalazio lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileetara egokitu dezan.

Lizentziarik ez duten baina legezta daitezkeen ustiategietan, udal administrazioak egoera Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/98 Legearen 65 a) artikuluan aurreikusi bezala erregularizatzeko eskatu behar du.

10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK

Sarrera

2007an 186 kexa jaso ditugu herri lanen eta zerbitzuen arloan; hau da, erakundean aurkeztu diren erreklamazio guztien %11,94.

Kexek honako administrazio hauetan izan dute eragina:

| | |
|--|-----|
| - Toki administrazioa | 131 |
| - Foru administrazioa..... | 23 |
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritz) | 6 |

Horien edukiari dagokionez, jasotako kexak honako azpiarlo hauetan sailkatzen dira:

| | |
|--|----|
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura..... | 52 |
| - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna | 39 |
| - Tokiko zerbitzu publikoak..... | 29 |
| - Beste batzuk | 24 |
| - Azpiegiturak | 21 |
| - Garraioak..... | 9 |
| - Irisgarritasuna | 8 |
| - Eskubideak eta askatasunak | 4 |

Ekitaldi honetan aurkeztu eta ebatzi diren kexek askotariko xedeak eta edukiak izan dituzte, nahiz eta, oro har, **prozedura administratiboarekin** zuzeneko erlazioa dutenak azpimarratu ditzakegun; horietako batzuek ezarritako lege izapideak betetze-rakoan Administrazioak ezer egin ez duela diote, beste batzuek ez dela prozedura egokia aukeratu delako gaia aztertze edo ez direla oinarritzko izapideak arrazoitu eta/edo bideratu eta, ondorioz, emandako ebazpena bertan behera geratzen dela.

Beharrezkoa da azpimarratzea araubide juridikoa zintzotasunez betetzea eta Legeak arautzen duen prozedura administratiboa, administrazio jardun oro bideratu behar duten printzipioen esparruan, funtsezko alderdiak direla administrazio publikoek herritarrekin dituzten harremanak garatzeko eta hauen menpe dauden interes orokorrei erantzuteko, Espainiako Konstituzioaren 103.1 artikuluan ezartzen den aginduaren arabera.

Bistakoa izan arren, oraindik ere behin eta berriro esan behar dugu administrazio publikoek objektibotasunez eta interes orokorren arabera jardun behar dutela eta, beren eginkizunean, eraginkorrak izateko eta herritarrei zerbitzu emateko irizpideak hartzen dituztela oinarri gisa, izan ere, herritarrek administrazio egokia izateko eskubidea dute. Testuinguru horretan, Administrazioak legearen arabera jokatu behar duela dioten printzipioak, besteak beste, ezarritako prozedurara egokitzera eta dagokion administrazio

ebazpena emateko arrazoiak behar bezala adieraztera behartzen du, baita interesdunek aurkaratu ditzaketen eskumen ahalmenez baliatuta jarduten denean ere.

Zilegi izan arren administrazio publikoek diskrezionalitate administratiboa erabiltzea, horrek bateragarria izan behar du hartzen diren erabakiak justifikatu eta arrazoitzeko beharrarekin. Hala, beraz, eskumenen arabera jarduterakoan, hori kontrolpean egiten da eta hartutako erabakia haztatua eta zuzena dela arrazoitu behar da, derrigor, arestian aipatu dugun administrazio egokia eskaintzeko betebeharrarekin zuzenean lotuta.

Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura

Atal hau **erroldatzearen** arloan aurkeztutako kexei aipamena eginez hasiko dugu. Nahiz eta Legebiltzarrari aurkeztutako hainbat txostenetan behin baino gehiagotan hitz egin dugun gaiaz, oraindik ere hizpide dugu, kexa ugari jasotzen jarraitzen baitugu udalek zenbait pertsonari biztanleen udal erroldan izena emateko aukera ukatu dietelako, pertsona horiek benetan udalerrian bizi arren. Udalek ezin dute erregistro hori beste arazo juridiko edo sozial batzuk bide honetatik konpontzeko erabili. Biztanleen udal erroldako inskripzioa onartzeko edo ukatzeko funtsezkoena pertsona horiek udalerrian bizi direla jasota izatea da.

Behin eta berriz hizpide izan dugun arren, berriro aipatu behar dugu udal errolda eguneratzeko udalentsat argibide teknikoak ezartzen dituen 1997ko uztailaren 4ko ebazpena, Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakoa, argi eta garbi eta irmotasunez adierazten baitu gai honen inguruan duen iritzia. Horrela, 3. atalean (“Datuak egiaztatzea”), emandako datuak benetakoak direla egiaztatzea noraino iristen den argitzen da:

“... la posibilidad de que el ayuntamiento solicite del vecino el título que legitime la ocupación de la vivienda, no atribuye a las administraciones locales ninguna competencia para juzgar cuestiones de propiedad, de arrendamientos urbanos o, en general de naturaleza jurídico-privada, sino que tiene por única finalidad servir de elemento de prueba para acreditar que, efectivamente, el vecino habita en el municipio que ha indicado. Por ello, este título puede ser una escritura de propiedad o un contrato de arrendamiento, pero también un contrato de suministro de un servicio de la vivienda (agua, gas, electricidad, teléfono, etc.) o, incluso no existir en absoluto (caso de la ocupación sin título de una propiedad ajena, sea pública o privada). En este último supuesto, el gestor municipal debería comprobar por otros medios (informe de Policía local, inspección del propio servicio, etc.) que realmente el vecino habita en ese domicilio, y en caso afirmativo inscribirlo en el padrón, con completa independencia de que el legítimo propietario ejercite sus derechos ante las autoridades o Tribunales competentes, que nunca serán los gestores del Padrón”.

Aurrerago, 4. atalean (“Baztertuen erroldatzea”) dio helburua datu bat jasotzea dela:

“Como se ha indicado en la norma anterior, el padrón debe reflejar el domicilio donde realmente vive cada vecino del municipio. Siempre que se produzca esa realidad debe hacerse constar en el padrón. Y de la misma manera que la inscripción padronal es completamente independiente de la controversia jurídica-privada sobre la titularidad de la vivienda, lo es también de las circunstancias físicas, higiénicas-sanitarias o de otra índole que afecten al domicilio. En consecuencia, las infraviviendas (chabolas, caravanas, cuevas etc. e incluso ausencia total de techo) pueden y deben figurar como domicilios válidos en el Padrón, ya que la realidad es en ocasiones así”.

Gai honen inguruko kexa guztien artean, titulartasun publikoko etxebizitza batean inolako titulurik gabe bizitzeko erroldatzea ukatu izanagatik aurkeztutakoak aipa ditzakegu (897/2006 eta 841/2007). Lehen kasuan, Pasaiaiko Udalak ez zien erakunde honek gaiari buruz egindako gogoetei jaramonik egin; eta bigarrenean, berriz, Arrigorriagako Udalak kexa aurkeztu zuen pertsona erroldatzea onartu zuen.

Halaber, ofiziozko espedientea ere hasi dugu (9/2007), errumaniar batek hala eskatuta izapidetutako espedientearen ondorioz (847/2007), izan ere, bere erroldatze eskaera izapidetzeko prozedura eten egin zen, Errumaniako nortasun txartela sinatuta ez zegoelako (agiri horiek, ordea, ez dute halakorik ezartzen). Berez, indarreko arautegiarekin bat etorriz (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16.2 f) artikulua, azaroaren 30eko 14/2003 Lege Organikoak emandako idazkerari jarraiki), herritar horiek indarrean dagoen nortasuna egiaztatzeko agiriaren edo pasaportearen zenbakia erabil dezakete. Hortaz, erroldatzeko garrantzitsua eta beharrezkoa da identifikazio zenbaki bat egotea; sinadura ez da kontuan hartu behar xede horretarako. Bilboko Udalak ikuspegi hori onartu zuen, eta Bilbon bizi ziren eta egoera horretan zeuden errumaniar guztiak erroldatu zituen.

Horren guztiaren ondorioa da, erroldako inskripzioa ukatzean, herritar bihurtzea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 18. artikuluan aurreikusitako eskubideez baliatu eta betebeharrak betetzea eragozten dela. Biztanleen udal erroldan bizilekua inskribatzea eskubideez baliatzeari lotuta dago; eskubide horietako batzuk oinarrizkoak dira, besteak beste, politikan parte hartzeko eskubidea (hauteskunde erroldan barneratzen baita), zirkulatzeko askatasunerako eskubidea edo hezkuntza, gizarte zerbitzuak eta osasun laguntza jasotzeko eskubidea. Eskubide horiei jartzen zaizkien mugek funtsezko edukia errespetatzen duen lege arauan jasota geratu behar dute, Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 8ko 11/1981 Epaian jasotzen den bezala.

Bestalde, atal honetan, materialak baimendu gabeko lekuetan uzteagatik bideratutako **zigor espedienteak** ikusita Barakaldoko merkatariek kexa ugari aurkeztu dituztela aipa dezakegu. Kexagile gehienek adierazi zuten, espedienteak bideratzerakoan, ez zela errugabetasun ustea bermatu eta erabili ziren frogak zeharkakoak zirela, oker utzitako materialetan establezimenduaren izena jarri arren, horrek ez baitu esan nahi eurek utzi zituztenik bertan (171/2007).

Barakaldoko Udalak bideratutako espedienteak artxibatuko zituela hitzeman zuen, Merkatarien Elkartearekin egindako akordioaren arabera. Bere ustez, herritar batek, lanbidean arduraz jokatzeko duen betebeharraren barruan, dagokion jarduera erregulatzeko duten arauak ezagutu behar ditu; hori gorabehera, Udalak onartu zuen, ordenantza

hori legez ezarri bezala argitaratu zen arren, agian ez zutela nahikoa zabaldu merkataria eta ostalarien artean, horiek izanik hondakin gehien sortzen dituztenak. Bestalde, Elkar-teak hitzeman zuen herria garbi mantentzeko helburua betetzen lagunduko zuela eta, horretarako, elkarteko kideen artean sentsibilizazio kanpaina egingo zuela.

Sarreran adierazitakoaren ildotik, Muskizko auzotar batzuek kexa aurkeztu zuten industri arlo baten urbanizazio proiektuan aurreikusitako obren inguruan. Obren helburua beren etxeen ondotik zihoan errepidearen sestra aldatzea zen eta, horrek beren etxeetan eragina izango zuen. Udalak zegokion urbanizazio proiektua aldatzea erabaki zuen, industrialdeak behar zuen bide lotura eta auzotarren proposamena bateratzeko. Hala ere, auzotarrak kexu ziren, aldaketa izapidetu bitartean, obrek aurrera zihoazelako, gelditzeko aginduari jaramonik egin gabe, eta ez zekitelako zehazki nola geratuko zen, azkenean, urbanizazioa. Txosten hau ixteko orduan, oraindik kexa-espeditentia izapidetzen ari gara.

Azkenik, esan behar dugu zenbait kexa jaso ditugula udal organoen funtzionamenduarekin eta herritarren **partaidetzarekin** erlazionatuta. Hala, bi herritarrek azaldu zuten, hurrenez hurren, Udalbatzaren eta Udaleko Osokoaren bilkuretatik kaleratu zituztela, ustez ordena publikoa nahastu zutelako (977/2007 eta 571/2007), eta ondorengo bilkuretara joatea debekatu zitzaizela. Horri dagokionez, esan behar dugu osoko bilkurak publikoak direla –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikulua– eta, beraz, hasiera batean, pertsona orok duela udalak egiten dituen osoko bilkuretara joateko eskubidea. Osoko bilkurara joatean, jendea bilkuretako ordena errespetatzera behartuta dago. Ordena hori udalbatzako buruak ezartzen du, udaleko erregelamendu organikoak zehazten dituen arauekin bat etorritik.

Alabaina, udalak ezin die pertsona jakin batzuei bilkura-aretoan sartzeko modu iraunkorrean edo “beste agindurik” eman arte debekatu, aurreko osoko bilkura batean istiluak eragin zituztelako. Alderdi horiek Erregelamendu Organikoan garatu eta arautu behar lirateke. Bertan, bilkuran egon beharreko ordenaren nahasmendutzat jo daitezkeen egitatezko inguruabarrak ezarri behar lirateke eta bidezko prozedura arautu behar litzateke, behar besteko bermeekin, bilkura-aretoan sartzeko debekua ezartzen denetarako, erabakitzeko denboraldirako, sortu izan daitezkeen egoeren larritasuna kontuan hartuta.

Donostiako Udalak egindako osoko bilkura batzuetara joateko baimena izan ez duen herritar baten kexa ere jaso dugu. Bertan, bilkurara joan ezin zuela esateko eman zitzaizkion arrazoiekin bat ez zetorrela adierazi zuen (983/2007). Besteak beste, azaldu zuen ez ziotela “ateak itxita” egindako bilkura batera joaten utzi; bilkura horretan, hedabideen ordezkarik kreditatuek bakarrik egon ahal izan zuten. Hala, Udalak adierazi zuen, bere erregelamendu organikoarekin bat etorritik, horrek ez zela publikotasunik kentzen saioei. Txosten hau ixterakoan, gure gogoeten berri eman dugu eta egin dugun balorazioaren inguruko erantzuna jaso zain gaude.

Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna

Jatorria **ondare erantzukizuneko** erreklamazioetan duten kexei dagokienez, aurreko urteetan ere antzeman ziren konstanteak errepikatu dira. Horrela, garatutako

jardueren tipologian, ohikoak dira administrazioak kalte-ordainen eskaerei epe barruan erantzun ez dielako edo administrazioaren erantzunak behar bezain arrazoituta egon ez direlako garatutakoak.

Era berean, kexagileen ikuspegitik hartuta, hainbat kexatan ikusi da –bide judizialera jotzeko aukera bazter utzita– administrazioaren erabakiarekin ados ez daudela baino ez dela esaten, bestelako azalpenik eman gabe, edo ez dela egiaztatzen aurrez Administrazioari eskaeraren bat egin zaionik.

Neurri batean berria den eta, bideratu ohi ditugun espediente motak ikusita, arraroa ez den kexa-multzoa partzialki onartutako erreklamazioekiko desadostasunek eragindakoa da. Kasu horietan, ebazpenean Administrazioak kexagileen eskabideak onartzen ditu, baina ez adierazitako kalteari dagokion zenbateko osoa emanda, baizik eta zenbatetsitakoaren erdia emanda.

Hau da, kasu horietan, erantzukizuna onartuta, eman beharreko kalte-ordaina txikiagotu egiten da, kaltea eragiten biktimaren edo hirugarren baten jokabideak ere zerikusia izan duela antzeman delako.

Ikuspegi zehatzagoan jarriz, ondoren, gure ustez nahitaez jaso behar diren jardueren laburpen trinkoa egin dugu. Horietako kexa baten arabera, Udalak uko egin zion bidezko espedientea izapidetzeari, bere ustez, erantzukizuna, halakorik balego, enpresa emakidadunari egozgarria litzatekeelako; mamiaren inguruko erabakia emango zela bermatzera bideratutako arazoibideak helarazi ondoren (halako kasuetan ezin baita arazoa besterik gabe alde batera utzi), eskatutakoa onartu zen.

Beste kexa batean, administrazio batek orube pribatua aldi batez hartu zuela adierazi zen; gure iritziz –azkenean, administrazioa bera ere bat etorri zen irizpide horrekin–, lurra eskuratzearen inguruko erabakiez haraindi, arazoizkoa zen kexagileak eskatzen zuena, alegia, orubea hartzearen ondorioz sor zitezkeen eta halaxe egiaztatuta geratzen ziren kalteen ondotik aurkeztutako kalte-ordainaren eskaera berariaz erabaki behar zela.

Hirugarren, jatorria udalerriek sustatu eta merkataritza establezimenduei eragiten zieten obren ondoriozko kalteetan zuten bi kexa aipatu behar ditugu. Horietako batean, Administrazioak espedientea izapidetzea onartu zuen eta hori izapidetzeko prozesuan zehaztuko zen erantzukizunik egon zen ala ez zen egon eta, hala bazen, zenbateko kalte-ordaina emango zen. Beste kexak eremu publikoak berritzeko obrak zituen hizpide; horren arabera, obrak amaitzean, ezinezkoa izango zen zamalanak egitea. Ez zen berariazko erantzukizun espedienterik hasi behar izan, Udala prest azaldu baitzen arazoari irtenbidea emateko aukera desberdinak kexagilearekin batera aztertzeko.

Beste alde batetik, biztanleek ere behar besteko arduraz jokatzeari zeinen garrantzitsua den erakusten duen kexa baten aipamena egin dugu. Kexa hori egindako erreklamazio bati erantzun ez zitzaiolako aurkeztu zen. Administrazioari laguntza eskatu ondoren, horrek emandako datuen arabera, erantzunik jaso ez izanaren arazoia egin ziren jakinarazpenak gauzatu ez zirela izan zen, izan ere, hartzailea ez zegoen erreklamazioan adierazitako helbidean, bere benetako bizilekua beste bat baitzen. Arazoak irtenbide erraza zuen, hots, interesdunak Administrazioari espedienteko ondoz ondoko jakinarazpenak zein helbidetan jaso nahi zituen adieraztea.

Amaitzeko, aipatu behar dugu zenbait kasutan ere erreklamaturako kaltea hainbat administrazio batera eragiten dutela eta, ondorioz, herritarra batetik bestera ibiltzen dela erantzukizuneko erreklamazioa aurkezteko. Ildo horretatik, Basauriko Udalak hiri hornidurako sareko hodi batean izandako ur ihesak lur eremu batean eragindako

kalteengatik aurkeztu zen erreklamazioari erantzun ez ziolako bideratu genuen jarduera aipatu behar dugu. Arazoa konplexua zen, hondatutako hodian hainbat administrazio baitzeuden tartean, nahiz eta hornikuntzarako zerbitzuaren arduradunak –Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak– kaltetutakoari kalte-ordaina ematea erabaki zuen, tartean ziren administrazioen artean sortutako arazoak zegokien bidetik konpontzearen kaltetan izan gabe ([maiatzaren 28ko ebazpena](#))³⁸.

Ondare publikoaren arloan aurkeztutako kexetan, oraindik ere, egitezko bidetik jardun dela edo administrazio publikoek dituzten lege eskumenak egoki erabili ez direla aipatu da. Horrela, Santurtziko biztanle batek aurkeztutako kexaren arabera, Udalak ondare publikoak mugatu nahi zituela adierazi zuen, baina, horren bidez, berez, birzartzeko proiektu bat ezkutuan aldatu nahi zuen, prozedura ezegokia erabilita eta argi eta garbi eskumenik ez zuen organoaren bidez.

Ondasun publikoen administrazio mugaketa Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren (OA) 56.etik 69.era bitarteko artikuluetan dago arautua (1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa). Toki erakundeen ondasunen eta partikularren ondasunen arteko mugaketa sustatzeko eta gauzatzeko aukeran datza, mugak zehaztu gabe dauden kasuetarako eta usurpazio zantzuak dituzten kasuetarako. Kasu honetan, ez zeuden beharrezko premisak; udal titulartasuneko partzela eta mugaketa eskatu zuen partikularren partzela ez ziren elkarren mugakideak, tartean kexagilearen partzela baitzegoen ([abuztuaren 29ko ebazpena](#))³⁹. Santurtziko Udalak Arartekoaren gomendioa onartu zuen eta hasitako mugaketa-espeditatea baliorik gabe utzi zuen.

Hala ere, partikularrek bidezko titulua ez zutela ikusi den beste kasu batzuetan, jardun publikoa egokia izan dela ondorioztatu dugu. Horrela, izapidetu ditugun kexetako batean (116/2007), erabilera publikoko zorra zuen bide pribatu bat titulurik gabe hartu zela adierazi zen. Bakioko Udalak jakinarazi zigun bidea erabilera publikokoa eta udal jabari publikokoa zela eta jendeak oro har oso aspalditik erabiltzen zuela. Kexa aurkeztu zuen pertsonak ez zuen inolako eskriturarik zorra zegoela edo eratu zela egiaztatzeke. Horren ildotik, Udalak esan zuen bai agerikoak ez diren etengabeko zorrak bai etenkakoak, nola agerikoak izan hala ez izan, titulupean bakarrik eskuratu ahal izango direla eta horrek ez duela preskribatuko, bide zorrekin gertatzen den bezala, Kode Zibilaren 532. eta 539. artikuluen arabera. Hala, erabilera publiko jarraitua zegoela egiaztatuta, bidearen titulartasun publikoa eztabaidaezina zen.

Azkenik, administrazio publikoek ondasun publikoak nahitaez babestu behar izatearen inguruan, Donostiako Udalarari egin genion gomendioa aipatu behar dugu. Horren bidez, udal titulartasunekoa izan zitekeen lur eremu baten inguruan ikerketa egiteko eskaerari erantzun ziezaiola gomendatu genion ([abuztuaren 23ko ebazpena](#))⁴⁰. Eztabaida lur eremu horren ondoan bizi ziren jabekideen komunitate batek mahaigaineratu

³⁸ Arartekoaren ebazpena, maiatzaren 28koa; horren bidez, Basaurin hiriko hornidura-sarean gertatutako ur ihesaren ondorioz zenbait lurretan eragindako kalteengatik pertsona bati erantzun ez izanaren inguruko jarduna amaitzen da.

³⁹ Arartekoaren ebazpena, 2007ko abuztuaren 29koa; horren bidez, Santurtziko Udalarari gomendatzen zaio “Balparda El Árbol” industrialdean izapidetutako mugaketa-espeditatea ondorioz gabe utz dezala.

⁴⁰ Arartekoaren ebazpena, 2007ko abuztuaren 23koa; horren bidez, Donostiako Udalarari gomendatzen zaio udal titulartasunekoa izan daitekeen lur eremu baten inguruan ikerketa egiteko eskaerari erantzun diezaiola.

zuen. Beren ustez, 100 m² inguruko eremu hori jabari publikokoa zen, baina modu pribatiboan erabiltzen zuen ostalaritza establezimendu batek. Udalak ez zion egindako eskaerari erantzun eta, beraz –Toki Erakundearen Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan aurreikusitako ondorioetarako–, zegokion administrazio espedientea izapidetu zezala gomendatu genion, lur eremua publikoa zen ala ez zen zehaztearren.

Tokiko zerbitzu publikoak

Atal honetan, askotariko kexak aurkeztu dizkigute aurten. Horien artean azpi-marragarriak dira interesdunek zenbait zerbitzu publikori buruzko araudiarekin, obra publiko jakin batzuk burutzeko moduarekin edo horrelako zerbitzuen ezarpenarekin ados ez daudela adierazteko aurkeztu dituztenak.

Horrela, aipatzekoa da Zornotzako auzotar talde batek bidalitako kexa (1329/2006). Horren bidez adierazi zuten ez zeudela ados plaza bat eta lurpeko aparkaleku bat egiteko **urbanizazio proiektuarekin**, beren iritziz, horrek bertako landaredia eta arkitektura ondarea kaltetzen zuelako. Espediente horretan erabaki genuen ezin ondoriozta genezakeela udal erabakiak legez ezarritako prozedura jarraitu gabe hartu zirenik, herritarrei proiektuaren berri emateko aurreikusitako izapide guztiak egin baitziren.

Aurrekoaren kaltetan izan gabe, aldeei gogoeta orokorra helarazi genien biztanleei administrazio prozeduretan parte hartzeko beste modu, bitarteko edo bide batzuk ezartzeko aukeraren inguruan, informazio aldia bazter utzita eta, nolana ere, erabakiak hartu aurretik ([maiatzaren 28ko ebazpena](#))⁴¹.

Bestalde, Ararteko erakundeak ofizios esku hartu zuen Plentziako Udalean eta Bizkaiko Foru Aldundian, Bizkaiko herri horretako metro geltokiko bidegurutzearan **segurtasuna** hobetze aldera. Bi administrazioek jakinarazi ziguten bilera egin zutela, bidegurutze horretan ikuspen nahikorik ezeko arazoari irtenbidea elkarrekin aurkitzeko. Zehazki, Foru Aldundiak metro geltokirako sarreran dagoen oinezkoentzako pasagunean eta foru errepidea eta eskola-eremura daraman udal kalea elkartzen diren bidegurutzearan zenbait semaforo jartzeko konpromisoa hartu zuen bere gain. Bestalde, Plentziako Udalak oinezkoentzako pasagunearen inguruan argiztapena hobetzeko konpromisoa hartu zuen (4/2007/220).

Jaso ditugun beste kexa batzuk zenbait udalek hirigune historikoetara edo oinezkoentzat jarritako beste eremu batzuetara sartzeko ezarri dituzten mugapenekin erlazonatuta daude. Kexatzeko arrazoi nagusia da ez zaiela ibilgailuarekin zona mugatuta sartzeko baimen berezia eman, etxebizitza bertan izan arren herrian erroldatuta ez daudelako, edo baimena izango lukeen ibilgailuak egoitza ez duelako dagokion eremuan (esp.: 247/2007, 1263/2007, 1328/2007). Udalek erabateko ahalmena dute trafikoa arautzeko eta ibilgailuen zirkulazioko mugak ezartzeko, helburua gunek jakin batzuetan oinezkoen erabilera lehenestea eta/edo ibilgailua erabiltzeko egungo premietarako

⁴¹ Arartekoaren ebazpena, 2007ko maiatzaren 28koa; horren bidez, erakunde honek amaitutzat jo du bere jardueraren Zornotzako Zelaieta parkea berriro urbanizatu eta bertan lurpeko aparkalekua egiteko jardunaren gainean.

diseinatuta eta prestatuta ez dauden hirigune historikoen babesa bermatzea den kon-tuan hartuta.

Azken urteotan ohikoa den bezala, ekitaldi honetan ere **hileta-eskubideak** kexa eragin du (89/2007). Hilobiak eta panteoiak emakida gisa erabiltzeak berak emakida horien titularren artean harridura sortzen du oraindik ere. Hori gorabehera, alboko arazoak agertzen hasi dira haien erabilerarekin lotuta eta, bereziki, panteoietan egiten diren hobekuntza-lanen inguruan. Udal esparru honetan nolabaiteko uniformetasuna mantentzeko, toki erakunde batzuek zerbitzu eta administrazio erregelamenduak prestatu dituzte. Halaxe egin du Gasteizko Udalak; horrela, panteoietan zer motatako konponketa edo hobekuntza-obra egin ahal izango den arautu du. Arazoa emakidaren titularrak emandako obra-lizentzian adierazitako mugak gainditu zituenean sortu zen. Gasteizko El Salvador hilerriko erregelamenduaren arabera, muga horiek gaindituz gero, ez-betetzea udal zerbitzuek ongituko dute, hasieran ezartzen den fidantzaren kargura. Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da. Gainera, jarrera permisiboia izan da nagusi eta, horren ondorioz, ez da ezer egin araua bera betearazteko. Hizpide dugun kexa-espedientea ez da oraindik amaitu.

Halaber, esan dezakegu oraindik kexak jasotzen ari garela landa-eremuetan zerbitzu publikoak eman daitezela eskatzeko. Horrela, batetik, baserri baten inguruetan **herriko argirik** ez zegoelako (667/2007) eta, bestetik, udal titulartasuneko linea elektriko batera lotzeko baimena ukatu zelako (712/2007) izapidetutako kexak aipa ditzakegu. Pertsona horiek aurkeztutako kasuistikatik oro har esan dezakegu beharrezkoa dela udalek argi eta garbi eta modu arrazoituan zehaztea zerbitzu horiek ezartzeko erabili-tako irizpideak edo, hala bada, aurrekontuko programazioan finkatutako lehentasunen ordena, mesfidantzarik egon ez dadin eta arbitrariotasunez jokatu dela esan ez dadin, halako kasuetan ohikoa den bezala.

Azkenik, **landa bideei** buruz jasotako kexak aipatu behar ditugu. Horietan, de-lako bideak mantendu eta kontserbatzeko dauden arazoak mahaigaineratu dira. Oro har, administrazio publiko eskudunei, bereziki udalei, arreta handiagoa eskatzen zaie, eta horiek, bestalde, halako gastuei aurre egiteko aurrekonturik ez dagoela azaldu dute. Hemen ere ez dago irizpiderik kasu batzuetan halako kontserbazio obrak egiteko asmoa badagoela edo, hala bada, beste kasu batzuetan halako obrak egitea bidezkotzat ez jotzeko arrazoia badaudela zehazteko.

Azpiegiturak

Atal honetan, proiektu publiko jakin batzuek dituzten zuzeneko nahiz zeharkako eraginetan arreta jartzea edo, zuzenean, kasuan kasuko proiektuekiko ezadostasuna adieraztea helburu duten kexak azpimarra ditzakegu. Kasu batzuetan, kexak ukatu egin ziren, Estatuko Administrazioaren eskumeneko proiektuen ingurukoak zirelako, bes-teak beste, abiadura handiko tren edo Bergara-Irún gasbidea. Izapidetutakoen artean, Deba Haraneko tranbiaren proiektuari buruz jasotako kexa aipa dezakegu (449/2007). Kexaren arabera, zegokion espedientea izapidetzerakoan ez ziren auzotarren eskubideak bermatzen ari. Izan ere, proiektua izapidetzeko prozesuan zen eta, beraz, horregatik ez ziren ebatzi bere garaian aurkeztu ziren alegazioak.

Aipatu beharreko beste kasu batean herritar batzuek intimitaterako eskubidea errespetatzeko eskatu zuten, Gasteizko Boulevard zentroaren eta Zaramaga kalearen artean egingo ziren pasabidea eta igogailu panoramikoak etxebizitzetatik gertuegi zeudelako. Udalak eta eragindako komunitateek hainbat bilera egin ondoren, Udalak, eraiki beharreko multzoa etxebizitzetatik sei metrora baino gehiagora zegoela pentsatu arren, Plan Orokorrak zioenari jarraiki, hitzeman zuen eskaileraren goiko plataforman holtz zeharrargiak jarriko zituela eta igogailu panoramikoaren barruan beirak opakuak izango zirela, etxebizitzetara ematen duten igogailuaren hormetan panel opakuak edo zeharrargiak jarrita (1022/2006).

Azkenik, atal honetan Pasaiaiko Udalari egindako gomendioa aipa dezakegu; horren bidez, Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiak balio justuko espediente batean eskatu zuen balioespen txostena bideratu zezala gomendatu zitzaion. Kexa aurkeztu zuen pertsonak adierazi zuen, 2005az geroztik, balio justua zehazteko espedientea izapidetzen jarraitu ahal izateko Udalak egin behar zuen txosten tekniko baten zain zegoela. Epaimahaiak espedientea itzuli zion Udalari, zegokion balioespena egin bitartean ([azaroaren 22ko ebazpena](#))⁴². Pasaiaiko Udalak jakinarazi zigun egin zuela aipatu txostena eta, gutxi barru, Epaimahaira bidaltzeko izapidea egingo zuela.

Irisgarritasuna

Atal honetan aipatu beharrekoa da bide bateko zirkulazioaren noranzkoa aldatzeko egin ziren obrek espazio publikoen irisgarritasunari buruzko arautegia kontuan hartu ez zutela adierazteko pertsona batek aurkeztu zuen kexa (1346/2006). Galdakaoko Udalak jakinarazi zigun obren xedea bide zirkulazioa eta aparkamendua hobetzea zela, nahiz eta 2007ko ekitaldian inguruko traba arkitektonikoak ezabatzeko proiektua prestatzen hasteko asmoa zuten. Alabaina, aipatu zuten, eraikuntza horien kokaleku den eremuaren malda naturala ikusita, ia-ia ezinezkoa zela irisgarritasun arauak zehatz-mehatz betetzea.

Informazio horri dagokionez, Udalari adierazi genion nahitaezkoa zela abenduaren 4ko 20/1997 Legea, irisgarritasuna sustatzeari buruzkoa, eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, betetzea.

Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren V. eranskinak urbanizazioetan eta eraikuntzetan egin beharreko berritze, zabaltze edo aldatze lanak arautzen ditu. 3. artikulua erabilgarritasun irizpideen aplikazioa zehazten du, ezaugarri orografikoak, egiturazkoak edo formazkoak direla medio, ezinezkoa denean eranskinean jasotako irisgarritasun irizpideak aplikatzea edo gastua neurritz kanpoko denean.

Bestalde, artikulua bereko hirugarren atalak dio, ezinezkoa denean aurreko atalean jasotako elementuetakoren bat gutxieneko irisgarritasun baldintzetara egokitzea, hori

⁴² Arartekoaren ebazpena, 2007ko azaroaren 22koa; horren bidez, Pasaiaiko Udalari gomendatzen zaio Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiak balio justuko espediente batean eskatu zuen balioespen txostena bidera dezala.

agiri bidez justifikatu beharko dela; halako kasuetan, derrigorrezkoa izango da, lizentzia onartu aurretik edo, kasu honetan bezala, proiektua onartu aurretik, udal zerbitzuen txostena izatea alderdi horiei dagokienez eta espedientea Irigarritasunerako Euskal Kontseilura bidaltzea, horren berri izan dezan.

Beste batzuk

Batzuetan, toki erakundeek trafikoa arintzeko ezartzen dituzten neurriak ez dira egokiak izaten, bide publikoen erabilzaileei arazo handiagoak eragiten baitizkiete. Halaxe gertatu zen Gasteizko industrialde batean. Bertan, legez kanpoko ibilgailu lasterketak egin ohi ziren asteburuetan. Ibilgailuak abiadura handian ibil ez zitezen, Udalak zeharkako balazta-banden zortzi multzo ezarri zituen industrialdeko zenbait kaleren galtzadan. Neurriak industrialde horretan lan egiten zuten pertsonen gidatzeko segurtasunari eta erosotasunari ere eragin zien. Horiek salatu zuten, gainera, balazta-bandak zeudela ohartarazteko ezarri ziren seinaleak, funtsean, sakanguneen parean kokatuta zeudela eta, beraz, gidariak ez zutela ez denborarik ez espaziorik erreakzionatzeko. Neurri hori ezarrita sortu ziren arazoan aurrean, Gasteizko Udalak eremu horretako zolan kokatutako banda fresatuak kentzea erabaki zuen.

Izapidetutako beste kexa bat auzotar talde batek aurkeztu zuen, bi elkarteren izenean, Donostiako Udala Kristina-Enea parkean garatzen ari zen jardunarekin bat ez zetozelako. Zehazki, beren iritziz, Kristina-Enea parkea eta bertako jauregia birgaitzeko garatzen ari zen udal proiektua eragin handia izaten ari zen ingurumenean eta hiriko natur eta arte ondarean. Beraien ustez, gainera, obrak ez zetozen bat Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak parkearen babes mailari buruz zioenarekin; horren arabera, ezin zen parkearen trazadura orokorra aldatu, ezta zuhaitzen eta loreen oinarrizko antolaketa ere.

Kexa horri amaiera emanez, gomendioa egin zen eta Donostiako Udalak onartu egin zuen ([irailaren 26ko ebazpena](#))⁴³. Funtsean, Ararteko erakundeak atera zuen ondorioa izan zen Udalak ez zuela jarraitu Antolamendurako Plan Orokorrak berak ezarrita zuen prozedura. Horren arabera, Katalogoan I. babes mailarekin ageri den parke batean era horretako obrak baimentzeko, beharrezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren nahitazeko txosten loteslea.

Garraioak

Azken urteotan bezala, 2007an **garraio zerbitzuari** buruz jaso ditugun kexa gehienek, funtsean, bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzua eskaintzerakoan, nola hiriko zerbitzua izan hala hiri artekoa, sortutako arazoak izan dituzte hizpide.

⁴³ Arartekoaren ebazpena, 2007ko irailaren 26koa; horren bidez, Donostiako Udalarari gomendatzen zaio, beste edozein jarduera garatu aurretik, bidezko baimenak izapidetu ditzala Kristina-Enea parkean aurreikusitako esku-hartzeak gauzatzeko.

Kexa horien bidez, herritar askok adierazi dute ez daudela ados garraio publikoko egungo eskaintzarekin. Beren iritziz, oro har ez da nahikoa eta ez da behar bezala egokitzen egungo gizarteak dituen garraio premietara, ez ordutegiari eta maiztasunari dagokienez, ez geralekuei eta ibilbideetako erosotasun baldintzei dagokienez, ezta beste hainbat alderdiri dagokienez ere.

Kexa gehienak errepideko garraioari buruzkoak izan arren, trenbidearen erabiltzaileek egindako erreklamazioak ere jaso ditugu; gure eskumen eremua kontuan hartuta, erreklamazio horiek EuskoTren zerbitzuari edo metropoli trenbideari (Metro Bilbao) buruzkoak izan dira.

Kexa horietan aipatu den arazoa behin eta berriro agertu da eta herritarrek behar dituzten zenbait ekipamendu ez daudela uzten dute agerian, besteak beste, komunik ez egotea ez geltoki askotan ez trenen barruan. Egun, Bilbo eta Hendaia lotzen dituzten eskualdeko tren zerbitzuek bakarrik eskaintzen dute ekipamendu hori bagoietan. Hori gorabehera, EuskoTrenek aurreratu du, EuskoTren XXI Planaren esparruan, material mugikor berria erosiko dela eta, bertan, komuna egongo dela; planari jarraiki, material hori 2009-2010 urtealditik aurrera hasiko da pixkanaka ezartzen.

Halaber, bidaia-txartelak erosteko prozesuaren teknifikazioak gaitzespena sortu du eta halaxe sortzen jarraitzen du. Oro har, geltoki handietan izan ezik, EuskoTreneko geralekuetan txartelak erosteko zeuden leihatilak kendu egin dira eta, horien ordean, makinak jarri dira; hauen funtzionamenduak, batzuetan, arazoak sortzen dizkie erabiltzaileei. Kontua da, ordea, trenean sartzeko baliozko garraio titulua izan behar dela; hala izan ezean, salaketa egin daiteke eta horrek zigor espedientea hastea ekar dezake, bidaian zeharreko gehigarria izeneko ordaintzen ez bada.

Errepideko garraioari dagokionez, azpimarratu behar dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak bere garraio zerbitzuen eskaintza eremura berrantolatzen hasi zela 2006an. Zerbitzuen berregituraketa horrek kexaren bat eragin du bai biztanle partikularren aldetik bai kolektiboaren aldetik.

Bidaiariak garraiatzeko zerbitzuen berrantolaketa oinarria diren ildo nagusiek hainbat zerbitzu mota sortzea dute helburu: BERTAKOAK, udalerrri bakoitzean hainbat lekutan geratzen diren ohizko zerbitzuak; EXPRESS, udalerrri bakoitzean geraleku bakarra duten zerbitzu arinak; eta ARINAK, jatorria eta jomuga lotzen dituzten zuzeneko zerbitzuak. Era berean, berrantolaketa honen baitan, udalerrri txikienek beren eskualdeko herri nagusiaren bidez hiriburuekiko zerbitzu azkarrak erabili ahal izatea lortu nahi da.

Erakunde honen ustez, beharrezkoa da herritarrek beren bizitzan eragina duten erabakiak hartzen parte hartzeko bideak artikulatzea. Bide horiei esker, erabakiak hartzeko prozesu horietan kontuan izango dira herritarren iritzia eta horiek adierazten dituzten premiak. Hala ere, horrek ez dakar erabakiak, Administrazio organoak hartu ordez, herritarrek hartuko dituztenik. Azken erabakiak administrazio publikoek hartu behar izango dituzte oraindik ere, baina arazoa eta herritarren proposamenak zuzenean ezagututa.

Era berean, txartel bakarra ezarri zenean, gipuzkoarrak ez ziren pozik agertu, aplikatzen hasi zenean antzeman ziren disfuntzioen ondorioz. Zehazki, herritarren kexak hiru alderdiri buruzkoak ziren: aldizkako txartela sortzearen ondorioz, ohizko txartelaren prezioak gora egin zuela; sistema berria ezarri zen lehenengo egunean hainbat txartel ezin izan zirela erabili; eta erabiltzaileei informazio gutxi eman zitzaizela txartel bakarra aplikatzeak ekarriko zituen ondorioen inguruan.

Sistema arinegi jarri zen abian eta ez zen trantsizio aldirik izan; hori oso lagungarria izango zatekeen erabiltzaileek berritasunak pixkanaka bereganatu ahal izateko.

Zehazki, txartel bakarraren proiektuak tarifen sistema aldatu zuen. Horrela, ibilbidearen kilometro kopuruaren ordez, zeharkatu ziren eremuen arabera tarifik hasi ziren kontuan hartzen. Horrek eremu horiekiko mugan zeuden udalerrietako biztanleei eragin zien. Era berean, ordaintzeko modua ere aldatu zuen. Sortutako txartelak automatikoki bidaiak metatzen zituen eta deskontuak egiten zituen erabiltzeagatik. Horrez gain, aldizkako bidaiariari, alegia, txartela dirutan ordaintzen zuen bidaiariari, garestiago ateratzen zitzaion ibilbidea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, hasiera-hasieratik, garraio publikoko erabiltzaileei kalte-ordaina emateko bideak ezarri zituen, sistema berria ustekabeko eta eragozpen ugari eragiten ari baitzitzaizkien. Halaber, txartel bakarraren deskontuak lehenengo bidaietatik nabarmen hobetzeko konpromisoa hartu zuen.

Beste gai bati helduz, bidaiarien segurtasunari eta erosotasunari buruzko zenbait kexa ere aurkeztu dira erakunde honetan. Horien artean, Bizkaibus zerbitzuaren inguruko bi kexa azpimarratu behar ditugu. Horietan adierazi da, hiri arteko garraiorako zerbitzuak egiten dituzten autobusetan erabiltzaileek zutik joan behar izaten dutela; horrek are arrisku handiagoan jartzen ditu autobusean doazenean, gidatzerakoan edozein gorabehera edo ustekabeko gertatzen bada.

Azkenik, beharrezkoa iruditzen zaigu aipatzea, azken urtean, zenbait aldaketa izan direla udal garraioaren antolaketan. Horren haritik, aipagarriak dira, jasotako kexetan izan duten eraginagatik, Gasteizen bidaiariak hirian barrena autoz garraiatzeko zerbitzu publikoa –taxiak– arautzen duen ordenantza berria eta Bilboko hiri garraioako zerbitzuaren araudia, biak berriki onetsiak. Arau horiek dituzten berritasunei dagokienez eta kexa eragin duten bertako alderdiei jaramon eginez, arau horietan jasotako zenbait manu azaldu behar ditugu. Horrela, Gasteizko Udalak adierazi du, baimen horien kopuruan aldaketaren bat egin nahi izanez gero, kontuan izango duela egun dauden taxi egokitu-tuko lizentzien kopurua; Udalaren helburua eguneko 24 orduetan lizentzien %5 taxi egokituenak izan daitezela lortzea da.

Onartu behar dugu gure erakundearen asmoa are handiagoa zela, lizentzia-kopuruaren gehikuntza guztiak ibilgailu egokituen kopuruan oinarrituta egin zitezela defendatu baikenuen. Eskaera hori ez zen, soilik, eguneko 24 orduetan taxi egokituak egongo zirela bermatzeko egin, baizik eta bai ezgaitasunen bat duten pertsonen beharriaz bai mugikortasuna mugatuta ez duten pertsonen beharriaz ere erantzutea ahalbidetzen duen ibilgailu bakarra taxi egokitua delako. Gure iritziz, horixe da zerbitzua eskaintzerakoan nagusi izan behar duten unibertsaltasun eta berdintasun kontzeptuetara ongien egokitzen den planteamendua.

Era berean, 2007ko amaieran Bilboko hiri garraio publikoko zerbitzuaren (Bilbobus) araudi berria sartu zen indarrean. Mesfidantza handiena sortu duen berritasunetako bat haur kotxeak autobus barruan tolestu gabe eta ezgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako lekuan jarri behar direla dioen aurreikuspena da. Horrek leku bera partekatzea dakarrenez, ordenantzak berak irtenbidea aurkitu behar izan die sor daitezkeen gatazka posibleei. Zehazki, ezarritako irtenbidea duela zenbait urtez Donostiako eta Gasteizko hiri garraioako zerbitzuek aplikatzen duten bera da; horren arabera, ezgaitasunen bat duten pertsonen lehentasuna izango dute.

Gaur egungo hiri autobusetan, bi leku daude gurpildun aulkian doazen pertsonentzat. Leku horiek irisgarritasuna sustatzeko legeak dioenari jarraiki gorde dira, izan ere, lege horren arabera, autobus modelo berriek halako lekuak izan behar dituzte. Leku hori hutsik baldin badago eta egokia denez, halaber, mugikortasun arazoak dituzten beste pertsona batzuek erabiltzeko, horien artean, haur kotxearekin doazen pertsonak, hauek ere leku horiek erabili ahal izatea bultzatu dute berdintasunaren aldeko zerbitzuek, bai helduarentzat bai haurarentzat erosoagoa eta seguruagoa izango baita, autobusera sartzean eta autobusean joatean, adingabea kotxearen barruan izatea, eta ez berarekin doan pertsonaren besoetan joatea. Hala ere, gogoan izan behar dugu, egun, autobusetan dagoen leku hori bat datorrela legeak ezgaitasunen bat duten pertsonen alde egiten duen erreserbarekin.

Aurreikuspen hori beharbada ez da oso egokia biztanle gazteak dauden auzoak lotzen dituzten autobus lineei dagokienez. Hala, beraz, kasu horietan, udal administrazioak arduratuko dira, beste zenbait alderdiren artean, hiri autobus horien maiztasuna handitzea bideragarria ote den baloratzeaz.

11. ANIMALIAK BABESTEA

Arlo honen barruan, Ararteko erakundeak pertsonak edo elkarteak euskal administrazio publikoen jardueren aurka aurkeztu dituzten eta euskal legegileak, Estatukoak edo udal administrazio desberdinetan onartutako arauak animalien babesa dela-eta aurreikusitako legerian jasotako edukiarekin bat ez datozen erreklamazioak eta kexak biltzen ditu.

Eragindako administrazioen arabera, kexak honela banatzen dira:

| | |
|-----------------------------|---|
| - Toki administrazioa | 5 |
| - Foru administrazioa | 3 |

Azpiarloei dagokienez, berriz, honela:

| | |
|--|---|
| - Animaliak edukitzea | 3 |
| - Gune zoologikoak | 2 |
| - Beste batzuk | 2 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura..... | 1 |

Arlo honetan, kezka nagusia bai gune zoologikoetan bai etxeetan dauden animalien bizi baldintzak eta erantzukizuna dutenek ezartzen duten animaliak edukitzeko araubidea dira.

Lehen kasuan, beharrezkoa da administrazioek **gune zoologikoak** kontrolatzea, Eusko Jaurlaritzak onartu zuen eta kasuan kasuko foru sailei aplikagarri zaien araudia-rekin bat etorritz.

Azpiarratu behar da gune zoologikoek, jarduerari ekin aurretik, bai foru aldundiak bai udalak emandako administrazio baimen egokiak izan behar dituztela. Jardueran aldaketaren bat egin ahal izateko, aurrez baimena eskatu behar da. Hortaz, jarduera dagokion baimenik gabe garatu edo aldatzeak gune zoologikoei buruzko araudia urratzea eragingo luke eta, hala, udaleko organoen aurrean legokiokeen zigor espedientea hasi eta izapidetuko litzateke.

Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoak baimendu, erregistratu eta kontrolatzeari buruzko azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuko testuarekin bat etorritz, baimena berritu egin behar zen bost urte igaro ondoren. Baimena berritzeko betebeharrak hori titularrari dagokio eta hori ez betetzea arau-hauste gisa hartuko da eta, ondorioz, dagokion isuna jarriko da. Nolanahi ere, ondorengoko 81/2006 Dekretuak, apirilaren 11koak, gune zoologikoei buruzkoak, baimena bost urtez behin berritzeko betebeharra kendu du eta administrazioek bai Nekazaritza Sailari bai lokala dagoen herriko udalari eman zaizkien baimenen berri izateko sistema ezarri da.

Problematika horri dagokionez, 2007an ofiziozko jarduera bati ekin genion Gipuzkoako Lurralde Historikoan, galdutako edo abandonatutako animaliak zaindu eta babesteko Debabarrenako mankomunitatean zegoen lokalaren egoerari buruz zenbait hedabidetan agertu zen salaketa zela-eta. Datuak egiaztatze aldera, informazioa eskatu genion Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuari.

Departamentu horretatik adierazi digute zenbait eginbide abiarazi dituztela animaliei ostatu emateko zentro horretan gune zoologikoei buruzko arautegia betetzen ote den ikusteko. Horrela, gune zoologiko honek azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuaren 7. artikuluekin bat etorri berritu ez zen baimena zuen. Nolanahi ere, titularrek beste baimen bat eskatuta zuten, baina oraindik izapidetze fasean zen, instalazioak kasuan kasuko eskakizunetara egokitzen ote zen ikusteko (erregistro liburua, animalien baldintza etologikoak...).

Beste pertsona batek ere erakunde honetara jo zuen eta adierazi zigun ez zegoela ados, Donostiako albaitaritzako kontsulta baten funtzionamenduari buruz aurkeztutako erreklamazioen ondotik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak bidali zituen jakinarazpenekin. Zehazki, organo horri aipatu zentroa ikuskatzeko eta zaintzeko eskatu zion, gune zoologikoei buruzko araudiak ezarritako betebeharrak betetzen ote ziren egiaztatzeko. Foru departamentuaren erantzunak zentroa gune zoologikoen erregistroan zuen inskripzio egoerari buruz ziharduen. Lokal horrek bost urtez animalia-denda gisa aritzeko baimena zuen. Alabaina, titularrek ez zuten baimen hori berritzeko eskatu, lokalak ezin zezakeen gune zoologiko gisa lanean jarraitu. Egoera horretan, foru organoak adierazi zuen baldintza hori ez betetzea arau-haustea zela eta, animaliak babesteari buruzko 6/1993 Legearekin bat etorri, hutsegite larria zela eta jarduera kokatuta zegoen herriko udalak izapidetu behar zuela. Baimenaren iraungipenari dagokionez, Departamentuak azaldu digu, bost urteko epea igarota, ez dagoela gune zoologikoak ikuskatzeko planik. Baimenik gabe dihardutela ziurra den kasuetan bakarrik esku hartzen du foru administrazioak, kasu honetan gertatu zen bezala, eta, ondoren, udalari ematen dio horren berri, organo honi baitagokio jokabide hori zigortzea. Kasu honetan, lokala albaitaritzako kontsultategi gisa hartuta zegoen; bere jarduera nagusia ez zen animaliei ostatu ematea eta, beraz, ezin zen gune zoologikotzat hartu. Administrazio horrek helarazitako informazioa ikusita, kexagileei adierazi genien, baimenik gabeko lokalean animaliei ostatu ematen bazitzairen, salaketa egin behar zela zentroa zegoen herriko udalaren edo organo eskudunaren aurrean.

Bizkaiko elkarte ornitologiko bat kexu da, Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu zituen zenbait idazkiri erantzun ez zaielako. Idazki horien bidez, Kadagua ibaian ehun bat ubarroi handi hilda agertu zirela salatu zuten eta Nekazaritza Sailaren esku-hartzea eskatu zuten. Diotenez, talde jakin batzuek presioa egiten dute espezie horrengan, ibai arroetako arrain erreserbetan izan dezakeen eraginagatik. Foru sail horrek elkarteari emandako erantzunaren berri eman digu. Bertan aipatzen du, orain arte, bere jarduera ibai sarean dagoen populazioaren jarraipena egitera bideratu duela, arrain populazioan duen eragina ikusteko. Egun zer populazio dagoen ikusita eta horrek arrainen faunan eragin nabarmena izango zuela kontuan hartuta, espezie horretako populazioaren %20 hil ahal izateko kudeaketa-plana onartzea aurreikusi da. Aldundiak natur guneen eta lehorreko flora eta faunaren kontserbaziorako 4/1989 Legean jasotako eskuduntzetan oinarrituta justifikatzen du ubarroi handia kudeatzeari buruzko akordio hau. Eskuduntza horien baitan, interes bereziko espezie horren koloniaren zati bat hil ahal izango da.

Bestalde, herritarrek espazio publiko jakin batzuetan (besteak beste, parkeetan, hondartzan edo herriko berdeguneetan) pertsonen eta animalien artean sor daitezkeen bizikidetzako arazoak berri eman digute aurten ere, bereziki, arriskutsuztat hartutako txakurrak tartean zireneko kasuen berri. Erreklamazioen talde horretan, beharrezkoa da kasuan kasuko udalei **animaliak edukitzeari** buruzko araudia betearaz dezatela

eskatzea eta pertsoneri kalteak saihestea. Eusko Legebiltzarraren urriaren 29ko 6/1993 Legeak, animaliak babestekoak, eta indarrean dagoen ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak, txakurrak edukitzeari buruzkoak, diote udalen eskumena dela animaliak dituztenek beren betebeharrak betetzen dituztela ikuskatzea eta kontrolatzea. Oro har, hirietako bideetan eta gune publikoetan, txakurrek kontrolpean egon behar dute eta lotuta ibili behar dute, gehienez ere bi metroko kate edo uhalarekin. Txakur guztiek dagokien mikrotxipa eraman behar dute, identifikatuta egon daitezen, eta bizi diren herrian errolatuta eta erregistratuta egon behar dute. Udal administrazioak erabilera komuneko guneetara sartzeko beste muga batzuk ere ezarri ahal izango ditu. Dekretu horretako artikuluko batean, gainera, eraso jasanez gero jarraitu beharreko prozedura ezartzen da. Garrantzitsua da azpimarratzea, pertsoneri eraso eginez gero, horrek kalterik eragin ez arren, animalia albaiariak ebaluatu behar duela, pertsonentzat arriskutsua izan ote daitekeen ikusteko. Bestalde, arrazaren tipologiagatik edo animalia beraren ezaugarriengatik arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek animaliak edukitzeko araubide murriztaileagoa dute, besteak beste, muturrekoak jartzea edo bi metro baino gutxiagoko uhalak erabiltzea (betebehar jakin batzuetatik salbuetsi ahal izango dira abereak gobernatzeko txakurrak erabiltzen dituzten nekazaritzako ustiategiak). Oro har, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak izango dira abenduaren 23ko 50/1999 Legeak garatzen duen errege dekretuaren I. eranskinean jasotako espezieak, baita izaera erasotzaile nabarmena dutenak eta pertsoneri nahiz beste animalia batzuei eraso egin dietenak ere. Txakur bat arriskutsua izan daitekeela deklaratzeko txakurra errolatuta dagoen herriko udalari dagokio.

12. OSASUNA

Arlo honetan guztira 86 kexa jaso dira eta honela banatuta egon dira eragindako administrazioen arabera:

| | |
|---|----|
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 85 |
| - Foru administrazioa | 1 |

Azpiarloen araberrako banaketarekin bat etorritz, honela sailkatzen dira:

| | |
|--|----|
| - Erabiltzaileen eskubideak | 49 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura..... | 14 |
| - Osasun laguntza..... | 13 |
| - Buru osasuna..... | 5 |
| - Beste batzuk..... | 2 |
| - Osasun publikoa | 2 |
| - Kontratazio erregimena, ondarea eta administrazio erantzukizuna. | 1 |

Aurten aipatu beharrekoa da lan baldintzen negoziazioarekin erlazionatutako arazoak oso agerian geratzen ari direla euskal osasun zerbitzuan.

Kontu hau lan arloan koka dezakegu eta ez, berez, osasun arloan. Konstituzioak sindikatuei langileen interesen defentsarako ematen dien eginkizuna kontuan hartuta, jarduteko eremu honetan protagonismoa elkarte horiek dute.

Baina, lan harremanei buruzko kontua izan arren, egokia da hemen aipatzea, dudarik gabe, biztanleei eskaini beharreko arretan ere eragiten baitu, ez bakarrik burutu daitezkeen aldarrikapen haizuetan aldaketa zehatzen bat gerta daitekeelako, baizik eta enplegu baldintzek bi aldeen –hots, Osakidetza eta langileen– arteko harremana gainditu eta ondorioak gaixoengan ere proiektatzen direlako.

Antzeko ikuspegitik, alegia, lana eta osasun laguntza biltzen dituenetik, **osasunaren arloko indarkeriaren** arazoari heldu ahal izan diogu. Arazo honen inguruan dugun ikuspuntua Ararteko erakundearen web orrialdean (www.ararteko.net) argitaratuta dagoen ponentzian ikus daiteke. Bertan adierazitakoaren arabera, ziurrenik, laneko indarkeriaren fenomeno hori eta osasun arretan izango duen eragina kontuan har dadin denbora behar da, baina garrantzitsua da jakitea ea sor daitezkeen indarkeriazko egoeretako asko eskubide instrumental batzuk gauzatzeko dakartzan zailtasunen ondorioa diren edo ez diren (informaziorako eskubidearen askotariko alderdiak aipatu genituen). Egoera horiek, gainera, administrazio zama eragin dezakete. Baina, osasun sistema publikoa prest al dago halako zerbaiteko?

Osasunaren arlo honetan jaso ditugun kexei dagokienez, esan dezakegu, oro har, herritarrek antzeko gaiak aurkezten dituztela. Kexa gehienetan, zentro pribatuetara joateko aurretiazko baimenak ukatu dituzten erabakiekiko desadostasunak, gastuak itzultzeko ukoak, itxaron zerrendak edo prestazio jakin batzuk eskuratzeko zailtasunak izan dira hizpide. Azken hauei dagokienez, zailtasun horiek nagusiki antolakuntzako

alderdiekin izan dute zerikusia, gaixoak delako prestazioa jasotzeko eskubidea zuen ala ez zuen zalantzarekin baino.

Gastuak itzultzeari buruzko kontuen artean, joan den urtean hasitako espediente aipatu behar dugu. Bertan adierazi genuen, gure ustez, osasun administrazioa eta Arartekoa bat zetozela asmoak oinarririk bazuela esatean. Hala ere, desadostasuna interesdunak eskaera egiteko erabilitako bidea egokia izan zen ala ez erabakitzerakoan sortu zen, erabilitakoak eskaera ukatzea eta, ondoren, erakunde honetan kexa aurkeztea ekarri baitzuen.

[Otsailaren 15eko ebazpenen](#)⁴⁴, aukeratutako bidearen egokitasunari eta gaixoaren hasierako eskaera bideratu behar izango zatekeen moduari zegokienez egin genuen balorazioa biltzen da. Ebazpen horren bidez, gastuak itzultzeko ukoa berrius ezala gomendatu genion Osasun Sailari; honek gomendioa onartu zuen.

Joan den urteko txostenean, **patologia larriak zituzten eta aho-hortzetako ebakuntzak eskatu** zituzten zenbait gaixoren kexak aipatu genituen. Halaber adierazi genuen arrastoak zeudela gure autonomia-erkidegoko osasun administrazioa ere egoera horiei erantzuteko premia jabetzen zela pentsatzeko. Tratamendu horiek eskuratzeari buruzko kexa ugari jaso ditugu oraindik ere patologia larriak dituzten gaixoen aldetik.

Osasun Sailean bideratu ditugun jardueren bidez, zalantzan jarritako administrazio ebazpenetan adierazitakoa ez zen beste interpretazio bat egin dugu. Jarduera horien abiapuntu gisa, kexa eragin zuten ebazpenak erabaki arbitrarioak ez zirela onartu genuen, baina baita kontrako interpretazio bat ere egin zitekeela, hots, gaixoen aldekoa.

Halaxe da, bai; arauak prestazioak edo zerbitzuak legez konfiguratzeko dituenean, aho-hortzen tratamenduak, berariaz ortodontziakoak, egiteko aukera saihesten duela pentsarazten digu.

Ziur gaude aurkeztutako kasuetako batzuk ez direla, nolabait esatearren, aho-hortzetako ebakuntzak zerbitzuen zorroan barnertatzearen alde egingo delako beldurra pizten dutenak; nolahi ere, aipatu zorroak kasu horiei erantzun diezaikeela uste dugu. Bi arrazoi horietan eragin dute gure jarduera.

Aldarazi ditugun erabakien eraginpeko kasuak beharrezko ebakuntza gisa hartutakoak dira. Egoera eta tratamendu ezberdinak ziren eta horien arteko berdintasun bakarra zen beharrezko ebakuntzak zirela, gaixoaren osasuna zaintzeko edo lehene-ratzeko funtsezkoa zelako nahiz finantzatzeko ez zen tratamendu hori gabe ezinezkoa zelako osasun prestazio publikoen artean jasota zegoen eta derrigor egin behar zen beste tratamendu bat egitea.

Gaixo kronikoen errehabilitazioari dagokionez, gogoan izan dugu, Euskadiko 2002-2010 Osasun Planean bildutako aurreikuspenen artean, Osasun Sailak Gaixotasun Kronikoen Errehabilitazioa Hobetzeko Plana aurkeztu zuela 2007an.

Kexetan maiz errehabilitazioa aipatu ohi da, bereziki, gaixotasun neurologikoak dituztenena. Kexagileek tratamenduetako altarekin ados ez daudela adierazi ohi dute, beren ustez, tratamenduarekin jarraitu behar bailitzateke.

⁴⁴ Arartekoaren ebazpena, 2007ko otsailaren 15ekoa; horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari gomendatzen zaio aldeko ebazpena eman dezala osasun laguntza pribatuari dagozkion gastuak itzultzeko, (...)k egindako eskaera dela-eta.

Gaixotasun jakin batzuetan, beste batzuetan baino gehiago, funtsezkoa izan daiteke gaixotasun kronikoa izan aurreko dependentzia-/independentzia-maila edo errehabilitazio tratamendua eragin duen prozesua ezagutzea.

Esparru honetan egoki jardunez gero, modu objektiboagoan jokatu ahal izango da beharrezko errehabilitazio tratamenduak aukeratzekoan. Halaber, informazio zehatzagoa eman ahal izango da, kexetan ikus dezakegunez, altarekin ados ez dauden zenbait senideren iritiz egun ematen dena ez baita oso zehatza.

Dirudienez, jokabide objektibo hori, gaixoen historia klinikoetan behar bezala islatuta, oso lagungarria izan daiteke, behin gaixoak ospitaleko hasierako baliabidean alta jaso ondoren, errehabilitazio tratamenduaren jarraipenak zein izan behar duen hobeto zehazteko.

Horiek Euskal Osasun Publikoko Gaixotasun Kronikoen Errehabilitazioa Hobetze-ko 2007-2009 Planaren helburuak direnez eta Ararteko erakundean horiei dagozkien tratamenduen inguruko kexa ugari aurkezten denez, Osasun Sailari informazioa eskatu diogu plan horren egungo garapena ezagutzeko.

Diabetesa duten gaixoeak izaten dituzten zailtasunen inguruko zenbait kexa aurkeztu dira Ararteko erakundean, bereziki, eskola-ingurunean oraindik ere izaten dituzten arazoengatik. Kexa horiek oraindik ez dira ebatzi.

Aurreko urteetan jasotako kexei zegokienez egin genituen jardueren ildotik, jakinarazi zitzaigun eskolan haur diabetikoari arreta eskaintzeko programa onartu zela Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin bat etorri. Legebiltzarrak diabetesaren inguruko helburu zehatzei buruz idatziz egindako galderari erantzunez Osasun sailburuak bidalitako idazkian, programa horren berri eman zen.

Kontuan izanik aurreko kexa gehiago aurkeztu direla, badirudi egunero, eskola-orduetan, gluzemia-kontrolak egiteak nekez konpon daitezkeen arazoa izaten jarraitzen duela.

Eskolan haur horiei eskaini beharreko arretaren arazoari irakasleekin lankidetzan heldu zaio, eragindako administrazioek sinatutako agirian aurreikusitako formulatuko bat horixe izanik.

Berriki jasotako kexa batean adierazitako arazoak zirela medio, une hartan ezinezkoa zen lankidetzari hori gauzatzea. Eskola-orduetan eskaini beharreko osasun arreta bereziki buruzko zirkularrean, ez da berariaz aipatzen eragindako administrazioetakoren baten betebeharririk eta, beraz, ezin esan dezakegu horietakoren bat urratu denik administrazio bati edo besteari (hezkuntzakoari edo osasunekoari) bete dezala eskatzeko.

Gure ustez, berariazko eskola-premiak dituzten ikasleei eskaini beharreko arretari buruzko 2005eko azaroaren 29ko Gobernu Kontseiluaren Akordioan aurreikusitako lan taldeen barruan aztertu beharreko egoera baten aurrean gaude. Halaxe adierazi genion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eta ikasle honen inguruan sortutako egoera aipatu lan taldeen esku utz zezala iradoki genion.

Kexa baten bidez pertsona batek adierazi zigu, inguruabar ezberdinak zirela medio, bere anaiarekin bakarrik bizi zela. Anaiak diabetesa du eta ezgaitu fisikoa da; azukrea jaisten zaionean ohartzen ez diren gaixoen taldean barneratuta dago. Kexan bi alderdi aipatu zituen: batetik, ospitaleetan azukrea neurtzeko erabiltzen diren orratzek anaiari min egiten ziotela eta arazoak eragiten zizkiotela; eta, bestetik, 112 zerbitzura

deitzen zuenean, anbulantzia heltzen zenean, ezin ziotela glukagoia injektatu, anbulantzia “medikalizatuta” ez zegoenean joaten zen osasun teknikaria horretarako gaituta ez zegoelako.

Kexak garbi erakusten zuen zer zailtasun dituzten pertsona horiek eta nola, kasu jakin batzuetan, artatutako kasuaren inguruabarrek arazoak eragin ditzaketen, nahiz eta jarduera aurreikusitako jarduteko protokoloarekin bat etorri (glukagoia injekta dakion gaixoa osasun zentrora eramateko zailtasuna).

Kexaren beste alderdiaren inguruan, hots, orratzen inguruan, adierazi ziguten, zenbait gorabehera izan zituztela antzeman ondoren, aldatu egin zirela eta Diabetes Mellitusi buruzko Euskadiko Aholku Batzordeak oinarri tekniko berriak egin zituela.

Euskal osasun sistemaren esku-hartzea handiagoa izatea nahi den beste eremu bat **gorrei** dagokiena da. Zenbait gurasok entzumen urritasuna, nola jaiotzetikoa hala ondoren agertutakoa, beren seme-alabek behar duten laguntza jasotzeko zer arazo dituzten azaldu digute.

Egun kexa izapidetzen ari gara eta, bertan, hainbat gai jorratzen dira, esaterako, gure autonomia-erkidegoan inplante koklearrak egitea, joan-etorririk egin behar ez izateko, eta bigarren inplantea edo alde biko inplantea onartzea. Halaber aipatu dute beharrezkoa dela inplantearen ondorengo logopedia tratamenduak egiteko modua aztertzea, errehabilitazio hori irizpide ezberdinetan oinarrituta ematen ez dela egiaz-tatzeko.

Bi kexatan (bata herritar batek aurkeztua eta bestea sendagaigileen elkargo batek), antza, farmazia guztietara beti heltzen ez diren **medikamentu jakin batzuek hornitzeko arazoa** aipatu zaigu.

Herritarrak adierazi zuen Parkinson gaitza zuela eta zailtasunak zituela medikamentu bat lortzeko (Neupro n° 4 adabaki transdermikoak); zioenez, hainbat hilabete zeramatzan horien bila, baina farmazia batean bertan ere ez zituen aurkitu. Azkenean, medikamentua lortu zuela jakinarazi zigun.

Kexa hura jaso eta handik gutxira, beste bat helarazi zitzaigun, hura ere hornikuntzarekin erlasionatua. Kexa sendagaigileen elkargo batek aurkeztu zuen eta, zioenez, egoera hori farmazia-laboregi batzuen jardueren ondorioa zen.

Elkargoak zioen hornidurarik gabe egoteak zailtasunak eragiten dizkiela uztailaren 26ko 29/2006 Legeak, osasun produktuen eta medikamentuen garantiei eta arrazoizko erabilerari buruzkoak, ezartzen dituen betebeharrak betetzeko.

Elkargoak adierazitakoa ikusita, antza, arazoa ez zen berria, eta halaxe erakusten zuten elkargo horrek aurkeztu zigun dokumentazioan jasotako jarduerak. Hauen artean aipatu beharrezkoa da Osasun Sailak 2005eko otsailaren 15ean elkargoko lehendakariari zuzendu zion jakinarazpena, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak autonomia-erkidego guztietan izandako esku-hartzeari buruzkoa, medikamentuak ez hornitzeak zekarren egoera ezagutze aldera.

Kexa sendagaigileen elkargo horrek aurkeztu zuen arren, arazoak 29/2006 Legearen helburu nagusienetako batekin du zerikusia: biztanle guztiek behar duten medikamentua lortzeko aukera izatea, behar duten unean eta lekuan, modu eraginkor eta seguruan. Ikuspegi horretatik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari kexaren berri eman genion.

Arlo honetako eskumena Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agenziari dagokiola kontuan izanda, kexa hau zuzenean Herriaren Defendatzaileari helarazi genion.

Burutik gaixo daudenei eskaini beharreko laguntzaren esparruan, eskizofrenia paranoidea duen gaixo batek oheak falta zirela-eta Basurtuko Ospitalean sartu ezin zuelako estualdian zegoen bere familiaren kexak garbi uzten du zeinen zaila den halako egoerez arduratzea. Gaixoa zentro horretako bertako beste solairu batean sartu zuten, ordeztu aukera gisa, baina, familiaren ustez, solairu horrek ez zituen beharrezko baldintzak betetzen eta, ondorioz, gaixoaren tutoretza beren gain hartu zuten, Escuza eraikinean oheren bat libre geratu artean. Hori guztia ikusita, familiak kexa aurkeztu zuen. Hamabost egun igaro eta egoera bera zela ikusita, Basurtukoa ez zen beste baliabideren bat erabili ote zitekeen proposatu zen, baina, azkenean, ez zen beharrezkoa izan.

Atal honetan, Arabako Ospitale Psikiatrikoan funtsezkotzat jotzen den ekipamenduari buruzko beste kexa bat jaso dugu. Ekipamendu hori gaixoen aisialdirako lorategia litzateke. Gabezia horri buruz ere hitz egin zen 2000ko espediente batean.

Ararteko erakundeak ospitale psikiatrikoetako buruko gaixoen egoerari buruz egindako txostenean aipatu genuen bezala, ospitaleetan beharrezkoa eta ona da lorategi zona zabalak eta inguru egokia izatea, gaixoei paseatu, kirola egin eta naturarekin harremanetan egoteko aukera izan dezaten.

Aurrerago ospitale horretan bertan ekipamendu berari buruz eman zitzaigun informazioarekin bat etorritik, zenbait jardun garatu ziren aisialdiko espazio hori eskaini ahal izateko. Zehazki, Osakidetzak jakinarazi zigun, lorategia egokitzeko inbertsio gisa, jada kopuru jakin bat bideratu zela aurrekontuan.

Beste kexa hori ikusita, ordea, badirudi oraindik ez dutela ekipamendu hori, egungo ospitalea inauguratu zenetik antzemandako gabezia izan arren. Txosten hau egiten amaitutakoan, esan dezakegu, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak azaldu digunez, berriki Gasteizko alkatearekin harremanetan izan dela eta, ikusitako datuen arabera, orain arteko ekipamendu hori izatea eragotzi duten oztopoak 2008ko lehen hiruhilekoan gainditu ahal izango direla pentsa daitekeela.

Dirudienez, **tabako kontsumoaren mugak** betetzearen inguruko egoera ez da aldatu; halaxe nabarmenduko luke iaz ere arrazoi horregatik beragatik kexak aurkeztu zituzten pertsonen berriz ere hala egin izateak.

Jakina denez, tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezartzen dituen eta tabakoaren produktuen salmenta, hornikuntza, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen abenduaren 26ko 28/2005 Legea onartu ondoren, zalantzak eta desadostasunak sortu ziren bere aurreikuspenen inguruan. Horien artean, gure jardueretan administrazio publikoari buruzkoak nabarmendu ditugu, izan ere, herritarrek administrazio publikoari aurkez diezazkiokete aipatu legean tabako kontsumoari ezartzen zaizkion mugak ustez errespetatu ez izanaren inguruko salaketak.

2007ko ekaineko gure informazio eskaerari erantzunez bidali zitzaigun idazkian, haren ustez zigor organo eskudunak udalak direla esateko zituen arrazoiak aipatu ondoren, adierazi zigun egoera horrek egungo araudia egokitzearen inguruan hausnarketara egitea ekarriko lukeela (araudi horretan droga-mendetasunei buruzko euskal legea aipatzen da).

Egoerari aurre egiteko beste jarduerarik egin ote zen ez genekienez, berriz ere Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari zuzendu gatzaizkio, droga-mendetasunen arloan duen jarrera kontuan hartuta, eta gaiaren inguruko informazioa eskatu diogu.

Bere erantzunean, sail horretako Droga Gaietako zuzendariak jakinarazi zigun ahaleginak egiten ari direla 28/2005 Legea indarrean sartu zenean agerian geratu zen eskumen banaketaren arazo larria konpontzeko. Xede horrekin, lehen urratsak egin dira euskal udaletako bozeramaileekin berriz ere negoziazioetan hasteko. Bozeramaile guztien helburua Legea aplikatzerakoan problematikotzat jotzen diren alderdien kudeaketan adostasuna lortzea da.

Ondare erantzukizuneko prozedurei dagokienez, aurreko urteetan ohikoa izaten zen kexa-mota bat ia-ia egon ez dela antzeman dugu aurten; alegia, jasotako osasun laguntzarekiko desadostasuna adierazteko aurkezten ziren ondare erantzukizuneko erreklamazioei erantzunik eman ez zitzaizela ziotenak.

Eusko Legebiltzarrarentzako iazko txostenean, arazo bera aipatu genuen, baina Osakidetzako zuzendari nagusiak adierazi zizkigun neurriak ere ondare erantzukizuneko espedienteak ordenamenduan aurreikusitako baldintzetan izapidetu ahal izan zitezen; hau da, horiek administrazio bidetik aztertu eta ebatzita.

Ohartzen gara hori ahalegin handia dela osasun kudeatzaileentzat, baina baita erantzukizuneko eskaerak izapidetu eta berriaz ebatzi beharra legeak berak ezartzen duela ere, eta, horretarako, beharrezkoa dela kasu bakoitza banaka aztertzea.

Pentsa dezagun zer esango lukeen gaixo batek, jasotako laguntzarekin ados ez dagoela adierazteko, erreklamazioa aurkeztu eta, gainera, ondare erantzukizuneko bere eskaerari isiltasunaren bidez erantzuten bazaio.

Horregatik, Ararteko erakundeak uste du kontu horiek aztertu diren moduan aztertu izateak herritarrek osasun sistema publikoan duten konfiantza indartzen ere laguntzen duela.

13. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

2007an, guztira 6 kexa aurkeztu dira Lan eta Gizarte Segurantzaren arlo honetan. Gizarte Segurantzaren inguruko arazoak aipatzen dituztenak Herriaren Defendatzaileari bidaltzen zaizkio, Parlamentuaren ordezkari honi baitagokio Estatuko Administrazio Orokorreko organoen jarduera ikuskatzea.

Kexa gutxi jaso ditugu eta horietatik gehienak prestakuntza ikastaroen garapenearekin erlacionatuta egon dira. Kasu batzuetan, kexek sarbidearen inguruko arazoak salatu zituzten –onartu ez ziren pertsonak–; beste batean, pertsona batek azaldu zuen enplegua sustatzeko prestakuntza ikastaro batzuetatik kanpo utzi zutela eta hori inolako arrazoirik gabe egin zutela.

Udalaren partaidetza publikoa zuten ikastaroak zirenez, gure jarduera hartutako erabakiak botere publikoen jardunean nagusi izan behar duten bermeei jarraiki hartu ote ziren egiaztatzea bideratu genuen, eta halaxe izan zela ikusi ahal izan genuen.

Gure informazio eskaerari erantzunez bidalitako idazkiarekin bat, Behargintzak (enplegua sustatzeko udal zentroak) hartutako erabakia parte-hartzaile guztiek sinatu zuten ikastarora joan eta horri probetxu ateratzeko konpromiso agirian bildutako alderdietan oinarrituta egon zen. Hona hemen alderdi horiek: eskoletara joatea eta horietatik, gehienez, %5 izatea justifikatu gabeko hutsak; ingurumenarekiko sentsibilizatzeko modulua egiteko konpromisoa hartzea; eta ikastarora joan eta horri probetxu ateratzeko konpromisoa hartzea.

Konpromisoaren lehen atalari dagokionez, hots, ikastarora joatearena, jakinarazi ziguten huts kopuruak justifikatu gabeko hutsei zegokienez ezarritako muga gainditzen zuela (13, 72tik). Ez zuen justifikaziorik aurkeztu.

Bigarren atala zela-eta, alegia, ingurumenarekiko sentsibilizatzeko modulua, adierazi ziguten ez zuela egin, haren hitzetan, jada egin zuelako. Nolanahi ere, ez zuen ziurtagiririk aurkeztu.

Prestakuntzaren eremu honetan bertan, zenbait emakumek adierazi zuten ez zeudela ados emakumeak industriadetzeko programa jakin batzuekin (Emakintza prestakuntza programa).

Deialdiaren inguruabarrei zegokienez, informazioa eskatu genuen hura nola burutu zen jakiteko. Erantzunean, garatutako prozedura azaldu zitzaigun. Prozedura horretan, onuradunak hautatzeko erabilitako irizpide objektiboak ezarri ziren, plaza-kopurua mugatua baitzen. Halaber, jakinarazi ziguten ahalegina egingo dutela, deialdian betekizunak bete arren, programan sartzerik izan ez zuten emakumeak hurrengo deialdietan kontuan hartzeko.

Beste ikuspegi batetik, beste emakume batzuk programaren funtzionamenduaz kexatu ziren; beren desadostasunaren arrazoien artean, lanbidea eta familiako bizitza bateratzekoak daude. Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailari aipatu desadostasunaren arrazoiak helarazi genizkion.

Guri erantzunez, delako sailak azaldu zuen programa hainbat erakunderen arteko lankidetzaren emaitza zela eta, beraz, testuinguru horretan kokatu behar zela haren garapena; honako alderdi hauek azaldu zituen: parte-hartzaileek egin behar dituzten joan-etorriak eta jasotzen duten ekarpen ekonomikoa, jardueren eta parte-hartzaileek jasoko duten prestakuntzaren arteko harremana, eta praktikaldiko tutoretza-lana.

Alderdi horiek zehatz-mehatz azaltzen zirenez, hura jarduera irregular edo ezegoki baten aurrean ez gaudela pentsarazi zigun. Hala ere, informazio hori interesdunei helarazi genienean, aipatu genuen komenigarria zela antolatzaileek eskura jarri zituzten elkarrizketa-bidez baliatzea –Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailaren erantzunean berariaz aipatua–, izan zitzaizkiren bidezko desadostasunen arrazoiak azaltze aldera.

Azalpen horietatik, lanbidea eta familiako bizitza bateratzearen ingurukoek emakumea laneratzearen esparruan erakunde guztiek hartutako konpromisoa nabarmentzen zuten. Hala ere, onartu zuen industriaren munduko errealitateak ez zela uzten kulturalki elkarrengandik oso urrun dauden kontzeptuak nahi beste aplikatzen, horixe izanik, hain zuzen ere, Emakintza bezalako programak egitearen arrazoiak bat.

Aurreikuspen fondoetako inbertsioei buruzko informazioarekin erlazionatutako zenbait alderdik ere kexa eragin zuten.

Pertsona batek adierazi zuen ez zegoela ados Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren aurka egin zuen salaketa aztertze moduarekin. Salaketan, banku batek borondatezko gizarte aurreikuspeneko fondoetako inbertsioan izan zuen jarduna aipatu zen. Kexan ezer egin ez zela adierazi arren, kexaren arrazoi nagusia izan zen ez ziotela jakinarazi zer arrisku zekarren berekin inbertsioak.

Gure informazio eskaerari erantzunez, adierazi ziguten zenbait jarduera burutu zituztela finantza-erakundearekin salaketaren arrazoi egiaztatze aldera. Arauan jasotakoa ikusita egin zitezkeen egiaztapenak egin zirela ikusi genuen (25/1983 Legea, urriaren 27koa, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei buruzkoa).

Bere zalantza nagusia zen ea finantza-erakundeak jarraibideekin bat etorri jardun zuen. Hortaz, arazoa frogaelementuen pean zegoen, baina, antza, kasu honetan ez zegoen halakorik eta halaxe adierazi genion interesdunari ere.

Atxikipen kontratuetarako orduan indarrean zeuden baldintzetan (hauek ez zituzten aipatzen funtsezko alderdiak, esaterako, arriskuari buruzkoa), bazegoen egoera hobetzerik, adibidez, informazio hobea bermatzeko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeek bete beharko lituzketen eskakizunei dagokienez.

Horren inguruko informazioa eskatu genuen eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak adierazi zigun, informaziorik ez zegoela jabeturik, jada araua aldatzen ari zirela; horrela, besteak beste, kexa eragin duen arrisku ehunekoari buruzko alderdiaren modukoak barneratuko lirake kontratuetan. Egokitzen hori borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeen jardura jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren bidez egin zen.

Azkenik, atal honetan, itxuraz osasunaren arloari dagokion baina, hala ere, arlo honetan kokatu behar dugun kontu bat aipatu behar dugu (prestazio ortoprotesikoa: gurpil aulkia). Horren arabera, pertsonak gurpil aulkia erabiltzen zuen eta horren erabilera berritzeaz Osasun Saila arduratzen zen.

Osasun administrazio horrek uko egin zionez, interesdunak Gizarte Gaietarako Ministerioko Zuzendaritza Probintzialera jo zuen, bertara jotzeko esan baitzioten, premia hori inoiz zalantzan jarri ez zen laneko istripuaren ondorioa izan zelako. Bertan esan ziotenez, prestazio horren aurrekaria laneko istripua izan arren, hori ordaintzea Osasun Sailari zegokion. Erabaki hori honakoetan oinarrituta eman zuten: Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 30/2005 Legearen berrogeita hemeretzigarren

xedapen gehigarrian, eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren urtarrilaren 26ko 131/2006 Aginduan (honen bidez, autonomia-erkidegoen esku utzi da osasun laguntzako prestazioari dagokion zenbatekoa, nazioarteko araudiaren babesean, baita laneko gertakizunen ondorioz jasotako osasun laguntzagarri Osasun Zerbitzu Publikoari ordaindu beharreko kostua ere).

Osasun Sailaren erantzuna zela-eta, ikusi genuen, ebazpenaren arabera, ordainketa egitera behartuta zegoen beste hirugarren bat zegoela.

Pertsonen zuzenean emandako prestazioen gastuak hirugarren bati jasanarazteko aukera osasun prestazioei buruzko 130/2006 Errege Dekretuan dago aurreikusita. Errege Dekretu horren IX. eranskina aztertu genuen, hirugarrenek ere ordaindu behar duten osasun laguntzari buruzkoa, eta, hasiera batean, ez genuen inolako daturik ikusi ukoa eragin zuen kasuari manu hori aplikatu zekiokoela pentsatzeko (manu hori egindako prestazioen ondorengo erreklamazioei buruzkoa da). Kasu honetan ez zen prestaziorik egin, kehatzeko arrazoia, hain zuzen ere, prestazioa ukatu zitzaioela izan baitzen.

Abenduaren 29ko 30/2005 Legeak egiten dituen aurreikuspenek ez dute zalantzan jartzen ordainketa egitera behartuta dagoenaren (hots, Estatuko Administrazioaren) erantzukizuna. Bestalde, uste dugu ez direla aplikagarri 130/2006 Errege Dekretuaren aurreikuspenak, ez baita hirugarren horri jasanarazi ahal zaion inolako prestaziorik egon (dekretu horrek, prestazioen lehengo katalogoaren ildo beretik, zuzenean pertsonen ematen zaizkien prestazioen ordainketa hirugarrenei eska dakiekeela aurreikusten du).

Jakina, gerta daiteke argi ez egotea edo eztabaidagarria izatea Estatuko Administrazioak autonomia-erkidegoei ezarri dien betebeharra; horren arabera, eurek aurreratu behar dute berez Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak ematen duen prestazioa ordaintzeko zenbatekoa.

Hala ere, arau horrek berak dio autonomia-erkidegoek gastua berreskuratuko dutela. Hortaz, Osasun Sailean egindako gure jardueraren helburua interesdunaren eskubidea gauzatu ahal izatea izan zen, ez baitzen inoiz zalantzan jarri botere publikoen aurrean jarduteko duen eskubidea.

Eskatu zuen prestaziorako eskubidea zalantzan jarri gabe, ezta hori ordaintzeaz arduratu behar zuen administrazioa zein zen ere, pertsona horrek ezin zuen prestazio hori eskuratu. Bestalde, kexaren xede den erabakiari dagokionez, Osasun Sailaren erabaki eremua gainditzen duen gaia izan daiteke.

Horregatik, Osasun Sailaren erantzuna ikusita, alegia, ez zuela gure iradokizuna onartzen, iruditu zitzaigun Ararteko erakundeak ildo horretatik esku hartzeko zituen aukerak agortu zirela eta, hala, kexaren berri Estatuko Herriaren Defendatzaileari eman genion, horri baitagokio Estatuko Administrazioaren aurrean jardutea. Espediente hau amaitutakoan, ez dute inolako informaziorik horren jardueren emaitzei buruz.

14. HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

Sarrera

Hirigintzaren eta lurralde antolamenduaren arloan, Arartekoak hirigintzan jarduteko hiru eremuetan –hiri eta lurralde antolamendua, horren kudeaketa eta hirigintzako diziplinari dagozkion eginkizunak– burutu dituen jardueren berri ematen da.

Erakunde honetan jasotako kexak 110 izan dira, hau da %7,06.

Eragindako administrazioen arabera, honela banatzen dira:

| | |
|---|-----|
| - Toki administrazioa | 112 |
| - Foru administrazioa..... | 4 |
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 2 |

Azpiarloei dagokienez, berriz, honela:

| | |
|---|----|
| - Hirigintzako diziplina eta aurria | 57 |
| - Irisgarritasuna | 29 |
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura..... | 13 |
| - Hirigintzako antolamendua | 9 |
| - Eskubideak eta askatasunak | 1 |
| - Hirigintzako kudeaketa | 1 |

Legeetan egindako berritasunik aipagarriena maiatzaren 28ko 8/2007 Legea da, Batzar Nagusiek onartua, hirigintzako prozesuan parte hartzen duten subjektuen (hots, herritar, sustatzaile eta jabeen) eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen.

Euskadin, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak –indarrean 2006ko irailaren 20az geroztik dagoenak– Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintzako araubide juridikoa onartu ondoren, Eusko Jaurlaritzak oraindik ez du egin lehen xedapen gehigarriari jarraiki urtebeteko epearen barruan egin beharreko arau bidezko garapena. Nolanahi ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritza premiazko neurriei buruzko dekretua izapidetzen ari da, aipatu legea garatzeko. Txosten hau egiten amaitutakoan, dekretu hori onartzeke dago.

Herritarrek Arartekoari aurkeztu dizkioten kexa eta erreklamazioei helduz, arazo nagusiak hirigintzako diziplinaren ingurukoak izan dira.

Hirigintzako diziplina

Arartekoan hirigintzako diziplinarekin erlazionatutako jardueri buruzko kexak aurkeztzen dituzten pertsonak nagusiki esku-hartzerik eza edo ahalmen publikoekz baliatzeko behar izandako denbora luzea salatu ohi dute.

Hirigintzako diziplinaren alorrean, udal administrazioek jardueren kontrolean eta hirigintzako antolamenduak arautzen dituen egintzen kontrolean esku hartzeko eskumena dute, hirigintzako ikuskapenak eginda eta hirigintzako lizentziak emanda.

Horren ildotik, agintariak eta funtzionarioak **ezin diote uko egin hirigintzako diziplinako ahalmenez** baliatzeari, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezartzen duenaren arabera.

Hirigintzako diziplina eta ikuskatzeko ahala udal plangintza eta hirigintzako legezketasuna zorrotz betetzearekin lotuta daude ezinbestean. Partikularrek jardun ez arren, horrek ez du kaltetu behar hirigintzako legezketasuna defendatzeko funtzio publiko hori.

Horregatik, arlo honetan aurkeztutako **salaketak izapidetzeko betebeharrak** eta hirigintzako legezketasuna berreskuratzeko bidezko neurriak hartzeko betebeharrak salatzailearen eta salatuaren artean egon daitezkeen gorabeheretatik kanpo egon behar dute.

Horri haritik bidali diogu Zornotzako Udalari [abuztuaren 23ko ebazpena](#)⁴⁵. Udal horrek ez dio gure planteamenduari inolako erantzunik eman eta, beraz, gure gomendioa ez onartutzat jo dugu.

Antzeko kontuei helduz bidali diogu Zeanuriko Udalari [abuztuaren 23ko ebazpena](#)⁴⁶. Administrazio horrek soil-soilik jakinarazi digu ez duela espedientea izapidetzen jarraitu, jardueraren sustatzaileak animaliak zaintzeko erabilera aldi baterako baino ez dela adierazi duelako. Aipaturiko erantzuna ikusi ondoren, erakunde honek jakinarazi dio gure ustez ez direla aipaturiko gomendioaren baldintzak bete.

Bestalde, bi kasu ekarri behar ditugu ahotara. Horietan, kexek zalantzan jarri zuten indarrean zegoen aplikatutako plangintza, hori aplikatzeko interpretazioarekin bat ez zetorrelako nahiz plana egokitzen ez zelako.

Horrela, Lekeitioko plataforma batek gure esku-hartzea eskatu zuen, Udalak ez baitzion erantzun hiri lurzoru urbanizaezinean kokatutako eraikin bat berritu eta berrizatzeko lizentzia baten babesean egiten ari ziren obra batzuk gelditzeko haien eskaerari, beren ustez, emandako baimena legez kontrakoa zelako. Arartekoak, bere esku-hartzeari amaiera emanez, Lekeitioko Udalari gomendatu zion eraikina berrizatzeko emandako hirigintzako lizentzia berrikus zezala, ez baitzeturten bat indarreko udal plangintzarekin. Eraikina bizitegitarako zen, lurzoru urbanizaezinean kokatuta zegoen, hirigunearen babeseko zonan, ordenazioz kanpo zegoen eta erabilera bateraezina zuen (kategoria honetan sistema orokorrekin eta horiek mantentzekoekin lotuak dauden eraikinak bakarrik onartzen ziren). Soilik higienarako, kontserbaziorako eta higiezina apaintzeko behar ziren konponketa txikiak baimenduko ziren. Hirigintzako baimena eraikina berritzeko eta finkatzeko lanak burutzeko eman zenez, baimendutako obrek indarrean zegoen plangintzak Arau Subsidiarioetan ezarritakoekin bateragarriak ez diren erabilerak dituzten eraikinentzat onartzen zituen lanak gainditzen zituzten. ([apirilaren 2ko ebazpena](#)⁴⁷). Ez zen gomendioa onartu.

⁴⁵ Arartekoaren ebazpena, 2007ko abuztuaren 23koa; horren bidez, Zornotzako Udalari gomendatzen zaio udalerriko auzokide batzuek salatu dituzten jarduera eztabaidagarriak legeztatzeko espedientea has dezala.

⁴⁶ Arartekoaren ebazpena, 2007ko abuztuaren 23koa; horren bidez, Zeanuriko Udalari gomendatzen zaio jarrai dezala bertako auzo batean ganaduaren estabulazio jarduera legeztatzeko espedientea izapidetzen.

⁴⁷ Arartekoaren ebazpena, 2007ko apirilaren 2koa; horren bidez, Lekeitioko Udalari gomendatzen zaio lurzoru urbanizaezinean dagoen eraikin bat berritzeko emandako hirigintzako lizentzia berrikus dezala.

Era berean, pertsona batek kexa aurkeztu zuen, Bilboko Udalak ez ziolako mintzalekua jartzeko baimena eman nahi izan, debekatutako jarduera zelako, Bilbo Zaharraren Barne Eraberrikuntza eta Birgaikuntzarako Egitamu Bereziaren (PERRI) eta Uri Zaharraren Berregokipenerako Egitamu Bereziaren (PER) arabera. Kexa honen baitan, aurreko paragrafoan jasotako plan bereziak aldatzeko espedienteak aztertu genituen eta adierazitako debekua behar bezala arrazoituta ez zegoela ikusi ahal izan genuen. Aldaketa justifikatzen duen proposamenean adierazi zenez, lehia librea indarrean dagoen merkatu liberalizatu batean gaude eta jarduera esparru horren barruan sartzen zen; beraz, Konstituzioaren 38. artikulua bidez bermatutako enpresaren askatasunari jarritako mugek eskumeneko administrazioak emandako justifikazio arrazoitua eskatzen dute. Enpresa-askatasuna guztiz bateragarria da udal plangintza desberdinek ezarri ohi dituzten administrazio kontrol eta mugekin. Hala ere, argitu beharreko kontua ez zen mintzaleku gehiago edo gutxiago zegoen (debekua “*bidezkoa dena baino mintzaleku telefoniko gehiago*” zeudelako egin zen, eta, orobat, establezimendu horietako batzuk legez kontrako beste jarduera batzuei lotuta egon zitezkeelako) edo jarritako salaketak estaldura nahikoa duen; aitzitik, aztertu nahi dena da ea interes publikoko arrazoirik badagoen udal administrazioak establezimendu mota hau ezartzea ahalbidetzen duen enpresa-askatasuna mugatzeko. Espedientean debekuaren arrazoiak egiaztatu ez zirenez, jakinarazi zitzaizkizun arrazoibideei jarraiki, Bilboko Udalari gomendatu genion baliorik gabe utz zezala eragindako eremuetan telefono mintzalekuak jartzeko debekua (otsailaren 1eko ebazpena⁴⁸). Ez zen gomendioa onartu. Arazo horri dagokionez, beste kexa bat izapidetzen ari gara (316/2007 esp.), aurreko espedientea zabaltzeko eskatu zuen pertsona berak aurkeztua. Izan ere, bera telefono mintzalekua ixtera behartu zuten, baina, debekua indarrean sartu zenetik, era horretako beste instalazio batzuk jarri omen ziren eta Udalak ez omen zuen inolako neurririk hartu.

Herritarrek azaldu digute, orobat, beharrezkoa dela udal administrazioek emandako **gauzatze aginduak betearaztea etxebizitzetan edo lurretan segurtasuna, higiena eta osasungarritasuna bermatzeko.**

Nabarmendu behar dugu, hirigintzako diziplinaren alorrean, udal administrazioek partikularren eraikinetan eta lurretan esku hartzeko eskumena dutela, eraikinaren bizitzaren oinarriko hiru alderdi ziurtatze aldera, hots, segurtasuna, osasungarritasuna eta egokitasuna. Eskumen hori jabeek duten jarduteko betebeharretik dator, horiek ezer egin ezean, udalek beharrezko aginduak eman behar baitituzte konponketa, kontserbazio eta birgaitze obrak betearazteko.

Ahalmen hori Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Euskal Legearen 203. artikulua ezartzen du. Lege horren arabera, betearazpen aginduak derrigor bete beharrekoak dira eta, hala badagokio, Administrazioari haiek betearazteko ahalmena ematen dio, ez bere baliabideen bitartez, baizik eta agindua betetzera behartuta dagoenaren kontura.

⁴⁸ Arartekoaren ebazpena, 2007ko otsailaren 1ekoa; horren bidez, Bilboko Udalari gomendatzen zaio baliorik gabe utz dezala telefono mintzalekuak jartzeko debekua. Debeku hori Bilbo Zaharraren Barne Eraberrikuntza eta Birgaikuntzarako Egitamu Bereziaren eta Uri Zaharraren Berregokipenerako Egitamu Bereziaren ezarrita dago.

Kontu hori Santikurutze Kanpezu bezalako zenbait herritan sortu da (203-2007 esp.). Bertan, auzokide batek salatu zuen etxebizitza-multzo bat arriskuan zegoela, abandonatuta egotearen ondorioz. Horri erantzunez, Udalak aurkeztutako salaketaren ondoren bideratutako jardueren berri eman zigun. Horrela, espedientea zabaldu zuen eta, horren baitan, udal zerbitzu teknikoek txostena egin zuten eraikinaren kontserbazio egoerari eta segurtasun baldintzak kontserbatzeko beharrezko neurriei buruz. Denbora igaro eta jabeak ezer egin ez zuenez, udal arkitektoak jakinarazi zigun eskatutako administrazio espedienteari hasiera ematea erabaki zela, bidezkoa bazen, eraikina aurrerik deklaratzeko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 201. artikuluan aurreikusitako arauekin bat etorriz. Horren inguruan esan behar dugu, gure ustez, Administrazioak arretaz jokatu behar duela eta eraikinen kontserbazioa zaindu behar duela, bidezko betearazpen aginduak emanda. Eraikinak aurrerik deklaratzeko saihestu behar litzateke, horrek, nolabait, esku-hartze publikoko eskumenez baliatzean porrot egin dela adieraziko bailuke. Gainera, ez dugu ahaztu behar eraikinak egoki kontserbatzeko esku-hartze publikorik ez egiteak erraztu egiten duela, pasibotasunagatik bada ere, higiezinaren arloko “mobbing” delakoa gertatzea.

Beste auzotar batzuek (81/2007 esp.) Gesaltza Añanan dagoen eraikin historiko bat narriatzearen ondorioz sortutako arrisku egoera salatu dute. Gai horri eta eraikinaren segurtasun baldintzak ikusi eta bermatzeko hartu diren neurri eraginkorrei buruzko zenbait galderaren aurrean, Udalak eman zuen erantzunaren berri eman zigun. Horrela, betearazpen agindua eman zuen; horren bidez, eraikinaren segurtasuna bermatzeko egin beharreko obrak eta ingurunea etengabe babesteko neurriak ezarri ziren, besteak beste, fatxadetatik bi metrora hesia jartzea. Hala, Udalarari zuzendu gintzaizkion, zegozkion birgaitze lanak gauzatu zain, eraikinaren inguruan hesia jartzeko behin-behineko neurria betetzen zela behar bezala bermatzen jarrai zezan.

Beste kasu batean, Gasteizko biztanle batek herriko auzo batean kokatutako urbanizatu gabeko zenbait oruberaren egoeraren berri eman du (199/2007 esp.). Zehazki, azaldu du Gasteizko Udalak ez duela ezer egin lur eremu horiek gutxienezko higieze eta osasungarritasun baldintzak bete ditzaten. Horren haritik, lur eremuen jabeek lurrak segurtasun, osasungarritasun publiko eta itxurazko baldintzetan izateko duten betebeharrak gain, Gasteizko udal ordenantzak jabetza pribatuko urbanizazio eta orubeen garbitasuna eta mantentze lanak ere arautzen ditu. Erreklamazio honi dagokionez, ikusi ahal izan dugunez, Gasteizko Udalak dagozkion eraikuntza-obrak egiteko agindu die orubeen jabeei eta epea eman die kasuan kasuko eraikitze lizentzia eskatzeko. Agindutakoa bete ezean, partzela derrigor desjabetu eta salduko dela ohartarazi zaie.

Horren haritik bidali diogu Donostiako Udalarari [abuztuaren 23ko ebazpena](#)⁴⁹. Udalak kexagilearen salaketari erantzunez eta aipatu gomendioarekin bat etorriz garatu dituen jardueren berri eman digu. Horrela, udal zerbitzu teknikoek bisita egin ondoren, adierazi da lur eremu horretan ez dagoela arriskurik eta, hala, espedientea ebatzi dela jakinarazi dio kexagileari.

⁴⁹ Arartekoaren ebazpena, 2007ko abuztuaren 23koa; horren bidez, Donostiako Udalarari gomendatzen zaio lur eremu baten segurtasun baldintzak egiaztatzeke administrazio espedientea izapidetu dezala.

Aldiz, Arartekoan aurkeztutako erreklamazioen artean daude, orobat, eragindako pertsonak eurek hirigintzako legeria betearazteko bideratu diren udal jarduerak hizpide dituztenak. Horrela, kasu batzuetan, zenbait pertsonak zalantzan jarri dute Udalak lizentzia-eskaerari uko egiteko emandako arrazoiak; alegia, egin nahi diren obrak edo erabilera-aldaketak udal plangintzaren aurkakoak direla. Gai horiek ez dira legez kontrako jarduerak, baizik eta, hain zuzen ere, hirigintzako diziplinako eskumenez baliatzearen ondorioa.

Horrela, auzotar batek (500/2007 esp.) Mungiako Udalaren jardueraren berri eman zigun, bere jabetzako lur eremu batean, lurzoru urbanizaezinean, etxebizitza aurrefabrikatua instalatzeko lizentzia ukatu ziola-eta. Aurkeztu zigun dokumentazioan ikusi ahal izan genuen Udalak Arau Subsidiarioetan aurreikusitakoarekin bat ez zetorrelako ukatu zuela lizentzia. Zehazki, bere ustez, eskatutako eraikuntza ez litzateke lurzoru urbanizaezinean baimenduta egongo, partzela hori familia bakarreko etxebizitza batek hartuta baitu eta egun indarrean den Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak halako lurzorian etxebizitza gehiago egitea debekatzen baitu, baratze eta abeltzaintzako ustiatzei dagozkienak izan ezik. Hori dela-eta, argitu behar dugu hark bere jabetzako lurretan egin nahi duen eraikuntza orok, gutxienez, dagokion hirigintzako udal baimena izan behar duela. Horren haritik, kexagileari jakinarazi genion ezin esan genezakeela Udalaren jarduera ordenamendu juridikoaren kontrakoa zenik.

Beste pertsona batek azaldu digu kezkatuta dagoela bere jabetzako etxebizitza baten hirigintzako egoeraz (975/2007 esp.). Idazkian dio ezin duela babes bereziko lurzoru urbanizaezin gisa kalifikatutako herri lurretan dagoen etxebizitza berreraikitze obrarik egin. Azaldu digun kontua eraikinen ordenazioz kanpoko erregimenari buruzkoa da. Eraikinaren ordenazioz kanpoko erregimenak zenbait muga dakartzio eraikinaren jabeari, ezin ahal izango baititu eraikina osorik birgaitzeko obrak egin. Hori gorabehera, eraikina finkatzeko obrak egin ahal izango ditu, betiere, azalera eta bolumen eraikia gehitzea ez badakarte. Bereziki, eraikina apaindura, higiene eta kontserbazio egoera onean mantentzeko obrak egin ahal izango dira. Horri zegokionez, ez genuen ikusi Udalak oker jardun zuenik eta, beraz, ez genuen esku hartu beharrik izan gai horretan.

Aipamen berezia merezi du familia batek aurkeztutako kexak (1273/2007 esp.). Horren bidez, kexagileak Udalak hirigintzako diziplinaren arloan burutu dituen jardueren aurka egin du, bere ohiko bizilekua den etxebizitza zigitatzeko agindu baitzuen. Egiten ari ziren konponketa-lanak amaituta, kexagileak adierazi du emaztearekin eta beren bi seme-alabekin jarri zela bertan bizitzen eta, hala, familiaren bizilekua izatera igaro zela. Aurrerago, hirigintzako diziplinako espediente baten ondorioz, Udalak etxera sartzeko ate nagusia zigitatu zien. Hori dela-eta, gaur arte ezinezkoa izan zaie hura erabiltzea. Udalak jakinarazi du bi udal espediente zabaldu zirela etxebizitzaren hirigintzako legezketasuna leheneratzeko eta higiezinaren jabetza ofizios berreskuratzeko, Udalaren arabera, udal titulartasunekoa baita. Oraingoz, Arartekoak higiezinari dagokionez bideratu ditugun jardunei buruzko informazioa eskatu du. Zehazki, jakin nahi izan dugu ea higiezina familiaren egoitza den, higiezinan sartu ahal izateko beharrezko berme judizialak betetzen diren, zer justifikazio tekniko duen emandako behin-behineko neurriak, hots, etxebizitza zigitatzearenak, eta zer harreman duen horrek lizentziarik gabe egindako lanei dagokionez hirigintzako legezketasuna berrezartzearekin.

Atal honetan, beharrezkoa da zenbait herritarrek egindako kexa batzuk aipatzea. Horien bidez, zenbait lokal hirugarren sektoreko erabilerakoak izatetik bizitegitarako erabilerakoak izatera aldatu izanarekin erlazioatuta dauden eta, batzuetan, bilakaera negatiboa izan duten hainbat arazoren berri eman dute. Etxebizitza eskuragarri gutxi izatearen problematika larriaren ondorioz, duela zenbait urtez geroztik udalak neurriak hartu dituzte **lokalak etxebizitza gisa moldatu ahal izateko**. Jarduera horiek babesten zituzten ordenantza arautzaileek bilakaera izan dute eta, hala, gero eta arduratuago daude sortutako etxebizitzak hala erabili ahal izateko beharrezko baldintzak bete ditzaten (bizigarritasuna, erabileren eta egun dauden jardueren arteko bateragarritasuna, pribatutasuna, irisgarritasuna...). Alderdi horiei buruz jada hitz egin genuen Eusko Legebiltzarrarentzako 2002ko txostenean barneratu genuen gomendioan; bertan adierazitakoaren arabera, beharrezkoa da etxebizitza duina bermatzea eta bide horretatik infraetxeak sor daitezen saihestea.

Gai honen inguruan jasotako kexa ugariak (1672/2006, 389/2007, 428/2007, 1313/2007 espedienteak) garbi uzten dute halako jarduerak tentsio handia sortzen dutela lokal horiek egokitu nahi dituzten interesdunen eta jabekideen komunitateen artean. Kasu batzuetan, gatazkak jabekideen komunitateak eraikineko elementu komunak aldatzen uzten ez duelako sortzen dira eta, beraz, interesdunek ezin dituzte lizentzian ezarritako baldintzak bete (adibidez, etxebizitza berrirako sarrera elementu komunetatik egitea). Beste kasu batzuetan, lokal horien titularrek bidezko baimenik gabe jarduten dute elementu komunetan. Jabekideek ez dute halakorik onartzen eta, beren ustez, udalak zerbait egin behar luke, nahiz eta hori soil-soilik legezketasun pribatuko kontua izan. Nolanahi ere, hain gai korapilatsua izanik eta era guztietako inplikazioak dituenek, Administrazioak zorrotz jokatu behar du halako jarduerak ikuskatzen eta kontrolatzen, bai sortzen diren etxebizitzek horretarako baldintza egokiak izatearen xedea betetzeko bai beharrezko bizigarritasun betekizunak betetzearen inguruan ez baimenik ez kontrolik ez duten lokalak egokitu daitezela saihesteko.

Hirigintzako kudeaketa

Hirigintzako planak gauzatzekoan herritarrei gehien eragiten dien alderdietako bat beren ohiko bizilekua galdu eta beste etxebizitza bat behar izatea da. Aurreko legerian jasota zegoen eta automatikoki soilik hirigintzako desjabetzean aplikatzen zen **berriro bizilekua emateko eskubideak** arazo ugari sortu ditu.

Horietako bat kexa batean adierazi zaiguna da (492/2007 esp.). Pertsona horrek bere familiaren egoeraren berri eman zigun, Barakaldon hirigintzako jarduera bat burutuko zela ikusita, etxebizitzatik joanarazi eta hura eraisteko. Kexagilearen ustez, Barakaldoko Udalak bere familiari berriro bizilekua emateko betebeharra zuen, hirigintzako sustatzaile batek eta Udalak sinatutako hirigintzako hitzarmenean jasotakoarekin bat etorriz. Udalak gertakari horiei buruzko informazioa helarazi zigun. Hala, zioenez, enpresa sustatzaileak bertan bizi ziren familiei hitzarmeneko baldintzak eta udalerrian sustatutako etxebizitzetatik bana emateko proposamena eskaini zien; edonola ere, ez zuen inolako dokumentaziorik bidali ez bideratutako prozeduraren inguruan ez ukoaren inguruan. Nolanahi ere, jakinarazi zigun administrazioarekiko auzibidetik egin zela berriro

bizilekua emateari buruzko dekretuaren aurka. Errekurtsoa jarri zela adierazi zigutenez, erreklamazio hori izapidetzeko prozesua eten behar izan genuen.

Hirigintzako jarduera batek eragindako familia bati berriro bizilekua emateko eskubi-dea onartu behar zela adierazi genuen beste kasu bat [martxoaren 13ko ebazpenean](#)⁵⁰ bildu genuena izan zen. Debako Udalak kontuan izan zuen proposamen hori.

Konpentsazio proiektu batean barneratuta zegoen Donostiako lur eremu baten jabeak adierazi zuen kalte egin ziola eraturako konpentsazio batzarraren ardurapean egindako urbanizazio obren amaiera atzeratu izateak. Ondorio gisa, [irailaren 26ko ebazpena](#)⁵¹ eman genuen.

Atal honetan, Pasaiako auzotarren komunitate batek aurkeztutako kexa aipatu behar dugu. Bertan adierazi dute ez daudela ados beren iritziz pribatiboa zen lursaila Udalaren esku egotearekin. Pasaiako Udalak etxebizitzaren eta garajearen eraikin bat egiteko lizentzia eman zion enpresa bati, eta eztabaidagai den lursaila (jabari publikokotzat hartzeagatik) okupatzeko baimena eman zion. Auzotarren ustez, ordea, eskritoretan lursaila beren izenean zegoen eta 60ko hamarkadaz geroztik, alegia, eraikina jabetza horizontalean eratu zenetik, eduki eta mantendu zuten lursaila. Eraikinak poligono zahar batean daude; poligono hori jarduketa sistema gisa bideen lagapen sistema hartu zuen Plan Partzial baten bidez garatu zen. 1956ko maiatzaren 12ko Lurzoruaren Legeak bideen lagapeneko jarduketa sistema arautu zuen 116 eta 129. artikuluetan. Parke eta lorategi publikoetarako zein bideetarako lagapenak nahitaezkoak ziren bideen lagapeneko jarduketa sisteman, baina betebeharrak horrek zegozkion dokumentu urbanistikoetan adierazita geratu behar izan zuten, gure iritziz, zegokien planetik kanpo espazio horiek ez seinaltatzeko moduan. Laburbilduz, kexarekin eginiko izapidetan eta Udalaren eskutik jaso genuen informazioarekin ondorioztatu genuen hizpide genuen lursaila ez zela udal ondarean barneratu. Izan ere, ez plangintza orokorra, ez Plan Partzialean zehazturiko garapena, ez jarduketa sistemaren zehaztapena, ez ziren berez lursailak jabari publikokoak balira bezala hartzeko gaitzen zuten jabetza tituluak. Hainbat informazio trukeren ondoren, [irailaren 5eko ebazpena](#)⁵² eman genuen; horren bidez, Pasaiako Udalarik proposatu genion eragindako eraikinen mendebaldean muga egiten duen lursaila hartzeko egintza ondorioz gabe utz zezala, gaur egun ez baitagokio udal ondareari, eta, hala bazegokion, administrazio espedienteak hasi, izapidetu eta ebatz zezala, kexa egin zuten jabeakideei entzun ondoren, beharrezko lege izapideak egin eta auzitan zegoen lursaila udal ondarean barneratzeko. Udalak zegokion prozedura izapidetzeko konpromisoa hartu zuen.

⁵⁰ Arartekoaren ebazpena, 2007ko martxoaren 13koa; horren bidez, Debako Udalarik gomendatzen zaio Udalak babestutako etxebizitzaren hurrengo sustapenean kexa egin duen familiari berriro bizilekua eman diezaiola.

⁵¹ Arartekoaren ebazpena, 2007ko irailaren 26koa; horren bidez, Donostiako Udalarik gomendatzen zaio urbanizazio lan batzuen atzerapenak eragindako kalteengatik erantzukizuneko erreklamazioa izapidetu dezala.

⁵² Arartekoaren ebazpena, 2007ko irailaren 5koa; horren bidez, Pasaiako Udalarik gomendatzen zaio lursail baten titulartasun publikoa edo pribatua zehazteko nahitaezko administrazio prozedura izapidetu dezala.

Hirigintzako antolamendua

Lurzoruaren hirigintzako antolamenduari buruzko kexei dagokienez, herritarrek egiten dituzten erreklamazioek udal plangintzako lur jakin baterako aurreikusitako sailkapenarekin edo erabilerarekin bat ez datozela adierazten dute. Diskrezionalitate teknikoaren mugak erabakiak berrikusi ahal izatea baldintzatzen du, honako kasu hauetan izan ezik: boterea desbideratu egiten bada, arbitrariotasunez jokatu bada edo hartutako irizpidea justifikatu ezin badaiteke.

Atal honetan barneratu dugu elkarte batek egindako erreklamazioa (155/2007 esp.). Bertan adierazi zuten ez zeudela ados Bakioko Udala udalerrriaren hirigintzako antolamendurako zenbait tresnari zegokienez garatzen ari zen izapidetze prozesuarekin; tresna horiek hirigintzako udal plangintzaren aurrerapena eta arau subsidiarioen aldaketa aldi berean onartzearen ondorioa dira. Hori aztertu ondoren, eta izapidetzen ari ziren plangintzako zenbait tresna zirela ahaztu gabe, informazioa eskatu genion Udalari. Une honetan, erantzuna aztertzen eta egiaztatzen ari gara.

Lagrango auzotar talde baten kexa ere jaso dugu, herriko Plangintzako Arau Subsidiarioen berrikuspen espedientearen Udalak garatutako izapidetze prozesuarekin ados ez daudela adierazteko. Pertsona horiek azaldu zuten, batetik, behin-behinean onartu zen plangintza orokorraren berrikuspen agiriari zegokionez informazio eta gardentasun falta izan zela, Udalak dokumentazioaren kopia ukatu baitzien, espedientearen izapidetze bidean zela esanez. Bestetik, adierazi zuten ez zeudela ados udalerrirako aurreikusitako garapen ereduarekin, Arau Subsidiarioen indarraldian etxebizitza-kopurua asko haziko zelako; gainera, beren iritziz, bizitegi eskaintza hori ez zegoen inola ere justifikatuta. Lehenengo alderdiari zegokionez, adierazi genuen, ikuspegi formal hutsetik, bistakoa dela legeak ezartzen duen espedienteak kontsultatzeko eskubidea mugagabea dela eta zerbitzuen funtzionamenduaren eraginkortasuna ez kaltetzeko moduan erabili behar dela. Ildo horretatik, hirigintzako dokumentuaren kopia osoa eta kautotua eta horren espedientearen eskatu ziren eta, beharbada, hori lan handia zen Udaleko administrazio egitura xumerako. Nolanahi ere, gure hausnarketa helarazi nahi izan genion Udalari pertsona zehatz horiek eta, oro har, biztanleek udalerrirako interesgarriak diren hirigintzako agiriak izapidetzeko prozesua dela-eta eskatzen duten informazioa eskuratzeari zegokionez.

Arartekoak, Eusko Legebiltzarrarentzako 2005eko txostenean, adierazi zuen biztanleek gero eta gehiago eskatzen zutela informazioaz baliatu ahal izatea; izan ere, beren eskubideez gero eta gehiago ohartzen direnez, gardentasun handiagoa eskatzen diete administrazio publikoei beren eginkizunak garatzerakoan (gomendio orokorra: "Herritarrentzako informazioa eta parte-hartzea toki eremuan", Eusko Legebiltzarrarentzako 2005eko txostena).

Zehazki, hirigintzaren arloan, aipatu gomendioko irizpide orokorren testuinguruan, kontuan izan behar dugu Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak eta Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Estatu Legeak kontu hori dela-eta ezarri duten araudi berria. Horrela, 2/2006 Legearen 9. artikulua, jendaurreko informazioaren printzipioari buruzkoak, dio, plangintzaren publikotasuna bermatzeko, administrazio publikoak planen edizio eguneratuak prestatu eta izatera eta horiek biztanleen eskura jartzera behartuta daudela. Gainera, planen edukia eguneratu behar dute eta erabilgarri dagoen eta sarrera librea duen sare telematikoko tokiren batera erabat integratu behar dute.

Bestalde, 8/2007 Legearen 11. artikulua ere hala dio; alegia, lurralde antolamenduko eta hirigintzako tresnen edukia telematikoki jarri behar dela jendaurrean. Ildo horretatik, xedapen gehigarrietako bederatzigarrenak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea aldatu du eta 70 ter artikulua barneratu du kontu horren inguruan, euskal legeak jasotakoaren antzeko edukiarekin. Ezaugarri horiek dituen hirigintzako agiri bat izapidetzeko prozesua amaitzean tresna telematikoak nahitaez erabili behar direnez hori jendaurrean jartzeko, euskarri informatiko eskuragarrian egotea bermatu beharko da. Horrek esan nahi du, prozesuaren hasiera-hasieratik, kontuan hartu beharko dela sortzen den dokumentazio guztiak euskarri informatikoan egon behar duela. Dagoeneko oso erabilera orokorrekoak diren euskarri horiez baliatuta, ezerk ez du oztopatzen edozein interesdunek jada prozeduraren hasierako faseetatik izatea hirigintzako dokumentu horiek aipatu euskarri informatikoan eta, are gehiago, Udalak fase bakoitzean interesekoak diren agiri guztiak (alegazioen txostenak, azterlanak, hasieran onartzeko agiria, etab.) telematikoki jendaurrean izatea.

Legeetan aurreikusitako gutxienekoetatik haraindi, jardunbide horiek, udalen web orri batzuetan ikus dezakegun bezala, jada ohikoak dira udal batzuetan biztanleen informazio eskaerei zerbitzu hobea eskaintzeko prozesuan. Nolanahi ere, hori guztia egiteko beharrezkoa da agiri horiek izapidetzen hastean hausnarketa egitea eta erabakiak hartzea (adibidez, erredakzio taldea hautatzeko lizitazioan betebeharrak zehatzak ezarrita, eman beharreko informazioa diseinatuta, faseetako bakoitzean agirien kopia euskarri informatikoan eginda, etab.).

Horren haritik, bi kexa-idazki jaso genituen hainbat elkarteren aldetik “Getxoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Bilbo Metropolitarrerako Eremu Funtzionalaren Lurraldeko Zati Planeko zehaztapenetara egokitzeko” espedientearen aurka. Beste zenbait alderdiren artean, Udalak herritarrek parte hartzeko programa bat abiaraztea nahi zuen, udal lurraldearen antolamenduan modu serio eta eraginkorrean parte hartzeko behar diren estrategiak eta mekanismoak ezarrita, eta udaleko herri kontsulta egitea aipatzen zuten bereziki. Benetako etxebizitza-beharrak zehazteko egindako kuantifikazio azterlanak ere zalantzan jarri zituzten. Getxoko Udalak hasitako prozedura amaitutzat ematea eta plangintza orokorra aldatzeko informazio batzorde berezia sortzea erabaki zuen [-irailaren 5eko ebazpena](#)⁵³.

Ildo beretik [-irailaren 5eko ebazpena](#)⁵⁴, Busturiako plataforma batek kexa aurkeztu zuen ez zettorrelako bat indarreko Arau Subsidiarioetan egindako xedapen aldaketarekin, eta hasitako prozedura bertan behera uzteko eskatu zuten, izapidetzeko funtsezkotzat jotzen zituzten agiriak falta zirelako espedientearen eta proposamena ez zelako indarreko lege araudira egokitzen.

Bestalde, erakunde honek **irisgarritasuna** sustatzeko abiarazi dituen jardueren dagokionez, azpimarratu behar dugu gehitu egin dela merkataritzako lokaletan jarduera

⁵³ Arartekoaren ebazpena, 2007ko irailaren 5koa; horren bidez, “Getxoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Bilbo Metropolitarrerako Eremu Funtzionalaren Lurraldeko Zati Planeko zehaztapenetara egokitzeko” espedientea izapidetzearen inguruko bere jardura amaitu du.

⁵⁴ Arartekoaren ebazpena, 2007ko irailaren 5koa; horren bidez, Busturiako Plangintzako Arau Subsidiarioetan Zelaiondo zuzeneko egitaritze unitateari dagokionez egindako xedapen aldaketa izapidetzearen inguruko bere jarduketa amaitu du.

berriak ezartzerakoan edo horiek aldatzerakoan arkitektura-oztopoak ezabatzearen inguruko arautegia betetzeari dagokionez udalak burutu beharreko kontrol lanen inguruan diharduten kexen kopurua.

Oraindik ere hainbat erreklamazio jasotzen ditugu irisgarritasun egokia ahalbidetzen duten igogailuak ezartzeko jabekideen komunitate batzuetan dauden arazoei buruz, bereziki, fatxadara atxiki behar denean, horretarako erabilera publikoko lurzorua zati bat hartu behar baita.

Erakunde honek baieztatzen du, bistakoa den moduan, interes publikokoa dela egungo eraikinetan dauden arkitektura-oztopoak ezabatzen laguntzea, besteak beste, igogailuak jarrita. Hori etxebizitza duina izateko eskubidea eta Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua jasotzen duen irisgarritasun printzipioa eta abenduaren 4ko 20/1997 irisgarritasuna sustatzeko Legea kontuan izanda gauzatu behar da. Interes publiko horrek, orokorrean, igogailua jartzeko eta jabe mugakideen komunitateetara eskualdatzeko beharrezkoa den espazio publikoa desfektatzea ahalbidetzen duten irtenbideak ematen ditu. Horrek ez du eragozten interes publikoa oztopoak ezabatzeaz gaindikoak diren eta eraikinaren eraikigarritasunaren hazkuntzaren edo barruko eremuen banaketa handitu edo hobetzearen bidez ondare onura lortzera zuzenduta dauden irtenbideetara hedatu ezin denik [-abenduaren 4ko ebazpena](#)⁵⁵.

⁵⁵ Arartekoaren ebazpena, 2007ko abenduaren 4koa; horren bidez, Zumarragako Udalari gomendatzen zaio jabekideen komunitate batean kanpoko igogailua jartzeko emandako lizentzia berrikus dezala.

15. ETXEBIZITZA

15.1. SARRERA

Etxebizitza babestuak sortzeak eta merkatu librean sartu ezin dezaketenei etxebizitza eskuratzeko aukera ematera bideratutako beste neurri batzuk abiarazteak arlo honetan administrazio kudeaketa etengabe haztea dakarte; horren adierazgarri da azken ekitaldian erakunde honetan eremu honi buruz eta administrazio jardunekin erlazionatuta jaso diren kexen kopurua.

Etxebizitzaren arloan jasotako kexak, guztira, 69 izan dira; alegia, aldi berean erakunde honetan hartu diren kexa guztien %4,29. Hala ere, gure ustez garrantzitsua da azpimarratzea etxebizitzaren inguruan 39 kexa aurkeztu zirela eta kexa horiei uko egin behar izan zitzaizen erakunde honek izapidetu ahal izateko beharrezkoak diren betekizunak ez zirelako betetzen. Horietako kasu askotan herritarrei beren ardurak eta eskariak bideratzeko modurik onenaren inguruan banan-banan jakinarazi behar izan genien. Baztertutako kexa-kopuru handi horrek etxebizitzaren arloan dagoen herritarren eskari handia erakusten du; eskari hori ez da egoki bideratzen gai horren ardura duen Administrazioarekin dagoen informazio edo komunikazio eza dela eta. Horregatik, herri-administrazio eskudunek etxebizitza arloko zerbitzuak eta prestazio publikoak hartzen dituztenekin komunikatzeko ahalegin handiagoa beharrezkoa da.

Kexak honela banakatzen dira, eragindako administrazioak aintzat hartuta:

| | |
|---|----|
| - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Eusko Jaurlaritza) | 50 |
| - Toki administrazioa | 21 |

Ikus daitekeen bezala, administrazio autonomikoaren jardunen aurka aurkeztutako kexek dute proportziorik handiena, beste administrazioen jardunen aurka egindakoe-kin alderatuta. Zalantzarik gabe, alde hori arlo honetako kudeaketa-jarduera batez ere gobernu bulego hauetatik egiten delako sortzen da.

Bestalde, kexak honela banatu dira, hizpide izan dituzten gaiei jaramon eginez:

| | |
|--|----|
| - Administrazioaren funtzionamendua eta administrazio prozedura..... | 21 |
| - Etxebizitzak esleitzeko prozedura | 14 |
| - Beste batzuk | 11 |
| - Etxebizitza babestuetan eraikuntza-akatsek eragindako kalteak | 9 |
| - Etxebizitzaren beharra egiaztatzea..... | 6 |
| - Etxebizitza erosteko eta birgaitzeko laguntzak | 6 |
| - Irisgarritasuna | 2 |

15.2. ARLO HONETAKO JARDUERA NABARMENENAK 2007 URTEAN ZEHAR

- ***Txosten berezia: gazteentzako etxebizitza-politika publikoak EAEn.***

2007an arlo honetan garatutako jarduera azpimarragarrietako bat “*Gazteen-tzako etxebizitza-politika publikoak EAEn*” izeneko ezohizko txostena argitaratzea izan da. Urteko txosten honen IV. kapituluaren aipamen bat agertzen da. Gainera, bere osotasunean ikusi nahi duenak Ararteko erakundearen web orrialdean aurkituko du.

- ***Arlo honetako bilera garrantzitsuenak***

Arlo honekin loturiko bilera adierazgarrien artean, 2007an zehar etxebizitzaren arloan herritarren eskubideak defendatzeko talde ezberdinekin egin diren topaketak aipatu behar ditugu. Hala, Arartekoak Euskal Autonomia Erkidegoko Gazteriaren Kontseiluko kideekin, edo etxebizitza duina izateko plataformako kideekin, egindako bilerak edo Ararteko erakunde arduradun ezberdinen eta FEDEAFESen (buruko gaixotasuna duten pertsonen familiartekoen elkarten Euskadiko Federazioa) artean egindakoak aipa ditzakegu. Oro har, etxebizitzari dagokionez talde horiek dituzten ardurak nagusiak ezagutu ahal izan ditugu; erakunde honek ardurak horiek arlo honetan erantzukizun publikoa dutenei helarazi ahal izateko bildu ditu.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako arduradunekin hainbat bilera izan ditugu. Bilera horietan etxebizitza arloan Arartekoak dituen ardurak nagusiei loturiko iritzi ezberdinak trukatu ditugu; ardurak horiek, oro har, lehenago aipatu dugun etxebizitzari eta gazteriari buruzko ezohizko txostenaren azaltzen dira.

- ***Foroetan parte hartzea***

2007ko uztailean UPV/EHUko “*Hirigintza, Etxebizitza eta Lurralde Antolamenduaren politika berriak*” izeneko udako ikastaroan izan genuen parte-hartzea azpimarratu behar dugu; ikastaro hori HAEEK eta UPV/EHUko zuzenbide konstituzionaleko eta administrazio zuzenbideko sailak antolatu zuen, Euskadiko etxebizitza babestuen egoeraren inguruko txostena aurkeztuz. Foro horretan, unibertsitateko ikasleei, funtzionarioei, erakundeetako arduradunei eta arlo horretan adituak direnei zuzendutakoan, etxebizitzari eta gazteriari buruzko ezohizko txostenaren ildo nagusiak azaltzeko aukera izan genuen.

15.3. LEGEETAKO BERRITASUNAK

2007ko ekitaldian zehar etxebizitzaren arloan izan diren legeetako berritasun nagusiak ere aipatu nahi ditugu, labor-labor bada ere. Lehenengo eta behin, etxebizitzarako “***herritarrek etxebizitza duina izateko duten eskubidea bermatzeko Legea***” izena duen lege aurreproiektu bat dagoela aipatu behar dugu; aurreproiektu

horretan arlo honetako aurreikuspen garrantzitsuenak biltzen dira. *Gazteentzako etxebizitza-politika publikoak EAEn* izeneko ezohizko txostenean eta baita aurreko urteetako txostenetan ere etxebizitzari buruzko euskal legea aldarrikatzeko beharra behin eta berriz aipatu dugu; lege horrek hurrengo urteetan etxebizitza arloan garatuko diren inizatiba publikoentzako esparru juridiko bezala balio behar izango du. Egun lege estaldura autonomikoa ez duten eta behar duten kontuak daude, etxebizitza arloko zigor araubidea esaterako. Gainera, beharrezkoa da etorkizuneko etxebizitzari buruzko legeak Euskadin herritarrek hainbat aldiz eskatutako eta orain, lehen aldiz, lege aurreproiektuan azaltzen den etxebizitza izateko benetako eskubidearen konfigurazio juridikoa antolatzea. Halaber, lege horrek indarreko etxebizitzaren araudiak egun dituen akats sistematikoak zuzendu behar litzuzke. Komenigarria litzateke etxebizitzari buruzko lege aurreproiektua Legebiltzarreko oraingo legegintzaldian zehar izapidetzea eta legegintzaldi hau amaitu baino lehenago lege bezala argitaratu ahal izatea.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak etxebizitza babesturen tipologia berriak gehitu ditu; tipologia berri horiek oraindik gauzatu ez den arauen garapena eskatzen dute. Halaber, beharrezkoa da arazketa sistematikoa burutzea eta egun indarrean den etxebizitzaren araudia berriztatzea, aurreikuspenak 2006. urtean onetsitako Etxebizitza Plan Zuzentzailean agertzen diren helburuetara egokituz.

2007. urtean zehar argitaratu diren berrikuntza nagusiak bitartekotzarako eta bateratzeko zerbitzuen araudiari lotutakoak izan dira; jabetza horizontalaren eta hiri errentamenduen inguruan, hiri jabetzako aspaldiko ganberetatik oinordetzan hartutakoak eta Eusko Jaurlaritzak beregain hartutakoak 15/2006 Dekretutik abiatuta. Hala, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko urriaren 24ko Aginduaren aldarrikapena azpimarratu behar dugu. Horren bidez, jabetza horizontalaren eta hiri errentamenduen arloan bitartekotza eta bateratze funtzioak arautzen dira; zerbitzu horiek Bizilagun izena dute. Horrela, 15/2006 Dekretuaren arauzko garapenaren premia (2006ko txostenean aipatzen genuena) betetzen da. Dekretu horren garapenak funtzio horiek gauzatzeko behar diren inguruabar jakinak behar litzuzke, baita zerbitzu horretatik eratortzen diren erabiltzaileentzako eskubideak.

Halaber, etxebizitza arloan kudeaketa erakundeei eragiten dien berriki egindako berrikuntzak azpimarratu nahi ditugu. Alde batetik, VISESA «Vivienda y Suelo de Euskadi S.A. / Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.» sozietate publikorako irailaren 11ko 137/2007 Dekretua eman da; dekretu horrek jarduteko lege esparrua ezarri eta arautzen du, etxebizitzak eraikitzeo kudeaketa gauzatu dezan. Etxebizitza horiek alokairuko erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak (etxebizitza sozialak), berriro bizilekua emateko etxebizitzak (eskuratzeo modalitate guztietan) eta zuzkidura-alojamenduak izango dira. Halaber, duela gutxi uztailaren 24ko 126/2007 Dekretua eman da; dekretu horren bidez “Sociedad Pública de Gestión de Viviendas en Alquiler / Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa, S.A.” sortzea erabaki da eta abenduaren 30eko 316/2002 Dekretua, honen garapen araudia eta azaroaren 15eko 373/2005 Dekretua aldatu dira. Bi kasuetan etxebizitza arloan egiten den kudeaketaren zati garrantzitsua burutzen den moduari eragiten dizkien berrikuntzak dira, batez ere alokairuko etxebizitzari dagokienez, sozialak zein erregimen orokorreko etxebizitza babestuak izan. Berrikuntza horiek praktikan duten irisgarritasuna denboraren bitartez zehazteke dago, baina erakunde honentzat garrantzitsua da ahalmen publikoak baliatzea eragiten duten

funtzioek herritarrei prozedura juridiko eta publikoen berme nahikoak eskaini behar dizkietela gogoraraztea.

Edonola ere, ezin dezakegu alboratu oro har berritutako arauen garapena falta dela zoritxarrez, etxebizitza arloan 2007ko legeetara ekarritako berritasunei dagokienez. Garatutako arau horiek, 315/2002 Dekretuarekin sortu ziren hainbat arau ordezkatzuz, lurzoruaren lege berrira egokitu eta 2007-2009ko Etxebizitza Plan Zuzentzailea ezartzeko esparru juridikotzat balio behar lukete.

Azkenik, 2007ko aldian etxebizitzaren arloan egindako ekarpen berri gisa Eusko Legebiltzarrak 2007ko otsailean onetsitako ebazpenak (Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala, 88. zk., VIII. Legegintzaldia (2007-02-09), 13660.-13663. or.) aipatu nahi ditugu. Ebazpen horiek Plan Zuzentzaile horri buruzkoak dira, eta gure ustez, etxebizitzari eta gazteriari buruzko ezohizko txostenean adierazi ditugun iritzietako batzuekin bat datoz hainbat alderditan. Beharbada zentzu horretan nabarmentzea merezi dute, batez ere botere guztiei alokairuan babestutako etxebizitzaren portzentajea funtsean handitzeko eskatzen dietenak. Alokairuko etxebizitza bultzatzeko ildo beretik Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak, 2006-2009ko Etxebizitza Plan Zuzentzaileari buruzko txostenean, eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, gazteriari eta etxebizitzari buruzko hirugarren bi urteko txostenean ere epaia eman dute.

15.4. KEXARIK AIPAGARRIENAK

Jarraian, gure ustez gai garrantzitsuenak direnak aipatuko ditugu, jasotako kexak direla eta piztu direnak:

a. Babes ofizialeko etxebizitzaren bigarren edo ondorengo eskualdatzeen ondorioz sortutako arazoak.

Etxebizitzaren eskualdatze mota horrekin antzeman ditugun arazoak ezberdinak dira. Etxebizitza Sailburuordetzaren 8/2005 Instrukzioak, "Sailari eskaini zaizkion edo bere esku utzi diren eta lehentasunez erosi diren etxebizitzak eskuratu eta esleitzeko prozedurei" buruzkoak, babes ofizialeko etxebizitzaren eskualdatzeetan Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak nola jokatu behar duen bereizten du, babes ofizialeko etxebizitza lehenespenez eskuratzeko eskubideaz baliatuta lortu den (apirilaren 15eko 7/1988 Legean araututa) edo titularrak zuzenean Sailari salmentan eskaini dion babes ofizialeko etxebizitza den kontuan hartuta.

Lehen kasuan, 7/1988 Legean jasotako arauzko aurreikuspena eta hori garatzen duen araudia (maiatzaren 6ko 103/1997 Dekretua) aplikatzen da; horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa behartuta dago etxebizitza erostera, hori, gero, etxebizitza babestuen esleitzeko prozedurarekin bat etorritik hautatzen den pertsonari eskualdatu ahal izateko. Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzen duen pertsona Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita geratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa agertzen baita eskualdatzaile gisa.

Bigarren kasuan (titularrek salmentan eskainitako babes ofizialeko etxebizitzak), 8/2005 Instrukzioak, eskualdatzeko prozedurak sinplifikatu eta ekonomizatzeke asmoz,

babes ofizialeko etxebizitzaren titularrari aukera ematen dio Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aukeratutako pertsonari etxebizitza eskritura publikoan saltzeko. Halakoetan, eskualdatzaile gisa partikular bat agertzen denez, foru administrazioak ez du onartzen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuestea, babes ofizialeko etxebizitza eskualdatzeko kasu arruntenetako bat izan arren.

Hain zuzen ere, erabilitako babes ofizialeko etxebizitzaren esleipendun herritar batek aurkeztutako kexaren bidez egiaztatu ahal izan genuen ez direla berdin tratatzen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hala aginduta lehengo jabeak eskualdatutakoak diren babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzen dituztenak; horiei ez zaie aukerarik ematen, arrazoi objektibo eta bidezkorik adierazi gabe eta berdintasun printzipioa urratuz, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita geratzeko.

Beste alde batetik, gainera, egiaztatu genuen ez dela neurtzen kasu horietan, etxebizitzaren esleipendunak ordaindutako prezioan, lehenengo esleipenari dagokionez laburtuta geratzen den azalera-eskubideaz gozatzeko denbora; BOE berria eskuratzen dutenek gainazal eskubideaz gozatzeko denbora gehiago izaten dute erabilitako BOE eskuratzen dutenek baino eta hauek baztertu egiten dira, gozatzeko denbora hori gutxitzen baitzaie. Kexa aurkeztu zuenak azaldutako kasuan 10 urtekoa zen aldea, hau da, azalera-eskubidea 65 urtekoa zen, BOE berri baten esleipendunari normalean ematen zaizkion 75 urteen orde.

Gainera, prozedura horiek jasotzen dituen instrukzioak ez du araubidea gauzatzeko behar den izaera arautzailea, etxeko eremua edo Administrazioaren ad intra harremanen eremua gainditzen duena (aginduetan egiten den bezala, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 21.1 artikulua arabera). Horrek guztiak, bitarteko horren egokitasun juridikoaren falta azpimarratzea eta instrukzio horren edukia arau batean jasota egon behar litzatekeela ondorioztatzea eragiten du.

Gure esku-hartzearen ondorioz, bi gomendio egin genituen. Horietako bat Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari zuzendu genion ([azaroaren 22ko ebazpena](#))⁵⁶. Horren bidez gomendatzen zaio Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsi dezala babes ofizialeko etxebizitza bat eta, ondorioz, zerga-onura horren baitan oker jasotako zenbatekoak itzul ditzala. Txosten hau amaitu baino zertxobait lehenago Gipuzkoako Foru Aldundiaren jakinarazpena jaso dugu; jakinarazpen horretan, gai honen inguruko ulermen juridikoari dagokion desadostasuna dela eta gure gomendioa ezin daitekeela bete adierazi digute. Urriaren 14ko 8/2005 Instrukzioarekin lotuta Etxebizitza Sailburuordetzarekin koordinatzeko ekimenak hartzeko horrek trabarik ez duela jartzen esan digute. Agindu hori babes ofizialeko etxebizitzak eskualdatzeko orduan EAEko modus operandi aldatzeko nahiz foru araudia aldatzeko da, ezarri nahi den formula ezagutu ondoren

⁵⁶ Arartekoaren ebazpena, 2007ko azaroaren 22koa; horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari gomendatzen zaio Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsi dezala babes ofizialeko etxebizitza bat eta, ondorioz, zerga onura horren baitan oker jasotako zenbatekoak itzul ditzala.

Gure bigarren Ebazpena, kexa berak bultzatutakoa, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Sailari zuzendu zitzaion ([urriaren 22ko ebazpena](#))⁵⁷; sailari Etxebizitza Sailburuordetzaren urriaren 14ko 8/2005 Instrukzioa deusez deklaratzeko gomendatu genion. Instrukzio hori Sailari eskaini zaizkion edo bere esku utzi diren eta lehentasunez erosi diren etxebizitzak eskuratu eta esleitzeko prozedurei buruzkoa da; bide batez, gogorarazi genuen 8/2005 Instrukzioan jasotako araudiaren ordean ematen den arauak nahitaez berariazko tratamendua eskaini behar izango diola babes ofizialeko etxebizitzak erosteko finkatutako prezioaren eta azalera-eskubidez gozatzeko denboraren arteko bat-etortzearen gaiari, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak esku hartzen duen babes ofizialeko etxebizitzaren bigarren eta ondorengo eskualdatzeetan bereizkeriazko tratua saiheste aldera.

Babes ofizialeko etxebizitza erabiliak erosteari dagokionez baita ere, babes ofizialeko etxebizitza baten arazoa azaldu ziguten kexa batean. Kexa horren arabera aurreko jabeek legez kanpoko obrak egin zituzten eta higiezinaren egitura funtsean aldatu egin zuten, kexagileak –BOE horren esleipendun atera zena– baldintza horietan etxebizitzaren salerosketa sinatu ezin izateraino. Gure esku-hartzearen ondoren, eta aipatu etxebizitzak bizigarritasun baldintzak betetzen ez zituela egiaztatuta, Eusko Jaurlaritza ados jarri zen VISESari etxebizitza esleipendun berriarekin salerosketa kontratua sinatu baino lehenago eta legez kanpoko obrak burutu aurretik zuen egoeran berriz jartzeko agintzeko. Hala, kexagileak salatutako irregulartasuna zuzendu zen.

Horrekin guztiarekin Eusko Jaurlaritzak araudi argia eman behar duela ondorioztatzen dugu. Arautegi horrek estaldura juridikoa eman eta arlo honekin loturiko arazoak behar bezala erregulatu behar ditu, batez ere, babes ofizialeko etxebizitza erabilien eskualdatzeak, etorkizunean eta BOEko parkea handitzearen ondorioz, funtsean gehitu daitezkeela kontuan izanez gero.

b. Babes ofizialeko etxebizitzaren alokairu errenten garestitasuna

Etxebizitzari eta gazteriarri buruzko ezohizko txostenean jada aipatu genuen arazoa da. Zehazki, txosten horretako 4. gomendioan alokairuaren eskaintza erakargarriagoa sortzeko beharra aipatzen genuen botere publiko guztien artean adostutako esku-hartze publikoaren bidez (**EAEko Gazteentzako Etxebizitza Politika Publikoari buruzko Arartekoaren ezohizko txostena, 4. gomendioa**). Horretarako, alokairuko etxebizitza babestuetarako, erosteko bidez lortutako etxebizitza baliokide batengatik hipotekaren hileko kostuarekin alderatuta erakargarriak diren errenten prezioak sustatzea gomendatzen genuen; halaber errenta horien prezioak errentarien banakako ahalmen ekonomikora egokituz.

2007an hainbat kexatan eman zaigu, halaber, arazo honen berri. Horietatik bi “Hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko Bizigune programari” buruzkoak dira; honek

⁵⁷ Arartekoaren ebazpena, 2007ko azaroaren 22koa; horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari gomendatzen zaio baliorik gabe utz dezala 8/2005 Instrukzioa, Etxebizitza Sailburuordetzarena, “Sailari eskaini zaizkion edo bere esku utzi diren eta lehentasunez erosi diren etxebizitzak eskuratu eta esleitzeko prozedurei” buruzkoa.

dio alokairuko etxebizitza errentak ezin izango duela bizikidetzako unitatearen diru-sarreraren %30eko muga gainditu, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren jabeari ordaintzen dion zenbatekoa edozein dela ere. Gainera, errenta urtero berrikusten da, azken errenta-adierazpenean agertzen diren diru-sarrerekin bat etorritik. Diru-sarrera horiek ez dira aurtengoak eta, beraz, %30eko muga kasu askotan itxurazkoa da errentarietara dituzten benetako diru-sarrerei dagokienez.

Kexek jarduteko modu honek alokairu errentak ordaintzeko errentariei eragiten dizkien zailtasun objektiboak azaltzen dituztela ikusi ondoren (errenten prezioa aurreko urtearekin alderatuta %50 gehiago zen kasuren batean, eta de facto hileko benetako diru-sarreraren %55 etxebizitzaren errentarako erabili behar zen), Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari gure iritzia bidali diogu baloratu dezaten, eta orain gure esku-hartzea behar bezala burutzen uzten digun erantzunaren zain gaude. Horrela, alokairuaren errenten muga gisa diru-sarreraren %30 jartzeko irizpideari zegokionez, zalantzan jarri genuen ehuneko hori balio absolutu gisa erabiltzea eta, gure ingurunean egiten denari jarraiki, errentarietara beste irizpide malguagoak jartzeko eskatu genuen, esaterako, %25eko irizpidea erabiltzea, Bilboko udal etxebizitza esleipena arautzen duen erregelamenduan jasotzen den moduan. Halaber, gai horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzari *“babes ofizialeko etxebizitza arloko aplikazio adostuari buruzko”* azterlan sozioekonomikoak igortzeko eskatu genion; azterlan horiek adierazten ditu erantzun idazkietako batean eta aipatu irizpidea defendatzen duela dio idazki horietan. Txosten hau bukatu dugun egunean oraindik erantzunaren zain gaude, baina, edonola ere, horren inguruan etxebizitzari eta gazteriar buruzko txostenean adierazi dugunarekin gure irizpidea koherentea izango dela aurreratu dezakegu: alokairuaren eskaintza erakargarriagoa sortzeko eta errentarien errentak benetako ahalmen ekonomikora egokitzeko beharra.

Bestalde, gure erakundearen salatu da, orobat, babes ofizialeko etxebizitza alokairuaren errentak ere oso garesti daudela. Zehazki, gizarte etxebizitza batzuetan bizi den auzotar talde baten kexa jaso dugu, beren alokairu kontratuen baldintzekin ados ez zaudelako. Horren bidez eskatu zuten alokairu errentak murriztu zitezela, baita komunitate gastuetarako zenbatekoak ere, beren iritziak, horiek soberan gaintzen baitute gizarte etxebizitzetan bizi diren ahalmen ekonomikoa, gizarte etxebizitzak diru-sarrera gutxi dituzten pertsonentzat baitira. Espediente honetan ere Eusko Jaurlaritzaren erantzun baten zain jarraitzen dugu, alokairuko etxebizitza eskaintza erakargarriagoa sortzeko helburuaren (gure ezohizko txostenean defendatutakoa) alde egiteko, alegia. Errentak finkatzeko irizpideak eta errentarien gastuak berrikusteari buruzko gure aldeko iritzia ere eman diogu. Espediente honetan erkidegoko administrazioaren kudeaketan egindako aldaketaren ondorioz gastuak garestitzeko aukera azaltzen da, hau da, Alokabide sozietatearen eskutik egotetik modu pribatuan kudeatzera pasa daiteke. Edonola ere, Eusko Jaurlaritzak ematen digun erantzunaren arabera argitu behar izango den gaia da eta ondorioz, oraindik ezin dezakegu gure iritzia aurreratu.

c. BOE ematerakoan izandako atzerapena

Hainbat dira eraikuntza berriko babes ofizialeko etxebizitzak emateko orduan atzerapenaren arazoa planteatzen duten kexak. Salatutako kasu guztietan ez dira betetzen

esleitzeko unean esleipendunei Eusko Jaurlaritzak adierazitako etxebizitzak emateko epeak, eta ondorioz etxebizitza izateko bete gabeko itzaropenak eragiten duen kaltea sortzen da. Atzerapenak, jaso dugun kasuren batean, etxebizitza ematea zozketaren ondorengo esleipen formalaren ebazpenetik bost urte baino gehiago atzeratzea eragiten du (zehazki, Eusko Jaurlaritzak hasiera batean hitzemandako mugari dagokionez hiru urte).

Kexen espediente horiek direla eta, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari atzerapenak sortutako galerak eta kalteak konpontzeari aurre egiteko zein mekanismo aurreikusten diren azaltzeko beharra planteatu diogu. Espediente batean kalteak izan dituzten pertsonak duten etxebizitzarako beharra Etxebizitza sailburuaren zuzeneko esleipenari buruzko Aginduaren errekurtsuaren bidez estaltzeko aukera adierazi genuen. Agindu hori babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko 315/2002 Dekretuaren 11.3 artikuluan eta babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenaren prozedurari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren 6. artikuluan dago jasota. Eusko Jaurlaritzak jakinarazi digu aurreikuspen hori kasuan kasuko Udalaren esku-hartzearekin bakarrik gertatu daitekeela (Udal horrek etxebizitzaren esleipen zuzena eskatuz txosten bat igorri behar izango du), nahiz eta betekizun hori arauditik eratorritakoa ez dela egiaztatu, izan ere, ez du ezer zehazten.

Agian garrantzitsuagoa izan daiteke babes ofizialeko etxebizitzaren esleipena ebazten den unea. Gure ustez, ezinbestekoa da une hori ahalik eta gehien hurbiltzea obraren amaierara, esleipenaren ebazpenaren eta etxebizitzaren entrega eraginkorraren arteko denboraldia luzea izan ez dadin eta Eusko Jaurlaritzak hitzemandako konpromisoetatik eratorritako atzerapenik gerta ez dadin, obretan gerta daitezkeen ustekabeak direla eta konpromisoa bete ezin delako. Ez betetze horrek ondorio larriak eragin ditzake altxor publikorako, atzerapenak sortutako kalteak neurtzeko moduren eta Administrazioaren ondare erantzukizuna pilatu ahal izatearen arabera. Horretarako, Eusko Jaurlaritzari proposatu diogu Eusko Jaurlaritzak berak gogoko praktika bezala onartutakoa araudian jartzeko, hau da, babestutako etxebizitzak egiteko obraren amaieratik hurbil egitea zozketa. Zentzu horretan, babestutako etxebizitzaren esleipena, etxebizitzaren behin-behineko kalifikazioari lotu partez –arlotan horretako araudiak egun aurreikusten duen moduan–, behin betiko kalifikaziora lotzea komenigarria litzatekeela adierazi genion.

d. Babes ofizialeko etxebizitzetan agertzen diren eraikuntzako kalteak eta gabeziak

Erakundeetan babes ofizialeko etxebizitzetan eraikuntzako akatsengatik izaten diren kalteei buruzko hainbat kexa jasotzea ez da gauza berria. Orokorrean, arazoa administrazioak eraikuntza-enpresa arduradunari eraikuntzan jatorria duten hutsuneen konponketa beregain hartzeko bideratutako jardueren gabeziara mugatzen da. Kasu batzuetan, salatutako hutsuneen konponketa burutzeko Administrazioaren jardura eza gertatzen zen kasuetan, planteatutako problema gure esku-hartzearen bidez konpontzea lortu dugu.

Beste kasu batzuetan, Administrazioaren erantzunaren zain dauden espedienteak izapidetzen ari gara oraindik. Hala, kasu zehatz batean, Administrazioak ebazpena eman

du salatutako kalteak sustatzaileak konpontzeko beharrezko obrak burutzeko aginduz, eta sustatzaileak ez du agindu hori bete. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, Babes Ofizialeko Etxebizitzei buruzko Legea (2114/1968 Dekretua) aplikatzeko Erregelamenduaren 111. artikuluari jarraiki, obra horiek modu subsidiarioan burutzeko, edo, bestela, ebazpenean agindutakoak balio izateko zein neurri hartuko dituen adierazteko eskatu diogu. Oraindik erantzunaren zain gaude, baina uste dugu garrantzitsua dela kasu horietan kaltetuei erantzun egokia ematea, atzerapen gehiagorik gabe eta behar izanez gero, Administrazioaren betearazte subsidiariora joz.

Are konplikatuagoa da kexagileei –babes ofizialeko etxebizitzan jabekideen komunitate bat– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak erantzunik ematen ez dien kasua, nahiz eta praktikan 2 urte pasatu diren Sailari sustatzaileari higiezinako eraikuntzako kalteak konpontzeko eskatzeko erreklamatu zitzaionetik. Hala, Administrazioari ebazteko duen beharra gogorarazteaz gain, araudi aplikagarrian aurreikusitako iraungitzeko 5 urteetan oinarrituta (2114/1968 Dekretuaren 111. artikulua, Babes Ofizialeko Etxebizitzei buruzko Legea aplikatzeko erregelamendua onesten duena) erreklamazio hori atzera botatzeko asmoa jakin ondoren, jakinarazi behar izan diogu epe hori eraikuntza prozesuari egozteko akats edo gabeziak adierazteko epea dela, eta ez –Eusko Jaurlaritzak interpretatzen duen moduan– salaketa edo erreklamazioa aurkezteko unea. Zentzu horretan, espediente honen esparruan jarraian datorrena jakinarazi genion Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari:

“Bigarrenik, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak igorritako erantzunaren edukiari berari dagokionez, adierazi nahi dizut, erakunde honen ustez, ez direla oso sinesgarriak jabekideen komunitateak aurkeztutako erreklamazioa baztertzeko sailak ematen dituen arrazoiak (alegia, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Erregelamenduaren 111. artikulua ezartzen duen bost urteko epea igaro dela), dakigun bezala, jurisprudentziako doktrinak honakoa baitio: *“1968ko uztailaren 24ko Erregelamenduaren bigarren paragrafoko 111. artikuluan ezarritako bost urteko epea berme epea da; horren ildotik, hurrengo paragrafoak dio sustatzaileek aseguruera eratu behar dutela eta horrek bost urte horietan agertu diren eraikuntzako akatsak edo gabeziak konpontzeko betebeharreri erantzutea bermatu behar duela. Hortaz, salaketa eta administrazio espedientearen hasiera bost urte horien ondoren izatea ez dago artikuluko horretan ezarritakoaren aurka, betiere, gabeziak edo hutsak behin betiko kalifikazioa eman zenetik hasitako legezko epe horretan sortu badira”* (Auzitegi Gorenaren 1990-11-14ko Epaia, RA 8929; Auzitegi Gorenaren 1998-10-6ko Epaia, RA 7734; Auzitegi Gorenaren 2002-6-17ko Epaia, RA 7044).

Jurisprudentziako doktrina horri jarraiki, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Erregelamenduaren 111. artikulua zuzenean sustatzaileari ezartzen dion konpontzeko betebeharrak eraikuntzako gabeziak edo hutsak 111. artikulua bigarren paragrafoan adierazitako bost urteko epearen barruan sortu direla eta gabezia eta huts horiek eraikuntza-prozesuari egozteko modukoak direla ziur jakitea baino ez dakar; Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak oraindik ez du ezer erabaki bi kontu horien inguruan eta nahitaez konpondu beharko dira jabekideen komunitateak aurkeztutako erreklamazioari amaiera ematen dion administrazio espedientean.”

Horrela, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak argudio horien aurrean nola erreakzionatzen duen ikusteko itzaroten ari gara; baina gai hori Eusko Jaurlaritzak argitu beharreko funtsezko gaia da, ez bakarrik espediente zehatza ebazteko, baita, orokorrean, kalteei dagokienez etorkizunean burutu beharreko jardueretarako ere.

e. Lurzoru publikoan sustatutako etxebizitzaren bukaerako prezioa

Gasteizko Udalaren jarduera bati buruzko kexa ere aipatu nahi dugu; horren baitan [urtarrilaren 3ko ebazpena](#)⁵⁸ eman zen. Kasu honetan, administrazio baldintzen agiria bazegoelako eta, bertan, aurretik, eraikuntza-enpresa pribatuek sustatutako zituzten etxebizitzaren bukaerako prezioa jaso zelako aurkeztu zen kexa. Hala ere, prezio hori aldatu egin zen salerosketa-kontratuak kasuan kasuko eskritura publikoen bidez hobetzerakoan eta, ondorioz, etxebizitzak garestitu egin ziren. Udalak kexagileek (hots, etxebizitzaren esleipendunek) esandakoa bermatzen zuen; alegia, hasieran hitzartutako prezioa legez kontra aldatu zela. Etxebizitzaren prezioaren aldaketa eragin zuten inguruabarrak arretaz aztertu ondoren, aldaketa horrek estaldura juridiko nahikorik ez zuela ondorioztatu genuen; hortaz, leheneratu egin behar zen hasieran hitzartutako prezioa eta etxebizitza horien esleipendunei ordaindu zuten gainprezioa itzuli behar zitzaien. Gure jarrera hala geratu da finkatuta 2007ko urtarrilaren 3ko aipatu Ebazpenean. Gure jarreraren inguruan Gasteizko Udalak jakinarazi digu, kexagileek eskatuta, ondare erantzukizunaren espediente hasi dela, egun bideratzeko fasean dagoena, eta espediente horretatik kalteak ordaintzeko erabakia erator daitekeela. Halaber, Gasteizko Udala enpresa sustatzaileari bide zibilean erantzukizuna eskatzea aztertzen ari dela jakinarazi digute. Informazio hori ikusita, erakunde honek bere garaian emandako ondorioen onarpen-gradua egiaztatzeko hasitako administrazio jardueren emaitzaren zain gaude.

f. Arreta bereziko taldeak: ezgaitasunen bat duten pertsonak eta indarkeriaren biktimak diren emakumeak

Azkenik, arreta berezia behar duten taldeetako pertsonen, hasierako egoera ahulagoa dutelako, etxebizitza arloan eragiten dien egoera bereziarekin erlazionatutako zenbait kexa aipatu nahi ditugu.

Zehazki, ezindu fisikoei dagokienez, ezgaitasuna zuen pertsona batek mugikortasun urriaren ondoriozko premiekin bat ez zetorren etxebizitza esleitu ziotela-eta egin zuen kexa aipatu nahi genuke. Kexagileak beharrezko obrak egiteko eskatu zion VISESA sozietate sustatzaileari, etxebizitza hark zuen ezgaitasunera moldatzeko, baina aipatu sozietateak ez zion erantzun egokirik eman. Horregatik, gure esku-hartzea eskatu zuen eta, horri esker, azkenean, okerreko jarduera zuzendu egin zen, VISESA sozietate

⁵⁸ Arartekoaren ebazpena, 2007ko urtarrilaren 3koa; horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio baliogabetzat jo dezala Ibaiondoko 8B sektoreko etxebizitza bioklimatikoaren azken prezioari buruzko "informazio oharra", eta enpresa sustatzaileari eska diezaiola etxebizitza bioklimatikoaren esleipendunei itzul diezazkiela bidegabe jaso dituen kopuruak.

publikoak etxebizitza behar bezala egokitzeko obrak egin baitzituen, aldez aurretik interesdunarekin berariaz hala adostuta.

Puntu honetan ere azpimarratu nahi genuke indarkeria sexistaren emakumezko biktimak erakunde honetara zuzendu direla Eusko Jaurlaritzak –Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruz 2006ko urriaren 4an eman zuen Aginduaren bidez– antolatu duen etxebizitzara sartzeko bide bereziaren inguruan.

Orokorrean, arrazoi hori dela eta ohartu gara erakunde honetara zuzendu diren emakumeek mota horretako eskabidea bideratzeko aukera ematen duten bide eta baldintza zehatzei buruz ez dutela informaziorik. Hala, gure esku-hartzea, hainbat kasutan, kexagileak behar bezala informatzera eta eskabidea bideratzeko erakunde eskudunekin harremana erraztera mugatu da. Horrek, neurri horien onuradunak izan daitezkeen emakumei informazio hori helarazteko ahalegina berriz egiteko beharrezana planteatzen du; arreta sozialeko langileak behar bezala trebatuz, izan ere, indarkeriaren biktima diren eta etxebizitza baten beharra duten emakumeek normalean horiengana jotzen dute.

Jasotako kexetako batzuk bestelako arazoak planteatu dituzte, oraindik ebazteko daudenak; esate baterako, gurasoen etxean anaia baten indarkeriaren biktima izan zen emakumearen kasua. Emakume horrek, gaztea eta lan prekarioa zuenak, bizileku hori utzi behar izan zuen anaia zigortzeko epaia eman ondoren, gurasoek bere kontra egin zutelako anaia Auzitegitara eramateagatik. 2006ko urriaren 4ko Aginduaren 2. artikulua, goian aipatzen dugunak, arauak erregulatzen duen egintza positiboko neurrien aplikazioaren eremu subjektiboa zehazten du eta horren barne *“bereizkeriaren, desberdintasun egoeraren eta gizonak emakumearen gainetik jartzen dituen botere-harremanen agerpen gisa, **beren ezkontideak direnek edo izan direnek edo afektibotasunaren antzeko harremanengatik horiei lotuta daudenek edo egon direnek** erasota, oraindik elkarrekin bizi gabe, indarkeriaren biktima diren emakumeak”* daudela adierazten du. Horrela, arauak gizonezkoek erabilitako indarkeriaren biktima diren emakumezkoak kanpo uzten ditu, nahiz eta indarkeria izaera sexista berarekin eta famili eremuan burutu, lantzen ari garen kasua bezala. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzari adierazi diogu, indarkeria sexistaren ondorio gisa kexagileak bizi duen egoeraren larritasuna kontuan hartuta (ezkontidea edo bikotea izan ez arren), babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko 315/2002 Dekretuaren 11.3 artikuluan eta babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenaren prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduaren 6. artikuluan araututako salbuespen-bidea emakumearentzat bideratu behar litzatekeela. Aurreikuspen hori, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak etxebizitzaren esleipen zuzenaren Agindua emateko aukerari buruzkoa da. Gobernuaren esku dago –nahiz eta, lehenago aipatu bezala, arauzko eskakizuna ez izan– agindu hori gizarte zerbitzuen txosten baten laguntzarekin bakarrik ematea, kasuan kasuko udalak bermatuz. Txosten hau bukatu den egunean Eusko Jaurlaritzaren erantzunaren zain gaude oraindik.

Bestela, urte honetan zehar gai honekin lotutako beste kexa batzuk jaso ditugu, administrazio jardunean irregulartasunik ez dagoela egiaztatuta itxi ditugunak. Bi kasuetan, kexagileek Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruz 2006ko urriaren 4an eman zuen Aginduan jasotako ekintza positiboko neurrien onuradunak

izateko betekizun formalak ez zituztela behar bezala bete nabarmentzen da, eta hori, emakumeak betekizun horien inguruan aholkatuz zuzentzen ahalegindu garen ageriko informazio falta dela eta izan da. Hala ere, adierazi dugu komenigarria dela informazio hori neurri horien hartzaileengana behar bezala helarazteko ahaleginak areagotzea. Kasu askotan, hil edo biziko egoerak, batez ere egoera zailak pasatzen dituzte eta gizarte zerbitzuen arreta berezia eskatzen dute emakume horientzako laguntza-neurriak eskaintzen dituzten herri administrazioetan, kasu honetan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, egiten dituzten eskaerei laguntzeko.

16. ZENBAIT GESTIO

Izenburu honen pean Ararteko erakundearen jarduera jakin batzuk jaso ditugu, heltzen dituzten gaien berezitasuna dela medio, erakunde honen lana banatu ohi den gainerako arloetan erraz eta behar bezala moldatzen ez direnak. Ildo horretatik, arlo honetako edukiak oso heterogeneoak izan daitezke, ondoren aipatuko ditugun kasuetan ikusiko dugun bezalaxe.

Arlo honetan jasotako kontuetako batek dio ezinezkoa izan zela Bizkaiko Foru Ogasunarekiko sortu zen zorraren ordainketa ziurtatzeko eratu zen hipoteka ezabatzea, zorra jada ordainduta egon arren. Arazoa zen Ogasuneko arduradunek soilik Bilbon sinatzen dutela eta kexagileak aukeratutako notariotza Getxon zegoela. Hipoteka sinatu behar zuen Foru Ogasuneko zerga-bilketako zuzendariordeak azaldu zigun hura formalizatzeko prozeduran beharrezkoa dela aurrean izango den notarioa Ogasunaren bulegoetara joatea (hipoteka onartzeko egin zen moduan). Arazoa da, Elkargoak ezarritakoari jarraiki, hori Bilboko notario batek egin behar duela, ez baita nahikoa elkargokideetako bat soilik Getxon izatea. Hala ere, egoera desblokeatzeko, Ogasunak administrazio agiri baten bidez hipoteka ezeztatzea proposatu zuen. Agiri hori, bidezko egiaztapenak egin ondoren, zerga-bilketako zuzendariordeak sinatuko zuen eta Ogasunaren Getxoko bulegora bidaliko zuen, kexagileak bertan jaso zezan, Bilbora joan beharrik ez izateko. Sistema hori azkarra da eta bere abantaila da notarioen esku-hartzearen kostuak saihesten dituela, fede publikoaren kalterik gabe. Foru Ogasunak beste aukera bat eman zuen, alegia, elektronikoki sina zedila. Horretarako, Getxoko notariotzak kasuan kasuko bitartekoak izan behar lituzke. Interesdunak lehenengo bidea aukeratu zuen eta, hala, arazoa konponduta geratu zen.

Hauteskunde garaian ohikoa den beste kontu bat zenbait pertsonak hauteskunde araudian ezarritako betebeharrak betetzeko dituzten arazoak dira. Horrela, pertsona batek adierazi zigun udal hauteskundeetan hauteskunde mahaiko buru izendatu zutela. Idazkian adierazi zuen kargua hartzeko arazo bat zuela, 11 hilabeteko neskatoa baitzuen eta hau naturalki edoskitzen baitzuen. Bere ustez, zeregin horrek eman zitzaion kargua betetzea eragozten zion eta, horregatik, betebeharrak horretatik salbuetsi zezala eskatu zion zonaldeko hauteskunde batzordeari. Hala ere, batzordeak haren eskaerari uko egin zion eta, horregatik, interesdunak erakunde honetara jo zuen bere egoera salatzeko. Hauteskunde araudiari jarraiki, betebeharrak horretatik salbuetsia izateko, kargua onartzea eragozten duen bidezko arrazoia adierazi behar da, agiri bidez, zonaldeko hauteskunde batzordearen irizpidearekin bat, hura onartu edo baztertu dadin. Kasu zehatz honetan, edoskitze naturalak dakartzan betebeharrak direla medio amak kargua betetzetik salbuesteko zer irizpide erabili zen ezagutze aldera, zonaldeko hauteskunde batzordearekin harremanetan jarri ginen. Zonaldeko batzordeak adierazi zigunez, erabilitako irizpidea izan zen edoskitzeak, lehen 16 asteetan, hauteskunde mahaiko kide izateko betebeharratik salbuesten zuela. Ondoren, edoskitze naturala salbuespenezko kasuetan bakarrik har zitekeen kontuan, eta, soilik, haurrak gehienez bederlatzi hilabete bazituen, betiere, kasuan kasu adierazi eta behar bezala egiaztatzen ziren inguruabarren arabera. Batzordearen arabera, eta lan arloko araudiak dioen moduan, behin 16 asteak igarota, edoskitzea kontuan hartu beharreko alderdia zen, baina ez betebeharratik salbuesteko, baizik eta mahaiari egoteko ardura arintzeko. Bestela esanda, mahaiko buruak ikuskatuta, haurra elikatzen joan eta itzultzeko behar beste denbora har zitekeen. Horiek horrela, gogoeta horien berri eman genion interesdunari eta gure esku-hartzea eten genuen.

II. ATALA

LEHENTASUNEZKO TALDEAK

Alorren egituraketa beti gaikako banaketaren arabera egin izan da. Banaketa hori osatzeko, Ararteko erakundearen jarduerak sailkatu izan diren alorretan barreiatuta dauden eta ezaugarri bereziak dituzten zenbait talderen arazoan berariazko tratamendua egiten da.

Talde horienganako berariazko arretarako alor horiek, urteko txostenean haien arazoan berri bilatzeko lana errazteaz gainera, taldeok dituzten arazo eta beharriaz beren beregi erantzuteko jardueren esparruak sortu nahi izan dituzte.

Alde horretatik eta Ararteko erakundeak pertsona guztien eskubide guztiak bermatu behar dituela uste izanda, beharrezkotzat jo da beren eskubideak burutzeko kalterean bat izan dezaketen talde batzuekin lehentasunez jardutea, ahultasun handiagoko balizko egoeran daude eta.

Talde horiekiko lehentasunezko esku-hartze horiei eman nahi zaien garrantziak justifikatzen du Urteko txostenean atal propio batean islatuta agertzea, haien eskubideen gaineko berme-lan garrantzitsu hori bistara dadin.

Atal honetan hamaika zatitan biltzen dira lehentasunezko arretako hurrengo taldeen inguruan burutu diren jarduerak:

- Berariazko arreta emakumeen eta gizonen berdintasunari
- Berariazko arreta adinekoei
- Berariazko arreta adingabeei
- Berariazko arreta ezgaitasuna duten pertsonari
- Berariazko arreta etorkinei
- Berariazko arreta ijito herriari
- Berariazko arreta gizartean baztertuta edo pobrezian bizi diren pertsonari
- Berariazko arreta terrorismoaren eta jazarpen indarkeriaren biktimei
- Berariazko arreta lesbiana, gay, bisexual eta transgeneriko edo transexualei
- Berariazko arreta espetxeratuei
- Berariazko arreta gaixo kronikoei

Emakumei, adinekoei, adingabeei, ezgaitasunen bat duten pertsonari eta etorkinei eskainitako arretari buruzko arloak 1999az geroztik daude finkatuta eta, beraz, talde horiei dagokienez egindako jarduerak ugariak eta askotarikoak dira.

Gainerako arloak 2006an sortu dira eta, hori dela-eta, oraindik abiarazte fasean daude. Horregatik ez dira lehenagotik zeuden arloak bezain luzeak eta xehatuak.

1. BERARIAZKO ARRETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARI

1. Arlo honetan 2007an egindako lanerako sarrera

Arlo honetan Ararteko erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten du lan. Horretarako, oinarritzat hartzen du gure gizarteko hainbat ingurunetan nagusi dela oraindik benetako desberdintasuna, sexuagatiko berdintasun printzipioa formalki onartzea orokortu bada ere. Gure funtzioen xedea, batez ere, euskal herri administrazioak kontrolatzea da berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ezerako eskubidea edonola urratzeari dagokionez. Halaber, emakumeen eta gizonen artean berdintasuna izango duen gizartearen helburua sustatu eta bultzatzea da gure funtzioa, beti emakumeen gizarte protagonismoa eta herritartasun aktibo osoa babesteko beharra onartuz oraindik emakumeak gizonen atzetik jartzen dituzten kultur eta gizarte joeren aurrean.

Ararteko erakundeak hainbat eremu eta sail dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaiari heltzen diotenak –gai honen zeharkako izaera kontuan hartuta–; beraz, beharrezkoa da gure jarduera guztiei genero ikuspegia eranstea. Atal honetan jakinaraziko ditugun jarduerak zeharkako ikuspegi horren eta gai zehatzetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremutik bideratzen ditugun jarduera zehatzen emaitza dira –jarraipen lana egiten dugun horietan batez ere–.

Orokorrean, Ararteko erakundetik 2007an zehar emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaiari garatutako jarduera nagusiak azaltzerakoan, oinarritzat hartu behar dugu eremu honetako lana hiru ardatz nagusirekin definitzen dela. Horiek erakundearen lanaren funtsezko helburuak adierazten dituzte, eta honela azal ditzakegu: sexuagatiko bereizkeria oro deuseztatzea, egiturazko aldeak dituen sistema batetik abiatzen den gizartearen berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izatearen helburua eta indarkeria sexista desagerraraztea.

Hiru ardatz horiek kontuan hartuta, azken helburu horrekin zerikusia izanda garatutako jardueren berri emanez hasiko gara, eta hori hurrengoak azpimarratzeko beharrezkin lotuko da: emakumeen eskubideak urratzeko modurik ankerrena deuseztatzeko presara, emakumeen kontrako indarkeria eta oraindik ia egunero protagonismoa duen zoritxarreko gizarte gaitza dakarren ideia multzo matxistaren adierazpen gaitzesgarria.

Ondoren, sexuagatiko bereizkeria planteatu duten (batzuetan administrazioak berak zuzenean sorrarazitakoa) gai azpimarragarrienei helduko diegu, herri administrazioak esku-hartze gaitasuna zuen heinean.

Aurrerago erakunde honek beste gai batzuen inguruan izandako jarduna zein izan den argituko dugu, emakumeengan eragin berezia dutela uste baitugu. Azkenik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen garapenaren egungo egoera zein den ziurtatzeko egindako jarraipen lanak jakinarazteko laburpena erantsiko dugu.

2. Botere publikoek emakumeen kontrako indarkeria deuseztatzeko duten papera

Emakumeen kontrako indarkeria emakumeekiko bereizkeriaren adierazpen paradigmatico eta ikaragarria da, eta emakumeen eskubideak urratzeko modurik larriena eta gure gizarteak azkar deuseztatu behar duen gaitza da. Ararteko erakundeak indarkeria sexistaren biktima izan diren emakumeak babesteko asmoa duten mekanismo publikoen eraginkortasuna ikuskatzeko ardura du. Zentzu horretan, Arartekoaren funtzioa honakoa izaten da: euskal administrazioen erakunde erantzuna emakumeen kontrako indarkeriaren kasuan egokia izan dadila zaintzea. Xede hori izanda, 2003an ezohizko txostena landu zen emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzunari buruz. Bertan hainbat gomendio bildu zen. Horien oinarri teorikoa gain hartzen dute egun euskal administrazio ezberdinek, nahiz eta horiek praktikan orokortasunez eta erabat jartzea ez den oraindik errealitate bat. Bestalde, beharrezkoa da kontuan izatea genero indarkeriaren kontrako babes osorako neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Euskal Legearen eduki batzuk (batez ere III. tituluko VII. kapitulua) gaiaren alorreko eskakizun berrietarako oinarriak ezartzen dituztela.

Emakumeen kontra izaten jarraitzen duten etengabeko eraso sexistak ikusita, gurea bezalako gizarte batean harridura sorrarazten duten heriotza-kopuruak mahai gainean jarritz, interesgarria iruditu zaigu aipatutako txostenean bildutako gomendio batzuen gaineko jarraipen xehatuagoa egitea. Horrela, eremu horretan funtzioak betetzen dituzten euskal administrazio ezberdinei informazioa eskatu diegu, Euskadin gai honek egun bizi duen egoeraren alde batzuk argitze aldera. Ondoren adierazitako jarraipen horren emaitza adieraziko dugu:

A. Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko datu garrantzitsuenak Euskadin 2007an

Euskadiko genero indarkeriaren errealitatearen ikuspegi orokorra izateko xedez, informazio eskaera helarazi genion Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari. Bertan, Euskadin 2007an jazotako genero indarkeriako kasu garrantzitsueni buruzko datuak eskatu genituen.

Zehazki, hurrengoei buruzko ahalik eta informazio gehien lortu nahi izan genuen: emakumeen kontrako indarkeria-jarduerengatik 2007an jarritako salaketak; eskatutako babes aginduak; hartutako kautelazko neurri judizialak; EAEn 2007an zehar genero indarkeriagatik emandako epai penal zehatzaileak; EAEn 2007an zehar hildako emakume kopurua (genero indarkeriaren biktima izanda); biktimari laguntzeko zerbitzuek artatutako emakume kopurua (genero indarkeriaren biktima izanda), eta ofiziozko laguntza-txanda espezializatuaren onuradun izandako emakume kopurua (genero indarkeriaren biktima izanda).

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eskatutako gaietako buruzko datuak eman zizkigun egindako txostenean, 2006ko azarotik 2007ko azarora doan tartean. Informazio hori jarraian azalduko duguna da. Sailak jakinarazi zigunaren arabera, datuak iturri

ezberdinetatik eskuratu dira, adibidez Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak kudeatzen duen justizia administrazioaren prozesuak kudeatzeko sistemaren ustiapenetik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta haren Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Behatokiaren estatistiketatik eta Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzaren zerbitzuen menpeko jarduera-memoretatik.

1- Salaketa-kopurua¹ eta zein organotan jarri diren

| Herria | Salaketak, guztira | Salaketak eguneko |
|-----------------|---------------------------|--------------------------|
| Vitoria-Gasteiz | 683 | (1,9) |
| Amurrio | 40 | |
| ARABA | 723 | 2,0 |
| Tolosa | 131 | |
| Azpeitia | 36 | |
| Bergara | 71 | |
| Eibar | 47 | |
| Donostia | 671 | (1,8) |
| Irun | 119 | |
| GIPUZKOA | 1.075 | 2,9 |
| Durango | 93 | |
| Barakaldo | 507 | |
| Gernika | 88 | |
| Bilbao | 1.101 | (3,0) |
| Balmaseda | 46 | |
| Getxo | 236 | |
| BIZKAIA | 2.071 | 5,7 |
| Guztira | 3.869 | 10,6 |

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan, gure erkidegoan emakumeen kontrako indarkeriatik 10,6 salaketa jarri dira guztira egunero (2006ko azarotik 2007ko azarora bitarte). Salaketa horietatik gehienak hiriburuetan (Bilbon, bi) kokatzen diren emakumeen kontrako indarkeriarako bakarrik dauden lau epaitegietan ebatzen dira, horietan salaketen %63,4 hartuz.

Sailak jakinarazi digu emakumeen kontrako indarkeria maizago gertatzen dela senar-emazteen artean (%34) eta indarrean dauden harreman afektiboan esparruan (%28). Aldiz, harreman hori eteten denean, beherantz egiten du ere eraso portzentajeak, nahiz eta eman zaizkigun datuak ez diren axolagabeen uzteko modukoak. Izan ere, jada amaitutako harreman afektiboetan emakumeei egindako erasoak %27ra iristen dira, eta erasotzailea senar ohia denean, berriz, %12ra.

¹ Epaitegietako jardunaren datuei dagokienez, hautapen irizpidea legearena da, hau da, arrazoi sexistengatiko kasuak. Izan ere, emakumeen kontrako indarkeriaren gaiaren eskumenari egokituriko epaitegien datu zehatzak dira.

Azpinarratzekoa da erasotzaile etorkinen aurkako zehapenak nabarmen hazi direla (%24,9 iaz), beraz, genero indarkeria emakume etorkinei dagokienez berdin ez garatzearen errealitateak sendotzen jarraitzen du. Izan ere, Inmigrazioaren Euskal Behatokiaren azken datuen arabera, EAeko biztanleria etorkinak guztien %4,9 bakarrik hartzen du.

Biktimei dagokienez, %70,7 adinez nagusi diren emakume espainiarrak dira, %27,3 adinez nagusi diren emakume etorkinak dira, %1,4 emakume espainiar adingabeak eta, azkenik, emakume etorkin adingabeek biktimen %0,3 hartzen dute.

2- Eskatutako babes aginduak

Jarraian datorren taulan lurralde eta udalerrien arabeko banaketa ikus daiteke, eskatutako babes aginduei dagokienez:

| Herria | Eskatutako babes aginduak | Arazo zibilak |
|-----------------|---------------------------|---------------|
| Vitoria-Gasteiz | 323 | 80 |
| Amurrio | 26 | 8 |
| ARABA | 349 | 88 |
| Tolosa | 71 | 14 |
| Azpeitia | 21 | 4 |
| Bergara | 40 | 12 |
| Eibar | 26 | 5 |
| Donostia | 317 | 79 |
| Irun | 58 | 10 |
| GIPUZKOA | 533 | 124 |
| Durango | 63 | 18 |
| Barakaldo | 342 | 73 |
| Gernika | 41 | 15 |
| Bilbao | 490 | 151 |
| Balmaseda | 15 | 0 |
| Getxo | 71 | 5 |
| BIZKAIA | 1.022 | 262 |
| Guztira | 1.904 | 474 |

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.

Taula hori ikusita, ondoriozta daiteke salaketen ia erdiak, %49,2k hain zuzen, babes aginduaren eskaera ekartzen duela ere. Babes agindu horiek biktimak berak eskaturikoak izan dira ia kasu guztietan –kasuen %98,1en–, bai epaitegira bertara joanda bai komisaria baten bitartez eskatuta. Kasuen %1,1en, berriz, biktima ez zen beste pertsonaren batek eskatu du eta %0,8an Fiskaltzak.

3- Hartutako kautelazko neurri judizialei buruzko datuak

Babesteko neurri judizial penalei dagokienez, gehien hartu direnak urruntzea eta komunikatzeko debekua izan dira, %37ra iritsiz horietako bakoitza. Atzetik, armak eduki eta erabiltzeko eskubidea etetea (%10) eta etxetik irtetea (%8,3) egon dira.

Babesteko gehien hartutako neurri judizial zibilak mantentzeko prestazioa (%38), etxebizitza egokitzea (%36) eta zaintza eta ardurapea etetea (kasuen %9) izan dira.

4- Epai judizial zehatzaileak

Biktirik arrazoitutako salaketak jartzen dituztela ikusten jarraitzen dugu, egindako hamar epaiketarik zortzi baino gehiago epai zehatzailearekin amaitzen direla kontuan hartuta. Zehapen horietatik %68,75 gizon espainiarrei jarri zitzaizkien eta gainerako %31,25a gizon etorkinei.

Beste datu esanguratsu bat, gertatutakoa onartzeagatik eta erasotzailea ezarritako zehapenarekiko duen adostasunari dagokionez, honakoa da: epai zehatzaileen %51k errudunaren adostasuna izan zuen eta adostasunik gabeko epaiak %48,8ra iritsi ziren.

Azken urte honetan Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Epaitegiek izapidetutako gai zibilen artean %31,2 dibortzio auziak izan dira, eta horrek koherentzia du bikotekideen arteko adostasun ezeko egoerarekin.

5- EAEn 2007an zehar hildako emakume kopurua

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak helarazitako datuen arabera, 2007an EAEn bikote edo bikote ohien eskuetan hildako emakumeak 2 izan dira.

6- Biktirik laguntzeko zerbitzuek lagundutako emakume kopurua (genero indarkeriaren biktirik)

Biktirik Laguntzeko Zerbitzuak genero indarkeriaren biktirik izateagatik lehenengo aldiz lagundutako emakume kopurua 1.483koa izan zen Euskal Autonomia Erkidego osoan 2007an zehar.

Lurraldeka aztertuz gero, genero indarkeriaren biktirik izateagatik Bizkaian 749 emakume lagundu dituzte; Gipuzkoan, 439, eta Araban, berriz, 295 guztira.

7- Ofiziorik laguntza-txandaren onuradun izan den emakume kopurua (genero indarkeriaren biktirik)

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila eta Abokatzaren Euskal Kontseiluak EAEn gertatzen diren Emakumeen Kontrako Indarkeriaren, Etxeko Indarkeriaren eta Sexu Jazarpenaren arloko Indarkeriako Delituen Biktirik Laguntza Juridikoa Berehala Emateko Akordioa sinatu dute.

Bigarren akordio hau beste urrats bat izan da biktirik babesean, 12tik 15era igotzea ahalbidetu duelako guardiako abokatu kopurua -7 Bizkaian, 5 Gipuzkoan eta 3 Araban-, biktirik informazio goiztiarra ematea sustatzea eta doakotasuna zabaltea. Azken horren kasuan, doakotasuna alde aurretiko aholkularitzari eta salaketa jartzerakoan eskuratzen den laguntzari zabaldu ez ezik, babes agindua eskatzerakoan

bertaratu behar izateari eta hortik erator daitekeen epaiketa azkarrean egoteari ere zabaldu zaie.

Akordio berri horren kostu ekonomikoa 2007ko ekitaldian 903.360 € izan dira, %103ko hazkundera aurreko ekitaldiaren aldean.

2007ko ESKU-HARTZE KOPURUA

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
|----------------------------|------------|--------------|------------|--------------|
| 2007ko lehen seihilekoa | 217 | 823 | 445 | 1.485 |
| 2007ko bigarren seihilekoa | 294 | 852 | 515 | 1.661 |
| 2007an, guztira | 511 | 1.675 | 960 | 3.146 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Saila.

8- Erakundeen arteko lankidetzak-akordioak

Ararteko erakundetik hainbatetan azpimarratu dugu beharrezkoa dela indarkeria sexistako egoerei erantzutera eta laguntzera zuzendutako neurri publiko ezberdinen artean koordinazio handiagoa izatea. Horixe adierazi genuen zehazki 2003an “Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn” izeneko ezohizko txostenean, eta, horrekin batera, baita Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako ohizko txostenetan ere. Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak ere jarrera hori defendatzen du eta genero indarkeriaren arazoak ikuspegi osoa eta alde anitzetatik jorratutakoa behar duela adierazten du, arazoan agertzen diren maila ezberdinak koordinatzen lagundu ahal izateko. Hori dela-eta, beharrezkoa da Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Saileko Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak bultzatu eta koordinatutako Koordinazio Protokoloen indarraldiaren alde egiten jarraitzea. Horiek Justizia Auzitegi Nagusiak, Fiskaltzak, Gobernu idazkariak, Emakundeak, abokatuen elkargoak, Herrizaingo Sailak, udaltzaingoen eta gizarte zerbitzuen sinaturikoa izan zen.

Argi dago protokolo hauek sinatu dituzten eta genero indarkeriaren aurkako borrokan parte hartzen duten erakunde arduradun guztiek lan koordinatua garatzeko borondatea dutela, fenomeno hau prebenitzeko, biktimei laguntzeko eta hura deuseztatzeko. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da protokolo horien eraginkortasunaren gaineko ebaluazioa egitea. Txosten hau egiten amaitzerakoan, 2007ko amaieraren eta 2008ko hasieraren artean, bilerak egiten ari dira protokolo horiek ebaluatze aldera eta azken urtean agertu ahal izan diren gabezia eta arazoak hobetze aldera. Erakunde honentzat oso interesgarria izango da ebaluazio horren emaitzak ezagutzeko.

Bestalde, beharrezkoa da azpimarratzea 2007. urtean, martxoaren Sarekin bat eginez (emakumearen nazioarteko eguna), Familien Barruko Genero Indarkeriari buruzko Diziplina Anitzeko Batzarra egin zela, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak antolatua Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiarekin elkarlanean. Bertan, Ararteko erakundeak ere parte-hartze aktiboa izan zuen, gai honen inguruan biktimek duten ikuspegia erantsiz. Batzar horretan garatutako politika eta ekimen nagusiak aztertu ziren, hain zuzen ere horiek diseinatu, kudeatu eta gauzatzeko erantzukizun publikoa dutenek garaturikoak. Horrela, erakundeek genero indarkeriaren fenomenoaren aurrean duten erantzuna hobetzen dudarik gabe lagun dezaketzen proposamenak jaso ahal izan ziren.

B. Poliziaren babesteko neurriak genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako 2007. urtean (arriskua baloratzeko irizpideak eta irizpide horiek aplikatzeko protokoloak)

Emakumeen eskubideen eremuan lan egiten duten elkarteekin izandako harremanen bitartez, eta erakunde honek indarkeriaren biktima diren emakumeekin duen zuzeneko harremanaren bitartez, jakin ahal izan dugu kezka handia dagoela indarkeria sexistako gertaerak bizi izan dituzten emakumeen segurtasunari dagokionez, berriro eraso jasotzeko arriskua oraindik mantendu egiten delako. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailera jo dugu, egun Ertzaintzak horrelako egoerarako dituen protokoloak zeintzuk diren ezagutzeko asmoz. Zehazki, jakin nahi izan dugu ea zein den erakunde honek 2003an prestatu zuen “Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn” izeneko ezohizko txosteneko 25. gomendioaren egungo garapen egoera. Gomendio horrek erasoaren arriskua murrizten duten kokapen eta babes sistema garatzeko beharra aipatzen zuen. Horretarako, informazioa eskatu genion Herrizaingo Sailari hurrengoan ganean: lurralde ezberdinetan arrisku hori baloratzeko dauden irizpideak eta irizpide horiek aplikatzeko protokoloak; poliziaren aldetiko babesteko neurriak martxan jartzeko baldintzak edo betekizunak, eta arrisku egoera ezberdinak ikusita martxan jartzen diren neurri zehatzak, bai biktima diren emakumeei dagokienez, bai erasotzaileei dagokienez. Halaber, ustez arrisku egoeran zeuden emakumeak babesteko 2007an poliziak izan dituen esku-hartzei buruzko datuak jakin nahi izan ditugu.

Herrizaingo Sailak jakinarazi zigun Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Segurtasun Sailburuordetzak lan sistema ezarri zuela Ertzaintzaren baitan 2005ean. Bertan, etxeko indarkeriatik eta genero indarkeriatik eratorritako jarduera guztiak bilduko liriateke. Sistemaren izena “Etxeko eta Genero Indarkeriagatiko Kasuetatik eratorritako Ertzaintzaren Jardueren Kalitatearen Kudeaketa Sistema” izan zen, eta horrek bermatu egiten du Ertzaintzaren jarduerak irizpide berdinen arabera garatuko direla hiru lurraldeetan. Horrela, Ertzaintzak bide ezberdinak ditu etxeko edo genero indarkeriako inguruabar batzuk egon daitezkeela jakiteko (biktimak, senide batek edo lekuko batek horren berri ematea; Larrialdiei Aurregiteko Zerbitzuaren bitartez –SOS–, zuzenean Komisariara egindako dei bat, edo zerbitzuan dagoen patruila batek gertatuko ikustea). Kontua da kasu guztietan, Herrizaingo Sailak jakinarazi zigunaren arabera, Ertzaintzaren jardunak jarraibide berdinak izango dituela: jarduna irekiko da aplikazio informatiko berdin batean eta kasu bakoitzean eskura daitekeen ahalik eta informazio gehienarekin osatuko da.

Arrisku mailaren balorazioa

Sailak adierazi zigunaren arabera, kasu bakoitzean egoki diren babes pertsonaleko baliabideak antolatzeke asmoz, biktimak bizi duen arrisku egoeraren gaineko balorazioa egiten da, eraso berriak prebenitzeko eta poliziaren kasuan kasuko babesteko neurriekin pertsona egoki babesteko.

Arriskuaren balorazioa alde nabarmen eta zuzenei buruz eskura dagoen informazioa kontuan hartuta egiten da kasu bakoitzean, hau da, biktimak eta erasotzaileak emandako informazioa, parte hartu duten polizia baliabideak, gertaerak jazo ziren tokia, lekukoak eta eskura dauden datu baseak kontuan hartuz. Gainera, bikote harremanean Indarkeria Larriko Arriskua Baloratzeko Galdeketa betetzen da, alde aurretik ezarritako 20 arrisku adierazle biltzen dituen hain zuzen.

Adierazi ziguten galdeketa hori hobeki erabiltzeko erabiltzaile gida bat dagoela, eta horrek bikote harremaneko indarkeria larriko arriskuaren balorazioa errazten duela. Balorazio horren ondorio modura kasuaren arrisku maila erabakitzen da, eta oinarrikoa, handia edo berezia izan daiteke. Maila bakoitzean babeserako hainbat neurri ezarri dira, batzuk derrigorrezkoak eta besteak aukerazkoak.

Adierazle zerrenda, bikote harremanean baloratu beharreko alderdien arabera multzokatuta, hurrengo taulan zehazturikoa da:

| BALORATU BEHARREKO ALDERDIAK | ADIERAZLEA |
|------------------------------|---|
| Datu pertsonalak | 1. Erasotzailea edo biktima atzerritarra izatea. 2. Berriki banandu izatea edo banantzeko bidean izatea. |
| Bikoteko harremanaren egoera | 3. Berriki biktima jazarri izatea edo urruntzeko agindua urratu izatea. |
| Indarkeria-mota | 4. Lesioak eragiteko moduko indarkeria fisikoa egotea. 5. Seme-alaben eta beste senide batzuen aurrean bikotekidea jotzea. 6. Azken hilabetean indarkeriazko gorabeheren maiztasuna eta larritasuna handitzea. 7. Azken hilabetean mehatxu larriak edo herio mehatxuak egitea. 8. Objektu arriskutsuekin nahiz edozein eratako armekin mehatxu egitea. 9. Lesio larriak edo oso larriak eragiteko asmoa izatea. 10. Bikoteko harremanean sexu erasoak egotea. |
| Erasotzailearen profila | 11. Oso jeloskorra izatea edo bikotekidea kontrolatu nahi izatea. 12. Aurretik izandako bikotekidearekin indarkeriaz jokatu izatea. 13. Beste pertsona batzuekin indarkeriaz jokatu izatea (lagunekin, lankideekin, etab.). 14. Gehiegizko droga eta alkohol kontsumoa. 15. Burutik gaixo egon eta tratamendu psikiatrikoak bertan behera utzi izatearen aurrekariak izatea. 16. Biktimarekiko krudeltasunez eta mespretxuz jokatzeko eta damurik ez erakustea. 17. Indarkeriazko jokabidea zegoen egoeran zegoelako (alkohola edanda edo drogak hartuta) edo biktimak zirikatu ziolako izan zuela justifikatzea. |
| Biktimaren egoera ahula | 18. Azken hilabetean hiltzeko arriskuan egon izan daitekeela sentitzea. 19. Aurretik jarritako salaketak kentzen edo erasotzailea uzteko edo salatzeko erabakian atzera egiten saiatu izatea. 20. Biktima gaixo edo bakarrik egoteagatik edo erasotzailearen menpe egoteagatik izatea egoera ahulean. |

Iturria: Eusko Jaurlaritz. Herrizaingo Saila

Poliziaren babes neurriak abian jartzeko baldintzak edo betekizunak

Poliziaren babes neurriak martxan jartzeko, arrisku adierazleen eta hiru arrisku mailen arteko harremana ikusten da. Horrela, arrisku maila bakoitza zehazteko (oinarrikoa, handia edo berezia) adierazle kopuru zehatza behar da.

Arrisku egoeraren arabera hartzen diren neurri zehatzak

Arriskuaren balorazioa egiten denean, identifikatutako adierazleak gorabehera, hortik eratorritako arrisku maila zehazten da. Maila bakoitzerako poliziaren hainbat babes neurri ezarri dira. Horietako batzuk derrigorrezkoak dira eta aplikatu egin behar izango dira arrisku maila zehazten denean. Beste batzuk, ordea, hautazkoak dira eta erantzukizunen bat dutenek erabakitzen dutena gorabehera aplikatu ahal izango dira. Neurri horietako batzuk biktimei zuzendurikoak dira, eta beste batzuk, berriz, erasotzaileei zuzendurikoak.

Poliziaren babes neurriak martxan jartzea arrisku adierazleen eta hiru arrisku mailen artean dagoen harremanaren ondotik egiten da, hau da, arrisku mailaren gaineko balorazioa egin ondoren. Arriskuaren balorazioa eta poliziaren babes neurriak hartzea arriskua identifikatzea ahalbidetzen duen informazio berria dagoen bakoitzean egiten da.

Poliziaren babes neurriak erabakita, horiek aktibatu egin behar diren edo ez erabaki behar izango da. Hasiera batean, neurriak erasotzaileak kalez kale ibiltzeko askatasuna badu aktibatzen dira, hau da, erasotzailea atxiloturik, espetxean, ospitalean eta abarretan ez dagoenean. Edonola ere, erasotzaileak kalez kale ibiltzeko askatasunik ez badu eta poliziaren babes neurriak desaktibatuzko erabakia hartzen bada, desaktibatu egin diren poliziaren babes neurri horiek aktibatu egin behar izango dira berriro erasotzaileak kalez kale ibiltzeko askatasuna berreskuratzen duen unean bertan (jarraipena egiten da erasotzailearen egoera aldatzen den kasurako).

Halaber, neurriak desaktibatu daitezke kasua udaltzaingoak aztertzen duenean; edonola ere, kasua udaltzaingoaren ardurapean egon eta polizi kidego horrekin biktimari babes bateratua ematen ari bazaio, neurriak aktibatu egingo dira eta espedientean garatzen ari diren jardueren berri emango da.

Ertzaintzak egun jartzen dituen babes neurriak kasu hauetan hurrengoak izaten dira: 1.- Etengabeko ikuskapena egitea. 2.- Ohituren gaineko prebentzio jarduerak burutzea. 3.- Babes zonaldean prebentzio jarduerak gauzatzea. 4.- Babeserako jarduera zehatzak egitea. 5.- Biktimei bisita egitea aldizka. 6.- Erasotzailea ikuskatu eta jarraitzea. 7.- Telefonoz ausazko egiaztapenak egitea. 8.- Baliabide teknologikoak erabiltzea. Bortxa telefonoa eskaintzea. 9.- Lekualdatzeak egitea/Laguntza ematea. 10.- Norberak bere burua babesteko neurrietan trebatzea.

Adingabeen, gaitasun juridikorik gabeko pertsonen edo ezaugarri bereziak dituzten pertsonen kasuan, arriskua baloratu ondoren biktimaren inguruabarrei aplikatu beharreko poliziaren neurriak egokitu egiten dira.

Arriskuaren balorazioa egiteko lana eta poliziaren babes neurriak hartzea arriskua identifikatzea ahalbidetzen duen informazio berria dagoen bakoitzean egiten da.

Jarraian datorren taulan horrelako neurrien aplikazioa nola egiten den azalduko dugu, aldez aurretik zehaztutako arrisku mota gorabehera:

| ARRISKU MAILAK | POLIZIAREN BABES NEURRIAK |
|---------------------|---|
| OINARRIZKO ARRISKUA | <p><u>DERRIGORREZKOAK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Norbera babesteko neurrien inguruko trebakuntza ematea. ▪ Telefonoz ausazko egiaztatzeak egitea. <p><u>AUKERAKOAK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Biktimei bisita egitea aldizka. ▪ Lekualdatzeak egitea/Laguntza ematea. ▪ Babeserako jarduera zehatzak egitea. ▪ Babes zonaldean prebentzio jarduerak gauzatzea. ▪ Ohituren gaineko prebentzio jarduerak burutzea. ▪ Baliabide teknologikoak erabiltzea. Bortxa telefonoa eskaintzea. ▪ Erasotzailea ikuskatu eta jarraitzea. |
| ARRISKU HANDIA | <p><u>DERRIGORREZKOAK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Norbera babesteko neurrien inguruko trebakuntza ematea. ▪ Telefonoz ausazko egiaztatzeak egitea. ▪ Baliabide teknologikoak erabiltzea. Bortxa telefonoa eskaintzea. <p><u>AUKERAKOAK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Biktimei bisita egitea aldizka. ▪ Lekualdatzeak egitea/Laguntza ematea. ▪ Babeserako jarduera zehatzak egitea. ▪ Babes zonaldean prebentzio jarduerak gauzatzea. ▪ Ohituren gaineko prebentzio jarduerak burutzea. ▪ Erasotzailea ikuskatu eta jarraitzea. |
| ARRISKU BEREZIA | <p><u>DERRIGORREZKOAK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Norbera babesteko neurrien inguruko trebakuntza ematea. ▪ Telefonoz ausazko egiaztatzeak egitea. ▪ Baliabide teknologikoak erabiltzea. Bortxa telefonoa eskaintzea. <p><u>AUKERAKOAK:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Biktimei bisita egitea aldizka. ▪ Lekualdatzeak egitea/Laguntza ematea. ▪ Babeserako jarduera zehatzak egitea. ▪ Babes zonaldean prebentzio jarduerak gauzatzea. ▪ Ohituren gaineko prebentzio jarduerak burutzea. ▪ Erasotzailea ikuskatu eta jarraitzea. ▪ Etengabeko ikuskapena egitea. |

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arriskuaren balorazioa protokolo bidez zehaztea positiboki baloratu behar den inguruabarra da. Herrizaingo Sailak deskribaturiko protokoloaren helburua banan banako kasu bakoitzean hartzen diren polizi neurriak ahalik eta objektiboak izatea da. Hala eta guztiz ere, erakunde honi hainbat kexa adierazi dizkiote genero indarkeriaren biktima izan diren emakume batzuek. Ez daude ados beren segurtasuna bermatzeko jasotzen duten poliziaren laguntzarekin, zenbait kasutan eskasa iruditzen zaielako. Zentzu horretan baieztatu ahal izan dugu

biktimei ez zaiela kasu guztietan norberak bere burua babesteko trebakuntza ematen, Sailak arrisku maila guztietan derrigorrezkoa den neurria dela, eta, gainera, biktimaren babes objektiboaren eta subjektiboaren gaitasuna sendotzeko oso garrantzitsua izan daitekeela adierazi arren. Halaber, arrisku handiko edo bereziko mailetan dauden biktimei derrigorrez eskaintzen zaien Bortxa telefonoak egiten duen gauza bakarra Ertzaintzaren patruila bati berehala abisua pasako dion markatze laburtua dela diote, baina ez duela 112 zenbakiaren bitartez patruila bati presako abisua pasako dion ohiko telefono batetik ezberdinduko duen bilagailurik.

Ustez arrisku egoeran zeuden emakumeak babesteko 2007an poliziak izan dituen esku-hartzeei buruzko datuak eta 2007an polizia bulegoetan egin diren salaketak

Kontua da egun Euskadin poliziaren babesa duten emakumeak 24 direla, Herri-zaingo Sailak eskaintako datuen arabera. Datuak, lurraldeka, jarraian datorren taulan zehaztu dira:

| LURRALDEA | BABESTUAK | PROZESUAREN AMAIERA (babesa etetea erabakitzen duen organoa) |
|-----------|-----------|---|
| ARABA | 1 | 1 (1. ERTZAIN-ETXEA) |
| BIZKAIA | 15 | 7 (4. ERTZAINETXEA ETA 3. EPAITEGIA) |
| GIPUZKOA | 8 | 3 (2. ERTZAINETXEA ETA 1. EPAITEGIA) |

2. eta 3. zutabeen arteko balio aldearen arrazoa "etengabeko ikuskapenaren" neurria oraindik indarrean egotea da.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila

Egun EAEn ikuskatutako erasotzaile kopuruari dagokionez, guztira 21 direla esan beharra dago:

| ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|-----------------|----------|----------------|-----------|----------------|----------|
| Laguardia | 1 | Bilbao | 1 | Bergara | 2 |
| Laudio/Llodio | 1 | Basauri | 3 | Irun | 2 |
| Vitoria-Gasteiz | 1 | Durango | 1 | Tolosa | 1 |
| GUZTIRA | 3 | Getxo | 4 | GUZTIRA | 5 |
| | | Muskiz | 2 | | |
| | | Sestao | 2 | | |
| | | GUZTIRA | 13 | | |

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila

Arartekoak egindako "Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn" izeneko ezohizko txosteneko 26. gomendioak dioena kontuan hartuta, alegia, datuak erregistratu eta babesteko sistemak hobetu behar direla, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari ere informazioa eskatu diogu 2007an polizia bulegoetan gai horri buruz egin diren salaketen inguruan eta horiek izapidetzeko moduaren inguruan.

Herrizaingo Sailak Ertzaintzak jakindako urradura penalei buruzko datuak eman zizkigun, eta horrek zalantza sorrarazten du berriz ere kidego horri ezezagunak zaizkion datuen gainean.

Jarraian oso interesgarriak suerta daitezkeela uste dugun datu horiek islatuko ditugu:

2006-2007 ARTEKO ALDERAKETA. EAen SEXU ASKATASUNAREN KONTRAKO DELI-TUENGATIK BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN BIKTIMIZAZIOAK, GERTAKARI MOTAREN ETA EGILEAREKIKO HARREMANAREN ARABERA

| | EGILEAREKIKO HARREMANA | | | | | | | | | |
|--------------------------------------|-------------------------|--------------|-----------------|--------------|-----------------------------|-------------|---------------------|------------|----------------|------------|
| | Ezkontidea edo antzekoa | | Alaba adingabea | | Beste familia-loturaren bat | | Beste loturaren bat | | GUZTIRA | |
| GERTAKARI MOTA | 06 07 | ALDEA | 06 07 | ALDEA | 06 07 | ALDEA | 06 07 | ALDEA | 06 07 | ALDEA |
| Sexu askatasunaren aurkakoa | 15 10 | -33,3 | 5 2 | -60,0 | 11 15 | 36,4 | 225 247 | 9,8 | 256 274 | 7,0 |
| Sexu erasoa | 14 10 | -28,6 | 4 1 | -75,0 | 9 6 | -33,3 | 123 105 | -14,6 | 150 122 | -18,7 |
| Sexu abusua | 1 - | -100,0 | 1 1 | - | 2 9 | 350,0 | 80 112 | 40,0 | 84 122 | 45,2 |
| Sexu jazarpena | | - | - | - | - | - | 11 2 | -81,8 | 11 2 | -81,8 |
| Exhibizionismoa eta sexu probokazioa | - | - | - | - | - | - | 10 22 | 120,0 | 10 22 | 120,0 |
| Adingabeak galbideratzea | - | - | - | - | - | - | - 3 | - | - 3 | - |
| Prostituzioa | - | - | - | - | - | - | 1 1 | - | 1 1 | - |
| Adingabeen pornografia | - | - | - | - | - | - | - 2 | - | - 2 | - |
| GUZTIRA | 15 10 | -33,3 | 5 2 | -60,0 | 11 15 | 36,4 | 225 247 | 9,8 | 256 274 | 7,0 |

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila

| EGILEAREKIKO HARREMANA | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|--|-------------------------|--------------|-------------|--|-----------------|------------|--------------|--|------------|------------|-------------|--|-----------------------------|------------|--------------|----|---------|--------------|--------------|-------------|-------|
| | Ezkontidea edo antzekoa | | | | Alaba adingabea | | | | Ama | | | | Beste familia-loturaren bat | | | | Guztira | | | | |
| | 06 | 07 | ALDEA | | 06 | 07 | ALDEA | | 06 | 07 | ALDEA | | 06 | 07 | ALDEA | | 06 | 07 | ALDEA | | |
| GERTAKARI MOTA | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Familia-harremanen aurkako delituak | 65 | 71 | 9,2 | | 23 | 26 | 13,0 | | - | 1 | | | | | | 6 | 4 | -33,3 | 94 | 102 | 8,5 |
| Zaintzeko betebeharrak haustea | 21 | 22 | 4,8 | | - | 1 | | | | | | | | | | - | | | 21 | 23 | 9,5 |
| Adingabea bizilekua uztera eramatea | - | 1 | | | - | | | | | | | | | | | 1 | | -100,0 | 1 | 1 | - |
| Adingabea eramatea | 2 | 7 | 250,0 | | 1 | 2 | 100,0 | | | | | | | | | 3 | 2 | -33,3 | 6 | 11 | 83,3 |
| Familia uztea | 13 | 22 | 69,2 | | 6 | 8 | 33,3 | | | 1 | | | | | | 2 | 2 | | 21 | 33 | 57,1 |
| Prestazio ekonomikoak ez ordaintzea | 29 | 19 | -34,5 | | 2 | | -100,0 | | | | | | | | | - | | | 31 | 19 | -38,7 |
| Adingabea uztea | - | | | | 14 | 15 | 7,1 | | | | | | | | | - | | | 14 | 15 | 7,1 |
| Justizia administrazioaren aurkako delituak | 455 | 503 | 10,5 | | 1 | 2 | 100,0 | | 28 | 56 | 100,0 | | 28 | 56 | 100,0 | 22 | 34 | 54,5 | 506 | 595 | 17,6 |
| Segurtasun neurria edo kautelazkoa, zigorra, etab. ez betetzea | 455 | 503 | 10,5 | | 1 | 2 | 100,0 | | 28 | 56 | 100,0 | | 28 | 56 | 100,0 | 22 | 34 | 54,5 | 506 | 595 | 17,6 |
| DELITUAK, GUZTIRA | 2.642 | 2.939 | 11,2 | | 87 | 108 | 24,1 | | 245 | 325 | 32,7 | | 282 | 363 | 28,7 | | | 3.256 | 3.735 | 14,7 | |
| Pertsonen kontrako faltak | 240 | 284 | 18,3 | | 3 | 11 | 266,7 | | 17 | 16 | -5,9 | | 184 | 159 | -13,6 | | | 444 | 470 | 5,9 | |
| Lesioengatikoa falta | 10 | 8 | -20,0 | | 1 | | -100,0 | | 8 | 6 | -25,0 | | 86 | 67 | -22,1 | | | 105 | 81 | -22,9 | |
| Laidoengatikoa falta | 9 | 9 | | | - | 1 | | | 1 | 1 | | | 3 | 9 | 200,0 | | | 13 | 20 | 53,8 | |
| Mehatxuengatikoa falta | 43 | 35 | -18,6 | | - | 1 | | | 4 | 9 | 125,0 | | 68 | 50 | -26,5 | | | 115 | 95 | -17,4 | |
| Derrigortzeengatikoa falta | 22 | 39 | 77,3 | | 1 | 1 | | | 3 | | -100,0 | | 19 | 24 | 26,3 | | | 45 | 64 | 42,2 | |
| Irainengatikoa falta | 14 | 5 | -64,3 | | - | | | | - | | | | 4 | 3 | -25,0 | | | 18 | 8 | -55,6 | |
| Laguntzeko betebeharrari jaramonik ez egiteagatikoa falta | - | | | | - | | | | 1 | | -100,0 | | 1 | | -100,0 | | | 2 | | -100,0 | |
| Gurasoen adingabeen zaintza urratzeagatikoa falta | 60 | 97 | 61,7 | | 1 | 4 | 300,0 | | | | | | 2 | 3 | 50,0 | | | 63 | 104 | 65,1 | |
| Dibortzioan, banantzean... hitzarmen/era-baki judiziala ez betetzeagatikoa falta | 82 | 91 | 11,0 | | - | 4 | | | | | | | 1 | 3 | 200,0 | | | 83 | 98 | 18,1 | |
| FALTAK, GUZTIRA | 240 | 284 | 18,3 | | 3 | 11 | 266,7 | | 17 | 16 | -5,9 | | 184 | 159 | -13,6 | | | 444 | 470 | 5,9 | |
| GUZTIRA | 2.882 | 3.223 | 11,8 | | 90 | 119 | 32,2 | | 262 | 341 | 30,2 | | 466 | 522 | 12,0 | | | 3.700 | 4.205 | 13,6 | |

Argitu beharra dago emakumearen kontrako indarkeriaren datuek etxeko indarkeriaren eta sexu askatasunaren kontrako delituen biktima izan diren emakumeen biktimizazioak biltzen dituztela. Lege urradura horiek eraturako multzoari esaten zaio genero indarkeria. Urradura-moten sailkapena indarrean dagoen Zigor Kodearen arabera egiten da. Etxeko indarkeriaren atalak hurrengoak bezalako mota penalak biltzen ditu: gizahilketak, lesioak, tratu txarrak, mehatxuak, derrigortzeak eta familiaren eremuarekin zerikusia duten beste urradura batzuk (haurren zaintza urratzea, familia uztea, adingabea eramatea, babes aginduak urratzea, prestazioak ez ordaintzea, etxean indarrez sartzea...). Sexu askatasunaren aurkako delituek, bestalde, hurrengoak biltzen dituzte: sexu erasoak, sexu abusuak, jazarpena, exhibizionismoa eta sexu probokazioa nahiz adingabeak galbideratzea.

Delituen eta faltan arteko bereizketa, halaber, aipatutako Zigor Kodean ezarritakoaren ondotik egiten da. Ondorioz, urratze larriek delitu kalifikazioa izango dute eta arinenek, berriz, falta izatearena.

Etxeko indarkeria esaten da biktimaren eta egilearen arteko harremana bikotekoa edo familiakoa denean. Sexu askatasunaren kontrako delituei buruzko datuek, gainera, biktimaren eta egilearen arteko harremana familiaren eremutik kanpo (lanean, auzokoak, ikasketak, bat ere ez...) kokatzen diren kasuak ere biltzen dituzte.

Biktimatzat hartzen dira gorputzean nahiz ondasunetan lege urradura penal zuzena jaso duten pertsona fisikoak. Biktima izateari dagokionez, ez da kontuan hartzen titular izan gabe enpresa edo pertsona juridiko baten izenean jarduten duen pertsona. Biktimizazioen estatistikak kontuan hartzen ditu urratze penal baten xede izandako eta Ertzaintzaren erregistroetan herritarren salaketa bidez edo atestatu bidez horrela erregistraturik geratu diren aldi guztiak. Adibidez, pertsona berdinak jasandako mehatxuengatik jarritako salaketan kasuan, horietako bakoitzak biktimizazio bat sorrarazten du.

Datu horietan Euskal Autonomia Erkidegoan, adierazitako aldian, jazotako gertaerengatiko urradurak biltzen dira.

C. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako telefonoa

Herritarrek adierazitako kexa ezberdinen eta informazio eskaeren ondotik interesa agertu dugu ere Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak kudeatzen duen indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko telefonoaren funtzionamendua ezagutzeagatik.

Helarazitako erantzunean, aipatutako Sailak dio Telefonoz Laguntzeko Zerbitzuaren helburua egunean 24 orduz etengabeko telefono bidezko laguntza ematea dela etxeko edo sexu indarkeriaren biktima direnei, berehalako erantzuna emanez. Autonomikoa eta doakoa izanda, telefono honek laguntza emozionala, informazioa eta orientazioa eskaintzen die biktima diren emakumeei. Helburua komunitateko zerbitzuen partetik arreta osoa jasotzen hastea, babestea edo laguntzea izango litzateke.

Helburu nagusia biktima diren emakumeentzako babesa izatea da, eta, zentzu horretan, egoera sorta zabala betetzen du genero indarkeriari uztartutako arazoan alorrean. Horrela, komunitateko arreta sareetara iristeko zailtasunak dituzten emakumeak nahiz autonomia lortzeko prozesuaren fase aurreratuetan egon baina baliabidea babes eta sostengu modura erabiltzen dutenak hartzen laguntzen dute. Bigarren helburu bat

beste baliabide batzuekiko koordinazioa litzateke; horrek, jarduerak elkarrekin lotzea ahalbidetzez gain, errealitate ezberdinak ezagutu eta alderatzeko metodo modura balio izan du tratu txarren arazoan eta hura jorratzeko moduaren gain. Zerbitzu honetan bost pertsonak eskaintzen du laguntza: hiru psikologok (bi emakumek eta gizon batek), gizarte hezitzaile batek eta gizarte langile batek. 2007an zehar, 2.673 dei jaso dira: %66,42 Bizkaian, %15,73 Gipuzkoan eta gainerako %7,6a Araban.

Telefonoak, kasuen %75en, indarkeriaren biktima zuzenak diren emakumeen deiak jaso ditu. Bereziki interesgarria iruditzen zaigu Sailak hiru kasu ezberdinen artean egiten duen bereizketa:

- Anbibalentzia moduan telefonora deitzen duten emakumeak, tratu txarren biktima izatearen kontzientzia agertu gabe, itxuraz behintzat. Gehienetan harremanetan eta tratu txarretan muturreko desberdintasun egoerekin lotu ohi den egonezina planteatzen dute. Askotan zerikusia izaten du tratu txar psikologikoekin.
- Bigarrenik, tratu txarren egoeraz jabetzen diren emakumeak. Aitzitik, ez dute laguntza eskatzeko edo salaketa jartzeko prozesurik hasi eta eman ditzaketen urratsei buruzko informazioa edota, besterik gabe, norbaitek haiek entzutea bilatzen dute. Oraindik, arrazoi ezberdinak direla-eta (beldurra, segurtasun eza, babes falta), erreakzionatu ez duten emakumeak dira, baina isiltasunaren katea apurtu dute hasiera batean konpromiso aktibo eskasa eskatzen duen zerbitzu honetara jotzearekin.
- Azkenik, tratu txarrak ematen dituenaren aurka salaketa prozesuak edo jarduerak hasi dituztenak egongo liriateke. Haiek aholkularitza, laguntza edo entzuna izateko eremua bilatzen dute. Horri esker, beste jarduera batzuekin konbinatuta, gai dira aurrerantz egiten jarraitzeko.

Kasu guztietan, emakumeak emozionalki husten amaitzen dute. Ondorioz, gehien egiten den jarduera emozionalki eusteko arreta psikosoziala da (%42), atzetik informazioa eta aholkularitza (%32) eta emakumeak hasitako prozesuan laguntza eskaini eta hura jarraitzea (%23) izanez.

Bestalde, adierazi digute 2007an zehar areagotu egin dela telefonoz laguntzeko zerbitzutik laguntza jaso duen emakume kopurua (2006ko %3tik 2007ko %23ra). Horrelako jarraipenei esker posible da babes psikologikoa eta aholkularitza izango duten esku-hartze intentsiboak egitea tratu txararen biktima den emakumea, hain zuzen ere erasotzailearengandik banantzeko prozesu judizialari edo beste mota batekoari jada ekin dion emakumea, bere egoeraz jabetzeko gai izan arte bere kabuz.

Halaber, artatutako kasuen %30 emakumeei laguntzeko beste baliabide batzuetara eramanez izan direla adierazi digute, esate baterako zerbitzu juridikoetara, gizarte zerbitzuetara eta emakumeen berdintasunerako eremuetara atxikitako zerbitzu espezializatuak eta, neurri txikiagoan, zerbitzu psikologikoetara, elkartetara eta GKEetara, larrialdiko gizarte zerbitzuetara, polizia zerbitzuetara eta osasunaren eremukoetara. Ahal denean, eramate horiek txosten batekin egiten dira eta, egokia irizten bada, baita esku-hartze proposamen batekin ere. Gainerako %70ari dagokionez, adierazi digute oraindik laguntza eskatzeko prozesurik hasi ez duten emakumeak edo kasuan kasuko tokietan erasotzailearengandik banantzeko jarduera egokiak hasi ondoren laguntza jasotzen ari direnak direla.

Txostenean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak esku-hartzeko barne protokoloa deskribatzen du. Haren helburua, orokorrean, arreta egokia bermatzea da; horrek, egoeraren gaineko baloraziotik abiatuz, erabiltzaileei orientazioa eta aholkularitza ematea ahalbidetzen du, eta, egoki irizten bada, baliabide egokienetara bideratzea. Halaber, Euskadin dauden baliabide publiko nagusiekin koordinatzeko protokoloak ere landu direla adierazi ziguten. Hori oso garrantzitsua da, are gehiago kontuan izanda gai honetan sumatutako gabezia askok zerikusia dutela baliabideen arteko koordinazioko zailtasunekin.

Orokorrean, balorazio positiboa egin daiteke baliabide honen gainean. Hura, adierazitako datuak ikusita, nahikoa intentsitatearekin erabiltzen ari da jada, orain dela gutxi abiarazi zela kontuan hartuta.

D. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitza babes-tuen kupoak

Gure ustez genero indarkeria jasan duten emakumeen babes prozesuan oso garrantzitsua den beste alde bat emakumeek etxebizitza eskuratu ahal izatea da eraso-tzailearengandik banantzean, eta, horrelakorik badago, seme-alabak gizarte ahultasun izugarriko egoeran geratzen direnean eta, segurtasun arrazoiak direla medio, beren etxebizitza utzi behar izaten dutenean edo hura utzi behar izatean erasotzailearengandiko banantze prozesuan.

Arrazoi hori dela-eta, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari informazioa eskatu genion 2005etik eremu honetan dauden jardun positiboko neurrien inguruan –gaia arautzen duen araua 2006koa izan arren (2006ko urriaren 4ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa), aurretik jarri zen martxan jarduera-protokoloa genero indarkeriaren biktima ziren emakumeei horrelako neurriekin babesteko–. Martxan jarri zenetik, neurri horien aplikazioaren errealitatearen berri eman izan dugu urtero Legebiltzarrari aurkeztutako gure txostenean eta aurtun, berriz ere, genero indarkeriaren biktima izanda 2007an zehar talde horri zuzendutako alokairuko etxebizitzaren kupo berezian sartu den edo sail horren zuzeneko etxebizitza esleipenaren onuradun izan den emakume kopuruari buruzko datuak ezagutu nahi izan ditugu berriro ere. Horretarako, lurralde jatorria, onartu eta gaitzetsitako eskaerak, etxebizitza esleitzeko inguruabarrak (harrera-baliabideen jatorria edo ez, gizarte zerbitzuen txostenaren izapidetzea, betekizun orokorrentzako salbuespena eta abar), zuzeneko esleipen kopurua eta kupo berezian sartu den emakume kopurua, kupo berezian sartzen diren emakumeek benetako esleipenera bitarte itxaron behar duten denbora (azkenean esleitzen bazaie), bizikidetzako unitate mota (seme-alabekin edo mendeko pertsonekin edo ez), neurri horiez gozatzen duten emakumeak, egun etxebizitza zain dagoen emakume kopurua genero indarkeriaren kupo bereziaren barruan, eta neurri horien esparruan esleitutako etxebizitzaren alokairuagatik errenten batez besteko maila bereiztea nahi izan ditugu.

Erantzunean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak gogorarazi zigun genero indarkeriaren biktima diren emakumeen batek etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriez

gozatu ahal izateko (Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Aginduak araututa) beharrezkoa dela hura etxebizitza-eskatzailen erregistroan (Etxebide) alta emanda egotea eta, horretarako, baldintza batzuk bete behar dituela. Etxebizitza falta izatearen betekizuna betetzetik salbuetsi daiteke ezohiko kasuetan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren berariazko aginduaren bitartez. Zentzu horretan, etxebizitzarik ez izatearen betekizuna salbuesteko 8 agindu kudeatu dira, 1 Araban, 5 Bizkaian eta 2 Gipuzkoan 2007. urtean.

Guraso bakarreko unitateei edo genero indarkeriaren biktima direnei alokairuko etxebizitza esleitzeko kupo bereziari dagokionez, 2007an zehar 61 emakumek guraso bakarreko kupoan sartzea eskatu dute genero indarkeriaren biktima izateagatik. Horietatik 51ri alta eman diete jada eskatutako udalerrietako zozketetan parte hartu ahal izateko. Onartutako 51 eskaera horietatik 32 Bizkaitik datoz, 10 Arabatik eta 9 Gipuzkoatik. 2007an zehar hiru zozketa bakarrik egin dira eta horietatik bakar batean ere ez dute emakume hauek parte hartu, ondorioz, bakar batek ere ez du bide hau erabili etxebizitzarik eskuratu. Zozketa batean parte hartzeak ez du bermatzen, noski, etxebizitza eskuratuko denik, baizik eta genero indarkeriaren biktima diren emakumeek aukera gehiago dituztela dauden kupoetan sartzen ez diren gainerako eskatzailen aldean. Ikus daitekeen bezala, emakume hauek etxebizitza eskuratzea lortzeko mekanismo honen eraginkortasuna baldintzaturik dago haiek etxebizitza eskatutako toki zehatzetan sustapenak egotearekin.

Zuzeneko esleipenei dagokionez, 13 eskaera aurkeztu dira eta horietatik 2 gaitzetsi egin dira tratu txarrak ematen dituenarekin zuen bizikidetzaren ez apurtzeagatik eta emakume eskatzailen benetako emantzipaziorako beharrezkoak diren gaitasunekin zerikusia duten beste zailtasun batzuegatik (Jaurlaritzak ez ditu zehaztu). Eskaerak Bizkaiko Foru Aldundiak eta udaletako gizarte zerbitzuek egin dituzte. Horietatik 6 Araban egin dira (2 Gasteizko Udalak eta 1 Amurriokoak), 5 Bizkaian (1 Muskizeko Udalak, 1 Basaurikoak, 2 Bilbokoak eta 1 Bizkaiko Foru Aldundiak) eta 2 Gipuzkoan (1 Tolosako Udalak eta 1 Donostiakoak). Onetsitako 11 eskaeretatik 9 esleitu dira jada eta 2 izapidetze bidean daude.

Etxebizitza-esleipen guztiak alokairu erregimenean izan dira eta batez besteko hileko prezioa 285 eurokoa da.

Sailari adierazi diogu, orobat, zera jakin nahi genukeela: ea sail hori delako aruari buruzko informaziorik ematen ari zaien indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko gizarte zerbitzuek arduratzen diren udal edo foru bulegoei eta ea, agindua aplikatze aldera, horiekin koordinazio lanetan ari den.

Horri dagokionez, Sailak adierazi digu etxeko tratu txarren eta sexu erasoaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko Akordioaren Erakunde Arteko Batzordearen Talde Teknikoan duen parte-hartzeari esker tratu txarren biktima diren emakumeen arretan esku hartzen duten agenteak jakinaren gainean jarri dituela, udal eta aldundiak batez ere. Haiei Sailak etxebizitzaren arloan egindako ekintza positiboko neurriak jakinarazi zaizkie. Bestalde, emakumeen kontrako etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren aurrean profesionalak jarduten jakiteko Gidan Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren arloan ezarritako laguntzak agertzen dira. Gida hori aipatutako Erakunde Arteko Batzordean landu zen eta nabarmen barreiatu; egun oinarritzako baliabidea da eremu zehatz honetan lan egiten duen profesional ororentzat.

E. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak harreran hartzeko baliabideak 4/2005 Legea egokitzea

2007ko irailean indarrean jarri zen 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktima diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituena. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, orokorrean, jada zehazturiko eskakizunak garatu zituen araua da. Arau hori indarrean berriki jarri denez, momentuz ezinezkoa da aipatutako arauan adierazitako betekizunen gaineko betetze mailaren balorazioa egitea lurralde autonomiko osoan. Horien aplikazioa, arrazoi hori dela-eta, datorren ekitaldian ebaluatu ahal izango da hobeki. Beharrezkoa da kontuan izatea tratatu txarren biktima diren emakumeen harrerarako baliabideen kudeaketa foru eta tokiko administrazioen gizarte laguntzaren gaian eskudun diren organoek egiten dutela. Hala eta guztiz ere, Emakundera jo genuen egun Euskadin dauden harrera-baliabideen egoera kuantitatibo orokorra behintzat ezagutzeko. Halaber, genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat sendatzeko eta gizarteratzeko intentsitate handiko zentroa sortzea ezartzen zuen 4/2005 Legearen ezarpenaren betetze mailaren berri izan nahi genuen, kontuan izanda aipatutako erakundea gaia bultzatzen duena dela eta, gainera, eremu horretan euskal herri administrazio ezberdinek bideratutako jardueri buruzko informazio zentralizatua izan dezakeena dela.

Horrela, indarkeriaren biktima diren emakumeentzat egun EAEn dauden harrera-baliabideen kopuruari eta ezaugarriei dagokienez, hona hemen Emakundek bidalitako datuak:

Gure autonomia-erkidegoan, erakunde pribatuen menpekoak direnez gain, 56 etxebizitza eta harrerako zentro zehatz eta erabilera anitzeko daude, foru aldundiek eta kasuan kasuko toki entitateek kudeaturikoak. Horietan etxeko tratatu txarren biktimak hartzen dira. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, etxebizitza horiek honela banatzen dira lurraldeka: 19 Arabako Lurralde Historikoan, 16 Bizkaikoan eta 21 Gipuzkoakoan.

| EGOITZA BALIABIDEAK | | | |
|-----------------------------|----------------------|-------------------------------|-----------------|
| | TITULARTASUNA | Kop. | |
| LURRALDE HISTORIKOAK | ARABA | Arabako Foru Aldundia | 2 |
| | | Gasteizko Udala | 16 |
| | | Laudioko Udala | 1 |
| | BIZKAIA | Bizkaiko Foru Aldundia | 2 |
| | | Bilboko Udala | 7 |
| | | Basauriko Udala | 2 |
| | | Ermuko Udala | 1 |
| | | Galdakaoko Udala | 1 |
| | | Santurtziko Udala | 1 |
| | | Sestaoko Udala | 1 |
| | | Busturialdeako Mankomunitatea | 1 |
| | | GIPUZKOA | Andoaingo Udala |
| | Arrasateko Udala | | 1 |
| | Beasaingo Udala | | 1 |
| | Eibarko Udala | | 1 |
| | Hernaniko Udala | | 1 |
| | Lasarte-Oriako Udala | | 1 |
| | Errenteriako Udala | | 1 |
| | Usurbilgo Udala | | 1 |
| | Asteasuko Udala | | 1 |
| | Azpeitiko Udala | | 1 |
| | Donostiako Udala | | 5 |
| | Irungo Udala | 2 | |
| Pasaiaiko Udala | 1 | | |
| Tolosako Udala | 2 | | |
| Zarauzko Udala | 1 | | |

Iturria: Emakunde

Harrera-zentroen eta etxebizitzien eskaintza, gainera, larrialdiko eta presako harrerako beste zerbitzu batzuekin osatzen da. Horien helburua gizarte zerbitzuen ohiko funtzionamendu ordutegitik kanpo jazotzen diren segurtasuneko eta ostatuko eskaera larriei erantzutea da.

Gasteizen, Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua dago. Bertan, lehenengo arreta eskaintzen da eta biktimak harrera-zentroetara bideratzen dira. Zerbitzua Arabako Lurralde Historiko osorako eskaintzen da, eta 8:00etatik 22:00etara langileak bertan egoten dira. Eguneko gainerako orduetan, berriz, haiek topatzeko moduan izaten dira "bilagailura" abisua bidaliz (tel.: 945 13 44 44). Zerbitzu hau eskuratzeko, halaber, Udalak xede hauetarako duen 24 orduko informazio eta bideratze telefonoa erabil daiteke: 900 70 17 00.

Bizkaiari dagokionez, Bilboko Udalak Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua du, batetik. Gasteizkoaren antzera funtzionatzen du, hau da, 8:00etatik 22:00etara langileak bertan egonda eta gaueko txandan telefono bidez topatzeko moduan izanda (94 470 14 60). Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren menpeko Larrialdietarako Harrera Zerbitzua dago. Horren bidez, gizarte zerbitzuen ohiko ordu-

tegitik kanpo ostatu behar izan dezaketen emakumeak harrera-zentro batean hartzen dira. Baliabide hori eskuratzeko bidea 112 da (SOS DEIAK).

Gipuzkoan, Donostiako Udalak Berehala Kasu Egiteko Bizitokia du (telefonoa: 943 48 14 00). Lurralde historiko osorako, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Larrialdietako Zerbitzua du. Haren ordutegia 15:00etatik 8:00etara bitartekoa da lanegunetan eta egun osokoa larunbat eta jaiegunetan. Zerbitzu horrek lehenengo laguntza eskaintzen die tratu txarren biktima izandakoei bertan egonez, eta, aldi berean, laguntza lana garatzen du haiek kasuan kasuko harrera-baliabideen eskuetan utzi arte. Horiek hurrengo telefonoen bitartez eskura daitezke: 943 22 44 11 eta 112.

148/2007 Dekretuaren 2.2 eta 8.2 artikuluetan jasotako sendatzeko eta gizarteratzeko intentsitate handiko zentroaren ezarpenari dagokionez (hura sortzea Eusko Jaurlaritzari egokitzen zaio), Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak adierazi zigun 2008ko aurrekontuetan beharrezko baliabide ekonomikoak gorde dituela adierazitako artikuluek aipatutako sendatzeko eta gizarteratzeko intentsitate handiko zentro esperimentalala martxan jartze aldera.

F. Arlo honetako kexa nabarmenenak

Orokorrean, esan dezakegu Arartekoak gai honetan izandako esku-hartzearen norabidea, batez ere, emakume batzuei informazioa ematearena izan dela, administrazio ezberdinek erasotzailearekiko autonomia-egoera lortzearen alde egiteko dituzten neurri ezberdinei buruz. Zehazki, hori da babestutako etxebizitza eskuratzeko neurriei buruzko kexa batzuekin gertatu dena. Testuinguru horretan deigarria da emakume baten arazoa planteatu zigun kasua. Haren erasotzailea anaia bera izan zen; hari 7 hilabeteko espetxe zigorra ekarri zuen epaia egokitu zitzaion eta handik ateratzean kexagilea familiaren etxea (aitaren etxea) uztera bultzatu zuen, gurasoen jarrera kexaren adierazlea bertan geratzearen aurkakoa izateagatik judizialki anaia salatu izan eta gero. Gurasoek anaia babesten zuten. Kontua da kexagilea, laneko egoera ezegonkorrean dagoen emakume gaztea, lehen aipatutako indarkeriaren aurkako emakumeentzako etxebizitza babestuen lehentasuneko bidera sartzeko aukerarik gabe zegoela, erasotzailea ez zelako senarra edo bikotea eta, ondorioz, 2006ko urriaren 4ko Aginduaren aplikazio eremutik kanpo geratzen zen. Etxebizitzaren gaiari txosten honetan egokitutako atalean jorratu dugu jada gai hau, eta hari heltzen diogu. Gure ustez, deskribaturiko kasuak argi uzten du beharrezkoa dela arauaren aplikazio eremu subjektiboa aldatzea eta, bikotekidearengandik edo bikote ohiarengandik eraso jaso ez badute ere, etxeko eremuan tratu txarrak jaso dituztenei zabaltzea, kontuan izanda hori dela etxebizitzaren behar berezi eta larria funtsean zehazten duena. Ondorioz, horietara iristeko ekintza positiboko neurriak beharrezkoak dira.

Hala eta guztiz ere, urruntze aginduen kasuan edo epai irmoaren aurretik erasoak izan diren kasuan ezarri behar diren segurtasun neurrien gaiarekin zerikusia zuen kexaren bat edo beste ere jaso dugu. Gai konplexua da, Ertzaintza delako arriskuaren eta segurtasuna bermatzeko neurri egokien balorazioa egin behar duena. Indarkeriaren biktima izandako emakume batek Ertzaintzak hartutako neurriekiko duen desadostasuna planteatu zigun kexa bat izapidetze fasean dugu egun. Neurriak eskastzat jotzen ditu kexagileak.

Horrekin guztiarekin zerikusia izanda, bikotekidearen erasoan biktima izandako emakume batek poliziaren partetik jasotako tratuari buruzko kexa ere planteatu izan digute. Kexagileak Getxoko Udaltzaingoan eta, gero, Ertzaintzan salaketa jartzeko topatutako zailtasunak salatu zituen, antza, atzerritarra izateagatik. Kexa hori ere izapidetze fasean dago, eta xehetasun handiagoz heldu diogu txosten honetako herri-zaingoaren eremuan.

Behin eta berriro agertzen den beste gai batek indarkeriaren biktima izan diren emakumeen seme-alaben zaintza eta ardurapeari heltzen dio. Horrek neurri judizialak aplikatzearen eremuan kokatzen gaitu. Normalean, kasu hauetan zaintza emakumeei egokitzen zaie aitentzat bisita-erregimena mantenduta, eta hori da arazo gehien planteatzen dituen. Ondorioz, esku hartzeko hainbat eskaera jaso ditugu seme-alabak amaren erasotzaile izandako aitarekin benetako arrisku egoeran ikusten zituzten emakumeen partetik, seme-alabak emakumea mintzen jarraitzeko baliabide modura erabiltzeagatik. Kasu askotan tutoretza-erregimena ezartzen zaie bisita horiei, eta derrigorrezkoa izaten da horiek familia biltokietan izatea. Kasu hauetan esku hartzeko gure aukerak mugatuak izaten dira, justiziaren eremuan gaudelako. Hala eta guztiz ere, biltoki horien funtzionamenduaren gaineko jarraipenean esku hartu dugu. Iazko txostenean adierazi genuen jada emakume batzuk, seme-alaben segurtasun faltaz gain, biltoki horietako batzuen objektibotasun falta ere salatzen zutela. Horiek, organo judizialei bisitak zein baldintzatan gauzatu diren jakinarazterakoan, zaintzailea ez den gurasoaren aldeko justifikaziorik gabeko jarrera hartuz jarduten dute (aitaren alde normalean), eta horrek beste aldea (ama) nabarmenki kalte dezake ezkontideen banantzeagatik martxan egon daitezkeen prozedura judizial zibiletan. Zehazki Gipuzkoan planteatu digute egoera hori. Bertan, Administrazioaren esku-hartzea gaiaren finantzaketari mugatzen zaio, zentroen funtzionamenduaren gaineko benetako kontrolik izan gabe. Gaiaren gainean dugun ikuspegia Eusko Jaurlaritzari helarazi diogu. Hark, etorkizun hurbilean, biltokiak arautzeko euskal dekretua argitaratzea aurreikusi du. Edonola ere, aurten Euskadiko biltokien errealitatearen gaineko jarraipena egiten saiatu gara, eta horren emaitza adingabeei buruzko txosten honetako atalean zabal zehaztu dugu. Atal horri heltzen diogu gaiaren gaineko informazio xehatuagoa izateko.

Genero indarkeriaren gaiaren eragin zuzena edo zeharkakoa duten beste gai batzuei ere justiziaren eremuari buruzko txosten honen atalean helduko diegu.

3. Sexuagatiko bereizkeria ezabatzea: herri administrazioen jarrera

Arartekoaren eginkizun nagusia herri administrazioek oinarrizko eskubideak (besteak beste, berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ez jasateko eskubidea) ez urratzea da. Horregatik, arlo honen esparruan garatzen dugun jardueraren zati bat herri-administrazioen jarrera zaindu eta kontrolatzea da, sexu batekoa nahiz bestekoa izateagatik egon daitezkeen bereizkeriei aurre egiteko.

Aurten sexuagatiko bereizkeriako kasuak herri administrazioei egotz diezazkieketen kexak ez dira asko.

Horien artean azpimarratzekoa da haurdun zegoen emakume batek adierazitako kexa. Hark gure esku-hartzea eskatu zuen sexuagatiko bereizkeria-egoeran zegoela sentitzen baitzuen, **seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi laburtua hartzen duten langileei emaniko laguntzetan gizonak eta emakumeak jasotako kopurua ezberdina zelako**. Kexagileak hortik gutxira, semea edo alaba jaiotakoan, lanaldi laburtua hartzeko asmoa zuen eta bereizkeriatzat jotzen zuen eta ez zuen ulertzen laguntza horien eskatzailea aita izatean horiek altuagoak izatea gizonetako bati zuzendurikoak izate soilagatik. Hain zuzen ere, kexaren adierazlea lanerako laguntzak arautzen dituen uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuan jasotako laguntzei buruz ari zela ikusi genuen (horren bidez, aurreko araudia aldarazi zen, alegia, abenduaren 23ko 329/2003 Dekretua aldarazi zuen irailaren 13ko 293/2005 Dekretua). Arau horrek kopuru bereizketa jasotzen du artikuluetan laguntzagatik jaso beharreko kopuruetan eta eskatzailearen sexua gorabehera. Ondorioz, gizonetako egokituriko laguntzak emakumei egokiturikoak baino altuagoak dira. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailari zuzendu gintzaizkion kexaren nondik norakoak jakinaraziz, eta, orain dela gutxi, haien erantzuna jaso dugu. Bertan, tratu ezberdin hori defendatu egiten da seme-alaben zaintzan gizonetako erantzukizun partekatuen alde egiteko ekintza positiboko neurria dela adieraztearen babesean. Egun erantzun hori aztertzen ari gara, espediente honi amaiera emango dion ebazpena egiteko.

Azpimarra dezakegu kexa horrek zalantzak planteatzen dizkigula, araudian pertsonen sexuagatiko tratu ezberdina ematea irregularra izan daitekeelako, batez ere kontuan hartuta Konstituzioaren 14. artikuluan zehazki jasotako bereizkeria dela-eta sexuagatiko bereizkeria debekatu egiten dela. Ondorioz, uste dugu bereizketa hori bereizkeriaren arabera aztertu behar dela, arauak ezarritako tratu berdintasunaren gabezia legitimoa bihurtzen duen justifikazio objektibo eta bidezkorik ba ote dagoen ebaluatzeko xedez. Beste era batera esatearren, esku artean dugun gaiaren ebaluazio juridikoa berdintasun printzipioaren helmenean eta justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa izateagatik printzipio horren salbuespen direnen helmenean kokatu behar da gure ustez. Zehazki, baloratu beharrekoa da –gure informazio eskaerari erantzunez Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak adierazten digun modura– ea benetan ekintza positibo baten aurrean gauden eta, horrela bada, zeintzuk dira tratu ezberdin horren mugak gure sisteman kategoriatan edo ideia horretatik eratorritako legitimitasun juridikoaz gozatzeko.

Sail horri adierazi diogu zalantzak ditugula seme-alaben zaintzan laguntzeko jarritako diru-laguntzen egungo araudiak jasotako sexuagatiko bereizketaren inguruan. Kezkaturik

gaude emakumeen aldeko ekintza positibo izan nahi duenarekin paradoxikoki jada onuradun den taldearen alde egiten ari delako agian, eta ez alde egin nahi den taldearen alde (kasu honetan, dudarik gabe, emakumeek eraturikoa). Kasu horretan emakumeen aurkako zuzeneko bereizkeria-kasu baten aurrean egongo ginatke, besterik gabe. Izan ere, ekintza positiboak sistemaren balizko neutraltasunari aurre egiteko baliabide modura jaiotzen dira, menpean dagoen taldearen alde eginez eta ez bereizkerian are gehiago sakonduz. Eztabaida ezina da arau horrekin gizona koei onura ekonomiko handiagoa onartzen ari zaiela jokabide berdina izateagatik, eta hori egiturari dagokionez emakumeek baino estatus ekonomiko hobea izanda ere. Horrek, gizonen eta emakumeen benetako egoera ekonomikoaren ikuspegitik, gure gizartean bi taldeen artean dagoen distantzia areagotzea esan nahi du, eta hori berdintasun printzipioa urratzen ari daiteke. Ekintza positiboko kontzeptua bera bereizkeriaren aurkako zuzenbidea deiturikoaren barruan jarduten duten baliabide batzuen lanketa teorikotik eta ondorengo gauzatze juridikotik dator. Hura sozialki eta ekonomikoki bereizkeria edo mendetasun egoeran dauden taldeen berdintasuna lortzeko pentsatu da eta ez, noski, horien arteko desberdintasunak sendotzeko. Gainera, ekintza positiboko kontzeptua emakumeen alde egingo duten neurriak –berdintasunaren izenean– legitimatzera zuzendutakoak direla ulertzea (baztertutako taldea da) argi geratzen da, inolako zalantzarik gabe, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 11.1 artikulua hitzez hitzeko irakurketan. Artikulua jarraian idatziko dugu hitzez hitz (azpimarraturikoa gurea da):

11. artikulua. Ekintza positiboak

1. Konstituzioak berdintasunerako ezarritako eskubidea eraginkor bihurtze aldera, botere publikoek emakumeen aldeko neurri zehatzak hartuko dituzte gizonen aldean benetako desberdintasuneko egoera nabariak zuzentzeko. Neurri horiek, aipatutako egoerak mantentzen diren bitartean aplikatzekoak, arazoizkoak eta proportzionalak izan behar izango dira kasu bakoitzean lortu nahi den helburuarekiko.

Bestalde, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak adierazitako arrazoiari helduz, alegia, seme-alaben zaintzaren alde egiteko diru-laguntzetan dagoen desberdintasuna, gizonak ekonomikoki hobetu arren, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten duen neurria dela adieraztean familia erantzukizunetan eta seme-alaben zaintzan gizonen parte-hartzea bultzatu nahi izateagatik, ekintza positiboko ideiatik bertatik eratorritako oinarriko baldintza baten aurka egin behar izan dugu, honakoa: denboran duen iraupe-na eta emaitzak ebaluatzeko beharra, tratu ezberdinaren bitartez bilatutako xedea lortu den ziurtatuz. Izan ere, horrela ez balitz, neurri hori ezingo litzateke denboran gehiago eutsi, lortu nahi den berdintasunaren helburua lortzen ari ez izatean, neurria zuzeneko bereizkeria sortzen ariko litzatekeelako onurak jaso ez dituen taldearentzat. Horrela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legeak, 3.5 artikuluan, denboraren ezaugarria eransten duen ekintza positiboa zehazten du (azpimarraturikoa gurea da).

3.5. artikulua. Ekintza positiboa

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri agintek denboran ondo mugatutako berriazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

Laguntza horiek 2002tik daude, ezberdinak gizon eta emakumeentzat. Erantzun idazkian, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak neurri horiek aplikatzeari buruzko datuak erantsi zituen. Horiek eusten duten ideia da, laguntzetan gizonezkoen alde egin izanda ere, horrek ez duela gizonen aldetik laguntza horiek gehiago eskatzea ekarri eta hori zela tratu ezberdintasun horrekin lortu nahi zena.

Gainera, beharrezkoa da kontuan hartzea araudi horrek bereizkeria-egoerak sor ditzakeela gizon eta emakumeen eredu tradizionalen sartzen ez diren familia-ereduen kasuan, adibidez ama bakarrik eratutako guraso bakarreko familiei (gehienak) ekarritako bereizkeria aita bakarreko familien aldean (oso eskasak praktikan), hau da, seme-alaben zaintzaz arduratzeko beste gurasorik ez dagoenean. Gauza bera gertatzen da bi emakumez eratutako familien kasuan bi gizonez eratutako aldean (2005ean Kode Zibilaren erreforma onartu ondoren, ezkontza homosexualak ezarriz, edo izatezko bikoteen legea onartu ondoren; euskal legeak, adibidez, sexu bereko bikote batek seme-alabak elkarrekin adoptatzea onartzen du). Azken kasu horretan bi gizonez eratutako bikoteen alde egiten arituko litzateke inolako justifikaziorik gabe (gizonen erantzukizun partekatua sustatzearen helburuak zentzu guztia galtzen du lesbianeaz eratutako bikoteen testuinguruan). Horiek araudiaren onuradun suertatuko dira bi emakumez eratutako bikoteen aldean.

Horrek araudia errealitate berrira egokitze beharra ekar dezake, emakume bakarraz (guraso bakarreko familiak) edo bi emakumez (ama lesbiana) eratutako familien ekonomiaz bereizkeria ez ekartzeko. Izan ere, emakumeengan guraso bakarren ezaugarria edo homosexualitatea agertzea elementu kaltegarria izan daiteke familia unitate bateko kide bezala lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko estrategia ekonomiko onuragarriena egiterakoan seme-alaben zaintzari dagokionez. Hori horrela da, kanpoan uzten delako horrelako kasuetan diru-laguntza altuagoa jasoko duenak lanaldia laburtzeko edo eszedentzia eskatzeko aukera. Izan ere, unitate horretako kide gizona, kasu hauetan, ez da existitzen.

Azkenik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarreko 4/2005 Legea kontuan izan behar dugu. 48.3 artikuluan dio Autonomia Erkidegoko Administrazioak laguntzak emango dizkiela etxeko beharrei aurre egiteko eta mendeko pertsonak zaintzeko eszedentziak, baimenak eta lanaldi laburpenak eskatzen dituzten langileei. Adierazitako legearen III. tituluko VI. kapituluaren sistematikoki kokatzen den lege ezarpena da, bizitza pertsonala, familia eta lanbidea bateratzeri buruzko neurri zuzendua. Gauzak horrela, atentzioa emanarazi behar diogu honi: lege ezarpen horrek ez du ekintza positiborik zehazten esparru honetan gizonek etxeko eremuan duten erantzukizun partekatua bultzatzeko, ezta helburu horretarako kopuru ezberdinak emateko aukera lege ezarriko denik adierazten ere.

Beste kexa batek, sexuagatiko bereizkeriarekin uztartuta, **Sarria udalerriko jaietako ekintza batzuetatik emakumeak kanpo utzi izana** planteatu zuen.

Udalerrri horretako administrazio batzarrera jo genuen, gaiaren gaineko informazioa eskatuz eta Ararteko erakundeak gure lurraldeko udalerrri ezberdinetan egindako jai eta ospakizun herrikoi guztietan emakumeen parte-hartzea gizonetik berdintasunezko baldintzetan garatzearen alde egiten duela aipatuz. Azpimarratu genuen jaietan berdintasunez parte hartzea Konstituzioaren eta legeriaren xedapen ezberdinetan oinarriturik dagoela, adibidez Konstituzioaren 14. artikuluan, berdintasun printzipioa ezarri eta, ondorioz, sexuagatiko bereizkeria debekatzen duena; Konstituzioaren 9.2 artikuluan, botere publikoek berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izateko egon daitezkeen oztopo guztiak deuseztatzeko betebeharrak jasotzen duena, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean, Eusko Legebiltzarrak onartutakoa.

Batzarrari gogorarazi genion sexu berdintasuna oso-osorik proiektatu behar dela kulturaren eta aisialdi eta jaien eremuan, eta botere publiko guztiak, horien artean Sarriako Administrazio Batzarra, beharturik daudela hori betetzera haien izaera juridiko-administratiboa kontuan hartuta.

Orain dela gutxi, errekerimendu baten ostean, administrazio batzar horren erantzuna jaso dugu. Bertan adierazi da aipatutako ospakizuna ez dela Administrazio Batzarrak antolatutako zerbait, herritarren ekimen pribatutik egindakoa delako eta Batzarrak tradizioari jarraiki herritarrei horren berri eman besterik ez duelako egiten. Oraindik Batzarraren eta San Antongo Kofradiaren ohoretan egiten den jai ospakizunaren artean dagoen benetako lotura aztertu behar dugu, espediente hau ebatzi aurretik. Edonola ere, argi dago erakunde honentzat ezin dela pribatutasunaren belearekin benetan udalerrri baten jai nagusia dena estali, horren bidez botere publikoek kultur eta jai adierazpen guztietan berdintasun printzipioa sustatu eta bultzatzeko duten erantzukizunetik askatzeke. Horixe adierazi izan du behin baino gehiagotan Ararteko erakundeak beste hainbat jaitan. Horietarako antzeko arrazoiketa helarazi zitzaigun botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunerako borrokan duten konpromisoa saihesteko.

Emakumeek jai ospakizunetan duten parte-hartzearen gaian ezin ditzakegu alde batera utzi, berriro ere, **Irun eta Hondarribiko alardeak**. Aurten ez ditugu jai ospakizun horiekin uztartutako keak izapidetu, ospakizun horiei erantsitako gauza batzuk salbu. Horien artean, adibidez, Irunen planteatutako bat egongo litzateke. Jai programari buruzkoa zen eta alardeei inolako aipamenik ez egitea zuen gaitzat. Hala eta guztiz ere, erakunde honek babes berariazkoa eta zalantza ezina eman nahi izan dio emakumeen erabateko eta berdintasunezko parte-hartzeari Irun eta Hondarribiko alardeetan. Horretarako bi adierazpen publiko egin dira, udalerrri bateko nahiz besteko jai egunen ildotik.

Gainera, Auzitegi Gorenak 2007an bertan emandako epaia zela-eta, partikularrek antolatutako eta emakumeek berdintasun baldintzetan parte hartzerik ez zuten Alardea zegoela onartzen zuena, Arartekoak argitara eraman zituen horrek eragiten zizkion iritziak. Horretarako, prentsa-hedabide nagusietan agertutako iritzi artikulua egin zen. Bertan gogorarazi genuen epai hori Auzitegi Konstituzionalaren babesean aurkaratu zela, eta azken hori izango zela amaieran gaia ebatziko zuena. Halaber, Hondarribiko alardean parte hartu nahi zuten emakumeen egoera oso gutxi aldatzen zela adierazi genuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurreko epaia berretsi besterik ez zuelako egiten, berdintasuneko baldintzetan emakumerik gabeko alardea ospatzea ahalbidetzen zuen udal baimena babestu baitzuen. Hori izan zen ere Auzitegi

Gorenaren epai berriaren gunearen edukia, partikularren arteko (eremu pribatua deiturikoa) oinarrizko eskubideen eraginkortasun apalduaren kontzeptuan oinarrituta –zehazki berdintasun printzipioarena eta sexuagatiko bereizkeria ezarena–, horren bidez emakumerik gabeko alardea izatea onartzeko. Auzitegi Gorenak berak kontrako zentzua zuen epaia eman zuen 2002an –bereizkeria bazegoela ustez–, planteatutako gatazka udalak antolatutako alarde publikoarena izan zenean. Horren aurrean, alarde tradizionala deiturikoaren defendatzaileek eremu pribatura alde egin zuten eta, horrela, momentuz, berdintasunerako eskubidearen erabateko aplikazioa saihestu da.

Edonola ere, gure ustez egun sexuaren aldetik berdintasunezko alardea nahi duten emakume eta gizonen jarrera ezartzeko funtsezkoa den elementu bati buruzko gaia azpimarratu genuen. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legean bildutako xedapenez eta Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoan bildutakoez ari gara. Bi lege horiek ez ziren epaia ekarri duen iritzia emateko parametrotzat hartu, gatazka sortu zenean ez zeudelako indarrean. Arau horiek betebeharrak zehatzak biltzen dituzte botere publiko guztiek –eta euskal herri administrazioek bereziki– emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekintza positiboak har ditzaten eremu guztietan. Aldi berean, botere publikoen betebeharrak ezartzeko baliabide garrantzitsuak eratzten dute zentzu horretan –Konstituzioaren 9.2 artikulutik eratorria–, benetako berdintasun eraginkorra galarazten duten oztopoak deuseztatze aldera.

Hori dela-eta, azpimarratu genuen beharrezkoa dela Ararteko erakundetik urtero Irun eta Hondarribiko udalei gogoraraztea berdintasunezko baldintzetan agertuko diren gizon eta emakumez eraturako jai eremua jartzeko betebeharrak dutela, eta hori ezin dela egin balizko neutraltasuneko jarrera batetik, baizik eta udalen jarrera aktibotik alardearen berdintasunezko ikuspegitik. Hori, beste hainbatetan gomendatu izan dugun moduan, udalak alardearen antolaketa jarduera publiko eta herritar guztien ondare bezala berreskuratzea egin daiteke. Bertan, emakume eta gizonak berdin-berdin kokatuko lirarteke. Bestela, gutxienez, helburu hori lortzearen aldeko ekimenei bultzada eta babes esplizitua emango dien konpromisozko jarrera hartu behar litzateke, are gehiago horiek gutxiengoan badaude edo zailtasunak topatzen badituzte.

Horrela, bada, bi udalei beren jaietan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko apustu tinkoa eskatzen jarraituko dugu, alardeen antolaketa pribatuaren atzean ezkutatzea beste toki batera begiratzearen eta demokraziak bere ordezkari publikoen eskuetan jarritako erantzukizun funtsezkoenak saihestearen parekoa delako.

4. Benetako berdintasuna: emakumeei modu berezian eragiten dieten beste gai batzuk

Ararteko erakundeak lan egiteko oinarritzat duen emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua gizarte, ekonomi eta kultur testuinguruan kokatu behar da, emakumeen baztertze historikotik abiatuz. Hura, aldi berean, nagusi den ideologiarekin uztartzen da –matxista edo patriarkal deitzen diogu–, eta gizon eta emakumeen arteko harremanak emakumeak gizonen botere gorenaren menpe egotetik ikusten ditu. Eremu honetan garatzen dugun lanak gizon eta emakumeen arteko egiturazko desberdintasunetik abiatzen garela onartzen du, eta horrek berdintasunaren helburua aldeztu aurretik

desberdintasun egoera deseginez lortu behar izatera baldintzatzen du. Horretarako, beharrezkoa da Arartekoak eremu honetan bideratutako jarduerak sexuagatiko bereizkeriak izan daitezkeenak kontrolatzera bakarrik ez mugatzea, baizik eta haratago ere joatea eta hurrengoak lortzera zehazki zuzentzea: emakumeak gizartearen eremu guztietan sartzea; gizarte, politika eta ekonomi helmeneko erabakiak hartzerakoan parte-hartze osoa eta protagonismoa bultzatzea, eta erabaki eta lanaren eremu guztietan emakumeen ordezkaritza egokia izatea eta emakumeen jabeakuntza orokorrean.

Atal honetan esku hartu dugun gaien berri emateko lana hartu dugu, horiek, bereizkeria kasuak zehazki izan gabe, emakumeei bereziki eragiten dieten gaiak badira –deskribatutako ikuspegitik–, eta, ondorioz, botere publikoen partetik berdintasun hori benetakoa eta eraginkorra izatea galarazten duten oztopoak aktiboki deuseztatzen zuzendutako jarrera izatea eskatu behar bada. Genero ikuspegia aplikatzeak erakunde honen jardura osoaren zeharkako irakurketa egiteko beharra dakar berekin; gainera, emakumeek egindako erreklamazioetan gehien ateratzen diren gaiak nabarmentzen dira, azken finean, gai horiek generoaren kutsua hartzen dute, emakumeak baitira hartzaile nagusiak. Emakumeengan eragin handiagoa izate hori azaltzen duten arrazoiak, oro har, egiturari dagokionez mendetasun egoeran egotean aurki daitezke; mendetasun hori eremu jakin batzuetan, hala nola, familiaren eremuan, etxeko eremuan edo mendeko pertsonen zaintzaren eremuan eragin handiagoa duten rolen banaketa estereotipatuan oinarrituta dago.

Hori dela-eta, goiburu honen azpian jorratzen ditugun gaiak, oro har, gai hauen inguruak direla ikus daiteke: bizitza pertsonala, lanbidea eta familiako bizitza bateratzea; familiako harremanetan emakumeek duten toki berezia –gizarteko sistema osoaren barruan eta laneratzeko aukeran duen tokia–; eta gizarte bazterkeria pobreziafren feminizazioaren adierazpen gisa.

Horrela, **bizitza pertsonala, lanbidea eta familiako bizitza bateratzeari dagokionez**, gorago ere aipatu dugu, sexuagatiko bereizkeriaren testuinguruan kokatuz, zein den seme-alaba adingabeak zaintzeko lanaldia laburtu edo eszedentzia eskatu nahi duten gizon eta emakumeei emaniko laguntza ezberdinek sortutako arazoa. Laguntza horiei buruz ere, hainbat kexa adierazi dizkigute eskaerak ebatzeko eta eabazpen horiek jakinarazteko 6 hilabeteko epearengatik. Kexagileek uste dute epe hori luzeegia dela, laguntzaren izateko arrazoiari berari garrantzia kenduz. Izan ere, hura eraginkorra izateko, beharrezkoa da eskaeraren ondotik berehala gauzatzea. Horri xehetasun handiagoz heldu diogu txosten honetan jasotako ogasunari buruzko eremuaren laburpenean.

Laguntza hauen esparruan, Arartekoaren 1/2007 iradokizuna aipatu behar dugu halaber. Horren bidez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eskatu genion hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten familien aldeko diru-laguntzak erregulatzen dituen araudian familiako diru-sarrerak zenbatzeko berariazko sistema barnera dezala, diru-sarrerak zenbatu zirenetik diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu den arte, heriotza, banantzea, dibortzioa, etab. bezala salbuespenezko inguruabarrak dauden kasuetan aplikatu ahal izateko.

Hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiei emaniko laguntzen eremuan, halaber, guraso bakarreko amen seme-alaben kasuan sortzen den arazoa adierazi digute, aitzak seme-alabak legez onartu dituen baina amarekin lege nahiz izateko loturirik ez duenean. Kasu horietan Gizarte Gaietako Saila seme edo alaba adingabearekiko

dituen betebeharretan sartzen saiatzen da aita, eta, helburu horrekin, amari eskatzen dio beste gurasoa judzialki sala dezala eta mantenu pentsioa eska diezaiola. Eskakizun hori derrigorrezko baldintza da laguntza eskuratu ahal izateko. Jarrera zehatza hartzeko eta kexa-espeditentea behar bezala ebazteko xedez oraindik aztertzen ari garen arazoa da honakoa. Egia da arrazoi juridiko onargarriak daudela eskakizun hori defendatzeko. Praktikan, ordea, horrek nekez euts daitekeen egoeran jar dezake ama zaintzailea. Hori dela-eta, uste dugu agian hobe litzatekeela amari laguntza ematea horrelako baldintza baten pean jarri gabe, baina herri administrazioa bera izan dadila aitari seme edo alabarekiko dituen diru betebeharrak betetzea eskatuko diona errepika-egintzaren bitartez eta emandako laguntzaren kopurua edo kasuan kasuko zatia eskatuz.

Gainerakoan, ogasunaren eremuari buruzko atalean xehetasun handiagoz heldu diegu seme edo alaba jaio edo adoptatzeagatik laguntzei, abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuan orain dela gutxi onarturikoak eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean.

Eremu honetan ateratako beste gai batzuek zerikusia dute familia ugaria izatea onartzearekin berriz egituratutako familien kasuan eta hirugarren semea edo alaba bikote berriaren baitan jaiotzen denean. Kasu horietan, familia ugariak babesten dituen 40/2003 Legeak dio guraso horiek –biek bikotekide berriarekin hirugarren seme-alaba izanez gero– ados jarri behar dutela horietatik familia ugariaren titularra nor izango den zehazteko. Ama batek guraso zaintzaile modura helarazitako kexa helarazi diogu Herriaren Defendatzaileari.

Halaber, beste kexa-espeditente bat helarazi behar izan genion Herriaren Defendatzaileari, hura ere familia ugariak babesten dituen 40/2003 Legearekin uztartuta. Kasu horretan kexak planteatu zuen Legeak ez duela familia ugaritzat onartzen guraso bakarrarekin eta bi ondorengorekin eratutako familia, gurasoa bananduta, dibortziatuta edo alarguna ez bada. Kasu horietan, aldiz, legeak onartzen du familia ugariaren ezaugarria.

Familia baten lanbidea eta familiako bizitza bateratzea baldintza dezakeen beste gai bat eskola-garraioari buruzko arauena da, hutsik dauden plazen kasuan. Familien plangintza beharrak irizpide objektibo modura hartu behar lirateke eta, kasuren batean, garraio plaza horiek okupatzeko orokorrean ezarritako zonalde betekizunak salbuetsi. Txosten honetan hezkuntzaren eremuari utzitako atalean xehetasun gehiagorekin helduko diogu arrazoi horri dagokionez adierazi diguten kexari.

Lanbidea eta familiako bizitza bateratzearen alde funtzio publikoaren baitan ere egiteko helburuarekin, zera proposatu diogu hezkuntza-administrazioari kexaren arrazoiaren ondotik: irakasle ordezkapenak egiteko zerrendetan dauden pertsonen deia egin ahal izateko eremua lurralde historikoa bera baino eremu txikiagora mugatzea, osasunaren eremuan jada gertatzen den bezala. Horren berri xehatuagoa ere emango dugu funtzio publikoaren eremuari buruzko txosten honetako atalean.

Emakumeen laneratzeari dagokionez, bi kexa jaso ditugu. Bi emakumek desadostasuna agertu digute emakumeak laneratzea sustatzeko helburua duen Bizkaiko Foru Aldundiko Emakintza programak jarraitutako prozedurekin. Txalotu beharrekoa da emakumeei lanbidea eskuratzeko behar besteko gaitasuna emateko prestakuntza praktikoko programak egotea, batez ere adinagatik edo prestakuntzagatik zailtasun bereziak badituzte laneratzeke. Kasu honetan, Aldundiak programa bat eskaintzen du

eta bertan hautatutako emakumeek aukera dute enpresetan praktikak egiteko. Jasotako kexek zioten hautapen prozedurak ez zituela behar bezala objektibatu emakumeak aukeratzeko irizpideak. Gaiaren gainean informazio zehatzagoa eskuratu ondoren ondorioztatu ahal izan genuen prozedurak objektibotasunaren barruan bideratu zirela, emakume asko prozesutik kanpo geratu arren. Edonola ere, Foru Administrazioak kanpo geratutako emakumeak programa berdinarean hurrengo edizioan sartzearen alde egiteko konpromisoa hartu zuen.

Beste kasuan, programaren onuradunek kexan adierazi zuten ez zeudela ados destinoztat zituzten enpresetan praktikak zuten funtzionamenduarekin. Besteak beste, bitzta pertsonala eta familiakoa praktiketan ezartzen zitzaizkien lan baldintzekin bateratzeko ezintasuna azpimarratu zuten. Aldundiak emandako erantzunean argitu zen programa foru erakundearen eta beste erakunde batzuen arteko lankidetzaren emaitza zela, eta haren garapena testuinguru horretan kokatu behar zela. Halaber, emakumeei egokituriko lana zein baldintzatan garatzen zen zehaztu zigen. Ezin ondoriozta dezakegu Administrazioaren jardunean irregulartasunik dagoenik, baina egokia iruditu zitzaigun, eta horixe jakinarazi genien kalteturikoei ere, programa horrek eskainitako komunikaziorako bideak aprobeztatzea haien beharrei hobeki egokitu zitzazkien baldintzak adosteko.

Halaber, emakumeen laneratzeari dagokionez, Donostia Ospitaleko erradiologia zerbitzuan haurdun dauden langileek izan dezaketen laneko segurtasun falta planteatzen duen kexa ere jaso dugu.

Emakumei bereziki eragiten dien beste gai bat **baztertuta geratzeko arriskuarekin** zerikusia duena da. Jakina da gizarte zerbitzuen erabiltzaile nagusiak emakumeak direla, eta hori pobrezia feminizazioa izeneko fenomeno baten adierazpena besterik ez da. Garrantzitsua iruditu zaigu emakumei eragiten dien pobrezia errealitate sakontasun gehiagoz ezagutzea. Horretarako, 2007an ikerketa-bekarako deialdia egin dugu, hurrengo urtean garatzeko. Bekak adierazitako gaiarekin zerikusia duen gairen bati buruzkoa izan behar du. Hala eta guztiz ere, 2007ko ekitaldiari dagokionez, txosten honetako gizarte ekintza eremuari nahiz baztertuta edo pobrezian geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako berariazko arretaren eremuari buruzko atalei heltzen diegu. Horietan, xehetasun gehiago eskaini ditugu emakumei eragin dieten gaien gainean.

Azkenik **erditzearen unean amen eta seme-alaben osasun fisikoarekin eta psikologikoarekin** zerikusia duen kexa bat aipatu behar dugu. Kexak geroz eta emakume gehiago kezkatzen dituen gaia planteatzen digu: ospitale publikoetan jazotako erditzeetan emakumeek protagonismo aktiboa falta izatea, eta, normalean, erditzearen prozesuan zehar amek nahiz seme-alabek dituzten eskubideekiko errespetu gutxi izatea. Hori estuki loturik dago emakumeek beren gorputzaren gaineko erabakiak hartzeko duten gaitasuna onartzearekin.

Jasotako kexan kexagileak adierazi duenaren arabera, nabarmenago eman behar zaie bide emakumeen protagonismoari eta, egoera arruntean, erditzearen garapenean ondorio medikorik ez duten eta, aldiz, amarentzat zein haurarentzat klima positiboagoa ekar dezaketen alderdietan (erditzea hobeto eta modu naturalagoan gauzatu) emakumeen erabakitzeko gaitasunari. Hausnarketa horiek Osakidetzari helarazi dizkiogu, Eusko Jaurlaritzaren 175/1989 Dekretuak onartutako gaixo eta erabiltzaileen Eskubideen eta

Betebeharren Gutunari helduz. Bertan, 3. artikuluko c) eta e) ataletan, berariaz adierazten da Osakidetza osasun zerbitzuen, edo hark itundutako zerbitzuen, erabiltzaile den emakumeak eskubidea duela erditzearen protagonista modura parte-hartze aktiboa izateko. Halaber, amak semea edo alaba nahiz aita ondoan izateko eskubidea du ahal den bezain laster erditzea eta gero eta ospitaleko egonaldiak irauten duen bitartean. Osakidetzaren erantzunak xehetasun osoz adierazi zigun zeintzuk diren erditzeen arretan ahalik eta kalitate handiena bermatzeko jarraitu ohi diren barne protokoloak. Osakidetzak eskaintako arretaren osasun arreta zalantzan jarri nahi izan gabe, txostenean, besteak beste, erditzeetan izandako haur hilkortasunari buruzko datuak emanez islatu nahi izan dena, garrantzitsua iruditzen zaigu EAEn, beste autonomia-erkidego eta gure inguruneko beste herrialde batzuetan jada egiten den moduan, amek hain medikalizaturik ez dagoen erditzea aukeratzeko protokoloak ahalbidetzea baldintza normaletan. Izan ere, hori egun emakume askok geroz eta gehiago eskatzen duten gauza da.

5. **Berdintasunaren alorreko legeriaren garapenaren eta aplikazioaren egoeraren gaineko jarraipen orokorra**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea ezarri ondoren, erakunde honek uste du komenigarria litzatekeela urtero arauaren garapenaren eta aplikazioaren egoeraren gaineko jarraipena egitea. Gure ustez, hori funtsezko baliabidea da eremu guztietan emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan ezartzeko. Horretarako, zehazki, honako alderdi hauen egungo egoera jakin nahi izan dugu:

1. Aipatutako legearen garapen egoera generoaren arabera inpaktuari ebaluazioari dagokionez: xede horrekin 2007ko otsailaren 13an onartutako jarraibideen esparruan jada egindako inpaktu ebaluazioen kopurua eta motak.

Horri dagokionez jakin ahal izan dugu, 2007ko otsailaren 13ko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren onarpenaren bitartez, alegia, genero eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzekoaren eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzekoaren bitartez, generoaren arabera inpaktuari buruzko 57 txosten helarazi zaizkiola Emakunderi kasuan kasuko txostena eskuratze aldera. Horietatik 56 ohiko prozedurari buruzkoak eta bat prozedura laburtuari buruzkoa izan dira. Emakundek laguntza materialak garatu ditu 2007an zehar (www.emakunde.es helbidean eskuragarri), eta horien xedea jarraibideak jakinarazi eta horien aplikazioa erraztea da. Halaber, aipatutako jarraibideak aurkezteko jardunaldia antolatu zuen Jaurlaritzako sail ezberdinetako langileei zuzendua. Bertan, 45 emakumek eta 20 gizonek parte hartu zuten.

Jarraibide horien garrantzia funtsezkoa da generoaren arabera inpaktuari ebaluazioari buruzko lege ezarpenak behar bezala aplikatze aldera. Ezarpen horiek, beste txosten batzuetan zabalago xehatu izan dugun bezala, emakumeen eta gizonen berdintasunaren zeharkakotasun printzipioa bermatu nahi dute, hau da, berdintasunaren helburua politika publiko guztietan sartzen dela. Testuinguru horretan, positiboki balora daiteke orokorrean Jaurlaritzako sailek jarraibideetan

ezarritakoa betetzeko egiten ari diren esfortzua, are gehiago kontuan hartzen badugu horiek onartzetik igarotako denbora eskasa izan dela, neurriak berritzaileak direla eta oraindik Eusko Jaurlaritzaren sailetan berdintasun politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura duten administrazio unitateei ez zaiela zuzkidurarik eman. Horiek azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuaren bitartez arautu ziren, eta eginbehar nagusienetako bat, hain zuzen ere, generoaren araberako inpaktuari buruzko txostenak egiterakoan aholkularitza eskaintzea da.

2. Organo egiturak eta lanpostuak Eusko Jaurlaritzak egokitzea, 4/2005 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarri bezala.

Bereziki, azpimarratzekoa da, Jaurlaritzako gainerako sailek ez bezala, ez dugula jakin ahal izan Hezkuntza eta Osasun sailek organo egiturak egokitzeko jarduerarik egin duten edo ez sail bakoitza osatzen duten zuzendaritza eta eremu ezberdinetan eta erakunde autonomoekin, erakunde publikoekin eta haiei atxikitako organoekin organo eskuduna bultzatu, koordinatu eta lankidetzan aritzeko. Horren bidez Eusko Jaurlaritzak onartutako 4/2005 Legean eta berdintasunaren planean ezarritakoa gauzatu litzateke. Hala eta guztiz ere, sail horiek, gainerakoek bezala, 213/2007 Dekretua betetzeko betebeharra dute. Bertan, xedapen gehigarrian, hiru hilabeteke epea ezartzen da argitaratzen den unetik (2007ko abendua) sail eta erakunde autonomoek lanpostuen zerrendaren eta/edo kasuan kasuko monografiaren bitartez egin beharreko aldarazpenak izapidetzeko dekretu horrek egotzitako erantzukizunei aurre egite aldera.

Ez zaigu adierazi, ezta ere, ea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ebaluazioaz, ikerketaz eta hezkuntza berritzeaz arduratzen diren organoetako eta 4/2005 Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren laugarren paragrafoan eta 31. artikuluan aurreikusten diren irakasleei laguntzeko zerbitzuen lanpostuen zerrenden aldaketari dagokionez izapiderik egin duen.

3. 4/2005 Legearen 27. artikuluan jasotako aurreikuspenaren egungo egoera, publikitatea kontrolatzeko organoari buruzkoa eta hedabideek emandako edukiei dagozkien kode etikoen berme-emailea dena.

Gai horri dagokionez, kontuan izan behar da 4/2005 Legea ezarri baino lehen Eusko Jaurlaritzan bazegoela funtzio horiek betetzeko organo bat, hain zuzen ere Publizitate Ez Sexistaren Aholkularitza Batzordea - Begira, Emakunderi atxikitakoa eta apirilaren 27ko 78/1998 Dekretuak arautua. Emakundek adierazi zigun 2007ko azaroaren 9an Begiraren azkeneko bilera egin zela, eta bertan batzorde horren lanerako plana onartu zela 2009ra bitarte. Lanerako plan horren arabera, Begirak datozen bi urteetan izango dituen oinarrizko eginbeharrak hurrengoak izango dira: hura arautzen duen dekretua 4/2005 Legearen ezarpenetara egokitzzea, eta aipatutako legearen 27. artikulua betez kode etikoa landu eta hedatzea, hedabideetan eskaintzen diren publizitate edukiei dagokienez.

4. Berdintasun planak eta programak.

Euskal herri administrazioek 4/2005 Legearen 15. artikuluan aipatzen diren berdintasun plan edo programak prestatzeko prozesuetan egun duten egoerari dagokionez, Emakunderen bitartez jakin ahal izan dugu jada badutela emakumeen

eta gizonen berdintasunerako plana ez bakarrik hiru foru aldundiek, baizik eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren ia hiru laurden biltzen dituzten 55 udalerrik ere².

5. Emakunderen egiturak egokitzea.

Erakunde horrek jakinarazi digu 2007an Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen lanpostuen zerrenda aldarazi egin dela, batetik, 4/2005 Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren bigarren eta hirugarren paragrafoak betez. Horrek bederatzi lanpostu sortzea ekarri du, eta kasuan kasuko ezagutza betekizun bereziak eranstea. Bestetik, 4/2005 Legearen 51.2 artikulua betez, Erakundeak “EAEko erakundeen erantzuna emakumeen kontrako etxeko tratu txarren aurka Gizarte Zerbitzuen alorrean, 2006: Sarbidea” izeneko txostena landu du eta Eusko Legebiltzarrari aurkeztu.

Beste gauza batzuei helduz baina berdintasunaren gaian indarrean dagoen esparru juridikoarekin jarraituz, aipatu behar dugu 2007an **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa** onartu izanaren garrantzia. Bereizkeriako jokabideak prebenitu eta zigortu nahi dituen legea da, eta politika aktiboak aurreikusten ditu berdintasun printzipioa eraginkor bihurtze aldera. Aukera horrek, halaber, desberdintasuna sor edo areago dezaketen gizarte edo kultur errealitatearen antolamendu eremu ezberdinetan berdintasun printzipioaren proiektzioa egitea esan nahi du. Lege testuak berdintasunaren zeharkako dimentsioaren iritzia gainean jarduten du, 4/2005 Euskal Legeak egiten duen modu berean. Horrek esan nahi du berdintasuna eremu arautzaile ezberdinetan proiektatu behar dela orokorrean, eta indarrean dagoen hainbat legek arau honen eraginak jasoko dituela. Legearen arrazoi azalpenak adierazten duenaren arabera, emakumeen eta gizonen berdintasunerako lege-kode izateko asmoarekin jaiotzen da eta horrek estatuko lurralde osoan aplikatzea esan nahi du.

Erakunde honi dagokionez, ziurtatu ahal izan dugu, lege horretan bildutako ezarpen gehienek jardun publikoan eta administrazioaren funtzionamenduan berdintasuna bermatzera zuzendutako mekanismo batzuk proiektatu nahi dituzten arren, Estatuko Administrazio Orokorraren eskuetan bakarrik jarriz horien ardura, egia dela legeak Espainiako politika publiko orokorreari heltzen diela, bai estatu mailakoak, bai autonomiko eta tokikoak, Konstituzioaren ezarpenean babesa hartuz Estatuari espainiar guztiek (gizonek zein emakumeek) Konstituzioan zehaztutako eskubideak gauzatzeko izan behar duten berdintasuna bermatzeko oinarrizko baldintzak arautzeko eskumena duela ziurtatzeko. Gainera, lege horrek ere eragin nabarmena du partikularren arteko harremanetan, laneko legeriari eta legeria zibilarri eraginez ordenamendu espainiarrean bi zuzentarau eranstean tratu berdintasunaren gaian: 2007/73/EE Zuzentaraua (76/207/EEE Zuzentaraua aldatuz), emakumeen eta gizonen berdintasuneko printzipioa aplikatzeari buruzkoa lanbidea, trebakuntza eta

² Honako hauek dira: Amurrio, Gasteiz, Abadiño, Abanto Zierbena, Areatza, Arrigorriaga, Balmaseda, Barakaldo, Barrika, Basauri, Berango, Berriz, Bilbo, Durango, Elorrio, Ermua, Galdakao, Getxo, Gordexola, Gorliz, Gueñes, Leioa, Lekeitio, Lemoiz, Mungia, Muskiz, Ondarroa, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sopelana, Zaldibar, Zalla, Ugao-Miraballes, Urduliz, Trapagaran, Zierbena, Andoain, Anoeta, Arrasate, Azkoitia, Azpeitia, Donostia, Eibar, Hernani, Irun, Tolosa, Urretxu, Zarautz, Zegama.

sustapen profesionalari dagokion alorrean; eta 2004/113/EE Zuzentaraua, printzipio hori ondasun eta zerbitzu eta horien hornidura eskuratzearen printzipioaren aplikazioari buruzkoa. Lanbidearen eremuari dagokionez, baliabide ezberdinak aurreikusten ditu berdintasun printzipioa ere bermatzeko eta sexuagatiko bereizkeria saihesteko enpresaren eta laneko harremanen eremuan. Horrek, dudarik gabe, eragin nabarmena izan dezake euskal eremu pribatuan, koherentzia eta hedapena emanez laneko harremanen egokitzapen prozesuari, hain zuzen ere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Euskal Legearen agindutik euskal herri administrazioetan jada hasitakoari.

Hala eta guztiz ere, argi dago Legeak araudi xehatuagoa biltzen duela Estatuaren oinarritzko eskumen eremuetan edo erabateko lege eskumena duen horietan. Horrek ez du esan nahi arauan ekintza positiboak deiturikoak hartzeko esparru orokorra topa ezin daitekeenik. Hori erreferentzia juridiko bazterrezina izango da hemendik aurrera horrelako ekintzak edozein erakunde publikotik bultzatzerakoan eta, ondorioz, Ararteko erakundearentzat kontrolerako beharrezko parametro. Halaber, erreferentzia izango dira ere gure jardunerako berdintasun printzipioa eta genero ikuspegia politika publikoen antolamendu orokorrean sartzen direla bermatzeko ezarritako irizpideak, horiek, neurri handi batean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Euskal Legeak jada ezarritakoekin bat egin zein ez alde batera utzita.

2. BERARIAZKO ARRETA ADINEKOEI

Gure Erkidegoan, adinekoak gero eta gehiago dira. Ia 400.000 pertsona (397.132, EINek argitaratutako azken datuen arabera). Arartekoak arreta berezia eskaini dio pertsona horien egoerari, biztanle kopuruan duten garrantziagatik (%20 inguru) zein beren ezaugarri eta premia espezifikoengatik. Horren erakusgarri izan daitezke hirugarren adinekoen egoitzei buruz (1994an aurkeztua) eta egoitzaz kanpoko laguntzari buruz (1996an aurkeztua) eginiko ezohiko txostenak.

2005ean, beste txosten bat egin zen, *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn: etxeko laguntza, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak* izenburua daramana, hain zuzen. Uztailaren 28an argitaratu zen eta Eusko Legebiltzarreko lehendakariari eman zitzaion eta, geroago, azaroaren 3an, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Bartzordean eztabaidatu zen.

Txosten horren helburua, izenburuak adierazten duen bezalaxe, adinekoei arreta zuzena eskaintzeko EAEko sistemaren zerbitzu nagusiak aztertzea zen –etxez etxeko zerbitzua, egoitza-zerbitzuak eta eguneko zentroak–, sistemaren alderdi positiboak nabarmentzeko, hutsuneak hautemateko eta etorkizunerako jardunbideak proposatzeko xedez.

Urte hartako txostenean, atal honetan bertan, azterlanaren laburpena aurkeztu genuen, eta arreta handiagoa eskaini genion ondorioen eta gomendioen kapituluari; bertan zehatz-mehatz azaldu zen egoeraren balorazioa eta gure erkidegoan adinekoei arreta emateko sistema hobetzeko gomendio batzuk egin ziren. Aztertutako datuen balioari, adinekoei arreta emateko testuinguruari eta etorkizunean jarraipena egiteko aukerei buruzko zenbait ohar ere egin genituen bertan.

Azken gai horri dagokionez, Ararteko erakundeak beti, ahal den heinean, gomendioak betetzen diren ala ez ikusteko jarraipen bat egiten du. Horretarako, kexen bidez bildutako informazioa erabiltzen du, antolatutako elkarte edo kolektiboekin bilerak egiten ditu, zerbitzu batzuk bisitatzen ditu, arloko langileekin elkarrizketak izaten ditu, administrazio arduradunei datuak eskatzen dizkie, etab.

Kasu honetan, zehazki, oso txosten zabala da, datu asko biltzen dira bertan, eta etengabe eta oso erritmo bizian aldatzen ari diren egoerak, premiak eta baliabideak aztertzen dira. Txostenean oso izaera desberdineko hainbat gomendio daude (50): esparru arautzaileari, adinekoen eskubideei, zerbitzu horiek erabili ahal izateko irizpideei, zerbitzu horien finantziarioari, informazio sistemei, zerbitzu guztiei eta zerbitzu bakoitzaren ezaugarriei dagozkienak, etab.

Jarraipena egiteko eta 2006ko ohiko txostenean jasotzeko datu eta informazio eguneratuak izateko xedez, Arartekoak ofiziozko espediente bana bidali zuen foru aldundietara.

Ezohiko edozein txostenen ondorengo jarraipen jarduketa gehienetan gomendio guztiei buruzko informazio zehatza eskatu eta jaso ohi dugu. Kasu honetan, hala ere, jarduketa horiek luzeak eta zailak direnez, egokiagoa iruditu zitzaigun horietako batzuk bakarrik nabarmentzea eta esanguratsuenak diren eta modu objektiboenean har daitezkeen datu batzuetara mugatzea; horietako batzuek bilakaeraren adierazle gisa ere balio dezakete.

Irizpide horren arabera, daturik esanguratsuenak gai hauen ingurukoak izan litezkeela iruditzen zaigu:

- Plaza, estaldura edo zerbitzuen hazkundea.
- Baliabideen lurralde banaketa.
- Arautegiaren aldaketak eskubideei, erabiltzeko baldintzei eta finantziario irizpideei dagokienez.
- Gure txostenetan aztertutako zerbitzu edo programa bakoitzaren kalitatearekin zerikusia duten alderdi zehatz batzuk.

Hortaz, lau gai horiei buruzko datuak eskatu ziren. Eta jasotako erantzunekin, 2006ko txostenean, atal honetan ahalik eta laburpen edo ikuspegi eguneratuena eman zen, lurraldez lurralde (ikus 2006ko txostena, 420 447. orrialdeak).

Kasu batzuetan 2006ko abenduaren 31ko datu eguneratuak ere lortu ziren (hots, gure txostena amaitu baino egun gutxi lehenagokoak). Horrek foru aldundien zerbitzuentzat lan handia ekarri zuen, besteak beste, egun horietan lanpetuta ibiltzeagatik.

Aipatu inguruabarrak kontuan izanda, azken urte honetan goian aipaturiko lau gai garrantzitsuei buruzko datuak eskatu ziren, baina zerbitzu bakoitzaren esku utziz eguneratzeko aukera eta eguneratzeko eguna. Horrek lurraldeen arteko alderaketak eragozten ditu, baina errealistagoa dirudi.

Gainera, goian adierazitako lau gai-blokeak alde batera utzita, eta mendetasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta horiei zuzendutako arreta sustatzeko Legearen aplikazioak ezartzen dituen exijentziak kontuan hartuta, behar bezala aplikatze aldera, sail hori zein urrats nagusi egiten ari den jakin nahi genuela adierazi genuen. Horrela, esate baterako, honakoei buruzko informazioa eskatu dugu:

- Ea baliabide jakin batzuk indartu diren edo indartuko diren.
- Zenbat balorazio eskaera jaso diren, zenbat egin diren, zenbat hartu diren mendetasun handikotzat (III gradua)... (ahal den datarik eguneratuenera arte).
- Datu hauek zein proportziotan dagozkion adineko pertsonen sektoreari.
- Eskatutako prestazio eta zerbitzuak zenbateraino beteta dauden.
- Legea sektore honetan behar bezala garatu eta aplikatzeko zein zailtasun dituzten.
- Pertsona hauek zein zerbitzu eta prestazio ekonomiko eskatzen dituzten gehienbat, eta zeintzuk diren Banakako Arreta Programetan gehien araututakoak.
- Zerbitzu eta prestazio horiek zenbateraino dauden beteta (edo egin diren).
- Ea zentro batean (egoitza-zentroan zein eguneko zentroan) plaza onartzeko irizpide bakarra Mendetasunaren Balorazio Baremoaren emaitza den edo, horrez gain, beste baremoren bat ere aplikatzen den.
- Mendetasunaren Legea behar bezala garatu eta aplikatzeko zein zailtasun dituzten.

Adineko pertsonen biztanleen sektorerako (ia 400.000) garrantzia eta egunerokotasun handikoak diren gaiak gehienbat.

Urteko txosten hau idazterakoan (2008ko urtarrila), eskatutako datu gehienak jaso dira; hurrengo ataletan laburbildu eta aztertuko dira lehenengo aldiz, eskualdez eskualde:

I. Arabako Lurralde Historikoa

Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren erantzunak, urtarrilaren amaieran jasotakoak, 2007ko datu eguneratuak eskaintzen ditu, eta 2001eko eta 2006ko datuekiko alderaketa ere egiten du; azken sei urteetan izan den bilakaera ikusteko aukera ematen du horrek. Horrela, **plaza, estaldura eta zerbitzu kopuruari** dagokionez, lurraldeko datu globalak biltzen dituen taula hauxe dakar, dagozkion oharrekin batera:

| BALIABIDE MOTA | 2001 | 2006 | 2007 |
|---|----------------|------------------------------|---------------------------|
| Egoitza-zentroen kopurua: | 63 | 75 | 81 |
| – Publikoak | 26 | 27 | 28 |
| – Pribatuak | 37 | 48 | 53 |
| Egoitzetako plazen kopurua guztira: | 2.114 | 2.957 | 3.048 |
| – Publikoak | 1.352 | 1.578 ⁽¹⁾ | 1.778 ⁽¹⁾ |
| – Pribatuak | 762 | 1.379 | 1.270 |
| Egoitzetako plazen kopurua guztira: | 2.114 | 2.957 | 3.048 |
| – Egoitzetan | 1.646 | 2.069 | 2.146 |
| – Etxebizitza eta apartamentuetan | 468 | 888 | 902 |
| Foru egoitzan sartzeko itxaron zerrendan dagoen pertsona-kopuruaren bilakaera: | 276 | 486 | 206⁽²⁾ |
| Eguneko zentroen kopurua: | 18 | 25 | 27 |
| – Publikoak | 17 | 24 | 25 |
| – Pribatuak | 1 | 1 | 2 ⁽³⁾ |
| Eguneko zentroetako plaza-kopurua guztira: | 424 | 555 | 571 |
| – Publikoak | 409 | 553 | 568 |
| – Pribatuak | 15 | 2 | 3 |
| Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaile diren adinekoren kopurua (urtean, guztira) | 2.702 | 3.100 | 3.704 |
| Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren estaldura | 5,90 | 6,36 | 7,42 |
| Urteko guztizko orduak gutxi gorabehera (adinekoak) | 722.844 | 950.000⁽⁴⁾ | 1.071.445 |
| Hilean erabiltzaile bakoitzari eskainitako arreta-ordu kopurua | 35,8 | 38,4⁽⁵⁾ | 37,8⁽⁵⁾ |

¹ Barne hartzen dira Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egoitza pribatuetan hitzartutako plazak eta AIRE programaren bidez egoitza pribatuen erabiltzaileei diruz lagundutako plazak.

² 2007ko apirilaren 25etik aurrera, Arabako Lurralde Historikoko mendetasuna baloratzeko eskabideak aurkezteko epea zabaldu zenetik, GOFEk jarraitzen zuen sisteman oinarritutako aurreko itxaron zerrenda desagertu egin zen eta Lege berriaren errekerimenduetara egokitutako zerrenda berri bihurtu zen.

³ Bi zentro pribatu hauek Arrasaten eta Altsasun daude, baina Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bertan hitzartuta ditu Aramaio eta Agurain inguruko adinekoei arreta emateko plazak.

⁴ Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eginiko orduak 850.000 inguru dira. Gasteizko Udalaren informazioz ez dugun arren, beste 100.000 ordu gehigarri egiten dituela uste dugu.

⁵ Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari hilean dagokion batez besteko ordu kopurua. Udala erabiltzaile bakoitzeko hilean 12 ordu inguruan dabil.

Datuen banaketa eskualdez eskualde ageri da, laburtuta, ondorengo taulan:

| Eskualdeak | 65 urtetik gorakoak (INE, 2006) | Egoitzako arreta | | Eguneko zentroak | | Etxez etxeko laguntza-zerbitzua | |
|-----------------------------|---------------------------------|------------------|--------------------------------------|------------------|--|---------------------------------|--------------------------------------|
| | | Plazak | Estaldura (100 adinekori dagokienez) | Plazak | Estaldura (1.000 adinekori dagokienez) | Pertsona kopurua | Estaldura (100 adinekori dagokienez) |
| Arabako ibarrak | 1.209 | 105 | 8,7 | 35 | 28,9 | 120 | 9,92 |
| Arabako Lautada | 38.364 | 2.421 | 6,3 | 445 | 11,6 | 2.734 | 7,12 |
| Arabako Mendialdea | 861 | 58 | 6,7 | 8 | 9,3 | 61 | 7,08 |
| Arabako Errioxa | 2.255 | 132 | 5,8 | 0 | 0 | 210 | 9,31 |
| Gorbeia Inguruak | 1.233 | 115 | 9,3 | 25 | 20,3 | 109 | 8,84 |
| Kantauri Arabarra | 5.958 | 215 | 3,6 | 55 | 9,4 | 470 | 7,88 |
| Beste batzuk ⁽¹⁾ | — | 2 | — | 2 | — | — | — |
| Guztira | 49.880 | 3.048 | 6,11 | 571 | 11,44 | 3.704 | 7,42 |

⁽¹⁾ Arrasaten hitzartutako plazak, Aramaio inguruko adinekoei arreta emateko.

Laburbilduz, nabarmentzekoa da sei urtean 934 egoitza plaza gehiago sortu direla (hau da, 2001ean baino %44 gehiago daude orain erabilgarri). Hazkunderik handiena egoitza pribatuetan izan da (508 plaza gehiago). Hala ere, plaza-kopururik handiena zentro publikoetan dago (%53, 2006ko datuen arabera).

Egoitzen ostatu alternatiboetako egoitza plazen kopurua ere nabarmen hazi da (902 plaza etxebizitza eta apartamentuetan).

Eguneko zentroetako plazei dagokienez, 147 plaza sortu dira (2001ean baino %35 gehiago).

Halaber, etxez etxeko zerbitzuaren bidez laguntza jasotzen duten pertsona kopuruak ere nabarmenki gora egin du (2.702tik 3.704ra) eta, datuen arabera, arretaren intentsitatea ere pixka bat handitu da (matematikoki, pertsona bakoitzak urtean jasotzen duen batez besteko arreta-ordu kopurua 289 ordukoa da. 2001ean, 268 ordukoa zen eta 2006an, 306 ordukoa).

Hortaz, eskura dauden datuekin, honakoak lirateke estaldura-tasak:

- Egoitza-zentroetako plaza beteak: 6,11.
- Eguneko zentroetako plaza beteak: 1,14.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren bidez arreta jaso duten pertsonak: 7,42.

Hau da, 2007an zerbitzu hauek jasotzen dituzten edo bertan plazak dituzten adinekoen proportzioa, gutxi gorabehera, 14,6koa izango litzateke 65 urtetik gorako 100 adinekori dagokienez. Kopuru hori baxuagoa litzateke tasak 2007an eguneratutako biztanleria-datuekin kalkulatu bagenitu.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuei dagokienez oso orekatua da eskualdeetako baliabide eta zerbitzuen banaketa, egoitzei eta, are gutxiago, eguneko zentroei dagokienez

izan ezik; azken kasu horretan, Arabako Errioxako eskualdeak oraindik ere ez du inolako baliabiderik.

Honakoak dira 2007an gehitutako **arau aldaketak**:

- 45/2007 Foru Dekretua, maiatzaren 8an Diputatuen Kontseiluak hartutakoa. Horren bidez Arabako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen foru sareko erabiltzaileak direnak eta mendekoak ez diren pertsonak sartzeko eta lekuz aldatzeko erregimena arautzen duen arautegia onetsi zen. ALHAO, 67 zk., 2007ko ekainaren 4koa.
- 90/2006 Foru Dekretua, abenduaren 28ko Diputatuen Kontseiluarena. Horren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuen prezio publikoen 2007rako araudia onetsi zen. ALHAO, 5 zk., 2007ko urtarrilaren 12koa.
- 5/2007 Foru Dekretua, urtarrilaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Horren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako zerbitzuen prezio publikoei buruzko abenduaren 28ko 90/2006 Dekretua aldatu zen. ALHAO, 18 zk., 2007ko otsailaren 12koa.
- Udako hilabeteetan adineko pertsonen egoitzetan egonaldi laburrak egiteko programarako plazen deialdi publikoa. ALHAO, 24 zk., 2007ko otsailaren 26koa.
- 39/2007 Foru Dekretua, apirilaren 24ko Diputatuen Kontseiluarena. Horren bidez, Arabako Lurralde Historikoan mendetasun egoera, autonomiarako sistemako zerbitzuetarako sarbidea eta eskubidea eta mendetasunerako arreta onartzeko prozedura arautzen da. ALHAO, 58 zk., 2007ko maiatzaren 14koa.
- 53/2007 Foru Dekretua, uztailaren 3ko Diputatuen Kontseiluarena. Horren bidez, uztailaren 1eko 46/2003 eta abenduaren 30eko 77/2004 Foru Dekretuak aldatu ziren; dekretu horiek sare publikoaz kanpoko egoitzetan adineko pertsonak sartzeko laguntza ekonomiko indibidualen sistema arautzen dute, autonomia pertsonala sustatzeari buruzko 39/2006 Legea egokitzeko. ALHAO, 84 zk., 2007ko uztailaren 13koa.
- 70/2007 Foru Dekretua, urriaren 23ko Diputatuen Kontseiluarena. Horren bidez, mendetasun egoeran dauden pertsonen famili inguruneko zainketetarako diruzko prestazioa arautzen da. ALHAO, 129 zk., 2007ko azaroaren 2koa.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailaren erantzunak atal zabala eskaintzen die **mendetasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzen duen Legea aplikatzearekin** lotuta planteatzen ditugun gaiak. Horrela:

1) Ekarri duen **giza baliabideen gehikuntza** zehazten du:

- Mendetasuna baloratzeko talde teknikoa: 3 OLT, 2 fisioterapeuta, terapeuta okupazional 1 eta administrari 1. Epe laburrean plantilla hori handituko da 2 OLT baloratzailer berri eta administrari bat gehituz.
- Jendeari arreta emateko eta arretetarako banakako planak burutzeko talde teknikoa: Gizarte Laneko Diplomadun 8 pertsona eta bi administrari gehitu dira.

Halaber, lehenago zegoen taldea berriz antolatu da, gizarte laneko profesionaletako bati Banakako Arreta Programak ikuskatzeko eginkizunak emanez.

- Epe laburrean talde teknikoa TSG-ekonomialari batekin gehituko da.

Horri aipatu Legearekin lotutako langileentzako prestakuntza jardueren garapena eta zerbitzuari loturiko laguntza ekonomiko indibidualak-prestazioa jaso dezaketen zentro pribatueta egoitzako plazen gehikuntza gehitzen zaio.

- 2) 2008ko urtarrilaren 7ra arteko **balorazioen** datuei dagokienez, honakoak azpimarra ditzakegu:

| | Abs. | % |
|--|--------------|--------------|
| Eskarrien kopurua guztira | 5.960 | 100 |
| - Egindako balorazioen kopurua (mendetasuna baloratzeko baremoa aplikatuta) | 3.155 | 52,93 |
| - Hirugarren pertsona baten laguntzaren bidez egindako homologazioen kopurua | 1.168 | 19,60 |
| Guztizko balorazioen kopurua | 4.323 | 72,53 |
| Emandako hitzorduen kopurua (bete gabe daudenak) | 1.637 | 27,47 |

Horien emaitzak:

| Gradua | Maila | Abs. | % |
|----------------|-------|--------------|--------------|
| 0 | 0 | 226 | 5,2 |
| 1 | 1 | 277 | 6,4 |
| 1 | 2 | 657 | 15,2 |
| 2 | 1 | 461 | 10,7 |
| 2 | 2 | 678 | 15,7 |
| 3 | 1 | 868 | 20,1 |
| 3 | 2 | 1.156 | 26,7 |
| GUZTIRA | | 4.323 | 100,0 |

Hots, orain arte zabaldutako 5.960 espedienteetatik 4.323 ebatzi ziren (%72,5) eta gainerako 1.637 ebatzi gabe geratu ziren, balorazio egiteko hitzordua emanda zutenak.

Egindako 4.323 balorazioetatik, mendetasuna baloratzeko baremoa aplikatuta edo hirugarren pertsona baten laguntzaren bidez homologatuta, 2.024 (%47 gutxi gorabehera) 3. graduan zeuden (1. eta 2. mailan). Honako datuak banakatzen dira:

- Mendetasuna baloratzeko baremoa aplikatuta egindako 3.155 balorazioetan, %49 1. eta 2. mailatan (868 1. mailan eta 689 2. mailan) emaitzetan 3. graduan zeudela ikus daiteke; horrek, 1.557 pertsonak mendetasun gradu altuena izan dutela esan nahi du.

- Hirugarren pertsona baten bidez egindako 1.168 homologazioen %40k (467 pertsona zenbaki absolutuan adierazita) 3. gradua lortu dute 2. mailan.

Balorazio horien %80 65 urte baino gehiagoko pertsoneri dagokiela uste da.

- 3) Honakoak dira adinekoek **gehien eskatu dituzten zerbitzu eta diruzko prestazioak** (izapidetutako edo izapidetzen ari diren Banakako Arreta Programak 1.568 zirela kontuan hartuta):

| | |
|--|--------------|
| - Famili inguruneko zainketetarako diruzko prestazioa..... | 740 pertsona |
| - Zerbitzuari loturiko diruzko prestazioa | 228 pertsona |
| - Adinekoentzako egoitza edo eguneko zentroa..... | 600 pertsona |

Adinekoek eskatutako prestazio eta zerbitzuak ustez zenbateraino beteta zeuden baloratzeko ere eskatu zen. Horren ildotik, Arabako Foru Aldundiak honako datuak eman ditu:

| BALIABIDE MOTA | 1 GRADUA | | 2 GRADUA | | 3 GRADUA | | BALORAZIO KOPURUA |
|--------------------------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|-------------------|
| | 1. MAILA | 2. MAILA | 1. MAILA | 2. MAILA | 1. MAILA | 2. MAILA | |
| Etxez etxeko laguntza | 52 | 108 | 87 | 147 | 207 | 288 | 889 |
| Egoitza | 28 | 43 | 31 | 37 | 72 | 172 | 383 |
| Etxebizitza komunitarioa | 1 | 4 | 5 | 4 | 4 | 17 | 35 |
| AIRE programa | 2 | 10 | 6 | 29 | 51 | 84 | 182 |
| Eguneko zentroa | 3 | 21 | 13 | 54 | 81 | 121 | 293 |
| GUZTIRA | 86 | 186 | 142 | 271 | 415 | 682 | 1.782 |

- 4) Mendetasunaren Legea aplikatzeak aurrez erabili ziren baremoetan aldaketa zekarrela kontuan hartuta, zentro batean (egoitzan zein eguneko zentroan) plaza onartzeko irizpide bakarra **mendetasuna baloratzeko baremoaren** emaitza den ala, horrez gain, **beste baremoren bat** ere aplikatzen den galdetu genuen.

Sailak onetsitako arauari egiten dio erreferentzia, “mendetasun egoera, autonomiarako sistemako zerbitzuetarako sarbidea eta eskubidea eta mendetasunerako arreta onartzeko prozedura” arautzen duena (ALHAO, 2007ko maiatzaren 14koa), eta honakoa adierazten du: “Egoitza-zentro batean plaza onartzeko, mendetasuna baloratzeko baremoaz gain edo, hala denean, hirugarren pertsona baten laguntzaren bitartez egiteaz gain (eta, noski, dagokion banakako arreta-programaren bidez), puntuazio berdina lortuz gero, sarreraren baremo ekonomikoa hartzen da kontuan”.

- 5) Azkenik, **Mendetasunaren Legea egoki garatu eta aplikatzeko aurkitu diren zailtasunei** dagokienez, honako hiruak aipatzen ditu:

- Legearen arauzko garapena amaitzeko premia.
- Aplikazio-irizpideak homogeneizatzeko beharra, Estatu osoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Legeak hainbat hutsune izatea: ez du aipatzen, adibidez, gizarte arazo larriak (tratu txarrak, bazter uzteak,...) izan baina mendetasun maila altuenak lortzen ez dituztenak, salbuespen gisa egoitza-zentro publikoetara sartzeko aukera. Maila teknikoan gai hori eta beste batzuk sakontzea beharrezkoa dela uste du.

Gai horietako batzuk Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Sailaren arduradun nagusiek eta Arartekoak eta bere taldeko langileek duela gutxi izandako bileran sakondu ahal izan ziren.

II. Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak 2008ko urtarrilaren 11n erantzun zion gure informazio eskaerari. Bertan adierazi zuen ezinezkoa zela abenduaren 31ra arteko datu eguneratuak eskaintzea eta Sailaren 2006ko Memoria aurkeztu zuen. Memoria horrek datu asko jasotzen ditu, bai jarraipenaren xede diren gaien inguruan (bereziki, egoitzak eta eguneko zentroak), baita bestelako prestazio edo zerbitzuen inguruan ere (diru-laguntzak eta, batez ere, telelaguntza zerbitzua). Logikoki, bere sistematika eta irizpideekin jasotzen ditu; horrek txostenari jarraituz egin nahi genuen konparazioa zailago bihurtu edo ezinezkoa egiten du. Ikuspegi horretatik, askoz erabilgarriagoak dira Bizkaiko Foru Aldundiak berak duela urte bat emandako datuak, 2007ko urtarrilean, guk egin-dako aurreko eskaerari erantzunez. Batez ere 2006ko abenduaren 31n eguneratutako datuak; horietako batzuk iazko urteko txostenean laburtu genituen. Funtsean:

- **Egoitza-zentro** publiko zein pribatuen kopurua 2006ko abenduaren 31n: 215.
- Egoitza publiko zein pribatuetako plaza-kopurua 2006ko abenduaren 31n: 9.496.
- Betetako egoitza plazen kopurua (erreferentzia-data: 2005/12/31):
 - Egoitzak: 6.670. Okupazio ehunekoa: %89,60.
 - Etxebizitza komunitarioak: 832. Okupazio ehunekoa: %88,98.
 - Babestutako apartamentuak: ez daukagu datu hau.
- Eguneko zentro publiko zein pribatuen kopurua 2006ko abenduaren 31n: 48.
- Eguneko zentro publiko zein pribatuetako plaza-kopurua 2006ko abenduaren 31n: 1.491.
- Eguneko zentroen erabiltzaile kopurua:
 - 2005eko abenduaren 31n: 851. Okupazio ehunekoa: %74,13.
 - 2006ko abenduaren 31n: 903. Porcentaje de ocupación: %67,84.
- 2005ean **etxex etxeko laguntza-zerbitzua** erabili dutenen kopurua: 11.512 pertsona (barne hartzen ditu artatutako kolektibo guztiak).
- Emaniko arreta-ordu kopurua: 24.322 arreta-ordu astean.

Eskualdekako zentro eta plazen banaketari dagokionez, honako datu hauek eman ziren 2006ko abenduaren 31n:

| EGOITZA-ZENTROAK. PLAZA KOPURUA (2006ko abenduaren 31n) | | | | | |
|--|-------------------|------------------------------------|-------------------------------|----------------------------|----------------|
| TITULARTASUNA | ESKUALDEAK | | | | |
| | BILBO | EZKERRALDEA- ENKARTERRI | IBAIZABAL- NERBIOI | BUSTURIA- URIBE | GUZTIRA |
| PUBLIKOA, FORU MAILAKOA | 347 | 320 | 177 | 330 | 1.174 |
| PUBLIKOA, UDALERRI MAILAKOA | -- | 265 | 291 | 376 | 932 |
| PRIBATUA, IRABAZI ASMORIK | 645 | 828 | -- | 537 | 2.010 |
| GABEKO ERAKUNDEENA | 2.210 | 1.179 | 555 | 1.436 | 5.380 |
| PRIBATUA, MERKATARITZAKOA | | | | | |
| GUZTIRA | 3.202 | 2.592 | 1.023 | 2.679 | 9.496 |

| EGOITZA-ZENTROAK. ZENTRO KOPURUA (2006ko abenduaren 31n) | | | | | |
|---|-------------------|------------------------------------|-------------------------------|----------------------------|----------------|
| TITULARTASUNA | ESKUALDEAK | | | | |
| | BILBO | EZKERRALDEA- ENKARTERRI | IBAIZABAL- NERBIOI | BUSTURIA- URIBE | GUZTIRA |
| PUBLIKOA, FORU MAILAKOA | 2 | 3 | 2 | 2 | 9 |
| PUBLIKOA, UDALERRI MAILAKOA | -- | 4 | 8 | 7 | 19 |
| PRIBATUA, IRABAZI ASMORIK | 7 | 7 | -- | 10 | 24 |
| GABEKO ERAKUNDEENA | 88 | 24 | 19 | 32 | 163 |
| PRIBATUA, MERKATARITZAKOA | | | | | |
| GUZTIRA | 97 | 38 | 29 | 51 | 215 |

| EGUNEKO ZENTROAK. PLAZA KOPURUA (2006ko abenduaren 31n) | | | | | |
|--|-------------------|------------------------------------|-------------------------------|----------------------------|----------------|
| TITULARTASUNA | ESKUALDEAK | | | | |
| | BILBO | EZKERRALDEA- ENKARTERRI | IBAIZABAL- NERBIOI | BUSTURIA- URIBE | GUZTIRA |
| PUBLIKOA, FORU MAILAKOA | 245 | 105 | 109 | 64 | 523 |
| PUBLIKOA, UDALERRI MAILAKOA | -- | 231 | 151 | 56 | 438 |
| PRIBATUA, IRABAZI ASMORIK | 70 | 70 | -- | 77 | 217 |
| GABEKO ERAKUNDEENA | 142 | 65 | 53 | 53 | 313 |
| PRIBATUA, MERKATARITZAKOA | | | | | |
| GUZTIRA | 457 | 471 | 313 | 250 | 1.491 |

| EGUNEKO ZENTROAK. ZENTRO KOPURUA (2006ko abenduaren 31n) | | | | | |
|---|-------------------|------------------------------------|-------------------------------|----------------------------|----------------|
| TITULARTASUNA | ESKUALDEAK | | | | |
| | BILBO | EZKERRALDEA- ENKARTERRI | IBAIZABAL- NERBIOI | BUSTURIA- URIBE | GUZTIRA |
| PUBLIKOA, FORU MAILAKOA | 5 | 2 | 3 | 1 | 11 |
| PUBLIKOA, UDALERRI MAILAKOA | -- | 7 | 6 | 3 | 16 |
| PRIBATUA, IRABAZI ASMORIK | 2 | 1 | -- | 3 | 6 |
| GABEKO ERAKUNDEENA | 6 | 3 | 3 | 3 | 15 |
| PRIBATUA, MERKATARITZAKOA | | | | | |
| GUZTIRA | 13 | 13 | 12 | 10 | 48 |

2007ko urtarrilean jasotako informazioan, zenbait datu eman ziren zerbitzu bakoitzaren “kalitateaz” azaldutako zenbait gairen inguruan, bereziki 2006. urtean burututako ikuskapen jarduketan inguruan. Alde horretatik, urteko planaren arabera eginiko ikuskapenak eta salaketan ondorioz eginikoak bereizten ziren:

- Ikuskaritzako Urteko Planaren barruan eginiko ikuskapenak:
 - Ikuskatutako egoitzak: 127. Urraketak hauteman dira 12 zentrotan.
 - Ikuskatutako etxebizitza komunitarioak: 81. Urraketak hauteman dira 31 etxebizitzatan.
 - Babestutako apartamentuak: egoitza eraikin bat ikuskatu da eta ez da inolako urraketarik hauteman.

Azaldu zenez, araudia urratzeko arrazoi nagusiak honako hauek izan ziren: hondatutako txirrinak zeuden eta ez zegoen erabiltzaileekin kontraturik.

 - Ikuskatutako eguneko zentroak: 44. Urraketak hauteman dira 4 zentrotan. Kasu honetan ere urraketan kausetariko bat erabiltzaileekiko kontraturik eza izan da.

Nabarmendu zen lau zentro motetan hautemandako irregulartasunek ez zutela eragin nabaririk erabiltzaileen ongizatean eta 2006ko ikuskaritza planean arreta berezia eskaini zitzaie “personal ratioei”, “erabiltzaileekiko kontratuei”, “gaitasunari” eta “elikadurari”. Etxebizitza komunitarioen kasuan txirrinen mantentze egoera egokia ere ikuskatu da.

- Salaketengatik eginiko ikuskapenak:
 - erabiltzaileek edo haien familiartekoez eginiko salaketa edota kexen ondorioz hasi dira 26 ikuskapen espediente, dela Erabiltzailearen Arretarako Unitatearen bidez, dela 900 zenbakira eginiko deien bidez: horietako 20 egoitzei dagozkie eta beste 6ak etxebizitza komunitarioei. Horiek guztietatik 5 egoitzatan eta 2 etxebizitza komunitariotan hauteman ziren urraketak. Kausa nagusiak “elikadura arazoak” eta “higiene eza” izan ziren. Babestutako apartamentuei dagokienez, egoitza eraikin bat ikuskatzen hasi zirela adierazi zen, baina ez zutela amaitu erreferentzia-datan.

Datuak eguneratzeko ahalegina eskertu ondoren, antzemandako bariazio edo joera nagusietako batzuk aipatu genituen. Hala, **estaldura-tasak** (2006ko plazen datuekin kalkulaturik, baina 2005eko biztanleria-datuekin; horiek baitziren orduan geneuzkan berrienak) hauek ziren:

- Egoitza-zentroetako estaldura-tasa: 4,42.
- Eguneko zentroetako estaldura-tasa: 0,69.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuetako estaldura-tasa: 5,36.

EINek eguneratutako biztanleria-datuen argitalpenak tasa horiek berriz modu zehatzagoan kalkulatzeko aukera ematen du. Hala, 2006ko biztanleria-datuen bidez:

- Egoitza-zentroetako estaldura-tasa honakoa litzateke: 4,36.
- Eguneko zentroetako estaldura-tasa: 0,68.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuetako estaldura-tasa: 5,29.

Hau da, geneuzkan datuekin bat etorritz, 2006. urtearen amaieran Bizkaiko Lurralde Historikoan 65 urtetik gorako 100 adinekotatik 10ek gutxi gorabehera (10,33, 2006ko udal erroldako datuekin kalkulaturik) bazuten plaza edo aztertutako prestazioren bat jasotzen zuten. Gogora dezagun bost urte lehenago (2001eko abenduan) Bizkaiko estaldura %6,22koa zela: 2,99 egoitzetan, 0,24 eguneko zentroetan eta 2,99 etxez etxeko laguntza-zerbitzuetan. Guztizko estaldura-tasa, beraz, nabarmen handitu da; lau ehuneko inguru. Ondorioz, asko inbertitu behar izan da baliabide berriak sortzeko.

Jasotako 2006ko memoria, foru aldundiak berak edo bestelako erakunde batzuek (foru aldundiarekin hitzarmenak eta itunak dituztenak) eskainitako zerbitzu eta prestazioen ingurukoa da. Batzuetan, hurrengo urteetarako aurreikusitako plazen gehikuntzen aurreikuspenak eta kasu bakoitzean aplikatu daitezkeen araudiaren hainbat erreferentzia eskaintzen ditu, baita kostuei eta datu ekonomikoei, edo erabiltzaileek eta beren senideek emandako balorazioen erreferentziak ere. Egoitzei eta eguneko zentroei dagokienez, datuen banakapena zentro bakoitzaren mailara ere heltzen da.

Datu esanguratsuenak edo gure segimenduaren helburu diren gaiekin zuzenago erlazionatutako datuak nabarmenduko ditugu hemen. Horrela:

- **Egoitzei** dagokienez, mendeko adinekoentzako egoitzen foru zerbitzu publikoa, 2006ko memoriaren arabera, honakoek osatzen dute:
 - a) Foru titulartasuneko zentroak: 9 zentro / 1.174 plaza
 - b) Beste Herri Administrazio batzuekin hitzartutako zentroak: 17 zentro / 166 plaza
 - c) Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen kontratatutako zentroak
 - d) Irabazi asmoak dituzten erakunde pribatuen kontratatutako zentroak
 Itunpeko ikastetxe pribatuak guztira 70 ziren, eta zentro horietan 2.519 plaza zeuden. Egoitzako 2.519 plaza okupatzeko eta gordetzeko ituna 2006an hasi zen 4 urtean zehar; hitzartu beharreko plaza-kopuru guztia honela banatu zen:

2006. urtekoa: 630 plaza
 2007. urtekoa: 1.260 plaza
 2008. urtekoa: 1.890 plaza
 2009. urtekoa: 2.519 plaza

Memorian nabarmendu daitezkeen intereseko beste datu batzuk honakoak izan daitezke:

- Erabiltzaileari eska dakioken prezio publikoa: 58,80 euro eguneko
- Egoitzako plazaren kostua, egonaldi iraunkorren: 61,31 euro eguneko
- Luzarorako sarrerak: 2.006
- Eskaerak: 1.494
- 2006ko abenduaren 31n egoitzetan dagoen pertsona-kopurua: 1.391
- 2006ko abenduaren 31n beste zentro batzuetan (foru sareaz kanpokoak) eta banakako diru-laguntzarekin dagoen pertsona-kopurua: 2.334

- **Eguneko zentroei** dagokienez, daturik esanguratsuenak honakoak izan daitezke:
 - Sarrerak eguneko zentroetan: 2.006
 - Eskaerak: 640
 - Banakako diru-laguntzarekin abenduaren 31n eguneko zentroetan sartutako pertsona-kopurua: 688
 - Banakako diru-laguntzarekin urtean zehar artatutako pertsona-kopurua: 889
- Memoriako datu gehienak telelaguntza zerbitzuari loturikoak dira; zerbitzua Bizkaiko udalerrri guztien eskura dago 2005eko urtarrilaren 1etik eta IGON, Centro Especial de Empleo, S.L enpresarekin kontratatuta; enpresa horren 2006rako oinarrizko datuak honakoak lirateke:
 - Laguntza-eskaerak: 1.494
 - Zerbitzuko altak: 1.340
 - Zerbitzuko bajak: 866
 - Abenduaren 31n zegoen erabiltzaile-kopurua: 6.563

Memorian nabarmendutako datu horietako batzuk Bizkaiko Foru Aldundiak bere garaian emandakoekin alderatuz gero, batera ez datozela ikus daiteke. Gure ustez, horren azalpena, Memoriak zerbitzu publiko edo itunduen datuak bakarrik biltzen dituela da, eta guk egindako datuen aurreko eskariaren erantzunean zentro pribatu guztiei dagozkien datuak ere erantsi ziren.

Gainera, Memoriak gure hirugarren jarraipen gaiari loturiko informazioa jasotzen du. Atal honen hasieran adierazi bezala, aurtengo jarraipenean hirugarren bloke bat ere sartu dugu, arautegian eginiko aldaketei buruzkoa, eta bereziki honako hauen erregulazioan aldaketak eragin dituztenei buruzkoa:

- Erabiltzaileen edo haien familiartekoen eskubideak (erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutunaren garapena).
- Zerbitzuak erabiltzeko bete beharreko baldintzak.
- Finantzaketa-irizpideak.

Bizkaian zehazki, gai hori bereziki garrantzitsua da lurralde horretako araudian gehitutako berritasun garrantzitsuak eta zenbait pertsona eta elkarteek erakunde honetan aurkeztutako kekek edo arduratzeko arrazoiak kontuan hartuz. Hori dela eta, aurreko urtean gehitutako aldaketak egitearen arrazoiak, konponduta zeuden arazoak eta konpontzeke zeudenak, sailak berak orain arteko araudiaren aplikazioari buruz zein balorazio egiten zuen eta aldaketa berriak gehitzea aurreikusita zuen jakitea komenigarria zela proposatu genion foru aldundiari.

Sailak ez zien gai horiei erantzun. Erantzun izan balie, behintzat, iritzi desberdinak alderatzeko edo beste jarduketan bidez –Ararteko erakundean jasotako banakako kekek; zenbait elkarte profesionalekin egindako bilerak eta horiek helarazi dizkiguten agiriak; hainbat udaletako gizarte zerbitzuetara eginiko bisitak eta hango arduradun eta profesionalekin eginiko bilerak; hainbat udalerritako datuen eskaera eta laginketa, etab.– jasotako datuen informazio osagarria izateko aukera emango zigun. Horren guztiaren berri iazko txostenean eman genuen, zehatz-mehatz, kezkarriak ziruditen alderdi batzuk nabarmenduz (ikus 2006ko txostena, atal honetan bertan).

Orduan zerbitzuak baliatzearekin loturiko oinarriko gaiak sakondu ziren, besteak beste, zorraren onarpena izatea erabiltzaileari dagokion finantzaketaren bermea edo eskaria egiten duen pertsonaren ahalmen ekonomikoa neurtzeko ohiko etxebizitza barne hartzea; gai horiek, kontsultatutako gizarte zerbitzuen arabera, egoitzen foru sareko zerbitzuak baliatzeko eskubidea izatea zailago bihurtzen dute praktikan.

Horren haritik, kexak alde batera utzita, Gizarte Laneko eta Gizarte Laguntzako Diplomadunen Elkargoak egindako zenbait proposamen bildu genituen. Horietako batzuk jada bideratu dira arautegiaren aldaketen bidez. Honakoen moduko proposamenak:

- Bizikidetzako unitatearen familia berriz elkartzea, 50 urtetik gora izatean, nahiz eta mendetasun baldintza ez bete (ezkontidea, izatezko bikotekidea edota seme edo alaba ezindua).
- 50 urtetik 60 urtera bitartean dituzten mendeko pentsiodunen kolektiboari erantzun instituzionala ematea eta haien premietara egokitutako egoitza-zentroak sortzea.
- Egoitza-zentroa aukeratzea. Itxaron zerrendan egon ahal izatea, nahi duen egoitzan plaza hutsen bat izan arte, horrek plazaren esleipenean eskubide galerarik eragin gabe.
- Erabiltzaileak edota haien familiartekoak Zentroen Batzorde Iraunkorrean eskubide osoko kide gisa barne hartzea, erabakiak hartzerakoan modu aktiboan parte har dezaten.
- Ordainketa jasangarria, errenta eta ondarea baloratuta, ohiko etxebizitza izan ezik.
- Aldi baterako sartzeko banakako diru-laguntza, foru zerbitzu publikoan plazarik ez badago. Dependentsia baldintza baloratuko da, eskabideari atxikitako txosten medikoarekin batera, etab.

Egoitzetan onartzeari buruzko arautegi berriaren aplikazioak zekartzan ondorioei buruzko datuak eta balorazioak ere bildu genituen; horretarako, udal batzuetako (Bilbo eta Barakaldo) gizarte zerbitzuetako langileekin elkarrizketak egin genituen eta informazioa eskatu genien zenbait udali; hots, Bilbo, Barakaldo, Mungia, Portugalete, Muskiz eta Lekeitioko udalei. Jasotako informazioak honela zioen:

- Eskaerak gutxitu egin ziren. 2005eko urtariletik ekainera bitartean 566 eskaera izapidetu ziren. 2006. urtean, aldi horretan bertan, 360 eskaera izapidetu ziren (aipaturiko udalen datuak).
- Askoz ere gehiago dira informazioa biltzen dutenak, formalizatzen den eskaera kopuruarekin alderatuta. Beren ustez, eskaera formalizatu ordez, beste baliabide batzuetara jotzen dute; zaintzaileak kontratatzen dituzte edo egoitza pribatuetara jotzen dute.
- Erabiltzaileei zaila egiten zaie zorraren onarpenak eta ondasunen banaketak zer esan nahi duen eta pertsonarentzat nahiz agiri aldetik zein ondorio dakartzan ulertzea.
- Foru Aldundiak ez zien balorazio batzordearen edo egoitzetan sartzeko espedientearen emaitzen berri eman udalei. Erabiltzaileek esanez gero bakarrik jakiten zuten.

- Prezioak behar den arretarekin eta duen gaixotasunarekin zerikusia izateak konparatiboki, osasun sistemari dagokionez, oso desberdinak diren egoerak planteatzen ditu, erabiltzaileentzat ulertzen zailak direnak.
- Inguruetik hurbileko egoitza aukeratzeko zailtasunak aipatu dira berriz ere.
- Laguntza behar zuten 60 urtetik beherakoek ez zuten behar besteko arretarik.
- Badira familiaren desegituratze kasuak edo banatu eta etxebizitza bat izateko aukerarik gabe geratzen diren seme-alaben kasuak. Kasu horietan arazoa da ohiko etxebizitza kontuan hartzen duen zorraren onarpena egitea.
- Arautegiaren ondorioak –eta bereziki etxebizitzari eragiten dion zorraren onarpenaren ingurukoak– saihesteko arretarik gabeko egoerak gertatu ahal izatea.

Ikusi daitekeen moduan, planteatutako gai ugari zorraren onarpenarekin eta mendetasun egoerekin dute zerikusia. Azken urtean urrats esanguratsuak eman dira bi gai horietan. Hortaz, alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegorako Gizarte Zerbitzuen etorkizuneko Legeari buruzko eztabaidaren testuinguruan ohiko etxebizitza baloratzeari dagokionez alderdi guztien artean akordio batera iritsi direla dirudi, eta horrek hiru lurraldeen arteko irizpideen bateratzea ekarriko luke. Beste alde batetik, autonomia pertsonala eta mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta sustatzeko Legearen onespena dago; onespene horrek arauak garatzea eta pixkanaka aplikatzea eskatzen du.

Ildo horretatik, aldundiei egindako azken datu eskaeran Legearen aplikazioari buruzko informazio zehatza eskatu zen, esate baterako:

- Zenbat balorazio eskaera jaso diren, zenbat egin diren, zenbat hartu diren mendetasun handikotzat (III gradua)... (ahal den datarik eguneratuenera arte).
- Datu hauek zein proportziotan dagozkion adineko pertsonen sektoreari.
- Pertsona horiek zein prestazio edo zerbitzu eskatzen dituzten gehienbat.
- Eskatutako prestazio eta zerbitzuak zenbateraino beteta dauden.
- Legea behar bezala garatu eta aplikatzeko zein zailtasun dituzten.

Lehenago aipatu bezala, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak gai horien inguruan egin duen balorazioa jakin eta hemen aurkeztu nahi genuke, baina emandako erantzunean ez du ezer esaten horren inguruan.

III. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuak gure informazio eskaerari emaniko erantzuna 2008ko urtarrilaren erdialdean jaso da. Eskualdeetako datuak biltzen ditu banakatuta eta, eguneratzeari dagokionez, ia datu guztiek 2007ko data jakin batzuetan (ekaina/iraila/abendua) zerbitzuak zein egoeratan zeuden adierazten dute.

Jarraian, hona hemen jasotako datu globalak, laburtuta eta eskualdeka banakatuta:

- **Egoitza-zentro** kopuruari dagokionez: 24 publiko eta 40 pribatu (hau da, aurreko urtean baino bat gutxiago).
- Plaza-kopuruari dagokionez: 2.030 zentro publikoetan eta 2.714 zentro pribatuetan (hau da, aurreko urtean baino 32 plaza gutxiago).

Horien artean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutakoak: 1.920 plaza zentro publikoetan eta 1.842 zentro pribatuetan (aurreko urtean baino 7 plaza gehiago).

- Betetako plaza-kopuruari eta itxaron zerrenden datuei dagokienez:
 - Hitzartutako plazetan artatu diren laguntza beharreko pertsonen kopurua (2007ko ekainaren 30ean): 1.662 zentro publikoetan eta 1.756 zentro pribatuetan (alegia, aurreko urtean baino 199 pertsona gutxiago).
 - Baliabidea eskatu dutenen zerrendan: 942 pertsona.
 - **Eguneko zentro** kopuruari dagokionez: 38 publiko eta 21 pribatu.
 - Eguneko zentroetako plaza-kopuruari dagokionez: 729 zentro publikoetan eta 651 zentro pribatuetan (guztira, aurreko urtean baino 60 plaza gehiago).
- Horien artean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutakoak: 667 zentro publikoetan eta 494 zentro pribatuetan (aurreko urtean baino 94 plaza gehiago).
- Eguneko zentroetan hitzartutako plazetan laguntza behar duten pertsonen kopurua: 597 zentro publikoetan eta 474 zentro pribatuetan (hau da, aurreko urtean baino 123 pertsona gehiago).
 - Eta **etxez etxeko laguntza-zerbitzuari** dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzunak bi taula dakartza datu banakatuekin, eta bertan, alde batetik, pertsona autonomoei eta laguntza behar dutenei eskainitako zerbitzuak bereizten dira eta, bestalde, 2006ko eta 2007ko datuak alderatzen dira (kasu honetan, 2007ko abenduaren 16ko informazioa dugu). Hauek dira datuak:

| | 2006. URTEAN | | | | | |
|--------------|--------------------------------------|---|---|------------------------------------|---|--|
| | ARTATUTAKO PERTSONA AUTONOMOAK | | | ARTATUTAKO MENDEKO PERTSONAK | | |
| | ARTATUTAKO PERTSONA AUTONOMOAK | PERTSONA AUTONOMOAK ARTATZEN EGINIKO ORDUAK | PERTSONA AUTONOMO BAKOITZA ARTATZEN EGINIKO ORDUAK, BATEZ BESTE | ARTATUTAKO MENDEKO PERTSONAK | MENDEKO PERTSONAK ARTATZEN EGINIKO ORDUAK | MENDEKO PERTSONA BAKOITZA ARTATZEN EGINIKO ORDUAK, BATEZ BESTE |
| BIDASOA | 244 | 30.979,10 | 127 | 262 | 49.304,05 | 188 |
| DEBABARRENA | 113 | 13.417,85 | 119 | 232 | 38.287,77 | 165 |
| DEBAGOIENA | 248 | 37.094,75 | 150 | 316 | 92.737,86 | 293 |
| DONOSTIALDEA | 1.355 | 227.067,65 | 168 | 1.497 | 393.632,19 | 263 |
| GOIERRI | 256 | 49.287,00 | 193 | 382 | 98.994,92 | 259 |
| TOLOSALDEA | 183 | 28.911,69 | 158 | 295 | 78.761,55 | 267 |
| UROLA KOSTA | 188 | 28.652,19 | 152 | 329 | 74.927,20 | 228 |
| | 2.587 | 415.410 | 160 | 3.313 | 826.646 | 249 |
| | (2.467) | (372.029) | (151) | (3.270) | (813.809) | (249) |

| 2007ko LEHEN HIRU HIRUHILEKOETAN | | | | | | |
|--------------------------------------|---|---|------------------------------------|---|--|--------------|
| ARTATUTAKO PERTSONA AUTONOMOAK | | | ARTATUTAKO MENDEKO PERTSONAK | | | |
| ARTATUTAKO PERTSONA AUTONOMOAK | PERTSONA AUTONOMOAK ARTATZEN EGINIKO ORDUAK | PERTSONA AUTONOMO BAKOITZA ARTATZEN EGINIKO ORDUAK, BATEZ BESTE | ARTATUTAKO MENDEKO PERTSONAK | MENDEKO PERTSONAK ARTATZEN EGINIKO ORDUAK | MENDEKO PERTSONA BAKOITZA ARTATZEN EGINIKO ORDUAK, BATEZ BESTE | |
| BIDASOA | 232 | 24.532 | 106 | 244 | 42.308 | 173 |
| DEBABARRENA | 112 | 12.501 | 112 | 203 | 32.301 | 159 |
| DEBAGOIENA | 228 | 28.091 | 123 | 313 | 71.021 | 227 |
| DONOSTIALDEA | 1.232 | 166.320 | 135 | 1.464 | 305.922 | 209 |
| GOIERRI | 242 | 36.716 | 152 | 373 | 79.808 | 214 |
| TOLOSALDEA | 180 | 21.177 | 118 | 288 | 60.972 | 212 |
| UROLA KOSTA | 178 | 21.036 | 118 | 338 | 57.107 | 169 |
| | 2.404 | 310.372 | 129 | 3.223 | 649.440 | 201 |
| | (2.542) | (315.798) | (124) | (3.020) | (618.548) | (205) |

2007ko datu horiek guztiak aurreko urtekoekin aldera daitezke (parentesi artean bi tauletan) eta baita 2001ekoekin ere –aipaturiko gure txostenean bildu eta aztertu ziren horiek–. Azken sei urteetan nahiz azken urte honetan nolako bilakaera izan den ikusteko aukera ematen du horrek. Horrela, adibidez, konparazio elementu gisa egoitza-zentroetako plaza-kopuruari buruzko datuak hartzen baditugu, ondorengo taula honetan laburbil dezakegu:

| ESKUALDEAK | EGOITZETAN BAIMENDUTAKO PLAZEN KOPURUA | | | Δ 2001-07 | $\Delta\%$ | ESTALDURA TASAK | | |
|--------------------------|---|--------------|--------------|---------------------|------------|-----------------|-------------|-------------|
| | 2001 | 2006 | 2007 | | | 2001 | 2006 | 2007 |
| BIDASOA | 260 | 391 | 391 | 131 | %50 | 2,22 | --- | --- |
| DEBABARRENA | 424 | 422 | 424 | 0 | --- | 3,74 | --- | --- |
| DEBAGOIENA | 401 | 387 | 391 | -10 | %-2 | 3,61 | --- | --- |
| DONOSTIA | 2.078 | 2.607 | 2.614 | 536 | %25 | 3,75 | --- | --- |
| GOIERRI | 296 | 267 | 267 | -29 | %-10 | 2,52 | --- | --- |
| TOLOSA | 409 | 318 | 328 | -81 | %-20 | 5,38 | --- | --- |
| UROLA KOSTA | 255 | 320 | 329 | 74 | %29 | 2,40 | --- | --- |
| GIPUZKOA, GUZTIRA | 4.123 | 4.712 | 4.744 | 621 | %15 | 3,64 | 3,80 | 3,76 |

Ikus daitekeen eran, Gipuzkoako Lurralde Historikoko **egoitza-zentroetan** baimendutako 621 plaza gehiago daude 2001az geroztik; urteko hazkundera, beraz, %2,5 ingurukoa izan da. Hala ere, eskualderen batean (Bidasoa) hazkunde hori %50era iritsi da eta beste batzuetan (Debagoiena, Goierri eta Tolosa), aldiz, eskaintza ez hazteaz gain, murriztu egin da. Aurreko urtean izandako aldaketak, ikus daitekeen moduan, txikiak dira.

Baina bilakaera ongien ikusten uzten duen adierazlea estaldura-tasei dagokiena da. Hau da, kasu honetan, zehazki, plazen hazkundera zenbateraino datorren bat 65 urtetik gorako biztanleriaren hazkunderarekin. 2001ean Gipuzkoako estaldura-tasa

3,64 plazakoa zen egoitza-zentroetan –65 urtetik gorako 100 adinekori dagokienez–; 2006 erdi aldera (2005eko biztanleria-datuekin kalkulatuta) 3,80koa zen.

Azken estaldura-tasa (2007rako kalkulatutakoa baina 2006ko EInen biztanleria-datuekin) 3,79 da. Hau da, aurreko urtekoa baino zertxobait txikiagoa, Gipuzkoako biztanleriaren zahartzea (65 urte baino gehiagoko 126.026 adineko 2006ko datuetan) proportzionalki plaza-kopurua baino handiagoa izan delako.

Datu hori **eguneko zentroetan** emandako bilakaeraren desberdina da: 2001ean 256 plaza, 2006an 1.320 eta 2007an 1.380; hau da, bost urtean bost aldiz biderkatu da plaza-kopurua. Izan ere, 27tik 38ra pasa da eguneko zentro publikoen kopurua, eta 11tik 21era eguneko zentro pribatuen kopurua.

Etkez etxeko laguntza-zerbitzuari dagokionez, 2001ean 4.482 adineko pertsona artatu ziren, eta 2006ko irailean zifra hori 5.562koa zen (2.542 autonomoak eta 3.020 mendekoak); beraz, mila pertsona gehiago artatu ziren, eta bost urtean %24ko hazkundea izan da.

Eskura dauden urte osoko (2006) azken datuek adierazten dute 2006an artatutako pertsona-kopurua 5.900 izan dela (2.587 autonomo eta 3.313 mendeko). Beraz, aurreko urtean baino 338 pertsona gehiago. (2007ko lehen hiru hiruhilekoetako datuak baino ez daude eskura: 5.627 pertsona dira artatutakoak).

Pertsona horiek artatzen eginiko ordu kopuruak, ordea, oso bestelako bilakaera izan du. 2001ean 1.107.000 ordu ziren eta 2005ean, aldiz, zifra 687.827 ordura jaitsi zen. Artatutako pertsonen kopuruak gora egin ahala, prestazio orduen kopuruak behera egiten du, eta, beraz, pertsona bakoitzari ematen zaion arreta geroz eta urriagoa da. Gure ezohiko txostenean ere joera hori hauteman genuen. Hala, gure erkidego osorako, 1994an zerbitzu honen erabiltzaile bakoitzak batez beste urtean 295 arreta-ordu jasotzen zituen; 2001ean 233 arreta-ordu izaten zituen; eta urte osoko (2005) Gipuzkoako datuen arabera, 151 arreta-ordu izan zituen bakoitzak. Iaz egin genuen 2006rako kalkulua (lehen hiru hiruhilekoetako datuak estrapolatuta) zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzeko 165 ordu ingurukoa izan zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako azken datuek egiaztatzen dute baja hartzeko joera gelditu egin dela. Izan ere, 2006an zerbitzu horretan pertsona bakoitzari eskainitako ordu erdiak 160 izan ziren autonomoentzat eta 249 mendeko pertsonentzat. Eta 2007ko lehen hiru hiruhilekoetako datuek adierazten dute kopuru horietara heldu edo gaintu egingo direla urte osoan.

Hala, 2006-2007ko **estaldura-tasen** laburpen orokorra eginez gero, Gipuzkoako Lurralde Historikoan (2006ko biztanleria-datuen arabera kalkulatuta) honako koadroa lortuko genuke:

- Egoitza-baliabideetako estaldura-tasa: 3,76
- Eguneko zentroetako estaldura-tasa: 1,09
- Etkez etxeko laguntza-zerbitzuetako estaldura-tasa: 4,68

Horrek, guztira, lurraldeko 65 urte baino gehiagoko 100 adinekoren artetik 9-10 pertsona artatzen direla esan nahi du (%9,53 zehazki, aldeko datuekin kalkulatuta)

Datu kuantitatiboak alde batera utzita, iaz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzunari zegokionez, izaera kualitatiboa zuten lau elementu nabarmendu genituen, eta bereziki lehenengoa, etkez etxeko laguntza-zerbitzuari buruzkoa.

- 1) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadiko Udalen Elkartearen (Eudel) arteko lankidetzarako esparru akordioa, **etxez etxeko laguntza-zerbitzua** emateko baldintzak zehazteko dena, 2006-2007 urteetara zabaltzen zen eta Eudelekin egindako negoziazio luzearen ondorioa izan zen, Gipuzkoako adinekoen mendetasunaren fenomeno sakontzeko sortutako txostenean oinarrituta Gipuzkoako Batzar Nagusiek onetsitako gomendioetako bat aplikatze aldera.
Esparru-akordioaren helburuetako bat Gipuzkoako Lurralde Historikoko etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren irismena, edukia eta ezaugarri nagusiak zehaztea zen, eta, foru aldundiak eta Eudelek ere onartu zuten hitzarmen ereduaren bidez, lurraldeak bateratzea bermatzea, Gipuzkoako udal guztiekin hitzarmen bat formalizatuta; hitzarmen horrek erabiltzaileen ezaugarriak, udalerrri bakoitzeko zerbitzuaren estaldura eta ordu bakoitzaren prezioa zehaztuko ditu, bai kostuari dagokionez, bai erabiltzaileen ekarpenari dagokionez.
Akordio honen ekarpen nagusia, udalek beren zerbitzuak antolatzeko duten autonomia galtetu gabe, etxez etxeko laguntza-zerbitzua bateratzeko ahalegina da, lurraldeen arteko orekari eutsiz, nahi ez diren alderaketak eta bereizkeriak saihesteko. Zentzu horretan, aurrerapauso nabarmena da gure txostenean aztertutako egoerari dagokionez eta Arartekoaren gomendioekin bat dator.
- 2) Ekainaren 2ko 394/2006 Foru Aginduaren onespina. Horren bidez **psiko-geriatriako unitateen baldintzak** zehazten dira (GAO, 112. zk.a, 2006ko ekainaren 14koa). Agindu honek zehatz-mehatz arautzen ditu dementziako prozesuak dituzten adineko dependenteak artatzeko unitateek egiaztatu behar dituzten baldintza material eta funtzionalak, bai eta pertsonal hornidurari dagozkionak ere.
- 3) Gipuzkoako adinekoentzako egoitzen hitzarmen kolektiboak **tarifen** kuantifikazioan izan duen eragin ekonomiko handiagoa (GAO, 23 zk.a, 2006ko otsailaren 3koa). Hala, 2004ko tarifaren gaineratik, 2005ekoa %13,32 hazi zen, 2006koa %6 eta 2007koa %7 haztea aurreikusi zen.
Horrek aurrekontua nabarmen gehitzea ekarri zuen, baita Gipuzkoan laguntza behar duten adinekoentzako plazak lortzeko eta esleitzeko araubidea arautzen zuen 20/2002 Foru Dekretua (GAO, 84 zk., 2002ko maiatzaren 8koa) aldatzea ere, urriaren 10eko 43/2006 Foru Dekretuaren bidez (GAO, 201 zk., 2006ko urriaren 23koa).
- 4) Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, **egoitza-zerbitzuen katalogoa** zen Gizarte Politikarako Departamentuaren eta "Zahartzaroa" Geriatria eta Gerontologia Euskal Elkartearen lanaren bidez gauzatu zen proiektuaren gailurra; Gipuzkoako Lurralde Historikoan laguntza behar duten adinekoentzako egoitzek eskaini behar dituzten zerbitzuak zeintzuk diren azaltzen da bertan zehatz-mehatz. Prestatutako agiriak zentroen funtzionamendurako baimena lortzeko indarrean dauden gutxieneko lege-baldintzak gainditzten dituen arreta-eredu bat ezartzen du, eta, era horretan, Gipuzkoako zentro guztietako kalitate maila ona orokortu nahi da. Adierazten zenaren arabera, zerbitzuen katalogoa 2007an foru dekretu baten bidez onartzea aurreikusi zen, egungo zentroak horretara egokitzeko epea has zedin.

Gure azken datu eskaeran ez genituen aurreko puntuak berariaz aipatu, baina **mendetasun Legea delakoaren garapenarekin eta aplikazioarekin** loturiko zenbait informazio eskatu genituen.

Zentzu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuaren erantzunak ondorengo **arau aldaketei** egiten die erreferentzia:

- 320/2007 Foru Agindua, apirilaren 25ekoa (GAO, apirilaren 27koa). Horren bidez mendetasun egoeraren balorazioaren baremoa eta mendetasun egoera zehazteko jarduteko prozedura ezartzen da.
- 545/2007 Foru Agindua, ekainaren 15ekoa (GAO, uztailaren 9koa). Horren bidez Mendetasunaren Balorazio Baremoa eta RAI-RUG bitartekoen baloreen arabera eta Sakontzen eskalaren bitartez lortutako puntuazioak bihurtzeko baliokideen sistema ezartzen da.
- 133/2007 Foru Dekretua (GAO, abenduaren 7koa). Horren bidez, mendetasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta laguntza sustatzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen prestazio ekonomikoak arautzen dira. Foru Dekretu hori 2008ko urtarrilean sartuko da indarrean.

Lege hori ezartzearen ondoriozko zenbait erabaki edo irizpide aldaketa ere aipatzen ditu. Horrela, hau adierazten du:

- 39/2006 Legearen aplikazioarekin koherentzia gordez, Legearen zerbitzuen katalogoan erantsitako mendekoentzako baliabideak erabiltzeko prozedura aldatu egin da. Zerbitzuak baliatzeko lehentasuna mendetasun graduak eta mailak ezartzen du, eta gradu eta maila bera izanez gero, ahalmen ekonomikoak. Hori hala izanik, ez dira beste aldagai batzuk kontuan hartzen (familiarren egoera, etxebizitzaren egoera) eta horiek lehenago aplikatutako baremoan puntuak gehitzen dituzte.
- Beste alde batetik, eskaria egoki bideratzeko mendetasuna baloratzeko baremoaren bitartekoaren gabeziak ikusita, Departamentuak balorazioa RAI sistemaren bidez mantentzea erabaki du egoitzako plaza bat edo mendeko adinekoentzako eguneko arreta eskatzen duten eskarientzat. Hau da, pertsona horiei balorazio bikoitza egiten zaie: legez beharrezkoa den bitartekoak eskubidea onartu edo ukatzen du, baina RAI balorazioa errekurtsio horiek baliatzeko baldintza osagarria da; izan ere, pertsonaren arreta espezifikoaren premiei buruzko informazioa ematen du eta eskatutako zerbitzuen arabera profil bakoitzaren egokitasuna zehazteko aukera ematen du.
- Azkenik, finantzaketa-irizpideetan aldaketarik ez dela gertatu adierazi du.

Departamentuak gure eskariari emandako erantzunean mendetasuna baloratzen duten zerbitzuak indartzeari buruzko datuen koadro oso zehatza ematen du, 39/2006 Legearen aurretik eta ondoren. Laburbilduz, 16tik 42 pertsonara pasatzen da edo, erabateko dedikazioa denean 9,66tik 38,93ra. Horrek, zerbitzu horretarako norbere baliabideak lauz biderkatzea dakar.

Beste alde batetik, diruzko prestazioak sortzeak beren kudeaketarako atal espezifikoaren sortzea eragin duela adierazten du, diseinatuta dagoena baina formalizatu gabe oraindik, Oinarrizko Errenta bezalako beste laguntza batzuek barne hartzen dituen diruzko prestazioen zerbitzu berriaren barruan. Atal horrek arduradun bat izango du, hiru tekniko eta bost administrari.

Eta baloratzeko eskabideen datuei, egindako balorazioen emaitzei edo gehien eskatutako zerbitzuei dagokienez, 2007ko abenduaren 17ra arte (datuak biltzeko eguna) honakoak eskaintzen dira:

- Gipuzkoan egindako **eskarrien eta balorazioen** datuak (2007ko abenduaren 17ra arte):

| | Adinekoak (65 urte edo gehiago) | 65 urte baino gutxia- goko pertsonak | GUZTIRA |
|-----------------------|--|---|----------------|
| Balorazio eskaerak | 10.454 | 2.533 | 12.987 |
| Baloratutako eskaerak | 8.237 | 1.434 | 9.671 |

- Gipuzkoan egindako **balorazioen emaitzak**:

| | Adinekoak (65 urte edo gehiago) | 65 urte baino gutxia- goko pertsonak | GUZTIRA |
|----------------|--|---|----------------|
| Gradurik gabe | 963 | 220 | 1.183 |
| 1 gradua | 1.445 | 313 | 1.758 |
| 2 gradua | 1.829 | 400 | 2.229 |
| 3 gradua | 4.000 | 501 | 4.501 |
| GUZTIRA | 8.237 | 1.434 | 9.671 |

- Baloratutako pertsonak **gehien eskatutako prestazioak edo zerbitzuak**; 65 urte baino gehiagoko eta gutxiagoko adinekoak barne hartzen ditu, pertsona bakoitzak baliabide bat baino gehiago eskatu ahal izan duela kontuan hartuz (balorazio eskarian gehitutako galdera batetik lortutako informazioa, orientatzekoa dena):

| | Egindako Mendetasunaren Balorazio Baremoaren balorazio guztietarako | Eguneko zentroetan edo egoitzetan artatutako pertsonen balorazioak bazter utziz |
|---|--|--|
| Telelaguntza | 576 | 576 |
| Etxez etxeko laguntza-zerbitzua | 2.192 | 2.192 |
| 65 urtetik gorakoentzako eguneko zentroa | 1.572 | 628 |
| 65 urtetik gorakoentzako gaueko zentroa | 40 | 40 |
| 65 urtetik beherakoentzako eguneko zentroa | 416 | 103 |
| 65 urtetik beherakoentzako gaueko zentroa | 8 | 8 |
| 65 urtetik gorakoentzako egoitza | 5.068 | 1.176 |
| 65 urtetik beherakoentzako egoitza | 362 | 117 |
| 65 urtetik gorakoentzako aldi baterako egonaldiak, zaintzaileek atsedean hartu ahal izateko | 322 | 322 |
| 65 urtetik beherakoentzako aldi baterako egonaldiak, zaintzaileek atsedean hartu ahal izateko | 28 | 28 |
| Laguntza pertsonaleko diruzko prestazioa | 1.985 | 1.985 |
| Famili inguruneke zainketetarako diruzko prestazioa | 3.305 | 3.304 |
| Laguntza teknikoak | 1.527 | 1.527 |
| Informazioa | 3.680 | 3.860 |
| Guztira | 21.081 | 15.866 |

- Azkenik, eskatutako prestazioak eta zerbitzuak zein proportziotan zeuden estalita eta **Legea behar bezala aplikatzeko** zein **zailtasun** dauden baloratzeko eskatu zitzaizen aldundiei. Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzunak honakoa azpimarratzen du:
- Zerbitzuen estalduraren eta eskaera berrien inguruan:
 - Adinekoentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan premia ugari dagoela ikus daiteke, bi zerbitzuetako egungo itxaron zerrenda baino zertxobait gehiago (eguneko zentroan batez ere), baita laguntza teknikoetan ere. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuari dagokionez, momentuz ez dakite eskariaren zein zatiri eman zaion jada arreta, izan ere, artatutako pertsona horientzat oraindik ez dira egin ofiziozko balorazio guztiak.
 - 39/2006 Legeak sortutako diruzko prestazioetarako orientazioa nabarmentzen du, batez ere famili inguruneke zainketetarako laguntzarako. Gipuzkoan prestazioak ezin dira eskatu 2008ko urtarrilaren 7ra arte.
 - Informazio beharra ere nabarmentzen du.
- Aurkitutako zailtasunei dagokienez, bost aipatzen ditu:
 - Arauen, informatikaren eta antolamenduaren norberaren garapena oso denbora gutxian egiteko beharra.
 - Legearen egutegiaren arabera babestutako taldeentzako eskubide sistema-ren eta mendeko pertsona guztiei zuzendutako sistema zabalagoaren arteko elkarbizitza.

- Bi balorazio tresnaren erabilera, biak berriak.
- Gizarte zerbitzuen sistemaren multzoari informazioa eta trebakuntza eskaintzeko beharra.
- Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen koordinazio falta.

Hemen amaitzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzun oso eta zehatzean nabarmentzen den informazioa.

* * * *

Jasotako datuak eta informazioak eskualdez eskualde hemen laburbildu eta jaso ondoren, gutxienez, zenbait ohar eta gogoeta labur egitea komeni da.

Lehenengo eta behin, erabilitako datuei buruz, errealitatearen bilakaeraren adierazle diren heinean. Egiaztatu ahal izan den bezala, sail batzuek ahalegin handia egin dute ahalik eta daturik eguneratuenak eskaintzeko, eta hori ez da erraza zein datatan gabiltzan kontuan hartuta. Arrazoi horrexegatik, datu guztiak ez dira eguneratze data berekoak, eta horrek zaildu egiten du konparaketa egitea edo konparaziozko tasak lortzea, baina, nolana ere, datuok lehen aipaturiko gure txostenean jaso eta aztertutakoa baino edo iazko urteko txostenekoa baino irudi eguneratuagoa eskaintzen dute (2006 edota 2007koa). Horrek joera eta aldaketa nabarmenenak hautemateko bidea ematen du; horietako batzuk jada azaldu ditugu txosten honetan.

Abenduaren 31n eguneratutako datuak lortzeko zailtasuna gorabehera, egun batzuk geroago (Arartekoaren urteko txostena urtarrilean idazten baita), aldizka ahalegin hori egitea merezi duela uste dugu. Nolanahi ere, eskerrak eman nahi dizkiegu ahalegina egin duten pertsona eta zerbitzuei.

Bigarrenik, hemen landutako alderdiak testuinguru zabalagoan kokatzeko: adinekoen premiak eta eskubideak. Zentzu horretan, gogoan izatea komeni da eginiko jarraipena hiru zerbitzutan zentratu dela: etxez etxeko arreta, eguneko zentroak eta egoitza-zerbitzuak. Arrazoi pisutsuengatik aukeratu dira zerbitzu zehatz horiek azterketaren xede gisa: alde batetik, gure erkidegoan gehien hedatutako eta eskaririk handiena duten zerbitzuak direlako; beste alde batetik, adinekoak, nolabaiteko autonomiarekin, bere ingurunean bizitzen jarraitzeko aukera ematen duten funtsezko baliabideak direlako, edo, adinekoak izateaz gain laguntza behar duten pertsonen kasuan batez ere, haien oinarriko ostatu- eta arreta-premiak asetzeko egoitzaren alternatiba eskaintzen duelako. Zerbitzu nagusiak dira, alegia.

Hala ere, badira beste zerbitzu batzuk (esaterako, telelaguntza zerbitzuak) edo beste politika batzuk –hirugarren adinerako bereziak batzuetan, eta beste batzuetan biztanle guztientzako direnak–, adinekoen ongizatean eragin bera edo handiagoa dutenak. Honako hauek, adibidez:

- Pentsio sistema, pertsonen autonomia ekonomikoa bermatzeko nahikoa izan daitekeena ala ez.
- Irisgarritasunerako edo eragozpenak kentzeko politikak, norberaren etxebizitza kartzela bihur ez dadin, edo mugikortasun arazoak dituzten edo ezgaitasunen bat duten pertsonen zerbitzu publikoak erabili ahal izateko.
- Osasun sistema eta bere zerbitzuak.
- Familiak edo zaintzaileak bateratu eta laguntzeko politikak, etab.

Txostenak ez ditu aztertzen esparru hauek, baina ez dira ahaztu behar, garrantzitsuak dira eta.

Gai horietako batzuk Arartekoari proposatu zaizkio kexa moduan 2007an zehar. Hala, adibide gisa, adinekoek, edo hurbileko beste pertsona batzuek, baina adineko horien egoerari buruz aurkeztutako **kexek** honako gaiak planteatzen dituzte:

- Jubilatuen egoitzako zuzendaritza-batzordearen berrikuntza;
- Eraikin zaharrean igogailua jartzea;
- Zaratak edo jarduera gogaikarriak (hurbileko enpresak, tabernak, festak, lonjak, fabrikak, txakurren zaunkak, pubak...);
- Emandako pentsioarekiko desadostasuna;
- Egoitzetako janariaren kalitate eskasa.
- Zorraren onarpenarekiko desadostasuna;
- Mugikortasuna (egokituriko garraioa, oztopoak...);
- Abandonu egoerak;
- Estaldurarik gabeko etxez etxeko laguntza ukapenak;
- Arreta medikoan atzerapenak;
- Gizarte laguntza handiagoak eskatzea;
- Ospitaleko arretan tratu ezegokia ematea;
- Hirugarren Adinekoen egoitzetan plazarik ez esleitzea;
- Adinekoentzako zerbitzuen irisgarritasuna sustatzeko legea ez betetzea.
- Baliabide jakinak baliatu ahal izateko itxaronaldiengatik protestak;
- Pentsioekin erlazionatutako kexak;
- Beharrian larria dagoen egoeretan laguntza eskatzea;
- Etxebizitzetan igogailuak jartzearekin loturiko kexak;
- Alzheimer gaitza duten adinekoen berariazko premiak;
- Zaharren egoitzan itoginak konpontzeko atzerapenagatik protestak.

Hemen jasotako adibideen bidez egiaztatu daitekeen moduan, askotan adinekoek aurkezten dituzten kexak, hain zuzen ere, goian aipatutako gaien ingurukoak dira (pentsioak, osasun sistema, irisgarritasuna...) edo beren bizi kalitatean eragiten duten beste gai batzuen ingurukoak dira, zaratak edo etxebizitzetako igogailu faltagatik, esaterako.

Eta amaitzeko, jarraipen datuak eta kexak albo batera utzita, hurbileko etorkizunera begira zenbait hausnarketa egin edo hausnarketei berriro heltzea.

Horrela, beste batzuetan ere adierazi dugun bezala, gogoan izatea komeni da askotan oharkabean pasatzen den errealitatea. Datuek adierazten duten bezala, 65 urtetik gorako hamar adinetakotatik batek bakarrik baldin badu gaur egun erakundeen nolabaiteko arreta, horrek esan nahi du hamarretik bederatzire beren kasa edo beren familiartekoen laguntzaz mantentzen direla, eta askotan horiek ere adinekoak izaten dira. Zorionez, oraindik familia asko laguntzako sare informala dira. Haientzako eta, bereziki, zaintzaileentzako (gehienbat emakumezkoak) kostu handia dakar horrek. Errealitate hau ia ez zen jaso gure txostenean, ez baitzen hori helburua, baina ez da ahaztu behar. Gizarte politikek kontuan hartu behar dute, bai eta ongi zaindu ere, neurri handi batean horixe baita gizartearen beraren euskarri. Erakundeek bultzatutako atsedeen programa jakinek horretan lagun dezakete.

Ildo horretatik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak berriki argitaratutakoa bezalako azterlanek (“*Euskal Autonomia Erkidegoko zainketa informalak: Zaintzaileen premiak*”) zaintzaileen beharrak hobeto ezagutzen eta laguntzeko edo hobetzeko programak edo jarduerak bideratzen lagun dezakete.

Gainera, badira alderdi kualitatiboagoak ere, lantzen zailak direnak, baina etorkizunean premiaz aintzat hartu beharko liratekeenak. Adinekoen tratu txarrak edo tratu desegokia aipa genezake, adibidez. Azken urteetan izan dira ekimen batzuk gai honen inguruan eta, aurki, horren inguruko azterlana argitaratuko da. Azterlan horrek Arartekoaren beka jaso du eta Matia Fundazioaren INGEMA institutuko talde bati egokitu zaio.

Hurrengo urteetako jarraipen lanak horrelako gaiak, hots, Arartekoaren funtzioetatik hurbileko gaiak, barneratu beharko lituzkeela uste dugu, eta, orobat, joan den abenduan onartu zen mendetasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta horiei zuzenduta laguntza sustatzeko 39/2006 Legearen zehaztapenean eta garapenean zentratu behar lukeela.

3. BERARIAZKO ARRETA ADINGABEEI

Adingabeak eskubideak dituzten subjektuak dira, baina, horrez gain, dituzten ezaugarriak direla-eta, egoera bereziki ahulean dagoen sektorea osatzen dute eta bermatu egin behar diren berariazko eskubideak dituzte. Horregatik hartzen du Arartekoak talde hau berariazko eta lehentasunezko arreta behar duen talde gisa. Gainera, EAEko biztanleriaren %15 da (18 urtetik beherako 319.784 pertsona daude, EINen 2007ko urtarrilaren 1eko datuen arabera)

Ararteko erakundeak biztanleriaren sektore honen eskubideak babesteari eskaintzen dion lehentasunezko arreta, aurten ere, hainbat jardun ildotan zehaztu da. Nagusiki, honakoetan:

- I. Egoera bereziki ahulean edo egoera ahulagoan dauden adingabe talde batzuei buruzko problematika zehatzaren analisia eta jarraipena egin da.
- II. Kexak ebatzi dira eta gomendio zehatzak egin dira.
- III. Bereziki larriak diren edo gizartean eragina duten egoeretan ofizioz jardun da.
- IV. Biztanleriaren sektore honetan diharduten gizarte eragile, elkarte edo erakundeekin lankidetzan aritu gara.
- V. Beren eskubideen kultura zabaldu da.

Atal honetan, adingabeen eskubideak defendatzeari dagokionez 2007an burutu diren jarduera nagusiak labur-labur jasoko ditugu, goian aipatutako jardun ildoetako bakoitza bereizita. Gainera, aurreko urteetan egin diren eta lege edo arau bidez garatu behar ziren gomendioetako batzuk ekarri dira gogora, izandako aurrerapenak eta dauden gabeziak aipatu dira. Azkenik, laburpen gisa, aurten garatutako jarduerekin bat etorri bereziki kezkarriak diren eta hobetu egin behar diren egoerak edo problematikak nabarmendu dira.

Gai honi orrialde eta epigrafe asko eskaini dizkiogunez eta sektore ugari daudenez, jarraian aurkibide modukoa egin dugu, informazioa errazago bilatu ahal izateko:

- I. Egoera bereziki ahulean dauden sektoreen problematikaren analisia eta jarraipena.
 - 1) Familiaren babesik gabeko haurrak eta nerabeak
 - 2) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak
 - 3) Adingabe lege-hausleak
 - 4) Sasoikako langileen seme-alabak
 - 5) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak
 - 6) Buru osasuneko arazoak dituzten haurrak edo nerabeak
 - 7) Atxilotutako adingabeak. Adingabeekin zerikusia duten poliziaren jarduerak
 - 8) Eskolako tratu txarreko edo jazarpeneko egoerak
 - 9) Famili biltokiak
 - 10) Beste egoera ahul batzuk
 - 11) Egoera bereziki ahulei buruzko zenbait gogoeta orokor

- II. Kexa eta gomendio zehatzak.
- III. Gertakari edo egoera bereziki larrien aurrean garatutako ofiziozko jarduerak.
- IV. Gizarte eragileekiko lankidetzeta eta gizarte sentsibilizazioa.
- V. Haurren eta haurtzaroko eskubideen kultura zabaltzea.
- VI. Betetzeko dauden arauzko gomendioak.
- VII. Azken urteotan izan diren egoerarik problematikoena.

I. **EGOERA BEREZIKI AHULEAN DAUDEN SEKTOREEN PROBLEMATIKAREN ANALISIA ETA JARRAIPENA**

Adingabeen multzoaren barruan, orobat, beren eskubideak arrisku larrian dituzten sektoreak ere badaude. Ararteko erakundeak lehentasunezko arreta eskaintzen die egoera ahulean dauden edo premia bereziak dituzten haur eta nerabe talde horiei, funtsean, lan monografikoak eta ezohizko txostenak prestatuta eta horien inguruko jarraipena eginda. Horrela, aurtan, jarraipenak honako bederatzi sektore hauetan jarri du arreta (edo horiek hartu ditu kontuan):

- 1) Babesik gabeko haurrak eta nerabeak (babes sistemak)
- 2) Bakarrik dauden adingabe atzerritarak
- 3) Adingabe lege-hausleak (epailearen neurriak bete behar dituztenak)
- 4) Sasoikako langileen seme-alabak (zenbait egoeratan eskolatu gabe geratzen dira)
- 5) Hezkuntza-premia bereziak edo zehatzak dituzten ikasleak (premia horiek ezgaitasunen baten ondorioa izan daitezke, baina baita jatorri, etnia edo egoera sozioekonomikoaren ondorioa ere)
- 6) Buru osasuneko arazoak dituzten haurrak eta nerabeak
- 7) Atxilotutako adingabeak: atxilotetaren baldintzak
- 8) Eskolako tratu txarreko edo jazarpeneko egoerak
- 9) Famili biltokiak

Aipatutako bederatzi sektore horietan ez ezik, egoera ahulean dauden beste sektore batzuetan ere burutu dira zenbait jarduera eta ekimen. Horien artean, honakoak: adingabe atzerritarren eskolatzea, ijitoak, teknologia berriak erabiltzeak adingabeentzat izan dezakeen arriskua, alkohol edo drogen gehiegizko kontsumoa... Hemen, berariazko azpiatalean bilduko ditugu (10).

Ikusi ahal izango den bezala, ezinezkoa izan da adierazitako sektore guztietan jarraipena maila berean egitea. Kasu batzuetan (adibidez, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei dagokienez), zentroetara hainbat bisita egin dira, baita ofiziozko hainbat jarduera ere; beste kasu batzuetan, ordea, administrazio eskudunei informazio eskaerak bidaltzera, bisita zehatzak egitera edo ofiziozko jarduerak garatzera mugatu behar izan dugu.

Azkenik, lehen bloke hau amaitzeko, sektore bakoitzetik egindako ibilbidearen amaieran, hein handiagoan edo txikiagoan sektore guztiei eragiten dieten zenbait go-goeta orokorrako bildu ditugu (11. azpiatala).

1) Familiaren babesik gabeko haurrak eta nerabeak

A) Aurrekariak

Ararteko erakundeak babesik gabe dauden haur eta nerabeen laguntza-zerbitzuari buruzko ezohizko txostena 1997ko irailean atera zuen jendaurrera. Lana egiteko 150 espediente aztertu ziren (50 lurralde historiko bakoitzeko), eta gure autonomia-erkidegoan garai hartan zeuden 63 arreta-zentroak ikustera joan ginen. Eta, txostenaren amaieran, 42 gomendio zehatz proposatu ziren aztertutako kontuetako askoren gainean:

- Adingabeen babesari dagokion esparru juridikoa eta eskumenen banaketa;
- Zerbitzu sarean lan egiten duten profesionalak;
- Banakako premiei erantzuteko programak;
- Besteak beste, arazoak detektatzeko, erabakiak hartzeko, parte hartzeko eta berrikusteko prozedurak;
- Egoitza-zerbitzuen antolaketa eta funtzionamendua;
- Zerbitzu horien kontrola eta ebaluazioa...

Bai txostenean bertan bai ondorengo jardueretan, argi eta garbi hobetu daitezkeen alderdiak edo lehentasunezko zat jotzen diren premiak nabarmentzerakoan, erakunde honek ondorengoak azpimarratu ditu:

- Araudi komuna behar da gure autonomia-erkidegoan, arretarik gabeko adingabeen funtsezko kontuak araupetzeko;
- Ahalik eta erantzun desberdin gehien behar da (familia-harrera, larrialdietarako zentroak, eguneko zentroak...);
- Erakundeen erantzunetan alde handiak ikusi dira lurralde historikoen artean;
- Babesik gabeko egoerak antzemateko mekanismoak hobetu behar dira;
- Oinarrizko gizarte zerbitzuen, hezitzaile adituen eta gure autonomia-erkidegoko beste zerbitzu batzuen arteko harremana eta koordinazioa sustatu behar da;
- Irteera, jatorrizko esparruko gizarteratze edo gizarte autonomiako programak egin behar dira;
- Haur eta nerabeek eta beren familiek parte hartzeko mekanismoak bultzatu behar dira;
- Zerbitzuen ebaluazio kualitatiboa eta aldizkako kontrola egin behar dira.

Txostena aurkeztu zenetik, urtero-urtero, erakunde honek egoeraren jarraipena egin du, ekimen desberdinen bitartez: ofiziozko espedienteak sail eta erakunde desberdinen aurrean, aldizkako bilerak erakunde horietako arduradunekin, bisitak hiru lurraldeetako harrera-etxe edo zentroetara... Eusko Legebiltzarrarentzako ohizko txostenetan, urtero-urtero, jarduera horien laburpena jaso da.

Gainera, duela sei urte, txostena egin zenetik igarotako denbora zela-eta, eta haurren beharretan eta haurrak babesteko politiketan izandako aldaketak kontuan izanik, ahalegin berezia egin zen informazioa eguneratzeko eta, horrela, izandako bilakaeraren eta lortutako aurrerapenen balorazioa egiteko. Horretarako, bisitez gain (bereziki bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako eta jokabide arazo larriak dituztenentzako zentroetara), administrazio eskudun bakoitzera jo genuen, informazio xehatua eskatzeko, hamaika gai hauen inguruan:

1. Familietan esku hartzeari, bitartekotza-zerbitzuari, familia banantzeari eta babes sistematik irteteari buruzko planak eta programak.
2. Talde teknikoetan, zuzeneko arretako profesionalengan eta taldeen arteko koordinazioan izandako aldaketa esanguratsuak.
3. Erabakiak hartzeko prozeduretan egindako aldaketa esanguratsuak (batzorde teknikoak, organo erabakitzaileak...).
4. Arrisku egoerak eta babesik gabeko egoerak antzemateko egindako hobekuntzak.
5. Hartutako adingabeen partaidetza eta kexetarako mekanismoak eta bizikidetasun arauak ezartzea.
6. 2000n eta 2001ean artatutako herritarren eta espedienteen gaineko datuak.
7. Familia banantzearen ondorioz 2000n eta 2001ean hartu ziren babes neurrien gaineko datuak (egoitza-harrerak, familia-harrerak, adopzioak...).
8. Estatuko eta nazioarteko adopzioen gaineko berariazko datuak.
9. Egoitza-zerbitzuen sarearen gaineko datuak.
10. Zerbitzuen eta programen funtzionamenduaren ebaluazio, ikuskapen eta kontrolean egindako hobekuntzak.
11. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren kolektiboaren gaineko berariazko informazioa eta datuak.

Zenbait azpiataletan, eskatutako informazioa hasierako txosteneko datuekin alde-ratzeko moduko kopuruzko datuetan edo adierazleetan zehazten zen, horrela bilakaera ikusi ahal izateko. Jasotako informazio guztia, laburbilduta, 2001eko txostenean islatu zen, lurraldez lurralde. Gainera, azkeneko azpiatal batean, gogoetakoa, ondorio, joera eta alderdi aipagarri nagusiak jaso ziren (ikusi 2001eko txostena, 1.1.5 azpiatala).

Aipatu txostenean xehetasun osoz bildu eta aztertu zituen datu orokorrak alde batera utzita, azken urteotan, erakunde honek, nagusiki, bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoeran bildu du arreta eta horren inguruko jarraipena egin du (sektore hori dela-eta ezohizko beste txosten bat egin da eta urteko txosten honetan ere berariazko azpiatala eskaini zaio).

Gainera, duela hiru urte, Ararteko erakundeak bereziki larriak izan ziren zenbait egoerari lehentasuneko arreta eskaini zion eta horien jarraipena egin zuen; egoera horien artean, Hondarribin J.C. nerabeak bere buruaz beste egin izana eta babes zentro batetik ihes egin zuten bi nerabe hil izana ditugu. Horren guztiaren berri zegokion txostenean eman zen (ikusi 2004ko txostena, 1. atala, 1.1.5 azpiatala).

Bestalde, 2005ean, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko ezohizko txostena prestatu eta horren jarraipena egiteaz gain, Arartekoaren esku-hartzea oso zehatza den eta, aldi berean, oso ezaguna ez den problematikara bideratuta egon zen: amek

jasaten dituzten tratu txarren eragina zuzenean pairatzen duten adingabeei eskainitako berariazko arreta (ikusi 2005eko txostena, V. atala, 3.1 azpiatala).

Azkenik, 2006an, Arartekoak ondorengo hiru gai hauen jarraipena egin zuen: famili biltokiak; adopzioak; eta bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera.

B) Azken urtean egin diren jarraipen jarduera nagusiak

Azken urtean egin diren jarraipen jarduerari dagokienez, hemen babes sistemari buruzko datuen jarraipena edo eguneratzea egitera mugatuko gara.

Txosten honetako beste azpiatal batzuetan nazioarteko adopzioen eta egokitasun ziurtagirien gaiarekin, bakarrik dauden adingabe atzerritarren berariazko egoerarekin edo famili biltokiaren egoerarekin erlazionatutako beste alderdi batzuei heldu zaie. Alderdi horiek azpiatal honetan ere azter genitzake, baina, guztia argiago gera dadin, berariaz aztertu dira.

BABES SISTEMAK

Lehen esan bezala, arlo honetako erreferentziako txostena 1997koa da eta, orduz geroztik, jarraipena egin zaio, hein handiagoan edo txikiagoan. Bereziki 2001ean egin zen jarraipena eta baita 2007an ere.

Txostena egin zenetik igarotako denbora dela-eta, eta haurren beharretan eta haurrak babesteko politiketan izandako aldaketak kontuan izanik, aurten ahalegin berezia egin da informazioa eguneratzeko eta, horrela, izandako bilakaeraren eta lortutako aurrerapenen balorazioa egiteko.

Horretarako, nagusiki, ofiziozko lau espediente erabili dira, Arabako Foru Aldundiari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gasteizko Udalari zuzenduak. Espediente horien bidez, aipatu txostenaren jarraipena hobetu egin ahal izateko eguneratze gisa erabilgarriak izan daitezkeen oinarritzko zenbait datu eta informazio eskatu genituen.

Txostena bera oso zabala denez eta gomendioak ugariak, informazio zehatza eskatu ordez, egokiagoa iruditu zaigu arreta bilakaera-adierazle gisa erabilgarriak izan daitezkeen datu kuantitatibo batzuetan eta alderdi jakinetan jartzea.

Azken urteotako datu kuantitatiboari dagokienez, guk eskatutakoak, oinarritzkoenak, honako hauek dira:

- 1) 2005ean, 2006an eta 2007an artatutako herritarren eta espedienteen gaineko datuak.
 - Urte bakoitzean zabalduko espediente kopurua.
 - Espediente horietan tartean ziren adingabeen kopurua.
- 2) Familia banantzearen ondoriozko babes neurriei buruzko datuak (2005-12-31n, 2006-12-31n edo 2007-12-31n zeudenak, edota datuak bildu ziren azken datari dagozkionak):
 - Famili gunea banantzea.
 - Egoitza-harrerak.
 - Familia-harrerak.
 - Familia-harreraren antzeko egoerak.

- 3) Adopzioei buruzko datuak (2007koak; 2007ko daturik eduki ezean, 2006koak); Estatuko eta nazioarteko adopzioak bereiziko dira:
 - 2007-01-01ean erantzuteko zeuden eskaerak.
 - 2007an aurkeztutako eskaera berriak.
 - 2007an gauzatutako adopzioak.
 - 2007-12-31n erantzuteko zeuden eskaerak.
- 4) Egoitza-zerbitzuen sarearen gaineko datuak (2007-12-31n zeudenak edo ahalik eta eguneratuen daudenak). Zentro bakoitzari buruz ondorengo datuak adieraziko dira:
 - Zentroaren izena eta helbidea.
 - Publikoa edo pribatua (zer erakundek kudeatzen duen).
 - Ezarritako plaza-kopurua.
 - Okupatutako plaza-kopurua (adierazitako datan).
 - Langileak (profesional kopurua, lanaldi osoak aintzat hartuta kalkulaturik).
 - Artatutako taldearen ezaugarriak.

Izaera kualitatiboko beste informazio batzuei dagokienez, aurreko jarraipenak aintzat hartuta, pentsatu dugu izandako bilakaera baloratzeko egokienak ondorengo alderdi hauetan egindako hobekuntzei buruzkoak izan litezkeela:

- 5) Planak, programak eta ebaluazioak.
- 6) Talde teknikoak, profesionalak eta koordinazioa.
- 7) Arrisku egoerak edo babesik gabeko egoerak detektatzea.
- 8) Erabakiak hartzeko prozedurak.
- 9) Bizikidetasun arauak eta partaidetza eta kexetarako mekanismoak erregulatzeko.
- 10) Zerbitzuak eta programak ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzea.

Gai horiek oso zabalak direnez, informazioak ahalik eta zehatzena izan behar lukeela eta egindako hobekuntzak edo oraindik konpondu ez diren arazoak aztertu behar lituzkeela iruditu zitzaigun eta halaxe eskatu genien lau administrazio eskudunei.

2008ko urtarrilean, aipatu lau administrazioetatik hiruk prestatutako erantzunak jaso ditugu. Horiek guztiek arestian aipatu dugun 10 puntuen eskema jarraitzen dute, nahiz eta ez duten zehaztasun maila bera agertzen. Kasu batzuetan, erantzunekin batera, erantsitako dokumentuak, memoriak edo plan osoak aurkeztu dira; horiei esker, eskatutako datuak testuinguruan jar daitezke edo xehetasun handiagoz banakatu daitezke, baina nekez barnera daitezke hemen egin nahi denaren moduko laburpen batean.

Horrela, beraz, ondorengo orrialdeetan foru aldundi bakoitzetik jasotako informazioa laburbiltzen saiatuko gara, 10 puntuei jarraituta eta egin nahi den jarraipenerako gure ustez zehatzagoak edo esanguratsuagoak diren datuetara mugatuta.

1) Arabako Lurralde Historikoa

Kasu honetan, egoera oso berezia da, izan ere, Gasteizko Udalak haurrentzako laguntza-zerbitzu eta harrera-sare propioak ditu eta, beraz, hori ikusita, bi erantzun bereizi behar genituzke: Arabako Foru Aldundiarena (jasotakoa) eta aipatu udalarena (testu hau

idazten amaitutakoan oraindik jaso gabea). Oro har, Arabako Foru Aldundiak aurkeztutako datuak lurralde osoari dagozkio eta, beraz, ikuspegi orokorra eskaintzen dute; Udalak ekartzen dituen datuak, ordea, bere eremu eta sare propiora mugatuko dira.

Hala, bada, Arabako Foru Aldundiak bidalitako erantzunetik honako datu hauek nabarmendu ditzakegu:

1) 2005ean, 2006an eta 2007an artatutako herritarren eta espedienteen gaineko datuak

| | 2005 | 2006 | 2007 |
|----------------------------------|-------------|-------------|-------------|
| Zabaldutako espediente kopurua | 164 | 202 | 223 |
| Tartean ziren adingabeen kopurua | 146 | 187 | 207 |

2) Familia banantzearen ondoriozko babes neurriei buruzko datuak (2005-12-31n, 2006-12-31n edo 2007-12-31n)

| | 2005 | 2006 | 2007 |
|------------------------------------|-------------|-------------|-------------|
| Famili guneak banantzea | 41 | 31 | 38 |
| Egoitza-harrerak | 139 | 123 | 119 |
| Familia-harrerak | 87 | 108 | 120 |
| Familia-harreraren antzeko egoerak | - | - | - |

3) Adopzioei buruzko datuak

Nazioartekoak

| | |
|---|-----|
| 2007-01-01ean erantzuteko zeuden eskaerak | 61 |
| 2007an aurkeztutako eskaerak..... | 113 |
| 2007an gauzatutako adopzioak..... | 36 |
| 2007-12-31n erantzuteko zeuden eskaerak..... | 53 |

Estatukoak

| | |
|---|----|
| 2007-01-01ean erantzuteko zeuden eskaerak | 40 |
| 2007an aurkeztutako eskaerak..... | 18 |
| 2007an gauzatutako adopzioak..... | 3 |
| 2007-12-31n erantzuteko zeuden eskaerak..... | 50 |

4) Egoitza-zerbitzuen sarearen gaineko datuak (2007-12-31n)

Bidalitako informazioa oso zabala da; nolahi ere, argiago gera dadin, ondorengo baliabide taulan laburbildu daiteke:

| ZENTROA | HERRIA | Publikoa edo pribatua (zer erakundek kudeatzen duen) | Ezarrirako plaza-kopurua | Okupatutako plaza-kopurua (2007-12-31n) | Langileak (lanaldi osoan) | Artatutako taldearen ezaugarriak |
|---|---------------------|--|--------------------------|---|---------------------------|--|
| Hazaldi | Vitoria-Gasteiz | GOFeren eta Karitateko Alaben Kongregazioaren arteko hitzarmena | 22 | 16 | 20 | 0-3 urte artekoak (10 plaza); 3 urteik gorakoak (12 plaza). Hasierako arreta eta egonaldi laburrak. Haurrentzako harrera |
| Bosco Etxea, harrera eta larrialdietarako zentroa | Vitoria-Gasteiz | GOFeren eta San Frantzisko Saleskoaren Elkartearen arteko hitzarmena | 10 | 8 | 14,5 | 12-18 urte arteko nerabeak, bereziki, egonaldi laburretan |
| Beroa etxea | Vitoria-Gasteiz | GOFE (funtzionarioak) | 8 | 8 | 9 | 3-18 urte artekoak |
| Hazlidi etxea | Vitoria-Gasteiz | GOFeren eta Arabako Nuevo Futuro elkartearen arteko hitzarmena | 7 | 7 | 9,4 | 3-18 urte artekoak |
| Paula de Montal etxea | Vitoria-Gasteiz | GOFeren eta Arabako Nuevo Futuro elkartearen arteko hitzarmena | 7 | 7 | 9,4 | 3-18 urte artekoak |
| Sendoa etxea | Vitoria-Gasteiz | GOFeren eta Arabako Nuevo Futuro elkartearen arteko hitzarmena | 7 | 7 | 8,4 | 3-18 urte artekoak |
| Sansoheta gizarte-hezkuntzako etxea | Arzubiaga | Izan elkartearekin egindako zerbiztu kontratua | 8+4 | 8+ | 16 | Egoitza-harrerako 8 plaza; eguneko zentroan 4. Berariazko lana egitea dakarten 12-18 urtekoak |
| Zabaltzen, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako zentroa | Vitoria-Gasteiz | GOFeren eta San Frantzisko Saleskoaren Elkartearen arteko hitzarmena | 18 | 21 | 10 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek |
| Carlos Abaitua, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako emanzipazio pisua | Vitoria-Gasteiz | GOFeren eta San Frantzisko Saleskoaren Elkartearen arteko hitzarmena | 6 | 6 | 3+ | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek |
| Xavier, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako emanzipazio pisua | Vitoria-Gasteiz | GOFeren eta San Frantzisko Saleskoaren Elkartearen arteko hitzarmena | 6 | 6 | 3+ | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek |
| Emakume nerabe eta helduentzako harrera-zentroa | Vitoria-Gasteiz | GOFeren eta Erredentore Santiauren Ahizpa Oblatuaren arteko hitzarmena | 8 | 5 | 4,5 | Haurdun dauden edo seme-alaba adingabeak dituzten nerabe eta emakumeak aldi baterako hartzea |
| GUZTIRA | 11 baliabide | | 107 + 4 | 99 | 107,2 + | |

5) **Planak, programak eta ebaluazioak**

Sailak amaituta nahiz hasita edo aurreikusita dauden ebaluazio eta planei buruzko informazioa ekarri du. Funtsean:

- Arabako Lurralde Historikoan dauden haurrentzako gizarte zerbitzuetarako jarduteko gidaren lehen ebaluazioa, 2007an amaitua, eta ondorengo ekintzetarako oinarri gisa erabili ahal izango dena:
 - 1) Egoitza-zentroen eskumenak eta jarduteko prozedura eta Arloko Talde Teknikoarekin koordinatzeko modua zehatzago definituko dituen gidaren eskuliburu osagarria prestatzea.
 - 2) Familia-harreraren tipologia eta familia-harreraren laguntza eta jarraipen programak zehatzago definituko dituen gidaren eskuliburu osagarria prestatzea.
 - 3) Adopzio ondoko laguntza eta jarraipen programa zehatzago definituko dituen gidaren eskuliburu osagarria prestatzea.
 - 4) Udalek baserrialdeetan eskaintzen dituzten gizarte zerbitzuetarako laguntza-neurriak:
 - “Erraz erabiltzeko gida” prestatzea.
 - Famili esku-hartzeko programen jarduteko prozedura, bereziki, udal programena, zehatzago definituko duen gida prestatzea.
- Adingabeentzako egoitza-zerbitzuei buruzko dekretuaren zirriborroarekin bat etorritik (onartzeko dago), etxeen sarea finkatu eta zabaldu egingo dela aurreikusi da; hala, 2008an 16 urtetik gorako nerabeentzako bi emantzipazio pisu eta bakarrik dauden 14 urtetik gorako adingabe atzerritarrak emantzipaziorako prestatzeko pisu bat irekiko dira. Halaber, adingabe atzerritarrentzako harrera-zentro bat irekitzea ere aurreikusi da; hau zentroa 2003an Gurutze Gorriaren instalazioetara aldatu zenetik dago egiteke.
- Familia-harrerako programa bultzatzea.
- Adopzioen programa. Eskatzaileentzako gida berria prestatzea.
- Gizarte egoera larrian dauden adingabeei buruzko azterlana, 2007an hasitakoa, amaitzea.
- Famili Esku-hartzeko Programa (familia-hezitzaileei zuzendua) ebaluatzea, 12 urtez abian egon ondoren beharrezkoa baita.

6) **Talde teknikoak, profesionalak eta koordinazioa**

Sailak Arabako Lurralde Historikoan egiten den eskumen edo erantzukizunen banaketa gogorarazi du:

- Haurrak arriskuan edo babesik gabe geratzen direneko kasuez, larritasuna arina edo ertaina bada eta ez bada beharrezkoa haurra edo nerabea bere

famili ingurunetik aldentzea, udaletako gizarte zerbitzuak eta haurrentzako udal zerbitzuak arduratzen dira;

- Aldiz, haurra babesik gabe geratzen deneko kasuez, hauek larriagoak badira, beharrezkoa bada haurra edo nerabea famili ingurunetik aldi batez edo behin betiko urruntzea eta/edo babesik gabe geratzeko arriskua berehalakoa bada, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Adingabekoen eta Familiaren Arloa arduratzen da.
- GOFEk, Adingabekoen eta Familiaren Arloaren bidez, baliabideak eta aholkularitza teknikoak ematen ditu 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek eman zaizkien eskumenak behar bezala betetzeko behar dituzten baliabideak eta programak izan ditzaten. Kontratu publikoaren bidez, laguntza-taldea ematen zaie 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako gizarte zerbitzuei, haurren bat babesik gabe geratu ote den ikertu eta baloratzeko eta, babesik gabeko egoera arinak edo ertainak direnean, familietan esku hartzeko.
- Gasteizen, balorazio taldeak Hautzaro eta Senitarte Zerbitzuaren menpe daude.

GOFeko Adingabekoen eta Familiaren Arloaren organigrama eta hori osatzen duten profesionalen kopurua eta kualifikazioa ere biltzen ditu. Guztira, 20 pertsona dira, gehienak psikologoak, gizarte langileak eta hezitzaileak, hiru talde edo unitatetan banatuta (Harrera, balorazio eta orientazioko unitatea; Familia-harrerako eta adopzioetako unitatea; Egoitza-harrerako unitatea).

Adierazitakoaren arabera, profesionalen eta zerbitzuen arteko koordinazioa etengabekoa da, jarduteko gidan ezarritako protokoloan oinarrituta.

7) Arrisku egoerak edo babesik gabeko egoerak detektatzea

Lehenik eta behin, arrisku egoerak edo babesik gabeko egoerak detektatzea udaletako gizarte zerbitzuei dagokie.

Arabako Lurralde Historikoan dauden haurrentzako gizarte zerbitzuetarako jarduteko gidarekin bat etorritik, alde batera uzten dira Fiskaltzaren eta epaitegien idatzizko komunikazioak, ospitaleek babesik gabeko egoera larriei buruz egiten dituzten komunikazioak, amek eta aitek guraso aginteari uko egiteko eskaerak, zaintza-eskaerak eta beste autonomia-erkidego batzuek GOFeko Adingabekoen eta Familiaren Arloaren eskumenekoak diren kontuei buruz egiten dituzten eskaerak. Antzemandako eta Adingabekoen eta Familiaren Arloari zuzenean jakinarazitako gainerako egoerak, salbuespenak salbuespen, udaletako gizarte zerbitzuen esku uzten dira, iker ditzaten.

8) Erabakiak hartzeko prozedurak

Sailak gai honetan emandako erantzunak udaletako gizarte zerbitzuek egiten duten hasierako azterketa psikosozialetik kasuan kasu hartu beharreko babes neurriak onartzen

diren arte (babesik gabeko egoera larrietan, erabaki hori Adin Txikikoen Kontseiluari dagokio) bideratzen den prozedura biltzen du.

9) Bizikidetasun arauak eta partaidetza eta kexetarako mekanismoak erregulatzea

Sailak gogorarazi du egoitza-harrerarako baliabideari buruzko autonomietako araudia bidean dela, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea garatuz, eta, beraz, zerbitzu bakoitzaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak eta partaidetza eta kexetarako mekanismoak dagozkion hezkuntza-proiektuen eta bizikidetasun giden bidez definituta daude.

10) Zerbitzuak eta programak ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzea

Azpiatal honetan aipatzen da, zerbitzu eta programei dagokienez kasuan kasu egiten diren ebaluazio berezien kaltetan izan gabe, urtero honela egiten direla jarraipena eta ebaluazioa:

- Funtzionamenduaren jarraipen iraunkorra egiten da, kasuaren koordinatzaileek adingabe bakoitzari eta beren familiei dagokienez prestatzen dituzten kasu eta esku-hartze planen jarraipena eginda.
- Zentroek adingabeen asteroko parteak bidaltzen dituzte, baita berehalako komunikazio idatziak ere gorabeheraren bat egoten denean.
- Sei hilez behin kasu planak koordinatu eta berrikusten dira, helburuak zenbateraino bete diren ikusten da eta ondorengo ekintzak eta helburuak planifikatzen dira.
- Unitateko teknikariek eta arduradunek zentroetako bileretan parte hartzen dute hileroko.
- Urtean bi bilera egiten dira Arloko zuzendaritzarekin. Zentroak direnean, gutxienez horietako bat zentroan bertan egiten da.
- Funtzionamenduaren eta beharrezanaren analisia egiten da, programa eta zerbitzu bakoitzaren urteko memoria ebaluatuta.

Hasieran adierazi den bezala, informazio hori Gasteizko Udalak bere zerbitzu sare propioari buruz ekartzen duenarekin osatu behar izango da.

2) Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren erantzun zabalak, eskatutako datuez gain, dokumentu osagarri ugari dakartza, bai paperean bai CDan. Funtsean:

- Famili esku-hartzeko programen 2005eko eta 2006ko memoriak, Bizgarri elkarteak eginak.
- Nerabeentzako Hezkuntza Programaren (NHP) 2006ko memoria, Berriztu elkarteak eginak.

- Ijito Adingabe eta Familiekin Esku Hartzeko Taldeari dagokion 2005eko memoria, Iniciativa Gitana elkarteak egina.
- Haurrentzako I. Plana, Sailak egina.
- Haurrentzako II. Planaren zirriborroa.
- Programa ezberdinen 2005eko eta 2006ko memoriak.
- Zentroetako hezkuntza-proiektuak (Adingabeentzako Zentroen Sare Orokorra).
- Sailaren 2005eko eta 2006ko memoriak.
- Sailaren 2005eko, 2006ko eta 2007ko programak, zerbitzuak eta prestazioak.

Dokumentu horietako askok ehun orrialde baino gehiago dituzte eta, beraz, informazio asko barnertzen dutela ikus daiteke. Bestalde, horietako gehienak argitaratu eta zabaldutako egin dira. Erakunde honen iritziz, hori jardunbide egokia da, horrela, herritarrek gai horren inguruko ezagutza sakonagoa izan baitezakete eta administrazioak konpromiso handiagoa hartu eta jokabide gardenagoa izango baitu.

Dokumentu horiek baliatu ahal izateko, informazioa aztertu behar genuke, baina horrek une honetan dauden eta txostenak eskaintzen dituen aukera guztiak gaintitzen ditu. Nolanahi ere, jasotako informazioa eskertu nahi dugu; txosten hau egin ondoren kontsultatu eta erabiliko dugu.

Hala, beraz, hurrengo orrialdeetan, adierazitako gaien inguruko alderdirik zehaztenak edo esanguratsuenak laburbildu baino ez ditugu egingo.

1) 2005ean, 2006an eta 2007an artatutako herritarren eta espedienteen gaineko datuak

| | <u>2005</u> | <u>2006</u> | <u>2007</u> |
|----------------------------------|-------------|-------------|-------------|
| Zabaldutako espediente kopurua | 134 | 313 | 591 |
| Tartean ziren adingabeen kopurua | 134 | 313 | 591 |

(Bi adierazleen datuak bat datoz, Bizkaiko Foru Aldundiak espediente bana zabaltzen baitu artatutako adingabe bakoitzeko)

2) Familia banantzearen ondoriozko babes neurriei buruzko datuak (2005-12-31n, 2006-12-31n edo 2007-12-31n)

| | <u>2005</u> | <u>2006</u> | <u>2007</u> |
|------------------------------------|-------------|--------------------|--------------------|
| Famili guneak banantzea | 247 | 374 | 369 |
| Egoitza-harrerak | 327 | 249 | 307(1) |
| Familia-harrerak | - | 408 ⁽²⁾ | 397 ⁽¹⁾ |
| Familia-harreraren antzeko egoerak | - | - | - |

⁽¹⁾ 2007-12-20an

⁽²⁾ Sailaren 2006ko memoriako datuen arabera

3) Adopzioei buruzko datuak

| | A. Estatukoak | A. Nazioartekoak |
|---|---------------|--------------------|
| 2007-01-01ean erantzuteko zeuden eskaerak | 235 | 146 |
| 2007an aurkeztutako eskaerak | 42 | 177 ⁽¹⁾ |
| 2007an gauzatutako adopzioak | 19 | 93 ⁽²⁾ |
| 2007-12-31n erantzuteko zeuden eskaerak | 273 | 54 ⁽³⁾ |

⁽¹⁾ 2007-12-20an

⁽²⁾ adingabeen jatorririk ohikoenak: Errusia (38); Txina (20); Ukraina (8); Kazakhstan (8); Kolonbia (7)...

4) Egoitza-zerbitzuen sarearen gaineko datuak (2007-12-31n)

Bizkaiko egoitza-zentroen sareari eta 2007ko abenduaren 31n zuten egoerari dagokienez, Sailak hiru eranskin aurkeztu ditu, askotariko informazioarekin (xehetasun ugari ematen ditu zentroetako langileen inguruan). Informazio hori ondorengo taulan sinplifikatu dezakegu, ikuspegi orokorra eskaini nahian:

| ZENTROA | UDALERRIA | KUDEAKETA | ERAKUNDEA | EZARRITAKO PLAZAK | OKUPATUTAKO PLAZAK | LANGILEAK | TALDEAREN EZAUGARRIAK |
|---|-------------|------------------|---------------------------|-------------------|--------------------|-----------|--|
| El Refugio | Bilbao | Hitzarmena | Andre Maria Karitatezkoa | 28 | 23 | 18 | Talde txikiak. 0 eta 12 urte bitarteko talde mistoa |
| | | Hitzarmena | | 16 | 9 | 9 | |
| Sta. M ^a de Artagan eskola-etxea | Bilbao | Hitzarmena | Artagango Andre Maria | 15 | 7 | - | Nerabeak. 10 eta 18 urte bitarteko neskak |
| Siella Maris eskola | Bilbao | Hitzarmena | Ángeles Custodios | 27 | 26 | 15+6 | Neskek. 7 eta 18 urte bitartekoak |
| Basauri etxe funtzionala | Basauri | Hitzarmena | GUFE | 13 | 11 | 9 | 12 urtera artekoen talde mistoa. 13 eta 18 urte bitarteko neskek |
| Fueros etxe funtzionala | Barakaldo | Publikoa | GUFE | 13 | 11 | 9 | Mistoa. 2 eta 18 urte bitartekoak |
| Mungia etxe funtzionala | Mungia | Publikoa | GUFE | 13 | 12 | 9 | Mistoa. 2 eta 18 urte bitartekoak |
| Murrieta etxe funtzionala | Barakaldo | Publikoa | GUFE | 13 | 10 | 9 | Mistoa. 2 eta 18 urte bitartekoak |
| Portugalete etxe funtzionala | Portugalete | Publikoa | GUFE | 13 | 11 | 9 | Mistoa. 2 eta 18 urte bitartekoak |
| San Adrián etxe funtzionala | Bilbao | Publikoa | GUFE | 13 | 11 | 9 | Mistoa. 2 eta 18 urte bitartekoak |
| Santurtzi etxe funtzionala | Santurtzi | Publikoa | GUFE | 13 | 12 | 9 | Mistoa. 2 eta 18 urte bitartekoak |
| Txurdinga etxe funtzionala | Bilbao | Publikoa | GUFE | 13 | 13 | 9 | Mistoa. 2 eta 18 urte bitartekoak |
| Zabalburu etxe funtzionala | Bilbao | Publikoa | GUFE | 13 | 10 | 8 | Mistoa. 2 eta 18 urte bitartekoak |
| Argileku etxea | Barakaldo | GUFEn hitzarmena | HIRUGARRENDAR KAPUTXINOAK | 10+3 | 7 | 7 | Neskek. 3 eta 18 urte bitartekoak (arrialdiko 3 plaza) |
| Larrasolo etxea | Barakaldo | GUFEn hitzarmena | HIRUGARRENDAR KAPUTXINOAK | 9 | 9 | 7 | Mistoa. 2 eta 18 urte bitartekoak |
| Mañarikua Etxea | Bilbao | Hitzarmena | CARITAS | 12 | 11 | 9 | Mistoa. 3 eta 18 urte bitartekoak |
| Leioa etxea | Leioa | Hitzarmena | URGATZI | 6 (12) | 5 | 9 | Mistoa. 3 eta 18 urte bitartekoak |
| San Ignacio etxea | Bilbao | Hitzarmena | URGATZI | 6 (12) | 4 | 9 | Mistoa. 3 eta 18 urte bitartekoak |
| Sodupe etxea | Sodupe | Hitzarmena | URGATZI | 10 (12) | 8 | 9 | Mistoa. 3 eta 18 urte bitartekoak |
| Amigó etxea | Portugalete | Hitzarmena | AMIGÓ FUNDAZIOA | 12 | 11 | 9 | Mistoa. 3 eta 18 urte bitartekoak |
| Sarriena etxea | Leioa | Hitzarmena | BIZGARRI | 12 | 11 | 11 | Mistoa. 3 eta 18 urte bitartekoak |
| Saltillo etxea | Portugalete | Hitzarmena | CASA DEL SALVADOR | 12 | 9 | 7 | Mutilak. 16 eta 20 urte bitartekoak |
| Dolaretxe G.A.U. | Bilbao | Publikoa | GUFE | 20 | 18 | 25 | Haurrak. 0 eta 3 urte bitartekoak |

| ZENTROA | UDALERRIA | KUDEAKETA | ERAKUNDEA | EZARRITAKO PLAZAK | OKUPATUTAKO PLAZAK | LANGILEAK | TALDEAREN EZAUGARRIAK |
|---|---------------------|------------------|---------------------------|-------------------|--------------------|--------------|--|
| Olabarrieta etxea | Galdakao | Hitzarmena | BIZGARRI | 10 | 12 | 10 | Nerabeak, mistoa: 12 eta 18 urte bitartekoak |
| Zababietxe egoitza (jokabide arazo larriak dituzten adingabeak) | Loiu | GUFEn hitzarmena | HIRUGARRENDAR KAPUTXINOAK | 16 | 21 | 16 | Jokabide arazo larriak. Mutilak. 12 eta 18 urte bitartekoak |
| Dianova | Zandueña (Nafarroa) | Hitzarmena | DIANOVA | 5 | 4 | - | Gai toxikokoekin arazoak dituzten adingabeak 14 eta 18 urte bitarteko talde mistoa |
| Uribarri zentroa | Bilbao | Publikoa | GUFE | 10 | - | - | Mistoa: 3 eta 18 urte bitartekoak. Ezinduek |
| Laukariz zentroa | Mungia | Hitzarmena | APNABI | 5 (8) | 2 | - | Mistoa: 12 eta 18 urte bitartekoak. Ezinduek |
| GUZTIRA | 27 baliabide | | | 358 + (17) | 208 | 256 + | |

| ZENTROA | UDALERRIA | KUDEAKETA | ERAKUNDEA | EZARRITAKO PLAZAK | OKUPATUTAKO PLAZAK | LANGILEAK | TALDEAREN EZAUGARRIAK |
|--|-----------|--------------------|---------------------------|-------------------|--------------------|-----------|---|
| Zabalotxe egoitza (bakarrik dauden adingabe atzerritarrak) | Loiu | GUFEren hitzarmena | HIRUGARRENDAR KAPUTXINOAK | 72 | | 36 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak |
| 1. hamerarako Zornotzako zentroa | Zornotza | Hitzarmena | LANDALAN | 50 | | 16 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak |
| Zurbaran bizikidetzako unitate txikia | Bilbao | Publikoa | GUFE | 13 | | 8 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak |
| Mina del Morro 1 bizikidetzako unitate txikia | Bilbao | Publikoa | GUFE | 12 | | 8 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak |
| Aukera bizikidetzako unitate txikia | Barakaldo | Hitzarmena | BERRIZTU | 14 | | 9 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak |
| Mina del Morro unitate erdi-autonoma | Bilbao | Publikoa | GUFE | 6 | | 0,5 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak |
| San Ignacio unitate erdi-autonoma | Bilbao | Publikoa | GUFE | 6 | | 0,5 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak |
| Santurtziko Casa del Mar unitate erdi-autonoma | Santurtzi | GUFEren hitzarmena | HIRUGARRENDAR KAPUTXINOAK | 10 | | 0,5 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak |
| Basauriko unitate erdi-autonoma | Basauri | Publikoa | GUFE | 6 | | 0,5 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak |
| San Adriango unitate erdi-autonoma | Bilbao | Publikoa | GUFE | 6 | | 0,5 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak |

| ZENTROA | UDALERRIA | KUDEAKETA | ERAKUNDEA | EZARRITAKO PLAZAK | OKUPATUTAKO PLAZAK | LANGILEAK | TALDEAREN EZAUGARRIAK |
|--|-------------|--------------------|-----------|-------------------|--------------------------|--------------|---|
| El Vivero larrialdi taldea | Galdakao | GUFeren hitzarmena | URGATZI | 65 | | 23 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak |
| El Garmo zentroa | Artzentales | GUFeren hitzarmena | URGATZI | 24 | | 13 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak |
| Izurtza egoitza-zentroa | Izurtza | Hitzarmena | LANDALAN | 18 | | 10 | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak. Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak |
| BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ATZERRITARRAK, GUZTIRA | | | | 302 | 332⁽¹⁾ | 125,5 | |

⁽¹⁾ Gizarte Ekintza Sailak helarazitako informazioan ez da adierazi abenduaren 3In zentroetako bakoitzean dauden adingabe atzerritarren kopurua, baina bai 2007ko abenduaren 20ra arte Bizkaian guztira hartu ziren adingabeen kopurua (332). Hau taulan adierazitakoa da.

5) Planak, programak eta ebaluazioak

Atalaren hasieran adierazi den bezala, Sailak bidalitako informazioaren artean planak (Haurrentzako I. Plana eta II.aren zirriborroa) eta programen 2005eko eta 2006ko memoriak daude.

Bere garaian ere, Gizarte Ekintza Sailak jardunaldi publikoa antolatu zuen I. Planaren ebaluazioa aurkezteko; jardunaldi hartan Arartekoko langileek parte hartu zuten.

Hortaz, dugun informazioak xehetasun asko ematen ditu programetako bakoitzaren inguruan. Alabaina, oso ugaria denez eta espediente honen xedea zein den aintzat hartuta, ezin dezakegu hemen laburbildu. Bi adibide ematearren, azpiatal honetan aztertutako moduko programak daude (egoitza-harrera, familia-harrera, adopzioak...), baita beste zehatzago batzuk ere, esaterako, famili barruko sexu abusua jasan dituztenentzako arreta psikologikoko programa espezializatua edo nerabeekin esku hartzeko programa espezializatua. Zenbait kasutan, hasieran aipatu bezala, programaren urteko memoria jaso da, programa kudeatzeaz arduratu den elkarteak egina.

6) Talde teknikoak, profesionalak eta koordinazioa

Sailak gure informazio eskaerari emandako erantzunarekin batera bidali dituen planek eta memoriak maiz aipatzen dituzte Haurren Zerbitzuko barne antolaketa eta bertako talde, atal edo unitateak:

- Harrera, Balorazio eta Orientazioko Atala
- Familia-harrera eta Adopzioen Atala
- Egoitza Harrerako Unitatea

Horien lege esparrua, eginkizunak edo prozedurak ezagutzeaz gain, zerbitzu honen lan bolumenari buruzko datu esanguratsuak ere nabarmendu daitezke. Horrela, adibidez, Sailaren 2006ko memoriak dio Haurren Zerbitzuak urte horretan zabaldu zuen espediente kopurua 2.269koa izan zela (nazioarteko adopzioei zegozkienak zenbatu gabe), egindako tutoretza-kopurua 603koa eta Aldundiak data horretan zuen zaintza-kopurua 936koa.

Goian aipatutako bi atalez eta unitateaz gain, badira beste erakunde batzuei (aipatu adibidean Bizgarri elkarteari) esleitu zaizkien eginkizun edo zerbitzu batzuk ere (esaterako, jakinarazpenak eta zitazioak egiteko eta adingabeak lekualdatzeko zerbitzua).

7) Arrisku egoerak edo babesik gabeko egoerak detektatzea

8) Erabakiak hartzeko prozedura

Horren haritik, jada ezaguna den eskumen banaketa mantentzen da:

- Haurra arriskuan edo babesik gabe geratzen deneko kasuez, egoera oso larria edo konplexua ez bada eta ez bada beharrezkoa esku-hartze espezializaturik egitea, oinarriko gizarte zerbitzuak arduratuko dira.

- Haurra arriskuan edo babesik gabe geratzen deneko kasuez, egoera larria eta zaila bada eta beharrezkoa bada esku-hartze espezializatua egitea edo adingabea bere famili ingurunetik aldi batez edo behin betiko urruntzea, gizarte zerbitzu espezializatuak arduratuko dira (Bizkaiko Foru Aldundiko Haurren Zerbitzua). Aurreko azpiatalean jasotako datuak (2006an Haurren Zerbitzuak 2.269 espediente zabaldu zituen...) zerbitzu espezializatu honetara heltzen diren kasuen proportzioaren kopuruzko adierazle egokia izan daitezke.

9) Bizikidetasun arauak eta partaidetza eta kexetarako mekanismoak erregulatzea

Zentro guztietarako arau esparru orokorrik ez dagoenez, horrelako gaiak elkarrekin sinatutako hitzarmenetan eta zentro bakoitzeko bizikidetasun plan edo arauetan jasotzen dira berariaz. Hitzarmenetan, eskuarki, honakoei lotzen zaizkie: Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharrei dagozkien gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren 64/2004 Dekretuari, eta erabiltzaileen arretarako unitatearen bidez Gizarte Ekintza Sailari buruz aurkeztzen diren iradokizunen eta kexen araubidea ezartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 119/2005 Foru Dekretuari. Zentro bakoitzak prestatutako plan edo dokumentuetan, arauak, prozedurak, zigorrak... zehazten dira.

10) Zerbitzuak eta programak ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzea

Aurretik ere aipatu da Haurrentzako I. Plana, Haurren Zerbitzuak berak egina eta jardunaldi publikoan aurkeztua.

Zerbitzu bakoitzaren jarraipen edo gainbegiratzeari dagokionez, haiek kudeatzen dituzten erakundeekiko hitzarmenek ere berariaz jasotzen dute erakundearen betebeharra dela bai instalazioak bai zentroaren funtzionamendua egiaztatu, ikuskatu eta gainbegiratzeko jardueretan laguntzea.

3) Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak gure datu eskaerari emandako erantzuna urtarrileko azken egunetan iritsi da, hasieran ezarritako epea luzatzeko eskatu ondoren.

Jasotako dokumentazioak aipatutako hamar gaiei erantzuten die. Ondorengo orrialdeetan laburbildu dugu:

1) 2005ean, 2006an eta 2007an artatutako herritarren eta espedienteen gaineko datuak

| | Espedienteak | Adingabeak | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak |
|------|---------------------|-------------------|---|
| 2005 | 270 | 328 | 134 |
| 2006 | 267 | 311 | 153 |
| 2007 | 270 | 331 | 156 |

Espediente kopuruak babes sisteman alta egin duten famili unitateak adierazten ditu, baita bakarrik dauden adingabe atzerritarrak ere. Adingabe kopurua espedientee-tan dituzten adingabe guztiei dagokie, baita bakarrik dauden adingabe atzerritarrei ere. Hirugarren zutabea azken hauei buruzkoa baino ez da.

2) Familia banantzearen ondoriozko babes neurriei buruzko datuak (2005-12-31n, 2006-12-31n edo 2007-12-31n)

| | Famili guneen banantzeak | Egoitza-harrerak | Familia-harrerak | Familia-har-raren antzeko egoerak |
|------------|---------------------------------|-------------------------|-------------------------|--|
| 31-12-2005 | 340 | 163 | 154 | 7 |
| 31-12-2006 | 371 | 203 | 150 | 18 |
| 31-12-2007 | 398 | 222 | 158 | 18 |

3) Adopzioei buruzko datuak (2007)

| | Estatuko adopzioa | Nazioarteko adopzioa |
|---|--------------------------|-----------------------------|
| 2007-01-01ean erantzuteko zeuden eskaerak | 59 | 55 |
| Aurkeztutako eskaerak | 9 | 138 |
| Gauzatutako adopzioak | 1 | 76 |
| 2007-12-31n erantzuteko zeuden eskaerak | 50 | 35 |

4) Egoitza-zerbitzuen sarearen gaineko datuak (2007-12-31n)

Jasotako datuak ondorengo taulan laburbildu ditugu:

| | ZENTROA | HERRIA | Publikoa edo pribatua ⁽¹⁾ (zer erakundek kudeatzen duen) | EZARRITAKO PLAZA KOPURUA | OKUPATUTAKO PLAZAK (2007-12-31) | LANGILEAK ⁽²⁾ (lanaldi osoan) | ARTATUTAKO TALDEAREN EZAUGARRIAK |
|----|---------------------------|------------------------|---|-----------------------------|---------------------------------------|---|--|
| 1 | Loistarin egoitza-zentroa | Donostia-San Sebastián | Karitateko Alabekin egindako hitzarmena | 21 | 24 | 25,5 | 0-12 urte bitartekoak (OPOko ⁽²⁾ 16 plaza) eta larrialdietarako harrera (5 plaza) |
| 2 | Zarategi egoitza-zentroa | Donostia-San Sebastián | Karitateko Alabekin egindako hitzarmena | 24 | 21 | 29,75 | 4-12 urte bitartekoak. OPO |
| 3 | Arce harrera-pisua | Donostia-San Sebastián | Andre Maria Karitatekoaren Elkartearekin egindako hitzarmena | 8 | 5 | 10,25 ⁽³⁾ | 4-12 urte bitartekoak. OPO |
| 4 | Mary Ward harrera-pisua | Donostia-San Sebastián | Mary Wardekin egindako hitzarmena | 8 | 6 | 10,25 | 4-12 urte bitartekoak. OPO |
| 5 | Larratxo harrera-pisua | Donostia-San Sebastián | Larratxo fundazioarekin egindako hitzarmena | 8 | 7 | 10,25 | 13-18 urte bitartekoak. OPO |
| 6 | Larratxo harrera-pisua | Errenteria | Larratxo fundazioarekin egindako hitzarmena | 8 | 8 | 10,25 | 13-18 urte bitartekoak. OPO |
| 7 | Peña y Goñi harrera-pisua | Donostia-San Sebastián | Gipuzkoako Hezitzaile Espezializatuen Elkartearekin egindako hitzarmena | 8 | 6 | 10,25 | 13-18 urte bitartekoak. OPO |
| 8 | Intxaurren harrera-pisua | Donostia-San Sebastián | Gipuzkoako Hezitzaile Espezializatuen Elkartearekin egindako hitzarmena | 8 | 7 | 10,25 | 13-18 urte bitartekoak. OPO |
| 9 | Usandizaga harrera-pisua | Donostia-San Sebastián | Gipuzkoako Hezitzaile Espezializatuen Elkartearekin egindako hitzarmena | 8 | 4 | 10,25 | 13-18 urte bitartekoak. OPO |
| 10 | E. Amilibia harrera-pisua | Donostia-San Sebastián | Nuevo Futuro elkartearekin egindako kontratua | 8 | 7 | 6,5 | 13-18 urte bitartekoak. OPO |
| 11 | Irun harrera-pisua | Irun | Nuevo Futuro elkartearekin egindako kontratua | 8 | 8 | 6,5 | 13-18 urte bitartekoak. OPO |
| 12 | Beasain harrera-pisua | Beasain | Nuevo Futuro elkartearekin egindako kontratua | 8 | 3 | 10,5 | 13-18 urte bitartekoak. OPO |
| 13 | Zizurkil harrera-pisua | Zizurkil | Nuevo Futuro elkartearekin egindako kontratua | 8 | 8 | 10,25 | 13-18 urte bitartekoak. OPO |

| | ZENTROA | HERRIA | Publikoa edo pribatua ⁽¹⁾ (zer erakundek kudeatzen duen) | EZARRITAKO PLAZA KOPURUA | OKUPATUTAKO PLAZAK (2007-12-31) | LANGILEAK ⁽²⁾ (lanaldi osoan) | ARTIATUTAKO TALDEAREN EZAUGARRIAK |
|----|--|------------------------|--|-----------------------------|---------------------------------------|---|---|
| 14 | Frantzia Pasealekua harrera-pisua | Donostia-San Sebastián | Nuevo Futuro elkartearekin egindako hitzarmena | 8 | 8 | 10,25 | 13-18 urte biartekoak. OPO |
| 15 | Hondarribia harrera-pisua | Hondarribia | Nuevo Futuro elkartearekin egindako hitzarmena | 8 | 4 | 10,25 | 13-18 urte biartekoak. OPO |
| 16 | Donostia harrera-pisua | Donostia-San Sebastián | Bide Berri elkartearekin egindako hitzarmena | 8 | 8 | 10,25 | 13-18 urte biartekoak. OPO |
| 17 | Tolosa harrera-pisua | Tolosa | Bide Berri elkartearekin egindako hitzarmena | 8 | 8 | 10,25 | 13-18 urte biartekoak. OPO |
| 18 | Gabiria egoitza-zentroa | Gabiria | Bide Berri elkartea (hitzarmena egiteko dago) | 10 | 8 | 8,5 | 13-18 urte biartekoak. OPO |
| 19 | Gabiria egoitza-zentroa | Gabiria | Bide Berri elkartea (hitzarmena egiteko dago) | 10 | 6 | 5,25 | 13-18 urte biartekoak. Arazoak dituzten adingabe atzerriarrentzako arreta-programa espezializatua |
| 20 | Urretxu emanzipazio pisua | Urretxu | Bide Berri elkartearekin egindako hitzarmena | 6 | 3 | 4,75 | 13-18 urte biartekoak. Emanzipazio programa |
| 21 | Arrasate emanzipazio pisua | Arrasate | Bide Berri elkartea (hitzarmena egiteko dago) | 6 | 6 | 4,25 | 13-18 urte biartekoak. Bakarrik dauden adingabe atzerriarrentzako emanzipazio programa |
| 22 | Zandueña hezkuntza-eta terapia-zentroa | Zandueña (Nafarroa) | Dianova elkartearekin egindako hitzarmena | 10 ⁽³⁾ | 10 | 15 ⁽⁶⁾ | 13-18 urte biartekoak. Arazoak dituzten nerabeentzako arreta-programa espezializatua |
| 23 | Azplicueta egoitza-zentroa | Irun | Dianova elkartearekin egindako hitzarmena | 11 | 10 | 11,5 | 13-18 urte biartekoak. Arazoak dituzten nerabeentzako arreta-programa espezializatua |
| 24 | Irisasi hezkuntza-eta terapia-zentroa | Usurbil | Clece Gizarte Zerbitzuekin egindako kontratua | 12 | 9 | 11,5 | 13-18 urte biartekoak. Arazoak dituzten nerabeentzako arreta-programa espezializatua |
| 25 | Zaldibia emanzipazio pisua | Zaldibia | Clece Gizarte Zerbitzuekin egindako kontratua | 6 | 6 | 11,5 | 13-18 urte biartekoak. Emanzipazio programa. Bakarrik dauden adingabe atzerriarrak |

| | ZENTROA | HERRIA | Publikoa edo pribatua ⁽¹⁾ (zer erakundeak kudeatzen duen) | EZARRITAKO PLAZA KOPURUA | OKUPATUTAKO PLAZAK (2007-12-31) | LANGILEAK ⁽²⁾ (lanaldi osoan) | ARTATUTAKO TALDEAREN EZAUGARRIAK |
|----|---|------------------------|---|-----------------------------|---------------------------------------|---|---|
| 26 | Idiazabal emantzipazio pisua | Idiazabal | Clece Gizarte Zerbitzuekin egindako kontratua | 6 | 1 | 4,25 | 13-18 urte bitartekoak. Emantzipazio programa. Bakarrik dauden adingabe atzerriarrak |
| 27 | Lezo egoitza-zentroa | Lezo | Clece Gizarte Zerbitzuekin egindako kontratua | 10 | 9 | 10,5 | 13-18 urte bitartekoak. Emantzipazio programa |
| 28 | Tolosa larrialdietarako harrera-zentroa | Tolosa | Nuevo Futuro elkartearekin egindako kontratua | 15 | 24 | 21,5+ZZ ⁽⁵⁾ | Bakarrik dauden adingabe atzerriarrak: larrialdietarako harrera edo, plaza lortu bitartean, tutoretzapean daudenak |
| 29 | Urnietako harrera-zentroa | Urnietako | Nuevo Futuro elkartearekin egindako kontratua | 10 | 10 | 11+ZZ | Bakarrik dauden 15 urte baino gutxiagoko adingabe atzerriarrak, larrialdietarako harrera edo, plaza lortu bitartean, tutoretzapean daudenak |
| 30 | Zikuñaga harrera-zentroa | Hernani | Nuevo Futuro elkartearekin egindako kontratua | 10 | 5 | 13+ZZ | Larrialdietarako harrera edo, plaza lortu bitartean, tutoretzapean dauden 13-18 urte bitartekoak |
| 31 | Bustintxulo harrera-zentroa | Donostia-San Sebastián | Nuevo Futuro elkartearekin egindako kontratua | 5 | 5 | 9,5 | Bakarrik dauden adingabe atzerriarrak: larrialdietarako harrera edo, plaza lortu bitartean, tutoretzapean daudenak |
| 32 | Ostalaritzako balibideak | - | Nuevo Futuro elkartearekin egindako kontratua | 6 | 6 | 3 | Bakarrik dauden adingabe atzerriarrak: larrialdietarako harrera edo, plaza lortu bitartean, tutoretzapean daudenak |
| 33 | Ostalaritzako balibideak | - | Bide Berri elkartearekin egindako kontratua | 18 | 18 | 10 | Bakarrik dauden adingabe atzerriarrak: emantzipazio programa |
| 34 | Pedrosa sozializazio zentroa | Pontejas (Kantabria) | Cruz de los Ángeles Fundazioa | 1 ⁽⁶⁾ | 1 | - | 13-18 urte bitartekoak. Arazoak dituzten nerabeentzako programa espezializatua |

| | ZENTROA | HERRIA | Publikoa edo pribatua ⁽¹⁾ (zer erakundek kudeatzen duen) | EZARRITAKO PLAZA KOPURUA | OKUPATUTAKO PLAZAK (2007-12-31) | LANGILEAK ⁽²⁾ (lanaldi osoan) | ARTATUTAKO TALDEAREN EZAUGARRIAK |
|----------------|---|------------------------|--|-----------------------------|---------------------------------------|---|--|
| 35 | Lekuen sozializatorako unitatea | Siero (Asturias) | Cruz de los Angeles Fundazioa | 1 | 1 | - | 13-18 urte bitartekoak. Arazoak dituzten nerabeentzako programa espezializatua |
| 36 | Harrera Profesionalizatuko Programa | Donostia-San Sebastián | Andre Maria Karitatezkoaren Elkartearekin egindako hitzarmena | 6 | 4 | 7 | 0-3 urte bitartekoak, Zerbitzu Esperimentalen Programaren barruan |
| GUZTIRA | 36 ballabide | | | 324 | 282 | 348,75 | |

Oharrak: ⁽¹⁾Kasu dezentetan, erabilitako lokala Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondarea da.

⁽²⁾ OPO = Oinarrizko Programa Orokorra

⁽³⁾ Plantillarik ohikoena honakoa da: 1 zuzendari lanaldi osoan eta 1 lanaldi erdian; 5 hezitzaile lanaldi osoan eta 1 lanaldi erdian; hezkuntzako 3 laguntzaile lanaldi osoan; sukaldeko eta garbiketako zerbitzua, lanaldi bat eta laurden egiteko. Lanaldi osoetan zenbatuta, beraz, guztira 10,25 dira.

⁽⁴⁾ Plantilla 20 plazari dagokio. Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzartutako plaza-kopurua 10ekoa da.

⁽⁵⁾ ZZ = Zaintza-zerbitzua (eskuarki, pertsona bat edo bi pertsona txandako)

⁽⁶⁾ Gipuzkoako Foru Aldundiak itundutako plaza-kopurua adierazten du, nahiz eta zentro horiek, hurrenez hurren, 10 eta 16 plaza izan.

Koadroan bildutako datuei begirada bat emanda, aztertzeoak diren zenbait elementu nabarmendu daitezke. Horrela, esate baterako,

- Baliabiderik gehienak berariaz nerabeentzat zuzenduta egotea.
- Baliabideak premia ezberdinen arabera dibertsifikatzea edo espezializatzea (jokabide arazoak; emantzipazioa; bakarrik dauden adingabe atzerritarrak...).
- Zerbitzu guztiak erakunde pribatuek kudeatzea.
- Kasu edo egoera jakin batzuetan Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko baliabide espezializatueta jo behar izatea.
- Batzuetan ratioetan izaten diren aldeak (langileen eta plaza-kopuruaren arteko erlazioa)...

5) Planak, programak eta ebaluazioak

Gizarte Politikako Departamentuaren erantzunak programetako bakoitzean (egoitza-harrera / familia-harrera / larrialdietarako harrera / etab.) egindako hobekuntzen errebasoa egiten du. Funtsean:

1) Egoitza-harreraren:

- Egoitza-harrerarako baliabideen sarea ebaluatu da (Oviedoko Unibertsitateko irakasle batek).
- Egoitza-harreraren eredu berria ezarri da (artatu beharreko adingabeen premiak kontuan hartuta, eta, beraz, ezarri beharreko baliabideak dibertsifikatu egiten dira).
- Egoitza-harrerarako laguntza teknikoko zerbitzua kontratatu da (jarraipena, banakako arretaren ebaluazioa eta egoitza-zerbitzuen barne antolaketaren ebaluazioa egiteko).
- Egoitza-harrerarako baliabide bakoitzaren urteroko ebaluazioa egin da.
- Harrera Profesionalizatuko Programa esperimentu gisa ezarri da, 0 eta 3 urte bitarteko bost haurri eta pertsonalki nahiz sozialki egokitzeko arazoak dituzten zazpi adingaberi arreta emateko.
- Egoitza Harrerako Programa garatu da, bakarrik dauden adingabe atzerritarren eskaerari erantzuteko.

2) Familia-harreraren:

- Erakundeak sentsibilizatzeko kanpaina egin da 2007ko martxoan eta apirilean (premia bereziak dituzten haurrak hartuko lituzketen familiak erakartzeko; haur horien artean anai-arreba taldeak, nerabe aurrekoak edo egokitzeko arazoak dituztenak daude).
- Familia-harreraren jarduteko protokoloa prestatu da (esku hartzen duten aldeek adostu ondoren).
- Familia-harrerarako laguntza teknikoko zerbitzuaren kanpo kontratazioa berriro da (adingabearekin eta harrerako familiarekin orientazio lanak egiteko, bisitak egiten laguntzeko, krisialdietan esku hartzeko eta familia biologikoei laguntza emateko).

- Laguntza ekonomikoen kontzeptuak dibertsifikatu dira, familia-harreraren gastuak ordaintzeko (harrera hori intentsiboa baita, bai ezgaitasun bat duten adingabeei eta premia berezirik ez duten adingabeei arreta emate aldera). Laguntza horiek lanbide arteko gutxieneko soldataren %75era artekoak izan daitezke.
- Harrerako familiak erakarri, prestatu eta hautatzeko zerbitzua ezarri da.

3) Larrialdietarako harreran:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arreta kudeatzeko laguntza teknikoa ezarri da.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arretarako erakunde arteko protokoloa berrikusi da.
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek abokatu-laguntza eta lege ordezkaritza eduki ahal izateko protokoloa ezarri da.
- Tolosako zentroa berritu da.

4) Balorazio eta orientazioan:

- Babesik gabeko egoeren berri ematen duten jakinarazpenak jasotzeko prozesuak berrikusi eta eguneratu dira.
- Donostiako Haur eta Nerabeei Laguntzeko Eskualdeko Taldea abiarazi da.
- Balora proiektuan parte hartu da, balorazio tresna bateratua ezartzeko.
- Fiskaltzarekin lankidetzaren protokolo berria ezarri da, sexu abusuko egoerei heltzeko.
- Haur eta Nerabeei Laguntzeko Eskualdeko Taldeek lege neurriak betearazteko prozesua diseinatu eta ezarri da.
- Larrialdietan jarduteko prozesua diseinatu eta ezarri da.
- Babesik gabe geratzeko arrisku handia dagoenean kasu koordinazio lanak egiteko prozesua diseinatu eta ezarri da.
- Donostiako Udalarekin koordinazio lanak egin dira erantzunak aritze aldera.

5) Famili esku-hartzeko programak:

- Familiaren barruko sexu abusuzko egoerak tratatzeko Izan programari dagozkion plazen banaketa aldatu da.
- Ijito familientzako osatze programetara bideratutako plaza-kopurua gehitu da.

6) Adopzioan:

- Adopzio-eskatzaileen balorazio psikosoziala egiteko zerbitzua ezarri da.
- Adopzio-eskatzaileei prestakuntza eskaintzeko eta adopzio ondoko aholkularitza emateko zerbitzua ezarri da.
- Adopzio espedienteetan seme-alabatasun biologikoko datuak eskuratu ahal izateko protokoloa prestatu eta abiarazi da (eskatutako informazioa datuak eman aurretik egiten den isilpeko bitartekotza-prozeduraren bidez emateko).

6) Talde teknikoak, profesionalak eta koordinazioa

- Haurrak Babesteko Sistemaz Haurren, Gazteen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua arduratzen da. Bi ataletan egituratzen da:
 - Haur eta Gazteen Sustapen Atala. 14 pertsonak osatzen dute eta bere eginkizuna egoitza-harrera, familia-harrera eta adopzioko zerbitzuez arduratzea da.
 - Haurrak Babesteko Atala. 6 pertsonak osatzen dute eta bere eginkizuna balorazio eta orientazio zerbitzuez, famili esku-hartzeko programez, legezko neurriak hartzeaz eta larrialdietarako harreraz arduratzea da.
- Alabaina, zerbitzu sareari buruzko datuen taulan ikusi ahal izan den bezala, programak gauzatzea edo zerbitzuak kudeatzea hainbat elkarte, fundazio edo enpresaren esku uzten da. Horiek lehiaketa publikoaren bidez edo hitzarmen bidez esleitzen zaizkie. Hori, funtsean, haurrak babestearekin erlazionatutako programa guztietan aplikatu daitezke.

Egoera ondorengo koadroan laburbil daitezke:

| PROGRAMAK | KONTRATATUTAKO KANPOKO ZERBITZUAK | ERAKUNDEAK |
|--------------------------------------|--|--|
| 1) Egoitza-harrera | Egoitza-zentroak | - Elkarte erlijiosoak: Karitateko Alabak, Andre Maria Karitatezkoa, Mary Ward eta Larratxo Fundazioa - Irabazi asmorik gabeko elkarteak: Gipuzkoako Hezitzaile Espezializatuen Elkarte, Bide Berri elkarte, Nuevo Futuro, Dianova elkarte - Zerbitzu enpresa: Clece S.L. |
| | Laguntza-zerbitzua | - H.Z. Zerbitzuak S.L. |
| | Egoitzetan hartuta dauden adingabe atzerritarrentzako arreta-programa | - Horbel S. Coop. |
| | | |
| 2) Familia-harrera | Harrerako familiak erakarri, hautatu eta prestatzeko zerbitzua | - Centro Lauka de Estudios e Intervenciones Psicológicas S.L. |
| | Familia-harrerarako laguntza teknikoko zerbitzua | - Centro Lauka de Estudios e Intervenciones Psicológicas S.L. |
| 3) Balorazioa eta orientazioa | Haurrak babesik gabe daudela jakinarazteko balorazio eta orientazio zerbitzua | - Arbutz elkarte |
| | Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arreta kudeatzeko laguntza teknikoko zerbitzua | - Horbel, Sociedad Cooperativa |

| PROGRAMAK | KONTRATATUTAKO KANPOKO ZERBITZUAK | ERAKUNDEAK |
|---|---|---|
| 4) Adopzioa | Adopzio-eskatzaileen balorazio psikosoziala egiteko zerbitzua | - Jesús Jiménez Jarauta (Diteps-Equipo Psicosocial) |
| | Adopzio-eskatzaileei prestakuntza eskaintzeko eta adopzio ondoko aholkularitza emateko zerbitzua | - Centro Lauka de Estudios e Intervenciones Psicológicas S.L. |
| 5) Famili esku-hartzeko programa | Arreta psikosozialeko zerbitzua | - Gure Amets elkarte eta kabinete pribatuekiko hitzarmenak |
| | Tratu txarrak eta/edo sexu abusua jasan dituztenentzako ebaluazio eta esku-hartze terapeutikoko zerbitzua | - Avánvida eta Izan |
| | GIZALAN gizarte eta hezkuntzaren alorreko famili esku-hartzeko programa | - Argabe elkarte |
| | OSATU familientzako osatze programa | - Argabe elkarte |
| | Ijito familientzako osatze programa | - Cáritas eta Lahar Elkargoa |
| | Laguntzako familien programa | - Gipuzkoako Gurutze Gorria |

7) Arrisku egoerak edo babesik gabeko egoerak detektatzea

Gizarte Politikako Departamentuak azpimarratu du arrisku eta babesik gabeko egoerak funtsean udal gizarte zerbitzuek detektatzen dituztela. Horren haritik, 2007. urteari dagozkion datuak aurkeztu ditu (bakarrik dauden adingabe atzerritarrak kontuan hartu gabe). Datu horien arabera, lau desbideratze hiru udaletako gizarte zerbitzuetatik egiten dira eta lautik bat beste gizarte eragile batzuetatik; desbideratzeak, kasu gehienetan, justiziak edo poliziak esku hartzea eskatzen duten larrialdi egoeren ondorioz egiten dira. Kontuan izan behar da, lehen esan bezala, datu horietan ez direla barneratu bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko desbideratze datuak; hauei dagokienez, kasu gehienetan, poliziak ekarri ohi ditu.

Udaletako gizarte zerbitzuek burutzen dituzten jardueren kalitatea bermatzeko, zalantzak argitzeko eta irizpideak finkatzeko eta zerbitzu horien eta foru zerbitzu espezializatuen arteko lotura gisa balio izateko, Departamentuak gogorarazi du Haur eta Nerabeei Laguntzeko Eskualdeko Taldeak ezarri zirela (une honetan 18 profesionalek osatuta dauden eta lurralde osoan diharduten lau talde).

8) Erabakiak hartzeko prozedurak

Atal honi dagokionez, Departamentuaren erantzunak protokoloak eta bi balorazio batzorde tekniko daudela aipatu besterik ez du egiten.

9) Bizikidetasun arauak eta partaidetza eta kexetarako mekanismoak erregulatzea

Horren haritik, gogorarazi da zentro bakoitzeko hezkuntza-proiektuak bizikidetasun arauak erregulatzen dituela eta erakundeak behartuta daudela artatutako adingabeei horiek ezagutaraztera eta partaidetza eta kexetarako mekanismoen berri ematera.

Bestalde, esan du 2007an gogobetetasun inkesta egin zaiela larrialdietarako harrera-baliabideetako erabiltzaileei (adingabeei eta familieei) eta 2008an egoitza-zerbitzuen eta adopzioaren inguruko gogobetetasuna neurtu nahi dela.

Azaldutako kontuei dagozkien herritarrentzako laguntza- eta arreta-zerbitzu guztien erregulazio orokorrari ere lotu zaio (26/2005 Foru Dekretua).

10) Zerbitzuak eta programak ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzea

Atal honetan, Departamentuak aipatu du zerbitzu guztiak, kontratuan ezarritako oinarriekin bat etorritik, behartuta daudela, urtero, egindako lanaren ebaluazioa aurkeztera. Ebaluazio hori beharrezkotzat jotzen den zerbitzuetan, esaterako, egoitza-harrerari dagokionean, Departamentuak egindako kanpo ebaluazioarekin alderatzen dute Aldundiko bertako taldeek. Aurreikuspenen arabera, gutxi barru familia-harrerako programaren ebaluazioa egingo da.

Azkenik, aipatu du zerbitzuak ikuskatu eta kontrolatzeko lana Departamentuko Inbertsio, Ikuskapen eta Elkarlan Zerbitzuari dagokiola; honek egin du zentroen barne ikuskapena.

Honaino jaso ditugun eta lurraldez lurralde eta guk proposatutako 10 puntuen eskemari jarraiki aztertu ditugun datuen laburpena.

Atal honen hasieran ohartarazi dugun bezala, informazio gehiena azken orduan jaso da (urtarrila bukaeran, txosten hau idazten amaitzerakoan). Gainera, eta bereziki Bizkaiaren kasuan, oso informazio zabala eta xehatua da eta hori aztertze denbora gehiago behar litzateke. Hala, beraz, hemen daturik oinarritzkoenak bildu ditugu eta hurrengo txosten baterako utziko ditugu beste alderdi interesgarri batzuk, esaterako, horien balorazioa, aurreko urteetako datuekiko alderatzea edo joeren analisia.

Nolanahi ere, eta amaitu aurretik, adierazi nahi dugu, administrazio arduradunei egindako datu eskaerez gain, azken urtean ere Arartekoak gutxienez beste bi informazio bide erabili ditu, osagarri gisa edo egiaztatze elementu gisa:

- 1) Foru sail eskudunetako arduradunekin egindako bilerak.
- 2) Harrera-zentroetara egindako bisitak.

Foru arduradunekin egindako bilerei dagokienez, azken urtean Gipuzkoari eta Arabari dagozkionak egin ditugu; lurralde horietan berriki aldaketak izan dira taldeetan. Bizkaikoak aurreko urtean egin ziren eta haietan, nagusiki, bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera izan zen hizpide. Bilera horien inguruko informazio zabala eman genuen iazko ohizko txostenean (ikusi 2006ko txostena, 442.-444. or.). Araba eta Gipuzkoakoetan ere bakarrik dauden adingabe atzerritarrek lurralde bakoitzean duten egoera aztertu zen, baina ez zen landutako gai bakarria izan.

Azken urtean egindako bisitei dagokienez, gehienak bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako harrera-zentroetara egin dira (Tolosa, Urnieta, Zornotza, Izurtza, Artzentales). Ondorengo azpiatalean jaso ditugu. Hemen, ekainaren 7an **Hernaniko Zikuñaga zentroa** egindako **bisita** gainerik baino ez dugu aipatu.

Zentro hau, Gipuzkoako zentroen koadroan 30 zenbakia duena, Hernanin dago, Nuevo Futuro elkarteak kudeatzen du eta larrialdietarako harreran edo, plaza lortu bitartean, tutoretzapean dauden 13-18 urte bitarteko nerabeentzako 10 plaza ditu (nola mutilak hala neskek izan).

Bisita egin zen egunean 10 adingabe zeuden, 5 mutil eta 5 neska.

Bisita aurrez ezer jakinarazi gabe egin zen; egun horretan, talde guztiak bilera orokorra egiteko bildu behar zuen.

Instalazioetara egindako bisitatik eta hainbat profesionalekin eta artatutako zenbait adingaberekin izandako harremanetik honako elementu hauek nabarmendu behar ditugu hobetu beharrekoen artean:

- Egoitza-harrerako beste zentro batzuetara nahiz beste terapia-zentro batzuetara egiten diren desbideratzeak arindu behar dira.
- Jokabide nahasteak sortzen dituzten egoerei irtenbidea aurkitu behar zaie (nahaste horiek, askotan, droga-kontsumoarekin edo buru osasuneko arazoei lotuta egoten dira) eta irtenbide horiei denbora luzez eutsi behar zaie.
- Zentroan zenbait akats ikusi ziren edo gela batzuetan desordena zen nagusi, esate baterako, familiekin bilerak egiteko erabiltzen den gelan. Nolanahi ere, zentroko langileek adierazi zuten, beren iritziz, Aldundiak pertsona bat kontratatzearen ondorioz zentroa hobeto mantenduta zegoela.

Beste zenbait alderdi ere berrikusi ziren, esaterako, plantilla eta langileen txandak, adingabeen eskolatzea, tutoretza-sistema, zentroko segurtasun baldintzak, zerbitzu osagarriak (sukaldea, biltegia eta garbiketa), dokumentazioa arxivatzeko baldintzak, kexak aurkezteko prozedura edo aukera, etab. Horiek aztertzerakoan ez genuen aipatu beharreko arazo berezirik antzeman.

2) Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak

A) Aurrekariak

Babesik gabeko nerabeen artean, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak berariazko ezaugarri eta beharrianak dituen taldea dira. Horregatik, azken hamar urteotan, Arartekoak lehentasunezko arreta eskaini die. Horretarako, ofiziozko jarduera anitz, zerbitzuetako profesionalekin eta arduradunekin egindako bilerak, harrera-zentro

guztietara egindako aldizkako bisitak, etab. burutu dira. Horren guztiaren berri aurreko urteetako txostenetan eman da.

2005ean jarraipen lanak areagotu egin ziren eta ezohizko txostena egin zen. Hau irailaren 7an eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko lehendakariari eta azaroaren 16an eztabaidatu zen Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean. Lan horren laburpena bildu zen urte hartako txostenaren IV. atalean, oinarrizko arazoak eta hobetzeko gomendio eta proposamenak nabarmenduz.

Bestalde, urte hartako txostenean ere, burututako bisitetan eta hainbat harrera-zentrotako hezitzaile taldeekin (Zabaloetxe eta Berrizkoekin Bizkaian, Zabaltzen zentroetakoekin Araban; eta Urnieta eta Tolosakoekin Gipuzkoan) izandako bileretan antzeman genituen elementurik kezkagarrienak edo esanguratsuenak bildu genituen, baita bereziki kezkagarriak ziren zenbait egoeratan garatutako berariazko esku-hartzeak ere. Hona hemen egoera horiek:

- Gipuzkoako zentroetan sortutako gatazkak.
- Poliziak entregatutako adingabeak.
- Langraiz Okan zentro berri bat zabaltzeko proposamenak eragin zuen gatazka.

Horri guztiari buruzko informazio xehatua ohizko txostenean eman zen (ikusi 2005eko txostena, V. atala, azpiatal berean).

Halaber, iaz, arreta berezia eskaini zitzaion sektore honi. Funtsean, ondorengoak egin ziren:

- Hiru lurralde historikoetako bakoitzari zegozkion datuak eta informazioa bildu eta aztertu ziren.
- Urnieta, Tolosa eta Eubako harrera-zentroetara bisitak egin ziren.
- Gobernuaren hiru ordezkarietako bakoitzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko arduradunekin bilerak egin ziren.
- Espedienteak bideratu ziren aberriaratzeko eta familiarekin berriz elkartzeko prozesu jakinei eta adingabe horien eskolatze baldintzei dagokienez.

Horren berri iazko txostenean eman genuen (ikusi 2006ko txostena, IV. atala, azpiatal berean). Atal horretan, gainera, Arartekoak kezka berezia sortzen duten gaiei buruz egin zituen zenbait hausnarketa bildu ziren, baita 2006ko urrian onartu zen “Herri administrazioek bakarrik dauden adin txikikoekiko duten erantzukizunari buruzko Herriaren Defentsa Erakundearen adierazpenaren” edukia ere.

B) Azken urtean egin diren jarraipen jarduera nagusiak

Tamalez, azken urtean ere bakarrik dauden adingabe atzerritarren gaia bereziki problematikoa izan da eta, ondorioz, Arartekoak maiz esku hartu behar izan du oso arlo anitzetan:

- Bisita gehiago egin ditu lurralde historikoetako harrera-zentroetara;
- Egoera problematikoen ondorioz ofiziozko jarduera gehiago buru ditu;

- Bilerak egin ditu harrera-zerbitzuetako arduradun instituzionalekin;
- Etorkinei laguntzeko hainbat elkarterekin bilerak egin ditu eta informazioa trukatu du;
- Harrera-zentrotik gertu zegoen polizia-etxeren batera egin du bisita;
- Prestakuntzako eta gizarte sentsibilizazioko jardunaldietan parte hartu du;
- Tartean diren beste sail edo zerbitzu batzuetara bideratutako ofiziozko jarduerak garatu ditu ...

Horrekin guztiarekin, jada informazio baliotsu ugari genuen jarraipena egiteko. Hala ere, gai hau gizartean hartzen joan den garrantzia eta, orobat, arlo honetan (esaterako, harrera-zerbitzuetan) izaten ari diren etengabeko aldaketak kontuan hartuta, komenigarria iruditu zitzaigun berriz ere, ofizioz, foru aldundietako bakoitzari zuzentzea, babes sistemen arduradun nagusiak diren heinean, zenbait datu eta informazio eguneratzeko asmoz.

Kasu honetan, jarraipen lanak egiteko, gaia konplexua zenez, txostena luzea eta gomendioak ugariak, gomendio bakoitzari buruzko informazio zehatza edo xehatua eskatu ordez, egokiagoa iruditu zitzaigun bilakaera-adierazle gisa edo lehendik geneuzkan beste informazio batzuk osatu eta testuinguruan jartzeko erabilgarriak izango litzazkigukeen kopuruzko zenbait datutan jartzea arreta.

Datu eskaerak Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailari, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari egin genizkien, sektore honetako eskudunak eta arduradun gorenak izaki.

Azken urteko, hots, 2007ko, kopuruzko datuei dagokienez (gogora dezagun 2005eko eta 2006ko datuak iazko txostenean aztertu zirela), honakoen berri emateko eskatu genuen:

- 1) Sail bakoitzaren mendeko baliabideen sarean egindako aldaketak eta 2007ko abenduaren 31n zuten egoera:
 - Adingabeen esku jarritako baliabideen zerrenda eta horiei buruzko oinarritzko datuak: ahalmena, kokapenak, ezaugarriak, instalazioen egoera, adingabe horien beharrezanez erantzuteko egokitasun maila edo ahalmena, berariaz edo soil-soilik beraiantzat ez diren beste baliabide batzuen erabilera...
- 2) Baliabideen kudeaketan eta antolaketan egindako aldaketak:
 - Horiek kudeatzeaz arduratzen diren elkarteak edo erakundeak, indarreko hitzarmenen ezaugarriak, ikuskapen mekanismoak, figura profesional berriak, arreta-ratioak, kontratatutako segurtasun zerbitzuak...
- 3) Artatutako biztanleei buruzko datuak direla-eta:
 - Urtean zehar hartutako adingabe "berrien" kopurua (2007an izandako sarrera berriak).
 - Urtean zehar hartutako adingabeen kopurua guztira.
 - 2007-12-31ra arte hartutako adingabeen kopurua.
 - 2007-12-31n emantzipazio baliabideetan zeuden gazteen kopurua.

- Sailek eskura dauden baliabideen erantzuteko ahalmenari dagokionez artatutako biztanle kopuruaren inguruan egindako balorazioa.
- Artatutako adingabeen zenbait ezaugarritan (adina, jatorria, itxaropenak, beharrianak...) antzeman izan daitezkeen aldaketa esanguratsuak eta horiek zentroetan eta baliabideen izan dituzten ondorioak.

4) Adingabe horien administrazio egoerari eta erregularizazioari dagokienez:

- Agiriak izapidetzeaz arduratzen diren zerbitzuak.
- Urtean zehar hartutako tutoretza-kopurua.
- Urtean eskatutako bizileku baimenen kopurua.
- Urtean lortutako bizileku baimenen kopurua.
- Bizileku baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera.
- Urtean eskatutako lan baimenen kopurua.
- Urtean lortutako lan baimenen kopurua.
- Lan baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera.
- Sail bakoitzak adingabeak beren familiarekin berriro elkartzeko egin duen eskaera-kopurua eta urtean zehar bere laguntzarekin bideratu diren elkartzeen kopurua.

Datu eta alderdi horiek bazter utzita, txostenak nabarmendu zuen beharrezkoa zela beste administrazio eta sail batzuen laguntza ere. Hain zuzen ere, gure gomendioetako batzuk zehazki beste instantzia batzuei zuzenduta zeuden, esaterako, hezkuntza-administrazioa, osasun sistema, gazteentzako justizia-sistema, polizi zerbitzuak edo udal zerbitzuak (errola, gizarte zerbitzuak...). Eremu horietako batzuetan, Arartekoa ofiziozko jarduerak bideratzen ari da erakunde arduradunen aurrean. Horregatik, informazio osagarri gisa, sail bakoitzari eskatu zitzaion jakinaraz ziezagula zer iruditzen zitzaion aipatu instantzien aldetik jasotzen zuen laguntza eta, bere ustez, zer arlo, arazo edo beharrianetan lortu behar litzatekeen haien inplikazio handiagoa nahiz laguntza edo koordinazio handiagoa.

Gainera, lurralde bakoitzean antzemandako egoeraren arabera, egungo mugak gainditze aldera baliabide edo zerbitzu berriak zabaltzeko zeuden aurreikuspenei buruzko informazioa eskatu zen.

Jasotako erantzunak ondorengo orrialdeetan laburbildu dira.

1. Lurralde historiko bakoitzeko datu, aldaketa eta balorazio nagusiak

1.a. Arabako Lurralde Historikoa

Arabako Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen foru diputatuak gure informazio eskaerari eman dion erantzuna urtarrilaren amaieran jaso da eta aipatutako puntuetako bakoitzari buruzko informazioa eskaintzen du. Jarraian, bertan bildutako datu nagusiak laburbilduko ditugu.

1) Baliabideen sarean egindako aldaketei eta 2007ko abenduaren 31n zuten egoerari dagokienez:

Sailaren erantzunak 2007an berariazko baliabideen kopuruan egin den gehikuntza zehazten du eta etorkizunean jarduera gehiago burutuko direla dio. Horrela:

- 2007ko abenduan emantzipazio etxe bat zabaldu da, 6 plazakoa.
- Gurutze Gorriaren instalazioetan kokatutako lehenengo harrerarako zentroan beste 6 plaza sortu dira (2007ko abenduan 18 plaza zeuden).
- GOFEk hainbat lokal lehen harrerarako egokitzeko gestioak egin ditu (Gasteizen etxebizitza bat horretarako jartzea bideragarria ote den aztertzen ari dira; hori Gurutze Gorriaren instalazioak erabiltzearen ordezkoko aukera izan daiteke, instalazio horiek ez baitira nahikoak, Arartekoak 2003az geroztik adierazi duen bezala).
- Bere baitan emantzipaziorako prestatzeko etxea hartuko duen babes ofizialeko etxebizitza eraikitzerakoan azpiegitura (espazioen banaketa) egokitzeko beharizanen proiektua prestatu da (aurreikuspenen arabera, etxebizitza 2008an amaituko da).

Sailak dio proiektu guztiak Gasteizen kokatuta daudela eta emantzipazio etxe gisa edo emantzipaziorako prestatzeko etxe gisa erabiltzen diren instalazioen egoera ezin hobea dela, etxebizitza horiek berriki eraiki baitira, ekipamendu berria baitute, komunitatean integratuta baitaude eta era guztietako baliabideak eskuratzea ahalbidetzen baitute.

Berariazko baliabide horiez gain, ohartarazi da bakarrik dauden adingabe atzerritarrek ere babes sareko gainerako etxeetan hartzen direla, beren profilak eta beharizanen programak baliabide egokitzat jotzen badituzte. (2007an guztira 6 adingabe egon dira Arabako babes sare orokorreko etxeetan hartuta).

Bestalde, egoitzaz kanpoko baliabide gisa, Sailak adierazi du GOFEk lankidetzahitzarmena sinatu duela Osabidezko Hezkuntzarako Partzuergoarekin, Arabako babes sarean dauden adingabe atzerritar guztiak, iristen diren garaia edozein dela ere eta arreta albait arinen eskainiko zaiela bermatze aldera, alfabetatzeko, hezkuntza konpentsatzailea jasotzeko eta lanbideren batean hasteko aukera izan dezaten, betiere, derrigorrezko hezkuntza jasotzeko adinik ez badute.

Plaza-kopuruan egindako gehikuntzak eta, bereziki, abiarazitako proiektuek, behin amaituta, nabarmen hobetuko dute orain arte eskura izan diren baliabideen egoera kaskarra, erakunde honek urtero agerian utzi duen bezala.

2) Baliabideen kudeaketan eta antolaketan egindako aldaketei dagokienez, honako elementu hauek azpimarra ditzakegu:

- Berariazko baliabide guztiak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak kudeatzen ditu, San Frantzisko Saleskoaren Elkartearekin egindako lankidetzahitzarmenaren bidez.
- Hezkuntzako langileen kopurua gehitu egin da, bai Carlos Abaitua emantzipazio pisuan bai emantzipazio pisu berrirako.
- Gurutze Gorriaren Zabaltzen zentrorako segurtasun zerbitzua mantendu da.
- Programa teknikoki gainbegiratzeko lanak, funtsean, hitzarmenaren jarraipena egiteko eta zentroen eta kasuen jarraipena egiteko aldizkako bileren bidez garatzen dira.

3) Artatutako biztanleei buruzko datuei dagokienez, oinarrizkoenak honako hauek dira (hemen, aurreko bi urteetako datuak ere bildu dira, alderatzeak egin ahal izateko):

| | <u>2005</u> | <u>2006</u> | <u>2007</u> |
|---|-------------|-------------|-------------|
| – Urtean zehar hartutako adingabe “berrien” kopurua | 42 | 38 | 41 |
| – Urtean zehar guztira hartutako adingabeen kopurua | 54 | 54 | 59 |
| – Abenduaren 31ra arte hartutako adingabeen kopurua | 16 | 16 | 40 |
| – 2007-12-31n emantzipazio baliabideetan zeuden adingabeen kopurua. | 10 | 16 | 11 |

Sailak berak eskura dauden baliabideen erantzuteko ahalmenari dagokionez artatutako biztanle kopuruaren inguruan egindako balorazioa da, egun, horiek ez direla nahikoak, lau bat plaza falta baitira lehenengo harreran.

Artatutako adingabeen ezaugarrietan antzemandako aldaketei dagokienez, lau aipatu behar ditugu: mutil azpisaharar gehiago dago eta, beraz, adingabe magrehtarren kopurua jada ez da handiena; horietako asko Espainiako estatuan egindako dokumentazioa dute, behin lurralde honetan daudenean lortua (eta horietatik dezente ere Kanarietara heldu eta adinez nagusitzat hartu zirelako lortua); beren migrazio proiektua argiagoa da eta eskura dituzten baliabideak hobeto aprobetxatzen dituzte; bai zentroetan bai zentroetatik kanpo gatazka-kopurua txikiagotu egin da.

4) Adingabe horien administrazio egoerari eta erregularizazioari dagokienez, aurkeztutako datuak, funtsean, honako hauek dira:

| | <u>2005</u> | <u>2006</u> | <u>2007</u> |
|---|-------------|-------------|-------------|
| – Urtean zehar hartutako tutoretza-kopurua | 16 | 12 | 25 |
| – Eskatutako bizileku baimenen kopurua | 13 | 12 | 17 |
| – Lortutako bizileku baimenen kopurua | 7 | 11 | 11 |
| – Bizileku baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera. | 7 hilabete | Urtebete | 1 hilabete |
| – Eskatutako lan baimenen kopurua | | | |
| egoitza-harreran dauden gazteak | 1 | 1 | 1 |
| jarraipen lanen xede diren gazteak | 6 | 1 | |
| – Lortutako lan baimenen kopurua | | | |
| egoitza-harreran dauden gazteak | 1 | 1 | 0 |
| jarraipen lanen xede diren gazteak | 6 | 1 | |
| – Lan baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera | 20 hilabete | 28 hilabete | 1 hilabete |
| – Sailak adingabeak beren familiarekin berriro elkartzeko egin duen eskaera-kopurua | -- | -- | 0 |
| – Sailaren laguntzarekin bideratu diren elkartzeen kopurua | | | |
| famiak berak hala eskatuta | -- | 3* | 0 |
| poliziak hala eskatuta | 1 | 1** | 0 |

Lehen kasuan, Estatuan bizi diren senideekin elkartu dira berriro. Bigarrenean, Gobernuaren Ordezkaritzari Kataluniako epaitegiaren ebazpen judiziala jakinarazi zaió. Horren bidez, bere borondatez Kataluniatik Arabara joan zen adingabe bat bere familiarekin berriro elkartzeko agindu zen. Ebazpen judizial hori oraindik ez da bete.

Datu horiek behar bezala interpretatzeko, komeni da, gutxienez, ohar pare bat egitea:

- i. Bizileku edo lan baimena lortzeko behar den batez besteko denborari buruzko datuetan antzeman diren aldeak 2007an irizpideetan egin zen aldaketari baino ezin zaizkio zor. Ziurrenik, eskaera egiten denetik erantzuna jaso arte igarotzen den denbora da. Guri, ordea, egokiagoa iruditu izan zaigu beti harrera egiten denetik aipatu baimenak lortzen diren arte igarotzen den denbora kontabilizatzea.
- ii. Lortutako 11 bizileku baimenei buruzko datuari erantsi behar zaió 2007an beste hiru uko ere izan zirela eta beste hiru ebazteke zeudela.

Agiriak izapidetzeaz arduratzen direnei dagokienez (hau lurralde bakoitzean aldatu egiten baita), Araban zentroek eurek egiten dute eta, horretarako, Adingabekoen eta Familiaren Arloko eta Helduko lege aholkularien laguntza baliatzen dute.

- 5) Sailak **erakunde arteko koordinazio eta lankidetzari** eta beste instantzia batzuen inplikazio handiagoa behar luketen behar edo arazoei buruz egiten duen balorazioari dagokionez, erantzunak balorazio orokor positiboa egiten du eta berariaz aipatzen ditu lehenengo harrerarako, eskolatzetako eta prestakuntzako arretarako Osakidetzarekin egin diren protokoloak eta udal zerbitzuekiko koordinazioa; azken hau, bere ustez, arina eta eraginkorra da. Gogora dezagun iaz Arabako Foru Aldundiak beharrezkotzat jo zuela beste instantzia batzuekiko koordinazioa hobetzea, besteak beste, sistema judiziala, polizi zerbitzuak edo Gobernuaren Ordezkaritza.

6) Baliabide edo zerbitzu berriak zabaltzeko nahiz zentroaren egungo kokapenak dituen mugak gainditzeko egin diren aurreikuspenak.

6. puntu hau berariaz Arabako Foru Aldundiari aurkeztu zion Arartekoak, Gurutze Gorriaren instalazioen mugak ikusita eta baliabide berriak zabaltzeko ordura arte izan ziren zailtasunak kontuan hartuta (zailtasun horien artean auzotarren ukoa ere izan da batzuetan eta, ondorioz, erakunde honek esku hartu egin behar izan du). Lehen puntuan aipatu den bezala, Sailak Gurutze Gorriak lagatako espazioak zabaltzea proposatu du, instalazio berriak izan arte horiek adingabe atzerritarren lehenengo harrerarako erabiltzeko, zerbitzu gehiago izan ditzaten (logela, komun eta espazio komun gehiago, langileentzako guneak eta jantoki zerbitzua; gehikuntza hori, neurri batean, 2007ko azken hiruhilekoan egin da). Halaber, bi baliabide berri zabalduko dira epe laburrean:

- Gasteizko Lehenengo Harrerarako Zentroa.
- Emantzipaziorako prestatzeko etxea (Gasteizen, urteko azken hiruhilekoan).

1.b. Bizkaiko Lurralde Historikoa

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak gure informazio eskaerari emandako erantzuna 2008ko urtarrilaren 14an iritsi zen eta, oinarrian, ondorengo elementu hauek biltzen ditu:

- Haurren Zerbitzuak (Egoitza Harrerako Unitatea) egindako txostena. Bertan, zehatz-mehatz erantzun zaie gure informazio eskaeran aurkeztutako gaien sei blokeei.
- Zenbait eranskin:
 - 2007ko urtarrilean GUFEk eta Urgatzi elkarteak sinatu zuten lankidetzahitzarmena, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arretarako larrialdi zentroa kudeatzeko (“El Vivero” zentroa, Artxanda). (Horren bidez, aurretik sinatutako hitzarmena, 2006ko urrikoa, eguneratu da).
 - Aurreko hitzarmenaren aldaketa, 2007ko apirilaren 3koa, Artzentalesen kokatutako larrialdietarako beste zentro bat hitzarmenean jasotzeko (“El Garmo” zentroa).
 - Hitzarmenaren bigarren aldaketa, 2007ko uztailaren 3koa; honek atzeraeraginezko ondorioak ditu eta, beraren bidez, hitzartutako prezioak berrikusi dira.
 - Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren eta Berritzu hezkuntza-elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, maiatzaren 8koa (Aukera zentroaren kudeaketari buruzkoa).
 - Aurreko hitzarmenaren aldaketa, 2006ko azaroaren 13koa (plaza-kopurua 12tik 14ra gehitzeko doikuntza-lanak egin dira).
 - Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren eta Hirugarrendar Kaputxinoen arteko lankidetzahitzarmena, 2006ko abenduaren 29koa (Loiuko Zabalotxe eta Santurtziko Casa del Mar zentroyen kudeaketari buruzkoa).
 - Bilboko Landalan gizarteratu eta laneratzeko elkartearekin egindako hitzarmenaren aldaketa, 2007ko uztailaren 27koa (horren bidez, plaza-kopurua gehitu da eta baliabidea lekuz aldatu da, Larrako Torre egoitza-zentrotik Izurtzako Etxaburu dorretxera).
 - Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren eta elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, 2006ko otsailaren 15ekoa (Zornotzako lehenengo harrera-zentroaren kudeaketari buruzkoa).
 - Aurreko hitzarmenaren aldaketa, 2006ko uztailaren 7koa.
 - Bigarren aldaketa, 2006ko urriaren 31koa.
 - Hirugarren aldaketa, 2006ko abenduaren 31koa.
 - Hitzarmenaren 2007rako luzapena, 2006ko abenduaren 29koa.
 - Zentroetako hezkuntza-proiektuak eta dokumentu osagarriak, erakundeetako bakoitzak prestatuak (CDa)
 - Jakinarazpenak eta zitazioak egiteko eta adingabeak Haurren Zerbitzura aldatzeko eta laguntzeko zerbitzua emate aldera Bizgarrirekin egin den administrazio kontratu berezia, horren baldintza teknikoan agiriarekin eta 2007ko martxoaren 2an egindako lehen aldaketarekin batera.

Informazio ugari dago eta xehetasun asko ematen dira eta, horregatik, hemen informazio horren zati bat baino ez da erabiliko. Nolanahi ere, informazio horrek oso datu eta dokumentu erabilgarriak eskaintzen ditu bai jarraipena egiteko bai zentro eta baliabideetara bisitak egiteko.

Oraingoz, jasotako informazio guztitik, hemen, txosten honen baitan kontuan hartu ditugun eta aztertzen ari garen alderdiekin erlaziorik zuzenena duten datuak atera eta laburbilduko ditugu:

1) **Baliabideen sarean egindako aldaketei** eta 2006ko abenduaren 31n zuten goerari dagokionez:

Jakina denez, bereziki 2001etik aurrera, bakarrik dauden adingabe atzerritarren arretarako baliabideak gehitzen joan dira eta beharizan berrietara egokitzen saiatu dira, batez ere Bizkaiko Lurralde Historikoan. Lurralde horretan azken urtean egin diren aldaketa nagusiak honako hauek izan dira:

- Apirilean, El Garm egoitza-zentroa jarri zen abian, 24 plazarekin eta plazarik ez zuten Zornotzako lehenengo harrerarako zentroko adingabeak hartze aldera. Halaber, berriazko programa barneratzen zuen jokabide arazo larriagoak dituzten adingabe atzerritarrentzat (24 plazetatik 8).
- Abuztuan, Izurtzako egoitza-zentroa jarri zen abian, egoitza iraunkor gisa erabiltzeko. Hasieran 18 plaza zituen, baina, ondoren, kopurua 20ra zabaldu zen. Bertara San Ignazio bizikidetasun unitatean lanean ari zen taldea eraman zen.
- Irailean, San Ignacio unitate erdi-autonoma jarri zen abian, 6 plazarekin, eta Mina del Morron zegoen eredu berarekin, hau da, adingabe talde txiki bat dago (6), egokitze eta erantzukizun maila handia dute eta San Ignacio etxean bizi dira, ez da beharrezkoa une oro heldu bat aurrean izatea, baina hezitzaile batek gainbegiratzen ditu eta bere laguntza dute.
- Azaroan, Basauri eta San Adrián unitate erdi-autonomaok jarri ziren abian, 6 plazarekin bakoitza, eta aurrekoen eredu berarekin.

Hala, beraz, 2007an, Bizkaian adingabe horiei eskaini zaizkien harrerarako baliabideak zabaltzen joan dira, honako koadro honetan laburbil daitezkeen konfigurazioa izatera heldu arte:

| BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ATZERRITARRENTZAT BERARIAZ DIREN BIZKAIKO BABES SAREKO ZENTROEN ZERRENDA (2007ko abendua) | | | | | | | |
|--|---------------------------------|--------------------------|--------|---------------------------------------|------------------------------------|------------|-------------------------------|
| Zentroa | Kudeaketa | Erakundea | Plazak | Hartutako adingabe kop. (2007-12-20n) | Taldearen ezaugarriak | Udalerrria | Hasierako data |
| ZABALOEITXE egoitza-zentroa (bakarrik dauden adingabe atzerritarak) | GUFEREkin sinatutako hitzarmena | HIRUGARENDAR KAPUTXINOAK | 72 | 73 | Mutiak, 12 eta 18 urte bitartekoak | LOIU | 2000ko ABUZTUA ⁽¹⁾ |
| ZORNOTZA lehenengo harrerarako zentroa | Hitzarmena | LANDALAN | 50 | 55 | Mutiak, 12 eta 18 urte bitartekoak | ZORNOTZA | 2006ko OTSAILA ⁽²⁾ |
| ZURBARAN B.U. | Publikoa | GUFE | 13 | 13 | Mutiak, 12 eta 18 urte bitartekoak | BILBAO | 2005eko EKAINA ⁽³⁾ |
| MINA DEL MORRO B.U. | Publikoa | GUFE | 12 | 12 | Mutiak, 12 eta 18 urte bitartekoak | BILBAO | 2006ko EKAINA ⁽⁴⁾ |
| AUKERA heziketa-zentroa | Hitzarmena | BERRITU | 14 | 14 | Mutiak, 12 eta 18 urte bitartekoak | BARAKALDO | 2006ko MAIATZA |
| MINA DEL MORRO unitate erdi-autonomoa | Publikoa | GUFE | 6 | 6 | Mutiak, 16 eta 18 urte bitartekoak | BILBAO | 2006ko EKAINA |
| SAN IGNACIO unitate erdi-autonomoa | Publikoa | GUFE | 6 | 6 | Mutiak, 16 eta 18 urte bitartekoak | BILBAO | 2007ko ABUZTUA ⁽⁵⁾ |
| CASA DEL MAR unitate erdi-autonomoa | GUFEREkin sinatutako hitzarmena | HIRUGARENDAR KAPUTXINOAK | 10 | 10 | Mutiak, 16 eta 18 urte bitartekoak | SANTURTZI | 2006ko IRAILA |
| BASAURI unitate erdi-autonomoa | Publikoa | GUFE | 6 | 6 | Mutiak, 16 eta 18 urte bitartekoak | BASAURI | 2007ko AZAROA |
| SAN ADRIÁN unitate erdi-autonomoa | Publikoa | GUFE | 6 | 6 | Mutiak, 16 eta 18 urte bitartekoak | BILBAO | 2007ko AZAROA |
| EL VIVERO Iarrialdetarako zentroa | GUFEREkin sinatutako hitzarmena | URGATZI | 65 | 65 | Mutiak, 16 eta 18 urte bitartekoak | GALDAKAO | 2007ko URRIA |

| BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ATZERRITARRENTZAT BERARIAZ DIREN BIZKAIKO BABES SAREKO ZENTROEN ZERRENDA (2007ko abendua) | | | | | | | |
|--|---------------------------------|-----------|--------|---------------------------------------|-------------------------------------|-------------|----------------|
| Zentroa | Kudeaketa | Erakundea | Plazak | Hartutako adingabe kop. (2007-12-20n) | Taldearen ezaugarriak | Udalerrria | Hasierako data |
| EL GARMO egoitza zentroa | GUFERekin sinatutako hitzarmena | URGATZI | 24 | 24 | Mutilak, 16 eta 18 urte bitartekoak | ARTZENTALES | 2007ko APIRILA |
| IZURZA egoitza zentroa | Hitzarmena | LANDALAN | 20 | 20 | Mutilak, 12 eta 18 urte bitartekoak | IZURZA | 2007ko ABUZTUA |
| Etxeen oinarritzko sarea | - | - | - | 22 | - | - | - |

¹ Orduan hasi zen bakarririk dauden adingabe atzerritarrek hartzeko berariazko proiektu gisa, nahiz eta 1996az geroztik hartzen dituen halako adingabeak.

² Aurretik BERRIZen kokatuta egon zen 2005eko urriaz geroztik

³ Aurretik Larrako-Torren kokatuta egon zen 2004ko ekainaz geroztik

⁴ Aurretik San Adriánen kokatuta egon zen 2004ko ekainaz geroztik

⁵ Aurretik Landalanek kudeatua 2005eko ekainaz geroztik

Zerrendan agertzen diren plazetan ez ezik, bakarririk dauden zenbait adingabe atzerritar zentro eta etxeen oinarritzko sarea (espezializatu gabekoan) hartuta daude; hauetan gutxi gorabehera bi bat adingabe atzerritar daude.

2) **Baliabideen kudeaketan eta antolaketan egindako aldaketei** dagokienez:

Alderdi honetan, Sailaren erantzuna horrekin batera aurkeztu zituen hitzarmen, hezkuntza-proiektu eta agiri osagarriei lotzen zaie.

Izan ere, eranskin gisa bidali dizkiguten hitzarmenen eta aldaketen testuak xeheetasun handiz biltzen ditu adingabeei arreta egokia bermatzeko funtsezko alderdietako asko. Horrela, esate baterako,

- Zer den, zehazki, baliabidea kudeatzen duten elkarteek eskaini beharreko laguntza- eta hezkuntza-arreta integrala.
- Bete behar diren gutxienerako adingabe/hezitzaile ratioak.
- Erreferentzia gisa erabili behar den erabiltzaileen eskubideei eta kexen sistemari buruzko araudia.
- Datu pertsonalak babesteari buruzko irizpideak.
- Erakunde kudeatzaileak Gizarte Ekintza Sailari aurkeztu behar dion dokumentazioa, jarraipen eta kontrol elementu gisa; etab.

Harrerarako zentro guztiek bete behar dituzten oinarrizko baldintzak erregulatzeko araudirik ez dagoenez (araudi hori oraindik ez da onartu), hitzarmenak goian adierazitakoen moduko alderdiak finkatzen laguntzen dute eta, beraz, berme eta kontrol elementu gisa erabil daitezke.

Sailaren erantzunak dio, halaber, segurtasun guardak kontratatu direla egoitza-zentroetatik lautan: Zornotzan, Zabaloetxen, El Garmon eta El Viveron.

Gainbegiratze mekanismoei dagokienez, adierazi du mantendu egin direla Haurren Zerbitzuko egoitza-harrerako unitateko kasuko bi koordinatzaileen figurak. Era berean, dokumentazio eta lekualdatze prozesuetan laguntzen jarraitu zaio Bizgarri erakundeari.

3) **Artatutako biztanleei buruzko datuei** dagokienez, azken erantzunean 2007ko abenduaren 20an eguneratutako datuak eskaini dira (eta ez abenduaren 31n zeudenak, guri erantzuteko premiagatik):

| | <u>2005</u> | <u>2006</u> | <u>2007</u> |
|--|-------------|-------------|-------------|
| - Urtean zehar hartutako adingabe "berrien" kopurua | 365 | 471 | 442 |
| - Urtean zehar guztira hartutako adingabeen kopurua | 461 | 610 | 707 |
| - Abenduaren 31ra/2007-12-20ra arte hartutako adingabeen kopurua | 141 | 265 | 332 |
| - 2007-12-31n/2007-12-20n emantzipazio baliabideetan zeuden adingabeen kopurua | 112 | 42 | 71 |

Argi eta garbi, datu guztiek Bizkaian artatutako adingabeen kopurua pixkanaka gehitzen joan dela erakusten dute. Bestalde, datu horiek beste lurralde batzuetakoekin alderatuz gero edo zentroz zentro banakatutako datuekin osatuz gero, garbi geratzen da zer ahalegin egin behar duen Bizkaiko Foru Aldundiak harrerarako baliabideak ezartzen. Horren haritik, interesgarria da oso sail horretako arduradunek eurek egindako balorazioak ezagutzea.

Kasu honetan ere Sailari eskatu genion eskura dauden baliabideen erantzuteko ahalmenari dagokionez artatutako biztanle kopuruaren inguruko balorazioa egin zezala. Sailak aurreko urtekoen osagarritzat jo daitezkeen gogoeta batzuk biltzen ditu.

Gogora dezagun, iaz, egoera oso larria zela zioela (“*Bizkaiko lurralde historikoan sortu diren sarreren kopurua etengabe eta arian-arian haziz joan da eta, horrela, haurren babes sistema egoera larrian dago, bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoitzetako harrerarako baliabideen aldetik. Adingabe hauek artatzen dituzten zentroak gainezka daude, erabat, eta batzuk aurreikuspenetatik gora bete dira.*”); beste leku batzuekin alderatzeko datuak eskaini zituen, adingabeak leku batetik bestera mugitzearen fluxuetan eragina zuten faktoreak aipatu zituen eta, amaitzeko, adierazi zuen zerbitzuak berak edo harrera-sareak zailtasun handiak zituela gero eta eskaera handiagoari erantzuteko edo baliabide berriak sortzeko (ikus 2006ko txostena, azpial honetan bertan).

Horren haritik, uste dugu interesgarria dela Sailak bere azken erantzunean, 2008ko urtarrilekoan, egiten dituen gogoetak hitzez hitz jasotzea:

“La atención a menores extranjeros no acompañados sobrepasa ya, en Bizkaia, el 50% de la atención a menores en situación de acogimiento residencial. Es algo evidente que ningún sistema está preparado para dar respuesta a un volumen como el que se señala. No obstante, se han incrementado año tras año los esfuerzos presupuestarios, de recursos y de personal en los centros y aun así las posibilidades de respuesta adecuada son en muchas ocasiones limitadas. No está social ni políticamente definido cuál es el límite aceptable de este crecimiento.

En cualquier caso, más allá del problema coyuntural de dar respuesta a la población existente en un determinado momento, permanentemente queda sin atender, sin afrontar y sin resolver el efecto que esta atención tiene en el propio fenómeno en sí, en el consecuente incremento de servicios que dicho fenómeno obligaría a programar y en la contradicción de principios de actuación con el propio Sistema de Protección que es quien debe ofrecer la atención.

Son necesarias pero sumamente complejas y difíciles de materializar políticas coordinadas y coherentes entre Comunidades Autónomas y es necesario asimismo explorar Programas preventivos que traten de no perpetuar el fenómeno de la inmigración infantil clandestina”.

4) **Adingabe horien administrazio egoerari eta erregularizazioari** dagokienez:

Gogorarazi da adingabeen dokumentazioaz arduratzen den zerbitzua Gizarte Ekintza Saileko Haurren Zerbitzua dela, nola zuzenean hala Bizgarriren bidez. 2007ri dagozkion datuak honako hauek dira:

| | |
|---|--------------|
| Urtean zehar hartutako tutoretza-kopurua | 221 |
| Urtean eskatutako bizileku baimenen kopurua | 202 |
| Urtean lortutako bizileku baimenen kopurua | 101 |
| Bizileku baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera. | |
| Heldu zirenetik | 14 hilabete |
| Eskatzen denetik | 4,5 hilabete |
| Urtean eskatutako lan baimenen kopurua | 12 |
| Urtean lortutako lan baimenen kopurua | 8 |
| Lan baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera | 2 hilabete |
| Sailak adingabeak beren familiarekin berriro elkartzeko egin duen eskaera-kopurua | - (*) |
| Urtean zehar bere laguntzarekin bideratu diren elkartzeen kopurua | 0 |

Adingabeak familiarekin berriro elkartzeari dagokionez, adierazi da berehalako arretari buruzko foru aginduetako bakoitzean Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzari eskatu zaiola, lege ordenamenduarekin bat etorritz, adingabea familiarekin berriro elkartzeko prozedurari ekin diezaiola. Tutoretzari buruzko foru aginduetan, Gobernuaren Ordezkaritzari eskatzen zaio adingabea familiarekin berriro elkartzeko espedientean egindako gestioen emaitza jakinaraz diezaiola Sailari.

5) **Sailak beste instantzia batzuen laguntzari** eta inplikazio handiagoa edo koordinazio hobea behar luketen arazo edo beharrei buruz egiten duen **balorazioari** dagokionez.

Sailaren erantzunak dio hainbat instantziarekin izan dituela maiz harremanak; besteak beste, honakoekin: hezkuntza-sistema, osasun sistema, Fiskaltza, udalerrriak, Ertzaintza, Poliziaren Buruzagitza Nagusia, gazteen justizia, kontsultetxeak, Eusko Jaurlaritza eta EAeko beste foru aldundi batzuk, Gobernuaren Ordezkaritza, beste autonomia-erkidego batzuetako administrazioak, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, Arartekoa bera...

Dioenez, harreman horiek usu egokiak izan dira eta, gehienetan, arazoei ados jarrita aurkitu nahi izan zaie irtenbidea. Hala ere, adierazi du oraindik konpondu ezin izan diren zenbait zailtasun edo hobetu egin behar diren zenbait alderdi daudela. Ikuspegi horretatik, honakoak aipatu ditu:

- i. Adingabeei buruzko datuak lortzeko Poliziaren Buruzagitza Nagusiarekin izaten diren komunikazioak arindu behar dira, haien jatorriari buruzko informazioa azkarrago hel dadin eta, horrela, irtenbide eraginkorragoak aplikatu ahal daitezten. Prozesu berean gainerako autonomia-erkidegoek eta babes erakundeek ere parte hartu eta lagundu behar dute.
- ii. Zenbait osasun zentrotan zailtasunak daude banakako osasun txartela izapidetzeko (zailtasun horiek, nagusiki, osasun zentro bakoitzean izapide hori egiteko irizpide desberdinak daudelako sortzen dira).
- iii. Adin nagusitasuna finkatzeko auzitegiko izapideak arindu behar dira.
- iv. Zenbait udalerritan zailtasunak daude adingabeen erroldatzea kudeatzeko.
- v. Hezkuntza-sistemearekin koordinazio prozedura ezarri behar da adingabe horien eskolatzea modu koherentean antolatze aldera, bereziki, derrigorezko eskolatzeko adinean daudenean (horren haritik, ezinbestekotzat jotzen

- du koordinazio horrek eskolatzea normaltasunez garatzeko aplikatzen diren irizpideak gehiegi ez urratzea).
- vi. Lanbide hastapenerako zentroek ez dute matrikularik onartzen urtarilaren 1etik aurrera eta, beraz, urteko lehen seihilekoan hartzen diren adingabeetako batzuek irailaren 1era arte ezin dute zentro horietara joan.
 - vii. Dokumentazioa izapidetzeko kontsuletxeak Bilbotik kanpo daude eta, kasu askotan, izapidetzeak langileak falta direlako atzeratzen dira.
 - viii. Beste autonomia-erkidego batzuetan, ez dira adingabeei buruzko datuak jasotzen eta, ondorioz, ez dago beren egoera legal edo dokumentalari buruzko informaziorik Estatuan barrena mugitzen direnean.

6) **Emantzipazio programak.**

Gizarte Ekintza Sailak, iazko erantzunean, Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusitik bultzatutako emantzipazio programei buruzko berariazko txostena sartu zuen (Mundutik-Mundura proiektua, gazte etorkinak emantzipatzekoa). Programa horiek, pixkanaka, asko garatu dira Bizkaian; programa horiei balio handia eman die beti Ararteko erakundeak.

Kasu honetan, ez du datu osagarririk aurkeztu, aurretik jasotakoa izan ezik; alegia, 2007ko abenduaren 20an 71 gazte zeudela harreraren. Datu hori osatu edo alderatzeko, iazko txostenean jasotako datuetakoren bat gogoraraz dezakegu hemen:

- Guztira artatutako gazte kopurua: 138 (2005), 167 (2006).
- Abenduaren 31ra arte guztira artatutako gazteen kopurua: 112 (2005), 42 (2006).
- Helburuak betetzea: 89 (2005), 75 (2006).

7) **Baliabide edo zerbitzu berriak zabaldu edo erabiltzeko** nahiz egun daudenak hobetzeko egin diren aurreikuspenak eta horiek egiteko aurkitzen duen laguntza.

Hemen, Sailak gogorarazi du baliabide edo zerbitzu berriak zabaltzea arreta behar izateak, aurrekontuan diru nahikoa egoteak eta leku jakin batzuetara heltzeko aukera izateak baldintzatzen dutela eta adingabeen egoitza-harrerarako baldintza egokiak betetzen dituzten baliabide berriak zabaltzea oso zaila dela, bai leku arazoak daudelako bai gizartearen gaitzespena eragiten dutelako.

1.c. **Gipuzkoako Lurralde Historikoa**

Jakina denez, lurralde honetan bakarrik dauden adingabe atzerritarrei arreta eskaintzeko erantzukizuna bi departamenturen artean banatuta dago: Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua (larrialdietarako harreraren arloan eskuduna) eta Gizarte Politikako Departamentua (egoitza-harrera). Gipuzkoako Foru Aldundian 2007an egin zen berrantolaketarekin bat etorritik, eskumen horiek Gizarte Politikako Departamentuan bateratu ziren.

Departamentuaren erantzunak guk azalduetako kontuetako bakoitzari buruzko informazioa eskaintzen du eta, horrekin batera, "Bakarrik dauden adingabe atzerritarren protokoloa (2007)" bidali du, azken aldaketekin.

Ondoren, jasotako informazioa laburbilduko dugu, lurralde bakoitzerako erabilitako eskemari jarraiki.

1) **Baliabideen sarean egindako aldaketei** eta 2007ko abenduaren 31n zuten egoerari dagokienez, honako datu hauek aipatu behar ditugu:

- 2007an unitate berria zabaldu da, 5 plazakoa, Donostiako Intxaurrenondo auzoan.
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei autonomia-maila handiagoa eskaintzen dieten bi pentsio daude: bata Deban eta bestea Eskoriatzan.
- Baliabide horiek, lehendik zeuden 25 plazei gehituta (15 Tolosan eta 10 Urnietan), guztira 40 plaza eskaintzen dituzte larrialdietarako harrerarako.
- Uban kokatuta egongo den zentroa zabaltzeko lanekin jarraitu da. Zentro horrek 24 plaza izango ditu, bi unitatetan banatuta (aurreikuspenen arabera, 2008ko urrian zabalduko da).
- 2007ko urrian, Tolosan zeuden adingabe atzerritarrak Segurako foru aterpetxera eraman ziren, Tolosako larrialdietarako harrera-zentroko instalazioak erabat birgaitzeko. Urtea amaitzerakoan, Segurako aterpetxean jarraitzen zuten. Horren haritik, Departamentuak azpimarratu du mantentze gastuak oso handiak direla, instalazioak asko hondatzen baitira.
- Egoitza-harrerako sarerako eredu berria ezarri da (Toledoko Unibertsitateko irakaslea den Jorge Fernández del Valleren esku utzi zen baliabideei buruzko ebaluazioan oinarrituta). Adierazitakoaren arabera, eredu horren funtsezko ideia da bakarrik dauden adingabe atzerritarrak babes zentroen sare normalizatuan barneratu behar direla, horiek gizarteratzen eta kultur artekotasuna sustatzen laguntzeko, baina, era berean, oreka mantendu behar dela artatutako adingabeen kopuruan, alegia, guztira dagoen plaza-kopuruaren eta bakarrik dauden adingabeentzat gordetakoen artean proportzionaltasuna egon behar duela.
- Egoitza-harrerako programen eta baliabideen tipologia gizar-tean babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako egoitza-harrerarako baliabideei buruzko dekretuaren zirriborrora egokitu da.

Informazio orokor horiez gain, Departamentuak adingabe horientzat dauden 29 baliabideen zerrenda xehatua aurkeztu du eta horietako bakoitzari buruzko oinarritzko datu batzuk eman ditu: ahalmena, kokapena, artatutako taldearen ezaugarriak, langileak, baliabidea kudeatzen duen erakundea, etab.

Datu horiek txosten honetan bertan, aurreko azpiatalean, bildu ditugunen berdinak dira, nahiz eta aurreko koadroan babes sistemak erabilitako baliabide guztiak agertzen diren (guztira, 36) eta hemen, berriz, 29 besterik ez (bakarrik dauden adingabe atzerritarrik ez dagoen 7 baliabideak kenduta).

Horrela, beraz, informazioa ez errepikatzeko, aurreko orrialdeei lotzen gatzaizkie (1. azpiatala. Babes sistema / Gipuzkoa).

2) **Baliabideen kudeaketan eta antolaketan egindako aldaketei** dagokienez, honakoa aipatu behar dugu:

- Gipuzkoako Nuevo Futuro elkarteak kontratatutako larrialdietarako harrera eskaintzen jarraitu da. Kontratuak langile kopuru bat jartzen du aurreikusitako plazetarako eta aipatzen du kopuru hori handitu egingo dela artatu beharreko adingabeak gehitu ahala. Nuevo Futuron, zenbait hezitzaile magrebtarrak dira. Urte amaieran, horietako bat bitarteko lanetan hasi da.
- Kudeaketa-lanak Horbel enpresaren ardurapean utzitako jarraipenaren bidez gainbegiratzen dira. Enpresa hori teknikari bat izatetik hiru izatera igaro da (horietako bat egoitza-harreran dauden adingabe atzerritarren jarraipenaz arduratzen da). Honako eginkizun hauek ditu: harrera kudeatzen duten erakundeei aholkularitza ematea eta adingabe horiekin egiten diren askotariko jarduerak koordinatzea, hauetan beste erakunde batzuek ere parte hartzen dutenean, besteak beste, udaleko gizarte zerbitzuak, Gobernuaren Ordezkaritza, Polizia Nazionala, Ertzaintza, hezkuntza eta osasuna).
- Segurtasun enpresa batekin egindako kontratuaren baitan Tolosa eta Urnietako zentroetan jarri ziren zinpeko zaindarien zerbitzua ematen jarraitu da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mikeleteen-Ertzaintzaren Sekzioak zaindari horien lanaren jarraipena egiten du. Zentroen segurtasuna berrikusteko aldiari aldiari biltzen den batzorde bat dago. Batzorde hau harrera-zentroetako arduradunek eta Horbel enpresako gainbegiratze teknikariak osatzen dute.

Departamentuak larrialdietarako harrerako sarearen barruan zentroak esleitzeko erabiltzen diren irizpideak ere biltzen ditu erantzunean:

- Tolosako harrera-zentroa: babes sisteman sartzeko bidea da. Lehenengo harrera egiten du eta, horretarako, elkarrizketak egiten ditu adingabearen ibilbidea, itxaropenak, beste autonomia-erkidego batzuetan lege neurririk badagoen ala ez, etab.
- Urnietako harrera-zentroa: bakarrik dauden 16 urtetik beherako eta jokabide arazo larririk gabeko adingabe atzerritarrak artatzen ditu.
- Bustintxulo: denboraldi batez Urnietako zentrokoen profil bera zuten adingabe atzerritarrak hartu zituen (iristen ziren adingabeak oso gazteak eta asko zirelako). Urtearen amaieran, jokabide arazorik ez duten baina etengabeko hezkuntza-laguntza behar duten 16 eta 17 urte bitarteko adingabe atzerritarrak hartzen hasi da.
- Pentsioak: autonomia-maila handia duten 16 eta 17 urte bitarteko adingabeak hartzen dituzte.

Baliabideak kudeatzeaz arduratzen diren elkarteak honako hauek dira: Larratxo Fundazioa, Gipuzkoako Hezitzaile Espezializatuen Elkarteak, Nuevo Futuro etxeak, Bide Berri elkarteak, Dianova elkarteak eta Clece Servicios Sociales S.L.

Horren haritik, erakunde horiekin sinatutako hitzarmenak eta kontratuak aipatu ditu; horietan, koordinazio sistemak eta gainbegiratze mekanismoak ezarri dira. Dioenez, formula bat edo beste aukeratzeko irizpidea da, zentroaren ondarea foru titulartasunekoak denean, baliabideen kudeaketa lehiaketa publiko bidez esleitzen dela eta hitzarmenak ondarearen titulartasuna hirugarrenen esku dagoenean egiten direla. Horrela, ondorengoak lehiaketa bidez esleituta daude: Azpilicueta

egoitza-zentroa (Dianova), Lezo egoitza-zentroa (Clece), Irisasi egoitza-zentroa (Clece), Zaldibiko eta Idiazabalgo emantzipazio pisuak (Clece), Beasaingo eta Zizurkilgo harrera-pisuak eta Zikuñaga, Tolosa, Urnieta eta Bustintxulo larrialdietarako harrera-zentroak (Nuevo Futuro).

Gainbegiratze teknikoak, finantza-kontrola eta ikuskapena hitzarmen eta kontratuetan jasotako mekanismoen bidez egiten dira eta Gizarte Politikako Departamentuko zenbait zerbitzu edo atalen esku daude:

- Hezkuntza- eta egoitza-arretaren gainbegiratze teknikoak: Haur eta Gazteen Sustapen Atala.
- Larrialdietarako harrerako hezkuntza- eta egoitza-arretaren gainbegiratze teknikoak: Haurrak Babesteko Atala.
- Zentroetako ekipamendua: Haur eta Gazteentzako Aterpetxe eta Azpiegituren Atala.
- Finantza-jarraipena: Kudeaketa Ekonomikoko Atala.
- Ikastetxeen ikuskapena: Ikuskapen eta Elkarlan Atala.

Azpiatal hau amaitzeko, Departamentuak zerbitzuaren kalitatea hobetzea helburu duten zenbait ekimen aipatzen ditu, besteak beste, kultur arteko bitarteko gisa arituko den hezkuntza-laguntzailearen figura barneratzea (hartutako adingabeen antzeko identitatearekin) edo "ibilbideak" ezartzea. Horretarako, beharrezkoa izango da zentroen tipologia, irizpide espezializatuak eta espezializazio horretarako egokitutako tresnak eta baliabideak izatea.

3) **Artatutako biztanleei** buruzko datuak direla-eta, globalak honako hauek lirarteke:

| | <u>2005</u> | <u>2006</u> | <u>2007</u> |
|---|-------------|-------------|-------------|
| - Urtean zehar hartutako adingabe "berrien" kopurua | 136 | 162 | 156 |
| - Urtean zehar guztira hartutako adingabeen kopurua | 146 | 175 | 197 |
| - Abenduaren 31ra arte hartutako adingabeen kopurua | 27 | 38 | 54 |
| - Abenduaren 31n sare osoan zeuden adingabeen kopurua | - | 98 | 146 |

Zenbait datu, sarrera berrien kopuruari dagokiona bezala, ia ez dira aldatu aurreko urtekoarekin alderatuta. Hala ere, Departamentuak azpimarratu du arreta-premiak nabarmen handitu direla, adingabeak denbora gehiago geratzen baitira. Horren adierazgarri izan daitezke hilabetez hilabete banakatuta ematen dituen datuak: 2007ko urtarrilean 104 adingabe artatu ziren, uztailean 120 eta abenduan 146. Hau da, urtebetean %40ko gehikuntza izan zen.

Horren haritik, gogorazi du 2007an Gabiria, Beasain, Zizurkil, Zaldibia eta Idiazabalgo zentroak zabaltzeari esker plaza-kopurua handitu egin zela; horren bidez, gainera, pentsioen bidez eskaintako arreta ezabatu nahi izan zen, baina ez zen lortu.

Jatorriari dagokionez, artatutako 197 adingabetatik 163 Marokokoak ziren. Gainerako %17 beste 13 herrialde desberdinetakoak ziren. Gogorarazi beharra dugu, martxoan, aurretik Kanarietara heldu ziren 10 adingabe hartu zirela Gipuzkoan (7 Senegalgoak, 2 Malikoak eta Indiako 1). Horientzat berariazko egoitza-baliabidea zabaldu zen.

Adinari dagokionez, Departamentuak esan du adina aurreko urteetako baino txikiagoa dela (2007an iritsitako en batez besteko adina 15 urtekoa dela aipatu du).

4) **Adingabe horien administrazio egoerari eta erregularizazioari** dagokionez, honakoa aipatu behar dugu:

- Zenbait dokumentu izapidetzea baliabideak kudeatzen dituzten erakundeei euri dagokie (errola-ziurtagiria, OTI, pasaporteak, etab.). Beste batzuk izapidetzea, esaterako, bizileku baimena, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio (Horbel enpresako teknikarien laguntzarekin).
- Oraindik ere behin-behineko tutoretzak nabarmentzen dira; horiek berretsi egiten dira ondoren, behin babesik gabeko egoera egiaztatuta. Hona hemen datuak:
 - 2005. urtea: behin-behineko 53 tutoretza, berretsitako 27 tutoretza.
 - 2006. urtea: behin-behineko 112 tutoretza, berretsitako 81 tutoretza.
 - 2007. urtea: behin-behineko 74 tutoretza, berretsitako 69 tutoretza.
- Bizileku baimenen eskaerei dagokionez, kontuan izanik, protokolo berriarekin bat etorritik, larrialdietarako harreran ematen den denbora sei hilabetetik gorakoa izan daitekeela, zerbitzuek adingabeak egoitza-harrerara igaro arte itxaron gabe egiten dituzte zenbait eskaera. Horren haritik, Departamentuak esan du larrialdietarako baliabideek 22 eskaera egin dituztela eta egoitza-zerbitzuek, berriz, 46. Horietatik, guztira 42 lortu dira. Horiek lortzeko behar izan den batez besteko denborari dagokionez, 85 eguneko dela esan du. Lan baimenei dagokionez, eskatutakoak 11 izan dira eta lortutakoak 8; horiek lortzeko behar izan den batez besteko denbora 94 eguneko izan da.
- Ez da familiarekin berriro elkartzeko berariazko eskaerarik egin, nahiz eta, kasu guztietan, familia aurkitzeko izapideak egin ditzala eskatzen zaion Gobernuaren Ordezkaritzari, adingabea familiarekin berriro elkarrekin bidezkoa ote den baloratzeko. Adingabeei entzuteko bi izapide egin dira eta horiei jakinarazi zaie administrazio espedientea izapidetzen ari zitzaizela familiarekin berriro elkarrekin aldera.

5) **Beste administrazio eta departamentu batzuekiko lankidetzari** dagokionez, Gizarte Politikako Departamentuak balorazio orokor positiboa egiten du erantzunean. Balorazio hori, zenbait kasutan, horietako bakoitzaren inguruan egiten duen errepasoan zehazten du. Horrela, esate baterako,

- Dioenez, kasuren batean ikusi ahal izan da gazteentzako justizia-sistemak ez duela adingabe horietakoren batek izandako jokabidearen larritasunarekiko

proporzionala den erantzuna ematen, bereziki, pertsonen kontra indarkeriaz jokatu dutenean edo egoitza-zentroetan kalte larriak eragin dituztenean.

- Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Fiskaltzak eskainitako laguntza handia aipatu du (foru erakundeak horri kontsultatzen dizkio eta bere iritzipean jarzen ditu bakarrik dauden adingabe atzerritarrei dagokienez hartu behar diren garrantzi bereziko erabakiak). Fiskaltzak gainbegiratuta, 2393/2004 Errege Dekretuaren 92. artikuluko ekintzak garatzeko jarduera-protokoloa sinatu da. Aipatu du 2007an jarduera-protokolo hori berrikusi egin zela (horren testua dokumentuari erantsi dio) eta, berritasun gisa, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren Atzerritartasun Txanda barneratu zen Protokoloan.
- Oso egokia iruditu zaio Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzarekin egindako elkarlana bakarrik dauden 16 urtetik beherako adingabe atzerritarrak eskolatze horiek lanbide hastapeneko zentroetan sartzeko.
- Dioenez, oraindik ere zailtasunak daude arnastekoen kontsumoko arazoak edo buru osasuneko arazoak dituzten adingabeei osasun arreta eskaintzeko; halaber, hainbat oztopo dituzte hartutako adingabeen osasunerako prebentzio gisa beharrezkotzat jotzen dituzten proba medikoak egiteko erantzun epeekin. Lehen arazoari buruz aipatu du AGIPAD elkartearekin harremanetan jarri direla, arnastekoen eta beste gai toxiko batzuen kontsumoarekin arazoak dituzten adingabe atzerritarrentzako arreta-sistema diseinatzeko, eta dagoeneko idatzizko proposamen bat dutela elkartearekin, nahiz eta oraindik ez den zehaztu (gogora dezagun 2007an berriazko txostenak egin dituela Arartekoak gai horren inguruan).
- Berrito aipatu du zailtasunak dituztela tutoretzapean dauden adingabeek, dagokien bizileku eta lan baimena izapidetu eta lortu bitartean, gizarteratzen eta emantzipatzeko asmoak asetzen laguntzen dien lan jardueraren bat garatu ahal izan dezaten, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 41.1 artikuluko k) azpiatalean aurreikusitako salbuespenari helduz. Zailtasun horiek Gobernuaren Ordezkaritzak atzerritarrei buruzko araudiaren interpretazio murriztailea egitearen ondorioa dira.
- Adierazi duenez, Ertzaintza une oro haurrak babesteko baliabideekin harremanetan dago eta Foru Aldundian bertan Mikeleteen-Ertzaintzaren Sekzioa egoteak nabarmen errazten du bi erakundeen arteko koordinazioa.
- Gauza bera gertatzen da Polizia Kidego Nazionaleko Atzerritarrentzako Unitatearekin; honekin ere une oro gaude harremanetan bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko aipamenak egiteko, horiek erregistro zentrolean barneratzeko, datuak trukatzeko, etab.
- Eta, azkenik, esan du, arlo honetan diharduten erakunde eta elkarteek parte hartuta, koordinazio mahaiak eratzen ari direla bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako zentroak zabaltzen diren herri edo eskualdeetan eta lan horren balorazioa oso positiboa dela talde hori Gipuzkoan behar bezala integratzeari begira.

6) **Baliabide edo zerbitzu berriak zabaldu edo erabiltzeko** nahiz egun daudenak hobetzeko egin diren aurreikuspenak.

Departamentuak azaldu du 2003-12-31n bakarrik zeuden 10 adingabe atzerritar zeudela egoitza-harreran eta 2007. urtearen bukaeran jada 89 direla. Ondorioz,

onartu du ezarritako baliabideen sarea motz geratu dela eta, beraz, beharrezkoa dela hori zabaltzea.

Aipatu duenez, horretarako, artatutakoen ezaugarri pertsonalak aintzat hartuta egokiena den erantzuna bermatuko duen baliabideen sarea ezartzea onartu da 2008rako aurrekontuan; horren haritik, dagoen eskaerari erantzuteko plazakopuru nahikoa egongo da, ezarritako eredia errespetatuko da eta gizartean babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako egoitza-harrerarako baliabideak arautzen dituen dekretuaren zirriborroan adierazitakoari helduko zaio (zirriborroa oraindik onartzeko dago).

Horretarako, ondorengo zentro hauek zabaltzea planifikatu da:

- Oinarrizko arreta-programako 3 zentro, hamar plazakoa bakoitza eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako berariazkoak.
- Emantzipaziorako prestatzeko programako 4 zentro, hamar plazakoa bakoitza eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako berariazkoak.
- Jokabide arazoak dituzten nerabeen arretarako programa espezializatuko 2 zentro, 16 eta 8 plazakoak, hurrenez hurren, eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako berariazkoak.
- Larrialdietarako harrerako 1 zentro, 10 plazakoa, Tolosako zentroaren ordeztu (15 plaza) Ubako berria (24) jartzea osatuko duena.

Azkenik esan du, baliabide horiek ezarrita, egun eskaintzen direnak baino 97 plaza gehiago egongo direla.

Hemen laburbildutako informazioaz gain, Departamentuak, erantzunarekin batera, 2007an eguneratu zen “Bakarrik dauden adingabe atzerritarren protokoloaren” testua aurkeztu du, hainbatetan aipatu duguna. Testu horretan, beste zenbait ezarpenen artean, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren esku-hartzea barneratu da.

* * *

2. Urnieta, Tolosa, Euba, Artzetales eta Izurtzako adingabeentzako zentroetara eta Tolosako ertzain-etxera egindako bisitak

Ararteko erakundearen jarraipen jardueren artean, kasu honetan *Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn* izeneko ezohizko txostenari dagokionez, urtean zehar hainbat bisita egin ditugu bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako zentroetara. Hemen, 2007an Urnieta eta Tolosako (Gipuzkoa) zentroetara eta Euba (Zornotza), Artzetales eta Izurtzakoetara (Bizkaia) egindakoak laburbilduko ditugu.

Kasu guztietan, bisitak aurrez ezer jakinarazi gabe egin ziren. Batzuetan, aurretik, nola 2005ean hala 2006an, egindako beste bisita batzuen osagarri gisa egin dira eta beste batzuetan, berriz, lehenengo bisita gisa, sortu berriak ziren baliabideak izaki.

Halaber, Tolosako ertzain-etxera egindako bisitan lortu genituen zenbait datu ere bilduko ditugu.

Jarraian eskainiko dugun laburpenean, ikusitakoa jasotzen saiatuko gara; itxuraz modu objektiboagoan har daitezkeen eta kezagarriagoak diren datu edo egoerak nabarmenduko ditugu eta, hala, amaitzeko, zenbait gogoeta egin eta jardun ildo posibleak proposatuko ditugu (zentro horietako batzuk iaz zer egoeratan zeuden eta zer arazo zituzten jakiteko, ikusi iazko txosteneko V. atalean jasotako azpiatal hau bera).

1) *Urnietako harrera-zentrora egindako bisita*

Zentro honetan ikusitako egoera nabarmen aldatu da bisita batzuetatik besteetara. Denbora luzez Gipuzkoako lehenengo harrerarako zentroa izan zen. Iazko bisita egin genuenean, gazterik zailenak zituen, hezitzaileek adierazi zigutenez, eta azken bisitan, 2007ko maiatzekoan, bakarrik dauden adingabe atzerritar oso gazteak.

Urnietako zentrora egindako azken bisitan ikusi genuen egoerari dagokionez, honakoa azpimarra dezakegu:

- Orduan 10 adingabe zituen (plaza guztiak beteta zeuden).
- Taldea hezitzaileek, laguntzaileek, 2 zaindari finkok eta etxeko lanetarako pertsona batek osatzen zuten. Zentroaren kudeaketa Nuevo Futurori dagokio eta langile taldearen zati handi bat egonkor mantentzen da.
- Aurreko bisitan, zentroan etengabeko gatazkak izan ziren (besteak beste, mehatxuak, bandalismoa, hezitzaileen aurkako erasoak eta ihesak) eta horien ondorioak hainbat elementutan antzeman zitezkeen, bai langileen gogo aldartean bai instalazioen egoeran (sarrerako atea giltzarrapoz itxita zegoen, logeletako ateak txikituta zeuden, kristalak hautsita eta holtzak hondatuta zeuden, oheak lurrera torlojuz lotuta zeuden, kableak agerian zeuden, ez zegoen su-itxalgailurik, leihoetako itxigailuak ez zebiltzan, arropa gordetzeko armairu gehienak hautsita zeudelako kendu zituzten, etab.).

Horren haritik, azken bisitan ikusitakoarekin bat etorritz, egoera nabarmen hobetu da (logelak itxurosoago daude, armairuak dituzte eta txukunago daude; ateak konponduta daude; hezitzaile taldean ez da aldaketa handirik izan, etab.).

- Litekeena da giro aldaketan adingabeen adinak eragin izatea (batzuek 12 urte baino gehixeago dituzte). Guztiak eskolatuta zeuden (Urnietan, Martutenen, Errenterian, Tolosan...). (Gogoan izan dezagun Arartekoak gai hau aurreko urtean aztertu zuela berariaz).

Gehien kezkatzen duten edo jarraipen handiagoa behar luketen gaien artean honakoak aipa ditzakegu:

- Larrialdietarako harreratik egoitza-harrerara igaro bitartean luze jotzen du (ordu sei hilabete edo gehiago).
- Gipuzkoako Fiskaltzak irizpidea aldatu du hezurretako proben emaitzak dokumentazioa prestatzerakoan kontuan hartzeari dagokionez eta horrek ondorioak izan ditu gestioetan (esaterako, eskolatzean).
- Hezitzaileen arabera, kasu batzuetan, kontrola adingabeak egoitza-harrerara igarotzen direnean galtzen da.

(Egoera hau aurreko urteetakoarekin alderatzeko, ikusi, adibidez, 2006ko txosteneko azpiatal hauxe bera).

2) Tolosako larrialdietarako harrera-zentroa (LHZ)

2007ko maiatzaren 28an beste bisita bat egin genuen Tolosako LHZra, oraingoan aurrez ezer jakinarazi gabe.

Aurreko bisita eta bertan ikusitakoa 2006ko txostenean jasota geratu zen. Bisita haren helburu zuzena hartutako adingabeak eskolatzeko zailtasunak aztertzea zen (Arartekoak ofiziozko espedientea zabaldu zuen gai honen inguruan). Hala ere, aipatu txostenean adierazi bezala, hainbat alderdiren inguruko arazoak azaleratzen zituzten zenbait informazio ere bildu ziren:

- Hartutako adingabe kopurua, ezarritako plaza-kopurua baino askoz ere handiagoa.
- Hezitzaile taldea (ratioak, txandak, borondatezko baja ugari, txandakatze handia eta langile berri asko...).
- Bai zentroko bertako bai auzokideekiko bizikidetasuna (Ertzaintzak maiz hartu behar izaten du esku).
- Larrialdietarako ez diren beste zentro edo harrera-baliabide batzuetara igaro edo lekualdatzea.
- Zentroa mantentzea.
- Udalak adingabeak erroldatzea.
- Hartutako adingabeetako batzuen osotasun fisikoa arriskuan jar dezaketen mehatxu, eraso edo autolesioak.

(Ikusi 2006ko txostena, 440-441. orr.)

Beste bisita honetan, orduan zentroan zeuden bost adingabeekin bilera egin genuen, instalazioen egoerari so egin genion, zenbait dokumentu aztertu genituen, hezitzaileen taldeko arduradunarekin elkarrizketa izan genuen eta bertan zeuden langileekin iritziak trukatu genituen.

Bisitaren egunean, zentroan hartutako adingabeak 18 ziren (ezarritako plaza-kopurua baino hiru gehiago), nahiz eta une batzuetan 28 izatera ere heldu diren (bi aste lehenago baino ez 25 ziren).

Horietako bakoitzaren inguruabar pertsonalak bazter utzita (zentroan zeramaten denbora, dokumentazioaren egoera, eskolatzeko egoera, etab.), adingabeek nagusiki, zentroaren funtzionamenduari, bizikidetasun arauari eta langileekin (hezitzaile, zaindari eta abarrekin) zituzten harreman eta gorabeherari lotutako kontuak aipatu zituzten. Kexetan honakoak aipatu zituzten: janaria, zentroan sartzean egiten zizkieten miaketak, zenbait tutore edo hezitzaileekin harremanetan jartzeko zailtasuna, arropa, zigorrak, ekipamendu mugak (aulki edo mantarik ez), telefonoa erabiltzeko arazoak, telebista ikusteko ordutegia, etab.

Zentroan berriki izandako zenbait gorabehera ere aipatu zituzten; horien inguruko beren bertsioa eman zuten eta zalantzan jarri zuten hezitzaile eta/edo zaindari jakin batzuen jardura.

Beharbada gau hartan bertan zenbait arazo izan zirelako (adingabe batzuk berandu iritsi ziren eta ez zitzaizen utzi zentroan sartzen; hori zela-eta, gaua edo gauaren zati bat

kalean eman behar izan zuten) eta zaindaria uduki zeudelako, hauek Arartekoko langileak neska-mutilekin bilera egiten ari ziren gelan sartu ziren, bilera eteten saiatu ziren eta berehala zentrotik atera behar genuela adierazi ziguten. Guk ezezkoa eman genien eta, eztabaidan aritu ondoren, bisitarekin jarraitu genuen eta gelak eta instalazioak aztertzeko jarraitu genuen. Antzemandako akatsen artean, honako hauek aipa ditzakegu:

- Logela gehienetan ez zegoen armairurik;
- Komunak, arropa biltzeko gela, etab. ez zeuden garbi;
- Biltegi gisa erabilitako lokaletan ez zegoen ordenarik;
- Su-itxalgailu guztiak bulego batean daude, giltzapean;
- Jantokiko hormetan janari hondarrak daude; etab.

Elementu positibo gisa, ia ate gehienak berriro egin direla aipa dezakegu.

Sukaldari, garbitzaile eta zaindarekin izandako elkarrizketetan ere kezka antzemandakoa da: menuak finkatzeko irizpideak behar dituzte, zaindaria trebatu egin behar dira, Ertzaintzak maiz hartzen du esku, zaindarekin eta hezitzaileek eurek hainbat salaketa egin dituzte, adingabeek disolbatzaileak kontsumitzen dituzte eta erasokor daude, hezitzaileen taldean aldaketa asko izaten dira, txanda bakoitzean dagoen langile kopurua ez da nahikoa premiei egoki erantzun ahal izateko, etab.

Bestalde, zentroko arduradunarekin egindako bileran informazio horietako batzuk egiaztatu ziren eta beste zenbait kontu ere aztertu ziren, besteak beste, honakoak:

- Hezitzaileen taldearen osaera eta antolaketa: langileen ratioak, txandak, irizpideak, profilak, jarraipena eta egonkortasuna, etab. (gogoan izan zentro honen kudeaketa Gurutze Gorriaren esku egotetik Nuevo Futuroren esku egotera igaro zela 2006an).
- Gatazkak eta salaketak (artxiboa berrikustea).
- Adingabeen eskolatzea (16 urte baino gutxiagokoak eta gehiagokoak)
- Erroldatzeak (Udalak 15 urtetik beherakoak ez erroldatzeko ezarritako irizpidea)
- Larrialdietarako harreratik –Giza Eskubideen Departamentuaren menpegoitza-harrerara –Gizarte Politikako Departamentuaren menpe– igarotzeko irizpideak eta benetako denbora. (2007an, ordura arte, 5 adingabe bakarrik igaro ziren; hainbat hilabete itxaron behar izan ziren eta horrek ondorio negatiboak izan zituen zentroarentzat).
- Pentsioen eta hotelen sarea zentroen ordezkotzat gisa erabiltzea eta horien mugak.
- Dokumentazioa izapidetzerakoan erabilitako prozedurak eta irizpideak eta emaitzak.
- Osasunean eragina duten baldintzak (zentroan karraskariak egotea; Osasun Sailak bisitarik ez egitea; droga-kontsumo problematikoak).
- Gizarteak ingurunearekiko duen pertzepzioa eta beste gizarte eragile batzuekiko lankidetzaren harremanak.
- Zentroko bajak eta arazoak.
- Adina zehazteko arazoak.

Aipatutako kontuetatik ia guztietan arazoak edo hobetu beharreko alderdiak antzeman dira. Baina, ziurrenik, kezkarriena ez da gai zehatz bati edo besteari buruz egin daitekeen gogoeta, baizik eta zentroaren inguruko balorazio orokorra edo zentroak ematen duen itxura orokorra, eta antzemandako narriatze maila; horren guztiaren ondorioz, egoerak eztanda egin dezakeela pentsa daiteke, faktore anitz tartean direlako.

3) Tolosako ertzain-etxera egindako bisita

Larrialdietarako harrera-zentrorra egindako bisitaren osagarri gisa, ertzain-etxera ere joan ginen polizi agenteei esku hartu behar izan zuten gertakariei buruzko informazioa biltzeko.

Ertzain-etxean eskaini ziguten laguntza aipatu behar dugu; dossier zabala aurkeztu ziguten zentroa abian jarri zenetik (2005) bisita egin zen arte (2007ko maiatza) izan ziren esku-hartzeen kronologiarekin, zenbait irizpideri jarraiki aukeratutako polizi espedienteen lagin esanguratsua xehetasunez aztertu ahal izan genuen eta, horrez gain, poliziaren ikuspegitik hobetu beharrekoak ziren zenbait alderdi proposatu zitzaizkigun.

Informazioa asko sinplifikatuta, ondorengo datuak nabarmen ditzakegu:

- Zentroari (LHZ) eta/edo bertako adingabeei dagokienez Tolosako Ertzaintzaren esku-hartzea izan duten gorabeheren (atestatu, salaketa eta esku-hartzeen) kopuruaren bilakaera ondorengoan izan da:
 - 2005. urtea (osatugabea): 11 gorabehera zentroa sortu zenetik
 - 2006. urtea (osatua): 229 gorabehera
 - 2007. urtea (osatugabea): 83 gorabehera (maiatzaren 22ra arte)
- Azken urtean (lehen bost hilabeteetan) izandako gorabehereri jaramon eginez gero, 15 salaketa, 8 atestatu eta poliziaren 60 jarduera baino gehiago egin ziren, horietako asko zentroak berak hala eskatuta burututako esku-hartzeak.
- Espedienteen lagin esanguratsuen kronologiak eta azterketak (bereziki azken urtean zentroan bertan izandako eraso eta gatazkei buruzkoak aztertu ziren) zenbait joera nabarmen daudela erakusten dute:
 - Lasaitasunaldiak eta gatazka ugari egunak.
 - Gutxienez bi faktore errepikatzen dira egoerarik gatazkatsuenetan: aurrez disolbatzaileak kontsumitu izatea eta zentroan adingabe ugari egotea (ezarritako 15 plazak baino askoz ere gehiago).

Adibide bat ematearren: 2007ko apirilean, zentroko erasoak 6-8-7 izatetik (aurreko hilabeteetakoak) 16 izatera igaro ziren; hilabete horretan bertan, disolbatzaileak kontsumitzearen ondoriozko jarduerak 9 izatetik 20 izatera igaro ziren eta zenbait kasutan estufefazientek konfiskatu ziren.

Poliziaren ikuspegitik, zona horretako Ertzaintzako arduradunek kezkarriak diren zenbait elementu aipatu dituzte. Honela laburbil ditzakegu:

- Zentroa leku txarrean dago, hainbat enpresak inguratzen dute eta erraz irits daiteke bertara.
- Zenbait adingabek denbora gehiegi ematen dute zentroan; horietako asko jatorri berekoak dira eta horrek taldeak egitea erraztuko luke.
- Oso adin ezberdinetakoak daude (12-13 urtetik hasi eta, gutxienez, 18 urtera artekoak).
- Zentroan bertan ez dago euspen neurririk kontrolik ezeko egoerei edo disolbatzaileak kontsumitzeak eragindako jokabideei aurre egiteko.
- Hezitzaileek eta segurtasun zaindarien izandako indarkeriazko gertaerei eta gorabehereri buruz aurkeztutako salaketa-kopurua hazi egin da.
- Zentrotik kanpoko beste eragile batzuek (esaterako, RENFEko zaindarien eta erabiltzaileek) aurkeztutako salaketa-kopurua ere hazi egin da.
- Zentroaren harrera-ahalmenak gainezka egin du, adingabe gehiegi baitago, eta ez dago langilerik egoera kontrolatu ahal izateko.
- Sexu gatazkak izateko arriskua egon daiteke.

Laburbilduz, ertzain-etxean bildutako datuek zentrokoek ere adierazitako iritzi orokorra indartzen dute; alegia, zentroa narriatuta dagoela eta gainezka egin duela. Hori azaltzeko bi arrazoi daudela dio: batetik, adingabe asko dagoela arre-taldea kontuan hartuta (bai hezitzaileena bai segurtasun zaindarien), eta disolbatzaileen kontsumoa problematikoa dela.

Lehen ere aipatu dugu ertzain-etxeko arduradunek erabateko laguntza eskaini zigtela. Halaber aipatu behar dugu, arduradunek adierazitakoarekin bat etorritik, une jakin batzuetan, zentroan sortzen diren esku hartzeko premiei erantzuteak denbora asko kentzen duela eta ertzain asko bideratzen direla horretara.

Bisitaren ondoren eta 2007ko irailaren 19an zentroan izandako gorabeheren ondotik, erakunde honek ofiziozko espedientea zabaldu zuen eta, horren baitan, informazio osagarria eskatu zion Tolosako ertzain-etxeari. Oraindik espedientea izapidetzen ari gara.

4) Eubako (Zornotza-Bizkaia) egindako bisita

Joan zen azaroaren 7an, Arartekoko langileek Euban kokatutako lehenengo harrerarako zentroa bisitatu zuten berriz ere.

Oinarri gisa aurreko bisitetan bildutako informazioa erabili zen eta, horrekin bat etorritik, Bizkaiko Foru Aldundiko arduradunekin izandako azken bileran azpimarratu ziren zortzi arazo edo alderdiei banan-banan heldu zitzaizen:

- 1) Zentroak gainezka egin izatea
- 2) Zentroaren baldintza fisikoak, espazio itxiak edo gutxi erabiliak
- 3) Hezkuntza/Prestakuntzako jarduerak
- 4) Erroldatzeak
- 5) Osasuna
- 6) Paperak izapidetzea

- 7) Poliziak egindako entregak
- 8) Adina zehaztea eta 18 urte betetzean zentroa uztea

(Ikusi 2006ko txostena, 441.-444. or.)

- Egun hartan 60 adingabe zeuden zentroan. Ezarritako plazak 50 dira eta, aurreko egunean, bertan zeuden zortzi adingabe beste baliabide batzuetara aldatu ziren. Ordura arte, beraz, 68 adingaberi eskaini zitzairen arreta.
Zentroko langile kopurua handitu da eta, 2006ko urriaz geroztik, eguneko 24 orduak bi pertsonekin osatzen dituen zaindari zerbitzua kontratatu da. Hezitzaileen taldea, guztira, 17-18 bat pertsonakoa da eta horiei Hezkuntza Sailaren menpeko bi irakasle, lanbide hastapeneko ikastaroetarako kontratatutako bi pertsona, garbiketa-lanetarako beste bi pertsona eta, zenbaitetan, praktiketako pertsonaren bat gehitu behar zaizkie.
Zentroan dagoen hezitzaile kopurua aldatu egiten da txanden arabera. Gaueko txandan, adibidez, hiru hezitzaile daude.
Langile taldea nahikoa egonkorra da eta hezitzaileetatik seik edo zazpik arabieraz badakite eta/edo Magrebeko herrialdeetakoak dira.
Langileen inguruko balorazio globala egiterakoan, ikus dezakegu nabarmen hobetu dela zentroa zabaldu eta lehenengo hilabeteetan bizi izan zuten egoerarekin alderatuta.
- Hezkuntza-aukerei dagokienez, hainbat baliabide erabiltzen dira, bereziki, harrera-zentroan bertan, baina baita beste ikastetxe batzuetan ere (funtsean, Bilbo aldeko LHZ).
Azpimarratu beharrekoa da zentroan alfabetatze gela jarri dela eta, bertan, goizez, Hezkuntza Sailak izendatutako bi irakaslek ematen dituztela eskolak. Horrez gain, mantentze lanetarako eta lorategi zaintzarako prestakuntza-tailerrak aipatu behar dira. Tailer horiek zentroa kudeatzeaz arduratzen den Landalan elkarteak berak xede horretarako kontratatutako bi pertsonak ematen dituzte.
Egun hartan, alfabetatze gelan zortzi adingabe-ikasle zeuden, nahiz eta, askotan, gehiago egon ohi diren, gehienez ere 15.
Adierazitako arazoetako bat, hain zuzen ere, arta daitekeen gehieneko ikasle kopurua da (15): zentroan hartuta dauden 16 urtetik beherako adingabeen kopuruak maiz beste kopuru hori gainditu ohi du eta ez da irtenbiderik aurreikusi horientzat.
Egoera ikusita, honakoak ere hobetu behar lirarteke: material didaktikoen hornikuntza –oso eskasak dira– eta hautatutako irakasleen berariazko prestakuntza –bitartekoen zerrendatik bi pertsona aukeratzen dira, beste inolako irizpiderik gabe–.
- Zentroaren baldintza fisikoei dagokienez (Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren aterpetxea da) eta aurreko bisitetan adierazitakoa kontuan hartuta, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:
 - Su-itzalgailu guztiek hezitzaileen gelan gordeta jarraitzen dute.

- Zerbitzu moduluetako batek erabileraz kanpo jarraitzen du (komun eta dutxa kopurua ez da nahikoa).
 - Logelek 50 litera dituzte: gainerakoek, beraz, logeletako zoruan jarritako koltxoietan lo egin behar dute. Zenbait ate apurtuta edo heldulekurik gabe daude.
 - Hainbat gelatan akatsak ikusi dira, bereziki, instalazio elektrikoetan.
 - Hobekuntzei dagokienez, funtsezko obra bere gaian suteak hartu zuen eta logela gisa erabili ohi zen pabiloian gelak jartzearena izan da.
 - Nabarmen hobetu da, orobat, lorategien eta erabilera komuneko kanpoko espazioen zaintza. Berotegia eta baratzea ere erabiltzen dira.
- Erroldatzei dagokienez, Zornotzako Udalak pasaportearen duten horiek erroldatzeko irizpideari eusten dio oraindik ere. Zentroa lehenengo harrerarako denez, horrek adierazten du 4-5 adingabe baino ez daudela erroldatuta.
 - Osasun arretari dagokionez, aurreko bisitetan esandako berari heldu behar diogu: ambulatorioa erabiltzea; OTI erroldatu ondoren bakarrik lortzea; berariazko protokolorik ez egotea... Medikamentuak hezitzaileen gelan gordeta daude.
 - Ez da berritasunik ikusi, ezta ere, dokumentazioa izapidetzeari dagokionez: zentroak banakako dossier bakoitza prestatzen du eta, ondoren, Bizgarriri helarazten dio, honek kudeaketa-lanei ekin diezaien.
 - Xehetasunez aztertu ditugu polizia ekarritakoen kasuak (eskuarki, adingabeak polizietakoren batek –Ertzaintzak, Polizia Nazionalak edo udalerriren bateko udaltzaingoak– eraman dituztelako sartzen dira zentroan). Ikus daitekeenez, ez dago antzeko irizpiderik entrega-agirian jasotzen diren datuei dagokienez. Zehazki, hainbat kasutan ez da adierazten ez entrega-ordua, ez hori egiteaz arduratu diren agenteak.
 - Honako gai hauek ere aztertu ziren: Bizkaiko Foru Aldundiak hala erabakita adingabeak beste zentro batzuetara aldatzea; 18 urte betetzean zentroa uztea; beste autonomia-erkidego batzuetako babes zerbitzuetatik datozen adingabeak zentroan sartzea; bere garaian, beste lekuren batean zeudela, senideren batek haien ardura hartu eta harrera-sistematik atera ziren eta, ondoren, Bizkaian harrera jaso nahian agertzen diren adingabeen kasuak; etab.

5) Artzentalesko zentrori egindako bisita (“El Garmo” baso etxea)

2007an, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako harrera-baliabide berria zabaldu zen Artzentalesen. Baliabide hori “El Garmo” baso etxea da, herrigunetik oso urrun dago eta “larrialdietarako zentro” gisa pentsatuta dago, 20 bat plazarekin.

Arartekoko langileek ekainaren 27an azaldu ziren zentroan, aurrez ezer esan gabe. Egun hartan, zentroak 18 adingabe zituen. Apirilaren 4az geroztik, alegia, zabaldu zenetik, zentroan guztira 34 adingabe izan ziren (gainbegiratu genituen erregistroko datuen arabera).

Hartutako adingabe guztiak 16 urtetik gorakoak ziren, magrebtarrak, eta, norma-lean, beste baliabide batzuetatik (Zabaloetxe, Euba, El Vivero) bertara aldatuak edo iritsi berriak. Batzuk problematikotzat hartzen dira.

Zentroa Urgatzi elkarteak kudeatzen du. Horretarako, hezitzaile bat, zortzi hezitzaile-zaintzaile (horietatik bi emakumeak) eta txanda bakoitzean bi zaindari ditu. Hezitzaile edo zaintzaileetako batzuek arabieraz dakite eta Marokotik datoz.

Lokala bi solairuko baso etxea da eta, bere garaian, etxebizitza gisa erabiltzen zen. Logela gehienak goiko solairuan daude (literadun hiru logela kolektibo), eta, horiez gain, bi bainugela, sukaldea eta egongela-jangela. Hezitzaileen gela beheko solairuan dago. Solairu honetan beste zerbitzu batzuk ere badaude: bainugela, biltegia, egongela eta bi logela txiki, antza, jokabide arazoak dituzten adingabeak talde handitik bereizteko erabiliak (egun hartan, bi adingabe zeuden logela horietan).

Zentroak muga ugari ditu, ez bakarrik kokapenagatik (herrigunetik oso urrun dago), baizik eta baita edateko urik edo telefonorik ez duelako, ekipamendua beste leku batzuetatik ekarria delako, hainbat akats ikus daitezkeelako eta segurtasun baldintzak nahikoak ez direlako ere (gasolio tanga kanpoan dago eta oso erraz hel daiteke bertara, kanpoaldean kable solteak daude, su-itzailgailuak hezitzaileen gelan gordeta daude giltzapean...).

Baina hori ez zen adingabeen aldetik kexa gehien eragiten zituen arazoa.

Instalazio guztietatik ibili, zenbait agiri berrikusi (esaterako, hezkuntza-proiektua eta zigorren artxiboa) eta elkarteetako zuzendariarekin eta beste pertsona batzuekin bilera egiteaz gain, besteak beste, elkarrizketa pertsonalak ere egin genituen hartutako zazpi adingaberekin.

Jasotako kexek nolabait ohikoak ziren arazoak ukitzen zituzten, adibidez, janaria edo arropa gutxiegi izatea, literak ateratzen zuten soinua... Baina kexa gehien eragiten zituzten arrazoiak prestakuntza-jarduerarik eza, zentrotik atera eta zentrora itzultzeko irizpideak eta paga eta zigorrekin erlasionatutako alderdiak ziren.

Kexa horietan xehetasun handiz ematen ziren azalpenak elkarrizketatuko adingabea aurrez beste zentroren batean egon bazen, orduko eta egungo egoerak alderatzen baitzituen: han, LHZra joaten zen, baina “hemen inora ez”; “han Berrizen eskolatuta nengoan, eta hemen inon ez”; han hainbateko paga ematen zioten, eta hemen, berriz, gutxiago; etab.

Zentroko prestakuntza-jarduera bakarra taldeka gaztelania erakustea zen (ordubete goizez eta ordubete arratsalde), bitartekoek eurek emandako eskoletan, programarik gabe eta zenbait orri solte ez beste baliabiderik gabe. Horrez gain, instalazioen garbitasuna ere aipa dezakegu. Ez zegoen programatutako jarduerarik kanpoan, ezta zonaldeko baliabideak aprobetxatu zitzakeen jarduerarik ere (nolanahi ere, esan den bezala, zentrotik oso urrun daude). Datu horri irteerei dagokiena eransten badiogu (eskuarki, bana 15 egunero, zigorrik ezean), gatazkatsua izan daitekeen egoera bat ikus dezakegu. Beharbada horrek azal ditzake jasotako kexa-kopurua, zenbait kasutan zuten jarrera erasokorra edo ihes kopuru handia (ordura arte, zortzi).

Kexak beste gai batzuei buruzkoak ere baziren, esaterako, dokumentuak izapidezteari edo, medikamentuak erabiltzeari, antza, gazteak lasai mantentzeko.

Osasun arreta emateko, osasun zentroko langileak zentrora joaten dira astero, neurri batean langileen euren ekimenez edo konpromisoz.

Ordura arte ez zen, ezta ere, erroldatzerik egin.

Berrikusitako dokumentazioaren artean, honakoak aipa ditzakegu: Urgatzi taldeak zentro horretarako prestatutako hezkuntza-proiektua, ordutegia, jarduteko prozedurak eta protokoloak... Azken astean zigortu zirenen zerrenda ere berrikusi zen (normalean, azken irtenaldian berandu itzuli izateagatik edo substantziak kontsumitzeagatik).

Zentroko arduradunek lanerako zenbait jarduera proposatu zituzten (informatika, baratz zaintza, mantentzea...), horretarako hurbileko pabiloiak erabiltzeko aukerarekin (basoko zentroarenak berarenak direnak), baina orain arte ez da ekimen bat bera ere gauzatu.

Ikusitakoaren arabera, erakunde honek uste du hobekuntza ugari egin behar lirатеkeela zentroan dituen eginkizunak bete ahal izateko. Hobekuntza horien artean, instalazioetan obra jakin batzuk egitetik hasi (segurtasuna hobetzeko) eta prestakuntza-jarduerak eta lanerako jarduerak bai kopuruz bai kalitateaz gehitzera arte.

6) Izurtzako zentrorra egindako bisita

Arartekoko langileak, aurrez ezer esan gabe, 2007ko abenduaren 4an joan ziren aurtengo abuztuan Izurtzan zabaldu zen baliabide berrira.

Baliabide hori Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoa den eta, garai batean, udalekuak eta egonaldiak egiteko erabili izan zen Etxaburuko dorretxeari atxikitako etxe batean kokatu da. Landalan elkarteak kudeatzen du, Eubako (Zornotza) aterpetxea bezala.

Bisita egin zen egunean bakarrik dauden 20 adingabe atzerritar zeuden, guztiak Marokokoak eta 13 eta 16 urte bitartekoak. Ia guztiak Zornotzatik edo Bilboko harrera-pisu batetik zetozen.

Langile taldean koordinatzaile bat, zazpi hezitzaile eta mantentze lanetarako langile bat zeuden. Gaueko txandan pertsona bakarra geratzen zen.

Nahiz eta harrera-zentroa abuztuan hasi lanean eta bisita abenduan egin, oraindik amaitzen zeuden zenbait obra zeuden. Esaterako, goiko solairuko logeletako ateak falta ziren edo oraindik amaitu gabe zeuden beheko solairuko lau gunek (bi ikasteko gune gisa eta beste bi hezitzaileentzako gune gisa)... Ekipamenduan ere zenbait gabezia ikus zitezkeen: ontzi-garbigailua ez zebilen, arropa-lehorgailua ez zen nahikoa (jangela erabiltzen zen arropa lehertzeko)...

Gabezia hauek (nahiz beste batzuk, apurtutako kristalak bezalaxe), instalazioetara egindako bisitan antzeman ziren zuzenean. Baina horietako batzuk “gorabeheren orrietan” ere agertzen ziren; orri horiek hezitzaileek eurek bete zituzten eta aztertu egin genituen.

Halaber, honakoak ere berrikusi ziren: adingabeei eskainitako hezkuntza-arreta (17 lurretako DBHn eskolatuta, joan-etorriak lineako autobusean eginez; hiru mantentzean daude, Zornotzan), osasun arreta, erroldatze egoera (pasaportea zuten bostek baino ez)...

Zentroko koordinatzailearekin ez ezik, bertan zeuden bi hezitzaileekin (gizonezko bat eta emakumezko bat) eta lau adingaberekin egin genuen elkarrizketa, banaka. Egindako elkarrizketetan aipatutako moduko gai problematikoak nahiz beste batzuk agertu ziren berriz ere:

- Ekipamenduari zituzten arazoak: ontzi-garbigailua, lehorgailua edo oheak (zaharrak dira eta somierrek soinu handia ateratzen dute eta zaila da lo egitea).

- Zenbait osasun arazo eta higiene faltagatiko arazoak (horren haritik, ez dirudi hasieran mediku azterketarik egiten denik edo txertorik jartzen zaienik).
- Orain ordenagailuak instalatzea falta zen.
- Zenbait adingabek ez zuten dokumentaziorik, harreran denbora asko zeramaten arren (urtebete baino gehiago)...

Baina, edonola ere, eta mugak alde batera utzita, bertan zegoen giro ona nabarmendu behar dugu: adingabeek eurek egindako balorazioak, oro har, oso positiboak ziren (“Aquí mejor”; “Todo bien”; “Colegio, comida”; “Hay de todo: colegio...”). Oso balorazio positiboa egin zuten, halaber, guztiek inguruko futbol taldean jolastu ahal izatearen inguruan, nahiz eta horretarako Durangoraino joan behar izaten zuten, bereziki, entrenamenduetarako.

Uste dugu Izurtzan ikusitakoak garbi uzten duela, egon daitezkeen muga materialak edo giza mugak gorabehera, eskolatzeta edo harrera-zentroaren barruan nahiz kanpoan jarduera normalizatua garatzea bezalako oinarritzko alderdiak, batzuetan, nahikoak izan daitezkeela giro lasaia eta adingabe horien premien inguruko asebetetze eta erantzun maila altua lortzeko.

3. *Bestelako jarduerak*

Zentroetara egindako bisitei eta horietan antzemandako arazoei dagokienez, urtean zehar askotariko jarduerak burutu ditu Arartekoak. Hemen, gure ustez garrantzitsuenak direnak laburbilduko ditugu:

- a) Foru aldundiekin oro har eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren Saileko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko arduradunekin izandako bilerak.
- b) Esanahi bereziko gai batzuei dagokienez burututako espedienteak.
- c) Abokatuen Elkarteko eta beste erakunde batzuetako pertsonekin eta hainbat baliabidetako hezitzaileekin egindako bilerak eta informazio trukeak.

a) *Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren Saileko arduradun gorenekin izandako bilerak*

Gogora dezagun, aurreko urtean, Zabaloetxe eta Euba zentroetara egindako bisiten ondotik eta bertako arazo larriak ikusita, Arartekoak bilera egin zuela Bizkaiko Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuarekin eta bere lantaldeko arduradunekin. Horren inguruko laburpena, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako zentroi zegoen inguruko 17 puntuekin, iazko txostenean eskaini genuen (ikus 2006ko txostena, azpiatal honetan bertan).

Aurten, Arabako eta Gipuzkoako foru aldundietako arduradun taldeetan aldaketak izan zirela kontuan hartuta, eta behin horiek finkatuta, informazioa trukatzeko bilerak ere egin dira bi kasuetan.

- a. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko diputatuarekin eta lantaldearekin abenduaren 12an egin zen bilera eta, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruz ez ezik beste gaietaz batzuei buruz ere hitz egin zen arren, gai horri eskaini zitzaion arreta eta denbora gehien.

Guk urtean zehar antzemandako gairik kezkarrienak aurkeztu genituen (horietako asko zentroetara edo Tolosako ertzain-etxera egindako bisitei buruz hemen eskaini ditugun laborpenetan jaso ditugu). Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestalde, baliabide horiek behar bezala kudeatzeko dauden arazoak azaldu zituen (talde eta zentro egokiak lortzeko zailtasunak) eta etorkizunari begira hobetzeko zenbait proposamen aurreratu ziren.

Gogoan izan dezagun, 2007an, sektore honen egoera bereziki gatazkatsua izan dela Gipuzkoan (adibide gisa, txosten honetan bertan Tolosari buruz bildu eta eskaini ditugun datuak ditugu). Gainera, bereziki kezkarriak diren zenbait gairen inguruan (esaterako, laguntza juridiko independentea, poliziaren tratua, zenbait zentrotan funtzionamendu irizpideak edo disolbatzaileen kontsumoak) Arartekoa ofiziozko jarduerak garatzen ari zen; bilera egin zen egunean horiek oraindik ez ziren amaitu.

Hortaz, bilerak gai horiek zuzenago eta modu informala goan aztertzeke aukera eman zuen, baina, nolahi ere, espedienteen eta beste jarduerak batzuen bidez ere landu zirenez, egokiagoa iruditu zaigu horien berri aipatu espedienteen emaitzak agertzerakoan ematea.

- b. Arabako Foru Aldundiko diputatuarekin eta lantaldearekin 2008ko urtarrilaren 16an egin zen bilera eta, data kontuan hartuta, bidean ziren espedienteetaz zegoen aztertzeke zeuden gai guztiak berrikusteko balio izan zuen, eta ez, soilik, bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin erlacionatutako gaiak. Jorratutako gaiak hemen ere, txosten honetako beste azpiatal batzuetan, zehaztu dira.

b) *Bereziki kezkarriak diren zenbait egoeraren inguruko ofiziozko jarduerak*

Aurten, bakarrik dauden adingabe atzerritarren inguruko ofiziozko jarduerak abiarazi ditugu, besteak beste, Tolosako larrialdietarako egoitza-zentroan iristeko ordutegia betetzen ez zutenean gaua igarotzeko sartzen uzten ez zirelako, disolbatzaileak kontsumitzearen inguruko problematikari behar besteko arretarik eskaintzen ez zitzaielako, eta adingabearen agiritan adin ezberdina agertzeak ondorio negatiboak zituelako.

Halaber, beste urte batzuetan bezala, ofiziozko jarduerak burutu dugu aberriarazteko prozeduran ezarritako bermeak betetzeari dagokionez, kasu honetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

2006ko txostenean, Bizkaiko Lurralde Historikoan adingabe atzerritarrak aberriaratu egin zirela adierazi genuen. Aberriarazte horiek, egin ziren modua ikusita, adingabeak eta egoitza-zentroko arduradunak urduri jarri zituzten. Polizia Nazionalea Loiuako Zabaloetxe egoitza-zentrori joan zen, goizaldean, Gobernuaren Bartzelonako Ordezkaritzak emandako zenbait aberriarazte agindu betearazte aldera. 2006ko txostenean, gertakari

horien ondotik burutu genuen jardueren berri eman genuen. Batetik, ofiziozko espedientea zabaldu genuen Bizkaiko Foru Aldundiak aberriratzeko prozeduran izan zuen parte-hartzearen inguruan (42/2007 esp.). Bestalde, aberriratzeko prozeduraren akatsei buruzko gure gogoetak Herriaren Defendatzaileari jakinarazi genizkiola ere aipatu genuen (54/2007 esp.). Zehazki, hari adierazi genion komenigarria zela bakarrik dauden adingabe atzerritarren aberriratzeko erregulatzen dituen araubide juridikoa lege bidez argitzea eta beharrezkoa zela adingabe beraren tutoretza bere gain duten hainbat autonomia-erkidego eta foru aldundi euren artean koordinatzea. Herriaren Defendatzaileak erantzun digu, aurretiazko jarduera gisa, idazkia bidali diotela Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiari, honako alderdi hauei aipamena eginez:

- Adingabeak aberriratzeko edo familiarekin berririko elkartzeko ebazpena beteazteko eperik ez egotea.
- Adingabea aberriratu eta, ondoren, Estatura itzuli eta berriz ere tutoretzapean jartzen denean jarraitu beharrekiko prozedurarik ez egotea.

Ondoren, Herriaren Defendatzaileak jakinarazi digu ez dutela Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiaren txostenik jaso eta, beraz, premiaz bidal dezala eskatu diote berriz ere.

Esan bezala, aurten ofiziozko espedientea zabaldu dugu, orobat, aberriratzeko prozedura baten inguruan (23/2007 esp.). Informazioa eskatu diegu Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari eta gure gogoetak bidali ditugu prozeduraren bermeak betetzeko betebeharraren inguruan: adingabeak derrigor entzutea, adingabeak sorterrian zuen egoeraren garrantzia, haren tutoretza hartzen duen erakundearen erantzukizuna, etab. Hori guztia babes erakundeak egindako txostenean jaso behar da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzun digunez, adingabea aberriratzeko agindua betearaz zezala eskatu zion Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzari. Agindu hori Gobernuaren Bartzelonako Ordezkaritzak eman zuen 2005eko maiatzaren 10ean. Aberriratzeko prozedura Kataluniako Generalitateko Ongizate eta Familia Saileko Haur eta Nerabeen Arretarako Zuzendaritza Nagusiak hasi zuen, une hartan berak baitzuen adingabearen tutoretza. Era berean, adierazi digu adingabeak entzuna izateko duen eskubidea bermatu dela eta, entzunaldiaren eta alegazioen aldirian, aholkularitza juridiko independentea eta abokatu-laguntza eskaini zaizkiola Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko ofiziozko txandan. Erantzunean ere adierazi digute adingabeak jokabide arazo larriak zituela eta horiek zehazki zeintzuk ziren azaldu digute. Halaber, ondorioztatu dute, oso nahasita (eta testuingurutik kanpo) dagoenez, ezin duela inola ere aprobetxatu gure artean ematen duen denboraldia. Azpimarratu dute ezin diotela probetxuzko babesik eman eta bere kulturara, bere ingurunera eta bere famili erreferenteetara itzultzea probetxuzkoa izango litzaikeelakoan daude. Oraindik ez dugu Eusko Jaurlaritzaren erantzuna jaso eta horregatik ez dugu espedientea ebatzi. Hala ere, aurten ere, jasota utzi nahi izan dugu, urteko txostenean, aberriratzeko aginduak betearazteak alarma sortzen duela eta prozedura arautzerakoan gabeziak antzeman ditugula. Horiei dagokienez, eta lehen esan bezala, Herriaren Defendatzailearen bidez Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiaren erantzuna jaso zain jarraitzen dugu.

Hala ere, garrantzitsua da aipatzea Gipuzkoan dagoen adingabe atzerritarrentzako babes sistemak gabezia ugari dituela eta horiek, ziurrenik, eragina dutela adingabeen

jokabidean, Gipuzkoan bakarrik dauden adingabe atzerritarrei arreta eskaintzeaz arduratzen diren egoitza-zentroetara egindako bisiten berri ematerakoan jada aipatu dugun bezala.

Horren haritik, ofiziozko hainbat espediente hasi ditugu lehen aipatu ditugun arrazoiengatik: Tolosako zentroan iristeko ordutegia betetzen ez duten adingabeei ez zaiela zentrorra sartzen uzten gaua igarotzeko; disolbatzaileak kontsumitzearen inguruko problematikari ez zaiola behar besteko arreta eskaintzen; eta adingabearen agirietan adin ezberdina agertzeak ondorio negatiboak zituela.

Berandu iristen ziren adingabeak kanpoan geratzera behartzen zituen Tolosako egoitza-zentrotako barne araudiko arauari zegokionez, informazioa eskatu genien Tolosako Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari. Udalak neurri hori bazegoela berretsi zigun eta zehaztu zigun badagoela barrutian sartzerik, baina ez zentroan bertan. Hortaz, adingabeak kalean geratzen dira berdin-berdin. Era berean, Udalak honakoa adierazi zuen: *“Lortu nahi den xedearekin bat datozen hezkuntza-neurririk ez egotearen arrazoia da hezkuntza-programak urriak direla eta ez dagoela azpiegitura egokirik gauzatu nahi den helburuari erantzuteko”*. Gaineratu du funtsezko arazoetako bat zentroan ezarritako plaza-kopurua baino adingabe gehiago dagoela. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi zigun garbi adierazi zutela ez zeudela ados zentrotako arauarekin, berandu iristen ziren adingabeek gaua kanpoan eman behar zutela baitzioten, eta, beraz, haiek ezabatzeko eskatu zutela. Hala ere, jakinarazi dute, adingabeak toxikoen eraginpean etorri gero, horiek hezitzaile batek eta zaindari batek lagunduta geratzen direla kanpoan, egoera gainditu eta berriz ere beren onera etorri arte. Diotenez, neurri hori ez da gau osoan aplikatzen, baizik eta behar den denboran eta beti zaintzapean.

Era berean, adingabeek disolbatzaileak kontsumitzearen inguruko jarduera jarri genuen abian. Hasiera batean, aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari eskatu diegu informazioa. Txostena egiten amaitu arte, Eusko Jaurlaritzak (Droga Gaietako Zuzendaritzak) eta Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundiek erantzun digute; azken hauek kudeatzen dituzten egoitza-zentrotan egoeraren berri eman digute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzun digu adingabe horiek noizbehinka kontsumitzen dutela disolbatzailea, nahiz eta haxixarekiko mendetasuna izan dezaketen. Diotenez, adingabe horiek migrazio proiektu zehatza ez dutenak izan ohi dira; zenbait kasutan, nagusiagoen eraginpean dauden 14 urtetik beherako adingabeak dira. Halakoetan, Dianova elkarteak kudeatzen duen Zandueta zentrorra desbideratzen dituzte. Zentro horrekin 12 plaza daude hitzartuta, horiek ere Estatukoentzat. Zentro horretan 6 hilabete ematen dituzte, beren bilakaeraren arabera. Ondoren, erakunde horrek berak kudeatzen duen eta 11 plaza dituen Irungo Azpilicueta zentrorra eramaten dira. Zentro horretan gazteak bere egoera normalizatzen du eta autonomiaz jokatu ahal izateko baliabideak ematen zaizkio. Diotenez, plaza gutxi daude eta, hori dela-eta, Estatuko beste zentro batzuetara desbideratu dira. Aurreikusi dutenez, aurki, Zanduetakoaren ezaugarri berberak dituen zentro berria jarriko da abian. Foru Aldundiak onartu du ez dutela baliabide nahikorik adingabe horiek dituzten zailtasunei erantzuteko, ez baitute inolako aukerarik ez osasun publikoan ez arazo hau lantzen duten gizarte erakundeetan, esaterako, erakunde horien programetan beharrezkoa delako erreferentziazko familia izatea testuingurua lantzeko eta bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan halakorik ez dagoelako. Gaineratu dute beren asmoa adingabe bakoitzaren zentroan bertan prebentzio eta tratamendu programa

abiaraztea dela. Azkenik, adingabe guztiekin burutzen dituzten osasun jardueren berri eman digute: osasun egoeraren hasierako azterketa, txertoen egutegia ezartzea, osasun identifikazioko txartela izapidetzea, beharrezko medikamentu edo ebakuntzen kostuak ordaintzea, izapideak egin ahal izateko beharrezko ziurtagiri medikoak ematea, eta buru osasuneko arazoan eta gehiegizko droga-kontsumoaren balorazioa.

Gainera, zentroetan, edozein motatako gai kontsumitzaiek, nola legezkoa hala legez kanpokoa izan, dituen ondorioei buruzko informazioa ematen da. Adingabeak gai horien eraginpean agertzen direnean hartzen dituzten neurriei dagokienez, horiek ezberdinak dira zentroaren arabera, nola larrialdietarako harrera-zentroa izan hala egoitza-zentroa izan. Larrialdietarako harrera-zentroetan, adingabea gainerakoengandik isolatzen da eta hezitzaile baten zaintzapean jartzen da, nolabait bere onera itzuli dela iritzi arte. Egoitza-harrerako oinarriko programako zentroetan, adingabeari bere gelan sartzeko esaten zaio eta, ondoren, balorazio psikologiko eta terapeutikoa egiten zaio. Halaber, zibismoaren ordenantza aplikatuz, Donostiako Udalarekiko koordinazio ildoak ezarri dira, gaiak kontsumitzen ustekabeen harrapatzen diren adingabeak prebentzio tailerretara bidera daitezten.

Bizkaiko Foru Aldundiak esan du adingabe atzerritarrak hartzen diren egoitza-zentroetako arduradunei berariazko datuak eta txostenak eskatu dizkiela gure informazio eskaerari erantzuteko. Lortutako informazioaren arabera, azaldu dute gaiak maiz kontsumitzea ez dela ohiko arazoa. Diotenez, ez dute ikusi adingaberen batek maiz disolbatzaileak kontsumitzen dituenik. Zentro batzuetan bakarrik aipatu da adingabe talde txiki batek noizbehinka halakoak kontsumitzen dituela (%5 edo 10 inguru). Noizbehinkako kontsumo hori hezkuntzaren ikuspegitik aztertzen da, zentro edo etxe bakoitzean esku hartzeko esparruaren barruan. Zentro edo etxe bakoitzeko proiektuan osasun azturekin erlazionatutako gaiak lantzen dira; gai horiek aztertzerakoan, gai toxikoen kontsumoa saihesteko jarraibideak ematen dira. Bestalde, osasun sareko zerbitzuak erabiltzen dituzte adingaberen batek benetan gehiegi kontsumitzen duela ikusiz gero. Gai toxikoak kontsumitu edo edukitzearekin erlazionatutako jokabideei zigorra ezarri zaie zentroetako barne erregimeneko araudietan (errefortzuak edo pribilegioak galtzea, irteerarik gabe uztea, etab.). Jokabide arazo larriak egonez gero (kontsumoaren ondoriozkoak izan ala ez izan), berariazko unitatea ezarri da Artzentaleseko El Garmo zentroan. Unitate honek zortzi plaza ditu. Beste zentro batzuetan sozializazio eta bizikidetasun arazo larriak zituzten eta, maiz, ihes egin, indarkeriaz jokatu edota delituak egin ditzaketen adingabe atzerritarrentzat da. Hezkuntza-talde indartua du, euspen handiagoa dago eta gaiak kontsumitzearekin erlazionatutako estimuluetatik urrun dagoen inguruan kokatuta dago. Diotenez, hezkuntza-talde guztiak arazo horri aurre egiteko prestatuta daude. Azkenik, nabarmendu dute ez zentroek ez hezkuntza-taldek ez dutela arazo hori egun bereziki nabarmena dela aipatu, eta gaineratu dute bakarrik dauden adingabe atzerritarren artean gai toxikoak kontsumitzearen arazoa ez dela babes sistemako gainerako nerabeen artean antzematen dena baino handiagoa, ezta gizarteko gainerako gazteen artean ikus daitekeena baino handiagoa ere. Azkenik, azpimarratu dute zentroek behar bezala betetzen dutela adingabe horien zaintza, berariazko prebentzio eta tratamendu programetan parte hartzea errazten baitiete.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Droga Gaietako Zuzendaritzak luze eta zabal erantzun dio gure informazio eskaerari. Batetik, egindako ikerketen berri eman digute. Horrela, adierazi dute arnastekoen kontsumoa gero eta

hedatuago dagoen arazoa dela. Badakite zenbait gazte etorkin halakoak kontsumitzen aritu dela Bilboko Hontza zentroan. Drogen eta Tokikomanien Europako Behatokiak gai hau oso garrantzitsua dela ohartarazi du azken urteotan. Zuzendaritza ados dago Behatokiarekin, beren ezaugarriak direla medio droga-kontsumoaren ondoriozko arazo handiagoak dituzten taldeetan neurri handiagoan jardun behar dela dioenean. Gaineratu dute, 2007an, “Drogodependencia en menores extranjeros no acompañados: su derecho a una educación y salud de calidad” izeneko ikerlana egiteko diru-laguntza eman dutela. Horren inguruko diagnostikoak arazo hori prebenitu eta tratatzeko egin daitezkeen hobekuntzak zehazten lagunduko die. Halaber, 2004an Madril, Katalunia, EAE eta Nafarroako zenbait babes eta erreforma zentrotan egindako azterlanaren ondorioen berri eman digute. Horrela, adingabeen artean haxix asko kontsumitzen dela eta arnastekoen kontsumoak adingabearen jokabideak nola eragiten duen nabarmendu dute.

Bestalde, aipatu dute EAEko Droga-mendetasunen 2005-2008rako V. Planean, esku hartzeko lehentasunezko taldeen artean, egoera ahulean dauden, kontsumo problematikoak dituzten eta gizartean baztertuta dauden adingabe eta gazteak biltzen direla. Diotenez, talde horrek erabateko lehentasuna du, biztanleen artean oso talde txikia izan arren. Azaldu dute kezkatuta daudela emantzipazio programetatik kanpo geratzen diren eta bizirauteko oinarriko bitartekoak ez dituzten gazteez.

Gainera, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Droga Gaietako Zuzendaritzak bultzatu dituen ekimen eta ekintzen berri eman digute.

Prestakuntzako ekintzen artean, Gizakia fundazioak 2004an eta 2005ean hezitzaileei zuzenduta egin zuena dugu, babes eta erreforma zentroetan prebentzio lana sustatze aldera. Horri erantsi diote etengabeko prestakuntzako programa dutela Droga-mendetasunen Deusto Institutuarekin, arriskuan dauden adingabeekin zuzenean lan egiten duten pertsoneri zuzendua. Halaber, abian da maskulinitate hegemonikoak arriskuko jokabideak hartzerakoan eta drogak kontsumitzerakoan, bereziki egoera ahulean dauden gazteen artean, duen eraginean zentratutako ikerketa/ekintza proiektua.

Bestalde, eremu honetan diharduten gizarte elkarten berri eman digute: Etor-kintza fundazioa, Gizakia fundazioa, Izan fundazioa, Jeiki fundazioa, Margota elkarte, Deusto-San Ignazio modulu psikosoziala.

Berritasun gisa, Droga Gaietako Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzako Inmigrazio Zuzendaritzarekin elkarlanean prestatu duen proiektuaren berri eman dute. Proiektua drogen mende jausteko arriskua saihestu eta murrizteko berariazko prestakuntza eta laguntza emateko proiektua da. Azraf elkarte ari da proiektu hau kudeatzen; une honetan, beharrezko gestioak egiten ari da hura abian jartzeko. Bakarrik dauden adingabe atzeritarren biltokia da: Ksar Bilbo. San Francisco auzoaren inguruetan garatuko da. Bere helburua gazte horien aisialdiaren ordezko aukerak sortzea da.

Azkenik, esan behar da oraindik ez dugula Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren erantzunik jaso eta, beraz, ez ditugu behin betiko ondorioak prestatu. Hala ere, lortutako informaziotik garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritzak aipatzen dituen zenbait programa ez dituztela foru aldundiek aipatzen eta, beraz, ez dakigu horien benetako norainokoa. Halaber, adierazi digute, programa horien betekizunak direla medio, zenbait gazte kanpoan geratzen direla, adibidez, testuingurua landu ahal izateko erreferentziatzko familiarik ez dagoelako, buru osasuneko arazoak dituztelako, tratamendu medikoarekin bateraezinak diren adikzioak dituztelako edo, besterik gabe, halako egoerekin lan egitea aurreikusi ez delako.

Aurten burutu dugun beste jarduera bat Gipuzkoan bakarrik dauden adingabe atzeritarren adina zehazteko prozedurari buruzkoa da. Alderdi horrek berebiziko garrantzia du, adinak, besteak beste, eskolatzean, Administrazioaren zaintzaren iraupenean eta Espainian bizitzeko baimena ematen dion dokumentazioa eskuratzeko aukeran baitu eragina. Genuen informazioaren arabera, Fiskaltza auzitegiko medikuak egindako probaren emaitzarekin bat etorri zen adingabearen adina zehazten. Auzitegiko medikuak hezur proba egin zuen, alegia, ezkerreko eskumuturraren erradiografia egitea eta, hala bada, baita masailezurrarena ere (ortopantomografia). Proba honen emaitzak jaiotza-urtea zehazten zuen. Adin horixe hartu zuen kontuan Gipuzkoako Foru Aldundiak bai adingabea babesik gabe zegoela zioen foru aginduan bai haren tutoretza bere gain hartzen zuela zioen foru aginduan. Arazoa da adin hori ez datorrela bat nortasun agirietan, pasaporteetan edo Marokoko agintarietako egindako jaiotza-ziurtagirietan adierazitakoarekin eta horrek kalte larriak eragiten zizkien.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzun digu jarduteko protokoloari jarraiki jokatu dutela. Protokolo horren arabera, besteak beste, adingabeari entzun egingo zaio adina zehazten duen fiskaltza-dekretuari dagokionez (atzeritarren ofiziozko txandara ere jo dezake edukiarekin ados ez eta errekurtsioa jartzeko). Bestalde, jakinarazi digute lehen auzialdiko epaia eman zela eta, horren bidez, foru agindu bat auzitegiko medikuaren txostenean jasotakoarekin bat etorri berrikusi zuen beste foru agindu bat baliozkoa zela ebatzi zela. Txosten hori Fiskaltzak adina zehazteko eman zuen dekretuaren oinarri gisa erabili zen.

Epai horren arabera, Marokoko pasaporteaz ez litzateke baliozkoa izango adina zehazteko, pertsonaren nahia kontuan hartuta bakarrik prestatzen baita, eta, Maroko ez zenez izan 1961eko urriaren 5ean Hagan egindako Hitzarmenean, legeztatu egin behar izango zatekeen. Epai horren aurka errekurtsioa jarri zen eta Probintzia Auzitegiak beste epai bat eman du 2007ko abenduaren 18an beste epai hura bertan behera utzi eta pasaporteaz dokumentu publiko gisa baliozkoa dela adierazteko. Fiskaltza-dekretuaren izaera ere ezarri du, oso egokiak iruditzen zaizkigun arrazoibideak erabiliz. Horrela, aipatu du dekretu hau oso behin-behinekoa dela eta gutxi gorabeherako adina esateko baino ez duela balio. Gainera, bere xedea adingabeak babestea da, babes zerbitzuak eskura jartzea ala ez jartzea baitakar. Gure iritziz, epai horrek bakarrik dauden adingabe atzeritarrei arazo eta kalte ugari sortzen ari zen egoera argitzen du; izan ere, adingabearen adina zehazteko modu hori Gipuzkoako Lurralde Historikoan bakarrik erabiltzen zen.

Gai honen inguruko informazioa eskatuko diogu berriz ere Gipuzkoako Foru Aldundiari, zehazki, adina zekarren pasaporte balioduna izan arren adingabeen jaiotza-data auzitegiko medikuaren probaren emaitzarekin eta fiskaltza-dekretuarekin bat etorri zehazten zituzten foru aginduak eta gainerako jarduerak berrikusi ote diren. Tutoretzako foru aginduak adingabearen pasaporteaz, nortasun agirian edo jaiotza-ziurtagirian agertzen dena ez den beste adin bat agertzeak kalte larriak eragiten dizkio adingabeari eta, beraz, funtsezkoa iruditzen zaigu Aldundiak jarduera horiek albat arinen berrikustea.

c) *Beste gizarte eragile batzuekin egindako bilerak eta informazio trukeak*

Azpiatal luze honen hasieran ere esan den bezala, bakarrik dauden adingabeen egoerak, maiz, horiei arreta eskaintzeaz arduratzen diren elkarteak edo pertsonak Arartekoarekin harremanetan jartzea egiten du, datuak aurkezteko, kezka adierazteko edo gure esku-hartzea eskatzeko.

Azken urte honetan zehar hainbat gizarte eragilek jo du, garai batean edo bestean, Arartekora kezka adierazteko:

- Zentro batean edo bestean hezitzaile gisa diharduten edo jardun duten profesionalak.
- Adingabe horiekin harremana duten osasun taldeetako langileak.
- Adingabe horiek eskolatzen dituzten zentroetako irakasle taldeak.
- Etorkinei laguntzen dieten edo beren eskubideen alde egiten duten elkarteetako langileak.
- Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko profesionalak.
- Inmigrazioko udal teknikariek, etab.

Kasu batzuetan, jasotako informazioak jarduerak aktibatzeke balio izan du, besteak beste, bisitak eta ofiziozko espedienteak; beste kasu askotan, aldiz, beste iturri batzuetatik, esaterako, administrazioetik bertatik, lortutako informazioa alderatzeko edo osatzeko elementu gisa balio izan du.

Hemen, eskerrak eman nahi dizkiegu bereziki ahula den biztanle talde honen eskubideez arduratzen diren pertsona guztiei, eskaini diguten laguntzagatik. Batzuetan horiek dira, eta horiek bakarrik, egoera bat salatzeko edo adingabeen eskubideak gurea bezalako defentsa-erakundeetan nahiz beste instantzia batzuetan, besteak beste, judizialetan, errespetarazteko beharrezko informazioa edo baliabideak dituztenak.

Horren haritik, azken urtean Gipuzkoan nagusitu den ekimena aipatu nahi dugu hemen; hala, Jarduteko Protokoloaren beraren arabera, ekimenak dio Abokatuen Elkargoak adingabe horien defentsan esku hartuko duela egoera jakin batzuetan. Gai hori oraindik berria da; horregatik, jarraipena egin behar litzaiokie eta berme elementu osagarri gisa balio behar luke.

C) **Zenbait hausnarketa orokor**

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei dagokienez hainbeste informazio jaso da, hainbeste arazo sortu dira eta hainbestetan esku hartu du Arartekoak, ezen ez baita erraza egoeraren ikuspegi orokor eta sintetikoa eskaintzea. Egoera hori, gainera, une oro aldatzen ari da, bereziki, lurralde batzuetan.

Batetik, gure txostenean aztertutako arazoetako askok hor diraute: harrera-baliabideen saturazioa, agiriak izapidetzeko prozesuen mantsotasuna, beren premietara egokitutako hezkuntzako esku-hartzea egiteko zailtasuna, emantzipatzeko zailtasunak, etab. Bestalde, beste arazo batzuk sortu dira edo indar handiagoa hartu dute: gatazka-irudia eta baliabideak sortzearekiko gaitzespena, beharrezko bermeak eskaintzen ez dituzten aberriratzeko prozesuak, droga-kontsumo problematikoak, etab.

Erakunde honi dagokion ikuspegitik, alegia, pertsona ororen eskubideak babestearen ikuspegitik, bereziki kezkarriak diren zenbait elementu daude eta, beraz, aurtengo jarduerekin bat etorritz, horiek nabarmentzen jarraitu behar dugu. Horrela, esate baterako, honakoak azpimarratu behar ditugu:

- Zenbait kasutan, erabateko arreta eskaintzen duen harrera-zentroaren ordeko formulak ari dira zabaltzen, horien artean, pentsioak edo aterpetxeak; horiek,

ordea, hezkuntza-arreta eskasa ematen dute eta berme gutxiago eskaintzen dituzte adingabe horien eskubideen alde.

- Harrera-zentro batzuek ez dituzte adingabe horiei arreta nahikoa eta duina emateko beharrezko gutxieneko baldintzak betetzen. Horrek, askotan, honakoekin du zerikusia: zentroen egiturazko baldintzekin eurekin eta ahalmenarekin; profesional taldeen ratio eta baldintzekin; prestakuntza-jarduera egokiak antolatzeko edo beste programa, zerbitzu edo baliabide komunitario batzuk aprobetxatzeko gaitasunarekin; horietako askoren kokapenarekin (hiri inguruneetatik urrun daude) eta, ondorioz, baliabide komunitarioak aprobetxatzeko aukera gutxiek; etab. Horren haritik, erakunde honek berriz ere azpimarratu nahi du beharrezkoa eta premiazkoa dela zentro horiek bete behar dituzten gutxieneko eskakizunak ezarriko dituen arau komuna finkatzea. Jada badago arau horren zirriborro bat eta oso aurreratuta dago.
- Hezitzaile talde batzuk, beren lana zer baldintzatan garatu behar duten ikusita, etengabe “erre” egiten dira eta horrek, besteak beste, dakarren kostu pertsonalaz gain, arretaren jarraitutasuna eragozten du.
- Batzuetan helarazten den gizarte irudia, bereziki gatazkaren bat agerian jartzen denean, suntsitzailea da adingabeentzat eurentzat eta etorkinentzat oro har, eta gure gizartean jarrera xenofoboak areagotzeko baino ez du balio.
- Ez zaie behar bezala erantzuten ari droga-kontsumoarekin edo adingabe horietako batzuek dituzten buru osasuneko arazoekin erlacionatutako arazo problematikoei.

Ziurrenik, faktore horiek dira, beste batzuekin batera, biztanle talde horren aldeko arreta hain zaila eta problematikoa izatea eragiten ari direnak, baita tartean diren administrazioek esku hartzeko irizpide komunik eza ere. Azken alderdi hau iazko txostenean nabarmendu genuen. Horren haritik, “Herriaren defentsarako Estatuko erakundeak adierazpena administrazio publikoek bakarrik dauden adingabe atzeritarrei buruz dituzten erantzukizunen gainean” delakoari lotzen gatazka. Adierazpen hori 2006ko urrian onartu zen eta osorik jaso genuen aipatu txostenean (ikusi 2006ko txostena, azpiatal honetan bertan).

3) Adingabe lege-hausleak

A) Aurrekariak

Arartekoak “Adin txikiko lege-hausleei” buruz egin zuen ezohizko txostena 1998an argitaratu eta entregatu zitzaion Legebiltzarreko lehendakariari. Bai txosten orokorrak bai biltzen dituen gomendioek hainbat erakunderi eragiten diete, bereziki, biri: botere judizialari –fiskaltzak eta adingabeen epaitegiak–, prozedurak, neurriak hartzeko erabakiak eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko; eta Eusko Jaurlaritzari –batez ere Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari–, neurriak betearazteko eta, beraz, eskura dituen bitarteko eta tresnak erabiltzeko. Gure jarduera, legeak hala aginduta, Eusko Jaurlaritzak bete behar dituen alderdi eta proposamenetara mugatu da.

Horrela, 1999an, Arartekoak gure autonomia-erkidegoan zeuden adingabe legehausleentzako hiru barneratze zentroetara bisita eginda eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari ofizioz informazioa eskatuta egin zuen jarraipena. Bisiten emaitza eta Sailak helarazitako erantzuna xehetasun osoz azaldu ziren urte hartako ohizko txostenean (ikusi 1999ko txostena, I. atala, 1.1.6 azpiatala). Bertan, gomendioak betetzeari zegokionez antzeman ziren alderdietako batzuk nabarmendu ziren, bai positiboak bai negatiboak; neurri batzuen eta besteen bilakaerari buruzko konparaziozko datuak eskaini ziren; eta berariazko arreta eskaini zitzaizen zerbitzuen eraginkortasunerako garrantzi handia duten eta askatasuna are gehiago mugatzen duten lau alderdiri:

- Barneratze zentroen sarearen konfigurazioa.
- Bertako profesionalen lan egoera.
- Zerbitzuek beste laguntza-sare batzuekiko duten harremana.
- Adingabeek ateratzeko eta emantzipatzeko dituzten aukerak.

Gai horiexei lehentasunezko arreta eskaini zitzaizen 2000n egindako jarraipenean. Arartekoko langileek beste bisita batzuk egin zituzten Andoio, Ortuella eta Aramaioko heziketa-zentroetara eta, ondoren, Ararteko erakundea, ofiziozko bi espedienteren bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari zuzendu zitzaizen (ikusi 2000ko txostena, I. atala, 1.1.6 azpiatala).

2001eko jarraipenari dagokionez, bisita gehiago egin ziren hiru zentroetara eta, ofiziozko espediente baten bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari informazio ugari eskatu zitzaion. Informazio hori ondorengo hamar puntu hauetan zehazten zen:

1. Barneratze zentroen sarean egindako aldaketak, eta premiei erantzuteko duen ahalmenaren inguruko aurreikuspenak eta balorazioa.
2. Profesionalen lan egoera eta baldintzetan egindako hobekuntzak.
3. Beste zerbitzu batzuekiko koordinazio eta lankidetzak sistema eta akordioak (bereziki barneratutako adingabeei zuzendutako hezkuntza eta osasun artapena eskaintzeko).
4. Zentroetan hartu edo barneratutako adingabeen hezkuntza-eskubidea bermatzeko neurriak araupetzen dituzten 2001eko azaroaren 7ko Aginduaren aplikaziorako egindako edo aurreikusitako urratsak.
5. Adingabe horien irteera errazteko abian jarritako berariazko programa edo zerbitzuak, barnerapen aldia amaitzean.
6. Nola zen zerbitzu horien arauketa, erakunde honek hainbestetan eskatu duena.
7. Azkeneko urteetan burututako neurrien bilakaera.
8. Adingabeen zigor erantzukizunari buruzko lege berria urte hartako urtarrilean indarrean jartzearen ondoriozko aldarazpenak, eskariei, baliabideei eta erantzuteko gaitasunei dagokienez.
9. Azkeneko urteetan beste lurralde batzuetako zentroetan sartu dituzten gure Erkidegoko adingabeen gaineko datuak, baita horren arrazoiak ere.
10. Adingabeen urraketan biktima izan diren edo ondorioz jasan duten pertsonen emandako artapenaren gaineko datuak.

Hala, bada, eskatutako informazioak aurretik ere jarraipenaren xede izan ziren gaiak heldzen ziren eta berriki izan ziren eta zerbitzuan zuzeneko eragina izan zuten faktore edo gertakarietako batzuk hartu zituen kontuan. Horrela, esate baterako, 2001eko urtarrilean 5/2000 Lege Organikoa indarrean sartzea, adingabeen zigor erantzukizuna arautzen duena (legeak, besteak beste, adin nagusitasun penala zibilarekin parekatzen du; horregatik, neurrien menpe zeuden adingabeen kopurua gehitu egin zen eta, orobat, aldatu egin ziren barneratuta zeuden adingabeen profila eta ezaugarriak); edo ETAk Zumarragan barneratze zentrorako eraiki ziren instalazioak lehertzea, horrek barneratzeen sarearen ahalmena baldintzatzen baitzuen; etab.

Une hartatik aurrera eta hurrengo urteetan zehar, Arartekoaren esku-hartzeak aipatu hamar alderdiak izan ditu erreferentzia-esparru gisa eta, antzemandako bilakaeraren edo jasotako kebaren baten arabera, batzuetan edo besteetan jarri du arreta. Jarraipen txostenak prestatzerakoan (ikusitako azken txostenetako dagozkion azpiatalak), funtsean ondorengo elementuak edo informazio iturriak hartu ditugu aintzat:

- Barneratze zentroetan edo autonomia-pisuetakoren batean in situ, ikuskapen lanak edo elkarrizketak eginda, bildutako informazioa.
- Justizia Sailburuordetzako eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako arduradunekin izandako bilerak (atal horien menpe daude neurriak aplikatu behar dituzten zerbitzuak).
- Beste profesional batzuekin izandako bilakaera, besteak beste Justiziako talde psikosozialekoekin.
- Kexak edo informazio eskaerak jaso ondoren Justizia Sailetik helarazi zaizkigun informazioak.
- Justizia Administrazioaren Euskal Behatokiaren memoriak.
- Gazte Justiziaren Zerbitzuak egindako memoriak.

Azken txostenetan, funtsezko datuak laburbildu, zentroetara egindako bisiten emaitza jakinarazi edo profesionalak azaldutako kontuak jasotzeaz gain, azken azpiatal batean gure iritziz bereziki kezkarriak diren edo hobetu egin behar diren zenbait alderdi nabarmendu genituen. Besteak beste:

- Neurri kopuruan izandako gehikuntza nabarmenak eragin dituen erantzun arazoak (horrek kate osoan izan ditu ondorioak: epaitegietan; talde psikosozialetan; Gazteen Justizia Zerbitzuaren kudeaketa-gaitasunean; zentrozen harrerarako ahalmenean; ingurune irekiko neurrien kudeaketan eta jarraipenean; etab.).
- Babes sistemetatik datozen barneratutako adingabe lege-hausleen proportzio altua (bereziki, bakarrik dauden adingabe atzerritarrena); hori dela-eta, beharrezkoa da bi sistemen arteko erlazioa sakon aztertzea.
- Terrorismo jardueretan dabiltzan adingabeen kasuan neurriak familia-ingurunetik gertuago betetzea ahalbidetzen duten formulak garatzeko beharra (halako kasuetan, Audientzia Nazionalak esku hartzen du).
- Zerbitzuen inguruko arau egokirik eza, alderdi guztientzako berme elementu gisa.

Ikusiko dugun bezala, arazo horietako batzuek oraindik hor dira eta azken urtean berriro heldu zaie; beste arazo batzuetan urrats garrantzitsuak egin dira horiek konpontze aldera.

B) Azken urtean egin diren jarraipen jarduera nagusiak

2007an, hainbatetan bisitatu dugu berriz ere Zumarragako barneratze zentroa, bertan zeuden zenbait adingaberekin elkarrizketa izan dugu (beren ikuspegiak eta proposamenak biltzeko asmoz), bilerak egin ditugu zerbitzu jakin batzuetako arduradun eta profesionalekin, eta, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari zuzendutako ofiziozko espedientearen bidez, gure ustez oinarritzkoenak ziren zazpi kontuei buruzko informazio eguneratua eskatu dugu. Hemen, jarduera horien emaitza laburbilduko dugu.

Gainera, aurten “Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gazte Justiziaren Zerbitzuaren memoria: adingabeen epaitegiek ezarritako neurriek EAEn 2006an izan duten burutzapen mailaren analisia” izeneko agiria lortu ahal izan dugu; 74 orrialdeko agiri horrek oso informazio zehatza eta erabilgarria eskaintzen du jarraipena egiteko. Hala, bada, bertako zenbait datu erabiliko ditugu alderatze elementu edo elementu osagarri gisa.

1. Azken urteotan gauzatutako neurrien bilakaera

Arartekoak adingabe lege-hausleei buruz egin zuen txostenak sustatu nahi zuen jarduteko oinarritzko ildoetako bat ezarritako neurriei eta, bereziki, askatasuna hainbeste mugatzen ez duten, hezkuntza-ahalmen handiagoa duten eta barneratzea ez dakarten neurriei zegokienez legeak zituen ahalmen guztiak garatzearena izan zen. Bitarteko eta baliabideak eskuratzeko aukera handiagoa edo txikiagoa izatea neurriak benetan aplikatzeko faktore erabakigarrietako bat izan ohi da, eta halaxe nabarmendu du erakunde honek, neurriak gauzatzea euskal administrazioaren eskumena baita.

Aurreko txostenetan kontu horren inguruko datuak eskaini, balorazioak egin eta elementu positiboak eta negatiboak nabarmendu ditugu. Hori bereziki 2000n egin zen, orduan lortu eta aztertu baikenuen Gazte Justiziaren Zerbitzuak egindako memoria zehatza (“*Adingabekoen epaitegiek 1999an EAEn ezarritako neurrien betearazpenari buruzko azterketa*”). Esan bezala, aurten antzeko beste memoria bat lortu dugu, kasu honetan, 2006koa.

Memoria horiei esker, neurrien bilakaera globala eta zenbakizkoa ezagutzeaz gain, informazioa xehetasun handiagoz azter daiteke, oso interesgarriak izan daitezkeen irizpideen arabera. Horrela, esate baterako: gertakaria edo arau-haustea izan zenetik neurria hartu arte igaro den denbora; edo neurriak aplikatzerakoan dauden aldeak, adingabeak mutilak edo neskak izan kontuan hartuta; edo neurri zorrotz edo murriztaileagoen (barneratzea) eta talde jakin batzuek (babespeko adingabeek, berrerorleek, bakarrik dauden adingabe atzerritarrek, etab.) duten egoera ahularen edo ezaugarrien arteko erlazioa.

Bestalde, bilakaera-datu orokorrei esker, neurri bakoitzaren aplikazio maila handiagoa edo txikiagoa den eta joera orokorrak zeintzuk diren ikus dezakegu. Datu orokor horiek, 2000-2007 aldirako, ondorengo taulan jaso dira (aurreko urteetako datuetarako, ikusi, adibidez, aurreko urteetako ohizko txostenetako azpialal hauxe bera).

2000-2007 aldian ezarritako neurrien bilakaera

| | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|------|------|------|-------|------------------|------------------|--------------------|------------------|
| Bitartekotza/Konponketa | 234 | 309 | 372 | 279 | – ⁽¹⁾ | – ⁽¹⁾ | 311 ⁽²⁾ | – ⁽¹⁾ |
| Zentzarazpena | 72 | 33 | – | 85 | – ⁽¹⁾ | – ⁽¹⁾ | – ⁽¹⁾ | – ⁽¹⁾ |
| Zaintzapeko askatasuna | 65 | 135 | 176 | 191 | 259 | 201 | 207 | 216 |
| Gizartearen mesederako lanak egitea | 83 | 123 | 185 | 321 | 430 | 506 | 469 | 444 |
| Tratamendu ambulatorioa | 7 | 26 | 31 | 18 | 25 | 33 | 16 | 10 |
| Gizarte-hezkuntzako zereginak | – | 20 | 27 | 47 | 66 | 95 | 73 | 141 |
| Harrera/Bizikidetasuna | – | 2 | 3 | 3 | 5 | 4 | 3 | 10 |
| Eguneko zentrorra joatea | – | – | – | – | 2 | 12 | 6 | 27 |
| Asteburuetan barneratzea | 16 | 42 | 62 | 71 | 88 | 66 | 147 | 129 |
| Zentroan barneratzea | 64 | 63 | 98 | 110 | 142 | 137 | 186 | 170 |
| GUZTIRA | 541 | 753 | 954 | 1.125 | – | – | – | – |
| Bitartekotzarik edo zentzarazpenik egin gabe, guztira | 235 | 411 | 582 | 761 | 1.017 | 1.054 | 1.107 | 1.147 |
| Aurreko urtearekin alderatuta neurri kopuruan izandako gehikuntza | 27 | 176 | 171 | 179 | 257 | 37 | 53 | 40 |

(Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Guk eginikoa)

⁽¹⁾ Ez daude bitartekotza eta zentzarazpenei buruzko datu horiek.

⁽²⁾ 311 espediente kopurua da. Horiek 423 adingaberi eta 424 biktimari eragiten diete (azken horietatik heren bat adingabeak dira).

Datuek joeretako batzuk uzten dituzte agerian. Beharbada garrantzitsuena guztizko neurri kopuruan eta, oro har, ia-ia neurri guztietan izandako gehikuntza da, bereziki 2001az geroztik (5/2000 Legearen aplikazioa) 2004ra arte. Azken hiru urteotan, ordea, gehikuntza oso txikia izan da (%3 eta %5 artean).

Urte batzuetatik beste batzuetara zenbait aldaketa izan diren arren, esan daiteke, oro har, gehikuntza era guztietako neurrietan izan dela, bereziki, ingurune irekiko neurri batzuetan. Horrela, erreferentzia gisa 2000. urtea hartuta (5/2000 Legea indarrean sartu aurreko urtea) eta orduko datuak azken urtekoarekin alderatuta, honako aldaketa eta joera hauek ikus ditzakegu:

- Gizartearen mesederako egindako zerbitzuak boskoitza baino gehiago hazi dira (83tik 444ra igaro dira).
- Zaintzapeko askatasunak hirukoitza hazi dira (65etik 216ra igaro dira).
- Tratamendu ambulatorioak 7tik 10era igaro dira (baina aldaketa handiekin urtetik urtera).
- Gizarte-hezkuntzako zereginak, lehen ez zeudenak, azken urtean 141 izan dira, aurreko urtean izandakoen ia bikoitza.
- Gehitzen joan dira hezkuntza-taldeko harrerak edo bizikidetasuna (10 kasu), baita eguneko zentroetara joatea ere (27 kasu), hasieran ez oso nabarmen, baina azken urtean are indar handiagoz.
- Asteburuko barnealdiak 16tik 129ra igaro dira.
- Zentroko barneratzeak, nola kautelazkoak hala neurriren bat aplikatzearen ondoriozkoak, 64 izatetik 170 izatera igaro dira (horietatik 34 kautelazkoak).

Azken urte honetako datuak arreta handiagoz aztertzen baditugu, aurten ere ingurune irekiko neurriak erabilienak direla ikus dezakegu. Horrela, esate baterako, gizartearen mesederako prestazioak neurriak erabilienera dira eta ezarritako 10 neurritik ia 4 halakoak dira. Hala ere, ohartarazi behar dugu garrantzi handia dutela mutila edo neska bere ingurunetik atera eta heziketa-zentrorra eramatea dakarten neurriek. Horrela:

- Azken urtean barneratzeak gutxitu egin dira (170, 186ren aldean), nahiz eta aurreko urteetan baino dezente gehiago diren.
- Eta gauza bera gertatzen da asteburuko barnealdi edo egonaldiekin ere (129).

Alegia, azken urtean era horretako neurrien multzoa gauzatutako neurri guztien %26 izan da; aurreko urtean, %30 izan zen, baina duela bi urte ez zen %20ra iristen (zehazki, %19,2) eta hemen aztertutako aldiaren hasieran (2000) %12,5 baino ez zen.

Kezkagarria da, orobat, kautelazko neurrien gehikuntza, nola zaintzapeko askatasunari hala barneratzeari dagozkienak. Harrigarria bada ere, kautelazko barneratzeen %65 Donostiako Adingabeen Epaitegiari dagozkio. Justizia Sailak, berak egindako analisian, gorabeherako horietako batzuk 5/2000 Lege Organikoaren inguruan egindako azken aldaketen ondorioa direla dio; aldaketa horiek egiten dute, adibidez, falta gisa tipifikatutako gertakariak zigortzeko gizarte-hezkuntzako zereginak ezartzea.

Gauzatutako neurri guztiei buruzko zenbakizko datuak, ordea, ez dira nahikoa zenbait errealitate kezkgarri behar bezala konturatzeko. Horren haritik, Gazte Justiziaren Zerbitzuak egindako 2006ko memoriak neurri horietako bakoitzaren aplikazioari buruzko datu askoz ere zehatzagoak izateko bidea ematen du. Horrela, esate baterako, gertakaria izaten denetik neurria hartzen den arte zenbat denbora igarotzen den; neurriek zenbat irauten duten; epaitegi batzuek edo besteek zer neurritan erabiltzen dituzten; horiek adingabe jakin batzuei neurri handiagoan edo txikiagoan aplikatzea zenbait ezaugarriren arabera: generoa, bertakoa edo atzerritarra den, babes sistemetatik datorren, etab.

Kualitatiboagoa den ikuspegi honetatik, kezkatzeko honako arrazoi hauek nabarmentzen ditzaizkete:

- Ez dira soilik neurriak gehitzen, baizik eta baita, kasu askotan, horien iraupena ere (2006an barneratzeen batez besteko iraupena 10 hilabete baino gehiagokoa izan zen).
- Kasu askotan, salatutako gertakarien biktimak ere adingabeak dira (esaterako, %33 bitartekotza/konponketako kasuetan).
- Neurriak aplikatzerakoan epaitegi batzuen eta besteen artean alde handiak antzematen dira.
- Babes sistemetatik datozen eta delituen bat egin duten adingabeen kopurua oso handia da (adibidez, zaintzapeko askatasunen %20; eta baita kautelazko barneratzeen %76,7 ere).
- Denbora asko igaro ohi da gertakariak izaten direnetik neurria ezartzen den arte, kasu askotan, urtebete baino gehiago (2006an, adibidez, zaintzapeko askatasunetan, batez besteko denbora 10 hilabetekoa izan zen eta kasuen heren batean urtebetetik gorakoa).
- Adingabe atzerritar ugari dago barneratuta (2006ko barneratzeen heren bat baino gehiago).

- Gero eta neska-mutil gehiago egiten dituzte beren gurasoen aurkako indarkeria-delituak edo genero indarkeriazkoak (2006an 101 arau-hauste izan ziren).
- Adingabe gutxi batzuek hainbat neurri metatzen dituzte; alegia, hainbatetan urratu dute legea.

Alderdi positibo gisa, eta ikuspegi zehatz batetik, esan dezakegu adingabeen aurkako salaketa ugari neurri judizialik hartu beharrik izan gabe ebazten dira. Horrela, 2006an izan ziren 3.304 salaketetatik (bai faltak bai delituak kontuan hartuta) 1.261 kasutan “bakarrik” zabaldu zen erreforma-espediente eta horietatik ia laurdena artxibatu egin zen. Nolanahi ere, 1.000 adingabe baino gehiago auzitaratu ziren.

Oso positibo da, halaber, bitartekotza/konponketako kasuen inguruan egindako balorazioa: prozesuen %82,5 arrakastatsutat hartzen dituzte gauzatzen dituzten taldeek eurek; hala, beraz, ez da beharrezkoa neurri judizialik ezartzea.

Komeni da aipatzea, orobat, erakundeek laguntza handia eskaini dutela horietan gizartearen mesederako prestazioak eskaini ahal izateko: Gipuzkoako eta Bizkaiko Gurutze Gorriaren hainbat zerbitzu, Merkadeko, Zuzenak fundazioa, Gazte Justiziaren Zerbitzuko heziketa-zentroak, Bizkaiko Cáritas, DYA –Errepidean Laguntzeko Elkarte–, Las Mercedeseko eguneko zentroa, Gipuzkoako kale hezitzaileen taldeak, Bizkaiko gizarte eta hezkuntzako gaietan esku hartzeko taldeak –EISES–, udalen mende dauden hainbat udal zerbitzu (nagusiki, Gipuzkoakoak), etab.

Datu horiekin bat etorritz, oraindik ere hor diraute 2004ko txostenean adierazi genituen kezkatzeko arrazoietak asko (ikus 2004ko txostena, I. atala, 1.1.6 azpiatala). Horrela, esate baterako:

- Justizia sistemak delituzko gertakizunei erantzuteko geldotasuna.
- Neurri judizial baten helburu edo xede izan diren adingabeak babes sistema batetik datozen kasuen kopuru handia (urteroko kontua da).
- Neurrien iraupen handiagoa edo lurralde historiko bakoitzeko erabaki judizialen artean dauden alde handiak.
- Problematika berrien sorrera edo indartzea (famili barruko erasoak egin dituzten adingabeak, buru osasuneko arazoak edo toxikomaniak dituzten adingabeak, etab.).

Aurrekoetan ere azpimarratu dugun bezala, azken urteotan gure autonomia-erki-degoan ezarritako neurrien inguruan ditugun datuen analisi xehatutik atera dezakegun ondorioa da adingabeen erantzukizun penala arautzen duen legea aplikatzerakoan oraindik ere gabeziak daudela, ez bakarrik erakunde publiko eskudunak baliabide mugatuak dituelako edo antolakuntzako arazoak dituelako –alderdi honetan hobekuntza nabarmenak izan dira–, baizik eta baita sistema judizialak mugak edo jardun bide jakinak dituelako ere.

Datuek, gainera, argi eta garbi erakusten dute ez dela egia sistemak ez duela ezer egiten adingabeen delituzko jokabideen aurrean –gizarteak hala pentsatzen duen arren–; egia da, ordea, oso berandu esku hartzen duela. Hori legearen espirituaren eta hezteko xedearen kontra dago erabat eta ondorio negatibo larriak ditu adingabeengan, biktimgan eta, oro har, gizartean.

2. 2005ean barneratze zentro eta baliabideen sarean egindako aldaketak

Gure autonomia-erkidegoan berriaz adingabe lege-hausleak barneratzeko diren heziketa-zentroen sarea, hainbat urtez, hiru zentrok osatuta egon da: Andoiuko zentroak (hasiera batean neskontzat izango zena), Aramaiokoak eta Ortuellakoak (azken hau mutilentzat).

Egoera horixe zen nagusi Arartekoaren ezohizko txostena prestatu zenean. Bertan, zentro horiek zituzten mugetako batzuk adierazi ziren; muga horiek hainbat faktoreren ondorioa ziren, besteak beste, kokapena, titulartasuna, egitura edo harrerarako ahalmena. Baliabideak gehitzea beharrezkoa zela ere adierazi genuen eta iruditu zitzaigun Zumarragako zentro berria sarean sartzea (hasiera batean 2001ean egingo zena) aukera ona zela zentroen konfigurazioa berrikusi eta horien etorkizuna planifikatzeko.

Egoera asko aldatu da azken urteotan. Horrela, lehengo hiru zentroi –Aramaioko Mendixola (12 plaza), Ortuellako Miguel Ángel Remírez (8 plaza) eta Gasteizko Andoiu (7 plaza)–, beste baliabide batzuk gehitu zaizkie eta, hala, plaza gehiago sortu dira eta sarea berrantolatu ahal izan da. Azken urtean, esaterako, Uribarri zentroa osorik berritu da eta, ondorioz, plaza gehiago barneratu dira sarean.

Horrela, egun Justizia Sailak, zentroak mailen arabera berrantolatu ondoren, eremu itxiko neurriak betetzeko, ondorengo koadroan laburbil daitezkeen baliabideak ditu:

1) Heziketa-zentroen sarea:

| HEZIKETA ZENTROA | MAILA | LEKUA | PLAZAK | KUDEAKETA | LANGILEAK (2007-12-31n) |
|------------------------------|-------|------------------------|--|--|--|
| IBAIONDO | I | Zumarraga | 34 (mutilak) 5 talde | Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, zuzenean | 57 + 12 irakasle + zerbitzuak (sukaldea, garbiketa, zaintza) |
| MIGUEL ÁNGEL REMÍREZ (CEMAR) | II | Ortuella | 7 (mutilak) | Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka | 15 |
| MENDIXOLA | II | Aramaiu | Urriaz geroztik: asteburuko barnealdietarako 6 plaza | Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka | 3 |
| URIBARRI | II | Arrazua-Ubarrundia | 14 (barneratzea) 4 (eguneko zentroa) | Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka | 28 |
| ANDOIU | II | Andoiu | 7 (neskak) | Gaztaroan Ekin elkarteak, zeharka | 16 |
| BILBOKO AUTONOMIA EGOITZA | III | Bilbao | 6 (mutilak eta neskak) | Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka | 8 |
| GASTEIZKO AUTONOMIA EGOITZA | III | Vitoria-Gasteiz | 4 (mutilak eta neskak) | Gaztaroan Ekin elkarteak, zeharka | 6 |
| SAN SEBASTIÁN EGOITZA | III | Donostia-San Sebastián | 4 (mutilak) | Berritzu hezkuntza-elkarteak, zeharka | 6 |
| SAN SEBASTIÁN-2 EGOITZA | III | Donostia-San Sebastián | 6 (mutilak eta neskak) | | 6 |

Horrela, beraz, abenduaren 31n zeuden barneratze plazak 82 ziren (iaz baino 10 gehiago), asteburuko egonaldietarako 6 plazak eta eguneko zentroko 4 plazak kontuan hartu gabe. Barneratze plaza horiek honela banatzen dira, mailen arabera:

- 34 plaza I. mailan (5 hezkuntza-talde dituen zentroa).
- 34+4 plaza II. mailan (lau zentro), (4 plaza eguneko zentroan; 6 aste-burukoak).
- 20 plaza III. mailan (lau egoitza-unitate, horietatik bat familia-ingurunean erasoak edo mehatxuak egiteagatik zenbait neurri bete behar dituzten pertsonen arreta ematen espezializatua).

Sailaren datuen arabera, azken urtean, adingabeak gure autonomia-erkidegoaz kanpoko zentrotan batean barneratzeko neurriak ez dira hartu plazarik ez zegoelako, baizik eta hala egiteari egoki iritzi dioten adingabeen epaitegiek hala erabaki dutelako. Zentrotan batez besteko okupazioa plaza erabilgarrien %80 baino gehiagokoa izan da urrira arte eta %70 baino gehiagokoa orduz geroztik, behin Uribarri heziketa-zentroa berri eta berriro zabalduta.

2) Ingurune irekiko zerbitzuak:

- Lau hezitzaile taldeak mantendu eta indartu dira: Bizkaiko biak (14 profesional); Gipuzkoakoa (7 profesional); eta Arabakoa (4 profesional).
- Bizkaiko eguneko zentroaren ahalmena finkatu eta handitu da (20 neska-mutil eta zortzi profesional).
- Urriaz geroztik 4 solairuko beste zentro bat dago (Uribarriko eguneko zentroa)
- 15 gazte profesional bakoitzeko ratioari eutsi zaio, lan gainkargarik ez sortzeko; horretarako, profesionalen kopurua gehitu da (6 profesional gehiago) lehendik zeuden talde guztietan eta 5 gehiago kontratatu dira talde berrirako.

3) Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin egindako kontratuak:

Sailak emandako informazioaren arabera, Ogasun Sailak hala adierazita, kontratuaren formula erabiltzetik lankidetzaren formula erabiltzera igaro da eta ekarpen ekonomikoak gehitu dira sektoreko hitzarmen kolektiboetan ezarritako mailak bete ahal izateko.

3. Zerbitzuen inguruko arauak

Arartekoak hainbatetan nabarmendu du oso garrantzitsua dela 2005ean onartu eta indarrean sartu ziren bi arau garatzea eta aplikatzea; hots, 5/2000 Lege Organikoaren Araudia; eta Eusko Jaurlaritzak 2005eko otsailean onartu zuen haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legea.

Aurten ere, Justizia Sailari datuak eskatzeko bidali zaion idazkian, gai hori nabarmendu zen eta hori aplikatu eta garatzeko egindako urratsei buruzko informazioa eskatu zen, bereziki, barneratze zentrotan funtzionamendu arauak erregulatzeari eta zigorren araubideari eta isolatze neurriei zegokienez.

Sailaren erantzunetik honakoak azpimarra ditzakegu:

- Erakundeekin egindako hitzarmenen bidez, langile guztiei lanorduetan 35 orduko prestakuntza eskainiko zaiela ezarri da.
- Araudiaren eta legearen ezarpenak pixkanaka aplikatu dira, bereziki, prozedurei, txostenei edo diziplina-araubideari dagokienez, baina ez da arauzko garapenik izan. Jarduteko eskulibururik ba ote dagoen.
- Diziplina-araubideari dagokionez, 2005eko barne dokumentua aplikatzen da oraindik ere; bertan, bideratu beharreko prozedura jaso da (inprimakiak, gehieneko erantzun denborak, zigorren jakinarazpena eta erregistroa, etab.).
- Erakundeen erregistroari buruzko dekretua izapidetzen ari da.
- Gazte Justiziako zentroen araudiari buruzko zirriborroa dago, erakunde laguntzaileen ekarpenak jaso zain.

4. **Babes sistemetikiko harremana**

Aurrez egindako jarraipenen ondoriozko datuak eta kezkek kontuan hartuta, Sailari honakoen inguruko informazioa eskatu genion berriz ere:

- Babes sistemetikiko datoen adingabeen proportzioa (jokabide arazo larriak dituzten nerabeak eta, zehazki, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak –hauen inguruko jarraipena egiten ari gara–).
- Koordinazio mekanismoak, jarduteko irizpide komunak, informazioa trukatzeko eta jarraipena egiteko sistemak, esku-hartzearen jarraitutasuna, etab.

Erantzunean Justizia Sailak berriro aipatu du bilakaera izan dela eta gazte justiziarren sisteman adingabe asko foru aldundien mende dauden babes sistemetikiko datozela, nagusiki, jokabide edo neurri larrienen kasuan (kautelazko neurriak edo barneratzeak). Horren haritik, 2006ri dagozkion ondorengo datuak ematen ditu:

- Kautelazko barneratzean: adingabe horien guztien %76,7.
- Barneratzean: adingabe horien guztien %48,7.
- Asteburuko egonaldian: %34,7.
- Gizartearen mesederako lanak egiten: %22,4.
- Zaintzapeko askatasunean: %20.

Datu horiek bi sistemen arteko harremana agertzen dute, bereziki, neurri zorrotz edo murriztailegoen menpe dauden adingabeen kasuan (barneratzeak). Egoera oso nabarmena da bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan, eta are gehiago, azken urtean, Gipuzkoan. Kautelazko barneratzeen %65 lurralde horretan izan dira, gehienak bakarrik dauden adingabe magrebtarrak, Gipuzkoako pentsio, hotel edo zentroetan hartuta zeudenak. Txosten honen aurreko azpiatalean, bakarrik dauden adingabeek Gipuzkoan bizi duten egoerari buruz azken urtean bildu diren datu esanguratsuak aipatu dira. Esperientziak garbitu utzi du, harrera-sistemak oinarizko premiei behar bezala erantzuten ez dienean, arazo gehienek, azkenean, zigor sisteman eragina izaten dutela.

Ikuspegi horretatik, azken urteotan bezala, bi sistematan gehien ikus daitezkeen taldeak honako hauek dira:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak (gehienak Marokokoak).
- Familiari eraso egin dioten adingabeak.
- Emantzipatzeko benetako aukerarik ez duten 18 urtetik gorakoak.
- Babes zentzoren batean bizi diren eta zentrotik kanpo neurriren bat bete behar duten adingabeak.

Familiari eraso egin dioten adingabeei eta gurasoengandik banantzera behartzen diren adingabeei dagokienez, Sailak nabarmendu du, gainera, aurren zenbait neska ere izan direla tartean (neskei aplikatutako barneratze neurrien erdia arrazoi horregatik izan da).

Koordinazio ekimenei dagokienez, Sailak erantzunean berriro aipatu du arazo horiek jada aztertu direla, baina emaitzak oso urriak izan direla. Halaber nabarmendu du, bere ustez, jokabide arazoak dituzten gazte atzerritarrek eta tutoretzapekoek ez ditela beren beharrei erantzun egokia aurkitzen sisteman eta egoera hori larriagotu egin da 2007an, foru aldundien mende dauden eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrei zuzenduta dauden harrera-zerbitzuak beteta baitaude.

5. Zentroetan bertan eskaintako hezkuntza eta osasun arreta eta hezkuntza eta osasun sistemekiko lankidetzak

Aurreko txostenetan ikus daitekeen bezala, behin eta berriro agertu diren eta, une jakin batzuetan, erakunde hau berariazko ofiziozko jarduerak abiaraztera eraman duten bi gai dira.

Hezkuntza-arretari dagokionez, Sailaren erantzunak honako hauen egoera be-reizten du: III. mailako zentroetan barneratuta daudenak (eskolatzea kasu guztietan egiten da, ohiko sarean), II. mailan daudenak (arreta mistoa eskaintzen da, kasuen arabera, ohiko sarean eta barneratze zentroetan bertan), eta Ibaiondo zentroan daudenak (I. maila). Azken kasu honetan, irakatsi eta ikasteko jarduerak zentroan bertan egiten dira; horretarako, 5 irakasle daude eskolak emateko eta 7 tailerretan aritzeko, guztiak ere Hezkuntza Sailaren mendekoak.

Osasun arretari dagokionez, aldeak daude, halaber, zentro batzuen eta besteen artean. Oro har, ez dago arazo berezirik ez larrialdietako arretan ez hasierako arretan, ezta osasun zentroek edo barneratze zentroak berak ematen duten eguneroko arretan (Ibaiondon, adibidez, Osakidetzako langileek egunero arreta eskaintzen dute pare bat orduz).

Egoera goitik behera aldatzen da buru osasunaren eta toxikomanien arretari dagokionez.

Erakunde honek urtez urte nabarmendu du arazo hau (ikus, adibidez, iazko txostenetan, azpiatal honetan bertan, adierazitakoa).

Kontu horiek garrantzitsuak direla eta era honetako premiak handitu egin direla ikusita eta kontuan izanda ez dirudiela erantzunetan aldaketa esanguratsurik gertatzen denik, puntu hori zehatzago aztertuko dugu eta, zenbait alderdiri dagokienez, hemen hitzez hitz jaso ditugu Justizia Sailaren balorazioetako batzuk, horiek arazoaren zenbaiterainokoa eta horren ondorioak hobeto ulertzen lagundu ahal izango dutelakoan.

Horrela, buru osasunari dagokionez, Sailak gogorarazi du Justizia eta Osasun sailek sinatutako lankidetzak-hitzarmenak larrialdi egoeretako barneratze premiei erantzuten

diela –ospitale orokorretako akutuen unitateak–, betiere, barneratze horiek 3 edo 4 aste baino gutxiago irauten badute. Baina barneratzeek gehiago irauten badute, oso kasu berezietan, ez dute erantzunik Osakidetzan: *“Sailaren arabera, sare publikoan ez dago egonaldi ertaineko baliabiderik nerabeentzat, ezta sare pribatuan ere; EAEtik kanpo ere gutxi batzuk baino ez daude. Hori dela-eta, irtenbide partziala Ibaiondo heziketa-zentroan barneratze terapeutikoen arretarako berariazko taldea sortzea izan da. Bertan, eguneroko hezkuntza-arreta eta arreta psikologikoa sail honetako Gazte Justiziaren Zerbitzuko langileek eskaintzen dute eta, hori osatzeko, psikologo klinikoa kontratatu da zerbitzuak egiteko. Arreta psikiatrikoari dagokionez, hori zentroan bertan Osakidetzak ematea ezinezkoa izan da eta horregatik eskatu behar izan da kanpo laguntza hori. Datorren urterako, zentrorako psikologo klinikoko plaza berria sortzea onartu da”*.

Horren haritik aipatu du osasun zentroetan, anbulatorioetan, eskainitako arreta biztanleei oro har ematen zaiena dela eta, horrela, antzemandako premietako askori erantzuten zaie, nahiz eta, batzuetan, hori ez den nahikoa izaten. Halakoetan, terapeuta pribatuetara jotzen da eta horiekin kontratatzen da esku-hartzea. Halaber dio ez dagoela erantzun publikorik esku-hartzeak familia osoa barne hartzea behar denean.

Balorazio horixe bera jasoko da, beste hitz batzuekin, Gazte Justiziaren Zerbitzua-ren 2006ko memorian. Honela dio: *“tratamendu anbulatorioa gauzatzeko orduan alderdi deigarrienetariko bat eskaera hauei erantzuteko profesional edota erakunde pribatuak kontratatze beharra izan da, kasuen %68 baino gehiagotan. Eskaintza publikoa ez da gai eskariari erantzuteko, ez kuantitatiboki –saioen periodikotasuna, iraupena, etab.– ez kualitatiboki –esku-hartze mota–”*.

Toxikomanien arretari dagokionez ere, balorazio kritikoa egiten da. Kasu horietan, Osakidetzak zehazten du zein izango den zentro terapeutiko egokiena, nola EAEkoa hala EAEz kanpokoa, eta arreta anbulatorioa, buru osasuneko zentroetan eskainia, Justizia Sailak berak osatzen du, sare pribatuko zerbitzuetara jotz.

Laburbilduz, honakoa ondorioztatzen du: *“oro har, zerbitzu publikoek buru osasunari eskaintzen dioten arretak hutsune garrantzitsuak ditu; eragindako pertsonakopurua gero eta handiagoa da eta beharrezkoa da sare pribatura jotzea”*. Kasu batzuetan, gainera, ezin da erantzunik egokiena eman.

Badago beste hirugarren premia bat ere, nahikoa berria dena, eta, bertan ere, arazoak eta gabeziak daude erantzunari dagokionez. Premia horrek etxean tratu txarrak ematen dituzten adingabeen inguruko esku-hartzearekin du zerikusia. Alderdi hori dela-eta, aipatu da egoera horiek nabarmen ugaritu direla eta ia ez dagoela erantzun publikorik justizia sistematik kanpo. Horren haritik, adierazi da hainbat erakunderekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean ari direla fenomeno bera eta erantzun egokiagoak lortzeko modua sakon aztertzeko. Gaineratu du beste autonomia-egoitza bat zabaldu dela Donostian, sei plazakoa; egoitza horretan, barneratze neurri judiziala betetzen ari diren eta familian indarkeriaz jokatu duten pertsonen ematen zaie arreta.

6. Eskaerari behar bezala erantzun ahal izateko sisteman egindako hobekuntzak

Puntu honetan Justizia Sailari datuak eskatu genizkionean, eskaerari behar bezala erantzun ahal izateko edo indarrean den “EAEn gazte justiziako neurriak betearazteko

2004-2007ko Plana” aplikatuz sisteman egindako hobekuntzei buruzko informazioa eskatu zen. Horren haritik, honakoei dagokienez ezarritako neurriak azpimarratu izan ditugu:

- Zerbitzu judizialak.
- Gazte Justiziaren Zerbitzuaren kudeaketa-ahalmena.
- Era guztietako neurriak aplikatzeko beharrezko baliabideak.
- Jarraipena, koordinazioa eta ebaluazioa.
- Irteteko eta emantzipatzeko bideak.
- Audientzia Nazionalak hartutako neurriak betez adingabeei arreta eskaintzeko aukera (lankidetzeta-hitzarmena...).

Aipatu planari oro har dagokionez, eta hartzen zuen aldia amaitzear zegoela, Sailari adierazi genion horren garapen mailari edo ezarritako helburuen zenbaterainokoari buruzko baloraziorik edo ebaluaziorik ba ote zegoen jakin nahi genuela.

Sailaren erantzunak, nagusiki, hainbat zerbitzutan plaza- edo pertsona-kopuruari dagokionez izan diren gehikuntzen inguruko datuak ematen ditu: barneratze plazak (16 gehiago), eguneko zentroetakoak (9), ingurune irekiko hezitzaileak (6 gehiago)... Halaber, gogorarazi du jada amaitu direla Uribarri heziketa-zentroko obrak. Zentro honek 14 plaza eskainiko ditu barneratzeetarako eta 4 eguneko zentroko egonaldietarako. Horren haritik, uste du egun dauden baliabideak nahikoak izan direla eskaerei erantzuteko.

Beste kontu batzuei helduz, hobekuntzen artean honakoak aipatu ditu:

- Sailaren eta erakunde laguntzaileen arteko harreman motan izan den aldaketa (kontratuaren formula erabiltzetik lankidetzeta-hitzarmenaren formula erabiltzera igaro dira. Hitzarmen berrietan gehikuntza ekonomiko nabarmenak izan dira).
- Egoitzetako programei, egoitza-zentroetako hezkuntza-proiektuei eta abarri buruz egindako ebaluazioa (KREI – Kriminologiaren Euskal Institutuak egin du eta hezitzaileek, Gazte Justiziako teknikariek eta gazteek ere parte hartu dute zuzenean).
- Onartutako legeria berriaren aplikazioa (haurrak eta nerabeak babesteko araudia eta legea; ez da desoreka esanguratsurik izan).

Alderdi problematiko edo kezkatzeko arrazoiei dagokienez, bi aipatu behar dira:

- 5/2000 LOn egindako aldaketetikiko zeuden itxaropen negatiboak bete egin dira eta horrek ondorioak izan ditu: sistemaren hezkuntza-ikuspegian atzerakada nabarmena izan da, barneratze neurriak luzatu egin dira, faltak zorrotzago zigortu dira, barneratze zentroetan plaza gehiago behar izan dira, eta Gazte Justiziaren Zerbitzuaren xede ziren gazteak espetxeratzea ere ekarri du ziurren (lege hori otsailean sartu zen indarrean).
- Justizia Ministerioak ez dio erantzun Sailak, Legearen 4. xedapen gehigarriari jarraiki, gai honen inguruan lankidetzeta-hitzarmena sinatzeko egin zion proposamenari (4. xedapen gehigarria, Audientzia Nazionalak EAEn ezarritako neurriak betetzearen ingurukoa).

2004-2007ko Planaz soil-soilik dio bertan jasotako helburu eta ekintzekin bat etorri aplikatu dela.

Orain arte laburbildutakoarekin bat etorri, gure ustez, hemen landutako gaietako batzuei jarraipena egin eta berriazko arreta eskaini behar izango zaie, bereziki, problematikoak izan daitezkeenei, besteak beste, legetan egindako azken aldaketan aplikazioari edo handitzen doazen aipatu arazoan azterketari.

7. Barneratutako adingabeen euren balorazioak

Aurten, jarraipena egiteko beste modu bat ere erabili da, beti erabili ez dena; horren bidez, barneratutako adingabeengandik zuzenean jaso da informazioa.

Horretarako, abenduaren 11n, Arartekoko langileak Zumarragako Ibaiondo heziketa-zentrorra joan ziren eta, xede horrekin, bilera egin zuten zentroan barneratze neurriak betetzen ari ziren bost gazterekin.

Egun hartan, zentroan 23 gazte zeuden, bost taldetan banatuta. Talde horietatik, profil eta ezaugarri ezberdinak zituzten bost gazte aukeratu ziren: bat Arabakoa zen, bi Bizkaikoak eta bi Gipuzkoakoak; bi bakarrik zeuden adingabe atzerritarrak ziren, bat atzerritarra baina familiaduna, bi bertakoak eta babes zentroetan hainbatetan egon zirenak; adin ezberdinak zituzten (16 eta 18 urte bitartean); etab.

Duela zenbait denboraz geroztik, zentroak bilerak egiten ditu astero. Bilera horietan talde bakoitzeko arduradun batek parte hartzen du, eguneroko arazoak eztabaidatzeko. Hori oso egokia da parte-hartzea bultzatzeko. Hala ere, kasu honetan, eta bileraren helburua ikusita, bost gazte aukeratu ziren; horiek ez zuten zertan taldeko arduradunak izan behar.

Ohiko aurkezpenak egin eta bileraren xedearen inguruko azalpenak eman ondoren, lau gai bloke aztertu ziren; zehazki, honakoei buruzkoak:

- 1) Poliziaren esku-hartzeak (atxiloketak eta lekualdaketak egitean).
- 2) Esku-hartze judizialak (prozesu judizialean, epaiketak egin arte).
- 3) Zentroko bizimodua (barnealdian zehar).
- 4) Beste zentro batzuetako bizimodua (eskuarki, babes zentroetan, barneratzearen aurreko aldietan).

Jarraian bildu dugun informazioan gazteek adierazitako iritziak, balorazioak eta informazioak laburbildu nahi izan dira. Horiek, zalantzarik gabe, balio erlatiboa dute (litekeena da gazte taldearen adierazgarriak ez izatea edo datu guztiak fidagarritasun maila bera ez izatea), baina, nolana ere, beren esperientzia (batzuetan hainbat urtetakoa) nola bizi, ikusi edo baloratzen duten hobeto ezagutzeko balio dute. Horren haritik, zenbait puntutan interesgarria iruditzen zaigu beren ikuspegiak hitzez hitz, adierazi zituzten bezalaxe, jasotzea.

1) Poliziaren esku-hartzeen balorazioa

Bildutako informazioak oso zabalduta daude polizi jardueraren zenbait ildotan jartzten du arreta. Horrela, atxilotze aldiari eta ertzain-etxean edo atxilogunean egondako tarteari dagokienez:

- Atxilotze lekua: gelak kasu guztietan, bai ertzain-etxeetan bai udal atxiloguneetan. Kasuren batean, beste gela batzuekiko ezberdintasunen bat dagoela aipatu da (“lo único que cambia, la puerta”, burdin barrekin eta leihorik gabe).
- Atxilotze denbora: gehienez 2 edo 3 egun, kasuen arabera.
- Araketak egiteko sistema: erabat biluzarazita (“Siempre nos desnudan”).
- Interpretatea erabiltzea: beti ez zaie jaramon egiten interprete eskaerei (zenbaitzuen arabera, inoiz ez zaie jaramonik egiten eta, beste zenbaitzuen arabera, berriz, batzuetan bai eta beste batzuetan ez).
- Ematen zaien janariaren inguruan ere aldeak daude.
- Batzuetan, beren gauza guztiak itzuli ez zaizkiela adierazi dute (pilak, dirua, txapel bat, etab.).

Gogoan izan dezagun Arartekoko langileek gai horietatik gehienak aztertzen dituztela komisarietara egiten dituzten bisitetan eta, beraz, adingabeen erantzunek bisitekin alderatzeko elementu gisa erabil daitezke (adibidez, ea gelak diren ohiko atxilotze lekuak edo ea atxilotuak beti biluzarazten diren).

Inora eraman behar direnean (zentrora, epaitegira, etab.), horretaz normalean Ertzaintza arduratzen da. Hori dela-eta, gehienek adierazi dute beti bilurrak jarri dizkietela eta batek esan du batzuetan bakarrik jarri dizkiotela, agenteak nortzuk ziren.

Ohartarazi behar da, bai alderdi honetan bai beste askotan, lege irizpideak gogorazti ohi direla (esaterako, agenteek baloratu behar dutela, kasuan kasu, dagoen arriskua, etab.), horrela, galderetatik ustez legez kontrako egoerarik sor ez dadin.

2) Esku-hartze judizialen balorazioa

Hainbat epaileren inguruko aipamenak eta horien arteko alderatzeak bazter utzita, beharbada interesgarriena ezarritako neurriak izandako gertakarietara edo egindako delitueta zenbateraino egokitzen diren adieraziz egin dituzten balorazioak dira. Horren ildotik, honakoa ikus daiteke:

- Beti ez dute neurria gehiegizkotzat jotzen (“A mí, la primera vez me salió barata”).
- Ez dute ulertzen zergatik, delitu beragatik (autoa lapurtzea), “a mí me hayan caído 6 meses” eta beste bati 40 ordu gizartearen mesederako lanak egiten.
- Kritikoenak kautelazko barneratzean dauden bi gazteak dira (zenbait hilabete daramatzate bertan eta epaiketaren zain daude).

3) Zentroko bizimoduaren inguruko balorazioak

Bloke honetan daude, zalantzarik gabe, kexa eta ekarpenik gehien. Izan ere, elkarriketan beren eguneroko esperientzia baldintzatzen duten gaietako asko aipatu dira:

- Kideen arteko harremanak (“nos llevamos bien”).
- Hezitzaileekiko harremanak (alde handiak daude hezitzailea nor den).
- Segurtasun langileekiko harremanak (hemen ere aldeak daude, kasuen arabera).

- Jardueretako partaidetza (positiboena tailerretakoa da eta kritikoena, berriz, eskoletakoa: “¿Por qué tenemos que ir a clase, obligatorio, si tenemos más de 16 años?”).
- Telefonoa erabiltzeko aukera (diotenez, oso mugatuta dago).
- Bisitak (“un poco cortas”).
- Etab.

Eztabaidatuena eta problematikoena arau eta zigorren gaia da: “Por una chorrada, no sé cuántas semanas”; “Nosotros tenemos que aguantarles pero ellos no nos aguantan”; “No tienen bastante con que estemos aquí encerrados, para que nos jodan más”; “Siete días mirando a la pared [taldean integratu aurretik igaro behar den sartze aldiaz ari diraj], para que te vuelvas más loco”, etab.

Logikoa den bezala, eztabaida beste gai batzuetara bideratzen saiatu gara, esate baterako, arauak zenbateraino ezagutzen dituzten, horiek ezartzen edo eztabaidatzen parte hartzeko zer aukera dituzten, zigorren batekin ados egon ezean kexatzeko zer bide dituzten... Azken puntu honek bakarrik (zuzendariarekin hitz egin ahal izateko aukera) izan du balorazio positiboa. Arauak ezagutzeari dagokionez, adibidez, onartu dute “koaderno bat” eman zitzaizela, baina inork ez duela irakurtzen (“Yo todavía no sé las normas. Te lo juro”).

Etengabe aipatu dira kasu eta zigor zehatzak, bereziki, taldetik banantzea, puntuak edo dirua galtzea, erretzeko debekua ezartzea... Dirudienez, ez dituzte bereizten zigorrak eta pizgarri edo “privilegio” galerak.

Kezkagarria dirudi hezitzaileek irizpide ezberdinak erabiltzea jokabide jakin batzuen aurrean erreakzionatzerakoan edo hezkuntza-erantzunak eman edo ez eman erabakitzekoan (“Algunos educadores son majos, te entienden...”; “A otros les importa una mierda”).

4) Beste zentro batzuei eta babes sistemari buruzko aipamenak

Kontuan izanik barneratutako gazteetako asko aurrez beste zentro batzuetan ibili izan direla, erabilgarria izaten da horiei galdetzea ea non dauden edo zeuden hobeto eta zergatik. Erantzunak adierazle ona izan daitezke, ez baitute zalantzarik izaten ez zentro bakoitzak beren “ranking” partikularrean duen lekuari buruz ez sailkapen horren arrazoiei buruz.

Bileran parte hartu zuten bost gazteei zegokienez, babes zentroen eta barneratze zentroen arteko ezberdintasunak, kasu batean izan ezik, babes zentroen aldekoak ziren (hauetan hobeto zeuden).

Adierazitako arrazoa beti bera zen: arauak; kontrol handiagoa edo txikiagoa. (“Las normas de Tolosa, como aquí. Igual de cerrado”. “Aquí, más normas”. “Esto es peor que la cárcel de mayores. Sales y la vuelves a liar”. “Allí [oso gaztea zenean egon zen babes zentro bati buruz ari da], buenos recuerdos. Aquí, sales cargado”. “Mejor en la cárcel: allí no te controlan”; etab.)

Halako erantzunek gazte horientzat arauen gaiak duen garrantzia indartzen dute (alderdi hori aurreko puntuan aztertu dugu). Bestalde, alderatzeak eragin ditzakeen ondorio kaltegarrien inguruan ohartarazten gaitu (hobe delitu egitea espexera joateko;

edo hobe delitu egitea Zumarragan egon ahal izateko, bertan tailerrak baitaude...; halako balorazioak babes sisteman hartuta dauden adingabeengandik entzun ohi dira batzuetan).

* * *

Honaino gazteekin egindako bileratik nabarmendutakoaren laburpena. Bilera egin ondoren, gai horiek zentroko zuzendaritza-taldearekin egiaztatu ziren. Horri esker, informazioa trukatu genuen eta hobetu zitezkeen arazo edo alderdi posibleak detektatu genituen, esate baterako, adingabeei bizikidetasun arauen inguruan ematen zaien informazioa, zigorrak ezartzerakoan edo hezkuntza-erantzunak ematerakoan jarduteko irizpideak bateratzeko beharra eta zenbait irizpide berrikustearen komenigarritasuna (besteak beste, zentroan sartu eta zazpi egunez behaketan egotearena).

4) Sasoikako langileen seme-alabak

A) Aurrekariak

1995az geroztik, Ararteko erakundeak Arabako sasoikako langileen egoerari buruzko jarraipena egin du. Horren baitan, beste zenbait alderdiren artean, familiarekin nekazal lanetara joaten diren sasoikako langileen seme-alaben eskolatzeko baldintzak aztertu ziren batez ere.

2002an, gai honen inguruko ezohizko txostena egin zen (*Sasoikako langileen egoera Araban*). Hori Eusko Legebiltzarrean aurkeztu eta eztabaidatu zen eta hainbat ekimenen jatorria izan zen: sasoikako langileei buruzko ez-legezko proposamena, Eusko Legebiltzarrak 2002ko abenduaren 12an onartua; sasoikako langileei buruzko mozioa, Arabako Biltzar Nagusien 2003ko urtarrilaren 20an onartua.

Une hartatik aurrera, Arartekoaren jarraipenean, batetik, kanpaina bakoitzean burututako jarduera zehatzak eta, bestetik, epe ertaineko planak edo jarduerak bereizi dira. Horrela, adibidez, 2004ko txostenean, bereiz jaso ziren urte hartako kanpainari buruzko datuak (gomendio blokeetako bakoitzean; horietako bat, eskolatzeko egindako hobekuntzak...) eta egindako urratsak, bereziki Plan Integralari, Erakunde arteko Mahaiari eta arauzko garapenerako zenbait proposameni dagokienez (ikus 2004ko txostena, I. atala, 1.1.2 azpiatala).

Usu, erakunde honen jarraipena hainbat jardueratan zehaztu da:

- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburuarekin bilerak egitea.
- Hasiera batean, Sasoikako Lanaren Mahaian parte hartzea, Arabako Foru Aldundiak bultzatuta, eta, ondoren, 97/2003 Dekretuaren bidez sortu zen EAEko Sasoikako Lanari buruzko Erakunde arteko Mahaian.
- Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailari, Hezkuntza Sailari eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari ofiziozko espedienteak zuzentzea.
- Hainbat instalazio eta zerbitzuetara in situ bisitak egitea; etab.

Erreferenteak, ia beti, gure txosteneko 17 gomendioak eta goian aipatutako bi erakunde proposamenak izan dira, bereziki erakunde edo sail ezberdinetan egindako ofiziozko jardueri edo informazio eskaerei dagokienez. Horrela:

- Nekazaritza Sailari honakoei buruzko informazio eguneratua eskatu genion, esaterako, Plan Integralaren garapena, Erakunde arteko Mahaiaren funtzio-namendua, sasoikako langileentzako instalazioak egokitzeko laguntza-ildoak, etab.
- Hezkuntza Sailari honakoei buruzkoa: txosteneko 13 eta 14. gomendioak betetzeko abiarazitako neurriak eta jarduerak eta adingabeen eskolatzeara.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari ondorengo gainekoa: sasoikako langileen bizitokiak bete behar dituzten gutxieneko betekizunak arautzen dituen dekretua, etab.
- Arabako Foru Aldundiari honakoen ingurukoa: sasoikako langileentzako instalazioak egokitzeko laguntzen deialdia, etab.

Horrez gain, mahats eta patata bilketako kanpainan txosteneko gomendioak betetzeko abiarazitako neurri eta jardueri buruzko informazioa ere eskatu genien guztiei.

Azken bi urteotan, ordea, jarraipena bera adingabeen eskolatzearen gaira mugatu dugu (ikus 2005eko txostena eta 2006ko txostena).

B) Azken urteko jarraipena

2007 berezia izan da Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integralari dagokionez, batetik, 2004ko ekainean onartu zenetik orain arte indarrean egon den Planaren bitarteko ebaluazioa egin baita eta, bestetik, 2008-2011 aldirako beste plan bat prestatzeko lehen urratsak egin baitira.

Izan ere, gai hori eta beste zenbait Sasoikako Lanaren Erakunde arteko Mahaiaren 2007ko irailaren 26ko bileran aztertu ziren. Bilera horretan Arartekoaren ordezkari bat izan zen.

Ezarritako dinamikaren ondorioz (agiri oso xehatuak, memoriak, proposamenak, tartean diren erakunde eta sektore guztiek parte hartu ahal izateko foroak, etab.), gai horren inguruko informazioak oso zabala izan behar du.

Gainera, prestatzen diren agirietako asko (ebaluazio edo plangintzakoak), berrikusi eta onartu ondoren, agerian jartzen dira eta Eusko Jaurlaritzan aurkeztu eta eztabaidatu ere egiten dira; horregatik, ez da beharrezkoa Arartekoak jarraipenik egitea.

Bai planek bai egindako ebaluazioek erreferentziatzko gure txostenean garatutako eskemari jarraitzen diote. Lau bloke handi daude (eta, horietako bakoitzerako, helburu eta jarduteko ildo batzuk):

- Kontratazio baldintzak hobetzea.
- Bizitokiak hobetzea.
- Adingabeei arreta eskaintzea.
- Gizarte sentsibilizatzea eta langile horiek komunitatean integratzea.

Horri esker, nahikoa erraz ikus daiteke zeintzuk izan diren aurrerapenik esanguratsuenak eta zer alderdi eta hobekuntza lantzen jarraitu behar den.

Esan den bezala, 2007 bereziki adierazgarria izan da sektore honen ikuspegi orokor eta eguneratua eskaintzen duten era honetako agiriak prestatzeari dagokionez. Agiri horiek oso luzeak dira eta argitaratuta daude eta, beraz, ez ditugu hemen laburbilduko. Interesatuta dagoen edozein pertsona edo erakundek kontsulta ditzake.

Nolanahi ere, hemen, jarduteko ildo nagusiak edo lortu nahi diren helburuak gogorazi nahi genituzke eta, ondoren, zenbait elementu nabarmendu.

Lehen a ondorengo koadroan laburbil daiteke:

| JARDUTEKO ARLOA | HELURU ETA EKINTZA NAGUSIAK |
|---|---|
| 1) Kontratazio baldintzak hobetzea | <ul style="list-style-type: none"> • Kontratazioak euren jatorrian bultzatzea. • Kontratazio izapideak erraztea. • Lan lkuskatzailetzaren eginkizuna indartzea. • Sasoikako lan poltsen sorrera edo kudeaketa sustatzea. • Nekazaritzako hitzarmen kolektiboa negoziatzea. • Lanbideko eta lanerako heziketa bultzatzea. • Laneko arriskuen prebentzioari buruzko gida praktikoa prestatzea. |
| 2) Bizitokiak | <ul style="list-style-type: none"> • Bai banakako ustiapenetan bai bizitoki kolektiboetan sasoikako langileentzako bizitokiak bete beharreko gutxienezko baldintzak ezartzen dituen araudia zehaztea. • Banakako ustiapenetan lokalak bizitoki gisa prestatzeko edo egokitzeko laguntza-ildoak ezartzea. • Bizitoki komunitarioen sorrera eta egokitzapena sustatzea. |
| 3) Sasoikako langileei lotuta dauden adingabeei eskaintako arreta | <ul style="list-style-type: none"> • Adingabeen eskolatzeko maila handitzea. <ul style="list-style-type: none"> - Garraiorako eta eskolako jantokirako laguntzak mantentzea. - Adingabe talde ezberdinen egungo erantzuna aztertzea eta horiek eskolatzeko laguntzeko berariazko neurriak planifikatzea. - Jatorrizko ikastetxeekin informazioa trukatzeko bideen sorrera aztertzea. - Eskolatzearan inguruko gizarte-hezkuntzako eta sentsibilizazioko programak garatzen jarraitzea. • Tartean diren ikastetxeen hezkuntza-erantzuna hobetzea. <ul style="list-style-type: none"> - Zona bakoitzeko ikastetxe guztiak zuzenean parte har dezaten lortzea. - Jatorrian eskolatzeko normalizatuaz izanez gero, bi ikastetxeen arteko harremana eta informazio trukea bultzatzea. - Adingabeen eskola-ibilbidea biltzen duen fitxa prestatzea, beste zentroetan batzuetan eta ondorengo urteetan horren jarraipena errazagoa izan dadin. - Irakasleen berariazko prestakuntza erraztea eta esperientzien elkartrukea faboratzea. - Sasoikako langileei laguntzeko beharrezko baliabideak (bai giza baliabideak bai baliabide materialak) behar beste denbora lehenago prestatzea. - Ikastetxeko proiektuak adingabeen ezaugarrietara eta beharrietara egokitzea. - Eskolako esku-hartzeak gizarte-hezkuntzako programetan jasotakoekin koordinatzea. - Ahal den guztietan, adingabeak eskolako dinamikan sar daitezten faboratzea. - Beste profil bateko profesionalak izatea komenigarria ote litzatekeen aztertzea, sasoikako langileen sorrerietako hizkuntzak eta kulturak ezagutzen dituzten pertsonak barneratuta. • Gizarte-hezkuntzako programekin jarraitzea eta horiek zabaltzea. <ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-hezkuntzako programak sasoikako langileak hartzen dituzten zona guztietan garatzea. - Programetan parte hartzen duten erakunde guztien eskumenak definitzea (gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, elkarteak, etab.) eta arlo bakoitzean adierazitako jarduerak koordinatzea. |
| 4) Gizarte sentsibilizazioa eta langile horiek komunitatean integratzea | <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte sentsibilizatzeko programak eta jarduerak garatzea. <ul style="list-style-type: none"> - Tartean diren kolektibo ezberdinak kontzientziatzea (bai sasoikako langileak bai nekazariak), bi taldeak eskubideak eta betebeharrak dituzten subjektu gisa onar daitezten. - Gizarte pertsona horien bizitza eta lanaren inguruko egoerakiko sentsibilizazioa. • Sasoikako langileei beren eskubide eta betebeharren edo erabil ditzaketen zerbitzuen berri ematea. <ul style="list-style-type: none"> - Sasoikako langileari gure inguruetan dauden zerbitzu eta baliabideen gaineko informazioa ematea. |

2006an egin zen bitarteko ebaluazioaren bidez helburu edo jarduteko ildo bakoitzarako ondorengoak zehaztu nahi dira:

- Horien gauzatzeko maila.
- Jarraitzearen egokitasuna edo beharra.
- Aldaketa beharrezkoa den ala ez eta nola.
- Hori gauzatzeko arduratzen den.
- Egindako gastua (hori zenbatzeko modukoa denean).

Oro har, esan dezakegu helburuen betetze maila nahikoa altua dela eta, horrekin batera, beharrezkoa dela ezarritako ekintza gehienetan jartzea arreta eta horiek betetzeko lanean jarraitzea. Alderdi zehatz batzuetan, etorkizunean hobetzeko beharrak handiagoa dirudi, bereziki lehenengo bi eremuetan. Horrela, esate baterako:

- Sasoikako langileen kontratuak eta lan baldintzak ikuskatzea.
- Jatorrian egiten diren kontratazioak arintzea.
- EAerako nekazaritza-hitzarmena prestatzea.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak betetzeko kontrola egitea.
- Bizitokien erregistroa eta kontrola egitea.
- Bizitoki kolektibo eta ez-kolektiboak erabili eta lagatzeari buruzko araudia prestatzea.
- Bizitokiak ikuskatzea...

Orain arte esandakoarekin bat etorritik, eta dugun informazioa ikusita, azken urtean Arartekoak egin duen berariazko jarraipena adingabeen eskolatzearen inguruko gaira mugatu da, bai Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzari Sailari zuzendutako ofiziozko espedientearen bidez bai Arabako Errioxako ikastetxeetakoren batera bisita eginda.

Horrez gain, informazio iturri osagarri gisa, kexaren bat ere izapidetu da eta zenbait memoria irakurri dira; azken hauetan, informazioa aurki daiteke, esate baterako, askotan adingabeei ere eragiten dieten bizitoki baldintzei buruzkoa. Horren haritik, hainbat egoera onartezin ikusi ditugu, baina, 248/2006 Dekretua onartu den arren (horren bidez, sasoikako langileentzako bizitokien gutxienezko betekizunak erregulatzen dira), erakundeen esku-hartzea oso eskasa da (bai haiek erregistratu eta egiaztatzeari dagokionez bai ikuskapenei dagokienez baita udalen esku-hartzeari dagokionez ere). Zenbait laguntza-eskaerari erantzun zaie (2006an publiko bat eta hiru pribatu EREIN programaren bidez, eta, urte horretan bertan, laguntza bat Estatuko Administrazioaren ministro agindu baten bidez).

2006ko kudeaketa-txostenarekin bat etorritik, Arabako Errioxan finkatutako famili taldeetan "errolatuta" zeuden 0 eta 16 urte bitarteko adingabeen kopurua 203koa zen, nabarmen gutxiago aurreko urteetakoekin alderatuta, eta gehienak Portugaldik zetozen.

Inguruan 94 bizitoki bisitatu ziren, era guztietakoak. Erreferentziazko gure txostenean jasotako gomendioak betetzen zizuten etxebizitzetan bizi ziren adingabeen kopurua 13koa zen. Adingabe gehienak (99) lonja, borda, biltegi edo sotoetan bizi ziren. Bilarreko bi kanpalekuetan, urik gabe zeuden denda eta olanetan 15 adingabe zenbatu ziren. Beste 30 etxe zaharretan; 36 karabana edo furgonetetan...

Agurain inguruan, 3 adingabe, familia berekoak zirenak, baino ez ziren detektatu nahitaezko baldintzak betetzen ez zituen espazio batean (biltegia) bizitzen. Kanpezuko koadrilan, adingabeak 20 izan ziren. Guztiak Portugalgoak ziren, 7 familiatakoak ziren eta gutxieneko baldintza higienikoak betetzen ez zituzten lekuetan bizi ziren.

Hiru zona horietan, aurreko urteetako datuekin alderatuta, beheranzko joera ikus daiteke adingabeen kopuruan.

Eskolatzeari helduz, baita Arabako Foru Aldundiak sustatutako gizarte-hezkuntzako programei ere, osasunean hezteko hainbat ekimen gauzatu dira: ikastetxetan gosaltzea, eskolako jantokira joatea, dutxatzea, aho-hortzetako higieneko materialak zabaltzea, etab.

Eskolatzeari berari dagokionez, iaz ere zenbait datu eman genituen urte horretarako (2006), Hezkuntza Sailak gure informazio eskaerari eman zion erantzunetik ateratakoak. Funtsean, honakoak izan ziren:

- Kanpainen zehar ikasle horiek ondorengo ikastetxe hauetan eskolatu ziren: Arabako Errioxa aldean:
 - Víctor Tapia LHI (Guardia): irailaren 11tik urriaren 20ra, gehienez 32 ikasle (guztira, 38 matrikulatuta, horietatik 18 Haur Hezkuntzan).
 - Elciego LHI: irailaren 13tik urriaren 27ra, gehienez 27 ikasle (guztira, 31 matrikulatuta).
 - Ramiro de Maeztu LHI (Oion): irailaren 28tik urriaren 11ra, gehienez ere 8 ikasle (matrikulatutako guztiak).
 - Lantziego Ikastola: irailaren 20tik urriaren 20ra; guztira 26 ikasle eman zuten izena (guztiak matrikulatu ziren).
 - Labastida LHI: irailaren 25etik urriaren 17ra; 9 eta 14 ikasle artean agertu ziren. Urriaren 17tik aurrera, geratzen ziren bi ikasleak ohiko taldeetan baneratu ziren.
- Arabako Mendialdean, adingabeak Kanpezuko Ibernalo Ikastolan eskolatu ziren, irailaren 19tik urriaren 10era bitartean; guztira 7 ikasle matrikulatu ziren.
- Programara bideratutako laguntzako irakasleei dagokienez, horiek 12 izan ziren (aurreko kanpainen baino bat gehiago): irakasle bat Bastida, Oion eta Kanpezuko ikastetxeetan, eta hiru Lantziego, Guardia eta Eltziegoko ikastetxeetan, hauexek izanik halako ikasle gehien dituztenak.
- Azken bi kasuetan, ikasleak taldekatzerakoan, adingabe horiek gainerako ikasleekiko integrazioa hartu zen kontuan, gutxienez zenbait arlotan.
- Kasu gehienetan garraioa eta eskolako jantokia erabiltzen ziren.
- Ikasle horien aldeko arretan modu zuzenagoan esku hartzen duten irakasleei aurrez berariazko prestakuntza eskaintzeko premia zegoela nabarmentzen jarraitu zen...

Portugalgo adingabeei dagokienez, urte hartan, Arabako Errioxan, 87 izan ziren: horietatik, 35 eskolatu ziren; eta eskolatu gabekoak, derrigorrezko eskolatzeko adina izan arren, 28 izan ziren.

Bizitokitara egindako bisitetatik lortutako informazioaren arabera, 59 bat adingabe jatorrian ez zeuden eskolatuta (horietatik 34k 13 eta 16 urte bitartean zituzten).

Memoriak, alderdi positibo gisa, lortutako eskolatzeko ehuneko altua, horren iraupena (sei hilabete baino gehixeago Guardian, Eltziegion eta Lantziegion), edo arlo jakin batzuetan sustatutako eskola-integrazioa nabarmentzen ditu.

Beste zonei dagokienez, Dulantzin neskato bat eskolatu zen (3 adingabetik) eta Kanpezu aldean 11 (19tik). Familiak beren seme-alabak ez eskolatzeko adierazitako arrazoiak Arabako Errioxan jasotakoak antzekoak dira.

2006ko kudeaketa-memoriak aurreko datuetako asko osatzen ditu.

Horrela, adibidez, ondorengo koadroan, Arabako Errioxan adina edo sexua bezalako zenbait aldagairen arabera maila ezberdinetan zenbaterainoko eskolatzeko lortu den ikus dezakegu:

| HEZKUNTZA MAILEN ETA SEXUAREN ARABERAKO ESKOLATZEA | | | | | | | | | | |
|--|-------------------|----------|---------------------------------------|-------------|---|-------------|------------------------------|-------------|-------------|-------------|
| | 0-3 urte artekoak | | 3-6 urte artekoak (Haur Hezkuntza) | | 6-12 urte artekoak (Lehen Hezkuntza) | | 12-16 urte artekoak (DBH) | | GUZTIRA | |
| | Neskak | Mutilak | Neskak | Mutilak | Neskak | Mutilak | Neskak | Mutilak | Neskak | Mutilak |
| GUZTIRA | 18 | 7 | 24 | 22 | 50 | 47 | 4 | 9 | 96 | 85 |
| ESKOLATZEA | 0 | 0 | 19 | 20 | 40/41 | 39/40 | 0 | 2 | 59/60 | 61/62 |
| % | 0 | 0 | 79,1 | 90,9 | 82 | 85,1 | 0 | 22,2 | 61,4 | 71,7 |

Ikus daitekeen bezala:

- Derrigorrezko eskolatzeko adina (6-16 urte bitartean) zutenetatik eskolatu ziren haurrak 81 izan ziren (aurreko kanpainan 74 izan ziren).
- 12 urtetik gorakoak artean oso gutxi eskolatu dira oraindik ere. Legeari jarraiki, horiek institutuera joan behar lukete derrigor (eskolara ez joatearen oinarriko arrazoiak honakoak lirateke: beste herri batera aldatu izatea, maila akademiko eskasa izatea...).

Datu hauek aurreko urteetakoekin alderatuta, eskolatzeko adingabeen proportzioa handiagoa dela ikus daiteke: urte hartan "errolatuen" ia %60, aurreko urteko %30etik alderatuta. Horrek eskola-absentismoa nabarmen murriztea ekarri du.

Interesgarria da, orobat, familiak eurek seme-alabak ez eskolatzeko adierazten dituzten arrazoiak edo aitzakiak aztertzea:

- Egonaldia laburra izango da.
- Eskola-garraioari beldurra diote.
- Beste adingabe batzuk zaindu behar dituzte.
- Adingabe bat baino ez da joaten eta jo egingo dioten beldur dira.
- Adingabeak zaintzen nagusi arduratsuak egon behar du...

Bestalde, komeni da gogoraraztea, adingabe horietako askorekin, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaierako Sailak bultzatutako gizarte-hezkuntzako programei esker, hezkuntzako beste jarduerak batzuk burutzen direla, horiek zehazki eskolaren eremukoak izan ez arren (aisialdiko jarduerak, higiene pertsonaleko edo elikadurako ohituren garapena, osasun premien inguruko orientazioa, etab.).

Gai horietako batzuk, adibide zehatz gisa, Arartekoko langileek 2007ko urrian Guardiako Víctor Tapia ikastetxera egin zuten bisitan landu ziren. Azken urtean, zentroan eskolatutako sasoikako adingabeak 18 izan dira, Lapuebla de Labarca, Bilar eta Páganosekoak, baita Guardiakoak bertakoak ere, gehienak oso txikiak (zaharrenak 10 urte zituen) eta Portugalgoak. Laguntzako bi irakasle izan zituzten eta garraio, dutxa eta jantoki zerbitzuak erabili zituzten, inolako arazorik gabe. Txikienak (Haur Hezkuntza) ohiko geletan sartu ziren eta zaharragoak, berriz, horientzako berariazko geletan, heziketa fisikoa edo artistikoa bezalako zenbait arlotan izan ezik.

Azkenik, esan behar dugu 2007ri dagozkion datu osoak ez direla bertan bildu, testu hau idazten ari ginela, oraindik ez baitzen jaso Hezkuntza Sailak gure informazio eskaerari erantzunez bidali behar digun erantzuna.

5) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

A) Aurrekariak

Erakunde honek *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzunari* buruz egindako ezohizko txostena argitaratu eta Legebiltzarrean eztabaidatu zen 2001ean.

Urte hartako ohizko txostenean, laburpena egin zen eta bereziki kezkarriak ziren 10 gaiak eta egindako 21 gomendioak azpimarratu ziren. Ondoren, 2002ko ekainean, bilera egin genuen Hezkuntza sailburuarekin eta Saileko arduradun gorenekin eta, bertan, besteak beste, txostenarekin erlazionatutako kontuak eta bertan jasotako gomendioen jarraipena egiteko beharra aztertu ziren. Horretarako, erakunde honek, ofizioz, Hezkuntza sailburuarengana jo zuen hasierako informazioa, nolabait orokorragoa, izateko. Informazio hori, azkenean, 2003ko martxoan jaso zen, dokumentu luze batean. Bai agiri hori bai eskatutako informazio osagarria, baita Sailaren beste erantzuna ere, urte hartako txostenean laburbildu ziren (ikus 2003ko txostena, 1.1.10 azpiatala).

Urtebete beranduago, eta ikasturte berria (2004-2005) jada hasita zegoela, berriz ere Hezkuntza Sailari zuzendu gintzaizkion zenbait datu eguneratzeko. Gure lehen jarraipen jardueran txosteneko 21 gomendioen gaineko informazio zehatza eskatu genuen arren, kasu honetan haietako batzuk baino ez genituen hartu ardatz nagusi gisa, eta, horregatik, aurreko erantzunen arabera esanguratsuenak eta modu objektiboan aztertzeko modukoak iruditu zitzaizkigun eta bilakaera-adierazle gisa erabili ahal izango lirakeen proposamen eta datuak bakarrik aztertu genituen (ikus 2004ko txostena, 1.1.10 azpiatala). Ondoren, prozedura bera erabili dugu: hots, gomendio eta adierazle jakin batzuetara mugatutako informazioa eskatu dugu (ikus 2005eko txostena, V. atala, 3. azpiatala; edo 2006ko txostena, VI. atala, azpiatal honetan bertan).

Komeni da gogoraraztea iaz (2006), eskatutako informazioa ezarritako data baino askoz ere beranduago jaso zela. Erantzuna 2007ko apirilaren 12an jaso genuen (Sailburuaren Kabineteko zuzendariaren bidalketa-idazkiak apirilaren 4ko data du eta Lehendakariatik apirilaren 10ean irten zen), hau da, Arartekoak Eusko Legebiltzarreko lehendakariari txostena entregatu ondoren. Hala ere, kontuan hartuta zenbait datu modu informalean aurreratu zitzaizkigula, horiek txostenean jasotzea erabaki genuen.

B) Azken urteari dagozkion datuen jarraipena eta eguneratzea

Aipatu aurrekariak kontuan hartuta, 2007an ere Hezkuntza Sailari zuzendu gatzazkio berriz ere zenbait informazio eguneratzeko; oraingoan, aurretik jasotako informazioen arabera esanguratsuagoak iruditzen zaizkigun proposamen eta datu zehatzera mugatu gara. Gainera, unitate terapeutiko eta hezkuntzazkoei eta arkitektura-oztopoei dagokienez, argitasunaren mesedetan, informazio eskaera zehatzak espediente desberdinen bidez egitea erabaki genuen.

Txosten hau egiten amaitutakoan, eskatutako informazio gehienak jaso dira, arkitektura-oztopoei buruzkoa izan ezik. Hortaz, informazio iturri gisa, Hezkuntza Sailak bidalitako hiru agiri ditugu:

- 2006ko jarraipen espedienteari emandako erantzuna (2007ko apirilean jaso eta 2006-2007 ikasturteari buruzko datuak dituen).
- Azken jarraipen espedienteari, hots, 2007koari, emandako erantzuna (2008ko urtarrilean jaso eta 2007-2008 ikasturteari buruzko datuak dituen).
- Unitate terapeutiko eta hezkuntzazkoei buruzko espediente bereziari emandako erantzuna.

Hemen, funtsean, lehenengo biak erabiliko ditugu, unitate terapeutiko eta hezkuntzazkoei buruzko gaia edo haur eta gazteen buruko nahastei ematen zaien erantzunarena atal honen beraren hurrengo azpiatalean landuko baita xehe-xehe.

Ezohizko txostenarekin nolabaiteko koherentzia mantentzearen, aipatu txosteneko gomendioen eskemari jarraiki antolatu ditugu gaiak.

* * *

1. HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAKETA OROKORRARI ETA HAREN LEHENTASUNEI ERAGITEN DIETEN GOMENDIOAK

1. gomendioa: bazterturiko ikasleak txikitatik hezteari lehentasuna eman

Sailaren 2005eko otsaileko erantzunean gai honen inguruko zenbait eranskin bidali zitzaizkigun:

- Haurreskolak Partzuergokoak ez diren udalerrien zerrenda eta bertan eskolatutako ikasle kopurua.
- Partzuergoko udalerrien zerrenda, lehentasunaren arabera sailkatuta.
- Udalerriz udalerrri hainbat datu kuantitatibo (biztanleak, azken urteetako jaiotzak, langabezia-tasak, etab.) jasotzen zituzten datu taulak. Horietatik puntuazio batzuk lortzen ziren (0-2 eta 2-3 urtekoen eskolatzeko estalduraren arabera; barne produktu gordinaren arabera; langabezia-tasaren arabera, etab.) eta, azkenik, lehentasun maila bat ematen zitzaion haietako bakoitzari, Letik 6rako eskalan.

Datuak aztertu eta baloratu egin ziren urte horretako ohizko txostenean (ikus 2005eko txostena, V.3 atala).

Nahiz eta lehentasuneko gaia izan eta erakunde honek horren inguruko esku-hartze ugari egin dituen, kontuan izanik egun horri buruzko hainbat ekimen gauzatzen ari direla

eta eskola-mapa berriaren proiektuan barneratuta dagoela, komenigarria iruditu zaigu, oraingoan, berriazko informazioak ez eskatzea ofiziozko espediente honetan. Hala ere, irekita utzi genuen Sailak, egoki irudituz gero, interesatzen zitzaion informazioa guri bidaltzeko aukera, baina ez da halakorik gertatu.

2. gomendioa: baliabideak esleitzeari dagokionez, bereziki egoera ahulean dauden ikasle gehiago dituzten ikastetxeen aldeko diskriminazio positiboa egin. Eta

3. gomendioa: hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko eta eskola-ghettoak saihesteko neurriak hartu.

Jasotako informazio gehienak aipamen zuzena egiten die bi gomendio horiei, hezkuntza-premia bereziak edo berriazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleen hiru taldeen egoerari, bereziki. Hortaz, garrantzitsuak direnez, gai horiei eskainiko diegu arreta nagusia.

Gure ezohizko txostenerako oinarri gisa balio izan zuen azterlanaren arabera, gure hezkuntza-sistemaren ezaugarrietako bat da bereziki egoera ahulean dauden ikasleen banaketa oso desorekatua dela, ikastetxearen kokapena, titulartasuna, bertako hizkuntz eredia edo gizarte irudia bezalako faktoreen arabera. Gure txostenak errealitate horren inguruko hainbat datu eskaintzen zituen eta halako ikasleak biltzen zituzten 83 ikastetxeren lagin bateko eskola emaitzak ere aztertzen zituen; emaitza horiek beti batez bestekoen azpitik egoten ziren.

Horren ildotik, bigarren gomendioak baliabideen esleipen desberdina, konpentsatzailea eta, ahal den neurrian, aniztasunari erantzuten dioten zentroko proiektuei lotuta dagoena proposatzen zuen. Horrek administrazio jardueran finkatutako irizpide tradizionalak eta helburuak –formalki behintzat– objektiboki hartzen zailak diren beste batzuekin ordeztzea zekarren, zuzentasunaren mesedetan.

Gizartean bazterturik dauden ikasleen aldeko diskriminazio positiboa egiteko ekin-tertzetzi buruz, sail horren aurreko erantzunetan honela zehaztu ziren, batez ere:

- a) Hezkuntza-indargarriak.
- b) Hezkuntzan esku hartzeko berriazko proiektuak.
- c) Esku hartzeko proiektu globalak.

Eta hiru alor horietako bakoitzean zenbait datu eman ziren (irakasle kopurua, proiektuak, ikasketa-erkidegoak, etab.) ikasturtez ikasturte izandako bilakaeraz. 2007-2008 ikasturte honi dagozkion datuen jarraipena egiteko eskatu da. Eta datuen osagarri gisa eta hobeto baloratzeko, honakoen berri izateko:

- Zer irizpide konpentsatzaile erabiltzen ari diren ikastetxeei baliabideak esleitzeko.
- Jarraipen edo ebaluaziorik egiten ari ote den eskolako emaitzak, irakasleen gogobetetasuna, ikastetxearen premiei modu eraginkorrean erantzuten dieten hezkuntza-proiektuen finkapena edo ikastetxeak bere ingurunean izan dezakeen

gizarte irudiaren hobekuntza bezalako funtsezko alderdietan zer eragin izan dezakeen jakiteko.

Bestalde, 3. gomendioari dagokionez, Sailaren erantzunek beti bereizi izan dituzte hiru talde eta bakoitzari bere entitatea eman izan diete:

- 1) Ezgaitasunen batekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.
- 2) Ikasle etorkinak.
- 3) Ikasle ijitoak.

Horietako bakoitzaren gaineko zenbait datu ere eman dira (ikus, adibidez, aurreko urteetako datuak, 2005eko txostenean eta 2006ko txostenean, atal honetan bertan).

Bilakaeraren jarraipena egin eta alderatu ahal izateko, bereizitako hiru taldeetako bakoitzari dagozkion 2006-2007 ikasturteko datuak eskatu dira, baita zehaztapen batzuk eta informazio osagarria ere:

- 1) Ezgaitasunen batekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei buruz: lurraldeen, sareen eta etapen arabera eskolatze datu gaurkotuak.
- 2) Ikasle etorkinei buruz: lurraldeen, sareen eta ereduaren arabera gaurkotutako banaketa, aurreko datuen antzera zehaztuta.

Horri dagokionez, haur eskolatuen taldea nabarmen hazten ari denez eta horien eskolatze egokiak edo desegokiak gizarte ondorioak izan ditzakeenez, jasotako azken erantzunak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen dugu informazio osagarria eskatzen jarraitzea, datuak hobeto baloratu ahal izateko. Honakoei buruz, zehazki:

- Ea datu gaurkotu eta fidagarriak badagoen berariazko premiak dituzten ikasleak zeintzuk diren jakiteko, nolako premiak dituzten, zer baldintzatan eskolatuta dauden, horiek zehazterakoan zer irizpide hartu diren kontuan, etab.
 - Ea zer datu dauden azken bi ikasturteetan (2005-2006 eta 2006-2007) lurraldeko eskolatze batzordeek gauzatu dituzten eskolatze berriei buruz; hau da, nola banatzen diren lurraldeen, sareen, ereduaren eta abarren arabera.
 - Ea aldaketarik badagoen pertsona horiek eskolatzeko lurralde batzordeek jarraitu behar dituzten irizpideetan.
 - 2007ko apirilko erantzunean aurreratu bezala, ea dagoeneko ebaluatu den Ikasle Etorkinen Arretarako Programa eta ea jada beste programa berririk edo ondoriorik badagoen zirriborro berria prestatzeko.
- 3) Ikasle ijitoei buruz: datuak eskura izanez gero, horiek lurralde, sare, eredu eta etapen arabera gaurkotzea.

Atal honetan, berriro egin behar izan dugu informazio eskaera, jasotako azken erantzunetan ez baita ezer esaten talde horri buruz.

Orain arte lortutako datuek erakusten dutenez, ikasle ijitoen banaketa oso desorekatua da; ikastetxe batzuetan, asko biltzen dira. Baina, hori guztia gorabehera, Sailak berak aurreko erantzunetako batean adierazi zuen bezala, daturik kezkagarriena, beharbada, ez da hori, baizik eta ikasle horiek oro har dituzten eskolako emaitza kaskarrak edo beste elementu kezkagarri batzuk; absentismoa edo adin batetik aurrera sistema uztea, esaterako.

Horren ildotik, banaketari buruz eskatutako datuez gain, honakoak ere jakin nahi genituzke:

- Ea datu gaurkoturik badagoen ikasle horien eskolako emaitzen inguruan: Lehen Hezkuntza gainditu dutenen tasak; errepikatze tasak; eskola-graduatu lortu dutenen tasak; 16 urte bete baino lehen edo DBH amaitu baino lehen ikasketak uzten dituztenen tasak...
- Zer programa edo laguntza bideratzen ari diren biztanle talde honen berariazko premiei emandako erantzuna hobetzeko eta zer eragin izaten ari den eskola-emaitzen hobekuntzan.

4) Baina gure 3. gomendioa bereziki bazterturik dagoen ikasleriari zegokion, eta, jakina denez, ikasleria hori ez da agortzen arestian aipaturiko hiru taldeetan, eta ez dator justu-justu horiekin bat. Hain zuzen, adierazi bezala, gure txostenean, horrelako ikasle asko biltzen zituzten eta "kritikotzat" jo ziren hainbat ikastetxetako egoera aztertu zen, baita eskola-kalifikazioak ere. Gomendioak halako egoerak saihestu nahi ditu, hain zuzen, eta, horretarako, hainbat neurri iradokitzen ditu: ratioak ezartzea; matrikulatzeko araudia berrikustea; ezkutuko desbideratze edo egozteen bilakaera aztertzea... Gai horiek garrantzitsuak direnez eta erantzun ez zaienez, honako hauek jakin nahi ditugu:

- Ea proposatutako neurrietakoren bat hartu den edo hartzeko asmoa dagoen.
- Ea baduzuen ikasleria horren banaketari buruzko daturik, txostenean azpimarratutako egoera eta arriskuak dezente aldatu direla erakusten duenik (gogoratu han baliatutako datu gehienak 1999-2000 ikasturtekoak zirela).
- 4. gomendioan proposatutakoaren ildotik ("Gizarte egoera ahulean dauden ikasleen premiei eman beharreko erantzunak garatzea"), ea 118/1998 Dekretuak eskaintzen dituen potentzialtasunetakoren bat garatu den.

Hurrengo orrialdeetan, puntu horietako bakoitzari buruz jasotako oinarrizko informazioa laburbilduko dugu.

a) ***Ezgaitasunen batekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak***

Sailaren lehenengo erantzunean ikasle horien eskolatzearen datu globala ematen zen: %60 sare publikoan eta %40 itundutako sarean. 2005-2006 ikasturteko datu zehatzak hauek izan ziren: hezkuntza-premia bereziak dituzten 6.243 ikasle zentro publikoetan eta 4.748 zentro pribatuetan (hau da, %57 eta %43, hurrenez hurren).

Sailak honako datu hauek eman zituen 2006-2007 ikasturteari buruz:

| | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | | SAREETAKO GUZTIZKOA | | GUZTIRA |
|---------------------------------------|--------------|------------|--------------|--------------|--------------|--------------|------------------------|--------------|--------------|
| | Publ. | Prib. | Publ. | Prib. | Publ. | Prib. | Publ. | Prib. | |
| Haur eta Lehen Hezkuntzak | 695 | 487 | 1.866 | 1.087 | 1.309 | 857 | 3.870 | 2.431 | 6.301 |
| DBH | 312 | 220 | 805 | 642 | 589 | 557 | 1.706 | 1.419 | 3.125 |
| Derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoa | 57 | 20 | 134 | 77 | 30 | 24 | 221 | 121 | 342 |
| GUZTIRA | 1.064 | 727 | 2.805 | 1.806 | 1.928 | 1.438 | 5.797 | 3.971 | 9.768 |
| GUZTIRA | 1.791 | | 4.611 | | 3.366 | | 9.768 | | |

Hauek dira datu berrienak, 2007-2008 ikasturteari dagozkionak:

| | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | | GUZTIRA | |
|--------------------------------|--------------|------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|------------|
| | Publ. | Prib. | Publ. | Prib. | Publ. | Prib. | | |
| Haur eta Lehen Hezkuntzak | 669 | 399 | 1.989 | 1.007 | 1.399 | 922 | 6.385 | |
| DBH | 273 | 224 | 851 | 601 | 538 | 526 | 3.013 | |
| Derrigorrezko irakaskuntzaren | 21 | 8 | 31 | 15 | 31 | 16 | 122 | |
| GUZTIRA | 963 | 631 | 2.871 | 1.623 | 1.968 | 1.464 | 9.520 | |
| GUZTIRA | 1.594 | | 4.494 | | 3.432 | | 9.520 | |
| Gela egonkorren kopurua | 143 | 45 | 199 | 316 | 91 | 155 | 433 | 516 |

Datuek erakusten dutenez, sareen arabera banaketa globalean aldaketa txikiak izaten ari dira. Azken datuen arabera; %61-%39. Hau da, hasierako egoeraren oso antzekoa.

Interesgarria da jakitea zein eratako hezkuntza-premia berezik eskatzen dituzten ezgaitasun fisiko, psikiko edo sensorialen bat izateagatik edo jokabide arazo larriak edo aparteko talentu intelektuala edo bestelakoak izateagatik berariazko hezkuntza-laguntzak edo arretak. Ildo horretatik, hona hemen azken ikasturte honetako (2007-2008) datuen taula:

| HONAKOAK DITUZTEN IKASLEAK | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA | % |
|-------------------------------|-------|---------|----------|---------|------|
| Ikusteko urritasuna | 39 | 65 | 56 | 160 | 1,5 |
| Entzuteko urritasuna | 57 | 154 | 79 | 290 | 2,8 |
| Adimen urritasuna | 413 | 696 | 460 | 1.568 | 15,0 |
| Mugitzeko urritasuna | 80 | 197 | 161 | 438 | 4,2 |
| Autismoa / GNO | 69 | 463 | 182 | 714 | 6,8 |
| Hainbat urritasun | 101 | 549 | 198 | 848 | 8,1 |
| Emozio arazo larriak | 198 | 784 | 751 | 1.733 | 16,5 |
| Aparteko talentu intelektuala | 10 | 32 | 13 | 55 | 0,5 |
| HPB ez iraunkorrak | 815 | 2.069 | 1.778 | 4.622 | 44,5 |
| Ikasleak, guztira | 1.782 | 5.009 | 3.678 | 10.469 | %100 |
| Lurraldeko %-a | %17 | %47,9 | %35,1 | %100 | |

2007ko apirilean jasotako informazioan hezkuntza-premia bereziei erantzutera bideratutako baliabideei buruzko zenbait datu (laguntzeko pertsonala, funtsean) ere jasotzen dira, dagokion kuantifikazio ekonomikoarekin.

Pertsonen datuak bakarrik jaso ditugu hemen:

| | LANGILEAK |
|---|-----------|
| FISIOTERAPEUTAK | 23 |
| OKUPAZIO TERAPEUTAK | 6 |
| LEHEN HEZKUNTZAKO MAISU-MAISTRAK | 509 |
| PT, BIGARREN HEZKUNTZAKO MAISU-MAISTRAK | 315 |
| ZEREGINAK IKASTEKO GELAK | 46 |
| HLE | 613 |
| LOGOPEDAK | 152 |
| KEINUEN HIZKUNTZAKO IRAKASLEAK | 12 |
| KEINUEN HIZKUNTZAKO INTERPRETEA | 11 |
| | 1.687 |

b) ***Ikasle etorkinak***

Lehenengo erantzunean, Hezkuntza Sailak ikasle etorkinen etengabeko gehikuntzari buruzko gogoeta batzuk egiten zituen; horrek hezkuntza-sistamarako dakartzan erronkak eta premiei hobeto erantzuteko antolaketa-neurri batzuk ezartzea: lurralde bakoitzeko arduradunak eta koordinatzaile orokor bat izendatzea; Eskolatzeko Lurralde Batzordeak; etorkizunean “ikasle etorkinen arretarako plana” prestatzea.

Orduan, gure informazio eskaera honakoen ingurukoa izan zen:

- Eskolatzeko lurralde batzordeek gure gomendioaren helburua (ikasleen banaketa orekatua bermatzea eta eskola-ghettoak saihestea) lortzeko erabiltzen dituzten edo hartu dituzten irizpide, arau edo neurriak.
- Ikasleen banaketaren datu gaurkotuak (lurralde historikoen, sareen eta abarren arabera).
- Ikasle Etorkinen Arretarako Plana zein fasetan zegoen.

Horren guztiaren berri eman genuen 2004ko gure txostenean (ikusi I. atala, 1.1.10 azpiatala). Eskolatzeko datuei dagokienez, 2004ko azaroaren 19an eguneratutakoak jaso genituen.

Hurrengo urtean ere, 2005eko azaroaren 1ean eguneratutako 2005-2006 ikasurteko datuak jaso genituen gure txostenean (ikusi 2005eko txostena, V. atala, azpiatal hau bera).

Azken urteetan, Ararteko erakundeak arreta berezia eskaini dio eskolatutako biztanle talde honi.

Aurrez, “hezkuntza-premia berezietan” edo bereziki zailak diren egoeretan zentratutako txostenaren helburuaren arabera, datu globalen xehetasunen berri izateko gure nahia adierazi genion inoiz Sailari, ikasle atzerritarrak beren jatorriaren arabera (EBkoak edo EBtik kanpokoak) edo gure sisteman irakasteko erabiltzen den hizkuntzaren bat

ezagutzearen edo ez ezagutzearen arabera bereizi ahal izateko. Faktore horiek, gure iritziz, zailtasun handiagoa edo txikiagoa ekar dezakete gure sisteman integratzeko edo, nahiago bada, sistema honek haien berariazko premiei erantzun ahal izateko.

Horri dagokionez, haur eskolatuen taldea nabarmen hazten ari denez eta horien eskolatzeko egokiak edo desegokiak gizarte ondorioak izan ditzakeenez, beharrezkotzat jotzen dugu informazio osagarria eskatzen jarraitzea, datuak hobeto baloratu ahal izateko. Horrela, azken bi informazio eskaeretan informazio osagarria eskatu dugu honakoei buruz, adibidez:

- Zein irizpide erabiltzen diren, estatistiketarako, ikasle bat “etorkintzat” hartzeko ala ez (adibidez, jatorri atzerritarreko baina Europar Batasuneko ikasleak, sasoikako familietako ikasleak, hemengo familiek adoptatutako jatorri atzerritarreko ikasleak, etab. bezalako sektoreen datuetan barneratuta dauden ala ez).
- Ikasle horietako zeintzuk dituzten berariazko premiak edo zein irizpide hartzen diren kontuan horiek zehazteko.
- Zein ekimen hartu diren familia etorkinek behar adina informazio izan dezaten, kasu bakoitzean eskolatzeko aukera onena zein izan daitekeen erabakitzen lagunduko diena; etab.

Jarraian, eskura ditugun azken datu batzuk jaso ditugu:

Ikasleen banaketa lurraldeen eta eskola-sareen arabera

| 2006-2007 IKASTURTEA | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | | EAE | |
|-------------------------|--------------|------------|--------------|------------|--------------|------------|---------------|------------|
| | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % |
| Publikoa | 2.302 | 74,14 | 6.501 | 70,19 | 2.135 | 54,41 | 10.938 | 67,14 |
| Itundua | 803 | 25,86 | 2.761 | 29,81 | 1.789 | 45,59 | 5.353 | 32,86 |
| Guztira | 3.105 | 100 | 9.262 | 100 | 3.924 | 100 | 16.291 | 100 |
| % | 19,05 | | 56,85 | | 24,10 | | 100 | |

| 2007-2008 IKASTURTEA | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | | EAE | |
|-------------------------|--------------|------------|---------------|------------|--------------|------------|---------------|------------|
| | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % |
| Publikoa | 2.561 | 74,84 | 6.868 | 67,06 | 2.281 | 54,80 | 11.718 | 66,73 |
| Itundua | 862 | 25,16 | 3.373 | 32,94 | 1.882 | 45,20 | 6.109 | 34,27 |
| Guztira | 3.423 | 100 | 10.241 | 100 | 4.163 | 100 | 17.827 | 100 |
| % | 19,20 | | 57,45 | | 23,35 | | 100 | |

Ikasleen banaketa lurraldeen eta hizkuntz ereduaren arabera

| 2006-2007 IKASTURTEA | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | | EAE | |
|-------------------------|--------------|------------|--------------|------------|--------------|------------|---------------|------------|
| | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % |
| A eredia | 2.120 | 68,28 | 4.877 | 52,65 | 688 | 17,53 | 7.685 | 47,17 |
| B eredia | 770 | 24,80 | 2.165 | 23,38 | 1.644 | 41,90 | 4.579 | 28,11 |
| D eredia | 215 | 6,92 | 2.220 | 23,97 | 1.592 | 40,57 | 4.027 | 24,72 |
| Guztira | 3.105 | 100 | 9.262 | 100 | 3.924 | 100 | 16.291 | 100 |
| % | 19,05 | | 56,85 | | 24,10 | | 100 | |

| 2007-2008 IKASTURTEA | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | | EAE | |
|-------------------------|--------------|------------|---------------|------------|--------------|------------|---------------|------------|
| | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % | Etorkinak | % |
| A eredia | 2.096 | 61,26 | 4.799 | 46,86 | 466 | 11,18 | 7.357 | 41,26 |
| B eredia | 976 | 28,51 | 2.544 | 24,84 | 1.680 | 40,35 | 5.196 | 29,14 |
| D eredia | 351 | 10,22 | 2.898 | 28,30 | 2.018 | 48,47 | 5.274 | 29,58 |
| Guztira | 3.423 | 100 | 10.241 | 100 | 4.163 | 100 | 17.827 | 100 |
| % | 19,20 | | 57,45 | | 23,35 | | 100 | |

Datu eguneratuen taula hauek (2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteak) eta aurreko ikasturteko datuekin alderatzeak (2005-2006) (ikusi 2005eko txostena, V. atala, azpiala hau bera) joera batzuk ikusteko aukera ematen dute:

- Eskolatutako ikasleen guztizko kopurua handitzea. Aurreko urteetan bezalaxe, gora egiten jarraitzen du: 17.827 iazko 16.291ren aldean eta aurreko urteko 12.762ren aldean. Ia %40ko hazkundera izan da, beraz, bi urtean.
- Zentro itunduetan eskolatutako jatorri atzerritarreko ikasleen proportzioa etengabe handitzea (%30,5etik %34,24ra pasa da).
- B eta D ereduak eskolatuak nabarmen handitzea eta A ereduak eskolatuak jaiste, nahiz eta oraindik ere gehienak azken horretan eskolatuak diren.

2006-2007 ikasturteko datuei dagokienez, eta jatorria edo gure hizkuntzaren bat lehendik ezagutzea bezalako irizpideen arabera zehazturiko datuak ezagutzeko gure eskaerari erantzunez, Sailak honako taula hau helarazi zigon. Datu guztiak biltzen ez dituen arren, hainbat irakurketa giteko balio du:

Ikasle etorkinak – EAE
Jatorrizko herrialdearen eta hizkuntz ereduaren arabeko matrikulazioa

| | PUBLIKOA | | | | ITUNDUA | | | | BEST. | GUZTIRA | | | |
|-----------|----------|-------|-------|-------|---------|-------|-----|-------|-------|---------|-------|-------|--------|
| | A | B | D | GUZT. | A | B | D | GUZT. | | A | B | D | GUZT. |
| ARGENTINA | 137 | 93 | 156 | 386 | 109 | 126 | 65 | 300 | 5 | 246 | 219 | 221 | 691 |
| BOLIVIA | 813 | 234 | 330 | 1.377 | 173 | 258 | 105 | 536 | 1 | 986 | 492 | 435 | 1.914 |
| BRASIL | 219 | 95 | 137 | 451 | 77 | 103 | 41 | 221 | 7 | 296 | 198 | 178 | 679 |
| KOLONBIA | 822 | 323 | 334 | 1.479 | 517 | 332 | 101 | 950 | 20 | 1.339 | 655 | 435 | 2.449 |
| TXINA | 168 | 40 | 44 | 252 | 54 | 65 | 20 | 139 | 7 | 222 | 105 | 64 | 398 |
| EKUADOR | 586 | 251 | 235 | 1.072 | 218 | 350 | 80 | 648 | 9 | 804 | 601 | 315 | 1.729 |
| MAROKO | 567 | 200 | 441 | 1.208 | 68 | 64 | 73 | 205 | 11 | 635 | 264 | 514 | 1.424 |
| PORTUGAL | 162 | 117 | 178 | 457 | 38 | 65 | 63 | 166 | 10 | 200 | 182 | 241 | 633 |
| ERRUMANIA | 355 | 193 | 306 | 854 | 90 | 117 | 124 | 331 | 6 | 445 | 310 | 430 | 1.191 |
| VENEZUELA | 95 | 42 | 66 | 203 | 48 | 47 | 25 | 120 | - | 143 | 89 | 91 | 323 |
| | 3.924 | 1.588 | 2.227 | 7.739 | 1.392 | 1.527 | 697 | 3.616 | 76 | 5.316 | 3.115 | 2.924 | 11.431 |

Ikasturte horretako ikasleen datu globalei dagokienez, beren jatorriaren arabera, Sailak honako datu edo kalkulu hauek eman zituen: %60 Latinoamerikakoak; %16 Afrikakoak; %20 Europar Batasunekoak eta gainerako Europakoak; %4 Asiakoak eta Ozeaniakoak.

Sartu berri diren ikasle etorkinentzako hizkuntza indartzeko programen gaineko datuetatik, honako hauek atera ditugu: ikastetxe publikoetarako indartzeko proiektuen deialdia: 250 plaza, 279 zentrotan banatuta (indartzeko programa batzuk zentro ugari partekatzen dituzte). Aurreko urteko datuekin alderatuta: 2006-2007 ikasturtean 180,5 plaza izan ziren: 123,5 Lehen Hezkuntzan eta 57 Bigarren Hezkuntzan; aurreko ikasturtean 148 plaza eta 201 zentro izan ziren. Zentro itunduentzako diru-laguntzen 2006-2007 ikasturteko deialdia: 122 zentrorantzako laguntzak, guztira 2.216.483 euroko zenbatekoarekin. Aurreko urtearekin alderatuta (106 zentrorantzako laguntzak eta 1.735.971 euro), %27ko hazkundera, beraz.

Indartze programa horiez gain, Sailak, azken erantzunean, adierazten du irudi berri bat sortu dela (kultur artekotasanaren koordinatzailea) ikasle etorkinen proportzioa Lehen Hezkuntzan %30etik gorakoa eta Bigarren Hezkuntzan %20tik gorakoa duten ikastetxeetan. Neurri berri hau 31 zentro publikotara eta 8 zentro itundutara hedatu da 2007-2008 ikasturtean.

“Iritsi berri diren ikasleen kultur artekotasun eta inklusio programa” berria ere aipatzen du, 2003-2004an prestatutako aurreko programaren ordez, helburuak (eskola inklusioa eta arrakasta lortzea) eta eskolan duten garrantzia nabarmenduz eta, aldi berean, beste erakunde batzuen lankidetzaren beharra gogora ekarriz.

Ikasleak estatistiketarako etorkintzat hartzeko erabilitako irizpideei dagokienez, ikasle etorkin guztiak barne hartuta daudela esaten du, adopzioak salbu.

Eta eskolatzeko lurralde batzordeek erabiltzen dituzten irizpideei dagokienez, 2007ko apirilko erantzunean Hezkuntza sailburuordearen instrukzioei lotzen zaie, epe arruntetik kanpo ikasle etorkinen eskolatzeari arautzekoei. Bertan zehazten dira aipaturiko batzordeen eginkizunak eta zenbait irizpide finkatzen dira:

- Hizkuntz normalizazioko prozesuan integratzea.
- Zentroa familiaren bizilekutik hurbil egotea.
- Fondo publikoekin finantzaturako zentro guztien arteko oreka (publikoak eta itunduak).
- Zentroetan dauden baliabideen aprobetxamendua.
- Zentroan familia-hizkuntza bera duten ikasleak egotea.

Irizpide horiek berrikusi edo osatu egin dira jasotako azken informazioan. Bertan adierazten denez, aipaturiko batzordeek kontuan hartuko dituzte honako irizpide hauek:

- Sare publikoaren eta sare itunduaren artean %60-%40ko oreka lortzea 2010. urterako.
- Iritsi berri diren ikasleak beren familia-ingurunean eskolatzea.
- Gela bakoitzeko plaza-kopurua %10era arte handitzea.
- Aurreko irizpideak errespetatuz, ahalegina egingo da %30etik gorako portzentajea duten zentroek iritsi berri diren ikasle gutxiago har ditzaten.

Hala ere, Sailak adierazi du ikasle etorkinen arretarako egungo programa ebaluatzen ari dela, berrikusi eta eguneratzeko xedez. Horretarako, ebaluazio batzorde bat eratu du, eta laster zirriborro berri bat prestatzeko ondorioak izatea espero du.

c) ***Ikasle ijitoak***

Sailaren lehenengo erantzunak hainbat ekimen aipatzen zituen; absentismoaren aurkako protokoloa, Bizkaian gizarte zerbitzuekin lankidetzan ezarritakoa; Iniciativa Gitana eta Kale dor Kayiko elkarteak bezalako erakundeekiko lankidetzaren hitzarmenak; edo ikasle ijitoak eskolatzeko plan berria prestatzeko lan batzorde bat sortzea.

Informazio osagarria lortzeko egin genuen eskaeran, ekimen horiei eta ikasle horien banaketaz eskura zeuden datuei buruzko zehaztapen bat besterik ez genuen eskatu (lurralde, sare eta bestelakoen arabera). Horren guztiaren berri (datuak eta informazioa) eman genuen urte hartako txostenean.

Bestalde, 2005eko txostenean eskura genituen azken datuak jaso genituen, 2003-2004 ikasturtekoak:

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GUZTIRA | % |
|--|------------|--------------|------------|--------------|------------|
| Lehen Hezkuntzako ikasleak. Ikastetxe publikoak | 314 | 1.200 | 273 | 1.787 | 70 |
| Bigarren Hezkuntzako ikasleak. Ikastetxe publikoak | 73 | 300 | 113 | 486 | 19 |
| Ikastetxe itunduak | 40 | 130 | 117 | 287 | 11 |
| GUZTIRA | 427 | 1.630 | 503 | 2.560 | 100 |

Ikasturte horretan ikasle ijitoak zituzten ikastetxeei dagokienez, orduan emandako datuek 199 ikastetxe aipatzen zituzten, baina ikasle horien proportzioak oso desberdinak ziren ikastetxe batzuen eta besteen artean.

Datuek garbi erakusten zuten ikasle ijitoen eskolatzea:

- Funtsean ikastetxe publikoetan egiten zela (guztizko ikasleen %89).
- Erabat murrizten zela Bigarren Hezkuntzan.
- Bereziki zentro gutxi batzuetan kontzentratzen zela: 15 Bizkaian, 4 Gipuzkoan eta 3 Araban.

Geroko erantzunetan, Sailak nabarmendu du kezkarriena ez dela ikasle horien kokapena, beren eskola-arrakastaren indize baxuak baizik. Bestalde, eskola-arrakasta lortzeko dituzten zailtasunak detektatzen eta zailtasun horiek gainditzeko bideak ezartzen saiatu direla adierazi du.

Ildo horretan, 2006. urteko erantzunetan ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko hartutako zenbait neurri aipatu zituen; ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana prestatzeko oinarritzko agiri bat egitea, edo irakasleak ijitoen eta hiru lurraldeetako hezkuntzaren gainean trebatzeko ikastaroak, irakasleekiko lan saioak ijitoen kulturaren gaineko material interaktiboak dituen CDa aurkeztuta, etab.

Aurrekari horiek kontuan hartuta, Sailari egin dizkiogun azken bi informazio eskaeretan, ikasleen banaketari buruzko datuak osatze aldera, honakoak galdetu dizkiogu, zehazki:

- Ea datu gaurkoturik badagoen ikasle horien eskolako emaitzen inguruan: Lehen Hezkuntza gainditu dutenen tasak; errepikatze tasak; eskola-graduatuak lortu dutenen tasak; 16 urte bete baino lehen edo DBH amaitu baino lehen ikasketak uzten dituztenen tasak...
- Zer programa edo laguntza bideratzen ari diren biztanle talde honen berariazko premiei emandako erantzuna hobetzeko eta zer eragin izaten ari den eskola-emaitzen hobekuntzan.

2007ko apirileko erantzunean, Sailak ez du ezer esaten gai honi buruz. Azkenean, 2008ko urtarrilekoan, aldiz, orrialde batzuk eskaintzen dizkio, informazio kuantitatiboan baino gehiago informazio kualitatiboan zentratuta.

Izan ere, datu kuantitatiborik eza (ikastetxeen araberrako banaketari edo haien eskola-arrakastaren tasei dagokienez) justifikatzeko, datu horiek edukitzea ezinezkoa dela argudiatzen du, ikasle ijito izaera ez baitago jasota inolako datu-basetan. Ildo horretan, "aurkako jarduketak eraginpeko pertsonen oinarritzko eskubideak urratuko lituzkeela" iruditzen zaio, gainera. Bitxia da, ordea, aurreko ikasturteetako datu horiek bazituela, eta azken idazki horretan bertan Sailak berak datuak edo kalkuluak ematen dituela egoki iruditzen zaionean (diruz lagundutako erakundeen arreta ikasle ijitoen zenbatengana iristen den adierazteko, adibidez: Haur eta Lehen Hezkuntzako 500 ikaslerengana, 15 ikastetxetan, eta 42 ikastetxetan eskolatutako Bigarren Hezkuntzako 340 ikaslerengana).

Baina, esan bezala, Sailaren azken erantzuna alderdi kualitatiboetan zentratzen da eta, ildo horretan, biztanle talde honentzako hezkuntza-arreta hobetzeko eginiko edo aurreikusitako hainbat ekimen nabarmentzen ditu. Besteak beste, honako hauek nabarmen ditzakegu:

- Absentismoa prebenitzeko programak.
- Batzordeak, hainbat zerbitzutako pertsonen osatzen dutenak, azken hiru ikasturteetan funtzionatu du eta ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko Planaren lehen proposamena egin du.
- Plan honen diseinua Sailaren lehentasunezko ildoen artean sartzea.

- Egiteko hau eta Ijito Herriaren Gizarte Partaidetzarako eta Sustapen Integrale-rako Euskal Planean kokatutako beste batzuk garatzeko EAEn jarduketa horietaz arduratuko den pertsona bat edukitzea, baita kolaboratzaile talde bat ere Bizkaian eta Araban, eta azterlanetarako lizentzia, askotariko eginkizunekin (ikastetxeetan esku hartzea, trebakuntza-proposamenak, materialak prestatzea, etab.).
- Ikaskuntza Erkidegoak edo Eskolako Laguntza eta Indartze Proiektuak bezalako proiektuak sustatzea.
- Ijitoen erakunde edota elkarten proiektuak diruz laguntzea, beste ikastetxe batzuekin lankidetzan jardun daitezen. Jarduteko ildo horri dagokionez, Sailaren asmoa pixkanaka jarduteko eremua handitzea dela aurreratu du, 2007an 840 ikasle izatetik EAeko ikasle ijito guztietara iristeko (2.700 inguru).

Sailak, elkarten bitartez, eskolatzearen (geroz eta erregularragoa eta luzeagoa), Bigarren Hezkuntzan sartzearen (motel baina etengabe) inguruko balorazio positiboak jasotzen ditu, baina, nolana ere, honakoa ondorioztatzen du: “Martxan jarritako neurriak gorabehera, badakigu emaitzak ez direla oraindik oso onak eta lanean jarraitu beharra daukagula ikasle ijitoek eskola-arrakasta lortzeko, euskara komunitate horretan ere bultzatzeko, eta familiek eta irakasleek ekintza interkultureko egitasmoetan esku hartzeko. Lan hori guztia uneon lantzen dihardugun Ikasle Ijitoen Eskolatzea Hobetzeko Planaren bidez aurrera eraman nahi dugu, eta horri buruz behar adinako informazioa emango dizugu”.

Gai hauetako batzuei buruz, Sailaren erantzuna alde batera utzita, hobetutako errealitate batzuen zein beste errealitate kezagarri batzuen berri ere izan dugu. Izan ere, datu global gaurkoturik ez dugun arren, baditugu errealitate horretarako hurbilketa partzialak. Arartekoak berak absentismoari, eskola-arrakastari eta eskola-porrotari zein curriculumeko materialetan ijito herria aintzat hartzeari buruzko datu oso berriak eskuratu ditu, eta errealitate kezagarriak erakusten dituzte. Adibide gisa, honako hauek aipa ditzakegu:

- Arabako sasoikako biztanleen eskolatze errealitatea, Arartekoak aztertu eta txosten honetan bertan jaso dena.
- Ijito Idazkaritzaren Federazioak ijitoen eskolako porrotari eta arrakastari buruz argitaratu dituen azterlan berriak.
- Kale dor Kayiko elkarteak jaso dituen datuak, urtez urte eskolatzea eta emaitza onak dakartzatenak eta saritzen dituztenak, jardunbide egokiaren adibide gisa baloratu behar diren ekitaldi publikoetan.
- Elkarte honek berak sustatutako lan berria, “curriculumeko materialetan ijito herria aintzat hartzeari” buruzkoa.

Datu guztien arabera, biztanle talde hori da, hain zuzen, eskola-inklusioa eta eskola-arrakasta lortzeko zailtasun handienak dituenetako bat eta, beraz, berariazko arreta eskaini behar zaio.

Ildo horretan, aurrerapenak edo atzerapenak ezagutu eta baloratu ahal izateko datu edo kalkulu fidagarriak beharrezkoak direla pentsatzen jarraitzen dugu. Datuak edo kalkuluak, eskola-arrakastari eta porrotari buruzkoak, adibidez, ikasle bakoitzaren mailara zertan jaitsirik ez dutenak, baina ikastetxe mailan bil daitezkeenak eta, zalantzarik gabe, bilakaeraren adierazle gisa eta martxan diren programen eraginkortasuna ebaluatzeko edo baloratzeko elementu gisa ere balio izango luketenak.

d) **Bazterturiko ikasleei loturiko neurriak**

Orain arte azaldutako gaiak alde batera utzita, gure gomendioa, aurrez adierazi bezala, bereziki bazterturiko ikasleei buruzkoa zen, oro har. Ildo horretan, Arartekoaren txostenak horrelako ikasleen proportzio handia duten ikastetxe askoren egoera eta eskola-kalifikazioak aztertu zituen. 3. gomendioak, hain zuzen ere, horrelako egoerak saihestu nahi ditu eta, horretarako, ratioak ezartzea, matrikulatzeko araudia berrikustea edo ezkutuko desbideratze edo egozteen jarraipena bezalako neurriak iradokitzen ditu.

Neurri konplexuak dira, eztabaidagarriak, eta, kasu batzuetan behintzat, arauak aldaraziko lituzkete. Ildo horretan, Sailak, bere erantzunetan, ez ditu aipatzen. Baina, baliabideak esleitzeari dagokionez, ikastetxe jakin batzuen aldeko diskriminazio positiboari buruzko datuak ematen ditu.

Gizartean bazterturik dauden ikasleen aldeko diskriminazio positiboa egiteko ekintzei dagokionez, sail horren aurreko erantzun guztietan honela zehaztu ziren, batez ere:

- a) Hezkuntza-indargarriak.
- b) Hezkuntzan berariaz esku hartzeko proiektuak.
- c) Esku hartzeko proiektu globalak.

Aurreko urteetako gure txostenetan hiru esparruetako bakoitzari (irakasle kopurua, proiektuak, ikaskuntza-erkidegoak, etab.) eta azken ikasturteetan izan duten bilakaerari buruzko datu batzuk jaso genituen. 2005-2006 ikasturteko datuak aipa ditzakegu erreferentzia gisa:

- Hezkuntza-indargarriak:
68 dedikazio osori dagozkien indartze moduluak, guztira 112 zentro itundutan.
- Hezkuntzan berariaz esku hartzeko programak, ikastetxeen eskariari erantzuteko, eskola-atzerapen handiko edo eskola-ingurunera egokitzeko ezintasunagatikiko problematikaren arabera:

| | Ikastetxeak | Irakasleak |
|-----------------|--------------------|-------------------|
| Araba | 11 | 16 |
| Bizkaia | 28 | 56 |
| Gipuzkoa | 33 | 25,5 |
| EAE | 72 | 97,5 |

Azkeneko erantzunean, Sailak adierazten du proiektuen deialdi bakarrean bateratu direla aipaturiko lehenengo bi bideak (ikastetxe publikoetarako zein ikastetxe pribatu itunduetarako), (DBH 1en eta DBH 2n) ondorengo ezaugarriak dituzten ikasleen proportzio handia duten ikastetxeetarako baliabideak esleitzerakoan zuzentasun handiagoa lortze aldera:

- a) Eskola-atzerapen handiko egoeran zegoen, eremu instrumentaletan eta bazterturiko gizarte egoerei lotuta, nagusiki.
- b) Eskola-ingurunera egokitzeko ezintasuna dutenak, ikaskuntzako atzerapenarekin batera, askotan.

Deialdi honi dagokionez, proiektuak baloratzeko erabilitako baremoa ematen du, esaterako, eskola-porrotaren maila (igo gabeko eta DBHko titulua ez duten ikasleen %-a) edo bazterturiko ikasleen eskolatze maila (bekadunen %-a) kontuan hartzen dituen.

Proiektuek izan behar dituzten ezaugarriak ere adierazten ditu (esku hartzeko proposamenak; baliabidea; jarraipena eta ebaluazioa, etab.), eta deialdiaren ebazpen datuak eman eta aurreko ikasturtearekiko alderaketa egiten du:

| HEZKUNTZAN BERARIAZ ESKU HARTZEKO PROIEKTUAK ESLEIPENEN KONPARAZIOA | | | | | |
|--|--|------------------------------------|--|------------------------------------|---|
| IKASTETXEEN TIPOLOGIA | 2006-2007 IKASTURTEA | | 2007-2008 IKASTURTEA | | |
| | ESLEIPENA JASOTZEN DUEN IKASTETXE KOPURUA | ESLEITUTAKO IRAKASLE KOPURUA | ESLEIPENA JASOTZEN DUEN IKASTETXE KOPURUA | ESLEITUTAKO IRAKASLE KOPURUA | IRAKASLE KOPURUAN IZANDAKO HAZKUNDEA (%) |
| IKASTETXE PUBLIKOAK | 96 | 102 | 94 | 110 | 7,8 |
| IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK | 117 | 71,5 | 124 | 80 | 11,8 |
| GUZTIRA | 213 | 173,5 | 218 | 190 | 9,5 |

| LURRALDE BAKOITZEAN ESLEITUTAKO IRAKASLE KOPURUA | | | |
|---|--------------|----------------|-----------------|
| LURRALDEA | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
| IKASTETXE PUBLIKOAK | 18 | 64 | 28 |
| IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK | 13 | 41,5 | 25,5 |
| GUZTIRA | 31 | 105,5 | 53,5 |

Hezkuntza Ikuskaritzari dagokio programa hauen jarraipena egitea, Sailak beharrezko txostenak eskura izan ditzan hurrengo deialdia egin aurretik, egoki irizitako aldaketak egiteko.

Esku hartzeko proiektu globalei dagokienez, ikastetxe osoaren inplikazioa (irakasleak, familiak, gizarte ingurunea, etab.) "ikaskuntza-erkidegoetan".

19 izan dira 2007-2008 ikasturteko Ikaskuntza Erkidegoak proiektuan parte hartu duten ikastetxeak: 1 Araban (Lehen Hezkuntza); 14 Bizkaian (12 Lehen Hezkuntza eta 2 Bigarren Hezkuntza); eta 4 Gipuzkoan (lauak Lehen Hezkuntza).

Sailak adierazten duen bezala, ikastetxe guztiak ez dira bazterturiko ingurukoak, baina denetan daude gizarte desberdintasuneko egoerak, eta 19 ikastetxeetatik 18 publikoak dira.

Ikastetxe horien baliabide edo laguntza osagarriak ere jasotzen dira (proiektua koordinatzeko pertsona baten lanaldi erdiko liberazioa, edo aholkularitza eta hobe-kuntzak trukatzeko hileko bilerak, adibidez), kanpoan egindako bi ebaluazioak aipatzen dira, etab.

Ebaluazioek adierazitako emaitzen artean, adibidez, emaitza akademikoak hobetzea, absentismoa murriztea, bizikidetzaren hobetzea, hezkuntza-erkidegoko partaide guztien gogobetetze handia, etab. azaltzen ditu. Eta emaitza onekin batera, Sailak adierazten du proiektu hau sendotu eta hedatzeko plan bat prestatzen ari dela, "ghetto" bihurtutako ikastetxeei arreta berezia eskainita.

Hezkuntza Sailak emandako informazio gehiena orain arte landutako lau alderditan zentratzen da:

- Ezgaitasunen bati loturiko hezkuntza-premia bereziak.
- Ikasle etorkinentzako arreta.
- Ikasle ijitoentzako arreta.
- Bereziki bazterturiko ikasleentzako arreta.

Horrenbestez, hezkuntza-premia bereziei buruzko Arartekoaren txostenaren gomendioen lehenengo blokeari erantzuten dio, beti garrantzi berezia eman izan diogunari.

Hala ere, badira beste bloke eta gomendio batzuk, laburrago bada ere, hemen aipatu beharrekoak direnak.

2. IRUDI PROFESIONAL JAKIN BATZUK INDARTZEA, KOORDINAZIOA ETA BERRANTOLAKETA

Azpiatal honetan, 5 gomendio egin genituen gure txostenean (9.etik 13.era). Azken bi urteetako jarraipenean bi gairi buruzko datuak bakarrik eskatu ditugu:

1) **Irakasleen dibertsitatea errazteari** dagokionez, gutxiengoan kulturetako pertsonak edo pertsona ezinduak onartzeko dagoen aukera (10. gomendioa, 1. azpiatala).

Gai hori dela-eta, *Pertsona ezinduen lanerako aukerak EAEn* ezohizko txostena egin genuenetik, bere garaian datu batzuk eskatu genituen, berariaz hasitako ofiziozko espediente baten bitartez. Sail horrek 2004ko urtarrilean emandako erantzunean deigarria zen inolako daturik ez ematea zeregin desberdinetan lanean zebiltzan ezinduen benetako kopuruaz eta haien lanbide mailaz. Horregatik, administrazio horretatik eta beste batzuetatik lortutako erantzunak kontuan hartuta, zenbait proposamen egin zituen erakunde honek:

- Plazen egungo erreserba-kupoa handitzea, %10eko kopurura hel dadin.
- Horren aplikazioa edozein kontrataziotara zabaltzea, batez ere aldi baterako lanera, ordezkapen poltsak edo zerrendak kudeatzeko jarraibideetan beren beregi ezarriz.
- Talde eta kategorien araberako banaketa ordenatua eta orekatua lortzea, sustapen neurri hau ezgaitasunen bat duten pertsona-kopururik handienera helarazteko asmoz.
- Pertsona ezinduak enplegu publikoetara sartzeari bultzatzen duten neurri positiboak bizkortzea, egin litezkeen moldaketei benetako edukia emanez, plazen erreserba hutsetik haratago.

Funtsean 2002. urteko txostenean aipatu eta azaldutako iradokizun berberak diren arren ("Erreserba-kuota: pertsona ezinduak EAeko enplegu publikoa lortzeko sustapen neurria" -ikus 2002ko txostena, VI. atala-, oraingoan egoki iritzi diogu horien edukia zehazteari, betiere, *EAEko lan merkatu arruntean pertsona ezinduak sartzeko planean* ezarritako proposamenen arabera.

Horrekin batera, azaldu genuen administraziook ezgaitasunen bat duten enplegatuei buruzko datuen jarraipen eta tratamendu sistema bat ezartzeko komenigarritasuna gure gain hartu behar dugula, proposaturiko ekimenen egiazko betetze maila zein den jakin ahal izateko (ikus 2004ko ohizko txostena, 1.1.13. azpiatala). Horrela, hurrengo urtean honakoei buruzko informazioa eskatu genuen:

- 1) Zein neurri hartu ziren goian aipaturiko lau proposamenak benetan aplikatu daitezkeen.
- 2) Ea bazegoen sail horrek kontrataturiko langile ezinduei buruzko datuak, eta, hala bazen, zein datu ziren horiek.
- 3) Eta hasierako gomendioaren beste zatiari dagokionez, gutxiengoen kulturetako pertsonak sisteman barneratzeko zein urrats egin ziren.

2005. urtean jasotako erantzuna ikusita, ez zirudien gomendatutako ildoan inolako aurrerapen edo aldaketarik izan zenik. Ez adierazitako lau proposamenei dagokionez, ez langile ezinduei buruzko datuak izateari dagokionez, ez gutxiengoen kulturetako pertsonak sisteman barneratzeari dagokionez (erantzun idazkiak kontzeptu hori ideologia, erlijioa edo etnia bezalakoekin nahasten zuela zirudien).

Horiek horrela, gure azken datu eskaeretan berriz planteatu ditugu gai berberak. Eta 3) puntuan, edozein gaizki-ulertu saihesteko, ohar batzuk egin genituen, gomendioak proposatzen duena hau dela zehaztuta: hezkuntza-sistemak alderdi hauetan beste hizkuntza batzuk ezagutzen dituzten profesionalak edo geroz eta ikasle desberdinaoak, jatorrizko beste kultura batzuk dituztenak, izatea, dela giza baliabide berriak barneratuta, dela sistema bertako profesionalak trebatuta. Hau da, langileen ezaugarriak premia berrietara egokitu behar lirateke, hizkuntz premiekin edo bestelakoekin egin den bezala.

Hezkuntza Sailaren azken erantzunetan bi informazio bakarrik ageri dira honi dagokionez, biak ere langile ezinduei buruzkoak. Horrela, 2007ko apirilean jasotako idazkian, hauxe jartzen du:

- Azken LEPetan Sailean barneratutako elbarriei buruzko datuen bilketan lan egiten ari zirela.
- Hezkuntza laguntzako espezialisten LEPean (bidean zen, orduan) %5eko kupoa gorde zen pertsona ezinduentzat, “irakasleentzat izango diren hurrengo LEPetarako portzentaje honi erraz areagotu ahal izatea aztertzen den arren”.

- 2) **Terapia- eta hezkuntza-unitateak** abiarazteko beste instantzia batzuekiko koordinazioari dagokionez.

Arartekoak, hezkuntza-premia berezietan buruzko txostenaren ondoren, hainbatetan, arreta berezia eskaini dio gai honi. La Ola terapia- eta hezkuntza-zentroaren jarraitutasunari buruz jasotako kexen haritik, zenbaitetan.

Ildo horretan, berriz ere informazio gaurkotua eskatu dugu, honakoen berri izateko:

- a) Ortuellako aipaturiko unitatearen egungo egoera zein den, eta haren jarraitutasuna.
 - b) Zein fasetan dauden Araban eta Gipuzkoan baliabide berriak sortzeko proiektuak.
- Horren guztiaren berri ematen dugu hemen, hurrengo orrialdeetan (adingabeei eta buru osasunari buruzko azpiatala).

3. PROZEDURETAKO ETA BALIABIDEETAKO HOBEKUNTZAK

Gomendio horiei dagokienez (txostenean, 14.etik 19.era), aurreko informazioa kontuan hartuta, azken bi urteetan bi gaitara mugatu gara:

- 1) **Hezkuntza-premia berezien erregistroari** (15. gomendia) eta jarduteko protokolei eta **konfidentzialtasun bermeei** (16. gomendia) dagokienez, aplikazio informatikoaren esperimendazio fasea amaitu bada, eta zein berme elementu ezarri diren konfidentzialtasunaren lege baldintzak betetzeko.
Horren gaineko azken berriak 2007ko apirilean jaso genituen. Bertan adierazten zenez, ezin izan zen aplikazio informatikoaren esperimendazio fasea amaitu, konfidentzialtasunari eragiten zioten arazoak hauteman ziren, aplikazioa berriz diseinatzen ari ziren eta, EJIEn informazioaren arabera, proben fasea otsailean hasiko zen.
- 2) Zentroetako **arkitektura-oztopoak kentzeari** dagokionez (18. eta 19. gomendioak). Azken urte honetan, argiago azaltzeko eta indar gehiago emateko, gaia bereizi eta horren berariazko jarraipen espedientea egitea erabaki genuen. Gure lehenengo gomendia gogora ekarri eta nabarmendu nahi dugu:

“Arkitektura-oztopoak kentzea ezinbesteko baldintza da, ezgaitasun jakin batzuk dituzten ikasleak eskolan integratzeko, eta horixe izan da hezkuntza-administrazioak urte batzuetatik hona sustaturiko jardunbide bat.

Erakunde honek, beste alde batetik, gure Erkidegoko ikastetxe guztien oraingo egoeraren «mapa» egitea proposatzen du; hori, aldi berean, baliozkoa izango da egindako lorpenak islatzeko eta etorkizuneko jarduerak bideratzeko. Etorkizuneko jarduera horiek kontuan hartu behar dituzte apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan jasotako elementuak; dekretu horren bidez, hiriko inguruetara, eremu publikoetara, eraikinetara eta informazio nahiz komunikazio sistemetara iristeko baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi ziren, baita ikasle gero eta gazteagoak eskolatzeko, ezgaitasunen bat duten profesionaleri eta zahartze tasa gero eta handiagoa duen irakasleriari sarrera errazteko arauak ere.”

2001ean argitaratu zen txostena eta, gero, urtez urte, horren premia nabarmendu dugu eta zenbateraino betetzen den jakiten saiatu gara.

Gai honen inguruko gure esku-hartze gehienak oztopoak kentzera bideratutako zenbatekoen eta proiektuen bilakaeraren berri izatean; zentroen “egoera mapa” zertan zen; eta Sailak zentro guztietan erabateko irisgarritasuna lortzeko (Sailak berak jarritako helburua da) zein denbora epe ezartzen zuen jakitean zentratu dira.

Besteak beste, gai horiek izan ziren hizpide 2006ko otsailaren 1eko berariazko bileran; mapa urte horretan amaitzeko nahia agertu zuten Saileko arduradunek. Horregatik, urte horren amaierako gure informazio eskaera, honakoei buruz galdetu genuen:

- 1) Azken aurrekontu ekitaldian (2006) arkitektura-oztopoak kentzeko jarritako eta gauzatutako aurrekontu zenbatekoak, eta egindako lanen ondorioz zenbat ikastetxetan kendu ziren oztopoak.
- 2) Gure erkidegoko zentro guztietan irisgarritasunaren benetako “egoera-mapa” ba al zegoen eta, hala izanez gero, oinarrizko datuak zein ziren: oztopoak dituzten eta halakorik ez duten zentroyen kopurua eta proportzioa, etapen, lurraldeen eta abarren arabera.
- 3) Sailak zein asmo zituen zentro guztietan erabateko irisgarritasuna lortzeko.

Ildo horretan, Sailak 2007ko apirilean emandako erantzuna bi zerrenda ematera mugatzen da; 2006an eta 2007an horretara bideratutako zentroak eta partidak adierazten dituena (2006an 18 zentroytan egin ziren oztopoak kentzeko lanak eta 2007an 25 zentroytan), eta ondorengo urteetarako aurreikusitako zentro eta partidak biltzen dituena (34 zentro gehiago jasotzen dira eta 11 milioi euro inguruko balioko lanak aurreikusten dira bertan).

Gure lehenengo puntuari erantzuten zaio, beraz, baina ez bigarrenari, ez eta hirugarrenari ere. Beraz, ondorengo gainerako informazio zehatza eskatu dugu berriro:

- 1) Gure erkidegoko zentro guztietan irisgarritasunaren benetako “egoera-mapa” ba al dagoen eta, hala izanez gero, oinarrizko datuak zein diren: oztopoak dituzten eta halakorik ez duten zentroyen kopurua eta proportzioa, etapen, lurraldeen eta abarren arabera.
- 2) Sailak zein asmo zituen zentro guztietan erabateko irisgarritasuna lortzeko.

Txosten honen testua amaitzeko unean, artean ez genuen Sailaren erantzuna jaso.

Hori da, beraz, azken urte honetan hezkuntza-premia bereziei buruz eginiko jarraipenaren emaitza.

6) **Buru osasuneko arazoak dituzten haurrak edo nerabeak**

A) **Aurrekariak**

Haur eta nerabeen buru osasunari berariaz heldu genion burutik gaixo dauden pertsonen arreta komunitarioari buruzko ezohizko txostenean (4.6, 4.7 edo 3.4 azpiatalak). Txosten hori 2000. urtean argitaratu eta eztabaidatu zen Legebiltzarrean eta, gero, jarraipena egin zitzaion elkarteekin bilerak eginda zein ofiziozko espedienteen, bisiten eta informazio eskaeren bidez (ikus azken urteetako ohizko txostenak). Haurrei eta nerabeei dagokienez, hautemandako eta nabarmendutako premien artean honako hauek adierazten ziren:

- Haurrentzako psikiatria-ekipoen deszentralizazioa.
- Giza baliabide espezializatuen gehikuntza (haurrentzako psikiatrak edo psikologoak, kasu).
- Lurralde historiko eta eskualde desberdinetan bitarteko egiturak sortzeko premia.
- Gizarte, hezkuntza eta osasun batzordeak sustatzea.
- Elikadura arazoei erantzuteko programak berrikustea.

Txosteneko 18 gomendioetakoren batek ere berariaz aipatzen zuen biztanle talde hau. Horrela, 6. gomendioak hau proposatzen zuen, hitzez hitz: *“Berariaz adingabeei zuzendutako zerbitzuak gehitzea”* jarduketaren eremu batzuetan zehaztuta (autismoa edo elikadura arazoak, kasu), edo *“haurren eta nerabeen arreta psikiatriko bideratutako baliabideak nahikoak ez direla (bitarteko egiturei dagokienez, berriz, halakorik ez izatea)”* nabarmenduta.

Gai eta proposamen hauek –bere garaian Osasun sailburuak berak eztabaidatutakoak– hainbatetan planteatu dizkiote erakunde honi elkarte jakin batzuek, babes sistemen arduradunek, gazteentzako justizia-sistemakoek, edo aldizka babes eta erreformazentrotara egiten ditugun bisiten ildotik.

Gauzaturiko ekimenei dagokienez, txostena argitaratu eta hilabete gutxira, baliabide berri bat jarri zen martxan Bizkaiko Lurralde Historikoan: La Olan (Sondika) dagoen terapia- eta hezkuntza-zentroa. Ondoren, erakunde honetako langileek zentroa bisitatu zuten haren funtzionamendua ezagutzeko, in situ. Zegokion txostenean horren berri eman genuen eta datu adierazgarri batzuk eman genituen (ikus 2003ko txostena, 1.1.9 azpiatala).

Bereziki interesgarria iruditu zitzaigun gaietako bat baliabidea eta zeuden plazak (10) premiei erantzuteko zenbateraino ziren nahikoak jakitea izan zen. Hori baloratzeko, hainbat inguruabar hartzen ziren kontuan:

- Era honetako zentro bakarra zegoen Bizkaia osorako.
- Zerbitzua ekarri zuen lankidetzaren hitzarmenak, hasiera batean, 20 erabiltzaile-erentzako gaitasuna duen eguneko zentro bat aurreikusten zuen.
- Ohikoa zen itxaron zerrenda bat egotea (bisita egin genuenean, baldintza guztiak eta sartzeko irizpide guztiak betetzen zituzten 6 adingabe zeuden).
- Nolabaiteko ezjakintasuna zegoen baliabideaz eta, beraz, izan zitezkeen premiez eta egin ere egiten ez ziren eskariez.
- Adin tarte bat zegoen (nerabeak), zentroan barne hartzen ez zena.

Zentroko profesionalen iritziak entzun ondoren eta jasotako datuen eta balorazioen arabera, erakunde honek era horretako baliabide gehiago behar zirela ondorioztatu zuen eta hainbat aukera azaldu zituen; plazak gehitzea edo baliabide berriak sortzea, kasu. Ikastetxeak arau esparru argiagoa eta berme handiagoa ematen duena izateko premia ere planteatu zuen, eskubideei zuzenean eragiten dieten gaietan gutxienez: sartzeko irizpideak, itxaron zerrenden kudeaketa, barne araubideko araudia, txostenen konfidentzialtasunaren bermeak, etab.

Bestalde, erakunde honek espazio soziosanitarioko haur eta gazteen azpibatzaordeak, Osakidetza, Hezkuntza Sailaren eta Gizarte Ekintza Foru (Gipuzkoako Foru

Aldundia) partaidetzarekin, Gipuzkoarako egindako “nerabeentzako terapia- eta hezkuntza-zentroa abiarazteko proiektuaren” berri izan zuen.

Proiektu horrek antzekotasunak eta desberdintasunak ditu La Olan bisitatutako zentroarekin, baina, nolahi ere, inork zalantzan jartzen ez dituen arren gauzatzen ez ziren premiei erantzutea zuen helburu.

Horregatik, Arartekoak berri ere informazio gaurkotua eskatu zion Hezkuntza Sailari, zehazki, La Olako baliabideari dagokionez aldaketa adierazgarriren bat egin zen edo egiteko asmorik ba al zegoen, Araban eta Gipuzkoan baliabide berriak sortzeko proiektuak zein fasetan zeuden eta martxan jartzeko atzerapena zergatik izan zitekeen jakiteko.

2005eko otsailaren 2ko erantzunean, Hezkuntza Sailak adierazten zuen La Olaren jarraipen batzordeak unitatearen gaitasuna handitzea proposatu zuela; aukera hori aztertzen ari zirela, izan ere, esperientzian esku hartzen zuten hiru erakunderen konpromisoa behar zen horretarako, ez soilik Hezkuntza Sailarena; eta era horretako unitate batek tamaina kritikoa duela, eta ez dela hortik aurrera zabaltzea komeni.

Antzeko beste unitate batzuk sortzeari dagokionez, sare arruntetik kanpoko haur eta gazteen hezkuntzarako eta buru osasunerako berariazko ekipamenduak gehiegi ez sustatzeko irizpideari eusten zion, eta administrazio aldetik egonkorra den eta jarduteko esparru egokia duen dekretu bidez –prestatzen ari ziren horren zirriborroa– nerabeentzako ospitale unitateak sortzea eta unitate desberdinak hornitzeko nahia aipatzen zituen.

2006an ere horrelako zerbitzu eskariak jasotzen ziren artean. Gainera, eraginpeko gurasoen taldeak, burutik gaixo dauden pertsonen familiartekoen elkarteen lan-kidetzarekin, Arartekoari sektore horri zuzendutako berariazko baliabide gutxietariko bati jarraitutasuna emateko premia azaltzen jarraitzen zuen. **La Ola hezkuntza- eta terapia-unitatea.**

Jarraipena, hortaz, kexa-espeditentzaren bidez eta hezkuntza-premia bereziei buruzko txostenaren jarraipenaren esparruan Hezkuntza Sailari eginiko informazio eskaeraren bidez zentratu zen gai horretan.

Egindako informazio eskaeren helburua honakoen berri izatea zen: une horretan zentroaren errealitatea zein zen (erabiltzaile kopurua, itxaron zerrenda, etab.), etorkizunerako aurreikuspenak eta, orokorrago, gehien inplikaturako bi sailek (Hezkuntza eta Osasun sailak) sektorearen arretara zuzendutako baliabide berriak sortzeko premiari buruz duten iritzia eta horren inguruan dituzten asmoak.

Aurreko urteko txostenean jada aurreratu genuen bi sailen erantzunek norantz jotzen zuten:

- BBK-k –instalazioen titular eta hitzarmenaren sinatzaileak– La Olaren lokalak beste gizarte eginkizun eta sektore batzuetara zuzentzeko hartutako erabakiak eragina izan du zerbitzuaren jarraitutasunean, eta testuinguru aldaketa ekarri du zentrorako.
 - 2005-06 ikasturtean, eguneko zentroa La Olaren instalazioen barruan mantentzen zen, nahiz eta beste eraikin batean, aurreko ikasturteetakoaren antzeko proiektu batekin, –Hezkuntza Sailaren idazkiaren arabera– “arreta 10 ikasletik 15era zabaltzea nahi den” arren.
- Artatutako adingabeen kopuruari dagokionez, Osakidetzak adierazten zuenez, 10 ziren eguneko zentroan eta “ekipo bera tratamendu ambulatarioko programa

trinko bat garatzen ari da zentrorra sartzeko zain dauden edo alta ondoreneko jarraipen aldian dauden (10) haurrentzat”. Azken erantzunean, 2006ko maiatzekoan, Osakidetzak jakinarazten zuen 24 haur artatzen zituela, nahiz eta 10 plaza izaten jarraitzen zuten.

- Hala ere, Hezkuntza Sailaren erantzunean gehitu bezala, “hau, epe luzera, ez dute konponbidetzat hartzen ez Hezkuntza Sailak ez Osakidetzak; funtsean, ingurunea, hezkuntza-ingurune izateari uztean, erabat aldatzen delako eta heldu ezinduen lan ingurune bihurtzen delako”.
- Artean ez zegoen kokapen alternatiborik zerbitzuaren etorkizunerako. Hainbat aukera baloratzen ari ziren.
- Eta Gipuzkoako eta Arabako hezkuntza- eta terapia-unitateei dagokienez, Hezkuntza Sailak adierazten zuen “ez zela aurrerapen adierazgarririk izan”.

Gai horietako batzuk 2007an jasotako azken informazioan zehazten ziren. Horrela, La Olaren alternatiba gisa, Ortuellako eskolak egokitzen ari ziren; laster 30 ikasle bertan hartzea aurreikusten zen, bi adin tartetan (8-12 eta 12-16 urte) banatuta.

Bestalde, aurreratzen zitzaigun, ospitaleko, etxeko zein terapia- eta hezkuntza-arretako lurralde zentroak sortzeko dekretu berriaren garapen gisa, 2007ko urtarrilaren amaieran zehaztuta egongo zirela hiru lurraldeetako zentroen eta terapia- eta hezkuntza-gelen kokapen fisikoak.

B) Azken urteko jarraipena

Azken urte honetan, Ararteko erakundeak gure erkidegoan buru osasuneko arazo larriak dituzten haurren eta nerabeen arreta-premia jakin batzuei modu egokian erantzuteko berariazko zerbitzuak ezartzeko premiari buruzko eskaera gehiago jasotzen jarraitu du. Zenbait kasutan, besterik gabe, halako baliabiderik ez dagoela irizten delako. Beste batzuetan, ematen den erantzuna inola ere nahikoa ez dela irizten delako.

Eskari hau errepikatzen da harrera eta barneratze zentroetara egiten ditugun ia bisita guztietan eta haurrentzako babes eta justizia sistemetako arduradun eta profesionalekin zein familiartekoen elkarteetan ordezkariekin eginiko bileretan. Hain sistematikoki ez bada ere, heziketa-zentro arruntei edo adingabeekin zuzenean lan egiten duten beste profesional batzuei (irakasleak, orientatzaileak, adingabeen epaileak, osasun sistemako langileak, etab.) dagokienez ere planteatu izan zaigu.

Datu objektiboak lortzea oso zaila izan arren, balorazio globala haiekin bat etorri ohi da: biztanle talde honen buru osasuneko arazoak mantendu ez ezik, gehitzen ari dira eta, hainbat arrazoi tarteko, erantzun egokirik jaso gabe jarraitzen dute.

Balorazio horren adibide gisa balio dezake hurrengo paragrafoak. Eusko Jaurlaritzako Gazte Justiziaren Zerbitzuaren 2006ko memoriatik atera da, nerabe arau-hausleen tratamendu terapeutikoko premiei dagokienez:

“Tratamendu ambulatorioa gauzatzeko orduan alderdi deigarrienetariko bat eskaera hauei erantzuteko profesional edota erakunde pribatuak kontratazko beharra izan da, kasuen %68 baino gehiagotan. Eskaintza publikoa ez da gai eskarriari erantzuteko, ez kuantitatiboki –saioen periodikotasuna, iraupena, etab.– ez kualitatiboki –esku-hartze mota–”.

FEDEAFESen ordezkariekin eginiko azken jarraipen bileran ere, kezka gehien eragiten duten eta hobetzeko premia handiena duten zortzi gaien artean sartu da buru osasuneko arazoak dituzten haur eta gazteen arreta.

Elementu horiek guztiak kontuan hartuta, Arartekoa inplikazio zuzenena duten bi sailei zuzendu zaie berriz ere, ofiziozko espediente banarekin: Hezkuntza Sailari eta Osasun Sailari.

Espediente hauen helburua egun dauden edo laster sortuko diren baliabideei buruzko informazio gaurkotua biltzea izan da eta, horretarako, honakoei buruzko datuak eta balorazioak eskatu dira:

1. Orain arte La Olan egon den eguneko zentroaren egungo errealitatea: plaza-kopurua, sail horren menpe dauden eta bertan lan egiten duten langileak, artatutako adingabeen ezaugarriak eta sartzeko irizpideak, itxaron zerrenda, ematen diren arretak, etab.
2. Etorkizun hurbileko aukerak, Ortuellako kokaleku berrian: hasiera, plaza-kopurua, etab.
3. Zein fasetan dauden Araban eta Gipuzkoan antzeko zentroak sortzeko proiektuak.
4. Ospitaleko, etxez etxeko zein terapia- eta hezkuntza-arretako lurralde zentroak sortzeko dekretuaren garapenean egin diren aurrerapenak.

Lau puntu horiez gain, aurrez azalduko kezka edo balorazioak helarazi zitzaizkien: erakunde honek zentroetara eginiko bisitetan eta elkarteekin eta profesionalekin eginiko bileratan jasotako informazioaren zati handi batek erakusten du gure sistemak ez duela egoera jakin batzuei (burutik gaixo dauden adingabeak edo adingabe toxikomanoak, esaterako) berariazko erantzuna emateko baliabiderik. Beste kasu batzuetan –sektore honekin harreman zuzena duten profesional eta arduradunen iritzi orokortuaren arabera, behintzat–, erantzun hori ez da inola ere nahikotzat hartzen. Horrek, egoerarik larrienean, zerbitzu partikularretara edo gure erkidegotik kanpoko baliabideetara desbideratzea egitera jo beharra dakar, eta ez dirudi alternatiba egokia denik.

Horri dagokionez, Arartekoak interesa agertu zuen sail bakoitzak azalduko egoeraren inguruan zein iritzi duen jakiteko, eta balorazio horiekin bat datozen ala ez eta azterketa hori indartzeko edo horren aurka egiteko zein datu eman ditzaketen ikusteko.

Hezkuntza Sailaren erantzuna 2008ko urtarrilaren 22an bidali da. Osasun Sailarena egun batzuk geroago, urtarrilaren 28an.

Jarraian, bertan jasotako alderdi nagusiak laburbiltzen saiatuko gara.

Hezkuntza Sailak, bere erantzunean, Ospitale eta Etxez etxeko zein Terapia eta Hezkuntza Arretarako Lurralde Zentroak sortzeko 266/2006 Dekretua (EHAA, 2007ko urtarrilaren 5koa) garatzeko lurralde historiko bakoitzean eginiko urratsen errepasoak egiten du: funtsean, espazio egokiak gaitzea eta profesional taldeak izendatzea (zerbitzu eginkizunetan, lanpostuen zerrendari buruzko dekretua onartu arte).

Ikus daitekeen bezala, aipaturiko lurralde zentroek hiru zerbitzu mota hartzen dituzte: ospitalekoa, etxez etxekoa eta terapia- eta hezkuntza-unitateetakoa. Hemen, gure jarraipenaren xedea del- eta, azken horretara mugatuko gara.

Ildo horretan, hau adierazten dute Hezkuntza Sailak emandako datuek:

- Bizkaiko terapia- eta hezkuntza-unitatea dagoeneko Ortuellan dago.
- Sailak espezializatutako lau irakasle ditu (medikuez gain: psikiatra, psikologoa eta logopeda).
- “15 ikasleko talde batekin jarri da martxan”.
- “Gehienez ere beste 15 ikasleko bigarren talde bat martxan jartzea aurreikusten da”.
- Arabako Lurralde Historikoko egoerari dagokionez, baliabideak ekipatu eta hornitzen ari dira; pedagogia terapeutikoko hiru irakasle aurreikusten dira terapia- eta hezkuntza-esparruetarako.
- Ikasleei buruz, hauxe dio: “Egokitzapen lanak amaitutakoan eta altzariak eta tailerrak hornitzen amaitutakoan, bigarren hiruhilekoan, ikasleak barneratuko dira, premien arabera, 15 ikasleko taldea osatu arte. Esparrua martxan jartzeko hitzarmena sinatu behar da eta Osakidetzako langileak sartu behar dira”.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko egoerari dagokionez, langileen aurreikuspena bera dela adierazten da, lanak oraindik ez direla amaitu eta “lanak amaitutakoan, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan zehar, ikasleak sartuko direla pixkanaka, 15 ikasleko taldea osatu arte. Era berean, Osakidetzako langileak sartuko dira”.
- Unitate hauetan artatuko diren adingabeen ezaugarriei dagokionez, hau adierazten du Sailaren erantzunak: “Terapia- eta hezkuntza-esparruek hezkuntza-ingurunean, buruko gaixotasun larriarengatik, gutxieneko arrakasta-bermearekin parte hartu ezin duten eta tratamendu terapeutiko trinkoa eta berariazko hezkuntza-erantzuna koordinatuta behar dituzten ikasleei laguntzea du helburu. Osasun eta hezkuntza sareko profesionalek adostu behar dituzte sartzeko irizpideak, baita arreta eta jarraipena ere. Horregatik, adimen atzerapena duten ikasleak eta toxikoak kontsumitzen dituzten ikasleak ez lirateke barne hartuko; horiek beste era bateko neurri eta baliabideak behar lituzkete”.

Honako alderdi hauek nabarmen ditzakegu Osasun Sailaren erantzunean:

- 2006-2007 ikasturtea amaitu zenetik (La Olaren instalazioetan) lokal berria ireki arte (Ortuellan), La Ola zentrora bideratutako osasun talde berberak Uribe-Kostako haur eta gazteen buru osasuneko zentroan artatu ditu adingabeak.
 - Osasun Sailaren eta Hezkuntza Sailaren arteko lankidetzak-hitzarmen berria (2000. urteko La Ola zentroa sortu zuenaren ordezkari EHAA, 2000-11-30) ebazpen fasean dago oraindik, eta 2008an sinatzea aurreikusten da.
 - Oraingoan, bere horretan mantentzen dira oinarritzko datuak: eguneko zentroko 10 plaza; hiru profesional Osasun Sailaren mendeko osasun taldean; talde honen arreta alta ondoreneko eta barnerratu aurreko jarraipen kontsultetan ere (25-30 adingabe inguru).
 - Kasu honetan ere arreta berezia eskaintzen zaio artatutako biztanleen ezaugarriak zein diren edo zein izango diren argitzeari. Horrela, hau adierazten du:
- Artatutako biztanleek lankidetzak-hitzarmena prestatzean oraindik zehaztu gabeko baldintza batzuk bete behar dituzte, baina, gain-gainetik, irizpide hauei egokitu zaizkie:
- 8 eta 16 urte bitarteko adina.
 - Zentro arrunt batean matrikulatutakoak.

- Buruko patologia larria.
 - Familiar, gizartean eta hezkuntzan egokitzeko zailtasun handia.
 - Koadro defizitario larrik edo adikzioei loturiko arazorik ez izatea.
 - Gurasoen edota legezko erantzuleen berariazko baimena.
 - Balorazio Batzordearen erabakia.
- Zentroko zuzendaritza terapeutikoaren erantzukizuna ezarritako mediku psikiatrari dagokio.
- Arabako eta Gipuzkoako terapia- eta hezkuntza-zentroei dagokienez, hau da Osasun Sailak emandako informazioa:
- ARABA. Araban oso aurreratuta dago Gasteizko terapia- eta hezkuntza-zentroaren sorrera. Hezkuntza Sailak 2008ko lehen seihilekorako inauguratuko duela aurreikusten da. Ildo horretan, Gasteizko haur eta gazteen buru osasuneko taldearekin eta Arabako ospitalez kanpoko buru osasuneko gerentziarekin koordinatzeko aurretiko akordio bat dago baliabideak behar bezala hornitzeko, hitzarmena sinatu eta zentroa inauguratu ondoren.
- GIPUZKOA. Gipuzkoan, Hezkuntza Sailaren eta Osakidetzaren arteko hartu-emanek oraindik ez dute hezkuntza- eta terapia-zentro bat sortzeko baterako proiekturik mamitu. Aurrez egin dira bilerak haur eta gazteen batzorde sozio-sanitarioaren bidez era honetako proiektuak eta Hezkuntza Sailarekin egindako proiektuak, orain berrikuste fasean daudenak, sustatzeko.

Azkenik, Osasun Sailak gure erkidegoan haur eta gazteen buru nahasteei arreta emateko baliabiderik eza baloratzeko gure idazkian azaldu genion gaiari heldu dio. Eta hau adierazi du:

“Une honetan, Osasun Saila eta Hezkuntza Saila biztanle talde honen osasun eta hezkuntza-premiei erantzuteko legegintzako zein laguntzako ekimenetan mamitzen diren estrategiak garatzen ari dira.

Garapen fase honetako egoera, osasun ikuspegitik, kontrolatuta dago eta zehaztuta dago zein izango diren premia horiek erabat estaltzeko izango ditugun aurreikuspenak, baliabideei eta lan ildoei dagokienez. Zentroetan erabilgarri dauden plazen kopurua 8 eta 16 urte bitarteko 1.000 biztanleko 0,40ko biztanle tasari egokitzen lan egiten ari da, eta plazen eta baliabideen gehikuntza etengabea izango da lan taldeak hobeto egokitu eta garatzeko”.

Horrela, jasotako azken informazioa ikusita, eta guk adierazitako puntuei dagokienez, hau ondoriozta daiteke:

- Aurreko ikasturteetan La Olan emandako zerbitzuari Ortuellan eman zaio jarraipena, antzera eta, orain arte behintzat, artatutako adingabeen kopuruak gora egin gabe (10-15).
- Araban eta Gipuzkoan terapia- eta hezkuntza-zerbitzuak sortze aldera, egin dira zenbait urrats, kasuaren arabera adostasun edo zehaztasun maila handiagoz ala txikiagoz, baina martxan jartzera iritsi gabe.
- Gai honi dagokionez, Hezkuntza eta Osasun sailek ez dute oraindik beste lankidetzak hitzarmenik sinatu.
- Ez da erraza premiak edo erantzunaren egokitasuna baloratzea, izan ere, besteak beste, artatu beharreko biztanleen ezaugarrien edo irizpideen arabera izango da, eta horiek ez dira beti argiak izaten edo bat etortzen.

Nolanahi ere, etorkizun hurbilean jarraipena egin beharra ekarriko duten aukerak iradokitzen dira (lankidetzaz-hitzarmenak sinatzea edo baliabide berriak sortzea).

Azkenik, aipatu nahi dugu erakunde honek, batzuetan kexa bidez eta beste batzuetan elkarrean munduarekiko harremanaren bidez, urte honetan familien plataformak haur eta gazteentzako psikiatriako espezialitatea sortzeko eginiko eskaria bezalakoak jaso dituela eta zenbait familiak Arartekora jo dutela, beren seme edo alabaren adina edo gaixotasuna tarteko, sistemak ez zuelako beren premiei behar bezala erantzuteko modurik, eta, beraz, lurralde horretatik edo EAetik kanpoko beste baliabide batzuetara jo behar izaten zutelako.

7) **Atxilotutako adingabeak. Adingabeekin zerikusia duten poliziaren jarduerak**

Aurreko urteetan bezala, honetan ere, atxilotze lekuetara bisitak eginda, arreta berezia eskaini diegu atxilotutako adingabeek Ertzaintzaren zein Udaltzaingoaren komisariatetan izaten dituzten baldintzei.

Ildo horretan, eginiko azken bisitetan, komisaria batzuetan berariaz adingabeen atxiloaldirako prestatutako lekurik ez dutela egiaztatu ahal izan dugu. Azken bi urteetan eginiko bisiten arabera, Ertzaintzak Deustun duen komisarian bakarrik dago horrelako leku bat eta, beraz, hor bakarrik betetzen da gomendioa.

Baina aurreko txostenetan landutako gai horretaz aparte, azken urteetan hainbat ekimen egin ditugu adingabeekiko tratua eta poliziaren jardueraren inguruan. Zenbaitetan, poliziaren tratua desagokoa izan dela azalduz jasotako kexei erantzunez; beste batzuetan, ofizioz, adingabeen harrera-zentroetara egin ditugun bisiten haritik jasotako informazioaren aurrean.

Hemen, ikerketaren xede izandako gaiak gogora ekartzera eta haien inguruan ohar edo hausnarketaren bat egitera mugatuko gara.

- Askotan, poliziak adingabeekin izaten duen esku-hartzea horiek polizi bulegoetatik harrera-zentroetara eramatea (bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan, esaterako), edo zerbitzu batzuetatik beste batzuetara (barneratze zentro batetik epaitegira edo osasun arretako zerbitzuetara) eramatea izaten da. Lehenengo egoerari dagokionez, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko ezohizko txostena tarteko eta, batez ere, Gipuzkoan lortutako informazioaren haritik eta Urnietako larrialdietarako harrera-zentrora nahita eginiko bisitaren ondoren, erakunde honek ofiziozko jarduketeki ekin zien Ertzaintzaren eta hiru probintzietako hiriburuetako udaltzaingoen aurrean. Jarduketa horien emaitzen berri eman genuen 2005. urteko txostenari dagokion atalean, eta jarduketa irizpide argiagoak ezartzeko premia planteatu genuen. Adingabeak barneratze zentroetatik beste zerbitzu batzuetara –epaitegietara edo osasun zentroetara, kasu– eramateari dagokionez, zentro horietara aldizka eginiko bisiten bidez jarraipena egin dugu, eta gaia landu dugu hezitzaileekin eginiko bileretan eta adingabeekin eginiko elkarrizketa batzuetan.
- Polizi bulegoetatik kanpo agenteek eginiko jardueretan gehiegizko indarra erabiltzearen edo poliziak tratua desagokoa ematearen inguruan jasotako kexak

ere aztertu dira. Urtero aldatzen dira kexa horiek, bai kopuruari dagokionez, bai azaltzen dituzten gaietarako: adingabea denbora luzez atxikitzea; gurasoei atxilotetaren berri ez ematea; polizi atestatua edukia ezagutzeko aukerarik ez ematea; indarraren gehiegizko erabilera; lehen begiratuan halakorik justifikatzeko garrantzi penalik gabeko jokabideengatik atxilotzea; atxilotutako adingabeari buruzko datu pertsonalak ezeztatzearen inguruko bermeak, etab. Beste batzuetan, kexak ez ziren poliziaren esku-hartzeari buruzkoak, baizik eta, esate baterako, “kale-zurruta” deiturikoaren ondoriozko eragozpenen aurrean duten inibizioari buruzkoa.

Aurreko urteko txostenean esan bezala, gutxi izan ziren gai horren inguruan 2006an jasotako kexak. 2007an, aldiz, poliziaren tratu desegokia edo agenteek gehiegizko indarra erabili izana salatzen zuten kexa gehienak, bitxia bada ere, Ertzaintzak hainbat inguruabarretan adingabe eta gazteekin eginiko jarduketan ingurukoak izan dira.

Horietako batzuen berri eman dugu txosten honetan bertan (ikus Herrizaingoaren arloa). Egiazta daitekeen bezala, agente esku-hartzaileek tratu desegokia (kolpeak, polizi dispositiboaren parte zen zakurraren hozkadak, etab.) izan den manifestazioetako edo gertaeren lekuko izandako pertsonen ezarritako trabak bezalako gaiak azaltzen dituzte.

- Kexatzeko beste arrazoi bat eskolako jazarpen kasuetako polizi ikerketa edo, zehatzago, berdinen arteko jazarpenagatiko edo tratu txarragatiko salaketak direla eta poliziak hezkuntza-zentroetan izaten duen esku-hartzea izan da zenbaitetan.

Ikasleen arteko jokabide jakin batzuk judizializatzeko gaia aztertu genuen *Bizikidetzaren eta gatazka ikastetxeetan* gure ezohizko txostenean eta, txosten horretako gomendioetan azaltzen den bezala, jarraipena egin behar da horren ondorioak baloratzeko.

Ildo horretan, 2007. urtean, Arartekoak ikastetxeetako bizikidetzaz eta gatazkez antolatutako foroan –herritarrek parte hartzeko aukera zutela–, instantzia judizialeko zein Ertzaintzako pertsonak gonbidatu ziren, eta parte hartu zuten.

- Arartekoak aztertutako beste gai bat polizi iturriek atxilotutako adingabeei buruz eman dezaketen informazioa izan da. Erakunde honek berariazko gomendioak egin ditu gai horren inguruan.

Ildo horretan, bereziki larria iruditu zitzaigun 2005. eta 2006. urteetan ikertutako kasu bat: Ertzaintzak bakarrik zeuden adingabe atzerritar batzuk atxilotu zituen, haien inguruko polizi informazioa zabaldu zen, eta hori presio elementu gisa erabili zen Langraiz Okan egin asmo zen harrera-zentroa irekitzea baztertzeko.

2006. urtean amaitutako ikerketa horren laburpen zabalak egin zen urte horretako txostenean (ikus I. atala, Herrizaingoaren arloa).

Erakunde honen irizpidearen arabera, Herrizaingo Sailak ez zituen datuak jakinarazi behar, eta Udaleko alkateak ez zituen eskatu behar. Hortaz, Arartekoaren esku-hartzea ekarri zuten gertaera zehatzek atzera bueltarik ez zuten arren, Herrizaingo Sailari eta Udalari halakorik berriz ez gertatzeko beharrezko neurriak har zitzatela eskatu zitzaizkien.

Orain aztertutako gai batzuei dagokienez, azken urtean gauzatutako beste bi ekimen aipatzea komeni da:

- Tolosako ertzain-etxea bisitatu zen, bakarrik dauden eta udalerrri horretako zentroan hartu dituzten adingabe atzerritarren inguruko esku-hartzeak aztertzeko eta datuak eta polizi balorazioak jasotzeko berariazko helburuarekin.
- Barneratze itxian dauden bost adingaberekin bilera egin zen, besteak beste, beren esperientzien berri izateko eta hainbat egoeratan, komisariako atxiloaldian zehar eta poliziaren zaintzapean barneratze zentrotik edo barneratze zentrorako eginiko lekualdaketetan, poliziaren aldetik izandako tratuaz egiten duten balorazioa ezagutzeko.

Ekimen horietako lehenengoaren eta haren emaitzen laburpena egin da txosten eta kapitulu honetan bertan (ikusi “Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak” azpiatala). Bigarrenaren laburpena ere egin da, “adingabe arau-hausleak” azpiatalean. Egiazta daitekeen bezala, azken kasu honetan, adingabeen (batzuk askotan atxilotu dituzte) ahotik zuzenean jasotako informazioa beti ez dator bat komisarietara egindako bisitetan polizi iturrietatik jasotakoarekin, komisarian egindako denbora eta biluzaraztea bezalako alderdiei dagokienez.

8. Eskolako tratu txarreko edo jazarpeneko egoerak

Aurreko urteko txostenean adierazi genuen, Arartekoak maiz esku hartu beharra izan duen adingabeen inguruko gai bat nabarmentzekotan, aurreko urteekin alderatuta, eskolako jazarpena aipatu behar zela, zalantzarik gabe.

Alde batetik, 2006. urtean zehar bizikidetzari buruzko azterlana egin zen Bigarren Hezkuntzako zentroetan; 2006ko abenduaren 19an eman eta argitaratu zen *Bizikidetzak eta gatazkak ikastetxeetan* txosten bereziaren funtsezko oinarria izan zen. Azterlan horren laburpena eskaini zen urteko txostenean. Horrela, nolabait, bi urte lehenago herritarrek parte hartzeko II. foroarekin eta gure erkidegoko Bigarren Hezkuntzako 80 zentrotako ikerketarekin hasitako prozesua amaitu zen. Txosten horretan zehatz-mehatz aztertutako gatazketako bat –bakarra ez den arren– eskolako jazarpena edo berdinen arteko tratu txarra zen. Baina, azterlana bera alde batera utzita, azken urteetan, asko izan dira erakunde honetan jazarpen egoeren edo bestelako tratu txar moten inguruan jaso ditugun deiak, kontsultak, bisitak eta kexak, formalak zein informalak.

Gehienak beren seme-alabei eragiten dieten gertakariak estututako gurasoen aldetik heldu zaizkigu. Gertakari horien aurrean, beren ustez, ez zen ezer egiten ari, edo oker jarduten ari ziren, ez behar bezala. Beste batzuetan, arazoak konpontzen ez zirela ikusita, gurasoek beren seme-alaba ikastetxez aldatzea erabakitzen zuten eta, hala ere, hori lortzeko zailtasunak topatzen zituzten.

Bestalde, jazarpena jasan duten ikasleen deiak edo kexak ere izan ditugu, beren egoera azalduz, baita jada helduak diren pertsonen kexak ere –barrena husteko, eta beste batzuek gauza bera jasan ez dezaten eskatzeko–, ikasle izan ziren garaian jandako sufrimendu edo jazarpenen berri emanez; urtetan gordetako informazioa, orain adierazten ausartzen ziren.

Aurrez adierazi izan dugun bezala, problematika konplexua da, zalantzarik gabe, eta ez da batere erraza jarrera orekatuei eta, aldi berean, eraginkorre eustea.

Hala ere, atentzioa ematen dute, askotan, jazarpen egoerak direla-eta erakunde honetara jotzen duten pertsonen helarazten duten estutasunak eta kezak; beren ustez, aurrez izan diren instantzietan ez diete merezi adinako garrantzirik ematen beren kexei, edo inola ere nahikoak ez diren erantzunak ematen dizkiete, edo ez dute ezer egiten arazoaren aurrean.

Kasu horietan guztietan, erantzun pertsonalizatua eta arazoarekiko proportzionala ematen saiatu gara beti, kasuak erakunde egokienetara bideratu nahian: oso kasu larriren batean, baita sistema judizialera ere; baina, gehien-gehienetan, hezkuntza-sistemara bertara eta baliabideetara (ikastetxea; ikuskaritza; laguntza-zerbitzuak; berariazko Bizikidetzeta programa, etab.), horrelako arazoei erantzun egokiak eman diezazkieketenak eta eman behar dizkietenak horiek direlakoan.

2006ko txostenean, azpial honetan bertan adierazten genuen, kasu bakoitzean beharrezkoak diren esku-hartze zehatzetatik aparte, aipaturiko txostenean eginiko gomendioak aplikatzeak hautemandako arazo asko konpontzeko eta eraginkortasun handiagoz esku hartzeko balio izango zuela eta, nolana ere, hurrengo urteetan gai horren berariazko jarraipena egin behar izango zela uste genuela.

Balorazio horien arabera, Ararteko erakundeak, 2007. urtean zehar, hainbat ekimen gauzatu ditu. Besteak beste, honako bost hauek nabarmenduko ditugu:

- 1) **Herritarrek parte hartzeko** beste **foro** bat antolatzea; 2007ko maiatzean egin zen, eta **ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei buruzkoa** izan zen. Txosten honetan bertan foro horri buruzko informazio sintetikoa bildu dugu (ikusi V. atala) eta, laster, foro horri buruzko argitalpen monografikoa egin eta ikastetxe eta hezkuntza-zerbitzu guztietara bidaliko dugu.
- 2) Hainbat hezkuntza-agenterekin gai honi buruz egindako **konferentziak eta bilerak**, batzuetan Arartekoaren beraren ekimenez (azterlanean parte hartu zuten 80 zentroetako zuzendaritza-taldeei deituta, adibidez) eta beste batzuetan, berriz, beste batzuen ekimenei erantzunez (adibidez, laguntza-zerbitzuak, udal instantziak, unibertsitateak edo profesionalen elkargoak). Ildo horretan, aldi-zkari pedagogikoetan gai honi buruz argitaratutako artikuluak ere aipatu behar dira.
- 3) Tratu txarren edo bizikidetzako arazoen atzean dauden oinarritzko gaietako bat sakondu ahal izateko **beste ikerketa bat** abiaraztea: **balioak**. 2007. urtean zehar, Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako ikasleei balioak helarazteari buruzko berariazko azterlan bati ekin zaio, eta laster beste txosten bat egingo da.
- 4) Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako **material interaktiboa** berriz argitaratu eta zabaltzeko eginiko urratsak; “**ziberbullying**” terminoaren bidez adierazten diren eskolako jazarpeneko beste modu batzuei helduko zaie bertan, arriskuak saihestu eta haien aurrean defendatzeko gaitasuna handitzeko asmoz.
- 5) **Bizikidetzeta eta gatazkek ikastetxeetan** hizpide duen txosteneko **gomendioak betetzeari buruzko jarraipena** egiteko Hezkuntza Sailari zuzendutako ofiziozko lehenengo espedientea izapidetzea.

Ekimen horietako batzuei buruzko informazioa eman dugu txosten honetako beste azpiatal batzuetan. Hemen, Hezkuntza Sailaren erantzunetik eta lurralde bakoitzean aipaturiko azterlanean parte hartu zuten Bigarren Hezkuntzako zentroetako zuzendaritza-taldeetako kideekin egindako bileretatik ateratako informazioaren zati bat jasotzera mugatuko gara.

1) Bigarren Hezkuntzako zuzendaritza-taldeekin egindako bileretan jasotako ekarpenak

2007ko maiatzean lurralde bakoitzean Arartekoak deitutako bilerak egin ziren, eta ikastetxeetako bizikidetzari buruzko txostenari bide eman zion ikerketan parte hartu zuten Bigarren Hezkuntzako 80 zentroetako zuzendaritza-taldeak gonbidatu ziren.

Bilerek helburu bikoitza zuten: alde batetik, txostenaren oinarrizko alderdiei buruzko informazio zuzena ematea (aurrez ikastetxe guztietara bidali zena); eta, beste alde batetik, taldeen ekarpenak jasotzea, zuzenean. Ekarpentako batzuk azalduko ditugu hemen, labur-labur:

- Esku-hartze asko gizarte inguruaren eta eskola-esparruan duten eraginaren ingurukoak ziren, baita bizikidetzaren gaian ere.
- Familielikiko harremana, haiek parte har dezaten lortzeko zailtasunak, haietako askoren permisibitatea, gurasoek beren seme-alaben jokabidean duten eragina, ardurak eskolaren gain uztea, etab. bileretan etengabe planteatu ziren gaiak dira, eta txostenean bereziki kezkgarritzat jotzen genuen familien eta irakasleen arteko talka indartzen zuten.
- Ekarpentatik batzuk gure txosteneko gomendio bat edo beste aplikatzeko zailtasunean zentratu ziren (adibidez, talde-gela bakoitzean esku hartzen duen irakasle kopurua murriztea edo tutoretzekin jarraitzea, etab.). Ildo horretan, esku-hartzeek, askotan, agerian uzten dituzte ikastetxe batzuen eta besteen arteko alde nabarmenak.
- Sistema judizialaren edo komunikabideen salaketan edo esku-hartzearen aurrean, ikastetxearen edo irakasleen babesgabetasuna sortzen da nahikoa maiz. Ildo horretan, prestakuntza, aholkularitza juridikoa, laguntza, etab. eskatzen da. Batzuetan, baita nora jo edo nori galdetu behar zaion ere. Batzuetan, oso zehatzak izaten dira proposamenak: adibidez, gai hauen gaineko prestakuntza ematea zuzendaritza taldeetako kide guztiei, eginkizun horiek betetzera behartutakoei barne; edo tutoretza-lanerako prestakuntza, edo gurasoekiko lanerako, etab.
- Gai hauetan esku hartzen duten alde guztien arteko koordinazio handiagoaren premia ere planteatzen da.
- Txostenari berari buruzko balorazioak ere jaso dira eta, oro har, oso positiboak izan dira: eskertzen da sentsazionalismoa saihestu izana, adibidez, edo “Arartekoa gutaz kezkatzea”, etab.

Bileretan eta hamar puntuko idatzizko inkestaren bidez ikastetxeetan txostenarekin egindako erabilerari buruzko informazioa bildu nahi izan da. Are gehiago, parte hartu zuten 80 ikastetxeek txosten orokorrak gain (ikastetxe guztiek bezala), aurrez, beren ikastetxeak lortutako emaitzak biltzen zituen berariazko txostena jaso zutela kontuan hartuta.

Jasotako informazioaren arabera, txosten hauei erabilgarritasun handiena eman dieten ikastetxeak bizikidetzari berrikusteko edo hobetzeko dinamika zeukatenak izan

dira. Ildo horretan, ikastetxearen txostenak eta txosten orokorrak eztabaida aberasteko informazioa edo proposamenak zekartzaten.

Datuak aztergai izan zituen foroari edo instantziari dagokionez (galdera-sortako galdera baten xedea), ikastetxe gehienek zuzendaritza-taldean bertan izan zela erantzun dute. Batzuek bizikidetza-batzordea ere aipatzen dute, eta pare batek gurasoekin egindako bileretan eztabaidatu zirela aipatzen du. Nolanahi ere, galdera-sortari erantzun diotenen kopurua ez da nahikoa ikastetxe guztiak ordezkatzeko.

2) Hezkuntza Sailak emandako informazioa

Adierazi bezala, 2007. urte amaieran, lehenengo informazio eskaera egin zitzaion Sailari, gomendioak betetzearen gaineko jarraipena egiten hasteko.

Arartekoaren txostenak 28 gomendio egiten ditu, eta horiek betetzeko, gehienetan, Sailak aktiboki esku hartu behar du. Hala ere, alde batetik, igarotako denbora (ia urtebete) eta gomendioen zabalatasuna eta, beste alde batetik, gai honen inguruan Sailak eginiko jarduketa eta ekimenak kontuan hartuta, hobeto iruditu zaigu, oraingoz, informazio globalaren eskaera irekia egitea, 28 hobekuntza-proposamenetako bakoitza zehaztu gabe. Horrela, gomendioen eta abian diren programa eta ekimenen argitan, Sailak berak espedientearen xederako beharrezkotzat jotzen zuen informazio zehatza helaraz ziezagun utzi genuen.

Sailaren erantzuna, 2008ko urtarrilaren 28an jasotakoa, “Bizikidetzarako, Bakerako eta Giza Eskubideetarako heztea” izenburua duen dokumentu zabalean datza. Izenburuak berak aditzera ematen duen bezala, ikastetxeetako bizikidetzarekin eta gatazkekin lotura estua dutenak baino askoz ere gai zabalagoak biltzen ditu. Hain zuzen ere, lehenengo zati osoan, 2007-2010erako Sailaren esparru globala eta hezkuntza-politika eskaintzen ditu; bertan kokatzen dira hainbat helburu eta lehentasunezko jarduteko ildo, programak eta ekintzak.

Besterik gabe, hemen jaso ditugu adierazitako hiru printzipio eta ardatzak:

- Inklusibitatea (denentzako eskola bat)
- Kalitatea (eskola hobea)
- Etorbizuneko ikuspegia (XXI. mendeko gizarteko eskola)

Hain zuzen ere, bigarren ardatzean (“eskola hobea”) ezartzen da lehentasunezko ildo gisa “Bizikidetzara eta hezkuntza-erkidegoa” eta “Bizikidetzarako, bakerako eta giza eskubideetarako heztea” programa.

Ildo horretan, “ikastetxeetan eskubideetan eta betebeharretan eta pertsona guztien duintasunaren errespetuan, jokabide prosozialak eta gatazken eraldaketa etikoa sustatzen dituzten irizpide hezitzaile eta barneratzaileetan oinarritzen diren harremanak eraikitzea” da ezarritako helburua.

Hortik abiatuta, bost helburu orokor eta, horietako bakoitzerako, ekintza (15) eta adierazle (22) batzuk jartzen dira.

Dokumentuaren amaierako zatian (“Bizikidetzarako, Bakerako eta Giza Eskubideetarako heztea programako 2007/2008 ekintzak eta Arartekoaren gomendioekin duten lotura”), Sailak bere egiten ditu Arartekoaren txosteneko hobekuntza-asmak edo gomendioak. 2000. urteaz geroztik bizikidetzara hobetzeko lanean ari dira esplizituki, programa zehatzen bidez; beharrezkotzat jotzen du Sailaren lehentasunezko informazio

bideak berrikusi eta optimizatzea; bizikidetzaren hobekuntzan arrakastaz lan egitea lortzen ari diren ikastetxeen ekimenei berriz heltzearen garrantzia nabarmentzen du, ezagutarazteko eta sektore guztietatik sustatzeko; eta, azkenik, ondorengo taulak ematen ditu, helburuak eta gure txosteneko gomendioekin aurreikusitako ekintzak zerrendatuta:

| 1. HELBURUA ETA BIZIKIDETZA, BAKE ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZTEA PROGRAMAKO EKINTZAK | ARARTEKOAREN TXOSTENENKO GOMENDIOAK |
|--|--|
| <p>1. helburua: ikastetxean Bizikidetzako Behatokia sortzea eta Urteko Bizikidetzeta Plana lantzea.</p> <p>Ekintzak:</p> <p>1.1 Urteko Bizikidetzeta Plana (UBP) egiteko gida bat lantzea eta Bizikidetzako Behatokia sortzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gidaren behin betiko diseinua • Argitalpena eta hedapena <p>1.2 Ikastetxean Bizikidetzako Behatokiaren sorrera bultzatu eta errazteko orientabideak ematea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proposamen dokumentua • Estatuko Behatokian parte hartzea <p>1.3 Prozesuoi ekiten dieten ikastetxeei jarraipena egitea eta laguntza ematea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ordu kreditua ematea (irak. erdia) 107 ikastetxeetarako. • Etengabeko laguntza eta heziketa Berritzeguneko mintegietatik, monografikoak. • Garatu heziketa-eskaintza. | <p>1. Ikastetxeek bizikidetzeta hobetzeko programa eta planetan parte har dezaten sustatzea. Praktika onak hedatzea, esku hartzeko programak zabaltea, behin horiek ebaluatuta eta eraginkortasuna egiaztatuta.</p> <p>2. Ikastetxeei laguntzea baliabide, aholku, irakasleen heziketa eta tresna espezifikoek bidez, bizikidetzako planak aplikatzen lagun diezaieten.</p> <p>12. Bizikidetzako batzordeen funtzio eta paperak areagotzea. Sektore guztien parte-hartzea bermatzea.</p> |

| 2. HELBURUA ETA BIZIKIDETZA, BAKE ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZTEA PROGRAMAKO EKINTZAK | ARARTEKOAREN TXOSTENENKO GOMENDIOAK |
|--|--|
| <p>2. helburua: indarkeria-adierazpen guztiak aurkitzea eta ikasleengan gizartearen aldeko jarreraren garapena bultzatzen lagunduko duten hezkuntza-irizpideekin jokatzea.</p> <p>Ekintzak:</p> <p>2.1 ROFak berrikustea eta ikastetxearen antolakuntza zein arautegia eta zigorrak hezkuntza-irizpide hertsietara egokitzea. Horretarako ikastetxeek orientabideak izango dituzte ROF berrikusteko. Bere aldetik Ikuskaritzaren lana izango da ROFak hezkuntza-irizpidetan oinarriturik daudela egiaztatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko dokumentu bat egitea orientabideekin geroago eztabaidatzeko xedez. <p>2.2 Jarduteko protokoloak aplikatzea berdinaren arteko edo komunitateko kideen arteko indarkeria-egoerei aurre egiteko. Horretarako ikastetxeek protokoloak izango dituzte eta, urtero, protokoloaren erabilera eta balioespenari buruzko txostena egingo dute.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jarduteko protokoloak hedatzea. • Berdinaren arteko tratu txarrak salatzea ikasleentzat jarri den "Ikasle" buzoia jarraila egitea. <p>2.2 Estrategiak diseinatu eta praktikan jartzea gizartearen aldeko jarrerak garatzeko. Ikastetxeek tresna, estrategia eta erremintak izango dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dauden tresnak bildu eta hedatzea. • Multimedia tresna berrien zirriborroa egitea. | <p>5. Dauden jarduteko protokoloak berrikustea eta beste berri batzuk garatzea indarkeria-egoerarik hedatu edo larrienei aurre egiteko.</p> <p>6. Bizikidetzeta hobetzea eta edozein tratu txar errefusatzeko ikastetxe guztien lehenetsuneko helburu gisa.</p> <p>15. Ikastetxearen diziplinarik ezari buruz hitz egitea.</p> <p>17. Sektore guztiak elkarren errespetuaren garrantziaz eta harremanetan edozein indarkeria-mota baztertzeko kontzientziatzea.</p> <p>18. Edonoiz biktimari laguntza, babesa eta segurtasuna bermatzea.</p> <p>19. Erasotzaileekin berehala esku hartzea, edozein erasori tolerantzia zero mezu garden bat helaraziz.</p> <p>20. Bideak erraztea ikasleek tutore eta ikastetxeko arduraduneri informazioa helarazi ahal izan diezaieten.</p> <p>21. Egoerari buruzko segimendu jarraitu bat egitea eta ikertzeko edo zigortzeko prozedurak ez luzatzea.</p> <p>22. Berdinaren arteko jazarpena edo tratu txarrak antzematen diren egoeren aurrean jarduteko dauden aukera ezberdinen inguruko informazioa eta orientazioa ematea.</p> |

| 3. HELBURUA ETA BIZIKIDETZA, BAKE ETA GIZA EKUBIDEETARAKO HEZTEA PROGRAMAKO EKINTZAK | ARARTEKOAREN TXOSTENEN GOMENDIOAK |
|--|---|
| <p>3. helburua: gatazkak konpontzeko bidetik indarkeria kentzea eta menperatzea/men egitea harreman eredu gisa ezabatzea, bakerako eta indarkeriarik ezeko kultura sustatzeko xedez.</p> <p>Ekintzak:</p> <p>3.1 Ikastetxean bertan “Vivir y convivir saludablemente” 10 orduko moduluan trebatzea eta/edo bizikidetzari buruzko eta gatazkei aurre egiteko beste ekintza hezitzaile batzuk garatzea. Hiru urteren buruan ikastetxeen erdiek bizikidetzako heziketa-ekintzak egin izatea nahi genuke.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxean bertan “Vivir y convivir saludablemente” 10 orduko moduluan trebatzea, dagokion Berritzeguneko aholkularitzaren bidez. • Hurrengo ikasturterako modulua eta eskaintza berrikustea. <p>3.2 Ikastetxean eta ikasgeletan, gatazkei elkarrizketaren bidez aurre egiteko estrategiak era sistematiokoan abiaraztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Berritzeguneetan, gaiari buruzko tresnak eta esperientziak partekatzen dituzten mintegiak eta lantaldeak osatzea. • Saileko informazioa eta materialak trukatzeko plataforma digitalen jarraipena eta mantentze lanak egitea. • Garatu heziketa-ikastaroa. <p>3.3 Ikasgeletan lankidetzako metodologiak sartzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laguntza-zerbitzue praktika onen jarraipena eta balioespena egitea. • Garatu heziketa-ikastaroa. | <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikastetxeek bizikidetzaren hobetzeko programa eta planetan parte har dezaten sustatzea. Praktika onak hedatzea, esku hartzeko programak zabaltzea, behin horiek ebaluatuta eta eraginkortasuna egiaztatuta. 8. Banakako tutoretzen praktika hedatzea. 9. Taldeko tutoretzetan gizararen aldeko trebeziak era sistematiokoan lantzea. 10. Gela-talde bakoitzean parte hartzen duten irakasleen kopurua murrizten eta tutoretzetan egonkortasun handiagoa lortzen uzten duen antolakuntza ezartzea. 11. Ez ikasteko denbora eta guneak hezkuntzaren aldetik ikusi eta gainbegiratu direla bermatzea. 13. Curriculum eta metodologia bizikidetzaren ikasteko oinarriko osagai gisa egokitu eta erabiltzea. |

| 4. HELBURUA ETA BIZIKIDETZA, BAKE ETA GIZA EKUBIDEETARAKO HEZTEA PROGRAMAKO EKINTZAK | ARARTEKOAREN TXOSTENEN GOMENDIOAK |
|--|--|
| <p>4. helburua: giza eskubideak errespetatzea eta gizaru zuzen eta solidarioago bat eraikitzea aurrera egiten duten balio, jarrera eta praktikak sustatzea.</p> <p>Ekintzak:</p> <p>4.1 Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat gure herrialdeko egoera soziopolitikoari buruzko unitate didaktikoak lantzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • “Una sociedad que construye la paz” unitate didaktikoak lantzea. <p>4.2 Ikasleen parte-hartzea sustatzeko estrategia eta erremintak lantzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irailaren 21erako (Nazioarteko Bake eta Bizikidetzaren Egunerako) unitate didaktikoak, web eta blogen bidez. • Kartel, Logo eta Laburren II. Lehiaketa: “Personas diferentes, bellezas diversas”. • 2008ko irailaren 21erako ekintzen proposamena diseinatu eta aurreikustea. • Martxoaren 11ko erakusketaren dinamizazioa. <p>4.3 Gazteek Eusko Legebiltzarreko Gazteen Osoko Batzarrean parte hartzeko programazio eta dinamizazioa, gizarako gai garrantzitsu eta adierazgarriak hizpide dituztela, Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen gaia: “La juventud construyendo la paz en nuestra sociedad”. • Bigarren gaia: zehaztu gabe. | <ol style="list-style-type: none"> 7. Ikasleek zenbait gatazka kudeatzeko inplikazioa sustatzea. 14. Ikasle eta familien parte-hartzea areagotzea bizikidetasun arauak landu, aplikatu eta berrikustean. |

| 5. HELBURUA ETA BIZIKIDETZA, BAKE ETA GIZA-ESKUBIDEETARAKO HEZTEA PROGRAMAKO EKINTZAK | ARARTEKOAREN TXOSTENEN GOMENDIOAK |
|--|---|
| <p>5. helburua: bizikidetzako proiektu integralen esperimenterazioa sustatzea.</p> <p>Ekintzak:</p> <p>5.1 Hezkuntza-komunitate osoa barne hartuko duen udal edo auzuneko plan integral bat esperimenteratzea, beste gatazka batzuetarako estrapolagarria izan litekeena.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zamakola LHlko eta Ibaizabal Institutuko "La Peña, un barrio educa" proiektua. <p>5.2 Erakundeen arteko lankidetzako proiektuok sustatu eta ebaluatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zamakola LHlko eta Ibaizabal Institutuko "La Peña, un barrio que educa" proiektuaren koordinazioa eta ebaluazioa. <p>5.3 Hezkuntza-komunitatea ohartaraztea ikasketxeak baliabide pertsonal eta materialak erabili behar dituela bizikidetzako positiboa bultzatzeko xedez.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zamakola LHlko eta Ibaizabal Institutuko "La Peña, un barrio que educa" proiektua eta emaitzak hedatzea. | <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasketxeek bizikidetzako hobetzeko programa eta planetan parte har dezaten sustatzea. Praktika onak hedatzea, esku hartzeko programak zabaltzea, behin horiek ebaluatuta eta eraginkortasuna egiaztatuta. 2. Ikasketxei laguntzea baliabide, aholku, irakasleen heziketa eta tresna espezifikoaren bidez, bizikidetzako planak aplikatzen lagun diezaieten. 3. Bereizketa saihestea, heterogeneotasuna babestea eta laguntza berezia eta baliabideak eskaintzea arazoak batzen diren ikasketxei edo hori gehien paira dezaketen sektore ahulenei. 16. Informazioa jagoa, familientzako heziketa-ekintzak sustatzea, eta familia-eskola lankidetzako sendotzea. 26. Aldian aldiko jarraipena egiten uzten duten errealitatearen bilakaerari buruzko azterketak. 27. Esku hartzeko programen eraginkortasunari buruzko azterketak. |

Egiazta daitekeen bezala, asmo handiko jarduketara taula da, eta ebaluazio adierazleak jasotzen dira bertan; zehaztasun maila handiarekin, zenbaitetan.

Gure ustez, beraz, hemen laburtutako dokumentu hori oso baliagarria izan dakiguke etorkizuneko jarraipenerako.

9) Famili biltokiak

Aurten arreta berezia eskaini diogu familia-biltokiaren egoerari. Aurreko urtean jada jaso genituen hainbat kexa eta bilerak egin genituen elkarte ugariarekin biltokiaren problematikaren inguruan, denak ere Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Azaldutako arazoek, funtsean, honako hauekin dute zerikusia:

- Biltokiak kudeatzeko modua.
- Zerbitzuaren jarraitutasun bermeak.
- Segurtasun neurriak.
- Hainbat administrazio eta sailen konpromiso desberdina zerbitzuari eusteari dagokionez.
- Harrerako berariazko egoerarako biltokirik eza (harreraren hartutako adingabearen eta familia biologikoaren arteko harremana), etab.
- Zerbitzu horietako batzuk kudeatzen dituzten erakundearen objektibotasuna edo neutraltasuna, etab.

Arazo horietako asko zerbitzu horiek arautzen dituen oinarriko arautegirik ezaren ondoriozkoak dira, edo horrekin zerikusia dute, baita urte askoan izan diren zalantza ere, zerbitzu horiek arautu, antolatu edo emateko eskumena duen administrazioa edo horretarako eskumena duten administrazioak zein diren erabakitzeari dagokionez.

Urte honetara arte, Ararteko erakundeak gai honen inguruan gauzaturiko esku-hartzeen helburua Kidetzako elkarteak, Gipuzkoako Harrerako Familien elkarteak eta

banakako pertsona batzuek, emandako zerbitzuak gogobete ez dituelako edo irizpide jakin batzuekin kritikoak direlako, planteatutako gai ei erantzutea izan da. Halaber, genero indarkeria pairatu duten eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeen ACOVIDEM Gipuzkoako elkartearen bidez erakunde honetara jo duten emakumeek aurkeztutako kexak nabarmentzen dira; ez daude gustura Gipuzkoako familia-biltokien funtzionamenduarekin eta, beren ustez, ez dituzte behar adinako segurtasun neurriak eta bisiten gaineko behar adinako kontrola bermatzeko baldintzak. Elkarte honek Gipuzkoako biltokiak kudeatzen dituen erakundeak ematen dituen txostenen objektibotasun eza salatzen du bereziki; ez dira bisiten gaineko deskribapen kontakizunak jasotzera mugatzen; baloraziozko elementuak sartzen dituzte, eta hori erabakigarria izan daiteke seme-alaben zaintza finkatzeko orduan edo bisiten araubidea finkatzerakoan, banaketa edo dibortzio liskartsuetan.

Kexa horien aurrean, Gipuzkoako familia-biltoki horien antolaketa-sistema zein den ikertzeari ekin zion erakunde honek; zein erakunde kudeatzen duen edo duten, zein irizpideren arabera izan diren zerbitzu horren kudeaketaren esleipendun eta biltoki horiek kudeatzeko irizpide edo jarraibide jakinik ezarrita ba al duten. Horren guztiaren berri eman genuen aurreko urteko txostenean, azpiatal honetan bertan. Zerbitzu horiek arautzeko premia nabarmentzen genuen berriz ere. Gai honetan eskumena duen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak onartu behar du. Horren ordezkariekin bildu ginen.

2007. urtean zehar beste gertaera batzuk izan dira biltokien inguruan. Hauek nabarmen ditzakegu:

- Gipuzkoako funtzionamenduari buruzko kexa gehiago jaso dira.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko biltoki batean adingabe bat bahitu dute.
- Zerbitzu hauek arautuko dituen eta, besteak beste, zerbitzu horien baldintza

funzionalak eta materialak ezarriko dituen dekretuaren zirriborroa prestatu da.

Adingabearen bahiketari dagokionez, Ararteko erakundeak ofiziozko espediente bat ireki zuen, eta Bizkaiko Foru Aldundiari zuzendu zitzaion, batez ere, dauden edo har daitezkeen segurtasun neurriei buruzko informazio eske. Aldundiak informazio zehatzarekin erantzun zion espedienteari.

Dekretuaren zirriborroari dagokionez eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren gonbidapenari erantzunez, erakunde honetako langileek bilera egin zuten hango arduradunekin, eta bilera horrek iritziak trukatzeko eta artikulu batzuk aztertzeke balio izan zuen; erabiltzaileen eskubideei buruzkoak eta kexen xede izan ziren gai ei buruzkoak, bereziki.

Horrek guztiak gai honi modu sistematikoagoan heltzera bultzatu zuen erakunde hau. Hala, gaur egun gure erkidegoan dauden familia-biltokiak kontuan hartuta, Arartekoa honako administrazio hauei zuzendu zitzaien:

- Arabako Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Portugaleteko Udala
- Gasteizko Udala

Gipuzkoaren kasuan, Foru Aldundiaren erantzuna jaso ondoren -bertan esaten zigun ez zuela Kideztzak kudeatutako Irungo eta Donostiako biltokiei buruzko daturik-, elkarte horretara jo genuen zuzenean. Aurreko urteetan egin genituen haiekin zenbait

bilera. Era berean, Beroa harrerako familien elkartera jo genuen. Gipuzkoako beste biltoki bat kudeatzen du elkarte horrek.

Aurrera jarraitu eta eskatutako informazioa eta lortutako erantzunak zein izan diren adierazi aurretik, egoeren eta zerbitzu hauen ezaugarrien barietatea nabarmen dezakegu; aurrez adierazi bezala, hainbat administrazioen baitan daude, desberdin kudeatzen dira eta ez dute araudi komunik. Gai hauen eta beste batzuen ingurukoak izan ziren, hain zuzen, gure informazio eskaerak.

Funtsean, egoera bakoitzak eskatzen dituen aldaketekin, hau da familia-biltoki bakoitzari buruz eskatutako informazioa:

- Biltokirako aurreikusitako kokapena eta gaitasuna.
- Kudeaketa-sistema.
- Ea baden kudeaketan parte hartzen duen edo zerbitzuaren kostuaren zatiren bat ordaintzen duen beste administrazio edo erakunderik.
- Zerbitzuaz arduratzen diren profesionalen kopurua eta ezaugarriak (dedikazio osoetan kalkulatuta).
- Azken urte osoan (2006) artatutako adingabe eta erabiltzaileen kopurua eta ezaugarriak eta, datu gaurkotuak izanez gero, 2007an adierazitako data bitartean artatutako enak (ahal bada, sistema judizialeko kasuen kopurua edo proportzioa eta babes sistematiko kasuen kopurua bereizita).
- Zer segurtasun baldintza eskaintzen dituen biltokiak bertako instalazioei dago kienez.
- Zerbitzuaren jardura arautzen duen arau edo erregelamendurik ba al dagoen eta, izanez gero, zein den.
- Ertzaintzarekin edo Udaltzaingoarekin jardute edo koordinazio protokolorik ba ote dagoen kasu jakin batzuetarako.
- Zein kontrol edo gainbegiratze mekanismo erabiltzen diren araudia edo errege lamendua beteko dela bermatzeko.
- EAEko familia-biltokiak arautzeko Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak prestatutako dekretu zirriborroa ea ezagutzen den eta, hala bada, horren gaineko iritzia.
- Administrazio edo erakunde bakoitzaren esperientziaren edo irizpideen arabera, zeintzuk izan liratekeen, haren ustez, biltokietan konpondu beharreko arazo nagusiak edo egin beharreko hobekuntza nagusiak.
- Espedientearen xedearen inguruan beharrezkotzat jotzen duen beste edozein informazio (etorkizunerako asmoak, esaterako).

Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, gai hauen zati bat eta bereziki zerbitzuaren segurtasunaren inguruko alderdiak adingabearen bahiketarengatik hasitako eta aurrez aipatutako ofiziozko espedienteen bildu ziren.

Txosten hau egiten amaitutakoan, jaso dira dagoeneko Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Portugaleteko Udalaren erantzunak. Gipuzkoako biltokien kasuan, Aldundiaren daturik ezean, Kideztaren (bi familia-biltoki kudeatzen ditu) 2007ko memoriatik lortutako informazio partziala eta Beroa elkarteko ordezkariekin (beste familia-biltoki baten bultzatzailea) eta zerbitzu hauen erabiltzaileek osatutako ACOVIDEM (Etxeko Indarkeriaren Aurkako eta Adingabeen Defentsarako Elkarte) elkarrekin ordezkariekin eginiko bilerak izan ditugu.

Lortutako informazio maila, beraz, oso desberdina da kasu batetik bestera. Horrela, Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Portugaleteko Udalak eskatutako gai guztiei erantzun zieten, era guztietako datu eta balorazioekin, baita, zenbaitetan, dokumentu erantsiekin ere (funtzionamendu arauak edo jardueren memoria, adibidez).

Gipuzkoan, aldiz, adierazi bezala, Foru Aldundiak –informazio eskaera egin genion– erantzun zigun berak ez duela esku hartzen biltoki horien kudeaketan eta, beraz, ezin duela eskatutako datu eta informaziorik eman. Eusko Jaurlaritzak ere ez zeukan guk nahi genuen daturik eta, beraz, zuzenean elkarte bultzatzaileetara edo biltokiak kudeatzen dituztenetara jotzea erabaki genuen: Kidetza eta Beroa elkarteetara, alegia. Administrazioak ez direnez, ez dute gure datu eskaerari erantzuteko inolako betebeharririk. Horregatik, erantzunik jaso ez dugunez, eta txosten honen edukari amaiera eman behar genionez, urtarrileko azken egunetan haiekin harremanetan jarri ginen. Kidezkak Donostiako eta Irungo familia-biltokien 2007ko memoria helarazi zigun. Beroak, bestalde, gurekin bilera bat egin eta informazioa ahoz ematea erabaki zuen.

Erakunde honi gehien interesatzen zaizkion alderdien inguruan lortutako informazioa ondorengo sintesi taulan laburbil dezakegu:

| BILTOKIAK | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|--|---|--|--|--|---|---|
| | AFA | GASTEIZKO UDALA (bisiten unitatea) | BFA | PORTUGALETEKO UDALA | KIDETZA DONOSTIA | KIDETZA IRUN |
| Lokalen gaitasuna | Entregitarako gela bat eta bisitetarako beste bat | 2 arreta-gela (2008an zabaltea aurreikusten da) | (338 kasu irekita, 2007-11-30ean) | 4 arreta-gela | Dagozkien udalek lagatako lokalak | Alokatutako etxebizitzako 4 gela |
| Kudeaketa-sistema | AMAPASE elkarte. Zerbitzu kontratua | IRSE-EBI Kontratazioa | Bizgarri elkarte. Lehiaketa publikoa | Egintza elkarte. Administrazio kontratu berezia | Kidetzta elkarte | Beroa elkarte |
| Tartean den administrazioa (finantzaketa-iturria) | AFA (%100) | Gasteizko Udala (%100) | BFA (%100) | Portugaleteko Udala (%100) | - Irungo Udala: %4 - GFA: %31 - Eusko Jaurlaritzak: %26 - Beste batzuk: %39 | GFAren diru-laguntza |
| Profesional kopurua (dedikazio osoan) | 5 profesional (2.800 ordu/urte) | 3 profesional (2,5 dedikazio osoan) | 12 profesional (8,6 dedikazio osoan) | 4 profesional (3,5 dedikazio osoan) | 10 profesional (+7 boluntario) | Borondatezko langileak (3 pertsona) |
| 2006an artatutako adingabe kopurua | 51 kasu / 80 adingabe | 52 adingabe 1.038 bisita | 340 kasu 10.950 jarduketa | Artatutako 48 familia 702 truke Gainbegiratuak 176 bisita | - | - |
| 2007an artatutako adingabe kopurua | 44 kasu / 61 adingabe (2007-12-01ean) | 45 adingabe | 352 kasu (2007-08-31n) | 415 truke Gainbegiratuak 76 bisita (lehenengo 6 hilabeteetan) | 392 adingabe 196 kasu | 41 adingabe 590 bisita |
| Sistema judizialetik - babes sistematik datoen adingabeen %a | %43 - %57 | %80 - %20 | %70 - %30 | 2006 - %47 epaituak 2007 - %93 epaituak | %99 - %1 | %64 - %36 Babes sistemako ia guztiak |
| Segurtasun baldintzak | Araudia Publikoaren arretarako zerbitzua | - Poliziaren presentzia - Sartzeko kontrola - Behaketa-gela: norabide bakarreko isplua eta grabazio sistema | - Sartzeko kontrola - Babestutako leihoak - Patio hesitua eta gainbegiratuak | Udalaitzaren ondoan kokatua | - Ertzaintzarekin koordinatuzko protokoloa - Lankidetzaz-hitzarmena - Aldundi kasu-erako segurtasun zaindaria | - |

| BILTOKIAK | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | | |
|--|--|---|---|---|--|---|-------------------------------------|
| | AFA | GASTEIZKO UDALA (bisiten unitatea) | BFA | PORTUGALETEKO UDALA | KIDETZA DONOSTIA | KIDETZA IRUN | BEROA (bizikidetzaz- espazioa) |
| Araudia edo erregelamendua | Zentroaren funtzionamendu arauak | Araudi propioa (Udala) | Arau erregulazileak | Funtzionamendu arauak | Funtzionamendu arauak | Ez dago idatzizko araurik | Ez dago idatzizko araurik |
| Ertzaintzaren edo Udaltzaingoa jarduera protokoloa | Kontratatuakiko segurtasun langileak | Udaltzaingoa lankidetzan jarduteko protokoloa | Ertzaintzaren telefono zenbakia | Udaltzaingoa alerter-protokoloa | - | - | Ez (orain arte ez da beharrik izan) |
| Gainbegiraltze mekanismoak | GOFeko adingabearen eta familiaren ataleko koordinatzailea | - Haurrentzako zerbitzuaren jarraipena - Eguneko txostenak | Emakumearen eta familiaren zerbitzuak koordinatzea. Kexen postontzia | Udaleko Gizarte Ongizaterako ataleko koordinatzailea | Bat ere ez | Bat ere ez | Bisiten ikuskatzaileak |
| Dekretu zirraborra ezagutu eta baloratzea (alderdi eztabaidagarriak) | Balorazio positiboa | - Administrazio bakoitzaren antolatzeke autonomia errespetatzea | Dekretu bidez zuzenean kudeatzen diren zerbitzuak sortzeko Eusko Jaurlaritzaren eskumena | Eusko Jaurlaritzaren ekintza zuzenarekiko aldea | - | - | - |
| Araza edo hobekuntza nagusiak | - Epeak eta berrikuspunen judizialak - Familiarako trantsizioa (prestateta) | - Dekretu arautzailea - Justizia - Administrazioarekiko koordinazio protokoloa - Emakumea babesteko sistemekiko koordinazioa Erab. | - Epaitegietikiko koordinazioa hobetzea - Familia-biltozien arauzko erregulaziorik eza | Epaia judizialek tutoretzapeko bisitetarako ezartzen duten ordu kopuru handia | + Ekipamendu zaharra. + Erabilizaleek zailantzen jarri dute zerbitzuaren neutraltasuna. | + Lokalak handitzea + Langile profesionalizatuak - Hitzarmena (diru-laguntzarik ez) | |
| Beste batzuk | - Baliabide eta instalazioak hobetzea. - Programaren etengabe jarraipena - Laster aplikatzea. - Araudia | - Lokal handiagoetara pasatzea - Dekretuaren arabera etorkizuna - Familia-bitartekotzako zerbitzuekiko koordinazioa | - Etxeko indarkeria kasuen konplexutasuna eta gehikuntza - Arreta - familia-bitloki berri baten aurreikuspena (aurrekontua egin eta esleitu da) | | Gogobetetasunari buruzko galdere-sorta (86 erabilizale) | | |

Taula honek, edozein sintesik bezala, ez du biltzen jasotako informazio guztia, ezta gutxiago ere, baina elementu komunak eta alde nabarmenak hauteman ahal izateko ikuspegi orokorra eskaintzen du.

Elementu horietako batzuk nabarmenduko ditugu hemen. Horrela:

- Familia-biltokien **kokapenari eta gaitasunari dagokienez**, oro har, erdialdeko lekuetan, lagatako lokaletan edo Administrazioaren jabetzakoak diren lokaletan izaten dira, eta gaitasun oso aldakorrak izaten dituzte; pare bat arretagelatik hasi eta zerbitzu oso konplexuetara, funtzio edo egoera desberdinetarako gelekin, jolastokiekin, etab. Kasuren batean, Gasteizko Udalarenean, adibidez, egungo lokala ez da nahikoa eta beste zerbitzu zabalago bat irekitzea aurreikusten da. Bere aldetik, Beroa elkarteak kudeatutako “bizikidetzaz-espazioa” elkarteak berak alokatutako etxebizitza batean dago.
- **Tartean diren administrazioei eta kudeaketa-sistemei dagokienez**, zerbitzuaren arreta, kasu guztietan, elkarteren baten esku egoten da. Hala ere, administrazioaren inplikazio maila eta kostuak bere gain hartzeko konpromisoa erabat desberdina da: Araban eta Bizkaian, erabateko zuzentasunez hitz egin dezakegu administrazio arduradunek (aldundiak zein udalak) beren gain hartutako zerbitzu publikoek, nahiz eta elkarteek kudeatu, kontratu bidez. Gipuzkoan, berriz, oso erlatiboa da erakundeen konpromisoa eta elkarte bakoitzak diru-laguntzak eskatu behar dizkie instantzia desberdinei, zerbitzuak dakartzan gastuak ordaindu ahal izateko. Berez, Arartekoak biltokien inguruan egindako lehenengo esku-hartzea finantzatzeko eta lurralde horretako zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzeko arazoaren ondoriozkoa izan zen.
- **Profesionalei dagokienez**, taulak horien kopurua eta, zenbaitetan, beren dedikazioa besterik ez du jasotzen. Jasotako erantzunek kualifikazioari eta barne antolaketari buruzko datuak ere ematen dituzte (normalean, taldearen koordinazio edo zuzendaritza-funtzioak bere gain hartzen dituen kualifikazio handiagoko pertsonaren batekin). Puntu honetan ere desberdina da Gipuzkoaren egoera, borondatezko langileak hartzen baititu (Kidetzaren kasuan) edo halakoak bakarrik baititu (Beroa elkartearen kasuan, orain arte).
- **Artatutako adingabeen edo kasuen kopuruari dagokionez**, ohartarazi behar den lehenengoa datu horien balio erlatiboa da, konparaketa aldetik behintzat. Izan ere, beti ez dira antzeko kuantifikazio irizpideak erabiltzen. Taulak berak zenbait aldagarri erakusten ditu: kasuen kopurua; adingabeen kopurua; bisiten kopurua; jarduketan kopurua, etab. Zerbitzuaren memoriek askoz gehiago jaso ohi dituzte (banakapenak; familien kopurua; bitartekotzak; txostenak, etab.). Nolanahi ere, datuek erakusten dute baliabide horiek eskari handia dutela eta zerbitzu nabarmena eta geroz eta handiago ematen dutela.
- **Kasuak** familia-biltokietara **desbideratzeari dagokionez**, taulak bi eremu handitan sinplifikatu ditu: sistema judizialek eratorritako kasuak eta babes sistemetatik eratorritakoak. Oso deigarriak dira, ildo horretan, familia-biltoki batzuen eta besteen arteko aldeak. Horrela, sistema judizialek eratorritako kasuen proportzioa %43tik %99ra doa (Kidetzak Donostian kudeatutako familia-biltokiaren kasuan).

Horrela, bada, datuek adierazten dute “familia-biltoki” terminoaren atzean oso errealitate desberdinak eta artatutako premia desberdinak ezkututzen direla. Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenak, arreta espezializatuko familia-biltoki berri bat sortzeari dagokionez, hain zuzen ere, erantzun berezia eta babes egoeretara egokituagoa ematea du helburu.

- **Segurtasun baldintzak** ere askotarikoak dira:
 - Ia kasu guztietan badira arau batzuk, eta erabiltzaileei jakinarazten zaizkie.
 - Instalazioek askotariko segurtasun neurriak dituzte.
 - Oro har, hezitzaileak izaten dira adingabearen segurtasuna bermatzeko eginkizuna beren gain hartzen dutenak, bisitak dirauen bitartean bertan egonda edo beste nolabait. Batzuetan, beste pertsona batzuek hartzen dute gainbegiratzeko ardura.
 - Arrisku handiko kasu jakin batzuen aurrean hainbat formula ikus daitezke: ex profeso kontratatutako segurtasun langileak; Ertzaintzarekiko edota Udaltzaingoarekiko protokoloa edo harremanetarako telefonoa; poliziaren presentzia, etab.

Arreta ematen zuten Gasteizko Udaleko familia-biltokiko segurtasun neurriek (poliziaren presentzia, norabide bakarreko ispilua duen behaketa-gela, audio eta bideo grabazio sistema).
- **Gainbegiratzeko mekanismo** hedatuena, halakorik denean, dagokion zerbitzu publikotik jarraipena egitea edo koordinatzea da. Gipuzkoaren kasuan, ez dago eginkizun hori argi eta garbi bere gain hartzen duen erakunderik.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak familia-biltokiak **arautzeko** prestatutako **dekretu zirriborroari dagokionez**, erantzun diguten lau administrazioek ezagutzen dute eta, horrez gain, ekarpenak egin dituzte. Hala ere, horietako hiruk oso jarrera kritikoa dute harekin, eskumen alderdietan zentratuta. Sail horrek dekretu bidezko kudeaketa zuzeneko biltokiak sortzeko eta antolatzeko bere autonomia errespetatu dadin eskatzeko eskumena ba ote duen eztabaidatzen dute zehazki, nahiz eta inork ez duen zalantzan jartzen zerbitzu hauek arautzea komeni dela edo arautu behar direla. Beraiek eskatzen dute arautzea. Kritika hori eta aukera alternatiboa irmotasun handiagoz edo txikiagoz planteatu dezakete Gasteizko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Portugaleteko Udalak.

Azken paragrafo kualitatiboago bat zegoen gure informazio eskaeran, administrazio bakoitzak **arazoak** eta **hobekuntzak** bertan adierazi ahal izan ditzan, baita beste gai interesgarri batzuk azaltzeko aukera ere.

Planteatutako gai nagusiak honako ingurukoak dira:

- Baliabide eta instalazioak hobetzea (lokalak handitzea; zahartutako edo hondatutako ekipamendua berritzea; langile profesionalizatuak sartzera, etab.).
- Koordinazio sistemak hobetzea (sistema judizialarekin; tratu txarrak jasan dituzten emakumeak babesteko sistemarekin, etab.).
- Programen jarraipena hobetzea (egoera aldizka berrikustea; normalizatutako familia-bizitzarako trantsizio fasea hobeto prestatzea, etab.).

Azpiatal irekiago honetan ere, zerbitzu hauek arautzeko premiaren gaineko bat-etortzea ikusten da, nahiz eta ez Eusko Jaurlaritzak kudeaketa zuzeneko biltokiak sortzeko gaitasunari edo sortzea komeni izateari dagokienez. Nolanahi ere, lortutako datuek berretsi egiten dute egungo zehaztasunik eza gaindituko duen erregulazioaren premia.

Ildo horretan, eta Ararteko erakundeari dagokion eskubideen berme ikuspegitik, bereziki kezagarria dirudi Gipuzkoako biltokien egoerak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren inplikazio eskasagatik zein haietakoren baten funtzionamendua dela-eta jasotako kexengatik; zalantzan jartzen dute zerbitzu horiek izan behar duten neutraltasuna, eta beste zerbitzu batzuekiko behar adinako koordinazio eta segurtasun neurririk eza.

10) Beste egoera ahul batzuk

Aurreko azpiataletan laburbildu ditugu bederatzi adingabe taldeen edo, orain arte, berariazko arretaren xede eta, ia kasu guztietan, hainbat ezohizko txostenetako azterketaren eta gomendioen xede izan diren egoeren inguruan eginiko jarraipen jarduera nagusiak.

Bederatzi sektore hauez gain, azken urteetan, eta oso ekimen desberdinen bidez, Arartekoak arreta berezia eskaini die beste egoera batzuei edo bereziki ahulak diren taldeei. Batzuk ekarriko ditugu gogora:

- **Ikasle atzerritarrak eskolatzeko** baldintzei dagokienez, beka baten bidez, ikerketa-lana egin zen. Dagoeneko argitaratuta dago, eta horren berri eman genuen 2005eko txostenean: *“Mugarik gabeko eskola. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban”*.

Azken urte honetan, atal honetan bertan jaso den bezala, hezkuntza-premia bereziei buruzko txostenaren jarraipen esparruan, berriz aztertu dira etorkinen eskolatzeari buruzko datu gaurkotuak, joerak eta hobetu beharreko elementuak hauteman ahal izateko.

Gai honen inguruko etorkizuneko jarduketegi begira, agian, Inmigrazioko II. Euskal Plana bezalako esparru edo proposamen berriek Hezkuntzari buruzko atalean edo gai honi buruzko ez-legezko proposamenak, 2007ko martxoaren 15ean EAeko osoko bilkuran onartutakoak, dakartzaten aukerak baliatzea komeni izango da.

- **Ijito etniako adingabeen** eskolatzeari eta eskolako emaitzei dagokienez, harremanetan jardun gara ijito herriaren elkarteekin eta sektore horrentzako programak dituzten beste batzuekin, haiek antolatutako ekitaldietan parte hartu dugu, datu gaurkotuak eskatu dizkiogu Hezkuntza Sailari, eta sasoikako biztanleen jarraipena egin da; horien gehiengoak ijito etniakoak dira. Ildo horretan, alde batetik, hainbat elkartek eskolatzeari jarraitutasuna edo eskolako emaitzak sustatzeko eta baloratzeko gauzatu dituzten ekimenak nabarmen ditzakegu. Beste alde batetik, berriz, gure erkidegoko biztanle talde horren eskolako arrakasta-mailari buruzko datu fidagarri eta globalak lortzeko zailtasuna.

2007an argitaratutako azterlan orokor batzuek (Ijito Idazkaritzaren Federazioak argitaratutako eskolako emaitzak edo “Ikasle ijitoen sarbidea Bigarren Hezkuntzara” ikerketa, esaterako) erakusten dute oraindik alderdi asko daudela hobetzeko.

Txosten eta atal honetan bertan heldu diogu gai horri, aurreko azpiataletako bitan.

- **Sexu abusuko egoerei** dagokienez, arartekoak berak eta erakunde honetako langileek Save the Children-ek antolatutako adituen nazioarteko topagune bat, teknologia berriei loturiko abusuen biktima adingabeak identifikatzeari buruzkoa, egiten lagundu genuen eta bertan parte hartu genuen, baita duela gutxi adingabeei buruz eginiko topagunean ere.
- **Telebista saioei, Interneti eta jolas interaktiboiei lotuta, adingabeen eskubideei** dagokienez, Arartekoak bere proposamenak eta ekarpenak aurkeztu zituen beste defentsa-erakunde batzuekin batera, Defendatzaileen Koordinazioaren XX. Jardunaldiei begira, eginiko lan mintegian; ondorioen agiri bat adostu eta onartu zen bertan.
Gai hau aztertzen ari dira INTECOk sustatu duen –eta oraindik bidean den– lan batean, eta Arartekoak bere ekarpenak egin ahal izan dizkio.
Bestalde, atal honetako beste azpiatal batean adierazi bezala, Arartekoak adingabeek teknologia berriak modu seguruagoan erabiltzeko heziketa-materialen argitalpena abiarazi du.
- **Droga-kontsumo problematikoei** edo nerabeen eta hainbat drogaren arteko harremanari dagokienez, Ararteko erakundeak, Eusko Legebiltzarrak berak onartutakoaren ildotik, beste ezohizko txosten bat prestatzeari ekin dio 2007an.
- 2007. urtean zehar, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako programak edo baliabideak kudeatzen dituzten hainbat erakunderekin eginiko bileretan, normalean, baina baita kexa batzuen bidez ere, **pobreziari eta adingabeei** loturiko egoera kezkagarri batzuen berri izan da. Bereziki etxerik gabe dauden eta adingabeak dituzten familien kasuan edo baliabiderik ez duten, haur jaioberriak dituzten eta etxerik gabeko pertsonentzako gaueko harrera-zentroak beste aterperik ez duten emakume atzerritarren kasuan. Etorkizunean errealitate horren jarraipena egin behar izango dela iruditzen zaigu.

11) Egoera bereziki ahulei buruzko zenbait gogoeta orokor

Inoiz adierazi izan dugun bezala, aurreko eskema erabili izanak dakartzan arazo batzuk gogoraraztea komeni da, sektorez sektoreko informazioa eskainiz, eta sektore jakin batzuk bereizi eta “bereziki ahul” gisa kalifikatu behar dira. Horrela:

- Adingabeen sektore bat bereziki ahultzat hartze hutsak (edo, nahi bada, zehatzago, bereziki egoera ahulean dagoen sektoretzat hartzea) sektore hori gehiago

estigmatizatzeko arriskua dakar; beren gaineko arreta handitzearekin, beren arazoak are gehiago “problematizatzea”.

Gainera, pentsa liteke, sektore batzuk aipatzean eta besteak ez, haiek bakarrik daudela bereziki egoera ahulean. Gure kasuan, ulertu behar litzateke, arrazoi batzuegatik edo besteengatik, sektore hauei eskaini ahal izan diegula lehen-tasunezko arreta, baina horrek ez du esan nahi horiek bezain egoera ahulean dagoen beste sektorerik ez dagoenik (adibide batzuk ipintzearren: guk horren berri izan ez arren, familian tratu txarrak jasaten dituzten adingabeak; terrorismoaren biktimak diren adingabeak; gurasoak edo haietakoren bat espetxean duten adingabeak; ospitaleratutako adingabeak, etab.).

- Bestalde, aurreko txostenetan ohartarazi bezala, kolektibo horietako bakoitzaren egoera modu askean aztertzeak independenteak diren edo beren artean loturarik ez duten problematiken edo adingabe taldeen aurrean gaudela pentsatzera eramanez gaitzake. Baina ez da hala izaten. Askotan –geroz eta gehiago, ziur aski–, egun batean talde horietakoren batean agertzen den edo zerbitzu jakin batean topatzen dugun adingabea beste talde batean izaten da hurrengo egunean. Ziur aski, babes zerbitzuetatik datozen, arreta psikiatrikoko arazo larriak dituzten edo eskolatu gabe egon diren barneratze zentrotako adingabe arau-hausleen proportzio handia da horren adibiderik garbiena. Kapitulu honetan bertan eman ditugu horren gaineko datu adierazgarriak. Errealitate kezkgarri honek agerian jartzen du gure gizartean benetako “bazterkeria-zirkuituak” daudela, zuzentasun gabeko fokuak, adingabe kopuru jakin bati eragiten diotenak. Adingabe horiek gizarte arreta behar dute, baita erakundeen lehen-tasunezko arreta konpentsatzailea ere. Eta, horretarako, ezinbestekoa da sistema eta zerbitzu desberdinen arteko lankidetzak estua, bereziki erreferentziazko familiarik ez dagoenean edo hura bere heziketa eta babes eginkizunak betetzeko gai ez denean.
- Aztertutako sektore bakoitzak berariazko problematika bat agertzen du. Baina horietako denetan edo gehienetan arazo komunak hauteman daitezke, edo ikus daitezke arazo batzuk, hain zuzen ere, beren arteko loturatik sortzen direla edo beren arteko loturarekin zerikusia dutela. Horrela, esate baterako:
 - Baliabide soziosanitariorik ezak, bere premiaren eta egokitasunaren gaineko adostasuna baden arren, edo zerbitzuen arteko (harrera-zerbitzuak, hezkuntza-zerbitzuak, osasun zerbitzuak, oinarriko gizarte zerbitzuak, etab.) koordinaziorako zailtasunek eragin kaltegarria dute arretaren kalitatean eta esku-hartzeen jarraipenean eta koherentzian.
 - Erakundeen arretak, askotan, motz geratzen den denboraldia hartzen du, hezkuntza-ibilbidea izan litekeenaz bestelako arrazoiegatik, batzuetan. Ildo horretan, aurrez adierazi bezala, bereziki kezkgarria da babes zerbitzuetatik datorren erreformako adingabe kopuru handia eta batzuetan zerbitzu batzuen eta besteen arteko esku-hartzeen jarraitutasuna bermatzeko izaten diren zailtasunak. Kezkgarria da denboraldi batez babestuta edo barneratze zentro batean egon ostean, 18 urterekin, uztea edo ia alternatibarik ez izatea ere. Horrek prestakuntza-prozesua bat-batean etetea dakar eta, horrekin batera, bazterkeria-arriskua edo delitu jarduerak egiteko arriskua.

- Adierazitako lehenengo arriskua beste ikuspegi batetik hartuta, adierazi behar da, erakundeen esku-hartzeetatik aparte, erakunde honi kezkarria iruditzen zaiola zenbaitetan hedabideetan adierazitako kolektiboetako edo beste egoera ahul batzuetan dauden adingabeei buruzko albisteei ematen zaien trataera. Bereziki informazioa polizi iturrietatik datorrela ematen duenean eta gizarte alarma eragin dezakeenean edo estereotipoak eta bereizkeria indar ditzakeenean. Adingabearen interes handiagoak –erakundeen erabaki eta esku-hartze guztien printzipio gidaria– eragiten dieten gaietarako buruz argitara ematen den informazioa ere gidatu behar du, eta beste edozein interes mediatikoren gainetik egin behar du.

II. **KEXA ETA GOMENDIO ZEHATZAK**

Askotan adierazi dugun bezala, erakunde honetan ez dira bereziki adingabeei buruzko eta 18 urtetik beherako adingabeek aurkeztutako kexa asko jaso. Hainbat arrazoiengatik izan daiteke hori: beren eskubideen jakitun ez izatea, adingabeek besteak beste beren defentsarako mekanismo gisa erakunde hau dutenik ez jakitea, erakundeetara jotzeko trebetasunik, ohiturarik edo konfiantzarik eza, familiarekiko edo beste pertsona eta erakunde batzuekiko duten mendetasuna, etab. Kexa gehienak hurbileko familiartekoren batek aurkeztu ohi ditu; batzuetan, egoera ezagutzen duen profesionalen batek eta, beste batzuetan, sektore ahulekin lan egiten duten edo zerbitzu jakin batzuk kudeatzen dituzten elkarteek.

Adingabeei buruzko eta adingabeek aurkeztutako kexa zehatzak asko izaten ez diren arren, ikuspegi zabalago batetik hartuz gero, asko dira, zuzenean edo zeharka, adingabeei eragiten dietenak. Adibidez, hezkuntzaren arloko ia kexa guztiek –unibertsitateko goi ikasketen ingurukoak salbu– harreman zuzena dute gure erkidegoko adingabeen trataerarekin (ikus Hezkuntzaren arloa, txosten honen I. atala). Eta gauza bera esan genezake bereziki adingabeei zuzendutako beste zerbitzu batzuek (babes zerbitzuak, zerbitzu judizialak, osasun zerbitzuak, etab.). Logikoki, adingabeei buruzko kexa eta esku-hartze gehienek zerikusia izan ohi dute sektore hauekin. Ia tradizionalak diren eremu hauekin batera, azken urteetan beste batzuk ere nabarmendu behar dira. Batzuk aipatu ditugu dagoeneko aurreko azpiataletan; eskolako jazarpena edo berdinen arteko tratatu txarrak. Eta badira berriagoak diren beste batzuk ere; lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko neurriak edo seme-alabengatikoko diru-laguntzak, esaterako.

Horrenbestez, aurtengo kexa eta jardueretan honako gai hauek izan dira:

- Eskolako jazarpeneko kasuak;
- Seme-alabak bisitatzeke araubidearekiko desadostasunak;
- Bekak ukatzea;
- Osasun arazo jakin batzuk dituzten haurrak onartzeko arazoak;
- Eredu batean edo bestean eskolatzeko irizpideekiko desadostasunak;
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak berriz familiarekin elkartzeko kasuak;
- Zentroetan onartzeko eskabideak baloratzeko orduan puntuatzeko irizpideekiko desadostasunak;
- Poliziak adingabeen atxiloketetan ematen duen tratua;

- Arretarik ezagatiko arazoak (laguntzailerik eza) premia jakin batzuk edo osasun arazoak dituzten ikasleetan;
- Eskola-garraioa erabiltzearen gaineko irizpideekiko desadostasunak;
- Musika-eskolen ordutegiak;
- Curriculum egokitzapena ukatzea ikasturtea ez errepikatzeagatik;
- 0-3 urtekoak eskolatzeko laguntzak ukatzea;
- Adingabeak behar bezala artatu ahal izateko, administrazioak lagatako etxebizitzaren desegokitasuna;
- Ikastetxez aldatzeko eskaerak ukatzea;
- Lanbidea eta familiako bizi-bateratzea (eskolako egutegia);
- 0-3 urtekoak eskolatzeko baldintzak;
- Familian bertan irakasteko alternatiba, derrigorrezko eskolatzetik kanpo (eskolatu gabeko hezkuntzarako eskubidea);
- Eskolako jardunaldia murriztea, ikastetxean obretan ari direlako;
- Ikastetxean familiako antolaketari eragiten dioten ordutegi aldaketak egitea;
- Adingabea dokumentatu eta nazionalizatzeko arazoak;
- Barneratze zentroan jarritako zigor neurriarekiko desadostasuna;
- Seme-alabengatik familiei ematen zaizkien laguntzekiko desadostasuna;
- Familia-biltokien funtzionamendua;
- Ikastetxe jakin batean sartu ahal izateko erroldatze faltsuak;
- Publizitate kanpainetan adingabeen irudia erabiltzea;
- Bideo pornografikoak adingabeen eskura egoteagatik protesta;
- Arrisku egoera jakinetan eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako laguntza-eskabideak;
- Ikastetxean obretan ari direlako nahitaez lekuz aldatu beharra;
- Haurrentzako zerbitzuek babesaren alorrean eginiko esku-hartzeekiko desadostasuna;
- Kirol zerbitzuetan jasotako tratuarekiko desadostasuna;
- Familia barruko gatazketan izaten diren hainbat egoera (indarkeria, salaketa faltsuak, etab.);
- Mantenu-pentsioa ez ordaintzea;
- Udal haurtzaindegietan plazak falta izatea;
- Arreta-falta eta hiperaktibitateagatik nahastea duten haurrentzako laguntzarik eza;
- Ikastetxeen egoera desegokia, instalazio eskasak, etab.;
- “Garapenaren nahaste orokorra” diagnostikatu dioten nerabeari arreta egokia emateko baliabiderik eza;
- Adingabe ezinduek udalekuetara joateko dituzten zailtasunak;
- Seme-alaba adingabeak dituzten amen etxebizitza-premia;
- Gurasoen dibortzioaren ondorioak pairatzen ari den adingabearentzako babes eskabideak;
- Hezkuntza-administrazioan aurkeztutako idazkiei erantzunik ez ematea;
- Liburuetarako laguntzak lortzeko irizpideekiko desadostasuna;
- Seme-alaben jaiotzarengatik laguntzak;
- Bakarrik dagoen adingabea harreran hartzeko arazoak;
- Semearen edo alabaren zigor espedientea ikusteko aukera ukatzea;

- Etniagatiko bereizkeria ikastetxe batean sartzeko;
- Ikastetxeak gluzemia kontrolak egin nahi ez izatea;
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei arretarik ez ematea;
- Harreran dauden seme-alaben egoerak;
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarren adin dokumentalaren eta adin oseoren arteko aldearen ondorio kaltegarriak.
- Pedofilia Interneten;
- Bullying kasu posibleetan ikastetxeak eginiko jarduketekiko desadostasuna;
- Buru nahastea duten adingabeentzako baliabiderik eza;
- Eskolaz kanpoko jarduerak hizkuntza bakarrean egitearekiko desadostasuna;
- Adingabeei helduentzako filmak ikusten uzteagatiko salaketa;
- Eskola-garraioa ukatzea;
- Adingabeen harrera-zentroetako arazoak;
- Adingabeen droga-kontsumoaren arazoari arreta eskasa eskaintzea;
- Agian, bakarrik dauden adingabeen laguntza juridikorako eskubidea urratu izana;
- Eskolako plangintzarekin eta ikastetxe batzuen jarraitutasunarekin zerikusia duten arazoak;
- Semearen edo alabaren jaiotzagatiko laguntzak ukatzea, askotariko arrazoiengatik;
- Irakasleen jokabide desegokiak eta kalifikazioekiko desadostasunak;
- Eskolatze baldintzekiko desadostasunak (baliabide nahikoak ala ez);
- Adingabea aberriratzeko ustez okerra den prozedura;
- Haurtzaindegiko arretarik eza;
- Hizkuntz ereduen arloko eskola-plangintzarekiko desadostasunak;
- Seme-alabak dituzten familien etxebizitza-premiak (normalean, seme-alabak dituzten emakume bananduenak);
- Poliziak adingabeak behar bezala ez tratatzea;
- Seme-alabak zaintzeko eszedentzia bitarteko funtzionarioentzat;
- Epez kanpoko matrikulazioak;
- Premia bereziak dituzten haurrak artatzeko laguntzailerik eza;
- Seme-alabak eskolatutako ikastetxean erlijio heziketa ebanjelikoko eskola emateko eskaera;
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako zentro baten kokapenarekiko desadostasuna;
- Hezkuntzako lege proiektuaren aurka;
- Adingabeen arrisku egoera posibleak;
- Ikastetxeetarako sarbide desegokiak;
- ETBko Betizu Klubaren inguruko kexa;
- Erroldatzearen eta eskolatzearen inguruko arazoak;
- Haur eskolen prezioekiko desadostasunak;
- Hezkuntza-laguntza euskaraz ez izateagatiko kexa;
- Ama toxikomanoarekin bizi diren adingabeen babesgabetasun egoera;
- Eskola-garraioa edo jantokiko zaintzaileen hizkuntz gaitasuna;
- Hainbat zentroetako arkitektura-oztopoak eta irisgarritasuna;
- Adingabeentzako aldizkari baten edukia;
- Seme-alabak zaintzeko lanaldi murrizketak;

- Euskara komunikazio hizkuntza gisa inposatzearen aurka;
- Ustezko hutsegite larriagatik ikastetxetik kanporatzearen aurka;
- Haur eskoletan onartzeko baldintzak;
- Eskolako jantokiaren kudeaketa;
- Unibertsitateaz kanpoko ikasketetarako bekak ukatzea;
- Jantokiko laguntzarako bekak ukatzea;
- A ereduak kentzearen aurka;
- Alergia arazoa duen haurtxo batentzako elikagai egokirik eza;
- Seme-alaben tutore izendatutako pertsonarekiko desadostasuna;
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera;
- Adingabe etorkina ikastetxetz aldatzea ukatzea;
- Amak, aitaren onespenerik gabe, seme-alabak ikastetxetz aldatzearen aurka, nahiz eta zaintza partekatua izan;
- Haxixa edukitzeagatik adingabea zigortzea;
- Familia ugarienezko laguntzak nahikoak ez direla iriztea;
- Gizarte zerbitzuek adingabe adoptatuak hartzeko baldintzak;
- Adingabeak tartean diren gertaera jakin batzuei emandako informazio trataera;
- Ustez adingabeek ikastetxean eginiko sexu abusuek.

Aurreko adibideetan adierazi bezala eta beste urteetan bezala, azken urte honetako kexa eta jarduera asko bi arloren ingurukoak izan dira (hezkuntza eta babes). Arlo horietako bakoitzean kexa gehien eragin dituzten arrazoiak hauek izan dira:

- Hezkuntza: eskolatzeko baldintzak eta irizpideak, gizartean bazterturik dauden, hezkuntza-premia bereziak dituzten edo adin jakinetako (0-3 urte) kolektiboentzat; plangintza irizpideak; eskolako garraioa edo jantokia bezalako zerbitzu jakin batzuetarako sarbidea; matrikulazio irizpideak; hizkuntz ereduak, etab. (Hezkuntzaren arloko kexen sailatutako banaketa ezagutzeko, ikusi, txosten honetan bertan, “Hezkuntzaren” arloan).
- Esku-hartze judizialean edo adingabeen babes arloan: erakundeek harrerei, adopzioei, banaketei, bisita-araubideari, informazioa lortzeari eta abarri dagokienez egiten dituzten esku-hartzeekiko desadostasunak (horietako asko txosten honetan bertan aztertu dira, “Gizarte ekintzaren” arloan).

Eskolako jazarpen edo tratu txarren egoerei dagokienez, kexen arrazoi nagusiek zerikusia dute egoera jakin batzuen aurrean esku hartzeko moduarekiko desadostasunekin, hezkuntza-zerbitzuen inibizioarekin, ikastetxetz aldatzea lortzeko zailtasunekin, etab. Nolanahi ere, aurreko urtean baino kexa gutxiago jaso dira.

III. BEREZIKI LARRIAK DIREN GERTAERA EDO EGOEREN AURREKO OFIZIOZKO JARDUERAK

Normalean, adingabeen eskubideen urraketa larrienak ez dira erakunde honetara iristen. Kasu larrienen edo delitu kasuetan, aurrez salatu egiten direlako, edo agintaritzak judizialek ikertzen dituztelako. Hain larriak ez direnetan, ikastetxeetan bertan, zerbitzuetan edo tartean diren administrazioetan konpontzen direlako.

Zenbaitetan, hala ere, kexa aurkeztu delako zein ofizioz, zituzten ondorioengatik bereziki larriak ziren hainbat kasutan esku hartu du Arartekoak. Horrela, 2004. urtean, Arartekoak bereziki larriak ziren eta hiru adingaberen heriotza bortitza ekarri zuten kasu batzuetan esku hartu zuen; J.C. gazteak bere buruaz beste egin zuen Hondarribian, eta berdinen arteko jazarpen edo tratu txarren kasu batekin lotu zen; A.M.D.S. eta S.F. gazteak, beste gazte batek gaua igaroko zuten txabolan sutea eragitearen ondorioz hil ziren, Santurtzin (ikusi 2004ko txostena, I. atala, 1.1.5 azpiatala).

Urte horretan bertan, beste ordena batean, eta ondorioen larritasuna konparatzeko modukoa izan gabe, Arartekoak neurri judizialaren bidez barneratze zentroan zegoen gazte baten tratu txar kasu posible bat argitzeko ere esku hartu zuen (ikusi 2004ko txostena, I. atala, 1.1.6 azpiatala).

Aipaturiko kasuek agerian utzi zuten edo argi gehiago ekarri zuten erdi ezkutuan zeuden, ia ezagutzen ez ziren edo erakundeen erantzunaren aldetik muga handiak zituzten errealitateen gainean:

- berdinen arteko jazarpen edo biktimizazio egoerak;
- babes sistemak nerabe jakin batzuek behar bezala artatzeko dituen mugak;
- barneratze zentroek jokabide jakin batzuei bermeekin aurre egiteko dituzten mugak, etab.

Zorionez, azken bi urteetan ez zaigu iritsi hain ondorio larriarik izan duen egoerarik. Bai, ordea, zenbait jazarpen egoera, eta nork bere buruaz beste egiteko saiakera ugari. Hala ere, Arartekoak arreta eskaini die eta zenbait ekimen egin ditu horien inguruan. Horrela:

- Berdinen arteko jazarpen edo tratu txarreko egoerei dagokienez, aurrez adierazi bezala, ikerketa zabala egin da Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen lagin adierazgarri batean, eta *Bizikidetzeta eta gatatzak ikastetxeetan* ezohizko txostena argitaratu da.
Azken urte honetan, lurralde bakoitzean bilerak egin dira ikerketan parte hartu duten 80 ikastetxeetako zuzendaritza-taldeekin, tartean diren sektore guztietako pertsonen esku-hartzearekin (ikastetxeak, familiak, ikuskaritza, laguntza-zerbitzuak, sistema judiziala, ikertzaileak, etab.) gaiari buruzko herritarrek parte hartzeko foro berri bat gauzatu da, balioen transmisioari buruzko beste ikerketa bati ekin zaio, eta berriz ere gai hauei heldu zaie bertan.
- Babes sistemak jokabide jakin batzuei, bereziki arazo larriak dituzten nerabeen edo nerabe atzerritarren jokabideei, behar bezala erantzuteko dituen mugei dagokienez, erakunde honek kezka jarraitu ditu bereziki problematikotzat hartzen diren nerabeetan espezializatutako zentroen sorreraren aurkako zenbait ekimen edo erreakzio, jendaurrean jarri ditu bere hausnarketak eta jarraipen jarduera batzuk egin ditu (ofiziozko jarduerak eta bisitak, bereziki).
- Eta barneratze zentroek jokabide jakin batzuei berme mota guztiekin aurre egiteko dituzten muga edo zailtasunei dagokienez, bereziki indarra erabili behar denean edo taldetik isolatzea dakarten zigorrak jarri behar direnean, eginiko urratsak atal honetan bertan jaso ditugu aurrez (“Adingabe arau-hausleak” azpiatala).

Askotan, arazo hauek gizartean garrantzi handia hartzen dute eta hedabideetan ematen dituzte. Horrek, zalantzarik gabe, arazo jakin batzuen aurrean gizartea gehiago sentsibilizatzen lagun dezake, baina, konponbidea topatzen lagundu ordez konponbidea oztopa dezakeen alarma edo iritzi egoera ere sor dezake. Azken urteetan arazoak dituzten edo problematikotzat hartutako nerabeentzako baliabide berriak sortzearen aurka auzoan izandako erreakzio batzuk esaten ari garenaren adibide kezagarria dira. Ildo horretan, Arartekoak gogora ekarri eta nabarmendu nahi ditu bere garaian “Erakundeen gidaritza bereziki ahulak diren kolektiboentzako zerbitzuen sorreran” hizpide zuen gomendio orokorrean planteatu zituen gai eta proposamenak, era honetako egoeretan erabat aplikagarriak eta baliagarriak iruditzen zaizkiolako (ikus 2001eko txostena, 461. orrialdea eta ondorengoak).

Bestalde, eta atal hau amaitze aldera, komeni da gogoraraztea Herrizaingoaren arloan azken urte honetan poliziaren tratu desegokia edo agenteek polizi bulegoetatik kanpo eginiko jardueretan gehiegizko indarra erabili izana salatzen duten kexen inguruan azaldutakoa. Kexa horiek, asko eta bereziki larriak ez diren arren, deigarriak dira, adingabeei (nerabeei) edo gazteei eragiten baitiete.

Halaber, gertaeren zabalkundea edo ondorioen larritasuna kontuan hartuta, bi problematika aipa ditzakegu hemen. Horien ildotik, Arartekoak, azken urte honetan, ofizioz esku hartu du zenbaitetan:

- Familia-biltokien egoera (bereziki, beren segurtasun baldintzak, funtzionamendu arauak eta neutraltasuna).
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera (bereziki, zentro batzuetako harrera-baldintzak, babes juridikoa, droga-kontsumoak edo gatazka-egoerak).

Bi kasuetan, ofizioz esku hartu da informazio zehatzarekin (biltoki batean adingabe bat bahitu izanaren edo zentroan sortutako gatazka jakin baten inguruan) zein, modu orokorragoan, errealitatea aztertzeo eta hobekuntzak proposatzeko.

Bi gai horietako bakoitzari berariazko atal bana eskaini zaie txosten honetan eta atal honetan (2 eta 9. azpiatalak).

IV. GIZARTE AGENTEKIKO LANKIDETZA ETA GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA

Arartekoak elkarteekin duen harremanari dagokion azpiatalean adierazi bezala, Arartekoak, bere jarduteko ildoan artean, hemen hizpide dugun gaiari dagokionez, haurren edo nerabeen esparruan lan egiten duten gizarte agente desberdinekin lankidetzan jardutearen aldeko aukera argia egiten du. Bai haien eskubideen zabalkundean edo defentsan, bai askotan bereziki egoera problematikoetan dauden adingabe taldeentzako baliabide jakin batzuen kudeaketan.

Lankidetzaharreman hau hainbat jardueraren bidez gauzatu da aurtentz; besteak beste, arrisku egoeran dauden edo premia bereziak dituzten adingabeak artatzen lan egiten duten hainbat elkarte edo erakunderekin izandako hartu-emanak nabarmen ditzakegu. Urgatzi, Gao Lacho Drom, Kidetza, Landalan, Berritzu, Gaztarroan Ekin, Salesianoak, Hirugarrendar Kaputxinoak, Enseñantes con gitanos, AGIPASE, Gurutze Gorria, Nuevo Futuro, familia hartzaileen elkarteak, etab. bezalako elkarte edo

erakundeekin izandako harremanak. Baita haurren eskubideen defentsan diharduten Unicef, Plataforma de Organizaciones para la Infancia eta Save the Children bezalako erakundeekin ere. Eta eremu zabalagoan, hezkuntzari lotuta, ikastetxeekin, hainbat ikastetxetako gurasoen elkarteekin, zuzendaritza-taldeekin edo sektore jakin batzuetako hezitzaile taldeekin izandako harremanak edo trukeak. Zenbaitetan, ikastetxeetara bertara joan gara; beste batzuetan, Ararteko erakundeak bisitatu duten ikasle taldeei arreta jarri diegu.

Elkarte eta erakundeekiko lankidetzaren honen esparruan, arartekoaren eta erakunde-ko langileek haiek gure erkidegoan zein handik kanpo adingabeen problematika desberdinen inguruan antolatutako foro eta topaguneetan izandako parte-hartzea ere nabarmen daiteke. Esku-hartze horietako batzuk aipatu dira txosten honen V. atalean.

V. **HAURREN ETA HAURTZAROKO ESKUBIDEEN KULTURA ZABALTzea**

Jarduteko ildo honetan kokatu dira haurren berariazko eskubideak zabaltzera, giza eskubideei buruzko material didaktikoak hezitzaileen esku jartzera, adingabeei erakundeak ezagutaraztera, beren eskubideei eragiten dieten arazo batzuk eztabaidatzera eta abarretara bideratutako Arartekoaren hainbat ekimen.

Horrela, 2007. urtean zehar, honako ekimen hauek adieraz ditzakegu, besteak beste:

- Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan haurren berariazko eskubideak zabaltzea xede duten norbere erabilerako egutegiak eta kartelak banatzea.
- Ararteko erakundearen web orrian elementu berriak sartzera, bereziki adingabeen inguruko gaiei dagokienez.
- Gasteizko Udalarekiko lankidetzaren programaren barruan, Arartekoaren egoitza bisitatzera etorritako Gasteizko ikastetxetako ikasle taldeei Ararteko erakundeak aurkeztea eta arreta eskaintzea.
- Erakundeak ikasle taldeei edo etorkizuneko hezitzaileei aurkezteko gure presentzia eskatu duten ikastetxe batzuetako esku-hartze zuzena; giza eskubideen gaineko lan sistematikoaren esparruan, normalean.
- “Gure eskubideak” eskolako lanen III. Lehiaketaren deialdia, gure erkidegoko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiei zuzendua.

Giza eskubideen gainean sistematikoki lan egiteko material didaktikoei dagokienez, berariazko lau beka deialdiren emaitza gisa, azken urteetan honakoak bidali dira ikastetxe guztietara: Bigarren Hezkuntzarako materialak biltzen dituen karpeta bat, haurren eskubideei buruzko beste bat Lehen Hezkuntza ikastetxeetarako, giza eskubideak modu ludikoagoan lantzeko karta-sortak, gidak eta baliabideak jasotzen dituen kaxa bat Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako eta beste hezkuntza-zerbitzu batzuetarako eta, azkenik, emakumearen eskubideei buruzko CD interaktiboa.

Jarduera horiek, beti nabarmendu izan dugun bezala, askoz ere ikuspegi zabalago batean kokatu behar dira: Ararteko erakundeak adingabeak giza eskubideen

errespetuan eta tolerantzia eta errespetu balioetan oinarritutako kulturaren gizarteratzeko duen kezka eta konpromisoa. Beharrezkoa da edozein gizarte demokratikotan, eta are gehiago geurean, hainbat urtez indarkeriaren eta hilketaren erabilera sistematikoa bizi izan baitugu. Horren aurrean, erakunde honek, une oro, giza bizitzaren balio gorenaren defendatzeko eta hezkuntza-sisteman bizikidetzarako balioei sistematikoki heltzeko proposamenak azaltzeko ahalegina egin du. Giza eskubideei buruzko ikasleentzako eskolako erabilerako materialak prestatzea eta zabaltzea horretarako ekarpen bat da, hain zuzen.

Gai hauen inguruan, Arartekoak hiru ekimen gauzatu ditu 2007an, lan bat ere egin da eta, amaitutakoan, hainbat dokumentutan jasoko da dena. Horietako batzuk laster argitaratuko dira:

- Adingabeei balioak transmititzeari buruzko ezohizko txostena.
- Berdintasunean eta sexu orientazio desberdinen errespetuan hezteari buruzko berriarazo material didaktikoak.
- Teknologia berrien erabilera desegokia saihesteko edo adingabeek Interneten izan ditzaketen arriskuak murrizteko CD-ROM interaktiboak.

VI. **BETETZEKO DAUDEN ARAUZKO GOMENDIOAK**

Azken urteetan zehar, erakunde honek arauzko hainbat gomendio egin ditu adingabeen egoeraren inguruan. Horietako batzuek lotura zuzena dute hemen laburbildutako sektore, problematika edo egoerekin. Honakoei buruz ari gara, bereziki:

- Haurrak eta nerabeak artatzeko lege baten premia, hiru lurralde historikoetan irizpide komunak eta eska daitezkeen oinarritzko baldintzak ezarriko dituen eta babes sistemak zein barneratze zentroak barne hartuko dituen.
- Hezkuntza-premia bereziei buruzko ezohizko txostenean egin ziren zenbait gomendio orokor, arauak aldatu beharra dakartenak.
- Zeretik hiru urtera bitartean haurren hezkuntza-arreta behar bezala garatzea komeni da.
- Ikastetxeetako ikasleen eskubideen eta betebeharren araudia berrikusteko premia.
- Biltokiak arautzea, etab.

Batzuek egiteke daude oraindik; hezkuntza-premia bereziei buruzko txostenean proposatutako arau aldaketak eta ikasleen eskubideei eta betebehari buruzko araudia berrikustea, kasu.

Azken hori nabarmendu genuen berriz ere *Bizikidetzaren eta gatazkak ikastetxeetan* ezohizko txostenean (ikus 4. gomendia).

Bestalde, 2005. urtean, maila oso desberdinekoak diren baina erakunde honen jarraipenaren xede diren sektore edo zerbitzuetan asko aplikatzen diren bi arau onartu edo indarrean jarri ziren:

- 5/2000 Lege Organikoa garatzen duen erregelamendua, 2005eko martxoan indarrean jarri zena.
- Haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesteko legea, Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailean onartutakoa.

Azken lege honek araua asko garatzea eskatzen du (adingabeak artatzeko zentroek bete beharreko baldintzen gainean, adibidez). Legeak berak ezarritako epeak gorabehera –urtebete, normalean–, hori egiteke dago oraindik, eta dagoeneko hiru urte igaro dira onartu zenetik.

Ildo horretan, 2007. urtean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak goian adierazitako gaien inguruan (biltokiak, edo adingabeen harrera-zentroek bete beharreko baldintzak, kasu) prestatutako bi arau zirriborro ezagutu eta aztertu ahal izan ditugu. Arau horien premia eta urgentzia direla-eta, laster onartu eta aplikatzea espero dugu.

Bestalde, aurten, abenduaren 4ko 219/2007 Dekretuaren bidez, Haur eta Nerabeen Behatokia arautu da, haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesteko legea garatuz.

VII. **AZKEN URTEKO EGOERA PROBLEMATIKOENAK**

Adingabeen problematikari eskainitako atal luze honekin amaitzeko, aurreko urtean bezalaxe, sintesi modura, Ararteko erakundeak eginiko lanaren arabera, arazo eta egoera konplexuenak zein izan diren nabarmenduko dugu hemen.

Azken bi urteetako jarduerak (bisitak, kexak, kontsultak, esku-hartzeak, etab.) aurreko urteetakoekin alderatzen baditugu, gai berrienak edo egoera kezagarrienak honako hauek izan dira, zalantzarik gabe:

- Bakarrik dauden adingabe atzerritarren problematika.
- Eskolako jazarpeneko egoerak.

Bi gai horiei hirugarren bat gehitu behar litzaieke, askotan azaldu baitzaigu, xede den haurren sektorea edozein dela ere:

- Haur eta gazteen buru gaixotasuna artatzea, osasun sistemak ez die behar bezala erantzuten adimen narriadurako, droga-mendetasuneko zein jokabide arazo larriko egoerei, adingabeetan, bereziki.

Lehenengo bi gaiak Arartekoaren ezohizko txosten banatan landu dira eta haien jarraipen sistematikoa egin da. Horren berri eman dugu aurreko orrialdeetan.

Hirugarren gaia ere izan dugu hizpide hemen, nahiz eta hurbilketa partzialak baino ez ditugun egin; bakarrik dauden adingabe atzerritarrak artatzeko erakundeen arteko lankidetzaz hitz egitean, adibidez; lege-hausleen problematikari helduz; La Ola hezkuntza- eta terapia-zentroaren jarraitutasuna edo beste lurralde batzuetarako antzeko zentroen premia planteatzean, etab. Eta Arartekoak beste txosten monografiko batean modu sistematikoagoan jaso daitekeela eta hala egitea komeni litzatekeela planteatzen du.

Garrantzi handia duten eta adingabe, familia eta profesional askori eragiten dieten hiru gai dira. Hemen gogora ekarri eta nabarmendu egin ditugu, baina horiek konpon-tzeko ezinbestekoa da gizarte osoaren eta erakundeen eta, zehazki, tartean diren osasun, hezkuntza eta babes sistemen konpromisoa.

Gure aldetik, datorren urtean ere lehentasuna emango diogu horiei arreta eskaintzeari.

4. BERARIAZKO ARRETA EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEI

Atal honetan, ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako eskubidea aldarrikatuz 2007an aurkeztu dizkiguten alderdi guztiei helduko diegu, xehetasun osoz eta erakunde honen jarduteko eremu ezberdinen zeharkako ikuspegitik hartuta.

Jasotako kexak, guztira, 86 izan dira; alegia, aldi berean erakunde honetan hartu diren guztien %5,52. Horiek honela banatzen dira, jarduera-alorren arabera:

| | |
|--------------------------------------|----|
| - Hirigintza | 37 |
| - Herri Lanak eta Zerbitzuak..... | 9 |
| - Gizarte Ekintza | 9 |
| - Ogasuna | 7 |
| - Funtzio Publikoa | 5 |
| - Hezkuntza | 5 |
| - Osasuna..... | 5 |
| - Herrizaingoa..... | 4 |
| - Etxebizitza | 3 |
| - Lana eta Gizarte Segurantzza | 1 |
| - Kultura eta Elebitasuna | 1 |

Kexak arloen arabera banatuta, aurkeztutako salaketak –nagusiki ezgaitasunen bat duten pertsonen edo beren senideek egindakoak– oro har nola banatu diren erakutsi nahi dugu, azaldu zaizkigun arazo zeharkakotasuna nabarmentze aldera. Ikus dezakegun bezala, arazo horiek erakunde honen lan arlo gehienei eragiten diete. Halaber, horrela agerikoagoa da ezgaitasunen bat edo irisgarritasun arazoren bat duten pertsonen, egun, oraindik ere, era guztietako oztopoak aurki ditzaketela, nola hirigintzakoak eta arkitek-turakoak, hala sozialak, kulturalak eta kolektiboak.

Ikus daitekeen bezala, hirigintzako jardueri eta herri lan eta zerbitzuetako jardue-rei buruzko kexak, gizarte ekintzakoekin batera, izan dira gainerako gaietan egindako kexekin alderatuta gehien nabarmendu diren arloak.

Irisgarritasunaren Liburu Zuriaren arabera, “*irisgarritasun unibertsalaren*” kon-zeptua ingurune, produktu edo zerbitzu batek pertsona guztiek eta, bereziki, ezgaitasunen bat dutenek modu eroso eta seguruan eta aukera berdinekin erabili ahal izateko bete behar dituen ezaugarrien multzoa da.

Hori dela-eta, irisgarritasunaren helburua lortzeko, guztiontzako diseinua barnerratu behar da berria den guztian eta, horrez gain, lehendik zegoena egokitu, dauden oztopoak ahal den neurrian ezabatzeko. Gainera, irisgarritasun unibertsala lortzeko, gizartearen eremu guztietan jardun behar da: gizarte politikan, lurraldearen antolamenduan, infor-mazioaren eta komunikazioaren teknologietan, etab.

Ezgaitasunen bat duen pertsonak ez ditu aukera berdinak, etxebizitza egokitua izan bai baina, gero, kalera ateratzerik ez badu, lantokian sartu ezin badu edo aisialdian zinera joan ezin badu edo kirola egin ezin badu.

Horregatik, ingurune irisgarria funtsezkoa da eskubide berdintasunean oinarritutako gizarte lortzeko, herritarrei autonomia ematen baitie eta bizitza sozial eta ekonomiko erabat aktiboa garatzeko beharrezko bitartekoak ematen baitizkie. Era berean, ingurune irisgarria oinarritzkoa da bereizkeriarik ezean oinarritutako gizarte inklusiboa eraikitzeko.

Gure gizartean irisgarritasunari dagokionez izan diren aurrerapenak gorabehera, sektoreak arazo horren inguruan duen ikuspegia gainditu eta ikuspegi integratzaileagotik begiratuta, oraindik asko dago egiteko. Hori hala dela egiaztatzeko, erakunde honetan aurkeztu diren eta ondoren jaso ditugun banakako kexen izapidetzea aztertuko dugu; esan bezala, kexa horiek botere publikoen jarduteko hainbat eremu ukitzen dituzte.

Hirigintza

Arlo honetan, nabarmen gehitu da kexa-kopurua aurretan. Kexa hauetan, hainbat alderdi aipatzen dira: udalek ez dutela kontrolatzen ea merkataritzako lokaletan jarduera berriak jartzean edo aldaketak egitean irisgarritasunari buruzko araudia betetzen den; udaletako espaloietan beharrezkoak ez direla behar bezala egin, neurri egokiak ez dituztelako, zero kotara egin ez direlako edo lauza desegokiak jarri direlako.

Aurreko ekitaldian gertatu bezala, salaketa gehienak Laudioko Pertsona Ezindu Fisikoen Elkarteak aurkeztu ditu, udalerrian, obra berriak egiterakoan, irisgarritasunari buruzko araudia kontuan hartu ez zela egiaztatu ondoren, hainbat irregulartasun ikusi baitzituzten.

Horri dagokionez, adierazi nahi dugu, 2006az geroztik bideratzen ari garen kexa-espeditenteen ondorioz, erakunde honek 14 gomendio egin behar izan dizkiola Laudioko Udalari; horien bidez eskatu zitzaion beharrezko obrak egin zitzala espaloietan beharrezkoak egiteko eta oinezkoentzako goiko pasaguneak hiri inguruneen eta, bereziki, espazio publikoen eta komunitate ekipamenduen irisgarritasun baldintza teknikoak arautzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. eranskinean adierazitako aurreikuspenetara egokitzeko. Adibide gisa, [urriaren 16ko ebazpena](#)³ dugu.

Era berean, mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako ibilgailuen aparkaleku plaza bat apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. eranskineko 3.11 artikuluan adierazitakoarekin bat etorri egokitzeko beharrezko lanak egin ditzala ere eskatu zaio. ([urriaren 16ko ebazpena](#)⁴).

Aztertu ditugun kasu guztietan, udala bera da salatutako hirigintzako ilegaltasunen erantzulea eta, beraz, zalantzarik gabe, berak hartu behar ditu, al bait arinen, egiaztatutako irregulartasunak ongitzeko beharrezkoak diren neurriak. Txosten hau egiten amaitutakoan, udal agintaritzari errekerimendua bidali zaion arren, oraindik ez du dagokion erantzuna jaso.

Bestalde, aipatu elkarteak merkataritzako lokalak etxebizitza gisa egokitzerakoan irisgarritasunari buruzko araudia urratu dela eta egin dituen salaketak aipatu behar ditugu. Irregulartasun horiek berriki eraikitako etxebizitzetatik gutxienez zazpitan ikusi dira. Ekitaldi honetan arazo hori azpimarratu nahi dugu, gure ustez, zenbait administrazio

³ Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa; horren bidez, Laudioko Udalari gomendatzen zaio Laudioko José Matia kalean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasunari buruzko araudira egokitzeko beharrezko lanak gauza ditzala.

⁴ Arartekoaren ebazpena, 2007ko urriaren 16koa; horren bidez, Laudioko Udalari gomendatzen zaio beharrezko lanak gauza ditzala Laudioko Hiru Gurutzeta kaleko 9. ean mugikortasun urria duten pertsonentzat gordetako ibilgailuen aparkaleku plaza irisgarritasunari buruzko araudira egokitzeko.

ez baitzaie erantzun egokia ematen ari ezgaitasunen bat duten pertsonen egindako eskaerei.

Bestalde, gure autonomia-erkidegoko biztanleria zahartzen ari denez eta herri-tarrak ezgaitasunen bat duten pertsonen mugikortasun premiekiko sentsibilizatuagoak daudenez, hainbat herritarrek jo dute erakunde honetara auzotarren komunitateetan arkitektura oztopoak ezabatzearekin erlazioatutako kontsultak egiteko. Gehienetan, kontsulta horietan igogailuak jartzeko zer egin behar duten galde egin da.

Erakunde honek hizpide dugun gaiaren inguruan hainbat arazo sortzen direla adierazi du eta, bereziki, kontsulta egiten dituzten pertsonen azaldu diegu, igogailua jartzerakoan, bi motatako gatazkak egon daitezkeela: bata, gatazka pribatua (izan ere, igogailua jartzeko, beharrezkoa da higiezinako jabekideen batzarrean gehiengoaren adostasuna lortzea), eta, bestea, publikoa (behin jabekideek igogailua jartzea erabakita, proiektua udalari helarazi behar zaio, baimen dezan). Arazoaren bigarren alderdi honetan bakarrik har dezake esku Ararteko erakundeak.

Hori gorabehera, Jabetza Horizontalaren Legeak igogailua jartzea nola arautzen duen jakinarazi diegu eragindakoei.

Lege horren artikuluetatik ondoriozta dezakegun bezala, igogailurik ez duten higiezinetan hori jarri ahal izateko, beharrezkoa da, hasiera batean, jabekide guztien hiru bostenek aldeko botoa ematea eta hauek, bestalde, partaide kuoten hiru bostenen ordezkari izatea.

Hala ere, obra edo instalazio horren bidez ezgaitasunen bat duten pertsonen edo 70 urtetik gorakoei higiezinera sartzeko edo higiezinaren barruan mugitzea eragozten dieten arkitektura oztopoak ezabatu nahi badira, erabakiak babes txikiagoa izatea onartuko da. Hori gorabehera, beharrezkoa izango da jabekideen gehiengoak aldeko botoa ematea eta hauek, bestalde, partaide kuoten gehiengoaren ordezkari izatea.

Kontsultetan, batzuetan, adinekoek igogailua jartze aldera ordaindu behar duten kuotari aurre egiteko dituzten arazo ekonomikoak aipatu zaizkigu. Gai hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta zenbait udalek xede horretarako laguntzak sortu dituztela azaldu dugu.

Laguntza horiek eskatzaileek dituzten diru-sarreraren arabera ematen dira. Baina obrak hasi aurretik eskatu behar dira Etxebizitza Sailean.

Obra jada burutu bada, ezinezkoa da, tamalez, laguntza baliatzea. Horregatik, erakunde honetara jotzen duten pertsonen gomendatu ohi diegu beren herriko udalera eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren lurralde bulegoetara jo dezatela dauden laguntzei, bete beharreko baldintzei, eskatzeko epeei eta abarri buruzko informazioa biltzeko. Diru-laguntzak badaude eta kontua, hain zuzen ere, diru-sarrera gutxi dituzten pertsonen igogailua jartzeak dakartzan gastuei aurre egiteko zailtasunak izan ditzatela saihestea da.

Era berean, oraindik ere hainbat erreklamazio jaso ditugu auzotarren komunitate batzuek irisgarritasuna egokia izatea ahalbidetzen duten igogailuak instalatu ahal izateko dituzten arazoaren inguruan, bereziki, fatxadara atxiki behar denean, horretarako erabilera publikoko lurzoruaren zati bat hartu behar baita.

Erakunde honek baieztatzen du, bistakoa den moduan, interes publikokoa dela egungo eraikinetan dauden arkitektura-oztopoak ezabatzen laguntzea, besteak beste, igogailuak jarrita. Hori etxebizitza duina izateko eskubidea eta Espainiako Konstituzioaren 49. artikulua jasotzen duen irisgarritasun printzipioa eta abenduaren 4ko 20/1997

irisgarritasuna sustatzeko Legea kontuan izanda gauzatu behar da. Interes publiko horrek, orokorrean, igogailua jartzeko eta jabe mugakideen komunitateetara eskualdatzeko beharrezkoa den espazio publikoa desafektatzea ahalbidetzen duten irtenbideak ematen ditu. Horrek ez du eragozten oztopoak ezabatzeaz gaindikoak diren eta eraikinaren eraikigarritasunaren hazkuntzaren edo barruko eremuen banaketa handitu edo hobetzearen bidez ondare onura lortzera zuzenduta dauden irtenbideetarako interes publikoa hedagarria ez denik.

Ildo horretatik, [abenduaren 4ko ebazpena](#)⁵ aipatu behar dugu. Horren bidez, Zumarragako Udalari gomendatzen zaio jabekideen komunitate batean kanpoko igogailua jartzeko emandako lizentzia berrikus dezala.

Gizarte Ekintza

Bizkaiko Foru Aldundira atxikita dagoen ezgaitasunen bat duten pertsonentzako aldi baterako egonaldiko egoitzaren erabiltzaile batek aurkeztutako kexa izapidetze-rakoan, foru entitate horri zenbait gogoeta helarazi genizkion iradokizunen eta kexen araubidearen inguruan.

Kexagileak adierazi zigun egoitza horri kexa bat azaldu ziola eta ez zela bideratu, baina egoitzako arduradunek erreklamaziorik ez zela egin zioten. Arazoa argitzea ezinezkoa zenez, eta halako egoerak saiheste aldera, beharrezkotzat jo genuen kexa aurkezten duenari horren kopia bat ematea ahalbidetuko zuen sistema ezartzea.

Nahiz eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 35 c) artikuluaekin bat etorritik, Administrazioak ez duen inolako legezko betebeharririk erreklamatzaileri kopia emateko, kontua da irtenbide horixe proposatzen dutela bai apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharre dagozkien gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzekoak, bai Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 24ko 119/2005 Foru Dekretuak, erabiltzaileen arretarako unitatearen bidez Gizarte Ekintza Sailari buruz aurkeztu diren iradokizunen eta kexen araubidea ezartzekoak.

Mendetasunaren Legea aplikatzeari dagokionez, adibide gisa, mendetasun handikotzat -3 gradua, 2. maila- jotako pertsona baten kasua aipatuko dugu. Pertsona hori etxean bizi zen eta eguneko zentro batera joaten zen. Horixe zen erabil zezakeen zerbitzu bakarra, egonaldi laburreko egoitzako plaza baterako eskubidea eta etxeko zainketa pertsonaletarako etxer etxeko laguntza-zerbitzua jasotzeko eskubidea onartu zitzaizkion arren. Egoitzari zegokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak esan zuen ez zuela haren egoerarako egokia zen aldi baterako inolako plazarik eta, etxer etxeko laguntza-zerbitzua zela-eta, hau onartu eta bost hilabetera ere ez zitzaion eman, foru entitatea, zerbitzuaren jarraibideak ezartzen dituen, eta Udala, zerbitzua eskaintzen duena, oraindik ez zirelako ados jarri.

⁵ Arartekoaren ebazpena, 2007ko abenduaren 4koa; horren bidez, Zumarragako Udalari gomendatzen zaio jabekideen komunitate batean kanpoko igogailua jartzeko emandako lizentzia berrikus dezala.

2007 amaituta, oraindik zerbitzua eskaintzen hasi ez zitzaiola ikusi ahal izan genuen. Horrek garbi uzten du zer hutsune eta gabezia dauden oraino Mendetasunaren Legea erabat ezartzeari dagokionez.

2007an ezgaitasunarekin erlazionatuta gizarte ekintzaren arloan erregistratu diren gainerako eskaerak informazioa eta/edo aholkularitza eskatzeko aurkeztu dira. Halaxe gertatzen da, adibidez, ezgaitasun fisikoa duela gutxitik zuen eta zer erakundetara jo jakiteko orientazioa behar zuen pertsona batekin, edo Mendetasunaren Legeak dakartzan prestazioen tipologiari buruzko zenbait xehetasun jakin nahi izan zituzten zenbait pertsonekin.

Herri Lanak eta Zerbitzuak

Garraio publikoaren irisgarritasunak oraindik ere kexa asko eragiten ditu erakunde honetan, azken urteotan hiri garraioaren arloan asko aurreratu den arren eta horri esker autobus multzoa egokitzeko ehunekoak oso altuak izan diren arren, hiri arteko garraioa oraindik ez da egokitzapen maila egokietara hurbiltzen. Hori gorabehera, onartu behar da tartean diren administrazioak ahalegin handiak egiten ari direla garraio publikoaren erabiltzaileei ibilgailu egoki gehiago eskaini ahal izateko.

Horren kaltetan izan gabe, hiri garraioaren irisgarritasunak kexak eragiten jarraitzen du, ez hainbeste autobus egokituak falta direlako, baizik eta unitate horiek duten ekipamendua ez delako behar bezala erabiltzen: plataformak ez dira aktibatzen, ibilgailuak ez dira espalaira hurbiltzen mugikortasun urriko pertsonak bertara jaitsi ahal izan daitezten. Batzuetan, gidariak ezin dute geralekura guztiz hurbildu eremu horretan, behar ez bezala, ibilgailu bat edo bat baino gehiago aparkatuta dagoelako.

Jokabide horrek, berez, trafikoko arauak urratzen ditu. Zirkulazioko Kodeak 292. III artikuluan dio, gaizki aparkatuta dauden ibilgailuek hiri eremuetako zirkulazioa larriki oztopatzen dutenean, trafikoko agenteek neurriak hartu ahal izango dituztela, horien artean, baita ibilgailua gordailura eramateko agintzea ere.

Artikulu horren b) atalaren arabera, ibilgailua kendu eta gordailura eramateko neurria justifikatuta egongo da *“ibilgailua garraio publikoko ibilgailuentzat erreserbatutako eremuetan aparkatuta dagoenean, betiere, eremu horiek behar bezala seinaleztatuta eta mugatuta baldin badaude”* (5. atala).

Horri dagokionez, bereziki mugikortasun urriko pertsonen eragiten dien arazo larri honen inguruan ohartarazi nahi izan dugu. Autobus egokitu batek ezin duenean geralekura guztiz hurbildu eremu horretan ibilgailu bat dagoelako, mugikortasun urriko pertsona ez da espaloian geratzen, baizik eta errepidean, eta horrek segurtasun arazoa sortzen du gurrpil aulkian doan pertsonarentzat: batetik, galtzadan egoera ahulagoan dago eta, nahi gabe, ibilgailuen trafikoa oztopatzen du; eta, bestetik, pertsona horrek aukera gutxiago ditu espalaira azkar iristeko, berarentzat gainditzeko zaila den oztopoa gainditu behar baitu, hots, zintarria. Horretarako, zenbait metro errepidetik egin behar dituzte beheragunea aurkitu arte eta bide horretako gainerako erabiltzaileen ulermen eta asmo onaren menpe.

Hala ere, errealitatea era askotakoa da eta autobusa espalaira ezin hurbiltzeko arrazoiek, batzuetan, ez dute zerikusirik garraio zerbitzua eskaintzearekin. Geraleku batzuetan autobusak ez dira ondo sartzen; beste batzuetan autobusaren geralekua

eta zamalanetarako eremua bat datoz; bestea batzuetan autobusak ezin dira espalaira guztiz hurbildu bidaiariak bertatik hartu edo bertan uzteko, zintarrietatik gertu zuhaitzak, farolak, bankuak edo zabor edukiontziak jarri direlako edo markesinak berak autobusa geralekura hurbiltzea eragozten duelako.

Arazo honi irtenbidea aurkitzea are zailagoa da garraio lineak hiri arteko zerbitzuak eskaintzen dituenean, tartean administrazioak, foru aldundiak eta udalak baitaude eta horiek zerbitzua ematen duen enpresa pribatuarekin koordinatu behar baitute.

Besteak beste, herri barruko trafikoa antolatzea, geralekuen kokapena aukeratzea eta hiri altzariak jartzea (bankuak, farolak, etab.) udalei dagokie.

Arazo horien aurrean, zerbitzua ematen duten enpresei ere laguntza eskatu diegu eta arren eskatu diegu geralekuetan antzematen dituzten zailtasunak foru aldundiei eta udalei jakinaraz diezazkietela, batera eta ados jarrita arazo zehatz horiei irtenbidea aurkitzen joan ahal izateko, nola geralekuak lekuz aldatuta hala hiri altzarien kokapena aldatuta.

Bestalde, arlo honetan aipatu beharrekoa da bide bateko zirkulazioaren noranzkoa aldatzeko egin ziren obrek espazio publikoen irisgarritasunari buruzko araudia kontuan hartu ez zutela adierazteko pertsona batek aurkeztu zuen kexa. Galdakaoko Udalak jakinarazi zigun obren xedea bide zirkulazioa eta aparkamendua hobetzea zela, nahiz eta 2007ko ekitaldian inguruko arkitektura oztupoak ezabatzeko proiektua prestatzen hasteko asmoa zuten. Alabaina, aipatu zuten, eraikuntza horien kokaleku den eremuaren malda naturala ikusita, ia-ia ezinezkoa zela irisgarritasun arauak zehatz-mehatz betetzea.

Informazio horri dagokionez, Udalari adierazi genion nahitaezkoa zela abenduaren 4ko 20/1997 Legea, irisgarritasuna sustatzeari buruzkoa, eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, betetzea.

Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren V. eranskinak urbanizazioetan eta eraikuntzetan egin beharreko berritze, zabaltze edo aldatze lanak arautzen ditu. 3. artikulua erabilgarritasun irizpideen aplikazioa zehazten du, ezaugarri orografikoak, egiturazkoak edo formazkoak direla medio, ezinezkoa denean eranskinean jasotako irisgarritasun irizpideak aplikatzea edo gastua neurritz kanpoko denean.

Bestalde, artikulua bereko hirugarren atalak dio, ezinezkoa denean aurreko atalean jasotako elementuetakoren bat gutxieneko irisgarritasun baldintzetara egokitzea, hori agiri bidez justifikatu behar izango dela; halako kasuetan, derrigorrezkoa izango da, lizentzia onartu aurretik edo, kasu honetan bezala, proiektua onartu aurretik, udal zerbitzuen txostena izatea alderdi horiei dagokienez eta espedientearen irisgarritasunerako Euskal Kontseilura bidaltzea, horren berri izan dezan.

Ogasuna

Pertsona ezinduen aukera berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legea indarrean sartu zenetik duela gutxira arte bertako 1.2 artikulua aplikazio eremuaren inguruan sortutako interpretazio ugariak oro har nahaste handia eragin dute eta, zehazki zergen eremuan, erabateko ezintasun iraunkor edo absolutuagatiko edo baliaezintasun handiagatiko pentsioa

jasotzen duten pertsonengan itxaropenak piztu ditu, baina, azkenean, horiek zapuztuta geratu dira.

Agindu honek halaxe dio: *“a los efectos de esta Ley, tendrán la consideración de personas con discapacidad aquellas a quienes se les haya reconocido un grado de minusvalía igual o superior al 33 por 100. En todo caso, se considerarán afectados por una minusvalía en grado igual o superior al 33 por 100 los pensionistas de la Seguridad Social que tengan reconocida una pensión de incapacidad permanente en el grado de total, absoluta o gran invalidez, y a los pensionistas de clases pasivas que tengan reconocida una pensión de jubilación o de retiro por incapacidad permanente para el servicio o inutilidad.”*

Legea onartu ondoren, manu horrek zuen esanahiaren aurkako iritziak eta irizpi-deak eskaini ziren. Era berean, sektore batek zioen manuak automatikoki “elbarritzat” hartzen zituela pentsiodun horiek; beste sektore doktrinal batek, ordea, zioen 1.2 artikulua egiten duen alderatzea ezin zela oro har aplikatu, baizik eta 51/2003 Legeak 3. artikuluan⁶ adierazten zuen aplikazio eremura mugatzen zela.

Bestalde, aipatutako manuaren esanahi zuzenari zegokionez irizpide desberdintasuna sortzearen ondorioz, administrazioek irizpide heterogeneoak aplikatu zituzten, batzuetan, adierazitakoen moduko egoera agiri bidez egiaztatzeko beren betebeharrakiko kontrakoak ere bazirenak.

Bi arazoak konpontze aldera –hots, alderatzearen zenbaterainokoarena eta elbarritasun maila egiaztatzearena– abenduaren 1eko 1414/2006 Errege Dekretua eman zen. Bertan adierazitakoaren arabera, ezgaitasunagatik pentsiodunen kasuan, %33ko elbarritasun maila GSINen ebazpenaren bidez egiaztatzen da; bertan, pentsioduna dela jasotzen da (Ekonomia eta Ogasun Ministerioa edo klase pasiboen erregimeneko pentsiodunen kasuan, Defentsa Ministerioa), garbi utziz, halakoetan, %33ko elbarritasun maila egiaztatzeko ez dela IMSERSOren edo dagokion autonomia-erkidegoko organo eskudunaren ebazpena edo ziurtagiria eskatu behar. Alderantziz, %33koa baino elbarritasun maila handiagoa egiaztatu nahi bada, 1414/2006 EDk kasu horretarako dio beharrezkoa izango dela IMSERSOk edo dagokion autonomia-erkidegoko organo eskudunak emandako ebazpena edo ziurtagiria eta, bertan, 1971/1999 EDko 1. eranskinean jasotako baremoa aplikatuta baloratuko da egoera.

Horrela, esan dezakegu 1414/2006 EDk ezgaitasun egoera egiaztatzearen inguruan eta organo eskudunek hori egiaztatzeko duten betebeharraren inguruan zeuden zalantzak argitu zituela, baina ez zuela berariaz aipatu 51/2003 Legeko alderatzeak zer ondorio praktiko zituen.

Azkenean, justizia-auzitegi nagusiek bildutako tesi ezberdinek kasazioa eragin dute Auzitegi Gorenak doktrina batera zezan eta honek erabaki du ez dela bidezkoa ezintasun iraunkoragatik pentsioak jasotzen dituztenak automatikoki elbarritzat hartzea.

⁶ Artículo 3. Ámbito de aplicación.

De acuerdo con el principio de transversalidad de las políticas en materia de discapacidad, esta Ley se aplicará en los siguientes ámbitos:

- a) Telecomunicaciones y sociedad de la información.
- b) Espacios públicos urbanizados, infraestructuras y edificación.
- c) Transportes.
- d) Bienes y servicios a disposición del público.
- e) Relaciones con las Administraciones Públicas.

Auzitegi Gorenak finkatutako ildoak honela laburbildu daitezke:

51/2003 Legearen helburu nagusia bertako 3. artikuluan berariaz jasota dauden eremuetan zenbait neurri edo mekanismo ezartzea da, muga handiagoa dutenei eguneroko bizitza errazte aldera. Benetako aukera berdintasuna lortzeko asmo berari helduz, Legea ez zaie, soilik, %33ko elbarritasun maila edo handiagoa dutela onartuta duten pertsonen zuzendu, baizik eta bere estaldura ezgaitasun egoeran dauden beste pertsona batzuegan ere zabaltzen du. Horretarako, 1.2 artikuluan aipatutako ezaugarriak dituzten subjektuak alderatu ditu. Ezaugarri horiei esker, zenbait prestazio jasotzeko berariaz aipatutako eremuetan, beren bizi kalitatea hobetzeko eta Konstituzioaren 9.2, 10, 14 eta 49. artikuluetan adierazten den aukera berdintasunerako eskubidea baliatzeko, baina, horretarako, ez zaie berriro ematen %33ko elbarritasun maila edo 1971/1999 EDren babesean benetan egiazta dezaketean edo egiaztatuta duten elbarritasun maila.

Bestalde, 51/2003 Legearen araututako neurrietako bat bera ere ez da zergazkoa eta, beraz, hartzaileei aplikagarri zaizkieen zerga-onurak ez direla aldatu hura indarrean sartu zenetik.

Hala ere, baieztape hori eztabaida ezina izatearen kaltetan izan gabe, egia esan ez da hainbestera inokoa, gure zerga-sisteman ezgaitasunak ez baitu tratamendu unitariorik eta horrek, ondorioz, zerga-figura ezberdinen artean gero eta koordinazio falta handiagoa egotea dakar. Horrela, adibidez, PFEZ erregulatzen duen araudiak erabateko ezintasun iraunkorra edo absolutua edo baliaezintasun handia duten pentsiodunei ere onartzen dizkie ezgaitasunagatiko onurak eta zehatz-mehatz arautzen ditu elbarritasuna egiaztatu eta frogatzearekin erlazionatutako kontuak.

Hala ere, ez da gauza bera gertatzen beste zerga batzuekin, horien artean Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergarekin (TMIZ). Horren araudi orokorrak dio, “zerga honen ondorioetarako”, elbarritat hartuko direla %33ko elbarritasun maila edo handiagoa legez aitortuta dutenak, baina aukera ematen du udalek, TMIZri buruzko beren ordenantzetan, %33ko elbarritasuna edo handiagoa onartzeko erabateko ezintasun iraunkor edo absolutuagatiko edo baliaezintasun handiagatiko pentsioa jasotzen duten Gizarte Segurantzako pentsiodunei eta zerbitzurako ezintasun iraunkorra izateagatik erretiro pentsioa aitortuta duten klase pasiboetako pentsiodunei, betebeharrak formalak betetzearen ondoriozko zeharkako kostuak mugatze aldera.

Horrela, zenbait udalek bide horretatik zabaltzen dute TMIZn ezgaitasunagatik egiten den salbuespenaren aplikazio eremua, beren iritziz, ezgaitasunagatiko pentsiodunei %33ko elbarritasuna aitortu baitzaie. Beste udalerririk batzuetan, aldiz, aukera hori baztertu dute eta zerga arautzen duen ordenantzan elbarritat IMSERSOk edo dagokion autonomia-erkidegoak egindako ziurtagiria aurkezten dutenak bakarrik hartu dira.

Horrela, ikus dezakegunez, ezgaitasunaren zerga-tratamenduan dagoen koordinazio falta ez da, soilik, zerga-figura ezberdinen artean antzematen, baizik eta baita tokiko zergan bertan ere. Egoera bitxi hau albait arinen konpontzea espero dugu, arlo hau dagokion arau esparruan erregulatuta.

Adierazi bezala, 51/2003 Legearen 1.2 artikulua TMIZn izan duen eragina alde batera utzita, 2007an arazoak antzematen jarraitu dugu zenbait udalek ezgaitasunagatiko salbuespena aplikatzeko, uzkur baitira zergari dagokion salbuespena 2004az geroztik TMIZ arautzen duten foru arauetan jasota dagoen moduan aplikatzeko. Are gehiago, esan genezake, zenbait kasutan, atzerapausoa ere antzeman dugula, salbuespena onartzeko, ibilgailuak egokituta egon behar duela ere adierazi baitute zenbait udalek

beren ordenantzetan; horrela, ezgaitasunagatiko salbuespenaren aplikazio eremua Toki Ogasunen 2002ko erreforma baino lehenagoko mailara jaitsi da.

Hainbat udalek ezgaitasunagatiko salbuespena zergaren foru arauan erregulatuta dagoen bezala aplikatzeko dituzten errezeloek gain, aurten beste gatazka-elementu berria agertu da, Zergen Zuzendaritza Orokorren kontsulta bat zabaltzean sortua (2005-02-18ko kontsulta loteslea). Bertan esaten denez, legezkoa da salbuespena atzeraeraginez onartzea hori interesdunarentzat onuragarria denean (betiere, beharrezko egitatezko kasuak egintza eraginkorra izateko ezartzen den datarako baldin bazeuden).

Kontsulta horretan ezarritako jarraibideei jaramon eginez, eragindako zenbait pertsonak beren udaletara jo eta zegokion eskaera aurkeztu zuten, baina udaletako batzuek ez zuten Zergen Zuzendaritza Orokorren irizpidea onartu eta, ondorioz, gai horren inguruko hainbat kexa aurkeztu ziren erakunde honetan.

Guri dagokigunez, iritzia eman aurretik, lehenik eta behin kasuan kasuko udalei zuzendu gintzaizkien, zuten iritzia zer arrazoitan oinarritzen zuten behar besteko xehe-tasunez ezagutze aldera.

Azkenik, kontsulta bera eta udaletatik jasotako erantzunak aztertuta, ateratako ondorioa izan zen hark, administratuaren ikuspegitik erakargarria izan daitekeen arren (salbuespena eskatzeko epea maximora luzatzen du eta preskripzioarenarekin bat egitea lortzen du), ez duela arrazoibide juridiko solidorik, ez baititu kontuan hartzen aldizka kobratzen diren zergen likidazioak irmo egitearen ondorioak, ezta eskatu beharreko salbuespenen berezko ezaugarriak ere.

Egoera horretan, eta tokiko zerga sistemaren berezitasun propioak aintzat hartuta, erakundeak, azkenean, aipatu kontsultari men egitearen inguruan gure autonomia-erkidegoko udal bakoitzak hartzen duen erabakia errespetatzearen alde egin du.

Ezgaitasun egoerei dagokienez 2007an sortutako zergazko arazoaren inguruko errebasoarekin amaitzeko, urtea amaitzear zegoela erregistratutako bi kexa aipatuko ditugu. Kexa horiek ezinduren bat duten familietako kide diren ikasleei aplikagarri zaien unibertsitateko prezio publikoen gaineko salbuespena dute hizpide.

Erreklamatzailleek diotenaren arabera, zegozkien matrikulak ordaindu ondoren, ordura arte ezezaguna zitzairen salbuespenari heltzeko beharrezko betekizunak betetzen zituztela jakin zuten. Antza, salbuespena ez zen Unibertsitateak kasuan kasuko formula-rioak formalizatzeko landutako dokumentazioan ere aipatu. Interesdunek, horretarako eskubidea zutela jakin zutenean, matrikulatzeko ordaindu zituzten zenbatekoak itzul ziezazkiela eskatu zioten Errektoretzari, baina Administrazioak haien eskaerari uko egin zion, hori epez kanpo aurkeztu zela esanez.

Gaia aztertu ondoren ikusi ahal izan genuen, gutxienez ordura arte, ez zirela moldatu 2004az geroztik indarrean zen legeriari zegozkion administrazio agiriak, alegia, matrikula-orrietan ez zen aipatzen salbuespena egin zitekeenik. Ondorioz, salbuespenaren onuradun izan zitezkeenei beharbada galarazi egin zitzairen hura matrikula formalizatzeko unean ziurtatuz eskuratu ahal izatea.

Txosten hau egiten amaitutakoan, Unibertsitatearen erantzuna jaso zain gaude.

Funtzio Publikoa

Arlo honi dagokionez, aipatu behar dugu, aurreko ekitaldietan bezala, aurten ere ezgaitasunen bat duten pertsonen lan egiteko duten aukeraz galde egin dugula. Banakako

kexa ugari jaso ditugu ezgaitasunen bat duten izangaiek enplegu publikoa eskuratzeko prozesuetan baldintza beretan eta ordenamenduak onartzen dizkien eskubide guztiak errespetatuko direlako bermearekin parte hartzeko oraindik ere gainditu behar dituzten zailtasunak agerian uzten dituztenak.

Adibide gisa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak maisu-maistren kidegoan sartzeko antolatu ziren hautaprobetako izangai batek aurkeztutako kexa aipatuko dugu. Pertsona horrek erakunde honi adierazi zion, bere ezgaitasuna zela medio, bizi zen herriko ikastetxe batean lan egin behar zuela. Sailera idazkia bidali zuen eta, bertan, bere egoera azaldu zuen eta, jarduneko funtzionarioen destinoak esleitzeko ekitaldia gertu zegoela ikusita, hainbat agiri aurkeztu zituen bere eskaera bermatzeko. Egin genituen gestioen haritik egiaztatu ahal izan genuen, hasiera batean, administrazioak neurri berezirik ez hartzea erabaki zuela, esleipenaren emaitzak ezagutu arte. Azkenik, izangaiari esleitutako destinoa bizi zen lekukoa izatea egin zen.

Hezkuntza

Tamalez, aurten ere, gure kezka azaldu behar dugu, kexa gehiago aurkeztu baitira diabetesa duten eta gluzemia-kontrolak egunero, eskola-orduetan, egitera behartuta dauden ikasleen inguruan.

Aurten ezagutarazi zaigun eta oraindik ere izapidetzen ari garen kasuan, irakasleak arduratzen ziren eragindako adingabea artatzeaz. Izan ere, hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Osasun Sailak, 2005eko azaroaren 29ko Gobernu Kontseiluaren akordioari jarraiki, eskola-orduetan eskaini beharreko osasun arreta bereziari buruz sinatu zuten zirkularrean aurreikusitako formuletakoa bat da. Alabaina, lankidetzara hori jada ezinezkoa da.

Egoera horietarako, aipatu zirkularrean, neurri operatibo egokia hartu behar dela adierazteaz haraindi, kontua da ez dela berariaz aipatzen eragindako administrazioetako baten betebeharririk eta, beraz, ezin esan dezakegu horietako baten bat urratu denik administrazio bati edo besteari bete dezala eskatzeko. Hortaz, gure iritziz, berariazko premia horiei erantzuna aurkitu ahal izateko zirkular horretan bertan aurreikusitako lan taldeen barruan aztertu beharreko egoera baten aurrean gaude.

Bada, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari hala iradoki ondoren, oraindik ez dakigu zer ekimen bideratu izan daitekeen horren inguruan. Bien bitartean, ikasturtea aspaldi hasi den arren, eragindako adingabeari ez zaio erantzun egokirik eman, 2005eko azaroaren 29ko Gobernu Kontseiluaren akordioan parte hartu duten sailek adierazitako konpromisoak gorabehera.

Ezin izan dugu, ezta ere, adimen gaitasunak neurtzen dituen “WISC-R” izeneko proba egin behar duten adingabeei dagokienez hasi genuen jardueran aurrera egin (honen berri jada 2006ko txostenean eman genuen).

Osasun administrazioak gure laguntza-eskaerari berandu erantzun dionez, ezin izan dugu inolako ondoriorik atera; edonola ere, gure ustez, ondorio horiek garbi utzi behar dute ezinbestekoa dela berariazko osasun premiak dituzten adingabe eskolatuez arduratzen diren administrazioek laguntza ematea.

Jarraian, logopediako laguntza behar duten ikasleen inguruan burututako jarduera aipatuko dugu. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean egindako gestioei esker

ikusi ahal izan dugu, hezkuntza-sisteman, logopediako arreta hezkuntza-curriculumera sartzen laguntzera bideratuta dagoela horretarako zailtasunak daudenean. Horrek esan nahi du hezkuntza-administrazioak ez dituela foniatria bezalako tratamendu medikoak eskaintzen eta logopedia, medikuntzaren ikuspegitik baino, hezkuntzarenetik lantzen duela, baina, soilik, ezgaitasunen bat duten edo komunikatzeko zailtasunak dituzten ikasleekin.

Kexa batean aurkeztutako kasu bat aztertuta ikusi ahal izan genuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren informazio hori ez zettorrela bat Osasun Sailaren Bizkaiko lurralde zuzendariaren ebazpenean adierazitakoarekin; azken honek logopediako arreta eskolatutako ikasle guztientzat zela pentsaraz ziezaiekeen herritarrei. Horregatik, Osasun Sailari laguntza eskatu behar izan genion, herritarrei helarazten zaien informazioa berrikus zedin, logopediako arretari dagokionez interpretazio okerrak saiheste aldera.

Bestalde, ekitaldi honetan ere, hezkuntzan laguntzeko espezialisten beharraz ere hitz egin behar dugu.

2006-2007 ikasturtean, erakunde honek zenbait kexa izapidetu zituen hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzaile beharrak berriro definitzeko onartu ziren irizpide berrien inguruan. Bere garaiaren egindako gestioetan, argi geratu zen hezkuntza-administrazio horrek txostena egiteko asmoa zuela hezkuntzan laguntzeko espezialisten (HLE) baliaidea esleitzearen inguruan, irizpide objektibo batzuekin bat etorri; irizpide horien bidez, jarraipena egin ahal izango litzateke benetan aplikatzen direla egiaztatzeko.

Horregatik, eta hilabete hauetako esperientziari esker irizpide berri horien egokitasunari buruzko lehenengo balorazioa egin daitekeela ikusita, 2007an erakunde honek hezkuntzako arduradunen laguntza eskatzea pentsatu du, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta egokia emateko asmoa kontuan izanik Sailak horren inguruan atera izan ditzakeen ondorioak ezagutzeko. Azken informazioaren arabera, une honetan, sindikatuekin negoziatzeke dago irizpide horiek jasoko dituen txostena.

Aurrekoaren haritik, beharrezkoa iruditzen zaigu aipatzea Administrazioak berak onartzen duela zailtasunak dituela era horretako laguntzaileak ordezkatzeko langile beharrei erantzuteko. Are gehiago, azken hilabeteotan, gero eta gehiago dira zenbait familiak aurkeztutako kexak. Horien bidez, askotariko ezgaitasunak dituzten beren seme-alabentzat laguntza handiagoa eskatu dute, jantokia edo eskola-zerbitzua bezalako zerbitzu osagarriak normaltasun osoz erabili ahal izan ditzaten eta, orobat, irakastordue-tatik kanpoko hainbat jardueratan parte hartzeko aukera izan dezaten. Jasotako kexa gehienak Bizkaiko Lurralde Historikoari dagozkio.

Azkenik, aurtun ere, Legebiltzarrean 2001ean aurkeztu zen *EAEko Hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna* txosten berezian egin genituen gomendioen ohiko jarraipen lana aipatu behar dugu.

Oraingoan, argitasunaren mesedetan, unitate terapeutiko eta hezkuntzazkoei eta arkitektura oztopoei buruzko informazio eskaera zehatzak espediente desberdinen bidez egitea erabaki genuen.

Jarraipen lan honen ondorioak adingabeen problematikari arreta berezia eskaintzen dion kapituluan bildu dira.

Osasuna

Atal honetan, hainbat pertsonak jo dute erakunde honetara Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak gurpil aulkia finantzatzeko laguntza ukatu dielako.

Aztertutako kasuetako batean, gurpil aulki elektrikoa finantzatzeko eskaera egin zen.

Halakoetarako, Osasun sailburuaren 2000ko irailaren 5eko Aginduak, Material Ortoprotesikoaren Katalogo Orokorra eta zerbitzu ortoprotesikoak zuzenean ordaintzea ahalbidetzen duten baldintza sozioekonomikoen baremoa onartzen dituenak, I. eranskineko 6.c) oharrean dio berariazko txosten klinikoa aurkeztu behar dela; bertan, erabiltzaileak gurpil aulki elektrikoak erabiltzeko behar den besteko ikusmen, adimen eta kontrol gaitasuna baduela eta hori guztia bere edo inoren osotasunerako arrisku gehigarriak izan gabe egin dezakeela zehaztuko da. Kexagileak halaxe aurkeztu zuen eskaerarekin batera eta, beraz, bere nahiak oinarriak bazuela pentsarazi zigun. Horregatik, txosten klinikoa horrek iradokitzen zuen ez beste ondorio bat ateratzera eraman zuten arrazoiak alderatze aldera, Osasun Sailari zuzendu gintzaizkion. Azkenean, eskaera onartu zutela jakinarazi ziguten eta, hala, eskatutakoari jarraiki, gurpil aulki elektrikoa finantzatu zen.

Bestalde, erakunde honetara jo zuen beste pertsona batek adierazi zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak uko egin ziola prestazio ortoprotesikoa (zehazki, gurpil aulkia) eskuratzeko eskaerari. Interesdunak adierazi zuen, ordura arte, prestazio hori Osasun Sailak eskaintzen zuela eta, hala, prestazio hori berritzeko eskatu ziola. Hala ere, osasun administrazio horrek jakinarazi zion, prestazio horren beharra laneko istripuaren ondorioz sortu zenez, Gizarte Gaietarako Ministerioko Zuzendaritza Probintzialera jo behar zuela, haren ustez, erakunde hori zelako laguntza hori emateko eskuduna.

Zuzendaritza horretan aurkeztutako eskaerari erantzunez, jakinarazi zioten, prestazio laneko istripuagatik jasotzen zuen arren, hori ordaintzea Osasun Sailari zegokiola, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 30/2005 Legearen berrogeita hemeretzigarren xedapen gehigarrian eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren urtarrilaren 26ko 131/2006 Aginduan egindako aurreikuspenarekin bat etorritik (agindu horren bidez, autonomia-erkidegoen esku utzi da osasun laguntzako prestazioari dagokion zenbatekoa, nazioarteko araudiaren babesean, baita laneko gertakizunen ondorioz jasotako osasun laguntzagatik osasun zerbitzu publikoei ordaindu beharreko kostua ere).

Bestalde, ikusi genuen, Osasun Sailak bere garaian helarazi zion erantzunean adierazitakoaren arabera, ordainketa egitera behartuta zegoen beste hirugarren bat zegoela. Ebazpen horretan aipatutako arauak eta orain indarrean den 130/2006 Errege Dekretuak diote pertsona hori zuzenean ematen zaizkien prestazioak ordaintzera behartuta dagoen beste hirugarren bat ere badagoela.

Arau horren IX. eranskina aztertu genuen, hirugarrenek ere ordaindu behar zuten osasun laguntzari buruzkoa, eta, hasiera batean, ez genuen inolako daturik ikusi ukoa eragin zuen kasuari manu hori aplikatu zekiokela pentsatzeko (manu hori egindako prestazioen ondorengo erreklamazioei buruzkoa da). Aipatu alderdietan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari zuzendu gintzaizkion, kexari tratamendu egokia emate aldera.

Gure eskaerari erantzunez, Sailak bere arrazoiei heldu zien, bere ustez, betebeharrak hori beste administrazio publiko batek ordaindu behar baitzuen, Laneko Istripuen

Mutualitatearen prestazioa zelako eta entitate hori Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak gainbegiratzeko delako.

Erakunde hau, ordea, aurretik esandakoari heldu zitzaion, gure ustez, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 30/2005 Legeak berrogeita hemezazigarren xedapen gehigarrian egiten dituen aurreikuspenek ez baitzuten zalantzan jartzen ordainketa egitera behartuta zegoenaren (hots, Estatuko Administrazioaren) erantzukizuna. Bestalde, beharrezkoa zen kontuan hartzea ez zirela aplikagarri irailaren 15eko 130/2006 Errege Dekretuaren aurreikuspenak, ez baitzen hirugarren horri jasanarazi ahal zitzaion inolako prestaziorik egon (dekretu horrek, prestazioen lehengo katalogoaren ildo beretik, zuzenean pertsoneri ematen zaizkien prestazioen ordainketa hirugarrenei eska dakiekeela aurreikuspen du).

Jakina, gerta daiteke argi ez egotea edo eztabaidagarria izatea Estatuko Administrazioak autonomia-erkidegoei ezarri dien betebeharra; horren arabera, eurek aurreratu behar dute berez Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak ematen duen prestazioa ordaintzeko zenbatekoa. Hala ere, arau horrek berak dio autonomia-erkidegoek gastua berreskuratuko dutela. Hortaz, gure jardueraren helburua interesdunaren eskubidea gauzatu ahal izatea izan da, ez baitzen inoiz zalantzan jarri botere publikoen aurrean jarduteko duen eskubidea.

Interesdunak eskatu zuen prestaziorako eskubidea zalantzan jarri gabe, ezta hori ordaintzeaz arduratu behar duen administrazioa zein den ere, pertsona horrek ezin du prestazio hori eskuratu.

Nolanahi ere, espedientea izapidetzeko prozesuan horraino iritsita, kexaren xede den erabakiari zegokionez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren erabaki eremua gainditzeko duen gaia genuen aurrean. Horregatik, Osasun Sailaren erantzuna kontuan izanik, Ararteko erakundeak ildo horretatik esku hartzeko zituen aukerak jada agortu zirela iruditu zitzaigun eta egokia iruditu zitzaigun kexaren berri Estatuko Herriaren Defendatzailari ematea, horri baitagokio Estatuko Administrazioaren aurrean jardutea.

Azkenik, osasun arloari dagokionez, garun perlesia duen eta gurpil aulkia erabiltzen duen neskato baten amak aurkeztutako kexa aipatu nahi dugu. Bertan adierazi zigun zailtasun handiak zituela derrigor joan behar zuen osasun zentroetan arreta jasotzeko.

Horri dagokionez, azaldu zuen 20 urteko bere alabari azterketa ginekologikoak edo plakak egiten zizkioten anbulatorioan ez zegoela ez zelaririk ez garabirik, ezta beharrezko laguntza teknikorik ere hura ohatilara aldatzeko eta, ondorioz, berak egin behar zuela hori.

Osakidetzari egin genion eskaerari erantzunez, jakinarazi ziguten ezgaitasunen bat duten pertsonentzako garabia erostea erabaki zutela eta horren izapideak al bait arinen egingo zirela.

Herrizaingoa

Arlo honetan hainbat kexa aurkeztu dituzte ezgaitu txartelaren titular diren mugikortasun urriko pertsonak, ibilgailua aparkatzerakoan dituzten zailtasunak salatzen, gordetako plaza-kopurua eskasa delako edo zenbaitzuek ez dituztelako plaza horiek edo aparkatzeko txartela bera behar bezala erabiltzen.

Ekitaldi honetan jasotako kexa batean pertsona batek adierazi zigun ezgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako aparkaleku plazetan maiz udaltzaingoaren ibilgailuak egoten zirela.

Bestalde, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako txartelaren titularra zen batek aurkeztu zuen kexa aipatu behar dugu. Bertan adierazi zuenez, ez zegoen ados pertsona horientzat gordetako leku batean aparkatzeagatik Bilboko Udalak jarri zion zigorrarekin. Adierazi zigunez, prozedura udaltzain batek haren ibilgailuaren kontra jarritako salaketa baten ondorioz hasi zen kasu honetan ere. Udal agentearen iritziz, ibilgailuan jarritako txartelak ez zuen baliorik, bertan jasotako zenbait datu garbi ikusten ez zirelako. Agentek ibilgailua bide publikotik kentzeko agindu zuen eta, ondoren, aparkatzeko txartela bera konfiskatu zuen.

Espedientean ez zen aipatzen, udaltzainaren berrespen txostena eskatzeaz gain, beste inolako instrukzio egintzarik egin zenik gertakariak frogatze aldera, nahiz eta erreklamatazileak honakoak egin bere alde: lehenik, bere ibilgailuan zuen ezgaituentzako aparkatzeko txartela jatorrizkoa zela adierazi zuen; bigarren, udaltzainak antzeman zituen akatsak txartela denbora asko eguzkitan egoteagatik sortu zirela argitu zuen; eta, azkenik, erreklamatazileak bere ezintasuna frogatzeko agiriak ekarri zituen.

Espedientean ere ez zen jasotzen kendutako txartela edo horren kopia eta ez zen aipatzen prozedurako instruktoreak edo organo zigortzaileak agiri horren inguruan edota gaia zela-eta erreklamatazileak egin zituen alegazioen inguruan baloraziorik egin zutenik. Gainera, Udalak adierazi zigunez, txartela galdu egin zen.

Erakunde honen iritziz, kendu zen txartela arau-haustearen froga gisa erabili behar izango zatekeen eta, beraz, administrazio espedientean jasota geratu behar izango zukeen, egozketa-froga nagusi gisa, eta halaxe baloratu behar izango zatekeen. Halaber, uste dugu bideratzerakoan informazioa gutxienez zertxobait egiaztatu behar izango zatekeela txartela eman zuen udalarekin; horrela, aipatu agiria administrazio horrek erreklamatazileari emandakoa ote zen ziurtatu ahal izango zatekeen, erreklamatazileak zioen bezala, eta txartelaren egoera kaskarra azaltzeko egin zituen alegazioen sinesgarritasunari buruzko bere iritzia bildu ahal izango zatekeen (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137.4 artikulua). Administrazio espedientearen arabera, ez zen halakorik egin; alderantziz, instruktoreak eta organo zigortzaileak udaltzainaren balio judizioa bere baino ez zuten egin, trafikoa zaintzeko lanetan agintaritzako udaltzainek antzematen dituzten gertakarien egiazkotasun ustean babestuta, eta, uste horretan oinarrituta, interesdunaren alegazioak baztertu zituzten. Aipatu gogoetetan oinarrituta, adierazi genuen, gure iritziz, egindako instrukzioa ez zela nahikoa erreklamatazilearen erantzukizuna frogatzeko eta Udalari ohartarazi genion zigorra ondorioz gabe utzi behar zuela eta interesdunari ibilgailua berreskuratzeko honek ordaindu zuen kopurua itzuli behar ziola. Udal administrazioak gure balorazioa onartu zuen.(...)

Mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako aparkaleku plazak behar ez bezala erabiltzeari buruzko kexei dagokienez, gogorarazi behar dugu ezinbestekoa dela udalek pertsona horien eskubideak defendatzeko konpromiso sendoa eta irmoa hartzea eta arretaz betetzea gordetako plazak behar bezala erabiltzen direla zaintzeko ordenamendu juridikoak ematen dizkien eginkizunak.

Azkenik, udaltzaingoaren zenbait bulegoetako irisgarritasuna aipatu nahi dugu. Bulego horietara bisita egin zuten erakunde honetako zenbait ordezkariak, “*Ziegak. Udalaren eta Ertzaintzaren atxiloketa-zentroak*” izeneko ezohizko txostenean bildu genituen gomendioen betetze maila egiaztatze aldera garatzen ari garen jardunen esparruan.

Bermeoko udal atxilogunera egindako bisitan ikusi ahal izan zen 1998an egindako ikuskapenean antzeman ziren irisgarritasun arazoek konpondu gabe jarraitzen zutela. Hala, instalazioetarako sarrera nagusiak eskailera-maila gaindiezina zuela eta, orobat, atak zabalera nahikoa ez zuela egiaztatu ahal izan genuen. Ziegetara iristea ere ezinezkoa zen oraindik ere.

Bestalde, Donostiako udal atxilogunean, ezinduei Udaltzaingoaren polizi etxera ate nagusitik sartzea eragozten dieten eskailera-mailak gainditzeko ezarri den sistema ere ez da aldatu aurreko bisitaldia egin genuenetik. Horiek alboko sarrera erabili behar dute. Sarrera horrek kalezulo batera ematen du eta bertatik polizi ibilgailuak ibiltzen dira. Solaskideetako batek aitortu bezala, hori arriskutsua da nahitaz ate hori erabili behar duten pertsonen segurtasunerako. Sarreraren eta bulegoetarako atearen artean ere zenbait eskailera-maila daude eta, horiek gainditzeko, aulki jasotzaile zehar dago. Hori erabiltzeko, ordea, bulegoko langileei laguntza eskatu behar zaie, bertan dagoen txirrina sakatuta.

Gure ustez, mekanismo hori berrikusi egin behar litzateke eta, horren ordez, sarrera hori erabili behar duten pertsonen autonomia eta segurtasuna behar bezala bermatzen duen beste bat jarri.

Etxebizitza

Arlo honetan izapidetutako kexei dagokienez, ezgaitasuna zuen pertsona batek mugikortasun urriaren ondoriozko premiekin bat ez zetorren etxebizitza esleitu ziotela-eta egin zuen kexa aipatu nahi genuke. Erreklamatazileak beharrezko obrak egiteko eskatu zion VISESA sozietate sustatzaileari, etxebizitza hark zuen ezgaitasunera modaltzeko, baina aipatu sozietateak ez zion erantzun egokirik eman. Horregatik, gure esku-hartzea eskatu zuen eta, horri esker, azkenean, okerreko jarduera zuzendu egin zen, VISESA sozietate publikoak etxebizitza behar bezala egokitzeko obrak egin baitzituen, aldez aurretik interesdunarekin berariaz hala adostuta.

Kultura eta Elebitasuna

Azkenik, pertsona batek Bizkaiko Foru Aldundiak sustatu zuen “Udalekuak 2007” udako kanpainari buruz aurkeztu zuen kexa aipatu nahi dugu alor honetan. Zehazki, ezgaitasuna duen eta udalekuetan plaza bat eskatu zuen hamar urteko bere semearekin gertatutakoa azaldu zigun, plaza ukatu baitzioten. Esleitzeko prozedura martxoaren 1eko 1082/2007 Foru Aginduan (martxoaren 16ko BAO n argitaratutakoan) aurreikusita dago (horren bidez, “Udalekuak 2007” udako kanpaina arautzen da).

Laburpen gisa esan dezakegu arauak bi txandak aurreikusten dituela, bata, ezgaitasunen bat duten adingabeentzat gordeta, eta, bestea, generikoa. Hortaz, ezgaitasunen bat duen pertsonak parte hartzeko bi bide ditu: berariazkoa, bere ezaugarriengatik, eta komuna, eskatzaile guztiei dagokiena. Era berean, parte hartzeko eskabide bakoitzean gehienez hiru onuradun egon daitezkeela ere aipatzen da. Laburbilduz, ezgaitasunen bat duen pertsonari hainbat aukera eskaintzen zaizkio; aukera horiek honela sailka daitezke:

berriazko txanda edo txanda orokorra, eta horietako bakoitzean interesdun-onuradun bat edo gehiago (gehienez hiru). Aukera horiek elkarren baztertzailak dira, hau da, ezin da eskabide batean baino gehiagotan eskatzaile gisa ageri.

Helarazitako datuei jarraiki, antza, adingabea txanda orokorraren bidez parte hartzeko aukerarekin geratu zen, ezgaitasunik ez zuten beste bi eskatzaileekin batera. Horrela, Aldundiaren iritziz, “parte-hartzaile arruntaren” eskaera gisa hartu behar zen eta, ondorioz, aurreikusitako kasuetan talde honetarako plazak esleitzeko zozketatik ateratzen zenari heldu behar zitzaion. Bestela esanda, ezgaitasunen bat duten pertsonentzat ezarritako erreserba-erregimenetik kanpo geratzen zen; erregimen horretan, plaza zuzenean esleitzen da, zozketarik egin gabe.

Interesdunak azaldu zigun arazoa aztertzeko hartutako konpromisoa betez, administrazioaren erabakiak lege babes nahikoa bazuen ala ez zuen zehazte aldera ateratako ondorioen berri eman genion.

Ikuspegi horretatik, gure iritzia izan zen eskaerari aplikatu zitzaizkion eta kexagileak zalantzan jarri zituen irizpideak, horiexek izanik kexaren arrazoia, bazutela oinarri nahikorik eta, beraz, ezin esan zitekeela horiek arbitrarioak izan zirenik. Nolanahi ere, adierazitakoa ez litzateke etorkizunean egin litezkeen arau aldaketekin kontraesanean egongo. Hizpide dugun gaiari dagokionez, administrazioaren edozein erabakik izan behar duen erreferentziazko lege esparruari zor zaion errespetuarekin, Foru Aldundiak diskrezionalitate eremu bat du. Hortaz, azpimarratu genuen, egungo esparrua gertatzen diren aldaketen kaltetan izan gabe, genituen elementuen arabera, gure ustez, ez zegoela arrazoi sendorik egindako balorazioaz haraindiko beste jarduerarik egiteko.

5. BERARIAZKO ARRETA ETORKINEI

2007an erakunde honek hainbat jarduera burutu ditu Europar Batasunaz kanpoko atzerriarrak direla-eta. Atal honetan, Arartekoak horien eskubideak babesteko eta horien gizarteratzea sustatzeko egin duen esku-hartzea bildu dugu.

Inmigrazioa gizartean, ekonomian, kulturaren, lanean, etab. eragiten duen eta, etorkin kopurua ikusita, azken urteotan garrantzia hartu duen gizarte egitatea da. Bere ezaugarri nagusietako bat jatorrien eta egoera pertsonalen aniztasuna den arren, zenbait kasutan gizartean baztertuta geratzeko arriskua dago eta, beste batzuetan, etnia edo arrazagatiko bereizkeria ekartzen du. Administrazio publikoen jarduera funtsezkoa da egoera ahul horiek arindu eta saihesteko. Talde honi dagokionez, Arartekoaren esku-hartzearen helburu nagusia etxebizitza duina izan dezatela eta beren oinarritzko eskubideak errespeta daitezela babestea da.

Atzeritarren eskubideak argitzeari dagokionez, garrantzitsua da aipatzea aurreko Konstituzio Auzitegiak bi epai eman dituela Nafarroako Parlamentuak (Konstituzio Auzitegiaren 2007ko azaroaren 7ko epaia) eta Andaluziako Juntak (Konstituzio Auzitegiaren 2007ko abenduaren 19ko epaia) aurkeztutako konstituzio kontrakotasuneko errekurtso bana ebazteko. Errekurtso horiek atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatu zuen abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoko hainbat manuren aurka egin ziren. Epai horiek garrantzi handia dute, Konstituzio Auzitegiak atzeritarrek oinarritzko eskubideak izateari, legegileak horiek arautzerakoan dituen mugei eta Espainiak giza eskubideen arloan sinatutako itun eta hitzarmenen eragin eremuari dagokienez finkatu duen doktrina biltzen baitute. Beste zenbait kontu ere jasotzen dituzte, besteak beste, bisa ukatzeko administrazio egintzak arrazoitzeko betebeharretik salbuestearen legezketasuna, itzulera-prozeduraren legezketasuna, non bis idem printzipioaren eragin eremua edo 63. artikuluko lehentasuneko prozeduraren baitan hartutako kanporatzeko erabakia betearazteari buruzko araudiarekin erlazionatuta dauden alderdiak. Horiek guztiek izugarritzko garrantzi praktikoa dute, oinarritzko figurak baitira atzeritarrei buruzko egungo araubide juridikoaren baitan. Gainera, epai horiek urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko hainbat manuren konstituzionaltasunari buruz dihardute, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoa emandako idazketari jarraiki.

Lehen Konstituzio Auzitegiaren 2007ko azaroaren 7ko epaia da; horren bidez, ondorengo artikulua Konstituzioaren kontrakotzat jo dira: 7.1 (biltzeko askatasuna), 8 (elkartzeko askatasuna) eta 11.1 (sindikatuaren biltzeko eta greba egiteko askatasuna –hau sindikatuaren libreki biltzeko eskubideari dagokionez bakar-bakarrik–). Epaia dio ez dituela manu horiek baliogabetzat jotzen, horrek lege hutsunea sortuko bailuke eta, ondorioz, atzeritar guztiak kaltetuko litzuke, beren bizilekua, nola legezkoa izan hala legez kanpoko, edozein dela ere. Hori dela-eta, legegileari agintzen dio, arrazoizko epearen barruan, Espainian egoteko edo bizitzeko dagokion baimenik ez duten atzeritarrek biltzeko, elkartzeko eta sindikatuaren biltzeko dituzten eskubideez baliatzeko baldintzak ezar ditzala.

9.3 (hezkuntzarako eskubidea) eta 22.2 (doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea) artikuluei dagokienez, baliogabetzat jotzen du “egoiliar” hitza barneratzea.

Bestalde, Nafarroako Parlamentuak 60.1 artikulua ere aurkaratu zuen arren (horren bidez, mugan sartzea onartzen ez denean derrigor itzultzeko prozedura arautzen da), manu hori ez zen Konstituzioaren kontraktat jo.

Bigarren epaiak, 2007ko abenduaren 19koak, Andaluziako Juntak egindako errekurtsioa ebaztekoak, aurkaratutako manuei buruz baino ez dihardu. Manu horiek ez datoz bat Nafarroako Parlamentuak aurkeztutako errekurtsioan adierazitakoekin, horiei dagokienez aipatu epaian azaldutakoari lotzen baitzaio. Beste manu horiek direla-eta, 11.2 artikulua (grebarako eskubidea) baino ez du jotzen Konstituzioaren kontraktat, "lan egiteko baimena dutenean" intzisoa baliogabea delako (Nafarroako Parlamentuak ez zuen manu horren aurka egin).

Epai horiek arlo honetako jurisprudentzia osatzen dute; hori oso eskubide iturri garrantzitsua da atzerritarren eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko eta Administrazioaren jarduera legezkoa den ala ez jakiteko.

Europar Batasunaz kanpoko atzerritarrek dituzten premia nagusietako bat legezko eran lan egin eta bizitzeko baimena ematen dien dokumentazioa lortzea da. Estatuko Administrazio Orokorra da aipatu dokumentazioa izapidetzeko eskumena duena. Hori dela-eta, Herriaren Defendatzaileari bidali zaizkio batez ere dokumentazio prozesuari buruz aurkeztu diren kexak. Beste zenbait kexa ere jaso dira nola Barne Ministerioari hala Erregistro Zibil Nagusiari dagozkion espedienteak izapidetzerakoan atzerapenak izan direlako. Azken kasu horretan, deigarria da zer zailtasun dituzten marokoar jatorriko pertsonak bertan bizitzearen ondorioz nazionalizatu eta, emaztearekin berriz biltzeko, biek Erregistro Nagusian izena eman behar dutenean. Izen-ematea 18 hilabete baino gehiago atzera daiteke.

Nahiz eta, esan bezala, Herriaren Defendatzailea izan erakunde eskuduna, une honetan, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta beren gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoa betearazteko Araudia aldatu ondoren (2393/2004 ED, abenduaren 30ekoa), udalak ere ari dira sustraitze sozialeko txostenak egiten. Horregatik, zenbait kexa jaso ditugu udalen eskumenekoa den izapide horren inguruan; kexa horiek jarraian laburbilduko ditugu (a).

Burutu den beste esku-hartze batek bereizkeria eragin dezaketen edo iritzi xenofoboak sustatzen dituzten jarduerekin dute zerikusia (b).

Aurten, atzerritarrek udal erroldan sartzeari dagokionez ere esku hartu da. Hori dela-eta, "*Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de derechos de las personas extranjerias en situación irregular*" azterlana argitaratu da; lege araubidea legez kanpoko egoeran dauden atzerritarrek udal erroldan izena emateari buruz argitzeko lagungarria izatea espero dugu (c).

2007an 240/2007 Errege Dekretua argitaratu da, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko estatu kideetako eta 2007ko apirilaren 2az geroztik indarrean den Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Ituna sinatu duten beste estatu batzuetako herritarrek Espainian sartzeari, askatasunez joan-etorrian ibiltzeari eta bizitzeari buruzkoa. Gure

iritziz, araudi horrek Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 29an emandako 2004/38/EE Direktibaren aplikazio eremuari dagozkion aurreikuspenak mugatzen ditu (direktiba hori Batasuneko herritarrek eta beren familietako kideek estatu kideen lurraldean askatasunez joan-etorrian ibili eta bizitzeko duten eskubideari buruzkoa da). Hori dela-eta, ofiziozko jarduera burutu dugu; jarraian, horren berri emango dugu (d).

Azkenik, gizarte eragileekin elkarlanean eta gizartearen sentsibilizazioari dagokionez burutu ditugun jarduerak aipatuko ditugu (e).

Talde honi eragiten dioten eta txosten honetako beste atal batzuetan bildu diren bestelako jarduerak direla-eta:

Adingabe atzerritarren egoerak kezka handia pizten eta hainbat esku-hartze eragiten jarraitzen du, adingabeei buruzko berariazko azpiatalean jaso dugun moduan eta, beraz, horri lotzen gatzaizkio (II.3. atala).

Atzerritarrek hainbat arlori buruzko kekak aurkeztu dizkigute, besteak beste gizarte ekintzari, herrizaingoari edo hezkuntzari buruz. Arlo horiei lotzen gatzaizkie aipatu kexen inguruko ezagutza sakonagoa izateko (I. atala), nahiz eta, labur-labur, ondorengoak aipatuko ditugun. Gizarte ekintzaren arloan, Gizarte Ongizateko fondoko pentsioari buruzko kexa bat jaso dugu. Horren ondorio gisa, esan behar dugu irizpideak bateratu egin direla eta, hala, hiru lurralde historikoetan bizileku baimena baino ez da eskatzen eskabidea aurkeztu ahal izateko. Halaber, jakinarazi ziguten legez kanpoko egoeran zegoen atzerritar batek bizi agiria lortzeko arazoak zituela. Espediente honetan aldeko ebazpena eman zen, Gasteizko Udalaren laguntzarekin. Poliziaren tratu bidegabeaz edo indarra neurrigabe erabiltzeaz diharduten kexei dagokienez (herrizaingoaren arloa), zenbait espediente izapidetu dira eta, horietan, tratu iraingarria salatu zen edota kultur nahiz hizkuntz desberdintasunak zirela medio salaketa jartzeko zeuden zailtasunen berri eman zen. Azkenik, funtzio publikoaren arloan, bizileku baimena duten atzerritarrek administrazio publikoetan lan kontratudun langile gisa aritzeko duten eskubidea errespetatzen ez zuen deialdi bati buruzko kexa jaso dugu.

Garrantzitsua da aipatzea, orobat, 2007ko ekainaren 12ko Gobernu Kontseiluak Inmigratioko II. Euskal Plana onartu duela; aurtengo berritasuna da hori eta eragina du Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinen bizitzan. Azpimarragarria iruditzen zaigu euskal administrazio publikoek eremu honi dagozkion ekintzak eta neurriak hartzeko konpromisoa berenganatu izatea, beharrezkoa baita erakundeak gehiago inplikatzeko etorkin askok bizi duten desberdintasun soziala saiheste aldera. Azken batean, espero dugu, plan berri honekin, atzerritarrak baldintza beretan integratzeko prozesuan aurrera egin ahal izatea, hori ezinbestekoa baita gizarte kohesionatua izan dezagun.

Jarraian, talde honi dagokionez Arartekoak 2007an burutu dituen eta arestian labur-labur aipatu ditugun jarduera nagusien berri emango dugu:

- a) Oso garrantzitsua da udalek atzerritarren dokumentazio prozesuan burutzen duten esku-hartzea eta legezko bizilekua lortzeko zailtasunekin du zerikusia.

Egonaldiaren lehen urteetan atzerritar gehienek ez dute bertan bizitzeko baimena ematen dien dokumentaziorik. Etorri diren modua, nola turista gisa muga-postuak gurutzatuta hala muga-postuak saihestuta, ez da atzerritarrei buruzko araudian aurreikusitakoa legezko egoitza eduki ahal izateko. Horregatik, beste bide batzuetara jo behar dute, besteak beste, lehengo erregularizazio edo legez-tatze prozedura berezien modukoetara edo, bestela, egun, gizartean sustraitzeko prozedurara. Prozedura hori, une honetan, etorkinei lan egiteko eta/edo bertan bizitzeko baimena ematen dien dokumentazioa lortzeko bide nagusia da.

Prozedura hau atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunak arautzen dituen 4/2000 Lege Organikoko Erregelamenduaren 45.2 b) eta 46.2 c) artikuluetan dago araututa. Araudi horren arabera, sustraitzeagatiko egoitza-baimena eman ahal zaie gutxienez hiru urtez jarraian Espainian bizitzen egon direla egiaztatzen duten atzerritarrei, betiere, Espainian eta beren jatorri herrialdean ez badute zigor aurrekaririk, langileak eta enpresaburuak sinatutako kontratua baldin badute eskaera egiteko unean edo bertan bizi diren beste atzerritar batzuekiko famili lotura dutela egiaztatzen badute edo, gizarteratzea ziurtatzeko, ohiko bizilekua duten herriko udalak egindako txostena aurkezten badute.

Lan kontratua izateko baldintza ezabatu egin daiteke Udalak hala gomendatuz gero, betiere, bizitzeko bitarteko nahikoak dituela egiaztatzen badu. Udalek egiten duten txostena ez da loteslea, baina berebiziko garrantzia du. Izan ere, izapidetu dugun kexetako batean (1337/06 esp.), bizileku baimena ukatu egin da, gomendio hori zekarren Gasteizko Udalaren txostenik aurkeztu ez zelako.

Iaz (2006ko txostena), gizarte taldeekin izandako bileretan ere beren kezka adierazi ziguten, udalen gizarte txostenetan, batzuetan, ez zelako eranstean lan kontratua aurkezteko beharretik salbuesteko gomendioa. Gai honen inguruko hainbat espediente izapidetu ditugu Gasteizko Udalari dagokionez. Horietako bat jada ebatzi da ([apirilaren 23ko ebazpena](#))⁷. Hasiera batean, Udalak ez zituen gure gogoetak onartu, baina, ondoren, 2007ko urriaren 8an (1014/07 esp.), jakinarazi zigun 2007ko apirilaren 23ko Ebazpena berriro aztertzen ari zirela eta gutxi barru beste erantzun bat bidaliko zigitela. Hala ere, denbora asko igaro den arren, oraindik ez digute erantzun.

Ebazpen horretan Udalari gomendatzen genion gizarte txostena egin zezala, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunak eta euren gizarteratzea arautzen dituen 4/2000 Lege Organikoan bildu zen eta 2393/2004 EDk onartu zuen Erregelamenduaren 45.b artikulua aplikatuta. Txosten hori aipatu errege-lamenduaren 46.2 c) artikuluan ezarritako edukari eta Inmigrazio Zuzendaritza Nagusiak egindako jarraibideei egokitu behar zitzairen. Jarraibideetan ezarri zen udalen txostenek edukia izan behar zutela eta arrazoituta ere egon behar zutela;

⁷ Arartekoaren ebazpena, 2007ko apirilaren 23koa; horren bidez, Gasteizko Udalari gomendatzen zaio herritar baten eskaerari erantzun diezaiola eta gizarte txostena egin dezala, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko araudian ezarritako xedapenei egokituta.

eredua ere erantsi zen. Eduki horrek pertsonaren egoeraren berri ematen zuen. Horregatik, adierazi genuen, gure iritziz, gizartean sustraitzeko txostenek aipatu jarraibideetara egokitu behar zutela eta Udalak egindako gizarte txostenaren edukia, kasu hartan, ez zettorrela bat indarreko araudiarekin.

Gasteizko Udalak oraindik ez digu erantzun, 1014/2007 espedientea berrikus- teko asmoa zuela adierazi digun arren. Espediente hori ere gizartean sustrai- tzeko txostenak aipatu gomendioa barneratzen ez zuelako eta hala ez egitearen arrazoiak adierazten ez zituelako hasi zen.

Gure ustez, nabarmentzen jarraitu behar dugu garrantzitsua dela atzeritarrentzat bizileku baimena lortzea. Dokumentazio horri esker bizitza duina izan dezakete. Hori dela-eta, administrazioek dokumentazio hori izapidetzen laguntzeko eran- tzukizuna dutela azpimarratu nahi dugu.

- b) Bereizkeriaren aurkako borroka funtsezkoa da desberdintasun soziala gainditzeko eta gizarte bazterkeriako prozesuei aurrea hartzeko, eta administrazio publikoek oso eginkizun garrantzitsua dute. Horrek adi egotera behartzen gaitu, ez baka- rik zuzeneko bereizkeria dagoenean, baizik eta baita zeharkako bereizkeria dagoenean ere. Zeharkako bereizkeriatzat hartuko da itxuraz neutroa izan baina desabantaila partikularra eragin dezakeen edozein erabaki edo jarduera (baita edozein xedapen, kontratu, itun... oro ere), betiere, objektiboki bidezko xederik ez badu eta xede hori betetzeko bitartekoak egokiak eta beharrezkoak ez badira (2000/43/EE Direktiba, 2000ko ekainaren 29ko Kontseiluarena, eta 2000/78/EE Direktiba, 2000ko azaroaren 27ko Kontseiluarena, gure ordena- mendu juridikora zerga, administrazio eta gizarte neurriei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bidez ekarriak). Araudi horrek bizitzaren oinarriko eremuetan arraza edo etniagatiko bereizkeria debekatzen du, besteak beste, enpleguan, lanbide prestakuntzan, hezkuntzan, etxebizitzan, gizarte babesean, gizarte abantailetan eta produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko aukeran eta horien hornikuntzan.

Aipatu direktibak argitaratu zirenetik denbora asko igaro den arren, adminis- trazio eta erakunde publikoek ez dute inolako aurrerapen esanguratsurik egin bereizkeria kontrolatu, zaindu eta salatzeke tresnak abiarazteko.

Hala ere, aurtien Tratu Berdintasuna eta Arraza edo Etniagatiko Bereizkeriarik eza Sustatzeko Kontseilua sortu da (1262/2007 ED, irailaren 21ekoa, ares- tian aipatutako 62/2003 Legearen 33. artikulua aplikatuta). Organo honen helburua (2. art.) arraza edo etnia ezberdineko pertsonak berdin tratatzeko eta ez bereizteko printzipioa sustatzea da, bizitzako hainbat eremutan: hezkuntza, osasuna, gizarte prestazioak eta zerbitzuak, etxebizitza eta, oro har, edozer ondasun eta zerbitzuren eskaintza eta horiek eskuratzeko aukera, baita enplegua lortu, norberaren konturako lanean jardun eta lanbidean aritzeko eta erakunde sindikaletako eta enpresa-erakundeetako kide egin nahiz horietan parte hartze- ko aukera, lan baldintzak, lanbide sustapena eta lanerako nahiz trebakuntzako lanbide prestakuntza ere.

Estatuko, autonomietako eta tokiko administrazioan, enpresa-erakunde eta erakunde sindikal adierazgarrietan nahiz pertsonen arraza edo etniarekin erlacionatutako interesak babesten dituzten beste erakunde batzuetan ordezkari gisa parte hartuko dutela ezarri da (1. art.). Oraindik goiz da organo horrek zer eraginkortasun duen edo zer lan egin duen ezagutu eta baloratzeko, baina aurrerapauso garrantzitsua da abian jarri izatea.

2007an izapidetutako kexa batean (715/2007 esp.), pertsona batek jakinarazi digu Bilboko pub batera bere lagun ekuadortarrarekin iritsi zenean, lokaleko atezainak ez ziola sartzan utzi lagunari, antza, behar bezala jantzita ez zihoi-lako. Kexa aurkeztu zuen pertsonaren iritziz, arrazoia beste bat izan zen, alegia, atzeritarra zela. Erakunde honek informazioa eskatu die bai Bilboko Udalari bai Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailari. Bilboko Udalak jakinarazi digunez, polizi jardueran erabiltzailearen/kontsumitzailearen eskubideak arriskuan jar zitezkeela ikusita, Merkataritza eta Turismo Sailari gertakari berri eman zitzaion. Sailak espedientea izapidetu du eta atera duen ondorioa izan da bidezkoa dela erreklamazioa artxibatzea, ez baita egiaztatu turismoaren arloko administrazio urratzerik egon zenik. Erantzunean ez dago oso argi erreklamazioa izapidetzerakoan berme guztiak bete ote diren. Bestalde, aplikatu beharreko araudia (hots, abuztuaren 27ko 2816/1982 EDk onartu zuen Herri Ikuskizun eta Gozamenerako Jardueretako Poliziaren Arautegi Orokorreko 24.2 artikulua) oso argia da: *“Los titulares de establecimientos y los organizadores de espectáculos o actividades recreativas o personas en quienes deleguen podrán ejercer el derecho de admisión. Este derecho no podrá utilizarse para restringir el acceso de manera arbitraria o discriminatoria, ni situar al usuario en condiciones de inferioridad, indefensión o agravio comparativo. El derecho de admisión deberá tener por finalidad impedir el acceso de personas que se comporten de manera violenta, que puedan producir molestias al público o usuarios o puedan alterar el normal desarrollo del espectáculo o actividad...”*. Hori dela-eta, berriz ere informazio gehiago eskatuko dugu administrazioak espedientea artxibatzeko erabakia hartzeko izan dituen arrazoen inguruan.

Aurten ere, 2004ko txostenean bildu genuen *“Polizi kidegoek inmigratioari buruz ematen duten informazioaren tratamenduari buruzko”* gomendio orokorraren jarraipena egin dugu. Gure iritziz, bertan jasotako gogoetek garrantzi handia dute atzeritarrei buruzko iritzi xenofoborik sortu dadin saihesteko. Ildo horretatik (1657/06 esp.), Herrizaingo Sailak nabarmendu du ados dagoela *“Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen menpeko polizi kidegoek jokaera kodeak erabili behar dituzte inmigratioari buruz ematen duten informazioaren tratamendurako”* gomendioarekin. Horrela, beraz, arestian aipatu bezala, beharrezko jarraibideak eman dizkiote prentsa-zerbitzuari hark emandako informazioan naziotasunaren inguruan agertzen den edozein aipamen gure gomendioarekin bat etorri egin dadin. Gainera, Herrizaingo Sailaren asmoa ere helarazi digute, alegia, *“esforzarse aún más en afinar en lo posible la actuación de su Servicio de Prensa en este ámbito y, de procurar,*

que la información que facilita a los medios de comunicación no supongan un perjuicio injustificado para la imagen de concretos grupos nacionales”.

Bestalde, gaineratu dute oro har gomendioa betetzen dela, “*sin perjuicio de que en ocasiones pueda producirse algún fallo puntual, que no siempre el dato de la nacionalidad es facilitado por el Servicio de Prensa del Departamento, y que, por ejemplo, en el caso de las bandas de albanos-kosovares y otros grupos de delincuencia organizada, tal mención tiene un valor informativo añadido que explica su inclusión en la noticia, pues alude no tanto a una identidad nacional, como a un modus operandi característico del grupo de que se trate*”.

Oso egokia iruditzen zaigu iritzi xenofoboak saihesteko ahaleginak egitea, lehen esan bezala, administrazio publikoek oso eginkizun garrantzitsua baitute bereizkeriaren aurkako borrokan.

- c) Aurreko urteetan bezala, pertsonak udal erroldan izena ematearen inguruan hainbat esku-hartze burutu dira. Arartekoak, 2005eko txostenean, honako gai honi buruzko gomendio orokorra egin zuen: “*Udalek Europako erkidegokoak ez diren atzerritarren erroldako izen-ematea eta iraungipena erabakitzeke eta datuak beste administrazio publiko batzuei uzteko erabiltzen duten prozedurari buruzko zenbait gogoeta*”. 2006an, biztanle gehieneko udalek betetzen ote zuten ikusteko jarraipena egin zen (2006ko txostena). Izapidetutako kekez gain, aurreko ikerketa-lan bat argitaratu dela ere nabarmendu nahi dugu; hots, “*Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular*”.

Azterlanak hainbat zati ditu. Ikerlanaren lehen zatian, erroldaren figuraren inguruko analisi xehatua egin da: bere izaera eta izan duen bilakaera historikoa eta arauzkoa. Bigarren zatian, atzerritarrek erroldaren aurrean duten posizio juridikoa, bertan inskribatuta egoteko eskubidea (atzerritarrek, bere egoera juridikoa edozein dela ere, bizi diren udalerrian erroldatzeko eskubidea dute) eta erroldan inskribatuta egoteak dituen ondorioak aztertu dira. Azterlanaren helburua udal erroldak legez kanpoko egoeran dauden atzerritarren integrazio prozesuan nola eragiten duen ikustea da. Horrek erakusten duenez, osasuna, gizarte babeseko sistemak eskuratzeko aukera, adingabeen hezkuntzarako eskubidea, etxebizitzaren arloko laguntzak eskuratzeko aukera edo pertsona horiei administrazio erregulartasuna lortzea ahalbidetzen dieten mekanismo jakinak eskuratzeko aukera, neurri handi batean, pertsona erroldatuta egoteak edo ez egoteak baldintzatzen ditu. Halaber, erroldatzea zailtzen duten arazoak ere aztertzen ditu. Horiek, funtsean, bi dira: etxebizitzarik ez izatea, bertan erroldatu ahal izateko, eta agiririk ez izatea. Azkenik, atzerritarren erroldatzea ahalbidetzera bideratutako proposamenak egiten ditu.

Ikerlan honen bidez udal erroldaren araubide juridikoa zabaltzen lagundu nahi genuke, nagusiki, erroldak bizileku baimenik ez duten eta, ondorioz, gizarte egoera larrian dauden atzerritarren egoeran duen eraginari dagokionez.

d) Aurten, nagusiki Europar Batasuneko herritar direnei eta beren senideei eragiten dien araudi berria aplikatzearen inguruan galde egiteko zuzendu gataizkio Herriaren Defendatzaileari, bera izaki arlo honetan beharrezko lege aldaketa eskatzeko eskumena duen organoa. Gure iritziz, martxoaren 22ko DGI/SGRJ/03/2007 Jarraibideek, Europar Batasuneko estatu kideetako eta 2007ko apirilaren 2az geroztik indarrean den Europako Espazio Ekonomikoari buruzko Ituna sinatu duten beste estatu batzuetako herritarrak Espainian sartzeari, askatasunez joan-etorrian ibiltzeari eta bizitzeari buruzko otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuaren ingurukoek, araudiaren aplikazio eremuaren interpretazio murriztailea egiten dute. Interpretazio hori 240/2007 Errege Dekretuaren 2. artikuluan dago jasota. Artikulu horrek honela dio b) atalean: *“será de aplicación a los familiares de ciudadanos de otro Estado miembro de la Unión Europea o de otro Estado parte en el Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo, cuando le acompañen o se reúnan con él”*. Horien artean, ezkondata egotearen antzeko egoeran duen bikotekidea aipatzen du. Bikotekideak Europar Batasuneko estatu kideetakoren batean edo Europako Espazio Ekonomikoan barneratutako estatuetakoren batean ondorio horietarako ezarritako erregistro publiko batean izena emanda egon behar du. Erregistro publiko horretan izena emanda egoteak estatu horretan aldi berean bi erregistrotan izena eman ahal izatea eragotziko du. Hori gutzia egiaztatu egin behar du.

Jarraibideen arabera, Estatuko autonomia-erkidegoetan edo udaletan dauden bikote egonkor erregistro ugariak ez dira, oraingoz, ondorio horietarako baliokoak izango, 240/2007 Errege Dekretuaren 2 b) artikuluan adierazitako betekizunak betetzen ez dituzten artean.

Interpretazio horrek bazter uzten ditu izatezko bikoteak arautzen dituen maiaztaren 7ko 2/2003 Legeari heldu dioten bikoteak. Horrela, bikoteko kideetakoren bat Europar Batasunetik kanpokoa bada, ezin izango da 240/2007 Errege Dekretua aplikatu, nahiz eta Europar Batasuneko araudiak (2004/38 Zuzentarauak, 2004ko apirilaren 29koak, Batasuneko herritarrek eta beren familietako kideek estatu kideen lurraldean askatasunez joan-etorrian ibili eta bizitzeko duten eskubideari buruzkoak) ezkondata egotearen antzeko egoeran duen bikotekidea Europar Batasuneko senidetzat jotzen duen: *“...la pareja con la que el ciudadano de la Unión ha celebrado una unión registrada, con arreglo a la legislación de un Estado miembro, si la legislación del Estado miembro de acogida otorga a las uniones registradas un trato equivalente a los matrimonios y de conformidad con las condiciones establecidas en la legislación aplicable del Estado miembro de acogida.”* (2.2b. art.).

Gure gogoetetan Herriaren Defendatzaileari azaldu genion, gure ustez, Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak betetzen zituela Europako araudian aurreikusitako betekizunak, baina hori ez dela aplikatzen ari eta, ondorioz, jakin dugunez, izatezko bikoteei ukatu egiten zaizkie Europar Batasunekoaren senide txartela eskuratzeko egiten dituzten eskaerak; hori zurrizko, aipatu instrukzioetan jasotako arrazoibide berdinak erabiltzen dira. Horrela, Gobernuaren Gipuzkoako

Ordezkaritzaren 2007ko maiatzaren 8ko Ebazpenak honakoa dio: *“no acredita que esté inscrito en un registro público que impida la posibilidad de que existe otra inscripción simultánea en otro registro; ya que, por otra parte, ninguno de los actuales registros españoles tanto de Ayuntamientos, como de Comunidades Autónomas, cumple con este requisito de evitar la simultaneidad”*. Azken batean, adierazi genion kezkatuta geundela, zenbait jarraibide goragoko mailako araudia ez aplikatzeko agintzen ari baitira eta, ukatzeko arrazoa besteak beste datuen bikoiztasuna saihesten duten bitartekorik abiarazi ez dituzten erakundeek ezer egin ez izatea bada, horrek ez litzukeela ondorioz gabe utzi behar pertsonen aitortu zaizkien eskubideak. Oraindik ez dugu Herriaren Defendatzailearen erantzunik jaso.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari ere informazioa eskatu genion izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean aurreikusitakoarekin bat etorri abian jarri diren izatezko bikoteen erregistroen arteko koordinazio bitartekoari buruz. Sailak erantzun digu, batetik, bere iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroak ondo betetzen dituela 240/2007 EDk ezarritako betekizunak; eta, bestetik, etorkizunearn beste autonomia-erkidego batzuetako antzeko beste erregistro batzuekin koordinatzeari buruzko ekainaren 22ko 124/2004 Dekretuak onartu zuen Erregistroaren Araudiak ezarritakoa gorabehera, arazo tekniko eta juridikoen ondorioz, ezin izan dela koordinaziorik egin. Juridikoki oinarritu dute koordinazio tresnarik ez egotea ez dela oztopo betekizuna (alegia, estatu berean aldi berean bi erregistro ezin egotea) egiaztatu dela onartzeko. Gaineratu dute, hain zuzen ere, autonomia-erkidegoek, Estatuan araudirik ez dagoela ikusita, aurrea hartu dutela; horrela, *“Ezin da onartu, gaur egun bestelako araudirik egon gabe, Administrazioetik bertatik baliogabetzat jotzea erregistro autonomiko guztiak, eta aldi berean, ministerio eskudunak ez planteatzea legegintzako ekimenik, auzian dauden pertsonen alternatiba bat eskaintzeko.”*

Ondorio gisa, oso garrantzitsua iruditzen zaigu 240/2007 EDren aplikazio eremua argitzea. Hala egin ezean, izatezko bikoteei, horietako bat Europar Batasunaz kanpokoa denean, ezin aplika dakieke Estatuan sartu, egon eta geratzeko Europar Batasuneko pertsonentzat eta beren senideentzat aurreikusita dagoen araubide juridikoa. Hala, beraz, paradoxa sortzen da, elkarketa horietan izaten ari den aurrerapena ez baita legezko ondorioz izaten ari, hori beharrezkoak izan arren eskubideez baliatu ahal izateko.

- e) Aurten, atzerritarren eskubideak babesteaz arduratzen diren gizarte erakundeekin harremanetan egon gara. Esparru horretan, atzerritarrek dituzten zailtasunak eta administrazio publikoei egiten dizkieten eskaerak gizarteaz ezagutaraztea helburu duten jardunaldietan eta topaketetan parte hartu da. Gure aldetik, erakundearen beraren, arlo horretan garatzen dituen esku-hartzeen eta bere eginkizunen berri eman nahi da. Ildo horretatik, garrantzitsua iruditzen zaigu adieraztea edozein pertsonak, bere herritartasuna edozein izanda ere, jo dezakeela guregana euskal administrazio publikoren baten aldetik okerreko jarduera egon dela edo edozein motatako bereizkeria jasan duela antzematen baldin badu.

Gizartea sentsibilizatu beharri dagokionez, garrantzitsua iruditzen zaigu denboraren poderioz are larriagoa den eta, gure ustez, gizarte kohesioari batere laguntzen ez dion kezka nabarmentzea. Kezka horrek gizarte politikarekin eta zerbitzuak eta prestazioak lortzeko baldintzen inguruko informazio faltarekin du zerikusia. Zenbait pertsonak kexa aurkeztu dute gizarte prestazioak ukatu dizkietela jakinarazteko edo kontsultak egiteko. Kexa horietan beren iritzia helarazi digute batzuek, alegia, “beraiei ez dizkietela prestazioak ematen, baina etorkinei bai” edo “zenbait prestazio amaitu egiten direla, aurrekontua atzerritarrei arreta eskaintzeko bideratu delako”. Hala, beraz, gero eta gehiago, inmigrazioa mehatxu gisa ikusten da. Halako iritzia saihesteko, bereizkeriazko jokabideak eragin ditzakeenez, garrantzitsua da Administrazioak prestazioak eskuratzeko baldintzei eta berdintasun printzipioari buruzko informazioa ematea. Nahitaez sustatu behar den sentsibilizazio hori erantzukizun publikoarekin erlazionatuta dago; eta, gogora dezagun, erantzukizun publiko horrek izugarriko garrantzia du bereizkeriaren aurkako borrokan. Halaber, gizarte politikei dagokienez, garrantzitsua da horietako baliabideak eta zerbitzuak gehitzea premia ere handiagoa denean, hala eginda, gizarte alarma saihestuko baita.

6. BERARIAZKO ARRETA IJITO HERRIARI

Iazko txostenean ere adierazi genuen moduan, atal berezia eskaini diogu gutxiengo kultural honi, bere idiosinkrasiagatik, Euskal Herrian duen historia luzeagatik eta gure autonomia-erkidegoan berariazko plana eta laguntzako gizarte elkarte propioak izateagatik.

Ijito herriak Euskal Herrian bizi duen egoera aztertu genuenean, errealitatea desiragarria litzatekeenetik asko urruntzen dela ohartarazi genuen. Bereizkeria larria jasaten du eta gutxiengo gisa dituen eskubideak ez dira behar bezala babesten.

Ijitoen zati handi bat Euskal Autonomia Erkidegoko talderik ahulenetako bat da eta gizarte bazterkeria jasateko arrisku handiena du. Maiz, gainera, bereizkeria jasaten dute eta, ondorioz, ezin dituzte ez ondasunez ez zerbitzuez gainerako euskal herritarren baldintza beretan baliatu.

Errealitate hori Estatuan ere antzematen da. Halaxe erakusten dute **Arrazakeria eta Intolerantziaren Europako Batzordeak (ECRI) Espainiari buruz** egindako hirugarren txostenak eta **Arrazismoaren eta Xenofobiaren Europako Behatokiak**.

Ijitoak gutxiengoak babesteko Europako lege tresnen babespean daude, ondorio guztietarako. Espainiak **Gutxiengo Nazionalen Babeserako Esparru Hitzarmena** sinatu eta berretsi du (BOE, 1998ko urtarrilaren 23koa), baina ez dago inolako formularik ijitoak legez gutxiengo edo herri gisa onartzeko. Estatuak, aipatu hitzarmena berretsita, bereizkeriaren eta gizarte bazterkeriaren aurka borroka egiteko konpromisoa hartu du. Egoera hori ijito herriaren zati garrantzitsu batek bizi du. Horrela, 4. artikularekin bat etorritik: *“las Partes se comprometen a garantizar a las personas pertenecientes a minorías nacionales el derecho a la igualdad ante la ley y a una protección igual por parte de la ley. A este respecto, se prohibirá toda discriminación fundada sobre la pertenencia a una minoría nacional; 2 (...) las partes se comprometen a adoptar, cuando sea necesario, medidas adecuadas con el fin de promover, en todos los campos de la vida económica, social, política y cultural, una plena y efectiva igualdad entre las personas pertenecientes a una minoría nacional y las pertenecientes a la mayoría. A este respecto, tendrán debidamente en cuenta las condiciones específicas de las personas pertenecientes a las minorías nacionales; las medidas adoptadas de conformidad con el apartado 2 no se considerarán un acto de discriminación”*.

Ijitoen komunitateari dagokionez, botere publikoek birbanaketako politiketara bideratu dute jarduna, aintzatespen politiketara egin ordez. Gure ustez, ezinbestekoa da bi motatako politikei heltzea ijitoen erabateko hiritartasuna eta bereizkeriarik eza eta, azken batean, ijito herriaren nortasunerako eskubidearen babesa bermatzeko.

Ijitoen eskubideak bermatzeko, ezinbestekoa da, batetik, **bereizkeriaren aurkako borroka** areagotzea eta, bestetik, **ijito herria gutxiengo gisa** are gehiago **babestea**, horri hainbat eskubide onartuta, besteak beste, honakoak:

- a. Izateko eta nortasunerako eskubidea
- b. Beren kultura babesteko eta garatzeko eskubidea
- c. Beren kulturaz gozatzekoa
- d. Dagozkien kontuetan erabakiak hartzen parte hartzeko eskubidea
- e. Bizitza sozial, ekonomiko eta kulturalean parte hartzekoa
- f. Beren elkarteak ezarri eta mantentzekoa
- g. Bai eremu pribatuan bai publikoan beren hizkuntza erabiltzekoa

Azpitarratu beharrekoa da ijito herriak **erakundeen aintzatespena** duela Andaluziako eta Kataluniako **autonomia-estatutuetan**, baita onartzeke dauden beste batzuetakoetan ere (Aragoi, Gaztela-Mantxa eta Gaztela eta Leon). Horietan ijitoek autonomia horietako gizarte eta kultur aberastasunari ekarpen handia egiten dietela onartzen da.

Aurten, 2000ko ekainaren 29ko Kontseiluaren 2000/43/EE Direktiban aurreikusitako **Tratu Berdintasuna eta Arraza edo Etniagatiko Bereizkeriarik eza Sustatzeko Kontseilua** arautzen duen Errege Dekretua onartu da, hainbat denboran zain egon ondoren (direktiba hori pertsonak, beren arraza edo etnia edozein dela ere, berdintzatatzeko printzipioa aplikatzeari buruzkoa da). Irailaren 21eko 1262/2007 Errege Dekretuari buruz ari gara. Horren bidez, delako kontseiluaren osaera, eskumenak eta funtzionamendu araubidea erregulatzen dira.

Aurten ere, zehazki 2007ko azaroaren 13an, **Giza Eskubideen Europako Auzitegiak epaia** eman zuen, Estrasburgoko Auzitegiak arraza-gutxiengoak babesteko garatutako lanean gertaera gogoangarria dena; hori dela-eta, egokia iruditu zaigu horren edukia luze eta zabal aipatzea. Lehen aldiz arrazagatiko zeharkako bereizkeria antzeman da, eremu honi estatistiken frogabaliao aplikatu zaio eta halako kasuetan frogaren zama alderantzizatzeko agindu da. Erabaki hori garrantzitsua da, baina ez bakarrik sortutako gatazka zehatzari ematen dion irtenbideagatik, baizik eta, bereziki, arrazagatiko bereizkeriari dagokionez ondorengo kasuetarako ezartzen duen doktrina orokorragatik. Auzitegiak ijitoen komunitateak sozialki bizi duen desabantaila-egoera hartzen du gaia interpretatzeko irizpide gisa. Honela dio, hitzez hitz: *“la posición vulnerable de los gitanos exige que se consideren de modo especial sus necesidades y estilos de vida diferentes en los marcos reguladores generales y en las decisiones sobre casos particulares”*. Epaia honela jarraitzen du: *“salvaguardar los intereses de las minorías”*, baina baita ere *“preservar una diversidad cultural que tiene valor para toda la sociedad”*.

Arazoa eskolatzeari zegokionez Txekiar Errepublikan denboraldi batez haur ijitoek ijitoak ez ziren haurrekin alderatuta tratatu ezberdina jaso zutelako sortu zen, haur ijito asko eta asko adimen ezigaitasuna zuten adingabeentzako eskola berezietan kokatzen baitziren.

Epaia frogabaliao ematen die datu estatistiko ikaragarriei; berrikusitako epaiak, ordea, frogabaliao ukatu zien. Doktrinak dio nahikoa izango dela ustez bereizkeria jasan duen biktimak eraginezko (edo zeharkako) bereizkeria dagoela adierazten duen frogahastapena ekartzea, estatistikekin lagunduta. Zeharkako bereizkeria izango da antzera kokatutako bi talderi tratatu ezberdina ematea, nahiz eta bereizteko irizpidea arrazazkoa ez izan, baizik eta irizpide “neutro” bat (kasu honetan, adingabeen hezkuntza-ahalmenak

eta premiak). Alegazio horrek frogaren zama alderantzikatzea ekarriko du eta, beraz, bereizkeria dagoela alegatzen duenak ez baizik eta gobernu demandatuak egin behar izango ditu ahaleginak tratu ezberdina objektiboa dela eta arrazagatiko bereizkeriarekin inola ere zerikusirik ez duela egiaztatzeko. Ez da beharrezkoa tartean den agintaritzak bereizteko asmoa zuela frogatzea. Organo judicialak emandako arrazoibideak aztertuta erabakiko du.

Auzitegiaren iritziz, txekiar gobernuak ez zuen frogatu bertako eskola-sisteman haur ijitoen eta ijitoak ez ziren haurren artean egiten zuen eraginezko bereizketa arrazarekin erlazionatuta ez zegoenik. Ezin izan zuen frogatu justifikazio objektibo eta arrazoizkorik eta xede legitimorik zegoenik, ezta arrazoizko proportzionaltasun erlaziorik zegoenik ere erabilitako bitartekoen eta gauzatu nahi zen xedearen artean. Auzitegiaren ondorioa izan da eraginezko edo zeharkako bereizkeria egon dela eta horrek haur ijitoak segregatzea eta horiek aukera gutxiago izatea ekarri du. Sistemak, praktikan aplikatu zen moduan, neurrigabeko kalteak eragin zituen ijitoen komunitatean eta, ondorioz, giza eskubideak eta oinarrizko eskubideak babesteko (14. art.) egindako Hitzarmenean ezarri zen arrazagatiko bereizkeriaren debekua urratu zuen. Orduz geroztik, Txekiar Errepublikako eskola-sistema aldatu egin da. Hala ere, epaiak izugarritzko garrantzia du, arrazagatiko bereizkeriari buruzko doktrina ezartzen baitu. Doktrina hori Estrasburgoko Auzitegiak ere barneratu du, azkenean, eta, inolako zalantzarik gabe, etorkizuneko kasuetan ere aplikatuko da⁸.

Joan den urriaren 24an, Nazio Batuek eta Aditu Europarren Kontseiluak neurriak martxan jartzea eskatu zuten ijitoek (ijito herriak) etxebizitza izateko eskubidea izan zezaten Europan. Izan ere, Giza Eskubideetarako Europar Ordezkaritzaren Kontseiluaren arabera eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak etxebizitza egokia izateko eskubideen gaineko txostenari jarraiki, gutxiengo honen kasuan etxebizitza izateko eskubidea urratu egiten da Europako lurralde ezberdinetan. Gauzak horrela, Europako estatu ezberdinetan arazo honen gaineko kexa-kopurua areagotu egin da, Albanian, Bosnian, Hertzegovinan, Txekiar Errepublikan, Frantzia, Grezian, Hungarian, Irlandan, Italian, Errumanian, Federazio Errusiarrean, Serbian, Eslovakian, Eslovenian, Espainian, Turkian eta Erresuma Batuan jasotakoak barne. Mezu horietatik gehienek ijito komunitate eta familien kanporatzeen berri eman dute, giza eskubideen gutxieneoak urratuz eginikoak, batez ere etxebizitza egokia eta pribatutasuna izateko eskubidea urratuz.

Aurten, ijitoek edo, horien izenean, hainbat elkartek aurkeztu dituzten kexek ondorengo gai hauek izan dituzte hizpide:

I. Etxebizitza-beharra

Etxebizitzaren erlazionatutako arazoek modu berezian eragiten diote talde honi. Gizartean baztertuta daudenek edota soldata ertainak edo baxuak dituztenek etxebizitza

⁸ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia, Sala Handiarena, “*D. H. y otros contra la República de Chequia*”, 2007ko azaroaren 13koa. Fernando Rey Martínez doktorea. Valladolideko Unibertsitatea.

erosteko zailtasunak izateaz gain, jabeek ez diete ijitoei alokatu nahi izaten. Ondorioz, horiek askotan oinarrizko bizigarritasun eta osasungarritasun baldintzak betetzen ez dituzten higiezinetan sartu behar izaten dute; lonja, soto edo trastelekuak erosi eta, ahal dutena eginez, “txukundu” egin behar izaten dituzte, bizilekua izateko (1535/2007 espedienteak); pilatuta bizi behar izaten dute eta elektrizitatea edo ur korrontea bezalako gutxieneko zerbitzurik gabe (1282/2007 eta 1482/2006 espedienteak); edo, besterik gabe, karabanetan eta bestelako ibilgailuetan bizi behar izaten dute (208/2007 eta 1272/2007 espedienteak).

Egoera oso kezagarria da, bereziki, ia ijito familia guztietan adingabe ugari da-goela kontuan izanda. Kideetako batzuen osasun egoera larria da eta, zalantzarik gabe, larriagotu egiten da infraetxeetan bizitzeagatik edo etxerik ez izateagatik.

Gizarte bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen 7.3 c) artikulua dioen bezala, udaletako gizarte zerbitzuek “norbanakoak, familiak eta taldeak gizarteratzeko baliabideak eta bitartekoak ematera zuzendutako esku-hartze programak” garatu behar lituzkete, “betiere, lehentasuna emanez bazterkeria-egoerei aurrea hartzeari”. Etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzea gizarteratze prozesu ororen funtsa da. Horregatik da ezinbestekoa administrazio zentralak eta foru eta toki administrazioek batera jardutea ijitoek etxebizitza izateko duten eskubidea sustatze aldera.

208/2007 kexa-espedientea izapidetzean ikusi ahal izan dugunez, ijitoen familia handiaren eredia, askotan, oinarrizko gizarte zerbitzuek egin ohi duten gizarteko esku-hartzearen aurka doa.

Kasu jakin honetan, familia amak, bere bost semeek, errainak eta hiru bilobek osatuta dago. Hiru neskatuen aita espetxean dago eta, ijitoen kulturari eta legeari jarraiki, amak hartu behar ditu ardurapean erraina eta bilobak.

Irungo Udaleko gizarte zerbitzuek, gure ustez asmo onarekin, bi famili nukleoekin bereiz lan egitea komeni dela ikusi dute. Hala ere, kontua da behin eta berriro egin duela huts esku-hartzean eta familiak uko egin diela eskaini zaizkion etxebizitza independenteko baliabideei.

Egun, familia karabana batean bizi da, ia-ia kale gorrian.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak adierazi digu ez duela etxebizitza egokirik halako egoerak konpontzeko eta beharrezko gestioak egin dituela baliabide posibleak familiaren esku jartzeko, baina ezin izan duela aldeko emaitzarik lortu.

Udalak alokairuak eragin ditzakeen gastuen %100a bere gain hartzeko konpromisoari eutsi dio, baina ez du alokatzeko prest dagoen jaberik aurkitzen.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak ez du onartu familiari etxebizitza zuzenean esleitzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta Komunitate Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak egin duen eskaera, bere ustez, horiek ez dutelako autonomia nahikoa tutoretzapekoa ez den etxebizitza batean bizitzeko.

Zalantzarik gabe, egoera honi irtenbiderik aurkitu ezin izateak gure sistemaren gabeziak eta gure erakundeen eraginkortasunik eza uzten ditu agerian, izan ere, erakundeek ez dute erakutsi bazterkeria-prozesuak saihesteko edo geldiarazteko eta pertsona horien gizarteratzea lortzeko duten ahalmena.

Arartekoak [otsailaren 27 ebazpena](#)⁹ eman du. Horren bidez, Hernaniko Udalari gomendatzen zaio bertan behera utz dezala familia bat Patronatuaren jabetzako **etxebizitza batetik joanarazteko** hartutako erabakia eta gizarte babeseko neurri egokiak gara ditzala.

Kasu honetan, gizartean baztertuta zegoen ijito familia bat zen. Gizarte etxebizitza batetik joanarazi nahi zen, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuaren jabetzako eta/edo horri atxikitako pisuen harrera eta erabilera arautzen duen ordenantzaren 5. artikuluko 5. atala aplikatuta; honen arabera, “...*etxebizitza libre utzi beharko du... Kasua edozein delarik, urte beteko epea amaitzean, (...) etxebizitza erabiltzen hasi zeneko egunetik hasiko da kontatzen*”. Erakunde honen ustez, aipatu asmoa berdintasun printzipioaren aurka zegoen, etxebizitzaren erabilera esleitu zitzaizen pertsona guztiek urtebete baino gehiago baitzeramatzaten horietan bizitzen eta bati berari ere ez zitzaion joanarazteko agindu.

Nabarmendu behar dugu, kasu honetan, jasotako informaziotik ezin ondoriozta zitekeela arrazagatiko edo etniagatiko bereizkeria egon zenik. Hala ere, pertsona horiek ijitoak izatea garrantzitsua iruditu zitzaigun familia honen kasuan gauzatu zen esku-hartzea baloratzeko. Ez da gomendioa onartu.

Arartekoaren 2006ko azaroaren 6ko ebazpenaren inguruko jarraipen lanak direla-eta (horren bidez, Sestaoko Udalari, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza eta Udal Harremanen Sailari Sestao birgaitzeko prozesuari buruzko ondorioak eta gomendioak jakinarazi zitzaizkien), gaiaren inguruan egin diren urratsetako batzuen berri izan dugu. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hartu dituzten erabakien eta abiarazi dituzten jardueren berri eman digu. Adierazi digunez, jardueren sustatzaile guztiek akordioa egin dute hirigintzako prozesuetan aplikatu behar diren balorazio irizpide objektiboen inguruan, kasuan kasu garatzen den jarduera edozein dela ere, beren etxetik joanarazten diren pertsonen tratua berdintasuna bermatze aldera. Tartean diren administrazioek ere hitzeman dute berriro bizilekua emateko irizpide berak aplikatu dizkietela legez okupatutako etxetik joanarazten diren pertsona guztiei, edozein motatako bereizkeria saiheste aldera. Halaber adierazi digu Sestaoko Udalak eta VISESA Eusko Jaurlaritzako sozietate publikoak lanean dihardutela jarduera urbanizatzailea nola garatu hirigintzaren ikuspegitik bideratzeko.

Sailak honako jarduera hauek aipatu ditu:

- a. Sestaotik kanpoko zenbait etxebizitza Sestao Berri sozietatearen esku uztea. Sailak, orain arte, gutxi gorabehera 30 familiari eman die berriro bizilekua Sestaotik kanpo jabetzapean dituen etxebizitzetan. Adierazi digutenez, kasu guztietan herritik ateratzeko erabakia eragindako pertsonekin hartu da eta Sestao Berri sozietateak gainbegiratu du.
- b. Udala bera desjabetze sistemaren bidez Kale Nagusian garatzen ari den hirigintzako jardueran, egun Eusko Jaurlaritza Sestaotik kanpo dituen etxebizitzetan

⁹ Arartekoaren ebazpena, 2007ko otsailaren 27koa; horren bidez, Hernaniko Udalari gomendatzen zaio bertan behera utz dezala familia bat Patronatuaren jabetzako etxebizitza batetik joanarazteko hartutako erabakia eta gizarte babeseko neurri egokiak gara ditzala.

- ematen ari da berriro bizilekua. Diotenez, hori guztia, eragindako pertsonen erabateko adostasunarekin eta, nolahi ere, Sestao Berri sozietatearen esku-hartzearekin eta oniritziarekin.
- c. Sestao Berri sozietateko talde tekniko eta sozialak gizarte eta auzo bitartekotzako hiru jarduera jarri ditu abian azken urteotan herritarren arteko bizikidetasuna eta segurtasuna asaldatu dituzten egoera problematikoak izan diren beste hainbat zonatan.
 - d. Vega Galindo eremuaren urbanizazio proiektua aurkeztu da. Bertan 1.350 etxebizitza eraikiko dira eta, horietatik, 945 babestuak izango dira eta Sestao barruan berriro bizilekua emateko erabiliko dira.

II. Erroldatzea ukatzea

Kasuren batean ere ikusi dugu udalek uko egin diotela benetan herrian bizi diren ijito familiak erroldatzeari eta aipatu ukoak pertsona horiek herrira etorri izatearekiko aurkakotasuna eta gaitzespena adierazten duela. Udalek ukoa justifikatzeko adierazi ohi dituzten arrazoen artean etxebizitza titulurik gabe okupatu dela edo bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituela daude. Hainbatetan aipatu ohi dugun moduan, erroldan izena emanda egotea, funtsean, bizilekua udalerrian izateari lotuta dago. Hortaz, bai araudiak bai hau interpretatzen duten jarraibideek behin eta berriro aipatzen dute udalen betebeharra dela erroldan izena ematea, etxebizitzaren titulartasunari buruzko auzi juridiko-pribatuak eta etxebizitzaren inguruabar fisiko, higieniko-sanitario edo bestelakoak aintzat hartu gabe. Autokarabana batean izena ematea eskatzeko aukera ere aurreikusten da. Halaxe jasotzen da udal errolda eguneratzeko udalentsat argibide teknikoak ezartzen dituen uztailaren 4ko Ebazpenean, Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak emandakoan: *“En consecuencia, las infraviviendas (chabolas, caravanas, cuevas, etc., e incluso ausencia total de techo) pueden y deben figurar como domicilios válidos en el padrón, ya que la realidad es en ocasiones así”*.

Gai hau hainbestetan azpimarratzearen arrazoia da erroldan izena emanda egoteak garrantzi handia duela eskubideez baliatzean. Gai hau zehatz-mehatz aztertu da txosten honen lehen ataleko gizarte ekintzaren arloan.

Gure iritziz, ezin onar daiteke erroldako ukoa ijito familiak herrira bizitzera joan daitezela eragozteko. Udal bakoitzak udalerrian bizi direnen gizarte premiei erantzuteko zuzeneko erantzukizuna du eta eginkizun hori bidezko eran gauzatzeko betebeharra, bertan biztanleria eta dituen baliabideak kontuan hartuta, gizarte zerbitzu sare garatuagoa duten udalak izan ez daitezen gizarte premia horiei erantzuten dieten bakarrak. Erakunde publikoek ijitoen garapen kultural, ekonomiko eta politikoa faboratu behar dute. Integrazioarako guneak sustatu beharko lirarteke, eta ez, ordea, ijitoak udalerrira bizitzera etortzea oztopatu, Europar Batasuneko eta Euskal Autonomia Erkidegoko bereizkeriaren eta gizarte bazterkeriaren kontrako araudian eta, besteak beste, Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako EAEko Planean ezarritakoaren arabera. Azken honen helburu nagusietako bat beharrezko aldaketak

bultzatzea da, oztopoak kendu ahal izateko eta ijitoek era guztietako baliabideak eta zerbitzuak izan ditzaten.

Bereziki larria iruditu zaigu 1272/2007 eta 1273/2007 kexa-espedienteak izapidetzerakoan ezagutu dugun kasu bat. Bi haur txiki zituen ijito bikote gazte bat Abanton erositako etxebizitzara aldatu ziren. Bertan bizitzen hasi eta egun gutxitara, Udalak etxebizitza zigilatzea erabaki zuen, higiezin hartan legez kanpo zenbait obra egin zirela eta horiek pertsonen eta ondasunen osotasunerako arriskua eragin zezaketela esanez. Gainera, Udalak zioen jabe ohiak aurrez etxebizitza laga ziola eta, beraz, bere ustez, etxebizitza Udalaren jabetzako zen. Ondorioz, familia beren etxetik gertu kokatutako furgoneta batean bizitzen hasi zen, bizigarritasun baldintza oinarrikoenik gabe.

Nahiz eta hirigintzako diziplinako udal jarduerak jada aipatu diren hirigintzari eta lurralde antolamenduari buruzko atalean, garrantzitsua iruditzen zaigu nabarmentzea Arartekoak Udalari zera jakinarazi diola: alegia, hirigintzako diziplinazko espedientearen bidez ezin dela higiezinaren jabetza berreskuratzeko xedea gauzatu. Udalak ez du justifikatu higiezinaren sartzeko berme judizialak bete dituenik eta ez du hartutako behin-behineko neurria (hots, etxebizitza zigilatzearena) teknikoki justifikatu. Ez du behar bezala arrazoitu, ezta ere, zergatik egin dion uko obrak egiteko hirigintzako lizentzia emateari, ez baitzen argia, agerikoa eta eztabaidea ondasuna Udalaren jabetzako denik. Familiaren bizilekua babestu egin behar da eta bortxaezina da, Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan aurreikusitako oinarriko eskubidearekin bat etorritik. Bizilekuan sartu ahal izateko, interesdunaren baimena edo epailearen baimena behar da, bai agintaritzako agenteek garatzen dituzten hirigintzako ikuskapen lanak egiteko bai administrazio egintzak edo erabakiak betetzeko.

Horregatik guztiagatik, aurretiatzko gogoetak egin zaizkio Abantoko Udalari. Horien bidez adierazi zaio bidezkoa litzatekeela honakoak egitea:

- a. Etxebizitza zigilatzeako agindua bertan behera uztea; ekitaldi horretan egun etxebizitza hartuta duenak ere parte hartuko du, ustez bizilekua berea delako.
- b. Etxebizitzaren segurtasun egoera aztertzeako ikuskapena egitea, interesdunak hala egitea onartuz gero.
- c. Pertsonen eta ondasunen segurtasun publikoa edo osotasuna direla-eta Udaleko bulego teknikoko funtzionarioak dagozkion berehalako neurriak hartzea, aurrez interesdunari baimena eskatuta.
- d. Hirigintzako legezketasunari dagokionez, etxebizitza lehengo egoerara ekartzera bideratutako neurriak baino ez hartzea, ordenazioz kanpo egon arren, legeztatuta egon litezkeen edo legeztatu litezkeen obrak salbu.

Halaber adierazi zaio, etxebizitzaren titulartasunari buruzko ofiziozko ikerketa-espeditentari hasiera eman nahi izanez gero, Toki Erakundearen Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 70.2 artikuluan aurreikusitakoari lotu behar izango zaiola.

Udalak, gainera, uko egin dio familia erroldatzeari, badakien arren familiak bizilekua udalerrian duela. Halaber, erakunde honen irizpidea ere jakinarazi zaio, alegia, udalek erroldatzeko betebeharra dutela eta erroldatzea oso garrantzitsua dela pertsona horiek

gizarteratzeko prozesuan eta beren eskubideez baliatzean, baina Udalak nabarmen du familia horrek jatorrizko herrira itzuli behar duela, hots, Barakaldora, bere premiei bertan erantzun ahal izango zaiela argudiatuz. Gizarteko esku-hartze oro bezala, Udalak adingabeei buruzko espedientea zabaldu du eta Foru Aldundira bidali du, babesik gabe ote dauden ikusteko. Horren bidez, Haurren Zerbitzuak adingabe horiek aldi batez zaindu eta babestu behar dituen eta/edo ama eta adingabeak harrerako etxebizitza batean aldi baterako sartu behar diren balora dezan. Gure ustez, neurria ezin izan zitekeen okerragoa, familiari bisita egin ondoren, beren arazo bakarra bizitokirik ez izatea baita eta egoera hori gure ustez okerra izan den Udalaren jardueraren ondorioa baita.

Halako jarduerak, zalantzarik gabe, oso negatiboak iruditzen zaizkigu. Batetik, ez dute inolako babesik gure esparru juridikoan eta, bestetik, toki administrazioak berez dagozkion eginkizunetan arduragabekeriaz jokatzeari dakarte, eginkizun horien artean gizarte zerbitzuak eskaintzeko, ijitoen gizarteratzea sustatzeko eta benetan udalerrian bizi direnak babesteko zuzeneko erantzukizuna beren gain hartzea.

Beste kasu batean, jarduteko modua aldatu dela ikusi da. Lehen aldian, ijito familia batek herritik alde egin behar izan zuen, Arrazua-Ubarrundiako Udalak uko egin ziolako haiek bizi ziren etxebizitzan erroldatzeari (1482/2006 espedientea). Udalak, egin genizkion gogoetei jaramonik egin gabe, eta bost hilabete baino gehiago atzeratu zen erantzunean, nabarmendu zuen etxebizitza hark ez zuela bizitzeko baimenik eta horregatik ez zuela familia hura bertan erroldatuko. Hala ere, ondoren, beste ijito familia bat higiezin berean bizitzen hasi da (1282/2007 espedientea) eta horiek gizarte zerbitzuetan erroldatzea erabaki du, “fikziozko erroldatzea”¹⁰ izenekoaren bidez. Nahiz eta guk pentsatu Udalak familia egoitza duen lekuan erroldatu behar izango lukeela, egia da, orobat, horrela, gutxienez, ez dela haien gizarteratze prozesua eragozten eta, horretarako, beharrezkoa dela erroldan izena emanda egotea.

2007ko abenduan, Cáritas Gipuzkoak beste ijito familia baten izenean aurkeztutako kexa erregistratu da (1535/2007 espedientean); bertan adierazitakoaren arabera, Hernaniko Udalak uko egin dio haiek beren jabetzakoa den, etxebizitza gisa moldatuta dagoen eta familiaren bizilekua den lokalean erroldatzeari. Une honetan Administrazioak gure informazio eskaerari erantzun zain gaude.

¹⁰ Aukera hori udalei errolda eguneratzeko jarraibide teknikoak ematen dizkien 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenean jaso da. Horrela, gizarte zerbitzuen parte-hartzea ezartzen da, udalerrian bizi eta erroldan izena emateko helbide baliaduna ez duten pertsonen egoerei aurre egiteko. Gizarte zerbitzuek helbide bat adieraz dezakete (zerbitzuarena berarena, auzotar horiek lo egiteko erabiltzen duten puntu geografiko zehatza eta abar), eta jakinarazpenak egiten saiatu administrazio publikoren batetik eratorritako mezuak iristen zaizkienean. Are gehiago esanda, zera ezartzen du: “*mota horretako izen-emateak egiteko ez da beharrezkoa jakinarazpena hartzaileraino iritsiko dela bermatzea; nahikoa da epe onargarri batean helarazi ahal izango zaiola ziurtatzea*”. Beste era batera esanda, gizarte zerbitzuen jarduna funtsezkoa da etxebizitzarik ez izateagatik bazterkeria-prozesuan dauden pertsonen eskubideak eta beharrak bermatu ahal izateko.

III. Bizikidetasun, mesfidantza eta gaitzespen arazoak: ijitoen eta toki administrazioaren eta/edo herriko auzotarren arteko ulertu ezina

Arazo hauek askotariko faktoreengatik agertzen dira, horien artean, honakoak: talde horren aurka oraindik ere, tamalez, gaitzespen xenofoboa egotea; zenbait hedabidetan ijitoak estigmatizatzen jarraitzea, aparteko kasuei edo oso adierazgarriak ez direnei (droga-trafikoa, txabolismoa, delinkuentzia, etab.) gehiegizko protagonismoa ematen dieten berriak zabalduta, horrek nabarmen kaltetzen baitu pertsona horien gizarte irudia; edo Administrazioa zenbait auzo sozialki biziberritzeko, berrantolatzeko eta birgaitzeko prozesuak behar bezala bere gain hartzeko edo herritarren gizarte premiei erantzuteko gai ez izatea.

Azken faktore hau da, gure ikuspegitik, Abantoko Santa Juliana auzoko zenbait biztanleren kexa eragin duen faktore nagusia (825/2007 espediente). Zalantzarik gabe, auzoaren egoera auzotarren arteko gatazken haztegia da. Ijito familia gehiago bertaratzeak agerian uzten du premiazkoa dela oso auzoa osorik birgaitzea.

Jada 2005ean, auzotar batek kexa aurkeztu zuen eta bertan adierazi zuen beharrezkoa zela bere etxearen inguruak urbanizatzea –bereziki, estolderia eta ur bilketa– edo beste irtenbideren bat aurkitzea hartuta zituzten etxebizitzak eta, oro har, urbanizazioaren baldintzak hobetearren (290/2005 zk.ko espediente). Orduan ikusi ahal izan genuenez, arazoa Udalak jarduerari heldu nahi ez ziela zen. Udalak zioen auzoan hainbat eraikin zeudela, gehienak txabolak, udal baimenik gabe eraikiak eta urbanizazio zerbitzu egokirik gabekoak (kalerik eta urbanizaziorik ez; zementu esnezko zarpiatu indiskriminatu egindako zorua duten kalezuloak; bai kopuruari bai neurriei dagokienez nahikoak ez diren hondakin urak eta ur beltzak biltzeko hodiak). Eraikinak lurzoru urbanizaezinean zeuden eta eraikinen hirigintzako araubidea ordenazioz kanpokoa zen.

Udalari zenbait aukera iradoki genizkion, besteak beste, bizitegitarako erabilerak finkatuko ziren auzoa berrantolatzera eta osorik birgaitzera bideratutako plangintza-aldaketa egitea, edo udal plangintzaren arabera lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lurak leheneratzea eta bertan bizi zirenei berriro bizilekua ematea.

Proposamen horiei erantzunez, Udalak onartu zuen auzoa egoera kaskarrean zegoela eta ondorioztatu zuen beharrezkoa zela hirigintzako irtenbide orokorra aurkitzea. Ildo horretatik, Udalak antolamendu proposamena onartu zuen auzoa hiri lurzoru gisa sailkatzen zuen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikusteko agirian eta, aurrerago, barne erreformako plan bereziaren bidez garatuko zen.

Nolabait, erantzun horren bidez, Udalak auzoa biziberritzeko irtenbidea aurkitzeko gure iradokizuna onartu zuen.

Aurten izapidetutako kexaren ildotik, berriz ere informazioa eskatu diogu Udalari auzoaren egoerari eta azken hilabeteotan larriagotu egin diren bizikidetasun arazoei buruz galde eginez. Helarazi digun erantzunean, Udalak dio, hain zuzen ere, bizikidetasun arazo handiagoak daudela. Dioenez, zenbait neurri hartzen ari da erroldatzeen kontrolaren inguruan. Gure ustez, ordea, neurri horiek ez dira egokiak. Beste neurri batzuk ere aipatu ditu, besteak beste, polizia zaintza areagotzea edo aurri espedienteak hastea. Neurri horiek, ordea, ez dira nahikoak gure ustez funtsezkoa den arazoari heltzen ez bazaio; hots, auzoa osorik birgaitzeko irtenbidea bilatzea. Gai hori dela-eta, Udalak jakinarazi

digu elkarrizketak izaten ari dela Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin. Egoki deritzogu horri, baina ohartarazi behar dugu prozesuaren hasiera besterik ez dela eta erritmo geldoegia daramala, egoeraren larritasunari erreparatuta.

Bizikidetasun arazoaren inguruan adierazi du adiskidetasunezko bilerak egin direla bai Santa Julianako Auzotarren Elkartearekin bai Ijitoen Aldeko Elkartearekin. Garrantzitsua da kultura arteko bitartekotzan sakontzea, baina, horrekin batera, arestian aipatu dugun auzoa erabat birgaitzeko prozesua bideratu behar da.

Joan den azaroaren 19an ikuskapen bisita egin genuen Santa Juliana auzora, beste auzotar batek erakunde honetan aurkeztu zuen premiazko kexaren haritik. Hala, narriatuta zegoela eta berehala ekintza global bat abiarazi behar zela ikusi genuen.

IV. Prestazioak etetea

I. ataleko gizarte ekintzaren arloan, oinarrizko errentari eta gizarte behar larrietarako laguntzei zegokienez antzemandako arazo nagusiei buruzkoan, aldundiak aplikatzen ari diren jardunbidea aipatu behar dugu, horrek kalte handia egiten baitio etxebizitza alokairuan hartu ezin eta **etxebizitza erostea** erabakitzen duten zenbait familiaren gizarteratzeko prozesuari. Foru erakundeak hartutako erabaki bati buruz ari gara. Horren bidez, **oinarrizko errenta eten du eta bidegabe jasotako zenbait kopuru itzultzeko eskatu** du, batetik, aitortu ez ziren baliabide ekonomikoak egon zitezkeelako, eta, bestetik, oinarrizko errenta beste xede baterako erabili zelako, eta ez arauan ezarritakoa betetzeko (mantenua). Administrazioaren iritziz, etxebizitza erosita "famili errenta nabarmen hazi" da. Gure ikuspegitik, premia biziko ondasun bat eskuratu nahi izan da. Zenbait pertsonentzat, etxebizitza erostea izan daiteke etxebizitza eskuratzeko modu bakarra. Halaxe gertatzen da, adibidez, ijitoekin, etxebizitza-aloairuaren merkatuan bereizkeria-arazo larria jasaten baitute.

Aipatu genuen moduan, ijito familia batek, denboraldi luze bat gizartean baztertua egon ondoren (aldiren batean, bizilekurik gabe ere egon zen), lonja eskuratu zuen etxebizitza gisa birgaitzeko. Donostiako Udala alde agertu zen, familiak alokairuko etxebizitza aurkitzeko zituen zailtasunak ikusita prestatu zuen jarduera-planaren esparruan. Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako erabakia ez da aldatu, egin dizkiogun gogoetak ikusita ere, eta, hala, erabaki horren ondorioz, familiak etxebizitza saldu behar izan du hartutako zorra kitatzeko. Horrek haien gizarteratzeko prozesua eragotzi du, familia beti gizarte zerbitzuen mende dagoela are garbiago geratu da eta autonomia-ekimen berriei ekitalako gogoak kendu dizkio.

V. Haur ijitoak eskolatzean izandako arazoak

Hezkuntzaren arloan, eskolatzeari buruzko atalean, aipatu dugun kontu bat SOS RACISMO de Gipuzkoa-Gipuzkoako SOS ARRAZAKERIA elkarteak ijito familia baten izenean aurkeztu duen kexan jasotakoa da. Horren bidez adierazi zigutenez, familiaren laugarren alaba eskolan hasiko zenez, hiru seme-alaba zaharragoak gazteena joango zen ikastetxera aldatzeko eskatu zioten hezkuntza-administrazioari. Administrazioak ez du onartzen ikastetxe aldaketa anai-arreba zaharragoekin egiten ari denaren moduko

esku-hartzean oinarritutako gogoeta pedagogikoak aintzat hartuta egitea. Hala ere, gure ustez, badirudi erabaki horrek bazter uzten duela gurasoek beren seme-alabentzat ikastetxea libreki aukeratzeko duten eskubidea.

Egungo hezkuntza-antolamenduak ikasle guztiak onartuko direla bermatzen du, betiere, plaza nahikoak baldin badaude eta onarpenerako ezartzen diren adinarekin erlazionatutako betekizunak eta baldintza akademikoak betetzen badira. Horregatik, kasu honetan, arazoa ez da plaza nahikorik ez egotea. Hortaz, erakunde honen iritziz, hezkuntza-administrazioak uztartu egin behar ditu beharrezko konpentsaziozko esku-hartzeak eta familiek ikastetxea libreki aukeratzeko duten eskubidea eta haiek ezingo dute inoiz, beren xedea laudagarria izan arren, ikastetxea aukeratzeko eskubide horretaz baliatzea oztopatu.

7. BERARIAZKO ARRETA BAZTERTUTA EDO POBREZIAN BIZI DIREN PERTSONEI

Bazterkeria larrian dauden pertsona-kopurua handituz doala eta horren inguruabar pertsonalak okerrera doazela egiaztatzeak talde horrekin esku-hartze berezia egiteko beharra eragin du. 2006an “*Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna*” izeneko **txosten berezia** prestatu genuen. Txosten horrek fenomenoaren gaurkotasunari buruz ohartarazteko abiapuntu gisa, une hartan zeuden baliabideak bildu eta zauden gabeziak antzemateko balio izan zigun. Beste ezohizko txosten batzuk bezala, Arartekoak Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean aurkeztu zuen. Oraingoan, Arabako Batzar Nagusietan eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere aurkeztu du, batzarrek eurek hala eskatuta, eta, bertan, ezohizko txosten horren ondorioen berri eman du. Espero dugu horrek guztiak pertsona horien bizitza duintzeko ekimenak martxan jartzeko balio izatea.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da gogoraraztea aipatu taldeak duen egoera, askotan gainjartzen diren arrazoi ezberdinengatik sor izan zitekeen bazterkeria-prozesuaren ondorioa dela: lan ezegonkortasuna; bereizkeriaren xede izatea (etniagatik, orientazio sexualagatik, erlijioagatik...); etxebizitza eskuratzeko edo mantentzeko zailtasuna; gazteegia izan edo hirugarren adinekoa izatea lagun diezazukeen familiarik eduki gabe; substantzia toxikoak kontsumitzea; ezgaitasunen bat izatea; lan egiteko administrazio baimenik ez izatea; etab. Pertsona horiek egoera horretara iritsi dira, aurrea hartzeko mekanismo batek ere ez duelako funtzionatu. Pertsona horietako asko egoera normalizatuetatik datoz: lana, familia, etxebizitza, etab. izan zituzten. Famili, gizarte edo erakunde laguntzarik ez zuten une jakin batean arazozen pilaketak bazterkeria-egoera larrian eta, askotan, kalean bizitzera eramane zituen. Bigarrenik, sufritzen duten bazterkeria-egoerak laguntzarik ez jasotzea eragiten du askotan: baliabideak eskuratzeko ezarritako betekizunak ez dituzte betetzen (esate baterako, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldatuta egotea) edo baliabide horiek ez dira dituzten premietara egokitzen. Horrela, adibidez, partikular bat burutzen ari den ikerketa aipa dezakegu (txakurra duten etxerik gabeko pertsonen eta beren harreman afektiboari buruz), izan ere, kasu horietarako funtsezkoa izan daiteke.

Arau berritasun garrantzitsu gisa, aurten **4/2007 Legea** argitaratu da, **ekainaren 22koa**, gizarte bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea eta Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea aldatu zituena. Aldaketa horrekin ohiko etxebizitza edo bizilekuaren gastuak ordaintzeko diru-laguntza osagarria gehitu zaio oinarrizko errentaren prestazioari. Gizarteratzeari buruzko Erakunde arteko II. Plana ere onetsi da. Oraindik plan hori aplikatzeko tresnak abian jarri ez diren arren, bi tresna horiek, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen dituzten premia berrietara egokitzeko helburuarekin sortu dira.

Arartekoak 2007. urtean zehar bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen eragiten dien hainbat jarduera burutu ditu. Lehenik eta behin, *Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna* izeneko txosten bereziaren jarraipena egiten hasi gara. Bigarrenik, talde horrekin lan egiten duten gizarte erakundeek igorritako arduen berri eman dugu. Horrek guztiak ezohizko txostena egin ondoren antzemandako aurrerapenak eta gabeziak ezagutzeko aukera ematen du. Azkenik, pertsona horien arretarekin zuzenean erlazionaturiko intereseko zenbait kexa bildu ditugu.

Gizarteko zailtasunekin zerikusia duten bestelako kexei dagokienez, gizarte ekintzaren arloari lotzen gataizkio (urteko txostenaren I. atala).

a) Txosten bereziaren jarraipena

Erakunde honen lanean ohikoa den bezala, “*Etixerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzuna*” izeneko ezohizko txostenaren gomendioak egin genizkien tartean ziren administrazioei, talde horri eskainitako arreta hobetze aldera. Egindako aldaketak eta hobekuntzak jakiteko, aurten informazioa eskatu diegu aldundiei; jarraian laburtuta dator.

Arabako Foru Aldundiak, Arartekoaren gomendioak betez, abian jarritako ondorengo neurrien berri eman digu:

- GIB duten gaixoentzako “Besarkada Etxea” harrera-etxearen funtzionamendua malgutu dute. Horrek, GIB duten erabiltzaileez gain beste patologia batzuk dituzten beste erabiltzaileei sartzeko aukera eman zaie, besteak bestek, patologia psikiatriko larriak dituztenei edo desintoxikazio prozesuan daudenei. Kanean bizi diren edo maila baxuko baliabideak dituzten etxerik gabeko pertsonentzako egonaldi laburreko erregimeneko baliabidearen erabilera indartzeko asmoa ere badu, izan ere, duten muturreko narriadura psikiko eta fisikoa kontuan hartuta, beren narriaduraren fase akutuetan intentsitate handiagoko baliabidea behar dute.
- Osasun sektoreko profesionalekin lankidetzak-mekanismoak ezarri dituzte (Foronda komunitate terapeutikoa, toxikomaniak tratatzeko zentroa, Santiago Ospitaleko Psikiatriako Unitatea). Honakoa ere adierazi dute: “*kasu guztietan koordinazio hori ez da espero moduan baloratu*”. Beraz, egoera jakinak osorik aztertzeke osasun arloarekin biltzeko espazioaren beharra agerian jartzen dute.
- Askatasuna mugaturik duten herritarrekin esku hartzeari dagokionez, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak erraztean jarri dute arreta, espetxean duten sailkapena oinarri hartuta. Hala, hirugarren mailan sailkatuta dauden pertsonentzako laguntzarako etxebizitza jarri da eta bigarren mailan sailkatuta dauden zigortuentzako hezkuntza eta gizarte proiektu bat jarri da abian. Askatasuna mugaturik duten pertsonentzako, gizonezkoak nahiz emakumezkoak, prestakuntza-eskaintzarako sarbidea erraztu da; Arabako Lurralde Historikoan laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonei zuzenduriko gaitze programen barruan (Onbide programa).
- Burutik gaixo daudenentzako bizilekuen egoerari buruzko azterlana ere egiten ari dira. Azterlan hori talde horrentzako programa berezien garapenerako abiapuntua izango da.
- 2008rako gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen arretarako elkartarekin (Bizitza Berria) lankidetzak-hitzarmena ezartzea aurreikusten dute,

etxerik gabe eta etengabe kalean bizi diren pertsonen bizilekua emate aldera, “Hogar Betoño” harrera sozialaren proiektua garatzeko. Baliabidea maila baxukoa da eta denborarekin talde horren berezitasun eta premietara moldatzeko asmoa du, jarduera okupazionalak, aisialdia eta laguntza psikosoziala ere eskainiz.

- Patologia anitzerako zentroa eraikitzeko obrak hasi dira. Zentro horrek, bazterkeriaren arazo guztiak ez ezik, gizarte zerbitzuen sarean arreta ematea eta aztertzea ezinezkoa egiten duten koadro psikiatrikoak dituzten pertsonen erantzuna emango die. Izaera soziosanitarioa duen baliabidea izango litzatekeela zehaztu dute.
- Azkenik, erakunde ezberdinen arteko lankidetzaren garrantzia azpimarratzen dute. Hori dela-eta, Langraiz Okako espetxeko gizarte zerbitzuekin eta Gasteizko Epaitegiko fiskaltzarekin koordinazio prozedurak ezarri dituzte, eta osasun sarearekin lankidetzaren mekanismoak ezartzeko lan egin behar dutela uste dute, espazio soziosanitarioaren barruan.

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi du arlo honi dagokionez espezializatutako gizarte zerbitzuen egituraketa-prozesua burutzen ari direla, arautzeko, herritarren premietara egokitzeko, arretan gutxieneko kalitatea eta profesionaltasuna bermatzeko, sarbidea errazteko eta arreta-zerbitzu horien premia duten pertsona guztiei berdintasun baldintzetan bermatzeko.

Jarraian, egindako urratsak aipatzen dituzte:

- Gizarteratze arloan foru erantzukizunen zerbitzuak zehaztu dituzte. Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko Udalarekin akordioa egin du, 2005eko ekainaren 31ko Gobernu Kontseiluak onetsia, zerbitzuen eta programen banaketaren ingurukoa, baita Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailarekin ere, diru-laguntzen kasuan kasuko deialdiei buruzkoa.

Beste alde batetik, Gizarte Ekintza Sailaren eta gizarteratze arloan foru erantzukizunen zerbitzuak kudeatzen zituzten hogeita hiru erakundeen arteko lan prozesuaren emaitzarekin zerbitzu horietarako oinarrizko diseinua agertzen den agiria egin zen hizkera arruntan. Agiriak gizarte zerbitzu espezializatuen eginkizunari egiten dio erreferentzia. Esku-hartzea bideratzen duten printzipioak, irizpideak edo ikuspuntuak adierazi eta prestazioak eta jarduerak banakatzen ditu. Lan horren xedea gizarte zerbitzuen antolamendu eta hobekuntza prozesuan eta administrazio publikoaren eta hirugarren sektoreko erakundeen arteko harremanak egituratzen eta bultzatzen laguntzea da.

Zehazte prozesuaren helburua gizarteratze arloan zerbitzu zorroa berregituratzea da.

- Baliabideek beren ezaugarrien arabera bete behar dituzten gutxieneko betekizun material eta funtzionalak zehaztu dituzte. Zehaztapen hori araudirik ez dagoelako egin dute, izan ere, Eusko Jaurlaritzak ez du aurrerapenik egin araudi hori egiteko

orduan. Betekizun horiek baliabideek bete behar dituzte, egoitza-zerbitzuei zein sektoreko egoitzaz kanpoko zentroei dagokienez. Hitzarmenen eranskinetan agertzen dira, eta honako alderdiak hartzen dituzte barne:

1. Kokapena eta ingurua, egitura, arkitektura- eta hirigintza-oztopoak eta azalera.
2. Suteen aurkako babes neurriak.
3. Argiztapena, berokuntza eta zolak.
4. Higiene zerbitzuak, toki komunak eta gelak.
5. Apainketa, ekipamendua eta mantentzea.
6. Hezkuntza eta gizarte arreta, nahitaez esku hartzeko banan banako plan batean edo banan banako arreta-plan batean oinarritu behar dena, eta lortu beharreko helburuak, garatuko dituzten jarduerak, aurreikusitako egutegia eta ebaluazio adierazleak zehaztu behar izango dituzte.
7. Osasun arreta.
8. Pertsonala, arreta zuzeneko langileak/erabiltzaileen proportzioa edo ratioa zehaztuz.
9. Boluntarioak.
10. Aseguruak.
11. Agiriak, artxiiboak eta ekipamendu telematikoa.
12. Administrazioa.
13. Hitzartutako zerbitzuak emateko ordutegia.

Azkenik, Gizarte Ekintza Sailak, kontrolatzeko eginkizunak burutzean, hainbat jarduera burutzen ditu, esaterako, azterketa-bisitak eta baliabide ezberdinen jarraipena, zerbitzuen prestazioaren baldintzen analisia eta egiaztapena, emandako diru-laguntzen kontrol ekonomikoa eta Ogasun eta Finantza Sailaren zuzendaritzapean egindako auditoretzak.

- Artatutako pertsonen profilaren ezagutza fidagarriari begira diagnostiko psikosozialerako bitartekoa garatu dute. Gizarte Ekintza Saila on-line kudeaketa-sistemara gehitu da gizarte diagnostikoak eta partekaturiko lanerako planak prestatzeko, hori guztia Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak garatutako Diagnostikoa eta Esku Hartze Soziala izeneko aplikazio telematikoen bidez. Bitarteko horren helburua gizarte lana erraztea, administrazio lanak bizkortzea eta oinarritzako gizarte zerbitzuen eta espezializatutako gizarte zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea da.

Zailtasun teknikoak direla medio, gizarte erakundeak, oraingoz, ezin izan dira aplikagarri informatikora gehitu, baina Gizarte Ekintza Sailak baliabide horren papereko erabilera bultzatu du lankidetzaren hitzarmena sinatuta duen erakundeekin.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak sustatutako erakundearen arteko batzordea ere landu du gizarteratze arloko balorazio diagnostikoaren adierazleak zehazteko.

Gainera, hirugarren sektoreko erakunde batek kudeatzen duen balorazio psikosozialeko programa dute; horren helburua gizarte alderdiak, baldintza ekonomikoak, osasun egoera, eskumenak, gizarte trebetasunak eta doitze psikoafektiboa, aldaketarako motibazioa eta foru erantzukizuneko gizarteratze zerbitzuetan plaza izateko eskatzen duten eskatzaileen baloratutako egoera eta beharrezanetarako egokiena den baliabide mota baloratzea da.

- Foru erantzukizuneko zerbitzuak baliatzeko kudeaketa-sistema zentralizatua ezarri dute gizarteratze arloan. Sistema horrek plazen eskaerak zuzenean Gizarte Ekintza Sailaren Gizarteratze Atalean aurkeztea dakar. Nagusiki, deribazioak oinarriko gizarte zerbitzuetatik datoz, baina gizarte zerbitzu espezializatuetatik, toxikomaniak tratatzeko zentroetatik eta osasun eta espetxe sistematik etortzea ere aurreikusten da.

Kudeaketa-prozedura zentralizatua, laburtuz, honakoa da: eskaera jasotzen da, eta, libre dauden plazen arabera, balorazio psikosozialeko unitateak interesdunari elkarrizketa egiten dio, erreferentziako profesionalarekin, bere egoerara hurbiltzeko. Unitate horrek egoitza-zerbitzu motaren ezaugarri orokorrak, funtzionamendua, eskubideak eta betebeharrak jakinarazten dizkio. Elkarrizketa hori, inguruabarrak gorabehera, unitatea kokatzen den bulegoetan edo pertsona dagoen lekuan egiten da. Gizarte Ekintza Sailaren Gizarteratze Atalak egonaldia baimentzeko baliabidea zehazten du, baita egoitzan sartzeko eguna ere.

Kudeaketako aldaketa garrantzitsua izan da, beraz, zabaltzeko ahalegin handia egin dute.

Halaber, partekatutako kasuen arretaren koordinazioa hobetzeko jarduerak burutu dituzte, besteak beste, honakoak: deribazio protokoloa aplikatu, web orriari argitaratu, Bizkaian dauden gizarte zerbitzuei eta gizarteratze arloko erakundeetara informazio zirkularrak bidali eta Bilboko Udalarekin, Basauriko eta Langraiz Okako espetxeetako tratamendu zuzendariordetzekin eta Osakidetza sareko ospitale psikiatriko eta buru osasuneko zentroekin informazio batzarrak egin.

Azkenik, sistema hori ezarri, Bizkaiko Foru Aldundiaren eginkizuna eta honen eskumenak baliatzea errazten dela ondorioztatu dute. Zentro mota bakoitzerako eskaeraren ezagutza zein zerbitzu eta prestazioen erabilera eta planifikazio arrazionala ahalbidetzen da, kasu bat bideratu behar duten erakunde eta profesionalen lana errazten du, eta eskatzaileei eragozpenak saihesten dizkie, zerbitzuak berdintasun baldintzetan baliatzea bermatuz.

- Zerbitzu ezberdinen finantzaketa egonkorra sustatu dute, benetako kostuetara egokitutakoa. Zerbitzuak hirugarren sektoreko erakundeekin hitzartzeko xede dira, Bietxeak egoitza izan ezik, zuzenean Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen mende baitago. 2007. urtean zerbitzuen prezioak benetako kostuetara egokitu dituzte, 2004. urtean hasitako prozesua amaituz eta Gizarte Ekintza Sailak eta sektoreko hitzarmen kolektiboak eskatzen dituen betekizunetara

egokituz. Prezioak mota bereko baliabideen antzekoak dira eta urtero eguneratzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko KPI erreferentziazat hartuz.

Azpiegituren inbertsioa ere babesten dute diru-laguntzen urteroko deialdiaren bidez, gutxieneko kalitate mailara egokitzeko; horien artean, lehenetsun gisa ageri dira arkitektura-oztopoak deuseztatzeari eta jarduera gogaikarri, osasun-gaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko indarreko araudira egokitzea.

- Gizarteratzerako egoitzaz kanpoko zentro eta egoitza-zerbitzuetan plaza-kopuru nahikoa sustatu dute. Atal honetan, dituzten programak, artatutako pertsonak, plazak eta kostuak jakinarazten dituzte. Programa horiek droga-mendetasuna duten pertsonak, gizartean baztertuta dauden pertsonak, gizartean baztertuta dauden eta buruko gaixotasun larria duten pertsonak edo hiesaren aldi aurretuan daudenak artatzeari buruzkoak dira, baita Mundutik-Mundura gazte etorkinak emantzipatzearen proiektuan barneratutakoak artatzeari buruzkoak ere.

Bidalitako informazioaren artean, zerbitzuak Bilboko beste leku batzuetan eta Bizkaiko beste udalerrri batzuetan ematen ari direla azpimarratu dugu, eta ez Bilboko leku mugatu batean. Hori oso positiboa iruditzen zaigu.

- Bizkaiko Foru Aldundiko beste sail batzuekin, gainontzeko administrazio publikoekin eta gizartean baztertuta eta egoera ahulean dauden pertsonak artatzeko dauden zerbitzu eta zentroekin koordinazio mekanismoak sustatu dituzte. Hala, aldizkako koordinazio bilera interagenteak egiten dituzte gizarteratzerako egoitza-zerbitzuetan arreta-ereduen homogeneizazioan aurrera egiteko. Zehazki, 2007an zehar gazte etorkinei arreta emateko tutoretzapeko etxebizitzaren erakunde kudeatzaileekin (Mundutik-Mundura proiektua), eta droga-mendetasuna duten pertsonen arretarako programen garapenean inplikaturiko erakundeekin egindako bilerak nabarmendu dituzte.

Bilboko Udalarekin eta Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailarekin ere aldizkako bilerak egiten dituzte eskumenak mugatzeko prozesuarekin jarraitzeko eta beste foru aldundietako teknikariek irizpideak koordinatu eta berdintzeko.

Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzarekin lankidetzabideak ezarri dituzte, Mundutik-Mundura proiektuaren barruan artatutako gazteen bizileku eta lan baimenen eskaeren kasuei dagokienez.

Gainera, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren urteko txostena egiteko orduan Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritzarekin parte hartzen dute.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinekin egiten dute lan erakunde arteko planetan, batez ere Euskal Gizarteratze Planari (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila), Droga Mendetasunen V. Planari, Inmigrazioaren Euskal Planari

eta Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Euskal Planari dagokienez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, lehenik eta behin, jakinarazi digu, Gizarte Politikako Departamentua sortu duen Gipuzkoako Foru Aldundiko Departamentuak zehazten dituen uztailaren 11ko 60/2007 Foru Dekretuaren ostean Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen organo erantzule bakarra dagoela. Gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen sektorearen aurrean konpromiso zorrotza hartu dutela ere jakinarazi dute, beste gizarte sektore batzuekin parekotasuna lortzeko, izan ere, beren bilakaera historikoari loturiko inguruabarrak direla-eta, programen, prestazioen eta zerbitzuen egituretan maila handiagoa erakusten dute. Baztertuen dauden sektoreen artean sortutako gizarte premia berriak agertzeak aurrera egiten du. Horien artean, lanik lortu ezin dezaketen etorkinak, burutik gaixo daudenak, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak, etab. aipatzen dituzte. Ondorioztatu dute gizarte ongizatean barne hartutako administrazioen ezohizko laguntzak behar izango dituen biztanleria egongo dela.

Ondoren, hartu beharreko neurrien zerrenda egin digute:

- Departamentu bakarra izanik, koordinazio teknikoa eta instituzionala eta prestazio eta zerbitzuen gauzatzea hobetuko dela aurreikusten dute.
- Lana eskuratzeko eta gizartean desabantaila-egoeran dauden sektoreen laneratzea eta gizarteratzea errazteko enplegua sustatzeak lehenetsia du beren ustez. Hori dela-eta, enpleguaren arloa hobetzeko eta pertsonen formaziorako gastuen partidek plazak etengabe haztea eta lan-munduratzeko eta laneratze egokia ahalbidetzen duten intentsitate ezberdineko programa esperimentalak ezartzea aurreikusten dute.
- 2008an Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua ezarriko da 24 orduz eta premiazko arretarako eta behaketarako 12 plaza izango ditu. Tratu txarrak jasatearen biktimak izan diren emakumeen arretarako zerbitzu integrala ere abian jarriko da, izaera prebentiboa eta aringarria duena.
- 2008ko gastuen aurrekontuari dagokionez, ostatu zerbitzuen eta banan banako gizarteratze programen funtsezko hobekuntza kuantitatibo eta kualitatiboa egon da. Horrek, finantzaketa ekarpenen hazkundea eta itundutako erakundeetan hazkunde horren ondoriozko baliabide tekniko eta pertsonalen igoera dagoela esan nahi du.
- Ostatu zerbitzuen eta gizarteratze programen katalogoa egiten ari dira, zehazki, 2008-2011 aldirako Gizarte Zerbitzuen Mapa; mapa horretan gizarte bazterkeriaren sektorean plazen eta zerbitzuen igoera antzematen da.

Gomendioak betez egindako jardueri dagokienez ondorengoak berri eman digute:

- Itundutako gizarte arretaren sareari buruzko azterlan diagnostikoa burutu dute.

- Itundutako gizarteratze sareko langileentzako trebakuntza-ikastaroak antolatu dituzte Buru Osasunaren atalarekin koordinatuz.
- Baztertuta dauden gazteentzat ostaturako eta gizarteratzeko LORTUZ proiektua diseinatu dute.
- Egonaldi ertaineko ostatueta 21 plaza berri jarri dituzte martxan (2006ko bigarren seihilekoan zehar).
Etixerik gabeko pertsonentzako jardueretarako lankidetzak hitzarmenak dituzte sinatuta honakoekin: Abego aterpetxea, Tolosa; Aterpe, eguneko unitatea, jantokia; Aterpe, gaueko unitatea; Ikatz Kale tailerrak; Topaleku zentro irekia, kaleko gizarte esku-hartzea.
- Diagnostikorako, baloraziorako eta orientaziorako programa esperimentalak jarri da abian, arreta prebentiboari lotuta; programa horrek gizarteratze prozesu espezializatua jarraitzeko premiak, ahalmenak eta gaitasunak zehazten laguntzen du.

Beren iritziz, sektorea profesionalizatu, azpiegiturak hobetu, programak dibertsifikatu, finantzaketa hobetu eta elkarten arteko koordinazioa handitu dela ondorioztatu dute, nahiz eta eskakizun maila baxuko, arreta soziosanitarioko, plangintzako eta eskumenen antolamenduko baliabideen aplikazioan gabeziak antzeman. Gainera, inplikaturako administrazioen eskumen eremuak erregulatzeko beharra nabarmentzen dute.

Horregatik, jakinarazi digute, beren eskumenen eremuan sektorearen gabeziak hobetzeko konpromisoa beren gain hartu dutela, gizarte zerbitzu ahulena kontuan hartuz, eta gizarte zerbitzuen mapan aurreikusitako programazioan oinarritutako zerbitzuak zabaltzearen eta hobetzearen alde egin dutela; gizarte zerbitzuen mapak administrazio publikoen arteko koordinazio baliabideak ere hartzen ditu barne.

b) Bazterkeria larrian dauden pertsonekin lan egiten duten gizarte erakundeekin egindako bilerak

Ezohizko txostena **bazterkeria larrian dauden pertsonekin lan egiten duten gizarte erakundeekin** aurkezteko eta txosten hori betetzearen jarraipena egiteko, 2007ko maiatzean eta ekainean bilerak egin genituen hiru lurralde historikoetan. Adierazi zizkiguten kezkarik handienak honakoak izan ziren:

Lehenik eta behin, berritasun gisa, talde honekin **Arabako Lurralde Historikoan** lan egiten duten gizarte erakundeekin jakinarazi ziguten Hiesaren aurkako Batzordea Aterperen kudeaketa burutzen ari zela (etxerik gabeko pertsonentzako baliabidea). Bigarrenik, ondorengo arduen berri eman ziguten:

- Espazio soziosanitariorik ez izatea. Gizarte baliabideen erabiltzaileen artean buruko osasun arazoak (depresio arazoak, buruko gaixotasun larriak...) dituzten pertsonak dituzte. Gizarte baliabideak ez dira gai horiei arreta emateko. Arretan gabezia horiek egoteak gizarteratze prozesuek porrot egitea dakarte. Hala, duten arazoetako bat medikuek alta medikoa erraz ematea da, pertsonaren bestelako premiak kontuan izan gabe. Beste alde batetik, gizarte baliabideek ez diete erantzunik ematen osasun arazoei, ez daude langile egokiak. Batzuetan,

erabiltzaileak etilismo larriz ospitaleko larrialdietako zerbitzuetara eramaten dira, eta larrialdietarako zerbitzutik oso azkar itzultzen dituzte berriz ere zentro-ra, behaketan denbora nahikoa pasatu gabe beren ustez. Osasun arloarentzat erraza da diagnostiko sozialagatik gaixo bati alta ematea; hori pentsaezina da alderantziz, hau da, gizarte zerbitzuek osasun arazo bat baloratzea.

- Eskakizun maila baxuko baliabide gehiagoren premia. Zehazki, toxikomanien errehabilitaziorako eta droga-mendetasuna duten pertsonak gizarteratzeko baliabideak behar direla zehaztu dute. Batzuetan, pertsonen jantokietako txartelak ere ez dizkietela ematen kezkatzen dira, hau da, udal gizarte zerbitzuek gizarte prestazioak pertsonen jokoaren baldintzapean jartzen dituztela; gizarte erakundeen iritziaren arabera, sistematik kanpo dauden pertsonak daudenean eta jokaera aldatzea ia ezinezkoa denean.
- Etxerik gabeko pertsonen beste baliabide batzuk baliatzeko dituzten zailtasunak. Pertsona horiek ezin dituzte hirugarren adinekoren baliabideak erabili, ez dutelako baremazioa betetzen eta Administrazioak beste baliabide batzuk dituztela uste duelako. Ezin dituzte osasun baliabideak ere erabili, osasun arduradunen arabera, beste gaixo batzuk ezegonkortzen dituztelako. Beraz, Aterpe baliabideak pertsona guztiak artatzen ditu, saski-naski modura funtzionatzen du. Hasiera batean susbstantziak kontsumitzen zituzten pertsonentzat zen, baina bestelako profilak ere artatzen ditu: 65 urtetik gorakoak, buruko osasun arazoak dituzten pertsonak, emakumeak zein gizonezkoak, desintoxikatze tratamenduan dauden pertsonak, iragaitzako pertsonak...
- Udal gizarte zerbitzuekin izaten diren arazoak. Lehenik eta behin, gizartean baztertuta dauden pertsonen gizarte laguntzak emateko betekizunak betetzearekin loturiko arazoak planteatu dituzte, oinarriko errentaren prestazioa adibidez. Pisu bat alokatzeko, fidantza ordaintzeko eta abarretarako zailtasuna dutelako ezin dute egiaztatu etxebizitza dutela, edo erroldatuta egotearen betekizuna. Esaten dutenaren arabera Gasteizko Udalak Eusko Jaurlaritzaren gizarte laguntzen araudian agertzen ez diren baldintzak jartzen ditu, esate baterako, jabearen eta errentariaren artean ahaidetasun harremanik ez egotea, edo etxebizitza batean gehienez pertsona-kopuru bat bizi izatea, jabeak sinatutako agiria aurkeztea edo etxebizitzak bizigarritasun baldintzak izatea... Bigarrenik, gizarte zerbitzuen funtzionamenduaren inguruan. Desadostasuna adierazi dute koordinatzen eta lan burokratikoak burutzen aritzen diren gizarte zerbitzuetako langile kopuruarekin, kalean esku-hartze lana egiten dutenekin alderatuta. Udal gizarte zerbitzuek artatzen dituzten pertsonen hurbiltasunik erakusten ez dutela adierazi dute, zama burokratiko handia (lanerako denbora asko behar duten programa informatikoen erabilera) eta gizarte langileen mugikortasun handia dagoela; horrek, langileen eta udal gizarte langileen zuzeneko esku-hartzea eskasa izatea dakar.

Azkenik, helarazten dizkiguten hausnarketetako bat enpleguko ezegonkortasuna da; horrek hainbat pertsonari lan egitea merezi ez izatea eta laguntza ekonomikoak eskatzera gizarte zerbitzuetara joatea dakar.

Bizkaiko Lurralde Historikoan lan egiten duten gizarte erakundeek ere honako kezka hauek helarazi zizkiguten:

- Erroldatzeko zailtasunak. Kudeatzen dituzten zerbitzuen erabiltzaileen profilak, askotan, inolako agiririk gabeko pertsonak izaten dira, hau da, pasaporterik ere ez dutenak, eta horrek erroldatzea eragozten die. Erroldatuta egotea, besteak beste, gizarte prestazioak eta osasun txartela baliatzeko betekizuna da, eta gizarteratzea errazten du. Nagusiki, Bilboko Udalarekin duten zailtasuna azaldu dute, gizarte erakundeen laguntzarekin batera erroldan izena ematea errazteko udal horrek prozedura antolatu duen arren. Hala, Bilboko Udalak gizarte erakundeek egindako etxebizitzaren izendapenari eragozpenak jarri dizkio, edo atzerrikoek arazoren bat dutenean beren agiriekin, pasaporte iraungita dutenean esaterako, Udalak ez die erroldan izena ematen uzten. Hori Barakaldo, edo Mungialdea (Gamiz) bezalako beste leku batzuen ez bezalakoa da; leku horietan, gizarte erakundeen arabera, erroldatzea gehiago errazten da.
- Bilboko Udaleko gizarte langileekin izandako hitzorduetako atzerapenak. Horrek gizarte laguntzen eskaeren tramitazioa atzeratzen du. Gainera, larrialdia baloratzeko oso ohiz kanpokoak izaten dira.
- Gazte atzeritarrei arretarik eza. Egoitza-zentroetatik ateratzen direnean, babeseko zein gazteentzako justiziakoetatik, ez dute beste aukerarik izaten. Laguntza eske jo dezaketen gizarte erakundeen informazioa baino ez dute ematen. Inguaruabar horietan dagoen gazte kopuruaren hazkunderaren adibide gisa Harresiak Apurtuz erakundeak 30 gazte zituztela jakinarazi dute, horietako batzuek LHI eta HHEko zentroetan prozesu irekiak zituzten. Diotenaren arabera, adingabeen babeserako sistemaren arazo bat dago eta ez dute betetzen integratzeko helburuak. Gazte horietako askok (%90ek) arreta ona jasotzen badute urtebete eta erdi baino denbora gutxiagoan gizartean eta lanean integratzen dira, adibidez, Mundutik-Mundura programan, baina badira aukerarik gabe geratzen diren beste gazte batzuk.
- Arreta-profil berriak. Une honetan aurkitu den arazoetako bat, eta lehenago hain ohikoa ez zena, lana, eta batzuetan bizilekua galtzen duten emakume haurdun etorkinak egotea da, izan ere, ezin dezakete gelaren azpierretoa mantendu. Emakume horiek lana eta etxebizitza eskatzen dute. Lagun Artean erakundeak 7 emakume zituen profil horrekin une hartan, eta itxaron zerrenda zegoen. Egoera horretarako ez zegoen beste aukerarik. Hala, udal atzerpetxean ez dago lekurik, nahiz eta inguruabar horietan dauden hainbat emakume onartu zituzten. Emakume horiek Caritasen harreretara jotzen dute, eta hortik Lagun Artean erakundera bideratzen dituzte. Erakunde horretara hilabetean bi emakume arte etortzen dira. Zentzu horretan, adingabeak dituzten familiak ere hurbiltzen dira. Administrazioen erantzuna famili gunea banantzea da, adingabeak babes sistemaren barruan sartuz. Gai hori oso garrantzitsua iruditzen zaie ez delako tratatu txarren edo toxikomania-arazo bati lotutako egoera; baliabide ekonomikoaren gabezia zehatza da. Hori dela-eta, baliabide ekonomikorik ez duten amentzako erantzun bat egon behar litzateke, haurra utzi behar izatera behartu gabe.

Susperraldi egoeran dauden pertsonen zailtasunak ere azpimarratzen dituzte baliabide sozio-sanitariorik ez dagoelako.

- Hezkuntza-proiektuak egiteari eta administrazioek proiektu horiek prestakuntza-ekintzetara eransteari arreta gehiegi jartzen zaio. Gizarte zerbitzuek ezegonkortasun egoeran dauden pertsonen bizimodua duintzeko ahalegin nahikoa egiten dutela diote, pertsona horiek kalean ez bizitzea lortzeko. Pertsona horiek beste premia asko dituzte prestakuntza akademikoa baino lehenago.
- Foru Aldundiaren egoitza-baliabideen eskaeraren zentralizazioarekin hainbat arazo daude. Gizarte erakundeek jada ez dute erabakitzen zein pertsonak baliatuko dituzten beren baliabideak, ezta egonaldiaren iraupena ere. Lan egiteko modu berri hori gizarte erakunde batzuentzat 2007ko martxoan hasi zen. Aldundiak egoitza-baliabide baten eskaera biltzen du, analizatu eta deribazioak egiten ditu. Balorazioa “Bidaltzen” elkarteak egiten du. Bidaltzenetik Foru Aldundira bidaltzen da berriz ere, zehazki Gizarte Ekintza Sailaren Gizarteratze Atalera, eta orduan esleitzen da plaza. Sistema hori Goiztiri elkarteak hasi zuen gazte etorkinak emantzipatzearen proiektu batean. Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideen esleipena estrapolatu da, nahiz eta ez jakin emaitza ona izan duen ala ez. Egun Foru Aldundiarena da erantzukizuna. Egoitza-baliabidearen eskaera egiten denetik gutxienez hiru hilabeteko itxaronaldia dakar. Hori baliatu nahi duten pertsonak eroldan izena emanda egon behar dute. Lehen, harrera egiten zieten gizarte erakundeek errolatzea errazten zieten; orain, aurretiazko betekizuna denez, errolatuta ez daudenek ezin dute eskaera aurkeztu. Ondorioa plaza libreak dituztela da. Funtzionamendu ezegokia dagoela errepikatzen dute, izan ere, ez dago itxaron zerrendaren kontrolik eta ez da egiten aurrera behar den premia. Beren iritziz prozesu osoak gardenagoa izan behar luke. Plaza libreak izateak gizarte erakundeen kudeaketa eragozten du. Erakunde horiek alde aurretik aurrekontua egin dute plazan %100 okupatzea aurreikusiz. Plazan esleipena eta okupazioa beren mende ez badago, ezin izango dute aurrekontua justifikatu.

Azaltzen duten beste zailtasunetako bat, baliabidea esleitzean, erakunderen batekin aurretiaz harremanik izatea ez dutela kontuan hartzen da. Kondena betetzen ari diren pertsonekin lan egiten duen Bidesariren kasua da. Espetxetik ateratzen direnean eta etxebizitza esleitzen dietenean, baliteke ez izatea erakundearen baliabidea; beste erakunde batek esleitzen diete etxebizitza. Plazak esleitzen izaten duten atzerapenak ere, hirugarren mailan sailkatuta dauden espetxeratuen kasuan, espetxetik ateratzea eragozten die baliabidea ez dietelako garaiz gokititu.

Egonaldiaren iraupenari dagokionez, Aldundiak gehienezko gau kopuru bat adierazi du, gizarteratze prozesua zailago eginez, erabiltzaileak harkorrak direnean, horrek ibilbide kaotikoak eragin ditzake. Foru Aldundiarekin negoziatzen ari ziren egonaldia luzatzeko eta badirudi luzatzeko aukera eman behar zutela, baina hiru hilabetera bakarrik larrialdietarako baliabideetarako.

Ondorioz, beren iritziz, zentralizazioak ez luke baliabideen erabilera erraztuko eta ez datoz bat egonaldiaren iraupenaren inguruko baldintzekin.

Azkenik, ez dago Aldundiaren eta gizarte erakundeen arteko jarraipen batzorde-rik; harremana alde bikoa da oraindik, banan banako hitzarmenetik eratorria.

- Baliabide nahikorik eza. Jende gehiago dago kalean, Bilboko udal aterpetxean ez dago lekurik, ezta Hontzan ere, beraz jende ugari dago lo egiteko lekurik gabe, batez ere neguko bizilekua ixten dutenean.

Puntu horretan, eskumenak argitzea garrantzitsua dela azaldu dute, izan ere, Udalak larrialdietan eskumena izatea eta Foru Aldundiak baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak artatzeko eskumena izatea askoz zailago egiten du. Nahasteak eragiten dituen espazio komuna dago. Beren iritziz, arretaren irizpidea zaurgarritasun egoera izan behar litzateke. Gainera, larrialdiko zerbitzuei, udalen eskumenei dagokienez desberdintasun handia dago. Hala, ezker aldean ez dago bizilekurik. Portugaleteko Udalak baino ez du zentzu horretan aurreikuspenen bat. Barakaldori dagokionez, Udalak partikular batekin, pentsio bateko jabearekin plazak hitzartzeko erabiltzen duen sistema kritikatzten dute. (Esaten dutenaren arabera, baldintzak oso onak dira pertsona horrentzat, jasotzen duen prezioa oso altua da, gelako giltza izateko eskubidea du eta erroldan ez du izenik eman behar. Gainera, urteko luzapenak prezioaren %6 gehiago esan nahi du, KPIren igoerari gehitu beharrekoa).

Etxebizitzaren zailtasunen aurrean abian jarri diren beste konponbide batzuen berri eman digute. Goiztiri elkarteak arrisku handiko "gizarte inmobiliario" bat sortu du. Erakundeak berak jabeen errentaren ordainketa bermatzen die, errentarietara hileroko errentari aurre egin ezean. Konpentsazio kutxa dute. Adibide gisa, 2006an 96 euroko defizita baino ez zen izan. Nagusiki, etxebizitzaren erabiltzaileak etorkinak dira, zehazki 40 etxebizitzatokoak eta 39 etorkinek alokatutakoak dira. Eskatzen dituzten betekizunak pertsonen gizarte erakunde baten laguntza izatea eta errentaren kostua ordaindu ahal izatea dira. Errenta ordaindu ezin dezaketenean pertsonen kasuan, zoritxarrez, ez dute inolako erantzunik jasotzen beren aldetik. Positibotzat hartzen dute etorkinei laguntzea, gizarteratze prozesu baliodunak hasten dituztelako.

- Legez kanpoko egoeran dauden etorkinek gizarte baliabideak baliatzeko zailtasunak. Erabiltzaileak diren adineko etorkin bi ezagutzen dituzte bizileku baimenik ez dutenak, beraz, ez zaie adinekoentzako egoitza batean sartzeko aukerarik ematen edo, adingabe bat eskolatzeari lotutako arazoak izan zituzten ama erroldatuta ez egoteagatik. Haurdun dauden emakumeen kasuan osasun txartela lortzeko eta haurtzaindegi publikoetara sartzeko zailtasunen inguruan jakinarazten dute.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko gizarte erakundeek honako kezka hauek helarazi zizkiguten:

- Espazio soziosanitariorik ez izatea. Eguneroko lanean bi arloen artean, gizarte arloaren eta osasun arloaren artean, alegia, loturarik ez dagoela ikusten dute. Osakidetzako gizarte langileek beraiek ez dituzte gizarte baliabideak ezagutzen eta ez dute gizarte arloko eginkizunen eta jardueren berri. Osakidetzako gizarte langile horien eginkizunak zein diren ere ez dakite. Hutsune hauek nabarmentzen dira: gizarte irizpideak kontuan hartu gabe emandako alta psikiatrikoak eta, oro har, medikuaren altak presaka ematea, eta eriondo direnean nora jotzeko baliabiderik ez duten pertsonak egotea, familiarik gabeko pertsona atzerritarrak zein gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak. Beren iritziz, kasu horietarako beharrezkoak dira baliabide soziosanitarioak. Izan ere, gizarte baliabideek ez dute bitartekorik susperraldiei aurre egiteko, eta medikuaren altak gizarte baliabiderik aurreikusi gabe egiten dira. Hala, pertsonak ezin dute atsedean hartu, baina zaintzaile baten beharra dute. Adierazten duten beste zailtasun bat osasun zerbitzuetara jotzean gizarte baliabideetatik artatzen dituzten pertsonen laguntzea da. Osasun medikuen aldetik ez dute beren lanaren errekonozimendurik jasotzen, eta ez zaie koordinazioa errazten.

Gizarte arloan baliabideak “ahal dutenean eta ahal duten bezala” erabiltzen direla gehitzen dute, hau da, agertzen diren premien aurrean jarduten dutela, nahiz eta, askotan, ez diren prest egoten aurre egin behar dioten problematikarako. Eta horri gehitu behar zaio, oro har, gizarte baliabideak gainezka egoten direla.

Gizarte arloko elkarleen Sargi plataformak buru osasuneko zentroetako zuzendari eta langileentzako ikastaroak antolatu dituela jakinarazi digute. Aurrerapena da, nahiz eta, beren iritziz, gizarte gaia ez den bere osotasunean hartzen.

Beraz, koordinazioaren premia nabarmentzen dute; ikuspegi klinikoaz gain, gizarte ikuspegia ere kontuan hartzea, alegia.

- Eskakizun txikiko plazen premia. Azken urte hauetan neguko premiei erantzuteko eskakizun txikiko plazak abiarazi dira, 80 plaza, hain zuzen, denak ere Donostian (40, Hotzaldia, 40, Anoeta). Gainerako udalek ez dute parte hartu, Irungoak izan ezik. Hortaz, ezohizko txostenean adierazitako premia mantentzen da Gipuzkoan; eskakizun txikiko plaza gehiagoren premia dago oraindik.
- Esku-hartzearen irismena, artatzen diren profilak. Oro har, patologia psikiatrikoa duten pertsonak, atzerritarrak eta pasadizokoak dira. Nahiz eta Gizakia Helburu bezalako baliabide batzuek, hasiera batean, ez dituen pertsona atzerritarrak artatzen, funtsean, sartzeko baldintzak betetzen ez dituztelako (udalerrian erroldatuta egotea gutxienez 6 hilabeteko antzinatasunarekin, substantzien kontsumoari uko egitea, baliabide idiomatikoak, ostatua izatea, etab.), bat datoz pertsona askorengana ez direla heltzen adieraztean. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dute gizarte baliabideetara jotzen ez duten pertsonengana hurbiltzeko kalean lan egiteko premiari buruz hausnartzea. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei dagokienez, hemezortzi urte bete ondoren alternatibarik ez izatearen inguruko kezka helarazi digute. Kalean egotea, hainbat substantzia kontsumitzea eta

bazterkeria kroniko egiten duen ingurunean egotea dakarkie horrek. Beren iritziz, Administrazioaren tutoretzapean egin duten denboran ez da egin, oro har, haiek gizarteratzeko lanik. Osasun arazoak dituzte substantzien gehiegizko kontsumoarengatik, gazteek ez dakite zer gizarte baliabide dauden, eta horrek zaildu egiten du haiek artatzea.

- Larrialdietarako zerbitzua. Gai honek, 2007an, eztabaida zabala eragin du hedabideetan Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren artean. Udalak jakinarazi die larrialdietarako udal zerbitzu bati ekingo zaiola. Beren ustez, horrek baliabideak hiriburuan kontzentratzen jarraitzea dakar. Bestalde, Foru Aldundiak kudeatzen duen egungo larrialdietarako zerbitzuak ez ditu kalean dauden pertsonak artatzen, baizik eta genero indarkeriako edo gazteen aurkako indarkeriako kasuak nagusiki.
- Eguneko zentroen eta dutxa-zerbitzuaren premia. Etixerik gabeko jende asko bertaratzen zen goizetan Caritasen eguneko zentrorara. Hura itxi zutenetik, berriz, Gurutze Gorriaren egoitzara jotzen dutela jakinarazi digute. Hark ez du eguneko zentroko zerbitzurik, baina bai jendearentzako arreta. Bertaratzen diren pertsonen narriadura oso larria da eta, batzuetan, indarkeria-gertaerak ere izaten dira. Beraz, geldiarazteko lan handia egin behar da, eta Ertzaintzaren esku-hartzea eskatu behar izaten dute. Batzuetan, Ertzaintzaren erantzuna behar bezain azkarra ez dela izan kexatzen dira.

Pertsona horien premia handietako bat higiene pertsonala da. RAIS elkarteak dutxa-zerbitzua kudeatzen zuen. Itxi egin zen zerbitzu hori. Orduz gerotik, premia hori zuten pertsonak Kontxako dutxetara jotzen zuten. Jakinarazi zigutenaren arabera, arazoak izaten ari ziren. Berez, nahiz eta gainerako erabiltzaileek bezalaxe ordaindu (RAIS elkartearen dutxetara joan ahal izateko bonoa ematen zieten), ez zieten sartzen uzten, baizik eta Grosen dauden dutxetara bidaltzen zituzten. Gai horri dagokionez, erakunde honek esku-hartzea egin du, eta aurrerago emango dugu horren berri.

- Erroldan izena emateko arazoak. Bertan bizitzeko etxebizitzarik ez duten pertsonen kasua da. Jakinarazi digutenaren arabera, gizarte zerbitzuen helbide batean inskribatzean datzan “fikziozko” erroldatzearen ondorioak oso murriztaileak dira, izan ere, ez du gizarte laguntzarik izapidetzeko aukerarik ematen, baizik eta osasun txartela izapidetzeko eta hautesle erroldako parte izateko bakarrik balio du.
- Gizarte laguntzak izapidetzeko arazoak. Ezin dute izapidetu egoitza-zentroko erabiltzaile guztien oinarrizko errentaren prestazioa, baizik eta eskabide kopuru bat bakarrik: gizarte erakundearen eta Foru Aldundiaren artean hitzartutako plazei dagokiena. Arazoa da, aurrez aipatu bezala, erakunde hauek planteatzen zaizkien premien inguruan lan egiten dutela. Horregatik, batzuetan plaza-kopurua ez da bat etortzen artatzen duten jende kopuruarekin. Horrenbestez, bi sailekin lan egiteak dakarren zailtasuna aipatzen dute. Izan ere, sail batekin, zerbitzu bat

kudeatzeko hitzarmena sinatzen zuten, eta beste sail batekin, lehenengoarekin hitzartutako programak eta jarduketak justifikatu behar izaten zituzten gizarte laguntzak eskatzeko.

- Prezioen arteko aldea: Bizkaiko Lurralde Historikoko prezioekiko aldea dagoela adierazten dute. Bizkaiko Foru Aldundiak prezio handiagoan dauzka hitzartuta plazak.
- Gizarte erakundeen arteko koordinazioa. Oso onuragarritzat jotzen dute gizarte erakundeen artean koordinazio eta lankidetzaren harreman ona izatea.
- Osasun txartela lortzea: elementu positiboen artean nabarmentzekoa da osasun txartelaren izapidetzea malgutu eta erraztu egin dela. Anbulatorioan bertan eska daiteke, eta hauek dira aurkeztu beharreko agiriak: errolatze ziurtagiria eta dagokion pertsonaren adierazpena, ondasunik ez duela azalduz.

Hauek dira hiru lurralde historikoetako gizarte erakundeek helarazi dizkiguten kezkek. Helarazi dizkiguten arazo asko komunak dira hiru lurralde historikoetan; osasun eta gizarte arretaren premia, baliabideak pertsonen profiletara egokitu beharra edo eskakizun txikiko plazen premia, esaterako. Beren iritzia oso garrantzitsua da talde horrentzako arreta hobetzeko. Izan ere, horiek dira esku-hartze zuzena egiten dutenak eta sistemaren gabeziak hurbiletik ezagutzen dituztenak.

c) Taldeari eragiten dioten kexa interesgarriak

Talde honi eragiten dion Arartekoaren beste esku-hartze bat **kexak izapidetzea** da; horixe da erakundearen jardura nagusietako bat. Atal honetan etxerik gabe edo bazterkeria-egoera larrian dauden pertsonen eragiten dietenak bakarrik jaso ditugu. Aurrez adierazi bezala, Gizarte Ekintza Sailera jo genuen gizarte arloari eragiten dioten kexa batzuen inguruan (urteko txostenaren I. atala).

Bazterkeria-egoera larrian edo etxerik gabe dauden pertsona batzuk erakundera etorri dira Administrazioaren jardura bat dela-eta kexa aurkeztera. Horrela, [otsailaren 27ko ebazpena](#)¹¹ aipatu behar dugu. Horren bidez, Hernaniko Udalari gomendatzen zaio bertan behera utz dezala familia bat Patronatuaren jabetzako etxebizitza batetik joanarazteko hartutako erabakia eta gizarte babeseko neurri egokiak gara ditzala. Kasu honetan, gizartean baztertuta zegoen ijito familia bat zen. Gizarte etxebizitza batetik joanarazi nahi zen, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuaren jabetzako eta/edo horri atxikitako pisuen harrera eta erabilera arautzen duen ordenantzaren 5. artikuluko 5. atala aplikatuta; honen arabera, “...*etxebizitza libre utzi beharko du... Kasua edozein delarik, urte beteko epea amaitzean, (...) etxebizitza*

¹¹ Arartekoaren ebazpena, 2007ko otsailaren 27koa; horren bidez, Hernaniko Udalari gomendatzen zaio bertan behera utz dezala familia bat Patronatuaren jabetzako etxebizitza batetik joanarazteko hartutako erabakia eta gizarte babeseko neurri egokiak gara ditzala.

erabiltzen hasi zeneko egunetik hasiko da kontatzen". Erakunde honen ustez, aipatu asmoa berdintasun printzipioaren aurka zegoen, etxebizitzaren erabilera esleitu zitzaizkien pertsona guztiek urtebete baino gehiago baitzaramatzaten horietan bizitzeko eta bati berari ere ez zitzaion joanarazteko agindu.

Planteatutako beste kexa bat Sestaoko Udalak kalean bizi den pertsona baten oinarrizko errentaren prestazioa enbargatu izanari buruzkoa zen; hura zen jasotzen zuen diru-sarrera bakarra. Udalak Prozedura Zibilar buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 605 eta 607. artikuluetan jasotako errenta jakin batzuen enbargaezintasunari buruzko gure gogoetak onartu zituen, eta enbargatutako zenbatekoa itzultzea erabaki du.

Higiene pertsonaleko ohitura batzuk mantentzea oinarrizkoa da integrazio prozesuetan; hala ere, zerbitzu hau ez da beti benetan gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen eskura egoten. Adierazi bezala, Donostian bizi den atzeritar batek eman zigun arazo honen berri.

Hiri honetan, 2005. urte amaieran, Hiri Mantenimendu eta Zerbitzuetako eta Gizarte Ongizateko zuzendaritzek eta RAIS Euskadi elkarteak protokoloa sinatu zuten eta, horri jarraiki, elkarteak zerbitzu hau ematen zuen dohainik. Horretarako, tiket batzuk ematen zizkien hirian bizi ziren etxerik gabeko pertsonari, Kontxako hondartzako dutxak dohainik erabili ahal izan zitzaizkien. Hainbat hilabetez funtzionatu ondoren, baliabideak gainezka egin zuen eta eten egin zen erabakiaren aplikazioa. Nolanahi ere, Donostiako Udalak, Gurutze Gorriarekin eta Caritasekin batera, pertsona horiek higiene zerbitzurako sarbidea izateko estrategiaren bat aztertzeko borondatea adierazi zigun. Hala ere, denborak aurrera egin du eta arazoa oraindik konpondu gabe dago, Gipuzkoako Lurralde Historikoan etxerik gabe eta gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten elkarteek bileran adierazi zigutenaren arabera. Hasiera batean, Donostiako Udalak planteatu duen aukera etxerik gabe eta baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak Kontxako hondartzako kabinak erabiltzea izan da. Instalazio horiek erabiltzeko prezioa handia da, baldin eta horien erabiltzaile batzuek baliabiderik ez dutela kontuan hartzen bada. 2007an, dutxa erabiltzeko ordaindu beharreko tarifa 0,70 eurokoa zen. Armairu bat ere erabiliz gero, berriz, 1,10 euro ordaindu behar zen. Horrez gain, kontuan hartu behar da beste euskal hiriburuetan dauden era honetako zerbitzuak doakoak direla, eta, zerbait ordaindu behar izatekotan, xaboia ordaintzeko izaten dela. Bestalde, Kontxako hondartzan udako kanpaina hasitakoan, Zurriolako hondartzako kabinetara eramaten da zerbitzuaren prestazioa. Zenbait ohitura eta jardun ildo modu egonkorrean eta jarraian ez mantentzeak pertsona horien –funtsean, etorkinak eta baztertuta geratzeko arriskuan daudenak– integrazio proiektuei eragiten die. Sasoiaren arabera zerbitzua lekuz aldatzeak ez du horretan laguntzen. Egia da azken urteotan ustez gaitzuta zeuden premiak agertzen hasi direla. Hala ere, gizarte eskaera horiei, pertsonentzat oinarrizkoak diren higiene zerbitzuen prestazioan eragina dutenean, modu egonkorrean erantzun behar zaie baliabide publikoen bidez, osasun publikoaren arloan ondorioak baitituzte. Udalarik dagokio zerbitzu horrentzako kokapen egokia bilatzea, eta erabateko autonomia du horretarako. Irtenbide bat eskaera berria egun dauden baliabideetara bideratzea izan daiteke. Premiari ematen zaion irtenbideari etengabeko erantzuna ematen zaion heinean, alegia, urtean zehar oztoporik jartzen ez zaion heinean, irtenbideak baliozkoa izan behar du. Alabaina, kokapenari dagokionez egonkortasunik ez badu, orduan, gure ustez, kokapena ez da egokia izango. Nolanahi ere, kexa honetan azaldutako arazoak aztergai izaten jarraitzen du.

8. BERARIAZKO ARRETA TERRORISMOAREN ETA JAZARPEN INDARKERIAREN BIKTIMEI

Ararteko erakundeak sentsibilitate berezia agertu izan du beti terrorismoaren biktimekiko eta, horregatik, erakunde honen lehentasunezko arreta-taldetzat hartu ditu. Sentsibilitate horrek esan nahi du, halaber, biktimekiko solidaritate eta gertutasun jarduera ezberdinak egiten direla, komunikatuak eginez indarkeriazko gertaera bat jazotzen denean, hedabideetan adierazpenak eginez, eta terrorismoaren biktima diren elkarte eta fundazioen jardueretan parte hartuz.

2007an, terrorismoaren biktimei dagokienez burutu diren ia jarduera guztiak txosten honen IV. kapituluari aipatu dugun ezohizko txostena prestatzera bideratuta egon dira.

Txosten hau egiteko informazioa bildu da EAEko udal guztietan, gaian eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako sail guztietan, EITBn eta EHUan, eta une honetan informazio hori analizatzen eta aztertzen ari gara.

Halaber, urtean zehar hainbatetan, bilerak izan dira erakunde ezberdinekin nahiz Biktimen Arretarako Bulegoko zuzendariarekin eta haren lantaldearekin edo Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendariarekin, terrorismoaren biktimei lotutako zenbait arazo lantzeko.

2007an arreta berezia eman zaio jazarpen indarkeria deitu zaion horri, elkarriketak izanez ETAk mehatxaturiko taldeetako pertsonekin. Egindako elkarriketa horien gaineko azterketa kualitatiboa nahiz elkarriketatutako pertsonen mehatxaturiko talde horien egoeraz mintzatzeko eratu zen lantaldearen ondorioak aterako dituen dokumentua prestatzen ari garen txosten honen atal garrantzitsua izango dira.

Halaber, keixaren bat edo beste jaso da biktimen elkarte baten partetik, biktimen memoriarekiko erasokorrak izan daitezkeen kartelak edo pankartak ikusi dituztelako jai giroko eta kultur arloko ekintzetan.

9. BERARIAZKO ARRETA LESBIANA, GAY, BISEXUAL ETA TRANSGENERIKO EDO TRANSEXUALEI

Arlo honetan Ararteko erakundeak lesbiana, gay, bisexual eta transexual edo transgenerikoen berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren alde egiten du lan:

- euskal administrazio publikoak kontrolatzen ditu berdintasunerako eskubidea eta orientazio sexualagatiko edo genero identitateagatiko bereizkeriarik ez jasateko eskubidea inola ere urra ez daitezen.
- orientazio sexualagatiko edo genero identitateagatiko preterizio edo bereizkeria oro erazteko kultura sustatzen du gure gizartean
- Euskadiko lesbiana, gay, bisexual eta transexual edo transgenerikoen egoerari eta errealitateari buruzko gizarte ezagutza zabaltzen du eta erakunde publikoek eta euskal gizarteak pertsona horien eskubideak babes ditzatela bultzatzen du.

Arlo honetan burutzen ditugun jarduerak bultzatze edo sustatze jarduera gisa eta pertsonen edo pertsona taldeen eragindako kexen ondorioz abiarazitako jarduera gisa sailka daitezke.

a) 2007an burutu diren bultzatze edo sustatze jarduera azpimarragarrienak:

Ararteko erakundeak berak gay, lesbiana, bisexual eta transgeneriko edo transexualen eskubideak errespetatzeko kultura sustatze aldera ofizios bultzatzen dituen jarduerak dira.

1. Jarduera horien artean, lehenik eta behin, **Euskadiko emakume lesbianen gizarterako ikusgaitasuna eta parte-hartzea** izeneko lana egin dela aipatu behar dugu, Ararteko erakundeak emandako ikerketa-beka baten emaitza gisa. Lan hau 2007ko abenduan argitaratu da; arartekoak eta ikerlanaren egileak aurkeztu zuten hedabideetan. Ikerlan honetan, egileak EAEn lesbianek gizartean duten ikusgaitasun txikia aztertzen du, hori eragiten duten arrazoiak eta horrek lesbianentzat eta, oro har, gizartearentzat dituen ondorioak ezagutze aldera. Helburu horiek lortzeko erabilitako **metodologia** ikerketa-metodo kualitatiboa izan da, beren bizi kontakizunak lortzeko 18 emakume lesbianari egindako elkarrizketa sakonen bidez antolatua. Elkarrizketa horiek –2006ko iraila eta 2007ko urtarrila bitartean egindakoak– biografikoak izan dira eta bizitzako oinarrizko aldien bidez (haurtzaroa, nerabezaroa, gaztaroa eta helduaroa) eta beren gizarte inguruneen bidez (familia, lana, lagun taldea) adin eta jatorri kultural, sozial eta ekonomiko ezberdinetako emakume lesbianen bizi esperientziak ezagutzera bideratuta egon dira. Egileak emakume horiek estigmari, bereizkeriari, ikusgaitasunari, identitatea eraikitzeari eta gizartean parte hartzeari dagokienez izandako esperientzien inguruan dituzten oroitzen deskribapen trinkoa egiten dute. Aukeratutako emakumeen lagina ahalik

eta ezberdinena eta ausazkoena izatea nahi zen eta, ondorioz, emakume lesbianen irudi estereotipatutik urruntzen den askotariko taldea osatu da. Nabarmendu nahi genuke laguntza eskaini diguten emakumeak oso harkor agertu direla ikerlanaren arrazoi eta helburuekiko. Egileak, orobat, beste iturri batzuetara ere jo du azterketa egiteko; hala, besteak beste, sexualitatearen eta lesbianismoaren teoriari eta teoria feministari buruzko obrarik esanguratsuenak irakurri ditu; lesbianen aldarrikapenekin erlazionatuta egon diren Euskadiko gizarte mugimenduei buruzko dokumentu historikoak berrikusi ditu; eta eztabaida-taldea eratu du lesbiana, gay, transexual eta bisexualen (LGTB) eskubideak babesteko egun Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakunde garrantzitsuenetako kide diren emakume lesbianekin, lesbianek EAEn duten ikusgaitasunari lotuta zeuden eta egilearen ustez interesgarrienak ziren zenbait alderdi alderatu eta aztertzeke.

Ikerlan honen **ondorio** garrantzitsuenen artean aipatu behar dugu agerian geratu dela emakume lesbianentzat oso zaila dela beren kondizio sexuala erabat ikusgai egitea. Zailtasun hori sexualki eta afektiboki emakumeek erakartzen dituztela sentitzen hasten direnean hasten da. Gizarteak errealitate hori ez ulertzearen ondorioa diren oztopo ugari egin behar diete aurre (beldurra, bakardadea, isiltasuna, nahigabea edo lotsa); horiek, batzuetan, norbere sexualitatea onartzea eragozten dute eta, askotan, bizimodua ez-oso eta zatitua izatea dakarte. Horrela, beren bizitza inguratzen duen errealitate osoa ezkutuan geratu ohi da gizarteko eremu askotan. Elkarrizketatutako emakume lesbiana guztiek, beren adina edo estatus soziala edozein dela ere, prozesua gainditu behar izan zuten (luzeagoa edo laburragoa eta errazagoa edo konplexuagoa, emakume bakoitzaren berariazko egoeraren arabera) beren burua lesbianentzat onartzeko eta beren kondizio sexuala ikusgai egin ahal izateko. Norbera onartzeko prozesu horiek bideraezina egiten dute lesbianak zoriontsu izatea bizitzako garai jakin batean eta horrek arazo emozional eta psikologiko ugari eragin diezazkieke.

Bestalde, gizartean emakumeei etxearekiko, familiarekiko eta, oro har, beste pertsona batzuei laguntzarekiko ardua handiagoa eman zaienez eta emakumeek erraztasuna dutenez norbere ongizateari, intimitateari eta sexu atseginarekin bilaketari uko egin eta besteen interesen arabera jokatzeko, nabarmen murrizten da emakumeek aisiarako eta harreman afektiboak eta sexualak izateko duten denbora eta, ondorioz, beren sexualitatea gutxiago garatzen da.

Egileak nabarmendu du lesbianek dituzten zailtasun orokorrak areagotu egiten direla adinekoak, etorkinak, ijito arrazakoak, ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten emakumeak eta gizonezko batekin ezkonduko emakumeak direnean. Eremu horietan, ohikoagoa da gizartean baztertuta eta egoera ahulean geratzea; gainera, horietan zailagoa da hurbileko inguruneek eta gizarte premiak dituzten lesbianak laguntza eske joaten diren gizarte zerbitzuetan lesbianismoa onartzea. Talde horiek, gainera, aukera gutxiago dituzte lesbianak sozializatzeko baliabideak eskuratzeko. Azterlan honek ateratzen duen ondorioa da gizarteak mugatzailea eta, askotan, oso negatiboa izaten jarraitzen duela lesbianen sexualitatea eta afektibotasuna berdintasun, askatasun eta duintasunez libreki eta erabat bilakatzeko. Egileak azpimarratu du, orobat, horren haritik, beharrezkoa dela esperientzia hori gizonezkoen homosexualitatetik bereiztea, lesbianak ez baitaude gay-en plano sozial, politiko, ekonomiko eta sexual berean kokatuta eta, horren eraginez, horien ikusgaitasuna lesbianena

baino askoz ere handiagoa da. Lesbianen ikusgaitasun txiki hori bereziki nabarmena da eremu publikoan. Horren adierazgarri nagusia da ez dagoela lesbianismoaren eta bere errebindikazioen buru izan nahi duen emakume lesbianarik eskala sozial, ekonomiko, kultural eta politikoko maila gorenetan. Horregatik, beharrezkoa da, ezkontzeari eta adopzioari buruzko legetan berriki egin diren erreformez haraindi, emakume lesbianak gizartean erabat onartzea ahalbidetzen duten beste faktore batzuk ere faboratzea, esate baterako, hedabideetan lesbianismoaren aldeko aipamenak egitea, LGTB elkartegintza eta elkartegintza feminista bultzatzea, lesbianentzako biltzeko eta sozializatzeko lekuak sustatu eta sortzea (besteak beste, Interneteko foroak edo txatak); eta, oro har, baita beste hainbat faktore faboratzea ere, horien artean, lesbianak azaleratzeko eta beren burua onartzeko prozesuen alde egitera, beste lesbiana batzuekin elkartera, sexualitateari berari buruzko ezagutza-maila handiagoa lortzera, jolas eta kultur jarduerak egitera eta gizartea emakumeen eta lesbianen eskubideekiko sentsibilizatzeraz bideratuta daudenak.

2. Arlo honetan burututako sustatze jardueren artean, Ararteko erakundeak 2007ko ekainean **orientazio sexualagatiko diskriminazioa saihesteko Suediako HomO erakundeko kideekin egindako lan mintegia** ere aipatu nahi dugu. Bertan, joera sexualagatiko diskriminazioa saihesteko Suediako HomO erakundeko kideek –Arartekoak gonbidatuta–, arartekoak berak, bere kabineteko zuzendariak, Arartekoko gay, lesbiana, bisexual eta transexualen arloko koordinatzaileak eta Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual eta transexualen eskubideak babesteko gizarte mugimenduko bi kidek hartu zuten parte. Lan mintegi horretan aztertutako gaiak honako hauek izan ziren:
- a) Bi erakundeen zereginen laburpena egin zen; bereziki, HomO erakundeak eta Arartekoak joera homosexual edo bisexual¹² herritarren eskubideak babesteari eta beren diskriminazioa eta bazterkeria desagerrarazteari dagokienez duten edo izan dezaketen eginkizuna azpimarratu zen. Ildo horretatik, oso interesgarria izan zen Suediako esperientzia, eremu honetan lan ikuspegi berri bat aurkeztu baitzuen Arartekoarentzat.
 - b) Bai Suedian bai Euskal Autonomia Erkidegoan joera homosexual edo bisexual¹² pertsonen bizi duten egoera eztabaidatu zen eta, horrekin amaitzeko, beren eskubideez erabat jabetzeko dauden oztopo eta hutsuneei eta horien diskriminazioa eta bazterkeria dakartzan inguruabar nagusien diagnostiko laburra egin zen.
 - c) Batetik, homofobiaz hitz egin zen eta oraindik ere botere publikoko hainbat eremutan ezkutuan geratzen zela esan zen, besteak beste, parlamentuetan, administrazio publikoetan, epaileen artean eta epaitegietan; bestetik, berriz, joera sexualagatiko diskriminazioaren arloan instantzia horiek kontzientziatzen laguntzeko Suediako

¹² Suediako HomO erakundeak joera homosexual edo bisexual¹² pertsonen bereizkeriarekin erlazioatutako kontuak bakarrik jorratzen ditu; ez ditu transgeneriko edo transexualen bereizkeriarekin erlazioatutakoak aztertzen, horiez emakumeen eta gizonen berdintasuna babesteko eta generoagatiko bereizkeria desagerrarazteko Suediako Herriaren Defentsa Erakundea arduratzen baita.

- Homo erakundeak erabiltzen dituen gogatu, hezi eta prestatzeko komunikazio bideak aztertu ziren.
- d) Halaber, eskola-umeen eta unibertsitateko ikasleen egoera aztertu zen, baita eremu horietan gay eta lesbianen benetako berdintasuna lortzeko Suediako erakundeak hasitako jarduerak ere.
 - e) Joera homosexual eta bisexualeko herritarren eskubideak babestu eta defendatzeko gizarte sentsibilizazioaren arloan nahiz mekanismoen hobekuntzarako arloan zereginak egin behar zirela adierazi zen oro har eta, horrez gain, garrantzitsua zela joera sexualagatiko diskriminazioari eta bazterkeriari aurre egiteko politika publiko *proaktiboak* garatzea.
 - f) Azkenik, Europako Ombudsmanen, giza eskubideen defentsarako erakundeen eta joera homosexual edo bisexualeko pertsonen eskubideen arloko GKEen arteko lankidetzeta-mekanismoak artikulatzea komenigarria izango litzatekeela ondorioztatu zen. Puntu zehatz honetan, bi erakundeek (Suediako HomO erakundeak eta Arartekoak) elkarlanean jardun zezaketela proposatu zen, aurrerantzean materialak, harreman pertsonalak, ideiak, ekimenak, etab. trukatu ahal izateko.
- 3.** Jarduera hauen artean, aipatu beharrekoa da, orobat, 2007an abiarazitakoa **Eus-kadiko pertsona transgenerikoen eta transexualen egoerari buruzko ezohizko txostena egiteko oinarriak** onartuta. Horrekin, Arartekoak pertsonen eskubideak sustatzeko urtero abiarazten dituen jardueretan erakunde honek historikoki ahaztuta izan duen taldea barneratu nahi du, gizarteratzeko hainbat zailtasun gainditu behar dituen arren. Horren haritik, pertsona horien egoera ikuspegi zabal batetik aztertu nahi dugu, hainbat alderdi aintzat hartuko dituen, esaterako, gizarteratzeko, laneratzeko eta kulturen eta ekonomian txertatzeko zailtasunak eta laguntza publikoekiko edo laguntza-neurriekiko mendetasun maila; prestakuntzako edo hezkuntzako aldietan pertsona horiek izan dituzten zailtasunak; transgenerikoak eta transexuala izateak familiarekiko (norbere familiarekiko) harremanetan eta giza eta bikote harremanetan edo lagunak egiterakoan duen eragina; lan motan duten ezegonkortasun edo marjinaltasun maila (emakumezko transexualen artean prostituzioak duen eragina aintzat hartuta); edo pertsona horien oreka psikologiko orokorra eta osasun oreka, medikuntzan genero disforiaren sindromearekin lortzen diren berriarazko premiez gain. Gure ustez, garrantzitsua da, gainera, pertsona transgeneriko edo transexualak beren buruaz eta beren bizitzaz duten pertzepzioa bakarriz ez aztertzea, baizik eta baita gizartearen erantzuna eta pertsona horiek gizarte ingurune desberdinetan eragiten duten erreakzioa ere, sortzen duten onarpen edo gaitzespen maila neurtze aldera eta, bereziki, haiei ezartzen zaien gizarte estigma sortzerakoan gizarteko osagai desberdinek duten eginkizuna ikuste aldera. Azkenik, txosten honen bidez, jakin nahi genuke ea gai honetan zenbaterainoko interesa duten talde honi laguntzeko neurriak ezartzeko eskumenak izan ditzaketen botere publiko desberdinek.
- Txostena 2008an egingo da, premisa horietan oinarrituta, izan ere, gure iritziz, premisa horiek emaitza berriak ekar ditzakete gure ingurunean orain arte ia-ia aztertu ez den azterketa-eremu honetan.

4. Azkenik, atal honetan, arartekoak arlo honi buruzko gaietarako dagokienez eskaini dituen hainbat ekitaldi publiko aipatu behar ditugu, besteak beste, solasaldiak eta hitzaldiak. Horrela, arartekoak 2007ko martxoaren 22an Madrilén egin zen *Nazioarteko erakundeetan LGTBen eskubideak aldarrikatzeko estrategiei buruzko I. jardunaldian* parte hartu zuen, “Resistencia y avances para los derechos LGTB a nivel internacional” izeneko ponentziarekin; halaber, Kataluniako Administrazio Publikoaren Eskolak 2007ko ekainaren 14an Bartzelonan antolatu zuen *Administrazio publikoetan GLBT ez diskriminatzeari buruzko Jardunaldian* ere parte hartu zuen. Hainbat ekitalditan ere izan da, besteak beste, honakoetan: 2007ko maiatzaren 4an Madrilén izan zen *Lesbiana, Gay eta Transexualen Estatuko Federazioaren Kongresuaren* inaugurazioan; 2007ko irailaren 27an Cabueñesen (Asturias) izan ziren *Nazioarteko Gazte Topaketetan*, “El reto de la igualdad de derechos civiles” izeneko ponentziarekin; 2007ko abenduaren 6an Donostian izan ziren *Lesbianei buruzko politikaren Estatuko Hirugarren Jardunaldietan*; eta gay, lesbiana, bisexual eta transexualen eskubideak babesten dituen Gehitu elkartearen hamargarren urteurrena ospatzeko 2007ko azaroaren 23an Donostian egin zen erakusketaren inaugurazioan. Gainerakoan, 2007an gai honen inguruko hainbat artikulua ere argitaratu ditu, besteak beste, abenduan Aldaketa aldizkariaren 16. alean azaldu zena, “¿Quo vadis, Polonia?” izenburupean.

b) Kexen ondorioz burutu diren jarduerak nagusiak:

Aipatu beharrekoa da oraindik ere kexa gutxi jaso direla berriki sortu den arlo honi buruz. Gainera, oro har, jasotako kexek ez dute salatzen administrazioaren aldetik bereizkeriazko traturik jaso dutenik; aitzitik, zerbitzuren bat ematerakoan hobetu daitezkeen jarduerak aipatu dituzte edo lesbiana, gay edo transexualen eskubideen legezko egoerari buruzko zalantzak argitzeko eskatu dute.

Jarraian, kexa azpimarragarrietako batzuk aipatu ditugu. Horien bidez, administrazio publikoaren jardueraren batekiko desadostasuna adierazi zaigu.

– **Homosexualek adoptatzea.** Gai honi buruzko kexa jaso genuen. Kexak zioen, prentsan argitaratutako berri baten arabera, ustez Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, 2007ko martxoan egindako txosten batean, gutxiespenez tratatzen zituela homosexualak eta hauek eskatutako nazioarteko adopzioei uko egiteko postulatu zuela. Kexagileak, bere bikotekidearekin, bikote homosexual gisa, etorkizunean haurra adoptatzeko asmoa zuenak, adierazi zuen kezkatuta zegoela, informazio horiek ikusita, homosexualentzat nazioarteko adopzioen etorkizunaz. Nahiz eta eremu hau gure eskumenen pean egon ez, gai honen inguruko benetako egoera zein zen aztertzen saiatu ginen, erreklamatazileari ahalik eta informaziorik zehatzena eman ahal izateko.

Ikusi ahal izan genuen bezala, hain zuzen ere, 2007ko martxoaren 28an, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak txostena onartu zuen nazioarteko adopzioari buruzko legearen aurreproiektuaren inguruan eta, bertan, kexan aipatutako gaiari helden zion, alegia, zer eginkizun duten erakunde laguntzaileek adoptatzeko prozesuan. Alabaina, egiaztatu genuen txosten horretan ez zela aipatzen –prentsa-hedabide

nagusiek argitaratu zuten bezala-, erakunde horiek uko egin ziezaieketenik pertsona homosexualek aurkeztutako adopzio eskaerei. Txostenaren gainerakoan ere ez zegoen horren inguruko aipamenik. Egiatzatu ahal izan genuenez, kontraesan horren arrazoa zen prentsak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuran onartu baino lehen argitaratu zuela txostengileak Kontseiluaren Osokoari aurkeztu behar zion txosten proposamenaren edukia. Hau behin-behinean onartu zuen organo horretako batzorde iraunkorrek, baina Osokoaren erabakiaren zain zegoen. Txostengilearen proposamen horretan, antza, berariaz aipatzen zen litekeena zela erakunde laguntzaileek uko egitea kontratua adopzio-hartzaile homosexualekin formalizatzeari eta, hori arrazoitzeko, *“bidezko erreserba pertsonalak”* zituztela *“edo elkartearen edo fundazioaren ideiekin”* bat ez zetorrela adierazi izatea. Kontua da, alderdi hori Osokoak txostena onartu baino lehen agertu zenez prentsari, eta horrek eztabaida publiko bizia eragin zuenez, Osokoaren gehiengoak pertsona homosexuali buruz eta horiek egin zitzaizketen adopzio eskaerei uko egiteko aukeraren inguruan egindako aipamenak kentzea erabaki zuela eta, hala, azkenean, txostena aipamen horiek gabe onartu zen.

Informazio hori erreklamatzailari helarazi genion eta erantsi genion garrantzitsua iruditzen zitzaigula, etorkizunean, erakunde horiek pertsona homosexualek eskatutako adopzioetan nola jarduten zuten behatzea. Horren haritik, guztiz ados geunden erreklamatzailak azaldutako arrazoibideekin; horien arabera, pertsona homosexualek adopzioak egin ahal izatea babesten duen legeria bete behar da, pertsona heterosexualekiko bereizketarik egin gabe. Ararteko erakundearentzat interes berezia du herritarrak gay eta lesbianen eskubide berdintasunaren inguruan eta gure gizarteko eremu guztietan joera homosexuala normalizatu beharraren inguruan kontzientziazteko. Horren haritik, kexagilearekin bat gentozen hezkuntza oso jarduketa-eremu garrantzitsua dela zioenean. Ildo horretatik, erakunde honek aurreikusitako ezohizko txostena aipatu genuen –une honetan, bidean dena-, haur eta gazteei balioak transmititzeari buruzkoa. Txosten horrek berariaz aztertuko du alderdi zehatz hori.

Nolanahi ere, aipatu behar dugu erakunde honek homosexualek egindako adopzioen errealitatea Euskadin zein den jakin nahi lukeela, zailtasun edo tratu desberdinik ez dagoela egiaztatze aldera. Horregatik erabaki dugu, etorkizunean –sexu bereko bikote ezkonduak edo izatezko bikoteek adoptatu ahal izatea ahalbidetzen duten bikote ezkonduak eta izatezko bikoteei buruzko legeetan izandako erreformak gizarte errealitatean finkatu ondoren-, errealitate horren jarraipen lana egitea eta, horretarako, eragindako administrazio publikoei gai honen inguruko informazioa eskatzea.

- **Jaiotzerakoan erregistroan jasotzen den sexuaren aipamena zuzentzea.** Gai hau dela-eta –Genero Nortasunari buruzko Legeak, alegia, pertsonen sexuari buruz erregistroan egiten den aipamenaren zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legeak, ekarri dituen berritasunen esparruan kokatuta-, aurrean kexa bat jaso dugu eta, horren bidez, esku hartzeko eskatu digu pertsona batek, Donostiako Erregistro Zibilean jaiotza-inskripzioko sexuaren aipamena aldatzeko duela 6 hilabete baino gehiago abiarazi zituen izapideen ebazpena arintze aldera. Berriz ere, kexagileari adierazi behar izan genion erregistro zibila bezalako organoek garatzen dituzten jardueren kontrola ez dagoela erakunde honen eskumen eremuaren barruan, organo horiek Justizia Administrazioaren menpe baitaude, eta, beraz, ez

daudela Arartekoaren kontrolpean. Honen jarduteko eremua euskal administrazio publikoen jarduerak kontrolatzera mugatzen da. Hala ere, erreklamatzailerak adierazi zuen erregistroko aldaketa egitea premiazkoa zenez, eskaera izapidetzeko prozesua al bait gehien arintzen laguntzeko, erregistro horretako arduradunekin harremanetan jarri ginen, modu informalean, eta gaia ebazteko eskatu genien, une horretan egoera berezian zegoelako eskatzailea eta egoera horretan beharrezkoa zelako arazoa al bait arinen konpontzea. Gure esku-hartzea ondo hartu zen eta, denbora gutxira, pertsona horren eskaera ebatzi egin zen. Hala ere, kexa horren bidez egiaztatu ahal izan dugu, erregistroko zuzenketa onartzen duen ebazpen judizialaren ondoren, beharrezkoa dela zuzenketaren berri ematen duen erregistroko oharra erregistrora bidaltzea, hitzez hitzeko jaiotza-agirian ere aldaketa egin dadin. Izapide horrek denbora gehiago behar du eta, beraz, prozesuaren amaiera atzeratzen du. Hori gorabehera, zuzenketaren berri ematen duen erregistroko oharra nahikoa da NANA aldatzeko izapideak hasteko eta, beraz, ez da beharrezkoa hitzez hitzeko jaiotza-agiri berri bat izan arte itxarotea. Halaxe jakinarazi genion interesdunari.

c) Arlo honetarako berritasun garrantzitsuak

Amaitzeko, aipatu behar dugu pertsonen sexuari buruz erregistroan egiten den aipamenaren zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legeak (Genero Identitatearen Legeak) ekarri dituen berritasunek garrantzi handia izan dutela transexualen egoerarako. 2007an Batzar Nagusiek lege hau aldarrikatzearen ondorioz, esparru juridiko eta zibila aldatu egin da. Hori, noski, lesbiana, gay, bisexual eta transgeneriko edo transexualen eskubideak babesteko gizarte mugimenduek azken horien genero nortasuna, jaiotzetiko ezaugarri biologikoak edo, bestela, sexua egokitu izana kontuan hartu gabe, juridikoki erabat onar dadila eskatzeko egin dituzten aldarrikapenen ondorioa ere bada. Lege egoera berri honek pertsona horien bizi garapenean modu erabakigarrian eragin dezake, hemendik aurrera, horietako askok nahi zutena lortu ahal izango dute, alegia, dagokien genero nortasuna juridikoki onar dakiela, jaiotzean zuten sexu biologikoa kontuan hartu gabe. Garrantzitsua da jakitea zer ondorio zehatz izango dituen lege tratamendu berri honek oro har pertsona horien bizi baldintzak hobetzen edo beren izaera gizartean gero eta gehiago aintzatetsi edo onar dadin lortzen. Hauxe da, hain zuzen ere, goian aipatu dugun eta aurki prestatzen hasiko garen Euskadiko pertsona transgeneriko eta transexualen egoerari buruzko ezohizko txostenean aztertu nahi dugun gaietako bat.

10. BERARIAZKO ARRETA ESPETXERATUEI

Presoen bizi baldintzak Arartekoaren etengabeko kezkarako arrazoia dira. Askatasunik ez izateak ez luke ahultasun berezirako arrazoi izan behar, egoera horretan egonda ere eskubide guztiez baldintza normaletan gozatzeko aukera izan behar luketelako eta epaian zehazki mugatu ez dizkieten gizarte onura guztiak eskuratu behar lituzketelako. Gure espetxeetako errealitateak, ordea, presoek eskubide horiek praktikan baliatzerakoan bizi dituzten mota guztietako zailtasunez hitz egiten digu.

Administrazio jarduna ikuskatzeko eskumenik ez dugun eremua da, hura Estatuari dagokiolako. Aldiz, esku har dezakegu espetxean dauden pertsonen eskubideen eraginkortasuna administrazio autonomikoak, foru erkidegoetakoek eta tokikoek eskaintzen edo kudeatzen dituzten zerbitzu eta ekimenen menpekota denean: funtsean osasuna, garraioa, prestakuntza-programak, gizarte ongizatea eta laneratzea. Presoen eskubideen eraginkortasuna horrelako politiken menpekota da neurri handi batean. Ondorioz, argi dago horiek onuradun izango lirakeela neurri horien diseinua eta ezarpena gobernuaren jardunaren beraren parte izango balitz eta haren esparruan espetxeen sailkapen, destino eta barne erregimenei buruzko erabakiak hartuko balira. Horren eraginez, espetxeen alorreko eskumen eskualdaketak, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan aurreikusitakoak eta Jaurlaritzak behin eta berriro eskatutakoak, zuzeneko ondorioak ditu taldearen funtsezko eskubideen birtualtasunean. Uste dugu dimentsio horrek arlo politikoko abagune hausnarketan gainetik egon behar duela eta neurri horretan eskumen eskualdaketa beharrezko erabakia dela eta ezin dela denboran gehiago luzatu.

Bestalde, funtsezkoa iruditzen zaigu egungo zigor sistemari buruzko hausnarketa bultzatzea, legeak erakunde honi egokitu zaion giza eskubideen kultura hedatzeko lana betez. Zentzu horretan, gure betebeharra da Eusko Legebiltzarrari eta gizarte osoari jakinaraztea gure espetxeetan dauden espetxeratuek bizi dituzten baldintzak, askatasuna mugatzeak benetan dituen eraginak jakinaraztearekin batera. Hori beharrezkoa da 147 preso 1.000.000 biztanleko ratioa duen herrialde batean; Europa osoko espetxeratutako biztanleri indizeen buruan egoten jarraitzen du.

Fenomeno honen jatorria Espainiako sistema penalak azken hamarkadan bizi izandako sistema arautzaile osoaren erreforman bilatu behar da: Hogei aldarazpen baino gehiago izan dira Zigor Kodean, Prozedura Kriminalaren Legean, espetxeen legerian, adingabeen erantzukizun penalaranean, atzeritarrei buruzkoan eta Botere Judizialaren Lege Organikoan. Horiek guztiek askatasuna mugatzen duen zigorra gehiago erabiltzea ekarri dute, berriro gizarteratzeko eta gizakoiagoak diren zigorretatik baino zigor eta prebentzio orokor positibotik gertuago dauden gauzatze irizpideak ere garatzearekin batera. Hori dela-eta, herritarrak espetxeak eragiten dituen kalteez ohartarazten saiatzen gara, espetxearen giza eta gizarte kostuaz, eta, ondorioz, norberak erantzukizuna hartzea eta berriro gizarteratzeko eskubidea ahalbidetuko duten zigor erantzun alternatiboko ereduak martxan jartzeko beharra azpimarratzen dugu. Hori guztia delituen biktima direnen interes eta eskubideak ahaztu gabe egitekoa litzateke. Horixe dio gaiaren alorreko nazioarteko legeria berrienak, eta haren esparruan jardun behar dute botere publiko guztiek.

Xede hori izanda, Arartekoak egin zuen jada 1996an Euskal Autonomia Erkidegoko kartzelutako egoerari buruzko ezohizko txostena. Urtero jarraipena egiten dugu

orduan botere publikoei iradokitako gomendioen gainean eta horiek eguneratu egiten ditugu. Horretarako, bisitak egiten ditugu espetxeetara eta bertan espetxeraturik dauden pertsonekin lan egiten duten elkarte nahiz administrazio mailako zein gobernuz kanpoko talde profesionalekin bilerak izaten ditugu. 2007ko maiatzean eta ekainean zehar hainbat bilera izan ziren Arartekoaren eta espetxeen ingurunean lan egiten duten GKEen artean. Helburua elkarki informazioa ematea zen egindako lanaren gainean, lan hori eragin-korragoa izateko egon daitezkeen lankidetzabideak aztertzearekin batera. Haiek adierazi zizkiguten kezka-arrazoietatik eta espetxeratutako pertsonen partetik jasotako kexetatik abiatuz, gure erakundeak bere jarduna garatu zuen iaz espetxeen gaian.

Sailkapen eta destino politikei dagokienez, kudeaketak egin genituen hirugarren graduan sailkatutako espetxeratu kopurua eta horiek espetxeratze mota ezberdinekiko sustatu eta bideratzeko baliabide zuzkidura nabarmen areagotzeko. Horren haritik garrantzi berezia du espetxe administrazioaren eta eremu honetan diharduten elkarten arteko elkarreaginean, gure eginkizuna hori ahalbidetzea izanik. Horrekin espetxeratutakoek garatutako ibilbide pertsonaletan zigorrek eta lekualdaketek duten eragin negatiboa txikitu nahi dugu, elkarten laguntzarekin batera.

Halaber, komunitatearen baliabide eskaintza bultzatzen saiatzen gara, segurtasun neurrietarako eta betetze alternatiboetarako, lan horretan esperientzia positiboa baitugu epaile eta fiskalekin garatutako lanean. Alde horretan nahiz komunitatearen onurarako garatutako lanenean, kontua legeak zentzu horretan ahalbidetzen dituen aukera guztiak aprobetxatzea da.

Horrelako baliabideak espetxeetako psikiatriari buruzkoak direnean, horien eskasia, dudarik gabe, gure gizarteak burutik gaixo daudenei eskaintako arreta-falta orokorra goaren barruan kokatzen da. Burutik gaixo daudenezako osasuna erakundeetatik kanpo ateratzeko hirurogeita hamarreko hamarkadako mugimenduak ez zuen ekarri, nahi izango zatekeen bezala, erotxeek emanikoa baino gizakoiagoa eta espezializatuagoa den komunitateko arretarik. Aldiz, horien orde, gaixoak espetxeetara bideratzen hasi ziren horietako batzuk izan zezaketen arriskua zela-eta. Egun, Estatu osoan dauden hiru espetxe psikiatriko bakarretan dauden 567 plazak, desegokiak izateaz gain, eskasak dira argi eta garbi.

Hori guztia agerian geratzen da askatasuna mugaturik duten pertsonen patologia bikoitzaren agerpenarekin nahiz horri aurre egiteko baliabide faltarekin. Ondorioz, horrek bi motatako esku-hartzeak ekarri ditu erakunde honen partetik. Lehenik eta behin, haien egoerari egokitzen zaion arreta psikiatrikoa jasotzeko kudeaketak egin ditugu, horretarako espetxearen barruan geratuz nahiz arazo jakin bati egokituriko programa zehatzen bat garatzen duen beste zentro baterako lekualdatzeen bitartez edo, posible den kasuetan, osasun sare komuneko baliabideen bitartez tratatzeko kartzelatik kanpo ateraz. Hori izan da, hain zuzen ere, eremu honetan izandako azken esku-hartzearen kasua. Presoak eskizofrenia paranoidea zuen eta horrek arrisku nabarmena zekarren espetxeratutakoaren beraren osotasunerako nahiz Langraizeko espetxean hura inguratzeko zuten pertsonentzako.

Bigarren esku-hartze mota bat gaixotasun terminala duten espetxeratu batzuek bizi duten egoeratik bideratu da. Kasu batzuetan oso gaixotasun larria eta/edo terminala duten espetxeratutakoak izan arren, arazo gizakoiengatik espetxeetako legeriak kasu horietarako aurreikusitako neurriak aplikatzen ari ez zitzaizkielako bideratu zen. Hori Estatuaren Administrazioaren menpeko espetxe politikako arazoien arabera

bakar-bakarrik den heinean, esku hartzeko gure aukerak oso mugatuak dira eta kasu bakoitzean haien egoeragatik interesa agertzeko borondate onaren kudeaketetan oinarritzen da. Beste kasu batzuetan, aldiz, ikusi ahal izan dugu espetxeetako agintariak ez zeudela espetxetik ateratzearen aurka, baina presoak ezin zuten horretaz gozatu arreta psikiatrikoko behar bereziak dituztelako eta horiez arduratuko diren baliabide komunitariorik ez dagoelako. Horixe gertatzen zen zehazki Langraizeko espetxean sartutako hiru preso arabarrekin. Haien kasua publikoki eta guzti salatu zuen espetxeko kapilauak. Hark galdetzen zuen ea beharrezkoa zen haien heriotza, osasun irizpen guztien arabera gertu, espetxean jazotzea gure gizartea axolagabetasunetik esna zedin.

Horri dagokionez, une honetan esku-hartzea garatzen ari gara Arabako Foru Aldundiaren aurrean. Hark, hasiera batean, horrelako kasuei aurre egitera zuzendutako zentroa eraikitzea zihoala adierazi zuen, hura 2009rako amaiturik egongo zela aurreratuz. Hori alde batera utzita, ordea, uste dugu beharrezkoa dela pertsona horiei arreta eskaintzea egun eskura dauden baliabideekin. Izan ere, zalantzan jartzeko modukoa da, haien gaixotasunaren fase terminala kontuan izanda, aipatutako zentroa erabiltzeko moduan izatea.

Edonola ere, badakigu gaia konplexua dela. Ondorioz, gure aukeren neurrian iristen zaizkigun kasu bereziei arreta emateaz gain, egoera horrentzako hautabideei buruz sakontasunez hausnartzeko eremua aurreikusi dugu Arartekoak aurten Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen barruan antolatuko duen ikastaroaren esparruan.

Halaber, esku hartu dugu preso batzuei gizarte baliabide jakin batzuetara iristea errazteko, ez luketelako horietatik salbuesita egon behar. Horien artean oinarrizko errentaren prestaziotik hasi eta laneko merkatura begira jarraitasuna eta garrantzia izango duen prestakuntza-eskaintzarainoko baliabideak egongo lirateke, Langraizeko espetxera iristen zen garraio publiko egokitik ere igaroz. Azken horri dagokionez, jasotako kexek zioten autobus geltokia espetxetik urrunegi kokatzen zela. Ondorioz, barrukoek, lagunak eta senideek tarte luze eta arriskutsua egin behar dute oinez errepidetik. Horrez gain, Gasteizko taxiak, ia guztiek, ezezkoa ematen diote praktikan haraino bidaiariak eramateari. Gure kudeaketek hasierako harrera egokia lortu dute Aldundiko Garraio Sailaren partetik. Haiek adierazi zigutenaren arabera, kontuan izango zen behar hori egun diseinatzen ari diren lineen berrantolamenduan. Horrek guztiak gure jarraipena izango du.

Espetxeen alorrean jasotako gainerako erreklamazioek zerikusia dute gehienetan espetxean duten sailkapenarekin ados ez dauden pertsonekin edo baimenen bat ukatu egin dietelako erreklamatzeko ari direnekin. Halaber, akats judiziala jasan izana alegatzen dutenak ere izan dira. Hori guztia ikertzea, adierazi dugun moduan, gure eskumen eremutik kanpo geratzen den lana da: batzuk epaiketa barruan daude, instrukzioaren fasean edo epaia emango duen epaitegiaren egoitzan edota Espetxeratuen Zaintzarako Epaitegian. Beste batzuk administrazio nagusiaren jardun bati buruzkoak dira, beraz, Herriaren Defendatzaileari eta Fiskaltzari helarazi behar dizkiogu. Arazoak agerian uzten badu epaile edo epaitegien partetik diziplina-erantzukizunak egon daitezkeela, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskaritza Zerbitzuari jakinarazten diogu jazotakoa.

Hala eta guztiz ere, arrazoi gizakoiak direla-eta, Arartekoaren eremu honetan ere zuzeneko kudeaketak garatzen dira espetxeetako administrazioaren edo justiziarenaren barruan gabeziak edo sistemaren akatsak sumatzen badira eta horiek pertsona bati

eskubideak baliatzea galarazten badiote. Horien ondorio negatiboek, ohikoa izaten den bezala, hartzaile ahulenei eragiten diete batez ere. Horien bitartez bisitak jasotzeko eskubideari, osasunerako eskubideari eta espetxeko laguntza juridikoko zerbitzua eskuartzeari buruzko arazoak konpondu ahal izan ditugu espetxe ezberdinetan.

Zentzu horretan aztertzen aritu garen arazo zehatza atzerriko espetxeratuena izan da. Haiei aholkularitza ematen diegu planteatzen dizkiguten gaien gainean, eta, normalean, kanporatzeekin, lan eta bizileku baimenekin nahiz beren eskubideak baliatzeko eta senideekin harremanetan jartzeko beste zailtasun batzuekin izaten dute zerikusia. Eta alderantziz, Langraizen espetxeratutako baten erreklamazioaren ondotik atzerriko epaitegiek herritar espainiarrei jarritako zigorren inguruan esku hartzeko aukera izan genuen horiek gure herrialdean betetzean.

Erreklamazioaren xedeak haren kasu zehatzetik benetan haratago zihoan arazo bati heltzen zion. Venezuelako administrazio agintari eta agintari judizialen partetik izandako atzerapenari buruz ari gara, Audentzia Nazionalak Espainiako espetxeetan daudenei eragiten dien alderen bati buruzko informazioa eskatzeko eskaerak egiten dituenean: droga-trafikoari buruzko Venezuelako lege penalean izandako aldarazpenaren eragina. Horrek ordura arte arrazoi hori zela-eta egun Espainian betetzen ari ziren jarritako zigorrak gutxitu egin ziren 2005eko urrian. Venezuelako Legeak lege onuragarrienaren atzeraeraginez aplikatuko dela ezartzen du. Aitzitik, berrikuspena egiteko eskumena duen bakarra epaia eman duen epaitegia denez, horrelako eskaera bat dagoen bakoitzean Audentzia Nazionalak Venezuelako agintari judizialei eskatu behar die legearen aldarazpenak kasuan kasuko zigorraren gainean izango duen eraginari buruzko informazioa eman diezaiotela. Hori egitean izandako atzerapenak ondorio larriak dakartza, ez bakarrik kasu horretan erreklamazioa aurkeztu duenari, baizik eta baita egoera horretan dauden preso espainiar guztiei ere. Kasurik onenean zigorraren portzentaje jakin batzuk bete izana eskatzen duten espetxeko onuretara iristea zailtzen ari da (galarazten ari ez bada). Kasurik okerreanean, ordea, pertsona bat aplikatu behar zaion Legean ezarritakoa baino denbora gehiagoz izan daiteke askatasunik gabe. Horri guztiari, gainera, gehitu egin behar zaio zigortuak etorkizunari buruz duen ziurtasun ezak ohi ez bezala zailtzen dituela hura tratatzeko aukerak, edukiz hustuz askatasuna kentzen duen zigorraren berriro gizarteratzeko dimentsioa. Herriaren Defendatzailearen nahiz Justizia Ministerioko Nazioarteko Lankidetzaren Juridikoko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez kudeaketak garatu genituen, eta horiei esker posible izan zen egoera desblokeatzea.

Azken esku-hartze ildoan espetxeen alorrean Ertzaintzaren ikuskaritzapean ospitaleetako unitateetan ingresatutako senideak zituzten presoek gure erakundeari adierazitako erreklamazioetatik eratorritakoa da. Horien ondotik, halaber, bi esku-hartze etorri dira.

Lehenengoak zerikusia izan zuen espetxearen administrazioaren eta Ertzaintzaren aurrean bideratutako kudeaketa batzuekin. Espetxeratutako baten senideak kezu ziren haren gelara sartu nahi zuten bakoitzean biluzarazi egiten zituztelako, eta hori egunean hainbatetan gertatzen zen onartutako bisita-erregimen zabala zela-eta. Herrizaingo Sailaren aurrean bideratutako gure esku-hartzeak Konstituzioaren doktrina gogorarazi zuen: araketa xehatuak mugaturik daude salbuespenezko kasuetara eta debekatutako objektuak sartzeko asmoa dagoela susmatzen denean. Horri esker, erabilitako kontrol neurriak aldatzea posible izan zen. Horrela, sistema berria jarri zen martxan. Horren

bidez, segurtasuna mantenduta, nahikoa zen metalak igartzeko sistema jartzea eta gorputz miaketa egitea baina arropa erantzi beharrik izan gabe. Baloratzekoa da kexagilearen familiaren partetik nahiz Gasteizko Ertzaintzaren Komisariaren Buruzagitzaren aldetik ikusi ahal izan genuen jarrera eraikitzailea, gatazka behar bezala ebazte aldera.

Erreklamazio horietatik bigarrenak hausnarketa zabala egiteko aukera eman zigun espetxeratutakoei dagozkien eskubideen gainean, haiek askatasunik gabe dauden tokia zein den alde batera utzita. Halaber, horiek administrazioari ekarritako betebeharrei buruzko gogoeta egin ahal izan genuen, haien zaintzaren etengabeko arduradun den heinean. Erreklamazioa emakume batek aurkeztu zuen eta bertan adierazi zuen bere anaia hil egin zela, itxura guztien arabera bere burua hilda, Basurtuko Ospitalean Ertzaintzaren zaintzapean zegoela. Kexan, kexagileak adierazi zuen Herrizaingo Sailak ez ziola kontu horren inguruko daturik eman eta kasuan kasuko eginbide penalei hasiera eman zien epaitegira bidali zuela. Alabaina, epaitegiak ere ez zion ezer esan, auzian agertzen ez zelako.

Hasiera batean, kexagileari eskatutako informazioa ukatu egin zitzaioela eta, gure ustez, hori lortzeko eskubidea zuela ikusita, informazio hori Biktimaren Arretarako Zerbitzuaren bidez Fiskaltzan asmo oneko gestioak eginda lortzen saiatu ginen eta, hala, bide horretatik, gauzatutako jardunen kopia eskuratu genuen. Hala ere, instrukziotik atera zitezkeen daturik nabarmenenak jakinarazterakoan, kexagileak gure esku-hartzeari beste ikuspegi bat eman zioten zenbait inguruabar ezagutarazi zizkigun: hil zenean, bere anaia epailearen esku zegoela, egun batzuk atzera ama hil zuelako, eta ospitalean zegoela, bere burua hiltzen saiatzerakoan bere buruari eragin zizkion zauriengatik egin behar izan zioten ebakuntzatik suspertzen ari zelako. Hori guztia gorabehera, antza ez zitzaion buru-hiltzeak saihesteko inolako protokolorik aplikatu. Azkenik, kexu agertu zen Saila ez zelako familiarekin harremanetan jarri, interesdunak egindako informazio eskaerari erantzunez, hilabete eta erdi beranduago epaitegira bidaltzen zuen idazkia bidali zion arte. Bertan azaldu zion, bide judizialean auzia artxibatu egin zenez, barne ikerketa ere artxibatu egin zela.

Egindako ikerketari esker agerian geratu zen zaintzaz arduratzen ziren langileen arteko koordinazioak gabeziak zituela, bai Ertzaintzan bertan bai haien eta osasun agintarien artean. Ondorioz, hainbat [gomendio](#)¹³ egin genituen. Horiek poliziaren zaintzapean dauden pertsonengan buru-hiltzeak prebenitzeari nahiz horrelako inguruabarretan hiltzen direnen senideei heriotza jakinarazteari buruzkoak izan ziren.

¹³ Arartekoaren ebazpena, 2007ko azaroaren 12koa; horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari gomendatzen zaio zenbait koordinazio neurri eta prozedura ezar ditzala Ertzaintzaren zaintzapean dauden pertsonen beren buruaz beste egitea saihesteko, baita halako egoeretan hiltzen diren pertsonen senideei horren berri emateko ere.

11. BERARIAZKO ARRETA GAIXO KRONIKOEI

Gaixo kronikoek osatzen duten taldeak, hasiera batean, tratamenduetan edo sendagarriez bestelako zainketetan oinarritutako arreta eskatu ohi du. Hala, berariazko premiak dituzten pertsonekin topo egingo dugu. Gainera, bizi itxaropena handitzeak berekin dakar gaixo kronikoen kopurua handitzea. Hortaz, tratamendu sendagarrietan baino gehiago, nagusiki zainketa aringarrietan oinarritutako arretaren geroz eta eskaera handiagoari erantzuteko premian gara.

Era honetako egoerak eta premiak landu ditu Arartekoak hainbat txosten eta jarduketan bidez, buruko gaixotasun kronikoa bereziki, “Psikiatrikoak” eta “Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo” gaitzat dituzten txostenetan.

Hain zuzen ez bada ere, adineko pertsonentzako arreta aztertzeraz bideratutako txostenetan ere aintzat hartu dira era honetako premiak, askotan adinarekin zerikusia dutenak. Sozialak zein sanitarioak izan ohi diren eta zerbitzuak koordinatzea edo espazio soziosanitario deiturikoa (horri buruzko txostena argitaratu du Arartekoak 2008an) garatzea eskatzen duten premiak.

2007. urtean lege esparru berria onartzeko eta planifikatzeko zenbait ekimen gauzatu dira, hizpide dugun gaian eragin zuzena dutenak. Horrela, esate baterako, honakoak aipa ditzakegu:

- “Mendetasunaren legea” izenez ezagutzen dena onartu eta garatzea.
- Zainketa aringarrien euskal plana (2006-2009).
- Buruko gaixotasuna tratatzeko sustatutako akordio nazionalak.
- Atentzio Soziosanitarioaren 2005-2008rako Plan Estrategikoa.
- Euskal Osasun Publikoan gaixotasun kronikoen errehabilitazioa hobetzeko proiektua (2007-2009), 2007an Legebiltzarrari aurkeztutakoa.

Plan horietako bakoitzak eta mendetasunaren legearen aplikazio aurreikusiak inplikazio bereziak dituzte gaixo kronikoen egoeraren hobekuntzan. Zentzu horretan, urtean zehar, hainbat elkarte kezkatuta azaldu dira beren elkartekideak edo sektoreko bertako pertsonak konparaziozko zein egoeratan geratzen diren ikusita. Adibide gisa, FEDEAFESek legeak bere sektorean duen eraginari dagokionez azaldutako kezka, edo fibromialgia gaixotasun ezgaitzaile gisa onartzeko eskaera ditugu.

Jasotako kexei dagokienez, hiru arazo foku nabarmen ditzakegu:

- Euskal Osasun Sistemako zerbitzu zorroarekiko desadostasunak;
- Tratamenduak edo laguntza medikoa eskuratzeko arazoak;
- Berariazko baliabide jakin batzuk ez izatea.

Arazo horietako batzuk aintzat hartu dira txosten honetan bertan, osasun arloan.

Askotan, kekek edo premiak elkarteen bitartez (Epidermiolosis Bullosa Gaitzaren Aurkako Elkarte, ASEBI arantza bifidoaren eta hidrozefaliaren Bizkaia Elkarte, fibromialgiak eta neke kronikoaren sindromeak jotako gaixoen elkarte, HIESaren aurkako elkarteen koordinakundea, gaixo psikikoen eta beren familiartekoen elkarteen Euskadiko Federazioa, FEDEAFES, etab.) iritsi ohi dira Ararteko erakundera, eta horren berri eman dugu aurreko txostenetan.

Hala, adibidez, aurreko txostenetan, HIESa duten pertsonen eta GIB eramaile direnek kirurgia estetiko prestazioak eskuratzeko –tratamenduen albo ondorioengatik dituzten deformazioengatik–, edo sistema publikoak ugalkortasun tratamenduen inguruko garbiketa seminaleko teknika bere gain hartzeko egiten zituzten eskariak jaso ditugu. Eskaera batzuek –horiek, kasu–, azkenean, aldeko erantzuna izan zuten Osasun Sailaren aldetik, eta prestazioen katalogoan barneratu ziren.

Gaixotasun kroniko guztien artean, Arartekoak buruko gaixotasunari eskaini dio arreta handiena urte hauetan zehar; problematika orokorrari zein biztanleriaren sektore jakin bati (haurrak eta gazteak, preso daudenak, etab.) loturiko berariazko arazoei.

Horretarako, hainbat bide erabili dira: federatutako elkarteekiko aldizkako bilerak; Osasun Sailari datuak eskatzea; zerbitzu batzuetara bisitak egitea, etab.

Jarraian, FEDEAFESek Arartekoaren egoitzan eginiko azken bileran azaldutako arazo eta proposamen nagusien laburpena egin dugu. AGUIFESekoek izan ezik, federatutako elkarte guztien ordezkariak parte hartu zuten bilera hartan.

Funtsean, bederatzi gai landu ziren:

1. Koordinazio soziosanitarioa.
2. Ostatu hartzeko baliabideak eta tutoretzako fundazioak.
3. Derrigorrezko tratamendu anbulatorioa.
4. Espetxean dauden buruko gaixoen egoera.
5. Haur eta gazteen egoera.
6. Elkarteen finantziario arazoak.
7. Buru osasunaren behatokia.
8. Mendetasunaren Legea eta horrek taldean duen eragina.
9. Laneratzeko arazoak.

Puntu horiez gain, La Ola Hezkuntza eta Terapia Zentroari (Sondika) buruzko idazki bat aurkeztu zitzaigun. Hainbat jarduketa egin dira horren inguruan, eta lortutako emaitzaren berri emango dugu txosten honetan bertan (II. Kap., “Adingabeak” atala).

Hain sistematikoki ez bada ere, beste gai batzuei ere heldu zitzairen, Buru Osasuneko Plan Estrategikoaren prestaketan haren iritzia kontuan hartu ez izana edo Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak harrera egin diezaien izan dituzten zailtasunak, esaterako.

FEDEAFESen ordezkartza azken bileran izan zen zenbait agirirekin; horien artean, interesgarria denez eta landu ziren edukiekiko lotura zuzena duenez, egokia iruditu zaigu Eusko Legebiltzarreko Gizarte Gaietako Batzordean eginiko aurkezpenean oinarritzko testu gisa erabilitakoa hemen laburbiltzea. Testu honek sakon heltzen die goian adierazitako bederatzi gaiak, eta FEDEAFESen 2006ko azaroaren 18ko Batzarrean hartutako erabakiak jaso eta garatzen ditu (testu osoa Arartekoaren web orrian dago eskuragarri).

1. Euskal Autonomia Erkidegoan Atentzio Soziosanitarioa Garatzeko 2005-2008rako Plan Estrategikoa

Plan soziosanitarioaren egitekoa, osasun arazo larriak edo muga funtzionalak edo-ta gizarte bazterkeriarako arriskua direla eta, arreta sanitarioa eta soziala aldi berean,

koordinatuta eta modu egonkorrean behar dituzten pertsonak behar duten arreta ematea da. Pertsona horien artean daude buruko gaixotasuna dutenak.

Ekintza Planak FEDEFESen arreta bereziki zentratzen duten helburu batzuk jasotzen ditu. Horrela:

4. helburu berezia: “Familiari eta gizarteari babesa ematea zainketez arduratzen diren heinean”, honelako ekimenekin:

- 6. ekimena: zainketak egiten familiari laguntzeko programa. Boluntarioek familiari eta gizarteari, zainketez arduratzen diren heinean, babesa ematea sustatzea du helburu.
- 8. ekimena: zaintzaileei laguntzeko programa. Sare informalean emandako zainketak gehitzea eta zaintzaileen eta familiakoen karga psikologikoa murriztea du helburu.

8. helburu berezia: “Beharizanen arabera arretari lehentasuna ematea, gizartearen bolumena eta eragina kontuan izanda. Pertsonen ikuspegia”, 15. ekimena bezalakoekin: Baliabideak lehenestea. Hainbat ekintza aurreikusten dira:

- Beharrezko arreta-baliabideak ezartzea.
- Estaldura helburuak eta adineko pertsonen eta gaixo mentalak dituztenei proportzioz emandako baliabideak ezartzea, beharizanen araberako banaketa baino gehiago.

2. Ostatu hartzeko baliabide alternatiboak eta tutoretzako fundazioak

FEDEFESek komunitateko eta komunitatearekiko errehabilitazio psikosozial integraleko proiektu globalaren barruan, etxebizitza baliabideei dagokienez berariazko proiektu bateratua sortzeko premia azaltzen du. Eredu osoa (maila guztietan baliabide egokiak eta nahikoak dituen), integrala (maila horretako defizita eta premia guztiak estaltzen dituen), gainerako baliabideekin (errehabilitazio soziokulturalekoekin zein soziorabialekoekin) integratua, jarraitua (mugarik, defizitik, etenik eta abarrik gabe), progresiboa (baliabide babestuenetatik edo autonomia txikienekoetatik hasi eta gutxien babestutakoetara edo autonomia handienekoetara, baliabide normalizatuak) eta komunitarioa (komunitatean eta komunitatearekin) izan behar du. Azken helburua integrazio normalizatua izan behar da.

Haren ustez, bizikidetzeta eta etxebizitza baliabide komunitarioen programak familiaren karga txikitzea eta buruko nahaste larria duten pertsonen autonomiari laguntzea xede duten egoitza alternatibak edo ostaturik ezaren alternatibak dira. Mota eta izen desberdinekin (etxebizitzak, egoitza unitateak, egoitzak, ikuskatutako etxebizitzak, tutoretzako ostatuak, etab.) eta ikuskapen eta laguntza handiago edo txikiagoarekin, mentetasun administratibo desberdina (osasuna, gizarte zerbitzuak, aldundiak, fundazioak, etab.) dute eta gaur egun ez dira inolaz ere nahikoa.

3. *Derrigorrezko tratamendu ambulatorioari buruzko Legea*

Eskizofreniaren eta buruko beste nahaste larri eta kroniko batzuen prebalentzia biztanleria osoaren %1etik gorakoa dela gogorarazten du agiriak. Gaur egun badira gaixoberritze psikotikoa izateko aukera nabarmen murrizten duten tratamendu farmakologiko antipsikotiko eraginkorrak. Hortaz, paziente horiek tratamendu antipsikotikoarekin jarraitzea gomendatzen da, epe luzera. Hala ere, ohikoa izaten da paziente asko gaixotasunaz ez jabetzea eta tratamendu farmakologikoa baztertzea. Ondorioz, beste aldi psikotiko batzuk agertu ohi dira eta, askotan, pazientea psikiatrikoan barneratu behar izaten da.

Gure herrialdean, egun, gaixo horiek ezin dira behartu derrigorrezko tratamendu ambulatorioa egitera. Burutik gaixo daudenen familiartekoen elkarrekin urte asko egin dituzte arazo hau konpontzeko eskatuz. Horretarako, legea aldatu beharko litzateke.

4. *Errehabilitatzeko espetxe psikiatrikoak*

Gai horri dagokionez, testuak azaltzen du Zigor Kodeak buruko nahastea duten ustezko delitugileak tratatzeko xedapen egokiak jaso beharko litzuzkeela, eta pertsona horiek, beren gaixotasunaren ondoriozko agindu edo aluzinazioek dakarkien erabakitze askatasunaren galera dela eta, epaituak izateko duten gaitasunaren gaiari heldu beharko litzaiokeela, Nazio Batuen C.L.ren 1978ko maiatzaren 13ko 663 C eta 2.076 ebazpenean Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak proposatzen duen bezala.

Horregatik, burutik gaixo daudenek beren zigorra betetzeko espetxe komunak erabili ordez EAEn dauden espetxe psikiatrikoak erabiltzea proposatzen dute, tratamendu egokia bermatzeko.

Komeni da gogoraraztea buru osasuneko arazo larriak dituzten eta gure espetxeetan dauden pertsonen egoera Ararteko erakundeak presoei laguntzeko elkarrekin egiten dituen jarraipen bileretan beti azaltzen den arazoa dela. Arazo horiek preso dauden biztanleen zati handi bati eragiten diote eta, kasurik larrienen, muturreko egoerak topa daitezke; kartzelatik ateratzeko baldintza guztiak beteta dituen baina baliabiderik ez duelako atera ezin den pertsona espetxean edukitzea, esaterako.

5. *Haur eta gazteen egoera. Haurrentzako babesa eta prebentzioa*

Federazioari poztekoa iruditzen zaio La Ola (Sondika) Hezkuntza eta Terapia Zentroa bezalako baliabide bat abiarazi izana, buruko osasun arazoak dituzten adingabeentzako baliabideak sortzeko premiari erantzuten baitio. Baina berehala nabarmentzen da era honetako baliabide gehiago izateko eta halako baliabideak beste lurralde historikoetara ere zabaltzeko ageriko premia. Horretarako, ezinbestekoa izango litzateke Osasun eta Hezkuntza Sailen eta foru aldundien arteko lankidetzaren edo akordioa.

Horrez gain, Berritzeguneetako profesionalen prestakuntzak gaixotasunak garaiz detektatzeko eta familiei laguntzeko duen garrantzia ere nabarmendu du.

(Hezkuntza eta terapia zentroein dagokienez, adierazi bezala, Arartekoaren jardueren laburpen bat egin dugu txosten honetan bertan, "Adingabeak" atalean).

6. *Finantziario egokia*

Gai honi dagokionez, elkarteek irabazteko asmorik gabe zerbitzua eman eta beren alde ahul eta indartsuak aztertzen dituzten erakunde gisa duten eginkizun soziala aldarrikatzen dute. Egindako biderearen balorazio positiboa egiten dute, baina, aldiz, "gutxienekoen azpitik" funtzionatzen dutela adierazten dute, inolaz ere nahikoa ez den sistema eta diru-laguntzarekin. Boluntarioen balioa ere nabarmentzen dute, eta kudeaketarako gaitasuna eta profesionaltasuna hobetzearen alde egiten dute.

Gai horietako askori helduko diegu, laster, gizarte esku-hartzeko hirugarren sektoreko lan baldintzei buruzko Arartekoaren ezohizko txostenean.

7. *Buru osasunaren behatokia sortzea*

Euskal Autonomia Erkidegoan burutik gaixo daudenei eta haien familiei ematen zaien arreta aztertzeke eta talde horrentzat eta helburuak lortzeko ezarritako programen jarraipena egiteko organo iraunkor bat sortzea proposatzen dute.

8. *Mendetasunaren Legea*

Beren esanetan, buruko nahaste larria duten pertsonen mendetasun sisteman arreta berezia behar duen taldea osatzen dute. Pertsona horiek funtzionamendu pertsonal zein sozialean zailtasunak izaten dituzte eta aintzat hartzeko beharra dute, osasun arreta, ingurune sozialaren gaineko esku-hartzeak, familiarentzako babesa eta sektore arteko arreta barne hartuta. Horrez gain, bilakaera luzea eta ezgaitasuna izaten dituzte.

Horiek horrela, beharrezkotzat jotzen dute arazoaren larritasuna aztertzea eta buruko nahaste larria duten pertsonen zein haien familiartekoen (haiekin bizi ohi dira %80) premiak aintzat hartuko dituen prestazioen katalogo bat egitea proposatzen dute.

9. *Burutik gaixo daudenak lan merkatuan sartzea*

Ezgaitasunen bat duten pertsonen zailtasun handiak izaten dituzte lan merkatuan sartzeko. Hala, federazioak gogora ekarri ditu Arartekoak ezgaitasunen bat duten pertsonak laneratzeari buruz (erreserba kuotei buruz, laguntzarekiko enpleguari buruz, gizarte sentsibilizazioari buruz, etab.) eginiko txosten berezia, ateratako ondorioak eta eginiko proposamen batzuk.

* * *

Orrialde hauetan jaso ditugu buruko gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen talde zehatz bati dagokionez azaldutako arazoak eta proposamenak. Egia da arazo hauetako batzuk espezifikoak eta pertsona horienak direla, baina beste batzuk beste gaixotasun mota batzuk dituzten beste sektore batzuek izan ditzaketenen oso antzekoak

dira. Nolanahi ere, sektore horren arazo nagusien ikuspegi globala eskaintzeko balio izan dezakeela uste dugu, beraiek ikusten eta azaltzen dituzten eran, eta beste batzuen adibide gisa.

Ararteko erakundeak arreta berezia eskaini nahi dio gai honi eta, beste ekimen batzuen artean, 2008. urteko udan ikastaro bat emango du honen inguruan.

III. ATALA

GOMENDIO OROKORRAK

1. KOMENIGARRIA DA ESKOLA MAPA BERRIAREN ILDOTIK HAUR ESKOLETAN ONARPEN IRIZPIDE KOMUNAK EZARTZEA

Berriki, 2007ko urriaren 29an, Legebiltzarrean izandako agerraldian, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak eskola-maparen inguruan egiten ari diren lanen berri eman du, 2006ko azaroaren 10ean ez-legezko proposamen gisa Legebiltzarrean izapidetu zen ekimenean eskatutakoa betez.

Eskola-mapa berrikustearen aldeko arrazoiak ematerakoan, eta orain esku artean dugunarekin lotuta, sailburuak berariaz aipatu ditu, batetik, haur hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza-eskaintzaren hedapena, bi urteko haurren eskolatzeta orokortuta, eta, bestetik, 297/2000 Dekretua, abenduaren 17koa, zero urtetik hiru urtera bitarteko haur eskolak arautzen dituen. Adierazi duenez, arau horrek sistemaren egoera berri bat agertzea ekarri zuen, Haurreskolak Partzuergoa sortu baitzen eta haur hezkuntzako lehen zikloko haurrak eskolatzeko zentro itunduei baimen gehiago eman baitzitzaizkien.

Izan ere, azken urteotan EAeko hezkuntza-eskaintzan izan den aldaketa garrantzitsuenetakoa bat, zalantzarik gabe, zero urtetik hiru urtera bitarteko haur hezkuntzako lehen zikloa pixkanaka zabaldu izatea da. Zabaltze hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan bi urteko haurrak eskolatzeko aukera barneratu ahala gertatu da; horretan zerikusia izan dute, batetik, udalek, beren eskola propioak sortu eta kudeatuta edo Haurreskolak Partzuergoan sartuta (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren parte-hartzea ere badu), eta, bestetik, beren eskaintza hasierako etapa horretara zabaltzea erabaki duten ikastetxe itunduen finantzaketak.

Hala ere, esan behar da zabaltze hori beti ez dela izan zero eta hiru urte arteko tartea aurrez planifikatzeko lanaren ondorioa. Horregatik, eta adierazitako asmoa ikusita, alegia, eskola-mapa hezkuntza-eskaintza osoa planifikatzeko oinarritzko eta funtsezko tresna izan dadila, egokitzen jotzen dugu, azkenean, eskola-mapak programatutako eskaintza osoa barneratzea, baita haur hezkuntzako etapa osoa ere (zero eta sei urte artekoa).

Azpitarratu beharrekoa da asmo barne-hartzaile eta integratzaile horrek bi ekimen ekarri dituela berekin; horiek jada aipatu ziren Legebiltzarrean 2006ko azaroko aginduan. Ekimenak direla-eta, batetik, eskola-mapa prestatzeko irizpideen proposamen gisa jaso dena dugu; horren bidez, prestakuntza-ibilbide osoa diseinatzea proposatu da, familiek unibertsitateaz kanpoko mailtako eskolatzeta amaitu arte bermatutako ibilbidea zein den ezagutzeko aukera izan dezaten. Horretarako, hainbat maila edo etapetako ikastetxeak elkarri atxiki dakizkioke, nahiz eta horiek bakartat hartuko diren ikasleak onartzeari begira. Bestalde, Haurreskolak Partzuergoaren menpeko haur eskolak sare publikoko ikastetxeekin elkartu dira.

Hasiera batean, pentsa liteke, azken ekimen horren bidez, zero eta hiru urte arteko lehen zikloa batera planifikatu dadin ziurtatzea dela, izan ere, Partzuergoak

egindako eskaintzak, funtsean, zero eta bi urte arteko tartean jartzen du arreta eta ikastetxe publikoek, berriz, bi urteko haurrentzako gelen eskaintza orokortu dute. Baina, prestakuntza-ibilbide osoei dagokienez adierazitako helburua kontuan hartuta, elkartzetxe horrek are garrantzi handiagoa duela dirudi, unibertsitateaz kanpoko mailako prestakuntza-ibilbide osoa aurretik zehazten baitu.

Azken ondorio hori gogoan izanda, gure ustez, haur eskolen eta ondorengo etapak eskaintzen dituzten ikastetxeen arteko elkartzetxe hori programazio publiko osora zabaldu behar litzateke, eta horretarako aukera eman behar litzazieke, orobat, soil-soilik udalen menpekoak diren haur eskolei.

Gure ustez, oraingoz halako elkartzetxe ez izatearen arrazoa da kasuan kasuko toki administrazioak aurrez ados jar daitezela lortu nahi dela. Hala ere, aipatu behar dugu, mapa berriari eman nahi zaion izaera barne-hartzailea eta integratzailea denez, aintzat hartu behar dela, orobat, EAEko udalek egiten duten haur hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza-eskaintza garrantzitsu hau.

Eskola-mapa prestatzeko proposatu den prestakuntza-ibilbide osoak ezartzearen helburu edo irizpide hori azpimarratu nahi izan dugu, atzerago iradoki dugun moduan, horrek oharkabean joan ezin daitekeen garrantzia baitu.

Jakina denez, funts publikoekin lagundutako ikastetxeetan dagoen eskaera guztiari erantzuteko plaza nahikorik ez dagoenean, beharrezkoa da aurrez definitutako lehentasuneko irizpide batzuk aplikatzea, besteak beste, etxetik gertu egotea, anai-arrebaren bat matrikulatuta egotea, errenta-mailak, etab. Irizpide horiek ahalbidetzen dute ikasleak onartzeko prozesuetan aukera berdintasuna bermatzea.

Hala ere, hezkuntza-antolamenduak berak beste irizpide bati eman dio lehentasuna, alegia, ikastetxeen arteko elkartzetxe edo atxikitzeari. Tradizioz, atxikitze hori lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxeen artean egin izan da. Orain, ordea, haur hezkuntzako ikastetxeetara ere hedatu da. Horrela, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 8.7 artikulua honela dio berariaz: *“en los procedimientos de admisiones de alumnos en centros públicos que imparten educación primaria, educación secundaria obligatoria o bachillerato, cuando no existan plazas suficientes, tendrán prioridad aquellos alumnos que procedan de los centros de educación infantil, educación primaria o educación secundaria obligatoria, respectivamente, que tengan adscritos.”*

Gure ikuspegitik, eskola-mapa berria prestatzeko aurreikusitako den prestakuntza-ibilbideari buruzko irizpideak bere egiten du unibertsitateaz kanpoko mailako etapa ezberdinetako ikastetxeak ondoz ondotik atxikitzeak aukera hori. Hain zuzen ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak iragarritako irizpideek ez dute zalantza handirik sortzen honakoa diotenean: *“Barruti eta zona bakoitzean prestakuntza-ibilbideak finkatuko dira, bereziki sare publikoan. Ibilbide horiei ibilbide oso bat osatzen duten eta, ikasleak onartzeko irizpideak aplikatzearen ondorioetarako, bakartzat joko diren ikastetxeak atxikiko zaizkie. Horrela, familia orok jakingo du, hezkuntza-sisteman barneratu aurretik, zer ibilbide duen bermatuta hasieratik unibertsitateaz kanpoko mailako eskolatzea amaitzen den arte.”*

Gogoan izan dezagun, irizpide berri horiei esker, hilabete gutxi batzuk baino ez dituen haur batek, bere familiak hura haur eskola jakin batean eskolatzea erabakitzen badu, unibertsitateaz kanpoko prestakuntza amaitu arte eskola-mapan diseinatzen den prestakuntza-ibilbide osoa bermatuta izango duela. Horrexegatik da beharrezkoa (eta

idea hori nabarmendu nahi genuke) antzeko baldintzak ezartzea, horiei esker abiapuntuko egoera finkatzeko eta, bertan, hezkuntza-zerbitzuak eskuratzeko aukerak berdinak izateko.

Itxuraz, haur eskolei buruz onetsitako araudiak, neurri batean behintzat, bere egin zuen asmo hori, izan ere, zero urtetik hiru urtera bitarteko haurrentzako eskolak arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak (azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuaren bidez indarrean dirauenak) 11. artikuluan honakoa ezarri zuen: *“Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, tartean diren erakunde guztiak entzun ondoren, zero eta hiru urte arteko haurrak onartzeko irizpide orokorrak finkatuko ditu bai ikastetxe publikoetarako bai laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten beste ikastetxe batzuetarako.”*

Alabaina, bizi dugun errealitatea oso bestelakoa da.

Une honetan ikastetxeen arteko atxikitze edo elkartzerik ez dagoenez, ikastetxe publikoetan eta itunduetan, argi eta garbi bereiz daitezkeen bi onarpen prozesu egiten dira; bata, bi urtekoentzako geletarako; eta, bestea, hiru urtetik gorakoentzat, azken hau jada aurrera jarraitzeko bermearekin. (Oraingoz behintzat ez ditugu aipatuko zero eta bi urte arteko tartean egiten diren onarpen prozesuak).

Horietatik lehenengoari dagokionez (bi urtekoen gelak), hezkuntza-administrazioak hezkuntzako beste etapa batzuetan erabiltzen diren onarpen irizpide berak aplikatzea erabaki du (hori egiaztatzeko, azken agindua aipatuko dugu, 2007ko otsailaren 12koa, funts publikoekin lagundutako ikastetxeetan ikasleak onartzeko jarraibideak onartu zituen. Esan bezala, agindu horren bidez, irizpideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden haur hezkuntzako ikastetxeetan eta ikastetxe itunduetan dauden 2 urtekoentzako geletan matrikulatzen direnei ere aplikatzeaz gain (xedapen gehigarria), berariaz ohartarazi zen ikastetxe jakin bateko 2 urtekoentzako gelan matrikulatutako ikasleek eskatzaile berriekin lehiatu behar izango zutela haur hezkuntzako 3 urtekoen mailan sartzeko, ikastetxean jarraitu ahal izateko bermea haur hezkuntzako 2. zikloko ikasleek (hots, 3 eta 6 urte artekoek) bakarrik baitzuten).

Sailaren menpeko ikastetxeetako eta ikastetxe itunduetako geletarako hartutako erabakia ikusita, pentsa liteke irizpide horiexek direla gainerako haur eskoletan sartzeko ere egiten diren gainerako onarpen prozesuetan aplikatzen direnak. Kontua da, ordea, hori ez dela hala.

Alderantziz, lehen hezkuntza-ziklo horretako eskaintza publikoari dagokionez, honako kasuistika hau ikus dezakegu:

- Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxeetako bi urtekoentzako gelak.
- Haurreskolak Partzuergoaren menpeko haur eskolak
- Udal titulartasuneko haur eskolak

Eskaintza pribatuari dagokionez:

- Ikastetxe itunduetako bi urtekoentzako gelak
- Diruz lagundutako haur eskola pribatuak

Bada, bizi dugun errealitatea da programatutako eskaintzetako bakoitzera heltzeko onarpen irizpide desberdinak aplikatzen direla.

Batzuetan, onarpen irizpide horiek kexa eragin dute erakunde honetan. Horrela, adibide gisa eta xehetasun gehiegi emateko asmorik gabe, Haurreskolak Partzuergoak onartutako araudian jasota dagoen eskakizuna aipatuko dugu (kasuan kasuko udalerrian urtebetez erroldatuta egotea), ez baitago halakorik gainerako maila publikoetako onarpen prozesuetan. Azpimarratu beharrekoa da, orobat, udalen bateko enplegatuen seme-alabei (Donostia) udal eskola jakin batzuetan nolabait zuzenean sartzeko aukera onartu zaiela. Azkenik, aipatu behar dugu, jarraibideetan laguntzaren ikuspegitik garrantzitsuak diren zenbait egoera baloratzera, ez direla kontuan hartu familiako egoera eta/edo egoera pertsonal batzuk, eta horiek, kexagileen arabera, arreta handiagoa merezi dutela.

Hala ere, gure ustez berrikusi egin behar liratekeen egoerak antzematen lagundu duten kexa zehatz horiez haraindi, gure ikuspegitik, benetan nabarmendu behar dena da ez direla irizpide orokor komunak ezarri, haur eskolak arautzen dituen dekretuak halaxe dioen moduan. Hala, horren ondorioz, funts publikoekin lagundutako haur hezkuntzako eskaintza programatuaren baitan, egun dauden bitarteko desberdinek eskaintako hezkuntza-zerbitzuak ezin dira berdintasunez eskuratu.

Aurrez ere aipatu dugun moduan, plaza-kopuru nahikoa ez dagoenean, funts publikoekin lagundutako ikastetxeetan onarpen irizpideak ezartzearen helburua aukeraketa arbitrarioa izan ez dadila saihestea da eta, hala, finantzaketa publikoko ikastetxeetan onartzeko prozesuetan parte hartzen duten interesdun guztiek tratamendu bera izango dutela bermatzea.

Eskola-maparen inguruan berriki aurkeztu diren lanetan, badirudi Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eskoletako plazen inguruko premien antolamendua lortzeko ahaleginetan aritu dela. Antolamendu horri esker, aukeren zuzentasuna eta berdintasuna bermatuko dira eta, horretarako, hezkuntza-zerbitzuen titular guztiek (bereziki, udalek) erantzukizun partekatua izango dute.

Hala, eskola-mapa berriaren printzipio nahiz helburu gisa hainbeste defendatzen den aukera berdintasun hori benetan ziurtatu nahi bada, eta ezarri diren prestakuntza-ibilbideak ikusi, erakunde honen iritziz, ezinbestekoa da hezkuntza-administrazioak gainerako eragindako administrazioei laguntza eskatzea (besteak beste, hezkuntza-zerbitzu propioak dituzten udalei), horrela, funts publikoekin lagundutako hezkuntza-eskaintza osorako onarpen irizpide komunak ezarri ahal izateko.

Gure ikuspegitik, irizpide komun horiek antolatu beharra are nabarmenagoa da ondoz ondoko onarpen prozesu gehiago egin behar izatea saihestu nahi duten prestakuntza-ibilbideen proposamen berri honekin.

Hala ere, benetan uste dugu hezkuntza-administrazioak ez lukeela jarduera hori atzeratu behar, esan dugun moduan, haur eskolei buruzko dekretuko arauak honakoa baitiote: *zero eta hiru urte arteko haurrak onartzeko irizpide orokorrak finkatuko ditu bai ikastetxe publikoetarako bai laguntza ekonomikoak jasotzen dituzten beste ikastetxe batzuetarako.*

2. ERTZAINZAK ETA UDALTZAINGOAK POLIZIAREN XEDEETARAKO BILTZEN DITUZTEN DATU PERTSONALAK OFIZIOZ BALIOGABETZEA

I. AURREKARIAK

1. Erakunde honek adingabeen harrera-zentro batean Ertzaintzak bideratutako jardueri buruzko datuak barreiatzearekin zerikusia zuen kasuan izandako esku-hartzeak, hain zuzen ere Eusko Legebiltzarrarentzako 2006ko ohizko txostenean adierazi genuenak (I. atala, 7. azpiatala, Herrizaingoa, aukeratutako kexak eta ofiziozko jarduerak), euskal administrazio publikoen menpeko polizia-kidegoen jarraibideak ezagutzea komenigarria zela erakutsi zigun, poliziaren xedeetarako biltzen diren datuak ofizioz baliogabetzeari zegokionez baliogabetze hori legez posible izatean (Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 4., 16., 22.4 eta 23. artikulua).

Gure interesa mota honetako datuetan oinarritu genuen, barreiatu zirenak izan zirelako. Baina, baita, funtsean, babes bereziaren pean jarritako datuak izateagatik eta datu pertsonalen babesaren gaia arautzen duten printzipio orokor eta eskubideetako batzuk salbuesten zituelako ere, adibidez, interesdunak datu horiek bildu eta tratatzeko baimena emateko eskubidea, bilketaren gaineko informazioa izateko eskubidea eta datuak kontsultatu, zuzendu eta baliogabetzeko eskubidea (Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 22., 23. eta 24. artikulua). Ondorioz, arreta berezia merezi dute.

Adierazitako helburua izanda, 2006an bertan ofiziozko espedientea izapidetzeari ekin genion. Lehenengo jardura moduan Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailera eta Bilbo, Donostia eta Gasteizko Udaletara jo genuen, adierazitakoaren moduko kasuetan Ertzaintzak eta hiru hiriburuetako udaltzaingoez nola jarduten zuten jakiteko, informazio horrek adierazitako errealitatera hurbiltzea eta gaian izango genuen esku-hartzea orientatu ahal izateko ezinbestekoak diren arazoizko elementuak eskuratzea ahalbidetuko zigulakoan.

2. Helarazitako laguntza-eskaerari erantzunez, Herrizaingo Sailak adierazi zigun 2000tik aurrera lege ezarpenak betetzera zuzendutako mekanismoak dituela eta, halaber, xede horretarako ezarri diren irizpide eta prozedurak jakinarazi zizkigun.

Horrez gain, ofiziozko baliogabetzea gauzatzeko topatzen diren zailtasunak jakinarazi zizkigun, poliziaren jardunetik eratorritako esku-hartze judizialik izan ez den kasuetan.

Zehazki, adierazi zigun, normalean, ez dela izapidetze judizialari eta haren emaitzari buruzko informaziorik izaten, eta horrek galarazi egiten duela baliogabetzea egiterakoan Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko

15/1999 Lege Organikoaren 22.4 artikuluari jarraiki derrigor haztatu behar diren elementuetako batzuk kontuan hartzea.

Halaber, kezka adierazi zigun, interesdunak topatzen ez direnetan, epaitegiek polizia-kidego ezberdinei helarazten dizkieten errekesitoria eta bilaketa-aginduak poliziaren fitxategietan erregistraturik geratzen baitira hura eragin zuten izapideak eta prozedura judizialak amaitzean. Arrazoa, kasu honetan ere, poliziak bide judizialean bideratutako jardueren berri ez izatea da aipatutako aginduak eta gero.

Eta, azkenik, gure laguntza eskatu zuen ofiziozko baliogabetzea egitea legezkoa denean informazio faltagatik hala egitea galarazten duten arazoak konpontzen saiatzeko.

3. Bilboko Udalak hasieran emandako informazioak ez ziren zuzenean erantzun guk planteatutako galderei. Izan ere, haien argibideak poliziak zituen datu pertsonalak interesdunak hala eskatuta baliogabetzeari buruzkoak izan ziren bakarrik, eta, aldiz, ez zuen ezer adierazi ofiziozko baliogabetzearen inguruan, nahiz eta hori izan guri interesatzen zitzaigun alderdi zehatza.

Administrazio horrek puntu horretan izandako isiltasunak interpretarazi zigun ez zela lege ezarpena betetzen ari. Ondorioz, laguntza eskatu behar izan genuen berriro gure balorazioa alderatzeko eta, hori baieztatzerara helduz gero, prozedura desegoki horren oinarrian zeuden arrazoiak ezagutzeko.

Bigarren eskaera horri erantzunez, Udalak onartu egin zuen ez zela lege ezarpenak betetzen ari eta arrazoa horiek betetzeko modua araupetu gabe zutela zela jakinarazi zigun.

Halaber, adierazitako arauak betetzeko asmoaren berri eman zigun eta xede horretarako izapideei ekingo zuela jakinarazi. Izapide horien artean aipatutakoak Datuak Babesteko Euskal Agentziari eta prozedurak jada ezarrita dituzten beste polizia-kidego batzuei kontsulta egitea aipatu ziren.

Halaber, azkenean xede horretarako jarriko den prozeduraren berri emateko konpromisoa hartu zuen, nahiz eta gaur arte ez den horrelakorik gertatu.

4. Helarazi zigun lehenengo mezuan, Gasteizko Udalak jakinarazi zigun eremu horretan interesdunek horrela eskatzean bakarrik jarduten zuela.

Aitzitik, ez zigun jakinarazi ofizioz ez jarduteko izandako arrazoiak zeintzuk ziren. Hori zela eta, berriro ere haien laguntza eskatu behar izan genuen. Esku hartzen genbiltzan errealitateari buruzko zentzuzko ideia izateko ezinbestekotzat jotzen genituen datuak helaraztea nahi genuen.

Bigarren aldian, Udalak bere jardun ezaren arrazoiak argitu zizkigun. Zehazki, honakoak azpimarratu zituen:

- a) Poliziaren esku-hartzeetatik eratorritako jarduera judizialen gainean informazioz ez izatea, Herrizaingo Sailak ere legearen ezarpenak erabat aplikatu ahal izateko aipatutako oztopo nagusienetako bat bezala identifikatutakoa.
 - b) Udaltzaingoaren sistema informatikoak gai ez izatea automatikoki datuak baliogabetzeko. Hala eta guztiz ere, ekipoak berritzeko lanean ari zirela jakinarazi zigun.
 - c) Baliogabetutako datuen gainean estatistikak egitea ezinezkoa izatea, eta
 - d) Udaltzaingoak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 23.1 artikulua interpretatzeko zituen zalantzak. Adierazi zitzaigunaren arabera, arrazoia honakoa zen: *“los datos almacenados contribuyen a garantizar la defensa y/o seguridad pública, y la protección de los derechos y libertades de los terceros”*.
5. Donostiako Udalak ia urtebete behar izan zuen eskatutako informazioa guri helarazteko. Eskatutakoa bidali zigunean, erantzuna “kontrako aurrekari polizialak” deiturikoetara atxiki zuen, datu zehatz horiek baliogabetzeko arautegi edo prozedura zehatzik ez zutela adieraziz. Hala eta guztiz ere, gabezi horrek ez zien galarazten ofizioz jardutea: *“en la medida en que el volumen de información que soportaba el sistema informático requería una actuación en ese sentido”*.

Jakinarazi zigunaren arabera, baliogabetzea aldizkakotasun finkoari jarraiki egiten da eta hurrengoegi eragiten die: *“los registros informáticos de aquellas personas que, tras su alta en la base de datos, superaban el plazo de prescripción de la infracción penal que originó su alta en el sistema informático, sin que hubieran vuelto a cometer un hecho delictivo y no hubiera constancia de que estuvieran cumpliendo condena”*.

Udalak bidalitako informazio gehiena, ordea, datu horiek interesdunak hala eskatuta baliogabetzeari eta horretarako jarraitutako prozedurari buruzkoa zen. Jakinarazi zigutenaren arabera, prozedura Barne Ministerioak ezarritakoa da eta, zertan datzan argitzeko, gai horri buruz aipatutako ministerioak bere web orrialdean duen informazioa eman zitzaigun funtsean.

6. Bestalde, Herriaren Defendatzaileak gomendioak egin zituela jakin genuen, bai Barne Ministerioari, bai Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, haien artean koordinazioa topa zezaten. Helburua poliziaren eginbideetatik hasitako prozeduretan emandako ebazpen judizialak segurtasun indar eta kidegoei helaraz ziezaietela zen, poliziak zituen datu pertsonalak ofizioz baliogabetzeko betebeharra bete ahal izan zezaten (2002ko ohizko txosteneko 182. or.).

Eskura genuen informazioaren arabera, gomendioak onartu egin ziren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak organo judizialei informazio hori polizia-kidegoei bidal ziezaietela eskatu zien.

Herrizaingo Sailak eta Gasteizko Udalak emandako azalpenetan eremu horretan Ertzaintzak eta hiriko Udaltzaingoak zituzten arazoak azpimarratu ziren. Arrazoia, nagusiki, beren esku-hartzeetatik eratorritako jarduera judizialen garapenari buruzko daturik ez izatea zen. Ondorioz, pentsatu genuen informazio hori, agian, ez zitzaizela euskal administrazio publikoen menpeko polizia-kidegoei helarazten.

Ondorioz, eta bi administrazioek adierazitako arazoak estatu mailako esku-menaren ingurukoak zirenez Arartekoaren esku-hartzea kanpo utziz eta arazoa Herriaren Defendatzailearen eskumen eremuan sartuz, egokia iruditu zitzaigun erakunde horretara jotzea gaiaren inguruan helarazi zitzaizkigun informazioaren eta eskaeren berri emateko. Xedea ofiziozko jarduerari ekiteko komenigarritasuna baloratu ahal izatea izan zen, adierazitakoaren arabera Ertzaintzak eta Gasteizko Udaltzaingoak gutxienez, eta ziurrenik baita erkidego honetako gainerako udaltzaingoek ere, legeak ezarritako kasuetan poliziaren datuak ofizioz baliogabetu ahal izateko zituzten oztupoak gainditzea ahalbidetuko zuen formula ezartze aldera.

Herriaren Defendatzaileak jakinarazi zigun aipatutako gomendioaren gaineko jarraipena egitea erabaki zuela, hura betetzen ari zen modua ziurtatzeko.

II. ESPARRU JURIDIKOA

Konstituzio Auzitegiak ulertu du EKren 18.4 artikulua datuen babeserako funtsezko eskubidea defendatzen duela, honela definituz: *“un poder de disposición y de control sobre los datos personales que faculta a la persona para decidir cuáles de esos proporcionar a un tercero, sea el Estado o un particular, o cuáles puede este tercero recabar, y que también permite al individuo saber quién posee esos datos personales y para qué, pudiendo oponerse a esa posesión o uso”* (Konstituzio Auzitegiaren 292/2000 Epaia, azaroaren 30ekoa, 7. OJ).

Auzitegiak, halaber, zera azpimarratu du: *“Estos poderes de disposición y control sobre los datos personales, que constituyen parte del contenido del derecho fundamental a la protección de datos, se concretan jurídicamente en la facultad de consentir la recogida, la obtención y el acceso a los datos personales, su posterior almacenamiento y tratamiento, así como su uso o usos posibles, por un tercero, sea el Estado o un particular”* (Konstituzio Auzitegiaren 292/2000 Epaia, azaroaren 30ekoa, 7. OJ).

Egun, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa aipatutako oinarritzko eskubidea garatzen duen araua da eta haren berme sistema zehazten du.

Bilketari buruzko informazioa izateko eskubidea, bilketari eta erabilerari baiezkoa emateko eskubidea eta datuak kontsultatu, zuzendu eta baliogabetzeko eskubidea Lege

Organikoak oinarrizko eskubidea eraginkor bihurtzeko ezarri duen berme multzoaren parte dira, besteak beste (5.,6., 15. eta 16. artikulua).

Eskubide horiek, ordea, salbuetsita geratzen dira Segurtasun Indar eta Kidegoek poliziaren xedeetarako bildutako datu pertsonalak direnean (22., 23. eta 24. artikulua), aurrekarietan ere adierazi dugun moduan.

Zehazki, guri interesatzen zaigun datuak baliogabetzeko eskubideari dagokionez, orokorrean, baliogabetzea egiteko betebeharra dago datuak egoera honetan geratzean: *“hayán dejado de ser necesarios o pertinentes para la finalidad para la cual hubieran sido recabados o registrados”* (4.5 art.).

Legeak baliogabetzeko betebeharrak berdin hori zehazten du ere beste kasu baterako honakoa zehaztean: *“Si los datos de carácter personal registrados resultaran ser inexactos, en todo o en parte, o incompletos, serán cancelados y sustituidos de oficio por los correspondientes datos rectificados o completados, sin perjuicio de las facultades que a los afectados reconoce el artículo 16”* (4.4 art.).

Azken ezarpen horrek, bestalde, zera adierazten du: *“Serán rectificados o cancelados, en su caso, los datos de carácter personal cuyo tratamiento no se ajuste a lo dispuesto en la presente Ley y, en particular, cuando tales datos resulten inexactos o incompletos”* (16.2 art.).

Segurtasun indar eta kidegoek poliziaren xedeetarako bildutako datuak baliogabetzeari dagokionez, aztertzen ari garen kasua hain zuzen, Lege Organikoak eskakizun orokorra berresten du zera zehaztuz 22.4 artikuluan: *“se cancelarán cuando no sean necesarios para las averiguaciones que motivaron su almacenamiento”*. Ezarpenak zera eranstean du: *“A estos efectos, se considerará especialmente la edad del afectado y el carácter de los datos almacenados, la necesidad de mantener los datos hasta la conclusión de una investigación o procedimiento concreto, la resolución judicial firme, en especial la absolutoria, el indulto, la rehabilitación y la prescripción de responsabilidad”*.

Eremu zehatz honetako baliogabetze eskubideari jarritako muga zehatzak lege berdinaren 23. artikuluan arautzen dira, eta hurrengoak zehazten ditu: *“los peligros que puedan derivarse para la defensa del Estado o la seguridad pública, la protección de los derechos y libertades de terceros o las necesidades de las investigaciones que se estén realizando”* (23.1 art.).

Hori dela-eta, aztertzen ari garen eta azaletik aurkeztu dugun gaiari aplikatu dakioken erregimen juridikoarekin bat etorriz, polizia-kidegoak behartuta daude legearen aldetik poliziaren xedeetarako adierazitako kasuetan bildutako datuak ofizioz baliogabetzera, betiere, aipatutako mugetakoren bat agertzen ez bada.

III. LEGEAN EZARRITAKOA ZENBATERAINO BETETZEN DEN ETA LEGEA EZ BETETZEA JUSTIFIKATZEKO POLIZIA KIDEGOEK ADIERAZITAKO ARRAZOIEN BALORAZIOA

1. Aurrekarietan adierazi dugu, informazioa eskatu diegun administrazioek eman-dako informazioaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritako betebeharra betetzen ariko litzatekeela, hain zuzen ere Ertzaintzak poliziaren xedeetarako bildutako datu pertsonalak ofizioz baliogabetzearena. Edonola ere, Saila ez litzateke ezarpena erabat betetzen ariko, kidego horrek ez duelako orokorrean bere esku-hartzeen ondotik eremu judizialean hartutako erabakien berririk izaten.

Aitzitik, Bilbo eta Gasteizko udaltzaingoak ez lirateke lege ezarpena betetzen ariko. Azken horrek, neurri batean, Herrizaingo Sailak bere jarduteko modua justifikatzeko adierazitako arrazoi beragatik, alegia, erabaki judizialen gaineko ezagutza-faltagatik, ez luke beteko bete beharrekoa.

Betetzea, halaber, neurri batekoa litzateke Donostiako Udaltzaingoaren kasuan, nahiz eta kidego horren kasuan ez zaigun jakinarazi arrazoa adierazi berri dena den edo ez.

Gainerako udaltzaingoek jarduteko duten modua ezagutzeko erreferentziarik ez dugu. Edonola ere, uste dugu hiru hiriburuetako udaltzaingoetatik eskuratutako datuak Autonomia Erkidegoko gainerako udalerrietan gertatzen ari denaren adierazle izan daitezkeela.

2. Erakunde honek badaki arazoak daudela poliziak dituen datu pertsonalak ofizioz baliogabetzeko lege erregimena ondo eta erabat aplikatzeko, eta horren arrazoa polizia-kidegoek esku hartutako jarduerekin zerikusia duten erabaki judizialen berri ez izatea dela.

Argi dago Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak datuen beharra baloratzeko eta, ondorioz, horiek baliogabetzea komeni den edo ez erabakitzeko kontuan izan beharreko irizpideak, besteak beste honakoak bada: *“la resolución judicial firme, en especial la absolutoria, en indulto, la rehabilitación y la prescripción de responsabilidad”* (22.4. art.), inguruabar horiek ez ezagutzeak benetan ezinezkoa egingo diola poliziaren administrazioari ofizioz jardutea eta, legeak ezartzen dion moduan, horiek haztatzea aipatutako inguruabarretatik bat edo beste agertzean.

Gure ustez, ezin daiteke alde batera utzi komunikaziorako bideak antolatzeke lana, euskal administrazio publikoen menpe dauden polizia-kidegoek informazio hori modu normalizatuan eskuratu ahal izan dezaten. Izan ere, jada adierazi dugun moduan, hori lortzea ezinbestekoa da legeak ezarritakoa egoki bete ahal izateko.

Aurrekarietan adierazi dugun moduan, gaiak sorrarazi zigun kezkaen ondorioz Herriaren Defendatzaileari kontua planteatu genion. Izan ere, funtsean bere eskumeneko gaia zela ulertu genuen. Erakunde hark eman digun informazioaren arabera, gai horretaz Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eta Barne Ministerioari 2002an egindako gomendioen esparruan kokatuko du bere jardura.

Gure ustez, Herrizaingo Sailak gaia Polizia Judizialaren Koordinazioko Batzorde Nazionalean planteatzeko aukera baloratu behar luke ere, haren kide den heinean eta, besteak beste, Justizia eta Barne ministerioak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia kidetzat dituen erakundea den heinean. Izan ere, kontuan hartu behar da organo horri dagokion funtzioetako bat hurrengoetan esku hartzea dela: *“resolver eventuales incidencias que (...) puedan surgir en las relaciones entre la Autoridad Judicial (...) y la Policía Judicial”* [ekainaren 19ko 769/1987 Errege Dekretuaren 36.c) art.].

3. Erakunde honi positiboa iruditzen zaio Bilboko Udaltzaingoak agertutako aldeko jarrera, lege ezarpenak aplikatzea ahalbideratuko dieten protokoloak ezartzeari dagokionez. Izan ere, aurrerago adieraziko dugun moduan, gure ustez, baliabide horiek mekanismo egokia eratzen dute legea beteko dela bermatzeko.

Ea xede horrekin jada martxan jarritako prozesuak, Udalak jakinarazi digun moduan, espero diren emaitzak gutxi berru izaten dituen.

4. Aztertu dugun erabaki judizialak ez ezagutzetik eratorritako arazoen gaia alde batera utzita, Gasteizko Udalak legeak ezarritako betekizunak ez betetzea justifikatzeko adierazitakoak ezin du, gure ustez, jarduteko modu hori babestu.

Udaltzaingoaren sistema informatikoen datuak automatikoki baliogabetzeko duten ezintasuna, Udalak hasieran adierazitakoa, udal arduradunek kendu beharko luketen oztopoa dela uste dugu. Eman zaigun informazioaren arabera, Udalak jada lanean dihardu norabide horretan. Hori dela eta, adierazitako oztopoa laster gainditu ahal izatea espero behar da.

Bestalde, justifikazio horri dagokionez, azpimarratzekoa da baliogabetzeko beharrezkoa dela kasu bakoitzean agertzen diren inguruabarrak haztatzea, horren bidez datuak mantentzeko beharra badagoen ala ez dagoen zehaztu ahal izateko. Horrek, orokorrean, automatizaziotik kanpo utziko luke Udalak heldutako eragiketa hori.

Halaber, ezin onar ditzakegu udal administrazioak baliogabetutako datuen gainean estatistikak egitea ezinezkoa dela adieraziz helarazi zigun arazoia. Gure ustez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak berak konponbidea ematen dio arazo horri. Hain zuzen ere, 4.5 artikulua, lehen adierazitako baldintzetan baliogabetzea egiteko betebeharra ezartzean, zera dio: *“No serán conservados en forma que permita la identificación del interesado durante*

un periodo superior al necesario para los fines en base a los cuales hubieran sido recabados o registrados” eta: “Reglamentariamente se determinará el procedimiento por el que, por excepción, atendidos los valores históricos, estadísticos o científicos de acuerdo con la legislación específica, se decida el mantenimiento íntegro de determinados datos”.

Gure ustez, bi ezarpenen interpretazio bateratuak eta datu pertsonala zer den argitzeko legeak egiten duen definizioak berak (“*cualquier información concerniente a personas físicas identificadas o identificables*”, 3. art.) behar besteko oinarria ematen dute poliziaren estatistikak behar dituzten datuak gordetzea posible dela ulertzeko, betiere, gordetzen diren datuak nori dagozkion zehazten ez bada.

Edonola ere, azpimarratzekoa da Lege Organikoak ez duela inguruabar hori jasotzen ofizioz baliogabetzeko betebeharraren salbuespen moduan, beraz, ezin da ezarritako erregimena aplikatzea saihestea justifikatzen duen arrazoi moduan aipatu.

Halaber, Udalak legeak ezarritako ezarpenak ez betetzeko babestzat hartutako azken arrazoiak gaitzetsi behar dugu, hau da, helarazitako informazioaren arabera, Udaltzaingoak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 23.1 artikulua aplikatzerakoan dituen interpretazio zalantzak.

Aurrekarietan nabarmendu dugun bezala, honakoa da, udal informazioaren arabera, zalantzak izateko arrazoiak: “*los datos almacenados contribuyen a garantizar la defensa y/o seguridad pública, y la protección de los derechos y libertades de los terceros*”.

Horri dagokionez, gogorarazi behar dugu aipatutako lege organikoaren 23.1 artikulua bera dela poliziak dituen datu pertsonalak baliogabetzeko betebeharraren salbuespen moduan Udalak adierazitako inguruabarrak agertzen dituzten kasuak zehazten dituen. Horrek, gure ustez, oinarrizko arrazoiak kentzen die Udaltzaingoak izan ditzakeen zalantzei.

5. Donostiako Udaltzaingoak eman digun informazioari jarraiki, kidego horrek datu jakin batzuk bakarrik baliogabetzen ditu ofizioz, “kontrako aurrekari polizialak” deiturikoak. Gainera, informazio horren arabera, datuak baliogabetu ahal izateko, lege irizpide guztien artetik, erantzukizun penalaren preskripzioari baino ez dio jaramon egiten eta baliogabetzea sistema informatikoaren premiei lotzen die.

Aplikatu beharreko lege araubidea aipatzerakoan, agerian utzi dugu baliogabetzeak poliziaren xedeetarako bildu diren datu guztiei eragiten diela eta ez bakarrik udal administrazioak aipatzen dituen.

Jasota utzi dugu, orobat, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera datu horiek baliogabetzeko haztatu behar diren irizpideak polizia-kidego horrek aplikatzen dituenak baino gehiago direla.

Halaber, adierazi dugu baliogabetzea legez datuen premiari lotuta dagoela. Aipatu premia datuak zertarako bildu ziren kontuan hartuta baloratu behar da eta ez beste edozein xede kontuan hartuta.

Hortaz, azalpen ofizialei jaramon eginez, Donostiako Udaltzaingoa ez litzateke behar bezala betetzen ariko puntu honetan aipatutako lege organikoa, legean jasotako kasu batzuetan eta datu batzuei dagokienez bakarrik egiten baitu ofiziozko baliogabetzea eta datuen beharra sistema informatikoak berak hala eskatuta bakarrik baloratzen baitu.

Polizia-arduradunak ez digute jakinarazi lege araubidea erabat betetzea eragozten dien inguruabarrik dagoenik.

IV. KASUAN KASUKO ADMINISTRAZIOEK LEGE ZEHAZTA-PENAK BETE BEHARRA

Bildu dugun informazioak agerian uzten du beharrezkoa dela kasuan kasuko administrazioek arlo honetan jardutea, poliziak dituen datu pertsonalak ofizioz baliogabetzeari dagokionez Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarri dituen xedapenak oraindik aplikatzen ari ez diren polizia-kidegoak horretarako beharrezko tresnez balia daitezten.

Erakunde honen iritziz, datuak babesteko araubide berezia dagoenez (horrek salbuespen garrantzitsuak ekartzen dizkie eskubidearen edukia osatzen duten bermeetako batzuei) eta lege ezarpenak oker aplikatzeak datuak babesteko eskubidean eragina izan dezakeenez, behar hori areagotu egiten da eta are arreta handiagoa jarri behar da manu horiek betetzerakoan.

Gure ustez, xede horretarako mekanismo egokia da arlo horretan jarduteko protokoloak prestatzea, betiere, lege zehaztapenak zorrotz errespetatuta, arauetako baldintzak betetzeko aplikatu beharreko irizpideak eta prozedura betetzen laguntzen badute.

Uste dugu, gainera, Herrizaingo Sailak tokiko administrazioen eskura jarri ahal izango lukeela bere esperientzia, eman zaizkigun azalpenetan oinarrituta, aldeak antzeman baititugu administrazio horrek eta hiru hiriburuetako udaltzaingoei arlo honetan dituzten jarduteko moduen artean.

V. GOMENDIOAK

1. Euskal administrazio publikoen menpeko polizia-kidegoek Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak poliziaren xedeetarako biltzen diren datu pertsonalak ofizioz baliogabetzeari buruz ezartzen dituen zehaztapenak bete ditzatela.
2. Oraindik egin ez badute, aipatu aurreikuspenak aplikatzeko irizpideak eta prozedura barneratzen dituen jarduteko protokoloa onar dezatela.

IV. ATALA
TXOSTEN BEREZIAK

1. 2007. URTEAN AURKEZTUTAKO TXOSTEN BEREZIA

TXOSTEN BEREZIA: GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZA POLITIKA PUBLIKOAK EAEn

2007an etxebizitzaren arloan burututako jarduerarik garrantzitsuenen artean *Gazteentzako etxebizitza-politika publikoak EAEn*. izeneko txosten bereziaren argitalpena aipatu behar dugu, Legebiltzarreko lehendakariari 2007ko ekainean emana eta Arartekoak euskal ganberako Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean urte horretako urrian aurkeztua. Txostena hasieran aurreikusitakoa baino beranduago argitaratu zen lana bai Euskal Autonomia Erkidegoko Hirigintzako eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legean bai 2006-2009ko Etxebizitza Plan Zuzentzaile berriko ezarpenetan jasotako araudi berriek arlo honetan barneratutako berritasunetara egokitu behar izan baitzen. Etxebizitzaren arazoak gizartean eta, bereziki, gazteen artean, sortzen duen kezka handiaz jabetuta, txosten honetan gazteek etxebizitza eskuratzeko duten arazo larriari irtenbidea aurkitzera bideratuta dauden euskal administrazio publikoen jarduerak aztertzen saiatu gara. Analisi horren ondorio gisa, egokia iruditu zaigu ustez oraingo egoera hobetzen lagundu dezaketen hainbat gomendio egitea, izan ere, orain etxebizitza merkatu librean oso garesti dago eta, hala, biztanle ugari lehen etxebizitza eskuratzeko zailtasun objektiboa dute.

Hala ere, txosten honek ez ditu, soilik, berariaz gazteekin zerikusia duten gomendioak proposatzen, ikusi ahal izan dugunez, gazteei eragiten dieten arazoetako askok etxebizitza behar duten gainerako biztanleei ere eragiten baitiete. Horregatik, gure gomendioetako asko etxebizitza-politika publikoak oro har hobetzera bideratu dira, eta ez bakarrik gazteentzat baino ez direnak.

Metodologikoki, gure erdua arlo honetan ideiak eta irtenbideak eman ditzaketen Europako beste batzuekin alderatu dugu, horien etxebizitza-politikek gizartearen itxaropenei eta premiei arrakastaz erantzun ahal izan baitiete. Oro har, sistema horietan, funtsean, etxebizitza-parke publikoak sortzen dira edo, hainbat tresnaren bidez, etxebizitzaren gizarte alokairua sustatzen da. Era berean, dokumentuak aztertu ditugu, hainbat iturritz baliatuta, eta informazio hori hainbat arduradun eta euskal administrazio publikori zuzenean kontsulta eginda lortu dugunarekin osatu dugu; arduradun eta administrazio horiek erabat prest agertu dira zeregin honetan laguntzeko.

Azterketa horren ondorioz egin ditugun gomendioak euskal administrazio publiko askorentzat dira, ez bakarrik etxebizitza-arloaren ardura bere gain dutenentzat, politika anitzek eragin baitezakete etxebizitza lortzeko egoeran, eta instantzia ezberdinek bideratzen baitituzte politika horiek (hala gertatzen da lurraldearen antolamenduarekin, zerga-politikarekin, gizarteratzeko politikekin eta zeharkako beste politika batzuekin). Haatik, beste gai batzuk baztertu gabe, babes publikoko erregimena duten etxebizitzak

sustatzeko politikak nabarmendu ditugu batez ere, gaur egun horixe delako jarduera publikoak erabiltzen duen bide nagusia erantzun gabe dagoen etxebizitza-eskaera izugarri horri erantzuteko, eskatzaileentzat ezinezkoa baita merkatu libre deritzan horretan etxebizitza bat lortzea -etxeen prezio ikaragarriengatik-.

Gomendio nagusien artean, lehenik eta behin, alokairuko etxebizitza babestuen eskaintza areagotzeko eta horien kalitatea hobetzea buruzko gomendioen multzoa aipatu behar dugu. Horren haritik, arlo horretan eskumenak dituzten botere publiko guztiei zera gomendatzen diegu: batez ere alokairuko etxebizitza babesturako erabil ditzatela etxebizitza-politiketarako eman zaizkien baliabide publikoak; ahaleginak egin ditzatela alokairuaren eskaintza erakargarriagoa sortzeko (etxebizitza babestuen errentaren prezioei eta maizterrentzako egonkortasunari dagokienez); alokairuko etxebizitzak sustatu eta kudeatzeko formulak bila daitezela, gastu publikoa ahalik eta gutxien haziz, alokairuko etxebizitzen parke publikoak modu eraginkorrean sortu ahal izateko; gehitu daitezela alokairurako oro har ematen diren zuzeneko laguntzak edo zeharkakoak (zerga-arlokoak); toki erakundeek prozesu horretan parte har dezatela, alokairuko etxebizitza babestuari buruzko programa bereziak ezarri; emantzipatzeko bidean dauden gazteentzat, aldi baterako bizitokien figura berria sortzen lagun dezatela, zuzkidurazko ekipamendua duten lur-zatietan.

Era berean, garrantzitsua iruditzen zaigu etxebizitza babestuen tipologia guztietarako araudi komuna sustatzea, etxebizitza babestuari buruzko euskal lege bat aterez. Lege horrek euskal lurralde osorako araudi komuna izan behar du.

Bestalde, etxebizitza babestuak lortzeko prozedurei dagokienez, komeni da oraingo zozketaren ordez, baremazioa lehenetsiko duten sistemak ezartzen laguntzea, etxebizitza babestuak esleitzeko orduan etxe premiarik handiena duten pertsonak lehenesteko. Halaber, beharrezkoa da etxebizitza babestuen eskaintza behar bezain ugaria izatea, diseinuetan nahiz neurrietan, eta gaur egungo beharretara egokitzea (etxebizitza txikiagoak gizabanakoentzat, eta neurri ezberdinetako etxebizitzak bizikidetzako unitatea osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera).

Etxebizitza babestuen parkea kudeatzea dela-eta, aintzat hartu behar da familia-unitateen egitura aldakorra, eta etxebizitzak mugitzeko eta aldatzeko sistema bat eskaini behar da, etxebizitzen adjudikazioa familietan sortuz doazen behar aldakorretara egokitu ahal izateko. Halaber, une oro bermatu behar da etxebizitza babestuen funtzio soziala. Horretarako, etxebizitza horien erabilera kontrolatzeko bideak jarri behar dira, ikuskatze sistemen bitartez, hasieran etxebizitza esleitzea legitimatu zuten baldintza ekonomiko eta ondarezkoak bere horretan dirautela egiaztatzeko.

Erakunde honen iritiz, etxebizitza-politika propioak abiarazteko ahalmena duten hainbat administrazio publiko daudenez gero, ezinbestekoa da erakunde horien artean koordinazio eta lankidetzako sistema sendoa ezartzea, etxebizitza-politikak, oro har, euskal herritar guztien onurarako izan daitezkeen, etxebizitza babestua EAEko lurralde osoan modu homogeenan sustatuko dela bermatuz. Horren haritik, EAEko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea dinamiza dadin proposatzen dugu -Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarri zuen hori-, eta, horretarako, gure ustez topagune horren oinarriko eginkizunak izan litezkeenak iradokitzen ditugu.

Azkenik, gazteentzako etxebizitza-ekimenak bultzatzeko berariazko gomendioak egiten ditugu, orain arte ia ez baitzegoen halakorik. Gure ustez, etxebizitzaren arloan

gazteen behar berezi eta berezkoei erantzuteko sortutako hainbat neurri eta programa publiko erabili behar dira biztanleen sektore horretan, beren ezaugarri baldintzatzaileak kontuan hartuta (prestakuntzakoak, lanekoak, ekonomikoak eta norberarenak), izan ere, inguruabar horien ondorioz, sektore horrek dinamismo eta aldaketa premia handiagoa du, gainontzeko biztanleen aldean.

2. 2007. URTEAN EGITEN ARI DIREN TXOSTEN BEREZIAK

2.1. HURRENGO TXOSTEN BEREZIA: TERRORISMOAREN BIKTIMEN EGOERA ETA BEHARRAK EAEⁿ ETA JAZARPEN INDARKERIA DELAKOA

Txosten hau egiten amaitutakoan, Ararteko erakundea txosten berezia egiten ari da terrorismoaren biktimen egoerari eta premiei buruz. Txosten hau, hasiera batean, Ararteko erakundeak terrorismoaren biktimekiko beti agertu duen sentsibilitate bereziari zor zaio; horiekiko sentsibilitateak egin du talde hori erakunde honen lehentasunezko arreta-taldetzat hartzea eta dagokion arloa sortzea.

Lan hau, gainera, zenbait legebiltzarkidek hala eskatu zutelako ari gara egiten. Bestalde, Gipuzkoako Batzar Nagusiek jazarpenaren indarkeria izenekoari helduko zion txostena egitea ere proposatu zuten.

Txostenaren izaera ikusita, erakundearen bitarteko propioak erabilita egitea erabaki da.

Txosten honetan euskal erakundeek terrorismoaren biktimen egoerari eta premiei eman dieten erantzuna aztertuko da. Ondorio horretarako, bi bide erabiltzen ari gara: batetik, Legebiltzarrak gai honi buruz eman dituen erabakietan ezarritako neurriak eta jardun ildoak betetzen ote diren aztertzea; eta, bestetik, administrazioek terrorismoaren biktimei buruzko arauak betetzen dituztela egiaztatzea. Horrela, ondorengoetan bildutako erabakien jarraipena egiten ari gara:

1. Terrorismoaren biktimen egoera arintzeko neurriei buruzko ez-legezko proposamena, Eusko Legebiltzarraren osokoak 2003ko ekainaren 25ean onartua.
2. Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak terrorismoaren biktimen egoera eta premiak aztertzearen inguruan emandako irizpena, Eusko Legebiltzarraren osokoak 2005eko otsailaren 17 eta 18an onartua.

Gainera, euskal administrazioek terrorismoaren biktimei buruzko askotariko arauak betetzen ote dituzten ere egiaztatuko da.

Txosten hau egiteko informazioa bildu da EAEko udal guztietan, gaian eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako sail guztietan, EITBn, EHUⁿ...

Era berean, ezinbestekoa da biktimen euren ahotsak ere islatzea.

Biktimen zenbait elkarte eta fundazioekin harremanetan ere egon gara, biktimen euren premien eta eskaeren katalizatzaileak izan daitezen.

Halako ezaugarriak dituen txosten batean zaila da terrorismoaren biktimek eta beren senide eta hurbilekoek bizi izan duten zorigaitz izugarria islatzea, baina jarduera terroristek kaltetutako pertsona eta taldeen ahalik eta ikuspegi pluralena ematen saiatuko gara.

Horrez gain, ETAk mehatxatutako taldeetan barneratuta dauden zenbait herritarrek jasaten duten jazarpenaren indarkeria deritzona ere aztertuko da, talde horietako pertsonen egindako banakako elkarrizketetan eta aipatu pertsonen talde horien problematikaz batera mintzatzeko osatu diren lan taldeetan oinarritutako azterlan kualitatiboaren bidez.

2.2. HURRENGO TXOSTEN BEREZIA: EAEko ARRETA SOZIO-SANITARIOAREN EGOERA

2007an, EAEko arreta soziosanitarioaren egoerari buruzko txostena prestatu eta amaitu da. Urteko txosten hau egiten amaitutakoan, aipatu txosten berezia itzulpen eta argitalpen fasean dago eta, beraz, ustez, 2008ko lehen lauhilekoan helaraziko diogu Eusko Jaurlaritzako presidenteari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Atentzio Soziosanitarioaren 2005-2008rako Plan Estrategikoa onartzea gertaera garrantzitsua izan da, baina plana garatu ahal izateko neurriak hartu behar izan dira. Txosten honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko arreta soziosanitarioa hobetzeko tresna erabilgarria izatea da, baita Eusko Legebiltzarren osokoak 2006ko azaroaren 23an egindako eskaerari erantzutea ere. Eskaera horren bidez, arreta soziosanitarioaren egoerari eta premiei buruzko azterlana eta txostena egin zitzala agindu zitzaion Ararteko erakundeari.

Txostenak hiru helburu ditu:

- Batetik, erreferentziako oinarritzko elementu batzuk eta hainbat nahaste terminologiko argitzeko gai izango den esparru kontzeptuala egituratzeko asmoa du, funtsean nazioarte mailan izandako aurrerapauso teoriko eta praktikoetan oinarrituz.
- Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko egoeraren diagnostikoa ere egin da. Arartekoaren txosten berezietan ohikoa izaten den bezala, diagnostiko hau ez da ebaluazio xehatu eta sistematikoa euskal egoeraren gainean. Gure inguruneko arreta soziosanitarioaren garapena hasiberria denez –txosten hau idatzi denean indarrean dagoen Atentzio Soziosanitarioaren Plan Estrategikoaren ibilbideak bi urte inguru besterik ez ditu bete–, ebaluazioaren ikuspegia baztertu egin zen. Ondorioz, besterik gabe, aurrerapausoen deskripzioa egitea eta eremu soziosanitarioak pertsona batzuen artean sorrarazten dituen jarrera, iritzi eta kritiken azterketa aurkeztea erabaki da. Jarrera, iritzi eta kritika horiek teknikari eta profesionalengan, eta, kasuren batean, baita politikariengan ere sumatu dira, eta haiek zerikusi zuzena dute eremuaren eraikuntzan eta haren ezarpen praktikoan. Lehen diagnostiko honen asmoa ez da gure inguruan gaiak izan dezakeen azterketa agortzea, baina bai izan nahi duela garapen mailaren balantze zehatza eta fidagarria.
- Azkenik, bai beste autonomia-erkidego batzuetan bai beste herrialde batzuetan garatutako ekimen eta esperientzia batzuen gaineko deskripzio sintetikoa eta egituratua egiten du.

Txostenaren amaieran zenbait gomendio bildu dira. Gomendio horiek, beren eduki eta izaerarekin eta errealitate horretara hurbiltzeko duten xedearekin bat etorritik, ikuspegi orokorra ematen dute eta eremu soziosanitarioa eraikitzekeko administrazio publikoen esku-hartzea hobetzen lagun dezaketen jarraibide batzuei buruz orientatzeko asmoa baino ez dute. Hortaz, proposamenak ez datoz bat erakunde honen txostenetan erabili ohi den ereduarekin eta, salbuespenak salbuespen, ez dituzte oso zehatzak diren hobekuntzak aztertzen.

2.3. 2007an PRESTATZEN HASI GAREN BESTE TXOSTEN BE-REZI BATZUK

1) Adingabeei balioak transmititzeari buruzko txostena

2007an beste ikerlan bat hasi dugu adingabeei eta balioei dagokienez. Gai hau oso garrantzitsua da Ararteko erakundearentzat eta oso lotuta dago ikastetxeetako bizikidetzari buruzko gure txostenean ere aztertutako kontuekin.

Aurten informazioa bildu da bai Lehen Hezkuntzako bai Bigarren Hezkuntzako 1.500 ikasle ingururen lagin batean ad hoc egindako hiru galde-sortaren bidez eta eztabaida-taldeak egin dira adingabe, guraso, irakasle eta profesionalekin.

Une honetan, informazio guztia aztertzen ari gara eta, aurreikuspenen arabera, txostena 2008 amaitu baino lehen argitaratu ahal izango da.

Txostenak aldeak onartu eta errespetatzearekin erlacionatutako oinarrizko balio jakin batzuetan jarriko du arreta, balio horiek transmititzerakoan gizarte eragile ezberdinek (besteak beste, komunikazioaren teknologia berriek) duten garrantzia aztertuko da eta, halaber, gutxitan aztertu ohi den biztanle talde bati (hots, 8 edo 10 urtetik beherako adingabeei) buruzko informazioa aurkeztuko du.

2) Nerabeei eta alkohola eta droga gehiegi kontsumitzeari buruzko txostena

2007an nerabeei eta alkohola eta beste droga batzuk gehiegi kontsumitzeari buruzko ikerlana ere hasi dugu. Eusko Legebiltzarrak berak egindako eskaerari zor zaio eta bere helburua gai honen inguruan jada egin diren eta, kasu batzuetan, gainera, tradizio luzea duten beste txosten eta azterlan batzuk osatzea da. Horregatik, garrantzi berezia eman nahi zaio arrisku jokabideak saihestu eta horien emaitzak baloratze aldera gure erkidegoko erakundeak burutzen ari diren programak eta jarduerak baloratzeari.

Aurreikuspenen arabera, txostena 2008 amaierarako bukatuta egongo da eta 2009 hasieran argitaratu ahal izango da.

3) Gizarte esku-hartzearen hirugarren sektorean lan egiten dutenen lan baldintzei buruzko txostena

Iazko ohizko txostenean ere (ikusi 2006ko txostena, III. atala, 3.4 azpiatala), lan honi buruzko lehen informazioa eskaini genuen.

Ikerketa 2007an garatu eta burutu da. Datuak galde-sorta eta lantaldeen bidez bildu dira. Zeregin horretan, gizarte sektore ezberdinetan (ezgaitasunen bat duten pertsonak,

adinekoak, etorkinak, adingabeak, etab.) diharduten 293 erakunderen ordezkari hartu dute parte.

Txostena ia-ia amaituta dago eta 2008ko bigarren hiruhilekoan argitaratu ahal izango da.

V. ATALA

GIZA ESKUBIDEAK
ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE
ZIBILAREKIN NAHIZ ESKUBIDEAK
BERMATZEKO ERAKUNDEEKIN
HARREMANAK IZATEKO KULTURA
SORTZEN LAGUNTZEN DUTEN
BESTE JARDUERA BATZUK

1. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO ETA GIZARTE ZIBILAREKIN HARREMANAK IZATEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

1.1. TALDEEKIN, ELKARTEEKIN ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN LANKIDETZAN JARDUTEKO HARREMANAK

2007. urtean ere, Ararteko erakundeak gizarte eragileekiko harremanak lantzen jarraitu du. Bereziki, baztertuta dauden pertsonen laguntzen edo gizarte arazo askotarikoak konpontzen jarduten duten talde, elkarte eta erakundeekikoak. Honako taldeok dira: giza eskubideak babesteko taldeak, atzerritarrei, askatasunik gabe edo baztertuta daudenei laguntzekoak, gaixotasun jakin batzuk dituzten pertsonen senideak, etxebizitzarik gabeko pertsonak...

Aurreko txostenetan ere adierazi bezala, Arartekoarentzat eta beste erakunde bermatzaile batzuentzat, elkarteek eta talde antolatuek benetako gizarte antena gisa jardun dezakete: bestela oharkabean pasa daitezkeen arazoak eta egoerak detektatu eta ezagutarazi ahal izateko sentsoreak.

Urte hauetako esperientziak erakutsi duenez, elkarte eta talde asko gure gizartean baztertuta dauden edo bereziki zaurtu ahal diren sektoreen eta Arartekoaren eta antzeko erakundeen arteko funtsezko bitartekariak izan daitezke. Beraiek direla bitarteko, haiek hobeto ezagutu ahal dituzte beren eskubideak eta gatazkak konpontzeko bideak. Beren aldarrikapenak adierazten lagundu ahal diete. Izan ere, herritarrei zerbitzua arretaz egiteko eskatu ahal diete administrazioei. Horrela, erakundeenganako konfiantza eta gizarte kohesio handiagoa ahalbide daiteke.

Gure erkidegoan talde, elkarte eta erakunde asko daude eta hori gizarte bizitasunaren seinalea da, baina, aldi berean, haiekin guztiekin lankidetzarako harreman egonkorrak edo izan nahi dituenarentzako erronka ere bada. Horregatik, gure kasuan eta mugak kontuan harturik, lankidetzarako gogo hori zenbait bide osagarriren bidez gauzatu da:

- aurretik harremanak genituen talde askorekin harremanetan jarraitzea, hori posible izan denean;
- beren arazoak eta proposamenak guri azaltzeko gogoia azaldu duten edo Arartekoarekin bildu nahi dutela adierazi duten talde eta elkartei baiezkotzea ematea;
- harreman berriak finkatzen hastea, sektore bereziki ahulekin lan egiten duten talde jakin batzuekin edo une horretan aztertzen gabiltzan sektoreen arazoekin zerikusia dutenekin;

- antzeko interesak edo jarduera-eremuak (espetxeak, buru gaixotasuna, inmigrazioa...) dituzten elkarten arteko koordinaziorako plataformak edo federazioak daudela aprobetxatzea.

Gainera, bi ekimen abiarazi dira. Horiek garrantzi berezia dute elkarteentzat, zehazkiago, gizarte esku-hartzearen sektorean diharduten enpresentzat eta ingurumen politikan sartuta daudenentzat. Batetik, gizarte esku-hartzearen hirugarren sektoreko lan baldintzak aztertzeko 2007an egin zen azterketa dugu; eta, bestetik, herritarrek parte hartzeko foroak, EHUren udako ikastaroen baitan antolatua. Aurten, foroak herritarrek ingurumeneari eta azpiegiturretan eragina duten proiektuetan duten partaidetzan jarri zuen arreta.

Txosten honetako beste zati batzuetan bi ekimen horien berri eman da. Hemen, soil-soilik aipatu nahi dugu, gizarte esku-hartzearen hirugarren sektoreko lan baldintzei buruzko hurrengo txostena egiteko, galde-sortak 900 erakunderi baino gehiagori bidali zaizkiela (erakunde horietatik gehienak elkarteak edo fundazioak ziren), erakunde horietatik 293k osatutako laginaren erantzunak ustiatu direla eta multzo horretatik 55 erakundetako ordezkariak hartu dituela parte lurralde guztietan erabakitako eztabaidataldeetan. Erakunde horien zerrenda, eranskin gisa, hurrengo ezohizko txosteneari bidaliko da. Ondoren jasotako zerrenda, Ararteko erakundearekin lan bilerak egin dituztenak baino ez dira aipatu.

Horrela, 2007an Ararteko erakundeak lankidetzaharreman biziak edo izan dituzten hurrengo elkarte, erakunde edo gizarte taldeekin:

- ACOVIDEM (Etxeko Indarkeriaren Aurkako eta Adingabeen Defentsarako Elkarte)
- Ados, gizarte bitartekotza
- ADSIS-Bestalde
- Agiantza
- AGIPASE (Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarte)
- Alargunak (alargunen elkarte)
- Alcohólicos Anónimos
- Amarena
- Nazioarteko Amnistia
- Arco
- Arrats
- Askabide
- Terrorismoaren Biktimen Andaluziako Elkarte
- Aiarako Eri Psikiko eta Senideen Elkarte (ASASAM)
- Compartir elkarte
- Presoei Laguntzeko Elkarte (ADAP)
- Hartutako Kalte Zerebralaren Elkarte (ATECE)
- Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien elkarte (ARANSI)
- Hegaldi emakumeen elkarte
- Ume Autisten Gurasoen Bizkaiko Elkarte (APNABI)
- Aiarako Minusbaliatu Fisikoen Elkarte
- Haur Onkohematologikoen Gurasoen Arabako Elkarte (ASPANAFOHA)

- Biztanle Afroamerikarren Elkartea
- Gao Lacho Drom ijito elkartea
- Droga Gehiagi Hartzea ikertzeko eta prebenitzeko Gipuzkoako Elkartea (AGIPAD)
- Juana Mugarrieta elkartea
- Loiolaetxea elkartea
- Industri Ondarea elkartea
- Etxerik Gabeko Pertsonen Elkartea
- Servirecord elkartea
- Buruko osasuneko euskal elkartea
- Kontsumitzaileen elkartek
- Giza eskubideen aldeko beste herri batzuetako elkartek
- Torturaren aurkako elkartek eta taldeak
- Hirigintza-planek, ingurumen arazoek eta zerbitzu sareko hutsek kaltetutako herritarren elkartek eta erkidegoak: Alde Berri eta Txabarri Garbi (Sestao), Andra-Mari (Getxo), Mairuko esplotazio turistikoen kontrako herri kolektiboa, Haritzalde elkartea naturzalea eta Parkea bizirik Plataforma (Donostia), Torrolate (Labastida), Sendoa Getxoko garraio elkartea...
- Hainbat ikastetxe publikotako ikasleen gurasoen elkartek eta federakundeak
- ASPACE
- AVAIM (Tratu txarrak jasandako haurrei laguntzeko euskal elkartea)
- AZRAF
- Baikara Federazioa
- Bakeaz
- Baketik
- Behatoki
- Beroa (Gipuzkoako harrera-familien elkartea)
- Berriztu
- Beta
- Bidasoaldeko Emakumeak
- Bidesari – Kartzelako Pastoralta
- Bilbo-Etxezabal
- Bizgarri
- Bizitegi
- Lurralde guztietako Cáritas
- CEAR (Errefuxiatuari laguntzeko Batzordea)
- Herri kulturako zentroak
- Gure Erkidegoko ikastetxeak
- Euskadiko Terrorismoaren Biktimen Elkartea (COVITE)
- Etxebizitza duina izatearen aldeko taldea
- Gizarte Langileen Elkargo Ofiziala
- Lurraldeetako abokatuen elkargoak
- Hiru lurraldeetako hiesaren aurkako herritar batzordeak
- Damas Apostólicas kongregazioa
- Frantziskotarren kongregazioa

- Oblatas del Santísimo Redentor kongregazioa. Bilboko komunitatea – Oblatas Lehio Zabalik
- Siervas de Jesús de la Caridad kongregazioa
- Hainbat ikastetxetako eskola-kontseiluak
- Gipuzkoa eta Arabako Gurutze Gorria
- DEE
- Hainbat sindikatu, kolektibo eta lanbide elkarte
- Drari
- EDEX
- Eginaren eginez
- Ekimen
- Elkarbanatuz
- Elkartu
- Emaús
- Ijitoekin harremana duten irakasleak
- Ijitoen Kontseiluko erakunde ijitoak
- Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak
- Etxerat
- Atxilotuta edo preso dauden pertsonen senideak, hainbat lekutakoak
- FEDEAFES (Buruko Gaixoen Senideen Elkarteen Euskadiko Federakundea) eta federakunde horren barruko elkarteak (AVIFES, AGUIFES, ASASAM, ASAFES)
- Beti Gizartean Federazioa
- SARTU Federazioa
- FEKOOR (Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea)
- FEVAS
- EDE Fundazioa
- Etorkintza Fundazioa
- Fernando Buesa Fundazioa
- Hurkoa Fundazioa
- Intered Fundazioa
- Itaka-Escolapios Fundazioa
- Izan Fundazioa – Gizakia Helburu
- Jiménez Becerril Fundazioa
- Leizaola Fundazioa
- Mejora Fundazioa
- Zorroagako Patronatua Fundazioa
- Peñasgal Fundazioa
- Secretariado General Gitano Fundazioa
- Arabako buruko gaixoen Babes Fundazioa
- Gorabide Babes Fundazioa
- Down sindromearen Euskal Herriko Fundazioa
- Vicente Abreu Fundazioa
- Caridad-Conde Aresti Bizkaiko Fundazioa

- Gao Lacho Drom
- Gaztaroan Ekin
- Gazteleku
- Gernika Gogoratuz
- Bakearen aldeko Koordinakundea
- GGEBE-ADDSI (Gaixo dauden presoen eskubideak babesteko elkarte)
- Gizabidea
- Gizakia
- Gizardatz (Bizkaiko Ekimenerako eta Gizartean Esku Hartzeko Erakundeen Elkarte)
- Gizarterako
- Goiztiri
- Hainbat ikastegi, fakultate eta eskolatako ikasleen taldeak
- Hainbat arazo dituzten ikastetxeetako guraso taldeak
- Beren herrietako arazoak ezagutzera emateko edo lankidetzaz-egitarauen barruan gure herria bisitatzen duten beste herri batzuetako pertsona-taldeak
- Hondarribiko Alardeko talde parte-hartzaileak (Alarde Zaleak)
- Gurasoak
- Haritzalde elkarte naturzalea
- Harresiak Apurtuz (Etorkinei laguntzeko GKEen koordinakundea, honako hauek osatua: CEAR, Bilbo-Etxezabal, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, Munduko Medikuak, Saturalur, Senegaldarren elkarte, Etorkinekin Bat, e.a.)
- Hartu-emanak (Etengabeko ikaskuntzarako eta gizarte partaidetzarako adineko pertsonen elkarte)
- Hezilan
- Hizkuntz Eskubideen Behatokia
- Hogar Mary Ward
- Hontza (drogaren mendeko pertsonen laguntzeko zentroa)
- INGEMA (Matia Erakunde Gerontologikoa)
- Ekimen Ijitoa
- Lurraldeetako Birgizarteratze Institutuak (IRSE)
- Izangai
- Jaizkibel Konpainia
- Kalé dor Kayikó
- Kidetza
- Lagun Artean
- Lanberri
- Landalan
- Lantegi Batuak
- Lur gizen
- Munduko medikuak
- Mugarik gabeko Medikuak
- Mugarik gabe
- Nuevo Futuro
- Nuestra Madre de los Desamparados Gizarte Ekintza

- Gazte Justiziaren Nazioarteko Behatokia
- ONCE
- Ostatu
- Parkea Bizirik plataforma
- Kartzelako Pastoralta
- Pertsona atxilotuei laguntzeko taldeen plataforma
- Haurren elkarteen plataforma (POI)
- Geugaz plataforma
- Txingudiko erraustegiaren aurkako medikuen plataforma
- Txingudi Bizirik plataforma
- Posada de los abrazos. Besarkaden ostatua.
- Hainbat lekutako oinarritzko gizarte zerbitzuetako profesionalak
- Gizakia Helburu
- Laneratzen eta Gizarteratzen laguntzeko Bizkaiko eta Gipuzkoako Sarea (RAIS)
- San Andres egoitza
- Lurraldetako Salhaketa
- Sarea Fundazioa
- Save the Children
- Hezkuntza Zerbitzuak (berritzeguneak, hezkuntza bereziko zerbitzuak, udal zerbitzuak, Bizikidetzeta programa...)
- Sindikatuak eta sindikatu atalak
- San Vicente de Paul Elkartea
- Sortarazi
- Lurraldeetako SOS-Arrazakeria
- T-4
- TAT (Torturaren Aurkako Taldea)
- Hirugarren Ordenako Gizon Kaputxinoak
- Torturaren kontrako taldea (Santurtzi)
- Abokatuen elkargoen kartzeletako laguntzarako txandak (TAP)
- UNICEF-Euskadi
- UNICEF-Europako Ordezkaritza (Innocenti Institutua)
- Zubietxe
- Zubiko

Kasu askotan (elkarteen eskabideetarako erantzuna, talde batekiko harremanak hastea edo koordinaguneak egotea) harremanak zuzenekoak izan dira eta topaketa edo bileraren bat ekarri dute, edo beraiek kudeaturiko zentro edo zerbitzu batera egindako bisita. Beste batzuetan, esate baterako, aurreko urteetan hasitako harremanek irautean edo kasu zehatza kudeatzean, haien iraupenak ez du beti bilera berririk ekarri; batzuetan nahikoa izan da ahozko edo idatzizko informazio-trukeak egitea, edo ekitaldiren batean parte hartzea, edo materialak edo agiriak bidaltzea...

Hortaz, modu batera edo beste batera, bide batzuk edo beste batzuk erabilirik, aipatutako mugak gorabehera, azken urtean taldeekin, elkarrekin edo erakundeekin lankidetzarako formula, material eta informazioen trukeak edo bilerak izan dira, hurrengo jarduera-eremuetan:

- gure Erkidegoko zentroetan espetxeratuta dauden pertsonen giza eskubideen defentsa eta beraiantzako arretarako programak garatzea;
- ezgaitasunen bat duten pertsonen giza eskubideak ematen dien erantzuna;
- atzerritar jatorriko pertsona etorkinak gizarteratzea;
- ijito taldearen beharrezko zehatzekiko planteamendua eta erantzuna;
- buruko gaixotasunak dituzten pertsonen eta beraien familiei laguntza eta arreta ematea;
- buruko gaixotasunak dituzten pertsonak babestea;
- pertsona atxilotuak kartzelatik atera edo hurbil daitezela lortzea;
- HIESa duten pertsonen laguntza;
- terrorismoaren biktimetako arreta edo haien eskubideen defentsa;
- hezkuntza-beharrezko berezietan erantzutea;
- babesturik ez dauden eta legea urratzen duten adingabeak zaintzeko zerbitzuak kudeatzea;
- hezkuntzarako eskubidea defendatzea;
- hizkuntza eskubideak defendatzea eta euskara erabiltzea;
- droga-mendekotasunari buruzko arazoak dituzten pertsonen arreta ematea;
- hirugarren munduko herriak garatzen laguntzea eta haiekiko elkartasuna;
- etnia gutxiengoak eta bazterreko taldeak gizarteratzea;
- zona bereziki deprimituetakoko giza kohesioa eta haiek suspertzea;
- bakezaletasuna eta gatazka elkarrizketa bidez konpontzea;
- emakumeen eskubideak babestea;
- tratatu txarrak prebenitzea eta tortura-egoerak salatzea;
- baztertutako eta famili laguntzarik gabeko pertsonenganako giza eskubideak eta osasun arreta;
- hainbat talde profesionalen defentsa;
- gune publikoetara sartzeko erraztasuna;
- gaixotasun ezberdinak dituzten pertsonen arreta edo defentsa;
- giza eskubide bazterkeria larriko egoeren prebentzioa eta etxerik gabeko pertsonentzako arreta;
- ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntzeko baliabide berrien erabilera;
- eskubideen urratzeak salatzea nazioarteko eremuan;
- ingurumena defendatzea;
- familiaren laguntzarik ez duten pertsonak babestea;
- memoria eta biktimen oroitzapena;
- arrazakeria eta diskriminazioa eragoztea eta salatzea;
- adinekoek giza eskubide bizitzan parte hartzea;
- haurren eskubideak;
- proiektu edo jarduerak eragindako auzokide elkarten eskubideak;
- babesik gabeko nerabeak hartzea;
- justiziarekin arazoak dituzten nerabe eta gazteentzako arreta;

Zenbait kasutan, elkarrekin lankidetzan Ararteko erakundeak berak egindako lan monografiko batzuetan finkatu da eta haietan hasi zen, bere garaian.

Esate baterako, etxerik gabe edo larriki baztertuta dauden pertsonentzako arretari buruzko txostena egiteko, lankidetzan aritu ahal izan dugu zerbitzuak (hala nola ostatuak,

jantokiak edo gizarteratzeko tailerrak) kudeatzen dituzten elkarte edo erakunde gehienekin (Agiantza, Askabide, Elkarbanatuz, Bidezari, Bizitegi, Beta, Ostatu, Goiztiri, Zubietxe, Izangai, C aritas, Lagun Artean, Ema s, RAIS, erlijio kongregazio ezberdinak, etab.). 2007an, txosten horren jarraipena egiteko bide gisa, biztanle talde honentzako arreta eskaintzen diharduten 45 elkarteak Ararteko erakundeak lurraldeetako bakoitzean antolatu zituen bileretara gonbidatu ziren. Bilera horietan elkarte gehienak izan ziren.

Halaber, bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoerari buruzko txostena egiteko, etengabe harremanak izan ditugu harrera-baliabideak kudeatzen dituzten edo adingabeok gizarteratzen laguntzen duten erakundeekin (Gurutze Gorria, Nuevo Mundo, Hirugarren Ordenako Gizon Kaputxinoak, Landalan, Salestarrak, Harresiak Apurtuz koordinakundea...).

Askoz ere lehenagoko txostenei dagokienez, lankidetzamota horrek, informazioa lortzekoa eta guk zehazki aztertutako gaiari jarraitzekoa askotan izan denak, eremu askotan irau du urtean. Eremu horien artean honakook ditugu: buruko gaixotasunen arreta komunitarioa (AVIFES, ASAFES, ASASAM, AGUIFES, FEDEAFES); kartzelan dauden pertsonentzako laguntza (ADSIS-Bestalde, Etorkintza, Izangai, Gizakia Helburu, Bilbo-Etxezabal, Kartzelako Pastoralta, Hegaldi...).

Beste batzuetan, elkarteekiko harremanak elkarteok antolaturiko ekitaldietan edo foro zehatzetan batera parte hartzeari esker izan dira, edo kexa jakin batzuk tramitatzearen edo arazoren bat konpontzeko jardueraren kariaz, edo agiriak eta materialak elkarri trukatu.

Adibide gisa, laburki aipatu ahal ditugu Ararteko erakundeak lankidetzamarko honetan 2007an burututako zenbait jarduera esanguratsu. Honela:

- Esan bezala, hainbat zerbitzu ikustera joan gara, edo elkarrizketak eta bilerak izan ditugu zerbitzu horietan lanean dabiltzan profesionalekin. Horiei esker aztertu ahal izan ditugu elkarteen eta administrazioen arteko zenbait hitzarmen edo harreman bideren ezaugarriak, horiek lan baldintzetan edo emandako zerbitzuaren jarraitasunean duten eragina, diru-laguntzak jasotzean izandako atzerapenen ondorioak edo laguntzok jasotzeko bermerik ez izatea... Elementu horiek abiapuntutzat hartu dira gizarte esku-hartzeko sektorearen lan baldintzak aztertuko dituen hurrengo ezohizko txostena egiteko.
- Era berean, hirigintzako plan eta jarduerari eta berauen ingurumeneko eraginei eta ondorioei buruz jasotako kexa asko plataformetan antolaturiko pertsonen taldeek, auzotarren elkarteek, jabeen erkidegoek, talde ekologistek eta abarrek eragin dituzte. Haietako batzuen berri emana dugu txosten honen hirigintzaren eta ingurumenaren arloei buruzko azpiataletan. Udan egin zen herritarren partaidetzarako foroak elkarlanean heldu nahi izan zion gai horri.
- Inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren harrera-zentroetara aldizka bisitak egin dira eta zentro horiek kudeatzen dituzten elkarteekin harremanetan egon gara, eta, horri esker, euren egoeraren jarraipena egin ahal izan dugu. Horri buruz luze eta zabal hitz egiten da txosten honetan bertan (adingabeen behin-behineko harrerarako zentroa).
- Urtean egindako bisitetako askori esker (adibidez, baztertuta daudenentzako gaueko harrera-zentro edo zerbitzuetara, erreforma zentroetara, harrera-zentroetara...) baliabideak kudeatzen dituzten elkarteekin harreman zuzena

izaten da, egoeraren berri egunez egun izaten da, gure gomendioak betetzen dira, jarduera berriak bultzatzen dira...

- Erakunde honek beti lehenetsi ditu terrorismoaren biktimen elkarte eta fundazioekin nahiz biktimekin beraiekin edo haien senideekin izandako harremanak. Elkartasuna erakusten eta babesa ematen saiatu da erakunde, deitutako ekitaldietan parte hartu du eta haiengandik hurbil dagoela erakutsi du. Hori biktimei buruzko txostena egiteko ere hartu da.
- Presoei laguntzeko elkarte askorekin harremanak izan ditugu aldizka. Horrek aldez ordeztu du espetxeetara zuzenean sartu ezina. Horrela, datuak elkarri trukatu ahal izan dizkiogu, eta ofiziozko jarduera edo borondate oneko kudeaketa batzuk abiarazi ahal izan ditugu.
- Harremanak izan ditugu hainbat talde bakezalerekin, gatazketan bitartekari gisa ari diren elkarrekin eta ikastetxeekin. Haiek bultzatuta, erakunde honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari bakerako hezkuntzari buruzko proposamen orokorra aurkeztu zion, eta proposamena garatzeko ekarpen eta bultzada bezala, giza eskubideetan hezteko eskolan erabiltzeko ziren materialak egiteko eta hedatzeko lau lankidetzak-bekatarako deialdia egin zuen. Era berean, "Haurren Legea"ri buruzko herriz herriko erakusketa antolatu du, edo giza eskubideei buruzko eskola-lanen III. Lehiaketa (hau datorren urtean ebatziko da).
- Laguntza-elkarte batzuek salaketak egin dituzte gai hauen gainean: atzerritar jatorriko pertsonak atxilotzea edo kanporatzeko agindua, jasotako polizi tratuak, erroldatzeko arazoak, atzerritarrak enplegu publikoko deialdi edo enplegu horren eskaintza batzuetatik baztertzeko baldintzak edo hedabideetan zenbait berri tratatzeko modua. Salaketa horiek mota ezberdineko jarduerak ahalbidetu dituzte: eskudun agintaritzaren aurreko bitartekotzak eta kudeaketak, kexak izapidetzea, ofiziozko jarduerak, berriazko gomendioak...

Hainbatetan, elkarrekin izandako harremanak haien funtzionamendu arazoak jasotzeko ere balio du: oztopoak aurkitzen dituzte beren lana burutzeko, beraien arteko koordinaziorako mekanismoak eta lankidetzak egonkorrerako bideak finkatzeko, beren programekin jarraitzeko, erakundeekiko topaguneak izateko, erakunde planetan, egitarauetan edo arauetan parte hartu edo ekarpenak helarazteko... Aurreko txostenetan gai horiei buruz ari izan gara, proposamenak egin edo zenbait ekimen nabarmendu ditugularik: diru-laguntzak urtero gaintitzea, elkarteen eta erakundeen baterako foroak ezartzea, hala nola, etorkinak gizarteratzeko Foroa, Sasoikakotasunari buruzko erakundearteko Mahaia eta ijito herriaren partaidetzarako Kontseilua, Boluntarioei buruzko Legea; alde bakoitzaren lankidetzak-hitzarmenetako erantzukizunak argitzea, ... Gizarte esku-hartze hirugarren sektoreko lan baldintzei buruzko hurrengo txostenak arazo horietako batzuk sakon aztertuko ditu eta irtenbideak proposatuko ditu.

Erakunde honen iritzi, antolatutako gizarte zibilaren eta zerbitzu eta administrazio publikoen arteko lankidetzak sustatu eta horretarako laguntza eman behar da, dauden baliabideak hobeto erabiltzeko. Gizarte eragileek aktiboki hartu behar dute parte. Hala ere, erakundeek herritarrei zerbitzuak egiteko erantzukizunak hartu behar dituzte eta askotan egokitzen zaien buruzagitzak berenganatu. Ildo horretatik, jada 2001eko txostenean gomendio orokor bat egin zen, askotan elkarrekin kudeatzen dituzten talde

ahulentzako zerbitzuak sortzeko erakunde buruzagitzari buruz. Azken urteotako esperientziak (herrietan zentro edo zerbitzu berriak zabaltzeko administrazioek eurek dituzten zailtasunak) berriro ere agerian jarri du oso garrantzitsua eta beharrezkoa dela aipatutako gomendioan egin ziren proposamenak kontuan hartzea.

Bestalde, hainbat zerbitzutan egindako ikustaldietan, edo bileretan edo jasotako kexetan, oraindik konpondu gabe dauden arazoak egiaztatu ditugu berriz, esate baterako, diru-laguntzen deialdi batzuk ebatztean atzerapenak egon direla. Horrek egoera larri eta zailetan jarri dituzte elkarteak nahiz abian zeuden egitarauak, eta oso eragin kaltegarria izan du, ez elkarteetan bakarrik, baizik eta, batez ere, elkarteok laguntzen dituzten herritar eta taldeengan.

Kontuan hartu behar da gizarte arloan lanean dabiltzan elkarteak izaten direla askotan. Elkarte horiek bereziki bazterturik bizi diren pertsonen arreta eskaintzeko egitarauak burutzen dituzte, sarritan bestela egongo ez liratekeen edo nahikoak ez diren baliabide eta zerbitzuak kudeatzen dituzte, erakundeek erantzukizun nabarmena duten arreta-eremuetan jarduten dute, eta administrazioen beren gabeziak betetzen dituzte. Hortaz, arrazoizkoa omen da beharrezko laguntza guztia eta beren programetarako berme handiagoa lortzea.

Ildo horretan, Arartekoak, ofiziozko espedienteen bidez elkarte askotan eragin handia izan zuten 2003 eta 2004. urteetako deialdiei buruzko datu objektiboak bildu eta gero, 2005eko txostena prestatu zuen eta, bertan, izenburu hau zuen gomendio orokorra egin zuen: "Eremu sozialean lan egiten duten elkarteetarako erakunde laguntzako bideak eta prozedurak hobetu beharra".

Hori eta hemen bildutako beste gai batzuk sakonago aztertuko ditugu gure hurrengo ezohizko txostenean, gizarte esku-hartzeko hirugarren sektoreko lan baldintzei buruzkoan.

1.2. ARARTEKOAK EMATEN DITUEN IKERKETA BEKAK ETA ARARTEKOAREN ARGITALPENAK

2007an Arartekoaren beka jaso zuten lau ikerlan amaitu dira; horiek jada argitaratu eta jendaurrean jarri dira. Honako hauek dira:

- *Osasun arloko gizarte desberdintasunak EAEko biztanleen artean* izeneko lana, Amaia Bacigalupek eta Unai Martínek egina. Juan San Martín bilduman argitaratu da.
 - *Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular* izenekoak, José Zarauzek egina. “Padre Francisco de Vitoria” giza eskubideen bilduman argitaratu da.
 - *Biztanleria magrebtarra Euskal Autonomia Erkidegoan. Egoera eta itxaropenak* izeneko lana, Juan Luis Fuentesek eta Trinidad L. Vicentek zuzendua eta, bere garaian, Bizkaiko IRSEri esleitua. Juan San Martín bilduman argitaratu da.
 - *Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi* izenekoak. “Padre Francisco de Vitoria” giza eskubideen bilduman argitaratu da.
- Aipatu lanetatik lehenak biztanle guztientzat oso garrantzitsua den gaia jorratzen du, hots, **osasun arloko gizarte desberdintasunak**; eta aldagai jakin batzuek –bereziki, gizarte klaseari eta generoari lotutakoek– pertsonen osasunean duten eragina, saihesteko modukoak eta bidegabeak diren aldeak sortuz. Azterlanak garbi uzten du osasuneko desberdintasunak ez daudela gure artean bakarrik; aitzitik, oso esanguratsuak dira eta, are gehiago, belaunaldi batetik bestera ere heredatzen dira. Gainera, ez da soilik aberatsen eta txiroen arteko zerbait, baizik eta gizarte osoan dute eragina eta, hala, zenbat eta baxuagoa izan gizarte klasea, orduan eta kaskarragoa da osasuna. Hortaz, gutxi landu dugun gaian jartzen du arreta. Horretarako, zehaztasun handiz jokatzeko eta oso aberatsak eta ahalik eta berrienak diren datu baseetan oinarritutako metodologia erabiltzen du.

Gizona edo emakumea izateak, lan ordaindua izateak edo ez izateak, leku batean edo bestean jaio izateak, eskulangilea izateak edo ez izateak, lan ordaindua etxeko beste zama batzuekin bateratu behar izateak... ba al dute eraginik osasunean? Eta, hala bada, nola eragiten dute? Zer neurritan? Zer eragin dute faktore batzuek eta besteek? Osasuneko zer alderditan eragiten dute?... Azterlanak faktore horiek eta beste batzuek bizitzan hainbesteko balioa duten zenbait alderditan (besteak beste, urte gehiago edo gutxiago bizitzeko, urte kopuru hori osasun hoberekin edo kaskarragoarekin bizitzeko, aldi baterako mugapenen bat edo mugapen kronikoren bat jasateko nahiz bizimodu osasungarriagoak edo ez hain osasungarriak izateko aukeran) duten eragina aztertzen du.

Hipotesietako batzuk berresten ditu, neurri handiagoan edo txikiagoan espero zen moduan, baina, aldi berean, agerian uzten du askotan erantzun bakunek ez dutela

balio: emakume batek lan ordaindua izateak beti ez dakar osasun hobea izatea. Hainbat faktoreren arabera dago, esaterako, zer lan duen eta, bereziki, familian zer zama dituen eta, bikotekidea izanez gero, horrekin partekatzen ote dituen.

Hain zuzen ere, azterlanak zalantzan jartzen ditu berdintasunari, osasunari, desberdintasunen zuzentzaile gisa osasun sistemak duen garrantziari edo gure gizartea ekitate handiagorantz izaten ari den bilakaera positiboari buruz ditugun estereotipoetako asko.

- Bigarren lanak **udal erroldan** jartzen du arreta, pertsona askok bizi diren udalerrian erroldatzeko dituzten zailtasunetan. Gai horren ondorioz hainbat kexa jaso dira eta hainbatetan jardun behar izan du Arartekoak

Ikerlan honek erroldaren azterketa orokorra egiten du. Alde batetik, erroldaren alderdi teoriko eta legalean, izaeran, tratamendu historikoan, araudian, eginkizunetan, eskumenean, etab. sakontzen du. Bestetik, atzerritarrek beren eskubideez baliatzean duen eragina ere aztertzen du eta, errealitatea aztertuta, zenbait ondorio aurkezten ditu. Baina ez du, soilik, arazoaren egoera aurkezten; aitzitik, agerian uzten du udalen jardueretako askok ez dutela babes juridikorik edo beste irtenbide batzuk eman behar litzazkiekeela udalerrian bizi ohi diren pertsonen erroldatzearekin erlazioatutako eskubideak eta zerbitzuak eskura ditzaten.

Hortaz, lanak pertsonen eskubideak eta, bereziki, legez kanpoko egoeran dauden pertsonen eskubideak azpimarratzen ditu. Pertsona horiek gure hiri eta herrietan bizi dira, nahiz eta, paradoxikoa bada ere, ez den hori aurreikusten ez inmigrazio politikan ez atzerritarrak Europar sartzeari edo Espainian bizitzea erregulatzen duen lege araudian. Horrela, ikus dezakegunez, pertsona horiek ez dute baimenik bertan lan egiteko, ezta bertan bizitzeko ere; edozein unetan, zigor prozedura has daiteke beren aurka eta, halakoaren baitan, atxilotu eta herrialdetik botako lituzkete edo egoitza-baimena lortzea zailduko luke. Alabaina, hilabeteak igaro eta bertan bizitzen jarraitzen dute. Halaber, ikus dezakegu pertsona horiek, guk guztiok bezalaxe, elikagaiak, etxebizitza, lana eta harremanak behar dituztela eta garatu eta aurrera egin behar dutela.

Horregatik, ikerlan honek garrantzi praktikoa handia du eta erroldatzea ahalbidetzen saiatzen diren eta, askotan, inolako lege oinarriarik gabeko ukoekin topo egiten duten erakunde, gizarte elkarte eta pertsonen ahaleginak bultzatzeko balio izatea espero dugu. Hortaz, Arartekoak adierazitako aurkako joera indartzen du; izan ere, honek beti esan izan du arauak eskubideez baliatu ahal izateko eta ordenamendu juridikoan aurreikusitakoak haraindi ez murrizteko moduan interpretatu behar direla. Zehazki, legez kanpoko egoeran bizi diren atzerritarrek erroldatzeko eskubidea dute.

- Goian aipatutako lanetatik hirugarrenak Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen **biztanleria magrebtarraren egoera eta itxaropenak** aztertzen ditu. Ezaugarri jakin batzuk dituen –kulturalak, erlijiosoak...– eta, azterlan guztien arabera, bertako biztanleek nabarmen saihestu edo gaitzetsi egiten dituen atzerritarrak ikertzen ditu.

Lanak, funtsean, beren ahotsa, esperientzia, iritziak, proposamenak... bildu nahi ditu eta, horretarako, berrogei magrebtarrei elkarrizketak egin zaizkie, nola gizonezkoak hala emakumezkoak. Lanaren zatirik garrantzitsuena elkarrizketa horietan lortutako informazioaren analisisa da. Lortutako informazioa gai edo kapitulu ezberdinetan “antolatu” da:

- Beren gizarte egoera (migrazio proiektuak, hasierako harrera, etxebizitza eskuratzeko aukera, famili eta laguntza sarea...).
- Islamarekiko beren bizipena (otoitza, mezkidak, hilerriak, elikadura, jantziak...) eta horren bilakaera.
- Beren gizarte bizitza eta dituzten harremanak (lagunak, elkarguneak, bertako biztanleekiko harremana eta horri buruzko iritziak...).
- Beren nortasuna eta integrazioa (beste hizkuntza batzuk ikastea, ama-hizkuntza mantentzea, Islama erakustea, parte-hartze soziopolitikoak...).

Baina, azterlanaren zatirik garrantzitsuena hori izan arren, lanak beste informazio eta datu batzuk ere ematen ditu hura dagokion testuinguruan kokatzeko: EAEn bizi den biztanleria magrebtarraren ezaugarriei buruzko datuak (kopurua, jatorria, sexua, adina...) eta horien bilakaera, eta jatorri herrialdeei buruzko datuak (demografikoak, ekonomikoak...). Horrez gain, “Ondorioak” izeneko kapitulua du, laburpen gisa. Bertan, biztanleria magrebtarraren premiak eta eskaerak biltzen dira eta horiek pertsona horien integrazioa ahalbidetzeko eta beren eskubideak behar bezala betetzen direla bermatzeko erabaki politikoak hartzen lagun gaitzake.

- Azkenik, 2007an amaitutako ikerlanen artean, aipatutako laugarren azterlanak **emakume lesbianek Euskadin duten ikusgaitasuna eta parte-hartzea** lantzen du.

Lan hau 2007ko abenduan argitaratu da; arartekoak eta ikerlanaren egileak, hots, Inmaculada Mujika Floresek, aurkeztu zuten hedabideetan. Ikerlan honetan, egileak EAEn lesbianek gizartean duten ikusgaitasun txikia aztertzen du, hori eragiten duten arrazoiak eta horrek lesbianentzat eta, oro har, gizartearentzat dituen ondorioak ezagutze aldera.

Lan honen bidez ikus daiteke, gai horren inguruko legetan aurrerapen ugari egin diren arren, gure gizarteak mugatzailea eta, batzuetan, negatiboa izaten jarraitzen duela lesbianismoa berdintasun, askatasun eta duintasunez bilakatzeko. Horregatik, Ararteko erakundeak, lan hau argitaratuta, ohartarazi nahi izan du hainbat bizimodu daudela eta guztiak osorik bizi behar direla; horretarako, beharrezkoa da bai gizarteak bai botere publikoek lesbianen egoera hobetzen laguntzea, pertsonen berdintasuna defendatzeko tresna publikoetan orain arte ahaztuta egon den ikuspegi hori barneratuta.

2006-2007ko ekitaldian ikerketa-beken ildoari amaiera ematea erabaki zen eta ikerketa aplikatuko bi bekaren deialdia egin zen. Horiek, 2007ko martxoaren 8ko

erabakiaren bidez, INGEMARi lotutako profesional talde bati eta Matía Fundazioari eman zitzaizkien, adinekoen eskubideei eta hainbat eremutan (egoitzetan, eguneko zentroetan...) eta egoeratan (nola mendetasunekoan hala autonomiakoan) behar ez bezalako tratua saihesteari buruzko ikerketa egiteko.

2007an lan sistematikoa egin da bai ikuspegi teorikoagoan (lege esparrua edo arreta-ereduak aztertuta) bai Fundazioak berak kudeatutako zentro eta baliabideetan aplikatuta.

Aurreikuspenen arabera, ikerlana 2008ko lehen hiruhilekoan amaituko da eta, behin berrikusi eta argitaratuta, interesdunei eta, bereziki, adinekoak artatzen dituzten talde eta profesionaleri zenbait jarraibide, orientazio eta tresnak eskaintzea espero dugu, pertsona horien eskubideak bertan hobeto bermatzen eta eskaintzen zaien arretaren kalitatea hobetzen lagunduko dutelakoan.

Erabaki beraren bidez beka bat eman zaie Ana Isabel Pérez Machío, Laura Pego Otero eta Izaskun Orbegozo Oronozi, "Incomunicación: eficacia *versus* derechos humanos" izeneko azterlana egiteko.

Une honetan, ikerlan horiek prestatze bidean dira.

Bestalde, 2007-2008ko ekitaldian, ikerketa aplikatuko bi beken deialdia egin da; txosten hau egiten amaitutakoan, esleipen fasean dira. Azpimarratu beharrekoa da horrietako baten helburua "*gure erkidegoan zenbait giza eskubide nola aplikatzen diren aztertzea da, nagusiki egoera bereziki ahulean dauden taldeei dagokienez*". Bestea, berriz, "*Euskal Autonomia Erkidegoan txirotasun edo desberdintasun egoerak genero ikuspegitik aztertuko dituen lana*" izango da. "*Bertan, txirotasuna, desberdintasuna, behin-behinekotasun ekonomikoa edo lanekoa aztertuko dira, betiere, aztertutako egoeretan emakumea izateak eraginik baldin badu.*"

1.3. HERRITARREN PARTAIDETZARAKO III FOROA: “BIZIKIDETZA ETA GATAZKAK IKASTETXEETAN”

2007ko maiatzaren 24an, Ararteko erakundearen deialdiari jarraiki, ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei buruzko partaidetza-foroa egin zen Bilboko Euskalduna Jauregian.

Foroak bi zati izan zituen. Goizez, xede horretarako deitutako berrogei bat pertsonak (horien artean, irakasleak, zuzendariak, laguntzaileak, ikuskatzaileak, ikertzaileak, sistema judizialeko pertsonak...) zortzi gai hauen inguruko hausnarketak eta ekarpenak egin zituzten:

- Eskola-giroan eragin positiboa edo negatiboa duten faktoreak.
- Bizikidetzako praktika onak.
- Administrazioaren eginkizuna.
- Ikastetxeen antolaketa.
- Eskolako jazarpen egoeretan edo tratu txarreko egoeretan nola esku hartu.
- Sistema judizialaren eginkizuna.
- Zer ebaluatu edo ikertu behar litzatekeen.
- Zertan lagun dezakeen Arartekoak.

Arratsaldez, ehun bat pertsona bildu zituen saio irekian, Arartekoak berriki argitaratu den *Bizikidetzaren eta gatazkek ikastetxeetan* izeneko ezohizko txostenaren laburpena egin zuen eta gai honetan aditua den María José Díaz-Aguado irakasleak konferentzia eman zuen, “Hacia un nuevo modelo de convivencia. Del acoso escolar a la cooperación en las aulas” izenburupean. Bi esku-hartze horien ondoren, mahai-ingurua egin zuten foroan parte hartu zutenek.

Esku-hartze guztiak idatziz jaso ziren eta, une honetan, horiek berrikusten ari gara, aurki argitaratu ahal izateko.

Oraingoz, eta behin betiko argitaratu bitartean, aipatu testuak Arartekoaren web orrian kontsulta daitezke.

1.4. HAUSNARTZEKO ETA HERRITARREK PARTE HARTZEKO IV. FOROA: “HERRITARREN PARTAIDETZA: FIKZIOA ALA ERREALitatea?”

EHUko UDAKO IKASTAROETAKO JARDUNALDIA: “HE- RRITARREK INGURUMENEAN EDO GIZARTEAN ERAGINA DUTEN AZPIEGITUREI BURUZKO ERABAKIETAN PARTE HARTZEA”

1997az geroztik Ararteko erakundeak giza eskubideei buruzko azterketa- eta eztabaida-jardunaldiak antolatzen ditu EHUko udako ikastaroetan.

Erakunde honetako idazkari nagusiak, hots, Faustino López de Forondak, eta EHUko katedradun Gurutz Jáureguiuk zuzenduta, jardunaldi honetan, GAI hau auke-ratu zen: “herritarrek ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan parte hartzea”

Lehen aldiz, jardunaldi hauek hausnartzeko eta herritarrek parte hartzeko foroarekin bat egin zuten. Kasu honetan, hausnartzeko IV. foroaren izenburua hauxe izan zen: “Herritarren partaidetza: fikzioa ala errealitatea?” izan zen.

Uztailaren 5ean Donostian egin zen foro honetan, mahai-ingurua egin zen unibersitateko irakasleekin, adituekin eta elkarte eta erakundeetako ordezkariekin eta, bertan, ondorengo gai hauek eztabaidatu ziren:

1. Zein izan behar du herritarren parte-hartzearen xedeak? (gairik nabarmenenak, gaien garrantzia, hedabideen garrantzia, biztanleen zati handi batean eragitea, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki, etab.)
2. Zergatik ingurumena edo osasuna?
3. Zeintzuk dira parte hartzeko biderik onenak edo nola eragin daiteke ongien bukaerako erabakian? (parte-hartzea bultzatzeko guneak, kontsultak, aholku kontseiluak, biztanleei entzuteko eta alegazioak aurkezteko izapideak...)
4. Zer instantziatan bultzatu behar da herritarren parte-hartzea? (toki administrazioak, beste administrazio batzuk, botere instantzia guztiak ...)
5. Zer eragotzen daude praktikan? (administrazio publikoen eta klase politikoaren jarrera, ordezkari-tza-sistema, lege sistemaren mugak, herritarren babes falta, etab.)
6. Gizarte mugimenduek parte-hartzearen arloan dituzten ahalmenak eta mugak (barne zailtasunak, buruen beharra, gizartean, mugimendu ekologistan eta bestelakoan eragiteko ahalmena).
7. Alderdi sistema eta herritarren elkartegintza (harremanak, arazoak eta zailtasunak).

Eztabaida interesgarri eta aberatsa kontalari gisa aritu zen Almudena Cacho kazetariak prestatutako agiri batean bildu zen. Bertan landutakoa laburbiltzen duen agiri hau, topaketa egin eta ordu batzuk beranduago aurkeztu ahal izateko prestatu zena, bere horretan mantendu da, ahozko eztabaidaren bizitasuna jasotzen baitu. Honela dio:

“ARARTEKOAREN SARRERA

Gai honen inguruko eztabaida irekia eta ordenatua egiteko gonbidapena egin da. *HERRITARREN PARTAIDETZA: FIKZIOA ALA ERREALITATEA?*”

“Herritarrek ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan parte hartzea”

TOPAKETAREN INGURUKO SARRERA

*Iñigo Lamarca*k adibide zehatzak eman ditu:

Buru duen erakundeak berak kudeatutako gaiak aipatu ditu, baita erakunde horretan landu ez diren beste gai batzuk ere, esaterako, erraustegiak (Arartekoaren bulegoak Txingudiko erraustegiari buruz jasotako kezan izandako esku-hartze aktiboa, baita Zubietako proiektuari buruz aurkeztutako beste kexa batean ere). Alderdi horiez gain, hirigintzako proiektuek duten eraginaz ere hitz egin du, auzotarren protestak sortzen baitituzte, eta, harrera-zentroak, adinekoentzako egoitzak, etab. sustatzea eta instalatzea helburu duten proiektu solidarioek edo beharrezkoek gizartearen aldetik jasotzen duten erantzunaz mintzatu da. Abiadura handiko trena aipatu da jada, eztabaida osoan gairik garrantzitsuenetakoa, errausketarekin eta hirigintzarekin batera.

Eztabaida irekia eta ordenatua izango dela esatea asmo onen adierazpena da beti, era honetako iritzi trukeetan gertatu ohi den bezala. Premisa modura, lehena, hots, eztabaida irekiarena, inolako zalantzarik gabe, benetakoa da.

Hala, bada, lehen txandan, parte-hartzaileek (guztira, bederatzi) zenbait alderdi zehaztea erabaki zuten hitzorduaren xedea finkatzeko, hots, herritarren parte-hartzea; eta, ondoren, libreki esku hartzeko aukera eman zen, hitza eskatu ahala, eta ondorio posibleak aurkeztu ahal izan ziren, horietarako berariazko atalik egin gabe.

Esku-hartzeetan euskara eta gaztelania erabili genituen, aldibereko itzulpenarekin. Eztabaida arratsaldeko lauak eta erdian hasi zen eta seiak eta erdira arte ez genuen etenik egin. Ordu horretan finkatu zen bilera zazpiak eta erdian amaituko zela; aitzitik, bilkura zortziak emateko bost minutu falta zirenean jo zen bukatutzat.

Jarraian, bertan hitz egin genuenaren berri emango dizuet; laburpena da eta, beraz, definizioz, osagabea da. Gutxitan ekarriko ditut ahotara parte-hartzaileak beren izena eta “kargua” aipatuta. Pertsonen baimenarekin, batez ere kontzeptuez hitz egingo dut. Nolanahi ere, laster izango dituzue eskuragarri hitzaldiari dagozkion testuak, osorik, topaketaren sintesi honen ikuspegia zabaldu nahi izanez gero.

EGOERA, EZTABAIDAREN DEFINIZIOA

Zein izan behar du herritarren parte-hartzearen xedeak? (gairik nabarmenena, gaien garrantzia, hedabideen garrantzia, biztanleen zati handi batean eragitea...)

Sarrien jaso dugun erantzuna honakoa izan da: “herritarrei eragiten dieten kontu guztietan. Jendeak nahi duen guztian parte hartu behar du”.

1.–Iñaki Barcena irakaslearen arabera, eremuak askotarikoak dira. Hemen aintzat hartutako lurralde eremua EAE da, ez NBE edo Estatuak. Jendeak parte hartzeko aukera izan behar du eta, hala eskatzen duenean, informazioa eman behar zaio, baita hitza ere, entzuna izateaz ez ezik, parte hartzeko aukera ere izan dezan.

- Azpimarratu beharreko lehen esaldietako bat sortu da: herritarren parte-hartzea moda-kontua al da, garapen iraunkorra bezala?
- Beste gai bat enpresaburuena da: zergatik ez dira honelako foroetan izaten?
- Eta beste kontu bat: presioa eragiten duten taldeek, hots, protesta egiten dutenek, beren ordezkari gisa bakarrik ez dihardutela erakutsi behar dute.

2.–Donostiako udal eremuan lan egiten duen Eva Salaberría parte-hartzeko teknikariarentzat, herritarren parte-hartzea eskubide bat da, baina baita zerbait gehiago ere. Beste zerbait horretan parte-hartzea sustatzen duenaren borondate politikoa dago; borondate hori gabe, eskubidea ezerezean geratzen da. Behar bat ere bada. Prozesu bat da, ez une bat, eta, gainera, eragin handikoa, eraginik gabe, ez baitago parte-hartzerik. Herritarren parte-hartzeak gizartea aldatzeko ahalmena izan behar du. Eragin handiko premia hori antolatzea oso zaila da.

Udalak beste modu batera ulertzen du herritarren parte-hartzea: informazioa, kontsulta, erabakiak hartzea. Garrantzitsua da parte-hartzea zer den argitzea: ikuspegi horretatik, errealitate konplexuari aurre egiteko ikuspegi ezberdinetatik egiten den ekarpena da. “Hezkuntzaren” kontzeptua sortu da: parte-hartzea hezkuntza-prozesua da, baina guztiona da.

Administrazioaren lana ere defendatu da, hura deabrutzat ez hartzeko eskatu da, eta premisa bat aurkeztu da: elkarrekin egin behar da lan, baina guztiak nahastu gabe; bakoitzak bere lekuan egon behar du: politikariek, herritarrek, teknikoek, etab.

Hala ere, ideiak trukatzekoan, Administrazioa ez zen ondo atera; informazioa eskatzen zitzaionean eragozpenak jartzen zituela adierazi zen, datuak ezkatzen zituela eta, beharbada, kontsultatutako gaietan gezurra ere esaten

zuela, pertsonetikiko edo gizarte mugimenduekiko mesfidantzaz jokatzeko zuela eta harreman txarra zegoela oro har eta kasu jakin batzuetan.

- 3.–Florent Marcellesi ekologistaren ustez, herritarren parte-hartzeak ez du mugarik, baina bai mailak (informazioa eskatzekoa eta kontsultak egitekoa). Beste parte-hartzailearen batek ere adierazi zuen bezala, herritarren parte-hartzeak aktiboa izan behar du, hasieratik bukaerara.

Interesgarria da politikarien inguruko deskribapena: horiek kontsulta egin edo informazioa eskatzeko mailan geratzen dira.

Berdeak aipatu dira: horientzat, konpondu beharreko defizit demokratikoa dago (adi kontzeptu honi, berriz ere aipatuko baita bileran).

Bigarren aldiz, hezuntza aipatu da; kasu honetan, herritarren parte-hartzea haurtzarotik nola ikasten den aztertu behar da.

Bileran lehen aldiz ohiko ibilbide baten deskribapena egin da: berdeen mugimenduetatik politikara egiten den bidea. Gauzak aldatu ahal izateko boterea lortzea.

- 4.–Manu González aholkulariaren ustez, guztia sartzen da herritarren parte-hartzean. Gainera, jada badugu esperientzia horretan (adibidez, nuklearrei buruzko euskal eztabaida). Ingurumena argi eta garbi herritarren parte-hartzean lantzen bada, hori hain da zeharkakoa, ezen eremu guztiak barneratzen dituela esan baitaiteke.

Parte hartzeko mailei buruzko hausnarketa egin da. Azpiegiturei buruzko erabakietan beti berandu ibiltzen garela aipatu da. AHTren kasua paradigmatikoa da: jada 80ko hamarkadan lurzoru erreserbak egiten ziren. Hortaz, herritarrek etorkizuneko proiektuetan parte hartzea funtsezkoa da.

Ondorioetarako bat: eskizofreniak jotako gizartean bizi gara; gure gizarte ereduak ezin iraun dezake eta zoritzarrekoak egiten gaitu, baina, hala ere, hori sustatzen jarraitzen da.

Herritarren parte-hartzea lortzeko, gardentasuna nabarmendu behar da (mahai-inguruan funtsezko kontzeptu gisa jasoko da, datuak, informazioa edo azalpenak ezkutatzearen aurka), ituna egiteko gizarte erronka onartu behar da etorkizunean esku hartzea ahalbidetu behar da.

- 5.–Carlos Alonso abokatu eta ekologistak esan du ados dagoela lehen esandakoarekin; alegia, guztia sartzen dela herritarren parte-hartzean. Hala ere, bukaerako erabakian eragiteko ahalmena duten prozesuetan jarri du arreta. Hau mahai-inguruan defendatu den herritarren parte-hartzearen funtsarekin bat datorren kontzeptua da.

Egoera bakoitzaren arabera egongo diren eredu, sistema eta bitartekoen aniztasunaz hitz egin da.

Definizioa eta ondorioa: herritarrek parte hartzeko eredu bat halakotzat jotzeko, hartzeaz dagoen edo jada hartu den erabaki batean eragina izan behar du, nola hori berretsita hala zuzenduta.

Eremua: hainbat aukera izan dira kontuan: adib., Boroa kasua. Eremua: Zornotza (Bizkaia) al da? Edo beharbada Ibaizabal Garaiko eskualdea? Edo agian Bizkaia? Edota EAE osoa?

Abiadura handiko trena: eremua zeharkatzen dituen udalerrriak al dira?

Herritarren parte-hartzeak erabakian eragina izan dezan, oso garrantzitsua da UNEA: noiz? Proiektua garatzen hasi aurretik.

AHTri dagokionez, herritarrek parte har dezaten aurkez al daiteke orain? Zenbat eta beranduago izan, orduan eta ahalmen txikiagoa erabakian eragiteko.

6.–Mahai-inguruan Julia San José ere izan zen, maiatzaren 27an Irunen eta Hondarribian herritarren hauteskunde plataforma sortu zuen Médicos por Txingudi elkarteko kidea.

Herritarren parte-hartzea eskubide bat da eta hutsik geratu behar ez duen espazio bat. Ekintzaren indibidualtasuna babesten zuen. “Nimby” izenekoak (Not In My Back Yard (nire etxearen atzealdean ez), “nire etxean ez” delakoaren baliokidea). Parte hartzen ikasi behar da, orain taldeka eta bihozkaidei jarraiki egiten baitugu. Beste parte-hartzaile batek uste du, eredu indibidualistarekin alderatuta, tokikoa edo banakakoa denetik globala denera igarotzea “erronka” dela. Nimby-ak goraiatu ordez (zerbait egin behar dut, ez baitut nahi nigan eragin duen zerbait; ez dut hori nahi ez etxean ez herrian), beste parte-hartzaile batzuek hala izateko eskubidea dagoela aipatu dute.

Juliaren arabera, parte hartzea ez da 4 urtez behin bozkatzea. Arazoa konpontzen duena ez da herritarren parte-hartzea, baizik eta “guztia”; hots, autobusa, kiroldegia, auzoa.

Bere ustez, zerbaiten aurka dagoen taldetik bereizi behar da, ez baikaude zerbaiten aurka.

Arestian aipatutakoari helduz, erabakiak hartu ahal izateko parte hartu behar dela esan da. Hipokresia aipatu da, oso ezaguna den erreferentzia baten bidez: agendak.

Azalpenaren bigarren zatian parte-hartzaile batek adieraziko du alderdi politikoa ez dela aldaketarako irtenbide gisa hartu behar, baizik eta aldaketaren pieza gisa.

7.–Pilar Barquín ekologistak esan du bi ikuspegi daudela. Batetik, erakundeena dago; hau sasi-partaidetza da eta komunikatu edo informatu baino ez du egiten.

Bestetik, erakundeen euren kudeaketan elkarrekin lan egitearena dago.

Erreklamazioa egin da: “Adibidez, udal batean lan egitea, politikariek eta hauen maila berean, herritarren parte-hartzea herritarrek mobilizatzen direnean bakarrik sortzen dela ematen baitu.

Ondorengo ideia jada garbi dago eta ondorioztat har daiteke: gauzak planifikatzen direnetik, hots, hasieratik, parte hartu behar da.

8.–Elena Franco irakasleak, Euskadirako garraio ereduaren aditua denak, abiadura handiko trenarekiko jarrera kritikoa agertuz, gauza bera adierazi zuen; alegia, herritarren parte-hartzeak integrala izan behar duela, erabakiak planifikatzen direnetik, baina, orain, hala egitea oso zaila dela. Bere hitzetan, horrek ez du esan nahi erabakiak planifikatu ondorengo herritarren parte-hartzea baliogabe geratzen denik edo legitimotasuna kentzen zaionik. Hala ere, praktikan, aztergai asko ez dagoela aipatu du. Gutxienez gai horiek dira herritarrek kezkatzen dituztenak, atzera bueltarik gabeko ondorioak dituztenak. Adibidez, ez da gauza bera aurrekontua onartzea eta AHT eraikitzea.

9.–Azkenik, Hans Harms soziologoak, herritarren parte-hartzearen aditua denak, hori gero eta beharrezkoagoa dela uste du. Parte hartzeko demokraziaren krisia bizitzen ari gara. Herritarrek gero eta gehiago jartzen dituzte zalantzan kezkatzen dituzten gaiak eta politikariek gai horiek bazter uzten dituzte beren programetan, botoak galdu baditzakete ere.

Ingurumenaren arazoa indar handiz agertu da topaketan. Harmsek honakoa adierazi du: azken urtean, badirudi jende guztia ohartu dela arazoaz eta “izututa” daudela adierazten dutela. Zerbait gertatzen ari da eta badakigu. Konturatzen gara, baita herritarra ere.

Berriz ere halaxe azpimarratu da, ondorio gisa hau ere: erabakiak hartzeko prozesuek gardenak izan behar dute; mahai gainean jarri behar dira, eta ez mahai azpian. Eta, gainera, norberak bere bizimodua aldatu behar du. Norbere erabakia egon behar da tartean.

Herritarrek parte har dezaten, funtsezkoa da aurrez informazioa ematea.

Harmsek herritarrek parte hartzeko mekanismo bat baliozkoa den ala ez aztertzeko irizpideak adierazi ditu:

- Informazio teknikoa.
- Kaltetuei eta erabiltzaileei buruzko informazioa.

- Herritarrek parte hartzeko arrazoiak (nekagarriak izan gabe).
- Gizarteko klase eta talde guztien integrazioa.
- Interes jakin batzuk babesten dituzten presio taldeak sartzearetik inmutitatea.
- Elkartearen berezko interesekiko inmutitatea.
- Benetako eztabaida-prozesua. Benetako eztabaida.
- Administrazioarentzat zer neurritan den loteslea prozesua.

Definizioak eta zenbait ondorio azaldu ondoren, eztabaidak aurrera egin du, bertaratuek hitza eskatuta. Jada aipatu dira alderdi asko, nahiz eta bigarren zati honetan gehiago sakonduko diren. Horien artean, honako hauek daude:

- Metodoak; zozketa herritarren parte-hartzearen adierazgarri gisa. Hori ez da guztientzat baliozkoa den sistema. Hala ere, zozketaren alde aipatu da horrek ordezkariak beren interesen alde egingo ez dutela bermatuko lukeela.
- Hezkuntza, ez bakarrik haurrentzat, baizik eta baita politikarientzat ere. Bezeziki horientzat eta administrazio zaharkitu eta burokratikorako. Hemen, lanean hartu ohi den ikuspegi lauak ez du antzeko erreferenterik zaharrak eta zurrinak diren funtzionamenduko barne prozesuetan.

Adierazitakoaren arabera, hona hemen kultura politiko berria sor dezakegula erakusteko aukera, parte hartzeko gogoia baitago.

- Politikara igarotzen ez diren gizarte mugimenduen eredia, bere logika eta jarduera propioekin, babesten duten horiekin alderatuta, boterea erabiltzeko beharra ere defendatu da, horretatik parte hartuta erabakitzeke beharra, nahiz eta boterea uzkur izan hirugarrenei kuotak lagatzeko, nolabait esatearren.
- Parte-hartzailetako batek kontraesanak aipatu ditu, hots, herritarren parte-hartzeak topatu ohi dituen kontraesanak. Adibidez, herritarren parte-hartzeak balio al du hirigunean aparkalekua eraiki dadila babesteko? (zenbat eta ibilgailu gehiago, orduan eta jasanezinagoa izango da eredia)

ERREFERENDUMA

EDONORK parte hartu behar du, betiere, eragiten diola sentitzen badu; horregatik, parte-hartzea bultzatzeko guneak, foroak, kontsultak, etab., metodo gisa, garrantzitsuak dira, baina ez funtsezkoak. Oinarrizkoa, azkenean, erreferenduma da. Politikariek agintzen dute, baina ez dute betetzen.

Adibidez: lindanoarentzako Barakaldoko gordelekua. Alkateak erreferenduma agindu zuen, baina, astebetara baino ez, atzera egin zuen. Orain, Muskizko alkateak nola jokatu duen zain gaude, Petronorren barruan koke instalazioa jartzearen inguruko erreferenduma egingo zuela agindu baitzuen. Alkate izendatu berri dute. Agindutakoa betetzerik izango du ala atzera egingo du?

Beste parte-hartzaile batzuek ere adierazi dute erreferendumak, galdu arren, oso aberasgarriak direla. Hala ere, kontsulta batean egon daitezkeen erantzun guztiek beren iritzia defendatzeko aukera berdina izan behar dituzte, ikerketa-bitartekoetatik hasi eta hedabideetara.

Parte-hartzaile baten arabera, erreferenduma ez da plebiszitua; plebiszitua goitik behera ezartzen da.

Beste batzuen ustez, kontuz ibili behar da, bat-etortzeak eta konplizitateak sortu behar baitira.

Beste batek horien erabilgarritasuna jarri du zalantzan. Bere ustez, kontsultetako parte-hartzea oso txikia da, kaltetuak bakarrik mobilizatzen dira. Zer balio du, orduan, erreferendum horrek?

- *Dirua: partaidetzako aurrekontuak.*

Herritarren parte-hartzea dirua kostatzen da, baita parte-hartzea bultzatzeko guneak (PBG) antolatzea ere. Horretarako, aurrekontua, denbora eta baliabideak behar dira.

Dirudienez, ez da onartzen herritarren parte-hartzeak kosturik duenik. Uste dugu parte-hartzeak doan izan behar duela, baina hori ez da hala...

Berriz ere elite ekonomikoen gaia sortu da: oinarrizko erabakiak oso enpresa gutxiren artean hartzen dira (hauteskundeetara aurkezten ez diren enpresen artean).

- *Galdera bat: AHT, bai ala ez? Horien arabera, ez al da garrantzitsuagoa trenbide sarea sortzeko moduz gehiago arduratzea?*

Horri erantzunez, maxima zorrotza aipatu da: bai, baina trenbide sareaz ari garen bitartean, AHTk harrapatu egingo gaitu.

- *Gai gogorra mahaigaineratu da: ETA. Parte-hartzaile batek adierazi dutenez, hizpide ditugun mugimenduetarako ETA mehatxua da. Talde jakin batzuek babesten duten gizarte mugimendua dagoenean eta ETAk, inolako baimenik eskatu gabe, esku hartzen duenean, eztabaida polarizatu egiten da gizartearen. Adib.: Lemoiz, Leitzarain. (ETAk AHTren inguruan esku hartzeko mehatxuari arreta eskaini behar zaio, horrek ez baitio inolako mesederik egiten parte hartzeko prozesuari)*

Gainera, dioenez, esku-hartze horrek haztegia sortzen du eta politikariek horretaz baliatzen dira gizarte mugimenduei aurrera egiten ez uzteko. Ez dago horren inguruko beste parte-hartzerik.

- *Administrazioak dio parte hartzeko prozesuek mugak dituztela eta horiek zehaztu egin behar direla. Batzuetan teknikoak dira, beste batzuetan politikoak eta beste batzuetan, berriz, ekonomikoak... Administrazioaren arabera, halako prozesu bat sustatzen denean, ez da zer muga dauden pentsatzen eta ez dira zehazten. Adib.: udalak mugikortasun politika jakin bat baldin badu, ezin du eurek sustatutako ekimen horren aurka joan.*

Politikoki onartezina den zerbait ere aipatu da: herritarrek parte hartzeko prozesuetako mugak, hartzen den erabakia iraunkorra delako bermea. Parte-hartzaile baten arabera, erabakiak hartzerakoan, zeri eman behar zaio balio handiagoa, talde ekologistei edo biztanleei oro har?

- *Administrazioak ondorio bat atera behar du: zeharkakotasuna, zerbitzu publikoa berreskuratzea, publikotasunaren kultura eta etika berreskuratzea, horrek biztanlea biztanletzat hartzea ekarriko bailuke, eta ez bezero gisa.*

Halaber, partaidetzako aurrekontuez hitz egin da, baita, besteak beste, Porto Alegreko kasu paradigmaticoaz ere. Aurrekontu horien erabileraz mintzatu dira, horien herentziaz, gobernu aldaketa izan den arren; horri buruz adierazi dute, gobernu aldaketan bada, partaidetzako aurrekontuak ere aldatu egiten direla, tresna bera izan arren.

Eginbeharren artean dago alderdi politikoei ohartaraztea gizarteak beste logika bat erabiltzeko eskatzen duela.

Ia eztabaidaren amaiera jada, Ararteko bulegoko Maria Luisa Aguirrechek esku hartu du, honakoei buruz hitz egiteko:

- *Ingurumen arloak ikuspegi juridikotik duen berezitasuna. Zergatik? Nazioartean gai horri buruzko berariazko legeria adostu delako eta, horren baitan, mugimendu ekologistei pribilegioak ematen zaizkielako erabakiak hartzerakoan parte har dezaten. Mugimendu horiek auzitegiara jo dezakete legitimazio aktiboa badute, talde horiek benetako eragina izan behar baitute proiektuen bukaerako erabakian. Abiapuntua da. Horien etorkizuna ikusteko dago.*
- *Tokiko politikariak ez dira horretaz jabetzen. Ezagutarazi egin behar izango zaie."*

* * * *

Uztailaren 6an udako jardunaldia egin zen, profil akademikoagoarekin. Jardunaldi horren abiapuntua izan zen kalitate oneko demokrazian zenbait printzipiok garrantzi berezia dutela, besteak beste, informazioarenak eta herritarren parte-hartzeari dago-kionak, hots, jakiteko eskubideak eta arazo publikoetan parte hartzeko eskubideak. Ingurumenean edo pertsonen osasunean eragina duten edo gizartearen erreakzioa dakarten azpiegiturei buruzko erabakiak hartzean, askotan agerian jartzen da demokrazia

ordezkatzaileak eskaintzen dituen mekanismo erabakitzzaileak ez direla nahikoak, eta parte hartzeko bideak eratu behar direla, hartzen diren erabaki publikoei legitimitasun handiagoa emateko.

Iñigo Lamarca arartekoak demokraziari eta parte-hartzeari buruz hitz egin zuen.

Enrique Alonso irakasleak “Tendencias desde el Derecho comunitario europeo en materia de participación ciudadana: la Ley 27/2006 (Ley Aarhus) y las nuevas perspectivas para la participación ciudadana en las decisiones ambientales” ponentzia eskaini zuen.

Bestalde, Juli Ponce irakasleak “La buena administración y la participación ciudadana en la toma de decisión en proyectos públicos con impacto social” izeneko hitzaldia eskaini zuen.

Parte-hartzeekin amaitzeko, María Jesús Larios irakasleak ere parte hartu zuen, “El fenómeno de oposición vecinal ante determinadas infraestructuras o equipamientos con impacto social (cárceles, centros de menores, etc.)” ponentziarekin.

Azkenik, hausnarketarako eta herritarren partaidetzarako IV. foroko kontalariak topaketa honen ondorioak azaldu zituen.

Ponentzia horiek “Jornadas sobre derechos humanos” bilduman argitaratuko dira aurki.

1.5. GIZA ESKUBIDEEN ARLOAN SENTSIBILIZATZEKO JARDUERAK

Ararteko erakundeak giza eskubideen arloan sentsibilizatzeko hainbat jarduera burutu ditu 2007. urtean, eskoletan batez ere.

Horrela, Arartekoak giza eskubideei buruzko Eskola-lanen III. Lehiaketa iragarri du 2007an, EAeko ikastetxeetako Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzarako. Edizio honetan giza eskubideei buruzko, edo, zehazkiago, haurren eskubideei buruzko lan sistematikoan erabilitako eta ekoiztutako programazio lanak eta materialak aurkeztu ahal izango dira. Horiek gela, ikasturte, ziklo edo ikastetxe mailan azken hiru ikasturteetan egindakoak izango dira, euskaraz edo gaztelaniaz. Irakaskuntzari eta giza eskubideei uztartutako pertsona-batzordeak aurkeztutako lanak, horien originaltasuna eta kalitatea baloratuko ditu, argitaratzeko dituen aukerak eta didaktikoki duten aprobetxamendua ere baloratuz. Etapa bakoitzeko, hau da, Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako, sari bana egongo da; horiek arartekoak berak entregatuko ditu.

Ohienez, aurrean ere, Ararteko erakundeak Gasteizko Udalaren Hezkuntza Sailak antolatzen duen *Gasteiztxo albistegia* izeneko jarduerari lagundu dio. Arabako hiriburuko ikastetxe ezberdinetako ikasleek aldian-aldian bisita egiten digute eta, egun batez kazetari bihurtuta, erakundearen lanari lotutako datuak eta informazioak biltzen dituzte, ondoren irrati edo telebista saioa edo egunkaria egiteko.

Gainera, abenduaren 10ean Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzen denez, Ararteko erakundeak, herritarren biztanleen defendatzaile gisa, kartela argitaratzen du, ikastetxeetan jar dadin. Horren helburua gizarte egoera ahulean dauden pertsonen beharrezan inguruko hausnarketa ahalbidetzea eta beharrezan horiekiko sentikortasun handiagoa sortzea da, baita giza eskubideak defendatzen eta babesten modu aktiboan jardungo duen gizartearen aurrera egin ahal izatea ere. Era berean, egutegi elebidunak ere argitaratu dira eta horietan haurren oinarrizko 10 eskubide aipatzen dira. Material horiek Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan banatzen dira.

2. GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO ERAKUNDEEKIN BIDE-RATUTAKO JARDUERAK

2.1. HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XXII. JARDUNALDIAK

Herriaren Defendatzailearen eta autonomietako ordezkarien arteko harremanek koordinazioa eta kooperazioa dituzte oinarri. Hori dela-eta, urtean zehar horiek harreman estua izaten dute burutzen dituzten ohiko funtzionamendu jardueren inguruan. Koordinaziorako jardunaldiak erakunde guztien interesekoak diren gaietarako eztabaida eta hausnarketa egiteko foroak dira.

2007an Koordinaziorako XXII. Jardunaldiak Bartzelonan egin ziren, urriaren 21, 22, 23 eta 24an, Kataluniako Síndic de Greuges-ek antolatuta. Jardunaldi horietako gai nagusia “La Defensoría y su utilidad para los ciudadanos” izan zen.

Aurrez, jardunaldi horien xedearekin erlazionatutako tailerrak egin ziren. Horietatik lehena, Asturiasko Prokuradore Nagusiak antolatua, Oviedon egin zen, honako izenburu honen pean: “Evaluación de las instituciones de defensores autonómicos en materia de Educación”. Bigarrena Gasteizen egin zen, Arartekoak koordinatuta, honako izenburu honekin: “Evaluación de las instituciones de defensores autonómicos en materia de Servicios Sociales”. Azkenik, hirugarren tailerra, Andaluziako Herriaren Defendatzaileak antolatua, Sevillan egin zen, honako izenburu honen pean: “Evaluación de las instituciones de defensores autonómicos en materia de Sanidad”.

Tailer horietan eta Bartzelonako jardunaldietan bertan egindako lanen emaitza gisa, honako ondorio hauek atera ziren:

1. MAHAIAREN ONDORIOAK

OMBUDSMANAK GIZARTEAREKIKO DITUEN HARREMANAK. OMBUDSMANA PARTE HARTZEKO MEKANISMO GISA

1. *Gizarte elkarteek parte hartzearen ondorioz hasitako jarduerak*

Ombudsmanen esperientziak erakusten duen moduan, elkarteek horietara jotzearen arrazoia da ez dagoela erakunde biderik beren eskaera kolektiboak egiteko, edota, batzuetan, ezta horien ordezkariak edo osagarriak izan daitezkeen bideak ere, espazio publikoetan edo gizarte hedabideetan adierazpenak egitea bezalako beste bide batzuekin erabili ahal izan ditzaten.

Hortaz, defentsa-erakundeek, behin erakunde sarean finkatuta, gizarte zibillean komunitate loturak sustatu eta eratu behar dela nabarmendu behar dute bereziki. Ombudsmanek herritarra izateko eta parte hartzeko kontzientzian kategorizatuta dagoen herritartasun sozial eta politikoa sustatzearen alde lan egin behar dute eta, herritarren eskubideak babesteko beren ohiko jarduerak

(herritarrek tradizionalki hartu izan diren bezala hartuta, alegia, gizabanakotzat hartuta, garatutakoa) osatu behar dute, erreibindikazioa eta herritarren parte-hartzea faboratzen duten estrategien bidez (herritarrek parte-hartzaileak direla eta taldea direla dioen ikuspegi modernotik jardunez); horrela, sistema demokratikoaren legitimitasunaren eta eraginkortasunaren alde egingo dute.

Baina, Ombudsman erakundeek eta gizartearen arteko harremanek (kexa kolektiboak, elkarteek sareko kexak –elkartekak, kooperatibak, etab.–, herritarren plataformak, etab.) zer neurritan eragiten duten baloratu ahal izateko datu objektiborik ez dagoenez, prozesuak kudeatzeko aplikazio informatikoetan ez baitago horiek kuantifikatu eta ebaluatzeko adierazlerik, zaila da harreman hori aztertzea. Datu horiek gabe oso zaila den arren aipatu harremana aztertzea, hori ez da oztopo defentsa-erakundeek eta gizartearen arteko harremanak fabora ditzaketan hainbat bitarteko edo tresna nabarmentzeko, hurrengo puntuan egingo dugun bezala.

Prestakuntzako tailerretako txostenetan, erakundeek izapidetutako kexen kopurua ezberdina izatearen inguruko zenbait arrazoi posible eman dira. Horietako bat da, adibidez, beharbada defentsa-erakundeak jendaurrean neurri handiagoan daudela ikusgai kexa-kopuru handiagoa aurkezten den lurraldeetan. Era berean, aipatu da beharbada lurralde horietan laguntzarik eza handiagoa dela eta, horregatik, herritarrek eskaera gehiago egiten dituztela.

Hori azaltzeko beste bi faktore ere aipatu behar ditugu, horiek ere bai baitute eraginik lurralde ezberdinetan ombudsmana neurri ezberdinean erabiltzean. Lehenik eta behin, zenbait lurraldetan eskubideak arriskuan dituzten berriazko talde gehiago dago, esate baterako, adinekoak, etorkinak eta haurrak. Eta, bestetik, herritarren aldarrikapenak ugariagoak izango dira parte hartzeko kultura politiko handiagoa duten eta gizarte sare trinko eta mamitsuagoan antolatuta dauden biztanleak dituzten lurralde eta autonomia-erkidegoetan.

Borondatezko elkarteek autonomia-erkidegoetako defentsa-erakundeetan aurkezten dituzten kexak gizarte kapital lotesle (linking social capital) izenaz ezaguna denaren adibide garbia dira, hau da, jarduera politikoari lotutako gizarte partaidetzaren adierazpena dira, botere publikoei egiten zaien herritarren eskubideen aldarrikapena diren heinean. Jakina, zenbait arlotan elkarte gehiago egoteari esker, gizarte elkarteek gehiago hartzen dute parte defentsa-erakundeek arlo jakin batzuetan garatzen dituzten jardueretan, esate baterako, arkitektura oztopoei eta eraikin publikoetarako irisgarritasunari dagokienez garatutakoetan.

Ikus daitekeen bezala, osasun arloan borondatezko elkarteek aurkeztutako kexa-kopurua oso txikia da, baina hezkuntzaren arloan nahikoa nabarmena da. Halaber ikus daiteke gizarte erakundeek aurkeztutako kexa-kopururik handiena inmigrazioaren esparruan dagoela eta, halaber, esparru horretan dagoela, oro har, kexa-kopururik txikiena. Bertan, defentsa-erakundeek jarduera bereziki adierazgarria da.

Garrantzitsua da ohartaraztea Espainian elkartegintza tradizionala (zehatzagoa litzateke, hala ere, elkartegintza modernoaz hitz egitea) bereziki hezkuntzaren eremuan bildu dela (eremu horrek elkarteetan parte hartzen duten espainiarren zati handi bat biltzen du). Bestalde, baliabide sozial eta banakako gutxiago dituzten gizabanakoez osatutako talderik ahulenek aukera gutxiago dituzte elkarteetan bildu eta beren eskubideak aldarrikatu ahal izateko. Horregatik, gizarte problematika orokorragoen inguruan diharduten gizarte elkarteak izan ohi dira haien defentsan jarduten dutenak (halaxe gertatzen da, esaterako, etorkinekin, baina baita adinekoekin ere). Horrek azal dezake defentsa-erakundeen ofiziozko jarduerak bereziki nabarmenak izatea taldeei banakako baliabide eta elkarteetan biltzeko baliabide gutxiago eskaintzen dizkieten arloetan.

2. Gizarte zibila Ombudsman erakundeetan parte hartzeko mekanismoak

Orain, elkarteek defentsa-erakundeen lan proaktiboan parte hartzeko dauden mekanismoak baloratuko ditugu.

Elkarteek, beren alderdi eta tipologia anitzetan, hainbat tresnaren bidez eta eginkizun eta maila ezberdinetan hartzen dute parte bai sektore publikoetan bai pribatuetan.

Botere publikoei dagokienez, lurralde administrazioek kontsulta-organo izenekoek bidezko partaidetza-eredua garatu da. Administrazio ekintzan, era horretako elkarterik ez dagoen oso eremu gutxi dago. Parte hartzeko modu hori kasuan kasuko gizarte sektoreen planteamendu, arazo eta interesen berri izateko iturria bihurtu da.

Ombudsmanei dagokienez, elkarteak gure jardueran une oro eta modu nabarmenean daude eta, beraz, gizartearekiko ezinbesteko lotura-elementua bihurtu dira, ez bakarrik aurkezten diguten problematika eta premiak zehatz-mehatz ezagutzeko, baizik eta baita kaltetutako herritarren eskubideak modu eraginkorrean defendatzeko ere.

Parlamentuetako ordezkari hauen esperientziak agerian uzten du gizarte ekimenaren laguntza gure gizartean egoera bereziki ahulean dauden sektoreetara heltzeko laguntza eraginkorrenetako bat dela sektore horiek beren eskubideak ezagutu eta erabili ahal izan ditzaten eta botere publikoei beren eskaera eta premien araberako esku-hartzeak egin ditzatela eskatu ahal diezaieten.

Bestalde, elkarteek, gizartean etengabe aldarrikapenak eginda eta parte hartzen duten administrazio ekintzen bidez, "lobby" lanak egiten dituzte beren baitan dituzten herritarren eskubideak hobetzen eta hedatzen eta, horrela, helburuak gauzatzeko aldera, egoera pribilegiatuan kokatzen dira gure erakundeen aliatu estrategiko gisa.

Horrela, gure erakundeek eta gizartearen artean ezartzen den harreman erraz eta iraunkorra, berez, herritarrek esparru publikoan parte hartzeko bide egokia eta eraginkorra da; bide hori, orobat, botere publikoen jarduera kontrolatzeko modu bat da.

Horren ildotik, herriaren defendatzaileek burutzen dituzten askotariko jarduerak, administrazio jarduera ohi bezala gainbegiratuta, gatazkak konpontzeko bitarteko gisa arituta edo beste edozein, gizarteak parte hartzeko bideak dira eta, beraz, horiek mantendu eta indartu egin behar dira gure sistema demokratikoak kalitate eta bizitasun handiagoa izan ditzan.

Ia defentsa-erakunde guztiek lankidetzaharremanak dituzte gizarte erakundeekin, elkarteekin, etab. Harreman horiek neurri handiagoan edo txikiagoan sistematizatuta dauden bilerak eginda edo jardunaldi, mintegi eta antzeko ekitaldietan batera parte hartuta gauzatzen dira. Ekintza horiek guztiek, funtsean, herritarren eskubideak sustatu eta babestearekin erlazionatutako dibulgaziozko alderdietan jartzen dute arreta.

Hori gorabehera, aipatu beharrekoa da elkarten eta ombudsmanaren arteko harremanak oso autonomia-erkidego gutxitan instituzionalizatu direla. Ia kasu guztietan ikus daitekeena parte hartzeko modu informalak dira. Horien bidez, erakunde horiek gero eta egonkorragoak eta formalizatuagoak diren antolakuntzako tresnak lortzen ari dira pixkanaka. Mekanismo horien artean, honako hauek aipa ditzakegu:

a) Organoei lotutakoak

Pertsona bakarreko edo kide anitzeko egiturak barneratuta, nola partaidez-tzan hala harremanetan oinarritutakoak. Egitura horien artean honako hauek daude:

- Andaluziako Herriaren Defendatzailearen kasuan, aholkularitza eta partaidetzarako “kontseilu sektorialak” sortu dira (besteak beste, adingabeena eta mendetasunarena).*
- Kataluniako Síndic-aren kasuan, “gizarte kontseilua” sortu da, eskubideak babesteaz arduratzen diren erakundeekin partaidetzarekin.*
- Arartekoaren kasuan, Gizarte Harremanen Zuzendaritza sortu da.*
- Valentziako Erkidegoko Síndic-aren kasuan, Berdintasun eta Partaidez-tzako arloa sortu da.*

b) Funtzioei lotutakoak

Elkartze erakundeekin edo erakunde korporatiboekin (elkartek, lanbide elkargoak, sindikatuak, etab.) lankidetzahitzarmenak sinatuta. Horien bidez, ekintza zehatzetan oso gutxitan garatzen den lankidetz generikoa eratzen da.

Ia ez dira esparru-hitzarmenak sinatzen, nahiz eta kasu hauetan jarduteko ildo zehatzagoak abiarazi eta gauzatu ohi diren: hitzarmena egiten duten erakundeek ordezkaturako elkarteen partaidetza zabaltzea, prestatzea eta sustatzea, horrekiko sentikor bihurtzea, parte-hartze horri buruzko informazioa biltzea eta partaidetza hori bultzatzea.

c) Parte hartzeko beste modu batzuk

- Erakundearen erabiltzaileen artean inkesta egitea.
- Defentsa-erakundeen barruko lantaldeak garatzea; horietan herritarrek eta elkarteek parte hartu ohi dute.
- Elkarteek txosten bereziak prestatzen laguntzea.
- Herritarrentzat eta elkarteentzat interesgarriak diren inkestak eta jardunaldiak egitea.
- Sektore jakin batzuetan (fiskaltza, fundazioak, etab.) sartuta dauden sektore publiko eta pribatuekin noizbehinka bilerak egitea.
- Interneteko web orrien zuzeneko foroak egitea.
- Elkarteen artean zabalkunde kanpainak egitea eta eskubideak zabaltzeko eta sustatzeko materialak banatzea.

Kontuan hartu beharreko azken elementu gisa deigarria da ez dagoela berarizko tresna edo mekanismorik defentsa-erakundeen jarduerak kaltetutako taldeengan dituzten ondorioak ebaluatu ahal izateko. Gogobetetasun inkestak baino ez dira aipatzen; horiek, argi eta garbi, ez dira inola ere nahikoa erakundearen lana ebaluatzeko.

Oso adierazgarria da erakunde guztiek Ombudsmanak gizartean parte hartzeko bere lana zabaldu behar duela gomendatzea, borondatezko elkarteen partaidetza sustatuta hain ikusgai ez dauden problematikez jabetzeko. Hala ere, badirudi herritarrek ez direla benetan jabetzen zeinen garrantzitsua izan daitekeen elkarteen eginkizuna defentsa-erakundeen jardueren ondorioak ebaluatzen; horrek, halaber, beren jarduerak eta eraginkortasuna hobetzen lagunduko luke.

2. MAHAIAREN ONDORIOAK

OMBUDSMAN ERAKUNDEEN ERAGINKORTASUNA. (ADMINISTRAZIOAREKIKO ETA PARLAMENTUEKIKO HARREMANAK)

1. Administrazioarekiko harremanak

a. Defentsa-erakundeen jarduna

Informazio edo dokumentazio eskaerari dagokionez, gehienek eskaera zuzenduak erabiltzaile biltzen dute, hau da, alderdiak edo informazioa zehaztuta, baina

inola ere ez, salbuespenezko kasuetan izan ezik, espediente zehatza bidaltzeko edo dokumentu euskarri zehatza aurkezteko eskatuta.

b. Administrazio publikoen erantzuna

Erakundeen ustez, Administrazioaren erantzuna, oro har, eskatutakoarekin bat dator; ez da hain ohikoa erantzuna soilik formala izan dela esatea (hau da, eskatutako objektu materialari ez erantzutea).

Erantzuteko epea hilabete eta erdi eta bi hilabete artean egon ohi da eta, beraz, maiz, informazio errekerimenduari erantzuteko legezko epeak gainditu ohi dira. Horren ondorioz, kexa-espediente askotan berriro egiten da administrazio informazioaren hasierako eskaera administrazioaren isiltasuna edo laguntzarik eza antzematen denetik hilabetera.

c. Eskatutakoa osorik edo horren zati bat bete ezean abiarazten diren jarduerak

Administrazioak eskatutakoa bete ez duela ikusita errekerimenduak egiteko ohiko moduari dagokionez, kasuistika oso anitza da, nahiz eta honela estandarizatu dezakegun:

- 1. Gehenez bi errepikapen edo errekerimendu (ohartarazpena egin ondoren), epe ezberdinekin (lehen edo bigarren aldiz errepikatzen den kontuan hartuta ere epeak ezberdinak izan daitezke). Zenbait kasutan, izapide hau telefonoz gestioaren bat burututa edo bisita pertsonala eginda osatzen da.*
- 2. Erakunde guztiek hala egiten ez duten arren, ohartarazpen formala ere egiten da (administrazioak jokabide oztopatzailea izan duela edo lagundu ez duela adierazi aurretik). Gehienetan, izapide hau jaso eta bazter utzi zen azken eskaera edo errekerimendutik hilabetera egiten da.*
- 3. Hasierako informazio eskaera, ondoz ondoko eskaerak eta, hala bada, ohartarazpena ez betetzeagatik administrazioak jokabide oztopatzailea duela edo lagundu ez duela adieraztea.*

Ohikoa da, administrazioak jokabide oztopatzailea duela adierazi aurretik, limurtzeko jarduerak burutzea eta arloko titularrek, hauen ondokoek edo arduradunek gestio pertsonalizatuak egitea, bete ez dena ondorengo idazkia edo ohartarazpena den eta kexak zer izaera duen aintzat hartuta, espediente administrazio bulegoetan bertan aztertu ahal izateko in situ bisitak eginda, etab.

Nolanahi ere, administrazioak hasierako nahiz tarteko faseetan erantzun dezan hainbat ahalegin egiten direnez (hasierako eskaera, ondorengoak eta ohartarazpenak), horrek izaera limurtzaileak ematen dio ereduari. Hori

administrazioak jokabide oztopatzailea duela adierazteko bukaerako fasean baino ez da hertsatzailea.

Behin gomendioa, iradokizuna edo gogorarazteko oharra eginda administrazioek duten jokabide edo jarrerarekin erlazionatutako jardueri dagokienez, kasuan kasuko administrazioak onartzen ez badu, eskuarki erakundeek bentean onartu ez dela formalki egiaztatzen mugatzen dira edo administrazioak laguntzarik eskaini ez duela adieraztera, bestelako administrazio jarduera edo ondorengo eskaerarik egin gabe, salbuespenezko oso kasu gutxitan izan ezik. Nolanahi ere, egia da egoera horietatik gehienak dagozkion arauetan erregulatuta daudela eta, bertan, ebazpena berariaz edo isilbidez ez onartzean zer bidetatik erantzun behar zaion eta nola jarri behar den jendaurrean ezartzen dela.

Administrazio bat lagundu ez duen administrazio gisa kalifikatzeari dagokionez, hori administrazioak hainbat errekerimenduri eta, hala bada, bukaerako ohararazpenari jaramonik egin ez dienean egiten da.

Administrazioak lagundu ez duela jendaurrean adierazteko, kasu gehienetan, urteko txostenetan egin ohi da, horri buruzko berariazko atalean. Ez da ohikoa izaten halakoak ezohizko txostenetan egitea, baina bai, batzuetan, formalki Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean edo erakundearen Web orrian argitaratzea. Oso-oso gutxitan erabili ohi dira prentsa-oharra bezalako ordezkio aukerak.

Administrazioak lagundu ez duela jendaurrean kalifikatu ordezkio, oso kasu bakanetan aintzatetsi ohi da lagundu duten administrazioek kontuan hartu beharreko jardun egokia burutu dutela.

Administrazioak gomendioa edo iradokizuna formalki onartzen duenean, batzuetan horren jarraipena egiten da eta, beraz, administrazioaren jarduna iradokizuna edo gomendioa betetzera bideratuta dagoela egiaztatu arte ez da espedientearen ixten. Jarraipen horretan, batzuetan, noizean behingo bilerak egiten dira edo defendatzailearekiko harreman unitate espezifikoak zehazten da.

Azkenik, ombudsmanek ikuskapenak egiteari dagokionez, gehienetan egiten dira, baina ez plangintza bati jarraiki, salbuespenak salbuespen.

d. Limurtzeko magistratura

- 1. Erakundeek administrazio publikoak limurtu edo sustatzeari dagokionez, ombudsman gehienek ez dituzte alde biko lankidetzaren hitzarmenak erabiltzen elkarrekiko lankidetzara eta, bereziki, administrazioak gatazkak konpontze aldera lagunduko duelako konpromisoa hartzen bideratutako harremanak artikulatzeko figura gisa.*

2. Defentsa-erakundeek batez ere “jardunbide egokiak” bultzatzen dituzte. Osasunaren arloan, honako alderdi hauetan ikus daitezke: laguntza-prozesuei buruzko gidak, baliabideen gidak edo mapak eta eskubideen gutunak orokortzea. Alderdi horiek guztiak ebazpen anitzetan nabarmendu dira.
3. Administrazioak herritarren eskubideak defendatu eta babestu behar direla kontzientziatzea, hainbat bitartekoren bidez, besteak beste, urteko txostena eta ezohizko txostenak argitaratu eta zabaldua.

2. **Parlamentuekiko harremanak**

Ombudsmanek Administrazioarekiko dituzten harremanetan gertatzen ez den bezala (harreman horiek etengabekoak dira, horiei buruz aurkezten diren kezak eta horien inguruan egiten diren bestelako jarduera batzuk direla medio), parlamentuekiko harremanak, horietako ordezkari diren heinean, une jakin batzuetan izan ohi dira, erakunde guztiek urteko txostena edo ezohizko txostenak aurkezten baitizkiete eta, salbuespenezko kasuetan, beste kontu batzuen berri ere eman behar baitizkiete.

Harreman horren adierazpenik gorena, erakunde bakoitza arautzen duen legean jasotako ezarpena betetzearen ondorioa izaki, urteko txostenaren berri ematean datza.

Ez da gauza bera gertatzen txosten bereziak edo ezohizko txostenak aurkeztean; orduan, tematikak eta egokitasunak eragiten duten heinean, txosten horiek parlamentuan izapidetzen direnean eta hedabideetan proiektatzen direnean hartzen dute garrantzi handiagoa.

Parlamentuetan txosten horiek zer organori aurkezten zaizkion kontuan hartuta, urteko txostena soil-soilik osoko bilkuran aurkez daiteke edo, bestela, bertan eta Batzordean batera; kasu bakanen batean aurkezten da soil-soilik dagokion Batzordean (Valentziako Síndic de Greuges, Prokuradore Nagusia, etab.).

Ezohizko txostenen kasuan, horiek gehienetan Batzordean aurkezten dira (Ombudsmanarekiko harremanetarako berariazko batzordean edo txostenean landutako gaiari dagokion batzordean).

Parlamentuetako organo eskudunean aurkeztu ondorengo eztabaidari dagokionez, urteko txostenen kasuan, Batzordean aurkezten denean, kasu guztietan onartzen da Ombudsmanaren titularrarekiko dialektika. Eztabaida hori, ordea, kasu jakin batzuetan bakarrik egiten da osokoan aurkezten denean; eztabaidarik ez dagoenean, titularra hemiziklotik ateratzen da dagokionean.

Egokitzat jotzen da batzorde sektorialak izatea edo kasuan kasuko ordezkari-tzabatzaordeei gai zehatzen eta, bereziki, txosten monografikoetako tematikaren

berri eman ahal izatea, nahiz eta ohartzten garen hori kasuan kasuko parlamentuetako araudiaren arabera egongo dela.

Halaber, urteko txostena dela-eta erakunde askok egiten duten azalpen edo eztabaida bikoitzaren gaineko hausnarketa egitea proposatu da, izan ere, defentsa-erakundearekiko harremanetarako batzordean eta, ondoren, osokoan aurkeztu ohi da; hala, batzordean osokoan baino eztabaida teknikoagoa eta zehatzagoa egin ohi da, osokoan laburpen gisa eta formalki horren berri emateko aurkezten da. Nolanahi ere, bi une horiek (bai Batzordeari dagokiona bai Osokoari dagokiona) mantentzea beharrezkoa dela adierazi da.

3. MAHAIAREN ONDORIOAK

HERRIAREN DEFENTSA-ERAKUNDEEK POLITIKA PUBLIKOAK MODULATZEA

1. Gomendioek administrazio kudeaketan duten eragina (jardunbide egokiak)

Ombudsmanek gizartearekin dituzten harremanek eta defentsa erakunde horien eta botere publikoen arteko elkarriketek, aurreko saioetan aztertu direnek, gure erakundeek, gutxi asko, politika publikoetan eragiten dutela iragartzen dute, dela formulazio fasean, dela ezarpen fasean.

Askotan, ombudsmanek politika publiko baten osaketan duten esku-hartzea ezdeusa edo antzemanezina izaten da. Beste batzuetan, aldiz, agerian gelditzen da politika publiko baten modulazio garbia; txosten berezi edo ezohizko txosten baten bidez gizarte problematika jakin bat aztertu ondoren arlo horretako politika publiko baten geroko planteamenduan ondorio eta gomendio horiek barneratu direla egiaztatzen denean, kasu.

Aztertutako hiru esparruetan, erakunde desberdinek hainbat gomendio zehazten dituzte, beren garrantziarengatik administrazio kudeaketa hobetzen laguntzen dutenak, kasuan kasuko administrazioek onartu dituzten heinean. Kasu horietan, administrazioek hainbat tresna juridikotara jo dute defentsa-erakunde desberdinek eginiko gomendioei erantzuteko: erregelamendu arauak, instrukzioak, protokoloak, hitzarmenak, gidak, etab.

Zehaztasunetan gehiegi sartu gabe, eginiko jarduketa batzuen berri ematen da, ombudsmanek administrazio kudeaketaren modulazioan izan dezaketen egitekoa ilustratzeko balio baitezakete adibide bezala.

Hala, osasun arloan, prestazioak bermatzeko dokumentu gisa, aurrez ezarrita dauden eta egiazta daitezkeen kalitate parametroen arabera, era batean edo bestean (osasun) zerbitzuen gutunak ezarri edo hobetzearekin amaitzen diren

eta osasun administrazio onean eragina duten gomendio guztiak nabarmen-tzen dira.

Tratu pertsonala: portaera, pazienteari emandako arreta, etab. Gizatiartzea: intimitatea, heriotzagatiko dolua, ospitaleratutako familiartekoei laguntzea, etab.

Honakoei buruzko informazioa: zerbitzuak, prestazioak, ordutegiak, prozedu-rak, seinaleztapenak, etab.

Administraziokoak: gastuak berriz itzultzeko espedienteak bizkortzea, ondare erantzukizuna, prestazioak ematea, erreklamazioei erantzutea, etab. Itxaron zerrendak: epeak murriztea. Alderdi klinikoak: protokoloak, laguntza pro-zesuak, gida medikoak, etab. Erosotasuna: itxaron gelak, banakako gelak, klimatizazioa, etab.

Hezkuntza esparruan administrazio jarduera egokiei bide eman dieten gomen-dio eta iradokizun batzuk nabarmen daitezke. Horrela:

- Hezkuntza eta Osasun sailen arteko lankidetzak hitzarmena, ikastetxeetan eskolatutako ikasleen osasun premiei erantzuteko.*
- Erroldatze kontrola 0-3rako sarbidean.*
- Eskolako bereizketa (absentismoaren gaineko planak).*
- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatan dituzten ikaste-txeentzako laguntza unitate bereziak garatzea.*
- 0-3an onartzeko eskabideak aldatzea.*
- Tokiko erakundeekiko hitzarmenak, 0-3ko plazak gehitzeko.*
- Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat egokitutako garraioa erabiltzea.*

Azkenik, gizarte zerbitzuen esparruan ere ahotara ekar daitezke zaurgarritasun bereziko egoeran dauden adingabeen inguruko jardunbide egokiei bide ematen lagundu duten gomendio batzuk.

Esperientziak hau ondorioztatzera garamatza: ombudsmanek politika pu-blikoetan eragin edo modulazioak egiteko aukera gehiago izaten da haien “mikro” esparruan, “makro” dei dezakegunean baino. Horren arrazoia txosten berezietan edo ezohizko txostenetan egon ohi da eta, neurri txikiagoan, kexa edo ofiziozko jarduketengatik emandako ebazpenetan.

2. Gomendioen eragina arauen ekoizpenari edota aldaketari dagokienez

Kasu askotan zaila izaten da arau aldaketak defentsa-erakundeen esku-hartzearen emaitza bakar gisa gertatu direla baieztatu ahal izateko harreman zuzena ezartzea. Izan ere, agente publiko eta pribatu desberdinek esku hartu ohi dute, intentsitate desberdinarekin eta, askotan, arautze prozesuaren fase

desberdinetan. Hala ere, kasu askotan defentsa-erakundeen esku-hartzearen eta dagokion arau aldaketan horrek duen islaren artean kausazko lotura izaten da.

Kasu horietan, zenbaitetan, azaldutako gaiaren ex novo erregulazioa planteatzen da, beste batzuetan aurreko erregulazioaren zati baten edo erabateko aldaketa, edo arau izaerako aldaketa. Zentzu horretan, ombudsmanen erakundeen proposamen batzuek, historia klinikoak (zaintza eta kontserbazio denbora) eta bizi testamentua bezalako gaien ingurukoek, adibidez, eragina izan dute arau berri batzuen sorreran edo autonomia erkidego batzuetan lortu den arau aldaketan.

Gai eztabaidagarritzat hartzen da ombudsmanek legegintza edo erregelamendu arauak (Lege eta erregelamendu proiektuak) prestatzeko prozeduretan parte hartzea, haren zirriborro bat bidaltzen zaien kasuetan, egoki iritzitako oharrak egin ditzaten.

Normalean erantzun orokorra ematen da (artikuluak zehatz-mehatz aztertu gabe), inolako lege eragozpenik ez dagoen arren, ez baita egoki ikusten erakundeen independentzia baldintza dezakeen parte-hartzea.

Hala ere, bestela baloratu behar da Espainiako defentsa-erakunde batzuek legegintza prozesuetan “esku hartzeko” duten aukera. Horri dagokionez, Kataluniako Autonomia Estatutu berriak Síndic de Greuges izenekoari aukera ematen dio Estatutu Bermeen Kontseiluari legegintza ekimen bati buruzko irizpen bat eskatzeko, baldin eta ekimen horrek estatutuan onartutako eskubideei eragiten diela iruditzen bazaio. Horrek erabakitze prozesuan eragiteko aukera irekitzen duela ematen du, planteaturiko eztabaidan balio dezaketen argumentuak adierazten baititu eskaeran.

Herriaren Defendatzaileak, bere aldetik, inkonstituzionalitate errekurtsua aurkezteko ahalmena du, eta horrek Konstituzioan jasotako oinarritzko eskubideak ustez urratzen dituzten arauen aurka egiteko aukera ematen du.

Era berean, Aragoiko Justiziak, Estatuko arauen batek eragin dezakeela uste izanez gero, Aragoiko Aldundi Nagusiari edo Aragoiko Gorteei inkonstituzionalitate errekurtsua edo eskumen gatazka aurkezteko eskatu ahal izateko aukera jasotzen da Aragoiko Autonomia Estatutuan.

Horren antzera, Gaztela-Mantxan eta Gaztela eta Leonen erakunde hori arautzen duten legeak adierazten dira. Berez, estatuko Herriaren Defendatzaileak zuzenean inkonstituzionalitate errekurtsua planteatzeko duen aukerara hurbiltzen dira erregulazio horiek.

Urteko txostenetan edo ezohizko txostenetan gomendio edo iradokizunetatik ondorioztatutako arau-garapenerako proposamenei bide emateari dagokionez, erakunde gehienek arabera, kasu batzuetan bakarrik edo oso salbuespenezko

kasuetan bakarrik aldarrikatu da zentzu horretan, eta nabarmendu behar da kasu bakar batean eskaini zaiola gai honi berariazko atal bat urteko txostenean (Andaluziako Herriaren Defendatzailea: politika eta zerbitzu publiko berriak abiarazteko arau garapenik ezaren ondoriozko arazoak. 2005). Nabarmentzeko da ordenamendu juridikotik bertatik sortzen diren konpromisoak ez direla gauzatzen; legeak gutxi gehiago orokorki formulatzen direnez, eraginkorrak izan daitezten, kasu askotan, gero arauz garatu behar dira.

3. Gomendio eta iradokizunek administrazio eta arautze jardueretan duten eraginaren jarraipena egingo dute defentsa-erakundeek eta, hala badagokio, jarraipena egiteko erabilitako tresnak zehaztuko dituzte

Ombudsmanek eginiko jarduketan jarraipenari dagokionez, honako tipologia hau bereiztea komeni da:

- Kexa espedienteen jarraipena, oro har (ebazpen bat –gogorarazpena, gomendioa edo iradokizuna– eman ez den kasuetan).
- Kexa espedienteetatik edo ezohizko txostenetatik zein txosten berezietatik eratorritako ebazpenen jarraipena (gogorarazpenak, gomendioak edo iradokizunak).
- Ezohizko txostenen zein txosten berezien edo kexa adierazgarrien jarraipena.

Aurrez txosten batean hizpide izandako gai baten inguruko ezohizko txostena egitea, metodologia berarekin edo antzekoarekin. Erantzun txostena dei genezake.

Ombudsmanek eginiko jarraipen mota anitzak direla-eta, sailkapen hau egin daiteke:

- Jarraipen iraunkorra edo aldizkakoa.
- Jarraipen informala edo planifikatua.
- Alde batek eskatutako jarraipena edo ofiziozko jarraipena.
- Kasuan kasuko sailek edo berariazko unitate batek jarraipena egitea.

Ondoriozta daitekeenez, erakunde hauen jarduketan “jarraipena” da jardueira “defizit” garbietako bat, dela kexa espedienteetan emandako ebazpenei dagokienez, dela ezohizko txostenetako edo txosten berezietako ebazpenei dagokienez. Orain, oro har, espediente edo gai adierazgarrienen jarraipen zehatza egingo da, kexak kudeatzeko aplikazio informatikoetan oinarritutako eta aurrez ezarritako irizpideak oinarri gisa hartu gabe, eta saileko atal bakoitzari dagokio egoki iriztitako jarraipena xedatzea, kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera, ofizioz edo alderen batek hala eskatuta.

Ezohizko txostenak edo txosten bereziak orokorrakoak direnez, jaso ohi dituzten iradokizun eta gomendioen pluraltasun eta dibertsitatearekin, horien jarraipena egin beharko litzatekeen arren, salbuespenezko kasuetan bakarrik egiten da. Zentzu horretan, urteko txosten batzuetan, Arartekoarenean, kasu, erakunde honek eginiko ezohizko txostenen jarraipena jasotzen duen atal bat barneratu da.

Aintzat hartu behar da bereziki iradokizun eta gomendioetatik eratorritako arautze jardueraren jarraipena, gehienetan kexen aplikazio informatikoaren bidez egiten dena.

Nolanahi ere, ombudsmanen gehiengoak ematen dituzten ebazpenen jarraipen berezia egiten dutela egiaztatu da (ez nahitaez iradokizun edo gomendioetan). Hala, interesdunari berari uzten diote administrazioak onartutakotzat emandako gomendioen ez-betetzeak adierazten. Hala, kexa espedienteak "ixteko" idazkietan hiritarrari ohartarazten zaio, edozein inguruabar dela-eta, administrazioak bere nahiari konponbiderik ematen ez badio, berriz ere ombudsmanarengana jo dezakeela, bidezko jarduketekin jarraitzeko.

4. Ombudsmanen bitartekotza lana

Erakunde batzuek "bitartekotza" ombudsmanen eskumenen barruan dagoen planteatu izan dute eta, kasuren batean, lege arautzailea erregulatzeko edo aldatzeko, kontuan hartu da eskumen hori berariaz jasotzeko premia. Egin-kizun hori gure erakundeen estatutu arautzailean aipatzen ez den arren, hori ez da inongo oztopoa eguneroko jardunean bitartekotza egiteko, berariazko lege estalduraren beharrik gabe.

Bitartekotzari dagokionez, honako alderdi hauek nabarmen genitzake:

Ombudsmanek ez dute bitartekotza zereginetan kualifikatutako langilerik ("bitartekorik"), eta horrek alor horretan trebatzeko planak egiteko premia azaltzen du.

Ombudsmanen bitartekotzak beti kasuan kasuko gatazka behar bezala konpontzerik lortzen ez duen arren, horrelako erakunde baten bitartekotzak arazoaren tentsio handi bat murriztu eta berbideratzen du.

Bitartekotza izan duten kasu asko atal edo unitate jakin batzuetako (ZIU, larrialdi zerbitzuak, etab.) langileen gatazketara, herri bateko zentro jakin baten kokapenera edo itxierara eta abarretara mugatzen dira.

Erakundeek bitartekotza egiteari dagokionez, sei defentsa-erakundek eskuhartzea izan duten egoerak identifikatu dituzte.

Gizarte eremuan ere bitartekotza esperientzien adibide batzuk eman daitezke, egoitza edo harrera zentro batzuetako langileen arteko gatazkak, kasu.

Oraingo honetan, unibertsitateko katedradun ospetsuak izan ziren kanpoko txostengile gisa, eta defendatzaileen egitekoa izan zuten hizpide, ikuspegi desberdinetatik. Horrela, Vienako Unibertsitateko irakasle den Gabrielle Kucsko-Stadlmayerrek “Project on the comparisons of Ombudsman efficiencies” esparru-hitzaldia eman zuen. Fabiola Mata Murtziako Unibertsitateko irakasleak “Ombudsmanak gizartearekin dituen harremanak. Ombudsmana, parte hartzeko mekanismo gisa” izan zuen hizpide. Bestalde, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasleak “Ombudsmanarentzako politika publikoen modulazioak” gaitzat hartuta hitz egin zuen. Ararteko erakundearen web orrian (www.ararteko.net) aurki daitezke txosten horiek.

Horrez gain, *bullying* eskola jazarpenari buruzko mahai-ingurua ere egin zen.

Azkenik, hiritarren bi foro egin ziren, eta nahi izan zuten guztiek parte hartu ahal izan zuten. Lehenengoa “gizarte erakundeei eta defentsa-erakundeei” buruzkoa izan zen. Bigarrenaren izenburua, berriz, hau izan zen: “iritzi publikoa, eskubideak eta defentsa-erakundeak”.

2.2. OMBUDSMANEN IBEROAMERIKAKO FEDERAZIOAREN (OIF) URTEKO XII. BILTZARRA

Limán egin zen Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioaren (OIF) urteko XII. Biltzarra, azaroaren 20tik 23ra, Peruko defentsa-erakundeek antolatuta. Biltzarren gaia “Berdintasuna eta bereizkeriarik eza: Iberoamerikako defentsa-erakundeen erantzukizuna” izan zen, eta hainbat mahai-inguru antolatu ziren aukeratutako gaiaren inguruko alderdi desberdinen inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko xedez. Iberoamerikako herrialdeetako hainbat lurraldetako defentsa-erakundeetako ehunka pertsonak parte hartu zuen biltzarrean. Bertan izan ziren, Espainiako defentsa-erakundeko eta defentsa-erakunde autonomikoetako kideekin batera, arartekoa, Iñigo Lamarca, eta Julia Hernández; hainbat talde edo tailerretan parte hartu zuten. Julia Hernándezek, OIFeko Emakumeen Sareko kide gisa, aktiboki parte hartu zuen sare horren bileretan. Biltzarrean luze eta zabal aztertu ziren izaera pertsonaleko inguruabarren batengatik (genero, jaioterria, inguruabar etniko-kulturala, orientazio sexuala, ezgaitasuna, etab.) edo pobrezia zein gizarte bazterkeriako egoera baten ondorioz bereizkeria agertzen duten errealitateak, defentsa-erakundeek alor hauetan egiten dituzten lan eta jarduketak egiaztatu ziren, eta politika publikoek proaktiboki, erabakitasunez eta eraginkortasunez jarduteko ezinbesteko premia adierazi zen, bereizkeria, berdintasunik eza eta desberdintasun eta dibertsitatearen bazterketa dakarten gizarte egitura eta pentsamoldea, kontrabaliokoak eta jokabide sexistak, matxistak, arrazistak, xenofoboak, homofoboak, etab. erazteko. Biltzarreko ondorioak biltzen dituen Limako Adierazpena eta OIFeko Emakumeen Sarearen Adierazpena onartu ziren.

Jarraian, **Limako Adierazpena** jaso dugu:

*“Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioa (OIF) osatzen dugun erakundeak Limán (Peru) bildu gara urteko XII. Biltzarra egiteko, eta hau **ADIERAZTEN DUGU**:*

Gure herrialde askotan oraindik ere giza eskubideak urratzen dira, milioika pertsonen bizitza, askatasuna eta duintasuna arriskuan jartzen dituzten pobrezia, bazterkeriako eta bereizkeriako egitura baldintzek bere horretan dirautelako.

Egoera horien artean, honako hauek aipa genitzake batez ere:

- *Izaera pertsonalari, generoari, ezgaitasunari, orientazio sexualari, adinari, jatorri etnikoari, ideia edo sinesmenei eta jaioterriari dagozkionak, eta bereizkeriaren, bazterkeriaren eta berdintasunik ezaren xede direnak.*
- *Justiziarako zailtasunak.*
- *Herritarren segurtasunarekiko konpromisoa duten erakundeen gutxiegitasunak.*
- *Kalitate oneko heziketa orokortzeko gabeziak.*
- *Osasunari, edateko ura hornitzeari eta saneamenduari, garraio publikoari eta ingurumenaren iraunkortasunari dagozkien zerbitzuen hutsuneak.*
- *Azaldutako egoerek, pertsona batzuei beste batzuei baino gehiago eragiten dietenek, besteak beste zaugarritasun egoeran dauden haur eta nerabeen, adinekoen, herri indigenek eta ezgaitasunen bat duten pertsonen taldeei*

arreta berezia emateko premia erakusten dute. Baldintza horiek askotariko gizarte gatazken –tartean, indarkeriazkoak– sorrera dakarte.

- Bereziki aipatu beharrekoak dira emakumeek, beren generoa dela eta, pairatzen dituzten berdintasunik eza, indarkeria eta bereizkeria.
- Gure herrialde batzuetako gobernuak egoera horien larritasunaz jabetzen diren arren eta halakoekin amaitzen saiatzeko politikak sustatzen dituzten arren, hiritarren eta beren estatuen arteko berdintasunezko harremanak sendotzea mugatzen duten erakunde ahultasunek hor diraute.

Arrazoi horiek direla medio, honakoa **PROPOSATZEN DUGU**:

- Gure sistema demokratikoak indartzea. Hartara, gure Konstituzioek onartzen dituzten oinarrizko eskubideekiko erabateko errespetua bermatu ahal izango da.
- Gure administrazio publikoek gizarte kohesioa handitzeko xedez garatutako politikak sustatzea.
- Gure herrialdeetako pertsonen oinarrizko eskubideak betetzea bermatzeko legerian hobekuntzak egitea.
- Gure ekonomien hazkundeak sortutako aberastasuna ahalik eta berdintasun handinez banatzea, hiritar guztien eta bereziki premia handiena duten sektoreen gizarte ongizatea handitzeko xedez.
- Hiritarren gai publikoen kudeaketan eta gizarte politiken diseinuan gehiago parte har dezaten sustatzea, eta beren ahotsa erabaki publikoak hartzen dituzten erakundeetara argiago irits dadin laguntzea.
- Indarkeria oro eraztea; genero indarkeria, sexuagatikoa eta familiakoa, batez ere.

Guk honakoak egingo ditugula **HITZEMATEN DUGU**:

- Hiritarren eta, bereziki, premia handiena duten gizarte taldeen oinarrizko eskubideak defendatzeko eta sustatzeko erakundeetan egiten dugun lanaren kalitatea eta kantitatea hobetzeko ahalegin handiagoa egitea.
- Botere publikoetatik independente izaten jarraitzea.
- Administrazio publikoen ikuskapenean eraginkortasuna handitzea.
- Gizarte gatazketan, tartean diren aldean artean elkarrizketaren bidez konponbideak bilatzeko bitartekotzarako dugun gaitasuna sustatzea.
- Zorroztasun handiagoa aplikatzea botere publikoei zuzendutako gure gomen-diozko proposamenei eta horien eraginkortasuna bermatzeko prozedurei.

Konpromiso horiek betetzeak gure biztanleen duintasuna eta bizitza hobetuko dituela eta horiek beren estatuekin identifikatuko dituela ziur gaudenez, giza eskubideak, sistema demokratikoa eta Iberoamerikako Ombudsmanaren erakundeak defendatzeko konpromisoa berresten dugu.”

Halaber, interesgarria denez, transkribatu egin dugu **Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioaren (OIF) XII. Biltzarrean Emakumeen Defentsa Erakundearen Sareak eginiko Adierazpena** ere.

“Iberoamerikako Defentsa Erakundeetako Emakumeen Defentsa Erakundeen Sarea Liman bildu da 2007ko azaroaren 23an, Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioaren (OIF) Urteko XII. Biltzarraren esparruan.

1996. urteaz geroztik, Giza Eskubideen Erakunde Inter-amerikarrak (GEEI) eta Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioak (OIF) Costa Ricako San Josén egindako Giza Eskubideei eta Herriaren Defendatzaileei buruzko Lehenengo Ikastaro Inter-amerikarraren esparruan, erakunde parte-hartzaileetako emakumeen eskubideez arduratzen ziren bulegoetako zuzendari eta koordinatzaileek berriazko eskaera egin zioten OIFeko orduko lehendakariari, emakumeen giza eskubideak defendatzeko berriazko sare bat Federazioan barneratzeko.

Eskaera hark harrera zabala izan zuen, eta 1997. urtean formalizatu zen sarea, OIFek Toledon egindako biltzarrean. Toledoko konklusioen (8.) puntuan hau adierazten da: “Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioan Emakumeen Eskubideez arduratzen diren erakunde instantzien eta atxikitako defentsa-erakundeek sare bat ezartzea kooperazio eta koordinazio mekanismo gisa, genero ikuspegia sartu eta zabaltzeko faktore dinamiko gisa”.

Emakumeok, besteak beste generoa, egoera sozioekonomikoa, aukera sexuala, etnia edo arraza eta adina direla eta, bereizkeria, indarkeria eta berdintasunik eza pairatzen ditugu, eta miserian eta muturreko pobrezian dauden biztanle taldeen artean emakumeak gara gehiengo.

Emakumeen aurkako genero indarkeriak gora egiten du egunez egun eta hainbat modutan agertzen da. Horren erakusgarri latzena emakumeen hilketa da, patriarkatuaren nagusitasunaren eta kontrolaren ondoriozkoa. Femizidioa edo feminizidioak milaka emakumeren heriotza eragin du, oro har, beren senar, lagun, mutil-lagun edo bikotekide ohien eskuetan, eta gehienak inolako zigorrik jaso gabe geratu dira, estatuaren konplizitateaz.

OIFek, giza eskubideak sustatzen dituen erakunde gisa, nazioarteko akordioak betearazteaz arduratu behar du, emakumeen giza eskubideak sustatu eta aurreratzeke eta estatuei horiek berretsi eta bete ditzaten eskatzeko.

OIFen urteko biltzarren azken adierazpenak (1997an Toledon egindakotik 2006an Buenos Airesen egindakora) aztertu ondoren, kezka handiz egiaztatu dugu, Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioko Emakumeen Defentsa Erakundeen Sarea sortu zenetik hamarkada bat igaro ondoren, biltzar orokorrrak konpromiso gisa onartutako gure proposamenak ez direla aintzat hartu ezta gauzatu ere Federazioaren plataforma politikoaren zati gisa.

Hona hemen horietako batzuk:

- *Emakumeen Defentsa Erakundeen Sarea OIFen estatutuetan barneratzea eta Sareko Koordinazioaren ordezkaritza bat, ahotsa eta botoa dituen, OIFen*

biltzarrean hartzea, instantzia horretan benetako parte-hartze demokratikoa eta barne-hartzailea bermatzeko eta, era horretan, politikak eta ekintzak giza eskubideen ikuspegitik formulatzearen eta gauzatzearen, eta bereizkeriarik ez eta berdintasuna lortzearen alde egiteko.

- *Adierazpen askotan errepikatzen den konpromisoa betetzea; genero ikuspedia Federazioaren eta hura osatzen duten instantzien egitekoan barneratzea, hau da, benetako genero transbertsalitatea bermatzea.*
- *Halakorik ez dagoen erakundeetan, emakumeen giza eskubideen arretan, babesean, aurrerapenean eta sustapenean espezializatutako berariazko instantziak, erabakitze ahalmena dutenak, sortzea, eta halako erakundeak indartzea.*
- *Espezializatutako instantziei beharrezkoak diren langileak eta finantza baliabideak esleitzea, behar bezala funtziona dezaten.*
- *Federazioak sustatzen eta egiten dituen jarduera guztietan emakumeen eskubideak gehiago sustatu eta zabaltzea, eta parte-hartzaileak horiek onartzera bultzatzea.*
- *OIF osatzen duten erakundeetako bakoitzean emakumeen bereizkeriarik eza eta berdintasuna errespetatzeko printzipioak erabat betetzen direla behatzea eta bete daitezela sustatzea.*
- *Emakumeen giza eskubideak urratzeko askotariko moduen arreta optimizatzea.*

HORIEK HORRELA, PROPOSAMEN HAUEK BERRESTEN DITUGU:

- *1997an Toledoko biltzarrean hasi eta 2007an Liman egindako biltzarrera bitartean hartutako konpromisoak, aurrez zehazturikoak, betetzea, Biltzarrean Emakumeen Defentsa Erakundearen Sarearen koordinazioko ordezkari bat –hitza eta botoa dituen– sartzeari lehentasuna emanda.*
- *Federazioaren estatutuen eta agirien edukiak eta idazketa goitik behera berrikustea, genero ikuspegi batetik prestatzeko, barne antolaketa jasota eta Emakumeen Defentsa Erakundearen Sarea barne hartuta, OIFen urteko XII. Biltzarra orientatu duten “BERDINTASUNA ETA BEREIZKERIARIK EZA” printzipioak benetan gauza daitezela. Berrikuspen horren ondorioetarako, Emakumeen Defentsa Erakundearen Sareko Koordinazioaren ordezkari bat barneratzea eskatzen dugu.*
- *OIFen hurrengo biltzarrean, Federazioari atxikitako erakunde bakoitzak 1997az geroztik orain arte Emakumeen Giza Eskubideen alorrean hartutako konpromisoen aurrerapenaren eta betetzearen txostena aurkeztea.*
- *Egungo biltzarraren “BERDINTASUNA ETA BEREIZKERIARIK EZA” printzipioak gauzatzea, OIFen organoetan emakume eta gizonen berdintasunezko ordezkariarekin.*
- *Eranskin gisa, OIFen biltzarraren azken agirian Emakumeen Defentsa Erakundearen Sarearen Adierazpenak sartzea.”*

3. ARARTEKO ERAKUNDEAREN BESTELAKO JARDUERAK

Legeak ezarritako funtzioak betetzeari zuzenean lotuta dauden jarduez gain, Ararteko erakundeak hainbat jarduera burutzen ditu urte osoan. Hala, gizarte erakundeek antolatutako ekitaldietan parte hartzen du, giza eskubideekin eta euskal Ombudsmanarekin erlazionatutako gaiei buruzko foro ezberdinetan hitzaldiak ematen ditu, erakundearen helburuekin harreman estua duten ekitaldi instituzionaletan egoten da, etab.

Xehetasunetan galdu nahi gabe, garrantzitsua iruditu zaigu Iñigo Lamarca arartekoaren parte-hartzea izan duten zenbait jarduera urteko txosten honetan jasota geratzea. Honakook dira:

- o Urtarrilaren 9a: autonomietako beste defendatzaile batzuekin batera, egoitza Florentzian (Italia) duen UNICEFen Innocenti institutuko zuzendaritzarekin bildu zen, haurren eta nerabeen hainbat arazo eztabaidatzeko.
- o Urtarrilaren 12a: Gasteizko Las Nieves ospitale psikiatrikoa zabaldu zenetik ehun urte beteko diren urteari hasiera emateko ekitaldian parte hartu zuen.
- o Urtarrilaren 18a: Bilbon akreditaturik dauden kontsulekin solas-bazkaria egin zuen.
- o Urtarrilaren 23a: hitzaldia eman zuen Santiagon, Seminario Galego de Educación para a Paz erakundeak antolatutako konferentzia-zikloaren baitan.
- o Otsailaren 6a: Save the Children erakundeak prestatutako txostena aurkezteko Gasteizen egin zen ekitaldian parte hartu zuen.
- o Otsailaren 6a: konferentzia eskaini zuen Amurrioko Gizarte Eskolan.
- o Otsailaren 14a: Amnistia Internazionalak haur soldaduei buruz Donostian antolatu zuen ekitaldian esku hartu zuen.
- o Otsailaren 19a: kudeaketa publikoko kalitate eta berrikuntzaren aldeko 2006ko sariak banatzeko Madrilen egin zen ekitaldian parte hartu zuen.
- o Otsailaren 20a: Hartu-emanak elkarrearen liburu berdea aurkezteko Bilbon antolatu zen ekitaldian parte hartu zuen.
- o Otsailaren 21a: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen egoitza irekitzeko Gasteizen egin zen ekitaldian parte hartu zuen.
- o Otsailaren 21a: Gasteizen egin zen Ciudad de Vitoria foroan mahai-ingurua eskaini zuen.
- o Otsailaren 23a: El Diario Vasco egunkariko Klik eta Klik atalean hitzaldi digitala eskaini zuen Donostian.
- o Otsailaren 28a: etxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonen premiei emandako erantzunari buruzko ezohizko txostena aurkezteko Arabako Batzar Nagusietan agerraldia egin zuen.
- o Martxoaren 1a: Andaluziako herriaren defendatzailea karguaz jabetzeko Sevillan antolatu zen ekitaldian parte hartu zuen.

- o Martxoaren 5a: Sutondoan emakumeen elkarteak Derion egindako konferentzia izan zen.
- o Martxoaren 21a: Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitza berria inauguratzeko Donostian egin zen ekitaldian parte hartu zuen.
- o Martxoaren 22a: Madrilgo Unibertsitate Autonomoak homosexualen eskubideei eta nazioarteko erakundeei buruz antolatu zituen jardunaldietan konferentzia eskaini zuen.
- o Apirilaren 2a: *Tú también eres un animal* liburuaren aurkezpenan izan zen, Donostian.
- o Apirilaren 11: Rey de España giza eskubideen sariak banatzeko ekitaldian parte hartu zuen, Alcalá de Henaresen.
- o Apirilaren 20a: konferentzia eskaini zuen Salamancako Unibertsitateak homosexualen eta transexualen oinarritzko eskubideei buruzko antolatu zituen jardunaldien baitan.
- o Apirilaren 23a: Eusko Legebiltzarrean drogei eta gazteriari buruzko ponentzia aurkeztu zuen Gasteizen.
- o Apirilaren 26a: Gernikako Deklarazioaren aurkezpen ekitaldian parte hartu zuen.
- o Apirilaren 27a: Galiziako Xuntak administrazio publikoetan herritarren eskubideak defendatu eta sustatzeari buruz Santiagon antolatu zuen jardunaldian konferentzia eskaini zuen.
- o Ekainaren 1a: Deustuko Unibertsitatearen politika publikoei eta lurralde garapeneri buruzko nazioarteko masterreko ikasleekin mintegia egin zuen Gasteizen.
- o Ekainaren 13a: lesbiana, gay eta transexualen eskubideak babesteko mekanismoei buruzko konferentzia eskaini zuen Zaragozan.
- o Ekainaren 14a: Kataluniako Administrazio Publikoaren Eskolak (Eskola de l'Administració Pública) Bartzelonan funtzionario publikoentzat antolatu zituen homosexualen eskubideei eta homofobiari buruzko jardunaldietan konferentzia eskaini zuen.
- o Ekainaren 19a: EHUK Bilbon Guatemalako Giza Eskubideen prokuradorearekin egin zuen ekitaldian parte hartu zuen.
- o Ekainaren 20a: HomO Suediako ombudsmanarekin mintegia egin zuen Donostian.
- o Ekainaren 21a: Gazteriaren Euskal Kontseiluko zuzendaritzarekin bildu zen Bilbon.
- o Ekainaren 22a: Espainiako Herriaren Defendatzailearen 25. urteurrena ospatzeko Madrilan egin zen ekitaldian parte hartu zuen.
- o Ekainaren 28a: Escorialean Unibertsitate Konplutentseko udako ikastaroen esparruan, Espainiako Herriaren Defendatzaileak antolatu zuen ikastetxeetako bizikidetasunari eta gatazkei buruzko konferentzian izan zen.

- o Uztailaren 4a: Eurobask – Europar Mugimenduaren Euskal Kontseiluak Europar Batasunaren 50. urteurrena ospatzeko Donostian egin zuen udako ikastaroan izan zen.
- o Uztailaren 18a: Oñatiko Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutuak Ibero-amerikako ombudsman sistemari buruz antolatu zuen mintegian konferentzia aurkeztu zuen.
- o Abuztuaren 23a: Santanderreko Menéndez Pelayo Unibertsitateko udako ikastaroetan eskolako bizikidetasunari eta gatazkei buruzko konferentzia eskaini zuen.
- o Irailaren 7a: Europan genero berdintasunaren alde egiten duten defentsa-erakundeei buruz Donostian egindako nazioarteko mintegian izan zen.
- o Irailaren 24a: Langraiz Okako espetxean, Merced eguna ospatzeko, antolatu zen ekitaldian parte hartu zuen.
- o Irailaren 27a: Cabueñeseko (Gijón) Nazioarteko Gazte Topaketetan hitzaldia eman zuen.
- o Urriaren 1a: Gesto por la Paz elkarteak Gasteizen antolatu zuen mahai-inguruan parte hartu zuen.
- o Urriaren 6a: buru osasunaren mundu eguna ospatzeko FEDEAFES - Gaixo Psikikoen eta beren Familiartekoen Elkarteen Euskadiko Federazioak Donostian antolatu zituen ekitaldian parte hartu zuen.
- o Urriaren 15a: Gizargik Donostian antolatutako jardunaldien inaugurazio saioan esku hartu zuen.
- o Urriaren 19a: urte judizialari hasiera emateko Bilbon egindako ekitaldian izan zen.
- o Urriaren 30a: Gasteizen EAEko laguntza-etikako batzordeei buruz egin ziren jardunaldietan amaierako konferentzia eskaini zuen.
- o Azaroaren 6a: Gasteizko sindikoa karguz jabetzeko antolatu zen ekitaldian esku hartu zuen.
- o Azaroaren 8a: Galdakaon generoari eta giza eskubideei buruz egin zen jardunaldietan konferentzia eskaini zuen.
- o Azaroaren 8a: Deusto Fundazioak Bilbon droga-mendetasunari buruz egin zituen jardunaldietan konferentzia eskaini zuen.
- o Azaroaren 9a: fibromialgiako euskal elkarteak Bilbon egin zuen atea zabaltzeko jardunaldiaren IX. edizioan parte hartu zuen.
- o Azaroaren 13a: Ararteko erakundeari buruzko mintegia eman zuen, Alcaláko Unibertsitateko giza eskubideen masterraren baitan.
- o Azaroaren 14a: Donostiako Erizaintza Eskolak Donostian osasun arloko indarkeriari buruz antolatu zituen jardunaldien inaugurazio ekitaldian esku hartu zuen.

- o Azaroaren 15 eta 16a: Santa Feko Defentsa Erakundeak Rosario (Argentina) eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruz antolatu zituen jardunaldietan parte hartu zuen eta, horien baitan, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri eta babes mekanismoeri buruzko konferentzia eskaini zuen.
- o Azaroaren 28a: Burlatako Udaleko Berdintasunerako Zinegotzigoak homofobiari buruz antolatutako konferentzia.
- o Azaroaren 30a: Gizardatz – Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku-hartzeko Erakundeek Elkarteak Bilbon antolatu zituen hirugarren sektoreari buruz egindako jardunaldien itxiera-ekitaldian parte hartu zuen.
- o Abenduaren 3a: Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta Donostian egin zen Europar Batasunaren 50 urteei eta Gipuzkoak Batasunean daramatzan 20 urteei buruzko jardunaldian esku hartu zuen.
- o Abenduaren 3a: Gasteizen euskararen nazioarteko eguna ospatzeko egindako ekitaldian izan zen.
- o Abenduaren 11: Gasteizen René Cassin sariak banatzeko antolatutako ekitaldian izan zen.
- o Abenduaren 13a: Gipuzkoako giza eskubideen sariak banatzeko Donostian egindako ekitaldian izan zen.
- o Abenduaren 14a: Gizarte Laneko Eskolak antolatuta Gasteizen egin zen gizarte bazterkeriari buruzko jardunaldian konferentzia eskaini zuen.
- o Abenduaren 19a: Osakidetzak Gasteizen egin zuen osasunerako eskubidearen alderdi instrumentalei buruzko konferentzian izan zen.
- o Abenduaren 19a: Kontseiluaren 10. urteurrena ospatzeko Bilbon egin zen ekitaldian izan zen.

Halaber, Julia Hernández arartekoaren ondokoaren parte-hartzea izan duten ekitaldirik azpimarragarrienak bildu ditugu jarraian:

- o Otsailaren 20a: Gasteizen egin zen “VII in memoriam por Fernando Buesa Blanco. Sumar identidades” omenaldira joan zen.
- o Otsailaren 21 eta 22a: Alacanten izan ziren “Compartiendo la ciudad: una mirada de género” izeneko jardunaldietan parte hartu zuen.
- o Martxoaren 6 eta 7a: Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, Donostian egin zen Haur, Nerabe eta Gazteei buruzko I. Biltzarrean parte hartu zuen.
- o Martxoaren 15a: Aldaketak antolatuta, Gasteizen egin zen euskal konstituzionalismoari buruzko jardunaldian izan zen.
- o Martxoaren 26a: Hirugarren aldiz ONCE-Euskadi Solidarios sariak banatzeko Gasteizen antolatu zen ekitaldian parte hartu zuen.

- o Maiatzaren 9a: Donostian Gipuzkoako Esklerosi Anitzeko Zentroa zabaltzeko egin zen ekitaldian parte hartu zuen.
- o Ekainaren 20a: Harresiak Apurtuz elkarteak Bilbon antolatu zituen “Análisis crítico de las políticas de intervención” izeneko jardunaldietan izan zen.
- o Ekainaren 21a: 2007ko arabarrarentzako El Correo Sariaren III. edizioko sariak banatzeko Gasteizen egin zen ekitaldian izan zen.
- o Uztailaren 26a: ADSIS Fundazioak presoak ez baztertzeko dauden aukerei buruzko BESTALDE Programa aurkezteko Gasteizen antolatu zuen ekitaldian izan zen.
- o Urriaren 1a: emakumeek lehenengoz bozkatu zutenetik 75 urte igaro direla-eta Clara Campoamorren omenez Madrilen egin zen ekitaldian parte hartu zuen.
- o Urriaren 10 eta 11: “Bakarrik dauden adingabeen migrazioa Europan: jatorriko testuinguruak, migrazio ibilbideak, harrera-sistemak” izenburupean Poitiersen (Frantzia) egin zen nazioarteko mahai-inguruan parte hartu zuen.
- o Azaroaren 6 eta 7a: Gazte Justiziaren Nazioarteko Behatokiak “Fenómenos de Delincuencia Juvenil. Nuevas Formas Penales” izenarekin antolatu zuen nazioarteko kongresuan parte hartu zuen.
- o Azaroaren 14tik 16ra: Gazte Justiziaren Nazioarteko Behatokiak Bartzelonan antolatu zuen Haur eta Nerabeen Eskubideei buruzko Munduko III. Kongresuan parte hartu zuen.
- o Azaroaren 30a: Gatako mendilerroko udalerrien mankomunitateak Cáceresen antolatu zituen genero indarkeriari buruzko jardunaldietan parte hartu zuen.

VI. ATALA

ARARTEKO ERAKUNDEAREN
JARDUERA KOPURUTAN

1. OHAR ETA DATU OROKORRAK

Atal honetan zehar Arartekoak burutzen duen jardueraren ikuspegi orokorra bilduko dugu Beraz, zehatz-mehatz, hurrengo orrialde hauetan honako gaiak bildu ditugu: eragindako euskal administrazio publikoetako bakoitzari dagozkion kexen gaineko zifrak, aipatutako kexak lurraldeka nola banatzen diren eta prozedurako zein fasetan aurkitzen diren. Gainera, analisi soziologikoari esker, pertsonen erreklamazioa aurkezteko zer bide erabiltzen duten, zein hizkuntza erabiltzen duten, zer adin duten eta nondik datozen, etab. ezagutu ahal izango dugu. Halaber, arreta zuzena eskaintzen duten hiru bulegoen jarduera ere zehatz-mehatz xehatuko dugu. Kopuru horien inguruko xehetasunak estatistikako kapitulu honetan jaso dira, baina, ondoren, zenbait alderdi aipatuko ditugu, laburpen gisa.

2007. urtean 4.161 kontsulta izan dira, erakundearengana telefonoz zuzendu diren zein gure hiru bulegoetakoren batera bertaratu diren pertsonenak. Guztira 2.572 bisita izan dira. Jasotako bisita guztietatik 632 kexa burutu dira, hau da, %24,57. Horrek arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lanaren garrantzia agerian uzten du –arrazoi batengatik edo besteagatik, Arartekoak ikertzerik izango ez duen erreklamazioak ez onartzean-. Gainera, Internet bidez aurkeztzen diren erreklamazioak gero eta gehiago dira urte urte. 2007. urtean, kexen %36,26 erakundearen web orriaren bitartez heldu zaizkigu.

2007an, herritarrek guztira 1.558 erreklamazio aurkeztu dizkiote Arartekoari. Gainera, ofiziozko 62 espedienteri eman zaie hasiera.

2007. urtean bertan erabat izapidetu diren kexei dagokionez, 576 kasutan okerreko jarduerak atzeman dira, hau da, aztertu diren kexen %42,26n. Ukitutako administrazioak kexa eragin zuten jarduerak zuzendu ahal izan zituen, okerreko jardueraren bat agertu zuten erreklamazioen %89,72n.

Erakunde honen jarduera baloratzeari dagokionez, borondatez betetzekoak eta anonimoak diren inkestak emaitzek agertzen duten bezala, Arartekoaren esku-hartzea oso edo nahikoa positibotzat jotzen da (galdera-sorta erantzuten dutenen %8,24ren ustez). Euren arazoa konponduta ikusterik ezin izan duten edo aurkako emaitza jaso dutenen pertsonen ere balorazio positiboa egin dute (%72,84). Erakunde honetara jo duten pertsona gehienek, %89,72k, adierazi dutenez, beste pertsona batzuei ere Arartekora jotzeko gomendatuko liekete administrazioarekin arazoren bat izanez gero.

Arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lanaren garrantzia azpimarratu dugu, bulegoetan ez direlako onartzen hainbat arrazoiengatik Arartekoak ikertu ezin dituen kasuak. Horregatik, 2004ko urtariletik gure bulegoetara bertaraten diren pertsonen eskatzen diegu erakundera egindako bisitan jaso dituzten arreta eta informazioari buruzko balorazioa eta iradokizunak helarazteko, beren borondatez eta izena agertu gabe.

Ararteko erakundearen esku-hartzearen eraginkortasun-maila

| | % |
|--|-------|
| Konpondutako jarduera okerra | 89,72 |
| Konpondu gabeko jarduera okerra | 10,28 |

(Ikusi 2. diagrama eranskinean)

- Jasotako kexak

2007an guztira 1.558 erreklamazio jaso dira. Horietatik, 1.138 izapidetzeko onartu dira, Ararteko erakundeak aztertu eta ikertzeko. Kexen %7,9 talderen batek aurkeztu ditu.

Jasotako kexen kopuruaren bilakaera (1989 -2007)

| Urtea | Kop. |
|------------|--------------------|
| 1989 | 585 |
| 1990 | 1.159 ¹ |
| 1991 | 766 |
| 1992 | 781 |
| 1993 | 827 |
| 1994 | 747 |
| 1995 | 1.164 |
| 1996 | 1.674 |
| 1997 | 1.991 |
| 1998 | 2.660 ² |
| 1999 | 1.283 ³ |
| 2000 | 1.231 |
| 2001 | 1.513 ⁴ |
| 2002 | 1.253 |
| 2003 | 1.377 |
| 2004 | 1.531 |
| 2005 | 1.459 |
| 2006 | 1.678 |
| 2007 | 1.558 |

¹ 545ek kexa berdinen multzo bat osatzen dute.

² 1.143k kexa berdinen 2 multzo osatzen dituzte.

³ 62k kexa berdinen multzo bat osatzen dute.

⁴ 264k kexa berdinen 2 multzo osatzen dituzte.

(Ikusi 3. diagrama eranskinean)

- Onartu gabeko kexak

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen 3/1985 Legearen 21. artikulua aditzera ematen ditu herritarren kexak ez onartzeko bete behar diren baldintzak. Horri dagokionez, 2007. urtean guztira zenbatutako artean, lehenengo eta behin, hainbat arrazoiengatik onartu ez diren kexak bereizi behar dira: norbanakoen arteko gatazka izateagatik, auzitegian planteaturiko arazoren bati buruzkoak izateagatik (epai irmoa zen edo epailearen ebazpenaren zain zegoen), edo erakunde honen eskumen eremutik kanpo geratzeagatik.

Nolanahi ere, erreklamazioei ahalik eta babes juridikorik handiena eskaintzeko irizpidea mantendu da; horrela, ahalegina egin da prozedura mailako arauetara herritarrek aurkeztutako kexa onartzearen aldeko interpretazioa emateko. Onartu ez diren kexei dagokienez, erakundeak beti ere ahalegina egiten du kexagileari gomendioak emateko, azaldutako arazoak konpontzeko egokienak izan daitezkeen bideei buruz.

Onartu gabeko kexak eta egoerak

| | |
|--|-----|
| Eskumen eremutik kanpo | 68 |
| Jarduera okerrik ez, argi eta garbi..... | 62 |
| Ez dago aurretiazko erreklamazio administratiborik..... | 56 |
| Partikularren arteko auzia | 54 |
| Epai bidean | 41 |
| Izenik gabe aurkeztu da..... | 12 |
| Forma akatsa..... | 12 |
| Legezko epeen zain egon beharra | 7 |
| Estatuko Herriaren Defendatzailearekiko bikoiztasuna | 6 |
| Urtebetetik gora igaro da | 4 |
| Interes legitimorik eza..... | 2 |
| <hr/> | |
| Guztira..... | 324 |
| <hr/> | |

(Ikusi 4. diagrama eranskinean)

- Estatuko Herriaren Defendatzaileari edo beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak

Badira Estatuko Administrazioaren jardueraren aurkako kexak, Ararteko erakundeak zuzenean izapidetzen ez dituenak, administrazio hori ez dagoelako erakunde honen kontrolpean. Erreklamazio horiek Herriaren Defendatzailearengana bideratzen dira. Gainera, kexa batzuk beste autonomia erkidego batzuetako parlamentuetako ordezkariengana bideratzen dira, horien eskumenpean dauden administrazio publikoei buruzkoak direlako.

2007an 72 erreklamazio Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidali dizkiogu eta beste 12 beste defendatzaile batzuei.

| | |
|---|----|
| Estatuko Herriaren Defendatzaileari bidalitako kexak..... | 72 |
| Beste defendatzaile batzuei bidalitako kexak..... | 11 |

- **Zenbait gestio eragin dituzten kexak**

Badira erreklamazio batzuk, onartu arren, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko baten jarduera jakin baten aurka zehazki zuzendu ez direnak. Horiek, estatistiken aldetik bereizita zenbatzen dira. Planteatutako arazoa konpontzeko hainbat gestio egin behar izan dituguneko kexak dira, era askotako gaiak jorratzen dituztenak. 2007. urtean 11 jaso ditugu.

Zenbait gestio eragin dituzten kexak..... 11

- **Arlo eta administrazio bakoitzari zuzendutako kexa-kopurua ondo interpretatzeko era**

Lehenengo hurbiltze batean, pentsa genezake administrazio jakin baten jarduerak eragindako edo arlo jakin batean kokaturiko kexa-kopurua handia izatea estu lotuta dagoela herritarrek administrazio horren funtzionamenduaren gainean duten iritzi txarrarekin, akatsak, gehiegikeriak, edo legea betetzen ez duten jarduerak egoteari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da kexa-kopuruaren interpretazioari buruz azal dutakoari ñabardura garrantzitsuak egitea, bestela ondorio okerrak atera baitaitezke (ondorio akastunak eta bidegabeak, kasuan kasuko administrazioari dagokionez).

Horrela, *a priori* administrazio jakin baten jarduerak eragindako kexa-kopurua esanguratsua izan arren, esanguratsuagoa da kexa askok (eta hauxe da garrantzitsua), kexagilea erakunde honetara ekartzeko moduko arrazoiak edukitzea (administrazio baten jokabidea txarra izateari lotutako arrazoiak). Halaber, erakunde honen iritzi, kexa-kopuruaren datua bera baino garrantzitsuagoa da kasuan kasuko administrazioaren jokabidea, bai ezarritako epean jakinarazpena egiteko betebeharrari eta bai erreklamazioa ikertu edo aztertu ostean emandako ebazpenei dagokienez. Hau da, funtsezkoa da administrazioak gomendioak edo iradokizunak onartzen dituen ala ez egiaztatzea, horren jokabideari irregularra irizten zaionean.

2. ESTADISTIKA ALORREZ ALOR

Kexak eurei lotutako gaikako alorren arabera kontuan hartzen baditugu, ikusten dugu, aurreko ekitaldiaren aldean, 2007. urtean ia ez dela aldaketarik izan erreklamazio kopuruari dagokionez. Horietatik %16,34 Herri Lanen eta Zerbitzuen alorrekoak dira, %11,34 Herrizaingokoak eta %10,11 Gizarte Ekintzakoak.

Zuzenean bideraturiko kexen banaketa, jarduera-alorren arabera

| | Jasotako kexak | % |
|--|-----------------------|------------|
| Herri Lanak eta Zerbitzuak..... | 186 | 16,34 |
| Herrizaingoa..... | 129 | 11,34 |
| Gizarte Ekintza | 115 | 10,11 |
| Hirigintza eta Lurralde Antolamendua..... | 110 | 9,67 |
| Hezkuntza | 108 | 9,49 |
| Funtzio Publikoa | 105 | 9,23 |
| Osasuna..... | 86 | 7,56 |
| Ogasuna | 77 | 6,77 |
| Etxebizitza | 69 | 6,06 |
| Ingurumena | 63 | 5,54 |
| Justizia..... | 32 | 2,81 |
| Kultura eta Elebitasuna | 24 | 2,11 |
| Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa | 16 | 1,40 |
| Animalien Babesa | 8 | 0,70 |
| Lana eta Gizarte Segurantzza | 6 | 0,52 |
| Bereizkeria | 4 | 0,35 |
| Guztira..... | 1.138 | 100 |

(Ikusi 5. diagrama eranskinean)

- Kexen sailkapena azpiarloka

2007an jasotako kexak gaika aztertuz gero, gaikako arlo bakoitzean egon diren aldatketetan azpiarlo bakoitzak duen eragina ikusten da (Ararteko erakundeak gaikako arlo horietan sistematizatzen du bere lana).

Jasotako kexen banaketa, jardueraren azpialorren arabera

| | |
|--|------------|
| Herri Lanak eta Zerbitzuak | 186 |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura..... | 52 |
| Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. erantzukizuna | 39 |
| Tokiko zerbitzu publikoak..... | 29 |
| Beste batzuk | 24 |
| Azpiegiturak | 21 |
| Garraioak | 9 |
| Irisgarritasuna | 8 |
| Eskubideak eta askatasunak..... | 4 |
| Herrizaingoa | 129 |
| Trafikoa..... | 91 |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura..... | 19 |
| Eskubideak eta askatasunak..... | 8 |
| Herritarren segurtasuna | 6 |
| Jokoak eta ikuskizunak | 2 |
| Beste batzuk | 2 |
| Babes zibila..... | 1 |
| Gizarte Ekintza | 115 |
| Diruzko gizarte prestazioak..... | 42 |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura..... | 19 |
| Adinekoei eskainitako laguntza | 12 |
| Haur eta nerabeei eskainitako laguntza..... | 11 |
| Babes bereziko taldeei eskainitako laguntza..... | 10 |
| Ezgaitasunen bat duten pertsoneri eskainitako laguntza .. | 9 |
| Familiari eskainitako laguntza | 6 |
| Beste batzuk | 4 |
| Emakumeei eskainitako laguntza..... | 2 |

| | |
|---|------------|
| Hirigintza eta Lurralde Antolamendua | 110 |
| Hirigintzako diziplina eta aurria..... | 57 |
| Irisgarritasuna | 29 |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura..... | 13 |
| Hirigintzako antolamendua..... | 9 |
| Eskubideak eta askatasunak..... | 1 |
| Hirigintzako kudeaketa | 1 |
| | |
| Hezkuntza | 108 |
| Bekak eta beste laguntza batzuk..... | 17 |
| Eskubideak eta betebeharrak | 17 |
| Ikasleen onarpena | 16 |
| Eskola garraioa | 13 |
| Haur hezkuntza..... | 11 |
| Hezkuntza premia bereziak | 8 |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura..... | 6 |
| Unibertsitateko irakaskuntza..... | 5 |
| Beste batzuk | 4 |
| Hezkuntza planifikazioa/programazioa | 4 |
| Ikastetxeak – Antolaketa | 2 |
| Jantokia | 2 |
| Ikastetxeak – Instalazioak | 1 |
| Hizkuntzen irakaskuntza..... | 1 |
| Irakaskuntza artistikoak..... | 1 |
| | |
| Funtzio Publikoa | 105 |
| Aukeraketa | 29 |
| Ordezkapenak..... | 16 |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura..... | 12 |
| Eskubideak eta askatasunak..... | 9 |
| Ordainsariak | 9 |
| Lizentziak eta baimenak..... | 5 |
| Beste batzuk | 5 |
| Lanpostuak betetzea..... | 5 |
| Hizkuntz normalizazioa | 3 |
| Beste eskubide eta betebeharrak batzuk | 3 |
| Lanpostuen zerrenda | 3 |
| Irisgarritasuna | 2 |
| Diziplina araubidea | 2 |
| Prestakuntza | 1 |
| Barne sustapena | 1 |

| | |
|---|-----------|
| Osasuna | 86 |
| Erabiltzaileen eskubideak..... | 49 |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura..... | 14 |
| Osasun laguntza..... | 13 |
| Buruko osasuna..... | 5 |
| Beste batzuk..... | 2 |
| Osasun publikoa..... | 2 |
| Kontratazio araubidea, ondarea eta adm. erantzukizuna..... | 1 |
| | |
| Ogasuna | 77 |
| Udal tasak..... | 26 |
| Udal zergak..... | 17 |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura..... | 15 |
| Foru zergak, PFEZ..... | 12 |
| Udal prezio publikoak..... | 4 |
| Foru zergak, oinordekotzak eta dohaintzak..... | 1 |
| Beste batzuk..... | 1 |
| Prezio publikoak, EAE..... | 1 |
| | |
| Etxebizitza | 69 |
| Adm. funtzionamendua eta adm. prozedura..... | 21 |
| Etxebizitza babestuak esleitzeko prozedura..... | 14 |
| Beste batzuk..... | 11 |
| Etxebizitza babestuetan eraikuntza-akatsak eragindako kalteak..... | 9 |
| Etxebizitzaren beharra egiaztatzea..... | 6 |
| Errenteria | 53/2007/22 | Kalez kaleko salmenta-postua eskatzea | 2007/12/18 | JG |
| Eskoriatza | 937/2006/17 | Industri jarduera batek eragindako zaratak | 2007/07/13 | J |
| Hernani | 1453/2006/29 | Udalerniko zona batera segurtasunez heldu ahal izatea | 2007/09/20 | J |
| | 15/2007/31 | Gizarte etxebizitza utzaraztea | 2007/05/03 | J |
| | 140/2007/29 | Arau Subsidiarioen berrikuspena | 2007/05/29 | J |
| | 389/2007/29 | Merkataritzako etxabeak etxebizitza gisa erabiltzea | 2007/05/29 | J |
| Hondarribia | 56/2007/18 | Trafikoko seinaleak euskaraz ematea | 2007/03/23 | J |
| | 56/2007/18 | Trafikoko seinaleak euskaraz ematea | 2007/09/10 | JG |
| | 1169/2007/16 | Gorpua familiari jakinarazi gabe lurpetik ateratzea | 2007/12/11 | JG |
| Ibarra | 118/2006/16* | Udal akordio baten legezotasuna. Akordio horretan erabaki zen kexagileari azkenean burutu ez zen ikastaroa egiteko ordaindu zuen prezio publikoaren % 50 itzuliko zitzaiola | 2007/01/22 | J |
| | 118/2006/16 | Udal akordio baten legezotasuna. Akordio horretan erabaki zen kexagileari azkenean burutu ez zen ikastaroa egiteko ordaindu zuen prezio publikoaren % 50 itzuliko zitzaiola | 2007/07/09 | JG |
| | 570/2007/28 | Hiri lurrean sailkatutako jarduerak | 2007/11/07 | JG |
| Irun | 1094/2006/35* | Berehala ordaindu beharreko trafikoko zigorraren zenbatekoarekiko desadostasuna | 2007/06/19 | J |
| | 1192/2006/19* | Udaltzaingoak lapurretagatiko salaketa hartu nahi ez izatea | 2007/01/04 | J |
| | 1025/2006/23 | Ondare erantzukizuna | 2007/04/24 | J |
| Lasarte-Oria | 561/2006/32* | Bake epaitegian ezkontza euskaraz ezin egin | 2007/02/01 | J |
| Lazkao | 963/2007/17 | Irigarritasuna | 2007/11/07 | J |
| Lezo | 972/2005/28 | Hiri lurrean sailkatutako jarduerak | 2007/06/14 | JG |
| | 1455/2006/23 | Lokalak etxebizitza gisa erabili ahal izateko prestatzea | 2007/04/24 | JG |
| Mutriku | 546/2007/23 | Portuko lanek etxebizitzetan eragindako kalteak | 2007/08/23 | J |
| Oñati | 497/2007/18 | Udal kartelak soilik euskaraz ematea | 2007/09/10 | J |
| | 572/2007/28 | Hiri lurrean sailkatutako jarduerak | 2007/09/12 | J |
| Orio | 16/2007/28 | Hiri lurrean sailkatutako jarduerak | 2007/06/14 | JG |
| Pasaia | 315/2005/16 | Higiezinaren azalerari dagokion balio katastrala oker baten ondorioz aldatzea. OHZren likidazioen zuzentzeko dagoen denbora | 2007/11/22 | JG |
| | 1615/2006/29 | Industrialde batera heldu ahal izatea | 2007/03/20 | JG |
| | 340/2007/29 | Desjabetze espedienteen izapidea ez betetzea | 2007/09/20 | J |
| | 372/2007/35 | Udaltzaingoak ezgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako plazetan aparkatzea | 2007/06/26 | J |
| Tolosa | 233/2006/23 | Ur hornikuntza | 2007/04/24 | J |
| Urnieta | 630/2007/23 | Bizigarritasun lizentzia ez ematea | 2007/08/23 | J |
| Zumaia | 1447/2006/28* | Hiri lurrean sailkatutako jarduerak | 2007/06/14 | J |
| Zumarraga | 517/2007/23 | Igogailua instalatzeko obrak | 2007/09/26 | J |

D) Beste erakunde publiko batzuk

| | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (Kexa eragin duen gaia) | Agindeiaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|----------------------------------|-------------------------------|--|---------------------|--|
| Legelarien Euskal | 192/2006/32* | Administrazioaren isiltasuna | 2007/02/01 | JG |
| Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa | 624/2007/25 | Ondare erantzukizuna | 2007/09/05 | J |
| Haurreskolak | 1279/2006/20 | Haur eskolako instalazioen egoera | 2007/09/27 | J |
| | 980/2007/20 | Instalazio eskasak | 2007/09/27 | J |
| | 980/2007/20 | Instalazio eskasak | 2007/11/21 | J |
| | 996/2007/20 | Aulestiko haurreskolan bi urteko haurrak eskolatzea | 2007/09/27 | J |
| Euskal Herriko Unibertsitatea | 1494/2006/20* | EHUren doktoratu aurreko beken esleipendunak: doktoregoko matrikulen zenbatekoak itzultzea | 2007/01/12 | J |
| | 584/2007/20 | EHUko Zerbitzuen Ikuskaritza: irakasleen betebeharrak betetzen direla kontrolatzea | 2007/06/19 | J |
| | 965/2007/25 | Erasmus programan irakasgaiak baliozkotzea | 2007/09/20 | J |
| | 1210/2007/20 | Donostiako Erizaintza Eskola: Erizaintza Mediko-Kirurgikoa III irakasgaiaren ebaluazioa | 2007/12/11 | JG |

4. ARARTEKOA 2007. URTEAN EGINDAKO OHARTARAZPENEN ZERRENDA

A) Foru aldundiak

- Arabako Foru Aldundia

| Saila | Ardura | Titularra | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (Kexa eragin duen gaia) | Ohartarazpenaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|---------------|----------------|-----------------------|----------------------------|---|-----------------------|--|
| Gizarte Gaiak | Foru diputatua | Ainhoa Domaica andrea | 454/2006/17* | Irisgarritasunik ez Saila bere baitan hartzen duen eraikinean | 2007/02/21 | J |

B) Udalak

- Arabako Lurralde Historikoa

| Udala | Ardura | Titularra | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (Kexa eragin duen gaia) | Ohartarazpenaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|--------------------|---------|-----------------------------|----------------------------|---|-----------------------|--|
| Arrazua-Ubarrundia | Alkatea | Rufino Sáez de Ibarra jauna | 1482/2006/31* | Udal erroldan izena ematea | 2007/04/17 | J |
| Vitoria-Gasteiz | Alkatea | Alfonso Alonso jauna | 325/2006/17* | Autobusen ordutegiei eta ibilbideei buruzko informazioa | 2007/02/21 | JG |

- Bizkaiko Lurralde Historikoa

| Udala | Ardura | Titularra | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (Kexa eragin duen gaia) | Ohartarazpenaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|----------|---------|---------------------------|----------------------------|--|-----------------------|--|
| Durango | Alkatea | Juan José Ziarrusta jauna | 1616/2006/28 | Lonjetatik datozen zaratak | 2007/11/07 | J |
| Getxo | Alkatea | Iñaki Zarragoa jauna | 121/2006/19* | Kale bateko trafikoaren antolamenduak bide segurtasunean eragina izan dezake | 2007/02/28 | J |
| Plentzia | Alkatea | Nicolás Oñate jauna | 1054/2006/29* | Urbanizazio lanak egiteko eskaera | 2007/02/06 | J |
| Zaratamo | Alkatea | Roberto Ibarretxe jauna | 473/2004/22* | Hainbat zerbitzu emateko eskaera | 2007/07/24 | JG |
| | | | 231/2005/22* | Txabola osasungaitza | 2007/07/24 | JG |

- Gipuzkoako Lurralde Historikoa

| Udala | Ardura | Titularra | Erreferentzia (esp. zenb.) | Azalpena (Kexa eragin duen gaia) | Ohartarazpenaren data | Informazio Jaso Gabea (JG) Jasotakoa (J) |
|----------|---------|-----------------------|-------------------------------|---|--------------------------|--|
| Ataun | Alkatea | Bittor Oroz jauna | 877/2006/22* | Bidearen egokitzapena | 2007/07/24 | J |
| | | | 1044/2006/16* | Zalantzan jarri da ardiak bazkatzeko baimen bati udalak ezarri dion denboramugaren legezketasuna | 2007/05/15 | J |
| Azkoitia | Alkatea | Asier Arambarri jauna | 881/2003/28* | Hiri lurrean sailkatutako jarduerak | 2007/02/21 | J |
| Ibarra | Alkatea | Consuelo Romeo andrea | 118/2006/16* | Udal akordio baten legezketasuna. Akordio horretan erabaki zen kexagileari azkenean burutu ez zen ikastaroa egiteko ordaindu zuen prezio publikoaren % 50 itzuliko zitzaioala | 2007/03/06 | J |

VIII. ATALA

ARARTEKOAREN GOMENDIOAK ETA
IRADOKIZUNAK
ZENBATERAINO BETE DIREN

Ararteko erakundea sortu eta arautu zuen 3/1985 Legeak –otsailaren 27koak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoari dagokio: “*Dagokien ihardutze-sailei, herrilanaiei edo hoi lanariburuei aholkuak ematea edo legezko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriazko egintzak zuzentzen edo Arduralaritza-zerbitzuak hobetzea lortzen saiatzeko*” (sic).

Ondorioz, kexak bideratzeko lana garatzean, batzuetan administrazio jokaera ez dela zuzena izan ondorioztatzen dugu, bai herritarren eskubideak urratu direlako, bai ordenamendu juridikoaren aurreikuspenak bete ez direlako, bai aztertutako administrazio jokaera hobea izan daitekeelako, ikuspegi bermatzaileago batetik, edo eraginkorragoa, zerbitzu publiko baten helburu propioak betetzean. Kasu horietan, Arartekoak gomendio edo iradokizun bat bidaltzen du kexak eragindako administrazioa, jokaera alda dezan eskatzeko.

Gomendioak ordenamendu juridikoa urratu dela, legez kontra jokatu dela edo hutsegite larria izan dela ikusten denean egiten dira eta, horien bidez, delako jarduera berrikusteko eskatzen zaio kasuan kasuko administrazioari. Formula honen pean egiten dira, orobat, legeak bete behar dela gogorarazteko oharrak.

Aldiz, iradokizunei dagokienez, eragindako administrazioak legeei jarraiki jardun izan dezake, baina, eskubideak babestearren edo administrazio egokia bermatzearen, beharrezkoa izan daiteke beste era batera jardutera. Kategoria honetan barneratzen dira, orobat, administrazio bakar bati zuzenduta dauden eta kexa-espediente jakin batekin zerikusia duten arau aldaketako proposamenak ere.

Hala ere, komeni da zehaztea beti ez dela beharrezkoa gomendia edo iradokizuna egitea. Askotan, administrazioak bere jokaera jakin bati buruzko informazioa eskatzeko idazkia jaso eta bere jokaera legezkontasunarekin bat ez zetorrela egiaztatu ondoren, bere jokaera ez dela zuzena izan aitortzen du, luzamendutan ibili gabe, eta herritarrari urratutako eskubidea berrezartzen dio. Arazoak konpontzeko modu honek ez du gomendio edo iradokizun bat beren-beregi egitea eskatzen eta berari esker, irregularitasunak antzeman dituzten 347 administrazio jokaera gomendio edo iradokizunik egin gabe konpondu dira.

Nolanahi ere, egindako gomendioak betetzeari bakarrik lotuko gatzaizkio: 2007. urtean egindako 52 gomendioetatik eta 2006ko txosteneko datuen arabera erabakitzeke zeuden beste 7 gomendioetatik, 15 onartu egin dira; 16 ez dira onartu, 26 erantzunaren edo azken erabakiaren zain daude. Orobat, beharrezkoa da aipatzea egindako gomendioetako bat, azkenean, bertan behera utzi dela, hori egiteko oinarri hartu ziren aurrekariak berrikusi ondoren. Era berean, esan behar da beste gomendio bat izapidetze prozesuan gertatutako hutsegite baten ondorioz egin zela eta, beraz, administrazioen erantzunak aztertzerakoan ez dela kontuan hartu behar.

Emaitza horiek baloratzerakoan, ezin dugu ahaztu erakunde honek egindako gomendio edo iradokizunak ez direla lotesleak eta, ondorioz, limurtzea edo pertsuasioa

bestarik ez dugula laguntza eskatu diguten herritarren egoera juridikoak konpontzen saiatzeko.

Horregatik, aipatu nahi dugu erakunde honek garrantzi handia ematen diola administrazio publikoetara bidaltzen dituen erabakiak behar bezala arrazoitzeko beharrari, batez ere erabaki bat edo esku hartzeko irizpide batzuk aldatzeko eskatzen denean. Beti esan izan dugu behartzeko gaitasunik ez izateak ahalegin dialektiko handiagoak egitera behartzen gaituela, gure analisietan sakontzera, desadostasun juridikoak egiaztatzen eta gure argudioak errepikatzen, gure gomendioak eta gogorarazteko oharrak betetzeko orduan bidegabeko aitzakiak jartzen direla ikusten dugunean. Hau da, esku hartzeko dauzkagun aukera guztiak agortzen saiatzen gara, gure asmo bakarra egiaztatzen ditugun legez kontrako egoera horiek berrezartzea eta legez kontrako edo bidegabeko praktikak aldatzea dela.

Beti onartu dugu Ararteko erakundeak administrazio jokaera bat aldatzea gomendatu edo iradokitzen duenean, administrazioak ez duela zertan onartu gomendioaren eta/edo iradokizunaren interpretazio juridiko hori, eta ados ez egoteko arrazoiak zeintzuk diren argudia dezakeela. Administrazioaren desadostasun juridikoa gertatzen bada, erakunde honek bere gomendioari eta/edo iradokizunari eutsiko dio, hala badagokio, eta urteko txostenean ez dela onartu agertuko du.

Batzuetan, eragindako administrazioak ez du adierazten gomendia edo iradokizuna onartzen duen ala ez. Kasuok bestelako balorazioa merezi dute, eta halakoetan, erantzunik ezak gomendia edo iradokizuna ez betetzeko asmoa estaltzen duela susmatzen da, eta, hortaz, administrazioari adierazten zaio erantzunik ez emateko jarrerari eusten badio, ez onartutzat joko dela gomendia edo iradokizuna, eta zertzelada hori jakinaraziko dela Legebiltzarreari egiten zaion urteko txostenean. Erakundearen artean begirune eza erakusten duen jarrera horrek eragotzi egiten du gomendia ez onartzeko arrazoiak jakitea, eta, askotan, bestarik gabe, hartutako administrazio erabakiak ez duela oinarri juridikorik azaldu beharra saihesten du.

Gure ustez, gomendia eragin duten espedienteak amaitzeko beste modu desegoki bat gomendia ez onartzea da, eragindako administrazioak kontrako jokaera hori oinarritzen duten argudioak azaldu gabe.

Uste dugu jokaera horiek –erantzun nahi ez izatea edo arrazoitu gabeko ezezko erantzuna ematea– urratu egiten dutela Eusko Legebiltzarreko erakunde ordezkari gisa eman dizkiguten eginkizunak onartzea. Era berean, gure iritziz, jokaera horiek begirunerik eza erakusten dute Zuzenbideko Estatuak arazoak konpontzeko eman duen tresnetako bat erabiliz beren eskubideak aitor diezazkieten eta legeria bete dadin erakunde eskubide-bermatzaile batera babes eske joan diren herritarrekiko. Ildo horretan, gogorazi behar da onartu gabeko gomendio edo iradokizun bakoitzak, erakunde honen bermatze lanerako oztopoa izateaz gain, batez ere legea ez betetzen edo herritarren eskubideak urratzen jarraitzea dakarrela berekin, herritarrei legez dituzten eskubideak berrezartzea galaraziz.

Atal honetan 2007an egin diren eta 2006ko abenduaren 31n behin betiko erantzunaren zain zeuden gomendio eta iradokizunen egoera aipatu dugu. Aipamen hori lau kategoriatan banakatutako gomendioen azaleko deskribapena baino ez da izango. Lau kategoriak honako hauek dira: 1) Administrazioak onartu dituenak; 2) Administrazioak onartu ez dituenak, 3) txosten hau egiten amaitutakoan, administrazioaren behin betiko erabakiaren zain daudenak eta 4) bertan behera utzi direnak.

2007an egindako gomendioek eta iradokizunek zuzenean ebazpenaren testura daramatzate erreferentzi zenbakian sakatuta. Aldiz, aurreko urteetatik ebazteke daudenak gure web orrian kontsulta daitezke.

1. ONARTUTAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK

A) EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

* **1435/2006/20 espediente**a (**3/2007 Iradokizuna**). Honakoa iradoki zen: berariazko ibilbidea zuen eskola-garraioko zerbitzu osagarria onartzeko aukera guztiak azter zitezela.

Osasun Saila

* **753/2006/18 espediente**a (**5/2007 Gomendioa**). Honakoa gomendatu zen: (...)e)k gastuak itzul zekizkion egindako eskaera onar zedila.

Osakidetza

* **271/2006/20 espediente**a (**2/2007 Iradokizuna**). Honakoa iradoki zen: baimendutakoak baino destino gehiago eskatzen zituzten pertsonak ez zitezela zerrendetatik kanpo utzi etorkizunean egiten ziren aldi baterako kontratazioetan.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

* **1151/2006/16 espediente**a (**1/2007 Iradokizuna**). Honakoa iradoki zen: hiru urtetik beherako haurrak dituzten familientzako diru-laguntzen araudian, familiaren diru-sarrerak zenbatzeko berariazko sistema bat txerta zedila, kasu jakin batzuetarako.

B) FORU ADMINISTRAZIOA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ekintza Saila

* **1050/2006/31 espediente**a (**8/2007 Gomendioa**). Honakoa gomendatu zen: elbarritasun kalifikazioaren berrikuspen prozedurako iraugitze deklarazioa eraginik gabe utz zedila eta berariazko ebazpena eman zedila.

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

BIZKAIKO UDALAK

Lekeitioko Udala

* **912/2006/28 espediente**a (**42/2007 Gomendioa**). Honakoa gomendatu zen: elkarte gastronomiko bati ostalaritza establezimenduak eta antzekoak arautzen dituen ordenantza betetzeko agin zekiola.

Santurtziko Udala

* **289/2007/29 espedientea (20/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: “Balparda El Árbol” industrialdean izapidetutako mugaketa-espedientea baliorik gabe utz zedila.

GIPUZKOAKO UDALAK

Debako Udala

* **1574/2006/23 espedientea (7/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Udalak babestutako etxebizitzan hurrengo sustapenean kexa egin zuen familiari etxe berria eman zekiola.

Donostiako Udala

* **1130/2005/23 espedientea (16/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: lur eremu baten segurtasun baldintzak egiaztatzeko administrazio espedientea izapidetu zedila.

* **874/2006/29 espedientea (25/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: beste edozein jarduera garatu aurretik, bidezko baimenak izapidetu zitezela Kristina-Enea parkean aurreikusitako esku-hartzeak gauzatzeko.

* **256/2007/23 espedientea (19/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: udal titulartasunekoia izan zitekeen lur eremu baten inguruan ikerketa egiteko eskaerari erantzun zekiola.

Legazpiko Udala

* **890/2005/23 espedientea (8/2006 Gomendioa)**¹. Honakoa gomendatu zen: elkarte gastronomiko baten titularrari eska zekiola, hilabeteko epe luzaezinean, kalifikazio txostenean jasotako neurriak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuaren neurri zuzentzaileak behin betiko hartzeko, eta era berean ohartaraz zekiola, hori horrela betetzen ez bazen, establezimendua itxi egingo zela, kautelazko neurri gisa.

Pasaiaiko Udala

* **18/2006/29 espedientea (21/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: lursail baten titulartasun publikoa edo pribatua zehazteko nahitaezko administrazio prozedura izapidetu zedila.

¹ Arartekoaren ebazpena, 2006ko martxoaren 23koa, Legazpiko Udalari egina, elkarte gastronomiko baten titularrari zaratak sorturiko eragozpenak saihesteko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak har ditzala eska diezaion.

* **340/2007/29 espedientea (43/2007 Gomendia)**. Honakoa gomendatu zen: Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaiak balio justuko espediente batean eskatu zuen balioespen txostena bideratu zedila.

D) ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua

* **834/2007/32 espedientea (47/2007 Gomendia)**. Honakoa gomendatu zen: erreklamatzailari berriro jakinaraz zekiola honek aurkeztutako kexa artxibatzeke erabakia, horretarako arrazoiak eta horren aurka errekurtoa jartzeko zeuden aukerak adierazita, eta informazio hori diziplina-arloko salaketa bat artxibatzea erabakitzen zuen handik aurrerako ebazpen guztietan ere barnera zedila.

2. ONARTU EZ DIREN GOMENDIOAK ETA IRADOKUZUNAK

A) EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sails

* **351/2006/23 espedientea (28/2006 Gomendioa)**². Honakoa gomendatu zen: Donostiako gas fabrika zaharrean kalifikatutako ondasunak ezarrita dauden babes irizpideei jarraiki gordeko zirela berma zedila.

Ogasun eta Herri Administrazio Sails

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

* **107/2007/33 espedientea (14/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: beharrezko neurriak har zitezela oposizio fasea puntuatu eta laborategiko goi mailako teknikarien lan burtsako hautagaien sailkapen ordena zehazte aldera kalifikazio epaimahaia ezarritako arauak berrikusi ahal izateko, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen mesedetan.

B) FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sails

* **893/2006/16 espedientea (25/2006 Gomendioa)**³. Honakoa gomendatu zen: Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezian familia ugaria izateagatik eskaturiko %50eko murrizketa gaitzesteko erabilitako administrazio egintza baliogabe zedila, Zerga-premiazko 1/1999 Dekretu Arautzailearen 71. artikuluko 4. atalean ezarritako baldintza esanguratsuak betetzen zirela baieztatu ondoren, administrazio egintza berria egin zedila eskaeraren alde eginez eta bidegabe jasotako kopuruak itzul zitezela.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ekintza Sails

* **1508/2006/31 espedientea (10/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: oinarrizko errentaren prestazio bat eteteko prozedura bertan behera utz zedila, jasotzeko eskubidea manten zedila eta atzerapenak ordain zitezela.

² Arartekoaren ebazpena, 2006ko abenduaren 27koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari gomendatu zaio berma dezala Donostiako gas fabrika zaharrean kalifikaturiko ondasunak ezarrita dauden babes-irizpideei jarraiki gordeko direla.

³ Arartekoaren ebazpena, 2006ko azaroaren 17koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiari gomendatu zaio Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia ez zergapetzeko, zerga ordaintzetik salbuesteko edo zerga murrizteko eskatzen diotenean, ez ditzala bideragarritzat jo bakar-bakarrik matrikulatu aurretik egindako eskabideak.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Ogasun eta Finantza Departamentua

* **1004/2006/34 espedientea (45/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: babes ofizialeko etxebizitza bat Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsi zedila eta, ondorioz, zerga-onura horren baitan oker jasotako zenbatekoak itzul zitezela.

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

ARABAKO UDALAK

Gasteizko Udala

* **550/2005/35 espedientea (23/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: trafikoko zehapen prozedura bat bertan behera utz zedila eta, hala bazegokion, bildu izan zitezkeen zenbatekoak itzul zitezela.

* **1337/2006/31 espedientea (11/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: herritar baten eskaerari erantzun zekiola eta gizarte txostena egin zedila, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko araudian ezarritako xedapenei egokituta.

BIZKAIKO UDALAK

Zornotzako Udala

* **186/2005/23 espedientea (17/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: udalerriko auzokide batzuek salatu zituzten jarduera eztabaidagarriak legeztatzeko espedientea has zedila.

Bilboko Udala

* **549/2006/29 espedientea (2/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: telefono mintzalekuak jartzeko debekua baliorik gabe utz zedila (debeku hori Bilbo Zaharra eremua bereoneratu eta barnetik eraldatzeko Plan berezian eta Uri Zaharraren berregokipenerako Egitamu berezian ezarrita dago).

Derioko Udala

* **598/2005/29 espedientea (27/2006 Gomendioa)**⁴. Honakoa gomendatu zen: bide publikoan mahaiak eta aulkiak jartzeko ordenantza arautzailea bete zedila eta, horretarako, lurzoruaren titularrei baimena eska zekiela, legezko eran; eta, hala

⁴ Arartekoaren ebazpena, 2006ko abenduaren 20koa. Horren bidez, Derioko Udalari gomendatu zaio herri-bidean mahaiak eta aulkiak jartzea arautzen duen ordenantza bete dezala.

bazegokion, kasuan kasuko espedientea izapidetu zedila leku horretan terraza instalatzeko eman zen baimenean ezarritako baldintzak ez betetzearen inguruan aurkeztu ziren salaketak egiaztatzeko.

Lekeitioko Udala

* **983/2005/29 espedientea (9/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: lurzoru urbanizaezinean zegoen eraikin bat berritzeko emandako hirigintzako lizentzia berrius zedila.

Portugaletoko Udala

* **1110/2002/24 espedientea (20/2006 Gomendioa)**⁵. Honakoa gomendatu zen: berraztertzeo errekurtsu bat berariaz ebatz zedila, herri bidean gertatutako erorketa batek erreklamatazileari eragindako lesioei zegokienez tokiko administrazioak bere ondare erantzukizuna onar zezan, eta behar zen kalte-ordaina eman zedila, legezko arauak aplikatuta.

Sestaoko Udala

* **1316/2006/16 espedientea (15/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: erabat deusez deklaratu zitezela zergaren subjektu pasiboa ez zen pertsona bati TMIZgatik igorritako likidazioak eta oker ordaindutako kopuruak itzul zekizkiola.

Zeanuriko Udala

* **99/2006/23 espedientea (18/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: bertako auzo batean ganaduaren estabulazio jarduera legezatzeko espedientea izapidetzen jarrai zedila.

GIPUZKOAKO UDALAK

Donostiako Udala

* **351/2006/23 espedientea (4/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Morlans Beherako BEPB Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari helaraz zekiola, hark zegokion txostena egin zezan.

Hernaniko Udala

* **682/2006/20 espedientea (12/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Kultura Sailean administrari laguntzailea kontratatzeo garatutako prozesua berrius zedila, berdintasun, merezimendu eta gaitasunaren eskakizunetara egokitzeko, eta keza aurkeztu zuen pertsonari zegozkion eskubideak itzul zekizkiola.

⁵ Arartekoaren ebazpena, 2006ko uztailearen 3koa, Portugaletoko Udalarri egina, berraztertzeo errekurtsu bat berariaz ebatz dezan, herri-bidean gertatutako erorketa batek eragindako lesioei dagokienez bere ondare-erantzukizuna onar dezan eta behar den kalte-ordaina ordain dezan.

3. ERABAKI GABE DAUDEN GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK

A) EUSKO JAURLARITZA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

* **686/2007/20 (4/2007 Iradokizuna)**. Honakoa iradoki zen: ikasleak onartzeko prozesu baten eraginetarako familia batek aitortu zuen helbidearen egiazkotasuna ziurtatzeko saiakera egin zedila.

Herrizaingo Saila

* **278/2006/32 espedientea (41/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: zenbait koordinazio neurri eta prozedura ezar zitezela Ertzaintzaren zaintzapean dauden pertsonak beren buruaz beste egitea saihesteko, baita halako egoeretan hiltzen diren pertsonen senideei horren berri emateko ere.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

* **88/2005/17 espedientea (14/2006 Gomendioa)**⁶. Honakoa gomendatu zen: INAMA, S.A. enpresaren instalazioan antzeman ziren 22 isurpen guneak araupeztzeko derrigorrezkoak ziren neurriak har zitezela eta enpresak atmosferara egiten zituen isurpenen gainean kontrol jarduerak egin zitezela.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

* **1004/2006/34 espedientea (44/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: baliorik gabe utz zedila 8/2005 Instrukzioa, Etxebizitza Sailburuordetzarena, "Sailari eskaini zaizkion edo bere esku utzi diren eta lehentasunez erosi diren etxebizitzak eskuratu eta esleitzeko prozedurei" buruzkoa.

B) FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Gaietarako Saila

Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

* **797/2006/31 espedientea (22/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: bere jarduera Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42. eta 89. artikuluetan ezarritako prozedurara

⁶ Arartekoaren ebazpena, 2006ko ekainaren 20koa, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari egina, industri jarduera bateko isurpen-gune batzuk araupeztzera behartu dezan, eta horien gainean beharrezko kontrol jarduerak egin daitezzen.

molda zedila eta adopzio hartzailearen eta adopziogaiaren artean zegoen 42 urte baino gehiagoko aldean oinarrituta adopziorako egokitasunaren ziurtagiria ukatu izana berriro azter zedila.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Politikarako Departamentua

* **333/2006/32 espedientea (26/2006 Gomendioa)**⁷. Honakoa gomendatu zen: txosten psikosozialean oinarrituta, egokitasun ziurtagiria ukatzeko erabakia berriro azter zedila, erakunde honen iritziz, ezin esan baitzitekeen interesdunen adina muga zenik laugarren seme-alaba gisa adoptatuko luketen mutil edo neska behar bezala garatzeko.

C) TOKIKO ADMINISTRAZIOA

ARABAKO UDALAK

Laudioko Udala

* **169/2006/17 espedientea (27/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko Gurutzeta kaleko 23.ean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

* **170/2006/17 espedientea (28/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko Landaluze kaleko 52.ean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

* **171/2006/17 espedientea (29/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko Landaluze kaleko 46.ean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

* **172/2006/17 espedientea (30/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko Landaluze kaleko 15.ean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

* **173/2006/17 espedientea (31/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko Landaluze kaleko 14.ean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

* **174/2006/17 espedientea (32/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko José Matia kalean dagoen oinezkoentzako goiko pasagunea irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

⁷ Arartekoaren ebazpena, 2006ko abenduaren 11koa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuari gomendatu zaio berriz hausnar dezala kexagileei, ezarritako adin mugaren irizpidean oinarrituta, adoptatzeko egokitasun ziurtagiria ez emateko erabakia.

* **176/2006/17 espedientea (26/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko Hiru Gurutzeta kaleko 9.ean mugikortasun urria duten pertsonentzat erreserbatuta dagoen ibilgailuen aparkaleku plaza irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

* **177/2006/17 espedientea (33/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko Zumalakarregi eta Landaluze kaleak elkartzen diren eremuko espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

* **178/2006/17 espedientea (34/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko Zumalakarregi kaleko 24. zenbakiko espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

* **179/2006/17 espedientea (35/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko Virgen del Carmen 38-44. zenbakietako espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

* **180/2006/17 espedientea (36/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko Hiru Gurutzeta kaleko 22. zenbakiko espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

* **181/2006/17 espedientea (37/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko Ugarte kaleko espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

* **182/2006/17 espedientea (38/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko José Matia kaleko 16-18. zenbakietako espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

* **183/2006/17 espedientea (39/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: Laudioko Viña Vieja kaleko 6. zenbakiko espaloi zatiaren beharrezko irisgarritasun arautegira egokitzeko beharrezko lanak gauza zitezela.

Gasteizko Udala

* **861/2006/34 espedientea (1/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: baliogabetzat jo zedila Ibaiondoko 8B sektoreko etxebizitza bioklimatikoaren azken prezioari buruzko "informazio oharra", eta enpresa sustatzaileari eska zekiola etxebizitza bioklimatikoaren esleipendunei itzul ziezazkiela bidegabe jaso zituen kopuruak.

Zigoitiko Udala

* **1326/2006/16 espedientea (13/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: udal zerbitzuen erabiltzaileei zorrak dirutan, erabilera legaleko diruarekin, ordaintzeko aukera berma zekiela.

GIPUZKOAKO UDALAK

Donostiako Udala

* **391/2007/23 espedientea (24/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: urbanizazio lan batzuen atzerapenak eragindako kalteengatiko erantzukizuneko erreklamazioa izapidetu zedila.

Hernaniko Udala

* **15/2007/31 espedientea (6/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: bertan behera utz zedila familia bat Patronatuaren jabetzako etxebizitza batetik joanarazteko hartutako erabakia eta gizarte babeseko neurri egokiak gara zitezela.

Ibarrako Udala

* **118/2006/16 espedientea (40/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: baliogabetzat jo zedila egin ez zen dantza-ikastaroari zegokion prezio publikoaren % 50 itzultzeko emandako udal erabakia eta beste erabaki bat har zedila, interesdunei ordaindu zuten zenbatekoa osorik itzul zekien.

Zumarragako Udala

* **517/2007/23 espedientea (46/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: jabeen komunitate batean kanpoko igogailua jartzeko emandako lizentzia berrikus zedila.

4. BERTAN BEHERA UTZITAKO GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK

GIPUZKOAKO UDALAK

Oñatiko Udala

* **497/2007/18 espedientea (48/2007 Gomendioa)**. Honakoa gomendatu zen: trafikoko seinale jakin batzuk bi hizkuntzetan eman zitezela.

IX. ATALA

ONDORIOAK.
ESKUBIDEAK ETA ASKATASUNAK

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 1/1895 Legearen 32.2 artikulua honako hau erabakitzen du: “*Legebiltzarrari aurkezteko txostenari, Euskal Autonomia Erkidegoan, eskubideen babesen balorazio bat erantsi behar zaio*”.

Arartekoak bere jardueran hartutako ezagueraren bidez egiten du balorazio hori, eta bere jarduteko eremuan barneratzen diren euskal erakunde publikoek (hots, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, lurralde historikoetako Administrazioak eta Toki Administrazioak) hiritarren eskubideak zein heinetan errespetatzen dituzten islatzen saiatzen da.

2007. urtean zehar Arartekoak bere jardueran jakin barik urratu diren eskubideak ez direla kontuan hartuko esan nahi du horrek, ezta Arartekoaren lan esparrutik kanpo daudenak ere, Estatuaren Administrazioaren ekintzak izateagatik. Ezta, bistakoak izanda ere, partikularrek edo talde antolatuek urratzen dituzten funtsezko eskubideak ere.

Hala ere, aipatu behar da, Arartekoak ezin esku har dezakeen arren ETak giza eskubideak larriki urratzen dituela ikusita, bereziki, bizitzeko, osotasun fisikorako eta askatasunerako eskubideak, elkartasuna adierazi nahi diela terrorismoaren biktimei eta erabat gaitzesten dituela eskubide oinarritzkoenak urratzen dituzten jardunbide horiek.

Beharrezkoa da euskal gizarte osoak guztiz eta modu kontsekuentean bereganatzea balio demokratikoak eta euskal moralala leheneratzea.

Atal honetan egiten den balorazioak, hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen jarduerak eta jarduera horietan izan litekeen eskubide-urratzea izango ditu hizpide.

Atala Konstituzioaren testuaren lehenengo goiburuan bildutako eskubideen azterketan oinarrituz egituratzen da, Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 9. artikuluan ezarritakoarekin lotuta, horien defentsa esleitzen baitaia Ararteko erakundea araupetzen duen Legearen 1.1. artikuluan.

Atal honetan egindako balorazioaz gain, txosten honetako I. atalaren hitzaurreetako bakoitzean administrazioaren jardueraren esparru desberdinak eta herritarren eskubideekin duten lotura xehatuta aztertzen dira.

Aurkeztutako kexarik gehienak gizarte eskubide deritzanen ondorioz jarri dira, baita Espainiako Konstituzioaren 103.2 artikulua urratze posibleen ondorioz ere –artikulu horretan administrazio publikoei eraginkortasunaren printzipioari adituz eta legearen eta zuzenbidearen erabat mende, interes orokorre objektibotasunez zerbitzatuz jokatzeko ezartzen zaie–.

Hala ere, badira oinarritzko eskubide eta askatasun publiko deritzen eskubideetakoren bat ustez bete ez dela dioten kexak ere.

Ararteko erakundeak uste du Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideak babesteko egoera baloratzeko funtsezko erreferentea dela Konstituzioaren 10. artikulua. Agindu hori I. tituluaren atartea da. Bertan jaso eta arautzen da gizon-emakumeen oinarrizko eskubide eta betebeharren sistema. Artikulu horrek haxe dio lehenengo atalean: “*Ordena politikoaren eta gizarte bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxezkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea*”. Hortaz, gizabanakoaren duintasuna da oinarrizko zutabea, hau da, gizabanakoaren autodeterminazio eta askatasunarekiko errespetua, eta norberaren bizitza egiteko eta garatzeko eskubidea, norberaren ezaugarrien eta borondatearen arabera, elkarrenganako errespetu osoz. Eta horren gainean eusten dira oinarrizko eskubide guztiak. Gainera, eskubideen sistema osoan islatu beharko dira lehenengo artikuluan jasotako ordenamendu juridiko-konstituzionalaren balio nagusiak, hau da, askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluraltasun politikoa. Ararteko erakundearen jarduera guztien helburua pertsonen duintasuna eta balio demokratikoak errotik zaintzea da.

Beste kasu batzuetan ere adierazi dugu herritarrek administrazio ona izateko eskubidea dutela, eta, hori, gai publikoetan parte hartzeko oinarrizko eskubidearekin lotuta dagoela; hori guztia administrazio publikoen jardunbidea arautzen duen legerian jasota dago. Herritarrek 2007an aurkeztu zituzten kexetako askok oro har administrazio ona izateko eskubidea izendatu duguna osatzen duten alderdien inguruak izan dira. Administrazio publikoek sarriagotan entzun behar lituzkete herritarrak, hobetu egin behar lituzkete informazio bideak, eta, batez ere, parte hartzeko benetako bide eraginkorrak ahalbideratu behar lituzkete.

1. BERDINTASUN PRINTZIPIOA

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua

“Legearen aurrean berdinak dira espainiarrak, eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo gorabehera pertsonal edo sozialarekin lotutako bereizkeria ezin da nagusi izan.”

Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikulua

“Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta denena batera osotzen dutenena benetazko eta eragileak izan daitezten; baita galerazi edo osotasuna zailtzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere.”

Berdintasunaren eta giza duintasunarekiko errespetuaren balioak direla medio, arreta berezia eskaintzen diogu beren eskubideak urratzeko arrisku handiagoa duten pertsonen egoerari: atzeritarrak, adinekoak, adingabeak, ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten pertsonak, gaixo kronikoak, gizarte bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonak...

Kasu horietan, jada egiaztatu da bai arloen azterketari eskainitako ataletan, bai lehenasunezko arretako taldeei dagozkien jardueri eskainitako atalean gabezia asko

daudela, berdintasun materialak euskal herritar askok bete beharreko helburua izaten jarraitzen duela eta beharrezkoa dela pertsona eta talde guztien benetako berdintasun eraginkorra galarazten duten oztopoak ezabatzea.

Asko dira zuzenean zein zeharka berdintasun printzipioaren balizko urratzearekin zerikusirik izan lezaketen kexak.

Erakunde hau, bere esku-hartzeetan, Konstituzioaren testuan mugatutako zioetako edozeinengatik baztertzaila den herri botereen jarduerarik gerta ez dadin saiatu da.

Zehaztu behar dugu sarritan berdintasun printzipioa urratzea beste eskubideetako edozeinekin lotu behar dela eta, horregatik, kasu horiez egiten den azterketan, batzuetan, printzipio hori ere hizpide izaten da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubideari dagokionez, Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea onartu izana arauen arloan une garrantzitsua izan zen, eta eremu publikoan nahiz pribatuan eragitea zuen helburu parekotasuna sustatzeko eta emakumeek bizi duten bereizkeria deuseztatzeko. Arau horrek Konstituzioaren 9.2 artikuluan botere publikoentzat jasotako benetako berdintasunaren eta berdintasun eraginkorraren agindua zehaztu zuen.

Legean zehaztutako aurreikuspen gehienak denboran luzaturik geratu ziren eta kasu askotan kasuan kasuko araudi garapena behar zuten. Ondorioz, 2007ko irailean indarrean jarri zen 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktima diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituen, gogo handiz hartu genuen. Azpimarratzekoa da gure autonomia-erkidegoan 56 etxebizitza eta harrera-zentro zehatz eta erabilera anitzeko zegoela 2007an, eta aldundiak nahiz udalak kudeaturikoak ziren.

Halaber, azpimarratzekoa da 148/2007 Dekretuak 4/2005 Legearen ezarpena zehazten duela, hain zuzen ere genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat sendatzeko eta gizarteratzeko intentsitate handiko zentroaren sorrerari buruzkoa. Haren sorrera Eusko Jaurlaritzaren esku jarri zen eta 2008an behin-behinean jar daiteke martxan.

Genero arrazoiak direla-eta egiten den bereizkeriarik larriena, indarkeria sexistaren fenomeno kezagarria da eta emakumeen duintasun, askatasun eta osotasun fisikoaren aurkako eraso onartezina da.

Botere publikoek tratatu txarrak jasandako emakumeen beharrei eman behar dieten erantzunak diziplina ezberdinak uztartu behar ditu, besteak beste, jarduera judizialak, laguntza juridikoa, gizarte eta abegi zerbitzuen funtzionamendua eta etxebizitza bat izateko aukera lotuz.

Indarkeriaren aurrean erakundeek ematen duten erantzunaren eraginkortasuna hainbat faktoreren arabera da, hala nola: fenomenoaren ezagutza egokia izatea, zerbitzuak etengabe ebaluatzea eta zerbitzuak diagnostiko berrietara egokitzea, erantzunaren arintasuna, azkartasuna edo berehalakotasuna, zerbitzuen alde aurretiko planifikazioa Autonomia Erkidegoko lurralde osorako edo zerbitzu guztien arteko koordinazioa (herrietakoak barne).

Emakume batzuek bizi duten eraso arrisku objektiboaren egoerak agerian uzten du beharrezkoa dela zenbait kasutan poliziaren babesteko neurriak jartzea. Oso garrantzitsuzat jotzen da Herrizaingo Sailak protokolo barruan sartu izana genero indarkeriaren biktima diren emakumeek bizi duten arriskuaren balorazioa. Halaber, oso aldeko iritzia merezi du genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako telefonoaren

funtzionamenduak. Hura Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak kudeaturikoa da.

Halaber, praktika ontzat jo behar da emakumeen kontrako etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren aurrean jarduteko gida. Hura gizarte profesionali zuzendurikoa da, eta erakunde arteko batzordeak landu zuen tratu txarren biktima diren emakumeei eskainitako arreta hobetze aldera.

Sexuagatiko bereizkeria deuseztatzeari dagokionez, azpimarratzekoa da gizonen, seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi laburtua hartzerakoan, emakumeek baino kopuru handiagoko laguntza jasotzea zalantzan jartzen zuen kexa. Ekintza positiboko neurria izan nahi arren, irailaren 13ko 293/2005 Dekretuan jasotako tratua pertsonen sexuaren arabera ezberdina izan daitekeela planteatu da, gizonen taldearen alde eginez eta hura hasieran pribilegio gehienekotzat jo arren. Ondorioz, horrek berdintasun printzipioa urra dezake.

Sexuagatiko bereizkeriaren beste adierazpen bat emakumeak jai ospakizun jakin batzuetatik kanpo uztea izan daiteke, horretarako ekimen pribatutik antolatutako emaldiak izateari eta errotutako tradizioak izateari helduz.

Uste dugu ezin dela pribatutasunaren estalkiarekin benetan udalerrri bateko ospakizun nagusia dena estali, Sarrian edo Irun eta Hondarribiko alardeetan gertatzen zen moduan.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari eginiko aipamenarekin amaitzeko, azpimarratzekoa da desberdintasun itzela dakarren adierazpena: pobrezia feminizazioa deitu zaionaz ari gara; horrek ekartzen du gizarte zerbitzuen erabiltzaile gehienak emakumeak izatea.

Atzerritarrak eta gutxiengo kulturalak eskubideetan urradura gehien jaso ditzaketen taldeak dira.

Europar Batasunaz kanpoko atzerritarrek dituzten premia nagusietako bat legezko eran lan egin eta bizitzeko baimena ematen dien dokumentazioa lortzea da. Estatuko Administrazio Orokorra da aipatu dokumentazioa izapidetzeko eskumena duena. Hori dela-eta, Herriaren Defendatzaileari bidali zaizkio batez ere dokumentazio prozesuari buruz aurkeztu diren kexak.

Beste zenbait kexa ere jaso dira nola Barne Ministerioari hala Erregistro Zibil Nagusiari dagozkion espedienteak izapidetzerakoan atzerapenak izan direlako. Azken kasu horretan, deigarria da zer zailtasun dituzten marokoar jatorriko pertsonen bertan bizitzearen ondorioz nazionalizatu eta, bikotekidearekin berriz biltzeko, biek Erregistro Nagusian izena eman behar dutenean. Izen-ematea 18 hilabete baino gehiago atzera daiteke.

Halaber, azpimarratzekoa da ere udalak sustraitze sozialaren txostena betetzeak duen garrantzia, izan ere sustraitze sozialaren prozedura hori da, egun, atzerritarrei gure lurraldean bizi eta lan egiteko baimena emango dien dokumentazioa lortzeko bide nagusia.

Funtsezkoa da ere nabarmentzea garrantzitsua dela egoera irregularrean dauden atzerritarrentzat udaleko erroldan izena ematea.

Gogorazi beharrekoa da bereizkeriaren aurkako borroka funtsezkoa dela gizarte desberdintasunak gainditzeko eta gizarte bazterkeriako prozesuak prebenitzeko. Bote-re publikoak behartuta daude bizitzaren oinarriko eremuetan arraza edo etniagatiko

bereizkeriaren aurka egitera, besteak beste, enpleguan, lanbide prestakuntzan, hezkuntzan, etxebizitzan, gizarte babesean edo gizarte abantailatan.

Erakunde honek “*Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen menpeko polizi kidegoek jokaera kodeak erabili behar dituzte immigrazioari buruz ematen duten informazioaren tratamendurako*” gomendioa nabarmendu du 2007an. Positiboki baloratzen dugu Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak honetarako agertu duen borondatea: “*hedabideei ematen zaien informazioa talde nazional zehatz batzuen irudirako justifikaziorik gabeko kalterik ez eragiten saiatzea*”.

Azkenik, oso garrantzitsua da herritarrei orokorrean informazioa ematea gizarte prestazioetara iristeko baldintzei buruz eta berdintasunerako eskubideari buruz, gizarte laguntzen hartzailerik daitezkeen atzerritarrekiko errefus jarrerak saiheste aldera.

Ijito herriko pertsonak oso estigmatizatutako taldea izan da tradizionalki, eta gizarte zerbitzu eta aukeretara gutxiago iritsi dira.

Gure erkidegoan ijito herria osorik bultzatzeko eta gizarteratzeko plan zehatza egon arren, talde horren biztanleriaren multzo garrantzitsuak baztertuta geratzeko arrisku handieneko bat izaten jarraitzen du. Kasu batzuetan euskal udal batzuk benetan udalerrian bizi diren ijito familiei erroldatzeko ezezkia eman dietela sumatu da.

Halaber, bizikidetzako, konfiantza ezeko eta errefuseko arazoak ikusi dira ijitoen eta udalerriko auzotarren artean, edo toki administrazioarekin berarekin. Arazo horiek faktore ezberdinengatik etorri dira, baina egun oraindik errefus xenofobia dago talde horrekiko.

Administrazio publikoek auzo batzuen biziberritze sozialeko, berrantolamenduko eta osoki birgaitzeko prozesuak gain hartu behar dituzte, herritarren gizarte beharrei erantzunez.

Bestalde, **ezgaitasunen bat duten pertsonak** zailtasun larriak izaten dituzte gainerako biztanleekiko benetako berdintasuna lortzeko laneratzeari nahiz eguneroko bizitzari dagokienez. Izan ere, askotan ezinezkoa izaten da garraibideetara iristea edo hiri- eta arkitektura-oztopoak gainditzea.

Legerian aurrerapauso erraldoiak egin diren arren, homofobiak eta heterosexismo baztertzailerik, estigmatizazio eta bereizkeriaz gain, gizarte bazterkeria izugarria ere ekarri dute **persona homosexual, gay eta lesbianen aurka, bai eta identitate transexualekoen eta transgenerokoek aurka ere**. Nabarmenezkoa da egun oraindik persona homosexual asko ez dela ausartzen maitasuna erabateko askatasun eta duintasunez bizitzera, beraz, persona hauentzat orain dela gutxi lortutako berdintasun formalari benetako berdintasuna eta gizarte berdintasuna eransteke lanean jarraitu behar da hori oztopatzen duten elementu garrantzitsuak dauden tokietan.

Aipatu behar dugu pertsonen sexuari buruz erregistroan egiten den aipamenaren zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legea (Genero Identitatearen Legea) onartzeak garrantzi handia izan duela transexualen egoerarako. Adierazi beharrezkoa da arau horrek erantzun egiten diola transexualen genero identitatearen erabateko onarpen juridikoaren aldarrikapenari, jaiotzetik izandako ezaugarri biologikoak edo sexu berregokitzearen ebakuntza medikoak izan alde batera utzita.

2. OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

2.1. BIZITZEKO ETA OSOTASUN FISIKO ETA MORALERAKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 15. artikulua

“Guztiek dute bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidea, sekula ere torturarik eta zigor edo tratu krudel edo iraingarririk jaso gabe. Indarrik gabe geratzen da heriotza-zigorra, gerra garaian lege penal militarrek erabaki dezaketena alde batera utzita.”

Bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidearen babesa Ararteko erakunde honen lehentasunezko arduratako bat da.

Era berean, ETA talde terroristak eskubide horiei egiten dien zapalketa beti gaitzetsi izan dugu.

Zoritxarrez, 2007an ETak heriotzak eragin dituen atentatuak egin ditu berriz ere; horietan, bi gazte hil dira, Fernando Trapero eta Raúl Centeno.

Gure elkartasuna adierazi behar diegu terrorismoaren biktima horien familiartekoei eta lagunei, eta erabat gaitzetsi behar ditugu halako ekintza terroristak.

Gainera, ezin ahatz dezakegu hiritar asko bizia edo osotasun fisikoa galtzeko mehatxupearan bizi direla, eta beren askatasuna mugaturik dagoela. Herritar asko estortsio ekonomikoaren mende daude oraindik ere eta beren askatasun eta ondasunen kontrako ekintza terroristak jasaten dituzte.

Egoera horrek bere horretan dirauen bitartean, Ararteko erakundeak bere idatzi ofizial guztietan, euskaraz eta gaztelaniaz, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 3. artikulua ipintzen jarraituko du *“Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea”*, ETarik EZ leloarekin batera.

Emakumeen kontrako indarkeriak bizitzeko eskubidearen eta osotasun pertsonalerako eskubidearen aurkako urradura larrienetako bat izaten jarraitzen du eta erakunde bermatzaile hau ezin gera daiteke axolagabekeria.

Genero indarkeria deuseztatzea ahalbidetuko duen gauza bakarra pertsona guztien arteko benetako berdintasuna izatearen ideia berresten badugu ere, funtsezkoa da botere publikoen erantzuna tratu txarrak jasandako emakumeen beharrekiko egokia izatea.

2007an bi emakume hil dira EAEn bikotekideen edo bikotekide ohien eskuetan. Ideia matxisten adierazpen gaitzesgarri hori ia eguneroko protagonismoa duen gizarte gaitza da eta, horren adierazpen larriena zoritxarreko heriotzak izan badira ere, genero indarkeriaren biktima diren 1.483 emakumeri lehen aldiz arreta eskaini zaio EAEko biktimari laguntzeko zerbitzuetan 2007an zehar.

Beharrezkoa da azpimarratzea **tortura** giza eskubideen urratze larrienetarikoa dela; hori dela-eta, Ararteko erakundeak beti ahalegindu da pertsona guztien osotasun fisiko eta morala bermatzen: zigorraren beldurrik gabe bidegabekeriak egiteko aukera eman dezaketen aldi eta leku ilunak argitzeko neurriak proposatu izan ditu.

Ararteko erakundeak esku hartzeko duen bidea poliziaren jarduna etengabe ikuskatzeko lan prebentiboaren alorrean kokatzen da. Helburua polizi kidegoek torturarik edo tratu txarrik ez ematea da eta, horrelakorik jazotzen den kasuan, bidegabeko jarduera horiek ezagutu eta zigortzea posible izatea.

Bestalde, tortura ekiditeko neurrien artean, gogoratu behar dugu 1999an Ararteko erakundeak Herrizaingo Sailari, prebentziorako asmoz, ziegen eremuan korridoreetan jarritako kameren bidez egindako grabaketetan oinarritutako kontrol sistema ipin zezan gomendatu ziola, atxilotutako pertsonen eskubideak bermatzeko neurri gisa.

2006an Herrizaingo Sailak adierazi zigun bideo grabaketen sistema ezarri zuela Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren menpeko atxiloketa-zentroetan eta deklarazioak hartzen diren lekuetara hedatu zuela.

Erakunde honek oso onuragarritzat jo zuen Ertzaintzak egiten dituen atxiloketa guztiak grabatzea eta sistema aitortpena hartzen den bakoitzean erabiltzea. Behin eta berriz adierazi dugun bezala, gure ustez, bi neurri horiek aurrerapauso handia dakarte atxilotuen osotasunaren eta duintasunaren aurkako jardunbideen prebentzioan, eta tresna egokia da eremu horretan izan daitezkeen jarduera irregularrak argitzeko.

Ertzaintxeetara egindako bisita batzuetan ikusi ahal izan da bideo grabaketako sistemak benetan instalatu direla. Aitzitik, azpimarratzekoa da erakunde honek proposaturiko neurri batzuk ez direla hartu, adibidez, atxiloketa guztien grabaketak sistematikoki berrikustea, irudiak ikusterakoan sumatu ahal izan diren gertaerak dokumentu bidez jasotzeko erregistroa sortzea edo grabaketak kontserbatzeko epea ezartzea eta grabatutako irudietatik erator daitezkeen prozesu judizialetan edo administratiboetan hori erabil dadin bermatzea.

Bestalde, azpimarratzekoa da oso positiboki baloratzen dugula Donostiako udal atxilogunean bideo grabaketetarako sistema jarri izana. Horrek ziegen barrualdea eta ziegen zonaldeko igarobideak hartzen ditu. Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da komenigarria litzatekeela Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari gomendaturiko grabaketen berrikuspen sistematikoari buruzko neurriak hartzea (besteak beste, materiala kontserbatzeko epearena eta gertaeren erregistroarena), oraindik hartu ez direlako, eta horiek bideo grabaketen sistemari eranstea.

2.2. ASKATASUNERAKO ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEAK. ATXILOTUEN ESKUBIDEAK

Espainiako Konstituzioaren 17. artikulua

“1. Pertsona guztiek dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Inori ezin zaio askatasuna kendu, artikulua honetan eta legeak aurreikusitako kasuetan ezartzen denari jarraituz ez bada.

2. Atxiloketa prebentiboak ezin du ekintzak argitzeko behar den denbora baino gehiago iraun, eta edozelan ere, sekula ez du iraungo 72 ordu baino gehiago; epe hori igarotakoan, atxilotua agintaritzaren judizialaren eskuetan uzteko askatuko da

3. Atxilotu guztiei jakinarazi behar zaizkie, berehala eta modu ulerkorrean, beren eskubideak eta beren atxilotetaren arrazoiak, eta ezin dira aitortzera behartuak izan. Atxilotuari abokatuaren laguntza bermatu behar zaio dilitentzia polizial eta judizialak, legeak ezartzen duen bezala.

4. ‘Habeas corpus’ prozedura arautuko du legeak, legez kontra atxilotutako pertsona guztiak epailearen eskuetan berehala uzteko.”

2007an, adingabeek eta gazteek poliziaren aldetik tratu desegokia jaso izana edo Ertzaintzaren agenteek gehiegizko indarra erabili izana salatu duten hainbat kexa jaso ditugu.

Erakunde honek behin eta berriro azpimarratu du indarraren erabilera behar duten poliziaren jardueretan inguruabar hori kasuan kasuko erregistroan jaso behar dela. Horri esker, posible izango da esku-hartzea indarreko araudiarekin bat datorrela eta erabilitako indarraren neurria kontrolatzea. Atxiloketetan indarraren erabilera azken baliabide gisa hartu behar da eta egokitzapen eta proportzionaltasun printzipioa errespetatuz.

Ararteko erakundean jasotzen diren kexa askok adierazitako gai berdina da poliziaren agenteen partetik neurrigabeko edo errespeturik gabeko jarduna jaso dutela. Horrek eragindako pertsonen atxiloketa ekarri ohi du, eta parte hartu duten polizien aurkako atentatu delituagatiko salaketa ere bai. Kasu horietan, “*San Frantzisko auzoan poliziak atzerritarrekiko egindako jardueri buruzko txostena*” dokumentuan adierazi dugun moduan eta poliziaren beste jarduera batzuei zabal dakiekeen bezala, agenteek bide publikoan pertsona bat gelditzeko duten modua erabakigarria izaten da ondoren gertatuko den horretan. Hori zela-eta, adierazi genuen, gure ustez, horrek beti zuzena eta errespetuzkoa izan behar zuela eta, premiazko edo berehalako arrisku inguruabar apartekorik gertatzen ez bada, agenteek azalpena, azalekoa bada ere, eman behar diotela eragindako pertsonari euren jardueraren arrazoi eta xedeei buruz. Halaber azpimarratu genuen, agenteak pertsona batekin harremanetan sartzen direnean eta honek haien identifikazio zenbakia eskatzen dienean, agenteek eman egin behar diotela.

Bertan adierazi genuen, halaber, polizi funtzionarioek ez dutela errespetu falta edo desobedientzia gisa hartu behar eragindako pertsonen egindako informazio eskaera eta ohikotzat jo behar dutela euren jarduerari buruzko azalpenak ematea, delako pertsonen hala eskatzen dietenean.

Bestalde, erakunde honek hainbatetan ohartarazi du, zenbait kexatan agerian geratu den bezala, agenteek aurrea hartu eta salaketa egin izan dutela beren esku-hartzeak eragiten dituen pertsonen aurka, hauek esku-hartzearen kontrako salaketa egin dezaketela ikusita. Nolanahi ere, badakigu zaila dela jokabide gaitzesgarri horiei aurre egitea, halakoak izaten direnean, poliziaren eginkizunetan aritzearen legezketasunak estalita geratu ohi baitira.

2.3. INTIMITATERAKO ESKUBIDEA ETA NORBERAREN DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua

“Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta nork bere irudia izateko eskubidea bermatzen da.”

Espainiako Konstituzioaren 18.4 art.

“Legeak informatikaren erabilera mugatuko du herritarren ohorea eta norberaren eta familiaren intimitatea eta beren eskubideez erabat baliatzeko aukera bermatzeko.”

Atxilotuak osorik biluztea norberaren intimitaterako eskubidea murrizten duen neurria da; ezin justifika daiteke joera orokorra izatea eta behar-beharrezkoa denean bakarrik onartu ahal izango da.

Ertzainetxeetara egindako bisitetan adierazi zaigu, oro har, gorputz miaketa egiterakoan, axilotua arropa kentzera behartzen dela, azpiko arropa izan ezik. Uste dugu egintza hori ezin dela orokor bihurtu, eta, osorik biluztearen kasuan gertatzen den moduan, neurria justifikaturik egon behar dela. Horretarako, kontuan hartu behar izango dira kasu bakoitzean agertzen diren inguruabarrak eta horien proportzionaltasunaren arabera erabakia hartu.

Intimitaterako eskubidearen inguruan azpimarratu nahi dugun ikuspegi berria sortu da. Hala, epaileen adierazpen batzuetan, norberaren etxean kanpotiko zaratak sortzen dituen eragozpenek intimitaterako eta etxearen bortxaezintasunerako eskubidea, besteak beste, urratzen dituztela baieztatu izan da.

Herritarrek gero eta ozenago eskatzen dute administrazioek erabiltzen dituzten **datu pertsonalen babeserako eta intimitaterako** eskubidea bermatu dadila. Zentzuzkoa da datuak isilpean eduki daitezela eskatzea, asko eta asko direlako datu pertsonalak dituzten fitxategiak. Berdin da tresna informatikoekin lantzen diren datuak edo babes bereziko datuen multzoan sailkatutakoak izan nahiz ez.

Administrazio publikoek, berezko informazio sistemarekiko konfidentzialtasuna bermatzeko neurri zuzenak ezarri behar izateaz gain, datuak tratatzeko zerbitzuak hirugarren batzuek emateko aukera hausnartu egin behar dute.

Ertzaintzak eta udaltzaingoen polizien xedeetarako bildutako norberaren datuak ofizioz balio gabetzeko izaera orokorreko gomendioa egin da.

Polizi kidegoak poliziaren xedeetarako biltzen diren baina egin beharreko ikerketetarako beharrezkoak ez diren datuak ofizioz balio gabetzera behartuta daude legez. Arauetan jasotakoaren arabera, ondorio horietarako, honakoak hartuko dira kontuan: *“eragindakoaren adina eta bildutako datuen izaera, datuak ikerketa edo prozedura zehatza amaitu arte gordetzeko beharra, ebazpen judizial irmoa (bereziki, absolutuziokoa bada), indultua, birgaitzea eta erantzukizunaren preskripzioa”*.

Datu pertsonalak babesteko Lege Organikoak berariazko mugak ezartzen dizkio datuak balio gabetzeko eskubideari, zehazki, honakoak: ez dira balio gabetuko *“horrek Estatuaren defentsarako edo segurtasun publikorako, hirugarrenen eskubide eta askatasunen babeserako edo bidean diren ikerketa-lanen premietarako arriskua dakarrenean”*.

Bildu dugun informazioaren arabera, Herrizaingo Sailak eta euskal hiriburuetakoa hiru udaltzaingoen praktika ezberdinak dituzte eta, zenbait kasutan, ez dira DPBLOk gai honetan ezarritako xedapenak betetzen ari. Hori dela-eta, beharrezkoa da gure erkidegoko polizi kidegoek poliziaren xedeetarako bildutako norberaren datuak balio gabetzeari buruzko araudiaren ezarpenak betetzea eta, hala badagokio, aipatu ditugun arau ezarpen horiek aplikatzeko jarraitu beharreko irizpideak eta prozedura biltzen dituen jarduteko protokoloa onartzea.

2.4. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEKO BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA

Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulua

“Halaber, funtzio eta kargu publikoak berdintasunez lortzeko eskubidea dute, legeak ezarritako baldintzen arabera.”

Erakunde hau euskal administrazio publikoek berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei zor dioten errespetua bermatzen saiatzen da. Horiek, Konstituzioaren agindu espresagatik, enplegu publikora iristean agertu behar dira.

2007an hainbat izan dira eremu honetan nabarmentzeko moduko suertatu diren gaiak. Bereziki, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) lan poltsa ezberdinak sortzeko iragarritako deialdi batzuegatik garatutako jarduera azpimarra daiteke berria izateagatik. Horietan zalantzan jarri zena epaimahaiak bihurtuta egiteko erabili zuen formula izan zen hautapen prozesuko ariketetatik lehenengoa baloratzeko. Erreklamatazileen ustetan, sistema horrek hautagaien arteko tratu ezberdina ekartzen zuen.

Erakunde honek bat egin du erreklamatazileek kexan adierazi zuten beldurrarekin, izan ere, prozesuaren emaitzei jaramon eginez, litekeena zen puntuazioak eraldatzeko formula aplikatzeak lan poltsa horien bidez beteko ziren aldi baterako lanpostuak baldintza berdinetan eskuratzeko aukera urratu izatea.

Halaber, EHUren lan eskaintza publikoa aipa daiteke. Prozesuaren konfigurazioa jarri da zalantzan, entitate horretako egungo langileak dagozkien postuetan finkatzera bideratuta zegoela pentsatu baitzen.

Baina, EHUk iragarritako prozesu hori Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen laugarren xedapen iragankorra aplikatzearen ondorioa baino ez da. Bertan aurreikusitako baldintzek legea indarrean sartu zenean EHUUn zerbitzuak ematen ari ziren aldi baterako langileei oposizio-lehiaketako deialdietan parte hartzeko erregimen berezia baimentzen dute; deialdi horietan, esperientzia gehienez prozesu osoaren %45 izango da. Horrela, legeak –betiere, jurisprudentiaren babesarekin– beste administrazio publiko batzuetan hartutakoaren antzeko bidetik jo du modu egonkorrean baina inolako lotura finko edo behin betikorik gabe Administrazioarentzat berarentzat zerbitzuak egiten diharduten langile ugari biltzen direneko aparteko egoerei aurre egiteko.

Azkenik, derrigor aipatu behar dugu Transportes Urbanos de Vitoria, S.A. (TUVISA) enpresak gidari-hartzaile lanpostu batzuk betetzeko eta zegozkien lan poltsak sortzeko iragarri zuen deialdia.

Deialdi horren inguruan jasotako kexak zioen litekeena zela ordenamenduak legeko bizilekua duten atzeritarrei lan kontratudun langile gisa, espainiarren baldintza beretan, administrazio publikoetan lan egin ahal izateko onartzen dien eskubidea urratu izatea.

Horregatik, ondorengo lege hauen indarreko edukia ekarri dugu gogora: 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzeritarrek Espainian dituzten eskubideak eta askatasunak eta horien gizarteratzea arautzen dituena; eta 7/2007 Legea, apirilaren 12koa, enplegatu publikoaren oinarriko estatutua onesten duena.

2.5. BABES JUDIZIAL ERAGINKORRERAKO ESKUBIDEA. ERRUGABETASUN USTEAREN PRINTZPIOA

Espainiako Konstituzioaren 24. artikulua

“1. Pertsona guztiek dute epaileen eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko eskubidea, beren zilegizko eskubideak eta interesak erabiltzeko, babesik eza sekula ere gertatu barik.”

“2. Legeak aurretik ezarritako ohiko epailea izateko eskubidea dute pertsona guztiek, baita legelariaren babesa eta laguntza izateko, euren kontrako

akusazioa jakiteko, atzerapen bidegaberik gabeko eta berme guztiak dituen prozesu publiko bat izateko, babeserako egokiak diren frogak erabiltzeko, nork bere buruaren kontra ez aitortzeko, erruduntasunik ez aitortzeko eta errugabetasun-presuntzioa erabiltzeko eskubidea ere. Senidetasuna edo sekretu profesionala dela aitortzeko beharra ez dagoenean erabakitzeko arauak jarriko ditu legeak.”

Prozedura judizialek bidegabeko atzerapenak izatea justizia administrazioaren funtzionamenduari dagokionez jasotako kexa gehienen arrazoia da. Desadostasun berezia agertzen da administrazioarekiko auzien eremuko egoerarekin. Jurisdikzio horretako pertsona bakarreko epaitegiek gaiak denbora tarte onargarrian ebazten dituzten arren, Justizia Auzitegi Nagusiaren Salarekiko mendetasun tarte luzeegia da oraindik eta bateraezina da justizia azkar eta kalitatezkoaren eskakizunarekin.

Lehen auzialdian kontrako ebazpena jasotzen duen kasuetan administrazioak epaia aurkaratu ohi du, eta, ondorioz, auzilariaren nahien gogobetetasuna, aldeko epaia lortzen duenean ere, denboran luzatzen da, eta, zenbaitetan, birtualtasun guztia galtzen du.

2007an **trafikoko zigor prozeduren** arloan jaso ditugun kexak, nagusiki, zigorrak ezartzeko bideratutako prozedurari buruzkoak izan dira. Kexa horietan lehendik ere aurkeztu ziren kontuak aipatu ziren, besteak beste, jakinarazpen pertsonalak egiteko modua eta prozeduren izapidetze estandarizatua. Horrela, ohikoa izaten jarraitzen du interesdunek betearazteko bidera arte zigortzeko prozeduraren berri izan ez dutela adieraztea. Ikusi ahal izan dugunez, hori, kasu askotan, jakinarazpena ediktu bidez egin delako gertatu da, bide horretara jo ahal izateko lege ezarritako betekizunak aurrez bete izan gabe.

Orobat, ikusi ahal izan dugu jakinarazpen pertsonala emateko bigarren saiakera ez dela beti ordu desberdinetan egiten, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikulua ezarritakoari jarraiki, eta, postaz egindako bigarren jakinarazpen saiakerak huts egiten duenean, administrazio espedienteak ez duela jasotzen hartzailearen postontzian bigarren saiakeraren abisua utzi denik, abenduaren 3ko 1.829/1999 Errege Dekretuak onartu zuen posta-zerbitzuen prestazioari buruzko araudiaren 42. artikulua ezartzen duen bezala. Ondorioz, aipatutako lege eskakizunak betetzerakoan erantzukizuna duten administrazio guztiei ardura berezia eskatzen jarraitzea behartuta gaude.

Beste behin ere gogorarazi behar dugu, Auzitegi Gorenak 2004ko urriaren 28ko epaian azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikuluari dagokionez ezarri zuen lege doktrinaren arabera, bigarren jakinarazpen saiakera lehenengoaren ordu desberdinean egin dela ulertzeko bien artean hirurogei minutuko aldea egon behar duela gutxienez, izan ere, zenbait jardunbidek oraindik ez dute doktrina hori betetzen.

Aurreko urteetan bezala, trafikoko zigor prozeduren izapidetze estandarizatua dela-eta aipatu diren kontuak, funtsean, alegazioak eta frogak aztertu ez izatearekin eta frogak besterik gabe ukatu izatearekin erlacionatuta egon dira.

Azkenik, **babestutako etxebizitzak eskuratzeko prozedurari** dagokionez, azpimarratzekoa da BOE eskatzaileei eragindako babesgabetasun arazoak Etxebizitza eta Gizarteko Gaietako Sailak herritarrekiko harremanetan erabiltzen dituen jakinarazpen eta komunikazio moduengatik.

2.6. ASKATASUNIK EZ DUTEN PERTSONEN ESKUBIDEAK

Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua

“Askatasuna kentzen dituzten penak eta segurtasun neurriak berreziketa eta birgizarteratzea lortzeko izango dira eta ezin izango dira nahitaezko lanak izan. Presondegiko pena duen kondenatuak Kapitulu honetako oinarrizko eskubideak izango ditu, kondenak apropos ezarritakoak, penaren zentzuak edota presondegietako legeak mugatzen ez badituzte behintzat. Edozein modutan, ordaindutako lana izateko eta gizarte-segurantzaren onura guztiak izateko eskubidea izango du, baita kulturaz gozatzeko eta nortasuna guztiz garatzeko eskubidea ere.”

Askatasunaz gabetzen duten zigorrak berriro gizarteratzera bideratuta egon daitezten Konstituzioan jasotako aginduak botere publiko guztiei eragiten die.

Erakunde honetan hainbatetan adierazi izan du espetxeen alorreko eskumenak biltzen dituzten funtzioak eskualdatzearen aldekoa dela. Aitzitik, hori gertatzen ez den bitartean, euskal administrazio publiko guztiek konpromisoa izan behar lukete, bakoitzak bere eskumenen barruan, euskal espetxeetan sartutako pertsonen beharrei aurre egiteko.

Hirugarren graduan sailkatutako espetxeratu kopurua areagotzea posible izateko, garrantzitsua da hori sustatu eta bideratzeko baliabideak zuzkitzea eta espetxeetako administrazioaren eta alor horretan lan egiten duen elkarte munduaren artean elkarlana izatea. Halaber, komunitatearen baliabide eskaintza bultzatu egin behar da, espetxe zigorra ez den beste bat betetzeko.

Kezkagarria da espetxeetako psikiatriaren eremuan dagoen baliabide eskasia, kontuan izanda askatasunez mugatutako pertsonen arteko buru gaixotasunak nahiz patologia dualak geroz eta ohikoagoak direla.

Halaber, gaixotasun sendaezinak dituzten espetxeratuen egoera ere planteatu da. Kasu batzuetan espetxeetako politika arrazoiengatik ez dira haiek espetxeetatik atera. Beste kasu batzuetan, ordea, ezin izan dira espetxetik irten gaixotasun larria duten espetxeratu horiei laguntzeko komunitateak ez duelako baliabiderik.

Azkenik, azpimarratzekoa da kasu askotan espetxeratuak ez daudela ados espetxean eman dieten sailkapenarekin edo irteteko eskatutako baimenak ukatu izanarekin.

2.7. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua

“1. Pertsona guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna onartzen da.

2. Gizakiaren nortasuna guztiz garatzea izango da hezkuntzaren xedea, bizikidetzako printzipio demokratikoen eta oinarrizko eskubide eta askatasunen arabera.

3. Aginte publikoek gurasoen eskubidea bermatzen dute, seme-alabek euren uste erlijioso eta moralekin bat datorren heziketa jaso dezaten.

4. Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da.

5. *Aginte publikoek herritar guztien hezkuntza eskubidea bermatuko dute irakaskuntzaren programazio orokorraren bitartez, interesa duten sektore guztien parte-hartzeaz eta ikastegiak sortuz.*
6. *Ikastegiak sortzeko askatasuna onartzen zaie pertsona fisiko eta juridikoei, printzipio konstituzionalen errespetuaren arabera.*
7. *Irakasleek, gurasoek, eta behar denean ikasleek ere parte hartuko dute Administrazioak diru publikoaz finantzaturako ikastegiaren kontrol eta kudeaketan, legeak esaten duenaren arabera.*
8. *Aginte publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko dute legeak betetzen direla bermatzeko.*
9. *Aginte publikoek legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeko laguntza emango diete ikastegiei.*
10. *Unibertsitateen autonomia onartzen da, legeak ezarritakoaren arabera.”*

Hezkuntzarako eskubidea prestazio eskubide moduan konfiguratzeko da eta, horregatik, agian egokiago zatekeen hura gizarte eskubideen artean jorratzea. Aitzitik, hura kokatzen den konstituzio testuingurua eta aukeraturako metodoa ikusita, atal honetan aztertuko da.

2007an ikasleen onarpena kezarako arrazoi izan da berriro ere, Hezkuntza Administrazioak onartutako jarraibideek haiengandik espero ziren emaitzak izan gabe eroldako datuen neurritz gaineko erabilera mugatzeko lehen saiakera modura.

Ikasleen onarpenari buruzko atal honetan bertan, baina zero urtetik hiru urte arteko Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloari dagokionez, jasotako kexek nahiz eskola-mapari dagokionez aurreratu den informazioak ebazpena emateko aukera hausnarrarazi digute. Bertan, haurrentzako ikastetxeetan haiek onartzeko irizpide komunak ezartzeko komenigarritasuna jaso dugu.

Eskolatze baldintzei dagokienez, hezkuntza-administrazioari atentzioa deitu behar izan diogu, konpentsazioko esku-hartzeak ijito familiek ikastetxe aukeraketa askea egiteko duten eskubidearekin bateratzeko.

Hezkuntza-premia bereziei dagokienez, derrigorrezkoa da hezkuntza-administrazioak berak onartutako zailtasunak aipatzea hezkuntza-laguntzarako espezialisten ordezkapenari dagokionez.

EAEko hezkuntza-premia bereziei emaniko erantzunari dagokionez, jarraipena egin da ikastetxeetako terapia- eta hezkuntza-unitateen eta arkitektura-oztopoen gainean.

Hizkuntz ereduen arloan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak indarreko ereduak berrikusteko egin dituen planek are kexa gehiago aurkeztea eragin dute. Kexa horietan, funtsean, A irakastereduaren ustezko desagertzea salatu da. Momentuz, azpimarratu egin behar dugu hizkuntz ereduen inguruan proiektatu den erreforma eztabaidatzen ari den eta itxita ez dagoen proiektua dela oraindik.

Eskola-garraioko zerbitzu osagarriari dagokionez, erakunde honek ahaleginak egin ditu Sailak berriro azter zezan eskola-garraioko plaza libreak erabiltzeko baimena eman ahal izatea, behin eskola-garraioko zerbitzuaz baliatzeko eskubidea duten edo egoera hobean dauden ikasleez arduratu ondoren, plaza libreak geratzen direnean, zerbitzuaren erabilera optimizatzeko betiko helburua gauzatze aldera. Oraingoz, ordea, ez da inolako aldaketarik izan horren inguruan.

Zoritxarrez ikastetxeetan jazotzen jarraitzen duten *bullying* kasuak edo berdinkideen arteko jazarpenekoak kezkarriak dira. Arazoa oso konplexua da eta, sistema judizialera desbidera daitezkeen oso kasu larriak kenduta, hezkuntza-sistemak berak eman behar dio erantzun egokia.

3. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

3.1. ZERGA-SISTEMA BIDEZKOA. BERDINTASUN, PROGRESIBOTASUN ETA LEGEZKOTASUN PRINTZPIOAK

Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua

“1. Herritar guztiek lagunduko dute gastu publikoei eusten, nork bere ahalmen ekonomikoarekin bat, zergen sistema bidezko baten bitartez, berdintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituta, eta sistema horrek inola ere ez du edukiko konfiskatzeko gaitasunik.

2. Gastu publikoak baliabide publikoen esleipen zuzena egingo du, eta bere programazioan eta gauzatzean eraginkortasun eta ekonomia printzipioei eutsiko die.

3. Prestazio pertsonal edo ondare-prestazio publikoak legearekin bat bakarrik ezarri ahal izango dira.”

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak eragin izan ditu beti kexa gehien, nahiz eta horien edukia gero eta zabalagoa eta konplexuagoa den. Ikusi ahal izan dugunez, lehenengo urteetan sumatu ziren gabeziak asko gainditu egin dira pixkanaka, beraz, azken urteetan jasotako kexek zalantzan jartzen dutena zerga arautzen duen araudia bera da kudeaketa baino.

2007. urtean zerga arautzeko foru arau berriak jarri dira indarrean hiru lurralde historikoetan. Hurrengo urteak igaro arte itxaron beharko da erreformen helmena ezagutzeko, baina lanerako ezintasunagatiko prestazioei dagokien salbuespenaren gaian planteatu dira jada zenbait kasu eta horiek berdintasun printzipioari eta ahalmen ekonomikoari eragin diezaiokete.

Bizkaiko eta Gipuzkoako foru arauetan, PFEZ ordaindu behar ez duten prestazio bakarrak Gizarte Segurantzak 55 urtetik gorako erabateko ezintasun iraunkor kualifikatuaren, baliaezintasun absolutuaren edo baliaezintasun handiaren ondorioz zergadunari aintzatesten zaizkionak dira. Badirudi araudi horrek ez duela kontuan hartzen zergaonura horien justifikazioa ezintasun egoeren babes delat. Aitzitik, zergaren arauaren erreforman ez da hain kontuan hartzen hartzailearen ezintasun maila, eta bai, aldiz, haren adina, eta hori desegokia dirudi erabat.

Beste zerga batzuei dagokienez ere bereizkeriakoak izan daitezkeen egoerak sumatu dira. Horrela, babes ofizialeko etxebizitzak eskualdatzerakoan OEZren salbuespena aplikatzean, Gipuzkoako Foru Aldundiak bigarrenez eskualdatutako etxebizitza eskuratzen dutenak bereiz ditzakeen irizpidea erabiltzen du, ematen zaien etxebizitza, aurretik, esleipendunak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari berari salmentan eskaini dionean.

Ez dugu ikusten euskal udal batzuek aurrerapenik egin dutenik %33ko ezgaitasuna edo handiagoa duten pertsoneri aplikagarri zaien salbuespenari dagokionez TMIZri buruzko foru arauak barneratu zuten aldaketa onartzearen inguruan. Are gehiago esanda, orain dela gutxiko udal ordenantza batzuk eskakizunak eransten dituzte salbuespen horri dagokionez, eta foru arauetan ezarritakoa urratzen dute.

Azkenik, ura hornitzeagatiko, zabor bilketa zerbitzuagatiko edo ibilgailuak aparkatzeagatiko udal tasek hainbat kexa sortu dituzte herritarren partetik.

3.2. JABETZA PRIBATURAKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua

“1. Jabetza pribaturako eta jaraunsletzarako eskubidea onartzen da.

2. Eskubide hauen funtzio sozialak bere edukia mugatuko du, legeekin bat.

3. Inori ezingo zaio ondasun eta eskubiderik kendu baliagarritasun publiko edo gizartearen interesarengatik ez bada, beharrezko kalte-ordainketaren bitartez eta legeek ezarritakoaren arabera.”

Ondare erantzukizunaren irudiak esan nahi du herritarrek ondarean jasandako kalteengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dutela horiek zerbitzu publikoen funtzio-namenduaren ondorio izan badira, eta horrek oraindik kexa ugari sorrarazten du.

Eragindako kalteak ordaintzearen izaera objektiboak eragiten du beharrezkoa ez izatea errua edo axolagabekeria egotea zerbitzu publikoen jardun edo jardun ezean. Izan ere, nahikoa zen kausalitate erlazioa frogatzea zerbitzu publikoen funtzionamendu normalarekin edo normala ez denarekin eta eragindako lesioarekin.

Administrazio publikoak, orokorrean, ez dira eragindako kalteen erantzukizuna onartzearen aldeko izaten, eta, askotan, beharrezkoa izaten da erantzuteko betebeharraren izaera objektiboa.

Azpiegituren proiektu publiko batzuk martxan jartzeak kalte zuzenak edo zeharkakoak ekar diezazkiekete herritarrei. Nahitaezko desjabetzeko prozedura bazuetan, kalteturikoak ez dira ados egoten ezarritako balioespenarekin edo espediente horien izapidetzetan sortzen diren atzerapenekin.

Bestalde, azpimarratzekoa da jabetza pribaturako eskubidearen edukia eskubide horri Konstituzioak egokituriko gizarte funtzioak mugatzen duela. Hori dela-eta, lursail bateko jabeak eraikitzeke jasaten duen muga eta zorua udalaren hirigintzako plangintzarekin bat etorri erabiltzeko duen betebeharra justifikatu egiten dira gure hiri eta herrien arrazoizko garapenaren gizarte interesarekin. Aitzitik, herritar asko ez daude ados udalaren plangintzan lursail jakin bati emaniko kalifikazioarekin edo harentzako aurreikusitako erabilerekin. Hirigintzako antolamenduan, diskrezionalitate teknikoaren muga erreklamazio horiek baldintzatzen dituen ezaugarria da, botere desbiderapeneko salbuespenetan edo hartutako irizpidearen justifikaziorik inola ere ez egotea gertatzen bada.

Herritarrek, halaber, euskal udal askok hirigintzako diziplinen eskumenetan esku-hartze falta edo atzerapenak izatea planteatzen dituzte. Eskumen horiei ezin zaie ezezkoa eman eta udal plangintza eta hirigintzako legeak benetan betetzen direla bermatzera zuzendurikoak izan behar dira.

4. GIZARTE ESKUBIDEAK (GIZARTE ETA EKONOMI POLITIKAREN PRINTZPIO GIDARIAK)

4.1. FAMILIAREN BABESA. ADINGABEEN ESKUBIDEEN BABESA

Espainiako Konstituzioaren 39.1. eta 4. artikulua

“1. Aginte publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko dute.”

“4. Umeek nazioarteko euren eskubideak zaintzeko hitzarmenetan ezarritako babes izango dute.”

Familiari laguntzeko neurrien aplikazioak zenbaitetan keax eragiten ditu, eta administrazioaren jardunarekiko edo arau horiek arautzeko moduarekiko desadostasuna agertu ohi da horietan.

Seme-alaba adingabeak zaintzeko lanaldia laburtu edo eszedentzia eskatu nahi duten emakumeei eta gizonei ematen zaizkien laguntzei dagokienez, hainbat kexa jaso dira ere eskaerak ebazteko eta ebazpen horiek jakinarazteko 6 hilabeteko epearengatik. Erreklamatzailleek uste dute epe hori luzeegia dela, laguntzaren izateko arrazoari berari garrantzia kenduz. Izan ere, hura eraginkorra izateko, beharrezkoa da eskaeraren ondotik berehala gauzatzea.

Laguntza hauen esparruan, Arartekoaren iradokizuna aipatu behar dugu halaber. Horren bidez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eskatu diogu hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten familien aldeko diru-laguntzak erregulatzen dituen araudian familiako diru-sarrerak zenbatzeko berariazko sistema barnera dezala, diru-sarrerak zenbatu zirenetik diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu den arte, heriotza, banantzea, dibortzioa, etab. bezala salbuespenezko inguruabarrak dauden kasuetan aplikatu ahal izateko.

Eremu honetan ateratako beste gai batzuk zerikusia dute familia ugaria izatea onartzearekin berriz egituratutako familien kasuan eta hirugarren semea edo alaba bikote berriaren baitan jaiotzen denean. Kasu horietan, familia ugariak babesten dituen 40/2003 Legeak dio guraso horiek –biek bikotekide berriarekin hirugarren seme-alaba izanez gero– ados jarri behar dutela horietatik familia ugariaren titularra nor izango den zehazteko.

Halaber, kexatzeko arrazoi izan da 40/2003 Legeak ez duela familia ugarizat onartzen guraso bakarrarekin eta bi ondorengorekin eratutako familia, gurasoa bananduta, dibortziatuta edo alarguna ez bada. Kasu horietan, aldiz, legeak onartzen du familia ugariaren ezaugarria.

Familiaren babesik gabeko haur eta nerabeei dagokienez, berriz ere hainbat arazo antzeman dira **familia-biltokiei** dagokienez: egoitzen segurtasunarekin, inpartzialtasunarekin, kudeaketa sistemarekin... zerikusia duten arazoak dira. Gure erkidegoan dauden zazpi biltokien artean sumatutako egoera-aldeengatik are beharrezkoagoa da oinarrizko araudia. Horri dagokionez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak landuta du jada dekretu zirriborroa, baina oraindik ez du argitara eraman.

Behar berdina ikus daiteke **harrera-zentroen araudiari** dagokion eremuan eta ezaugarri fisikoak, bizikidetasun arauak, hezitzaileen lantaldeak, hura osatzen dutenen

eskubide eta beharrak eta abar bezalako gai zehatzetan. Baliabide horietatik gehienak esparru arautzailerik ez duten elkarteez kudeaturikoak dira hitzarmen bidez. Esparru arautzaileak segurtasun handiagoa emango lieke haien jardueri.

Harrera-zentro horiek bete beharreko baldintzak edo gutxieneko betekizunak arautzea bereziki presakoa eta beharrezkoa da **bakarrik dauden adingabe etorkinei** zuzendutako zentro eta baliabideen kasuan.

2007an adingabe horiei eragiten dieten arazo gehienak mantendu edota areagotu egin dira: zentroak neurritz gain beterik egotea (larrialdiko harrerakoak batez ere), gatazkak eta irudi publikoa gatazkatsuak izatearena izatea, irizpide batasunik ez egotea hezur proben emaitzei eta adingabearen dokumentazioari eman behar zaion balioari dagokienez, dokumentazioa izapidetzerakoan mantsotasuna izatea, emantzipazioa ahalbidetzeko baliabide eskasia egotea, erkidego edo lurralde ezberdinen artean irizpide komunik ez izatea... Dударik gabe, adingabeen eskubideen ikuspegitik egoera kezkgarriena da eta, ziurrenik, ebazpen zailenetako bat, bai, behinik behin, egun eskura dauden baliabideekin edo gaur arte erabilitako irizpideekin.

Gaitzesgarria da zenbaitetan jazotzen den gizarte eztabaida, normalean harrera-zentrotan batean sortutako inguruabarren baten ondotik. Eztabaida horrek talde osoa estigmatizatzea ekartzen du eta erakundeentzat ere zailtasuna bihurtzen da baliabide berriak sortzerakoan.

Aldiz, posible da praktika onak azpimarratzea adingabe horien prestakuntza profesionala, laneratzea edo tutoretzapeko etxebizitzetara emantzipatzea bezalako eremuetan.

Adingabe lege-hausleei dagokienez ere, edo adingabearen zigor erantzukizunaren legeak izan beharreko izaera zigortzailearen neurriari dagokionez, gizarte eztabaida dago eta, neurri batean, larritasun handiko edo gizarte garrantziko gertakariak pizturikoak izaten dira.

2006 eta 2007ko datuek erakusten dute esku-hartze judiziala altua dela oraindik (inhibizioaren edo zigorgabetasun ideiak alde batera utziz), nahiz eta alde nabarmenak dauden epaitegien artean neurriak aplikatzerakoan. Zentzu horretan, erabil daitekeen neurri multzoa geroz eta handiagoa da, eta bitartekotzak edo gizartearen mesederako lan egiteak indar handia izaten dute. Hori oso positiboa dela iruditzen zaigu. Aldiz, elementu negatibo modura, askatasuna gehien mugatzen duten neurriak (barneratzeak) areagotzea nahiz neurri horien xede diren adingabeen ezaugarri batzuk azpimarratu behar dira: babes sistemetatik etorritako adingabeak, bakarrik dauden adingabe etorkinak, senideak erasotzen dituzten adingabeak, legea berriro hausten dutenak, burutik gaixo dauden adingabeak eta/edo drogen kontsumo gatazkatsuak...

2007an nabarmenki zabaldu da barneratze neurriak betetzeko utzitako plaza kopurua eta, halaber, ingurune irekian neurriak aplikatzera zuzendutako baliabideak eta akordioak ere areagotu egin dira.

Hezkuntza-premia berezi edo berariazkoak dituzten talde batzuen eskolatzearen arloan, berriro ere azpimarratu behar dugu beharrezkoa dela ikasle horien banaketa orekatua bermatzea (gizartean eskola-ghettotzat edo bereziki gatazkatsutzat jotako ikastetxeen eraketa saihesten saiatuz) eta laguntzak eta baliabideak banatzerakoan konpentsaziozko irizpideak erabiltzea.

Azkeneko ikasturtean ezintasunen bati uztartutako hezkuntza-premia bereziko ikasleen kopuruak behera egin duela ikusi da, ikasle etorkin kopuruak bezalaxe. Ezinezkoa izan da ijito herriko ikasleen edo sozialki kalteturiko ikasleen bilakaera aztertzea.

Sistemaren berdintasuna bermatze aldera, uste dugu beharrezkoa dela adierazitako sektoreetako eskolatze baldintzen gaineko jarraipena egitea eta, batez ere, haiek ikasteetan eskuratutako emaitzen gainekoa egitea (arrakasta eta porrot tasak).

Haur edo nerabeen buruko osasunari eman beharrek arreta lehenetsuzko gai bezala nabarmentzen jarraitzen dugu. Biztanle tarte batzuentzako edo arazo jakin batzuetarako, gure sistemak ez du baliabiderik. Beste arazo edo adin batzuen kasuan, erakunde honek bildutako iritzi eta datu guztiak ikusita, eskura dauden baliabideak eskasak dira argi eta garbi, eta atsekabe maila altua eragiten dute. Are gehiago esanda, arazo gehieneko kasuetan baliabide faltak ekartzen du adingabeak baliabideak badituzten beste erkidego batzuetara bideratzea.

Adingabeak atxilotzeko baldintzei dagokienez, berriro ere ikusi ahal izan da komisaria batzuk ez dutela adingabeak izateko berariazko tokirik. Gainera, 2007an indarra neurritz gain erabili ahal izan delako jaso diren kexa gehienak adingabe edo gazteen atxilotetean izandako gertaerengatik jaso dira.

Eskolako jazarpenari dagokionez, erakunde honek izapideturiko kexa-kopurua ia izapideturikoena baino urriagoa izan da. Horrelako egoeren gaineko kontsulta edo salaketen zati handi bat hezkuntza-sistemara berara eraman da, eta hark bere esku-hartze protokoloak eduki eta berrikusi ditu. Ikasleen eskubideen eta betebeharren dekretua oraindik aldatu zain dago.

Aztertutako gaietatik bat bereziki kezagarritzat jotzen hasita erakunde honi egokituriko eskubide ikuspegitik, hura, dudarik gabe, bakarrik dauden adingabeen arazoarena, adingabeen buruko osasuneko arazoei emaniko erantzun eskasarena eta babeserako zentroak edo biltokiak bezalako baliabideak arautzeko oinarrizko araudirik ez izatea litzateke.

4.2. OSASUNERAKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua

“1. Osasuna babestua izateko eskubidea onartzen da.

2. Aginte publikoen eskuetan dago osasun publikoa antolatu eta babestea, neurri prebentibo eta prestazio eta zerbitzu beharrezkoen bitartez. Legeak ezarriko ditu guztion eskubide eta betebeharrak, honi dagokionez

3. Aginte publikoek osasun-hezkuntza, hezkuntza fisikoa eta kirola bultzatuko dituzte. Aisiaren erabilpen egokia ere erraztuko dute.”

Osasun sistemak duen arazoetako bat **gaixo kronikoak** dira. Hauek, gero eta gehiago, elkarrean biltzen dira beren eskubideak babesteko. Azken urteotan epidermiolisi bullosa, arantza bifidoa eta hidrozefalia, fibromialgia eta neke kronikoa edo hiesa bezalako gaixotasunak dituzten pertsonen egoera aztertze beharra sortu da. Arazo garrantzitsua eragindako pertsonen gain hartu behar dituzten gastu eskergak eta horiek finantzatzeko modua dira, gaixotasunei emaniko tratamenduaz gain.

Oso kezagarria da **buruko gaixotasunen** eremuan buruko gaixotasun kronikoa dutenen egoera. Kasu askotan eskizofrenia edo buruko beste gaixotasun larri eta kroniko batzuk dituzten pertsonen tratamendua uzten dute, eta horrek berretura psikotikoa izateko aukera areagotzen du. Hori dela-eta, berriro ere azpimarratu behar dugu beharrezkoa

dela nahitaezko tratamendu anbulatorioaren eta horretarako behar izan daitezkeen araudi aldarazpenen gaineko hausnarketa egitea. Beharrezkoa da buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonentzako bizitoki baliabide alternatiboen proiektu bateratua eta berariazkoa sortzea, errehabilitazio psikosozial osoko proiektu global baten esparruan.

Halaber, komenigarria da gure espetxeetan dauden eta buruko osasuneko arazo larriak dituzten pertsonen egoera eta espetxe psikiatriko errehabilitatzaileen beharra gogoraraztea.

Haur eta gazteei dagokienez, azpimarratzekoa da garrantzitsua dela buru osasuneko arazoak dituzten adingabe horiei zuzendutako baliabideak jartzea hiru lurralde historikoetan, adibidez eguneko terapia- eta hezkuntza-zentroak.

Diabetes gaixoen taldearen zailtasunak oraindik ez dira ebatzi ikastetxeen eremuan, batez ere egunero glukemia kontrolak egitea zaila izateagatik eskola-orduetan.

Halaber, euskal osasun sistemak gorren zailtasunei aurre egiteko neurri handiagoan esku hartu behar duela ere aipatu da. Arazo ugari daude entzumen urritasuna duten adingabeei emaniko laguntzan, ezintasunaren jatorria jaiotzekoa edo ondoren hartutakoa izatean.

Sendagai batzuk hornitzearen arazoagatik keaxak ere planteatu dizkigute. Antza, zenbait sendagai ez da beti farmazia guztietara iristen eta hori herritar guztiek behar duten sendagaia behar dutenean eta behar duten tokian segurtasun eta eraginkortasun baldintzetan eskuratzeko helburuaren kontra doa.

Laguntza soziosanitarioaren garapena gauzatu beharreko erronka handietako bat da. Beharrezkoa da Euskadin arreta soziosanitarioa garatzeko plan estrategikoan jasota dauden aurreikuspenak tinko bultzatzea. Ezinbestekoa da baliabide nahikoak sortzea gero eta ugariagoak diren beharrei erantzun ahal izateko.

4.3. INGURUMEN EGOKIA IZATEKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 45. artikulua

“1. Herritar guztiek dute pertsonaren garapenerako ingurumen egokia izateko eskubidea, baina hura zaintzeko betebeharra ere.

2. Aginte publikoek baliabide naturalen zentzuzko erabilpena zainduko dute bizimodua babestu eta hobetzeko, guztien elkartasun ezinbestekoan oinarriturik.

3. Aurreko atalean ezarritakoa urratzen dutenentzako, zigor penalak ezarriko dira legeak esaten duenaren arabera, edo behar denean zigor administratiboak ere bai, eta eragindako kaltea ordaindu beharko dute.”

Ingurumenaren arloan jasotako kexa gehienak udal baimenen araubidearen pean dauden **jarduera sailkatuen** zarata, usain eta keen ondorioz herritarrek jasaten dituzten eragozpenen ingurukoak dira.

Kexarik gatazkatsuenak ostalaritza establezimenduen funtzionamenduaren ondorioz sortzen diren eragozpenen ingurukoak izan dira. Kexa horietan, aipatutako jarduerak sortzen dituzten zaratek ekarritako eragozpenak salatu dituzte. Honakoak dira zaraten arrazoiak: lokalak ez daude akustikoki isolatuta edo musika-kateak gehiegi erabiltzen dira

eta musika-kate horietan instalatuta dauden potentzia-mugatzailleak edo ainguraketa-sistemak manipulaturik daude.

Kasu askotan ikus daiteke, horrelako jarduerak eragindako eragozpenak arintzeko neurriak hartzerakoan, udalen partetik utzikeria edo gehiegizko pasibotasuna dagoela, eta hori kasuan kasuko jarduerak eta irekiera-lizentziak baimentzen dituen administrazioa izanda ere.

Lokalak eta merkataritzarako lonjak gazteak elkartzeko lokal bezala erabiltzearen fenomenoak hainbat kexa planteatzea ekarri du horietan sortutako zaratek sortutako eragozpenak jasaten dituzten pertsonen partetik. Izan ere, horietan musika-ekipoak eta beste hainbat gailu instalatzen dituzte, lokal horiek adierazitako funtzionamendurako gaiturik egon gabe. Salatutako jarduerak horiek beharrezko jarduerak lizentziarik gabe egiten direla egiaztatzen duten udal batzuek lokalak ixteko erabakia hartu dute, horiek ingurugiroa babesten duen 3/1998 Legearekin bat etorritik legezko bihurtu arte.

Halaber, txoko edo elkarte gastronomikoen eragindako eragozpenak planteatzen dira, kasu askotan ez direlako auzokoei zaratak eta eragozpenak saihesteko egokiturik egoten.

Beste jarduerak batzuk, gimnasio edo hartz klinika batek adibidez, eragozpenak sortu dituzte eta kexa eragin dute.

Herritar ugari daude kezkatuta oso kutsatzaileak diren **industriako jardueren** eraginpean egotearen ondorioz jasaten dituzten eraso eta nahasteek osasunerako eta ingurumeneko eskubidean izan dezaketen eraginaz. Zoritxarrez, kasu gehienetan administrazio eskudunek ia-ia ez dute kontrolik egiten instalazio horien gainean.

Bestalde, garrantzitsua da landa-eremuko herrietako biztanleek abeltzaintzako jarduerak edo abereak ukuiluratzeko jarduerak sortzen dituzten arazoengatik aurkeztutako salaketa-kopurua. Aipatu jarduerak sortzen dituzten usain txarrak kritikatzeko, baita epidemiak izateko nahiz gaixotasun kutsakorrek zabaltzeko dakartzaten arriskuak ere, elementu zuzentzaileak aplikatzen ez direlako edo oker aplikatzen direlako.

Argi-kutsadura herritar batzuk planteaturikoa izan da, kezka agertu baitziguten argi intrusioak ingurumenean izan dezakeen eraginagatik. Azpimarratu beharrekoa da gure autonomia erkidegoan ez dagoela gaia arautzeko araudirik.

4.4. ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua

“Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea. Aginte publikoek beharrezko baldintzak sustatu eta behar diren arauak ezarriko dituzte eskubide hori gauzatzeko, luraren erabilpena interes orokorrenekin bat arautuz, espekulazioa galarazteko.

Gizarteak erakunde publikoen hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan parte hartuko du.”

Euskal herritar batzuen arazoetako bat etxebizitza duina eskuratu ahal izateko zailtasun objektiboa izatea da. Botere publikoak etxebizitza babestuen sorrera bultzatzen aritu dira, merkatu librean etxebizitza erostea ezinezko dutenei etxebizitza eskuratzeko posible

egiteko beste neurri batzuekin batera. Neurriak bereziki zuzendu zaizkie etxebizitza-premia larria duten sektore horiei.

Horren haritik, gazteentzako EAEko etxebizitza-politika publikoei buruzko ezohizko txostena nabarmendu behar dugu. Txosten horren bidez, arlo horretan eskumenak dituzten botere publiko guztiei zera gomendatzen zaie: batez ere alokairuko etxebizitza babesturako erabil ditzatela etxebizitza-politiketarako eman zaizkien baliabide publikoak; ahaleginak egin ditzatela alokairuaren eskaintza erakargarriagoa sortzeko (etxebizitza babestuen errentaren prezioei eta maizterrentzako egonkortasunari dagokienez); alokairuko etxebizitzak sustatu eta kudeatzeko formulak bila daitezela, gastu publikoa ahalik eta gutxien haziz, alokairuko etxebizitzen parke publikoak modu eraginkorrean sortu ahal izateko; gehitu daitezela alokairurako oro har ematen diren zuzeneko laguntzak edo zeharkakoak (zerga-arlokoak); toki erakundek prozesu horretan parte har dezatela, alokairuko etxebizitza babestuari buruzko programa bereziak ezarriz; emantzipatzeko bidean dauden gazteentzat, aldi baterako bizitokien figura berria sortzen lagun dezatela, zuzkidurazko ekipamendua duten lur-zatietan.

